E U S K E R A

Euskaltzaindiaren lan eta agiriak
Trabajos y actas de la Real Academia de la Lengua Vasca
Travaux et actes de l'Académie de la Langue Basque



EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

EUSKALTZAINDIAREN XIII. BILTZARRA

Leioa, 1994.10.03-07

1994, 3
39. liburukia (2. aldia)
BILBO

EUSKALTZAINDIA

Plaza Barria, 15. 48005 Bilbo

Argitalpenen-Batzordea / Comisión de Publicaciones:

Burua:	Jean Haritschelhar
Kideak:	Juan Mari Lekuona Endrike Knörr J. A. Arana Martija Patxi Altuna Txomin Peillen Ibon Sarasola
Eragile eta idazkaria:	Ricardo Badiola Uriarte


© Euskaltzaindia

ISSN. 0210-1564
Euskera
ISBN. 85479
Legezko Gordailua BI-1.244-58

Fotokonposaketa: Rali. Particular de Costa, 12-14 - 48010 Bilbo

Elkar, E. Koop. grafikagintza. Autonomia, 71 - 48012 Bilbo

Aldizkari hau beste agerkariekin trukatzen da. Otoi, idatz Zuzendariari.
Esta **Revista** admite el intercambio con otras publicaciones. Se ruega dirigirse al Director.


1918-19
75
1993-94
URTE
EKIN ETA JARRAI
EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

AURKIBIDEA

LEIOA, 1994.10.03

Juan José Goiriena, Euskal Herriko Unibertsitateko errektorea, *Euskaltzaindiari ongi etorria* 643

Jean Haritschelhar, euskaltzainburua, *Euskara batuaren 25. urtemuga* 645

Luis Villasante Kortabitarte, *Euskara batuaren filosofiaz* 647

Pello Salaburu, *Euskara batuaren egungo premiak* 675

XIII. Biltzar ***araudia*** 701

HIZTEGIGINTZA

Joseba Butron, *Ortografi gomendio batzuei buruzko gogoeta* 705

Miren Lourdes Oñederra, Euskal Filologia: UPV/EHU, *Ortografiazko arazoak:* ***Esploradore*** *ala* ***exploradore*** 711

Jose Ramón Etxebarria, Kepa Altonaga, Martxel Ensunza, J.M. Txurruka, *Zergatik gorde* ***X*** *letra maileguzko hitzetan* 717

Izaskun Etxebeste, Koro Segurola, EHHA. Euskaltzaindia, ***Bat-batzuk*** *eta* ***nor(tzuk) - zein(tzuk)*** *ahozko hizkuntzan, (Euskal Herriko Hizkuntz Atlaseko datuen arabera)* 723

Igone Zabala Unzalu, *Laburtzapenen deklinabidea* 735

Juan Carlos Odriozola, *Formulazio kimikoa eta euskal deklinabidea* 743

Antton Elosegi Aldasoro, *Euskaltzaindiaren gomendio-arauen idazkeraz: letra larriei buruzkoaren kasua* 755

Fito Rodríguez Bornaetxea, *Hitz elkartuen lehen osagaiaren bukaera* ***-a-*** *delarik* ***hizkuntz/a*** *salbuespenarekin batera* ***hezkuntz/a*** *onartzearen aldeko emendakina* 763

LEIOA, 1994.10.04

Mikel Zalbide, *Hitz elkartuen osaera eta idazkera: gomendio-arauak prestatzeko erabili diren irizpideak* 767

Esther Zulaika Ijurko, *Aditzoina Ioanes Leizarragagan* 785

Juan Luis Goikoetxea, *Bizkaieraren aberastasunetarik zeintzuk diren batuan sartu beharrekoak* 795

GRAMATIKA

Gramatika batzordea 831

Gramatika batzordearen Jardunaldiak 833

I. Batasunerako proposamenak 835

II. Okerrak zuzenduz 911

Gramatika batzordearen ***adierazpena*** 967

B. Oyharçabal, *Hikako adizkeren paradigmen aurkezpena* 969

Jabier Alberdi Larizgoitia, EHU/UPVko irakaslea, *Hitanoa non eta nork erabiltzen duen* 983

G. Aurrekoetxea, EHHA. Euskaltzaindia, *Hitanoa ahozko hizkuntzan (Euskal Herriko Hizkuntz Atlasaren arabera)* 995

Alan King, *Aditz modalen erabilpena dela eta* 1009

Alfonso Mujika, Elhuyar Kultur Elkartea, ***Neurtu*** *aditzaren erabilera berriaz* 1023

Iñaki Azkune Mendia, Elhuyar Kultur Elkartea, ***Neurtu*** *aditzaren erregimenaz* 1025

Julio García, Kepa Altonaga, Martxel Ensunza, Jose Ramon Etxebarria, ***Neurtu*** *aditzaren erregimenaz* 1027

LEIOA, 1994.10.05

LEXIKOGRAFIA

Lef batzordea 1037

Eratorpenaz 1039

Hiztegi Batuko batzordea 1059

Euskaltzainburuaren sarrera hitzak 1061

Mikel Zalbide, *Maileguzko hitzen zenbait muga-arazo* 1063

Jose Antonio Aduriz, *Hiztegi batua lantzeko irizpideak: aurkezpen-hitzak* 1087

Hiztegi Batuko batzordea, *Hiztegi batua osatzeko irizpideak* 1093

Elixabete Perez Gaztelu, *Koldo Mitxelenaren zinema-kritiketako hitz elkartuak* 1111

Elixabete Perez Gaztelu - Marilis Telletxea, *Koldo Mitxelenaren zinema-kritiketako hitz eratorriak* 1129

Jose A. Aduriz - Miriam Urkia, *Hiztegi batuaren datu-base lexikografikoa* 1159

Jose Antonio Mujika, *Noiz **g(e,i)** eta noiz **j(e,i)** latinetiko mailegu 'berrietan'* 1163

Iñaki Ugarteburu - Jon Irazusta, *Osasun zientzietako laburtzapenak* 1173

LITERATURA

Literatura batzordea 1185

Juan Mari Lekuona, *Euskal estrofez* 1187

Patxi Altuna, *Bertso lerroa* 1221

Pello Esnal, ***Puntua** bertsolaritzan* 1233

Andonio Sagarna, *Hiztegi teknikoak* 1271

Andres Urrutia Badiola, *Euskal hiztegi juridikoa* 1279

LEIOA, 1994.10.06

ONOMASTIKA

Onomastika batzordea 1303

E. Knörr, *Sarrera hitzak **Exonomastikaz*** 1305

M. Teresa Espinal, Universitat Autònoma de Barcelona, *Criterios lingüísticos para la traducción de los nombres propios al catalán* 1309

Xabier Mendiguren Bereziartu, *Euskaltzaindiko Exonomastika azpibatzordearen proposamenak: historia eta irizpide nagusiak* 1333

Xabier Kintana, *Mitologi eta astronomi izenen inguruan* 1355

Xabier Kintana, *Espainia-Frantzietako eskualde-probintzien eta Europako toponimia historikoa* 1363

Xabier Kintana, *Europako eta aldirietako toponimia historikoa* ... 1371

Antton Gurrutxaga, *Gainerako Exonomastikaz* 1387

Gidor Bilbao Telletxea, *Latin jatorriko izen bereziak euskal idazleetan* 1395

Andres Iñigo - Patxi Salaberri, *Nafarroako antroponimia XVI. eta XVII. mendeetan* 1415

V. Onomastika Jardunaldiak ***Exonomastikaz****. Adierazpena* 1423

V. Jornadas de Onomastika sobre ***Exonomástica****. Comunicado* 1425

V^e Session d'Onomastique, à propos ***d'Exonomastique****. Conclusions* 1427

Iñaki Irazabalbeitia, *Munduko estatuak, beren hiriburuak eta akzidente geografiko nagusiak* 1429

Iñaki Irazabalbeitia, *Munduko zenbait akzidente geografiko* 1441

Iñaki Irazabalbeitia, *Alfabeto latinoz idazten ez diren hizkuntzen transkripzio eta transliterazioa* 1451

Iñaki Irazabalbeitia, *Exotoponimoen jentilizioak osatzeko arauak* 1473

Xabier Kintana, *Ponte-izenak, Espainia-Frantzietako eskualde-probintzien eta Europako toponimia historikoa* 1477

Patxi Salaberri Zaratiegi, *Nafarroako toponimia nagusia. Arazoak* 1485

Amaia Boneta, *Hiribarrenen* ***Eskaldunac*** *poemako izen bereziak* 1491

LEIOA, 1994.10.07

AHOSKERA

Ahoskera batzordea 1303

AHOSKERA BATURANTZ (I, II, III)

Miren Lourdes Oñederra, *Ahoskera araupetzeaz (I)* 1523

Pilartxo Etxeberria, *Hizkera jasoaren ingurukoak (II)* 1527

Miren Lourdes Oñederra, *Abiaburu zehatz batzuk (III)* 1533

Patxi Altuna, *Hitz pareak* 1543

José Ignacio Hualde, University of Illinois, *Euskal azentuak eta euskara batua* 1547

José Ignacio Hualde, University of Illinois, *Euskal azentu ereduen sailkapenerako* 1569

Itziar Aduriz, Izaskun Aldezabal, Joxe Mari Arriola, Xabier Artola, Miriam Urkia, *Euskararen normalizazioa eta linguistika konputazionala* 1579

Miren Lourdes Oñederra, *Ahoskera araupetzeaz* 1589

.....

XIII. BILTZARRA: ADIERAZPENA

*Euskaltzaindiaren Leioako **adierazpena*** 1607

.....

Endrike Knörr, Euskaltzaindiaren idazkaria, *XIII.Biltzarra egunez egun* 1611

XIII. BILTZARRA

Egitaraua

Euskal Herriko Unibertsitatearen Leioako campusean

1994ko urriaren 3tik 7ra

94.X.03

Astelehena

GOIZEKO SAIOA

Moderatzaileak: J. Haritschelhar eta J. M. Lekuona

9.30: Jendea hartzea eta txartelen banaketa.

10.30: Hasiera: euskaltzainburuaren eta Euskal Herriko Unibertsitateko erretorearen ongi etorria.

11.00: ***Euskara batuaren filosofiaz***
Luis Villasanteren hitzaldia.

12.00: Atsedenaldia. Euskal Herriko Unibertsitateak hamaiketakoa eskainiko dio Euskaltzaindiari.

12.30: ***Bilzarraren ibilbideaz eta helburuaz: euskara batuaren egungo premiak***
Pello Salabururen hitzaldia.

ARRATSALDEKO SAIOA

Moderatzaileak: J. Haritschelhar eta J. M. Lekuona

15.30: ***Euskaltzaindiaren gomendio-erabakiak (I):***
- **Agiria euskal hitzei buruz**
- **Letra larrien erabilera**
- **Deklinabidea: *bat/batzuk; nor/nortzuk***
- **Zenbakiak eta ordinalak**
- **Zenbait aukeraren zergatia: *arabera, iritzi, baitu, aurrealde, usain, -zio, arazi***
- ***hau guztia, nornahi***

Ibon Sarasolaren hitzaldia

16.45: Atsedenaldia

17.00: Txostenak:

- ***Ortografia-gomendio batzuei buruzko gogoeta.***
  Joseba Butron
- ***Ortografiazko arazoak:* esploradore ala exploradore.**
  Miren Lourdes Oñederra
- ***Zergatik gorde* x *letra maileguzko hitzetan.***
  Martzel Ensunza, J. R. Etxebarria, Kepa Altonaga
- **Bat/batzuk *eta* nor/nortzuk *Euskal Herriko Hizkuntz Atlaseko datuen arabera.***
  Koro Segurola, Izaskun Etxebeste
- ***Laburtzapenen deklinabidea.***
  Igone Zabala
- ***Laburdura-sistema berezi bat. Konposatu kimikoen formulazioa.***
  Juan Karlos Odriozola
- ***Euskaltzaindiaren gomendio-arauen idazkeraz: letra larriei buruzkoaren kasua.***
  Antton Elosegi

94.X.04

Asteartea

GOIZEKO SAIOA

Moderatzaileak: P. Altuna eta P. Salaburu

9.30: ***Euskaltzaindiaren gomendio-erabakiak (II). Hitz elkartuak: irizpide nagusiak eta banan-banako arauak:***

- **Hitz elkartuen erabilpen eremua; hitz junturako hots aldaketak: hots legeak; lehen osagaiaren amaiera *-a* denean: galdu ala ez; berrelkarketa; bereiz idazteko hitz elkartuak; marrarekin idazteko diren hitz elkartuak; loturik idazteko diren hitz elkartuak; marrarekin edo bereiz idatz daitezkeen hitz elkartuak; marrarekin edo loturik idatz daitezkeen hitz elkartuak.**
  Mikel Zalbideren hitzaldia

10.45: Atsedenaldia

11.00: Txostenak:

- ***Aditzoina Ioannes Leizarragagan.***
  Esther Zulaika
- ***Bizkaieraren aberastasunetarik zeintzuk diren batuan sartu beharrekoak.***
  Juan Luis Goikoetxea

11.30: ***Gramatikari buruzko proposamenak (I).*** Batasunerako proposamenak. Gramatika batzordearen zenbait proposamen euskara batuari buruz:

— **Diptongoz amaitzen diren izenen deklinabidea; *hori eta, hori edo* eta horrelakoen idazkeraz; orduak nola esan; *ezkero/ -ez gero*; zenbait aditzen erregimena *(gonbidatu, iguriki, itxaron, itxoin, deitu)*; baldintzaren ondorioetako egingo nuen bezalakoak; *betiko* eta *betirako*; *ekartzea merezi du*; partitiboa baiezko perpausetan; *egiteko asmoz, egin asmoz; zu (izan) ezik*; juntagailuei buruzko gomendioak; data nola adierazi; *hiru kilo(ta)ko.***
Patxi Goenagaren hitzaldia

ARRATSALDEKO SAIOA

Moderatzaileak: P. Altuna eta P. Salaburu

15.30: ***Gramatikari buruzko proposamenak (II). Okerrak zuzenduz.*** Egun hedatzen ari diren badaezpadako zenbait esamolderi aurre egin beharra:

— ***Honezkero / dagoeneko; iraun, balio, kosta, luzatu, neurtu, pisatu; *bost durotan garestitu; *topikoa bihurtu; ez daukazu zertan negar egin beharrik; baita ere / ezta ere; ongi etorri!; *bazkaria eta gero / bazkaldu eta gero; *hitzaldia medio / hitzaldia dela medio; *hobe esan / hobeto (hobeki esan); -tazko; *elkar ondo moldatu; galdera itsusietaz*; partitiboa eta aditz komunztadura; *-a* bokalarekin amaitzen diren izenen mugagabeko kasuak; *-z* instrumentalaren zenbait erabilera oker; *berri* vs. *beste bat / beste batzuk*; konpletiboen inguruko gora-beherak; baldintzazkoak; konparazioak; ****guztiei gonbidatzen zaie; kanpo ministroak dimiti lezake.***
Patxi Altunaren hitzaldia

16.45: Atsedenaldia

17.00: ***Hitanoaz:***

— **Erregulartasuna, bai/ez; tradizioa / oraingo hedadura; *-i* bai ala ez *(niagok / nagok); nagok / negok eta zagok / zegok; zabilak / zabilek; ditiat / dizkiat; niake / nikek.***
Beñat Oihartzabalen hitzaldia

18.15: Txostenak:

— ***Hitanoa non eta nork erabiltzen duen.***
Xabier Alberdi

— **Neurtu *aditzaren erregimenaz.***
Iñaki Azkune

— **Neurtu *aditzaren erregimenaz.***
Julio Garcia, Martzel Ensunza, J. Ramon Etxebarria, Kepa Altonaga
— ***Hitanoa ahozko hizkuntzan Euskal Herriko Hizkuntz Atlasaren arabera.***
Gotzon Aurrekoetxea

94.X.05

Asteazkena

GOIZEKO SAIOA

Moderatzaileak: Beñat Oihartzabal eta Miren Azkarate

9.30: ***Hiztegigintza (I). Eratorpenaz***
Zenbait atzizkiren tradiziozko erabilera eta azken urteotako desbiderazioak:
— **Atzizkien lema eta aldaerei dagozkien arazoak: *-ari/ -kari; -ar/-tar; -go/-goa; -garri/-karri;-gailu/-kailu; -gia/-gü; -sko/-xko; -ska/--xka.***
— **Oinarriaren kategoriatik datozen auziak: izena + *-ari*; izena + *-tegi*; aditzoina + *-tegi*; izena + *-gailu.***
— **Ez dagokion adiera edo balioa ematetik datozen akatsak: *-go; -garri; -kor; -kin; -kari.***
— **Erdal mailegu eratorrietatik datozen atzizkiak: *-ari* (ala *-ario?*); *-ari* (ala *-tzaile?*)**
Miren Azkarateren hitzaldia

10.45: Atsedenaldia

11.00: Txostenak:
— ***Mitxelenaren zine kritiketako hitz elkartuak.***
Elixabete Perez
— ***Mitxelenaren zine kritiketako hitz eratorriak.***
Maria Luisa Telletxea, Elixabete Perez

11.30: ***Hiztegigintza (II). Aztergai sistematikoak eta irizpideak:***
— **Hiztegi Batuko batzordeak orain arte egindako lanaren zerrendak eta jasotako oharren berri eman.**

– **Batzordeak, batasunerako formak proposatzerakoan, baliatu duen irizpide sorta.**
Ibon Sarasolaren hitzaldia

13.00: Txostenak:
– ***Hiztegi Batuaren datu-base lexikografikoa.***
Jose Antonio Aduriz, Miriam Urkia
– ***Noiz* g(e,i) *eta noiz* j(e,i) *latinetiko mailegu berrietan.***
Jose Antonio Mujika

ARRATSALDEKO SAIOA

Moderatzaileak: Beñat Oihartzabal eta Miren Azkarate

15.30: ***Euskal metrikaz:***
– ***Euskal estrofez.***
Juan Mari Lekuonaren hitzaldia
– ***Bertso lerroa.***
Patxi Altunaren hitzaldia
– ***Puntua bertsolaritzan.***
Pello Esnalen hitzaldia

17.00: Atsedenaldia

17.15: ***Hiztegi teknikoak.***
Andoni Sagarnaren hitzaldia

18.00: ***Hiztegi juridikoa.***
Andres Urrutiaren hitzaldia

19.00: ***AMA LUR*** *filmearen emanaldia.*

94.X.06

Osteguna

GOIZEKO SAIOA

Moderatzaileak: J. A. Arana eta E. Knörr

9.30: Endrike Knörren sarrera-hitzak Exonomastikaz

9.45: ***Exonomastika (I). Batzordearen proposamenak, historia eta irizpide nagusiak.***
Xabier Mendigurenen hitzaldia

11.00: Txostenak:
- — ***Kultura-hitzak euskaraz et nomina exonomastica scribendi forma in lingua uasconum.***
  Alfonso Irigoien
- — ***Transliterazio taulez.***
  Iñaki Irazabalbeitia

11.30: Atsedenaldia

11.45: ***Exonomastika (II). Munduko estatu eta hiriburuen izenak eta munduko akzidente geografiko nagusiak.***
Iñaki Irazabalbeitiaren hitzaldia

ARRATSALDEKO SAIOA

Moderatzaileak: J. A. Arana eta E. Knörr

15.30: ***Exonomastika (III). Ponte-izenak eta Espania-Frantzietako eskualde-probintzien eta Europako toponimia historikoa.***
Xabier Kintanaren hitzaldia

16.45: Atsedenaldia

17.00: Mahai-ingurua: ***Euskara batua eta komunikabideak.***
Partaideak: Antton Aranburu, Patxi Petrirena, Igone Etxebarria eta Joxe Aranzabal.
Moderatzailea: Jose Mari Satrustegi

18.15: Txostenak:
- — ***Hiribarrenen* Eskaldunak *poemako izen bereziak.***
  Amaia Boneta
- — ***Nafarroako toponimia nagusia. Arazoak.***
  Patxi Salaberri
- — ***Aditz modalen erabilpena dela eta.***
  Alan King
- — ***Izen arrunt bizigabeen toki-denborazko deklinabide kasuak Hegoaldeko parte batean.***
  Mitxel Kaltzakorta

94.X.07

Ostirala

GOIZEKO SAIOA

Moderatzaileak: J. M. Satrustegi eta X. Kintana

9.30: ***Ahoskera (I). Azentua eta euskara batua.***
Jose Ignacio Hualderen hitzaldia

10.45: Txostenak:
– ***Hiz pareak.***
Patxi Altuna
– ***Euskararen normalizazioa eta linguistika konputazionala.***
Itziar Aduriz, Izaskun Aldezabal, Jose M. Arriola, Miriam Urkia

11.15: Atsedenaldia

12.00: ***Ahoskera (II). Ahoskera baturantz?***
Miren Lourdes Oñederraren hitzaldia

ARRATSALDEKO SAIOA

Moderatzaileak: J. M. Satrustegi eta X. Kintana

15.00: Euskaltzaindiaren bilkura

16.00: Mahai-ingurua: ***Euskara batua eta literatura kreazioa.***
Partaideak: Andu Lertxundi, Andolin Eguzkitza eta Juan Garzia.
Moderatzailea: Ibon Sarasola

17.15: **Biltzarraren amaiera:** ondorioak eta agurrak

* * *

Oharra:
Biltzarrean zehar, Euskaltzaindiak sortu zenetik argitaratu dituen liburuen erakusketa egongo da.

HIZLARIAK ETA TXOSTENGILEAK

Itziar Aduriz. UZEIko langilea.
Jose Antonio Aduriz. UZEIko euskal terminologia eta lexikografia zentruko kidea. Euskaltzain urgazlea.
Xabier Alberdi. EHUko irakasle titularra.
Izaskun Aldezabal. EHUko bekaduna.
Kepa Altonaga. EHUko irakasle titularra.
Patxi Altuna. Deustuko Unibertsitateko euskara-katedraduna. Euskaltzain osoa.
Antton Aranburu. *Euskadi* Irratiko kazetaria.
Joxe Aranzabal. Kazetaria, *berripaper*-argitaratzailea.
Aurelia Arkotxa. Bordeleko Unibertsitateko euskara-irakasle titularra.
Jose M. Arriola. Eusko Jaurlaritzako bekaduna.
Xabier Artola. EHUko irakasle titularra.
Mikel Atxaga. *DEIA* egunkariko kazetaria. Euskaltzain urgazlea.
Gotzon Aurrekoetxea. Batxillergo Institutuko euskara-irakasle titularra. Euskaltzain urgazlea.
Miren Azkarate. EHUko euskara-irakasle titularra. Euskaltzain osoa.
Iñaki Azkune. ELHUYAR euskal kultur elkarteko hizkuntz zuzentzailea.
Amaia Boneta. Batxillergo Institutuko irakasle titularra.
Joseba Butron. Batxillergo Institutuko euskara-irakasle titularra.
Andolin Eguzkitza. EHUko irakasle titularra. Euskaltzain urgazlea.
Antton Elosegi. EHUko irakasle asoziatua.
Martzel Ensunza. EHUko irakaslea. Euskaltzain urgazlea.
Pello Esnal. HABEko euskalduntze arduraduna. Euskaltzain urgazlea.
Igone Etxebarria. ETBko euskara-arduraduna.
Jose Ramon Etxebarria. Fisikalaria.
Izaskun Etxebeste. Euskaltzaindiaren Euskal Herriko Hizkuntz Atlas batzordeko inkestagilea eta datu-sartzailea.
Julio Garcia. EHUko irakaslea.
Juan Garzia. Idazlea eta itzultzailea.
Patxi Goenaga. EHUko euskara katedraduna. Euskaltzain urgazlea.
Juan Luis Goikoetxea. Batxillergo Institutuko euskara-irakasle titularra. Euskaltzain urgazlea.
Jose Ignacio Hualde. Estatu Batuetako University of Illinois-ko Gaztelania, Italiera eta Portugesa Departamenduko irakaslea.
Juan Jose Goiriena. Euskal Herriko Unibertsitateko Erretorea.
Jean Haritschelhar. Bordeleko Unibertsitateko irakasle katedradun emeritoa. Euskaltzain osoa eta euskaltzainburua.
Iñaki Irazabalbeitia. ELHUYAR euskal kultur elkarteko zuzendaria.
Alfonso Irigoyen. Deustuko Unibertsitateko euskara-katedraduna. Euskaltzain osoa.
Mitxel Kaltzakorta. Eskoriatzako Irakasle Eskolako irakaslea.

Alan King. Gramatika batzordekidea.
Xabier Kintana. EHUko Euskararen Kabinete burua. Euskaltzain osoa.
Endrike Knörr. EHUko euskara-irakasle titularra. Euskaltzain osoa eta idazkaria.
Emile Larre. *Herria* astekariaren zuzendaria. Euskaltzain osoa.
Juan M. Lekuona. Deustuko Unibertsitateko euskara-katedraduna. Euskaltzain osoa. Euskaltzainburuordea.
Andu Lertxundi. Idazlea. Euskaltzain urgazlea.
Xabier Mendiguren. Itzulpen-irakaslea eta itzultzailea. Euskaltzain urgazlea.
Alfonso Mujika. ELHUYAR euskal kultur elkarteko kidea.
Jose Antonio Mujika. Batxillergoko Institutuko euskara-katedraduna. Euskaltzain urgazlea.
Juan Karlos Odriozola. EHUko irakasle titularra. Euskaltzain urgazlea.
Beñat Oihartzabal. CNRSko (Centre Nationale de la Recherche Scientifique) linguistikako ikerketa burua. Euskaltzain osoa.
Miren Lourdes Oñederra. EHUko irakasle titularra.
Elixabete Perez. Deustuko Unibertsitateko irakaslea.
Patxi Petrirena. *Euskaldunon Egunkaria*ko kazetaria eta euskara-arduraduna.
Andoni Sagarna. EUSENOR euskal kultur erakundeko partaidea. Euskaltzain urgazlea.
Patxi Salaberri. Nafarroako Unibertsitatea Publikoko euskara-irakaslea.
Pello Salaburu. EHUko Erretoreordea eta Euskara katedraduna. Euskaltzain osoa.
Ibon Sarasola. Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko euskara-irakasle titularra. Euskaltzain osoa.
Jose M. Satrustegi. Idazlea. Euskaltzain osoa.
Koro Segurola. Euskaltzaindiaren Euskal Herriko Hizkuntz Atlas batzordeko inkestagilea eta datu-sartzailea.
M. Luisa Telletxea. Deustuko Unibertsitateko Filologia Saileko ikaslea.
Miriam Urkia. UZEIko langilea.
Andres Urrutia. Bilboko notari titularra. Euskaltzain urgazlea.
Luis Villasante. Teologian Doktore. Euskaltzain osoa. Euskaltzainburu ohia.
Igone Zabala. EHUko irakaslea.
Mikel Zalbide. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Euskara Zerbitzuaren burua. Euskaltzain urgazlea.
Esther Zulaika. Deustuko Unibertsitateko irakaslea.

75.Urteurreneko batzordeak

Akademi batzordea

Jean Haritschelhar, burua
Patxi Altuna
Jose Antonio Arana Martija
Miren Azkarate
Endrike Knörr
Juan M. Lekuona
Beñat Oihartzabal
Pello Salaburu
Ibon Sarasola
Luis Villasante

Antolakizun batzordea

Endrike Knörr, burua
Jose Luis Lizundia, idazkaria
Ricardo Badiola Uriarte
Pello Telleria
Juan Jose Zearreta

XIII. Biltzarraren azpiegitura

1. **Idazkaritza-koordinaketa:** Jose Luis Lizundia, Begoña Amundarain, Pello Telleria.
2. **Hornidura, Ostatua:** Juanjo Zearreta, Resu Orbe.
3. **Informazio-bulegoa:** Lutxi Alberdi, Agnes Dufau, Emilio Porras.
4. **Liburu-erakusketa:** Jose Antonio Arana Martija, Nerea Altuna, Kristina Arana, Josune Olabarria.
5. **Argitalpen zerbitzua:** Ricardo Badiola Uriarte, Rosa Maria Arza, Jon Arza, Maixa Goikoetxea.
6. **Prentsa-bulegoa:** Nerea Azurmendi, Itziar Rekalde.
7. **Grabazio eta apainketa-zerbitzua:** *Aurten Bai* Fundazioa.
8. **Argazkiak:** Ander Arana.
9. **Azpiegitura-laguntza:** E.H.U./U.P.V. Leioako campuseko mantenu eta fotokopia-zerbitzua.

LEIOA, 1994.10.03

EUSKALTZAINDIARI ONGI ETORRIA

Juan José Goiriena,
Euskal Herriko Unibertsitateko errektorea

Euskaltzainburua,
Euskaltzainak, Agintariak,
Jaun-Andreak:

Nire izenean eta Euskal Herriko Unibertsitatearen izenean, nire ongi etorririk beroena eman nahi diot etxe honetan Euskaltzaindiari.

Arantzazun jarri ziren euskararen batasunaren oinarriak. Gero Bergaran eman ziren beste urrats batzuk. Hemendik urte batzuetara Leioako biltzarraz hitz egingo dute euskaltzaleek.

Eta hau oso adierazgarria da: euskara, merezi duen tokian jartzen dugulako. Azterketa akademikoak unibertsitateetan egiten dira mundu osoan. Eta hori da gertatzen dena hemen ere.

Zorionez, gaur egun Euskaltzaindia eta Unibertsitatea eskutik doaz, elkarrekin. Euskaltzaindiak aurrera daramatzan proiektuetan Unibertsitateko irakasle asko baitago sarturik.

25 urte igaro dira Arantzazuko Biltzarretik. Beste horrenbeste pasatu dira euskararen batasunaren historian. Hori ez da gehiegi, ordea, hizkuntza honek duen adina kontuan hartzen baldin bada. Hala ere, inork ere ez du ukatuko emaitza handiko urteak izan direla.

Aste honetan oso programa trinkoa duzue. Segur naiz eztabaida emankorrak gertatuko direla zuen artean hurrengo egunotan. Zinez, arrakastarik handiena opa dizuet.

Amaitu aurretik eskerrak eman nahi dizkizuet toki hau aukeratu duzuelako zuen Biltzarra egiteko orduan. Nire aldetik, besterik ez: gogoratu nahi dizuet, dena dela, hemen ez duzuela laguntza bakarrik aurkituko. Adiskidetasuna ere izango baituzue etxe honetan.

EUSKARA BATUAREN 25. URTEMUGA

Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua

Errektore Jaun agurgarria,
Euskaltzainkide,
Biltzarkide Jaun-andereak,

Eskertzen dizkizut, Errektore jauna, orain bertan eskaini dituzun hitz sarkorrak. Hartzen gaituzu Euskal Herriko Unibertsitate honetan, bi besoak zabalik, Euskaltzaindiaren meneko utziz areto nagusi hau bost egunentzat, eskainiz ere behar ditugun erraztasun guziak, bai lanerako eta bai bazkaltzeko.

Euskaltzaindiak zor dizkizu eskerrik beroenak, zuri lehenik, ahantzi gabe gure laguntzaile izan diren Unibertsitateko jende guziak. Egia erran, harremanetan aise sartu gara Pello Salaburu, euskaltzain oso eta errektore ordeari esker, baliatuz ere Euskal Herriko Unibertsitate eta Euskaltzaindiaren arteko hitzarmena, duela lau bat urte sinatu genuena.

Pertsonalki, erran nezake pozik nagoela etxe honetan, ene etxe gisa daukadala, oroituz duela orain sei urte Euskal Herriko Unibertsitateak "Doctor honoris causa" izendatu ninduela.

Euskal Herriko Unibertsitatea hautatu balin badugu zure baimenarekin da Euskal Herri osoari erakusteko Euskaltzaindiak badituela lokarri hertsiak, ez bakarrik zuk kudeatzen duzun unibertsitatearekin, baina bertze unibertsitateekin, Deustukoa, Nafarroakoak, Bordelekoa, Pauekoa, Baionakoarekin ere, jakinik euskaltzain osoetan euskaltzain urgazleetan eta bertzalde, badirela unibertsitate horietako erakasleak. Hala jokatzen da Euskaltzaindia, hala jokatuko da bilduz euskararen inguruan lan egiten duten ikerle guziak. Hau da gure xedea, hau gure zoriona.

Egun, 1994.eko urriaren 3-a. Duela 26 urte, 1968ko urriaren 3an, egun berean beraz, Euskaltzaindiak deiturik, bildu ziren Arantzazun, urre ezteiak kari, euskaltzainak (oso zein urgazle) eta euskaltzaleak. Biltzar famatu horretan, Euskaltzaindiaren VII. biltzarrean, sortu zen euskara batua, orduan eman zituen lehenbiziko urratsak.

Hamar urteren buruan, 1978-an, Bergarako biltzarrean, ikusirik idazle, erakasle, euskaltzale gehienek onartu eta bereganatu zituztela Euskaltzaindiaren proposamenak, hartu ziren erabakiak euskara baturantzeko urratsak finkatzen zituztenak. Aipatu nahi nituzke bere "Arantzazutik Bergarara" deritzan txostenean Koldo Mitxelenak eman zituen hitz batzuk:

"Arantzazukoaz eta ondorengoez oroitzen naizenean, gogoan barrena sumatzen dudana poza da eta ez damua."

Eta urruntxago:

"Erabakirik onena hartu zuen (Euskaltzaindiak) Euskal Herriari, euskaldun guztiak minduko bazituen ere, aspaldixko zor ziona: batasun bidetik, gerotik gerora ibili gabe, gogotik eta deliberatuki abiatzea."

Geroztik, 26 urte iragan dira. Hiru mende laurdeneko anderea da Euskaltzaindia, beti gazte, eta bide nabar, beti gaztetzen ari, iragana gogoratuz, hain zuzen lehenbiziko euskaltzainen xedeak nola Arantzazuko eta Bergarako ondorioak, beti prest aurrera joaiteko.

Bide segurretik doa Euskaltzaindia. Alabaina, anartean sortu ditu bi datu banko paregabekoak, euskara idatziarena *Orotariko Euskal Hiztegia*-rekin, euskara mintzatuarena Hizkuntz atlasarekin. Anartean ere Gramatika batzordeak agertarazi ditu lau liburuki, Onomastika batzordeak finkatu Euskal Herri guziko toponimia, hobeki ezagutzen ditugu euskal idazle zaharrak "Lekukoak" sortaren bitartez eta kongresu edo jardunaldi batzuei esker.

Biltzar nagusi honetan eztabaidatuko ditugu Euskaltzaindiko batzordeek eskaintzen dituzten txostenak. Orotara, 500 orrialde baino gehiago. Lan ona eta sakona egina izan da aurten.

Pozten naiz ikustea 350 baino gehiago bilduak garela, kopuru horrek erakustera emaiten duela entzuna izan dela Euskaltzaindiaren deia. Kontuan hartuko dira eginen dituzuen proposamenak edo kritikak, gehiengoaren onespena nahi baitu lortu Euskaltzaindiak, jakinik aintzinetik halere Gomendioak eta Erabakiak Euskaltzaindiak bakarrik hartuko dituela gero.

Hogeita sei urtez egin du bide euskara batuak. Izan dira tirabirak, borrokak, kalapitak lehen urteetan. Bergaratik hona aldatu da osoki giroa. Itsasoa lainotu da eta euskara batuaren untzia aintzina doa, lemazain delarik Euskaltzaindia, uharrietarik ihes eginez. Egia da ezagun dela euskal hezkuntzaren lana, unibertsitatearen eragina, euskaltzaletasunaren aurrerapena. Ez dut dudarik sanoki eta sakonki eztabaidatuak izanen direla batzordeen txostenak.

Batzuek diote Biltzar hau euskara batuaren hirugarren mugarria dela. Baliteke. Baina ez dezagun sekulan ahantz gure hizkuntza nazionala finkatzen, indartzen eta bultzatzen ari garela. Deplauki erraiten dut gure belaunaldiak egin duela aurrerapen balios hau. Hasten da Biltzar Nagusi hau urriaren 3an. Arantzazuko Biltzarraren 26. urtemugan, bururatuko da urriaren 7an, gogoan daukagularik duela 75 urte, urriaren 7an, bildu zirela lehen euskaltzainak, Donostian, Gipuzkoako Aldundian.

Bi egun horiek gogoan atxikiz, Euskaltzaindiaren historia direlakotz, eta segur naizela lan ona eginen dugula elgarrekin, hasiera emaiten diot XIII. Biltzar Nagusiari.

Eskerrik asko.

EUSKARA BATUAREN FILOSOFIAZ

Luis Villasante Kortabitarte

EUSKARA BATUAREN FILOSOFIAZ (1)

Izenburu hau "Euskara batuaren filosofiaz" ez da nik asmatua, inork emana baizik, eta nik gero onartua, zeren egokia dela uste baitut. Izan ere, "Filosofia" hitzak, guztiok ezagutzen dugun lehen adieraz gainera, badu besterik ere. Edozein jakite-motatako oinarrien sistema izendatzeko maiz erabili ohi da hitz hori. Eta guk adiera horretan, eta ez bestetan, darabilgula hemen, bistan da.

Euskara batuaren filosofia azaltzea da, bada, hitzaldi honen gaia. Eta hasteko, zer da "euskara batua" delako hori? Esapide hau, "euskara batua" nik ez dakit zeinek asmatua den. Mitxelenak bere hitzaldian ez du izen hori behin ere aipatzen. Dena den, Arantzazuko Biltzarraren inguruan erabiltzen hasten da eta handik laster arrunta bihurtzen.

Nahiz eta Mitxelenak, hitzaldi honetan behintzat, izena ez erabili, izen horrekin adierazi nahi den mamia, bai, Mitxelenari zor diogu. Eta hark urratu zuen bidetik ibiltzen ahalegindu gara laurden-mende honetan.

Mitxelenak, ordea, ez digu euskararen batasuna guztiz egina eman nahi izan. Berak nahi du, oraingoz behintzat, euskara batasun-bidean jarri (2). Badaki, noski, batasuna ez dela zerbait bukatua eta amaitua, eta behin betiko egina. Badaki gero ere lan hori beharko dela aurrera eraman, bultzatu, gaurkotu etab. Aitortzen du, gainera, batasunak galera batzuk ekarriko dituela berekin eta bati baino gehiagori min emango diola (3).

---

(1) Mitxelenak Arantzazuko Biltzarrean irakurritako lanak honako izenburu hau du, hots, "Ortografia". Ikus *Euskera* (1968), 203-219. Gure hitzaldiak lan honen azalpena izan nahi du.

(2) Ikus "Ortografia", *Euskera* (1968), 203, 1.

(3) Ikus "Ortografia", *Euskera* (1968), 203, 3.

Hala eta guztiz ere, berak uste du hil edo biziko dela batasuna euskararentzat (4). Batez ere irakaspen-arloan guztiz beharrezkoa dela. Dena den, guk Mitxelenaren hitzaldiari jarraituko diogu, inoiz gure kontutik azalpen batzuk eginez.

Guk geure lan honetan, ordea, ez ditugu hark bere hitzaldian dakarzkien puntu guztiak ukituko. Lanaren lerro nagusiak, nolabait esan, azaltzea eta azpimarratzea: hori da gure asmoa; geure kontutik inoiz komentario eta iritzi batzuk agertuz.

Murritza da oso Mitxelena bere idaztankeran. Haren pentsakera azaldu nahi duenari neke eta lan pixka bat baino gehiago dakarkiona, alegia.

I. EUSKARAREN IRAGANARI GAIN BEGIRATUA, EDO AUZI HONEN KOKALEKUTZAT

Eta propio edo berariaz gaiean sartu aurretik zerbait esan behar dudala uste dut hizkuntza honen —euskararen, alegia— izaeraz, iraganaz eta egoeraz. Izan ere, guzti hori gogoan hartu gabe, ez arazo honen nondik norakoa, eta ez arazoari eman nahi zaion irtenbidea ere, ez dira, ene ustez, ongi ulertzen.

Euskara, bada, bakarti, besteekin zer ikusirik ez duen hizkuntza bezala azaltzen zaigu hizkuntzen artean. Eta, zinez, bere jatorri edo etorkiari begiratzen badiogu, ez zaio gaurdaino senide, guraso edo aitasorik aurkitu. Historian zehar bere aldamenean dituen edo izan dituen beste hizkuntzekin ez ote du har-emanik izan, ordea? Hori beste kontu bat da, noski. Zeharo bestelakoa, gainera.

Askotan uste izan dugu lehenagoko euskaldunak beti bakarti eta isolaturik bizi izan zirela, baina hori *a priori* ere ez da sinesgarri, eta *a posteriori* badakigu gauzak ez direla bat ere hala izan.

Hemen gertakari bat handia aipatu nahi dut —handia bere hedaduraz, iraupenaz eta utzi dituen ondorioengatik—, hots, *erromanizazioa.* Erromatar Inperioak, orain dela bi mila urte, bere hizkuntza —latina— zabaldu zuen nonahi, hainbesteraino, non lehenagoko hizkuntzak erabat galdu edo suntsitu egin baitziren Espainian, Frantzian, Italian, Rumanian etab. Baina bat behintzat salbatu zen halere, euskara (5).

(4) Ikus "Ortografia", *Euskera* (1968), 203, 1.

(5) Ikus MICHELENA, Luis: *Historia de la Literatura Vasca*, Ediciones Minotauro, Madrid, 1960; 11-12 orr.; ECHENIQUE, María Teresa: *Historia lingüística vasco-románica. Intento de aproximación*, San Sebastián, 1984; CARO BAROJA, Julio: *Materiales para una*

Gertakari honen esplikazio gisa hauxe entzun nion bahin Mitxelenari. Erromatarrak eta Bisigodoak —hauek ere latina zerabilten—, bederatzi ehun urtez egon ziren iberiar penintsulan agintzen, eta hala, behar zen astia izan zuten gainerako hizkuntza guztiak suntsi-arazteko. Baina Euskal Herrian ez. Hemen 600 urtez bakarrik egon ziren agintzen, zeren eta bisigodoekin euskaldunak beti gerran egon baitziren. Beraz, hemen ez zen denborarik aski izan bertako hizkuntza erabat gal zedin. Euskal eremu batzuk, bai, galdu ziren euskararentzat, baina besteetan euskara bizirik atera zen. Bizirik atera, baina etxe barruan latina eta gero honen semea den erromantzea gelditzen zaizkiolarik. Gainera, gaur linguistek erabat aitortzen dute euskarak bere erraietan dakarzkiela latinak —eta gero erromantzeak— utzitako aztarna eta maileguen seinale agiriak, ugariak eta sakonak.

Hauxe da, bada, egoera Erdi Aroaren erditsuan: Euskal Herrian bertan badira jadanik euskarak galdutako eremu aski handiak; bestela esan, badira erromantzez xoilki mintzo diren bazterrak, eta bai erdal barrendegiak ere —hots, enklabeak—, hauetako batzuk euskarak gero berriz berreskuratu zituenak.

Euskarak, bada, bere erraietan dakarzki latinaren eraginaren seinaleak. Eta ez hori bakarrik. Etxe barruan ere, euskara mintzo den eremuan, alegia, hor da baita ere latina eta gero beronen umea, erromantzea.

Sentitzen dut Mitxelenak noiz eta zein kontestutan, honako hitz hauek esan zituen ez gogoratzea, baina esan zituela, bai, ondo gogoan dut. Gogoan dut, bada Euskaltzaindiko batzarrean behin, hitz hauek esan zituela: "Erdera ere hemengoa da, gero!" Erromanizazioaren ondorioz, alegia, hor gelditu zaizkigula euskara eta erromantzea etxeko bi anaia bezala; batzutan sesioak izango zituzten beren artean, etxeko anaiak izan ohi duten gisa, baina hori gora-behera, etxeko ditugu biak.

Eta gero hor dira euskalkiak ere. Horiek euskara bat eta bakarra dute amatzat, noski, baina euskara bat eta bakarraren zatiketa ekarri digute. Horiek baino lehenago euskarak bere batasunean zirauen.

---

historia de la lengua vasca en su relación con la latina, Salamanca, 1945; OMAECHEVARRIA, Ignacio: "Vascuence y Romance", *Euskera* (1968), 177-189; MICHELENA, Luis: *Sobre el pasado de la lengua vasca*, Editorial Auñamendi, San Sebastián, 1964; MICHELENA, Luis: "Las antiguas consonantes vascas", *Miscelánea Homenaje a André Martinet*, "Estructuralismo e Historia", Universidad de La Laguna. Canarias; MICHELENA, Luis: *Textos Arcáicos Vascos*, Ediciones Minotauro, Madrid, 1964. *Mitxelenaren idazlan hautatuak*. Idazlanen aukera, oharrak, iruzkinak, Patxi Altunak eginak, Bilbao, 1972. MITXELENA. Zenbait hitzaldi, Bilbao, 1972; MICHELENA: *Apellidos Vascos*, San Sebastián, 1955.

Beraz, eta labur bilduz, aspaldidanik dugu panorama bitxi hau: Euskal Herri deitzen dugun herri honen barnean bada lurralde bat zeinetatik euskara suntsitua izan baita (Araba, Bizkaia eta Nafarroako zati handi xamar batzuk bederen), eta euskara bera ere latinaren eta erromantzearen ekarri edo mailegu ugariz betea. Schuchardt hizkuntzalariak esaten zuen latinaren ume diren erromantzeak kenduz gero, ez dela beste hizkuntzarik euskarak hainbat latinismo duenik.

Nolanahi ere, hor ditugu Erdi Aroan euskara eta erdara, bi-biak etxe barruan kokatuak.

Hemen bilinguismoa gehiago edo gutiago zabaldua zegoela egiztatzeko, Mitxelenak beste hau ere gogoratzen du, hots, galtzada handiak pasatzen zirela Euskal Herrian barna (6).

Horiek hola, zer pasatzen da gero? Erromatar Inperioak eta ondoren bisigodoen erresumak lur jotzen dutenean, idatzizko zereginetarako latina erabiliko da oraindik, baina gero latinaren umea den erromantzea, eta ez euskara. Zergatik? Erromantzeak, latinaren ondorengoa izanik, errazago ordezka zezakeen bere ama zenaren egitekoa; euskara, aldiz, ez zen bat ere trebatua zeregin hauetarako, eta baztertua gelditu zen. Mitxelena bere *Historia de la Literatura Vasca*-n eta bai beste zenbait idazkitan ere maiz mintzo da euskaldunen agintariek kultur gauzetarako izan duten axolakabekeriaz.

Hauxe da, bada, kontua: mende luzeetan zehar egongo da euskara idatzizko zereginetan erabilia izan gabe. Horretarako etxe barruan zegoen ordezkoa, hots, erromantzea. Hegoaldean gaztelania eta Iparraldean gaskoina (eta geroago frantsesa, noski).

Eta zergatik ez zen euskaraz idazten? Gizon arruntak uste du idaztea ez dela edo ez lukeela bat ere zaila izan behar; horretarako aski dela letren balioa jakitea eta hitzegin ohi den moduan idaztea; baina gauzak ez dira hain xinpleak. Hizkuntza idatziak badu bere nortasuna eta baditu bere dohain bereziak, bere-bereak direnak. Gainera, batasun edo berdintasuna eskatzen du, hots, denek berdin idaztea, idazten dena guztiek uler dezaten. Eta tresna hori ez da goizetik gauera asmatzen. Idazteko behar zen tresna edo erreminta hori euskarak ez zuen, eta luzaroan hori gabe egon zen.

XVI. mendera arte, dakigunez, ez da euskaraz idazten. Atzerapen harrigarri honek badu, nik uste, bere esplikazioa. Eta printzipalena, etxe barruan zeukala tresna horren jabe zen beste hizkuntza, hots, erromantzea edo erdera. Orduan, idatzi behar zena idazteko, normala denez, es-

(6) MICHELENA: *Historia de la Literatura Vasca*, p. 12, p. 14 ss.

kumenean zegoen beste hizkuntza horretara jotzen zen. Euskara bakarrik edo etxe barruan beste lagunik gabe aurkitu balitz, goizago, nik uste, sortuko zen euskaraz idazteko tresna.

Dena den, XVI. mendean hasten da euskal literatura idatzia, eta orduan ere bakan eta urri. Gainera, esan dugunez, hizkuntza idatziak batasuna nahi eta behar du. Euskal literatura, berriz, euskalkitan banatua agertzen zaigu. Lau euskalkitan banatua, hots, lapurteraz, gipuzkeraz, bizkaieraz eta zubereraz.

Baina noizbait aurpegi eman behar zitzaion auzi honi, hau da, euskara idatziaren batasunari. Eta hain zuzen, gure mende honetan indar hartzen du batasunaren kezkak.

Joan mendeko azkenetan eta gure mende honen hasieran, Azkue jauna Iparraldean dabil bere hiztegirako hitzak biltzen, eta hara non ezagutza eta adiskidetasun mina egiten duen Pierre Broussain jaunarekin. Broussainek, bada, esaten dio Azkueri euskara ez dela sekula deus izango, baldin eta idatzizkoan bederen batasun batera heltzen ez bada (7). Eta hain barrura sartu zitzaion hau Azkueri, non berehala hasten baita batasun-bidera jotzen. Jakina denez, "Gipuzkera Osotua" da berak proposatzen duen batasun-bidea (8). Azkuek 1919an argitaratutako *Ardi galdua* elaberria gipuzkera osotu honetan idatzia da jadanik, eta geroztik bide hau landuko du beti, bai teorian eta bai praktikan ere.

Aurreko urtean, berriz, 1918an, Koldo Eleizaldek Oñatiko biltzarrean nahitaezkoa dela batasuna aldarrikatuko du (9).

Gainera, orduantxe sortzen da Euskaltzaindia, eta beronen betebeharra bezala batasuna azaltzen da Euskaltzaindiko Sortarauetan (10).

Euskaltzaindi sorberria berehala hasten da auzi honetaz arduratzen. Gaia batzarreetan tratatzeko lagungarri bat behar zen, ordea, eta batzorde txiki bat sortzen du Azkuek bi euskaltzainez osatua; arazo honi buruz bi iritzi ezberdin sostengatzen zuten euskaltzainez osatua, alegia. Bi

(7) CHARRITTON, P.: *Le Dr. Pierre Broussain. Sa vie, son oeuvre (1859-1920)*, París, CNRS, 1985; VILLASANTE, L.: "R.M. de Azkue ta P. Broussain-en arteko elkarridazketa liburuaren aurkezpena", *Euskera* (1987), 487.

(8) AZKUE, R.M.: "Gipuzkera Osotua", *Euskera* XV (1934), X-159; XVI (1935), 151-184; ID.: "Fonética Vasca", *I. Congreso de Estudios Vascos* (1918), 456-80.

(9) ELEIZALDE, Luis de: "Metodología para la restauración del euzkera", *Primer Congreso de Estudios Vascos*, Bilbao, 1919, pp. 428-439.

(10) "Ekingo du euskalgi oroen odolez azitako euskal eredu bat gertutzen, itzez, itzyoskeraz ta idazkeraz albait erabatetsuena, euskaldun guziak idatz-irakurketan erabiltzekoa". Eta erderaz: "Trabajará preferentemente en la formación de un lenguaje literario unificado en léxico, sintaxis y grafía, que nutriéndose de la savia de todos los dialectos, nos permita disfrutar de una literatura común", *Euskaltzaindiaren Sortarauak / Estatutos de la Academia de Lengua Vasca*, I, 6.a), p. 3, Bilbao, 1920.

euskaltzain horiek Kanpion eta Broussain izan ziren. Broussain erabat batasunaren aldekoa. Kanpion, berriz, hasieran behintzat, aurkakoa. "Zazpi euskalki ditugu eta orain zortzigarrena sortu behar al dugu?" omen zioen.

Dena den, Euskaltzaindiaren agindua betetzeko, biak Donostiako hotel batean sartu ziren han bion artean auzi hau eztabaidatzeko eta agindutako txostena prestatzeko. Esan behar da Broussainek aguro irabazi zuela Kanpion batasunaren alderako. Eta bion artean sinaturiko idazkia batasunaren aldekoa da erabat. Auzia ebazteko gipuzkera edo lapurtera edo bion erdibide bat proposatzen dute. Txosten hori inprimatu egin zen (11).

Hori guti balitz, Euskaltzaindiak, lehen urte haietan, batzarre agiriak antolatu zituen Euskaltzaindiz kanpoko aburuak jasotzeko. Batzarre horiek egin ziren bai Bilbon eta bai Donostian, Lekarotzen eta Hazparnen ere. Eta batzarreetara aurkeztutako lanak *Euskera* aldizkarian azaldu ziren (12).

Dena esan behar da, ordea. Euskaltzaindia hasten da bere batzarreetan gaia aztertzen, eta handik laster bertan behera uzten du. Arrazoiak? Bataz, auzia zaila dela, eta bestea, itzal handiko jaun batzuk alde ez zeudela: Julio de Urquijo euskaltzaina eta R. Menéndez Pidal urgazlea batez ere (13).

Eta horrela dihoaz urteak. Azkue beti ariko da bere kontutik gipuzkera osotua proposatu eta lantzen; jarraitzaile batzuk ere izango ditu, bai Euskaltzaindian eta bai handik kanpoan (Olabide, Zaitegi, Ibinagabeitia), baina guti; Lafittek, Iparralderako behintzat, nafar-lapurteraren kodifikazioa egingo du (14); Krutwig-ek, aldiz, lapurtera zaharra edo klasikoa jarriko du batasun-bidetzat (15)... Urteak dohazi eta auzi honen korapiloak askatu gabe dirau. Eta horrela heltzen gara hirurogeiko hamarkadara.

(11) CAMPION, Arturo; BROUSSAIN, Pierre: "Informe a la Academia de la Lengua Vasca sobre unificación del euskera", *Euskera*, III (1922), 4-17.

(12) Ikus *Euskera* (1922).

(13) Ikus VILLASANTE, L.: "D. Julio de Urquijo y el problema de la unificación del euskera literario", *Anuario* del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo" (1971), 25-46. Ramón Menéndez Pidal-ek, aldiz, bere hitzaldia, guti asko eraberritua, "Colección Austral" delakoan argitara zuen, izenburu honekin: *Introducción al estudio de la lingüística moderna*, Buenos Aires, 1962, 1.301 zenbakia.

(14) PIKABEA, Josu: *Lapurtera idatzia (XVII-XIX). Bilakaera baten urratsak.* Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbao-Donostia, 1993.

(15) VILLASANTE, L.: "Literatur-euskara laphurrtarr klassikoaren gain eratua", *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País* (1952), 91-119, 259-298.

II. 1968KO BILTZARRA ARANTZAZUN ETA MITXELENAK HAN AURKEZTEN DUEN PLANTEAKETA BERRIA

1968. urtean Euskaltzaindia sortu zeneko 50. urtea ospatzen zela eta, G. Arestik eskaturik, Biltzarra egin zen Arantzazun, gai nagusi hau eztabaidatu eta erabakitzeko, hots, euskararen batasuna. Euskaltzaindiari sortu zenean erabakitzeko eskatu zitzaiona eta oraindik erabaki gabe zeukana, alegia. Mitxelenari agindu zitzaion gai hau Biltzarrerako prestatzea. D. Manuel Lekuona zen artean euskaltzainburu. Biltzarra urriko lehen egunetan ospatu zen.

Ordura arte batasunerako proposatzen ziren bide guztiak euskalkiak —euskalkiren bat, alegia—, hartzen zuten oinarri, baina batasun-bide honek ez dirudi ona. Izan ere, euskalkiak batasun-ezaren sortzaile direlarik, nola eraman gaitzakete batasunera? Gainera, batasunerako hautatuak izan ez diren euskalkien mintzatzaileek baztertuak ikusten dituzte beren buruak eta minduak gelditzen dira.

Behar zen, bada, auzi honen planteaketa berria egin. Eta hori egingo du Mitxelenak Arantzazun, 1968ko Biltzarrean. Planteaketa berri honen ardatza zein da? Hauxe: ez ditugula oraingo euskalkietan begiak jarri behar, euskalkiak baino lehenagoko euskara batuan baizik. Beraz, euskara bat eta batua zeneko egoera, hots, antzinako euskara, euskalkiak jaio baino lehenagokoa, behar dugu begien aurrean eduki eta hartara pausoak zuzendu. Baina, jakina, antzinako euskararen gauza asko eta asko gaur zaharkituak edo zeharo hilak daude, eta horiek berpizten ez dugu denbora galdu behar. Orain ere, ordea, oraingo euskara osoan edo gutxienez zati dexente batean bizirik badaude, horiei bai, horiei eman behar diegu lehentasuna.

H-aren kasua lege honen aplikazio bat baizik ez da. Eta egoera berean daude hainbat eta hainbat hitz edo hitzen forma. Eta ohar beste honi ere: Mitxelenak bere txostenean ez digula batasuna zerbait bukatu edo zeharo egindakotzat ematen. Berak nahi du euskara *Batasunerako bidean jarri*, baina aitortzen du, halere, horrekin batasuna ez dela bukatua edo erabat amaitua. Gero ere beharko da lan hori bultzatu eta aurrera eraman.

Mitxelenak esaten zuen bera lehenago ez zela batasunaren auzi honetaz arduratzen; eta ez beronen garrantziaz jabetzen ez zelako, orduko gure gizartean horretarako behar diren baldintzak ikusten ez zituelako baizik. Baina hirurogeiko hamarkadan gizarte-giroaren aldaketa gertatzen da, eta harrezkero, bai, batasuna aurrera eramateko behar diren indarrak, kontzientzia eta baldintzak, bai, orain badira jadanik.

Baita honako beste hau ere esaten zuen Mitxelenak, hots: Gabriel Arestiren "Maldan behera" poema dela euskara batuan idatziriko lehen obra. Poema hau, berriz, Bedoñan (Arrasateko auzo bat da berau) "Loramendi"ren omenez egindako sariketan saritutako lana da. "Loramendi" hau kaputxino gazte bat izan zen, olerkaria, mezaberria eman behar zuen egunean hila (16).

Arestiren poema hau, ordea, Arantzazuko Biltzarra baino hamar urte lehenagokoa da. Orduan zer? Sortua izan baino lehenago jaioa dugu haurra? Bai, nahi baduzue. Aresti ez zen batere inozoa, asko zekiena baizik. Eta intuizio handikoa ere bai.

Batasun-auziaren planteaketa berria

Baina goazen harira. Mitxelenak Arantzazuko Biltzarrean irakurritako lana ez da batere luzea: 16 orrialde betetzen ditu *Euskera* aldizkarian, eta bertan ez da polemika-izpirik ageri. Azalpen laino huts-soila da dena. Beste puntu askoren artean H-a ere aipatzen du, noski. Egitez, ordea, denek dakigu polemika izan zela han jaun eta jabe. Eta hori esplikatzen da asko eta askok (ehundik gora ziren Biltzarrera etorriak) aldez aurretik bazekitelako Mitxelena H-aren alde jarriko zela eta horri gogor egitera propio etorriak zirelako.

Ikus dezagun bada Mitxelenaren hitzaldia: 6 atal ditu.

1. *Oinarriak*

Lehenengo atalak *Oinharriak* (17) du izenburu. Bertan esaten du hil edo biziko dela euskara batasun-bidean jartzea, batez ere irakaste-lanean hori guztiz beharrezkoa delako. Eta beste hau ere bai: Euskaltzaindia ez dela nor, oraingoz behintzat, zein euskalki hautatuko den erabakitzeko. Eta honako hau oraindik: azaleko auzietan lortu behar dugula aurrenik batasuna, mamiari dagoztenetan baino lehenago.

Aitortzen du, baita ere, galera batzuk ekarriko dituela berekin batasunak, mozketa batzuk egin beharra, alegia. Ezin daitekeela batasunera jo inor mindu gabe, etc.

(16) Loramendiri Bedoñan eskainitako gorazarreaz, ikus *Euskera* (1959), 244, 245, 257. Gabriel Arestiren, "Maldan behera" poema ikus *Euskera* (1960), 189-234.

(17) *Oinharriak*. Hemen hitz honek Mitxelenaren txostenean duen ortografia errespetatzen dugu. Beste aipamenetarako ere balio du ohar honek.

2. *Ortografia* (18)

Bigarren atalak "Ortografia" du izenburu, eta berau da luzeena; baina Mitxelenak aipatzen dituen ipi-apa guztiak guk ez ditugu ukituko. Atal honen barnean sartzen da, baita H-aren auzia ere; guk, ordea, Biltzarrean puntu honek izan zuen aparteko sonagatik, azkenerako utziko dugu.

Mitxelena hasten da, bada, duda-mudakotzat joak izan diren letra batzuen alde aurpegia ateratzen.

F letra da horietako bat. Ontzat hartzekoa da, noski, bai erderatiko hitzetan eta bai bestelakoetan ere: *fede, afari, alfer.* Gure Koldok dioenez, bada, Mogel izan zen *f* euskaraz jatorra ez dela zabaldu zuena. Beronen lekuan *p* ipini behar omen zen. Arrazoitzat dakar Markinako umeak eskolan irakurtzen hasten direnean, *f* letrara heltzean, ezin izaten dutela letra hau ahoskatu, eta *epe* esaten dutela (19). Baina, jakina, Markinan hori gertatuagatik, beste toki askotan guztiz normala da letra honen ahoskatzea.

J letrari buruz hauxe dio: Idatzian beti gorde bedi, eta gero bakoitzak bere erara ahoska dezala, oraingoz behintzat: *jakin, jende, birjina, ebanjelio, onjo* (champignon).

X letra. Antzina Euskalerri osoan erabilia eta gaur ere ainitz eskualdetan. Beroni lotu behar gatzaizkio –dio Mitxelenak–, batasunera bagoaz: *axola*, ez ajola, etab.

Ñ, berriz, hitz adierazkorretan bakarrik gorde bedi. Adibidez: *andereño.* Gainerakoetan *N*, baina beronen aurrean *i* ezarriz: *baina, zail, gain.* Gauza bera egin bedi *Ll*-rekin: *oilo, ongile.* Sabaikariak (palatalak) toki batzuetan aahoskatzen dira, beste batzuetan ez. Idatzizkoan gorde dezagun batasuna; mintzatzekoan, oraingoz, tokian tokikoa.

Ba baieztatazailea eta baldintzazkoa, berriz, bi-biak idatz bitez hurreneko hitzari lotuak: *bai, badator* eta *baldin badator.*

Ez eta *bait-*. Hurrengo hitzari biak loturik ala biak askaturik idatz daitezela proposatzen du Mitxelenak. Hala dio bere txostenean. Baina finkatu den araua bestelakoa izan da, hots: *ez* beti bereiz jartzea, eta *bait-*

(18) Mitxelenaren lanak, *Euskera*-n agertzen den bezala, "Ortografia" du izen nagusi, eta gero hitzaldiaren bigarren atalari "Ortografia" deritzo berriz ere.

(19) MOGUEL, J.A.: Ikus *El doctor Peru Abarca, catedrático de la lengua bascongada en la Universidad de Basarte o Diálogos entre un rústico solitario bascongado y un barbero callejero llamado Maisu Juan*, Durango 1881. *F* letraren soinua euskaraz ez dela jatorra sostengatzen du Mogelek obra honen hitzaurrean.Ikus 11. orr.

beti darraionari lotua. Egon da, noski, Hegoaldean, Liturgiako liburuen eragina dela medio, *bait* bereiz idazteko joera, baina gaur uste dut betiko tradiziora itzultzen ari garela. Partikula hau Iparraldekoa da batik-bat eta han beti idatzi da hurreneko hitzari lotua. Horrek, ordea, berekin dakar *bait*-ek hurrengo hitzaren kontsonanteaz topo egitean sortzen dituen aldaketak kontuan hartzea: *baitu, baikabiltza, baitzuen.*

3. *Hitzen formaz* (Euskal hitz zaharrak)

Euskal hitz zaharrei buruz ari da Mitxelena atal honetan, hots, euskaraz aspaldidanik erabiltzen diren hitzez, hitzok, bestalde, nondiknahi datozelarik. Arantzazuko Biltzarra baino hamar urte lehenago —beraz, 1958-an— beste Biltzar bat egina zuen Euskaltzaindiak Bilbon. Biltzar honen gaia izan zen euskal hitzak zein diren argitzea (20). Hor erabaki zen, bada, euskarak aspadidanik beretuak dituen hitzak euskal hitzak direla, hitzaren etorkia nonnahikoa izanik ere. Garai hartan nagusi zen gehiegizko purismoagatik behar zen auzi hau argitu, eta hala egin zen Mitxelenari eskerrak orduan ere. *Eliza* hitza, esate baterako, gehiegizko purismo horrengatik, latinetik hartua zelako, ezin zen erabili, eta horren ordez asmatu zen *txadona. Zeru* ere ez, *donoki* baizik, etab. Hori. bada, 1959. urtean erabaki zuen Euskaltzaindiak.

Baina horrekin ez zen dena konpontzen. Sarritan gertatzen da hitz ezberdinak, baina esanahi berekoak egotea. Horietako batzuk Euskal Herriko alde batean erabiltzen dira eta beste batzuk beste batean. Beste batzutan, berriz, badira etorki bereko hitzak, gero bestelakotuak eta baita esanahiz aldatu egin direnak ere.

Lehen taldekoak direnean, denek dute sarrera hizkuntzan. Euskaltzaindiak ezin arbuia dezake euskal hitzik, ez hangorik ez hemengorik, ez zaharrik ez berriagorik. Nahiago ditu bizi-bizirik dirautenak zaharkituak daudenak baino. Aberastasunari begira dago beti, garbitasunari baino areago. Eta idatz-hizkeraz ari garenez gero, hitzaren luze-zabala edo hedadura literaturaz, hau da, idatz hizkeraz, neurtu behar da, batez ere.

Zenbait aldaera, besterik gabe, baztertzekoak dira euskara idatzian. Esate baterako, "behar", "zuen", "baino", "ahoa" etab. dira onartu beharrak, eta horien aldaerak diren *biar, bier, bino*; *zun, abua* etab. baztertzekoak. Badira, ordea, inoiz dialektu-formak jatorrizko eskualdean duten adiera berezian har daitezkeenak: esate baterako itzal-etik datorren *itzel*

(20) Ikus *Euskera* (1959), 93-217.

(berebizia, eskerga, izugarri handia, hots, "enorme". Bizkaierazko hitza da berau) (21).

Gehienetan hitz-forma osoak hartu behar dira eta ez hitz beraren forma laburtuak: *legez* eta ez lez, etab.

Arima antzina bakar-bakarrik agertzen dena eta orain ere zati handi batean bizi dena, onartzekoa da, eta ez anima (22).

Erderatiko hitzetan batez ere aurkitzen da hitz-hasieran honelako aldaera: b-, d-, g-/p-, t-, k- (*bodega* eta *petaka* esan ohi zuen Azkuek). Orobat hitz barruan *l* eta *n*-ren ondoren. Lehen sailekoak dira hobestekoak: *bake, bekatu, dorre, gerezi, aldare, gapelu* (kapelu).

(Aldaera-sailak banan-banan begiratu behar lirake, batez ere antzinako -m- batek sortu dituen itxura-aldatze ugariak: ardao, liho; -ino, -io, -ione...).

Bazter-euskalkiek makurtu behar lukete erdikoen alde zenbait alditan: barri, ultze, uzen/*berri, iltze, izen.*

Bazterrekoak bat datozenean, ordea, indar handiagoa dute erdikoak baino: adibidez, *burdina*-k burni-k baino (23).

Hots-berezkuntzaren bat zenbait aldiz eskualdetan galdua denean (z/s-ren bereizpena Sartaldean, r/rr-na Zuberoan, etab.), horko idazleek ez lukete baztertu behar izkribuz ahoz egiten ez duten berezkuntza.

Erderatiko hitzetan ageri da nagusi, bestetan baino areago, nahaspila larria. Bi arrazoigatik, noski. Etorki bereko bikoteak (hirukoteak, etc.) maiz ditugulako, eta berdintsu zaiolako zenbaiti, arrotzak direlakoan, hitz horiek batera nahiz bestera erabili.

Hitz horiek, ordea, besteak bezain euskaldunak dira eta besteak bezain premiazkoak ditugu. Forma ere ongi erabakia behar dute, bada, izan, ez nolanahikoa, xehetasun guztietan: azken *-a* berezkoa duten ala ez, bukaera *-o* ala *u* den (artikulu, minutu, baina *katoliko*, soldadu; *s* ala *z*-rekin idatzi bahar diren (*zopa*, ez sopa, *zaku*, ez saku edo sako, etc.).

Eta hemen oharpen bat egiten du Mitxelenak. Orain idazten diren euskalkiak kontuan edukitzekoak direla dio, batasun osorik ez duguino, eta behar litzatekeela hiztegitxo bat, ia ortografikoa huts-hutsik. Zenbait idazle hautaturen hiztegiaren gain eraikitako hiztegitxoa, alegia. Mitxelenak egiten duen idarokizun hau ez dut uste orain arte inork kontutan

(21) Ibon SARASOLAren *Hauta-lanerako euskal hiztegia*n sartua dago *itzel*, bizkaieraz oso arrunta den hitza.

(22) *Arima*-z eta hortik eratorritakoez, ikus *Orotariko euskal hiztegia*, sub verbo.

(23) *Burdina*-z eta hortik eratorritakoez, ikus *Orotariko euskal hiztegia*, s. v.

hartu duenik. Bizkaieraz, esate baterako, euskalki horretako idazle onak eredu hartuz egindako hiztegitxoa, alegia.

Eta honako ohar honekin bukatzen du Mitxelenak hirugarren atala: nahiz Lapurdikoa, adibidez, Giputzaren kide hurbilagoa izan hizkuntzalari batentzat Bizkaitarra baino, maiz aski baterago gatozela hitzetan Giputz-Bizkaitarrak Giputz-Lapurtarrak baino, erdal giro batean bizi garelako Hego-aldekoak eta beste aldean Ipar aldekoak.

4. *Hitz berriak*

"Hizkuntza bizia –dio Mitxelenak– hitz berrien premian da beti: bere baitarik sortzen ditu batzuetan, besterengandik hartu besteetan. Bi bideak zilegi eta beharrezko dira eta nork taxutuko du aldez aurretik bakoitzaren neurria eta mugak? Euskaltzaindiak behinola esanak hontarako bakarrik balio zuen: ez dagoela hitz berririk sortu beharrik adierazteko, euskal hitz, zahar jatorrak, erderatikoak direlakoak, baztertzeko asmoz.

Euskal hitzak sortzean, eta nornahik sortzen ditu mintzatzean, gogoan eduki dezagun beti, premiaz gainera, gure hizkuntzaren moldea, beti izan bait dugu horretarako erraztasuna, hitz-elkartzearen bitartez, batez ere. Nora-ezekoa du hizkuntzak sor-iturri horrek bizirik iraun dezan, bere izatean iraungo baldin badu.

Hitz-elkartze berrietan, eta orobat zaharren artean hautatzekoan, bi indar ari zaizkigu beti lanean. Eredu zaharrak, batetik, eta analogia bestetik: *luze*-k, antzinako patroiari segituaz, *luza*-tu, *luza*-ro, *luza*-mendu eta abar eskatzen du; analogiak, berriz, kidea kidearekin daramala, *luze* nonahi agertzea nahi luke. Gehiegizkorik gabe, nik uste, dio Mitxelenak, lehenbiziko joerari eusten ekin behar genduke egin-ahalean, oraingo isuriak bestera bait garamatza.

Kultur-gaietan hartzaile –bestearen zordun, beraz– geranez gero, bidezko da, noski, hiztegian ere hartzaile eta zordun agertzea. Gogoetak gerok sortu bagenitu, ez genduke, gabiltzan bezala jakite-gaietan eta, beste hizkuntzetan sortu dituzten hitzak itzuli nahian ibili beharrik. Gauden gaudenean, ordea, maiz nabaritzen dugu premia hori. Badu euskerak hitz-sorbide ugari, baina baita ere huts nabarmen bat bederen aldameneko hizkuntzen ondoan. Ez dugu (*des-* eta horren antzekoren bat edo beste kenduz geroz) aurrizkirik, latinezko *ad-*, *ab-*, *co(n)-*, *de-*, *dis-*, *ez-*, eta gainerakoen indarra bihur dezakenik. Erremedio bat baino gehiago izan dezake huts horrek, baina ongi pentsatu behar litzake gerora gabe nola joka.

Bestetariko hitzak lehen hartu ditugu, eta ez dago beste biderik, aurrera ere. Hitz horien itxuraz, ordea, bi iritzi dabiltza gure artean: itxura hori, etorkizkoa, alegia, gorde nahi lukete batzuek egin-ahalean, frantsesaren arabera edo, eta itxura aldatzea, xinpletzea gogokoago dute besteek, gaztelaniaren arabera.

Nik, egia esan, dio Mitxelenak, lehen bidea hartuko nuke arras ikasientzat ari bagina, baina ez da hori gertatzen. Xinpletasunera joko nuke areago, edo bide-erdira behintzat, *y*, *kh, th* (*psykhologia*, etc.) eta gisa horretako idazkerak baztertuaz.

Horiek, noski, izen propioetan behintzat gorde behar lirake (orobat, *c, qu* eta antzekoak). Beste hizkuntzetako izenen transkripzioa (letra berak usatzen ez dituzten hizkuntzetakoa) erabaki beharko da egun edo bihar, baina ez dugu hori lanik presakoena. Euskal izenak berak nolakoak diren erabaki eta irakatsi behar genduke aurrenik.

Hitzei eta izenei dagokienez ez deritzat ongi mugaz haraindikoek egiten dutenari *Mozku, zozializta* eta horien gisakoak idazteari. Hor ahohizkuntza (frantsesa) dabil nagusi hizkuntza idatziaren eta batasunaren kaltetan.

Nik bidezkotzat aitortuko nuke hitz berrietan *v* gordetzea eta kontsonante-multzoak aldatu gabe uztea, nahiz ez zorrozki agindu: *vektore* eta *-logia* azken-buruz dutenetan eta antzekoetan, *g* gordeko nuke, bakoitzak bere erara esan dezan: *jeolojia*, etc., hobeak lirake beharrientzat; ez, ordea, begientzat. Eta hizkuntza idatzia begiek jasotzen dute bestek baino lehenago" (24).

* * *

Benetan kontutan hartzekoak direla uste dut Mitxelenak atal honetan esaten dituenak. Hizkuntza bizia beti da hitz berrien beharrean: batzutan kanpotik (beste hizkuntzetatik hartuko ditu, noski) eta beste batzuetan bere baitarik sortuko. Bi prozedurak jatorrak dira.

Baiezpen hau ez doa, noski, Euskaltzaindiak behinola erabaki zuenaren kontra. Erabaki hark hauxe irakasteko bakarrik balio zuen: euskarak etxeko bihurturik dituen hitzak ordezkatzeko asmoz, ez dela hitz berriak sortzen ibili behar, alegia.

Euskerak badu, noski, hitz berriak sortzeko indar ernagarria, bai atzizkien bidez eta bai bi edo gehiago hitzen elkartzeak eginez ere. Gauza batean, ordea, du eskasia eta bai gabezia ere, hots, aurrizkietan. Lati-

(24) Ikus *Euskera* (1968), 216.

nezko *ad-*, *ab-*, co(n)-, *de-*, *dis-*, eta gainerakoen indarra bihur dezakeenik ez dugu. Eta ongi pentsatu behar litzatekeela gerora gabe nola joka, dio Mitxelenak. Ea, bada, jaunak, gure Koldok hemen egiten duen enbidoari norbaitek erantzuteko adorea izaten duen.

Gero ari da kanpotik hartutako kultur hitzen ortografiaz. Bada, noski, ortografia bat "kultista" edo, dei genezakeena, frantsesak eta beste zenbait hizkuntzek darabiltena, hots, greko eta latinari jarraituz hitz horien idazkeran ortografia zahar klasikoa ipi-apa guztietan gordetzen duena: *philosophia, psykhologia* etab.

Beste hikuntza batzuetan, aldiz, ortografia hori xinpletu egiten da gehienen faboretan. Mitxelenak, istilu horri buruz, hauxe dio, bada: "Nik egia esan, lehen bidea hartuko nuke arras ikasientzat ari bagina, baina ez da hori gertatzen. Xinpletasunera joko nuke areago, edo bide-erdira behintzat, *y, kh, th* eta gisa horretako idazkerak baztertuaz".

5. **Morfologia**

Atal honetan euskal Gramatikaren bi sail ukitzen ditu gure hizlariak, hots, Deklinabidea eta Aditz-jokoa. Deklinabideaz hauxe gogoratzen du, hots, bi deklinabide-mota daudela euskaraz, bata mugatua eta bestea mugagabea, eta noiz eta nola erabili behar den bakoitza. Salatzen ditu, baita ere, Gipuzkoan bereziki, maiz gertatzen diren huts batzuk: soziatibo kasua instrumentalaren ordez erabiltzea ("ezpatarekin" jo, "ezpataz" jo esan beharrean). Horrezaz gainera, beharrezkoa da hitz batek azken buruan daraman *-a* berezkoa duen ala erantsia den jakitea. *A* hori erantsia denean, deklinabide mugagabean kendu egiten da. Hitzak *a* berezkoa duenean, aldiz, ez da kentzen.

Aditz-jokatzeari buruz Arantzazuko biltzarra egin zenean Mitxelenak uste zuen, orduan behintzat, ezin zitekeela batasunik egin. Soil-soilik ohar batzuk egitera mugatu zen. Adibidez: ahal delarik, beste euskalkietakoetarik gutxien saihesten diren formak erabili; forma zahar eta berrien artean, zaharrak hautatu, etab. Horrezaz gainera, gogoratzen du beharrezkoak ditugula "izenkiak", hots, *sar, sartu, sartzen*, etab.: horiek noiz eta nola erabili behar diren jakitea, alegia.

Hizlariak bada, esan dugun bezala, ez zuen uste aditz batuaren jokatze osoa orduan egin zitekeenik. Baina handik urte gutxitara Euskaltzaindiak batzorde bat izendatu zuen propio horretarakoxe, Mitxelena bera barnean zela, eta batzorde horrek burutu zuen lan hori (25). Baina hau Arantzazuko Biltzarra baino geroagoko gauza da.

(25) Ikus Euskaltzaindia, *Euskal aditz batua*. Taulen prestatzailea: Txillardegi, 1979.

6. *Joskera*

Laburra da Mitxelenak sintaxiari eskaintzen dion atala, baina, halere, bertan esaten dituenak ez dira alferrik galtzen uztekoak, ene ustez. Hauxe dio, bada:

"Lege zaharrei egin-ahalean eustea da, noski, Euskaltzaindiaren eginbidea eta ez du amorerik emango ezin-bestean baizik. Euskal autore gailenak ditu eredu, eta haien buruzko iritziak denborak gutxi edo gehiago aldatzen baditu ere, badu hor oinharri sendoa".

Gero aipatzen ditu euskara idatzian dauden maila edo motak, eta prosara, euskal prosara bereziki zuzentzen du begirada. Eta hauxe dio: "Egungo prosa, gaiak bereizten ez duenean, ez da hizkuntza batekoa edo batena, nazio artekoa baizik". "Euskal idazlerik gehienek ere ez dute bestela jokatu. Ezin bazter eta arbuia dezakegu zor diegun hizkuntzaren lantzea, beti irabazle izan ez bagera ere".

"Eskal usaia, euskal kutsua deritzatena ongi dago, noski, euskal gaiak darabiltzagunean, Euskal-herriko mendi-giroa irakurleari sumarazi nahi diogunean. Hortik kanpora, ordea, badirudi ur garbiaren pare behar duela izan behar bezalako prosak: inongo usairik, kolorerik eta zaporerik gabea. Euskal-kutsua badario, barren-muinetarik dario, ez axaleko edergarrietarik" (26).

Ondoren aipamen labur bat egiten du hitz-ordenaz aurkitu diren legeei buruz. Altube-ren izena aipatzen ez badu ere, berau du Koldok gogoan (27).

* * *

Zilegi izan bekit hemen, iruzkin gisa, neure kontutik hitz erdi bat esatea. Mitxelenak arestian esan digunez, bada nazioarteko prosa bat. Prosa hori ez da, beraz, ez euskalduna, ez frantsesa, ez da toki bati mugatua edo hizkuntza jakin bati lotua. Prosa hori, dakigunez, Greziak asmatua da, gero Erromak onartu eta latinaren bidez Europan barrena zabaldua. Europako herriek, nork bere etxera, aldatu dute prosa egiteko molde hori; beraz, Europara, Ameriketara eta, guti asko, orotara. Eta hori eginez, hizkuntzok aberastu besterik ez dira egin. Euskarak ere, gure

(26) Ikus *Euskera* (1968).

(27) Sebero Altuberen "Erderismos" liburua du hemen gogoan Mitxelenak. Ikus *Euskera* (1929), XI-330. Liburu bezala ere agertu zen.

idazle zaharretan ikusten dugun bezala, Europako beste hizkuntzen bide berbera hartu zuen, baina gero, purismo hertsi baten ondorioz, eginez zetorren lana txartzat joa eta baztertua izan zen. Horrekin, ordea, ene ustez, euskarak ez du irabazi, galdu baizik —alde horretatik, noski—. Beharrizan berriak datozenean, ekintzak eta lanabesak ere hartarakoak bilatu edo egokitu behar izaten dira.

Orkaiztegik (28) "zeñismo" burlazko izenaz bataiatu zuen idazle zaharren jokabidea: *zein* berez galdetzailea dena, erlatibo gisa erabiltzea, alegia. Baina eta latinak zer besterik egin zuen bere garaian? *Quis*, aurrena galdetzeko zena, gero, zeregin hori utzi gabe, erlatiboarena ere hartu zuen, hots, perpaus menderatu bat menderatzaileari lotzeko tresna edo lotkailu bihurtu zuen.

Euskarak prosa kontuan duen errumeskeria edo pobrezia batez ere beste hizkuntzetatik euskarara itzulpenak egiterakoan nabari da, eta erremedio bilatu behar zaio, nik uste, errumeskeria edo pobrezia honi. Idazle zaharrek perpaus kausalak adierazteko, *zeren, zergatik, ezen* etab. erabiltzen zituzten; tenporalak adierazteko, berriz, *noiz eta*; konparaziozkoak eta modalak adierazteko *non, nola* etab., gero aditzari *bait-* edo *-n-* lotkailuak erantsiz.

Ez dakit, baina prosaren auzi honi kasu gehiago eman behar diogula iduritzen zait. Nazio-arteko prosa hori guk ere geure etxeko egin dezagun: besteek bezala, alegia. Hori eginez, euskarak eta guk irabazi besterik ez dugu egingo. Gainera, geure idazle zaharrek, neurri handi batean, egina utzi ziguten lana da. Zoritxarrez, gero euskal literaturaz jabetu zen gehiegizko purismoak lan hori txartzat jo zuen hizkuntzaren beraren kaltetan. Eta horrela isolaturik gelditu gara, Europako beste hizkuntza guztiak Nazio arteko prosa deritzona erabiltzen dutelarik.

Perpausen menderakuntza-saila batez ere indartu eta aberastu beharrean garela uste dut. Eta besteak beste, perpausen elkarketarako menderagailuak behar ditugu. Eginez zetorren lana osatu eta lagundu beharrean, tirokatu egin genuen eta elbarriak jota utzi hizkuntza. Hankabakar eta erren.

Hitzen gehiegizko purismoak kalte handia ekarri badio gure hiztegiari, ez dizkio txikiagoak ekarri, ene ustez, menderakuntza-sistemari ekarri dizkionak. Eta gure elbarri hori ez da izan idazle bipil ausartak izan ez ditugulako, batez ere Lapurdin XVI. mendeaz geroztik.

(28) ORCAIZTEGUI, Patricio Antonio: *Observaciones para hablar y escribir tolerablemente en nuestro idioma euskera*, Tolosa, 1906.

III. H LETRAREN ISKANBILA ARANTZAZUKO BILTZARREAN

Edozeinek daki H-ari buruzko gatazka gertatu zela nagusi Arantzazuko Biltzarrean. Baina, egia esan, Mitxelenaren hitzaldia, hotz-hotzean irakurriz, inork ere ez luke halakorik susmatuko.

H-aren arazoa, Koldok bere lanean ukitzen dituenen artean bat baizik ez da, eta han ez du besteak baino leku gehiago hartzen (29). Eta haren idazkian ez da gai honen alde halako gar edo interes berezirik nabari. Baina guztiok dakigu berau bihurtu zela Biltzar hartako istilu nagusi eta eztabaida guztien bandera.

Nola izan edo gerta zitezkeen gauzak hala? Orain esango dudana nere hipotesi hutsa baizik ez da. Orduko gauzak hausnartuz eta hemengo eta hango hari-muturrak elkarrekin lotuz, atera dudan ondorioa, alegia. Baina egiaz eta benetan gauzak hala ote diren, erabat ez dakit.

Hau da, bada, kontua. Mitxelenak, Arantzazuko Biltzarra baino lehenago, eta Donostian, bilera bat egin zuen hango euskaltzale batzuekin, Arantzazun H-aren alde aterako zela jakin araziz. Horiek hola, laster barreiatu zen berria. Eta orduan, jakina, kontrakarra egiteko prest etorri ziren letra horren etsaiak.

Estrategia bat ere aldez aurretik prestatua ekarri zuten, ene iduriz. Ahal bazen, ez zen gai hau Biltzarrean tratatzen utzi behar. Astirik egon ez zelako aitzakiaz, beste gai edo txosten batzuk ere tartekatu behar zirelako estakuruez etab., Biltzarreko denbora ahitzera utzi, eta kito. Eta maina horiek alfer gertatzen baziren, orduan aurrez-aurre eraso eta kontra egin.

Nik behin baino gehiagotan galdetu izan diot neure buruari ea zergatik egin zuen Mitxelenak hori: aldez aurretik bildu, alegia, Donostian euskaltzaleen bilera hura eta Arantzazun zer proposatuko zuen jakin arazi. Ni ez nintzen bilera hartan izan eta geroztik ez nion hortaz sekula deus galdetu berari. Esango dudana, hipotesi huts bat baizik ez da.

Ene susmoa da, bada, Mitxelenak nahi zuela noizbait gai hau plazara atera, ondorio guztiekin gainera; borrokatu behar bazen, borroka zedila, baina ezin egon gintezkeen beti egoera hartan: Iparraldekoek dena hatxez beterik idazten, eta hemengoek hatxe bat ere ikusi nahi ez.

Gehiago esango nuke: Mitxelenak nahi zuela iskanbila sor zedin, eta ez nolanahikoa, gizarte-mailan ere oihartzuna aterako zuen bezalakoa baizik. Horrela jendeak auzi honen berri jakingo zuen, H-aren aldeko

(29) Ikus *Euskera* (1968), 207-208.

arrazoiak ezagutuko, eta azkenean dena euskararen onerako izango zen. Eta zinez hala gertatu zen.

Hizlaria, bada, bere txostena irakurtzen hasi eta H-aren tokira heldu zeneko, mahaiburutik jakin arazi zioten gelditzeko, beste lan batzuk ere bazeudela irakurtzeko, berak geroago jarraituko zuela, etab. esanez. Koldo, ordea, erne zegoen eta ikusi zuenean jokoa, protesta egin zuen, eskubidea zuela etab. errepikatuz. "Nik eskubidea dut irakurtzeko eta irakurri nahi dut. Neri eskatu egin zait lan hau, eta Programan dago. Programan ez dauden beste lan horiek, astirik bada, irakurriko dira eta bestela ez, eta horregatik ez da deus gertatzen...".

Azkenean, bada, Mitxelenak H letrari buruzkoa azaldu zuen, baina eztabaidak leher egin zuen.

Koldo bada hasi zen Baionan lau urte lehenago, 1964ean, Hegoaldeko batzuek hartutako erabakiak gogoratzen eta oinarritzat hartzen. Mailak, premiazkoenetarik hasirik, honela azaltzen ditu:

a) H hori bi bokal berdinen artean erabiltzea (behar denean, noski, zeren bi bokal berdinen artean ez baita H beti erabiltzen eta hartako tradizioa jakin beharra dago, noski). Adibidez *ahari, mahai(n)*. Baina semeen, gazteen...

b) Bi bokalen artean, zeinahi direla: *aho, behar, ohe, nahiz*. Kasu honetan ere, aurrekoan bezala, behar denean. Eta hemen honako ohar hau egiten du gure hizlariak: "Horrek, gutxienez, erakutsiko digu, nahiz *h* zenbaitek irakurriko ez duten, zenbat silaba behar dituen izan euskal hitzak". Bai, ederki esana. Euskaraz hitz egitean, maiz gertatzen diren laburtzapenak direla kausa, gero zail izaten da zenbat silaba dituen euskal hitzak jakitea, eta horretarako, hain zuzen, *h* idazteak, nahiz eta gero ez irakurri, mesede ederra egin dezake.

Euskara bokal ugariak dituen hizkuntza da, eta hitzak ebakitzean maiz gertatzen dira laburtzapen eta murrizketa ikaragarriak; hori bizkaieraz gertatzen dela batik-bat uste dut. Eta, jakina, horrela hitz egiten duen euskaldunak nola jakingo du gero euskal hitzen silabak kontatzen? Baina H-ak beren tokian jartzen baditu, hor du silabak neurtzen ikasteko bide bat egokia.

c) Hirugarrenik eskatzen du Mitxelenak bokalen artean ez dezagula behin ere *g* edo beste letrarik H-ren ordez erabil: egun *ehun*-en ordez, legor *lehor*-en ordez, etab.

d) Laugarrenik, hitzen hasieran, behar denean, noski. Horretarako jakin beharra dago zein diren hasieran H daramaten hitzak. Adibidez, *hitz, hots, hotz, huts* etab. Hizlariak esaten du horretarako premiazkoa

dugula hiztegi ortografiko labur bat, zein hitzek *h* daramaten dakarrena. Berak hau zionean hemen gure aldean behintzat ez genuen horrelako hiztegirik (Azkuerena salbu).

e) Kontsonante ondoko H-ak kendu egingo dira. Garai hartan Iparraldekoek H erabiltzen zuten honelako hitzetan: *ekharri, athe, aphez, belhar, unhatu, erho.* Beraz, batasun-kontu honetan ez da dena Iparraldekoei amore ematea izan. Haiei ere mozketa batzuk egitea eskatu zaie.

f) Diptongo ondoko H-ak ere kendu egingo dira, dio bere hitzaldian Mitxelenak. Horra Iparraldekoek gordetzen zuten beste lege bat, baina, egia esan, hizlariak hauek ere kenduko direla dioenarren, ez dira kendu, mantendu baizik. Adibidez, *auhen, oihan* etab. idazten dira orain ere. Halere, badira diptongo ondoko kasu batzuk, zeinetan ez baita H erabiltzen –deklinazioko kasuetan–. Adibidez: *Bizkaian, anaiei, haien.*

* * *

Eta aldez aurretik ikusia zegoena gertatu zen. H-ren auzia mahai gainean jarri zenean, borrokak leher egin zuen. Oposaketa gogorra egin zitzaion letra honen onartzeari.

Aitortu behar da ortografia hau onartzen zaila zela alde honetako euskaldunentzat, hauek, hitzak ebakitzean, hasbeherapena edo aspirazioa ezagutzen ez dutelako, eta, ordukoz behintzat, zein hitzetan eta hitz bakoitzeko zein lekutan behar zen H hori jarri, adierazten zuen hiztegirik (salbu Azkuerena) ezagutzen ez zelako. Horiek hola, eta laguntza horiek ez zeuden bitartean, ortografia berriaren onartzeak berebiziko zailtasunak sortzen zituela uka ezina da.

Ez dakit nik zer pasatuko zen itsaso haserre hartan ustegabeko gertari bat gertatu ez balitz. Bazen han Pierre Lafitte jauna, Iparraldeko euskal letren patriarka beneragarria, Uztaritzeko Seminarioko euskal irakaslea, *Herria* astekariaren Zuzendaria eta anitz obra eta idazkiren egilea. Iziturik, nonbait, bere begiak ikusten ari ziren ekaitzaz, hitza eskatu zuen. Denak isildu ziren berari entzuteko. Eta, mamiz, hauxe esan zuen: Iparraldekoek, alegia, segituko zutela H erabiltzen, zeren eta berentzat utzi ezinezkoa baitzen. Hemengoei, aldiz, berak eskatzen zien ez zezatela letra hori har, horrenbeste istilu eta eragozpen sortzen zienez geroz. "Azken batean –gaineratu zuen– euskara biziko bada, hemen biziko da, zeren eta beste aldean ez baitu etorkizunik...".

Hitz hauek sortu zuten erreakzioa ustegabekoa izan zen eta erabakiorra oso, Biltzarrak amaiera edo azken on bat izan zezan: Utziera eta zatiketarentzat ez zen lekurik laga behar; Iparraldea gure herriaren zati guztiz begikoa eta kutuna zen; beharrezkoa zen, bada, denok bat eginik

joatea. Eta ordutik urek beste norabide bat hartu zuten eta gehienak ortografia batuaren alde jarri ziren edo behintzat ez zuten lehengo kontrakarra erakutsi.

Eta, izan ere, gorago aipatu ditugun lagungarriekin, ortografia batu horren onartzea ez zen hain ezinezkoa ikusten.

Handik 10-11 urtetara erabaki zuen Euskaltzaindiak zehazki eta xeheki zein hitzetan eta hitz bakoitzeko zein lekutan erabiliko zen H dontsu hori.

Arantzazuko Biltzarraren agiriaz

Biltzarrari amaiera ematerakoan bildu ziren euskaltzainak gela batean eta han Biltzarreko agiria idatzi zuten. Bertan esaten da Euskaltzaindiak begi onez ikusiko lukeela H, bi bokal berdin nahiz ezberdinen artean —behar denean, noski— erabiltzen hastea, eta gorago jo nahi dutenen saioak ere ez direla gaizki ikusiak izango (30).

Jendea zain zegoen batzar-lekuan. Irakurri zitzaion Euskaltzaindiaren Agiri hori. Gero kantatu zen "Gernikako Arbola", eta, beste gabe, barreiatu ziren bakoitza bere aldera.

Agiri honi buruz batzuek esan izan dute honako arrazoin hauengatik ez dela legezkoa: 1) Aldez aurretik erabakia zegoen gero, egun batzuk geroago, bilduko zela Euskaltzaindia Oñatiko Unibertsitatean eta erabakiak han hartuko zirela, eta hori ez zen bete. 2) Agiri honek erabaki-itxurarik ez duela, "begi onez ikusiko lukeala", eta honelako hitzak erabiltzen baititu.

Arrazoin hauei erantzun gisa zera esan behar da: Lehen arrazoinari: Gipuzkoako probintzia egun haietan exzepzio-lege azpian zegoela. Oñatiko alkatea —Reyes Corcostegui jauna—, Arantzazun izan zen Biltzarreko egunotan, eta, Mitxelenari entzun nionez, tarte batean D. Manuel Lekuona eta Luis Mitxelena berarekin mintzatu zen, eta zera esan zien: Oñatiko Unibertsitatean egin nahi zen bilera hori ezingo zela egin (egoera politikoagatik); egin behar zen guztia Arantzazun egiteko, beraz. Hori jakinik, Mitxelenak ez zuen nahi Biltzarreko jendea azken agiria gabe joan zedin.

Bigarren arrazoinari Koldok honela erantzuten zion: Esanmolde horiekin hartua, baina Euskaltzaindiaren erabakia da, inondik ere.

(30) "Literatura euskeraren batasunari buruz Euskaltzaindiaren agiria", *Euskera* (1968), 250.

Bergarako Biltzarra (1978)

Arantzazuko Biltzarra bukatu eta, hango eztabaiden oihartzuna motelduz eta itzalduz joan zen. Baina handik urtebetera edo, Euskaltzaindiaren agerkari ofiziala –hots, *Euskera*–, agertu zen, Arantzazuko Biltzarreko lanak, agiria, etab. zekarzkiela. Eta orduan berebiziko indarraz berpiztu zen H letraren kontrako erasoa.

Euskaltzaindira sarri heltzen ziren eskabideak: deusezta zezala Arantzazuko agiria etab. eskatuz. Eta Euskaltzaindiak beti gauza bera erantzuten zuen: behar zela epe bat, hamar urteko epea, alegia. Bitarte horretan Euskaltzaindiak ez zuela gai hau ezertan ukituko. Hamar urteak betetzean, ordea, beste Biltzar bat egin eta bertan aztertuko zela ea zenbaterainoko arrakasta eta onartzea izan zuen euskal idazleen artean Arantzazuko Agiri horrek, eta horren arabera jokatuko zuela: agiri hori deuseztatuz edota birretsiz.

Eta heldu zen urte hori: 1978. urtea. Euskaltzaindiko Biltzarra Bergaran bildu zen (31). Hein batean Estatistika-neurketa egiteko izan zen Biltzar hura. Hamar urte haietan euskaraz argitaratu zen guztia edo ia guztia aztertu zen, eta garbi ikusi zen Arantzazuko arauetara jarriak zirela jadanik gehienak. Eta orduan, jakina, Euskaltzaindiak birretsi egin zuen agiri hura (32).

Baina honekin ez zegoen dena eginik. Biltzarraren ondoan, axola handiko beste gauza batzuk burutu ziren, hots: Erakusleen batasuna (33), Deklinabidearen batasuna (34), eta Hatxetegia, hots, H daramaten hitzen zerrenda. Hau lan neketsuagoa gertatu zen. Bost zerrenda egin behar izan ziren eta azkenean bosgarrena onartu zuen Euskaltzaindiak. Onarpen hau 1979ko azaroaren 30ean egin zen (35). 13 euskaltzainek eman zuten baiezkoa, eta 3k botu zuria. Botu zuria eman zutenetatik batek nahi izan zuen bere botuaren esplikazioa eman, eta hauxe esan zuen: Hatxetegian berak uste zuen baino H gutiago zeudelako, bere nolabaiteko desadostasuna agertzeko, ematen zuela botu zuria.

Gainerakoan, bi agiri ere eman ziren euskalkiei buruz (36). Hilabeteen izenen batasuna, berriz, lehenago egina zen (37).

---

(31) Ikus *Euskera* (1978-2).
(32) "Adierazpena", *Euskera* (1978), 866-867.
(33) "Erakusleak", *Euskera* (1979-2), 629-632.
(34) "Deklinabidea", *Euskera* (1979-2), 633-657.
(35) "H letraren ortografi arauak", *Euskera* (1979-2), 659-695.
(36) "Euskara batua, euskalkiak eta tokian tokiko hizkerak-Declaración de la Real Academia de la Lengua Vasca Euskaltzaindia: El euskara común, los dialectos y las hablas

Aditzaren batasuna

Aditz laguntzailearen batasuna 1973. urtean egina zen (38). Eta aditz trinko edo sintetikoena, Bergarako Biltzarra baino hiru urte lehenago (39).

Zer bide hartu zen, ordea, aditzaren batasuna egiteko? Ez zen hau axola ttipiko kontua. Mitxelenak ezarritako oinarrien arabera, antzinako euskarara jo beharko zen, euskalkiak sortu baino lehenagokora. Baina kasu honetan hori ezina gertatu zen bi arrazoigatik: bat, ez dugulako ezagutzen, osoki behintzat, euskalkiak jaio baino lehenagoko euskal aditz jokoa; eta bi, ezagutzen dugunetik atera daiteke orduko aditz-sistema zaharkitua dagoela guretzat eta ez duela gaurkotzerik (40). Bestalde, euskalkietako aditz jokora joaz, euskalki bakoitzak berea duela bistan da, eta ezina zen handik eta hemendik puxkak hartzen ibiltzea sistema-barruko egokitasuna apurtuz. Horiek hola, euskalki baten aditz-sistema hartzea beste biderik ez zen gelditzen, eta gipuzkerarena hartu zen, ekarri batzuk lapurteratik hartuz, halere. Adibidez, *dut* hautatu zen, eta ez *det*. Ahalezko, Subjuntibozko eta Agintaldizko moduetan gipuzkeraren *dezaion*-en ordez, *diezaion* etab. onartu da. Lan hau burutu zuen batzordeari bere garaian eskatu zitzaion gutun edo azalpen bat egin zezan hartutako bidearen arrazoiak agertuz, eta azkenean aita Patxi Altunak egin zuen txosten hori (41).

Aditzari buruz gagozkiola, mende honen hasieran egin ziren gure artean beste amets eta saio batzuk antzinako euskal aditzera itzultzeko. Koldo Eleizade (1878-1923) izan zen asmo hauen aitzindaria (42). Eleizaldek nahi zuen, bada, antzinako euskal aditza berpiztu. Gaurko euskal aditza, guztiok dakigunez, aditz sintetiko edo trinko guti batzuek kenduz, aditz laguntzaileen bidez jokatzen da. Orain, bada, Eleizalderen iritziz, behar zen antzinako aditz-jokora itzuli, laguntzaileok baztertuz. Baina lehengora itzultzerik ez duen bilakaera baten aurrean gaude, dirudienez, kontu honetan. Hizkuntza erromanikoen aditz-jokora hurbiltze bat gertatu zen gure artean, buruko eskemak ere hizkuntza horien antzekoak hartuz, eta hala eta horregatik, horretan ez dugu lehengora itzultzerik.

---

locales", *Euskera* (1979-1), 101-110. "Euskara batua eta euskalkiak irakaskuntzan", *Euskera* (1979-2), 697-698.

(37) "Hilabeteen izenen batasuna", *Euskera* (1971), 103-107.

(38) "Aditz laguntzaile batua", *Euskera* (1973), 5-74.

(39) "Aditz sintetikoa", *Euskera* (1977), 785-850.

(40) Ikus RENE LAFON, *Le système du verbe basque au XVIe siécle*, 2 vols. Editions Delmas, Publications de l"Université de Bordeaux, n.° 5.

(41) ALTUNA, Patxi: "Aditz laguntzailearen gora-beherak", *Euskera* (1977), 667-672.

(42) ELEIZALDE, Luis: *Morfología de la Conjugación Vasca sintética*, Bilbao, 1913.

Azkuek ere –lehen euskaltzainburuak, alegia– bere gazte denboran, erabiltzen zituen adizki batzuk, berak asmatuak, bere ustez zaharrak eta jatorrak zirelakotan. Baina gero hura ere oraingora bihurtu zen (43).

IV. EGINBEHARREKO DITUGUN ZEREGIN BATZUK

Gaurkoz behintzat egin beharreko ditugun zeregin batzuk gogora ditzadan:

1. Fonetika arloan –Azkuek esaten zituen hitzez esanez–, *bodega* eta *petaka*-ren artean, bodega hitzaren kontsonanteak hobetsi, hots: *bake* eta ez pake, bekatu eta ez pekatu, *dorre* eta ez torre, gorputz eta ez korputz, *galtzerdi* eta ez kaltzerdi, etab.

2. Hitzen bukaerako *a* artikulua denean ken daiteke eta kendu egiten da, noski, deklinabideko kasuak hala eskatzen duenean. Baina badira beste hitz batzuk *a* hori berezkoa dutenak, eta orduan ez da kendu behar. Adibidez, *gauzarik* esan behar da, eta ez gauzik. Horretan hutsik ez egiteko, on da *a* berezkoa duten hitzen zerrenda jakitea.

3. Deklinabideko kasu instrumentala erdi zokoratua dugu, gipuzkeraz batez ere, soziatiboak eremua jaten diolarik. Adibidez, "ezpatarekin jo", "ezpataz jo" esan beharrean. Bihur diezaiogun, bada, bere esparrua kasu instrumentalari.

4. Euskaraz badira bi deklinabide-mota: mugatua eta *mugagabea.* Bigarren hau, ordea, sarritan ahaztua eta toki batzuetan ia galdua ere bada. Behar dugu, bada, berreskuratu eta bere lekuan jarri deklinabide mugagabe hori. Deklinabide-mota honetan artikulurik gabe agertzen dira hitzak: *mendirik, mendiren, menditan, menditara...*

5. Aditz iragankorra duten perpausen sujetuek pluralean *-ek* egiten dute, eta ez -ak: horra euskara batuaren beste ezaugarri bat: *gizonek* ikusi dute, ez gizonak.

6. F letra baztertzeko eta haren lekuan P erabiltzeko joera ere izan da gure artean, letra hau eta beronen hotsa euskaraz jatorra ez zelako ustetan, baina uste hori, dirudienez, ez da zuzena, eta *f* letrari bere lekua bihurtu behar zaio: *alfer, afari, Nafarroa*, etab.

7. Gorago ikusi dugunez, honako hau dugu euskara batuaren printzipio nagusietako bat, hots: antzina euskara osoarena zena, orain ere

(43) Ikus *Euskal-Izkindea-Gramática Euskara*, Bilbon, 1891. Ikus baita ere, "Txukuneria", *Euskera* (1925), 4-21. Artikulu honetan Aita Soloeta-Dima-z etab. mintzo da Azkue.

hizkuntzaren zati edo atal dexente batean bizirik baldin bada, berorri lehentasuna eman. Irizpide honi jarraituz, hartu dira euskara baturako zenbait gauza. Esate baterako, *burdina*, eta ez burni; *arima*, eta ez anima; *katoliko*, eta ez katoliku. Jakina, horrek ez du esan nahi eguneroko elkar hizketan forma hobetsiak nahi eta ez beti erabili behar direnik. Hemen euskara idatzizkoaz ari gara batez ere.

Nazio-arteko prosa etxekotu beharra

Horra nere ustez neurri handi batean oraindik egin gabe dugun gauza bat, eta egin beharrean garena. Horretan Europako beste hizkuntzen aldean atzeratu samar dabil euskara. Batez ere perpausen menderakuntza egiteko juntagailu eta atzizkiak bilatu behar ditugu edo lehendik direnei, lehengoez gainera, zeregin berriak erantsi. Beste hizkuntzek ez dute bestela jokatu eta euskara ere gure idazle zaharren garaian bide beretsutik zihoan, baina gero, bista laburreko purismo baten erruz, egoak mozturik eta hanka-bakar gelditu gara.

Nazio arteko kultur hitzen arazoa

Nazio-arteko kultur hitzei buruz ere egon dira gure artean zalantzak. Broussain jaun berbera ere hiztegi-sail hori dena euskal erroetatik sortzearen aldekoa zen, baina ez dut uste berak sortu zituen hitzetatik batño ere bizirik gelditu denik. Beraz, nazio arteko kultur hitzen hiztegia guk ere besteek bezala hartu behar dugulako iritzia gaur gure artean nagusitu dela uste dut.

Beste arazo bat dago hemen, ordea: hitz horietan erabili behar dugun ortografiarena, alegia. Hizkuntza batzuek, adibidez frantsesak, latinak hitz horietan erabiltzen duen ortografia zorrozki eta zehatz-mehatz segitzen dute: gaztelaniak, aldiz, xinpletu edo erraztu egiten du idazkera hori. Bi bide horietarik zein hartu? Badakit guztion iritziak ez datozela bat gure artean, baina Euskaltzaindiak herriko gehienen faboretan, ortografia horren xinpletze-bidea hartua du jadanik, eta Mitxelena ere Arantzazuko Biltzarrean bide horren alde agertu zen. Hau zioen: "Ikasientzat bakarrik balitz, nik ez nuke dudarik izango, baina ez da hori gertatzen" (44).

Gogoan dut Euskaltzainburu jaunak behin kontatu ziguna –jaun frantses batek berari esana–. "Bai, guk frantsesok ortografia hori darabil-

(44) Ikus *Euskera* (1968), 215.

gu, aspaldidanik hartua dugulako eta gaur egun aldatzerik ez dugulako, baina ongi dakigu zer-nolako lorra eta zama den jende xeharentzat, hots, hizkuntza klasikoetan ikaste bereziak egin ez dituztenentzat. Zuek, ordea, horrelako tradiziorik izan ez duzuenok, noiz eta orain hasi behar duzue bide horretatik?....

V. ERASKINA

Mitxelenak badu beste lan bat, erdaraz, gure gai honezaz, hots: "la normalización de la forma escrita de una lengua: el caso vasco" (45). Labur baino ez bada ere, hemen aipatu beharrekoa dela uste dugu.

Artikulu honetan, bada, Koldok zera esaten du: X-XI. mendeez gero euskalkien ezberdintasuna nabari dela jadanik, eta ordutik hona ezberdintasun hori handiagotuz eta sakonduz joan dela. Jatorriz edo hasieran, euskalkiak baino lehenago, alegia, batasuna izan zela nagusi. Eta Hans Vogt-en aipamen bat dakar lekuko. Hona zer dioen jaun honek: "Euskalkien jatorrizko batasuna ezbai guztien gainetik dago. Egitura fonetiko eta morfologiko berbera ageri da euskalki guztietan, eta maileguen multzo itzelezkoaren ostean —erromanikoak gehienak—, euskal hiztegi aski bateratsua ageri da. Guztion euskara hori —hots, gaurko euskalkien etorburu arrunta— ez zen, bada, segurki, egungo gure euskalkietatik oso ezberdin" (46).

Arantzazuko Biltzarrari buruz, ordea, horra zer dioen artikulu honetan Mitxelenak: Hango erabakiek edo agiriek, beren literaltasunean guztiz apalak badirudite ere, bide bat oinarrizko gauzetan ongi markatua uzten dutela.

Azkenean atera zena —Mitxelenak dio hau ere—, zera izan zen: nafargiputz (Beterrikoa) Lapurdiko ukitu batzuekin egindako euskara batu bat. Hitz batean esateko: idatzizko batasunean gatzatu eta urtu da mintzatuaren ezberdintasuna (47).

Aditzari buruz esaten du batzorde-barruko eztabaida askoren ondoan, aditz laguntzaile nafar-giputza hartu zela, lapurtera eta bizkaiera baztertuz. Aitortzen du bizkaiera atera dela galtzaile nagusi. Eta ez, batzuek esan duten bezala, euskalki hau guztiz berezia delako, bazterrekoa delako baizik. Oztopo hori gaindi zezakeen hiriburuak, Bilbok alegia, euskaldun izanik —osoki ez izanda ere neurri dexente batean balitz—, baina zoritxarrez ez da hori gertatzen, gaur behintzat.

(45) MICHELENA, Luis: *Lengua e Historia*, Paraninfo, Madrid, 1985, 213-228.
(46) Ikus *Lengua e Historia*, 219 orr.
(47) Op. cit., 225 orr.

Norabide bat garbia markatzen da: txokokeria eta probintzikerietatik ihes egin eta batasunaren ezaugarri izan daitekeen hizkuntza-modu bat erabiltzeko joera, alegia (48).

Baina arrazoi nagusia beste hau izan da, Mitxelenaren ustez, hots: arrakasta lortzea. Gaur euskara irakaskuntzan sartua da. Beraz, euskara modu bat batua izatea, ez egoki bakarrik, baitezpadakoa ere bazen. Horrela euskara sartu da ez irakaskuntzan bakarrik; baita administrazioan eta ofizialtasunean ere.

Dialektuei buruz hara zer dioen Mitxelenak: Horiek beren tokia behar dutela izan irakaskuntzan, zenbait eskualdetan besteetan baino areago. Eta propioki "literatur mundua" dei dezakegun horretan agian zurruntasun gehiegi nabari dela dio.

Eta azkenik, aholku, iradokizun edo ez dakit nik zer izan nahi duen bukaeran Koldok esaten duen beste honek. Esaten du, bada, "locus" bat, txoko hautatu bat euskararentzat bilatzean, agian hor legokeela gakoa. Gure handinahiak ez mugatzea segurutik kaltegarri litzaigukeela, alegia. "Contraproducente" dio berak, hots, nahi dugunaren kontrakoa ekar lezakeena (49). Horretzaz ere balegoke agian zer pentsaturik.

VI. BATASUN-BIDE HONEN BALIO-NEURKETA

Honez gero badakigu zein den euskara batura heltzeko bidea. Batasun bide honek badu helmuga, xede edo helburu jakin bat, hots, antzinako euskara, euskalkiak sortu baino lehenagokoa. Batasunera jo nahi badugu, ez dugu euskalkietara jo behar noraezean baizik, zeren euskalkiak zatiketaren ondorio eta seinale baitira, eta guk batasuna, eta ez zatiketa, nahi dugu.

Beste biderik ez denean, ordea, euskalkietara beharko jo, aditzaren batasuna egitean jo zen bezala.

Hauxe da, bada, eredua, ispilua, eta hizlariak begien aurrean jarri zigun zeregina. Obra honen lerro nagusiak utzi zizkigun, bidea urratu zuen, baina ez zuen lana amaitutzat utzi, eta ez utzi nahi ere. Xedea erdietsi gabe, baina norabidea garbi erakutsiz eta urrats garrantzitsuak eman ondoren joan zitzaigun (G.B.).

Kritika eta epaiketa-lana ere beharrezkoa izaten da, eta horretaz zerbait esan dezagun. Koldo Zuazok artikulu bat idatzia du: "Euskalkiak,

(48) Op. cit., 227 orr.
(49) Op. cit., 228 orr.

askatu gabeko korapiloa" (50). Koldo Zuazok, bada, Azkueren batasun-bidea gogorazten digu, hots, "gipuzkera osotuaren" bidea. Ez zuen arrakasta onik izan, eta, dirudienez, euskaldunak euskalkietara duen atxikimendua dago porrot honen azpian. Eta hauxe da Koldo Zuazok egiten duen galdera: Ez ote da beste hainbeste gertatuko oraingo euskara batu honekin?

Jaunak, ni ez naiz profeta eta etorkizunean zer gertatuko den ez dakit. Guttinaz, zera esan dezaket: Mitxelenak, euskara batua deitzen den hau sortu zuenetik 25 urte igaro dira, eta bitarte horretan beti aurrera joan dela uste dut. Eta beste hau ere bai: "Gipuzkera Osotua" sortu zen denborako Euskal Herriak eta oraingoak ez dutela antz handirik. Egoera guztiz bestelakoa dela gaurko hau esan nahi dut.

Mitxelenak, gorago esan dugunez, batasun-bidea marraztean, euskalkiak alde batera utzi ditu. Azken batean, euskalkiak zatiketaren ondorio eta seinale baizik ez dira, eta gu batasunaren bila gabiltza. Horretarako euskara zaharra, euskalkiak sortu baino lehenagokoa hartu behar dugu eredu, xede eta jomuga.

Hastapen edo oinarri bezala, honako araua jarri du Mitxelenak: Behinola, garai batean, alegia, guztiona zena, orain ere Euskal Herriko zati dexente batean bizirik bada, berau hartu euskara baturako. Jakina, hau euskara idatzizkoan neurtu behar da batez ere. Arau hori kontutan hartuz egin da H-aren onarpena ere.

Batasunaren auzi hau ez da erabaki-erraza. Ez da behingoan egitekoa ere, baina bai eragingarri eta bultzagarria. Iker lanera bultzatzen gaituena, gainera. Eta on da jomuga beti garbi eta begien aurrean izatea.

Eta zer-nolako iturriak ditugu ikerpen-lana egiteko? Euskal literatura zaharra, noski. Eta bai Erdi Aroko edo lehenagoko Kartulario edo izkribu zaharrak, gehienetan latinez idatzirik daudenak, eta halere inoiz euskal hitz edo esapide batzuk aipatzen dituztenak (51).

Euskara batuaren obra ez da dagoeneko buruturik edo bukaturik den zerbait. Gero ere urratsak egin beharko dira, baina beti ere aurrean dugun xedeari kasu emanez.

(50) KOLDO ZUAZO, "Euskalkiak, askatu gabeko korapiloa", *Jakin* (1993), 41-62.

(51) Ezaguna da, esate baterako, *Zubiri* hitzari buruz Aragoiko errege Pedro Lehenak dakarren lekukotasuna eta Azkuek bere hiztegian jasoa. Ikus Azkueren hiztegian *iri* eta *zubiri* hitzak.

EUSKARA BATUAREN EGUNGO PREMIAK

Pello Salaburu

SARRERA

Jaun-andreok, egunon!

Bistan da euskararen oraingo egoera ez dela orain dela 25 urteko hura bera, zorionez. Gauzak aldatu dira, nik uste onerako, batez ere euskararen presentzia erakutsian geratu baita orain dela urte batzuk agertu ere egiten ez zen esparru eta eremu berrietan: prentsan, irratian, telebistan, hezkuntzan, literaturan... Horietan guztietan bere lekua, batzuetan handia eta beste batzuetan txikia, hartu du gure hizkuntzak. Biltzar hau bera ere, denen aurrean eta goi mailako instituzio baten gela nagusian egitea, erdi ixilpeka ibili beharrean, une honetan esaten ari naizen horren froga ederra dugu hain segur. Kontuan hartuz, gainera, Biltzarrean parte hartzen dutenen artean ez direla guti irakaskuntzan dabiltzanak. Egoera soziala eta politikoa alde batera utzirik, eta euskararen erabilerara mugaturik, orain dela 25 urte eztabaidagai gertatzen zena, Villasantek oroitarazi digun gisa han-hemenka iskanbila gogorrak sortarazten zituen hura, egun euskararen historia handi eta ixtorio koxkorraren kontua baizik ez da. Euskararen batasun idatziak bidea egin du, bide luzea eta zabala, eta idazleek oro badute orain segitzeko eredu formal bat, lehen ez zutena. Eredu hori osatzen segitu behar dugu orain, behar diren arazoak eztabaidatzen, zehazten eta azaltzen erabiltzaileei, hainbat punttu geratzen baita oraindik ere zalantzak sortzen dituenak. Horrenbestez, orain dela 25 urte proposatu zenaren eta harrezkero de facto egin denaren argian zehaztu beharko da zer den hemendik aitzinat egitea komeni den, zeozer egin behar baldin bada behintzat, hau ere baten batek eztabaidan jar bailezake. Nire ustez, eta horretan ez dut dudarik memoria historikoa gogoan izateaz gain ez baitut antiojorik behar izaten inguruko hizkuntzekin gertatzen dena ikusteko, hil ala bizikoa du euskarak batasuna, batasunak berak bakarrik euskararen etorkizuna segurtatzen ez badu ere. Baina batasunik gabe bai ezinezko izango zaiola gure hizkuntzari urte gehiegi bizirik irautea. Egun aprosa da gaur honetaz mintzatzeko, sona handiko urteurrena ospatzeaz gain, atzoko egunarekin ospatu baitzuten kataluniarrek Mare del Déu de l'Acadèmia izeneko eguna.

ABIAPUNTUAK

Mitxelenaren txostenak oraingo euskalkiak eta lehenagoko euskara batu hura bereizten ditu, azalari eta mamiari dagozkion arazoak, euskal hitzak eta "euskaldunduak", garbitasuna eta zabarkeria hutsa, autore gailenen eta herri xehearen hizkuntza, euskaltzainburu ohiak ongi aski gogora ekarri digun gisa. Aipaturiko euskara batuaren azpiko filosofia horretatik hainbat abiapuntu gaur ere guztiz baliagarriak eta oinarrizkoak direla uste dudanez, zilegi bekit hemen haietako batzuk, gaurkotuak, bereziki aipatzea. Badira, bai, ukitu beharko liratekeen beste zenbait puntu, baina hemen erreferentzia nagusietara bakarrik mugatu nahi dut:

1. Gaur egun gure artean gero eta jende ikasi gehiago baldin bada ere, unibertsitate mailako ikasketak dituen jende gehiago dagoelako eta ikasketa hauek sarritan euskaraz burutuak izan direlako, badut uste proposatu behar den ereduak ezin duen atzendu erabiltzaileak ez direla ez hizkuntzalariak ez filologoak eta, anitzetan gainera, ez dutela aparteko kezkarik hizkuntzaren erabileraz. Hori dela eta, ereduak ulerterraza behar du izan, ulerterraza eta erabaki argiak dituena, edozeinek, erdi mailako kultura duen nornahik, bereganatzeko modukoak. Ikastola bateko edozein umek berehala harrapatzeko gisan emanak. Xinpletasunera jo behar dugu orain ere, Mitxelenak nahi zuen legez. Ez ditzagun aspaldi konponduak eta amaituak ziren ortografia arazo berri faltsuak berpiztu eta proposamen berriek ez dezatela gaizki ulertze eta nahaste-borrasterik sortu, eztabaida antzu eta alferretan erortzeko arriskua baitugu. Begira dezagun ingurura eta inguruko hizkuntzetatik ikas dezagun, ortografia arazoak guziz arbitrarioak direlako, ez baitu merezi gure artean mokokan ibiltzea eta indarrak horrela isurtzea. Eztabaidotan euskaldunok, euskaldun guztiok, baina batez ere gure hizkuntzaz ardura berezia dugunok, gara galtzaile ateratzen garen bakarrak. Hori da, hartara, lehenbiziko puntua: eredu xinplea eta ulerterraza behar dugu.

2. Ur garbiaren pareko prosa bultzatu behar da orain ere, batasunari dagokionez: inongo usainik, zaporerik eta kolorerik gabea, gure tradizio idatzian eta euskalkietan oinarritua. Baina aldi berean nazioartean egiten den prosan islatu behar duena. Beti ere, baldintza horien azpian, ahalik eta aberatsena. Puntu hau ezinbestekoa ikusten dut. Euskara, bere ñabardura guztiekin ere, den bezalakoa da, ez guk nahi genukeen modukoa. Gramatika batzordeak martxoan Iruñean egin zuen adierazpenean ikusten den bezala, euskara ez du hizkuntzaren gramatika logikoak zehazten ez erakusten: "egitura hau honelakoa da, beraz beste hura halakoa izango da" delako horrek ez du balio, ez du lekurik hizkuntza kontuetan. Zer egingo dugu bada euskara ez bada nahiko genukeen bezain zehatza batzuetan, ez gustatuko litzaigukeen bezain egokia besteetan. Ez dezagun pentsa gure arbasoek umetan utzitako legeak eta arauak

besterik gabe alda ditzakegunik, esplikaziorik aurkitzen ez dugulakoan edo euskara den baino perfektuago eta osatuago bihurtu gura dugulakoan. Gure gainetik daude haiek. Gure gurasoek ahoz ahoko tradizioan pasatu digute mintzaira eta gure idazleek iturri ederrak utzi dizkigute mendeetan zehar. Badugu non edan eta non ikasi. Ez gaitezen hasi orain euskara azkeneko 15 urte honetakoa dela pentsatzen, azkeneko urte hauetan bakarrik egin izan dela euskaraz, nahiz egia den azkeneko urteetan inoiz baino gauza gehiago idatzi dela.

Eta puntu hau azpimarratu nahi dut euskaran sekulan ez bezalako eragina duten faktore berriak sortu zaizkigulako, agian behar bezala baloratuak izan ez direnak, erabilera batzuetara bakarrik mugatua zegoen hizkuntza hau noranahiko bihurtu nahi izan dugun bezain laster: batetik, euskaldun berrien kopurua ikaragarri hazi da eta haien iritziek pisu gaitza dute hizkuntzaren normalizazioan. Bestetik, idazten dugun guztiok euskal idazletzat dugu gure burua, baina aldi berean, konturatu gabe beharbada, euskal itzultzaileak gara maizkara. Beldur naiz orain euskaldun bakoitzak bere kolkoan hizkuntzalari koxkor bat eramateaz gain, idazle bakoitzak itzultzailea ere ez ote daraman, ohargabeki gainera, bere soinean. Hura ozenki aitortzen da, baina bigarren hau, ordea, ez. Hala ere, euskaraz idazten diren milakako testu horietatik zenbat ez dira itzulpen zuzen edo zeharkakoaren kumeak? Zer eragin du horrek gure hizkuntzan, eskoletan umeak hazten ditugunean esaterako egunero transmititzen den hizkeran? Zein dira irakaskuntzan erabiltzen den erregistro horren ezaugarriak? Nola ari da aldatzen hizkuntza? Ba ote dugu horretaz inolako kontzientziarik? Hara bada hemen bigarren puntua: oinarri dezagun gure eredua tradizio idatzian eta mintzatuan, ez gure buruko asmakerietan.

3. Inoiz baino premia handiago bat ere erakutsian utzi nahi dut: hizkuntza eredu nazionala bultzatu behar dela uste dut, ez erregionala edo herrialde batekoa, nahiz eta euskaldun gehienak, kopuru aldetik, Gipuzkoa-Bizkaietan bizi diren. Horrek esan nahi du batasuna euskalki guztiak kontuan hartuz egin behar dugula. Alde honetako euskalkietan bakarrik oinarritzen bagara batasun erregionala egiteko arrisku ikaragarria da, eta Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko zuloa etengabe handituko da. Horra hor: batasun erregionalaren eta bitasun nazionalaren arteko kontraesana. Euskara euskal komunitate osoaren hizkuntza da, ez zati batena, eta hau kontuan hartzen ez bada jakinaren gainean ari gara hizkuntza aldatzen, espainieraz mintzo garenok, eta guk bakarrik, gure buruari hizkuntza gure erara moldatzeko halako eskubide berezia aitortuz.

Zertara eraman gaitzakeen honek ikusteko, eta horrela biltzarraren mamian sartzen naiz, adibide bat aipatuko dut: mendebaleko tradizio

txikian, azken urteotako tradizioaz ari naiz, ongi errotua da "ohizko" hitza, denok dakigunez. Gela honetan nork ez ote du erabili hitz hori noizbait? Zenbat aldiz ateratzen ote da idatzia edozein orritan? Berez hitz hori Iparraldekoa da eta haienganik ikasia dugu Hegoaldekook, gure euskalkia aberastuz bide batez. Kontua da, ordea, guk "ohizko" esaten dugun bitartean haiek "ohiko" erabili izan dutela eta egun ere, egunerokо hizketan, ez dutela "ohizko" esaten, "ohiko" baizik. Beraz, noizbait gaizki ikasi genuen hitza da, norbaitek "z" soinu berria "ohiko" hitz zaharraren barnean txertatu ondoren gertatutakoa. Baina txarrena ez da hori: txarrena da orain haiek ari direla gugandik ikasten eta beti-beti erabili izan duten "ohiko" hori esan beharrean, "ohizko" hasi direla beren idazkietan onesten eta, gure eraginari esker, hizkera aldatzen. Aski adierazgarria da gertaera hau. Hizkuntza erregionalaren ispilua.

Ez da kontua hemen "ohizko"/"ohiko"rena, eta ez dut nik segurik auzi-mauzi bihurtuko hitz hori, ezin baitugu agian atzeko bidea hartu hain urrun joan ondoren. Txikikeria da, zinez. Baina ez dut ahaztu nahi, ordea, hizkuntzak txikikeriez eginak direla, bata bestearen gainean jartzen ditugun txikikeriez, baten bati negargura, malkoak erraz isurtzeko joera duenez gero, emaiten dioten huskeriez alegia. Aipatu dudan kasua da txikikeria horietako bat. Ez dezagun ahantz: hizkuntza eredu nazional batek informazioa behar du "ohizko" / "ohiko" bezalakoen artean aukerak egiteko ordua ailegatzen denean. Zorionez, gaur egun informazio iturri paregabea da *Orotariko Euskara Hiztegia*k eskaintzen diguna. Gure kexua zen lehen ez genuela informaziorik. Orain, hainbeste gostarik eskuartean dugularik, gaitzetsi, gutxietsi eta baztertu behar al dugu informazio hori guztia? Hauxe izango litzateke orduan hirugarren ezaugarria: betiko tradizioan oinarrituriko hizkuntza nazional baten premia.

4. Euskaltzaindiak kontuan izan behar du euskararen erabiltzaileen mundua ere asko aldatu dela. Bere gomendio eta erabakien legitimazioa behar du horregatik, denon arteko eztabaida eta consensus zabal baten ondorioz bakarrik sor daitekeen legitimazioa. Jai du Euskaltzaindiak hemengo idazle ereduzkoenek, komunikabideek eta irakasleek, hark hartutako erabakiak bazterrean uzten badituzte. Legitimazioaren kontu honek badu, halarik ere, bere alde txarra: anitz jendek, batez ere irakaskuntza, argitaratzaile eta itzultzaileen mundukoak, erabakiak hartzeko eskatzen dio Euskaltzaindiari, baina erakunde honek ezin ditu erabakiak alegereki eta egun batetik bestera hartu, legitimazioa bilatu nahi badu aldi berean. Bere erritmoa behar du, emandako gomendioa zalantzan jarri nahi ez bada. Euskaltzaindia gizartearen atzetik doala diote batzuek. Baina erakundea sakralizatu nahi ez badugu, eta ez dut uste batere ona den gauzak sakralizatu eta ukiezin bihurtzea "Euskaltzaindia dixit" bezalako batekin arazoak konponduz, nahitanahiez joan beharko du mantxo-mantxo.

Ez sakralizatzea ordea gauza bat da, baina edozein taldek edo edozein gizakumek hizkuntzari buruz izan dezakeen iritziari Euskaltzaindiak erakuts dezakeenari adinako pisua ematea zeharo bestelakoa. Euskarak, biziko bada, erreferentzia puntu bat behar du, bat bakarra, eta gauzak diren bezala Euskaltzaindia da hori, onerako nahiz txarrerako. Erakunde hau da Euskal Herri osoan adostasunik gehien eskuratzen duena. Nori berea eman behar zaio orduan. Berea da esaterako, eta beste adibide bat jarriko dut, legeak aitortzen dion erantzukizuna telebistako euskararen kontrolean. Bete ezin duen kontrola, bide batez, bete dezan eskatu ere ez baitzaio egiten. Eta kontrola ez da, ez pentsa, aholkua ematea. Herri hau inork ere kasurik egiten ez dien aholkulariez betea da. Hizkuntza kontrolak esan nahi du begiratze hori bere gain duenak eragotz dezakeela, adibidez, programa bat ematea. Baina beldur naiz hori amets txarra baizik ez ote den. Nahiz eta Katalunian halaxe gertatzen den. Euskal Herrian, ordea, hizkuntza kontuetan denok dugu zeresana eta, ikusten denez, Euskaltzaindiak ez du eguneroko ihardueran programa honen edo atal haren arduradunak edo atzo goizean sartutako esatariak baino zeregin handiagorik.

Dena dela, egia bada Euskaltzaindiak legitimazioa behar duela, egia da ere Euskaltzaindia ezin dela presio taldeen mende egon. Eta presio taldeak beti izan ditu erakunde honek: berak harturiko erabakiren bat norbaiten gogoko izan ez denean, ez zaizkio falta izan Euskaltzaindiari lasterka eta tarrapataka sinadurak bildu eta erabakia alda dezan eskatu izan diotenak. Anitzetan publikoki gainera. Ez dut uste batere hori den biderik egokiena. Hasteko, denok dakigun bezala, ez baita zaila sinadurak biltzea, batek baino gehiagok zer sinatzen duen ere ongi ez dakiela gainera. Bigarrenik, beti badirelako bideak eta moduak Euskaltzaindiari zerbait gaizki egin duela zuzenean adierazteko.

Ororen gainetik, halaz guztiz, nik uste guztiz mesedegarria eta komenigarria dela gauza bat kontuan izatea: euskararen eta euskaldunon mesederako ona da erreferentzia puntu bat, eta bat bakarra, izatea.

Eztabaida dezagun, eska diezaiogun harturiko erabakiak arrazoituak eta egokiak izan daitezela, baina behin hartu ondoren errespeta ditzagun, jakinaren gainean batzuetan hanka sartzeko eskubidea ere baduela. Ez gaitezen oiloak bezala pikuka hasi, eztabaida petral alferren hitz jarioan galduak. Bestela, ez gaude hizkuntzaren batasunaren alde, baizik nork bere aldetik eta bere kontura, ustez arrazoirik handienak bere jakiturian enbortu direla, hobekien erabaki lezakeen batasunaren alde, une honetan ez baita, edo ez baitut ikusten nik behintzat, Euskaltzaindia ordezka dezakeenik. Zer gertatuko zen Euskaltzaindiak bere garaian etorri zitzaizkion eskariei kasu egin izan balie eta ortografiatik h-a, behin eta berriz eskatu zitzaion gisa, kendu izan balu? Laugarren puntuak, bada,

hauxe eskatuko liguke: Euskaltzaindiak legitimazio bideak aurki ditzala, baina besteek errespeta ditzatela erabakiak.

5. Ereduak ez ditu euskararen erregistro guztiak agortu behar. Euskara batuak oso esparru berezia eta mugatua du, nahiko ongi zedarritua: irakaskuntza, administrazio hizkera eta komunikabideak, neurri handi batean bederen. Oraingoz euskara idatziaz ari gara. Komeni da, eta Euskaltzaindiak bere aurrean duen erronka du hori, ahoskeraz ere ereduak proposatzea. Baina erregistro batean bakarrik erabiltzeko. Herri hizkeran ez da batasunik behar, ez dakit ona den batasunik izatea ere, horrek ematen baitizkio hizkuntzari hain berezkoak dituen bizitasun eta ñabardurak. Hizkuntza jasoaz bakarrik ari gara hemen: testuetan erabiltzen den hizkuntzaz, eskolak ematean erabiltzen denaz, telebista edo irratiko esatariari eska dakiokeenaz. Gizon edo andre ikasi bati exigitu behar zaionaz. Horretarako batez ere behar dugu euskararen batasuna.

Horrenbestez, hizkuntzaren batasunaren eredua eskaintzean, aipatu puntu horiek izan daitezke, agian, ematen diren pausuak ematen direla, oinarrian betiere kontuan izan beharko lituzkeenak Euskaltzaindiak:

a) ereduak ulerterraza behar du izan

b) tradizio idatzian eta ahozkoan oinarritua behar du izan

c) hizkuntza nazionalaren, eta ez erregional baten, ezaugarriak dituena

d) erabakiek legitimazioa behar dute

e) erregistro batean aplikatu behar da batasuna: hizkera landuan, jasoan

Mitxelenak guztiz egin gabe eskaini zigun batasunaren bidean aurrerapausu berriak eman behar dira, lehen irekitako bide batzuk zehaztuz eta arlo berrietan, batez ere maila fonikoan, ahoskeran alegia, bideak urratuz.

Euskaltzaindiaren sortarauek markatzen dute hizkuntzaren batasuna dela instituzioaren zereginetako bat eta horrekin aurrera segitu behar da. Horretarako, hain preziski ere, bildu gara hemen guztiok. Inoiz baino premia handiagoa dela esango nuke gainera: zenbat zalantza sortzen zaizkigu idazteko orduan? Batuaren alde dauden testu bi hartzen badigu eta bata bestearen parean jarri, zenbat ez-adostasun (edo "desadostasun" esan beharko nuke menturaz?) sortzen dira oraindik ere?

Baina gai hori zehaztu aurretik komenigarria da, agian, beste bi kontzeptu bereiztea, sarritan aski nahasiak agertzen baitira: euskara batua formala eta euskara batua soziologikoa. Horiexek dira segidan aipatuko ditudanak.

EUSKARA BATUA FORMALA ETA EUSKARA BATUA SOZIOLOGIKOA

Anitzetan gertatzen da jendeak euskara batua deitzen diola berez euskara batua ez denari. Batek baino gehiagok, testu bat euskara batuan jar dezan eskatzen badiogu, segur naiz "guti goiti-beheiti", "gibelean", "ialgi", "abian jarri", "etortzen balitz", "jin", "berba", "barride" eta "xakur" bezalakoak aurkituko balitu eta den-denak ulertuko balitu ere, hau ez baita hain gauza ziurra, aldamenean jarriko lituzkeela "gutxi gora-behera", "atzean", "atera" edo "irten", "martxan jarri", "etorriko balitz", "joan" (konturatu gabe "jin" hitzak kontrakoa esan nahi duela), "hitz", "auzoko" eta "txakur". Proba egitea baino ez da.

Sarriegi entzun behar izaten dugu, zinez, euskara batua oso kaxkarra dela, konturatu barik ordea, kaxkartasun hori batuan idatzi nahi duenaren hizkuntzaren ahulezian dagoela, eta ez batua edo bitua izatean. Zer egingo dugu bada "arratsaldeko trenez", "bihar goizez" eta "astelehenez" esaten badute batuzale askok euskaldun jatorrak gehienetan "arratsaldeko trenean", "bihar goizean" eta "astelehenean" esaten duen bitartean? Horrek ez du zerikusirik batasun ereduarekin, baizik batua izan gabe batua deitzen zaion horrekin.

Bada, "jin" eta "gibelean" hitz gizajoek "etorri" eta "atzean" hitz ponpoxoek adinako eskubidea dute batutzat hartzeko. Baina batasunaren alde gauden gehienok "etorri" eta "atzean" bakarrik idazten badugu, orduan batasun formala baino anitzez ere mugatuagoa den batasun soziologikoa egiten ari gara. Azken batean, hori hizkuntza guztiekin gertatzen da, hiztunek aukerak egiten dituzte hautatzeko bidea dutenean, eta denborarekin aukera horietako baten bat nagusiturik geratzen da. Honekin esan nahi dudana da Euskaltzaindiak askotan uste dugun baino bide zabalagoak uzten dituela. Gero, erabiliaren erabiliaz, bidea estutu egiten da eta orduan jendeak pentsatzen du Euskaltzaindiak eman duela zinez inoiz ere eman ez duen gomendioren bat. Ahaztu samar dugun "han" deiktikoak badu lekua euskara batuan, ez pentsa. Baina gaur egun ez gara "bertan"-dik ateratzen. Hori Euskaltzaindiak argitara ematen dituen paperetan beretan ikusten ahal da. Gure gurasoen eta aitatxi-amatxiren "han zegoen zaldia" bezalako esaldiak "bertan zegoen zaldia" perpausen gisakoetara makurtu ditugu, "bertan" hori bestea baino jantziago, dotoreago eta aberasgarriago bailitzan. "Hemen aurkituko dituzu hau eta bestea" esan beharrean "bertan aurkituko dituzu" esatea badirudi euskara landuagoaren seinale dela. Eta, zer esanen dugu, "bihar sarturen naiz" edo "bihar sarturenko naiz" bezalakoek ez lukete sobera iraungo lapitz gorriaren azpian. Baina horretaz ez baitu ordea deusik esan Euskaltzaindiak: biek badute lekua euskara batu formalean, Euskaltzaindiak emandakoan, biak erabiltzen direnez euskaran. Euskara batu soziologikoak

(hiztunek egiten dutena, ez Euskaltzaindiak) ordea, urratuak ditu aspaldi forma horiek. Filosofia berarekin, "aurten fite joan dira bestak" bezalako baten ordez aski agudo jarriko dugu "aurten laster joan dira jaiak", ustez bada hau hura baino batuagoa dela.

Ez ditzagun, hortaz, gauzak nahas: Euskaltzaindiak oso eredu zabala proposatu du, eta hori ezin du idazleak atzendu, nahiz gero hiztunek nahiago duten, eta hartarako ere eskubide osoa dute, eskainitako bidea murriztu. Jakina, euskaraz ikasten duenak ere ezinbestean bide murritz honen informazioa baizik ez du jasotzen eta horrek ematen duen inpresioa da batasuna pobreziaren gainean eraikitzen dugula. Alde horretarik datoz orduan erasoak batzuetan. Euskaltzaindiaren lan bakarra da, jakina, euskararen batasun formala bultzatzea eta eredu hori hiztunei eskaintzea.

Ikus ditzagun orduan eredu hori proposatzeko zein izan daitezkeen egungo premiak.

EUSKARA DENA ETA EUSKARA EZ DENA

Euskaltzaindiak esan beharko luke, nire ustez, normalean ez baitu horrelakorik esan, egitura batzuk euskararenak direla, eta beste batzuk, ordea, ez. Gramatika batzordeak prestatu lanean hitz egingo da honetaz.

Baina, horrela, duda-mudan egon daitezkeen egiturez gain badira beste asko gaitzetsi behar direnak. Euskaltzaindiak ez du esan "Mikeli ikusi diot" ez dela euskara. Eta agian ez du esan beharrik ere. Baina horren parean badaude barra-barra erabiltzen diren "ez ditut etxeko lanik egin" bezalakoak, partitiboa pluralarekin komunztatuz eginak alegia. Egia esan, aski arrunt bihurtu dira esaldi hauek erregistro batzuetan: bada gazteen artean arrakasta handia izan duen kantu bat, hemengo talde batek disko batean paratua, egitura hori daramana. "Urtea nola joan denaren azterketa egingo dugu" bezalako sasi zehar galderak oso hedatuak ditugu eta "etorri delaren ustetan" bezalako sasi konpletiboek izugarriko arrakasta izan dute gure artean. Nire umea hilabeteak eta hilabeteak egon da, ikastolan hala ikasi ondoren, "Gerrerok iagatik sartu zuen gola" bezalakoak esaten. "Iagatik" hori zer ote zen eta "ia-ia" adierazi nahi zuela konturatu nintzen, erdarazko "por poco" horretarik abiatuz analogiaz sortua hain segur ere.

Ikusten denez, eta ez diot aurrea hartu nahi beste egun batean Gramatika batzordeak aztertuko duenari, hemen auzian dagoena ez da batasuna, hizkuntza bera baizik. Halako egiturak salatu eta mintzotik baztertzeko gai ez bagara, euskarak eginak ditu bereak. Hemendik urte

batzuetara, euskañol ederra izango da gure artean erabiltzen dena. Garbizalakeria hutsaren eta euskara txukunaren artean bai baitago oraindik ere aldea: edo besterik gabe berekotu behar ditu euskarak egun hiztegi, liburu eta entziklopedietan ageri diren "espejismo", "deslizatu", "eskonbro", "absorbitu", "karniboro", "karnifikazio", "bertize", "bestibulu", "brisa", "desdoblamendu", "despistatu", "detergente", "detonazio", "dezente", "enbalatu", "espionaje", "fantasioso", "fantasma", "flexibo", "flexo", "infantilismo", "moneda" eta "moneta", "natibo" eta hauek bezalako hitzak? Hau da euskara ez desagertzearen ordaina? Zer segurtatzen dugu horrekin, euskararen ala erdararen iraupena? Batzuetan ulertzekoa da ordainak bilatzea ez dela erraza, baina beste batzuetan, ez: zer gertatzen da, gure baserrietan ez zela "eskonbrorik" lehenago, ez zuela "brisarik" egiten? Zientzitasuna galtzen du gure hizkuntzak haien ordez "hondarrak", "zaborrak" edo "haize goxoa" esaten bada?

Hona ekarri nahi nituzke, hartara, Euskaltzaindiak aspaldi, orain dela 35 urte, esandako hitz haiek, ez baitute gaurkotasunik batere galdu: "Hiztegi sailean ez da bidezko hitz asmatuetara jotzea ezin bestez baizik, eta orduan ere hitzen erabidean hizkuntzaren joerak gordeaz. Hori hiztegiari gagozkiola. Gramatikaren barrutian, ordea, ez da sekula zilegi asmatzen ibiltzea edo hizkuntza aldatu nahi izatea". Eta hemen alderatuko ditut segidan beste batzuk, berriagoak: "Badakigu batzuk ezinbestean erabiltzen direla, ordain ezagunik ez dutelako". Baina "ez dira erabat euskal hitzak gaztelera edo frantsesa jakin gabe euskaldun batek ezin adi ditzakeenak". Hor dago kontua: euskaldun zahar askok nekez ulertuko lituzkete gaur ikusten ahal diren zenbait testu, aldi berean erdaraz mintzatzen ez balekite. Aski adierazgarria iduritzen zait hau guztia.

Horregatik uste dut berehala hartu behar duela erronka hau Euskaltzaindiak, eta euskararen muga horiek hausten diren bakoitzean, euskararen izenean, ez euskara batuaren izenan, ozenki salatu. Bada gainera gauza bat azpimarratzekoa, betitik harritu izan nauena: zer dela eta hedatzen dira berehala egitura kaxkar hauek, sekula ere erabili izan ez ditugunak eta gure belarriari min egiten (edo min ematen) diotenak, euskaraz ikasten ari diren umeen, eta askotan irakasleen artean ere? Norbaiti bururatu zitzaion "joateak merezi du" jatorragoa zela "joatea merezi du" baino eta hark kendu dio honi berehala lekua. Baten batek pentsatu zuen "1994ko uztailak 2an etorri da" bezalako esaldi batek jatortasunez janzteko ezaugarri guztiak dituela eta berehala kendu dugu mahai gainetik denok, toki guztietan eta beti erabili izan dugun "1994ko uztailaren 2an etorri zen" herrikoa. Ez da modurik: jakin nahi nuke zein den halako arrakasta izateko sekretua. Azken aldiotan "Tour asko" edo "Giro asko" gelditzen dela entzun behar izan dugu, Tour edo Giro bakarra izan arren, eta telebistatik jakin ahal izan dugu lapikoan ez direla indabak edo patatak bakarrik sartzen: gure jokalariek pilotak ere sartzen dituzte orain

lapikoan, erdara kaxkarrenaren kopiarik kaxkarrena egiten dugula ohartu gabe. Ikusteko jaioak gara!

Eta puntu honekin lotua bada beste bat ere, zail egiten zaidana behar den bezala formulatzea. Testuen naturatasun falta alegia. Ez dakit euskara kontua den, batasun kontua den edo estilo kontua. Baina bada zerbait, eta arazo hau aztertzea komeniko litzateke, batez ere ehundaka testu argitaratzen baitira urtean zehar. Gauza bat baita usainik, kolorerik eta zaporerik gabeko eredua bultzatzea eta beste bat, aski desberdina gainera, euskara txotxongilozale eta ortopedikoa bultzatzea, gramatika eta hiztegi aldetik ongi gauzatua egon daitekeena, baina gizaki batek edo ordenagailu batek idatzia den bereiztea zail dena. Hauxe hasi nintzaion behin irakurtzen nire umeari kolorez beteriko liburu batetik hartua: "Egun-tximeletak eta gau-tximeletak edo sitsak errazen ezagun daitezkeen intsektuak dira seguraski". Eta ezin izan nuen segitu, lerro xinple hori behar bezala ulertzeko ez bainintzen batere gai sentitzen. Horrek esan nahi zuena, erdal bertsioa ere etxean nuen, honako hau zen: oso erraz bereiz daitezkeela eguneko tximeletak eta gauekoak, eta hauei sitsak ere deitzen zaiela, alegia. Baina nik ezin nuen ulertu inola ere horrelakorik aipatu esalditik: "Egun-tximeletak eta gau-tximeletak edo sitsak errazen ezagun daitezkeen intsektuak dira seguraski", "ezagun" horrek testuinguru horretan zerbait esan nahi izatekotan, nire euskalkian segurik, "ikusi" adierazi nahi baitu. Eta testuak segitzen zuen aurrera. Orain lehenbiziko bi esaldiak irakurriko ditut: "Egun-tximeletak eta gau-tximeletak edo sitsak errazen ezagun daitezkeen intsektuak dira seguraski. Tximeleta guztiak dira Lepidopteroen ordenakoak ("ezkata" edo "hego" berba grekoetatik), talde honetan 150.000 espezie inguru dago sarturik, tximeleta eta sitsen familiak bereiztu direlarik". Zer esan nahi du hitz jario horrek? Honela ez goaz inora ere. Ez naiz harritzen, ez hori, horrelako testuetatik batuaren kontrako argumentuak uholdean hartzea, batez ere "beraiek", "bertan", "goizez", "balio ditu", "edukin", "lau hankatako" eta horrelakoez josia agertzen bada, sarritan gertatzen den gisa.

Bi puntu horietaz, hortaz, zerbait esan beharko luke Euskaltzaindiak: euskara txarrez eta estilo ortopedikoaz, bi hitzetan esateko.

HARTUKO ERABAKIAK BERRIKUSI

Ez dakit komeni den batere behin harturiko erabakiak berriz ere aztertzen hastea. Baina nire ustez berrikusketa bat beharko luke gomendio edo erabaki batek honako bi baldintza hauetako bat beteko balitz: jendeak orohar kasurik ez egitea edo, zein nahi dela ere arrazoia, barne in-

koherentziak gertatzea. Adibide bat jarriko dut: Mitxelenak "xori"/"zori" proposatzen zuen bere txostenean, baina de facto "txori" da nagusitu izan dena, katalanak ez bezalako bidea hartu duela euskara batu soziologikoak. Arazo hau aztertu beharko da hiztegia aztertzen denean eta batasuna nola egiten den ikusi, hiru formak utziaz (baina orduan ez da batasunik) edo "txori" eta "xori"ren artean bat aukeratuz.

Beste maila batekoa da "hola" bezalako baten kontua. Euskaltzaindiak bere paradigmak eman zituenean "honela" eta "horrela" onetsi zituen, baina ez "hola", adberbio hau esaera batzuetara bakarrik mugatu baitzuen: "Hala-hola" eta horrelakoetara. Eta nola utzi zuen alde batera "etxeetaz" edo "mendietaz" idaztea, eta haien ordez "etxeez" eta "mendiez" formak bakarrik onartu, horrelaxe baztertu zuen "hola" ere. Badirudi "etxeetaz" eta "etxeez" formetan aukera egitea —bata nahiz bestea, ez baita hori oraingo kontua—, ona dela batasunik nahi badugu, biak pare-parekoak baitira. Baina kontua da "hola" hori ez dela ez "horrela" ez "honela" adberbioen parekoa. Edo biak batera ordezkatzen dituela, nahi bada, "hala"ren kontra. Beraz, ez da aukera kontua, diferentea den zerbait dela onartzea baizik. Areago, idazle gehienek erabiltzeko joera baldin badute. Horrek ere behar luke, nire ustez, leku ofiziala, leku koxkorra bada ere, batasunaren barnean, batasuna egina baita hiztun eta idazleen artean eta ereduzkoenek arazorik gabe erabiltzen baitute.

Eta hemen deklinabidearen morfologia atera zaigunez, nire buruari galdetzen diot ez ote den ordua deklinabidearen morfologiaren barnean beste pausu bat emateko ere: "etxeetaz" baztertua geratu zen, baina aldi berean "honetaz" onartu. Zehaztu beharko litzateke, esaterako, noiz jarri instrumental luzea ("-etaz") eta noiz laburra ("-z"). Zeren, "honez gain"i eman behar ote diogu lehentasuna, "honezkero"ren eredua segituz, edo "honetaz gain" egokiago ikusten dugu? Eta zer ote dugu gureago eta egokiago "zenbatez" edo "zenbatetaz", "zertaz" edo "zerez", "inortaz" edo "inorez", e.a.? Eta alde batera uzten ditut "hauezaz" eta horrelakoak, horiek ere ageri baitira Euskaltzaindiaren proposamenean. Ez da instrumentalaren kontua bakarrik, nire ustez aukera gehiegi baitugu oraindik deklinabidean onarturiko formetan: "umeagatik" eta "umearengatik" dira onartuak, eta berdin pluralean ere: "umeak gatik" eta "umeengatik". Badu zentzurik gauzak ez berrikusteak eta horien artean aukerarik ez egiteak? Edo ez da komeni oraingoz punttu horietaz jardutea eta beste lehentasun batzuk markatu behar dira? Nire baitako dut, dena den, puntu hauetan batasuna aski aurreratua dela eguneroko erabileran, eta beharbada aukerak egiteko eta bedeinkazioak emateko tenorea ere etorria dela.

EHUko Zientzi Fakultateko irakasle andana batek bere kezka adierazi dio Euskaltzaindiari kontsonante aurreko "x" eta bokal arteko "j"ri

buruz, bere garaian harturiko erabakiak eguneroko ihardueran arazoak sortarazten dizkielako. Puntu hau berriz aztertzea eskatu diote. Komeni da halakoetan erabakia berriz ere ikustea? Ez dakit, nik neuk nire zalantzak ditut, eta ondoko egunotan aldeko eta kontrako argumentuak entzuteko aukera izango dugun arren, badirudi komeni dela zenbait gauza azpimarratzea:

1. Euskaltzaindiak hizkera arrunteko batasuna zehazten du, eta ez hizkera teknikoa. Hizkera teknikoaren gora-beherak teknikariei baitagozkie, neurri batean bederen.

2. Ez da gauza ona erabakiak behin eta berriz ikusten ibiltzea.

3. Badira zientzi mailako irakasle asko halako aparteko arazorik aurkitu ez dutenak Euskaltzaindiaren proposamen honetan.

4. Bai hizkuntza arruntean bai zientzietan erabiltzen den erregistroan euskara baino askoz ere finkatuago dauden beste hizkuntza batzuek bide bera hartu dute.

Esan bezala, zernahi gisaz, gai hau hurrengo egun batean aztertuko dugu eta orduan entzungo arrazoibideak, pisu handikoak izan baitaitezke agian.

Besterik da inkoherentzia erakusten duten zenbait erabakiren kontua. Esan bezala, agian txikikeriak dira, baina egunero lumarekin egon behar duenari arazoak sortarazten dizkiote. Adibide batzuk jarriko ditut hemen:

• Euskaltzaindiak maileguei buruz harturiko erabakietan esaten da grezieratik harturiko hitzetan ez dela gordeko azkeneko "s"a, salbu "itis" bukaera dutenetan eta hitza silaba batekoa edo bikoa denean. Egia esan ez da modu horretan eta hitz horiekin esaten, baizik askoz ere modu barrokoagoan, denok gure zailtasunak izan ditzagun han esan nahi dena ulertzeko, baina hori da azken batean han esaten dena. Non dago arazoa? Badirudi inork ere ez dugula zalantzarik *analisi, katekesi, psikosi* eta halakoetan. Berdin gertatzen da, arauaren arabera, *flebitis, iris, kosmos, atlas* eta horietan . Lehenbizikoak "s" gabe eta bigarrenak "s"rekin. Eredu horri jarraiki *tesis* esan beharko genuke, baina nagusitu dena *tesi* da (egunero erabiltzen dugu unibertsitatean), eta hiztun batzuen artean *tesisa* ere entzuten da, berezko "a" eta guzti. Hori da arazo bat, hitz horrena, baina ez bakarra, zeren arauak esaten du *dermis* idatzi behar dela, bi silabakoa baita. Kontua da, ordea, ondoren *epidermi* idatzi beharko genukeela, horrek lau silaba dituenez. Arrazoi beragatik *tesis* (s' duna) eta antitesi ('s' gabea) esan beharko genuke.

• Erabaki horietan beretan bokal artean "i" idatzi behar dela esaten da, eta adibidea eman: *proiektu.* Baina hor kontraesana dago, liburu be-

rean *arkitekto* eta *dialekto*, "o"z bukatuak, baitira hobesten direnak. Beraz *proiekto* beharko genuke. Zerbait halako gertatzen zaigu "zentru" hitzarekin ere. Nik ez dakit zein den Euskaltzaindiaren erabakia, zeren "astro"rekin batera aipatzen bada ere, ondoren honako hau gaineratzen baita: "baina kasu honetan Axularrek 'zentru' darabil". Zertan geratzen gara orduan? "zentru" ala "zentro"? Aipa dezadan segidan hiztegietan eta entziklopedietan egiten diren bereizketa batzuek, "harmonia"/"armonia", "pausu"/"pauso", "organu"/"organo" edo "ontzi"/"untzi" bezalakoek, ez nautela batere betetzen.

- Letra larrien erabilerari buruzko erabakia, berriagoa den arren, berriz ere aztertu beharko litzateke, nire ustez. Hemen berean izango dugu Antton Elosegik egingo dion kritika entzuteko aukera. Nire ustez, orohar eta xehetasunetan sartu gabe, kritika egokia da, erabaki hura, aplikazio konkretuetan ez baita batere argia. Horrek ez du esan nahi erabakia aldatu behar denik, batez ere berria baita, baina bai hobeki zehaztua utzi, Gizpuzkoako Diputazioko itzultzaileek ere ikusi duten moduan, han azpian dagoen filosofia, hau da, behar ez delarik letra larriak ez erabiltzearena, errespetatuz.

- Azkenik, komeniko litzateke hartu diren eta hartuko diren erabaki guztien zerrenda bat egitea, osoa eta berria, zeren badira beste kontraesan batzuk ere ("egin" aditzaren paradigmak, esaterako, bi modutan ematen dira bi tokitan).

HARTU BEHARKO LIRATEKEEN ERABAKI BERRIAK

Zein dira orain, aipatu horietaz gain, Euskaltzaindiak batasunaren kontuan eman beharko lituzkeen pausoak? Egia esan, nekez erantzun diezaioket galdera horri gaur hasten den biltzar handi hau eta hona aurkeztu diren lan guztiak, banakakoak nahiz batzordeek aurkezturikoak, kontuan eta gogoan izan gabe. Galdera hau bera izan baita Euskaltzaindiaren azken urteotako kezka eta ardura nagusia eta horri erantzunak ematen saiatu izan baita. Beraz, eman dezakedan erantzuna oso loturik dago Euskaltzaindiak eskuartean izan dituen gai hauekin guztiekin. Hauexek dira, hortaz, premiarik handiena duten erabakiak:

1. Hiztegi batuaren beharra

Garaiak aldatzen ari dira. Gero eta gehiago idazten da, gero eta maizago irakurtzen, gero eta aukera handiagoa dago liburuak hautatzeko orduan. Maisu-maistrek, irakasleek eta irakurleek erreferente argiak be-

har dituzte, erreferente bakarrak, ahal dela, hizkuntza modernoetan gertatzen den gisa. Entziklopediak eta gai diferenteak elkarren artean erlazionatuz aztertzen dituzten liburuak ere kalean ditugu. Orain dela urte gutxi batzuk arte ezin zen ametsetan ere pentsatu halako egoeran egon gintezkeenik.

Egunero-egunero maila jaso batean, egunkarietan, hezkuntzan, komunikabideetan, e.a. euskara mota berri hori, erregistro berri hori, erabiltzeko beharra dugu. Hala ere, milaka hitz batzuk baizik ez ditugu erabiltzen. Jende arruntak uste duen baino gutxiago dira eguneroko ihardueran behar ditugun hitzak, gainerako hizkuntzekin gertatzen den moduan. Zoritxarrez, ortografia hiztegi batu bat eskaintzeko gai izan ez garenez, hor ibili behar izaten dugu beti zalantzetan eta gure buruarekin borrokan hitz baten formak aukera bat baino gehiago eskaintzen digunean: nola idatzi behar ote dugu "laster" edo "laister"? Aukera egin behar ote dugu "ontzi" eta "untzi"ren artean? Egokiago ote da "ahoskatu" hitza "ahozkatu" baino? Komeni zaigu "ahitu" eta "akitu" bereiztea? Gure liburuek "lixeriketa" edo "txegosketa" hobetsi behar ote dute? Konparazioak egitean "haina", "aina" edo "adina" erabili behar da? "Analisatu" edo "analizatu" hartu behar dugu? "Bibolina" edo "biolina"? "Guzi" edo "guzti"? Eta horrela luza genezake hiztegi hori eguneroko erabileran behar ditugun milakako hitz horiek guztiak bildu arte. Zeren, ez dezagun ahantz (bide batez, "ahaztu", "ahantzi" edo "atzendu") aipatu ditugun hitz horiek egunerokoak, hitzetik hortzera erabiltzen ditugun horietakoak, direla. Hitz arruntak, ez dakit hizkera landukoak diren ere.

Jakina, anitzetan ez da nahitaezkoa aukera egitea, eta denak eman beharko dira ontzat, esanahiz irekiak edo bakoitza bere-berezko adierazirekin. Baina, ez da dudarik, hori da euskara batuak gaur duen arazoetako bat, orain dela 25 urte aipatu zena, eta Villasantek ere, bere hitzaldian, aipatu duena.

Hiztegi honek badu bigarren zati bat ere, mailegu hitzekin zerikusia duena. Hor dago "j" eta "g"ren arteko borroka, nahiz hitz hauetako asko ez dakidan nik zenbateraino sartu behar diren maileguetan: "jeneral" eta "general", "jenero" eta "genero" hitzetan bezalakoa. Eta horiek bezala "bijilia", "jentil", "jenio", "lejitimo", "jeranio", "jerente" eta "majia". Bestelako maila batean, auzia orain "j" eta "x"ren artekoa baita, "enkajatu", "kajoi", "kaja" eta hauek bezalakoekin gertatzen dena, horietan guztietan ez baita batasunik batere eta nork bere moldera izkiriatzen baititu. Zer egin behar da halakoetan? Ortografia arazo horiez gain, zer egin euskarak berehala behar dituen hitz berriekin eta ez hain berriekin?: "pantaila" esan behar ote dugu, edo "ekrana" egokiago ote da? "Aerolabangailu" eta "aerodeslizagailu" bezalakoak sortzea komeni da euskararentzat? "Aeroespaziala" edo "aire-espazioetakoa" bultzatu behar da? Gure artean

izan ditzakegun eztabaida guztiez gain, bada gauza bat azpimarratu behar dena: euskaraz idatzi nahi duen batek ezinbestekoak ditu hitz hauek, eta hauek bezala beste hainbeste, aski baita horretarako gure ingurura, gela honetan bertan, begiratzea eta bazterretan ikusten ditugun gauzak izendatzeko zenbat hitz falta dugun ikustea.

Euskaltzaindiak ausardia behar du tradizioa duten hitzen forma finkatzeko orduan, baina ausardia erakutsi behar du batez ere hitz berriak proposatu behar dituenean. Nik esango nuke orain badela informazio bat, eta material hori aztertu eta proposamen berriak egiteko ordua etorria dela. Baina batez ere beharra dago hor. Lehentasunak bereizi behar dira, dudarik ez, baina behin mailakatze hori egin ondoren, euskarak erantzunak behar ditu, berehala gainera. Ezin dugu atzendu, honen erakusgarri gisa, non eta gramatika mailan erabiltzen ditugun hitz xumeenak ere erabaki gabe daudela. Horrexegatik idazten ditu bakoitzak bere erara "subjektu", "objektu" edo "adjektibo" bezalako hitzak. Hor ere ez da batasunik. Euskaltzaindiak ez baitu esan, zuzenean behintzat ez, nola eman behar ditugun hitz horiek. Ez dakit, egia esan, Errontegiko zubia "ingeniari", "injineru" edo "ingeniero" batek egina den.

Bestelako itxura hartzen baldin badiogu ere, gauzarik xinpleenetan dago batasuna egin gabe: erakunde honetan lan egiten duten irakasle, langile eta ikasleak zer gara bada, "unibertsitarioak" ala "unibertsitariak"? "Notari" edo "notario"? "Sekretario" edo "sekretari"? Horietan guztietan "-ari" bezalako atzizkiak zein kategoriatako hitzari lotzen ahal zaizkion aztertu behar da lehenik eto gero tradizioa zein den ongi ikusi. Arrisku handiegia baita, bestela, edozein atzizki besterik gabe edozein hitzi, bere kategoria zein den bereizi gabe, atxikitzeko. Eta hori tradizioaren kontrako bideak irekitzea litzateke: ongi aski jakin behar da "-tegi", "-gailu" edo "-garri" behar den bezala erabili behar direla. "Irratigailu", "elektrogailu" edo "elektrotresna" bezalakoak arrotzak dituela euskararen muinak. Atzo goizekoak direla, eta euskal eratorpenaren legeen kontra sortuak, "entzulego" eta "ikuslego" bezalatsu: "-go" atzizkiak lanbidea edo pertsonaren lanbidetik sortutako erakundearen izena adierazteko balio du "artzaingo" eta "errektorego" hitzetan ikusten denez. Ez ditzagun erdal hitzak euskal itxuraz janzten ditugula eta, besterik gabe euskalduntzat hartu, ontzat eman eta erabiltzen hasi.

Zuzentasunaz landa batzuetan eskaintzen harteko forma bat bakarra aukeratzea egokia dela dirudi, besteetan ere izan den bezala: "herriska" eta "herrixka", adibidez, aukeran egonik, badirudi egokiena litzatekeela, batasunaren izenean, bietako bat aukeratzea, biak mantentzeko arrazoi berezirik ez den bitartean eta, hortaz, "-ska" eta "-xka"ren artean bat bakarrik uztea, kontuan hartuz hemen ere tradizioaren eta idazleen pisua.

Euskaltzaindiaren hiztegigintza bi batzordeak, bai Hiztegi Batuko batzordea eta bai LEF batzordea, gogor aritu izan dira arazo hauek guztiak aztertzen eta lan gaitza egin dute, ondoko egunotan ikusiko denez. Literatura batzordeak aurkeztu dituen lanek ere hemen hartzen dute bere tokia, ikusten baita tradizioa ez dela berbera izan Ipar eta Hegoaldean. Literaturaren eremuan ere komeni da, hortaz, hiztegi batuan aurrera egitea.

Lan hauek guztiek markatzen dute abiapuntua. Baina ez ditugu begiak itxi behar: euskararen batasunean aurreratu nahi baldin bada ezinbestekoa du Euskaltzaindiak hiztegi batu bat lehenbailehen proposatzea eta ezagutaraztea. Horren zain daude hizkuntza idatzia, hezkuntza mailan bereziki, erabili behar duten guztiak.

2. Azken urteetako proposamenak erabaki bihurtu

Azken urteotan Euskaltzaindiak hainbeste proposamen egin izan ditu, espreski adieraziz proposamenek beti ere proposamenen balioa dutela. Horrela, denbora bat ematen zuen Akademiak froga gisa, idazle bakoitzak ikus zezan proposaturikoa bidezko aurkitzen zuen ala ez. Horien artekoak dira "bat" eta "batzuk"en deklinabidea, ordinalen eta zenbakien idazkera, hitz elkartuen osaera eta idazkera, e.a. Eta hauen artekoak dira hitz jakin batzuei buruz egin izan diren proposamenak: "arabera", "iritzi", "aurrealde", "nire", "usain", "bat-batean", e.a. Oro har esan daiteke, salbuespenak salbuespen eta sortu izan diren zenbait eztabaida alboan utzita, proposamen hauek onartzeko ez dela aparteko arazorik izan. Euskaltzaindiak berehala ikusi beharko du zer egin horiekin eta nola bihurtu behar dituen erabaki. Zeren gomendioen linboan dauden bitartean batek ez baitaki ongi zein den berez haien izaera, izaera eta balio hori zerotik eta hutsetik gora izanda ere noraino iristen diren. Proposamen hauek sailkatu beharko lituzke Euskaltzaindiak eta ikusi, lehenik, zein izan diren besterik gabe eta zalantzan jarri barik onartuak izan direnak. Hemen berean izango dugu hori ikusteko aukera. Eztabaidak sortu ez dituzten gomendioak berehala bihurtu beharko lirateke erabaki eta behar den gisa jakinarazi (bide batez, hori ere aipatu beharra da: Euskaltzaindiak aztertu behar du nola ematen dituen erabakiak ezagutzera, egungo sistema modernoekin oso denbora laburrean izan baitezake interesatuak bere etxean honen berri).

Egin diren gomendioen artean bada bat, dena den, aipatu nahi nukeena: hitanoari dagozkion adizkiena, hain zuzen, Euskaltzaindiak proposamen hau berriki hartu duenez, oraindik jendeak ongi ezagutzen ez duena. Gure artean eztabaida luzeak izan ondoren, uztaileko bilkuran

onartu zituen Euskaltzaindiak batasunerako proposatzen dituen hitanoaren adizkien paradigmak. Sasi handia zegoen hor, inon egotekotan, aldaerak aski gaitzak baitira euskalki batetik bestera eta herrietako mintzairen artean berdintsu gertatzen baita. Baina orain onartua geratu da. Horrela erantzun zaio aspaldiko galderari. Zoritxarrez, hala ere, beldur naiz proposamen hori batez ere sinbolikoa ez ote den, hitanoa galtzen ari baita. Seguraski ere, erremediorik gabe. Aitortzen dut, honi dagokionez aski pesimista naiz.

Euskaltzaindiak egin duen aho batez onarturiko gomendio honetan forma bakarrik aipatzen da, hau da, adizkiak datoz lerrokadetan, esku artean duzuen materialean ikus daitekeenez. Ez da deusik ere esaten hikako adizki hauen erabilera gramatikalaz, mendeko perpausetan erabil ez daitezkeelakoaz adibidez. Edo ez da ezer ere esaten zein den adizki hauek erabiltzeko gizarte erregistroa. Benetan gauza bitxiak eta harrigarriak ikusten baitira egun. Esate baterako, hiztun batzuek kupida gabe jarriko dituzte adizki alokutiboak konpletiboetan eta zehar galderetan. Bestetik, batzuek adizki mugatu zenbait bakarrik ikasi ondoren nolanahi erabiliko dituzte, solaskidea nor den kasurik egin gabe, batzuetan hika besteetan zuka dena nahasten dela. Areago, hara non hasten zaizkigun euskaldun batzuk berdin egiten solaskideari, kontuan izan gabe hau andrea ala gizona den. Hori gertatzen da, konturatu naizenez, betiko euskaldunak ohiturarik izan gabe andreei ere hika hasten zaizkienean. Puntu hauetaz guztietaz ez du ezer ere esan Euskaltzaindiak eta halako batean esan beharko du, arazoa behar den bezala aztertu ondoren. Dena dela, uste dut pausu handia eman dela adizkien forma finkatu denean.

Zernahi gisaz, Euskaltzaindiak egin dituen azken urteotako proposamenak ez dira aski eta urrunago joan behar dugula uste dut. Horretara dator Gramatika batzordeak egin lanaren lehenbiziko atala ere. Orain arte hartu diren gomendio horiek batasunean aurrerapausua ekarri badute ere, badira beste hainbat puntu ere ukitu beharko liratekeenak: aditz batzuen erregimena ongi zehaztea komenigarria da ("balio ukan", "merezi", "arazi", "neurtu", e.a.), juntagailuen inguruko gomendioak, diptongoz amaituriko izenen deklinabidea, e.a. Gramatika batzordeak egin dituen gomendioak eztabaidatuak izan dira eta jendeak izan du aukera horiei buruz pentsatzen duena adierazteko. Horregatik, badut uste gomendio hauek aski ongi umotuak dauden eta luze gabe eztabaidatu eta erabakiak hartzeko nahiko onduak.

3. **Exonomastikaren arazoak**

Atzerriko izen bereziek lan gogorra ematen digute: pertsona izenek ("Joanes"), pertsona gisako izenek ("*Pintto* txakurra"), pertsonifikatu ga-

beko objektuei emandako izen nabariek ("Kaaba"), kanpoko leku izenek ("Erroma"), arte obren eta ipuinen izenburuek ("Mona Lisa"), marka izenek ("Vaseline"), gertakari historikoen izenek ("Ehun Urteko Gerra"), pertsonifikatu gabeko kontzeptu eta abstrakzioen izendatzeak ("komunismoa") buruhauste ederrak sortzen dizkigute.

Euskarak premia handia du hemen ere, izen hauek behar den bezala finkatzeko. Eta, gainera, lehenbailehen finkatu behar direla uste dut, egungo mundu honek informazio handia ematen baitigu egunero. Aski da horretarako egunkaria hartzea. Ordea, ez hori bakarrik: inon ere baldin bada honen premia, larritasuna esango nuke nik, hezkuntzan da, gero eta liburu gehiago egiten baita, gero eta testu eta material gehiago behar baita, eta euskararen tradizioa benetan eskasa baita puntu honetan. Eta, Onomastika batzordeak ongi aski erakutsiko duenez, tradizioa dagoelarik ere ez da batasunik deus, oinarrizko izenak ere idazteko orduan: "Ruth", "Erruth", "Rut", "Errut", andre izena nola idatzi behar dugu euskaraz? Nola egin dezakegu batasuna hemen? "Egipto" hitzak berak ere, bere urrian, zenbat aukera ematen digu "g", "j", "i", "y" letrak trukatzen baditugu? Alde batera utzirik gure literaturan han-hemenka ageri diren gainerako aldaera guztiak (G. Bilbaok bere lanean kontatuko digunez, 20 aldaera denetara): "Egyptu", "Ejypte", "Egypte", "Egyptoa", "Aigito", "Ejitu", "Ijito", "Igito", "Egipta", "Ejipta", "Egipte", "Ejipte", "Egiptu", "Ejiptu", "Ejiptoa", eta "Ejito". Ez da erraza, benetan, hain leku gutxian horrenbesteko aukerak badiren ere asmatzea. Eta nola izendatuko dugu euskaraz literaturgile famatu hura, "Chejov", "Tchekhov", "Txekov" ala "Chekhov"? Kanpoko edozeini aski harrigarri gerta lekioke arazo honen berri izatea ere, zeren zenbat aldiz erabili behar ditugu izen hauek eguneko orduen bueltan?

Zorionez, ez gara huts-hutsetik hasten: bai Euskaltzaindiak berak, orain dela ia hogei urte X. Mendigureni eskatutako lan batean eta harrezkero Onomastika batzordeak eginikoetan, bai beste zenbait lagunek, dela bakarka, dela taldeka, urrats nimiño batzuk, agian ez hain txikiak, emanak dituzte, hartarako zuzenean liburu bereziak idatziz edo zeharka, entziklopedien kasuan gertatzen den gisa. Eta hor desadostasunak eta ikuspuntu diferenteak ikusten baldin badira ere, badirudi gauza anitzetan badela batasuna. Bada, horietan bederen, nire ustez, lehenbailehen eman beharko luke bedeinkazioa Euskaltzaindiak.

Jakina; mailak bereizi beharko dira hemen, eta zerk duen lehentasuna eta zertan egin behar den batasuna, zehaztu, zeren izen batzuk, demagun Uruguaiko herri koxkor baten izena adibidez, diren bezala utzi beharko baitira, ortografia bere horretan errespetatuz eta euskararen legeetara bihurtu gabe aske utziz. Baina Uruguai aipatu dudanez, nola idatzi behar den hau, "Uruguai" edo "Uruguay", hor bai komeni dela ezta-

baidatu eta forma bat proposatzea. Munduko estatuak, hauen hiriburuak, Espainiako eta Frantziako herrialdeak, hauexei eman beharko genieke lehentasuna, gure artean irizpideak ongi eztabaidatu ondoren .

Hauen alboan daude zain Europako eta munduko historian ageri zaizkigun izenak: "Alejandro Handia", "Alexandro Handia" edo "Alexander Handia" ote da egokiago? Edo "Handia" horren ordez egokiagoa dugu "Magnoa" edo halako zerbait esatea? Eskolatik ere oroitzen naiz "Juan Sin Miedo", "Felipe el Atrevido" eta "Pedro el Cruel" bezalakoez, eta pentsatzen dut oraingo gazteek ere izen hauek erabiliko dituztela. Zer da aukeratu dena testu liburuetan? Bakoitza bere aldetik ibili da?

Honek guztiak hausnarketa sakona behar du eta, batez ere, aurrerapausuak, aurrera egin behar duelako honetan ere Euskaltzaindiak.

4. **Hizkuntza mintzatuaren batasuna**

Hizkuntza mintzatuaren batasuna da Euskaltzaindiak bazterturik izan duen arazoetako bat, honetaz deus guti esan baitu. Ahoskera batua ez da oraindik gauzatu eta ez da gauzatze bidean jarri ere. Txillardegik, orain dela urte luze bat Iruñean esan zuen gisa, prestatzeko abiada hura moteldu egin dela esan daiteke. Garaia heldu da, bada, hemen ere pausuak ematen hasteko, behin hizkuntza idatziaren batasuna aurreratu samar utzi ondoren, hizkuntza mintzatua ere aztertzen hasteko.

Nondik hasi, ordea? Hortxe dago kontua! Doinua, hizkera doinua hartu behar dugu kontuan eta puntu honetaz egin diren eta egin daitezkeen azterketak kontuan hartu ondoren haietakoren bat proposatu denok, orain bezala publikoaren aurrean hitz egiten ari garenean, irratian, telebistan, e.a. erabil dezagun? Azentua, euskaraz hori zer den ongi ez dakigun arren, jarri behar dugu denentzat eredu?

Nire ustez, kontu horietaz aritu behar baldin badugu ere eta bai hizkera doinua bai azentua aztertzea oso aproposa bada ere, hortik hastea etxea teilatutik eraikitzen hastea bezalatsu litzateke. Bai baitira beste puntu batzuk txikiagoak agian, baina eragin handia izango luketenak hizkuntzaren batasunean. Adibide bat aipatzeagatik: hizkuntza mintzatuaren barruan "j"k badu lekurik? Eta lekurik ez baldin badu, zein izango litzateke haren ordezkoa? Gorago jarritako adibide berberak aipatuz gero, nola esan behar dugu? "Jeneral" ala "general"? Edo "biologia", "biolojia" edo "bioloyia"?

Ikus daitekeenez, ahoskeraren puntuak idazkerarekin loturik daude, Ahoskera batzordeak berak ere argi aski esan duenez. Baina segur naiz urte batetik bestera denok onar bageneza "j"ren ahoskatzea edo "j"ren

betiko baztertzea, ahoskerak urrats handia izango lukeela emana. Berdintsu gertatzen da beste puntu txiki batekin ere: palatalizazioa noiz egingo dugu? Inoiz ere ez, eta orduan "gaina" eta "oiloa" esan? Edo testuinguru jakin batzuetan, adibidez, palatalizatzen den kontsonantearen ondoan eta "i" horren aurrean bokal bat dagoenean, horrela, "gaña" eta "gain" bereiziz? Edo atzean bokalik ez dugunean ere egingo dugu, "gaña" eta "gañ", biak modu berean esanez? Edo, besterik gabe, "i" bokalak "l" edo "n" ukitzen duen aldi bakoitzean egin behar da, beste bereizketarik bereizi gabe: "gaña", "egiña", "egiñ", "ollo", "hille", "hill"? Hor ditugu hauek guztiak aukeran, euskalkien arabera. Hori batuz gero ere, pausuak emango genituzke, eta batasunak aurrera egingo luke. Zer esan ez, munta txikikoa da, baina eragin handikoa artikuluaren kontua ere, bokal elkarketak gertatzen direnean. Zeren hor baitira denak: "mendia", "mendie", "mendiya", "mendiye", e.a., batzuk bakarrik azpimarratzearren. Eta ezezko partikula aditzarekin elkartzen denean ere: "ez naiz" eta "enaiz", biak aukeran. Ez dut inolako dudarik aipatu ditudan lau puntu horiek hartu, hau da, "j"ren auzia, bustidura, bokal elkarketa eta ezezkoa partikula hartu, eta haietan aukera bat egingo bagenu, horrek pausu handia emango liokeela batasunari, nahiz aldi berean segur naizen, batasunak hemen beste erritmo geldiagoa beharko lukeela ere. Lau arazotxo aipatu ditut, lau, tradizioko euskara eta euskarak kanpoko hizkuntzetako hitzak bereganatzeko dituen premiak bereizi gabe: "adskripzio", "postposizio" edo "adjektibo" ez bakarrik idatzi baizik nola ahoskatu behar diren ere esan beharko baita noizbait.

Zernahi dela egiten dena ere, kontuan hartu beharko genuke batasuna erregistro baterako egiten ari garela, hizkuntza landurako alegia, oso nekeza ikusten baitut, aitortzen dut, hizkera arruntetik "j" bezalako soinu bat kentzea. Horixe da biltzar honetan denon aurrean aurkeztuko den beste puntuetako bat.

LABURPENA


Amaitze puntuan nago. Amaitu, orain hasten baita lana. Nire ustez, aipatu ditudan horiek dira euskara batuak dituen premiarik premiazkoenak. Eredu ulerterraza bultzatu behar du Euskaltzaindiak, tradizioan oinarritua, hizkuntza nazionalaren ezaugarriak dituena, erabaki legitimatuek hornitzen dutena eta erregistro jakin batean, hizkera jasoan, erabili behar dena.

Euskaltzaindiak salatu eta gaitzetsi behar du askotan erabiltzen den hizkera txar hori, sarriegi, euskara batua izan barik, euskara batuarekin nahasten dena hala ere. Batasuna euskara onaren gainean eraiki behar

baita, sasi egiturak albora utziz. Batasun horrek hiztegi ortografiko aberats bat zehaztu behar du lehenbailehen. Batasunak kanpoko izen bereziak, bai leku izenak bai pertsona izenak, nola idatzi behar diren esan behar digu eta, aldi berean, batasunak hizkuntza mintzatuaren bere lehenbiziko pausuak ematen hasi behar du. Horixe da hurrengo egunotan gure artean eztabaidatuko duguna, nahiz erabakiak Euskaltzaindiak berak bakarrik hartuko dituen hurrengo aste eta hilabeteetan, hemengoak entzun ondoren. Hemen ez da erabakirik hartuko, baina belarriak erne izango ditu Euskaltzaindiak hemen egiten diren oharrak jasotzeko orduan. Dinamika honekin aitzinat egin behar dugu, horrekin ematen baitiogu segida Arantzazun hain bortizki irekitzen hasi zen bideari.

Eskerrik asko.

EUSKALTZAINDIA
Azkue Biblioteka



ARGITALPENEN ERAKUSKETA
1919-1994


Leioa'ko Udala-k
Euskaltzaindia-ri
Bere 75 URTE MUGAN
LEIOA, 1994-EKO URRIAK


emen ta zabal zazu
EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

XIII. BILTZAR *ARAUDIA*

1. OROKORRAK

1.1. Biltzarraren zuzendaritza 75. urteurreneko batzordeari dagokio. Batzordea bi azpibatzordetan banatuta dago: a) akademikoa, b) antolakizunekoa. Hauei dagokie, bakoitzari bere esparruan, Biltzarraren ardura.

1.2. Erabakiak hartzekotan Euskaltzaindiak hartuko ditu, hala behar dela ikusiko balu, beti ere Bitzarraren ondoren.

2. EZTABAIDAKETA

2.1. Entzule bakoitzari berari dagokion zenbakia emango zaio eta zenbaki hori bere txartelean agertuko da.

2.2. Eztabaidak mahaiburuak, hots, moderatzaileak zuzendu eta eratuko ditu.

2.3. Biltzarkide batek ezin du hitza hartu, mahaiburuari eskatu behar zaion baimenik izan gabe.

2.4. Eztabaidaren txanda iristen denean mahaiburuak galde egingo du nork hitza hartu nahi duen, irakurri berri diren hitzaldi edo/eta txostenez. Idazkari egiten duenak zerrendatuko ditu hitz eskakizunak eta mahaiburuari pasatuko, beronek bakoitzaren denbora neurtzeko.

2.5. Ohargileentzat denbora mugatua denez, galderak eta iradokizunak luzeagoak edo laburragoak izan daitezke, baina betiere moderatzaileak hitza kentzeko eskua izango du. Itaunak eta iradokizunak ahalik zehatzen eta garbien egingo dira.

2.6. Hizlariak bere erantzunak denak batera emango ditu, eta ez banan-banan.

2.7. Denborarik balego bigarren txanda irekiko litzateke aipatu baldintza beretan.

2.8. Nolanahi ere, galderak eta iradokizunak gaiari lotuak egongo dira.

2.9. Moderatzaileak erabaki lezake txosten guztiak bata bestearen ondoren egitea eta, gero, behar den denbora ematea, galderak denak batera egiteko.

2.10. Mahaiburua, hots, moderatzailea, da elkarrizketaren arduradun bakarra.

3. ANTOLAKIZUNA

3.1. Biltzarraren barne-ordenuaren ardura 75.urteurrenaren antolakizun-azpibatzordearen esku izango da eta aurretiaz, lanaren eta txanden-banaketa egingo. Behar baldin bada, Euskaltzaindiko Buruzagitzari eta Idazkaritzari ongi baderitzate, egokizko neurriak har ditzakete.

3.2. Leioako Aula Magna deritzan aretoan euskaltzain osoek eta Jardunari dagozkion batzordekideek erdiko eta eskubiko lehen lerroetan eserleku erreserbatuak izanen dituzte.

3.3. Biltzarrekiko material banaketa eta bilketa arduradunak izendatuak izango dira eta beraiei bakarrik dagokie horretaz arduratzea.

3.4. Biltzarreko areto inguruan argitalpen-erakusketa ezarriko da. Honen ardura Euskaltzaindiko Azkue Bibliotekari dagokio.

3.5. Euskaltzaindiaren liburuen salmentarako standa jarriko da, eta honen ardura, Argitalpen-Banaketa Zerbitzuari dagokio.

3.6. Biltzarrekiko prentsa-zerbitzua izanen da eta beronen ardura Idazkaritzari dagokio. Honek egingo du bozaramaile-banaketa, Biltzargaiak direnean, gaiaren arabera eta azpibatzorde akademikokoen artean.

3.7. Testu jasotzea Argitalpen eragileari dagokio. Bera arduratuko da, Eragile teknikariaren laguntzaz, hitzaldi, txosten eta abarrez jabetzeko.

3.8. Azpiegitura antolaketaz Ekonomi eragilea arduratuko da. Beraz, berari dagokio tresneria-arazoak, euskaltzain, hizlari, antolatzaile eta aurretiaz izena eman duten biltzarkideen ostatu-jatorduen antolaketa eta kobraketa-ordaindaketak. Gainontzeko biltzarkideak, eskainiko zaizkien argibideen arabera, Unibertsitateko baliabideak erabili ahal izango dituzte.

3.9. Azpibatzorde akademikoaren laguntzaile-bitartekaria Eragile teknikaria izanen da.

3.10. Biltzarraren inguruko iragarki, deialdi eta antolakizuneko oharrak biltzarkide orok gorde beharko ditu eta eginkizun honen ardura Idazkariordearena izango da.

Leioa, 1994.10.03

HIZTEGIGINTZA

ORTOGRAFI GOMENDIO BATZUEI BURUZKO GOGOETA

Joseba Butron

Jaun-Andreok, agur t'erdi:

Hasteko nire esker ona adierazi beharrean nago eskaini zaidan aukera honengatik, hau da, neure eritzia ere plazaratu ahal izateko aukeragatik baina, agian, hobe litzateke, lehenengo eta behin, XIII. Biltzar honen izpiritua txalotzea. Izan ere, ihardunaldi hauetarako hartu den prozedurari, alegia, Euskaltzaindiaren zuzeneko partaide ez direnei ere aukera emateari aipagarri eta txalogarri deritzot.

Niri neuri aurtengo apirilean iritsi zitzaidan mintzaldi labur bat egiteko gonbitea, Euskaltzainburu dugun Jean Haritschelhar jaunaren izenean, eta gonbite horri eutsiz nauzue hemen minutu gutxi batzuetan neure kezkak eta gogoetak zuoi denoi eskaintzeko prest. Aipatu gonbite horretan mintzaldia *zertaz* izan zitekeen ere iradoki zitzaidan: *Ortografi gomendio batzuei buruzko oharrak*, hain zuzen. Egia esan, antzeko titulua jarri nion behin Euskaltzaindiari bidali nion txosten labur bati, eman berri ziren gomendio-erabaki batzuk zirela eta. Behin diot, aspalditxo izan baitzen hori, 1992ko urrian, hain zuzen. Txosten hartan oinarrituko dut, bada, mintzaldi hau, orduan esandakoek, funtsean, oraindik ere baliorik badutelakoan; baina, bestalde, denbora ez dela alferrik igarotzen ere ez dut ahantzi behar, 92tik honako denbora tarte honetan errotuz joan diren gomendio batzuen aurka aritzea ez dela oso zentzuzkoa, alegia. Hori dela eta, bada, arazo zehatz batzuetara mugatu beharrean, gogoeta orokorrago bat egin nahi nuke, Euskaltzaindiak aspaldion darabilen filosofiaz eta jokabideaz. Ausardia izango da, agian, neure partetik, baina uste dut noizbehinka hizkuntz arazo zehatzak alde batera utzi eta gogoeta orokorragoak ere egin beharra dagoela.

Bi ataletan zatituko dut txosten labur hau:

1. *Erabaki-gomendio batzuei buruzko gogoeta eta ondorioak.*
2. *Proposamenak laburbildurik.*

1. ERABAKI-GOMENDIO BATZUEI BURUZKO GOGOETA ETA ONDORIOAK

1.1. Eritzi

Aditz horren formaren gomendio-erabakiari buruzko kritikaz hasi nahi dut. Honela dio Euskaltzaindiaren azalpenak:

> "Jakina denez, euskara batua eratzen hasi zenean, 1960-70 hamarraldian, *iritzi* zen, alde handiz, gehien erabiltzen zen era. Gero, euskara batuaren finkatze-prozesuan hainbat idazle *eritzi* eraren alde makurtu zen, zaharrena eta bizkaierazko tradizioan erabilia zelakoan."

Azalpen honetan, "hainbat idazle" zirela aitortzen da explizituki, nahiz eta horrek, gero, erabakian, eraginik izan ez zuen. Bestalde, "zelakoan" oker dago "zelako" behar baitu. Zaharrena da, zalantza gabe, eta bizkaierazko tradizioan erabilia. Gertatzen dena da euskalki honetan *bakoitza bakotxa* eran bakarrik aurki daitekeen bezala *eritzi* ere *eretxi* edo *eritxi* forman dela edo izan dela nagusi, gaur egun euskara batuaren zabalkundeari esker *eritzi* ahoskera nagusituz badoa ere.

Amaitzeko, honela dio Euskaltzaindiak:

> "Inork ez du zalantzan jartzen e-z hasten diren formak zaharragoak direla euskaraz, baina *ebili* eta *ekusi* zaharkitutzat jotzen direnez gero, ez da arrazoirik ikusten *eritzi*-rekin beste horrenbeste ez egiteko."

Nik neuk ez dut uste konparagarriak direnik *eritzi* eta aipatzen diren besteak: *eritzi*-k (*e*-rekin) aditz moduan historia sendoa du eta bizkaieraz ez ezik euskara batuan ere erabilera zabala du, edo bazuen, lehen behintzat.

Ondorioa

a) Badirudi Euskaltzaindiak, batzuetan, berez bideratuz joan den batasuna ez duela aintzat hartu nahi izan eta gidari bakar eta nagusitzat agertu gura izan duela. Eta hau, esan beharrik ez dago, ez da jokabide zuhurra. Eta baieztapen hau txarto uler ez dadin, hitzen formaz ari garela gogoratu behar dut; Euskaltzaindiak euskara laskitzen duten egitura trakets, esamolde aldrebes edota lexiko oker kontuetan azken hitza bere izan behar du, baina, nire ustean, ez da gauza bera gertatu behar hitzen forma edo idazkera alorretan.

1.2. **Bait**

1992ko gomendioan, handik gora *bait* loturik idaztea gomendatu zen, 1970 urtera arteko literatur tradizioari jarraiki. Horrela, agerpen kopuruaren azterketa bat eskaintzen zen idazkera hori bultzatzeko —ehundaka batzuk kasu—, argudiatuz *bait* bereiz idaztea joera berria dela, azken hogeita bost urteotakoa.

Atxikia idazteak aldaketa fonetikoak isladatzea dakar, "aski errazak" omen direnak: *baitaitezke, baikeniezaiokeen, baiteritzogu.* Baina idazkera zerbait bisuala da, begiz jasotzen duguna, eta honetan ohiturak eta erraztasunak agintzen dute: irakurri edo idatzi beharreko elementua zenbat eta luzeagoa hainbat eta gogorragoa eta zailagoa. Ene ustez, horregatik joan da nagusituz euskara batuan *bait*-en idazkera bereizia.

Berez, arau honen atzean ez dago erraztasun konturik, ahoskera zaintzeko kezka garbia baizik, baina idazkera eta ahoskera bi arlo desberdin dira. Ez dago arrazoi berezirik *bait* atxikia idazteko eta *ez* elementua bereiz: *ez datoz (eztatoz), ez dira (eztira), ez bait da (ezpaita)*, etab. Gomendio hau zabaldu eta handik gutxira gure idazle ezagun eta goi mailako baten *Egunkari*ko artikulu batean *ezpaitezakegu, ezpaitzitzaidan* dena loturik, irakurri genituen. Eta zergatik ez? Idazkerarako literatur tradizioa aipatzen hasiz gero denetariko adibideak topa daitezke, eta maiztasun alderdia ere erlatibizatu egin daiteke.

Gainera, joera honi jarraiki urrun irits gaitezke: *-z gero* batera idaztera, *ezkero* alegia, nahiz eta gaur egun bereiz idaztea nagusi izan. Edota, zergatik ez, bide honi jarraiki, *jakin eta gero* edota *irakurri eta gero* batera idatzi, hots, *jakinda gero* edo *irakurrita gero*. Kasu desberdinak direla argudia daiteke, baina filosofia berberari eusten diote.

Ondorioak

a) Lehen puntuan aipatutakoaren ildotik, berriz ere esan beharra dago azken hogeita bost urteotako idazkera joera batek Euskaltzaindiak ematen diona baino pisu handiagoa izan beharko lukeela. Ez dakit kalkulatzerik dagoen epe honetan zenbat mila bider erabili izan den *bait* partikula bereiz idatzia: literatur lanetan, hizkuntz aldizkarietan, zientziazkoetan, euskara ikasteko metodoetan, testu liburuetan, itzulpen lanetan, saio espezialduetan, eta abar eta abar.

b) Bestetik, gure literatur tradizio zaharra ezin da arrazoitzat jarri *idazkera* finkatzeko; honelako idazkera arauak erabakitzeko, nik uste, zuhur jokatu behar dela eta, literatur tradizioa aitzaki jarri barik, egungo idazleen artean —zentzu zabalenean *idazle* hitza— kontsultak egin beharra dagoela. Eta kontsulta aipatu dudanez, gogoratu behar dut idazkeraz ari naizela, gramatikalak ez diren erabilerak zuzentzeko gomendio edo arauetarako ez baita kontsulta beharrik, bistan denez.

1.3. **Erazi**

Elementu honek historian zehar izan duen formaz azalpen luzea eskaini zigun Euskaltzaindiak *arazi* erabiltzeko gomendioa ematerakoan. Laburbildurik, honakoa zioen: Iparraldean gàrrantzizko autoreen lanetan forma bata eta bestea aurki daitezke; euskalkiei dagokienez "...zuberoeraz (...) beti, salbuespenik gabe, *erazi* agertzen da"; Hegoaldean, gipuzkerazko autore klasiko gehienek *erazi* erabili zuten, "...bizkaieraz erazo da alde handiz forma nagusia". Erabakia zaila da zioen azalpenak: "...biek dute nork bere eremuan, behar adina antzinatasun eta literatur lekukotasun".

Neure aldetik argudio batzuk gehituko ditut: K. Mitxelenaren *Diccionario General Vasco/Orotariko Euskal Hiztegia*-n *arazi* ez da azaldu ere egiten —*erazi*ren aldakitzat jotzen delako—, *Euskarazko Hiztegia*-n *erazi* forma bakarrik onar-

tzen da, Sarasolaren *Hauta-Lanerako Euskal Hiztegia*-n *arazi* onartzen ez diren hitz aldaeretan kokatzen da eta "Ikus *erazi*" zehazten da.

Baina, hona azken emaitza: "...argi bide dago errazago gerta daitekeela hainbeste zalantza agertu eta agertzen dituen Hegoaldea *arazi* erabiltzera bultzatzea, laurehun urtez inongo zalantzarik gabe *arazi* besterik erabili ez duen Iparraldeak (?!) bere usadioa alda dezan lortzea baino". Baieztapen honen aurrean galdera-harridura zeinuak ipini beharrean nago, ez dator bat eta azalpenetatik atera daitekeenarekin. "Nolanahi ere, salbuespen gisa *adierazi* gomendatzen da, Hegoalde osoan lortu duen erabiltze zabalagatik".

Esango nuke, emandako arrazoiak aintzat hartuta eta, nahi bada, aipatu ditudan hiztegietako zehaztasunek *erazi* formara garamatzatela argi eta garbi eta, horregatik, emandako gomendioa ulertezina gertatzen zait.

Ondorioak

a) Berriz ere Euskaltzaindia iraganera begira jarri da *idazkera* erabakitzeko, azken hogeita bost urteotako joerari begiratu ere egin gabe. Ikerketa edota kontsulta ez oso sakon batek, nire ustez, beste formaren alde jarriko zukeen.

b) Berriz ere literatur tradizioari eutsi dio hitz baten *forma* erabakitzerakoan.

c) Erabakia hartzeko Iparralde eta Hegoaldearen arteko bereizketa ikusi nahi izan da faktore garrantzitsutzat, baina azalpenean bertan adierazten denari jarraituz ez dut inondik ere horrelakorik ikusten. Eta, gainera, arriskugarria da jokabide hau: badirudi Iparraldekoen mesedetan egiten den zerbait dela. Egun, idatzizko komunikabideetan forma batek duen hedadura edo maiztasunari erreparatu beharrean Ipar-Hegoalde kontuak erabili dira erabakirako oinarri.

1.4. **Ohizko**

Ohiko elementuarena ere aipagarri gertatzen zait. Kasu honetan ez dut zalantzatan jarriko *ohiko* formaren aldeko azalpena, itxura guztien arabera zuzena da eta, baina gorago esan dudan guztiagatik ez dut uste horretara jo behar denik. Ez dakit zehatz zenbat aldiz agertzen den joan den mendeetan forma hori, baina ziur naiz azken hogeita bost-hogeita hamar urteotan milaka aldiz idatzi dela horrela, eta idazle ia guztientzat Euskaltzaindiaren proposamen berri hau ezusteko itzela gertatu dela. Idazleek ere, arian-arian, bidea egin dute eta ia guztiek ontzat ematen duten hitz forma bat ez dut bidezkotzat jotzen aurkikuntza batengatik edo, atzera botatzea.

Ondorioak

a) Orain arte aipatutakoek balio dute neurri handi batean, baina kasu honetan beste alderdi bat nabarmendu nahi dut.

b) Bistan denez, Euskaltzaindiak gero eta garrantzi handiagoa ematen dio diakroniari *idazkera* gomendioak eta erabakiak ebazterakoan. Gure idazle zahar gehienen testuak informatizatuta dauzkagunetik, badirudi gure hizkuntzaren historiarako zaletasuna hasiz doala eta ez dut horretan ezer txarrik ikusten, hizkuntzaren sena hor ere bai baitago gordeta. Baina *idazkera* erabakitzeko ez du baliorik. Eta, gainera, arriskugarria da, zeren gaur ikertzaile batek aurkitu du halako hitza antzina ez zela horrela idazten, eta berehala datorkigu gomendioa, eta horrela ez dugu bakerik.

Honaino, bada gogoeta-ondorioen atala. Amaitzeko, bigarren atalari ekingo diot.

2. PROPOSAMENAK LABURBILDURIK

2.1. Idazkera arloan, Arantzazutik honako berezko batasuna ere aintzat hartu beharra

Nire eritzian, eta lehenago azaldutako puntuetan frogatzen saiatu naizenez, Euskaltzaindiak zabaltzen dituen zenbait gomendio-erabakitan alderdi hau ez da kontutan hartzen.

2.2. Idazkera finkatzeko gure literatur tradizioak ez du izan behar gidari bakarra

Euskaltzaindiak idazkera gomendioren bat proposatu edo erabakiren bat plazaratzen duenean ez litzateke testu zaharretako agerpen kopuruari buruzko daturik aipatu behar, nire ustez, ez duelako inongo baliorik. Aurreko mendeetako testuetan edozelako idazkerak aurki daitezke.

Prozesuak beste era batekoa izan behar du: ikertzaileen txostenak oinarri, kontsulta ahalik eta zabalena (irakaskuntza, EHU, komunikabideetako profesionalak, hizkuntz teknikariak, idazleak eta abar) eta, ondoren, Euskaltzaindiaren gomendioa edota erabakia. Prozesu hau beteaz eginiko proposamen batek askoz ere oinarri sendoagoa du gure testu zaharretako agerpen kopuruak baino.

2.3. Euskalkietako aberastasunak bultzatu behar dira

Nire ustez, hitzen forma edo idazkera erabakitzen ematen den denbora larrekoa da, hizkuntzarentzat onuragarri gerta daitezkeen beste alderdi batzuk alde batera utziaz. Esaterako, Euskaltzaindiak gure hizkuntza xehetasunez aberatsago egin dezaketen euskalkietako ekarpenak gogoratu edo proposatu beharko lituzke eten gabe.

Bestela esanda, idazkera finkatzea edozein hizkuntzarentzat da garrantzi handikoa, baina baita aberastea ere. Esaterako, jakin nahi nuke zer pentsatzen

duen Euskaltzaindiak *hatza / atzamarra / behatza* ondo bereizirik erabiltzeari buruz; edo *berton / bertan* ongi bereizteaz; edo *neba / anaia* edo beste hainbat. Bizkaierazko batzuk aipatu ditut, hurbilenak ditudalako, baina euskalki guztiek dituzte euskaldun guztioi aberasgarri gertatuko litzaizkigukeen zehaztasunak. Idazleek lan handia egiten dute horretan, baina euskaltzainen ekarpena ere oso mesedegarria izango litzateke. Era horretako gomendioak espero ditut.

2.4. **Ahozkoak ez du izan behar idatzizkoaren erreferentzia, alderantziz baizik**

Iruditzen zait puntu hau ez dela behin ere ahaztu behar, nahiz eta batzuek gogo handia duten "ahozkotasuna"-edo idatzira hurbiltzeko. Esaterako, *hontan, hoiek, zai, nerea, iaioa* eta antzekoak idatziz onartuak izateko gogoak ere somatzen ditut, "naturalagoak" edo, direlakoan. Baina ahoskerak ez du interferitu behar idazkera. Nire eritzian, idatziak izan behar du beti ere hizkuntza landu baten lehen erreferentzia. Horregatik, eta bide batez, ez nuke aipatu gabe utzi nahi beste alderdi bat: gure artean, pertsonaia publiko askori (politikariak, irakasleak, idazleak...) beren ahozko agerpen publikoetan, dagokien karguaren izenean ari direnean, idatzizko euskara batuaren eredutik hurbilago aritzeko ahalegina egin beharko luketela gogoratu beharko litzaieke. Besterik da, aldiz, maila pertsonalean ari direnean, honetan askatasuna erabatekoa da eta.

2.5. **Gomendio-erabakiak urtean behin edo, bilduta**

Amaitzeko, eta praktikotasunari begira, gomendio-erabakiak urtean zehar barreiatuta eskaini beharrean, bilduta eskaini beharko lituzke Euskaltzaindiak, hobeto jaso ahal izan ditzagun eta argitalpenetarako arazoak ere gutxitzeko.

* * *

Besterik gabe, bada, hemen ematen diot amaiera txostentxo honi, probetxuzkorik badu jaso dadin. Mila esker guztioi zuen arretagatik.

ORTOGRAFIAZKO ARAZOAK: *ESPLORADORE ALA EXPLORADORE**

Miren Lourdes Oñederra,
Euskal Filologia: UPV/EHU. Gasteiz

0. Hizkuntzen arau beharra ez da linguistikoa, soziala baizik. Hizkuntza ofizialtzeak, nazionalitatearen sorrerak, literatura indartzeak, dialekto desberdinetako hiztunen batasun gogoak edo dena delakoak eskatzen du araua: ez dagokio hizkuntzaren garapen eta izaera linguistikoari propio. Arauak ematea ez da, beraz, hizkuntzalarion zeregina; bai ordea, hiztunek (edo hiztunen ordezkariek) hala eskatuta, proposamenak egitea, iritziak ematea, linguistikaren aldetikako arrazoiak aztertzea. Azken buruan, arauemaileek erabaki beharko dute.

Ortografia hizkuntza grafikoki adierazteko konbentzioa da eta konbentzio orok bezala osagai arbitrarioak izan ditzake. Hizkuntza bati ortografia bakarra eman nahi zaionean, areagotu egiten da arazoa, hizkera guztietako ahoskera guztiak jasoko dituen sistema aurkitu behar baita (1). Honek, noski, ebakera eta idazkeraren arteko urrutiratzea bultzatzen du zenbaitetan, hizkera batzuk beste batzuk baino sarituago gertatzen direlako. Ez dezagun ahantz arautzeak aukerak egitea dakarrela ezinbestean. Kontua litzateke aukera egitean irizpide zuzenak, bataz beste zuzenenak bederen, erabiltzeak.

Ortografia finkatzeko orduan erabil daitezkeen eta erabili ohi diren arrazoiak asko dira. Egokitasun fonetikoaren ondoan (2), zuzen eta justifikatuenak erabilterraztasuna eta gardentasuna liratekeelakoan nago. XIX. mendean Baudouin de Courtenay hizkuntzalariak ortografiaren printzipioak hiru izan zitezkeela esan zuen: fonetika, alegia hitzen ahoskera; etimologia edo hitzen morfologi egitura eta historia, alegia bestelako esplikaziorik ez dagoenean erabiltzen dena (3). Hizkuntza ezberdinetan faktoreon indar erlatiboa diferentea izaten da.

---

* Euskaltzaindiaren gomitea eskertu nahi nuke gai honi buruzko nire ikusmoldea azaltzeko aukera ematen didalako.

(1) Esan nahi da hiztun guztien ahoskatzeko moduekin konpatiblea izan behar duela, nahiz eta hizkera guztietan gertatzen diren hots guztiak ez zuzenean isladatu eta "isladatzen" direnak ez guztiek ahoskatu (esate baterako, "h" letra hutsa da ahoskatzen ez dugunontzat eta "s/z" grafia soila, hotsok bereizten ez dituztenentzat).

(2) Egokitasun hori neurtzean, analisi fonologiko orokorraren barruan ikuspuntu dialektologikoa (geografiko eta soziologikoa) oso aintzat hartu beharrekoa da, batipat euskara bezain zatiturik (geografikoki) eta murrizturik (soziologikoki) dauden hizkuntzen azterketan.

(3) Apud Sgall (1987, 2).

Euskarari gagozkiolarik, ez da ahaztu behar euskarak zenbait ezaugarri tipologikori esker eta ortografia batuaren gaztetasunak lagunduta, idazkera nahikoa "fonetikoa" duela. Hori ona da (eta eutsi egin behar genioke) ortografiaren erabilera eta ahoskera errazten dituelako. Kontu handiz hartu behar lirateke, beraz, hots berari dagozkion letrak gehituaz, grafema-fonema erlazioaren desoreka areagotzen duten proposamenak.

Hau guztia aintzakotzat harturik, kontsonante aurrerako *s* grafia proposatzeko argudioak azaltzen ahaleginduko naiz. Lehenengo, <*x*> idaztearen alde litezkeen eta han-hemenka zabaldu diren arrazoiei erantzuteari lotuko natzaio. Hain zuzen ere eta bihoa aurretik, horixe dut neure ekarriaren muina: erabili arrazoibidearen kritika. Txostenaren bigarren zatian gauzak neure aldetik, fonologiarenetik, argitzen ahaleginduko naiz.

1. ERABILI DIREN ARRAZOIEZ

1.1. Esan da kontuan hartu behar dela *beste hizkuntzek* egiten dutena gazt. *excéntrico,* ing. *exclusive* idaztean. Honetarako, noski, latinetikako hizkuntzei edo ingelesak latinari mailegatu formei begiratu zaie.

Utz dezagun apur batez ortografia eta goazen morfologiara. Pentsa dezagun poliki honetaz: Zergatik ez dugu, latinak bezala, numero eta kasu marka izen sintagmaren elementu guztietan ipintzen (adib.: *"afrikarrei gosetuei gizajoei")? Zergatik ez ditugu, ingelesez bezala, 1. eta 2. pertsonaren bukaerak berdintzen aditzetan? Zergatik ez dugu genero adostasuna onartzen gazteleraz bezala?.

Gertatzen da ahoskera morfologia baino gutxiago ezagutzen dugula, gutxiago erabili dela hizkuntzen arteko sailkapenetan, e.a. (4). Ezagutza izaten da errespetuaren oinarri sendoenetakoa, errespetua bada ere behar bezalako ezagutzaren giltzarria. Saia gaitezen bada, gure ahoskera joerak, euskararen fonologia, berezko arauak ahalik eta ongien ezagutzen, bere horretan ezagutzen eta ez sistematikoki beste hizkuntzetatik erakartzen. Zertarako areagotu ortografian euskararen orotariko menpekotasuna?

Besterenetik hartzea beti da irizpide diskutigarria eta besteren menpe dagoen hizkuntzaren kasuan are kontu handiagoz erabili beharko litzateke. Esango nuke gainerako hizkuntzen ereduari begiratu behar zaiola geureak erantzunik ez duenean. Bestela, mailegatzearen indarra areagotzen ari gara. Hizkuntzak bere dituen joerei eusteak babestu egiten du hizkuntzaren nortasuna eta ahoskera erdaldun ez dadin lagungarri gerta lekiguke. Bigarren zatian saiatuko naiz erakusten euskarak baduela erantzunik dagokigun auzian.

1.2. *Aurrizkien* arazoa.- <*X*> idaztearen alde erabili izan da *ex-* aurrizkiaren forma gorde beharra. Ba al da *ex-* aurrizkirik euskaraz? Gazteleraz ere eman-

(4) Litekeena da hizkuntzen sailkapenerako balio txikiagokoa izatea, baina egia da ez dela aukera nahikoa frogatu: azterketa fonologikoa gutxitan bideratu da horretara (interesa dukeenari, salbuespenen artean, Donegan/Stampe 1983 gomendatuko nioke).

kor den *ex-* aurrizki bakarra "ohi" *(senar-ohi, zuzendari-ohi)* esan nahi duena da. Besteak *importación-exportación, inhibición-exhibición* bezalako pare gutxi batzuetan gordetzen du oraindik aurriziki izanaren arrastoa eta horrela mailegatu du euskarak ere pare lexiko horietan (*inportazioa-exportazioa*, e.a.) (5). Haatik, incursión eta excursión hitzen esanahien arteko distantziak erakusten du aurrizkia antzutu dela gazteleraz (6).

Sinkronikoki (egungo hiztunarentzat alegia) *testu* eta *esploradore*-ren arteko muga artifiziala da; ortografikoki bereizi beharrak zailtasun bat gehituko lioke erabiltzaileari, euskararen aldetik justifikaziorik ez duen zailtasuna, bestalde. Ez genituzke ahaztu behar hemen alfabetatu-gabe ugariak eta euskaldun berriak.

Ex- aurrizkia piztu edo sortuko balitz ere, ez litzateke ezer aldatuko. Elementu morfologiko-lexiko bera ingurune fonologiko edo morfologikoaren arabera bi eratara idaztearena oso bere du euskarak. Ez dago hitz-eraketa arauei begiratzea besterik ikusteko euskaraz zein oparo den morfofonologia (besteak beste, baldintza morfologikoen araberako aldaketa fonikoak) eta zein garden isladatu den ortografian. Hona, adibidez, hitz-elkarketan jazo ohi diren lehen osagaiaren itxura aldaketa batzuk: *gizon / giza-lege, buru / bur-muin.* Atzizkien munduan ere asko lirateke adibideak: *egin-go /utzi-ko, gorri-tu / urdin-du.* Ortografia berex hartuta eta hitzarekiko letraren kokaguneagatik hor dauzkagu *zigor / zigorra* edota *hartu /onartu* bezalakoak Euskara Baturako egindako aukeren artean (gogora, halaber, azken aldiko *gara /baikara, da / baita).* Euskarak baino lotura laxoagoak dituen gaztelerak ere egiten ditu *imposible / inimaginable* bezalakoak.

1.3. Proposatzen den idazkeraz *zientzi hitzak* "arruntetatik" bereiziko lirateke. Honek erabiltzaile "arruntari" lekarkiokeen zailtasunaz gainera, badu beste arazo bat. Nork, non, noiz erabakitzen du zer den eta zer ez den zientzi edo kultur-hitza. Gaur zientifiko dena bihar arrunt izan daiteke, baina arrunt bihurtzeak ez dio ortografia aldatuko (hitzen idazkera arauak zaharkitu, konplikatu eta ilunduaz). Alor batean zientzi-hitza dena arrunt izan daiteke beste batean. Adibidez, *kontsonante* zientzi-hitz teknikoa da fonetikariarentzat edo fonologilariarentzat baina arrunta besteentzat (alemana kontsonante askoko hizkuntza dela esaten denean, esaterako): *kontsonante* eta *konsonante* bereizkuntza proposatu behar al dugu?. Hitz zientifiko eta ez-zientifikoen arteko diferentzia, jatorri bateko edo bestekoen arteko ezberdintasunak, gertatzen dira hizkuntzetan, horrela sortzen dira sarritan hitz klaseak (ik. ingl. *electric/electricity* pareak bezalakoak latinetikako hitzetan) (7). Honelakoak hizkuntzen historiaren ezinbesteko emaitza izaten dira, ez on eta ez txar, baina ez dut ikusten programatikoki, nahita egitearen arrazoia (8).

---

(5) Honekin ez da esan nahi aurrizikiak mailega ezin daitezkeenik, hor dago *-tu* partizipio atzizki mailegatuaren emankortasuna edo, *egin-desegin* bezalako pareetan, *des-* aurrizkiarena.

(6) Gaztelerarentzat esanak ingelesarentzat balio du.

(7) Cf. halaber gazt. *eléctrico/electricidad,* eusk. *elektriko/elektrizitatea.* Honelako pareetan bakarrik agertzen da [k/s] txandakatzea (gugandik gertueneko gazteleran zistukariari hortzartekoa dagokio). Gogoan hartzekoa da euskara dela ortografian ahoskera diferentzia isladatzen duen bakarra eta horrek baduela zerikusirik ortografiaren adin eta izaerarekin.

(8) Alegia, helburua, abantaila, irabazia.

2. EUSKARATIKAKO ARRAZOIAK

Idazkera eta ahoskera betirako eta betidanik loturik daude, baina ez dira inoiz batuko. Ahoskerak bere eta ezinbesteko dituen ezaugarri zenbait hor daude hori hala izan dadin. Ezaugarriok laburbiltzen dituena aldagarritasuna da (9). Ez dugu denok berdin ahoskatzen egoera guztietan, ez da berdin ebakitzen gai batez edo besteaz ari garelarik, herri batetik bestera ahoskera "ohiturak" aldatu egin daitezke. Guzti hau ez da (zuzenean behintzat) idatzian isladatzen.

Elkarrengandik bereizten dituzten ezaugarriak direla medio, denbora pasa ahala ahozkoa eta idatzia urrutiratu egiten dira, ahozkoa aldatuz baitoa, aldatuz eta aniztuz, idatzia —ortografiak loturik— geldirik dagoen bitartean. Urrutiratze honen abiadura ez da berdina izaten hizkuntza guztietan, ezta hiztun guztiengan ere. Irakurtzen eta idazten jakiteak, komunitateak onartu eta ikasi arauak izateak ahoskeraren aldaketa abiadura moteltzearen alde egiten dute. Baina batipat hizkuntza beraren ezaugarri fonologikoak axola zaizkigu orain.

Euskarak baditu kontuan hartzeko pare bat ezaugarri-sorta:

a) Tipologiaren aldetik oso aglutinatzaile izateak eta funtsean silaba-aldiko erritmoa edukitzeak (labur esan, denbora silabaka neurtzen da eta ez azentu taldeka) ahoskera bestelako hizkuntzetan baino motelago aldatzea dakar.

b) Soziolinguistikaren aldetik, ordea, beste hizkuntza indartsuagoekiko menpekotasunak batetik eta, bestetik, aldaera linguistiko batu eta ikasia oraintsu arte ez izanak dialekto eta hizkeren arteko diferentzien handitzea bultzatu du.

Besteak beste euskalkien arteko zatiketa horri konponbidea bilatzera zetorren Euskara Batuak, aipatu hizkuntzaren izaera fonologikoa (a) dela eta, zegozkion eta zituen ortografia "fonetikoei" jarraia ematen die, hainbatik hainbatean oso orekatua gertatzen den sistema proposatuz (10).

Esploradore bezalakoetan kontsonante aurrean <*s*> idazteak txandakatzerik ez duten kasuetara hedatzen du euskal ahoskerak txandakatzeetan erakusten duen berezko joera (hizkuntza barneko arau fonologikoa, berezko erregulartasuna). Euskarak ez du berezko <*x*> [*ks*] hots bilkurarik. Badira, ordea, fonetikoki baliokide eta konparagarri diren kontsonante afrikatuak (<*ts, tz, tx*>). Zein da euskaraz hotsok agertzen duten partiketa? Hain zuzen ere Euskaltzaindiak 1986an zentzu onez maileguz zetorkigun <*x*> letrarentzat proposatzen zuena: hitz hasieran eta hitz azkenean, bai; bokal aurrean ere bai; kontsonante aurrean, ez. Oso garbi adierazten dute bizirik dauden txandakatzeek zein den euskarak bere hots kateak moldatzean agertzen duen bidea <hersketa-zistukari-hersketa> katea de-

(9) Aldagarritasun psiko-soziologiko eta dialektoen araberakoa. Dialektoen arteko ahoskera hutsezko diferentziez ari naiz. Ezberdintasun lexiko eta gramatikalek ahoskera ezberdin gehiago ere sorreraz ditzakete, horrela euskalki ezberdinak ere hots bilkura diferenteen (gogora hitz hasierako *x-* / *tx-*) eta eredu prosodiko desberdinen iturri gerta daitezke.

(10) Erraz ahazten dugu Euskara Batuaren egitekoa ez dela bakarrik zatitua batzea: euskarak ez zuen (ez duen, kendu dioten eta diogun) hizkera-maila jantzia, erregistro formala ere ematea baizik. Hori da, hain zuzen ere, estandar deritzon hizkerak hizkuntzan bete ohi duen lekua.

bekatuari irtenbidea emateko (11): lehen hersketa kendu egiten da hots afrikatua ([tS]) igurzkari ([S]) eginez ***(hitz / hiztegi, hizlari; hotz / hozpera, hoztu; hautsi / haustura, hauskor; itxi / ixten)*** (12). Ortografiak ere hala jaso izan du oro har eta ez dut ikusten arrazoirik aurrerantzean datozkion moldagai berriekin ere ez dezan beste horrenbeste egin. Ahoskeraren babeserako egoki litzateke aipatu txandakatzea gordetzea fonologiaren aldetik: [ks] <x> hots unitate berria sartu da, erabil dezagun orain euskal hots-dinamikaren arabera eta ez ditzagun hautsi euskarazko kateatze moduak.

Ahoskera zaintzeko ortografiaren laguntzarena alde batera utzirik, badago zer gehiturik ortografia hutsezko argudioen ingurutik ere kontsonante aurreko < x > horrek lituzkeen ondorioez. Gorago esan bezala, kontsonante aurrean batzuetan < x > eta beste batzuetan < s > idazteak, erabiltzailearentzako zailtasunaz eta hizkuntzarentzako inportazioaz gainera, idazkera fonetikoen ezaugarri den grafia eta ahoskeraren arteko biunibokotasuna areago haustea lekarke:

a) [s] ahoskatzen dena batzuetan < x > (sasi-aurrizki horietan), beste guztietan <s> idatziaz

b) < x > idazten dena, batzuetan [s], beste batzuetan [s] ahoskatzea (eta hizkera zainduenetan [ks] *sexu* eta *taxi* bezalako hitzetan).

Esan bezala, euskararen ikuspuntutik ez dago bereizkuntzarik hitz egituraren aldetik *esploradore* eta *testu* formen artean, ez eta, fonetikarenetik, *esklusibitate* edo *esplikazio* eta *haustura*-ren artean. Itsuegi, azkarregi, multzo handiegitan sartzen ari zaizkigun maileguak egokitzeko indarra galtzea da honelako bereizkuntzak eraikitzea. Lehen euskarak jaso dituen maileguek ez dute suntsitu aberastu baizik euskarak bereganatu egin dituen neurrian, euskal hiztunek beren legeetara egokitu dituzten neurrian (13). Maileguak egokitzea da hizkuntza hartzaileak bere

(11) Hain zuzen ere txandakatze edo alternantziak oso leiho aproposa izaten dira hizkuntzaren katea paradigmatikoak edo morfema egitura erregelak *(morpheme structure rules)* nolakoak diren ikusteko. Dirudienez, euskara gaztelera baino estuagoa da honetan: alegia, gaztelerak paradigmatikoki edo oinarrizko egituran onartzen ditu herskari-igurzkari-herskari bilkurak *(explorador* /eksp-/, *excremento* /eksk-/), gero sintagmatikoki (ahoskatzean) maiz eta batipat hizkera arduragabeetan sinpletzen baditu ere [esp-], [esk-] ahoskatuaz; euskaraz sinpletzea paradigman bertan gertatzen da, hitzen osatzean bertan*(hiztegi, hizlari, hustu, ixte,* e.a.; hitz eratorri-gabeetan ere ez da -tSC- bilkurarik). Jakina da, oro har, euskararen kateak gaztelera, frantsesa eta, noski, ingelesarenak baino sinpleago izan ohi direla, gertuago daudela, alegia CVCV bilkura natural edo ez-markatutik.

Fonologiak ez digu laguntzen *excedencia* bezalakoen maileguen ortografia erabakitzeko orduan. Lehenengo lana mailegu horien ahoskera aztertzea litzateke, aintzakotzat harturik, dena den, eremu eta erabilera ikasikoak direla oro har eta honek berezkotasuna kentzen diola ahoskerari. Agian, erabiltzailearen aldeko arrazoi praktikoengatik hobe genuke, besterik gabe, kontsonante aurreko guztien ortografia berdina proposatzea *(eszedentzia* eta *eszeptiko* beraz, kasurik onenean fonetikoki zistukari bakarra izango dutenak, nahiz eta maiz aski gazteleraz < z > letrari dagokion ahoskera ere entzuten den honelako hitzetan). Bestela, bokal aurrekoak zistukari (eta "h") aurrerako ere balio duela esan? Gogoan izan, dena den, *pi[st]ina, a[st]entzorra* bezalako ahoskerak.

(12) [S] erabili da hiru elementu igurzkariak (zistukari biak eta xistukaria) adierazteko.

(13) Zergatik ematen ote diegu ordezkatze zaharrei (fonetika historikoa deitzen dio-

sintaxian erabiltzeko moldatzea, bere morfologiaren arabera eta bere fonetikaz ahoskatzeko bideratzea bere fonologiaren iragazkitik igarota.

3. Bukatzeko azpimarkatu nahi nituzke maileguetarako kontsonante aurreko < x > grafia proposatzean ikusten ditudan arazo kezkagarrienak. Batetik ez dira aintzat hartzen euskal fonologiaren ezaugarriak. Bigarren, honez gero handiegia dugun hizkuntza nagusien eraginari bidea zabaltzen zaio. Azkenik, baina ez gutxienik, erabiltzaileari zaildu egiten zaio ortografiaren ikasketa, ahoskerari buruzko pista faltsuak emateaz batera. Uste dut, azken finean, kontsonante aurrean < s > idazteak euskal sena hobeto errespetatzen duela eta hiztunarentzat merkeago ateratzen dela.

Neure aldetik, saiatu naiz irizpideei buruzko gogoeta bat aurkezten linguistikaren alderditik. Badakit asko dagoela konpontzeke eta arazoaren zatitxo bati ekin diodala. Uste dut gauzak banan-banan aztertu behar direla, baina maileguen gatazkan aholku orokorragoa ematen ausartuta esango nuke: begiratu zein den euskal ahoskeraren joera funtsezkoenak gutxien bortxatzen dituena (ez derrigorrez ahoskera bilakatuena isladatzen duena: ortografia ez da transkripzio fonetikoa) eta aukeratu ahoskera horrekiko koherenteen den grafia, horretarako asmakizun korapilotsuetan sartu gabe beti ere (14).

Hasieran esan bezala arauak ematea ez da gure lana, euskaltzainena baizik eta ez da nolanahiko lana. Espero dezagun guk gaur hemen aurkezten duguna lagungarri gerta dakien.

BIBLIOGRAFIA HAUTATUA

DONEGAN, Patricia; David STAMPE: 1983. "Rhythm and the holistic nature of language structure". *Papers from the Parasession on the Interplay Phonology, Morphology and Syntax.* John Richardson et alii, eds. Chicago: C.L.I. Univ. of Chicago, 337-353.

MICHELENA, L.: [1961, 1977] 1985. *Fonética Histórica Vasca.* San Sebastián: Seminario Julio de Urquijo de la Excma. Diputación de Guipúzcoa.

SAPIR, Edward: 1921. "Language as a historical product: drift". *Language. An Introduction to the Study of Speech.* London: Rupert Hart-Davis, 147-170.

SGALL, Petr: 1987. "Towards a theory of phonemic orthography". *Orthography and Phonology.* Philip A. Luelsdorff, ed. Amsterdam/Philadelphia: John Benjamin.

VENNEMANN, Theo: 1988. *Preference Laws for Syllable Structure and the Explanation of Sound Change.* Berlin/New York/Amsterdam: Mouton de Gruyter.

---

gun horri) oraingoei ukatzen diegun garrantzia? Inork ez du ukatzen *gurutze* "cruz", *Erroma* "Roma" aldaketetan euskararen fonologia dagoela lanean, aldarrikatu eta errespetatu egiten dugu. Ez genuke ahaztu behar sinkronia ere historikoa dela eta aspaldi gertatuak ere bere sinkronia izan zuela.

(14) Esango nuke, sentiberago jokatu ohi dugula sartzen zaizkigun hotsekin hots kateekin baino.

ZERGATIK GORDE *X* LETRA MAILEGUZKO HITZETAN

Jose Ramon Etxebarria,
Kepa Altonaga,
Martxel Ensunza,
J.M. Txurruka.

Txosten honen abiapuntua, biltzarreko batzordeak "Zergatik gorde *x* kontsonante aurrean" gaiari buruz genuen ikuspuntua adierazteko gomita izan zelarik ere, izenburua zerbait aldatzea erabaki dugu, aldi berean arau gisako adierazpen orokorragoa egiteko asmoz, salbuespenak esaldi horren ingurukoak izanik.

Txostenean ez dugu aipamen bibliografiko berezirik egingo, gai honetaz idatzirikoak biltzarkideen artean ezagunak direlakoan, eta horregatik, maileguzko hitz berriei buruz Euskaltzaindiak harturiko erabaki/gomendioetatik abiaturik, zuzen-zuzenean geure proposamena egingo dugu, ondoren horri eusteko ditugun arrazoiak zeintzu diren azalduz.

> Dakigunez, 1986. urtean Euskaltzaindiak argitaraturiko liburuan honako lau ataletan eman zen gomendioa:
>
> "1. Hasieran eta bukaeran *x* duten maileguak aldatu gabe idatziko dira: hala nola, *xenofobia* eta *fenix.*
>
> 2. Bokal artean ere *x* idatziko da: *taxi, sexu, oxigeno.*
>
> 3. Kontsonante aurrean ez da *x* idatziko, *s* baizik, honetan tradizioari *(estrainio, testu, eskumiku, espresuki)* jarraituz.
>
> 4. Baina kontsonante ondoan *x*: *Marx, marxismo, Xerxes.*"

Bistakoa denez, lau atalok bakarrean bil daitezke ondoko erara adierazirik: "*x* duten maileguak aldatu gabe idatziko dira, letra hori kontsonante aurrean ageri denean izan ezik. Kasu honetan, *x* idatzi ordez *s* idatziko da". Salbuespen horretarako arrazoi modura, "tradizioari jarraitzea"-rena aipatzen da. Gure eritziz, ondo dago tradizioan erabilitako hitzak bere horretan uztea. Baina hartzeko diren maileguzko hitzei buruz ari garelarik —eta bereziki hitz oso tekniko eta espezializatuei buruz—, gure ustez, arrazoi hori ez da nahikoa, salbuespena etorkizunari begira ere finkatzeko, egokia izan arren, ordea, iraganari dagokionez.

Esandakoan oinarriturik, gure proposamena are laburragoa da:

> *"x letra duten maileguak aldatu gabe idatziko dira, letra horri dagokionez".*

Arau orokor honek zenbait salbuespen izan ditzake, aspaldiko tradiziotik datozen hitz arrunten kasuan, baina, arlo zientifikoan etengabe ageri diren hitz berriei dagokienez, biderik egokiena bere horretan onartzea dela uste dugu.

Guk dakigula, proposamen hau L. M. Mujika-k bere hiztegian praktikan erabilitakoa da, eta sinpleena izateaz gainera, egokiena delakoan gaude, jarraian azaltzera saiatuko garenez. Horretarako, gure arrazonamenduaren osagarriak atal desberdinetan ordenaturik azalduko ditugu, proposamenaren funtsa guztien arteko amankomuneko loturan bilatu behar delarik, eta aurkezpenaren ordenak garrantzirik ez duelarik.

— Proposamen honen lehenengo oinarria *x* letra euskal alfabeto arruntaren multzokoa izatean datza, horrela maileguzko hitzetan zertan aldatu beharrik ikusten ez dugularik. Alegia, ez da *c, q, v, w* edota antzeko letren kasua, *x* letra euskara arruntean ere erabiltzen baita.

— Dena den, euskal hitz arrunten adierazpenean, *x* letrak duen ahoskera eta maileguzko hitz berrietan erabili ohi dena ez da berbera. Adibidez, *hauxe, goxo, gaixo,...* interbokalikoetan, *xamur, xagu,...*, hasierakoetan, edota *pixka, kaxkagorri,...* kontsonante aurrekoetan erabili behar den ahoskera, eta hitzaren barneko kokapenean toki berean ageri diren *xenofobia, oxigeno, exponentziala* hitzetan erabili behar dena, oso desberdinak dira.

— Aurrekotik ondoriozta daitekeenez, idazkera bakarra baina ebakera desberdinak erabiltzea proposatzen dugu. Edozertara, ez dugu uste horrek inolako arazorik sortzen duenik, euskara batuaren idazkeraz ari baikara. Euskal grafiarekin bat ez datozen kasuak baztertu egin behar direla entzun izan dugu maiz. Hala ere, berau ez litzateke kultur hitzen grafia ahoskerarekin bat ez letorkeen kasu bakarra, Euskaltzaindiak aspalditik *-kt-, -pt-, -tm-, -ft-, pn-, -mn-, -nst-* gisako kontsonante-multzoak bere horretan uztea erabaki baitu, *(hektometro, Optika, Aritmetika, erritmo, oftalmologo, pneumatiko, himno, mnemoteknia, institutu,...)* ohiko ebakeran hiztun askok sinplifikaturik ematen badituzte ere. Hortaz, ez legoke kontraesanik *x* bera ere horrela mantentzean.

— Proposamen sinplifikatu honekin orain arteko gomendioaren erabilera okerragatik sortutako zenbait joera agertzea zailago gertatuko litzateke, non *s* eta non *x* idatzi behar den zalantzarik sortuko ez litzatekeelarik, eta bokalen arteko *x* letra ez litzateke *s* bihurtuko, behin baino gehiagotan irakurri ditugun *"esistitu", "osigeno"* eta antzekoak nekezago agertuko liratekeelarik.

— Gure proposamenari jarraituz, koherentziazko hainbat abantaila letorke. Adibidez, hitz zientifikoen kasuan hainbat alditan ageri den *ex-* aurrizkia ez litzateke batzutan *ex-* (bokal artean) eta bestetan *es-* (kontsonante aurrean) agertuko, eta *h* letraren aurrean zalantzarik ez litzateke izango, *exhaustibo* (ala *eshaustibo*?) gisakoen kasuan adibidez. Hots, modu berean idatziko litzateke kasu guztietan: *exzentriko, exoftalmiko, exhaustibo, expantsio,..*

Atal honetan bereziki aipatu nahi dugu, *ex-* aurrizkiari *s* edo *z* letrez hasten diren hitzak/osagaiak gehitzean sortzen den kasua, hala nola, *exsuflatu, exzentriko, exzitatu,...* hitzena. Gure aburuz, horrelakoetan ere askoz egokiagoa da *x* letra bere horretan gordetzea.

— Bestalde, oso kontutan hartu behar dira, bikoteka ageri diren aurrizkien kasua, hala nola *ex-/in-* direlakoena, elkarren parean ageririk antonimo-bikoteak sortzeko erabiltzen direnak. Ehundaka dira horrelakoak zientziaren arloan: *exklusio/inklusio, explosio/inplosio, exfiltratu/infiltratu, exhalazio/inhalazio, exportazio/inportazio,...* Zeresanik ez, holakoetan ere guk proposaturikoa egokiagotzat dugula.

Bestelako bikoteak ere aipagarriak dira, hain zuzen ere, ekibokoak edota nahasgarriak gerta daitezkeenak, *x* ala *s* letra erabili arau esangura desberdinekoak izanik. Kasurako *exkalatu ≠ eskalatu, extro ≠ estro (estru), externizazioa ≠ esternizazioa, exterorrezeptorea ≠ esterorrezeptorea,...* Hemen ere x letra gordetzeak eremu semantikoen banaketa garbirako laguntza lekarke.

— Aurreko *ex-* aurrizkiaz gainera, zientzian ba dira beste zenbait aurrizki, barnean kontsonante aurreko *x* letra daramatenak, hala nola, *extra-, dextro-*, ...Ez dirudi oso egokia litzatekeenik, *x* hori kontsonante baten aurrean joateagatik *s* bihurtzea.

— Oro har diogun, textu zientifikoetan grafiak duen garrantzia oso handia dela. Textu zientifikoak *idatziz/irakurriz* lantzen dira gehienbat, beraien hausnarketak astia eskatzen baitu, eta horregatik oso garrantzizkoa da beraien inpaktu grafikoa.

— Hitz zientifikoez ari garenean, kontutan hartu behar dugu maileguak hartzerako orduan abiapuntutzat erabili ohi dugun hizkuntza ingelesa dela gehienetan (eta neurri txikiagoan alemana, frantsesa eta gaztelania), berori baita gaur eguneko hizkuntza menperatzailea, informazio gehienen iturri zuzena, nahiz eta jakin dakigun, benetako abiapuntua latina edo grekera direla. Nolanahi dela, gehientsuenetan ingelesaren galbahetik pasatu ondoko mailegua suertatzen zaigu fidagarriena.

Esandakoaren bidetik, honek ez du esan nahi espainieraz *x* idazten diren guztietan euskaraz ere horrela jarri behar dugunik, grezierazko jatorrizko hitzera zuzenik joz gero grafia bestelakoa gerta baitaiteke, adibidez, *ekstasi* berbaren kasuan gertatzen den bezala, horregatik ingelesek *ecstasy* gisa ematen dutena.

Eta, kasurako, *x* letraren erabilpen "unibertsalari" dagokionez, Matematikan erabili ohi diren *exp* (≡ exponentzial) gisako laburdurak —ingelesetik harturik, mundu osoan zehar erabili ohi direnak— onartuz, logikoa dirudi euskaraz ere *exponentzial* idazkera hobestea.

Arau orokorra eman ondoren, salbuespenekin has gaitezke. Berauek, Zientziaren arloan oso erabilpen hedatua ez duten hitz zaharren kasuan aplikatu beharko lirateke soilik. Horrelatan, bada, biderik egokiena horrelakoen zerrenda

prestatzea litzateke, kontsonante aurrean *s* letra zeintzu hitzetan hobetsiko litzatekeen adieraziz. Gure eritziz, zerrenda horrek itxia izan beharko luke, orain arteko tradizioan sendoki oinarrituriko hitzekin osotua izanik. Ez gara gu egokienak hori erabakitzeko, baina, praktikotasunaren izenean, *numerus clausus* gisako zerbait egin liteke. Beraz, araua ematean hitz horien zerrenda zehaztuko litzateke. Zerrenda hori osotuz joan dadin, 1986. urtean emaniko gomendioan tradizioari loturik adierazitako hitzak sartzea proposatuko genuke, hots, *estrainio, testu* (baina *textu* ere, *kontextu* hitzarekin batera), *eskumiku, espresuki, mistoa* (baina *mixto*)...

Salbuespenen arloan sarturik, zenbait kasu berezi aipatu nahi genituzke, banaketa semantikoa proposatzeko egokiak liratekeenak, modu eta maila desberdinetan erabiltzen diren hitzak baitira. Horrelakoetan *s/x* bikoiztasuna mantentzea proposatuko genuke, egokia izan daitekeelakoan baikaude. Gure aldetik, bikoiztasun hori praktikan erabili izan dugu. Azalpenerako, bi kasu konkretu aipatuko ditugu, bestelakorik ere egon daitekeela onartuz.

— Lehenengo kasua *testu/textu* bikotearena da. Bizkaian bederen bizirik dagoen tradizioari jarraiki, *testu, testulari* eta antzekoak egokitzat dauzkagu, *kontu, kontulari, sasibertsolari* eta antzeko esangurarekin. Dakikegunez, *testua* elkarrizketan erabili ohi den esaldi labur errimatua da, sarri erantzun bizkorra ematean erabiltzen dena, egindako galderari errimaz erantzunez. Esate baterako,

—Zer moduz dabil Jon?

—Hura? Asko hartu eta gutxi emon.

Gisa horretako hitz-jokoari deritzo *testu*, eta holakoak egitearen zaleari esan ohi zaio testulari. Uste dugu, balio semantiko horrekin egokiro gorde daitekeela *testu, testulari* idazkera.

Ostera, egokiagotzat daukagu *textu*, esangura teknikoarekin erabilia izateko, edota *textuliburu* bezalako hitzetan. *Textu* hitza *kontextu* (edo *textuinguru*) hitzarekin batera joan daiteke.

Horretan, ba, bikoiztasuna lagungarri eta argigarri gerta daitekeelakoan gaude. Gainera, lehenagotik ere egin izan dira antzeko bikoiztasun semantikoak (*istorio/historia, itxi/hertsi* eta antzeko hitzen kasuan adibidez, nahiz *x* letradunak ez izan), euskara idatzian bederen.

— Bigarren kasua *misto/mixto* bikoteari dagokio. Hemen ere, *misto* hitza hitz zaharren multzokoa da, *pospolua* adierazi nahi duena alde batetik, edota *ausarta* bestetik. Ostera, *mixto* hitza izaera edo talde desberdinetako elementuez osotutako multzoei gehitzen zaien adjektiboa adierazteko erabili ohi dugu Fisikan eta Matematikan (*biderkadura mixtoa*, adibidez).

Bistakoa denez, alde batera utzi dugu *mizto* hitza, sugeen mihi luzea adierazteko erabili ohi dena, eztenaren edo pozoiaren baliokidea izan daitekeena, hitz honek ez baitu zerikusirik aurrekoarekin, antzekotasun formala baino.

Beste mailako argumentua ere plazaratu nahi genuke, zientziaren arloan izandako praktikari dagokionez. Azken urteotako "tradizioarena" da, edo zehatzago adierazi nahi bada, zientziaren arloko euskara idatziaren tradizioarena. Txostenean aztertzen ari garen arazoaz, hots, maileguetako *x* letraren erabilpenaz, unibertsitate mailako textugintza zientifikoan, oro har, bi joera eratu izan dira, Elhuyar taldearen eta Udako Euskal Unibertsitatearen argitarapenen inguruan. Joera horien banaketa, Euskaltzaindiak kaleratutako gomendioaren inguruan sortu zen, Elhuyar-ekoek hitzez hitz hartu zuen bitartean, Leioako Zientzi Fakultatearen inguruko irakasleek gomendioa kritikoki hartu zutelarik. Gomendio horretan etena sortu zen ordurarteko tradizioan nagusi zen *x* letraren gordeketan. Eta "tradizio" hitza erabili dugu berariaz, bere laburrean zientzien erabilpen unibertsitarioan dagoen bakarra delako, nahiz eta azken hogeita bost urteotakoa baino ez den. Puntu edo ñabardura hau gutxiegi azpimarratzen delakoan gaude.

Ondorioz, txostenean esandakoa laburbilduz, eta hasieran azaldutakoaren bidetik, hitz oso arrunten salbuespena onargarria den arren (eta beste kasu bereziren bat ere, agian), oro har, hitz teknikoen kasuan, inguruko hizkuntza nagusietan *x* batez idazten diren maileguak bere horretan uztea proposatu nahi dugu, letra horri dagokionez. Horregatik eskatzen dugu lehenago Euskaltzaindiak emaniko gomendioa aldatzea, bere sasoian egin genuen bezalaxe.

BAT-BATZUK eta *NOR(TZUK) - ZEIN(TZUK)* AHOZKO HIZKUNTZAN, (Euskal Herriko Hizkuntz Atlaseko datuen arabera).

Izaskun Etxebeste,
Koro Segurola.
EHHA. Euskaltzaindia.

Euskaltzaindiak jadanik, euskara standarda eraikitzean, zenbait Erabaki-Gomendio hartu ditu. Gomendioen artean aurkitzen dira *bat/batzuk*-en deklinabidea eta *nor(tzuk)/zein(tzuk)* galdetzaileena ere.

Gomendio hauek, batez ere, idatzizko tradizioak dituen emaitzetan oinarriturik hartuak edo jasoak izan direnez, ahozko hizkuntzak gaur egun determinatzaile (zenbatzaile), eta galdetzaile hauek nola erabiltzen dituen aztertzea da gure asmoa, euskarak ezagutzen duen bidegurutzean argigarri izan daitezkeelakoan.

EHHAko galdekizunean, morfosintaxiari dagokion zatian, 596 galdera egiten dira izen morfologiari (deklinabidea barne) eta aditz morfologiari zuzenduak; 62 sintaxiari eta 37 fonetikari buruzkoak. Guztira, beraz, 695 galdera.

Gaur aztergai ditugunentzat: EHHAn *bat*-en deklinabideari 4 galdera zuzentzen zaizkio, *batzuk*-enari 3 eta *nor / zer / zein(tzuk)* galdegaiei beste 3. Guztien emaitzak lantxo honetan azaltzea gehiegizkoa zenez, hauen artean esanguratsuenak hautatu eta aurkeztuko ditugu hemen.

Une honetan EHHAko datuak, -lehen atala ezik eta bigarrena bidean- ez daude informatizatuak eta inkestaz-inkesta (herriz-herri) 145 herritako datuak (hau da, Hegoaldean: 36 Bizkaian, 36 Gipuzkoan, 1 Araban, 27 Nafarroan eta Iparraldean: 45) eskuz atera behar izan ditugu. Jakina, datuen entresaka horretan eskuz aritzeak, adarren bat edo beste argitu gabe edo ahaztuta geratzearen arriskua du.

Bestalde, metodologiaren aldetik, esan behar da, EHHAn morfosintaxiari dagokion zatian, emaitzak batipat itzulpenean oinarrituz lortu edo jaso direla. Hau da, lekukoari galdera/esaldia erdaraz ematen zaio euskaraz itzul dezan, eta hala, une horretan bapatean emandako erantzun edo itzulpena jasotzen da. Beraz, nahiko mugatua suerta liteke. Honek ez du esan nahi, lekuko berak inkestan zehar beste era batean eman edo esango ez duenik; haatik, sarritan gertatu zaigu une horretan ez erantzutea edo/eta modu desderdinean ematea inkestan zehar, baina datu-sarrera erabat amaitu arte berezko jarioan emandako forma horiek ez ditugu esku artean izango. Gure lanaren nondik norakoak eta gerta daitezkeen hutsu-

neak errazago edo arinago uler daitezen, labur bada ere, adierazi nahi izan ditugu.

1. BAT (determinatzaile/zenbatzaile)

Bat-en jokabidea bi kasutan aztertu dugu: leku-denborazkoen artean, inesiboan eta leku-denborazkoa ez denean, beste hitzaren agerraldi mugatu baten eraginpean dagoenean. Azken honetatik hasiko gara:

1.1. Bat, beste hitzaren agerraldi mugatu baten eraginpean dagoenean, gomendioak dioenez, gaur egun ere forma mugatuan gertatzen da, batez ere Hegoaldean, eta forma hauek luzatzen ditu Euskaltzaindiak euskara baturako: *bata, batak, batari, bataren, batarekin...*

Ikus dezagun bada, EHHA-ko datuen arabera, ahozkoan zer ematen den (1. mapa):

Testuingurua hauxe izan da: "En el bar hay dos hombres: uno bebe vino y el otro cerveza"/ "Dans l'auberge, il y a deux hommes: l'un boit du vin et l'autre de la biêre".

Beraz, ikusten denez, batek forma mugagabea gailentzen du punturik gehienetan. Euskaltzaindiak hobetsi duen *batak* mugatuaren erabilpena berriz, bi ertzetako euskalki edo eskualdeetan (bizkaiera eta zubereran) agertzen da. Bizkaieraz 16 puntutan *batak* ageri zaigu, sakabanatuta; Gipuzkoan kokatutako zenbait barne, eta gipuzkerakotzat hartu izan den Elgoibar tarteko. Besteetan *batek* jaso dugu. Hemen oso kontuan hartu beharrekoa da inkesta-metodologiari buruz hasieran egin dugun oharra: arestian emandako testuinguru horretan bakarrik galdegin dela eredu hau. Beste testuinguru batzurekin froga egin ezkero, agian, emaitzen mapa trinkoagoa aterako litzaiguke. Beste muturrean, Zuberoan, 12 inkesta puntutatik 8tan *batak* dugu.

1.2. *Bat* (inesiboan: *batetan/batean/baten*)

Gomendioen arabera leku-denborazko kasuetan, literatur tradizioa bitan banatua agertzen da testurik zaharrenetan. Iparraldean *batetan* eredukoak erabiltzen ziren, azken mendeetan Hegoaldeak jarraitu duen tradizioko *batean* (bizkaieraz, *baten*) ereduaren agerraldiak ugaritu eta azkenik nagusitu diren arte. Zubererak mantendu egin ditu *batetan* sailekoak.

Euskaltzaindiak, eredu hedatuenak proposatzen ditu, literatur tradizioaren bilakaera hau gogoan harturik, beraz: *batean, bateko, batera, batetik.*

Lan honetan inesiboa bakarrik hartu dugu aztergai.

Testuingurua: "En un pueblo hay muchas cosas"/ "Dans un village, il y a toujours de l'eau".

Ahozko emaitzak kontuan harturik, erantzunak hiru eredutan sailkatu ditugu (2. mapa):

— *Batetan*

— *Baten*

— *Batean* (*batean, batian, batien, batin*).

1.2.1. *Batetan*: Mapak erakusten digunez, ahozko hizkuntza bat dator literatur tradizioaren bilakaerarekin. Iparraldeko literatur tradizio zaharra —"*batetan*"— zubereran mantentzen da nagusiki. Lapurdiko nafarrera beherean hiru puntu hauetan ere, Mugerre (509), Urketa (511) eta Beskoitzen (512), *batetan* ematen da, irla moduko gune bat sortuz euskararen mugetan. Gainontzeko nafarrera-behereak ere ez du gordetzen bi agerraldi hauen arteko zubi izango litzatekeen emaitzarik, ez eta Lapurdiko herri horietako mintzairak hainbatetan kideko dituen Amikuze aldekoetan ere.

1.2.2. *Baten*, bizkaieraz ez ezik, mendebalde osoan nagusi dela ikus daiteke goi-nafarrerako lauzpabost puntutara hedatzeraino.

1.2.3. *Batean* aldiz, ekialderantz zabaltzen da aldaera bat baino gehiagorekin:

— *Batean: -ean* ahoskatzen da goi-nafarrera eta lapurterako zenbait puntutan batez ere.

— *Batian:* ekialdeko eredu nagusiena da: Nafarroa Beherean ia erabat erabiltzen da eta Gipuzkoako ipar-ekialde osoa hartzen du Lapurdiko hego-mendebaldeko muturrera zabaltzeraino. Goi-nafarreraz ere baditu testigantzak, batez ere Burunda aldean eta Nafarroa Behereko muga inguruetan sakabanatuak.

Bizpahiru herritan, guziz aldenduak eta loturarik gabe, honen inguruko *-ien* formak topatu ditugu.

— *Batin:* goi-nafarreran bakarrik aurkitzen da: Basaburua aldean eta Gipuzkoan, Oiartzunen.

2. BATZUK

Bat: hitzaren plurala nola osatzen eta deklinatzen den ikusiko dugu hurrena. Euskaltzaindiaren gomendioak, literatur tradizioaren bilakaeran oinarrituta, formalki mugatu pluralak diren erak hobesten ditu: *batzuk, batzuek, batzuei...*

Guk *nor* (absolutiboa) eta *nork* (ergatiboa) hartu ditugu aztergai. Horiek lortzeko EHHA-k testuinguru hauek proposatu dizkie lekukoei itzul ditzaten:

a) "Han venido unos hombres"/"J'ai attrapé quelques vairons" (*nor*)

b) "Sólo han trabajado unos hombres"/"Seuls quelques hommes nous ont aidés" (*nork*).

Aurrera baino lehen, testuinguru hauekin *batzu*-ren deklinabidea lortze bidean Iparraldeko ekialdean izan dugun arrakasta eskasa adierazi nahiko genuke,

ekialderago eta nabarmenago, zubereran erabat ukatzeraino: *zonbait/zenbait* gailentzen da nabarmenki. Nafarrera-behereran, gehienetan, *zonbait* lortu ondoren, *batzu* eredua proposatu egin zaie lekukoei, baina testuinguruak aldatu behar izan dira horretarako: "arrapatu dut xipa *zonbeit*" baina "xipak batu halako tatxa beltz *batzu*". Diferentzia zein den galdeginda, ñabardurak sentitzen dituzte, nahiz analisi linguistikotan sartzen ez diren. Garbi duten bakarra da ez dutela testuinguru berberetan erabiltzen. Areago oraindik, bereizketa nabarmenagoa eginez, *batzu* hitza, "iduri luke buhami lenguaia den" esan duenik ere izan da.

Ez dugu hemen arazo honetan gehiago sakonduko, egoeraren zertzelada batzuk ematea besterik ez zen gure asmoa.

2.1. *Batzuk:* nor/nork kasuak bereizten diren aztertzen da lehenik (3. mapa).

Eskubitara hutsik dauden puntuak ekialdeeneko euskalkietakoak dira, arestian azaldu dugun egoeragatik emaitzarik lortu ez delako: "zonbait"en eremua da. Eremu horretan ere, "batzuk" proposatu eta nolabait onartu denetan, emaitzak jaso egin dira.

Gainerantzean, nor/nork kasuak mendebaldeko hiru euskalkietan, ñabardurak-ñabardura, ez direla bereizten esan behar da. Eta, aldiz, ekialdekoetan bereizketa egiten da.

Bereizketa egiten duten beste bi lekukotasun azaldu zaizkigu bi puntu bakanetan: Mendaron(308) eta Oñatin(305).

Beste bi mapatan aztertuko ditugu emaitzok.

2.2. Ikus dezagun nor/nork bereizketarik gordetzen ez denean nola ematen den. *Batzuk* forma da nagusiena nola *nor* nola *nork* ergatiborako ere. Beraz, *batzuk* erabiltzen da batipat Hegoalde osoan eta ez Bizkaia aldean bakarrik, literatur tradizioak dioen bezala(4. mapa).

Batzuek erabiltzen dute bi kasuetan(*nor* eta *nork*) zenbait inkesta-puntu bakanetan: Elgoibar (307) eta Eibar (303)-en, Pasaian (334), hala nola Etxalar (416) eta Zugarramurdin (420) eta baita Donibane-Lohizunen (502) ere. Beskoitzen, (512) *batzu* ageri zaigu, bereizketarik gabe.

2.3. *Nor/nork* kasuen arteko bereizkuntza, lehen esan bezala, ekialdeko euskalkietan egiten da batipat, eta eredu hauek jarraitzen dira (5. mapa).

– *Batzu/batzuek* eta hau da eredu nagusiena, Ahetze (506), Arrangoitze (507), Uztaritze (508), Itsasu (510), Makea (514), Sara (504) eta Landibarren (612) jaso dugu.

– *Batzuk/batzuek:* Senpere (505), Alduden (601) eta Azkainen (503). Hegoaldeko Oñati (305) eta Mendaro (308)-ko emaitzek ere eredu hau jarraitzen dute.

– *Batzu/batzuk:* Azkainen (503) (eta baita *batzuk/batzuek* ere, arestian esan bezala), Gamarten (611) eta Luzaiden (425).

– *Batzuk/batzurek:* Abaurregainan (426) eta Eaurtan (427).

– *Batzuek/batzuak:* Oiartzunen (335).

– *Batzuek/batzuk:* Hondarribian (336) eta Hendaian (501).

Beraz, eta laburbilduz, EHHAko datuen arabera, *nor* absolutibo eta *nork* ergatiboaren arteko bereizketa hori ez da urrundik ere nagusi *batzuk*-en erabileran.

Bereizketa gordetzen den eskualdeetan, *batzu/batzuek* eredua gailentzen da, aukeran kasu marka nabarmenenak erabili nahiko balira bezala.

3. NOR(TZUK) / ZEIN/(TZUK) (6. mapa)

Galdetzaile hauek mendebaldeko literatur tradizio batean *-tzuk* atzizki pluralgilea dutela agertzen dira. Baina, ez dira beti horrela erabiliak izan beste literatur tradizioetan.

Azken urteotan, bizkaierazkoak soilik ziren *nortzuk, zeintzuk* eta areago *zertzuk* aski hedatu dira euskara idatzian.

Euskaltzaindiak, kontuan harturik forma atzizkidunak literatur tradizio jakin bati lotuak daudela, *nor, zer* eta *zein* formei lehentasuna ematea gomendatzen du. Ez ditu, ordea, atzizki pluralgileak dituzten formak inola ere gaitzesten.

Ikus dezagun bada, EHHAko datuek zer ematen duten. Lehenik, *-tzuk* atzizki pluralgilea erabiltzen den ala ez aztertu dugu edo hobeki esanda, non erabiltzen den.

Eta bigarren, atzizki pluralgilea erabiltzen ez den eremuan aditzarekiko komunztadura nola ematen den azaletik bada ere ikusiko dugu, horri buruz aipamen bat eginaz.

3.1. *-tzuk* non erabiltzen den ikusteko EHHAk honen inguruan egiten dituen hiru galderatatik bi hautatu ditugu:

nor(tzuk) eta *zein(tzuk)*-i buruzkoak. Testuinguruak bi hauek dira:

a) "¿Quiénes han venido?"/"Quels sont ceux qui sont morts?" eta

b) "¿Cuáles quieres, los rojos o los negros?"/"Lesquels veux-tu? les grands ou les petits?(verres)". Ikus daitekeenez, *-tzuk* atzizki pluralgilearen erabilera mendebaldean kokatzen da, bizkaieraren esparruan eta berarekin muga egiten duten Gipuzkoako hizkeratan, Mendaro (308)-tik hasi eta hegoaldean Zegama (313) hartuko lukeen isoglosa bat sortuz. Hauengandik aldenduta, Hondarribian *zeintzuk* jaso dugu eta Senperen *nortzu.*

Aipamen txiki bat zor zaie Mezkiritz (424) eta Xuarben (413) jaso diren *norek* eta *zeñek* galdetzeileei ere: "*Norek tórri dira?*", "*Zéñeg nai tuzu?*", "*Zeñeg nai ttuzu, béltzák edo gorríek?*".

Esan behar dugu, inkesta-puntu hauek goian azaldutako bata nahiz bestea ala biak itzultzerakoan *nortzuk/zeintzuk* erako galdegaia lortu denean markatu direla.

Atzizkiaren hedadura honen aurrean azpimarratzekoa da gaurregungo mapa honen egoera eta *Erizkizundi Irukoitzak,* duela hirurogeita hamar urteko datuak maparatuz erakusten duena, ia-ia bat datozela. Badirudi beraz, ahozko euskara ez dela oraingoz hurbildu euskara idatziak eredu hauek hedatuz ekin dion bideari.

(Bidenabar, ohartarazi besterik ez dugu egingo *nor* pertsona galdetzailea galdua dagoela erdialdean. Gipuzkoan Bizkaiko mugatik hasita Nafarroako mendebalde guzia hartzeraino *zein* erabiltzen da beti bere lekuan, "*¿quién?*" nahiz "*¿cuál?*" itzultzeko).

3.2. Aditzarekiko komunztadurari buruz bi hitz: *-tzuk* erabiltzen ez den eremuan, nagusiki aditza pluralean egiten da. Adibide batzuk:

Hernani (330):

(a) "*Zeiñ izandu ira?*"

(b) "*Zein nai ittuzu, gorrik ala beltzak?*

Zugarramurdi (420):

(a) "*Nor izan dire?*"

(b) "*Zein nai tuzu?*"

Armendaritze (609):

(b) "*Nor dira hilak ixtripu ortan, haurrak ala aita-amak?*" "*Zoin baso nahi ditun, baso ttipiak ala haundiak?*".

Altzürükü (704):

(b) "*Nur dira hil, etxekuk ala haurrak?*"

Baina, (b) testuinguruan, esaldian zehar pluraltasun markak gorde ditzaketen beste elementu batzuk daudenez, aditza singularrean egiten da maiz, galdetzailearekin komunztadura mantenduz.

Itsasu (314):

(b) "*Zein nai'zu, gorrik ala beltzak?*".

Donibane-Lohizune (502):

(b) "*Nor il da istripuan, gurasoak edo aurrak?*

Jutsi (616):

(b) "*Ze uzie hautatzen, handiak ala ttipiak?*

Mendaro (308):


(b) "*Sein nai desu, gorrixak eo-ala beltzak?*"

Domintxine-Berrueta (702):


(b) "*Zuin hartiko uk goolet hoitan, ttipiak ala handiak?*"

Muntori-Berorize (708):


(b) "*Zoñ hil da, etxenkuk ala haurrak?*".




1. mapa: BATAK/BATEK...BESTEAK




2. mapa: BATEN /BATEAN/BATETAN




3. mapa: BATZUK(nor/nork)



4. mapa: BATZUK (nor=nork)



5. mapa: BATZUK (nor#nork)



6. mapa: NOR-ZEIN / NORTZUK- ZEINTZUK

LABURTZAPENEN DEKLINABIDEA

Igone Zabala Unzalu (EHU)

Laburtzapenen mundua oso konplexua da lan xume hau baino lehenago egin diren zenbait lan interesgarri eta sakonek agerian utzi duten bezala. Ikus adibidez, Gotzon Egia (1985), UZEI (1988) eta Gorka Palazioren (1992) lanak. Gure helburua ez da esparru korapilotsu horretan areago sakontzea, edozein laburtzapeni deklinabide-atzizki bat gaineratu behar diogunean guztiontzat baliogarriak izan daitezkeen irizpide batzuk aurkitzea baizik.

Hortaz, ez dugu laburtzapenen sailkapenerako erabili ohi den terminologia konplexu eta higikorrean sartuko, ez behintzat lan honen helburutik haruntzago doazen azpisailkapenei dagokienez. Gehienetan, adierazik zabalena duen "laburtzapen" berba erabiliko dugu, eta "laburdura", "laburketa", "sigla", "akronimo" eta "ikur" bezalakoak ezinbestekoak zaizkigunerako utziko ditugu, beti ere zertan ari garen garbi utziz. Modu berean alde batera utziko ditugu laburtzapenak eratzeko moduak, siglak euskaratzearen egokitasuna edo egokitasunik eza, laburtzapenen lexikalizazio-maila eta siglen irakurketa bezalako gai interesgarriak. Horiek guztiek azterketa sakona behar dute, irakurketa-moduak ere zehazten dituzten laburtzapenen zerrendak osatzeko. Lantxo honetan, deklinabide-atzizkiak itxuratzeko eta horiek laburtzapenei lotzeko proposatu izan diren irizpideen alde onak eta txarrak aztertu eta horiek elkartzen dituen irizpide-multzo bat bilatzen saiatuko gara besterik gabe.

Gai honi dagokionez, ezinbesteko garrantzia du laburtzapenen munduaz aritu direnek oso garbi utzi duten ideia bat: alde batetik, badira ahozko izaera duten laburtzapenak eta bestetik, izaera grafikoa baino ez duten laburtzapenak. Esate baterako *zoo, telematika* edo *HABE* laburtzapenak idatzita dauden bezala irakurtzen ditugu; areago *zoo, ande* eta *mate* bezalakoak ahozko mailan sortu dira, inoiz hizkuntza maila kolokiala islatu nahi denean, idatzita ere aurki badaitezke ere. Edonola, goiko laburtzapen horiek idatzita dauden bezala irakurtzen ditugu: /zoo/, */telematika/* eta */abe/* eta ez jatorrian dauden izenak edo izen-sintagmak (*/zoologiko/, /telekomunikazioak eta informatika/* edo */Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea/).* Beraz, laburtzapen hauek guztiek ahozko izaera dutela esan dezakegu.

Baina *e.a., cm* edo *or.* bezalako laburtzapenak ditugunean, halabeharrez irakurri behar dugu laburtzapenaren jatorrian dagoen izena edo izen-sintagma, hots, /etabar/, /zentimetro/ eta /orrialde/. Laburtzapen hauek hizkuntza idatziari dagozkio eta ez dute pareko ahoskapen laburturik. Laburtzapenen izaeraren kontu honek eragin nabaria du lan honen ardatza den deklinabidearen gainean, oso garrantzizkoa baita laburtzapena irakurtzeko modua deklinabide-atzizkiaren itxuraketarako.

Hitzen gorputz fonikoa laburtuz lortzen diren laburtzapenek ez dute inolako arazorik sortzen deklinabidearen aldetik, idatzizko eta ahozko mailen arteko egokitasun osoa erakusten baitute. *Zoo* edo *uni* bezalako **laburketak** eta *telematika* (telekomunikazioak+ informatika) edo *tergal* (poliester+galo) bezalako **akronimoak** izen arruntak bezalakoak dira, haien berezitasun bakarra sorrera-modua delarik: duten bukaeraren araberako deklinabide-atzizkia hartzen dute eta atzizki hori zuzenean lotzen zaie, inolako muga tipografikorik gabe.

Zooan egon gara.
Telematikari buruzko hitzaldi bat eskainiko dute.

Horietaz gain, *HABE* bezalako laburtzapenak, hau da, **siglak**, sartu ohi dira ahozko izaera dutenen artean. Izen-sintagma konplexuen hitz bakoitzaren hasierako letra bat edo batzuk hartuz eratzen dira eta berezi samarrak dira, hainbat irakurketa-modu dituztelako. Hortaz, *HABE* siglak irakurketa silabikoa du, hau da, /a-be/ irakurtzen da, baina *AEK* sigla, letraz letra irakurtzen da, hots, /a-e-ka/, eta *PSOE* siglaren zati bat letraka eta beste bat silabaka irakurtzen da, /pe-so-e/ alegia. Azpimarratu beharrekoa da hemen esan duguna ohizko jokaera duten siglei dagokiela baina badira zpian duten izen-sintagma irakurtzen denez ahozko izaera zalantzagarria duten "laburdura siglatuak ere" (EEBB = Estatu Batuak). Halaber, badira gaur egun zeharo lexikalizaturik egoteagatik izen arruntak bezala idatzi eta ahoskatu ohi diren "siglonimoak" *(laser)*. Hauek alde batera utziko ditugu eta jokaera paradigmatikoa dutenetara mugatuko gara.

Idatzia laburtzeko sortu diren laburtzapenen artean, **laburdurak** eta **sinboloak** bereizi ohi dira. Honelako laburtzapenen kasuan, idazkera laburtua erabiltzen denean ere, irakurri, jatorrian dagoen izena edo izen-sintagma irakurri ohi da. Bi ezaugarri azpimarratuko ditugu bi laburtzapen-mota hauek bereizteko:

a) Laburdurek puntua eraman ohi dute; sinboloek berriz, ez dute punturik eramaten.

b) Sinboloak batez ere zientzian erabiltzen dira eta nazioarteko eta herrialdeetako erakundeek erabakitzen dituzte. Laburdurak berriz, hizkuntza bakoitzean ezberdinak izan ohi dira eta zenbaitek erabilera zabala badute ere, idazle bakoitzak asmatzeko aukera ere badu.

Laburdurak dira *or., zk., e.a.* eta *ik.* bezalakoak. Elementu kimikoak adierazten dituztenak (*Ca* = kaltzio, *Fe* = burdina, *Pb* = berun,...) eta Nazioarteko Sistemaren unitateak adierazten dituztenak (m = metro, cal = kaloria, ° C = Celsius gradu,...) ordea, sinboloak dira.

Azken hiru laburtzapen-mota hauetan, hau da, sigla, laburdura eta sinboloetan sortzen zaizkigu deklinabidearen arazo nagusiak:

1. Laburtzapenaren itxuraren arabera, beharrezkoa izan daiteke laburtzapen beraren eta deklinabide-atzizkiaren arteko muga tipografiko bat, marratxo bat alegia.

2. Laburtzapena izen arruntzat ala izen propiotzat jotzen ote den jakin behar da. Izen arruntzat hartzen diren laburtzapenen kasuan, absolutiboko mugatu

singularrean laburtzapenari *-a* mugatzailea gaineratu behar ote zaion ere erabaki behar da.

3. Azkenik, laburtzapen bakoitzak ahozko izaera ba ote duen ala izaera grafikoa baino ez ote duen jakin behar da. Izan ere, deklinabide-atzizkia, irakurtzen denari lotu behar zaio eta zenbait kasutan —e— edo —r— epentetikoen beharra eta antzeko auziak benetan ebakitzen denaren azpian egongo dira.

1. LABURTZAPENAREN ETA DEKLINABIDE-MARKAREN ARTEKO MUGA TIPOGRAFIKOA

Bi ezaugarriri begiratu behar litzaieke, laburtzapenaren eta deklinabide-atzizkiaren artean marratxorik jarri behar ote den erabakitzeko.

a) Ba al dago laburtzapenaren bukaera adierazten duen muga tipografikorik?

b) Laburtzapena idatzita dagoen bezala irakurri behar da ala bestelako irakurketa bat egin behar da?

Muga tipografiko garbiak dira puntua eta letra larri/letra xehe delako bereizketa. Hortaz, ez da marratxorik behar putua daramaten laburdurekin eta ez siglekin ere: *or.etako, HABEri.* Salbuespen dira, alde batetik, punturik gabe idatzi ohi diren laburdurak, Bibliako liburukiak adibidez (*Ex-an* /Exodoan/) eta bestetik, k letrazko bukaera duten siglak, k letraz hasten den deklinabide-marka bat hartzen dutenean eta letra larriez idatziriko testu batean dauden siglak: *AEK-k , ASK-ko,* "HIES-AK KUTSATURIKO ODOLA AURKITU DUTE X ERITETXEAN". Izan ere, honelako kasuetan ez dago letra larri/ letra xehe bereizketa garbirik.

Sinboloak berriz, punturik gabe idatzi ohi dira eta letra xeheko bukaera izaten dute askotan. Hortaz, marratxoa behar da deklinabide-atzizkiaren eta ikurraren artean. Batzuetan zenbakiak eta bestelako zeinuak ere azal daitezke sinboloekin batera. Kasu honetan ere, gomendagarria da marratxoa *(CO_2-aren).* Izan ere, zenbakiak edo zeinuak ez dira beti laburtzapenaren bukaeran azaltzen eta beraz, ez dira oso baliagarriak muga tipografiko modura. Gainera, interesgarria da deskodifikatu behar den ikurra (1) eta dagoen bezala irakurri behar den deklinabide-atzizkia ongi bereizita uztea: *100 m^2-ko etxea = /eun metro karratu-ko etxea/*

Sinbolo batzuk letra larri batez edo letra larrien multzo batez osoturik daude. Kasu hauetan ere, komenigarria da marratxoa, izaera grafikoa baino ez duen sinboloa eta ahozko izaera ere baduen deklinabide-atzizkia bereizteko: *HE-aren* = hego-ekialdearen, *A-rekin* = Adeninarekin.

(1) *Ikurra* berba adierarik zabalenean erabiltzen ari gara, bertan mota guztietako ikur bidezko adierazpen idatziak sartuko liratekeelarik: nazioarteko eta herrialdeetako erakundeek erabakitzen dituzten eta letraz eraturik dauden *sinboloak* (m, Km, Fe,...), zenbakiak eta +, -, & edo @ bezalako *zeinuak* publizitatean erabiltzen diren eta grafia artistiko berezia daramaten *monogramak* eta beste hainbat motatakoak.

Zeinu berezia da euskarazko ordinaletan *garren* bukaera adierazteko erabiltzen den puntua. Ordinalen puntu horren atzean ez da marratxorik jarri behar zuzenean lotuta baitoakio atzean dagoen deklinabide-atzizkiari: *2.aren* (ik. Euskaltzaindiaren Gomendioak eta Erabakiak). Ez dago puntu hau eta laburdurena nahasteko arriskurik, azkeneko hori beti baitoa hizkiekin eta ordinalena beti zenbakiekin.

Laburbilduz, puntua daramaten laburtzapenetan egoki dirudi deklinabide-atzizkia marratxorik gabe lotzeak *(or.etako)*. Punturik gabe eta letra xeheaz, zenbakiez edo zeinuez bukatzen diren laburtzapenetan, egokiago dirudi deklinabide-atzizkia marraz bereizita idazteak *(8 cm-ko, 4 km²-ko, CO_2-aren)*. Komenigarri dirudi letra larri batez edo batzuez osoturiko sinboloak ere deklinabide-atzizkitik marratxo batez banatzeak, dagoen bezala irakurri behar den atzizkia eta irakurketa berezia eskatzen duen sinboloa bereizita uzteko.

Azkenik, siglak marratxorik gabe lotu ohi zaizkio deklinabide atzizkiari *(UZEIri)*; salbuespena *k* letraz bukatzen diren siglak *k* letraz hasten den deklinabide-atzizki bati lotzen zaizkionean azaltzen da. Kasu honetan gomendagarria litzateke marratxoa *(AEK-k)*. Modu berean, marratxoa behar da siglak dituen testu osoa letra larriaz idatzita dagoenean, egunkarien titularretan adibidez.

2. MUGATZAILEAREN ARAZOA

2.1. Mugatzaile ageriaren erabilera

Izen arruntzat jotzen diren laburtzapenei izen-sintagma mugatu absolutibo baten testuinguruan daudenean, mugatzailea gaineratu behar al zaie? Honelako testuinguruak, zenbait laburdura, sinbolo zein siglarekin batera gerta daitezke:

Azken or.a interesgarriena da/ Azken or. interesgarriena da.

Cl-a behar da erreakzio honetan / Cl behar da erreakzio honetan.

Lehen Km-a erabakitzailea izan da/ Lehen Km erabakitzailea izan da.

HIESa hedatuz doa / HIES hedatuz doa.

Ekonomiaren aldetik interesgarriago dirudi mugatzailerik gabeko aukerak eta izan ere, hori da gaiari buruzko lanek deskribatu duten joera nagusia. Baina mugatzaile ageriaren aukerak ere baditu aldeko arrazoiak.

(i) Laburtzapen hauek testuinguru mugatu zein mugagabeetan azal daitezkeenez, testuinguru horiek ongi bereizita utz ditzakegu mugatzailea erabiliz.

Parkeak 15.000 km² dauzka.
Parkearen 15.000 km²-ak zoragarriak dira.

(ii) Testuinguru mugatuetan, mugatzaile ageririk jartzen ez bada ere, irakurleak laburtzapenarekin batera mugatzailea ahoskatu behar duela jakin behar du. Irakurlearen lana zaildu egiten da, hedatuz doan mugatzailerik gabeko sintagma mugatuen erabileraren arriskua handituz.

Cl-a gaineratu diogu disoluzioari esaldia honela irakurriko dugu halabeharrez: /Kloroa gaineratu diogu disoluzioari/. Cl gaineratu diogu erreakzioari idazten badugu ordea, norbaitek beste modu honetara irakurtzeko arriskua dugu: */Kloro gaineratu diogu disoluzioari/.* Eta areago, hizkuntza naturala erabiltzean ere, *ur gaineratu behar zaio* eta antzekoak esatera eta idaztera ere pasa gaitezke erraz. Hortaz, egoki dirudi mugatzailea idazteak, sintagma mugatu eta mugagabeak bereiztearren.

Puntua daramaten laburduren kasua, berezia da. Hasteko, oso kasu gutxitan deklinatzen dira eta bigarrenik, puntuak hitza idazten ari garenean eten bat egin dugula adierazten du. Hortaz, puntuan etenaren ostean dagoen mugatzailea ere sarturik dagoela uler dezakegu. Absolutibo plurala adierazi nahi denean ordea, marka ageria lagungarri gerta dakioke irakurleari; orduan, pluralaren markaz gain, mugatzailea ere idatzi beharko litzateke.

Azken or.
2, 3, eta 4 or. / 2,3 eta 4 or.ak.

Laburdurari edozein deklinabide-atzizki mugatu gaineratzen zaionean, mugatzailea ere idatzi beharko litzateke: *8.zk.* idatzi eta /zortzigarren zenbakia/ irakurriko litzateke baina *8.zk.an* (eta ez *8.zk.n*) eta *8* eta *9 zk.ak* (ez *8 eta 9 zk.k*) idatziko ditugu.

> Laburbilduz, mugatzailea ahoskatu behar denean, interesgarri dirudi mugatzaile hori idazteak *(Cl-a, HIESa)*, sintagma mugatu eta mugagabeak berizteko. Salbuespen lirateke puntua daramaten laburdurak , puntuaren barruan mugatzailea ere sarturik dagoela uler baitaiteke. Puntua daramaten laburdura horiei, mugatu modura deklinatzen direnean, mugatzaile ageria jarri behar litzaieke hori deklinabide-markarekin baitoa eta ez ezabatu den hitz-zatiarekin.

2.2. *A* organikoaren arazoa

A organikoa duten hitzetan, mugatzailea eta hitzaren bukaerako a hori bat egiten dira a bakarra emateko. Laburtzapenetan ordea, korapilatsuagoa da bukae-

ra honen arazoa. Ahoskatzen denari begiratu behar zaio a organikoak non dauden ikusteko.

Adibidez, *DNA* siglak /de-ene-a/ ebakitzen dira eta beraz, a organikoa dutela esan daiteke.

Baina *e.a.* edo *Na* bezalako laburtzapenen bukaera tipografikoa a izanda ere, ez dute a organikorik laburtzapen horiek hurrenez hurren /etabar/ eta /sodio/ ahoskatzen baitira.

Aitzitik, *IS* edo *Fe* idazten dugunean, hurrenez hurren /izensintagma/ eta /burdina/ ebakerak ditugu eta beraz, laburtzapen horien bukaera tipografikoa a ez bada ere, *a* organikoa dutelakoan jokatu behar dugu deklinatzeko orduan.

Hori guztia ikusita, bi kasu bereizi behar dira *a* organiko horien artean, *a* organikoak idatzizko eta ahozko existentzia duenean mantendu egiten baita deklinabide-atzizkia edozein izanda ere eta aitzitik, ahoskeran baino existitzen ez diren *a* organikoak, desagertu egiten baitira e letraz hasten diren deklinabide-atzizkiekin adibidez.

Ugaztunen DNAetan.
Hasierako ISetan.

IS edo *Fe* bezalako laburtzapenetan a sarturik dagoela onartzen badugu, *ISetan* /izensintagmaetan/ irakurri beharko genuke. Egokiago dirudi beraz, laburtzapena deklinatzeko orduan a organikoak ahozko eta idatzizko existentzia dueneko kasua eta ahozko existentzia baino ez dueneko kasua bereizteak. Bigarren kasuan mugatzailea idatzi beharko litzateke.

Laburtzapenetan, beraz, irakurtzeko moldeari begiratu behar zaio *a* organikoak non dauden jakiteko.

A organikoa daraman ebakera duten laburtzapenei ez litzaieke mugatzailerik gaineratu behar a hori maila idatzian azaltzen baldin bada *(DNA)*. Baina *a* hori ahoskeran baino existitzen ez denean *(Fe, IS)*, mugatzaile ageria idatzi behar da hala behar denean.

Hona hemen zenbait adibide:

DNA ezinbestekoa da proteinen sintesirako.
(*a* organikoa tipografian eta ahoskeran azaltzen baita) baina.

Fe-a oso ugaria da eritrozitoetan.
"Atxagaren azken liburua" IS-a, mugatua da.
(*a* organikoa ahoskeran baino azaltzen ez baita) eta.

Na-a oso ugaria da honelako tokietan.
(*a* organikoa tipografian baino azaltzen ez baita).

3. LABURTZAPENEN DEKLINABIDEA

3.1. Deklinabide-atzizkiaren itxura

Laburtzapenari gaineratuko zaion deklinabide-atzizkiaren itxura erabakitzeko, izen arruntzat edo izen propiotzat hartzen ote den jakin behar da lehendabiziz. Hau ere bada laburtzapenen zerrendetan zehaztu beharreko puntu bat.

UZEIk ikastaro bereziak antolatu ditu.
(izen propioa)

HIESak eragin handia izan du geure sexu-ohituretan
(izen arrunta)

Bestetik, ahoskapenari begiratu behar zaio eta ez tipografia hutsari, batzuetan biak bat etortzen badira ere. Hurrengo hiru adibideei begiratuz, esate baterako, lehen bietan bat datoz ahoskapena eta tipografia, baina hirugarrenean, tipografiari begira kontsonantez bukaturiko izenak bezala deklinatu beharko bagenu ere, ahoskapenak bokalez bukaturiko izenak bezala deklinatzera garamatza.

EHUko /e-atxe-**u**-ko/
UNicefeko /u-ni-ze-**fe**-ko/
AEK-ko /a-e-k**a**-ko/ (eta ez AEK-eko = /a-e-ka-eko/

Laburdura eta ikurretan are nabariagoa da kontu hau:

3 eta 4 or.etan /orrialdeetan/
x, y , z e.a.en balioa /etabarren/
Na-aren pisu atomikoa /sodioaren/
π-ri /piri/
ETB 1-erako /Etebe-baterako/

3.2. Pluraltzat jotzen diren laburtzapenak

Arazo hau azpian izen-sintagma plurala duten eta letren bikoizketaz eraikitzen diren laburdura siglatuetan *(EEBB)* azaltzen da. UZEIren arabera, hauetan deklinabide plurala egokiagoa da (*EEBBetako* eta ez *EEBBko*). Edonola, UZEIren eta estilo-liburuen arabera (Ik. Egunkariaren estilo liburua eta Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak kaleraturiko *Hizkuntza zuzen erabiltzeko arau eta proposamen-bilduma*) horrelako sigletatik ihes egin beharko genuke euskaraz.

Bestetik, letrak bikoiztu gabe eratzen diren sigletan deklinabide singularra erabili ohi da, nahiz eta azpian pluraleko izen-sintagma bat egon.

Euskal Gramatikaren Lehen Urratsak → EGLUren

Laburtzapen berezia da e.a. delakoa, beti deklinatzen baita pluralean: *e.a.etako, e.a.en, e.a.ekin,...*

BIBLIOGRAFIA

ARRASATE, M. (1992): *Euskarazko albistegietarako esku-liburua.* EITB, 1992. Bilbo

EGIA, G. (1985): "Laburtzapena euskaraz". *Senez.* 3zk. 1985, abendua.

—: *Egunkariaren estilo-liburua.* Egunkaria bilbuma, 1992. Donostia.

EUSKALTZIANDIA (Euskara Batuko batzordea): "Euskaltzaindiaren Gomendioak eta Erabakiak (II)". *Euskera* 1992, 1; 1992, 2. Separata.

LOPETEGI, E. (1993): *Euskara zuzen erabiltzeko arau eta proposamen-bilduma.* Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. 1993. Gasteiz.

PALAZIO, G. (1992): *Hitz-laburtzapenak Euskal Hizkuntzan Laburkinen erabilera kazetagintzan.* Doktoretza-tesia. EHU.

UZEI (1988): *Laburtzapenen gidaliburua. Erizpideak eta zerrendak.* Elkar, 1988. Donostia.

FORMULAZIO KIMIKOA ETA EUSKAL DEKLINABIDEA

Juan Carlos Odriozola

Lantxo honetan, euskal deklinabideak formulazio kimikoan dituen oztopoez arituko naiz. Gaia, ez da inola ere berria, eta kimikari euskaldun guztiek nola edo halako miaketa egin dute arazo honen inguruan.

Berez, formulazio kimikoa ez da kimikari profesionalen edo kimika ikasten ari direnen arazo berezkoa. Gaur egun, CO_2 edo H_2O modukoen irakurketak, finkatu beharra dauka euskal komunitate osoan, eta euskarari orokortasunean dagozkion arazoak diren neurrian, Euskaltzaindiak du azken hitza. Hemen, arazoak bildu eta zentzu amankomunari zor zaizkion proposamen bakan batzuk gauzatu baino ez dut egingo.

Edukin laburreko kontua izan arren, bi sailetako egitura eman diot lanari, laburtzapenen fenomenoa, eta hizkuntza natural eta ez-naturalen arteko gatazkei era garbiagoaz eusteko asmoz.

1.saileko sarrera batean, honelakoak aztertuko ditut: 11. Formulazioaren oinarriak. 12. Formulazioak hizkuntzetan zehar hartzen dituen irakurketa naturala, hots *NaCl-a = sodio kloruroa* eta bi irakurketa letreiatuak: irakurketa letreiatu naturala, *NaCl-ari = ene-a-ze-ele-ari* eta irakurketa letreiatu soila. *NaCl = ene-a-ze-ele.* 13.- formulazioak laburtzapenen artean izan dezakeen kokapena.

2. sailean, proposamenak azalduko ditut, hemen ere hiru azpisail gauzatuz: 21. Ikurraren eta atzizkiaren arteko muga tipografikoa (marra). 21. Atzizkiaren islapen partzial edo osoa (*-a* mugatzailearen islapena). 23. Irakurketa letreiatuek sorterazten dituzten gatazkak *(Sr-rik, / ese-erre-rik, Na-a /ene-a-a,* $C_2H_2O_5$*-ean / / ze-bost-atxe-bi-o-bostean,* Be^{+2} *-ari / be-bi-positiboari...)*

1. SARRERA

1.1. Formulazioaren oinarriak

Formulazio kimikoaren oinarriak gogoratuko ditugu hasteko:

a) Substantziak elementu kimiko jakin batzuek osotuak dira. Formulazioa, nazioarteko ikur-sistema bat da elementu horiek zein diren,

eta nolabait esatearren, elementuak substantzian zein proportziotan dauden adierazteko.

b) Atomoaren ikurra.

Elementu bakoitzari, letra bat edo bi esleitu zaizkio. Letrak, elementuen hitz latinizatuko izenari dagozkio eta, jakina, ez dute halabeharrez zerikusirik hizkuntza bakoitzeko elementuaren izenarekin. Izan ere, formulazio bakarra da munduan zehar, bai eta alfabeto latinoa erabiltzen ez duten hizkuntzetan ere. Horrela, *Fe, Pb, Na* edo *Li* ikurrrak, *burdina, berun, sodio* edo *litio* irakurtzen dira euskaraz.

b) Atomoen kopurua.

Elementuak, proportzio desberdinetan azaltzen dira substantzia desberdinetan zehar. Proportzioak ere, adierazten dira formulazio kimikoan, ikur bakoitzari azpi-indize bat jarriz. Substantzia baten unitaterik txikiena den molekulan burdinaren 2 atomo eta kloroaren 3 atomo badaude, burdinaren ikurrari *2* eta kloroaren ikurrari *3* jartzen zaio: Fe_2 Cl_3. Bi elementuak proportzio berean badaude, ez da azpi-indizerik erabiltzen: *Fe Cl.*

c) Egitura

Zenbait molekula konplexutarako (bereziki molekula organikoetarako), informazio zehatzagoa eman ohi da, atomoen kopuru orokorrak desglosatuz eta atomoen arteko loturak nolabait adieraziz. Horrela, C_2 H_6 formula, CH_3 -CH_3 idatzi ohi da, hidrogeno eta karbono atomoen banakuntza agerian utziz.

1.2. **Konposatuen izendapena eta formulazioaren irakurketa**

1.2.1. *Hizkuntza naturalaren barruko irakurketa*

Jakina denez, formula bakoitza, substantzia jakin bati dagokio, eta formulak substantzia horren ezaugarriak adierazten ditu. Horretaz gain, substantzia bakoitzak izendapen jakin bat dauka. Izendapen hori, sistematikoa izanik edo izan gabe ere, formula kimikoak hizkuntza natural batean duen irakurketa da. Hots, *CaO* formula, substantzia jakin bati dagokio, eta substantzia horren izendapena, *kaltzio oxido(-a)* da. Gauzak horrela, formula bat hizkuntza natural baten sekuentzia batean txerta daiteke, substantzia baten izena era laburtuaz adierazteko. Testua irakurtzerakoan ordea, hizkuntza naturalaren izena irakurtzen da askotan, perpaus naturalak eskatzen duen morfosintaxiari moldatuz: *CaO-ak honela-*

ko ezaugarriak ditu idatzi eta *kaltzio oxidoak honelako ezaugarriak ditu* irakurriko dugu, irakurketa naturala gauzatuz.

1.2.2. *Hizkuntza naturaletik kanpoko irakurketa*

Hizkuntza naturaleko izen-sintagma ez da beti formula baten irakurketa komenigarriena, eta horrelako kasuetan, formularen irakurketa letreiatua egin ohi da, hots, *CaO* idatzi, eta *ze-a-o* irakurtzen da. Irakurketa letreiatu honek, bi itxura desberdin hartzen du. Alde batetik, irakurketa letreiatua izen arruntzat hartuz izen arrunten ohizko morfosintaxia ematen zaio: *CaO-ak* idatzi eta *ze-a- -oak* irakurtzen da. Hau irakurketa letreiatu naturala dela esan liteke. Beste alde batetik, irakurketa letreiatu soila gauza daiteke sintaxi naturaletik kanpo, *CaO* idatzi eta *ze-a-o* irakurriz.

Irakurketa letreiatu naturala edo soila egiteko arrazoiak, hurrengoak dira.

1) Izen naturalaren eza

Ez gara hemen sartuko konposatuen izendapenak kimikaren munduan dituen gorabeheretan, baina azpimarratu beharrekoa da gutxienez zenbait kasutan formulek ez dutela izen-sintagma naturaleko irakurketa zuzenik jasotzen; irakurleak, alegia, ez dauka formula horretarako izen ezagunik. Bestela esanda, CH_3 -CH_3 ikusita, *etano* irakurriko du zenbait irakurlek, baina jakina, formula horrek berez ez darama izen naturalaren informazioa, eta irakurlearen jakinduriaren arabera, irakurketa natural delako hori ezinezko gerta daiteke beste zenbaitetan.

2) Informazio zehatzagoa emateko beharra

Adibide berberari eutsiz baina gauzak alderantzizko bidean ulertuz, *etano* esanda, ez dugu molekularen ezaugarririk ematen, eta batzuetan formula bera irakurtzea egokiagoa gerta daiteke informazio osotuagoa emateko unean.

3) Erreakzioen adierazpenak irakurtzeko beharra

Erreakzioen irakurketetan, batez ere molekulen estekiometria (proportzioak) adierazi ahal izateko, komenigarria edo halabeharrezkoa gerta

daiteke hizkuntza naturaletik kanpo dagoen irakurketa letreiatu soila, formulazio matematiko eta fisikoen antzekoa. Hots, $H_2SO_4 + 2NaOH \rightarrow \rightarrow Na_2SO_4 + 2H_2O$ formula, *atxe-bi-ese-o-lau gehi bi ene-a-o-atxe berdin ene-a-bi-ese-o-lau gehi bi atxe-bi-o.*

4) Eguneroko hizkuntzan erabiltzeko beharra

Lagunarteko edo familiarteko hizkuntz mailetan, oso substantzia ezagunez ari garelarik, litekeena da substantzia bakun bati irakurketa letreiatu naturala ematea: *Atmosferako ze-o-bi-aren (CO_2-aren) portzentaia, landareek ekoizturiko o-bi-a (O_2-a), pe-be-rik (Pb-rik) gabeko gasolina...*

1.3. **Formulazio kimikoa, laburtzapen berezia**

Hasteko, UZEIren (1988) eta bereziki Palazio-ren (1992) terminologiari eutsiko diogu hitz-laburtzapenen sailkapenaz aritzerakoan:

a) Ahozko existentzia duten laburtzapenak (edo bestela esanda, berdin edo antzeko eran idatzi eta ahozkatzen direnak)

— Laburketak: *zinema* delakoaren ordez, *zine* esaten (eta idazten) denean.

— Akronimoak: *telekomunikazio(ko) informatika* delakoaren ordez *telematika* esaten (eta idazten) denean (1).

— Siglak: *ENN* idatzi eta *e-ene-ene* edo *Ekoizkin Nazional Neto* irakurtzen denean.

b) Ahozko existentziarik ez daukatenak, hau da, ahoskatzen dena era laburtuaz islatzeko idazten direnak:

— Laburdurak: *hizk.* idatzi eta (halabeharrez) *hizkuntza* irakurtzen denean.

— Laburdura siglatuak: *EEBB* idatzi eta (halabeharrez) *Estatu Batuak* irakurri

— Ikurrak (zeinuak eta sinboloak), nazioarteko erakundeek finkatuak: + idatzi eta (halabeharrez) *gehi* edo *plus* irakurtzen denean, edo *km* idatzi eta (halabeharrez) *kilometro* irakurtzen denean.

(1) Kontuan hartu beharrekoa da akronimo delako berba hizkuntzetan zehar oso kontzeptu ezberdinei egokitu zaiela. Hemen jaso duguna, guztietatik bat baizik ez da.

Formulazio kimikoa sailkapen honetan kokatzerakoan honelako zehaztasunak egin behar dira:

1. Aipaturiko irizpideen arabera, formulazio kimikoa existentzia fonikorik ez duten ikurren bidez gauzatzen dela esan dezakegu. Izan ere, ikurrak, zientzietan edo teknikan hitz bat edo sintagma bat adierazteko erabiltzen diren ikur edo letrak dira. Areago, Palaziok adierazi duenez, ikurrak nazioarteko erakunde internazionalak finkatuak dira. Bestalde, puntu ortografikorik gabe eta izen-sintagma pluralak adierazteko gainontzeko letrarik gabe idaztea gomendatu ohi da. Beraz, formulazio kimikoa ikurren adibide paradigmatikoa dela esan daiteke.

Zehazkiago, *NaCl* idatzi eta *sodio kloruroa* irakurketa naturala egiten dugunean, ikur-erabilera hutsa dugu: izen-sintagma natural bat, ahozko existentziarik ez duen idazkera laburtu batez adierazten dugu.

b) *Ene-a-ze-ele* irakurketa letreiatu soila ez da ikur-erabilera hutsa: *Sodio kloruroa* izen-sintagma naturalaren idatzizko baliabide laburtua izateko zenak, nolabaiteko izaera fonikoa hartzen du; hau ez da gertatzen + edo = moduko ikurretan.

3. Lagunarteko edo familiarteko hizkuntza mailetan (oso ezagunak diren) substantziak formulen bidez aipatzen direnean ere, hots, irakurketa letreiatu naturala egiten denean ere, ezin esan daiteke existentzia fonikorik gabeko laburtzapena dugunik. *Ze-o-bi-aren batezbestekoa* esaten dugunean, azken finean *HB-ren iritzia* moduko sigletan egiten denaren antzekoa egiten dugu. *HB* moduko siglek, batetik, sigla-erabilera daukate, hau da, existentzia fonikoa (lortu) dute eta *atxe-be* modura ahozkatzen dira, baina bestaldetik, *HB* idatzi eta *Herri Batasuna* modura irakurtzen direnean existentzia fonikorik ez dutela azpimarratu behar da. Honelakoetan, ahozkatzen denaren laburpen idatzia dugu. Fonikoa/ez-fonikoa delako bikoiztasun hau, sigla-erabileraren oinarrian dago, eta ikus daitekeenez, formulazio kimikoa ere esparru honetan sartu behar da. Bestalde, gogoratu beharrekoa da laburdura siglatuek (*EEBB* idatzi eta beti *Estatu Batuak* irakurri) eta + edo = bezalako ikurrek ez dutela inolako existentzia fonikorik

4. Gainera, azpimarratu beharrekoa da formula kimikoak sigla alfanumerikoak bezalako zeozer direla (UZEI 1988, Palazio 1992). Hots, letrak eta zenbakiak dituzte, eta lehenengoei dagokien zatian irakurketa letreiatu naturala egiten bada ere, bigarrenekoei dagokien zatian irakurketa arrunt bat gauzatu behar da.

Lan honen helburua, ez da ikur-erabileren tipifikazioa, baina gainetiko begirada hau baliogarria gerta dakiguke zenbait arazo (praktiko)ren aurrean. Izan ere, lantxoaren oinarri eta helburu xumeak, formulazioak

hizkuntza natural bat den euskararen barruan gerta daitezkeen arazoei loturik daude.

2. PROPOSAMENAK

21. sailean, marraren beharra norainokoa den ikusiko dugu. 22 sailean, formulak izen arrunt modura irakurtzen direla ikusiko da, eta areago, izen arruntek daramaten *-a* mugatzailea ikurretik kanpo dagoela onartuko dugu, atzizkian islatzea proposatuko delarik. 23 sailean, arazoa atzizkiaren beraren ikuspegitik aztertuko da, beste proposamen-sail bat hiru urratsetan gauzatuz. 231 sailean, ikurrak zenbait kasutan izen arrunt naturaletatik oso urrun daudela gogoraraziko dugu. 232 sailean, irakurketa letreiatu soilean inolako mugatzailerik ez dagoela azalduko da. 233 sailean, ikurraren irakurketaren eta atzizkiaren arteko zenbait gatazkari eutsiko diogu.

2.1. Formula eta atzizkiaren arteko muga tipografikoa: marra

Esana dugunez, formula kimikoari irakurketa naturala eman dakioke: Hizkuntza naturalaren perpausetan txertatzen da, azken finean substantziaren izena laburtzeko. Honek nolabaiteko arazoak sorteraziko ditu, batez ere deklinabidea duten hizkuntzetan. Hona hemen euskarari dagokionez kontutan hartu beharreko gauzak:

1. Ikurra k adierazten duen izena eta atzizkia prosodikoki lotuta ahozkatu behar dira. Lotura prosodiko hau islatu beharrekoa da idazkeran.

2. Tipografikoki, ikurra eta atzizkia oso izaera ezberdinekoak dira. Ikurra, benetan ahozkatu behar denaren laburdura da. Areago, esana dugu hiru irakurketa desberdin izan ditzakeela: naturala, letreiatu naturala, eta letreiatu soila.

Gainera, ikurra ez da tipografikoki homogeneoa, zeren eta zenbait kasutan azpi-indizeak eta goi-indizeak behar baititugu eta letra larriak zein xeheak erabiltzen baitira ikurraren barruan.

3. Atzizkia, jakina, bere osotasunean irakurri eta letra xeheaz idatzi behar da. Beraz, garbi dago bi elementuak tipografikoki bereizi behar direla. Bestalde, larria/xehea kontrastea ez da ikurraren irakurketatik atzizkia ondo bereizteko baliogarria izango, ikurraren letra batzuk xeheak baitira.

Beraz, ikurra eta deklinabide-atzizkia ondo bereizi ahal izateko, marra erabiltzea proposa daiteke bai hizkera teknikoan, bai euskararen edozein hizkuntz mailatan, formula bat testu batean txertatu beharra gertatuz gero.

Na_2SO_4 -ak (ez Na_2SO_4 ak)

Azkenik esan beharrekoa da marrak nazioarteko formulazioan bere esangura espezifikoa duela. Izan ere, *CH_33– modukoak, metilo erradikal* sintagma naturala bezalakoen ikurrak dira.

Marra honek, deklinabideko atzizkiarena baino luzeagoa izan behar luke. Hala ere, erabilera hau hizkuntzaren eguneroko erabileratik kanpo dago nonbait.

2.2. *-A* mugatzailearen islapena

Sail honetan, oso maila ezberdinetako gogoetak egin behar dira ezinbestez.

a) Formula kimikoa, singularrez deklinatzen den izen arrunt (ez nagusi) baten laburdura da.

b) Ezaguna denez, *-a* mugatzailea ez da ageria euskal deklinabideko kasu guztietan. Areago, ageria ez den batzuetan (ikus deklinabide singularreko elatiboa, adlatiboa eta leku-genitiboa, eta pluraleko kasu guztiak) mugatzaile hori badagoela pentsa daiteke, baina beste zenbait kasutan (mugagabeko kasu guztietan) inolako mugatzailerik ez dagoela onartu behar dugu.

c) Bestelako hizkuntzetatik hartu diren izenen kasuan edo nazioartekotzat jo daitezkeen zenbait izenen kasuan, nabari samarra *-a*-horren eza. Hots, **katu beltzi esnea emango diot* pentsaezina bada ere, salatu beharrekoa da **fosforo azidori base bat gaineratzen zaio* delako erru onartezina, nolabaiteko erabilera hartuz baitoa. Dela izen nagusitzat jotzeagatik, dela oker hutsa egiteagatik, errua oso marginala da hizkuntzaren erabilera orokorrean, baina begi bistakoa da mugatzailearen erabilerak arazo-kasuistika zabal samarra izanik honelako gauzak ardura handiz aztertzekoak direla. Edozein modutan, **fosforo azidori base bat gaineratzen zaio* esaten duen euskaldunak, arazo larriak izan ditzake oso sistematizaturik ez dagoen formulazioaren deklinabide-islapen baten aurrean.

Beraz, formula kimikoei inolako atzizkirik gabeko irakurketa (natural edo letreiatua) eman eta atzizkia beti osorik (-a mugatzailea eta guzti) idatzea proposa daiteke, formulen irakurketa izen arruntei dagokiela azpimarratuz

Mg 2Cl-ari (ez Mg $_2$Cl-ri)
Mg $_2$Cl-tik

2.3. *-A* delakoaren jatorria

2.3.1. *Irakurketa naturala*

Esparru honetan gogoratu beharrekoa da zenbait elementuk euskal harrobiko izena daukatela, eta beraz euskarazko irakurketa ikur diren letretatik urrun dagoela. Bestelako hizkuntzetan, arazo bera dago, hitz latinizatuari dagokion ikurra hizkuntza erromantzezko edo ingelesezko hitzetatik desberdina denean.

Ag: zilar
Au: urre
Fe: burdina
Pb: berun
W: tungsteno

Maileguen euskarazko moldapen edo aldaerazpen fonetikoak ere ez dira ahantzi behar.

As: artseniko (ez arseniko)
Sr: estrontzio (ez estronzio)
Sb: eztainu (ez estanio)

Beraz, arauak edo gomendioak ematerakoan, formulek atzizkirik gabeko izena edo izena + izenondoa irakurketa dutela azpimarratuko da, bi zehaztasun gogoraraziz: 1) *Ag, Au, Fe, Pb edo* W moduko ikurrek *zilar, urre, burdina, berun* edo *tungsteno* izen arrunten irakurketa dute, eta 2) euskarazko irakurketa naturalek, hizkuntzaren arau morfonetikoak zaindu behar ditu.

Pb-ari: berunari (ez plomoari)
As-ak: artsenikoak (ez arsenikoak)

2.3.2. *Irakurketa letreiatu soila*

Aipatuak ditugu jadanik hizkuntza naturaletik kanpoko irakurketa letreiatu soila sorterazten duten egoerak. Egoera hauek, urrun samar daude eguneroko bizitzatik eta, Euskaltzaindiak egin ditzakeen gomendioei begira gaudelarik, ez dirudi hau erreakzioen irakurbideez aritzeko lekua denik.

Utz dezagun bada esparru hau, eta beste inoiz finkatuko dugu erreakzio errazen irakurbideak, bai eta eragiketa formula matematiko/fisiko errazen irakurbideak euskal komunitate osoari zein neurritan dagozkion. Edozein kasutan gogoratu beharrekoa da honelako kasuetan irakurketa letreiatua egiten den arren, nola edo hala eraikitzen den hitzari inolako atzizkirik gaineratzen ez zaiola.

2.3.3. *Hizkuntza naturalaren barruko irakurketa letreiatua*

Esana dugunez, Palaziok (1992) deskribaturiko irakurketa letreiatu naturala, egingarria da formula kimikoen irakurketan. Berez, aipatuak ditugun CO_2 edo H_2O moduko adibide erraz eta ezagunak izan daitezke hain zuzen euskal komunitateari orokortasunean interesa dakizkiokeen adibideak, eta beraiek izan daitezke Euskaltzaindiak aholkuak edo arauak emateko gaiak.

Euskal komunitatearen hizkera estandarrean maiztasun altuz edo baxuz erabiltzekoak izanik ere, funtsezko diren zenbait punturen inguruan, badago zeresanik, zeren eta gerta baitaiteke ikur hauei ematen zaien izen-sintagma naturaletako edo letreiatuetako irakurketak eta ikur idatziak berak bukaera desberdinak izatea.

a) Ahozkapena eta idazkera.

Bien artean, lehenengoari eman behar zaio lehentasuna: Azken finean idazkera laburtzapen bat da eta ez dauka hizkuntza natural mintzatuan inolako existentzia errealik. *Sr* ikurra, estrontzioari dagokio, eta *estrontzio* izenak, adibidez, *-r-* epentetikoa hartzen du partitibo kasuarekin batera. Ikurraren irakurketa letreiatuak ere, hots *ese-erre* irakurketak ere, *-r-* hartzen du. *Sr* ikur idatziak berez kontsonante epentetikorik behar ez duela pentsa daiteke, baina kontutan hartu behar da *Sr-ik* idatzia ez legokiokeela hizkuntzaren inolako adierazpideari. Horrela, *Sr-rik* (ez *Sr-ik*), *estrontziorik, ese-erre-rik.*

b) *-A* bikoitza

Arazo hau gainditzeko, berriro eutsiko diogu ikur-izaeraren ulerkuntza zehatzari. Ikurren irakurketa letreiatuan, *-a* bokaleko bukaerak

gerta daitezke: *FeCa* aleazioaren formulari datiboa gaineratu nahi izanez gero, *-a* bikoitzaren oztopo fonikoa izango dugu. Kasu honetan ere, hobe bide da salbuespenik ez egitea eta *Fe Ca-ari* idatzi eta *efe-e-ze-a-ari* irakurri. Izan ere, *aa* horiek ez dira arrotzak [h] fonemarik ez duen (Hegoaldeko) euskara estandarrean *(ahapeka, ahantzi)*, eta bestalde, ez bide da zilegi morfosintaxian gertatzen den *-a + -a = -a* hemen errepikatzea.

c) *-A* organikoa

Litekeena da ikurraren irakurketa, hau da, substantziaren izendapena *-a* bukaerakoa izatea. Honelako kasuetan, bi aukera ditugu. Arau orokorrari eutsiz, *-a* organikoa ikurraren barruan dagoela onartu eta *-a + -a = -a* estandarrari jarraituz atzizkian *-a*-rik ez jarri: *Fe*-k idatzi eta *burdinak* irakurri. Honek, bi oztopo ditu.

Batetik, irakurleak jakin egin behar du irakurketa naturala *-a* organikoduna dela. *Burdina* hitza *-a* organikoduna dela ez baleki, irakurketa natural ona egingo luke, baina idazleak mugatzailea ez islatzea erabaki duela pentsatuko luke eta hurrengoan, *Cl-k* idatz lezake, *kloroak* edo *zeele-ak* irakurketa emateko asmotan. Gauzak horrela, araua mantentzea arauaren beraren aurka gerta daitekeela dirudi kasu honetan. Areago, *Fe-k* idazkera, soilik irakurketa naturalari dagokio, zeren eta irakurketa letreiatu naturala, *efe-ak* litzateke, eta hau ez legoke inola ere ados *Fe-k* idazkerarekin. Horrela ba, ez dirudi irakurketa naturalean *-a* organikoa egon arren atzizkitik *-a* kentzea komeni denik.

Idazkerarako bigarren aukeran bada, *Fe-ak* izango genuke. Honelakoan, irakurketa naturala segurtaturik dago (ez bailuke inolako euskaldunek *burdinaak* irakurriko), eta irakurketa letreiatu egokiaren aukera ere badago. Beraz, *Fe-ak* (eta ez *Fe-k*), *burdinak, efe-ak.*

d) Irakurketa desglosatua

Ez da hau konposatu organikoen formulazioaz sakontzeko lekua, baina edozein modutan, gogoratu beharrekoa da honelako formulak ematerakoan nolabaiteko formula desglosatuak maiztasun handiz gertatzen direla: CH_3-CH_2OH (eta ez C_2H_6O). Honelakoek, irakurketa letreiatu bera daukate, desglosearen unitateak elkarren segidan jarriz: *ze-atxe-hiru-ze-atxe-bi-o-atxe.*

e) Zenbakien irakurketa.

Formulazio kimikoan, azpi-indizeak erabiltzen dira. Azken elementuaren ikurrak azpi-indizea eramanez gero, zenbakia ren irakurketa izango da atzizkia hartzen duena, baina kontua, dirudiena baino apur batez korrapilotsuagoa da. $C_5H_2O_5$ + *inesiboa* egin nahi izanez gero, *ze--bost-atxe-bi-o-bostean* irakurriko da, baina idazkera, $C_5H_2O_5$-ean dugu (ez

$C_5H_2O_5$-an). Bestela esanda, -e-- epentetikoa behar duena ez da *o* irakurketa, *bost* irakurketa baizik. Hemen ere, funtsezkoa gerta daiteke ikurraren erabilera zehaztasunez ulertzea.

Zenbakien irakurketaren kasu berezi bat, ioiena dugu. Substantziak adierazten dituzten formulez gain, elementu soilak diren ioiak edo elementu bat baino gehiago duten ioiak adieraz daitezke. Beraz, lan honetan aipaturiko beste arazo guztiez gain, kargen adierazpena hartu behar da kontutan. Izan ere, karga honelaxe adierazten da: goi-indize modura eta **zenbakia + *positibo edo negatibo* adierazten duen (+/-) ikurra**. Goi-indize hau, berez, hizkuntza naturaleko izen-sintagma mugagabea da baina irakurketa letreiatuaren bukaeran parte hartzean, ez du izen-sintagma arrunt modura jokatzen. Horrela, Be^{+2} *-ari* idatzi eta *be-e-bi positiboari* irakurri beharko da nonbait, *positibo* edo *negatibo* izenondoek mugatu singularreko atzizkia hartu behar dutela dirudielarik. Izan ere, deklinabideko atzizkia ez dagokio zenbakiari, ikur baten irakurketa letreiatu mugatuari baizik.

Beraz, atzizkia idazterakoan, idazten dena ahozkatzen den guztiaren islapena edo islapen laburtua dela gogoratzea gomendatu behar da. Kontuak hurrengo kasuetan dauka garrantzi berezia: 1) *Sr-rik* (ez *Sr-ik*) idatzi eta *estrontziorik* irakurri behar da. 2) Ikurrak *-a* organikodun irakurketa naturala izanez gero ere, atzizkiak *-a* hartu behar du arau orokorraren salbuespen modura: *Fe-ak (burdina, efe-e-ak).* 3) Bukaerako azpi-indizeen kasuan, $C_5H_2O_5$-ean (ez $C_5H_2O_5$-an) idatzi eta *ze- bost-atxe-bi-o-bost-ean* irakurri behar da. 3) bukaerako goi-indizeen kasuan, *Be +2 -ari (ez* Be^{+2}*-ri)* idatzi, eta *be-bi-positiboari* irakurri behar da.

3. PROPOSAMENEN LABURPENA ETA ADIBIDEAK

Bukatzeko, lantxo honetan azaldu ditudan proposamen guztiak, honelako ereduzko adibideetan labur daitezke:

Na_2SO_4-ak (ez Na_2SO_4 ak)
Mg_2Cl-ari (ez Mg_2Cl-ri)
Ag: zilar
Au: urre
Fe: burdina
Pb: beruna
W: tungsteno

As: artseniko (ez arseniko)
Sr: estrontzio (ez estronzio)
Sb: eztainu (ez estanio)
Sr-rik (ez Sr-ik) idatzi eta estrontziorik irakurri
Fe-ak: burdina, efe-e-ak (ez Fe-k)
$C_2H_2O_5$-ean (ez $C_2H_2O_5$-an) idatzi eta ze-bost-atxe-bi-o-bostean irakurri
Be^{+2}-ari (ez Be^{+2}-ri) idatzi, eta be-bi-positiboari irakurri

BIBLIOGRAFIA

(lanean aipatuak eta gaiari buruz irakur daitezkeen gainontzeko batzuk)

EGUNKARIA (1992): *Estilo-liburua.* Donostia.

EITB (1992): *Euskarazko Albestegietarako esku-liburua.* Grupo Industrial de Artes Gráficas.

ENSUNZA, M. (1983): *Alfabetatze teknikoa: zenbakiak /unitateak / irakurke- ta /eragiketak / esamoldeak.* UEU. 1987.

ETXEBARRIA, J. R. (1982): "Siglen erabilera". *Anaitasuna,* 418: 36.

EL PAIS (1977): *Libro de estilo.* Ediciones El País. Madrid, 1990.

IUPAC (1969): *Kantitate eta unitate kimiko-fisikoetarako ikurren eta terminologiaren eskuliburua.* Udako Euskal Unibertsitatea. Iruñea, 1985.

LOPETEGI, E. (1993): *Hizkuntza zuzen erabiltzeko arau eta proposamen-bilduma.* Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Gasteiz.

PALAZIO, Gorka (1992): *Hitz-laburtzapenak euskal hizkuntzan. Laburkinen erabilera kazetagintzan. Laburkindegi orokorra (siglak, akronimoak, laburdurak eta ikurrak).* Tesi doktorala. Euskal Herriko Unibertsitatea.

UZEI (1980): *Kimika hiztegia.* Donostia. Elkar.

UZEI (1988): *Laburtzapenen gidaliburua (siglak, ikurrrak eta laburdurak).* Donostia. Elkar.

EUSKALTZAINDIAREN GOMENDIO-ARAUEN IDAZKERAZ: LETRA LARRIEI BURUZKOAREN KASUA

Antton Elosegi Aldasoro

AURKEZPENA

Hogeita bost urte bete berriak dituen euskara batuaren araugintzan Euskaltzaindiak lortu duen onespena ez da beti behar bezala balioztatzen. Horrek besterik gabe, esango nuke, erakunde haren ekintzetan ongi kausituak hutseginak baino gehiago direla erakusten digu.

Euskara zatituak, sakabanatuak, arau bateratzaileak behar zituen, eta Euskaltzaindiak eman egin dizkio. Arauok, marmarioek eta kritikek beste itxura erakutsi badute ere, ulertu egin dira: arauak bideratzen zituzten testuek oro har, erabakizunak ahalbideratzen zuen neurrian, nahiko garbiro eta zehazki bideratu dute euren mezua. Joera ere, onerako izan da. Hitz elkartuen edo arazi-ren idazkerari buruzkoetan, esate baterako, arau berriak zaharrak baino askoz ere argiagoak eta errazagoak izan dira. Horregatik da harrigarriagoa hain berriki, 1990.ean, plazaratutako *Letra larrien erabilera euskaraz* izeneko gomendioan ikus daitekeen idazkera, barka bekit ausardia, hainbat pasartetan iluna, eta zehaztasunik gabea.

TXOSTEN HONEN MUGAK

Ohartzen naiz ez dela hau modurik egokiena ortografiazko arazo horri erantzun osoa eta betea emateko. Ene iduriz, gai horrek, inolako larritasunik gabe, oso azalekoa baita, mereziko luke batzordeño bat biltzea, letra larrien erabileraz hala gure tradiziotik nola inguruko hizkuntzetako azken joeretatik atera daitezken ikaskizun guztiak kontuan hartuz arau oso samarrak eta landuak proposa litzan. Hortaz, har bedi nire txosten xume hau, bai begirunez egindako kritika moduan, eta bai gaia lantzeko proposamen apal gisan, ez, inondik ere, bere hartan onartua eta plazaratua izateko pretentsioa duen ezer bezala. Txosten honexen mugapenak batetik, eta kritikatzen dudan testuaren ereduaren neurriak bestetik, oso testu labur eta trinkoa aurkeztera behartzen naute.

Carles Duarte (1993) kataluniarrari jarraiki, honako ezaugarriz jantzita beharko luke arau-testu on batek, besteak beste: edukinaren ordenamendu zorrotza, kontzeptu eta hitzen hierarkizazioa ongi landua, zehatza eta doia, matizatua, eta mezu hartzailearentzat, argia, ulerterraza, gardena.

Esan bezala, ez dira horiek kritikatzen dudan testuaren tasunak. Ondoren, nire ustez oker daudenak nolabait sailkatuz, ondoko akatsak egotziko nizkioke aipatu gomendioaren idazkerari:

1. **Arauen antolamenduaz**

Artikulu gutxi batzutan bildu nahi denean gai bati buruzko araudi osoa, arreta handia ipini behar zaie Carles Duarteren aholku haiei: antolamendu iherarkikoa, generikotik espezifikora, eta hitzen zehaztasuna, bereiziki.

Euskaltzaindiaren testu laburrean ez dira falta beharrik gabe errepikatutako puntuak, esate baterako: *egoitza ofizial* izateak ez du zerikusirik etxe baten izen propioari maiuskula ipini ala ez erabakitzerakoan. *Araartekoari* buruzko salbuespena soberan dago, pertsona bakarreko instituzio bereiziekin batera sar baitaiteke: Errege(a) eta Aita Sainduarekin batera.

Erakunde pribatu nahiz publikoen izenekin (2.1.) bezalako formulazio generikoa egin ondoren, *alderdi politiko eta sindikatuei* beste puntu desberdina (2.2.), eta bestea oraindik (2.3) *instituzioei* eskaintzea ez da batere logikoa, edozeinen ulermenetan erakunde pribatu edo publiko baitira. Horiek denak, eta beste batzuk ere, adibide gisa jartzea askoz zentzuzkoagoa izango litzateke.

Zenbaki bera, 5. daramaten bi arau ipintzeari ez diot arrazoirik somatzen.

KONTRAESANAK

Letra larriei buruzko testu horretako bi ataletan, kontraesanean sartzen diren arauak ere aurki daitezke:

Baigorriko bizkondearen kasuan bezala, tituluak letra xehearekin idatzi behar badira, Erregeren *familia osoari* ezingo zaie arau diferentea ezarri. Ala maiuskula ipini beharko diogu Bartzelonako kondeari Errege(a)ren aita izateagatik?

Kontraesan garrantzitsuagoa dugu 14. puntuko *erakundeetan sortzen diren batzordeen izen ofizialetako* izen generikoa, *(batzordea)* letra xehearekin idatzi behar badugu, 2. eta 13. puntuetako adibideetan erakunde-organoen izenak maiuskularekin direla esan zaigularik. Ia ezinezkoa izango litzateke asmatzea sintagmako elementu nagusi guztiak (*Zuzendaritza batzordea*) ala lehenengoak bakarrik (*Gramatika batzordea*) jantzi behar den letra larriz.

HUTSUNEAK

Esanahi zehatzegiko hitzak erabiliz gero, hainbat kasu arautik kanpo geratzen denez, badirudi aurkako arauari jarraitu beharko litzaiokeela. Horrelakoak maiztxo gertatzen dira testu osoan. Zer arrazoi dago, esate baterako, 4. puntuan "erlijio jaiak" eta ez besteak arautzeko ? Horrela, "Jai eta egun handien izenetan" idatzi izan balitz, puntu bakar batean jasoko zitezkeen 4. eta 5. (bis) puntuetakoak.

2. Zenbait hitz gaizki, zehaztasunik gabe, edo bi esanahi desberdinekin erabiltzen dira

Esate baterako sarreran eta 17. puntuan testuinguru hitza erabiltzen da, bere esanahia bortxatuz: *kasuak edo egokierak* esan beharko litzatekeen tokian.

11. puntuan erreferentzia (?) kardinaletan, izenondo direnean letra xeheaz idazten direla esaten zaigu, eta adibide bezala « Baionako Iparraldetik», inongo izenondorik agertzen ez dela, izenak baizik.

Ez da ondo ulertzen zergatik sartzen diren *Estatuaren Botereen* artean *Liburuaren Zuzendaritza Nagusia, Defentsako Ministerioa* (nahiz eta boteretsua den) edo *Euskara Zerbitzua.*

NIRE PROPOSAMENA

Edukinari buruzko ohar bat

Alde batera utzirik ondoko lerroetako pasarte batzutan Euskaltzaindiaren gomendioan ez bezala arautzen diren xehetasun txiki batzuk, bada puntu bat nire uste apalean oinarririk ez duena euskal tradizio idatzian, eta zuzentzea proposatzen dudana. 15.ari buruz ari naiz: *Liburuen*

izenburuetan hitz nagusiak beti letra larriekin jarriko dira. Nik neuk, gainetik bada ere aztertu dudan neurrian, euskal liburuen izenburuetan, lehen hitzaren lehen letra izan da letra larriz idatzi dena. Gainerako hitzek arau orokorrari jarraitu izan diote. Gure ereduari muzin egin eta anglosaxoiari heltzea erabateko aldaketa izango litzakete; horrela erabakitzekotan, nire ustez, gehiago zehaztu beharko litzakete: artikuluen izenburuak (?), filmeenak (?), antzerki-obrenak (?), kantuenak (?)... Izan ere, ingelesezko gaurko joera baita horietan guztietan hitz nagusi guztiak letra larriarekin jaztea. Letra larriei buruzko gomendio kalera zenetik, lehen aipatu dudan euskal idazlearen obedientzi-jarrera dela eta, ezin uka izugarri igon dela hitz nagusietan maiuskula idazteko joera, baina ez da inondik ere erabatekoa, ez eta ere, horrela izanda ere, arrazoi nahikoa mendeetako ohitura aldatzeko.

Proposatzen dudan testua

Ez da komeni beharrik gabe erabiltzea letra larriak. Hortaz, hemen arautzen ez diren gainerako kasuetan letra xeheak erabiltzea bidezkoagotzat jotzen da.

1.1. Letra larriarekin idatziko da izkribu bateko lehen hitza eta puntu baten ondotik datorrena ere.

1.2. Halaber, letra larriz hasiko da galde eta harridura zeinuen ondoko lehen hitza, tartean komarik ez badago, eta hiru puntuen ondokoa ere.

1.3. Bi puntuen ondoren, hitzez hitzezko aipamen zuzenetan, gutun eta antzekoen aurkezpenetan eta lerrokada berria hasten denean bakarrik.

Eta handik erraiten du Senekak: "Letra gabeko aisia, deus ez dakienaren alferkeria..."

Adiskide maitea: Bizi haiz, aspaldiko?

Zenbaiten ustez, gramatika hiru zatitan banatzen da: fonologia, sintaxia eta hiztegia.

2. **Hasierako letra larriz idazten dira ondokoen izenak**

2.1.1. Pertsonak, egiazkoak nahiz alegiazkoak, beren izen, deitura, izenorde, eta ezizenekin:

Karmele Igarabide, Peru Abarka, Joxe Okerra, Galtxagorri

Altzoko Erraldoia, Errege Katolikoak.

Gauza bera erlijioetako nahiz mitologietako jainko, pertsonaia eta sainduen izenetan eta pertsonifikatutako izakietan.

Iondone Petiri, Santo Tomas, Jehova, Jupiter, Ni-a.

2.1.2. Izaera bakarreko kargu eta duintasunak, ondoan izen propiorik ez daramatenean:

Errege(a), Aita Saindua, Arartekoa, Lehendakaria, baina *Isabel erregina, Joan Paulo aita saindua.*

2.1.3. Ohorezko trataerak, osorik nahiz laburtuta idatzi: *Lehendakari Jaun Txit Garaia, Andre T.P.*, (baina kargu edo duintasunaren izendapen hutsa, letra xeheaz ik. 3.2.)

2.2. Animalien izenak; ez, ordea, beren arrazenak:

Pintto, Gorri, baina *behi betroia, doberman zakurra.*

2.3. Era guztietako elkarte, edo erakunde publiko nahiz pribatuen izen bereiziak: instituzio ofizialenak, alderdi politikoenak, sindikatuenak, merkatal etxeenak, erlijio erakundeenak, enpresenak eta gainerakoenak. Gauza bera erakundeen kudeaketa-organoetan.

2.4. Ospakizun erlijioso, zibil , politiko edo bestelakoak:

*Besta Berri, Aste Saindu, Maiatzaren Bata, Aberri Eguna [*baina *sanjoanak]*

2.5. Historiako gertakari handiak, eta politikako, kiroleko, erlijioko edo kulturako bilkura edo agiri edo gertakari garrantzizkoen eta antzekoen izen bereiziak:

Bigarren Karlistada, Berta Handia, Contadorako Taldea. Frantziako Iraultza, 68ko Maiatza, 1992ko Joku Olinpikoak, Vatikanoko Kontzilioa, baina ez aroen, garaien, estiloen eta antzekoen izenetan: *pizkundea, erromantizismoa.*

2.6. Auzo, hiri, estatu, kontinente, mendi, golko, lurmutur, planeta, izar eta gainerakoetan, alegia, nortasuna duten era guztietako tokiizen berezietan:

Uztaritze, Zuberoa, Matxitxako, Pirineoak. Afrika, Hirugarren Mundua, Lurra, Martitz, Orion.

2.6.1. Letra xehea ipiniko da, ordea, toki-izenen zati generikoan,izen propio bihurtu ez denean: *Bilboko hiria, Matxitxako lurmuturra, Iguazuko ur-jauzia,* baina *Pertsiar Golkoa.*

2.6.2. Eraikin, kale, plaza eta abarren izenetan, zati espezifikoa maiuskularekin eta generikoa minuskularekin idatziko dira: *Errementari kalea, Artetxe Idazlearen karrika, Txagorritxu ospitalea,* baina zati guztiak maiuskularekin, euskara ez beste hizkuntzakoak direnean: *Buckingham Palace, Rue Rivoli, Plaza Mayor.*

2.7. Ikasgai akademikoen eta hezkuntza-zentruen izenetan: *Kimikako Lizentziatura, Kazetaritza Fakultatea,* baina *medikuntzan aurrerapen handiak egin dira.*

2.8. Lege-testuen eta arau ofizialen izenburuetan hitz nagusi guztiei letra larria ipintzen zaie: *Euskal Eskola Publikoaren Legea,* baina, Lege-Biltzarrak onarturiko legeak.

3. Oro har, letra xehea ipiniko da gainerako kasuetan, eta bereziki:

3.1. Pertsonen izenaurreko eta izendapen generikoetan: *Garmendia andrea, Etxenike irakaslea, Duvoisin kapitaina, aita Manuel, osaba Josepe, Hirigoien jn., Etxeberria an.*

3.2. Kargu, titulazio, lanbide eta lan-kategoriak: *parlamentari, ministro, zuzendari, euskaltzain, mediku, doktore, goi-mailako teknikari.*

3.3. Edozein tokitako biztanleei ematen zaien izena, letra xeheaz hasiko da: *uztariztarra, afrikarra, lurtarra, hirugarren mundutarra.*

3.4. "Lurra""eguzkia" eta "ilargia" letra xeheaz idatziko dira astronomia ez denean testuinguru: *lurrean landatu zuen, eguzkia laino artean ageri zen.*

3.5. Urtaro, hilabete eta asteko egunetan: *udaberria, maiatza, astelehena.*

3.6. Produktuen marketan, erabileran arrunt direnean: *diesel motorea, kaxemirazko zapia, errioxa ardoa.*

* * *

Ez nuke bukatu nahi ohartarazi gabe nire proposamen honetan, hamaikatxo kasu geratzen dela arautu gabe; baina gehienetan, gerta daitezkeen auziak araua hautsi gabe erabaki daitezkeelakoan nago. Nire uste apalez arau labur bati ezin dakioke gehiago eska.

Txosten honetako ideiaren bat jasotzeko modukoa irizten baduzue, gainerako ausardiak barkatuko ahal dizkidazue.

BIBLIOGRAFIA

ARARTEKO: *Idatz arauak/Normas de redacción.* Gasteiz: Ararteko, datarik gabe.

CASADO, Manuel: *El castellano actual, usos y normas* (25-25. orr.).

CATCH, Nina (1982): *Orthographe. Que sais-je?.* Presses Universitaires de France: Paris.

DUARTE, C.; ALSINA, A.; SIBINA, S. (1993): *Manuel de llenguatge admnistratiu.* Barcelona: Escola d'Administració pública de Catalunya, Barcelona, 1991: Generalitat de Catalunya, 1990.

EGIA, Gotzon eta bestek (1991): *Letra larriak eta xeheak*, Donostia: Mekanografiatua.

EGUNKARIA (1992): *Estilo liburua*, Donostia: *Euskaldunon Egunkaria.*

EL PAIS (1990): *Libro de Estilo*, Madrid: Ediciones El País.

ESNAL, P.; ZUBIMENDI (1993): *Idazkera liburua.* Eusko Jaurlaritza.

EUSKALTZAINDIA (1993): *Euskaltzaindiaren Gomendioak eta Erabakiak (1990-1993)*, Bilbo: EHUko Argitarapen Zerbitzua.

ETB (1992): *Euskarazko albistegietarako eskuliburua.* ETB.

GOMEZ TORREGO, L. (1989): *Manual de español correcto, II*, Madrid: Arco-/Libros, S.A.

HANSE, Joseph (1980): *Orthographe et grammaire: Politique nouvelle.* Paris: CILF.

LAROUSSE: *Ortografía española* (41-43. orr.).

LAROUSSE (1964): *Grammaire Larousse du français contemporain.* Paris: Librairie Larousse.

LALLIAS, Jean-Claude; DELGADO, Anne (1986): *L'Orthographie à l'heure de l'informatique.* Paris: CEDIC.

LOPTEGI, E. (1993): *Hizkuntza zuzen erabiltzeko arau eta proposamen bilduma.* Eusko Jaurlaritza.

REAL ACADEMIA ESPAÑOLA (1982): *Esbozo de una nueva gramática de la lengua española.* Madrid: Espasa-Calpe.

SOL, Ramón (1992): *Manual práctico de estilo.* Madrid: Ed. Urano.

HITZ ELKARTUEN LEHEN OSAGAIAREN BUKAERA *-a-* DELARIK *HIZKUNTZ/A* SALBUESPENAREKIN BATERA *HEZKUNTZ/A ONARTZEAREN* ALDEKO EMENDAKINA

Fito Rodríguez Bornaetxea

PROPOSAMENAREN EDUKINA

'Hizkuntz' hitzaren salbuespen ezaguna onartzeaz gain 'Hezkuntz' deritzanaren kasuan gauza bera onartu behar izatea. Beraz, kasu guztiotan trataera bateratua eduki dezaten.

1. Zer esan duen Euskaltzaindiak puntu honetaz. Noiz eta zein mailatan.

Euskaltzaindiaren Euskara Batuko batzordeak bere 1992ko separatan hitz elkartuak osatzeko proposatzen dituen irizpide nagusien ondoan (28/29. orr.) hobestutako salbuespenen berri ematen digu (30. orr.). Aipatutakoaren arabera, j akina denez, lehen osagaia eliza, **hizkuntza**, kultura, natura, edo literatura hitzek, elkartzekotan, azken a gal dezakete salbuespen gisa. Horrela Hizkuntz Politika onartzen den bitartean **hezkuntz alorra** bezalakorik erabiltzea erabat *debekatzen* da.

2. Proposamen edo erabaki horri egin zaizkion oharrak

Hizkuntza, jakina hitz oso zaharra dugu. Elkartzekotan, beraz, askotan azken a galtzearen tradizioa eduki duela ez dago dudarik. Hezkuntza, berriz goian aipatutako beste hitz horrekiko homofonia haundia duena oso hitz berria dugu. Antzinako hez(i)keta edota erdarazko 'crianza' edo 'nourriture' haiei ordezkatzeko sortua.

Hezkuntza, bada, hez(i)keta zein hizkuntzaren ondoan behintzat, hitz berri samarra denez ezin da esan a delako hura galtzeko tradizioaren argudioa erabiltzerik dagoenik. Homofonia zein Gramatikaren logika erabiliz, ostera, adierazten ari garen salbuespenak ez du logika izpirik. Areago, egunerokotasunak bultzaturik eta Irakaskuntzaren erreforma medio asko dira paper ofizialetan agertu ohi diren **hezkuntz egitasmoa, hezkuntz trataera** eta indarrean dauden gomendioen arabera behinik behin, guztiz *debekaturik* dauden abarreko hitz elkarketak. Ildo

beretik doa, honez gero, gure Euskal Herriko Unibertsitateko Hezkuntz Zientzien Fakultatea izendapen ofiziala erabiltzeko ere egun omen dugun ohitura.

3. **Txostengileak egiten duen azken proposamena**

Salbuespenak salbuespen, usadioa ari da sortzen eta lehenbaitlehen, ahal dela Gramatikaren logika medio, hizkuntzaren zein hezkuntzaren hitz elkartuen trataera bateratua eskatzeari zilegizkoa deritzogu. Beraz, **Hizkuntz gaitasuna** baldin bada hobetsia, era berean **Hezkuntz gaitasuna** onartua izan bedi. Denon erraztasunerako eta, finean, euskararen onerako ere izango da eta.

Azkenik eta gero, ene iritzia azaltzekotan, honako hau gehituko nuke azaldutakoa laburtu nahian:

'Hizkuntza' eta 'Hezkuntza' hitzak bai fonetikaz bai eta gramatikaz ere antzerako trataera izatea. Hau da, salbuespena horietariko bat baldin bada biak izan daitezen eta alderantziz izatekotan biontzat ere izan dadila.

LEIOA, 1994.10.04

HITZ ELKARTUEN OSAERA ETA IDAZKERA: GOMENDIO--ARAUAK PRESTATZEKO ERABILI DIREN IRIZPIDEAK

Mikel Zalbide

Hitz elkartuen inguruan Euskaltzaindiak emanak dituen gomendio--arauei buruzko azalpena egitera natorkizue. Batek baino gehiagok esan dit etorri aurretik: "ez zaitez hasi, mesedez, gauza aspergarriak esaten. Hitz elkartuak bata bestearen ondoren ematen, behintzat, ez hasi. Guztiok aspertuko gaituzu, bestela, eta ordu-erdirako ez duzu inor askorik entzuten izango". Arrazoi du halakok. Egia baita, izan ere, hitzak eta hitzak bata bestearen ondoren ematea ("hitz elkartu hau loturik idazten da, beste hori marrarekin eta hurrengo hura marra gabe") gauza elkorra, aspergarria dela berez. Ez nuke, hortaz, hori egin nahi; ez hori bakarrik, behintzat. Besterik merezi du, hasteko, Euskaltzaindiak bere eztei hauetan; eta beste begirunea zor zaio, ororen gainetik, bertara bildu den euskalari eta euskaltzale-jendeari.

0. SARRERAKOAK: KONTUOK NOLA DIREN

Eskuartean dugun gomendio-arauen kontu hau egungo egoera honetara nola iritsi den azaldu nahi nizueke, lehen-lehenik, ondoren esango direnak hobeto ulertzeko. Orain dela sei bat urte, Euskaltzaindiko batzorde baten barnean, hitz elkartuen azterketari ekin zitzaion. Elkarketaren kontu hau mundu zabala zela ikusten zen. Hitzak eta esanahiak, eramoldeak eta itzulikak bere baitako baliabideez eratu eta adierazteko aski emankorra gerta daitekeen alor bat dela konturatzen ginen batzordeko guztiok. Aspaldidanik (mende honetan bertan, urrutirago joan gabe, hor daude Azkuek, Lafittek, Orixek eta Villasantek egindako lanak) hainbat euskalari gailenek gogoeta eta azterlan argigarriak eginak zituen hitz-elkarketaz. Askotxo zen, ordea, oraindik azterkizun-edo zegoena. Ikusten zen, gainera, Euskaltzaindiak 1971n hitz elkartuen idazkeraz emandako arauak-edo jende gutxik ezagutzen, eta gutxiagok erabiltzen, zituela oso-osoan. Bazegoen, beraz, gaiari berriro heltzeko komenentzia, premia edo dena delakoa.

Horrela, berariazko batzorde batean hitz-elkarketa behar zen astiaz eta sakontasunez aztertzea erabaki zuen Euskaltzaindiak. Aurrelanik ere

bagenuen horretarako eginik. Batez ere bilketa-lana: XVI. mendetik 1960 ingurura arteko testuak arakatu eta ehun bat mila hitz elkartu aukeratuak, jasoak edota begiz joak genituen orduko. Ez ginen, beraz, geuk asmaturiko hitz elkartuez ari izango, euskaldunek liburuetan benetan erabilitakoez baizik. Lagin zabalegia ziren ordea ehun mila inguru hitz elkartu horiek, batzorde-lanean jarduteko. Horien erakuskari bat, hamarhamabost mila aleko erakuskari bat hartu genuen lagin osotik. Eta, erakuskari horri iturburu-balioa emanez, lanean hasi ginen. Lehenengo lana sailkapena egitea izan zen. Hitz elkartuen sailkapenak eta sailkapen-irizpideak, bai atzerri-hizkuntza handietan eta bai etxean bertan, bat baino ondotxoz gehiago dira ongi dakizuenez: XIX. mendeko lan teorikoetatik, hizkuntza indoeuropar handietarako prestatu izan diren sailkapenetatik abiaturik alegia, Uhlenbeck-ek eta bestek bere aplikazioak eginak dizkigute euskararen hitz-elkarketa, bere eramolde eta jokabideak, zehazkiro aztertzeko. Horiek kontuan izanik, baina ezinbestean horietara mugatu gabe, atzerriko aztertzaileen eskola-molde berriagoetan ere sortu diren ikuspegiak aintzakotzat hartuz, gutxi gora-behera hamazazpi ataleko sailkapen-modu bat egin genuen. Atal horiek banan-banan aztertzeari ekin genion, azkenik: hitz-elkarte mota bakoitzak zertarako balio zuen edo balio izan zezakeen aztertu genuen batetik; orain ere zer neurritan emankor zen, eta zer neurritan ez, analizatu genuen orobat; erdarazko zer adierazpide euskarara itzultzeko balio zezakeen aztertu genuen orobat; eta idazterakoan bere hitz-junturan agertzen diren hots-topa horietan aldaketarik gertatzen den ala ez ikusi eta aldaketa horiek orain ere bizirik dauden ala behinolako hots-joera batzuen arrasto fosilduak baizik ez diren arakatu genuen.

Hortik etorri zen, azkenean, hitz horiek idazterakoan nola eskribitu behar genituzkeen ikustea: bereiz, aparte idatzi behar genituzke, marraz elkarturik edo biak lotu eta bat eginik. Jende gehienak buruan gordetzen duena azken puntu hau izan ohi da batez ere. Galdetu ere, askotan, horixe galdetzen dizu: hitz elkartuak nola idatzi behar dira? Baina, egia esan behar bada, gure azterketaren xede nagusia ez da izan hitz elkartuak nola idatzi behar diren argitzen saiatzea. Hori ere bai, noski, baina hori azken puntua izan da. Aurretik etorri dira bestelako gogoetak: hitz elkartuok zertarako balio digute?; lehen ez bezalako jardun-esparruetan erabiltzeagatik adierazpide, kontzeptu, gogoeta-molde berri edo ohiz kanpokoak erabili behar baldin baditugu euskaraz, berritasun horiek adierazteko balio al digu hitz-elkarketaren bideak?; balio baldin badigu, nola erabili behar dugu elkarketa hori gauzak eroso, jendeak entendituko dituen moduan, adierazi ahal izateko?

Hori izan da beraz, sei bat urtean, batzorde-lanean egindako azterketa. Hortik etorri ere zen, 1991 inguruan, halako proposamen bat prestatu eta proposamen hori Euskaltzaindiaren izenean hainbat pertsonari

pasatzeko asmoa. Ikusten baikenuen batzorde-lanak, onuragarria eta askotan emankorra izanik ere, baduela arrisku bat. Arrisku hori, noski, badakizue zein den: ibili-ibili egin eta, azkenean, geure zilborrari begira bukatzea. Hilabeteak eta urteak lan batean pasa, alegia, eta azkenean geure buruari begira gelditu eta ez konturatzea euskaldungoak, euskara egunero bere lan-tresna arrunt gisa erabili behar duenak, zer-nolako arazoak dituen; ez antzematea batzorde batek ikus ditzakeen edo ikusten dituen kontuen gainetik bestelako eragozpenik ere ba ote dagoen. Proposamen harekin, nolabait ere, egunero euskaraz lanean (ez etxeko alorrean baina bai lanbide-esparru desberdinetan: esan dezagun erakunde-elkarteetan, komunikabideetan, irakasmunduan,...) ari diren profesionalek hitz-elkarketak direla-eta zer-nolako usteak, zer-nolako beharrak, zer-nolako irizpideak dituzten jakin nahi izan zen beraz. Eta horretarako halako galdeketa bat egin zen. Jakina, interesatu posible guztiei ezin genien galdetu: batzorde bat ginen, aldian-aldian biltzen zen batzorde bat, ez egun osoz horretara jarritako lan-taldea. Beraz ezin hasiko ginen milaka eta milaka laguni iritzia eskatzen. Baina 250-300 arteko lagun-sail bati galdera egin zitzaion.

Galdera egindakoen lagun-sail horren barnean, hasteko, euskaltzainak berak zeuden; gero hainbat elkartetan euskalgintzan ari diren pertsonak: eman dezagun argitaletxeetan euskararen orrazketa-ardura dutenak, Administrazioan ari diren itzultzaile edo bestelako teknikariak, irakasmunduan (batez ere Unibertsitatean, horiek izaten baitute hitz elkartuekin harremanik zuzenena) lanean ari diren irakasleak, komunikabideetako profesionalak,.. Horiei egin zitzaien galdera, eta esan zitzaien: "hitz elkartuak direla eta ez direla, Euskaltzaindiari horrelako proposamena egitea merezi lukeela uste dugu. Zer deritzozu zuk: egokia al da proposamena, dagoen bezala, edo aldaketak egin behar lirateke?". Galdeketa horrek, nire ustez, argitasun handia eman zigun. Erantzun, erdiak baino gehiagok erantzun zuten, eta hori bera zerbaiten adierazgarri dela iruditzen zaigu. Honelako galdeketak luze-zabalean egiten direnean, izan ere, nekez lortzen da erdiak baino gehiagok erantzuna txukun bete eta galdeketa-orria atzera bidaltzea. Kasu honetan erantzun-emaileak erdia baino ondotxoz gehiago izan ziren eta horrek berak bazuen guretzat argibide zuzenik. Galderek iritzi-emaile askoren interesa piztu zuten, inondik ere, eta erantzun gehienak oso argiak izan ziren. Hortik jakin ahal izan zen, esate baterako, hitz elkartuen idazkera-kontua ilun samar zegoela. Emandako erantzunen arabera, izan ere, Euskaltzaindiaren 1971ko arauak erantzun-emaileen erdiak inguruk ezagutzen zituen ongi, ez gehiagok; eta erabili, zeuden-zeudenean erabili, laurdenak inguruk bakarrik. Bestela esanik iritzi-emaileen hiru laurdenek ez zituzten, zehatz-mehatz behintzat, 1971ko arau horiek erabiltzen. Bazegoen beraz informazio-problema bat, desegokitasunen bat edo argitasun-eskasiaren bat.

Galdetu zitzaienean "beharrezkoa al da gai honetaz argibide zehatzagorik izatea, komeni al da Euskaltzaindiak honetaz arau berririk edo gomendiorik ematea?", erantzuna erabatekoa izan zen: ehuneko laurogeitik gora izan ziren arau edo gomendio argi-zehatzagoren bat behar-beharrezkoa edo (erabat) komenigarria zela erantzun zutenak.

Gero, jakina, proposamen konkretuetara pasatzean berehala ikusi genuen lehendik ere batzordean eztabaidatuak genituen hainbat puntu han zeudela auzigai: ez ginela ametsetan ari. Hitz elkartuen idazkera dela eta ez dela bazegoela, hasteko, *marra bai / marra ez* arazo bat, auzi bat. Diogun bidenabar arazo hori ez dela orain, azken hamar urtean-edo, sortu den auzia; aspaldidanik dator, eta gaur ere bizi-bizirik dago gure artean. Gero ikusiko dugunez, bestalde, hainbat hitz elkartutan badago adostasun zabala: honako hitz elkartu hauek edo horrako horiek bereiz idatzi behar direla esaten dugu gehien-gehienok, eta egin ere hala egiten dugu. Beste era bateko hitz elkartuetan, orobat, egia da gehiengo zabala dela elkarte-modu hori behin eta berriro marrarekin idazten duena. Badago gero elkarte-multzo handi bat, agian handiena, bere baitan bi joera ageri dituena: batzuk marraren alde agertzen dira hitz horiek idazteko orduan eta besteak marrarik gabe idaztearen alde. Bakoitzak bere arrazoiak mahai-gaineratzen ditu. Arrazoi batzuk eta besteak, gero ikusiko dugunez, kontuan hartzekoak dira. Bikoiztasun hau ez da, berriro esan, ez azken hamar urteotako kontua eta ez Arantzazutik honakoa; lehenagotik datorrena da. Eztabaida hori XX. mende osoan bizirik egon da, eta XIX. mendean ere bere zantzuak aurkitzea oso erraza da: bai iparraldean eta bai hegoaldean. Bietarako joerak izan ditugu hortaz gure artean, eta aspaldidanik erroturik daude. Erroak zein aspaldikoak diren jakiteko proba egin nahi lukeenak aski luke, esate baterako, XVII. mendera joan eta batetik Oihenarte eta bestetik Axular hartzea. Oparo eta sistematikoki zerabiltzan marrak Mauleko legegizonak, nabarmenki bakanago Sarako erretoreak.

I. ERABILPEN-EREMUA

Goazen, ordea, egungo gaiari zuzenago heltzera. Zein da hitz elkartuen erabilpen-eremua? Aski zabala, ongi dakizuenez: gure inguruko auzo-erdarena baino ondotxoz zabalagoa, nolanahi ere. Hori garrantzitsua da. Ingelesak edo alemanak, dakizuenez, menpekotasunezko izenelkarketak askoz ugariagoak dituzte frantsesak edo gaztelaniak baino. Euskara, horretan, ingelesaren eta alemanaren bidetik doa. Hala joan izan da bere jitez, bere izaeraz; bere barne-eraketaz halakoa da. *Sunflower* edo *Sonnenblume*-ri euskaldunok *eguzki-lore* deitzea, *book-seller* edo *Buchhändler*-i *liburu-saltzaile, heart-breaking* edo *herzzerreißend*-i *bihotz-*

erdiragarri, applewine edo *Apfelwein*-i *sagardo, birdcage* edo *Vogelkäfig*-i *txori-kaiola, earthquake* edo *Erdbeben*-i *lurrikara, doorkeeper (doorward)* edo *Torwart*-i *atezain* eta *cow milk* edo *Kuhmilch*-i *behi-esne* ez da kasualitate itsua. Hitzak eta hitzarteak eratzeko hiru hizkuntzok darabilten jokamolde antzekoaren (ez berberaren) ondorio da hori, lehenik eta behin. Eta jokamolde hori, neurri batean, galtzeko arriskuan dugu euskaldunok: batzuk gehiago eta beste zenbaitek gutxiago, baina guztiok gaude horren arriskuan. Hitz-erabide hori aski antzuturik duten auzo-erdaren (hots, frantses-gaztelanien) eraginez, zenbait kasutan eta inolako beharrik gabe *esne-fabrika*tik *enpresa lakteo*ra pasatzen ari garela esan daiteke. Adibide horrekin ulertzen duzue, hala espero dut behintzat, zer esan nahi dudan. Berdin litzateke noski, diodan bidenabar, kasu konkretu honetan *esne-fabrika*-ren ordez *esne-enpresa, esne-lantegi* edo antzeko beste hitz-moldaera bat aukeratu nahiago izatea: ez gara hitzaz ari, erabideaz baizik.

"Horrek ez du erremediorik. Lehengo *baratzuri-zopa* modukoetan bai, halakoetan hitz-elkarketak funtzionatu izan du; baina orain *programa elektorala* esan beharra dago, *hauteskunde-programa* modukoekin gauza gehiegi konplikatu nahi ez badugu" gogoraziko dit norbaitek. "Gauza berrietarako, *espresio moderno*-etarako, hitz elkartuek ez dute balio; oraingo beharrak asetzeko tresna egokiak baino gehiago museoko piezak dira horiek. Kontura gaitezen *red viaria* (réseau routier)-tik *sare biario*-ra pasatzeak nahikoa eta gehiegi lan sortzen duela (ez dira gutxi erdi-bidean, *sare biaria*-n, eta are *red biaria* hutsean, gelditzen direnak). Zer dela-eta hasi behar dugu orain *bide-sare* (edo, astronomo alemanen *Milchstraβe*-ri eutsiz, *esne-bide*) eskatzen?" Esan gabe doa baieztapen horiek ez ditugula osorik ontzat ematen. Duten edo izan dezaketen egi zatiaren ondoan funtsik gabekorik ere askotxo baitute beren baitan. Ikusmolde horri aurre eginez, aitzitik, argi azaltzea komeni da erabide bizia, emankorra dela hitz-elkarketa. Hainbat hitz edo hitzarte berri elkarketa bidez eratzeko euskaldun garbiak (ez, noski, hitz-motel ele-erasanak) ez duela orain ere inolako eragozpenik. Hamarretik hamarrean balio izango ez badigu ere badugu hor bide bat erdarazko hainbat *A de B*, (adib. *lista de candidatos*) edo *Ab** (adib. *concurso fotográfico*) modukoak euskara errazean esateko: *hautagai-zerrenda, argazki-lehiaketa.* Bide hori bat dator, gainera, mundu zabalean gogotik hedatu den ingelesak eta beste hainbat hizkuntzak barra-barra darabiltenarekin. Hitz-erabide hori ez da hortaz inolako gauza txiki, arrotz, bitxi. Betiko bide horretatik, ahal den neurrian, jarraitu behar genuke.

Eta ez hori bakarrik: badira hainbat adierazpen-esparru auzo-hizkuntza nagusietan (hots, frantses-gaztelanietan) edo ingeles-alemanetan baino sarriago hitz-elkarketaz eratzen direnak euskaraz. Kasu honetan

ere, auzo-erdara horien edota gainerakoen eraginez galtzen ari gara esapide edo adierazpen horiek hitz-elkarteen bidez emateko gure ohitura: *los padres, los hijos, los tíos, los...* moduko adierazpideetarako euskarak ez du normalean *aitak, semeak* (non eta alabarik tartean ez dagoen), *osabak* (denak gizonezkoak ez badira behintzat),... hitzetara jo izan. Geure eramolde propioa izan dugu horretarako, mendeetan zehar: *semealabak, aita-amak* (*gurasoak* bera ere honela eratua ote den pentsatu izan da), *izeba-osabak; porru-patatak, zeru-lurrak, ogi-ardoak, atze-aurreak, luze-zabalean,* .... modukoak ere geurekasa sortzen ditugu. Beste horrenbeste esan daiteke indargarrizko hitz-elkarteez *(zuzen-zuzenean, barru-barrutik, lasai-lasai egon, ...)*, nondik norakoez (*herriz herri, tabernarik taberna, bulegoz bulego,...* eta beste zenbaitez. Horietan ere, ahal den neurrian, ohizko eramoldea gordetzen ahalegindu behar genuke, geure adierazpide jatorra baita eta ez baitaukagu aberastasun hori ezeren izenean hondatzen utzi beharrik. Badago beraz hor ere jardun-esparru bizi bat, zaintzen eta arduraz erabiltzen saiatu behar genukeena.

Ez dugu, ordea, beste puntara joan behar. Ez dugu pentsatu behar, alegia, euskaraz edozer gauza hitz-elkarketaz eman daitekeenik. Are gutxiago hala eman behar denik. Horretan ere punta-mutur batetik bestera pasatzeko tentazioa izan ohi dugu inoiz. Tentazioa izan soilik ez: pasatu ere, batzuetan pasatzen gara. Bide okerra da hori ere, eta hala adieraztea komeni da. Motiboak, gaitzespen honetarako ere, bat baino gehiago dira. Esate baterako, hizkuntzak badituela bere arauak, eta horien arabera zenbait eramoldetan debeku dela hitz-elkarketa erabiltzea. Izen propioekin, adibidez, ezin euskararen jitea bortxatu gabe aspaldidanik *Jesusen Konpainia* esan izan dena orain *Jesus Konpainia* bihur dezakegu. Hori ez da, gugana bizirik heldu den euskarari dagokionean behintzat, izen propiozko hitzarteak eratzeko bidea. Era berean, *Garaziko herria, Pasaiako herri*tik,... eredu zaharra alde batera utziaz *Irun hiria, Donostia hiri*a... moduan jarduteko sortzen ari zaigun ohiturak zalantza ugari sortzen du. Argi jakin behar dugu, hortaz, zilegi-debekuen arteko mugak non diren; ezin gaitezke, berriro esan, hitz-elkarketa gure-gurea dugula-eta horren izenean punta batetik bestera pasa. Zilegi-debekuen muga estua baino sarriago, halere, komeni denaren eta ez denaren arteko bide-banatze lausoa aurkitu ohi dugu praktikan. Hainbat kasutan, horrela, errazagoa da izen-sintagma eratzeko hizkuntzak bizirik dituen baliabide morfologiko arruntetara jotzea hitz-elkarketan jardutea baino. Adibide xoil bati helduz, egia da hizkuntza gehiegi bihurritu gabe esan litekeela *unibertsitate-soldatak.* Baina kasu gehienetan *unibertsitateko soldatak* esatea errazago eta gozoago gertatuko da. Era berean, Gamarran eratu den industrialdeari hobe izango da seguru asko *Gamarrako industrialdea* deitzea, bide-seinaleetan eta nonahi jartzen hasi garen *Gamarra industrialdea* baino

egokiago jasoko delakoan. Horrelakoetan ere ez dugu, beraz, ezinbestean bide bakarrera, elkarketa-bidera alegia, pasa beharrik.

Hitz elkartuek badute, hortaz, erabilpen-esparru zabala. Berea dute esparru hori, aspaldidanik eta probetxu handiz landua: alferrik galtzen ez genuke utzi behar bide hori. Erdaraz (gaztelaniaz edo frantsesez bereziki) "izena eta izenondoa" datozen kasuetan, ondorioz, ez daukagu itsuitsuan "izena eta izenondoa" eratu beharrik euskaraz. Gorago esan dugunaren haritik, horrela, aspaldidanik *perro ratonero*-ren ordain gisa *arratoi-txakur* erabili izan badugu orain ez daukagu *txakur arratoitar* moduko eredura pasatu beharrik, maizegi (ez justu-justu hitzarte horretan, baina bai konta ezin halako beste hainbatetan) egiten hasiak garenez. Eredu horretara pasatzeak, gainera, gutxien uste genezakeen kaltea dakarkigu sarri: gure-gurea genuen beste elkarte-mota baten esparruan sartu eta haren balio-indarra ezabatzen hasiak gara dagoeneko, eta goazen bidetik goazela non amaitu behar dugun asmatzen ez da erraza. Igarri duzue, honez gero, zertaz ari naizen: aspaldidanik hitz-elkarte sintetikoetarako erabili den *harri-jasotzaile, zerga-biltzaile, odol-emaile*, ... eredua horrekin zerikusirik ez duen *talde koordinatzaile, batzorde antolatzaile, egoera iraultzaile*,... modukoekin desitxuratzen ari gara gutxi-asko. *Harri-jasotzaileak* harriak jasotzen ditu izan ere, *zerga-biltzaileak* zergak biltzen, *odol-emaileak* odola ematen eta abar. Oraingo *talde koordinatzaile* gehienen atzean, aldiz, lautatik hirutan *equipo coordinador* dago, ez *coordinador de equipos*. Gaitzerdi beste erremediorik ez balego: zerk debekatzen digu ordea, frantses-gaztelanien imitatzaile itsu izan behar gorriak ez bada, betiko eramoldera jo eta *koordinazio-talde, antolamendu-batzorde, iraultza-egoera (iraultza-giro)* modukoak sortzea?

Hor ditugu, beraz, hitz elkartuak noiz bai/noiz ez erabili aukeratzeko orduan kontuan hartu beharreko arrazoi-bide nagusiak: batetik hitz-elkarketa euskaldun garbiarentzat erosoagoa dela, errazagoa, samurragoa; geurea dela, horri eutsi egin behar diogula. Bestetik, ordea, horri eustearen izenean ez dugula hasi behar, orain, dena hitz elkartuen zakuan sartzen, hori ere ez baita gure jokaera normala izan. Elkarketaz aparteko beste bideak ere gureak ditugu. Eta zenbait gauzatan, erabide berrietan, guretzat lehendik arrotz izan diren baina azken mendeotan etxekotzen ari zaizkigun erabideak ere errespetatu eta erabili egin beharko ditugu. Batzuetan komenentziaz, ongi datorkigulako; eta, bestetan ezinbestean, beharrezkoa delako. Inoiz adibidea jarri izan dut, eta hartara joko dut berriro: gazte-jendeak gaur egun hain ezpain-puntan darabilen *música rockera* esateko lasai-lasai erabil daiteke *rock-musika*; falta ere ez da faltako, bat baino gehiago, hala egiten duenik. Jatorriz *rock music* sortu zuen ingelesaren bidetik joko du gainera, asmatzailearen bideari bere hartan eutsiko dio alegia, hala mintzo denak. Baina jakina, kasu batzuetan egin ahal izango du egokitze-lan hori; ez beti. Gaztela-

niazko "esta música es *muy rockera, bastante rockera, demasiado rockera...*" esan nahi badizu, *rock-musika*-ren bideak ez dio horrelako azalpenetarako aukera zuzenik emango. Musika hori "*oso rockeroa, aski rockeroa, rockeroegia,...*" dela esan beharko du seguruenik. Hots, rockero hitzaz ere baliatu beharra izango du hainbat kasutan. Bestela esanik, hitz-elkarketaren zale amorratua izanik ere "aski *rock-musika, rock-musikegia,...*" ezingo du erabili.

II. HITZ-JUNTURETAKO HOTS-ALDAKETAK

Gutxi hitz egingo dut aldaketa horietaz, jardunaren jardunaz dagokien baino garrantzi handiagoa eman baizik ez baitiegu egiten. Guztiok dugu joera hitz elkartuak museoko piezak direla uste izateko: beren junturan hotsak aldaturik ageri dituzten museoko hitz-piezak, hain zuzen. Nor ez da gure artean, hitz elkartuen alorrean gutxi-asko jantzia edo jakituna dela adierazi nahirik, hots-aldaketen kontu horietan ezjakinei edo hasi berriei "badakizu *iteuli* hitza *idi* + *euli* hitzez osaturik dagoela" erakusten ibilia? Arrazoirik badu, noski, hala diharduenak; gezurrik, gezur nabarmenik behintzat, ez dio. Arrazoi izanik ere aski arrazoi mugatua du ordea. Hobe luke halakok, ene irudiko, *iteuli* hitz elkartua *idi* + *euli* dela esanaz ingurukoak txunditzen ibili ordez kontuak beste era honetan azalduko balitu: "garai batean horrela eratzen ziren hitz elkartu horiek; horrela egiten ziren; baina horrek ez du esan nahi gaur eratzen diren hitz-elkarteak horrela egiten edo horrela egin behar direnik". Honetan badugu arriskua, izan ere, lehena eta oraina ez bereiztekoa. Behinolako hitz-elkarte zaharretan, egia da, orduan indarrean zeuden hots-legeak aplikatuz hainbat hots-topa eta hots-aldaketa gertatu izan dira. Halako hitz elkartuetan gugana iharturik iritsi diren neurrian, arrazoizkoa da beren baitan itsatsirik daramatzaten hots-erabide jator haiek bere hartan errespetatzea. Besterik da, ordea, orain sortzen diren hitz-elkarteetan zer egin behar den: horietan gaur indarrean ditugun arauen bidez jokatzea komeni da, oro har. Ez da itxurazkoa, alegia, behinolako arau ihartuak gaurkoak bailiran erabili nahi izatea. Gauzak bere onetik atera nahi ez baditugu aitor dezagun beraz badirela batetik forma zaharrak, euskararen aspaldi bateko hots-legeen ohiturak, behinolako jokamolde zilegi eta debekuak, beren jatortasun hartan agertzen dizkigutenak, eta badirela bestetik gaurko elkarte-bideak, orduko hots-lege haiek alde batera utziak dituztenak. Gaur eguneko euskaldunok hitz-elkarte bat eratu behar dugunean, hortaz, ez dugu ez ezinbestean eta ez ahal delarik joera zahar haiek (hainbat mendez galdurik dauden lege-edo izandako haiek) berpizten hasi beharrik. Hots, *afari*-ren ondoan *afalordu* daukagulako ez gai tezen orain *safari*-tik *safalegun*-erako bide okerra erakusten (are gutxiago agintzen) hasi.

Hemen ere gauzak ez dira, ordea, txuri edo beltz. Ezin esan liteke, alegia, hitz--junturetako hots-aldaketen behinolako "lege" direlako haiek guztiak zeharo eta erabat galdu direnik. Badira haietariko zenbait, esate baterako, bizi-hats bat behinik behin beren baitan dutenak. Eta bada kasu bat, ororen gainetik, egungo egunean buruhauste franko sortzen diguna: *hizkuntza(-)ariketa* behar du edo *hizkuntz ariketa, industria(-)garapena*, edo *industri garapena*. Hitz-elkartearen lehenengo atalak berez > -a< amaiera dueneko kasuaz ari naiz noski. Bi hitz elkartzen ditugunean, alegia, lehenengo hitz horrek bukaeran >-a< duenean >-a< hori kendu egin behar da, edo ez da kendu behar? Eztabaidarik sutsuenak, hitz-junturetako hots-aldaketak direla eta ez direla, puntu honek sortzen ditu gaur egun, itxura guztien arabera. Zerbait esan beharko dugu beraz horren gainean, labur-labur izango bada ere. Baztan alde eder horretan, horrela, badakigu *eliza*-k batetik eta *ondo*-k bestetik *Elizondo*, ez *Elizaondo*, eman duela. Badakigu, gainera, bokal-galtze horren pareko gehiago ere badaudela han-hemen (*eskolemaile*, adibidez, eta beste hainbat). Hori bezain egia da, ordea, horrelako hitz-junturetan >-a< bokala gorde izanaren testigantza ere ugaria eta zabala dugula. Are gehiago, hitz berberak >-a< gabeko formak ageri ditu batzuetan eta >-a<-dunak besteetan: *Elespuru, Elejoste, eskolemaile, eskoletxe*,... bezala hor daude *Elizagarai, Elejabeitia, eskola-emaile, eskola-etxe*... formak ere, bikote horietan zaharrena eta hedatuena zein den asmatzea beti hain erraza ez delarik. Testu zaharretara baldin bagoaz, behintzat, bietarikoak aurkituko ditugu: batzuetan >-a<-rekin, *feria-egun* modukoetan kasu; eta besteetan, *indioilar, Andimendi* bezalakoetan, >-a< gabe. Testigantzak bietarikoak ditugu beraz eta hortik ezin dugu esan "lege *jatorra, betidanikoa, berezkoa*,... honako hau edo horrako hori da". Testu zaharretara bagoaz aldez aurretik aurkitu nahi duguna erraz samar aurkituko dugu: bietarik dago han sarri.

Problema nagusia ez daukagu, halere, aspaldidaniko hitz-elkarte horietan. Problema nagusia gaur sortzen ditugun hitz-elkarteetan dago: *filologi fakultate* edo *filologia(-)fakultate, Autonomi Elkarte* edo *Autonomia(-) Elkarte, ortografi arau* edo *ortografia-arau*, ... Lehenengo hitza kultur hitz bat denean eta hitz horrek bukaeran >-a< duenean *(logia, nomia, metria, grafia, skopia,...)*, zer egin behar da elkarte horietan: > -a< hori kendu egin behar da, edo mantendu egin behar dugu? Egoskogorregiak izan nahi ez badugu eta aspaldidaniko aniztasun hori hor dugula onartzeko prest bagaude hobe izango dugu, itxuraz, gizartean bizirik dauden joera horiei leku bat eman eta biei, oraingoz, bere horretan ibiltzen uztea. Horrek ez du esan nahi, halere, inolako hobespenik egin behar ez denik. Euskaltzaindiak berak, hitz elkartuen gomendio-azalpenak ematerakoan, zera egin berri du: bi formetako bat hobestekotan azken mende honetan indartuz joan den aukeraren alde agertu. Badirudi,

berriz, azken hamarkadotan indartuz joan den joera, talde-lanean eta bestela egin diren azterketen argitan, hitz-amaierako >-a< hori galtzekoa dela. Hori ez da denboraren harian gertatzen ari den fenomenoa soilik, gainera. Beste horrenbeste esan liteke, ene ustez, gure artean begirune eta itzal handikoak ditugun XX. mendeko idazle gailen batzuez ere: azkena aipatzekotan Mitxelena aipatuko genuke. Joera bezala, hori da gailentzen-edo ari dena. Euskaltzaindiak orain arte esan duena, beraz (eta honekin amaitu nahi genuke, puntu hau), zera da: "bi erak ondo daude, bi idazkerak erabil daitezke; bat aukeratzekotan hobe >-a<-rik gabeko elkarte-modu hori hobestea" (1).

III. BERRELKARKETA BAI/EZ; NOIZ-NOLA

Beste zalantza bat ere sarri agertzen da hitz elkartuak direla eta ez direla. Askok galdetu ohi dizu, izan ere: "zenbat hitz (zenbat elementu lexikal) elkartu litezke hitz-elkarte batean; bi hitz bakarrik, edo gehiago ere bai? Erantzuna ez da beti erraza izaten, eta badakizue zergatik. Adibidera joko dugu hemen ere, labur beharrez eta argiago geldituko delakoan. Era askotakoak izan ohi dira, jakina denez, behiak. Demagun behimota horietariko bat *esne-behia* dela. *Esne-behi* hitz hori aspaldi sortua da euskaraz; orain ere hala erabiltzen dugu gehienok, aurrekoengandik edo ingurukoengandik ikasita; hitz-elkarte horrek ez digu inolako eragozpenik sortzen. Goazen, ordea, aurrera. *Esne-behi* horiek norbaitek saltzen baditu, norbait hori *esne-behi-saltzailea* dela esan al daiteke? Askotxok esango genuke baietz, nahiz eta begitartea zimurtzen hasiko denik tartean ez faltatu. Hirukotea oraingoz ontzat emanaz, dena den, *esne-behi-saltzaile* horiek beren artean elkartzen badira *esne-behi-saltzaile-elkartea* sortzen dutela esan al daiteke? Eta *esne-behi-saltzaile-elkarte* horrek aldiro-aldiro halako lan-bilera bat egiten badu *esne-behi-saltzaile-elkarte-bilera* dei al dakioke horrelako biltzar-modu horri? Eta bilera horrek egun eta ordu jakina baldin badu hasteko, esan al daiteke Joxe Felix Ormazabal biltzarkidea (gutxigatik bada ere) ez dela *esne-behi-saltzaile-elkarte-bilera-ordu*rako iritsi? Ikusten duzue, gehiagorik gabe, nora noan. Zenbat eta berrelkarketan aurrerago joan, orduan eta problema gehiago. Egin egin al daiteke, halere? Edota noraino egin daiteke, gutxienez?

Argitasun bila beste hizkuntzetara bagoaz, erantzuna ez da hain argia. Batzuek, ingelesak kasu, bi ataletik gorako elkarterik gutxitan egingo dizue; hortik gora ere jotzen dute noizean behin, eta testu-inguru batzuetan areago nahi bada, baina gehienetan birekin planto egin ohi dute.

(1) Txosten hau Leioan aurkeztu zen garaian horrela ziren kontuak. Geroztik, gauzak aldatu egin dira puntu honi dagokionez: bi aukerak libre uztea erabaki du Euskaltzaindiak, bietako ezeini lehentasunik aitortu gabe.

Alemana eta kide zenbait, aldiz, beste puntan daude: badirudi horiek debekurik ez dutela; behin hasiz gero segi eta segi egin dezaketela, alegia, berrelkartze-lanean. Badirudi beste puntako hizkuntzok kilometro luzeko hitzelkartu-trena eratzeko prest daudela, bagoi eta bagoi eta bagoi. Egia esateko, eguneroko mintzajardunean ondotxoz txikiagoa da bi punta-mutur horien arteko tartea hemen (eta zenbait liburutan) aipatzen dena baino. Utz dezagun halere esajerazio-modu hori bere horretan, bide-banatzearen aldea agertzeko lagungarri gertatzen baitzaigu.

Eta gu zein bidetatik gabiltza, puntu honetan: ingelesarenetik, edo alemanarenetik? Testuetara bagoaz, gure joera nagusia bi hitzeko elkartera mugatzea izan da. Hamarretik bederatzietan hor nonbait, agertu-agertu bi elementuko, bi osagaiko hitz-elkarketak agertzen dira. Estatistikoki hala agertzeak ez du esan nahi, ordea, hortik gorakorik egin ez denik; are gutxiago egin ezin daitekeenik. Eztabaida luzean sartuko ginateke seguruenik, gramatikaren ikuspegitik batez ere, mugaketa hori noraino den berezko debeku, noraino komenentzia edota noraino estatistika itsuaren emaitza hutsala zehaztu nahi izanez gero.

Esan dezagun euskaraz, oro har, ez dela komeni era horretako hitz-pilaketak ugaritzen hastea. *Mendibilgo udal-kiroldegi-txartela* esan ordez, beraz, *Mendibilgo udalaren kiroldegiko* (edo *kiroldegi-*) *txartela* esatea hobe izango dugu, edota *bide-seinale-garbiketa-zerbitzua* baino egokiago esan eta idatzi ahal izango dugu gehienetan *bide-seinaleen garbiketa-zerbitzua* edo, are, *bide-seinaleak garbitzeko zerbitzua.* Ez dugu, ahal dela, dena batean pilaturik ematen jardun behar: besteak beste ez baita erraza hitz-katea tinko horiek osatzea eta, batez ere, halakorik irakurri edo entzun behar duenarentzat hura entenditzea ez baita erraza. Hor ere "ahal delarik" diogu, ordea: lekuan-lekuan eta aldian-aldian belarriak berak esango digu pilaketa hori zer neurritan den eroso eta zer neurritatik aurrera gehiegizkoa den. Neurtzen jakin behar dugu. Hizkuntzaren sena bere baitan izan behar du hiztun trebeak, eta hortik jakin zer neurritan sortu eta erabil ditzakeen berrelkarketazko erabide horiek: *urbedeinkatuontzia*, azterketa formal batean hiru hitzez osaturik dagoela esan genezakeena, lehenengo bi osagaien aspaldi samarreko ihartze-kontuagatik funtsean atal bikoa dela aginduko dio euskaldun garbiari bere baitariko jakite horrek. Elkarte luzeska hori lasai asko erabil dezakeela esango dio seguruenez, eta zuzen jokatuko du hala eginez: ingurukoek ere ongi entendituko diote. Era berean, hain aspaldi ez dela azaldurik dugunez (2) euskaldun garbi horrek ez du inolako eragozpenik izango hiru eta lau ataleko elkarte-modu batzuk sortu edo entenditzeko *(kafe erre usain, euskal dantza-talde, ardo-saltzaile itxura,...).* Elkarte-modu jakin batzuk,

(2) Ikus *Hitz elkartuen osaera eta idazkera.* 1992. EUSKALTZAINDIA (egilea M. Zalbide). Bilbo.

ez edozein hirukote edo laukote, egin daitezke horrela. Ezinezkoa ez da berrelkarketa, baina libre-librea ere ez: *kafe erre usain* hori erraz eta gozo esaten edo ulertzen dela-eta ezin hasiko gara orain, hori eta horrenbestez, *behi galdu orroa* (are gutxiago *behi galdu orroa entzule*) modukorik barra-barra eratzen eta hedatzen. Noiz-non bai eta noiz-non ez (edo ez hain ondo) jakitea, horixe da hiztun garbiaren grazia, hitz-motelagandik argi bereizten duen dohaina.

IV. MARRA BAI/MARRA EZ

"Hori dena ongi dago" esaten ere hasia izango dugu honez gero irakurleren bat edo beste, baina zer egin behar dugu hitz elkartuak *idaztelko* orduan?

Hots, hitz elkartuak libre idatzi behar ditugu, aparte?; marraz elkarturik eman behar ditugu?; edota erabat loturik, hitz bakarra bailiran, eskribitu behar ditugu? Galdera-galdera, egia esateko, lehenengo bi aukeren artean sortu ohi da gehienetan. Ez da ahaztu behar ordea hirugarren bidea ere, hitz-andana ihartuetan zer esanik ez baina hortik kanpora ere bai, hor dagoela berez eta aldeko suharrik ez duela falta gure artean. Puntu hau argitu nahirik prestatu genuen hain zuzen, neurri on batean behintzat, 1991eko galdeketa, gorago esan denez Euskaltzaindiaren izenean 250-300 laguni pasa zitzaiona. Dudazko kasuetan (hots, idazlea gehien kezkatzen duten kasuetan), gero azalduko denez marraren aldekoa izan zen erantzun nagusia: nolabait esateko ondotxoz gehiago izan ziren *aurrezki-kutxa, tren-gidari* edo *butano-saltzaile* modukoak marraz idaztearen alde agertu zirenak *aurrezki kutxa, tren gidari* edo *butano saltzaile* formaren aldekoak baino. *Marra bai/marra ez* auzian Euskaltzaindiaren iritzi-emaileak marraren alde agertu zirela esan daiteke hortaz.

Hankamotz samarra da, ordea, baieztapen hori. Neurri batean, eta ez berariaz, tranpa egin baikenuen inkesta edo galdeketa hura pasatzerakoan. Partez behintzat proposamen egina, aukera jakin baten (hots, marraren) aldeko proposamen konkretua, aurkeztu genien guk iritzi-emaileei. Galdeketa prestatu genuenok ez genien galdetu, huts-hutsik behintzat ez, "halako eta halako hitz elkartu nola idatziko zenuke, marraz edo marrarik gabe?". Hori ere egin genuen, noski, eta erantzuna marraren aldekoa izan zen han ere. Baina adibide konkretuak ematerakoan honela jokatu genuen: "Hara, gai hau bospasei urtez aztertzen aritu den batzordeak marraz idatziko lituzke *ekintza-plan, kamioi-erakuseta* edo *txurro-saltzaile* moduko hitz-elkarteak. Zer iruditzen zaizu idazkera hori: egokia edo desegokia? Horrela idatziko zenituzke zuk ere, edo beste era batera idatziko zenituzke? Eta beste era batera idaztekotan, nola?". Tranpa, beraz, ez zen beste mundukoa izan; baina galdera diriji-

tuak egin genituen, neurri batean. Den bezala onartu behar da hori. Ezer konkreturik proposatu gabe galdera egiten badiozu norbaiti, erantzuna prestatzeko ardura oso-osoa berari leporatzen diozularik alegia, erantzun-modu bat jasoko duzu agian; aldiz proposamen egina ematen badiozu galderaren baitan, badirudi badagoela arrisku bat iritzi-emaile horrek besterik gabeko konformidadea (gero bere benetako jardunarekin agian bat etorriko ez dena) emateko: "bai, idazkera-modu hori ere ez dago gaizki eta ez naiz hasiko kontra nagoela esaten", pentsatuko du hainbatek. Galdera dirijituak erantzun behartua ekar dezakeela, eta neurri batean hala ekarriko zuela, aitor dezagun beraz haste-hastetik.

Behartu edo ez behartu, kontua da galdeketa hartan jaso genituen erantzunetan (eta alde batera utziaz gehien-gehienok bereiz, marraz edo loturik idatzi ohi ditugunak) marraren aldekoak zirela gehienak: iritzi-emaileen hiru laurdenek ontzat eman zuten, nolabait esan, marra eta guzti proposaturiko *zuzendari-bilera* forma (3). Hori bezain egia da ordea, eta guztiok gara horren jakitun, kalean erabiltzen den euskara idatziak ez duela inola ere hiru laurdeneko gehiengorik ageri marraren alde. Neurketa zuzenik egin ez bada ere, liburu teknikoetan (irakasmunduko idazkietan, administrazioko dokumentuetan eta abar) oso posible da marraren erabilera zabala izatea gaur egun. Ez, ordea, hortik kanporakoetan: literatur alorrean, bereziki, ez.

Erantzunen % 70-% 80 marraren aldekoak ziren beraz, alde batetik, baina bestetik proportzio hori ez dator bat gaur eguneko erabilerarekin. Zer egin behar zen emaitzak horrelakoak zirela ikusita: "hemendik aurrera hitz-elkarte guztiok marraz idatzi behar ditugu" esan behar zitzaion jendeari? Agian bai: % 70a edo % 80a gehiengo zabala da; ez da % 51a. Marrarik gabe idazten duen askok ez luke gainera, itxuraz, erreparo handiegirik jarriko bere ordurarteko jokamoldea alde batera utziaz Euskaltzaindiaren batasun-bidea onartzeko. Gizarte-kontuak ez dira ordea zenbaki hutsetara hain erraz biltzen; aspaldidaniko tradizioa izanik kalean, euskaraz sarri samar idazten dutenen artean, bizi-bizirik dagoen idazmolde bati (marra gabeko idazkerari, alegia) bat-batean debekua ematea kaltegarri gerta daiteke. Hots, gerta liteke arau zehatza ematea eta zirkulu landu, disziplinatuenetan arau hori ondo samar errespetatzea baina hortik kanpora harrera ahula izatea: noiz erabili behar den eta noiz ez ikasi egin behar da, eta hori idazle arruntarentzat nekea da. *Eritzi* ordez *iritzi* behar duela (garai batean *degu* edo *dogu*-ren ordez *dugu* behar zue-

(3) Kontua hori baino konplikatuagoa da, jakina, xehetasunetara joan nahi izanez gero: normalean marra erabiltzearen aldekoak ere marrarik gabe erabiltzen (eta erabiltzea proposatzen baititugu >-a< galtzearen ondoriozko *ekonomi maila, zikinkeri fama*,... modukoak. Horiek guztiak xeheago ikusi nahi lituzkeenak jo beza *Hitz elkartuen osaera eta idazkera* liburuko 39-42 orrialdeetara.

la ikasi genuen moduan) ikastea baino ondotxoz gogorragoa, nolanahi ere.

Euskaltzaindiak, beste edozein erakunde ofizialek bezala, nire ustez egin dezakeen gauzarik okerrenetarikoa horixe da: inor gutxik aintzakotzat hartuko duen araua ematea. Arauak, ahal delarik, jendeak entendituko dituen, gustora jasoko dituen, arin ikasiko dituen eta maiz erabiliko dituen modukoak izatea komeni da. Alde horretarik hobe da arau lazo bat, gehiegi estutzen ez duen baina gehiengo zabalarentzat onargarri eta baliagarri izango den moduko bat, ematea. Horixe da, hain zuzen, hitz elkartuak direla eta ez direla Euskaltzaindiak orain dela urte-pare bat emandako gomendio-arauetan egin nahi izan duena: argi dauden elkarte-motetan, euskal idazle gehien-gehienek era jakin batean idazten duten kasuetan "elkarte-modu hau honela idatz bedi" esan du Euskaltzaindiak. "Honako elkarte-moduok bereiz, aparte idatz bitez, horrako horiek marraz elkarturik eta harako haiek loturik, bat eginik" gomendatu du hortaz hizkuntz akademiak. Adibidez, "*Nilo ibaia, Aralar mendia, Dato kalea* moduko aposizioak bereiz idatz bitez" esan du. Jakina, badakigu hor daudela garai bateko *Oriamendi, Andimendi, Auñamendi* eta gainerakoak ere (berdin *Aperribai, Ibaizabal* edo *Erdikale, Barrenkale* modukoak), normalean loturik idatzi ohi direnak. Baina aspalditxo honetako joera nagusia, era horretako aposizioetan, bereiz idaztekoa da. Beste horrenbeste esan liteke posposizioez (alde batera uzten ditugularik azpimultzo berezia osatzen duten *nazioarteko, gerraurreko, afalondoko* modukoak). Joera nagusia posposizioak bereiz idaztekoa izan da, eta halaxe da orain ere: *ikerketa ondoko (emaitzak), teilatu gaineko (antena), kable bidezko (telefonia)* eta abar. Idazteko joera jakin bat aski nagusiturik dagoenean, elkarte-modu baten idazkera gehienok ahobatez (hobe, agian, *luma batez*) erabiltzen dugunean, idazkera horren aldeko legea, araua, gomendioa edo dena delako azalpena eman nahi izan da. Aldiz gizartean, euskaldunen artean, idazmoldeari dagokionez bi joera dauden kasuetan, bi joera horiek aspaldidanik etorri datozenean eta orain ere geure baitan indar bizia dutenean bientzat aterpea bilatu nahi izan da, bientzat aukera librea eman nahi izan da. Beraz, alde horretatik honelako zerbait esan da: *ekintza-plan* marraz elkarturik idatz daiteke; edo libre, bereiz idatz daiteke *ekintza plan*. Era berean, aukeran utzi da nahi duenak *butano-saltzaile* idatz dezan, eta nahi duenak *butano saltzaile*.

Egin hori egin du Euskaltzindiak. Geroak esan beharko du, honetan ere, bi bide horietarik zein indartzen eta gailentzen den. Gizarteko joera-gauza hauek urteak behar izaten dituzte, gehienetan, alde batera edo bestera makurtzeko. Ez hori bakarrik: joerez gainera aldian aldiko modak ere izaten dira kontuotan, eta zail izaten da maiz moda horietarik ihes egitea. *Marra bai/marra ez* honetan, esana dugu txostenaren hasie-

ra-aldean joera diferenteak izan ditugula aspaldiko mendeetatik (aski urte-garai beretsuko bi idazle aipatzearren demagun, berriro esan, batetik Oihenarte eta bestetik Axular) eta joera horiek ere beren modak sortu izan dituztela. Modaren bilakaera horretaz (eta egungo egunean duen eraginaz) ongi jabetzeko ez daukagu halere hain aspaldiko garaietara joan beharrik. Aski dugu begiak XIX. mendera itzuli eta ordutik honako moda-kontu horiek nola joan diren aztertzearekin. Ondoren esatera noakizuena ustea da, ez daukat zeharo frogaturik; baina hartarako dokumenturik ere ez da falta ene iritziz. Nolanahi ere den, nire ustea da marraren oraingo moda ipar Euskal herrian sortua dela, gaur besterik badirudi ere: XIX. mendean sortua hain zuzen, eta ondoren hegoaldera etorria. Berriro diot luze-zabaleko modaz ari naizela orain, eta ez idazle jakin baten edo besteren joeraz. Horra beraz, labur-labur, kontuak niri nola ateratzen zaizkidan. Hemeretzigarren mendean marraz idazten zuten aitzindariak iparraldekoak izanak ditugu. Hartaz ezagutza zuzena duen Patri Urkizuri arestian aipatzen nion, Txahoren *Azti-begia* irakurri berria dudalarik marraz elkarturik aurkitu ditudala bertako hitz-elkarteak. Orijinalean ere hala daudela baieztatu dit Urkizu adiskideak. Txahoren (eta, maizegi ahazten badugu ere, euskalgintzan bidelagun zintzo izan zuen Abadiaren) eragina XIX. mendeko corpus-plangintzan zenbaterainokoa izan zen gutxietsirik-edo daukagula iruditzen zait niri. Nolanahi ere den, mendearen erdialdera eta handik aurrera ortografi kontuetan iparraldean izandako interes-giro hark eragina izan zuen hitz elkartuen idazkera-kontu horretan. Eta 1880 ingurutik aurrera, hori dela-eta, aski zabaldurik ageri da marraren erabilera. *Eskualduna* (astekari horrek iparraldean izan zuen erabateko eragimena ez daukat noski zuetako inori hemen gogorazi beharrik), batez ere lehenengo urteetakoa, irakurtzen duena erraz konturatuko da hitz elkartuetako marrak leku zabala zuela iparraldean: ez, halere, betibateko erabilera, marra gabeko idazkera ere asko erabiltzen baitzen aldizkari horretan bertan. Hegoaldean, berriz, nire ustea da batez ere Donostian, Manterolaren *Euskal-Erria* aldizkarian eta horren inguruko ekintzetan (Lore-Joko eta antzekoetan, alegia) zabaldu zela marraren erabilera. *Euskal-Erria* hartako orrialdeetan, egia esateko, marra bidezko idazkera ez zen poesia edo antzerki-lanetan zabaldu, bestelako esparru jakinetan baizik: erdaraz *Juegos florales euskaros* esaten zitzaien euskaltzale-ospakizun haien dokumentu ofizialetan, bereziki. Hots, hizkuntzaren erabilera jaso-formalizatuagoa eskatzen zuten esparruetan. Har dezagun, adibide gisa, 1880ko *josta-gudar*ako dei eginez aldizkari horren 43. orrialdean azaldutako idazkia.

Euskarazko itz-jostaldiak Donostian.

Josta-guda oek antolatzea bere gañ artu duen Batzarre bereziak, Uri onetako Bilguma eta Probinziako Diputazio chit goituakin elkarturik, erabaki du datorren Agor-illean idukitea euskal-izkribatzalleen josta-guda bat, baita aoz-aozko itz neurlari edo bersolarien beste jolasbide bat, zeñak egingo diran era onetan:

JOSTA-GUDA.

Euskal-izkuntza-jakindeak zabaltzen sayatzen diran izkribatzalleai, lanbide onragarri onetan aurrera ere jarraitzeko serbituko diezten limurkaritzat emango zaizkate ondorengo sari oek:

ITZ-LARRIZKO LANAK.

Lenbizikoa. ZILLARREZKO KOROA. *Bilguma chit goitiaren saria*, euskarazko irakorgai edo gure aurrekoai aditutako kondairaren bat, euskal-errietan usatzen diran edozeñ izkeran, obeto ipintzen duenarentzat; jakiñaren gañean jarririk, ezen, lan berdiñen artean, aukeratuko dala saristatua izateko, ez beste izkuntzaren batetik moldatutako izkribua, ez pada lan osotoro sortu berria dana.

Bigarrena. BURNIZKO TINT-ONTZI BAT, URRE OSTOAZ ORNITUA, BEANTZEKO LUMA, SILLU-GANIBETAKIÑ, *Diputazio chit goituak egiten duen erregaloa*, gure itzkuntzan oraindik izenik ez duten asiera, lanbide, eta gauza sortu berriak adierazteko, euskaratik aterata izkuntz onen legeak ondo gordeaz izen berri geien ipiñtzen dituenari.

Ala gauz oen izenak, nola aurkestuko diran beste edozeñi dagozkatenak izan bearko dute berriak, eta izkuntz onen legeak eskatzen duten erara osotoro moldatuak; konturatzen dalarik, ezen, saria emateko begiratuko zayola, ez ainbeste itz geienak dituen lanari, ez pada oek egokiago moldatuak dakazkienari.

Irugarrena. URREZKO MEDALLA BAT, *Naparroako Euskal-Elkargoak eskeñia*, euskal-erriko edozeiñ izkeran, obekien ipintzen duenarentzat Oroikarri bat, euskaldunen antziñako lenengo dantza zarren gañean, erakutsiaz berri geien beren asiera edo jatorri eta beren azgarrien gañean.

Euskalerria, 1880-81, 43.or.

Argi ikusten da marraz elkarturik ematen direla hor, neurri handi batean, era askotako hitz-elkarte eta hitz-andanak.

Joera horrek zabalkunde handia izan zuen handik berehala, ongi dakizuenez, R.M. Azkueren eta S. Aranaren eskutik. Bataren corpus-plangintzaren alorreko bere euskalari-lan eskergaz, eta bestearen status-plangintzarako euskaltzaletasun-bultzadaz, gerra-garaira arteko testuetan erruz zabaldu zen marraren erabilera. Baita literatur lanetan ere: duda-izpirik lukeenak aski luke, izen ezagun bi baizik ez aipatzearren, N. Orixeren eta Lizardiren lanak begiztatzea. Gerra ondoko joera ere, neurri handi batean belaunaldi beraren eskutik joan zelarik, marra bidezkoa izan zen hegoaldean behintzat (iparraldean gertaturikoaz jabetzeko on litzateke, nolanahi ere, Lafitte-ren testigantza begien bistatik ez galtzea.

Askok esango dizu ordea, eta ez du erabat huts egingo, euskara batuak, >h<-a eskuratu duen modu beretsuan, marra baztertzea ekarri duela berekin. Nekeza da, nire ustez, baieztapen horri erabateko ezetza ematea. Besteak beste Euskaltzaindiaren 1971ko azalpenak batasunaren ur-isuria hartara bideratu zuelako. Inork inon ez du esan, dakidalarik, euskara batuak marrarik gabeko idazkera duenik; baina badabil hor barrena, edota zenbait urtez ibili delakoan nago behintzat, horrelako ikuspegi lauso-zabala. Jakina denez, 1968an Arantzazun euskararen oinarriak jarri zirenean ez zen marra erabiltzearen aurkakorik ezer esan. Are gehiago: bertan aurkeztu ziren hainbat txosten, eta K.Mitxelenarena oso bereziki, puntatik puntara marraz idatzirik daude. Puntatik puntara eta, maisuak gainerakoan ere ohi zuenez, aski irizpide landuaz. Horretaz ere dudarik lukeenak jo beza txosten hura bere jatorrizko eran (ez gero, hobe beharrez gehienetan, *arreglaturik* eman izan diren testuetako forman) dagoen 1969ko *Euskera* agerkarira.

Kontuak kontu, *marra bai/marra ez* eztabaida hor izan dugu geure artean, azken 25 urteotan. Eta egia da, orain ere, joera eta jarrera desberdinak erabat bide bakarrera biltzea ezin lortuko dela. Mereziko ahal du halere, egindako saioak, besterik ez bada hitz-elkarketaren garrantziaz jabetzeko, batzuen eta besteon hobespen-motiboen berri izateko eta hizkuntzaren erabilera zuzena indartzeko. Horretan behintzat ezer lagunduko balu, ez ginateke bat baino gehiago gutxi poztuko.

ADITZOINA IOANES LEIZARRAGAGAN

Esther Zulaika Ijurko

75. urteurreneko ospakizunak direla-eta, Euskaltzaindiak XIII. Biltzarrean parte hartzeko egin digun gomitea eskertu nahi genuke, parada egokia eman baitigu txosten honen izenburuan bertan jasotzen denaren berri, labur bada ere, zuenganatzeko.

Jakitun gara egun euskal aditzaren esparruan azterkizun diren hainbat alderditarik aditzoinarena bat baino ez dela, ez horratik garrantzi gabekoa, euskaraz aritzen nahiz egin nahi duen edonorentzat bederen.

Horrexegatik, euskarazko aditzoinaren formazko azterketa hautetsi dugu aztergai, eta mugarria Ioanes Leizarragagan ipini, beskoiztarrak bere itzul-lanean darabiltzan moldeek egungoen finkatzean argi-izpiren bat edo eman dezaketelakoan.

Ezertan hasi aurretik, bihoaz ohar pare bat erabili dugun *corpusa*ri buruz. Leizarragaren lanean ageri diren aditz guztiak bilduta izanagatik, zenbaitetan aditzoin moldearen adibiderik kausitzerik ez dugu izan. Halakoak gure azterketatik kanpo utziko ditugu, edota, gehienez ere, beste aditzen baten jokabidea zehaztean lagungarri gertatu izan direnean, bidenabar aipatuko.

Bestalde, emango ditugun aditzoinen adibide guztiak ez dira adizki perifrastikoen erabilerara mugatuko. Batzuetan, halabeharrez, bestelako egituretara jo behar izango dugu, *aditzoina+eraci* gisako moldera esaterako, diogunaren erakusgarri bakarra halakoetan baino aurkitzerik izan ez dugunean. Orobat, aditz-izenezko moldeak ere behin baino gehiagotan hartuko ditugu ahotan, aditzoinaren forma finkatzeko irizpide izan daitezkeela uste baitugu (zenbaitetan ez erabakigarria, halere).

* * *

Aspektu burutua edota partizipioa adierazteko ezaugarri morfologiko ezberdinak agertu ohi dira adizkietan. Oro har, hiru multzotan banatzen dira: ***-tu/-du*** marka dutenak, ***-i*** amaikoak eta marka ageririk gabekoak (1). Leizarragak darabil-

(1) Euskaltzaindia (1987:115h, 1993:256).

Schuchardtek (1923:41h) bi sail bereizten ditu, *-tu* marka (berriena) dutenena batetik, eta gainerakoena bestetik:

"Los participios en su formación se agrupan en dos clases principales:

1.ª Una más moderna con terminación románica *-tu* (después de *l* y *n* hace *-du*), que

tzanetara mugatuz, multzo bakoitzean sailka daitekeen aditz orok, ordea, ez du jokabide bat bera aditzoinaren eratzean.

1. *-tu/-du* saileko aditzak

1.1. *-tu/-du* amaiko aditzetarik gehienetan aditzoinak marka hori gabeko forma izan ohi du. Adibidez: ***gueldi, har, sar, sor, hauta, harrapa, agor, pensa, vezti***... Halaz ere, badira ondarrean *-t* gordetzen dutenak ere. Ondoren emango ditugun azpisailetan bildu ditugu Leizarragaren lanean aurkitzen ahal diren era honetako aditzoinak.

Gramatika-kategoria ezberdinetatik sortutako aditz eratorrietan jokabide bateraturik ez da. Horrela, oinarriak amaiko *-t* hori berezkoa duenean, aditzoinean ere gorde egiten da. Adibidez: ***ausart*** (Mc 15, 43) (2), ***bat*** (Lc 8, 27; Io 4, 51), ***berant*** (Act 9, 38) (3), ***lekat*** (Catech 1358-6), ***orhoit*** (Mt 5, 23; Mt 27, 75; Lc 23, 42...).

Oinarriaren amaian sudurkaria ageri denean, berriz, aditzoin guztiak ez dira molde berekoak. Batzuetan *t*-duna izan ohi da: ***chuchent*** (Mc 9, 27), ***erscont*** (Act 3, 7), ***samint*** (Col 3, 19) horzkari ahostuna gordetzen dutenak ere badira, hala nola, ***arind*** (Act 27, 38), ***urrund*** (Lc 22, 41), bai eta alboan oinarri soileko aldaera duten ***ilhund*** (Lc 23, 45) ***/ilhun*** (Rom 11, 10), ***lagund*** (Act 5, 36) ***/lagun*** (Lc 5, 7) ere (4).

Gainerakoetan, oinarria baizik ez da ageri: ***aitzin, appain, azquen, bardin, çuçen, ezcon?*** (5), ***hiragun, karmin***.

Oinarriaren amaierako *-i* bokalaren galeraren ondorioz sortuak diren aditzen artean, ***neurthu*** (< neurri) eta ***çaurthu*** (< zauri) aditzei dagozkien aspektugabeko formak *t*-dunak dira: ***neurt*** (Apoc 11, 1; Apoc 11, 2; Apoc 21, 16...), ***çaurt*** (Mt 21, 35; Mc 12, 3). Aldiz, ***aguertu*** (< ageri) eta ***bihurtu*** (< bihurri) aditzenak *t* gabeak dira beti: ***aguer*** (Mt 1, 20; Mt 2, 19...), ***bihur*** (Lc 2, 45; Othoitz 1269-7).

---

también encuentra junto a vocablos vasc. auténticos y antiguos; ej.: *dasta.tu* 'gustado', *sendi.tu* (2) 'sentido', *besar.ca.tu* "abrazado";.

2.ª Una más antigua, con vocal inicial *e-* o *i-*, que a su vez, según su terminación, se divide en:

a) Los que después de consonante terminan en *i-*; ej.: *e.kharr.i* 'traído', *i.khus.i* 'visto'.

b) Y los que después de vocal terminan en *-n*; ej.: *e.ma.n* 'dado', *i.za.n* 'sido'".

(2) Ohiko bidea jarraituko dugu erreferentziak ematean, hots, kapitulua eta bertsikulua, hurrenez hurren. Testuak halakorik egiteko aukera ematen ez duenean, berriz, orrialdea eta lerroa, edota orrialdea eta zutabea bereiziko dira.

Bestalde, aditzoinen ororen erreferentziak hona aldatzen ibili gabe, nagusien eta bereizgarrien iritzi diegunei soilik alboratuko zaizkie.

(3) Baita ***berant esten*** (Adv 261-24) aditz elkartuaren lehen osagai gisa.

(4) Nolanahi ere, ondarreko ahostun hori grafia mailakoa (ez ahoskera mailakoa) baino ez dela dirudi. (Michelena 1985_3:235; Lafon 1944-II-19).

(5) ***Ezcondu*** aditza eratorria ote den zalantza egin daiteke. Bide beretik, aitortu behar dugu aurrerago aipatuko diren ***eçagutu, garaitu, usatu***... aditzak eratorriez at utzi ditugula baina inolako ziurtasunik gabe.

Bide beretik, ***lothu*** eratorriaren (6) aditzoinak ere ***-t*** gordetzen du bukaeran: ***lot*** (Mt 14, 31; Lc 10, 34; Io 19, 40...).

Ondarreko *-di* silabaren laburdura jasan duten oinarrietatik eratorriak diren ***hantu*** (< handitu) eta ***hertu*** (< (h)erditu)-ren aditzoinek ere ***-t*** dute beti: ***hant*** (Act 28, 6; Rom 11, 20; 1 Cor 4, 6), ***hert*** (Catech 1335-18; Catech 1348-10) (7).

Gainerako aditz eratorrietan molde ugari kausitu ahal izan ditugu. Amaieran ***t***-rik ez dutenak batetik: ***dei*** (Mt 25, 14...), ***eyhar*** (Mt 21, 19...), ***gur*** (Mc 5, 6; Phil 2, 10), ***handi*** (Mc 4, 7...), ***t***-dunak bestetik: ***gueçat*** (Mt 5, 13...), ***ohart*** (Lc 2, 43...), ***urt*** (Act 13, 41), eta bitariko aldaerak dituztenak azkenik: ***arguit*** (Lc 9, 29) ***/argui*** (Mc 9, 3), ***arramberrit*** (Catech 1371-31) ***/arramberri*** (Catech 1306-18), ***churit*** (Mc 9, 3) ***/churi*** (Mt 17, 2), ***guibelerat*** (Mt 16, 23) ***/guibelera*** (Dedic 252-19), ***icit*** (Mt 17, 6) ***/ici*** (Mt 28, 4), ***luçat*** (ABC 1401-14) ***/luça*** (Catech 1321-22).

Eratorriez kanpoko aditzetarik, ondokoak ere ***t*** eta guzti ageri dira Leizarragagan: ***akit*** (He 12, 3), ***eçagut*** (Mt 21, 45...), ***garait*** (Lc 11, 22; Rom 12, 21...), ***usat*** (Somm 278-8...), ***vençut*** (Tit 1, 9; 2 Petr 2, 20). Baita ***iracurt*** ere, behin bakarrik ordea:

Titulu haur bada Iuduetaric anhitzec ***iracurt*** ceçaten. (Io 19, 20).

Aditz-partizipioak, jakina, ***iracurtu*** behar luke, kasu honetan bederen. Hala ere, Leizarragak ez darabil halakorik, baina bai ***iracurri*** (8). Aditzoinaren ohiko forma, berriz, ***iracur*** izanik, ezin ziurtzat jo daiteke ***-i*** ala ***-tu*** bukaerako partizipioari dagokion.

1.2. Aditz eratorri batzuen oinarriaren bukaerak xistukari afrikatua izanik, delako oinarri horri partizipioaren marka eranstean frikaria baino ez da agertu ohi, ***abrastu, hustu, othoiztu*** gisakoak lekuko (9). Halakoetan, aditzoina oinarriak berezkoa duen afrikatua duela azaltzen da. Era honetakoak ditugu ***abrats*** (2 Cor 8, 9), ***bekaitz*** (Mt 20, 24), ***beltz*** (Apoc 6, 12), ***huts*** (Mt 26, 7), ***latz*** (10), ***motz*** (1 Cor 11, 5-6), ***othoitz*** (Lc 5, 12; Act 16, 39) (11) eta ***vitz*** (2 Tim 1, 6).

---

(6) "*lot* 'atar' de *lohi* (part. *lothu*)". (Michelena 1985_3:423).

(7) Aditz-forma laburtua eta laburtugabea ez dira adiera berekoak, Leizarragagan behinik-behin: ***handitu*** 'handiago bihurtu' / ***hantu*** 'hanpatu, puztu', ***erdi (izan)*** 'umea mundura ekarri' / ***hertu*** 'gutxitu, murriztu'.

(8) ***-i*** zein ***-tu*** amaiko beste aditzik ere bada beskoiztarragan: ***iratzarri/iratzartu***. Halakoetan, bigarren moldea ***i***-dun partizipio zaharraren aldaera izan ohi da:

"Nadie debe esperar de estas líneas una luz sobre el origen de *egordi/ekhortü*, ya que no tienen otra finalidad que la de encuadrar esas variantes en un marco más amplio. Por de pronto, queda explicada la formación de *ekhortü* que, como todo participio en *-tu* que no de deja explicar sin más como préstamo o como denominativo, ofrece ya una dificultad de principio. De la confrontación con el roncalés se sigue sin más trámite que esa variante no es sino la forma *seriore* de un part. antiguo, comparable a *irakurtu* de *irakurri* 'leído', *iratzartu* de *iratzarri* 'despierto', *neurt(h)u* de *neurri* 'medido', probablemente *sart(h)u* 'entrado, metido' de *sarri*, etc.". (Michelena 1972:344).

(9) Salbuespenik ez da falta halere, *beltztua* (Decl 1198-2z) adibidez. Gertari beraren isla dira *onhetsten* (Tit 2, 4) eta *othoitztebat* (Decl 1209-1z) aditz-izenak ere.

(10) Behin bakarrik ageri da eta arazle gisa: *latz eraciten* (Dedic 250-2).

(11) ***Othoi*** aditzoina behin darabil Leizarragak: *Guero ilki ciradenean Iuduén synago-*

Boz (Mt 2, 10...) aditzoina da ***-tu*** saileko aditzen artean ondarrean frikaria duen bakarra; oinarria bera ere halakoxetzat jotzekoa dela uste dugu (12).

2. Aspektu burutua ***-i*** egiten dutenen aditzoina marka hori gabea izan ohi da: ***ebil, eçar, egar, ekar, erabil, erekar, eror, estal, ethor, iar, igor, issur, itzul, itzur...***

Ondarrean aditzoinak xistukari frikaria nahiz afrikatua izan dezake:

ahanz (13), ***berez, billuz, edas, erauz, eraunz, eros, haz, has, hez, iauz, iaunz, iharros, ikas, ikus, ikuz, irabaz.***

ardiets, ebats, eder ets, egotz, eracuts, erauts/eraits (14), ***erts, gaitzets, hauts, iauts, ihardets, iracats, iraitz, irets, mirets, ohortz, onhets, sinhets.***

Zerrenda hauetatik at laga ditugun ***eraci, eritzi*** eta ***utzi*** aditzek aipamen berezia eskatzen dute. Izan ere, ondoren ematen ditugun exenpluetan ikus daitekeen bezala, horietan, aditzoinak inoiz ez du amaiko ***-i*** hori galtzen:

> Eta ezgaitzala sar ***eraci*** tentacionetan, baina delivra gaitzac gaichtotic. (Lc 11, 4).
>
> Maiteác, elkarri on ***eritzi*** dieçogun: (1 Io 4, 7).
>
> ***Utzi*** ceçan Iudea, eta ioan cedin berriz Galilearát. (Io 4, 3).

Horrenbestez, hiru aditzoi dagozkien partizipioa eta aditzoina molde berekoak dira Leizarragagan.

Aditz izenen *t(z)e* ezaugarria ere ***-i*** horri emendatzen zaio, hots:

adi eraciteari, bilha eraciteco, eçagut eraciten, orhoit eracitera, gaitz eritzitea, eritziteco, on eritziteco, utziten, utziteco, utzitera...

Eraci, eritzi eta ***utzi***-k duten jokabide honen aurrean, agian ondoriozta daiteke aditzoinak berezkoa duela kasuotan amaiko ***-i*** hori, Leizarragaren hizkeran bederen. Zernahi gisaz, ***eritzi*** aditza dela-eta, besterik ere erantsi behar da. Goiko adibideetan ez bezala, *on/gaitz* eta ***eritzi*** elkarri itsatsita ageri diren aditz elkartuetan ez da ***i***-ren arrastorik ikusten. Adibidez: ***onherizte, onherizteari, gaitzerizte, gaitzerizteric...*** Egia da, halaz ere, Leizarragak inoiz ez duela ***onheritzi*** eta ***gaitzeritzi*** erako partizipiorik erabiltzen, ez adizki perifrastikoetan, ez forma nominalizatuetan; exenplu guztietan aditz-izen gisa baino ez dira ageri. Beraz, ***onherizte-*** eta ***gaitzerizte-***, beren adiztasuna neurri batean galdua dutelarik, agian bete-be-

---

gatic, ***othoi*** *citzaten Gentiléc...* (Act 13, 42). ***Othoitu*** bezalako partizipiorik, aldiz, inoiz ez. Zubereran biak, ***othoiztu*** eta ***othoitu***, ageri dira. (Lhande 1926).

(12) Nahiz euskaraz *botz* aldaera ere baden. (Michelena 1985_3:289). Leizarragagan, ordea, ez dugu honelakorik aurkitzerik izan.

(13) Aditz honen partizipioa bitara ematen du Leizarragak: ***ahanci/ahance*** (behin). ***Ohortzi/ohortze*** aldaeretatik, berriz, bigarrena darabil maizenik. (Schuchardt 1900:161).

(14) ***eraits*** agerraldi bakarrekoa da, arazle gisa: *eraits eraciten* (Apoc 13, 13).

tean izentzat jo beharko genituzke, eta horrenbestez, izenaren araberako tratamentua eman (15).

Bestalde, ***ahanci/-e*** eta ***ohortzi/-e*** aditzetan jokabide bateraturik ez da ondarreko ***-i*** horri dagokionez. Aditzoina beti ***-i*** gabea izanik ere (ikus goiko ***ahanz*** eta ***ohortz*** moldeak), aditz-izena bitarikoa da Leizarragagan, ***i***-duna nahiz gabea: ***ahanciten*** (Adv 255-26), ***ahancitera*** (Othoitz 1268-32; 1272-18) nahiz ***ahanzten*** (Phil 3, 14); ***ohortziten*** (Catech 1312-33; 1347-6; 1365-13) nahiz ***ohorzten*** (Lc 23, 0), ***ohorztera*** (Mt 8, 21...), ***ohorzteco*** (Io 19, 20)...

Ari-k (16), berriz, aditzoin denean ondarreko ***-i*** gordetzen du: ***ari*** *adi exhortatzen* (Tit 2, 15), ***ari*** *adi redarguitzen* (2 Tim 4, 2). Ez, ordea, aditz-izenezko formetan:

> Bere Apostoluac predicatzen eta batheyatzen ***artzera*** igorri. (Mt 28, 0).
>
> *Stadioa*, cen spatio lastercaco chedatubat: orain nehorc barrán ***artzeco*** eguin baleça beçala: (Decl 1212-2z).
>
> Languiten escuz ***artzeco*** eta trabaillatzeco. (Decl 1242-2z).

Erdi-ren aditzoina bitara ageri da: ***erd*** (behin bakarrik) eta ***erdi*** (gainerakoetan):

> Eta ***erd*** cedin seme ar batez...(Apoc 12, 5).
>
> Eta etzeçan hura eçagut, bere lehen semea ***erdi*** cedino: (Mt 1, 25).

Aditz-izena, berriz, ***-i*** gabea da, ***ertzeco***:

> Eta guertha cedin hec han ciradela, compli baitzitecen haren ***ertzeco*** egunac. (Lc 2, 6).

Vici aditzak amaiko ***-i*** berezkoa duela esan liteke, aditzoin nahiz aditz-izenezko moldeetan gordetzen baitu:

> Ecen ni Legueaz Legueari hil içan nazayó, Iaincoari ***vici*** nequionçat...(Gal 2, 19).
>
> Goiticora, baldin Leguean manatzen çaicun formaren araura ***vicitzen*** cinez enseya bagaitez...(Catech 1326-36).

Partizipioa ***-qui, -ki*** (17)***/-gui*** egiten duten aditzez ere beste horrenbeste esango genuke. Hona hemen Leizarragak aditzoin gisa darabiltzan formak: ***auriz-***

---

(15) Hots, forma ihartu edota lexikalizatu gisa.

Koldo Mitxelenaren ustez, bestalde, adizki horietan –baita ***onherran*** (Lc 6, 26) aditzean ere– ageri den aspirazioak benetako elkarketa adieraziko luke:

"Cf. Ioh. 17, 26: *niri on eritzi draután onheriztea* "dilectio quam dilexisti me". La misma diferencia entre *on eritzi* y *onherizte*, donde la aspiración es como la marca de un verdadero compuesto, se encuentra comparando Lc. 6, 26, *onherranen çaituztenean* "cum benedixerint uobis" con 1 Cor. 4, 12, *ungui erraiten dugu* "benedicimus". (Michelena 1985_3:211).

(16) Partizipiotzat jotzekoa, berez, ***ari izan*** bada ere; bide beretik, aurrerago aipagai izango ditugun ***erdi*** eta ***vici***-ren partizipio burutuaren formak ***erdi izan*** eta ***bizi izan*** lirateke.

(17) Herskari aspiratua *(kh)*. Exenplu bakarra: ***ilki***.

qui (Apoc 14, 20; 2 Cor 8, 13; 1 Thes 4, 6), ***aurdigui*** (Io 8, 7) (18), ***ebaqui*** (Io 18, 10; Act 27, 32), ***edequi*** (Mt 25, 28...), ***eduqui*** (1 Thes 5, 13...), ***eraiqui*** (Act 9, 41), ***eratchequi*** (Mt 6, 27...), ***hunqui*** (Io 27, 17...), ***iaiqui*** (Mt 9, 5...), ***iarreiqui*** (Adv 268-28...), ***idoqui*** (Mt 13, 48...), ***iguriqui*** (1 Cor 11, 33...), ***iharduqui*** (Act 11, 2), ***ilki*** (Mt 3, 16...), ***irachequi*** (Catech 1330-19), ***iraungui*** (Eph 6, 16...), ***irequi*** (Apoc 3, 20...) (19). Aditz izenetan ere marka osoa gordetzen dute: ***aurizquiten, aurthiquiten, ebaquiten, edequiten, eduquiten*** (20), ***eratchequiten***...

3. Burutuan marka ageririk ez duten aditzen artean, ***-n*** amaikoak, bai eta ***iayo, io, itho*** eta ***hil*** (21) aditzak ere, albora utzirik (hauetan, salbuespenik gabe, aditzoina eta partizipioa molde berekoak izan ohi baitira), badira Leizarragagan sail honetako beste hiru aditz bereziki aipatzekoak: ***bethe, busti*** eta ***erre***.

Bethe eta ***erre***-ren aditzoina bitarikoa da: partizipioaren eite berekoa bata, ***bethe, erre***, eta ondarrean ***-a*** duena bestea, ***betha, erra*** (22):

> Dioste Iesusec, ***Bethaitzaçue*** kubác urez. Eta ***bethe*** citzaten garairano. (Io 2, 7).
>
> Arte curiositatezcoz usatu ukan çutenec-ere, anhitzec *bere* liburuac ekarriric ***erre***citzaten gucién aitzinean: (Act 19, 19).
>
> Eta regueençunic *hori* asserré cedin: eta igorriric bere gendarmesac, deseguin citzan guicerhaile hec, eta hayen hiria ***erra*** ceçan. (Mt 22, 7).

Aditz-izenak ere ***a***-dunak dira: ***bethatzen*** (Mc 4, 37; Lc 2, 40...), ***bethatzera*** (Lc 15, 16), ***erratzen*** (Mt 13, 40; Apoc 8, 8...), ***erratzea*** (Apoc 16, 8)...

Molde berekoa dugu ***gordatzen*** (Io 12, 0; 1 Cor 16, 2) ere, baina aditzoina ***gorde*** da, eta ez ****gorda-*** (23):

> Baina bat recebitu çuenac ioanic aitzur ceçan lurrean, eta ***gorde*** ceçan bere nabussiaren dirua. (Mt 25, 18).

---

(18) Aditz honen hiru aldaera aurkitu ahal izan ditugu gure *corpus*ean, ***qui***-duna, gabea eta ***gui***-duna: ***aurthiquiten, aurthiten, aurdigui***.

(19) Euskal gramatikak, haatik, ez datoz bat aditzon aspektugabeko forma ematerakoan. Horrela, Gèze (1873), Ithurry (1895) eta Lafitterentzat (1944) ***ilk(h)i / jalkhi / ialgi / jalgi*** aditzoinak ***ki/gi***-dunak dira; beste batzuek, berriz, amaieran ***k*** baino ez dute: ***ebak, eduk, etchek, edek/idek, idok***... Gainerakoetan —euskalki mailako ezberdintasunak direla medio apika— ez da adostasunik hiru autore hauen artean: ***iarraik/jarraik*** (Ithurry, Lafitte), ***jarraiki*** (Gèze)...

(20) ***Eduqueiten*** ere ageri da, bi bider.

(21) Azken mota honetakoak, izatez, adjektiboak baino ez lirateke:

"Des formes comme *bethe* "rempli", *erre* "brûlé", *gorde* "caché", *iayo* "né", *hil* "mort", pourraient faire croire à l'existence de participes terminés par *e* ou *o* ou par une consonne autre que *n*; mais ce sont en réalité des adjectifs employés avec valeur de participe passé; à certains d'entre eux s'est adjoint un participe passé en *a-tu*: *bethatu, erratu, gordatu*". (Lafon 1944-II, 10).

Ik. halaber Michelena (1977:318).

(22) Agerraldiei dagokienez, maizago ageri dira ***e***-dun formak besteak baino.

(23) Bide beretik, ***ehaiten*** (Lc 2, 19; 17, 35); ***eho***-ren aditzoinezko exenplurik ez dugu kausitu, hala ere.

Busti-ren aditzoina, berriz, a-duna baino ez da:

> Orduan harc oihuz cegoela erran ceçan, Aita Abrahám, auc misericordia niçaz, eta igor eçac Lazaro, ***busta*** deçan bere erhi mocoa urean...(Lc 16, 24).

* * *

Amaitzeko, eta ondorio modura, esan liteke Leizarragak ez darabilela beti molde bat bera sail bereko aditzen aspektugabeko forma eratzean. Horrela, ***-tu/ -du*** sailekoetan (eratorrietan bereziki) ikusi bezala, batzuetan amaiko ***-t*** hori berezkotzat har badaiteke ere, sistematikoki hala darabilenean bederen, bestetan beskoiztarrak ez du gisa berean jokatzen. Hau dela-eta, Mitxelenak ***t***-dun aditzoin horien gainean esanak ekarri nahi genituzke hona:

> Desgraciadamente, no se ve con toda claridad cómo se han formado los radicales, pues por ejemplo, cuando el part. acaba en *-tu (-du)*, al radical le puede faltar esta sílaba o bien sólo su vocal final (part. *-tu, -du* / rad. *-t*): el suletino es sin duda el dialecto que cuenta con un número más crecido de radicales en *-t*.
> Una interpretación posible es la siguiente: En los verbos denominativos, lo que acompañaba al auxiliar en un principio era el tema nominal mismo, no el part. derivado: Leiç. *ezadila ichil* 'no te calles' era literalmente 'no te vuelvas callado', *aldara eztadinçát* 'para que no se aparte' lit. 'para que no se haga al lado'. Pero, si el sintagma se comportaba como un compuesto nominal, *-t* podía aparecer al final de ciertos radicales: Oih. *bat nendin* 'me encontré' de *bat* 'uno' (part. *bathu*), lot 'atar' de *lohi* (part. *lothu*), Sauguis *zilhet* de *zilhegi* e incluso Leiç., etc. *hant* 'hinchar' de *handi* (part. *hantu*). Más adelante, se antepondría al auxiliar acaso en ocasiones el participio en vez del tema nominal del cual era derivado. De cualquier modo, -t resultaba útil en cuanto podía convertirse en la marca que lo distinguía del tema nominal en los denominativos: *ur* 'agua' / *urt*, part. *urthu, xuri* 'blanco' / *xurit*, part. *xuritu*, etc. (Michelena 1985_3: 423).

Zernahi gisaz, delako bereizketa hori ez da somatzen Leizarragaren ***argui/arguit, churi/churit*** erako bikoizketetan. Ikus, bestela, ondoren ematen ditugun exenpluak:

> Eta transfigura cedin hayén aitzinean, eta ***argui*** cedin haren beguithartea iguzquia beçala, eta haren abillamenduac ***churi*** citecen arguia beçala. (Mt 17, 2).

> Eta haren abillamenduac ***argui*** citecen, eta haguitz ***churit*** elhurra beçala, halaca non bolaçalec lurraren gainean ecin hain churi eguin baileçaque. (Mc 9, 3).

> Eta othoitz eguiten cegoela, haren beguitharteco formá mutha cedin, eta haren abillamendua ***churit*** eta chist-mista beçain ***arguit***. (Lc 9, 29).

Bestalde, ***eraci, eritzi, utzi, vici*** eta ***-qui,-ki/-gui*** sailekoek berezkoa lukete ondarreko ***-i*** amaia. Baita ***ari*** eta ***erdi*** (salbu ***erd***) aditzoinek ere, nahiz aditz-izenezko formetan besterik erakutsi. Alderantziz, ***ahanz*** eta ***ohortz*** beti ere ***-i*** gabeak direlarik (partizipio burutua ***-i*** egiten duten aditz gehientsuenak bezalaxe), aditz-izena ez da aldioro eite berean agertzen ***(ahanzten/ahanciten)***.

Azkenik, gogora ekarri nahi genituzke aipatu berri ditugun ***bethe/betha, erre/erra*** bikoteak, eta molde bakarreko ***gorde*** eta ***busta*** aditzoinak.

Aditzoin-molde ezberdinen hautatzearen arrazoia, apika, Leizarragak itzulpena ontzean baliatu zuen hizkeran bertan funtsa liteke. Izan ere, zola lapurtarra den arren, zubererazko eta behe-nafarrerazko ukituak ere antzeman ohi direla adierazi izan da behin baino gehiagotan. Itzultzaileak berak, besteak beste "Heuscalduney" (254. or.) deritzan hitzaurrean aitortu zigun bezala, ez zuen hizkera bakar batera lerratu nahi izan, hala jokatzeak irakurle-entzuleen kopurua murriztuko baitzuen. Irtenbidea, beraz, hizkera ezberdinei tartea egitean zetzan, itzullana ahalik eta euskaldun gehienengana iritsiko bazen bederen. Horrenbestez, ez litzateke harritzeko beskoiztarraren lanean zehar hizkera ezberdinetatik jaso moldeak topatzea (24).

Arrazoiak arrazoi, Leizarragak erabili zituen aditzoin-moldeak agerian ipini baizik ez dugu egin nahi izan, arestian agertutako gure asmoari eutsiz. Egungo euskarak jarraitu behar duen bidean sarri askotan atzera begiratzea ezinbesteko gertatzen denez, halaxe jokatu uste dugu geuk ere, biltzar honetarako hizkuntzaren alderdi nimiño bat, besterik ez bada ere, hizpide eta aztergai hautestean.

BIBLIOGRAFIA

EUSKALTZAINDIA, 1987, *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak II*, Bilbo, Euskaltzaindia.

—, 1993: *Euskal Gramatika Laburra: Perpaus Bakuna*, Bilbo, Euskaltzaindia.

GÈZE, L., 1873, *Eléments de Grammaire Basque*, Bayonne (1979, San Sebastián, Hordago).

INCHAUSPE, Abbé, 1858, *Le Verbe Basque*, Bayonne (1979, San Sebastián, Hordago).

ITHURRY, J., 1895, *Grammaire basque. Dialecte labourdin*, Bayonne (1979, San Sebastián, Hordago).

(24) Kontuan izanda, bestalde, lau laguntzaile ere izan zituela —hauetarik bi gutxienez zuberotarrak (Michelena 1961:52, Lafitte 1972:146)— egindako lana berrikusi eta zuzentzeko. Honek ere, behar bada, izan zuen nolabaiteko isla itzulpenaren hizkeraren hainbat alderditan.

LAFITTE, P., 1944, *Grammaire Basque (Navarro-Labourdin littéraire)*, (1962_2, 1979_3, Baiona, Ikas).

—, 1972: "Zer dakigu Leizarragaz?", *Euskera* XVII, 143-148.

LAFON, R., 1944, *Le système du verbe basque au XVIème siècle* (1980_2, San Sebastián, Elkar).

—, 1972: "Joanes Leizarraga, itzularia eta idazlea", *Euskera* XVII, 148-154.

LHANDE, P., 1926, *Dictionnaire basque-français et français-basque.* Tome I, *Dictionnaire basque-français*, Paris, G. Beauchesne.

LEIÇARRAGA, I., 1571, *Iesus Christ gure Iaunaren Testamentu Berria, Kalendrera eta ABC , edo Christinoen Instructionea* (1900, *I. Leiçarraga's Baskische Bücher von 1571 (Neues Testament, Kalender und Abc) herausgegeben von Th. Linschmann und H. Schuchardt,* Strassburg; 1990, Bilbo, Euskaltzaindia).

MICHELENA, L., 1961, *Fonética histórica vasca*, San Sebastián, Diputación de Guipúzcoa (1977_2, 1985_3).

—, 1972, "Léxico vasco y etimología", *Beiträge zur Romanistik und Allgemeinen Sprachwissenschaft. Festschrift Wilhelm Giese*, Hamburgo, 1972, 79-95 (1987, *Palabras y Textos*, Vitoria, UPV/EHU, 337-348).

—, 1977, "Notas sobre compuestos verbales vascos", *Revista de dialectología y tradiciones populares* 33, 245-271 (1987, *Palabras y Textos*, Vitoria, UPV/EHU, 311-335).

SCHUCHARDT, H., 1900, "Introducción a las obras de Leizarraga", trad. I. Ruiz Arzalluz y J. M.ª Velez Latorre (1990, Bilbo, Euskaltzaindia, 127-240).

—, 1923, *Primitiae Linguae Vasconum*, Halle.

BIZKAIERAREN ABERASTASUNETARIK ZEINTZUK DIREN BATUAN SARTU BEHARREKOAK

(Laburpena)

Juan Luis Goikoetxea

Jaun-andereok:

Lehenengo, eskerrak Euskaltzaindiari berba bidea eman didalako. (Hemen irakurriko dudana, prestaturik neukan txosten luzeagoaren egokitzapena da).

(Euskara ikasiak, euskaldun berriak beti izan ditut present, metodo kontuagatik aipatzen ez baditut ere).

1991n 100.000 aletik gora saldu zen *Euskalduntzen* metodoa gauzatu genuenetik hona, 1994ra, Euskara Batua finkatuta ikusten dudanean, euskalkietara irauli gura nituzke begiak, euskara zergatik ez doan plazara da nire buruhaustea eta.

Bat etorri gara, orain arte, euskaldun gehienok Euskara Batuaren hasierako filosofiarekin, hau da, erdiko euskalkien inguruan –gipuzkera, lapurtera eta nafarrera– moldatuko zela, gainerako dialektoak horien osagarri izanik. Pentsakera honetan, inguruko euskalkietakoak –kasu honetan bizkaierakoak– osagarritasun hori norainokoa izan den adierazteaz gain, gure adostasun maila ere erakuts dezagun komeni da. Zeren bat baikatoz euskara batuak euskaldunen gogo-bihotzak erakarriko baditu, hor gure jaioterriko emaitzak ere ikusi behar ditugula.

Gai honen inguruan Ibon Sarasolak hauxe diosku: "Ez dut uste inongo aurkikundea egitea denik euskara baturanzko bidean 'galtzaile' gertatzen ari den euskalkia bizkaiera dela esatea".

Hara bizkaieradunoi planteatzen zaigun gatazkaren gunea: nola erakar euskara batura, ofizialki "galtzailetzat" jotzen den euskalkiko hiztunaren gogo-bihotzak?

1. Euskara batuan bizkaieraren zenbait tasun eta balio ezin dira jaso gabe utzi. Batasuna eraikitzeko orduan, badira euskalkietan elementu batzuk, beste batzuk baino karga semantiko nahiz sinbolismo adietazkorragoa dutenak.

Aipa ditzagun eredutzat har daitezkeen bizpahiru:

– *Berton/bertan:* "Hemen, Gernikako azokan, bertoko ortuariak baino ez dira saltzen".

— *Atzamar/behatz:* Ez dira hile bi Athleticeko futbolariak operatu ohi dituen Vicandi doktoreak gaixoari zuzendu ziola: "Ez behatza ez daukazu apurtuta, baina atzamarra bai".

— *Neba/arreba:* Zer pentsatuko zenuke espainolez mintzatzen direnen erara, "Ane, Mirenen ahizpa da" eta "Ane, Iñakiren ahizpa ere bada" entzungo bazenu? Zentzazio bera barneratzen zaigu mendebaldekooi anai-arrebak entzun edo irakurtzen dugunean.

Ez dukezu ezagutuko sartaldeko euskalkia darabilen idazlerik arlo hau kontutan hartzen ez duenik. Herritar eskolagabekoen ustetan ere, bereizketa hauek egiteko gai ez den esatari zein hizlaria kultur maila eskasekoa da, etxeko euskara baino ez dakiena. Eta esaidazue, zernolako estima gorde diezaioke euskalki honetako seme-alabak euskara batuari, berak txukun darabiltzan formen truke, gorago egon beharko zukeen euskara batuak halako erabilera arrunta eskaintzen badio? Edo zer autoestima eduki dezake, bere euskalkiko aditz ia osoa zokoratuta dakusanean, aporta ditzakeen elementu aberasgarriei ere muzin egiten bazaie? Zertan geratzen da bizkaierak batuarekiko duen osagarritasuna? Jaioterriko zein emaitza aurki dezake sartaldeko hiztunak, batasuna deitzen den euskara horrek gogo-bihotzak erakar diezazkion, bere-berea duentxu hori ere jasotzen ez badu? Batu hori, azken finean —bizkaieraren irakaskuntza arautu arte— ikasten diharduen euskara bakarra izanik, arrotz bilakatzeko zorian da, besteren hizkuntza, inorena, hangoa.

2. Bigarren puntu honetara, ni ez nator neurez. Bizkaieraren aldeko iragarpena berba hutsetan gera ez dadin, euskal letretan, irakaskuntzan eta, oro har, euskal kultur munduan dihardugun lagun batzuk, "Arrazoi barik baztertzen diren Bizkaiko edo inguruko berben aldeko proposamena" zuzentzen diogu ,gaur, Euskaltzaindiari, hasteko 300 hitzetako bilduma aurkeztuz. 300 berba hauek eta jarraikiko zaizkien esamoldeak, gramatika atalak eta abar, egunero komunikabideetan erabiltzeaz gain, idazle nahiz testugileek inongo bereizkeriatan jausi barik, haietaz ere balia daitezen eskatzen dugu, ezen erabili ez direlakoa daukat inoiz.

3. Euskaltzaindiak mendebaldeko euskararekin izan beharko lukeen jokabidea.

Adibide modura, Gramatika batzordeak prestaturiko "Orduak nola esan" iruzkinduko dut.

Zerk daramatza Gramatika batzordekoak, Erdialde, Ekialde, Mendebalde zein Hiztegi Batuko batzordeak darabiltzan Bizkaiera, Gipuzkera, Zuberera, e.a., zokoraturik, Iparralde-Hegoalde bereizketa politikoa mantentzera?

Ezin burutan sartu dut zergatik duzuen Iparralde izendatu, Zuberoa kanpo geratzen dela jakinik, edo Hegoalde, Oñatitik hasita mendebalderanzko ia lurralde osoa kanpo lagatzen duzuela ezagututa.

Zuek Hegoalde deitzen duzuen horretan, bizkaierazko ia forma guztiak saihesten dira. Iruñeko txostenetik Leioarakora iragatean, *ordu batak* gehitu da deskribapenean, ezen gomendioetan horixe ere ez. Gomendioetan bertan ez da aipamenik ere, *ordubatetan, hirurak eta laurenak; bostak eta laurenetan* gisakoei

buruz. Ondorioz, zerk eragotz diezadake Iparralde-Hegoalde bereizketa, Bizkaiera ere baztertzera datorren formula dela sinets dezadan?

Ez ote da korapiloa beste era honetara askatu behar? Batasuna –bat egitea– bi zati –Iparralde-Hegoalde– mantendurik bideragarri bada, zergatik ez sistematikoki saihesten den Mendebaldea /Bizkaiera- ere aipatuta gauzatu batasuna?

Euskaltzaindiko batzordeetan, inon jokatzekotan zuhur eta orekatsu jokatu beharko da, nahiz eta onartzen dugun "Quandoque bonus dormitat Homerus".

4. "Hizkuntzaren hedatzaile berriak" izentatu ditu komunikabideak Jean Haritschelhar euskaltzainburuak, oraintsu. Nik EITBri dagokionean, profesional bikainak direla onarturik ere, ezinbesteko deritzot kritikatzeari.

Konta ezazu, entzule zenbat bider dioten halakorik: Euskaltzaindiak *noa, hoa, doa* onartuarren, EITBn *dijoa* entzungo duzu sistematikoki. Esatariak *det* eta *det* ekingo dio-ni ez naiz hara konbidatuez ari- esatariez baizik -nahiz eta goi –mailako konbidatuek ere estarien erantzunkizun bera izan–.Ezen ez dute askotzarik aurreratu, eta jokatzen dute zein eta dijoa esatea moda bat balitz moduan. Agian entzutez entzunen duzue eta ez duzue adituren. Nire berbengatik ez bada ere, gogoa egizue zuen buruei.

Euskadi Irrati zein Telebistakoen jokabide heterodoxo hori, euskaldunok euskara batua onartzean sinatutako itun eta akordioa haustera dator, eta herri honetan ez da agintea duenik ilegalitate hau konpon dadin arduratzen denik. Hogeitabosgarren urteurren honetan Euskaltzaindiaren erabakiak betetzen hasteko ordua da, ezen euskalkia eta batua bereizten hasi ezik, ez da geratzen lekurik ez bizkaieraren aberastasunetarako ezta goimailako euskarako. Bada garaia, nik uste, Euskadi Irratia nahiz Telebistan euskara batuaren erabilera kalitate kontzeptuan sartzeko.

5. Irakaskuntzarako testugile-hiztegigileei.

Euskaltzaindiari eskari zehatz hau zuzendu gura nioke: Eska diezaiola Hezkuntza Sailari, Bizkaiera irakaskuntzan arautzeko, 25. urteurrena horretarako ere aukera paregabea da eta. Zehatz dezala zein herritan, zein mailatan eta nolako errejistroetarako erabili behar den.

Erlojuaren orratzak hari barik geratzen ari zaizkidanez, hauxe baino ez. Euskal Entzilopediak dakar: "Madari. *iz.* Udare" eta udare baizik ez da definitzen, inguruko euskalkien aberastasunik gabe euskara batua irenduz. Sentitzen dut denborarik eza.

6. Ondorioak

1. Azken 25 urteotan euskara batuak ezagutu duen aurrerakada pozgarriarengatik zorionak eman behar zaizkiola Euskaltzaindiari.

2. Mende laurden honetan –espainolarengandiko higadura ahanzteke– bizkaierak arestian entzundakoagatik, arrazoirik gabeko baztertzea jasan duela –irakaskuntzan ere bai– eta egoera bideratzerakoan Euskaltzaindia badela nor. Izan ere noredonork izan behar du munarri.

3. Euskaltzaindiaren filosofiak darakuskigunez, Batua ez dela inongo euskalkirekin identifikatzen, denak baino gorago dagoela eta dialekto guztiak dituela oinarri. Beraz, Euskal Irrati zein Telebistan ere batuaren erabilera bermatzeko kalitate kontrolean iragazi behar dela.

4. Akabuan eta goienean, euskara batua behin eta berriro entzun eta erabiltzean, ohiturak, klitxeak edo berrikuntzak sortu ahala, euskalkietan daukagun kolorea, musikalitatea, gurpila, batuak ere bereganatuko du: Azken 25 urteotan ohitu gara Luis Mitxelenaren ordez, Koldo Mitxelena entzutera; ez, berriz, oraindik, Aita Koldo Villasante entzutera.

TXOSTEN OSOA

"Bizkaieraren aberastasunetarik zeintzuk diren batuan sartu beharrekoak" izeneko txosten hau, 75. urteurreneko batzorde akademikoak, XIII. Biltzarraren barruan, urriko astelehen honetakoetan azken jarri duela oharturik, gaurkoan jakituriaz asaskaturik ere aurki zaitezketenez, euskaltzain orduzainen begiradapean, hasi egingo naiz hamar minutuen aurkako lehian.

Euskara Batuaren filosofia dela-ta, goizeko hitzaldian Aita Luis Villasante halako autoritatez mintzatu hain egokiro mintzatu zaigunean, niri apurra gehitzea baizik ez dagokit.

Izenburu adierazkor hau aurkeztea, lotu-lotua dator Euskara Batuaren 25. urteurrenarekin, ezen argi baitago Batuari buruzko hausnarketa zein erabakiak hartzen diren une berean, euskalki literarioetako ikuspegiak ere azterketa merezi duela.

Bat etorri gara, orain arte, euskaldun gehienok Euskara Batuaren hasierako filosofiarekin, hau da, erdiko euskalkien inguruan —gipuzkera, lapurtera eta nafarrera— moldatuko zela, gainerako dialektoak horien osagarri izanik. Pentsakera honetan, inguruko euskalkietakoak —kasu honetan bizkaierakoak— osagarritasun hori norainokoa izan den adierazteaz gain, gure adostasun maila ere erakuts dezagun komeni da. Zeren bat baikatoz euskara batuak euskaldunen gogo-bihotzak erakarriko baditu, hor geure jaioterriko emaitzak ere ikusi behar ditugula.

Hala mintzatzen da Ibon Sarasola: "Ez dut uste inongo aurkikundea egitea denik euskara baturanzko bidean 'galtzaile' gertatzen ari den euskalkia bizkaiera dela esatea". Horretarako arrazoi bi ematen dizkigu: "Alde batetik bazter (edo albo) euskalkia da bizkaiera. Bestetik, literatur bizkaierak pisu edo indar aski badaezpadakoa izan du azken mendeetan,..." (1).

Hara gatazkaren gunea! Nola erakar euskara batura, ofizialki "galtzailetzat" jotzen den euskalkiko hiztunaren gogo-bihotzak?

Ez dut uste okerrik egiten dudanik, badiot ezen bizkaieraz berba egiten dugun euskaltzaleok puntu hauetan ados gaudela: batetik, bizkaieraren presentziak handiago izan behar duela euskara batuan; bestetik, bizkaiera "galtzaile" atera daitekeen une, gai, arazo bakoitzean bizkaieraz mintzatzen direnek present egon behar dutela. Behin eta berriz hartzen baitira galtzailetzat, ez antzinatasun edo literatur lekukotasunik ez dutelako, beste era bateko arrazoiak erabili direlako

1. SARASOLA, IBON: "Bizkaiera eta euskara batua: eritzi-iritzi eta nire-nere literatur tradizioan". *Luis Villasanteri Omenaldia*, IKER 6, Bilbao, 1992, 451. or.

baizik. Eta ahantzi gabe Mitxelena jaunak dioena: "...la unidad lingüistca siempre se impone por razones esencialmente extralingüísticas" (2).

1. BIZKAIERATIKO ZEIN ABERASTASUN SARTU BEHAR DA EUSKARA BATUAN?

Txosten honen bigarren partean 300 hitzetako proposamen zehatza burutu aurretik, euskalkiko aberastasunen gaineko kriterio orokor batzuk gainbegiratu gura nituzke.

1.1. Bilketaren balioa

Euskaldunik baizen ez zegoen lekuan nengoela —75 urtetik gorakoak denak—, zeuri entzule horri ere edonoiz suertatu izango zitzaizun antzera, "Jesus Atxutiko *barrekarie* esta" jaso nuen 1990.12.09an. Barrekari hitzari geroxeago *barretsua* sinonimoa gehituz. Gertaera honen aurrean, zein izan daiteke jokabide razionala? Nik badakit hizkuntza idatziko autoritatea, beti izan dela eta dagoela hizkuntza idatzian. Azkuek, ordea, ez dakar; ez Lino Akesolok; ezta Euskal Entziklopediak ere. Badakartzate, ostera, barreka, barrekor, barrekera, e.a. Mitxelena jaunak zera diosku: "Según Azkue, la autoridad de la lengua hablada es ...verdadera soberanía en nuestro caso" (3).

Gurea bezalako literaturan, Iztueta denean XIX. mendea oso aurrera joanda dagoela, lehen sekularra prosaz gai ez erlijiozko ez diren gaiez idazten duena, jasogabeko aberastasunak mespresatzeko moduan ez gara. Bestalde, egunero-egunero kanpotiko berbak geureganatu beharrean aurkituta, zergatik ez euskalkiaren harrobitik Atlas Linguistiko zein tesi doktoralen bidez zientifikoki dokumentaturikoak batu eta hiztegietaratu? Honetan edozein euskalkiren ekarria —kasu honetan bizkaierarena— zalantzagabea da.

1.2. Bizkaieraren autoestimako elementuak

Batasuna eraikitzeko orduan, badira euskalkietan elementu batzuk, beste batzuk baino karga semantiko nahiz sinbolismo adierazkorragoa dutenak. Sekula *aitona* hitza erabili ez duenari oso estrainio gertatzen zaio etxeko *aititari, aitona* deitzea. *Agiri da* edo *ageri da* idaztea, berriz, herritik herrira ere aldaketak ezagutzen diren Euskal Herri honetan, ez da ohiz kanpoko.

Bizkaieraren autoestimako elementuen artean badauzkagu eredutzat har daitezkeen bizpahiru:

---

2. EUSKALTZAINDIA. *Euskararen Liburu Zuria.* Bilbao, 1978. 16. or.
3. MITXELENA, K.: *Estudio sobre las fuentes del Diccionario de Azkue.* Publicaciones del C. de E.H. de V. (R.S.A.P.) Bilbao 1970.31-32. or.

– *Berton/bertan:* "Hemen Gernikako azokan bertoko produktuak baino ez dira saltzen".

– *Atzamar/behatz:* Ez dira hile bi Athleticeko futbolariak operatu ohi dituen Vicandi doktoreak gaixoari zuzendu ziola: "Ez, atzamarrik ez daukazu apurtuta, baina behatza bai".

– *Neba/arrebak:* Zer pentsatuko zenuke espainolez mintzatzen direnen era-ra,"Ane, Mirenen ahizpa da" eta "Ane, Iñakiren ahizpa ere bada" entzungo ba-zenu? Zentzazio bera barneratzen zaigu bizkaieradunoi anai-arrebak entzutean.

Ez dukezu ezagutuko sartaldeko euskalkia darabilen idazlerik puntu honetan huts dagianik. Herritar ezjakinen ustetan ere, bereizketa hauek egiteko gai ez den esatari zein hizlaria kultur maila eskasekoa da, euskara txarra darabilena. Eta gal-dera da, zer arrazoi dagoke –beste euskalki batek batuari eragindako inposizioa ez bada– bizkaieradun eskola-umeak osotasunerako aberats diren forma hauen lekuan ,bere ikuspuntutik euskara txiroa dena ikasi behar izateko? Zer-nolako es-tima gorde diezaioke euskalki honetako seme-alabak euskara batuari, berak txu-kun darabiltzan formen truke, gorago egon beharko zukeen euskara batuak hala-ko esamolde arruntak eskaintzen badizkio? Edo zer autoestima eduki dezake bere euskalkiko aditz ia osoa zokoratuta dakusanean, aporta ditzakeen elementu abe-rasgarriei ere muzin egiten bazaie? Zertan geratzen da bizkaierak batuarekiko duen osagarritasuna? Jaioterriko zein emaitza aurki dezake sartaldeko hiztunak, batasuna deitzen den euskara horrek gogo-bihotzak erakar diezazkion, bere-berea duentxu hori ere jasotzen ez badu. Batu hori, azken finean –Bizkaieraren irakas-kuntza arautu arte– ikasten diharduen euskara bakarra izanik, arrotz bilakatzeko zorian da, besteren hizkuntza, inorena, hangoa.

1.3. **Lexikoaren ekarria**

1.3.1. *Ikusak:* Euskara batua-euskalkien arteko harremanetan, Ikus-en (Ik.) era-bilerak darakuskigun jarrera.

Hartzen badut eskuetan Hiztegi Batuko batzordeak prestaturiko zerrendan *ezain* berba, hauxe aurkitzen dut:

Ezain: Bizk. Ik. itsusi. Nik, erabileremu geografiko dialektalekoa izanik, onartzen dut Ik. jartzea, baina, beti ere, *Ezain* bera eta dagokion tokian definitu ondoren. Bestela, berba hori beste ele batetarako bide baizik ez da, entitate ga-beko. Ondorioz inor ez da hartaz baliatuko.

Alkar Ik. *elkar* edo *elgar* Ik. *elkar* jartzeari egoki deritzot.

Ezain hitzean soilik gertatuez gero, gauza nimiñoa litzateke. Ostera, jokabide horrek milaka berba harrapatzen dituenean, ondorioak oso dira kaltegarri. Hogei-tabost urteren buruan aski garbi ikus ditzakegu emaitzak. Arrazoi barik baztertu diren eleak ahala dira. Ez, gainara, testu idatzietan solik, ezen Euskal Irrati Te-lebista zein irakaskuntzaren bitartez jendearengana ere artez-artez heltzen baitira. Akabuan eta goienean, entzule edo ikasleak ulertu duena honelaxe labur daiteke:

"Ikastolan *adibidez* idatzi behar da, ez *esate baterako*"; telebistan *asmatu* da erabilgarria, sekula ez *igarri.*

1.3.2. *Hitzen euskalkiko jatorria seinalatzeaz*

Euskaltzaindiko batzorde batzutan bada, oker ez banago, bideratu gabe jarraitzen duen arazoa, noiz eta zein kasutan erabili euskalkiko siglak edo lurralde desberdinei dagozkienak.

1994.03.25eko Gramatika Jardunaldi Iruñekoetan aipatu nuenari indar egitara nator."Orduak nola eman" sailean, Iparraldea eta Hegoaldea baizik ez dira onartzen. Honi gehitzen badiogu, Hegoalderako bizkaierako formarik ez dela aintzat hartzen, ondorioa, diafanoa da: Sartaldeko euskaldunak, euskaldunberrien sailean sartuak daude. Dakusagun:

– "Ordu osoak adierazteko ez dago arazo handiegirik", dio:

"*Ordu bata/oren bata...* Iparraldean *hiru orenak* ere bai". Bizkaierazko *ordu batak* ez da aipatzen. Leioan bai

– Hauek deklinatzeko ere ez dute arazorik:

"Ordu batean,..."

Bizkaierazko *ordu batetan* ez da aipatzen.

– "Erdia eta laurdena":

"Hiru eta laurdenak".

Bizkaierazko *hirurak eta laurdenak* ez da aipatzen.

– Kasu marka eranstean modu erregularrean deklinatuko lirateke:

"Bost eta laurdenetan,..."

Bizkaierazko *bostak eta laurdenetan* ez da aipatzen.

Iparraldeaz oharra egiten da:

"Hirurak eta erdiak baina hirurak eta laurden".

Honenbestez, itaundu beharrekoa hauxe da: Batasuna –bat egitea– bi zati –Iparraldea/Hegoaldea– mantendurik posible bada, zergatik ez, sistematikoki baztertzen den Mendebaldea –bizkaiera– ere aipatuz ez gauzatu batasuna?

Egin diezaiegun so Euskal Herriko Hizkuntz Atlasari eskaintzen dizkigun argibideei:

1.1. *Ordubatak:* Mendebaldean.

1.2. *Ordubata:* Erdialdean.

1.3. *Oren bata:* Lapurdi, Nafarroa Beherea osorik eta Nafarroako ekialderantz.

1.4. *Oren Bakhotxa:* Zuberoan.

Ordubatak:

Herriz herri Bizkaiko lurralde osoan esateaz gainera, Aramaion, Arrasaten, Oñatin ere erabiltzen da.

Hiztegi Batuko batzordeak, Asun hitzean, (B), (G) eta (Ipar.) badarabiltza, baita beste leku batzutan (Zub.) ere.

1.3.3. *Hitzen espezializaiorako iturri da euskalkia*

Euskara Batuko batzordearen zerrendetan hurrengo hau irakur daiteke:

Eroan: 1. Bizk. Ik. eraman. 2. Fis. (beroa *eroan,* elektroiak *eroan*); *eroale, eroaletasun...*; baztertzekoak gabe, bereizketa semantikoak.

Eraman euskara baturako gorderik, bizkaierako eroan bereizketa semantikoetarako erabili da.

1.3.4. *Euskalkia ñabarduretarako bide*

— *Burumin/burukomin:* "Denetan leader izan gura duenak ez du *buruminik* faltako; *burukomina,* berriz, aspirina bakarrak ken dezake".

— *Bururik eginda ibili/burutik eginda ibili:* "Zergaren adierazpenerako paperak argitu ezinda, *bururik eginda dabil*". "*Burutik eginda* dagoena, aldiz, psikiatrikoan sartu ohi dute"

Tankera honetakoak ehundaka aurki daitezkeela Euskal Herrian zehar? Seguru baietz!Behin eta berriro, grabaketetan jaso dugunean, nahiz eta testu idatzietan ia ez aurkitu, zelan jokatu? Ez balira bezala?

1.3.5. *Euskalkia hizkuntza mailak sortzeko*

Hiztun bakoitzak hizkuntza mailez baliatzean erabiltzen ditugun erregistroetan euskalkiak laguntza aparta eskaintzen du. *Atoan* berba kolokiala eta jasoagoa den *berehala* adibide egokiak dirateke."Izan ere, hitz guztiak ez daude maila berean: hitz bat maila arruntean ongi egon daiteke, eta hortik kanpo gaizki; eta alderantziz, maila klasikoan on dena, lagunartekoan bere tokitik kanpo da" (4).

4. VILLASANTE, LUIS: *Euskararen Auziaz,* Lizarra, 1988, 225. or.

Hortxe koka daiteke seme-alaba eskolatuen eta gurasoen arteko hutsegitea. Eskolan erabiltzen dugun erregistroa da bat, eta desberdina etxekoa. Bata bestea barik ez dira oso. Gatza eta piperra ere hortixe datorkio hizkuntzari askotan. Ez diozu Lehen Munduko Gerraren aurretik jaiotako amama bizkaieradunari "berehala itzuliko natzaizu" esango; bai, ostera,"atoan natortzu", forma kolokiala.

Era berean, mentalitate itxia erakusten da Euskadi Irratian goizero-goizero eguraldiaren berri ematean, *haran* hitz jasoa daukagularik ,bailara berba arruntagoa soil-soilik erabiliz.

1.3.5. *Eskualdeko edo inguruko labela duten berbak*

Badira herri edo eskualde desberdinetan maiztasun oso handiko hitzak, area horretatik landa bizitzarik ez dutenak. Nork ez daki *upielakoa* ahotan darabilena Gernikakoa denik?; *ahalekoa* dioena Lezamakoa?; edo *asago* erabiltzen duena Mungiakoa?; *egin ezkeran* esaten duena Deriokoa den bezala?

Halakoen artean badira zenbait Euskara Batuari bikain datozkionak. Horietakoa da *beilegi* (horia). Arratia, Orozko, Txorierri, Mungia, Bermeo, Lekeitio, Markina, hots, bizkaieran bertan mendebaldekoa baino izan ez arren, olerkarien bitartez —Aresti (gualda), txaga...— eta, erabat hedatu dena. Mitxelenak, Azkueri buruz hauxe dio: "finalidad restauradora, nunca ha ocultado su esperanza de que algunas de las palabras caidas en desuso o todas ellas pudieran incorporarse al caudal vivo de la lengua, al menos en su forma escrita" (5).

Hainbeste oihartzunetako kalifikatiboen asmorik gabe, jokabide horretan ezar daiteke txosten honetako bigarren zatiari dagokion izenburua, alegia, "Arrazoi barik baztertu diren Bizkaiko edo inguruko berben aldeko proposamena"

Gai bera garantzeari ekinez, pare bat hitz gehiago aipatu gura nituzke. Lehena, *Lukia.* Gure *Europa Hiztegian*, Adorez 6, Bilbo, 1993, badator, Euskal Entziklopedian ere bai, baina definitu gabe. "Luki, ikus azeri". Nik, aldiz, euskara batuari oso egoki datorkiokeela uste dut, zeren, bestela, zein dateke euskaraz azeri berbaren sinonimoa? Bestalde, jatorri argi-argikoa da,(lucius) eta toponimian oinarrituta dago, *Lukieta.* Eratorriak ere ugari ezagutzen dira *Luki-beder; Lukikeria; Lukikume.* Ondorioz, hiztegietan jasotzeaz gainera, definitu ere egin behar da. Ezen ezer idazle denak berez-berez baliatuko baita berataz.

Kasu honetan ere euskalkia, batuak darakusan urritasuna —edozein hogeitabost urteko gaztek leukakeena— emendatzera dator. Zalantza barik dira euskalkiak batua osotzeko iturri.

Fenomeno beretsua eskaintzen digu *Firu* (haria) berbak. Ohartzen naiz ezen *Firu* hitzak nekez eskura dezakeela Hari ele aberatsak bereganatu duen ezagupena, hala ere, idazle edozeinek erraz izan dezake premiazko. Bizkaieraz landa Baigorrin ere esaten da; edo bigeminaturik ere bai bertan *Ari-firu* edo *Ari-biro* Sarai-

5. MITXELENA, K.: op. cit.,31. or.

tzun. Ez du inoiz idazle, poeta zein kazetari inongok *Hariren* sinonimo premia nabarmendu? (ikus *Sinonimoen hiztegia*, Adorez 3, Bilbo, 1988).

Tankera honetako berbak, eta berbak baino gehiago esaera, hitz jokoak, e.a., euskalkikoek eurek, gurasoen magaletik edo euskaldun betikoengandik jaso dutenek finkatu behar dituzte batuan, erabiliz, argitaratuta. Ezen, bestela, zalantzatan, ziurtasunik gabe diraugun bitartean ez baikara erabiltzen ausartuko. Halaxe mintzatzen zaigu Mitxelena: "Hacer es una operación cuya naturaleza comprendemos sin dificultad, pero los ingleses, cuando hablan de *hacer* unas veces dicen *make* y otras *do*, con una distinción que no es fácil de establecer para quienes no lo han aprendido desde niños" (6).

Ez genuke ahantzi beharko, nik uste, badirela euskarazko milaka hitz hiritarren oroimenean, erdi lo, zeinak irrati-telebistetan sekula entzuten ez diren, jendeak ezagutu arren. Horietako zenbait sartu ditugu gure zerrendan, bizi-biziak asko, harrigarriak zenbait, guztiz aberatsak denak.

1.4. **Euskalkia estilorako bide**

Estiloa posibilitate desberdinetarik bat hautatzen dugunean gauzatzen dela irakasten digu Federiko Krutwigek (7). Uraren barreneraino murgildu barik, muga gaitezen determinatzaileen bidez hatzeman daitezkeen baliabideetara.

Bai hitz soil nahiz sintagmek, gero eta maizago determinatzen ditugu euskaldunok, jadanik XVI. mendetik, behintzat (8). Hala ere, gaurko betiko euskaldunaren ahotan topatuko ditugu estilo balioa duten izen sintagmak.

1.4.1. *Artikulua*

Gazte etorri da / Gaztea etorri da. Bigarren perpausa hutsean erabilita, hizkuntzak eskaintzen dizkigun posibilitateetarik bat galdu egiten dugu, informazioa galtzen dugu.

"Ameriketan hogei urtetan egon ostean *gazte* etorri da". Zahartu gabe esan nahi da. *Zaharra* –80 urtetakoa– ez da etorri, *gaztea* -18koa-etorri da. Kasu bera beste hauetan: *Eder da / Ederra da; Berdin da /Berdina da*, e.a. Ahozko bizkaierak osorik gorde badu Axularrek maisutasunez zerabilen determinatzailea, zeren izenean saietseratu? Hala gerta baledi, batua mendebaldeko euskararen ekarririk gabe, urritu, txirotu, ikoldu egingo litzateke.

---

6. MITXELENA, K.: op. cit.,33. or.
7. KRUTWIG, F.: "Stylistikeaz eta styloari buruz", 16. orr, Azkue Biblioteka, Euskaltzaindia.
8. IRIGOYEN, A.: *De re philologica linguae vasconicae*, II, Bilbao, 1987. 54. or.

1.4.2. *Urera-uretara*

Euskaltzaindiaren batzordeko Euskal Gramatikan, kasu marka hartzen duten izen sintagmetan, bereizketa hau Nafarroan egiten dela dakar (9). Baina nik 1989ko irailaren 11an Mungian grabatuta daukat:

"Andi goiti urera da gure basoa". Halandaze uretara, bai, urera ere bai.

1.4.3. *Erakusleak*

Arestian aipaturiko gramatikak izen sintagmen eskumako muturra dagokiela diosku. Hala izanik ere, *Etxe hau*-ren aldamenean *Hau etxe hau* ere badaukagunez, aukerarako bidea eskaintzen zaigu hor.

Baliabide beretsua damaigute *asteon* / astean singular eta plural hurbilek.

1.4.4. *Zuka*

"Aita bizi du horrek"

1.5.1. *Esaerak*

"Akabuan eta goienean"

"Ez da gari garbia"

"Beleak ez dau belakirik jaten"

1.5. **Ahozko literatura**

"Bertsio asko aurki daitezke testu berarenak..., transmisioa euskalki beraren barruan egiten bada,...orduan testua bizkortasunez betea helduko da (...). Baina testuarentzat galgarri da: ...transmisioan euskalkiz aldatzea..." (10).

1.5.2. *Gertaerak eta umorea*

Euskalkiak bere baitarik sortu izan dituen umorezko zenbait atal, batu hutsa jakinda ulergaitz dira.

9. EUSKALTZAINDIA.: *Euskal Gramatika, Lehen Urratsak-1.*
10. LEKUONA, J. M.: *Ahozko Euskal Literatura.* Donostia, 1982, 31. or.

Bizkaierazko leia,"izotza" da euskara batuan.

"Ba , 1968ko negutean, jubilatu gernikarra, leia zegoen arratsalde baten, oraindik Erregoiti ganan bazela eguzkia ikusirik, bertara abiatu zen makila lagun, tipi-tapa. Aurrez- aurre eta goitik behera goardia zibilen bikotea, sei adarrekin. Parera heltzean itauntzen diote:

—¿Cómo viene usted por aquí?

—Escapando de la ley! -erantzun zien.

Euskara batua bera ere, orain hogeitabost urte sortuko ez zituzkeen esamolde aberatsak eraikiz doa: "Zergaren adierazpenak darakusa zer garen", esate baterako.

Behin eta berriro entzun eta erabiltzeak ohiturak eta modak sortu ahala, euskalkietan geneukan kolorea, musikalitatea, gurpila, batuak ere bereganatuko du: ohitu gara Koldo Mitxelena jauna entzutera, ez oraindik, ordea, Aita Koldo Villasante.

1.6. **Bizkaieraren ondaretik euskaltzaindiak baturako hartu dituen elementuetariko batzuk**

1.6.1. *Nire*

— Ni izenordainaren noren kasukoa, ene ere maila jasoa gorako gordez. Horrela *nere*ren ondoan *nire* hobetsiz.

1.6.2. *Ain*

Bukaera duen hitz-saila. *-Ain* eta *ai* aldaerak dituzten berbetan, -ain formak gomendatzen direnean: artzain, atezain, ertzain, e.a.

Poztekoa da puntu honetaz Euskaltzaindiak 1992an, 1968an erabili zen batasuna egiteko filosofia ez bertanbehera uztea: "Bizkaian eta Iparraldean erabiltzen diren formak dira, bat datozenean hobestekoak" (11).

1.6.3. *Nor/nortzuk; zer/zertzuk; zein/zeintzuk*

Aberasgarri da honetan, bai mendebaldeko euskaran zein euskara batuko idazleen artean erabili ohi diren *Nortzuk, Zertzuk, Zeintzuk* ez baztertzea. *Nor, Zer,* eta *Zein*-i lehentasuna eman arren. Jakinik, gainera, bizkaieraz berba egiten

11. EUSKALTZAINDIA: *Euskera*, 37. (2. aldia), 1992, 331. or.

dugunok ere betiko euskaldunen ahotan, 1994.ean, honela ere entzuten dugula: "Nor dire órrek, ba?"

2. 300 HITZETAKO PROPOSAMENA

Euskal letretan, irakaskuntzan, eta, oro har, euskal kultur munduan diharduguen lagun batzuk, (Alfonso Irigoyen, Xabier Kintana, Adolfo Arejita, Iñaki Gaminde, Maribi Unamuno, Kepa Altonaga, Joseba Butron, Iñaki Sarriugarte, Jesus Mari Txurruka, Xabier Kaltzakorta eta Juan Luis Goikoetxea) "Arrazoirik gabe baztertzen diren Bizkaiko edo inguruko berben aldeko proposamena" zuzentzen diogu Euskaltzaindiari, hasteko 300 hitzetako bilduma aurkeztuz.

Elkartu gara, hasi gara solasean eta euskalkiko biztanleen gogo-bihotzetan bizi-bizirik dirauten 300 berbatako zerrenda osatu dugu. Ostean jo dugu hiztegi zein liburuetara, aurretik geneuzkan susmoak berehala baieztatuz: anitz berba ez zeuden jasoak inon ere. Eta proposamena publikoan aldarrikatzea erabaki dugu, ezen, gure eritzian, 300 hitz hauek eta gehiago, egunero telebista-irratietan erabiltzeaz gain, idazle nahiz testugileek inongo bereizkeriatan jausi barik, haietaz balia daitezen gura baitugu.

Arrazoirik gabe baztertzen direla froga dezadan ez da neke handirik behar, ale bakana aski adierazgarri gerta baitaiteke, alegia, *artez* hitza. *Artez,* zuzena, justua zentzuan. Badakar Axularrek, baita Mogel, Añibarro zein Azkuek, eta ahozkoan egunero-egunero darabilgu. Eskola testuetan zein irrati-telebistan ez balitz bezala da. Guk, ordea, eman egin behar zaiela uste dugu bultzadatxoa; beste hainbestean jokatuz Iparralde-Ekialdeko eleekin.

XIII. Biltzarre honetara aurkezteko, lehen partean deskribatutako kriterioetan oinarturik jarraiko hiztegietara jo dut laguntza eske:

1. Hiztegi Batuko idazkari den Jose Antonio Adurizek, jentileziaz, helerazitako hitz zerrenda A-B-C-D-E letrei dagokiena.

2. Azkueren *hiztegia.*

3. Lino Akesolok eta buruturiko *Diccionario Retana de Autoridades del Euskera.*

4. Pierre Lhande-ren *Dictionnaire Basque-Francais.*

5. *Orotariko Euskal Hiztegia.*

6. *Euskal Entziklopedia.*

7. *Europa Hiztegia.*

Iruzkinari E letrarekin ezarri beharko nioke xedarria, zeren uste osoan bainago Hiztegi Batuko batzordekideek, E letratik aitzinerakoa taiutzerakoan, 300 berbatako zerrenda hau oso-osorik jasoko dutela, eta, ondorioz, ezabatu egingo digutela kritiketarako arrazoia.

XIII. Biltzarrerako burutu ez bada ere, guk zerrenda honetako berbak definizioz hornitu eta adibidez jantzirik jendarteratuko ditugu.

BIZKAIERATIK BATURAKO EKARPENAREN HASIERA

Hiztegiño hau gorpuzterakoan kriterio hauek hartu dira kontuan:

1.1. Ez dira zerrendan sartu, Bizkaierako jatorrikoak izanarren, euskara batuan normaltasun zabala irabazirik duten hitzak. Adibidez *ulertu.*

1.2. Ezta ere euskara batuan zabaldurik dagoen hitz baten aldagarri txikia denean. Horretara ez da *bildur* hitza sartu, *beldur* forma zabal dabilenez gero. Ezta ere *agiri izan* multzoa, *ageri izan* zabal dabilenez gero, eta abar.

2. Arautu barik dauden berben forma idatzia ere finkatu dugu: ZEREDOZER, "zerbait". Hitz hau modu desberdin hauetan aurkitu izan dugu eskribaturik: *zer edo zer, zeozer, zerredozer, zeredozer.*

Badira gehiago ere arautu beharrekoak, eta hori bideratzeko talde-lana egin beharko litzateke. Hasteko, argitara atera berharko lirateke arautzeko liratekeenak. Esaterako: *gesu baten / gesi baten:* Mogelek lehenengoa darabil.

4. Gure ustez Euskaltzaindiko Hiztegi Batuko batzordeak berba guztiak jaso behar lituzke. Zerrenda honetan agertzen direnetatik A-tik G-rainokoetan gure 109 hitzetatik erdiak inguru ez dira jaso orainarte Hiztegi Batuan. Guk nor bil daitezen gura dugu.

5. *Aitita / amama*, eta abar, ere sartu ditugu *aitona / amona* formak ere badirela jakinarren. Halako hitzak hain karga expresivo handia dute, non *aitita / amama* direlakoak erdaldunen artean ere antzinatik ezagunak baitira. Gainera edozein pedagogori ulerkaitz egiten zaio, ahotan *amama* besterik ez darabilen umeak halako hitzik euskaraz inoiz inon irakurriko ez duela posible izatea. Eta abar.

6. Berba jakin bat zenbait kasutan bizkaierazkoa bakarrik izan ezarren, zabalagoa baizik, sartu egin dugu, baldin beste arrazoiren bat tarteko agertzen bada. Harrigarriena *madari* dateke. *Madariaga* oso deitura zabaldua da: *Bautista Madariaga* bertsolari nafarra esate baterako. Eta toponimian berdintsu. Azkue-ren hiztegiak AN, Bc, BN, L, S-kotzat ematen badu ere *Euskal Entziklopediak* "MADARI, iz. *Udarea*" dakar, eta UDARE definitzen du. Testuetan ere arrazoirik gabeko jokabide berbera azaltzen denez gero guk sartu egin dugu. Izan ere ez baita Entziklopediarena, kasu honetan, batasuna eraikitzeko jokabiderik orekatuena.

Edozein hiztegigileri experientziak irakatsi dionez, berba bakoitza definitzerakoan zenbait sinonimo edo antzeko direnak aggertzeaz aparte, esaera, modismo eta euskal kulturako ondarean diren erabilera ugari ere azaltzen baita, halakoen berri ere eman da inoiz edo behin.

Sartu diren Bizkaiko berbok euskara batuko hitz moduan erabili ezinik ez dago, eta gainera uste dugu halakotzat hartu behar liratekeela. Halandaze ez dugu

onartzen hitzok markatzea, hau da "Ikus" edota "bizk.", edo antzeko beste oharrik eranstea, eta orokortzat har daitezen nahi dugu.

Hitz-zerrenda hau hasiera besterik ez da, zeren oraindik hainbat eta hainbat zehaztasun argitzeko gelditzen baitira, eta etorkizunean lan hori egiteko asmoa dago.

BIZKAIERA	SINONIMOAK	ANTONIMOAK	GAZTELERA	ADIBIDEA
Abade	Apez, apaiz		Cura	
Abaro			Refugio	(Mugagabean erabiltzen da)
Abat	Abat		Abad	
Abazuza	Inetasi, Linetazi, Txingor		Granizo	
Adar	Adar		Respaldo, Cabecera	Adibide piloa dago *O.E.H.*-n
Afrontu			Intemperie	
Agiraka egin	Haserre egin, Errieta egin (eman)		Reprender, Reñir	
Ahozpez		Aratinik	Boca abajo	
Ailubeta			Pábilo, Mecha	
Aintzat hartu	Aintzakotzat hartu		Tomar en consideración	
Aitajaun	Aitona, Aitita		Abuelo	
Aitaxe	Aitaginarreba		Suegro	*O.E.H.*-n ez dator. Azkue eta Añibarron bai, baina, 'abuelo', zentzuan.
Aitita, Aittitta	Aitona, Aitajaun		Abuelo	
Albait (lasterren)	Ahalik eta (lasterren)		Cuanto antes	
Albate	Alboko atea		Puerta secundaria Puerta de servicio	
Albo	Aldamen		Costado, Lado	
Albolagun			Padrino/Madrina (de ceremonias)	
Alborengo			Pulmonía	
Aldats	Aldapa		Cuesta	
Aldra	Talde, Multzo		Grupo	
Altzari			Mueble	
Amaiera	Bukaera		Final	
Amai(tu)	Bukatu		Finalizar	
Amama	Amona		Abuela	
Amandre	Amona		Abuela	
Amaraun	Armiarma-sare, Aramu-sare, Armiarma-geun		Telaraña	
Amata(tu)	Itzali		Apagar	
Amaxe	Amaginarreba, Auba		Suegra	
Andrakila	Panpina		Muñeca	
Antza	Dirudienez		Según parece	
Apara(t)u	Ituan jo		Acertar, Atinar, Dar en el blanco	

BIZKAIERA	SINONIMOAK	ANTONIMOAK	GAZTELERA	ADIBIDEA
Apatz	Astin, Harro, Arol	Trinko	Esponjoso, Fofo	
Apur baten			En un momento	
Apurka-apurka	Poliki-poliki Mantso-mantso		Poco a poco	
Apur(tu)	Hauts(i)		Romper	
Arasa	Apal		Alacena	
Aratinik			Boca arriba	
Ardi	Arkakuso		Pulga	
Arditxakur			Perro pastor	
Arean	Zerbait, Ezer		Algo	
Arerio	Etsai		Enemigo	
Arrakada	Belarritako, Zartzilu		Pendiente	
Arrakala	Pitzadura, Arraildura		Hendidura	
Artazi	Guraize		Tijeras	
Artega			Inquieto, Desasosegado	
Artega(tu)			Inquietar(se), Desasosegar(se)	
Artez	Zuzen	Oker	Derecho, Directo	
Artez(tu)	Zuzen(du)	Oker(tu)	Enderezar	
Asago	Urrun		Lejos	
Asaska(tu)			Desahogarse	
Astegoien	Asteburu		Fin de semana	
Astin			Esponjoso, Fofo	
Astiro	Poliki, Betaro		Despacio	
Astun		Arin	Pesado	
Ataza	Eginkizuna		Tarea, Empeño	Egun bakoitzak bere ataza (Cada día su afán).
Atoan (kolokiala)	Berehalaxe		Al momento	
Atunburu	Artaburu, Astoburu, Kaiku		Lelo, Bobalicón	
Atzamar	Eri		Dedo	
Atzamar			Dedo de la mano	
Atzamarburu	Erpuru		Yema de dedo	
Atzazal	Atzazkal		Uña	
Atzbizar			Padrastro (de dedo)	
Aurbehera	Aldapa behera, Aldats behera		Cuesta abajo	
Aurki	Seguru asko		Seguramente	
Autu	Berriketa		Conversación, charla	
Baino	Baizik		Sino (que)	
Bako	Gabe, Barik	Dun	Sin	
Barik	Gabe, Bako		Sin	
Barren		Goena	Parte inferior. Fondo. Bajos	Auto barrenak guztiz ugertuta dauzkat. Fraka barrenak. Poltsiko barrenak zulatuta dauzkat. Itsas barrena.
Barriz	Aitzitik, Ordea		En cambio	
Barru	Barne		Dentro, Interior	

BIZKAIERA	SINONIMOAK	ANTONIMOAK	GAZTELERA	ADIBIDEA
Barrunta(tu)			Barruntar	
Basa	Lokatz		Barro	
Basatza			Barrizal, Lodazal	
Basi(tu)			Rebañar, Embadurnar(se)	
Batu-banatu izan			Correveidile	Bazterrik bazter inon diren berriak esaten ari dena (dabilena) batu-banatu da (Artikulurik gabe erabiltzen da).
Batzan(du)	Estal(du)		Cubrir el macho la hembra	
Begitan(du)	Irudi(tu)		Parecer	
Begitxindor	Txindor, Txotor		Orzuelo	
Behar	Lan		Trabajo	
Behar egin	Lan egin		Trabajar	
Behar izan (Norbaiten edo zerbaiten)	Premian izan		Necesitar de	
Behargin	Langile		Trabajador	
Beharleku	1. Zeregin 2. Lantegi		1. Ocupación, Carga 2. Lugar de trabajo	
Beharrizan	Premia, Behar		Necesidad	
Behatz			Dedo del pié	
Beilegi	Hori, Laru		Amarillo	
Beinke (Kolokiala)			En efecto	
Bekoki	Kopeta		Frente	
Belu	Berandu	Sasoiz	Tarde	
Berariaz	Propio, Beren-beregi Apropos		Adrede, ex profeso	
Berba	Hitz, Ele		Palabra, Término	
Berba egin	Hitz egin, Mintza(tu), Mintzo izan		Hablar	
Berba(tu)			Comprometerse de palabra	
Berbakizun	Errankizun, Berbaleku		Motivo de habladurías	
Berbako izan	Hitzeko izan		Cumplidor de su palabra	
Berbaldi	Hitzaldi, Mintzaldi		Charla, Conferencia	
Berbaldun			Locuaz	
Berbaro			Rumor de voces	
Berbeta	Hizketa		Conversación	
Berbotsa			Rumor de voces	
Bipil	Ernamuin, Ernekatz, Pipil		Capullo	
Bizardo			Barbudo	
Bolu	Errota, Eihera		Molino	
Doe	Dohain		Don, Gracia	
Donga (Deunga)	Gaizto		Malvado	
Dontsu	Zorioneko		Dichoso	

BIZKAIERA	SINONIMOAK	ANTONIMOAK	GAZTELERA	ADIBIDEA
Drogan ibili (Haurrak)			Enredar (los niños)	
Drogoso (Haurra)			Revoltoso, enredador	
Ederto	Ederki		Muy bien	
Edola			Como quiera	
Edonoiz			En cualquier momento	
Edonon			En cualquier sitio	
Edonor			Quienquiera	
Edozelan	Edonola		Como quiera	
Egundo(ko)	Sekula(ko)		Jamás, Nunca (Lo nunca visto)	
Ekan(du)	Ohi(tu)		Acostumbrar(se)	
Elai	Enara		Golondrina	
Endaka(tu)			Degenerar, Degradar	
Eranta(tu)			Espabilar	
Erazo	Erazi		Obligar (a)	
Erdu	Etor hadi (zaitez)		Ven	
Erduze	Etor zaitezte		Venid	
Erkin			Flacucho, Raquítico	
Ernega(tu)			Enrabietar(se)	
Ernekatz	Ernemin		Púa (de las plantas)	
Eroapen	Egonarri		Paciencia	Eroapen handia behar izan dut neure gizonagaz bizimodua eroateko.
Erpuru			Yema del dedo	
Erren			Cojo	
Errenka ibili			Cojear	
Erru	Kulpa		Culpa	
Eskopolota			Cómoda, Chiffonier	
Ezain	Itsusi, Zatar		Feo	
Ezain(du)			Afear(se)	
Ezkaratz	Suete, Sukalde			
Ezti(tu)	Txerta(tu), Menda(tu)		Injertar	
Firu	Hari		Hilo	
Ganora			Fuste	
Ganorabako			Sin fuste, Sin fundamento	
Garba(tu)	Damu(tu)		Arrepentirse	
Garbikuzi			Limpieza	Garbikuziko beharginak. Garbikuzi gutxiko lekua.
Garo	Ihintza		Rocío	
Gatx	Gaitz		Difícil	
Gatzatu	Mamia		Cuajada	
Gauzeztan			Inútil	
Geriza	Itzal		Sombra	
Gerizpe	Itzal		Sombra	
Gesu baten			Dentro de poco	
Geun			1. Telaraña	

BIZKAIERA	SINONIMOAK	ANTONIMOAK	GAZTELERA	ADIBIDEA
			2. Cataratas (de los ojos)	
			3. Vaho de los cristales	
Geun(du)			Empañar(se los cristales)	
Ginarra	Erratza		Escoba	
Gogai(tu)	Asper(tu)		Aburrir(se)	
Gogait egin	Asper(tu)		Aburrir(se)	
Gogait eragin			Fastidiar a otros	
Gogoko izan			Ser del agrado de	
Goien		Barren	Extremo superior	
Gomuta	Oroipen		Recuerdo	
Gomuta(tu)	Oroit(u)		Recordar	
Gorpu			Cadáver	
Gorta	Ikuilu		Cuadra	
Gura	Nahi		Deseo, Gana	
Gura izan	Nahi izan		Desear, Querer	
Hain ... egunetan/etxetan			En tal dia / en tal casa	
Halandaze	Beraz		Por consiguiente, por tanto	
Haren batean	Seguru asko		Seguramente	
Hats			Hedor	
Hobeto	Hobeki		Mejor	
Idun	Sama		Cuello, Garganta	
Ikusmira			Espectáculo, Curioso	
Ikusmira(tu)			Curiosear, mirar, revisar	
Inetazi, Linetazi	Txingorra, Kaskabarra		Granizo	
Irabia(tu)			Revolver, Batir	
Irribarre			Sonrisa	
Itaun(du)	Galde(tu), Galde egin		Preguntar	
Itu			Diana, Blanco	
Izeko	Izeba		Tía	
Jadetsi	Lortu, Erdietsi		Conseguir, Alcanzar	
Jagi			Bote (de pelota)	Jagi biziko / Jagi moteleko pilota.
Jagole	Zaintzaile		Cuidador	
Jagon	Zain(du)		Cuidar	
Jai	Festa		Fiesta	
Jakan		Jatun	Inapetente	
Jaramon egin	Kasu egin		Hacer caso	
Jas			Aspecto, casta, inclinación	
Jaseko			De casta	
Jatun		Jakan	De buen apetito	
Jausi	Erori		Caer	
Jite			Talante, Indole	
Katamaila			Esquilón (en el pelo)	
Kipur	Esne-gain		Nata de la leche	
Kirikino	Triku, Kirikinolatz		Erizo	

BIZKAIERA	SINONIMOAK	ANTONIMOAK	GAZTELERA	ADIBIDEA
Koinatu, Koinata			Cuñado, Cuñada	
Koipekeria	Lausengu		Adulación	
Koipezto			Pringoso, Mugriento Asqueroso	
Koiu	Harrapa(tu), Har(tu)		Coger, Tomar	
Kokot			Cogote	
Koldar			Cobarde	
Konort(e)	Korde		Sentido, Conocimiento	
Kopin	Andrakila		Muñeca	
Kuma	Seaska		Cuna	
Laburto	Laburki		Brevemente	
Laga	Utzi		Dejar	
Lain	Adina		Tanto como	Jateko lain badugu
Lantzar		Lanberri	Barbecho	
Lantzean behin	Noizean behin, Noizedonoiz		De vez en cuando	
Lar, Larregi	Gehiegi		En demasía, Demasiado	
Largu			Abundante	
Laru	Hori, Beilegi		Amarillo	
Laski			Desordenado, Desaliñado	
Laski(tu)			Estropear	
Laztan	Maite		Querido, Amado	
Legez	Bezala		Como (modal)	
Lehengusu, Lehengusina			Primo, Prima	
Lei	Izotz		Hielo	
Lei egin	Izoz(tu)		Helar	
Lei(tu)	Izoz(tu)		Helar	
Likin			Pegajoso, Viscoso	
Likin(du)			Hacerse pegajoso	Eskuak likinduta daukadaz eta noan iturrira garbitzeko.
Lohi	Zikin		Sucio	
Lohi(tu)	Zikin(du)		Manchar, Ensuciar	
Lor			Quebradero de cabeza	
Lorrin			Tierra removida	Eguraldi lorrina
Lorrin(du)			Echar a perder, Revolver Revolcar	
Lotin			Tierra húmeda	
Lotsarren	Guztiz lotsatuta		Completamente avegonzado	
Luki	Azeri		Raposo	
Lupetz	Basa, Lokatza		Lodazal	
Lupu			Oruga, Bicho	
Lurrun			Vaho, Vapor	
Lurrun(du)			Evaporar(se)	
Madari	Udare		Pera	
Mailuki	Marrubi		Fresa	
Makal	Ahul		Débil, Enfermo	

BIZKAIERA	SINONIMOAK	ANTONIMOAK	GAZTELERA	ADIBIDEA
Mamur(tu)	Masteka(tu), Murtxika(tu)		Masticar	
Mando	Itzela		Grande, Abultado, Enorme	Hori da gizon mandoa!
Menda(tu)	Txerta(tu)		Injertar	
Mendu	Txerto		Injerto	
Menturaz			Quizás, Por ventura	
Mihimen	Zume		Mimbre	
Mizkin(du)	Jakan(du)		Volverse inapetente	
Mizkinkeria			Gula, Golosina	
Morroi			Mozo	
Morrosko, morroskana			Mocetón, Mocetona	
Motx	Labur		Corto	
Motxikin			Colilla (de cigarro)	
Motz			Feo, Corto	
Murgil(du)			Revolver(se), Marear(se)	Esnea murgildu egin da.
Mutxikin			Troncho	
Nagiak atera			Desperezarse	
Neba			Hermano de hermana	
Neba-arrebak			Hermanos y hermanas	
Negargura	Nergargale		Ganas de llorar	
Neskatila			Muchacha, Chica	
Noizedonoiz	Noizbait		Alguna vez	
Nonedonon	Nonbait		En alguna parte	
Nontzebarri			Correveidile, Curioso	
Noredonor	Norbait		Alguien	
Okaran	Aran		Ciruela	
Okela	Haragi (Jatekoa)		Carne	
Okelu	Txoko, Bazter		Rincón, Escondrijo	
Oker(tu)	Gaizto(tu)		Hacerse pícaro	
Olga(tu)	Jolas(tu)		Jugar	
Olgeta	Jolasa		Juego	
Ondo	Ongi		Bien	
Opa izan			Ofrecer	
Opa(tu)			Desear	Zorionak opatuko dizkizut Gabon hauetan.
Ora(tu)	Hel(du) ("Hartu" zentzuan)		Agarrar	
Ortu	Baratze		Huerto	
Ortuari	Barazki		Verdura	
Ortulau	Baratzain		Hortelano	
Ortusantu	Kanposantu, Hilerri		Cementerio	
Oskol			Cáscara, Caparazón, Corteza	
Ospel	Azkordin		Sabañón	
Ostarku	Ortzadar		Arco iris	
Oste			Parte trasera, Después	
Ostean	Ondoren		Detrás, Después	
Osten(du)	Ezkuta(tu)		Esconder(se)	

BIZKAIERA	SINONIMOAK	ANTONIMOAK	GAZTELERA	ADIBIDEA
Ostera	Berriro, Berriz		De nuevo, Vuelta (Dar una)	
Osterantzean			De lo contrario	
Otsein			Criado	
Otu			Ocurrír(sele), Venir a la imaginación	
Pantaloiak	Kuleroak		Bragas	
Papao			Bobo, Lelo	
Papar			Pechuga	
Para(tu)			Poner(se), Colocar(se)	Parau zaitez telefonoan!
Patari			Bicho, Alimaña	
Pernil	Urdaiazpiko		Jamón, Pernil	
Piti(n) bat	Apur bat, Pixka bat		Un poquito	
Pitika-pitika	Apurka-apurka		Poco a poco, Lentamente	
	Astiro-astiro			
Pitxin	Polit hori, "Maittia"		Cariñin	
Polito	Nahikoa ondo		Bonitamente	
Poltsiko	Patrikara		Bolsillo	
Potxolo			Pocholo (familiarmente)	
Pozarren	Poz-pozik		Loco de contento	
Presku	Muxika, Mertxika		Melocotón	
Sai	Putre		Buitre	
Saka(tu)	1.-		Apretar (botón, etc.)	1.- Sakatu botoiari (Normalean datiboarekin).
	2. Ziria sartu		Engañar	2. Ederra sakatu deutsu!
Saltai	Gorta, Ikuilu		Cuadra	
Sama	Idun		Cuello, Garganta	
Sasi-eskola (egin)	Piper (egin)		Pira, Faltar a clase	
Saskel	Ugerdo		Desaseado	
Sats	Zimaur		Estiércol, Basura	
Sats eginda	Leher eginda		Estar derrengado	
Sein	Haur, Ume		Niño-a	
Sein-jagole	Ume-zain		Cenzayo, Niñera	
Seintzain	Sein-jagole, Ume-zain		Cenzayo, Niñera	
Senti(tu)			Notar	
Suete	Ezkaratz, Sukalde		Cocina	
Sunda	Usain (berezia), Hats		Olor (característico de algo)	Arrain sunda, Gorta sunda.
Tertzio	Garai		Tiempo oportuno, Oportunidad	
Testulari			Que hace pareados	
Tripalak	Tripetako minak		Cólico, Dolor de vientre	
Troinu	Korapilo		Nudo	
Troka			Barranco, Sima	
Troka(tu)			Dislocar(se)	

BIZKAIERA	SINONIMOAK	ANTONIMOAK	GAZTELERA	ADIBIDEA
Txaplata	Adabaki		1. Parche 2. Parlanchín	Hemen dator gure txaplatatxua!
Txarriboda			Charriboda	
Txarto	Gaizki	Ondo	Mal	
Txatal			Pedazo	
Txatxar	Ñimiño		Insignificante, Baladí	
Txiker, txikin	Txiki		Pequeño	
Tximino	Tximu		Mono, Simio	
Txindor	Txantxangorri		Petirrojo	
Txingar			Brasa, Ascua	
Txingor	Inetasi, Linetazi, Abazuza		Granizo	
Txirlora	Txirbil		Viruta	
Txiro			Pobre	
Txitean-pitean			A cada momento	
Txolin	Txoriburu		Casquivano	
Txolin(du)			Ponerse alegrillo (con la bebida)	
Txori-jagole	Txorimalo		Espantapájaros	
Txotor	Begitxindor		Orzuelo	
Txotxolo	Ergel		Lelo, Simple, Chocholo	
Txu	Listu, Txistu		Saliva	
Txutxu	Aitzaki		Pretexto	
Txutxumutxuka	Isilimatuka, Ahapeka		Cuchicheando	
Udagoien	Udazken, Larrazken		Otoño	
Ugazaba	Jabe (Gizonezkoa), Nagusi		Dueño	
Ugazabandra	Jabe (Andrazkoa)		Dueña	
Uger			Roña, Mugre, Herrumbre	
Uger(tu)	Erdoil(du)		Roñar(se)	
Ugerdo			Mugriento	
Ugerrak har(tu)			Enroñar(se)	
Ugerrak jan			Enroñar(se)	
Ugerrak ken(du)			Desherrumbrar	
Uma(tu)	Hel(du), Zori(tu)		Madurar, Sazonar	
Ume	Sein, Haur		Niño-a, Crío-a	
Umegorri, Umemoko			Chiquillo,-a.	
Umekeria	Haurkeria		Chiquillada	
Umo	Heldu		Maduro, Sazonado	
Unekada			Momento, Espacio determinado	Gorabeherak izaten ditu: unekada batzuetan ondo egoten da, eta besteetan, txarto.
Upelako ...	Egundoko, Itzel		Tremendo	Upelako barregura
Urak hartu			1. Encoger(se),	1. Arropa urak hartu du,

BIZKAIERA	SINONIMOAK	ANTONIMOAK	GAZTELERA	ADIBIDEA
			2. Anegar(se)	2. Solobarrenak urak hartu ditu.
Uriola	Uholde		Riada, Inundación	
Xera	Laztan, Fereka		Caricia	
Zapa-zapa ibil(i)			Andar a buen ritmo, sin detenerse	
Zapaburu	Txalburu		Renacuajo	
Zapazto			Desgreñado	
Zaputzetik ora(tu)	Lepagainetik ora(tu)		Agarrar por el pescuezo	Katuak bere umeak zaputzetik oratuta eroaten ditu.
Zartziluak	Arrakadak, Belarritakoak		Pendientes	
Zekor	Aretxe		Novillo	
Zelan	Nola		Cómo	
Zema(tu)	Mehatxa(tu)		Amenazar	
Zemai	Mehatxu		Amenaza	
Zenbatgura	Zenbat-nahi, Edozenbat		Tanto como se quiera, Cuanto se quiera	
Zeredozer	Zerbait		Algo	
Zeregin	Egiteko, Eginkizun		Quehacer, Tarea	
Zergura	Zernahi		Cualquier cosa	
Zintzoro	Zintzoki		Sinceramente, Fielmente	
Zirimiri	Lanbro, Langar		Llovizna	
Zirin-zirin	Astiro-astiro		Poco a poco. Sin prisa, pero sin pausa	
Zirinko	Zirin		Inquieto	
Zol(du)			Infectar(se), Enconar(se)	

GAZTELERA	BIZKAIERA	SINONIMOAK	ANTONIMOAK	ADIBIDEA
Abad	Abat			
Abuela	Amama, Amuma, Amandre	Amona		
Abuelo	Aitita, Aittitta, Aitajaun	Aitona		
Abultado	Mando	Itzela		Hori da gizon mandoa!
Abundante	Largu			
Aburrir(se)	Gogait egin Gogai(tu), Asper(tu)			
Acertar	Apara(t)u	Ituan jo		
Acostumbrar(se)	Ekan(du)	Ohi(tu)		
Adrede, ex profeso	Berariaz	Propio, Beren-beregi Apropos		
Adulación	Koipekeria	Lausengu		

GAZTELERA	BIZKAIERA	SINONIMOAK	ANTONIMOAK	ADIBIDEA
Afear(se)	Ezain(du)			
Agarrar	Ora(tu)	Hel(du) (Hartu zentzuan)		
Agarrar por el pescuezo	Zaputzetik ora(tu)	Lepagainetik ora(tu)		Katuak bere umeak zaputzetik oratuta eroaten ditu.
Agrado (Ser del agrado de)	Gogoko izan			
Alacena	Arasa	Apal		
Alcanzar	Jadetsi	Lortu, Erdietsi		
Alegrillo (Ponerse ... con la bebida)	Txolin(du)			
Algo	Arean, Zeredozer	Zerbait, Ezer		
Alguien	Noredonor	Norbait		
Alguna vez	Noizedonoiz	Noizbait		
Alimaña	Patari			
Amado	Laztan	Maite		
Amarillo	Beilegi, Laru	Hori		
Amenaza	Zemai	Mehatxu		
Amenazar	Zema(tu)	Mehatxa(tu)		
Andar (a buen ritmo, sin detenerse)	Zapa-zapa ibili			
Anegar(se)	Urak hartu			Solobarrenak urak hartu ditu.
Apagar	Amata(tu)	Itzali		
Apretar (botón, ...)	Saka(tu)			Sakatu botoiari (Normalean datiboarekin).
Arco iris	Ostarku	Ortzadar		
Arrepentir(se)	Garba(tu)	Damu(tu)		
Ascua	Txingar			
Aspecto	Jas			
Asqueroso	Koipezto			
Atinar	Apara(t)u	Ituan jo		
Avergonzado (Completamente)	Guztiz lotsatuta			
Lotsarren				
Bajos	Barren		Goena	Auto barrenak ugertuta dauzkat.
Baladí	Txatxar	Ñimiño		
Barbecho	Lantzar		Lanberri	
Barbudo	Bizardo			
Barranco	Troka			
Barrizal	Basatza			
Barro	Basa	Lokatz		
Barruntar	Barrunta(tu)			
Basura	Sats	Zimaur		
Batir ("Agitar/Mezclar" zentzuan)	Irabia(tu)			
Bicho	Lupu, Patari			
Bien	Ondo	Ongi		

GAZTELERA	BIZKAIERA	SINONIMOAK	ANTONIMOAK	ADIBIDEA
Blanco	Itu			
Blanco (Dar en el)	Apara(t)u	Ituan jo		
Bobalicón	Atunburu, Papao	Artaburu, Astoburu, Kaiku		
Bobo	Papao			
Boca abajo	Ahozpez		Aratinik	
Boca arriba	Aratinik		Ahozpez	
Bolsillo	Poltsiko	Patrikara		
Bonitamente	Polito	Nahiko ondo		
Bote (de pelota)	Jagi			Jagi biziko, Gagi moteleko.
Bragas	Pantaloiak	Kuleroak		
Brasa	Txingar			
Brevemente	Laburto	Laburki		
Buitre	Sai	Putre		
Cabecera	Adar			Adibide piloa dago *O.E.H.*-n
Cadáver	Gorpu			
Caer	Jausi	Erori		
Caparazón	Oskol			
Capullo	Bipil	Ernamuin, Ernekatz, Pipil		
Carga	Beharleku			
Caricia	Xera	Laztan, Fereka		
Cariñin	Pitxin	Polit hori, "Maittia"		
Carne	Okela	Haragi (Jatekoa)		
Cáscara	Oskol			
Caso (Hacer)	Jaramon egin	Kasu egin		
Casquivano	Txolin	Txoriburu		
Casta	Jas			
Cataratas (de los ojos)	Geun			
Cementerio	Ortusantu	Kanposantu, Hilerri		
Cenzayo (fem.)	Sein-jagole, Seintzain	Ume-zain		
Charla	Berbaldi, Berbeta, Autu	Berriketa, Mintzaldi		
Charriboda	Txarriboda			
Chiffonier	Eskopolota			
Chiquillada	Umekeria	Haurkeria		
Chiquillo,-a	Umegorri, Umemoko			
Chocholo	Txotxolo	Ergel		
Ciruela	Okaran	Aran		
Cobarde	Koldar			
Cocina	Suete	Ezkaratz, Sukalde		
Coger	Koiu	Harrapa(tu), Har(tu)		
Cogote	Kokot			
Cojear	Errenka ibili			
Cojo	Erren			
Cólico	Tripalak	Tripetako minak		
Colilla (de cigarro)	Motxikin			

GAZTELERA	BIZKAIERA	SINONIMOAK	ANTONIMOAK	ADIBIDEA
Colocar(se)	Para(tu)			Parau zaitez telefonoan!
Cómo	Zelan	Nola		
Como (modal)	Legez	Bezala		
Como quiera	Edola, Edozelan	Edonola		
Cómoda	Eskopolota			
Comprometerse de palabra	Berba(tu)			
Conferencia	Berbaldi	Hitzaldi, Mintzaldi		
Conocimiento	Konort(e)	Korde		
Conseguir	Jadetsi	Lortu, Erdietsi		
Contento (Loco de)	Pozarren	Poz-pozik		
Conversación	Berbeta, Autu	Hizketa, Berriketa		
Correveidile	Batu-banatu izan Nontzebarri			Bazterrik bazter inon diren berriak esaten ari dena dabilena: batu-banatu da (Artikulurik gabe erabiltzen da).
Corteza	Oskol			
Corto	Motx	Labur		
Costado	Albo	Aldamen		
Criado,-a	Otsein			
Crío,-a	Ume, Sein	Sein, Haur		
Cuadra	Gorta, Saltai	Ikuilu		
Cuajada	Gatzatu	Mamia		
Cualquier cosa	Zergura	Zernahi		
Cuanto antes	Albait (lasterren)	Ahalik eta (lasterren)		
Cuanto se quiera	Zenbatgura	Zenbat-nahi, Edozenbat,		
Cubrir el macho la hembra	Batzan(du)	Estal(du)		
Cuchicheando	Txutxumutxuka	Isilimatuka, Ahapeka		
Cuello	Idun	Sama		
Cuesta	Aldats	Aldapa		
Cuesta abajo	Aurbehera	Aldapa behera, Aldats behera		
Cuidador	Jagole	Zaintzaile		
Cuidar	Jagon	Zain(du)		
Culpa	Erru	Kulpa		
Cumplidor de su palabra	Berbako izan	Hitzeko izan		
Cuna	Kuma	Seaska		
Cuñado-a	Koinatu, koinata			
Cura	Abade	Apez, Apaiz		
Curiosear	Ikusmira(tu)			
Curioso	Nontzebarri, Ikusmira			
De buen apetito	Jatun		Jakan	
De casta	Jaseko			
De lo contrario	Osterantzean			
De nuevo	Ostera	Berriro, Berriz		

GAZTELERA	BIZKAIERA	SINONIMOAK	ANTONIMOAK	ADIBIDEA
De vez en cuando	Lantzean behin	Noizean behin, Noizedonoiz		
Débil	Makal	Ahul		
Dedo de la mano	Atzamar	Eri		
Dedo del pie	Behatz			
Degenerar	Endaka(tu)			
Degradar	Endaka(tu)			
Dejar	Laga	Utzi		
Demasía (En)	Lar, larregi	Gehiegi		
Demasiado	Lar, larregi	Gehiegi		
Dentro	Barru	Barne		
Dentro de poco	Gesu baten			
Derecho	Artez	Zuzen	Oker	
Derrengado (Estar)	Sats eginda	Leher eginda		
Desahogar(se)	Asaska(tu)			
Desaliñado	Laski			
Desaseado	Saskel	Ugerdo		
Desasosegado	Artega			
Desasosegar(se)	Artega(tu)			
Desear	Opa(tu), Gura izan	Nahi izan		Zorionak opatuko dizkizut Gabon hauetan.
Deseo	Gura	Nahi		
Desgreñado	Zapazto			
Desherrumbrar	Ugerrak kendu			
Desordenado	Laski			
Despacio	Astiro	Poliki, Betaro		
Desperezar(se)	Nagiak atera			
Después	Oste, Ostean	Ondoren		
Detrás	Ostean	Ondoren		
Diana	Itu			
Dichoso	Dontsu	Zorioneko		
Difícil	Gatx	Gaitz		
Directo	Artez	Zuzen	Oker	
Dislocar(se)	Troka(tu)			
Dolor de vientre	Tripalak	Tripetako minak		
Don	Doe	Dohain		
Dueña	Ugazabandra	Jabe (Andrazkoa)		
Dueño	Ugazaba	Jabe (Gizonezkoa), Nagusi		
Echar a perder	Lorrin(du)			
Embadurnar(se)	Basi(tu)			
Empañar(se los cristales)	Geun(du)			
Empeño	Ataza	Eginkizuna		Egun bakoitzak bere ataza (Cada día su afán).
En cambio	Barriz	Aitzitik, ordea		
En efecto	Beinke (Kolokiala)			
En tal dia / en tal casa	Hain egunetan/etxetan			

GAZTELERA	BIZKAIERA	SINONIMOAK	ANTONIMOAK	ADIBIDEA
Encoger(se)	Urak hartu			Arropa urak hartu du.
Enconar(se)	Zol(du)			
Enderezar	Artez(tu)	Zuzen(du)	Oker(tu)	
Enemigo	Arerio	Etsai		
Enfermo	Makal	Ahul		
Engañar	Saka(tu)	Ziria sartu		Ederra sakatu deutsu!
Enorme	Mando	Itzela		Hori da gizon mandoa!
Enrabietar(se)	Ernega(tu)			
Enredador	Drogoso (Haurra)			
Enredar (los niños)	Drogan ibili (Haurrak)			
Enroñar(se)	Ugerrak hartu, (jan)			
Ensuciar	Lohi(tu)	Zikin(du)		
Erizo	Kirikino	Triku, Kirikinolatz		
Escoba	Ginarra	Erratza		
Esconder(se)	Osten(du)	Ezkuta(tu)		
Escondrijo	Okelu	Txoko, Bazter		
Espabilar	Eranta(tu)			
Espacio (determinado)	Unekada			Gorabeherak izaten ditu: unekada batzuetan ondo egoten da, eta besteetan, txarto.
Espantapájaros	Txori-jagole	Txorimalo		
Espectáculo	Ikusmira			
Esponjoso	Apatz, Astin	Harro, Arol	Trinko	
Esquilón (en el pelo)	Katamaila			
Estiércol	Sats	Zimaur		
Estropear	Laski(tu)			
Evaporar(se)	Lurrun(du)			
Extremo inferior	Barren		Goien	
Extremo superior	Goien		Barren	
Fastidiar (a otros)	Gogait eragin			
Feo	Ezain, Motz	Itsusi, Zatar		
Fielmente	Zintzoro	Zintzoki		
Fiesta	Jai	Festa		
Fin de semana	Astegoien	Asteburu		
Final	Amaiera	Bukaera		
Finalizar	Amai(tu)	Buka(tu)		
Flacucho	Erkin			
Fofo	Astin, Apatz	Harro, Arol	Trinko	
Fondo	Barren		Goena	Fraka barrenak. Poltsiko barrenak zulatuta dauzkat. Itsas barrena.
Frente	Bekoki	Kopeta		
Fresa	Mailuki	Marrubi		
Fuste	Ganora			
Gana	Gura	Nahi		
Ganas de llorar	Negargura	Nergargale		

GAZTELERA	BIZKAIERA	SINONIMOAK	ANTONIMOAK	ADIBIDEA
Garganta	Sama	Idun		
Golondrina	Elai	Enara		
Golosina	Mizkinkeria			
Gracia	Doe	Dohain		
Grande	Mando	Itzela		Hori da gizon mandoa!
Granizo	Abazuza, Inetazi, Linetazi Txingor	Kaskabarra		
Grupo	Aldra	Talde, Multzo		
Gula	Mizkinkeria			
Habladuría (Motivo de)	Berbakizun, Berbaleku	Errankizun		
Hablar	Berba egin	Hitz egin, Mintza(tu) Mintzo izan		
Hedor	Hats			
Helar	Lei egin, Lei(tu)	Izoz(tu)		
Hendidura	Arrakala	Pitzadura, Arraildura		
Hermano de hermana	Neba			
Hermanos y hermanas	Neba-arrebak			
Herrumbre	Uger			
Hielo	Lei	Izotz		
Hilo	Firu	Hari		
Hortelano	Ortulau	Baratzain		
Huerto	Ortu	Baratze		
Imaginación (Venir a la ...)	Otu			
Inapetente	Jakan		Jatun	
Inapetente (Volverse)	Mizkin(du), Jakan(du)			
Inclinación	Jas			
Indole	Jite			
Infectar(se)	Zol(du)			
Injertar	Ezti(tu), Menda(tu)	Txerta(tu)		
Injerto	Mendu	Txerto		
Inquietar(se)	Artega(tu)			
Inquieto	Zirinko	Zirin		
Insignificante	Txatxar	Ñimiño		
Intemperie	Afrontu			
Interior	Barru	Barne		
Inundación	Uriola	Uholde		
Inútil	Gauzeztan			
Jamón	Pernil	Urdaiazpiko		
Juego	Olgeta	Jolasa		
Jugar	Olga(tu)	Jolas(tu)		
Lado	Albo	Aldamen		
Lejos	Asago	Urrun		
Lelo	Papao, Atunburu	Ergel		
Lentamente	Pitika-pitika	Apurka-apurka Astiro-astiro		

GAZTELERA	BIZKAIERA	SINONIMOAK	ANTONIMOAK	ADIBIDEA
Limpieza	Garbikuzi			Garbikuziko beharginak. Garbikuzi gutxiko lekua.
Llovizna	Zirimiri	Lanbro, Langar		
Locuaz	Berbaldun			
Lodazal	Basatza, Lupetz	Lokatza		
Madurar	Uma(tu)	Hel(du), Zori(tu)		
Maduro	Umo	Heldu		
Mal	Txarto	Gaizki	Ondo	
Malvado	Donga (Deunga)	Gaizto		
Manchar	Lohi(tu)	Zikin(du)		
Marear(se)	Murgil(du)			Esnea murgildu egin da.
Masticar	Mamur(tu)	Masteka(tu), Murtxika(tu)		
Mecha	Ailubeta			
Mejor	Hobeto	Hobeki		
Melocotón	Presku	Muxika, Mertxika		
Mimbre	Mihimen	Zume		
Mirar	Ikusmira(tu)			
Mocetón, Mocetona	Morrosko, Morroskana			
Molino	Bolu	Errota, Eihera		
Momento (A cada)	Txitean-pitean			
Momento (Al)	Atoan (kolokiala)	Berehalaxe		
Momento (determinado)	Unekada			Gorabeherak izaten ditu: unekada batzuetan ondo egoten da, eta besteetan, txarto.
Momento (En cualquier)	Edonoiz			
Momento (En un)	Apur baten			
Mono	Tximino	Tximu		
Mozo	Morroi			
Muchacha, Chica	Neskatila			
Mueble	Altzari			
Mugre	Uger			
Mugriento	Ugerdo, Koipezto			
Muñeca	Andrakila, Kopin	Panpina		
Muy bien	Ederto	Ederki		
Nata (de la leche)	Kipur	Esne-gain		
Necesidad	Beharrizan	Premia, Behar		
Necesitar de	Behar izan	Premian izan		
Niñera	Sein-jagole, Seintzain	Ume-zain		
Niño-a	Sein, Ume	Haur, Ume		
Notar	Senti(tu)			
Novillo	Zekor	Aretxe		
Nudo	Troinu	Korapilo		
Nunca (Lo nunca visto)	Egundo(ko)	Sekula(ko)		

GAZTELERA	BIZKAIERA	SINONIMOAK	ANTONIMOAK	ADIBIDEA
Obligar (A)	Erazo	Erazi		
Ocupación	Beharleku	Zeregin		
Ocurrír(sele)	Otu			
Ofrecer	Opa izan			
Olor (Característico de algo)	Sunda	Usain (berezia), Hats		Arrain sunda. Gorta sunda.
Oportunidad	Tertzio	Garai		
Oruga	Lupu			
Orzuelo	Begitxindor, Txotor	Txindor, Txotor		
Otoño	Udagoien	Udazken, Larrazken		
Pábilo	Ailubeta			
Paciencia	Eroapen	Egonarri		Eroapen handia behar izan dut neure gizonagaz bizimodua eroateko.
Padrastro (de dedo)	Atzbizar			
Padrino/Madrina (de ceremonias)	Albolagun			
Palabra	Berba	Hitz, Ele		
Parche	Txaplata	Adabaki		
Pareados (Que hace)	Testulari			
Parecer	Begitan(du)	Irudi(tu)		
Parlanchín	Txaplata	Adabaki		
Parte (En alguna)	Nonedonon	Nonbait		
Parte inferior	Barren		Goena	
Parte trasera	Oste			
Pechuga	Papar			
Pedazo	Txatal			
Pegajoso	Likin			
Pegajoso (Hacerse)	Likin(du)			Eskuak likinduta daukadaz eta noan iturrira garbitzeko.
Pendiente	Arrakada	Belarritako, Zartzilu		
Pequeño	Txiker, txikin	Txiki		
Pera	Madari	Udare		
Pernil	Pernil	Urdaiazpiko		
Perro pastor	Arditxakur			
Pesado	Astun		Arin	
Petirrojo	Txindor	Txantxangorri		
Pícaro (Hacerse)	Oker(tu)	Gaizto(tu)		
Pira (Faltar a clase)	Sasi-eskola (egin)	Piper (egin)		
Pobre	Txiro			
Pocholo (familiarmente)	Potxolo			
Poco a poco	Apurka-apurka	Poliki-poliki Mantso-mantso		
Poco a poco ("Sin prisa pero sin pausa")	Zirin-zirin	Astiro-astiro		
Poner(se)	Para(tu)			Parau zaitez telefonoan!
Poquito (Un)	Piti(n) bat	Apur bat, Pixka bat		

GAZTELERA	BIZKAIERA	SINONIMOAK	ANTONIMOAK	ADIBIDEA
Por consiguiente	Halandaze	Beraz		
Por tanto	Halandaze	Beraz		
Preguntar	Itaun(du)	Galde(tu), galde egin		
Pretexto	Txutxu	Aitzaki		
Primo, Prima	Lehengusu, Lehengusina			
Pringoso	Koipezto			
Púa (de las plantas)	Ernekatz	Ernemin		
Puerta de servicio	Albate	Alboko atea		
Puerta secundaria	Albate	Alboko atea		
Pulga	Ardi	Arkakuso		
Pulmonía	Alborengo			
Quebradero de cabeza	Lor			
Quehacer	Zeregin	Egiteko, Eginkizun		
Querer	Gura izan	Nahi izan		
Querido	Laztan	Maite		
Quienquiera	Edonor			
Quizás	Menturaz			
Raposo	Luki	Azeri		
Raquítico	Erkin			
Rebañar	Basi(tu)			
Recordar	Gomuta(tu)	Oroit(u)		
Recuerdo	Gomuta	Oroipen		
Refugio	Abaro			Abarotara eroan ardiak (Mugagabean erabiltzen da).
Renacuajo	Zapaburu	Txalburu		
Reñir	Agiraka egin	Haserre egin Errieta egin (eman)		
Reprender	Agiraka egin	Haserre egin, Errieta egin (eman)		
Respaldo	Adar	Adar		Adibide piloa dago *O.E.H.*-n
Revisar	Ikusmira(tu)			
Revolcar	Lorrin(du)			
Revoltoso	Drogoso (Haurra)			
Revolver ("Gauzak hankaz gora ipini")	Lorrin(du)			
Revolver(se)	Murgil(du)			Esnea murgildu egin da.
Riada	Uriola	Uholde		
Rincón	Okelu	Txoko, Bazter		
Rocío	Garo	Ihintza		
Romper	Apur(tu)	Hauts(i)		
Roña	Uger			
Roñar(se)	Uger(tu)	Erdoil(du)		
Rumor de voces	Berbaro, Berbotsa			
Sabañón	Ospel	Azkordin		
Saliva	Txu	Listu, Txistu		
Sazonado	Umo	Heldu		
Sazonar	Uma(tu)	Hel(du), Zori(tu)		
Según parece	Antza	Dirudienez		

GAZTELERA	BIZKAIERA	SINONIMOAK	ANTONIMOAK	ADIBIDEA
Seguramente	Aurki, Haren batean	Seguru asko		
Sentido	Konort(e)	Korde		
Sima	Troka			
Simio	Tximino	Tximu		
Simple	Txotxolo	Ergel		
Sin	Bako, Barik	Gabe	Dun	
Sin fuste, Sin fundamento	Ganorabako			
Sinceramente	Zintzoro	Zintzoki		
Sino (que)	Baino	Baizik		
Sitio (En cualquier)	Edonon			
Sombra	Geriza, Gerizpe	Itzal		
Sonrisa	Irribarre			
Sucio	Lohi	Zikin		
Suegra	Amaxe	Amaginarreba, Auba		
Suegro	Aitaxe	Aitaginarreba		*O.E.H.*-n ez dator. Azkue eta Añibarron bai, baina 'abuelo' zentzuan.
Talante	Jite			
Tanto como	Lain	Adina		Jateko lain badugu.
Tanto como se quiera	Zenbatgura	Zenbat-nahi, Edozenbat,		
Tarde	Belu	Berandu	Sasoiz	
Tarea	Zeregin, Ataza	Egiteko, Eginkizun		Egun bakoitzak bere ataza (Cada día su afán).
Telaraña	Amaraun	Armiarma-sare, Aramu-sare, Armiarma-geun		
Término	Berba	Hitz, Ele		
Tía	Izeko	Izeba		
Tiempo oportuno	Tertzio	Garai		
Tierra húmeda	Lotin			
Tierra removida	Lorrin			Eguraldi lorrina.
Tijeras	Artazi	Guraizeak		
Tomar	Koiu	Harrapa(tu), Har(tu)		
Tomar en consideración	Aintzat hartu	Aintzakotzat hartu		
Trabajador	Behargin	Langile		
Trabajar	Behar egin	Lan egin		
Trabajo	Behar	Lan		
Trabajo (Lugar de)	Beharleku	Lantegi		
Tremendo	Upelako ...	Egundoko, Itzel		Upelako barregura.
Troncho	Mutxikin			
Uña	Atzazal	Atzazkal		
Vaho	Lurrun			
Vaho (de los cristales)	Geun			
Vapor	Lurrun			
Ven	Erdu	Etor hadi (zaitez)		
Venid	Erduze	Etor zaitezte		
Ventura (Por)	Menturaz			

GAZTELERA	BIZKAIERA	SINONIMOAK	ANTONIMOAK	ADIBIDEA
Verdura	Ortuari	Barazki		
Viruta	Txirlora	Txirbil		
Viscoso	Likin			
Vuelta (Dar una)	Ostera bat eman			
Yema (de dedo)	Atzamarburu	Erpuru		

GRAMATIKA BATZORDEA

Burua:	Patxi Altuna
Idazkaria:	Patxi Goenaga
Idazkariordea:	M. Pilar Lasarte
Kideak:	Miren Azkarate
	Pierre Charritton
	Andolin Eguzkitza
	Alan King
	Jose Mari Larrarte
	Jesus Mari Makazaga
	Jose Antonio Mujika
	Beñat Oihartzabal
	Francisco Ondarra
	Karmele Rotaetxe
	Pello Salaburu

GRAMATIKA BATZORDEAREN JARDUNALDIAK

Bilbon Euskaltzaindiak antolaturiko *1. Jagon Jardunaldiak* izeneko hitzaldi irekietara azaldu ginenok, eta ez ginen gutxi izan, "Hizkuntzaren erabilera zuzena"z zenbait hitzaldi eder entzuteko aukera izan genuen, zuzentasuna beti ere, Jagon sailaren helburuari dagokion legez, maila teorikoan eta zentzu orokorrean harturik, eta zuzentasunaren legeak konkretuki zein diren, edota perpaus hau eta hura zergatik diren edo ez diren zuzenak eztabaidan sartu gabe.

Han azkenerako aski garbi gelditu ziren puntuen artean bat hau izan zen: gauza bat dela zuzentasuna eta bestea egokitasuna, bada ikastolako zortzi urteko haurrei joan dakieke hizlari bat, euskara mintzagai duela, hitz-aspertua egitera, eta hasten bazaie lokailuen eta juntagailuen eta menderagailuen arteko bereizitasunaz mintzatzen, agian inon den euskararik zuzenena erabili duela aitortu beharko dugu, baina ezin esango haurrei dagokien euskara, hau da, euskara egokia, erabili duenik. Beraz zuzena bat da eta egokia bi.

Nolanahi ere, bistan da hizkuntzaren egokitasuna, alegia, aldian-aldian ingurumen konkretu bati eta entzule jakin batzuei dagokien hizkuntza, hau edo hura dela esatea edo erabakitzea ez dela hizkuntzalaritzaren ez eta hizkuntzalariaren egitekoa, ez behintzat haiena bakarrik, ezeta haiena oroz gain, baizik pedagogiarena eta sikologiarena eta soziolinguistikarena ere bai. Aldiz hizkuntzaren zuzentasunaz aritzea, eta maila praktikoan eta zentzu konkretuan gainera, hizkuntzalaritzaren eta hizkuntzalari-gramatikarien eginbeharra da.

Horra zergatik gu ez garen gaur ez hizkuntzaren egokitasunaz inolako mailan, ez eta hizkuntzaren zuzentasunaz maila orokor eta teoriko batean mintzatuko, baizik perpaus konkretuez, egunoro entzuten ditugunez. Eta bi asmo hauetako batez: edota perpaus zuzenen artean euskara baturako egokiena iritziko dioguna hobesteko, ahal izango denean, edota azken urteotan gure artean barreiatu diren egite okerreko zenbait perpaus arbuiatzeko eta haien ordez zuzen deriztegunak hartzeko eta gomendatzeko. Esan beharrik ez dago, bestalde, zein irizpidez baliatuko

garen batzuk eta besteak bereizteko: betikoez eta ezinbestekoez, alegia tradizio idatziarenaz eta herri xehe, egunoroko mintzabidea gehienbat euskara duenaz.

Damurik ez dugu lau ordu hauetan astirik ez zuzenen arteko hautaketa, ez eta okerren zuzenketa osoro eta erabat egiteko, askotxo baitira. Baldin bada inor horri gehiegikeria irizten diona eta hainbeste ez direla uste duena, Mitxelenaren honako hitz hauek entzutera gomitatzen dugu, bere laburrean aski larriak baitira. Eta ez beza pentsa idatzi zituenetik hogeita hamabost urte igaro direlako hitz horiek ahuldu eta maskaldu direnik, eta, Euskalerrian geroztik eurite handiak egin dituelako, gauzak hobetu direnik; aitzitik, Gramatika Batzordekook uste dugu zuzentasunaren aldetik euskara mintzatuaren egoera larritu eta gaiztotu egin dela eta, orain biziko balitz, orduko iritzia are gehiago sendotuko eta birretsiko lukeela.

Hona Mitxelenaren hitzak: "Euskal gramatikaren punturik gehienak auzi bihurtuak ditugu gaurko eta hemengo euskaldunok" (Mitxelena, MEIG, 22, 121. or.). Gauzak ilunsko esan nahi zituenean ohi zuen trebeziaz Mitxelenak ez diosku nork bihurtu dituen auzi; bihurtuak ditugula, bai, ez ordea guk bihurtu ditugunik, ez eta nork bihurtu dituen. Aski izan bekigu jakitea Olabideren Testamentu Zahar-Berrien itzulpenaz ari zela idatzi zituela hitz horiek. Bi puntu eta bi kezka agertzen ditu hor. Bat: ez dela ia euskal gramatikaren punturik —eta asko esatea da hori— auzi bihurtua ez dugunik. Bi: auzi bihurtua izan edo eduki, ez aspaldikoek, baizik "gaurko euskaldunok" (izurrite berria zen nonbait); eta ez gaurko euskaldun guziok, baizik "hemengook" (Iparraldekoek ez, dirudienez).

Hor Mitxelenak dioena aintzat hartzekoa zela iruditu zitzaigun eta auzi horietako batzuk ahalean erabakitzen eta garbitzen saiatu behar genuela egun hauetan, Euskaltzaindiari baitagokio egiteko hori, inori egotekotan, eta ez noski Euskara zaintzeko sortua delako bakarrik, baita berriki oihukatu digulako ere, orain arte hizkuntzaren kantitateari bezala gaurdanik kalitateari ere begiratu behar diogula.

Hona bada, berriro esan, guk Jardunaldi hauetara dakargun eskukada xumea: hiruzpalau hilabetetan prestatu ahal izan dugun bi perpaus sorta. Batean, esateko modu zuzenak direnen artean, euskara batuaren ikuspuntutik gure ustez lehentasuna merezi duena edo dutenak hautatzen ditugu eta gomendatzen. Bestean, gure artean berriki sortu eta errotu diren zenbait perpaus oker zuzentzen ditugu, betidanik nola esan diren agirian ipiniz. Danera berrogei perpaus inguru dira aztertuak.

Egin genezakeen besterik, noski, erosotasun bila ibili bagina: aurreko bizpahiru urtez landua eta burutua dugun eta ia inprimategirako prestatua dagoen EGLU-ren laugarren liburuki, juntagailuez ari dena, hartu mintzagai eta hemen haren berri eman lasai, zuek hartaz egin nahiko zenizkiguketen oharrak eta zuzenketak entzunez eta jasoz. Baina ez, telekomunikabideak aspaldi honetan egiten ari diren eskeei eta galderei aurre egin nahiago izan dugu, hartarako aurtengo bi urteurrenak parada aproposa zirelakoan.

Txosten bi horiek guk nahiko genukeen baino geroxeago hartu dituzue, badakigu. Ez zarete zuek, egia esan, horien hartzaile zuzen eta zinezkoak, egia esan; zuentzat gai ezagunak dira eta seguru gaude ez duzuela ordu asko sartu behar izan horien muinaz jabetzeko. Beste gabe, esker mila aldez aurretik ekarri dituzuen eta hemen egingo dizkiguzuen ohar guziengatik.

I. BATASUNERAKO PROPOSAMENAK

I.1. *HORI ETA, HORI* EDO ETA HORRELAKOEN IDAZKERAZ

1. *Eta* eta *edo* juntagailuak juntaduraren erdian kokatzen dira normalean eta, hortaz, juntadura bururatzen duen osagaia izan ohi dute gehienetan ondoan. Zenbaitetan, ordea, azken juntagaia esan gabe utzi delako, juntagaiak lekuz trukatu' direlako edo, besterik gabe, juntagailua aurreko osagaiari enklitikoki lotu zaiolako, honako egitura hauek eratzen dira:

a) *Hori edo* motakoak:
   (1) a) Pellok edo esango zuen hori
       b) Entzun edo egin du horrek

b) *Hori eta* motakoak *—eta abar* adieraziz—:

   (2) a) Iñakirekin eta ibili da
       b) Amaiak eta ondo egingo dute hori

c) *Perpausa* + *eta* motakoak *—bait* adieraziz—:

   (3) a) Banoa, berandu da eta
       b) Partidua irabazi dute eta, poz-pozik etorri dira

d) *Hori dela eta* motakoak:

   (4) a) Berandu zela eta, gurean geratu zen lotan
       b) Larri dabil, krisia dela eta

Horrelakoetan juntagailua bereiz eta marratxorik gabe idaztea proposatu zuen aspaldi Euskaltzaindiak, beharrezkoa izanez gero ondoan koma ipiniz (*Euskera*, XVI, 1971, 158.-159. orr.). Halaz guztiz ere, gomendioak gomendio, marratxoa ipintzen jarraitzen dute idazle batzuek zenbaitetan, irakurketarako lagungarri delakoan.

2. Zer esan horretaz?

a) Egitura agerikoa eta antzematen erraza denean, ez dirudi marratxoa beharrezkoa denik. Horrela, esate baterako, juntagailua perpausaren amaieran edo perpausaren barneko pausa garbi baten aurre-aurrean gertatzen denean —hau da, puntuaren, puntu-komen edo, zenbaitetan, komaren aurrean gertatzen denean—:

(5) a) Nora joango ziren, bada? Zinera edo...
b) Hor daude Begoña eta, barrura sartzeko beldurrak
c) Etxean geratu ginen, euria ari zuen eta
d) Langabezia zela eta, kezkaturik bizi ziren denak

Edo, pausarik ez izan arren, juntagailuaren ondoan datorrena juntaduraren osagai ezin izan daitekeela garbi ikusten denean:

(6) a) Goizeko hiruretan edo hasten dira lanean
b) Igandetan eta zinera joaten gara
c) Zaharren egoitzara eraman zuten, ez zuen eta etxerik
d) Gure herria dela eta gezur handiak esan dituzte

b) Horiek baino esaldi eta perpaus konplexuagoetan, ordea —aztertzen ari garen egitura hauek mendeko perpaus baten barnean txertatzen direnean, adibidez—, gauzak ez dira beti horren errazak izaten. Marratxoa lagungarri egokia izan daiteke horrelakoetan irakurketa erraztu eta esaldien egitura hobeto ulertzeko:

(7) a) Esan didate zuen etxean-edo besteren batean agertuko direla beharbada
b) Ez dut uste gaur Pello-eta alkatearen alaba ikustera joatekoak direnik
c) Harrituta zeuden, itsusia zen-eta zuk esan zenuen hura
d) Dirua beharrezkoa dela-eta dena libre dagoela esaten duena ez dabil zuzen

Inolako markarik gabe uzten baditugu esaldi horiek, ilunak gerta daitezke, [zuen etxean edo besteren batean], [Pello eta alkatearen alaba], [itsusia zen eta zuek esan zenuen] eta [dirua beharrezkoa dela eta dena librea dagoela] uler baitaitezke, hurrenez hurren.

Koma ipin daiteke, jakina, baina hori ere ez da beti egokia izaten. Menpeko perpausa ħaustea' ekarriko luke batetik. Eta, bestalde, sintagmak gaizki lotzera ere eraman gaitzake batzuetan: (7a) adibidean, esate baterako, edo -ren ondoan koma ipinita, zuen etxean edo sintagma hori esan didate aditzaren osagarri dela pentsatzeko bidea eman daiteke [esan didate zuen etxean edo], ez ondoren datorren esaldi konpletiboarena; (7c) adibidean, berriz, koma ipintzeak perpausa gehiegi żatitzea' ekarriko luke.

Hona adibide hau egunkaritik hartu berria:

(8) a) Bittor Alkizak partidu guztian jokatu ahal izan zuen, gripea dela eta, sasoirik onenean ez bazegoen ere (*Euskaldunon Egunkaria*, 1994-1-11, 18. or.)

Perpaus horretan *gripea dela eta* esaldia aurrekoari nahiz ondokoari lotuta uler daiteke lehen begiratuan; gero, jakina, *gripea dela eta jokatu ahal izatea* oso logikoa ez denez, ondokoarekin lotuko dugu. Baina komaren lekuan marratxoa ipiniko bagenu, hasieratik ulertuko litzateke perpausa, lotuta dauden esaldi bi horien artean etenik egin gabe:

(8) b) Bittor Alkizak partidu guztian jokatu ahal izan zuen, gripea dela-eta sasoirik onenean ez bazegoen ere

Edo honako beste hau:

(9) a) Ez dira eta, hamabost egun Oliveri Jauregirekin luzaz aritu zena (*E. Egunkaria*, 1994-2-12, 4.or.)

Perpaus horretan *ez dira* eta *hamabost egun 'banatzeak'* ez dirudi oso zuzena. Koma baino egokiago izango litzateke hor ere marratxoa ipintzea:

(9') b) Ez dira-eta hamabost egun Oliveri Jauregirekin luzaz aritu zena

Ezer ipini gabe utz daitezke perpaus horiek, jakina, gorago esan bezala. Baina ezin uka daiteke noraezekoa ez bada ere lagungarri behintzat badela horrelakoetan marratxoa ipintzea, Euskaltzaindiaren erabakiaren aurretik –ikus OEH s.v. *edo*– maiz egiten zen bezala eta are gaur egun ere batzuek egiten duten moduan.

Hurrengo adibide honetan, esate baterako, ez dirudi marka ipintzea behar-beharrezkoa denik, ez baitago *edo* -ren ondotik datorrena bigarren juntagaitzat hartzeko arrisku handirik. Hala ere, perpausa aski luzea eta konplexua izanik, markatu nahi izan du idazleak egitura, irakurleak haste-hastetik behar bezala uler dezan; eta hori egiteko marratxoa beste biderik ez zuen, guztiz desegokia bailitzateke hor koma ipintzea:

(10) [...] badirudi [...] gaur egun, hastapenean izanik ere, erdiko egoera batean-edo gaudela mudantza horretan (*Jakin*, 76, 1993, 83. or)

Horiek horrela, behartu ez baina aukera bederen utzi behar zaio idazleari marratxoaren bidez testua irakurterrazago egin dezan, horrela iruditzen zaionean. Askori ez zaio gehiegi gustatuko beharbada testua horrela żamatzea', baina, hitz elkartuetan bezala, hemen ere inportanteago da testuaren irakurgarritasuna kanpoko itxura eta èstetika' baino.

3. Hortaz, hau proposatzen dugu:

a) Egitura agerikoa eta antzematen erraza denean, bereiz idatziko da juntagailua —ondoan koma izan edo ez—, bere garaian Euskaltzaindiak erabaki zuen bezala.

b) Perpaus konplexuetan, ordea, beharrezkoa izan gabe ere, aukeran izango du idazleak juntagailuaren aurrean marratxoa ipintzea, testua ulertzeko lagungarri dela iruditzen bazaio.

I.2. DIPTONGOZ AMAITZEN DIREN IZENEN DEKLINABIDEA

Gutxi dira euskaran diptongoz amaitzen diren izenak, baina, hala ere, ez dugu oraindik haien deklinabidea nolakoa den guztiz argitzea lortu. Euskaltzaindiak berak ere ez du kontu horri buruz berariazko arau edo gomendio zehatzik eskaini gaurdaino, zeharkako aipamenak han eta hemen egin izan baditu ere. Ez da alferrekoa izango, hortaz, kontua patxadaz eta arretaz aztertzea, hori dela-eta har daitezen erabakiak oinarri sendoa izan dezaten.

Horixe du txosten honek helburu: horrelako izenen deklinabidea batean eta bestean nolakoa izan den, eta nolakoa den, ahalik zehatzen aztertzea. Aurreneko atalean, batasunari begira idatzi direnetan kontu honi buruz zer esan den azalduko da, bakoitzaren erreferentzia laburra eginaz; hurrengo bietan diptongoz amaitzen diren hitz hauen erabilera aztertuko da testuetan: bigarrenean, *-au* diptongoaz amaitzen direnak aztertuko ditugu eta hirugarrenean, berriz, *-ai* edo *-ei* diptongoez amaitzen direnak.

1. *Emandako 'Gomendio' eta 'Arauak'*

1.1. Batasunerako bidea urratzen hasteko idazle batzuek 1964an Baionan egin zuten bileran diptongoz amaitzen diren izen guztiak kon-

tsonantez amaitzen direnak bezala deklinatzea erabaki zuten, inolako salbuespenik gabe. Egia esan, erabaki zehatz hori hartzeko ez zuten oinarririk falta, horixe bera esan baitzuen aspaldi Azkuek berak ere, ñabardura batzuk barne (ikus Azkue, 1923, 294. or.):

> La segunda vocal de los diptongos *ai, ei, oi, au, eu* se considera, por lo general, como consonante para los efectos de la epéntesis vocálica; es decir que vocablos como *mai* mesa, *dei* llamamiento, *loi* lodo, *gau* noche... (y hay muy pocos que se puedan citar) están comprendidos en las leyes 5.ª, 6.ª... [hau da, kontsonantez amaitzen diren izenen deklinabidea azaltzean emandakoetan].
>
> De *mai* forman casi todos los dialectos *mayean, mayekoa, mayetik, mayera*; como de *gau* todos ellos sin excepción sacan *gauean (gabean), gauekoa (gabekoa), gauetik (gabetik), gauera (gabera).* En B y algunas localidades limítrofes del *G* la *i* de los citados diptongos no se considera como consonante, sino que en vez de los vocablos supradichos se usan *maian, maira, maikoa, maitik.*

Ikusten denez, gerora Baionan hartuko zen bide beretik zebilen garai bateko Azkueren azalpena. Bizpahiru gauza azpimarra daitezke, hala ere, aipamen horretan: a) Azkuek ez du esaten gauzak beti horrela direnik; èskuarki' dio (por lo general), ez beti'. b) Diptongoaren bigarren bokala i dutenetan, hain zuzen, bizkaieran eta gipuzkeraren zati batean gauzak bestela direla aitortzen du. c) Bigarren bokala *u* dutenetan, berriz, *gau* adibidea baino ez du ematen —eta gauza bera egingo dute gero ere kontu hau aipatzen duten gehienek—; aurrerago ikusiko dugun bezala, ordea, beharbada jokabide berezia duen hitza da hori, èalbuespena' eta ez eredua.

Baionan, esan bezala, ez zuten horrelako ñabardurarik kontuan izan. Hona, esate baterako, zer zioen X. Garmendiak, 1968 (156. or.), Baionan hartutako erabakiaren ildoari jarraiki:

> (...) —ai-ei-oi-ui-au-eu—, diptongoz bukatzen diranak, mahai, zelai, hogei, eta sei bezala, nahiz eta bokalaz bukatu, kontsonantez bukatzen diranak bezala deklinatzen baitira!
>
> Egia da, gero eta gehiago idazten dela *hogeian, seian, mahaian...* baiñan, "haran" bezala deklinatzea litzake onena: *hogeiean, zelaiean, mahaiean, gauean eta abar...*

1.2. Arantzazuko txostenak bidenabar aipatzen du kontu hau, *h* -aren idazkeraz ari dela. Kontsonanteen ondoan bezala, diptongo-ondoan ere *h* -rik ez idaztea proposatzen du Mitxelenak, izenen deklinabidean

ere horrela jokatzea erabaki baitzen. Hori esanik, badirudi ontzat ematen duela Baionako erabakia. Ondoren, ordea, erabakiaren kontrako gorabehera batzuk aipatzen ditu (ikus Mitxelena, 1968, 207. or.):

> (...). Izenen deklinazioan ere horrela jokatzea erabaki bait zuten Baionan: *edozein gaietan*, esate baterako, *edozein ibarr-e-tan bezala, ez edozein mendi-tan* -en eredura. Egia da, batetik, ez dela hori beti izan antziñako jokabidea, *Bizkaian* izan bait da beti, baina *Bizkaitik, Bizkaira* etc., eta, horrezaz gainera, ez dugula guk horrela jokatzen *-(r)ik* atzizkiarekin. Gure artean, eta lehen alde guztietan dirudienez, *ez da, ez* etsairik eta antzekoak idatzi dira; beste aldekoek, berriz, *etsayik* idazten bide dute, kontsonante ondoan bezala, y letra horretarako gordeaz.

Ñabardurak ñabardura, ez da bestelakorik esaten Arantzazuko txostenean. Bi urte geroago, ordea, L. Villasantek batasunaren berri zabaltzeko idatzi zuen liburua baliatuz, gauzak zehaztu nahi izan zituen Mitxelenak (ikus Villasante, 1970, 63. or., 1. oh.):

> El mismo Sr. Michelena nos ha pedido que incluyamos aquí la siguiente aclaración. "He podido ver después que el comportamiento de los diptongos en *i* y de los en *u* no es en general el mismo. Leiç. etc. tratan los primeros como vocales: *garaian*, etc., pero los en *u* como consonantes: *gau-ean* (AX cofauean, es decir, *kofau-ean*)".

Eta horra, horrenbestez, Baionakoa aldatuta —ikus P. Altuna in *Mitxelenaren Idazlan Hautatuak*, 101. or, 1. oh.— eta Arantzazukoa zehaztuta, nola geratu zen handik aurrera batasunaren ðotrina ofiziala': bigarren bokala *i* duen diptongoaz amaitzen diren izenak bokalez amaitzen direnak bezala deklinatuko dira eta bigarrena *u* dutenak, berriz, kontsonantez amaituak bezala; *garaian, garaiko...* baina *gauean, gaueko...*, alegia, hurrenez hurren.

Urte hartan bertan, Larresorok, 1970 (17. or.), arazoa garbi ez zegoela esan ondoren eta Azkueren zalantzak gogoratu eta gero, esandako bide bikoitz òfiziala' ontzat eman zuen.

1.3. Ondoko urteetan kontu hori aipatzen dutenek dotrina errepikatu baizik ez dute egiten. Larresorok, 1974 (14.-15., 49. eta 109.-110. or.), esate baterako, aldaketaren berri eman eta arau berria azaltzen du. M. Zaratek, 1978 (26.-27. or.) araua argitzeko ematen dituen adibideetan bizkaierazko *kopau* hitza ere ematen du, *kopauez, kopauen, kopauek* egiten dela esanez. X. Kintanak, 1980 (XXVIII. or.), araua aipatzen du, inolako iruzkinik erantsi gabe. Gauza bera egiten dute Eusko Jaurlaritzak argitara emandako *EBEDE*k (1982, 60. or) eta P. Salaburu-X. Kintanak, 1984 (29. or.).

*EGLU-I*ek, 1984 (169., 174.-175. eta 323.-324. or.) onarturiko dotrina ematen du, honako ohar hau eginaz, hala ere:

> Esan dezagun, dena den, arau hau euskara batuan erabiltzeko gomendatzen dugula, zenbait euskalkitan ez baita oso osoan betetzen. Bergaran, adibidez, ("lauan" eta "lauean" bereizten dituzte, "en la llanura" eta "en el cuatro").

*EGLU-I Eraskina*n, 1987 (109.-112. or.) onarturiko bideari jarraiki ematen dira deklinabide taulak, *jai* eta *gau* izenak adibide hartuz.

1.4. Azken urte hauetan, ordea, zalantzan jartzen hasi da arau hori guztiz egokia ote den. Horrela, Euskaltzaindaik berak honako hau esan du zenbakien deklinabideaz emaniko gomendioan (ikus *Euskera* 1992, 1, 299. or.):

> *Lau* zenbakiaren kasuan gauzak nahasiago suertatzen dira, halako hitzak, diptongoz bukatzen direnez, kontsonantetzat amaituak izango balira bezala edo hartuak izan baitira gure artean: orduan *laui* edo *lauik* idatzi beharko litzateke, *lurri* edo *lurrik* esaten den moduan. Ikusten denez, nahiko itxuragabekeria litzateke hori.
>
> Datu hauek guztiak kontuan izanik, Euskaltzaindiak uste du *lau* zenbatzailea (*hiru* zenbatzailearekin batera) salbuespentzat jo behar dela euskal deklinabidean eta horregatik hauxe proposatzen du, kontuan izanik, hori bai, proposamen honek ez duela baldintzatzen diptongoz bukatzen diren gainerako sintagmen deklinabidea:
>
> 1. *Lau* izena denean (...), bokalez bukatzen diren gainerako beste edozein sintagma bezala deklinatuko da: *lau, laua, lauak (abs); lauk, lauak, lauek* (erg); e. a.
>
> 2. Izenordain baten funtzioa duenean (alegia, sintagma berak bakarrik osatzen duenean), honelaxe deklinatuko da: (...) mugagabea: *lau, lauk, lauri, laurik, lautan, lautako, lautatik, lautara, lauren, laurekin, laurentzat, laurez;* plurala: *laurak, laurei, lauretan, lauretako, lauretatik, lauretara, lauren, laurekin, laurentzat, laurez.*
>
> [Oharra: Taulak guztiz garatugabe ageri diren arren, garbi dago bi deklinabide diferente ditugula pluralean: *lauak, lauek, lauei, lauetan, lauen, lauekin* e. a. egiten da lau hori izena denean eta *laurak, laurek, laurei, lauretan, lauren* , berriz, izenordaina denean. Komeni zen, beharbada, gauza garbiago ikusteko, *lau* izenaren taula osoa eskaintzea.

Bestalde, noiz da 'izen' *lau* hitza, zenbakia bera metahizkuntzan izendatzen denean bakarrik ala baita egunak eta horrelakoak aipatzen direnean ere, hau da, *martxoaren laua, martxoaren hogeitalauan* eta horien antzekoetan ere? Horiek eta horrelakoak 'izenaren' sailean sartzen ez badira —eta hala sartu behar direla dirudi—, Euskaltzaindiak aipatu gabe utzi dituela esan beharko dugu. Edo, behintzat, ez duela kontu hau garbi adierazi.

Beraz, gomendio horretan *lau* hitza hartzen da salbuespentzat. Aztertzekoa da, ordea, kontu honetan zein den salbuespen eta zein norma.

Euskaltzaindiarenak berehala izan du oihartzuna bestelako liburuetan. Horrela, J. R. Zubimendi- P. Esnal-ek, 1993 (103.-104. or.) haren gomendioa ematen du ia hitzez hitz. Eta *Euskal Gramatika Laburra*n, 1993, ageri diren deklinabide tauletan, berriz, ez dira sartzen, badaezpada ere, EGLU-I ean ageri ziren diptongoz amaitutako izenen taulak.

1.5. Labur esateko, guztizko jarrera batetik abiatuta honako urrats hauek eman ditugu, zehaztasunean aurrera egin ahala: a) ditongoz amaitzen diren izen guztiak kontsonantez amaitzen direnak bezala deklinatzen direla esan zen hasiera batean; b) *-au* motakoak bai, baina *-ai, -ei, -oi* ditongoez amaituak bokalez amaitzen direnak bezala jokatzen direla esan zen gero; c) *-au* ditongoaz amaitzen direnetan ere salbuespenak badirela, *lau* zenbatzaile esate baterako, eta gehiago ere ba ote den ikusteko dagoela aitortu da orain berriro.

2. *Testuen lekukotasuna (-au)*

Horiek horrela direla, testuetara jotzea da biderik onena kontua garbitzeko. Eta horrela egin dugu EJIE-k eta OEH-ren corpusak ematen dizkiguten datuez baliatuz. Honako hitz hauek begiratu ditugu, auzitan dauden kasuak aztertuz: *barau, sarau, baka(i)llau, kofau, kopau, mokau, zamau, enparau, letrau, eskribau, garau, gaztelau, kristau, kristinau, kristiñau, arau, egitarau, lau* ('zelai'), *lau, hamalau eta gau.*

Lehen begiratuan ikusten da jokabide diferentea dutela Hegoaldeko euskalkiek eta Iparraldekoek. Haiek bokalez amaituak bezala jokatzen dituzte normalean *-au* diptongoaz amaitzen diren izenak eta hauek, berriz, kontsonantez amaituak bezala. Hortaz, bi ataletan banatuko dugu azterketa, Hegoaldeko euskalkiei eskainia lehena eta Iparraldekoei bigarrena.

2.1. *Hegoaldeko testuen lekukotasuna (-au)*

(Zenbakiek agerpenen kopurua adierazten dute)

2.1.1. **Barau**

Baraurik: B 11
G 30
Beste 1
[Oharra: absolutiboa *baraua* - partitiboa *baraurik*]
[J. A. Mogel: *baraurra* - *baraurrik*]
Barautan: B 3
G 1
→ Salbuespena: *Barauez* (?)

"Onetan erakusten digu prestatu bear degula lendanaz gure etsayaren equin aldietan gallenduac gueldi ez gaitecen, dala barauez, dala cilicioz, dala noicean beiñ loa, ta jana guchituaz, Jaunari erregutuaz" (Agirre A steasukoa, *Erakusaldiak* III 546)

2.1.2. **Sarau**

Saraurik: B 4
Sarauko: B 6
Saraura: B 4
Saraurako: B 2
[Oharra: denak F. Bartolomerenak]

2.1.3. **Baka(i)llau**

Makallaoz: B 1
→ Salbuespena: *BAKALLABIKAN* G 1 (Soroa, *Au Ostatuba!, 77*)
[Oharra: absolutiboan *bakallaba*; hortik beharbada partitiboaren forma]

2.1.4. **Kopau** (Ez dago kasu hauetako agerpenik)

2.1.5. **Mokau**

Mokaurikan: G 1

2.1.6. **Zamau**

Zamaurik: B 1 (*eta ardaurik*, Ondarroan. Ikus Rotaetxe, 1978, 269. or.)
Zamauz: B 1

2.1.7. **Enparau**

Enparaurik: B 1
Enparauko(-): B 11
Enparauku(-): B 3

2.1.8. **Letrau**

Letrauk: B 1 [fB]

2.1.9. **Eskribau**

Eskribauk: B 1 [fB]

2.1.10. **Garau**

Garaurik: B 4
G 1
Garauri: B 1
Garauren: B 1
Garauz: B 2
Garauban: B 1

2.1.11. **Gaztelau** (Ez dago kasu hauetako agerpenik)

2.1.12. **Kristau - kristinau - kristiñau**

Kristauk: G 5 *Kristinauk:* B 4 *Kristiñauk:* B 1
→ Salbuespena: *KRISTAUEK* G 1 (Orixe, *Quito-n arrebarekin,* 157: *zenbait kristauek*)

KRISTAUREK G 1 (Basarri, *Kantari nator,* 105: Ainbat kristaurek)

Kristaurik:	*G 25*	*Kristinaurik:*	*B 11*	——	
Kristauri:	*G 3*	*Kristinauri:*	*B 1*	*Kristiñauri:*	*B 1*
Kristauren:	*G 6*	*Kristinauren:*	*B 2*	*Kristiñauren:*	*B 1*
Kristaurentzat:	*G 1*	*Kristinauren-tzat:*	*B 1*	——	
——		*Kristinauz:*	*B 1*	——	
Kristauzko-:	*G 7*	*Kristinauzkua:*	*B 2*	——	

2.1.13. **Arau**

Arauz: B 4 [XX]
G 38 [XX]
Arauzko-: G 10 [XX]

Arauan: G 1 [XVIII: Ub]
Araura: G 41 [XIX-XX: Bv, Ir, Or, Vill, Berron]
B 7 [XX: Erk 6, Gand 1]
→ Salbuespena: *ARABERA:* G 25 [XIX-XX: Iturriaga, Iraizoz, Lizardi, Zaitegi, J. I. Goikoetxea "Gaztelu"...]

ARABERAKO: G 2
ARABERAN: G 3
ARAUERA: G 6 [XX: Iraizoz, Berrondo, Zaitegi]
ARAUERAN: G 1 [XX: M. Lekuona]
ARAUERAZ: G 1 [XX: Berrondo]

2.1.14. **Egitarau**

Egitarauan: 2 (?)

2.1.15. **Lau ("zelai")**

(itz) lauz: B 3
G 7
→ Salbuespena: *(itz) LAUEZ:* B 1 (Erkiaga)
LAUEZKOENTZAT G 1 [Lizardi]

lauan: B 1
G 3
lauban: B 1
G 1

2.1.16. **Hamalau**

amalauren: G 1
amalaugaz: B 1
amalauan: B 2 [XX: Tx. Agirre, Enbeita]
Beste 1 [XX: Aresti]
amalauban: G 1 [XIX: Beovide]
→ 'Salbuespena': *AMALAUEAN:* G 6 [XIX-XX: Iztueta, Lardizabal(3), Orixe, J.A. Irazusta]
AMALABIAN: G 1 [XIX: Euskal Jokoak]

amaluko ('soneto'): G 12
amalauko: B 2
G 1

amalukua: B 1
amalautik: G 3
amalaurako: B 1

2.1.17. **Lau ['4']**

lauk: B 5
G 1
→ Salbuespena: LAUREK: B 1 [Erkiaga: *bik edo laurek*]
G 1 [J.A. Irazusta: *Aietan laurek....*]
lauri: G 1 [XIX: Agirre Asteasukoa]
lauren: G 4 [XIX-XX: Iztueta, Apaolaza, Tx. Agirre]
Beste 1 [Mendigacha]
[*lauren* = *laurden:* 31]
laurekin: G 2
Beste 1
laurentzat: B 1
laurentzako: G 1
→ Salbuespena: *LAUREZ:* G 1 [XVIII: Mendiburu: sei aldiz... *laurez...*]
lautan: G 1
→ Salbuespena: *LAURETAN:* G 1 [Mendiburu]
Beste 1 [Aresti]
lautako-: G 2
lautatik: B 2
G 6
→ Salbuespena: *LAUETATIK:* G 1 [J.A. Irazusta]
lautara: B 1
G 3
lauan: G 4 [XIX-XX: Euskal Jokoak, Tx. Agirre, Urruzuno, Uztapide]
lauban: B 1 [XIX: Fray Bartolome]
G 2 [XIX: Euskal Jokoak]
lauen: B 1 [XX]

→ 'Salbuespena': *LAUEAN:* G 2 [XIX: Iztueta]
LABEAN: G 1 [R.M. Azkue]
LABIAN: G 1 [XIX: Soros]
LAUBEAN: G 2 [XIX-XX: Euskal Jokoak, N. Etxaniz]
LAUBIAN: G 1 [XIX: E. Azkue]

lauko: txanpona, ogi neurria, koadroa, ahapaldi: B 48
G 17

lauko-: G 3
lauku-: B 5
G 3
lautik: G 6
laura: G 1

2.1.18. **Gau**

gaurik: B 6
G 12

→ Salbuespena: *GABARIK:* B 1 [F. Bilbao]
GABERIK: G 2 [Lizardi]

gauren: B 1
→ 'Salbuespena': *GAUEZ:* B 2
G 91
GAUEZKO: G 4
GABEZ: B 34
G 28
GABEZKO: B 1
G 1
GAUBEZ: G 1
[GABAZ/GAUBAZ: B askotan]

gautan: B 2 [Arrese Beitia]
G 2 [R.M. Azkue, Orixe]
→ Salbuespena: *GABETAN:* B 1 [Arrese Beitia]

gauan: B 4 [Erkiaga, F. Bilbao, Tx. Agirre]
gaban: B 3 [Añibarro, Arrese Beitia, Lauaxeta]
G 2 [Xenpelar, Etxaide]

gauban: B 3 [Añibarro]

→ 'Salbuespena': *GAUEAN:* B 1
G 58
Beste 5
GABEAN: B 32
G 86
GABIAN: B 36
G 21
GAUBEAN: B 24
G 25
GAUBIAN: B 11
GABEON: B 2
GAUBEON: B 5

gauko: B 2 [Lauaxeta]
→ 'Salbuespena': *GAUEKO:* B1
G 27
Beste 1
GABEKO: B 41
G 45
GAUBEKO: B 11
G 1
→ 'Salbuespena': *GAUETIK:* G 2
GABETIK: B 1
G 6
Beste 1
GABERIK: B 2
→ 'Salbuespena': GAUERA: G 1
GAUERAKO-: B 3
G 8
Bat 1
GAUERAINO: G 2
GABERA: B 17
G 8
Bat 1
GABERAGO: B 1
GABERAÑO: B 4
G 3
GABERAKO: B 21
G 13
GABERANTZ: B 1
GABERARTE: B 3
G 4
GAUBERA: B 2

2.2. *Iparraldeko testuen lekukotasuna (-**au**)*

2.2.1. **Bakaillau**

BAKAILLAUEZ (beteta) 1 [XIX: ECocin]

→ Salbuespena: *bakaillauko:* 2 (XVII:INav)
bakaillauraino: 1 (XVII:INav)

2.1.2. **Garau**

GARABEK: 2 (XVII)
GARAUIK: 1 (XVII)
GARABIK: 30 (XVII-XIX)

GARABENTZAT: 1 (XVII)
GARABEZ: 1 (XVII)

2.2.3. **Kristau**

KRISTAUIK: 1 (XX)
→ Salbuespena: *kristaurik* 2 (XIX: ChantP, Dv)

2.2.4. **Kofau**

KOFAUEAN: 2 (XVII: Ax)
KOFAUERA: 1 (XVII: SP)
[Oharra: SP: kofaue-zilhoak kofauea
Beraz: *kofaue* ote hitzaren forma?]

2.2.5. **Arau**

ARAOIK: 1 (XIX)
ARAUEZ: 18 (XVI-XX)
ARAUEZKO: 7 (XVI)
ARABEZ: 13 (XIX-XX)

→ Salbuespena: *arauz:* 48 (XVII-XX)
arauzko: 1 (XVII)

[Oharra: BN-ko *araiz* forma ez bide dator *arauz-etik,arauez* > *arawiz* formetatik baizik. Cf. OEH s.v. *arauz*]

ARAUEKO: 1 (XVII:EZ)

→ Salbuespena: *arauko:* 3 (XIX-XX:Dv, Larz, Mde)
araukua: 1 (XVIII: AR)

ARAUERA: 134 (XVII-XIX)
ARAUERAGO: 1 (XVII)
ARAUERAKO: 15 (XVII)
ARABERA: 460 (XVII-XX)
ARABERAKO: 76 (XVIII-XX)
ARABERALAT: 3 (XX)
ARABERAN: 15 (XIX-XX)
ARABERARA: 2 (XIX-XX)
ARABERARAT: 1 (XX)
ARAUIALA: 18 (XVIII)
ARAUALIA: 11 (XVIII)

→ Salbuespena: *araura:* 140 (XVII-XIX:, Lç(95), Gç(3), FPrS,Cat Lan, JesBih, Arb(4),Mde(30))

[Oharra: JesBih, CatLan, Arb. bietara: *araura-arabera*]

2.2.5. **Hamalau**

HAMALAUEAN: 1 (XIX) (Eliz ??)
HAMALAUEKO: 5 (XIX-XX)(Ox, Mde, Zerb, Xa)

2.2.6. **Lau ['4']**

LAUEK: 3 (XIX-XX)
LAUENTZAT: 1 (XX)
LAUEZ: 2 (XIX-XX)
LAUREZ: 1 (XVI ??)
LAUETAN: 3 (XVIII-XX)
*LAUETAN (ho-*40 *goi):*
*LAURETAN (ho-*BN 5 L 1 *gei):*
*LAURETAN (ho-*L 8 *goi):*
→ Salbuespena: *lautan-hogoi:* 1
LAUETARIK: 2 (XX)
LAUETARAT: 1 (XIX)
LAUEAN: 1 (XVII)
LABEAN: 2 (XVII)
LAUIAN: 1 (XIX) BN
LAUREAN: 1 (XVIII)
LAURIAN: 1 (XIX) BN
LAURIN: 1 (XIX) BN
→ Salbuespena: *lauan:* 3 (XIX) (JesBih, Laph)
→ Salbuespena: *laukoa:* 1 (XX) (JE)
→ Salbuespena: *lauraino:* 1 (XX) (Etcham)

2.2.7. **Gau**

→ Salbuespena: *gauk:* 1 (XVII: Mat ??)

GAUIK: 4 (XVI-XX) (EZ, O, Jnn, Etcham)

→ Salbuespena: *gaurik:* 2 (XIX-XX) (Dv, Mattin)

GAUEN: 2 (XVII)

GAUEZ: 11 (XVII-XX)

GAUEZKO: 1 (XX)

GAUETAN: 1 (XIX)

GAUETARIK: 1 (XX)

GAUEAN: 40 (XVI-XX)

GABEAN: 7 (XVII-XX)

→ Salbuespena: *gauan:* 3 (O, HU, Mde)
gaban: 1 (XIX) (BN, CatLuz)

GAUEKO 4 (XVII-XIX)

→ Salbuespena: *gauko:* 2 (XX:Mde)

GAUETIK 4 (XVII-XIX)

→ Salbuespena: *gautik:* 1 (XX:Mde)

GAUERA: 1 (XVII)

GAUERAT: 1 (XIX)

GAUERAKOAN: 3 (XX)

GABERA: 1 (XVII)

2.3. *Ondorioak (-AU)*

2.3.1. Hegoaldean, bokalez amaitzen diren izenak bezala deklinatzen dira normalean hitz amaieran-*au* diptongoa dutenak ere. Ikus, esaterako, partitiboa, *nori* eta *noren* kasuak. Eta gainerako kasuetan ere horixe da ohiko jokabidea. Horrela da batez ere amaierako-*au* hori aldaketaren baten ondorioz duten hitzetan (**kristianu* > *kristau*), baina baita bestelakoetan ere *[arau, lau...]*, hauetan salbuespen batzuk badiren arren.

Salbuespenak hiru motatakoak dira:

a) Noizbehinkakoak, aintzat hartzekoak ez direnak eta askotan bestelako esplikazioren bat dutenak: *barauez, bakallabikan, kristauek, kristaurek, (itz) lauez, lauezkoentzat.*

b) Zalantza erakusten dutenak. *Lau* hitzaren inesiboa bitara ageri da testuetan: *lau(b)an* 6, baina *lauean* etab. 8; *amalau(b)an* 4, baina *amalauean* etab. 7. Esan behar da, hori bai, *lauean* motako agerpen guztiak gipuzkerakoak direla, ez bizkaierazkoak. Eta, hori baino inportanteagoa dena, bitasun hori ez dela inesiboan baino gertatzen, gainerako leku kasuak bokalez amaituen bidetik egiten baitira beti: *lauko, amalauko, lautik...* [Hitz honen gainerako kasuetako salbuespenak noizbehinkakoak dira, lehen sailekoak bezala: *laurek, laurez, lauretan eta lauetatik*]

c) Sistematikoagoak direnez, aintzat hartzekoak direnak:

* *GAU* izenak *-e-* epentetikoa hartzen du, gehienetan behintzat, kontsonantez amaituak epentesi hori hartzen duten kasuetan: *gauez, gauean, gaueko, gauetik, gauera* beren aldaera guztiekin –izan ere, hitza den bezalakoa delako, kontsonante bihurtua ageri da askotan diptongoaren bigarren bokala edo bestela *-b-* kontsonantea ditongoaren eta ondoko bokalaren tartean sartua duela: *gabez, gabean* edo *gaubean...*–. Horretan nahiko sistematikoa dira bai gipuzkera eta bai bizkaiera ere. Ikusten da, hortaz, -au diptongoaz amaituen eredu gisa hartu izan den hitz honek bere bidea duela.

Gainerako kasuak ohiko bidetik egiten ditu honek ere, bokalez amaituak bezala: *gaurik, gauri, gauren..* Ez dago garbi nola egiten duen mugagabeko denbora kasuetan: *(edozein) gautan ala gauetan* etab.?

* *ARABERA* posposizioa ere 'salbuespentzat' har daiteke, Iparraldetik horrela hartu bide zena –*araura* -ren ondoan–eta Euskaltzaindiak batasunerako hobetsi berri duena. Horrek ez du esan nahi, ordea, *arau* izenaren adlatiboa ere *arabera* egiten denik ('arautik araura bada aldea' esango genuke, beharbada, 'legetik legera bada aldea' adierazteko, ez 'arauetik arauera' edo 'arabetik arabera').

2.3.2. Iparraldeko tradizioan izen hauek kontsonantez amaitutzat hartzeko joera dago. Egia esan, askoz ere gutxiago dira amaieran *-au* diptongoa duten hitzak. Eta ez dira falta, gainera, hemen ere bokalez amaitutakoen antzera egiten dutenak:

* Zaharrak eta berriagoak–bakaillauko, bakaillauraino (XVII), kristaurik (XIX).

* *Arau* hitzarenak: *arauz* (XVII-XX), *arauko* (XIX-XX), *araura* (XVII-XIX: hortik aurrera *arabera*)

* *Lau* hitzaren zalantzak: *lauan* (XIX), *lauko* (XX), *lauraino* (XX).

Eta *gau* hitza ere, normalean kontsonantez amaituak bezala deklinatzen den arren, inoiz salbuespen bat edo beste badu, hegoaldean bezala: *gauk (?), gaurik, gauan, gauko.*

2.3.3. Horiek horrela direla, honako proposamen hau egingo genuke batasunerako:

1. Bokalez amaituak bezala deklinatuko dira normalean *-au* diptongoaz amaitzen diren hitzak, horrela egiten baita Hegoaldean —eta hor erabiltzen dira ugarienik horrelako hitzak— eta Iparraldean ere horrela jokatzen baita zenbaitetan, gehienetan ez bada ere. Beraz, adibide bat ematearren, hau da hobesten den deklinabidea auzitan dauden kasuetan: *arauk, araurik, arauri, arauren, arauz(ko), arautan, arautako, arautatik, arautara mugagabean* eta *arauan, arauko, arautik, araura* singularrean.

2. Salbuespen jakin batzuk baditu, hala ere, jokabide orokor horrek:

a) *Gau* hitzak deklinabide berezia du. Euskalki guztietako jokabideari jarraituz, *-e-* bokala tartekatzen du mugagabeko instrumentalean eta singularreko leku kasuetan, kontsonantez amaituek egiten duten bezala: *gauez, gauean, gaueko.* Baina, bestalde, *-r-* tartekatzen du bokalez amaituek horrela egiten duten kasuetan: *gaurik, gauri, gauren.* Beraz, honako paradigma hau izango luke hitz honek: *gauk* (ala gauek ?), *gaurik, gauri, gauren, gauez* mugagabean eta *gauean, gaueko, gauetik, gauera* singularrean. Horren garbi ez dago mugagabeko leku kasuetan nola egin: gautan ala *gauetan, gautako* ala *gauetako, gautatik* ala *gauetatik, gautara* ala gauetara.

b) *Arabera* posposizioa ere 'salbuespena' da. *Arau* izena, hala ere, bokalez amaituak bezala deklinatuko da, esan bezala, baita adlatiboan ere, hobetsitako bideari jarraiki.

3. *Lau* hitza, ordea, arau orokorraren arabera deklinatuko da. Testuek erakusten dutenaren arabera, hitz honen inesibo singularra salbuespena izan zitekeen, *lauan* bezala, *lauean* zein bietara deklinatzea erabaki baitzitekeen. Dena den, egokiago dirudi kasu horretan ere, beste guztietan bezala eta sistemari jarraiki, bokalez amaituen bideari jarraitzea eta *lauan* forma hobestea. Horrela egin du Euskaltzaindiak, dirudienez, zenbakien deklinabideaz eman berri duen gomendioan.

Gorago esan dugun bezala, garbi esaten da gomendio horretan lau 'izena' bokalez amaituak bezala deklinatzen dela: *lauan*, beraz, inesiboan. Ez da garbi adierazten, ordea, noiz den 'izen': zenbakia metahizkuntzan izendatzen dugunean bakarrik? Ez, alegia, hilaren eguna izendatzen dugunean *—martxoaren laua, uztailaren lauan...—* eta horien

antzekoetan *—laua libre dago, lauan sar zaitez...*, 'lau' zenbakia duen gelan, alegia—? Gomendioan berariaz esaten ez den arren, horietan ere 'izen' bezala jokatzen du lau hitzak, ez 'izenordain' bezala eta, hortaz, badirudi 'izenarentzat' hobetsi den deklinabidea segitu behar dutela horiek ere, hots, bokalez amaituei dagokiena: *laua, lauak...* eta baita *lauan, lauko, lautik* eta *laura* ere. Garbiago eta berariaz adierazi beharko litzateke hori.

3. *Testuen lekukotasuna (-Ai)*

Txosten honetan *-au* diptongoz amaitzen diren hitzen jokabidea aztertu da batik bat; horretaz egiten da proposamena. *-ai* diptongoz amaitzen diren hitzak hobeto aztertu beharra dagoen arren, daturen bat edo beste eango dugu ondoren.

Ondoko hitz hauen jokabidea aztertuko dugu: *garai, jai eta zelai.* Ezkerreko zutabean epentesi gabeak daude, hau da, bokalez amaituak bezala deklinatuak. Eskubian, berriz, epentesidunak:

1. *garaian:* (182):	*GARAIEAN* (30):
XVI Leiç (2)	
XVII: Ax (1) (Naf. Garayan)	
XIX: 27	XIX: AA (2), Lard (4)
XX: 152	XX: (24)
garaiko (20):	*GARAIEKO* (1):
XVII: Oih (1)	
XIX: 3	
XX: 16	XX: Villas (1)
2. *jaian* (19):	*JAIEAN* (9):
	XVIII-XIX:Lizarraga (1)
XIX: 2	XIX: AA (2), Lard (3) It (1)
XX: 17	XX: 2
jaiko (5):	*JAIEKO* (1):
XIX: (1)	XIX: Lard (1)
XX: (4)	
3. *zelaian* (59):	*ZELAIEAN* (14):
XIX: 11	XIX: Lard (1), Izt (3)
XX: 48	XX: 10 (Or 6)
zelaiko (12):	*ZELAIEKO* (3):
XIX: 2	
XX: 10	XX: Orixe (3)

Ondorioa: Epentesidunak, oro har, maiztasun txikiagokoak eta be-

rriagoak dira *–jaiean* izan ezik–. Itxuraz, hegoaldekoak dira denak edo gehienak. Orixek joera handia zuen horretarako, baina, hala ere, bokalez amaituak bezala batere epentesirik gabe deklinatzen direnak zaharragoak eta ugariagoak dira, garai guztietan ugariagoak gainera.

AIPATUTAKO BIBLIOGRAFIA

AZKUE, Resurrección M.ª de, 1923: *Morfología Vasca* (1969, Bilbo, La Gran Enciclopedia Vasca)

EBEDE, Eusko Jaurlaritza: *Euskaltzaindiak batasunerako eskaini dituen erabakiak* (Gasteiz, 1982)

EGLU-I, Euskaltzaindia: *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak* (Iruñea, 1984)

EGLU-I,Eraskina, Euskaltzaindia: *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak. Eraskina* (Bilbo, 1987)
Euskaltzaindia, *Euskal Gramatika laburra* (Bilbo, 1993)

GARMENDIA, X. 1968: *Euskera, XIII*, 156. -157. orr.

KINTANA, X., 1980: *Hiztegia-80* (Bilbo)

LARRESORO, 1970: *Sustrai bila* (Donostia)

LARRESORO, 1974: *Euskara batua zertan den* (Oinati)

MITXELENA, K., 1968: *Euskera, XIII*, 205.-211. orr.

ROTAETXE, K, 1978: *Estudio estructural del euskara de Ondárroa* (Durango)

SALABURU, P.; KINTANA, X., 1984: *Euskara hobean hobe* (EHU)

VILLASANTE, L., 1970: *Hacia la lengua literaria común* (Oñate)

ZUBIMENDI, J.R.; ESNAL, P., 1993: *Idazkera-liburua* (Gasteiz)

I.3. PARTITIBOA BAIEZKO PERPAUSETAN NOIZ NOLA

EGLU 1ean (408-410. orr.) esaten den bezala, izen sintagma partitiboak lau perpaus motatan erabiltzen dira:

– ezezkakoetan

– galderetan

– baldintzazkoetan

– baiezkoetan, indar enfatikoa emanez

Lehenbiziko hiru kasuetan ez da arazorik eta partitiboak, nahi izanez gero, beti badu tokia:

(1) Ez dut ogirik erosi.

(2) Ogirik erosi duzuia?

(3) Ogirik erosi bazenu, puska bat hartuko nizun.

Laugarren kasuan gauzak ez dira hain argi.

Alde batetik partitiboa baiezkoetan erabiltzea itzuli enfatiko bati dagokionaz gero, ohiz kanpoko erabilera dela, edo bederen erabilera markatua dela esan beharra da, ugaritasuna edo bizikitasuna' adierazten baita haren bidez, edo baieztapena indartzen.

(4) Bada pentze gizenik hemen!

(5) Badut beste egiteko presatuagorik!

Goiko adibide horietan gertatzen den bezala, maizenik *izan /egon eta ukan /eduki* dira perpauseko aditzak, baina ez da hori baitezpadako baldintza.

(6) Artzain baliusik hara biltzen da (Etxahun)

(7) Gaur film hoberik egiten da (Mitxelena, *Idazlan Hautatuak,* 328)

(8) Ni ez naiz eredutarako jaioa, eta hoberik aurki dezake irakurleak bazterretan (Mitxelena, *Idazlan Hautatuak*, 366)

Bestalde, baiezko perpausetan diren sintagma partitiboek badute gutiz gehienetan ardatz izenaren ondoan, izenondo bat, edo beste elementu adjektibal bat. Hona zenbait adibide:

***Beste* + izena:**

(9) Anartean bazen eta bada omen orain Parisen bertze lanik (Hiriart-Urruty, *Zezenak Errepublikan*, 89)

(10) Badu bertze egitekorik goiz huntan (Barbier, *Ipuinak*, 134)

(11) Gaixoak badu bertze lanik egungo egunean (Lafitte, *Murtuts eta bertze*, 117)

(12) Beste esankizunik ere badago (Mitxelena, *Idazlan Hautatuak*, 324)

Izenlagun genitiboa + izena:

(13) Bazen heien artean thalendu handitako gizonik (M. Elissamburu, *Framazonak eta...*, 122)

(14) Jainkoak etzaitu ezarri mundu hunetan zure beharrik zuelakotz (Pouvreau, *Philotea*, 36)

(15) Bazeukan buruan aurreragoko gauzarik (D. Agirre, *Garoa*, 160)

(16) Eukiko jok oraindino Anastasik nire beharrik (F. Bilbao, *Ipuin barreka*, 198)

Izena + izenondoa:

(17) Ziberuan bada mithil eijerrik (Etxahun)

(18) Geroz eta lehen izan da zure familian letratu handirik (Tartas)

(19) Botigan badut nik kalitate finik, Parisetik jinik, zuentzat eginik (J. Moulier, *Lan orhoitgarri zonbait*, 205)

(20) zeren baskoak baitira abil..., eta hetan izan baita, eta baita letratu handirik (Etxepare)

(21) Akzione ederrik eta saindurik egin du hark ere (Tartas)

Batzuetan sintagmako ardatza isildua izanik, sintagma adjektibala bakarrik agertzen da; hori perpaus erlatiboekin ere maiz gertatzen da:

(22) Horretarako biguinagorik behar da (Mitxelena, *Idazlan Hautatuak*, 253)

(23) Mintzatu balitz ederrik ikasiko zuten itsasuarrek (Lafitte, *Murtuts eta bertze*, 62)

(24) Antonio, pixkat kantatzeko mesedea egin bear diguzu: gure gau-lagun onek ikusi dezan, musika dakienik ba dala basi ta menditan ere (P. Berrondo, *Don Kijote Mantxako*, 126)

(25) Bada bakean dagoenik, eta bertzekin ere bakea dadukanik (S. Pouvreau, *Imitazionea*, 87)

Joera hori ikusirik, zenbait gramatikalarik, hala nola Lafittek (§ 160), erran izan dute izen xoil batez osatu izen sintagmetan partitiboa ezin erabil daitekeela baiezko perpausetan.

Joera nagusia da, dudarik batere gabe, sintagma partitibo horiek sintagma adjektibal barnean daukatela erabiltzea. Haatik, ez bide diogu

joera horri debeku zorrotz-zorrotzaren itxura eman behar, zeren ez baita salbuespenik gabekoa. Alabaina, gutiagotan bada ere, sintagma partitiboak agertzen dira zenbaitetan baiezko perpausetan, inolako izenondorik ez izenlagunik izan gabe ondoan:

(26) Iratin eta Arbotin hik badük lagünik (Etxahun)

(27) Entzuleen artean komentariorik izan zen (Erkiaga, *Irribarrea galtzen danean*, 68)

Sintagma partitiboak helburuzko perpaus bati lotuak direnean errazkiago agertzen dira izenak bakarrik haien barnean:

(28) Badauka lanik konjuruak egiten (F. Bilbao, *Ipuin barreka*, 231)

Kontuan har bedi, halere, horrelakoetan izena bakarrik agertzen denarren, izenondo bat ondoan balu bezala ulertzen dela. Adibidez, (26)an *lagun onik*, (27)an *komentario txarrik*, (28)an *lan handirik* edo *zailik* balute bezala ulertzen ditugu perpausak. Badirudi izena soilik utzi nahi bada, horrelako interpretazioei bidea irekitzen dieten izenak behar direla. Adibidez ondoko adibideko perpausean beste kentzen bada sintagma partitibotik, perpausa trakeski moldaturik gelditzen da (edo oso testuinguru berezia asmatu beharra da interpretazio egokiari leku egiteko):

(29) Gatu horrek badu bertze buztanik

(30) ??Gatu horrek badu buztanik

Ikus daitekeenaz, baiezko perpausetan partitiboa erabil badaiteke, ez da nolanahika egiten. Horregatik ez da egokia itzuli hori enfasi beharrik gabe eta izen soilekin erabiltzea.

Eman dezagun norbaitek goizetik arratsalde arte eguraldia aldatu denetz jakin nahiz galdera hau egiten duela: *Izan da aldaketarik?*, ez litzateke egoki, hanpadura berezirik gabeko baiezko erantzun xoil batean partitiboa erabiltzea eta *Bai, izan da aldaketarik* esatea. Alabaina, testu inguru horretan eguraldi aldaketa besterik gabe izan dela adierazi nahi bada, ez da tokirik partitiboarentzat.

Orain, gerla aurreko eta gaur egungo gizarte egoerak aipatuz galdera bera egiten balitz, eta erantzunean gertatu diren aldaketak ugari eta sakonak izan direla azpimarratu nahi bagenu *Bai, izan da aldaketa sakonik* esanez, oso molde egokian gerta liteke partitiboa.

Badirudi azken bolada honetan piska bat eskutik joan zaigula partitiboaren erabilera hori, hanpadura joko berezia eskatzen duelarik, batere horrelakorik gabe baliatua baita batzuetan. Adibidez, gero eta maizago entzuten edo irakurtzen dira hau bezalako esaldiak:

(31) UGT-k eta CCOOek egin dituzte proposamenak. Dena den ELAk ere egin du proposamenik.

Adibide horretako bigarren perpausean ELA sindikatuak ere beste sindikatuek bezala proposamenak egin dituela esan nahi da besterik gabe. Lekuz kanpo erabilia da, beraz, kasu honetan partitiboa.

Komeni litzateke baiezko perpausetako sintagma partitiboen erabilera zaintzea, eta tradizioaren arabera enfasi jokuetara mugatzea, komunzki izenaren ondoan zenbait sintagma adjektibal ere erabilirik.

Gainera dezagun, aurretik esana osatuz baina gauzei beste aldera behatuz, guziz baztergarria dela batzuetan, sintagamak balio generikoa duenean alegia, ezezkako perpausetan partitiboaren ordez artikulua erabiltzea. Har dezagun adibide bat.

Izatezko perpausetan artikulua balio generikoa izanik erabiltzen da maiz baiezkoan:

(32) a) Papera bada

b) (Ez naiz ezkondua baina) haurrak baditut.

Aitzitik ezezkako perpausetan artikulu generikoa ezin erabil daiteke horrelakoetan, eta partitiboa beharrezkoa da:

(33) a) Paperik ez da / ez dago paperik

b) (Ez naiz ezkondua eta) haurrik ez dut.

Beraz, egia bada perpaus zenbaitetan bai artikulua eta bai partitiboa zilegi direla, ez da beti horrela gertatzen.

(34) a) *Lana ez dago

b) *Ez ditut gehiago lagunak

edo horrelako itzulietan partitiboa nahitaezkoa da:

(35) a) Lanik ez dago

b) Ez dut gehiago lagunik

I.4. HIRU KILOKO VS. HIRU KILOTAKO HAURRA

*Hiru kilo**k** **o** haurra/hiru kilo**ta** **ko** haurra* bezalako forma bikoitzak aurkitzen dira euskal testuetan, eta entzuten ahozko mintzairan. *-ko* eta *-tako* bi atzizki forma ditugu, beraz, 'eutea' edo posesiboa adierazten du-

ten izenlagunak sortarazteko. Baina baturako bidean forma bakarra erabili nahi bada, zein aukeratu behar da?

> *-ko* atzizki forma hobesten da, hau baita eskuarki erabilia.

I. Egitura motak

-ko atzizkia, betetzen duen funtzioaren arabera, hiru egitura motatan ager daiteke:

1. *Izena + -ko → izena*

Batzuetan *-ko* atzizkia erator-atzizkia dugu, izen bati erantsiz beste izen bat sortarazten duenean, hain zuzen: Karlos + *-ko* → Karloseko (= Karlosen *etxea*), masail + *-ko* → masaileko ('kolpea'), gerri + *-ko* → ('janzkia'), *belarriko/belarritako, oinetako* ('janzkia'). Baina hemen ez gara *-ko/-tako* forma hartzen duen *-ko* erator-atzizki honetaz arituko.

2. *Adizlaguna + -ko*

Egitura honek, *-n* kasu marka daraman izen sintagma du oinarrian, eta leku-denborazko izenlagunak sortarazteko erabili ohi da.

-ko hori hiru egitura desberdinetan ageri ohi da: *-ko / -etako / -tako*, horietako bat atxekitzen zaion sintagma hurrenez hurren singularra, plurala edo mugagabea den neurrian.

Izenlagunekin ageri dira, beraz, *-ko / -tako* ez bezala, bi sintaxi kontestu diferentetan. Haiek adjektiboak sortarazten dituzte; hauek, aldiz, izenlagunak. Ez dira, beraz, lantxo honen izenburuko gaiari dagozkionak.

Hiru ohartxo, hala ere, izenlagunen sortzaile diren *-ko / -tako* hauek forma bereko adjektibatzaileekin nahas ez ditzagun:

* Lehena: batzuetan, *-ko / -tako* formak elkarren ordeko ager daitezke zenbatzailerik gabeko izen sintagma bati atxekirik:

(1) a) zuen *kaltetako/kalteko* izango da hori

b) bere *onetako/oneko* esan diot egia

c) artistaren *ohoretako/ohoreko* jarri dute oroitarri hori

Kasu honetan *-ko / -tako* horiek *zertako* kasu destinatiboari dagozkio, eta ez inesiboari. Eta beti ere adizlagunak izango dira horrela sortutakoak eta ez adjektiboak.

* Bigarrena: kontutan hartzekoa da, halaber, *gerizpetako / gerizpeko, ilunpetako / ilunpeko, eguzkitako / eguzkiko* bezalako bikoteen arteko diferentzia formala, eta inoiz semantikoa ere. Bikote horietako lehenek inesiboko *gerizpetan, ilunpetan, eguzkitan* forma mugagabeak dituzte oinarrian; bigarrenek, aldiz, kasu bereko *-an* forma singularra.

Bigarren egiturako *-ko / -tako* hauek ere, formaren aldetik, eta inoiz esanahaiaren aldetik ere, duten diferentzia erakusteko balio izateaz aparte, ez dute garrantzi berezirik.

* Hirugarrena: ez dira nahastu behar, noski, bi esapide hauek: *bost urtetako/urteko (< urtetan egindako) lanak / bost urtetako/urteko (< urte dituen) haurra.* Lehenengo *-ko / -tako* inesiboaren gainean eraikiak dira eta lanen *noizkotasuna* adierazten dute; bigarrenak, aldiz, izen multzoari zuzenean erantsiak direnez, *eutezko* esanahia dute.

3. *Izen multzoa + -ko*

3.1. Forma

Adizlaguna + *-ko* egiturak ez bezala, honek:

* azpiegituran ez du inesibo kasuko izen sintagmarik,

* ez mugatzailerik,

* ez eta, beraz, numero markarik ere.

Hala ageri da adibideotan:

(2) a) *buru argiko* irakaslea dugu unibertsitatean

c) *beso luzeko* mutilak hobe arraunketako

c) *lau eta hiru hankako* mahaiak ezagutzen ditugu

d) *azken hamarrekoa* jaso ondoren, museko lagunei bostekoa emanez bukatu genuen musaldia

e) gerra aurretik ezagunak ziren zilarrezko *errealbiko, peztako, bi peztako* eta *ogerlekoak*

f) *hirurehun kiloko* harria jasoa du Perurenak

g) *hirurogei ontzako* hogei enbor ebaki zituzten atzo aizkolariek

h) *zenbat kilometroko* bidea dago Baionatik Donostiara?

i) "Beldurra diot *liburu bakarreko* gizakiari", esan zuen Santo Tomasek

j) *kantari askoko/anitzeko* taldea da Donostiako Orfeoia

k) *zazpi eguneko epea* dugu azterketa prestatzeko

l) *urte gutxiko haurrak* zer egin lezake gurasorik gabe?

-ko edo *-tako* atzizki forma adjektibatzailea har dezaketen izen multzoak edo oinarriak mota hauetakoak izan daitezke:

a) Izena oinarri:

* Izen abstraktua + *-ko*

(3) a) *edadeko* pertsonari begirunea zor zaio

b) *hitzeko* gizona errespetagarria da

c) *itxurako* lanik egin al duzue?

Oso gutxi dira honelakoak.

* Partizipioa + *behar*

(4) a) *ondo egin beharreko* lana da hori

b) euskaldunek *jakin beharreko* hizkuntza da euskara

Izena oinarri duten bi kasu horietan *-ko* atzizkia bakarrik erabili izan da; ez da, beraz, lekurik *-tako* formarentzat.

b) Izena + izenondoa + *-ko*

Lehenik, ohar gisa aurrera dezagun hemen ez garela *-ko/-dun* atzizkien bereizketaz arituko, ez eta Bahuvrîhi elkarketaz ere, *-ko/-tako* forma bikoitzaren erabileraz baizik.

Ohar hori egin ondoren, esan behar da izena + izenondoa egitura adjektibatzeko, oro har, *-ko* atzizkia erabili izan dutela idazleek:

(5) a) *Negurri gaitzekoa* zuen (Elissamburu, *Piarres.Adame*, 6)

b) *Ago oneko* kafea (*CancioneroVasco I*, 23)

c) Ergela da jende hori, etajite *txarrekoa* (J. Etchepare, *Buruxkak*, 126)

d) *Sudur handiko* gizona (Elissamburu, *Piarres. Adame*, 30)

Badira, noski, *-tako* daramaten zenbait adibide ekialdeko testuetan, Haraneder-en testuetan batipat:

(6) a) *...aire handitako* andre bat (Laphitz *Bi saindu...*, 55)

b) *Fede apurretakoa*, fidantza gutitakoa (Axular, 179)

c) Gauza aski *mengoa handitakoa* da (Duvoisin, *Laborantzaco liburua*, 311)

d) Aurkiturik, bada, perla bat *balio handitakoa* (Haraneder, Harriet, *Iesu-Christo gure iaunaren Testament berria*, 32)

e) Ez baidut nihor enekien hain *gogo berdinetako denik* (Haraneder, Harriet, *Iesu-Christo gure Jaunaren Testament berria*, 403)

f) (...) *usain onetako* zur mota guziak (Haraneder, Harriet, *Iesu-Christo gure iaunaren Testament berria*, 546)

Baina, hala ere, erabilera hau ez da erabatekoa ekialdeko testuetan, *-ko* ere erabiltzen baitute. Hegoaldean, berriz, hau da ia erabatekoa.

c. Zenbatzailea + izena (+ izenondoa) + -ko

Zenbatzaileak zehaztuak edo zehaztugabeak izan daitezke; oinarriko izena, berriz, adina, prezioa, neurria, pisua, tamainoa eta denbora adierazten duena izan ohi da gehienbat.

*** Zenbatzaile zehaztugabeekin:**

OEHko corpus osoko adibide guztiak begiratu ostean, honako ondorio hauetara iritsi gara:

• **gutxi/guti/gitxi:**

gutxi + *-ko:* corpusean 72 adibide ageri dira. Hona batzuk:

(7) a) *Ajola gutxiko* gauza zalakoan edo, ahaztu, ta besteak etzion ekarri (Oskillaso, *Kurloiak*, 095)

b) Poli *itz gutxiko mutilla* zan (Anabitarte, *Poli*, 077)

c) Baña zenbatere *neke gutxiko* egitekoa dan (Agirre Asteasukoa, *Eracusaldiak III* 360)

d) *Fede gutxiko*, ta bu gabeko ama askok (Kardaberaz *Egercicioac III*, 362)

guti + *-ko:* guztira 18 adibide dira cospusekoak. Hona bat edo beste:

(8) a) galdua geldituko ote zaran, *zentzu gutiko* bost birjiñak gelditu ziran eran (Mendiburu, *Lan Argitaragabeak I*, 373)

b) Orduan laudaturenago da *deus gutiko xola*, jauregi edo palazio urreztatua baino (Pouvreau, *Imitacionea*, 070)

c) Ongi *axola gutikoak* garela aithortzeko dugu ez denaz geroztik gure tokietan (Duvoisin, *Laborantzaco liburua*, 293)

gitxi + *-ko:* corpusak 77 adibide ematen ditu guztira.

(9) a) Medikua *berba gitxiko gizona* zan (Anabitarte, *Aprika-ko basamortuan*, 056)

b) Ona emen, esan darue, *egin gitxiko santu* edo *santa* altaretan imini biar doguna (Moguel, *Confesino Ona*, 280)

c) O ero *zentzu gitxikoa!* (V. Moguel, *Ipui onac*, 082)

d) *Ganora gitxiko gizonai* esaten yeutsek ori (Orixe, *Tormesko itsu-mutilla*, 093)

guti + *-tako:* 19 adibide orotara.

(10) a) Baina gure obra guziak hain *balio gutitako* dira non Jainkoaren aitzinean graziarik ezin merezi (Leiçarraga, 049)

b) Artha handi dugu *progotxu gabeko edo gutitako gauzentzat* (Chourio, *Jesu-Christoren Imitacionea*, 277)

c) Ha fede aphurretakoa, *fidantza gutitakoa*, zergatik dudatu duk? (Axular, 087)

• **asko/anitz:**

asko + *-ko:* 12 dira cospuseko adibideak.

(11) a) Erri atan bazan aberats bat *negozio askoko gizona.* Don Luzio eritxon (Bilbao *Ipuin barreka*, 099)

b) (...) konfiantzaren faltarik ez du *diru askoko gizonak* (Txirrita, *Bertsoak II*, 151)

c) Jainkoaren auzi au, *aitzin-gibel askokoa* da, eta saiets guztietatik eldu nai zan diot (Villasante, *Kristau Fedearen Sustraiak. I Jainkoa*, 009)

asko + *-tako:* bakanak dira honela eratutako adibideak.

(12) a) arkitzen dira, *kolore askotako Nabarria* jori ematen duten arrobi aberatsak (Iztueta, *Guipuzcoaco provinciaren condaira*, 055)

b) *Itxura askotako gauza* zan an (Anabitarte, *Aprika--ko basamortuan*, 015)

c) Joko luzea ta *diru askotakoa* (Añibarro, *Lora Sorta Espirituala*, 187)

anitz/ainitz + *-ko:* corpusean ez da ageri adibiderik.

anitz/ainitz + *-tako:* ez da ageri honelako adibiderik.

Ondorio gisa, beraz, esan daiteke zenbatzaile zehaztugabeekin *-ko* atzizki adjektibatzailea askoz erabiliagoa dela —179 adibide—, *-tako* baino —29 adibide inguru—.

*** Zenbatzaile zehaztuekin:**

Adina, neurria, prezioa, pisua, tamainoa eta denbora adierazten duten izenekin juntatu ohi dira gehienbat *-ko* / *-tako* formak. Ikus dezagun zein atzizki mota atxekitzen zaien eta zenbateko maiztasun erabilera duen atzizki horietako bakoitzak. Adibideak OEHko corpusetik jasoak dira, XIX. mendearen hasieratik honakoak.

• **Adina:**

-ko formarekin. 120 adibide inguru ageri dira.

(13) a) *Berrogei ta bi urteko mutilla* zen; oraindik ezkongai, eta bakarrik bizi zen munduan (Izeta, *Dirua Galgarri*, 049)

b) Batxin langosuak bere beiñ baiño sarriago esan eutsan (...) *amazortzi urteko mutilak* eztabela *berrogei urteko mutil zaarrakaz* batu bear (Azkue, *Batxi Guzur*, 118)

c) Nork farra egingo ez du (...) emakume bat apaintzen bada *emezortzi urteko neskatxa baten* eran? (Agirre Asteasukoa, *Eracusaldiac II*, 092)

d) Gaixotu zan *bederatzi urteko mutiltxo* ondo azi ta guraso onen semea (Moguel, *Confesioco ta Comunioco sacramentuen gañean...*, 215)

e) Beti aurretik zijoan, (...), ta guk, *ogei urteko mutillak*, (...), ezin giñon jarraitu (D. Agirre, *Garoa*, 010)

-tako formarekin 6 adibide ditugu corpusean.

(14) a) Han sal-erospenak, *hamabortz, hemezortzi urtetako gazteen gain doatzi* (J. Etchepare *Buruxkak*, 176)

b) Hala zagolarik huna nun heldu zaion *hogoita bortz urtetako mutil gazte bat* (Zerbitzari, *Azkaine gure sorterria*, 50)

• **Neurria:**

-ko formarekin. 33 adibide ageri dira corpusean.

(15) a) *Amar kilometroko bide berri* bat egiten ari gara (Izeta *Dirua Galgarri*, 036)

b) Batez ere, *bi metroko itsas-huntzi* zoragarri bat (Oskillaso, *Kurloiak*, 143)

c) Bide orreitako *lau metroko zabalera* ori ezta ez onena ez berendiena, etzagun eta etzagun eztirean guztiena baiño (Akesolo, *Ipiña ta ipiñatarren barri*, 027)

d) Ba'dira ondar-añoak *eun metroko goia* dutenak (Anabitarte, *Aprika-ko basamortuan*, 008)

e) *Berrogei erraldeko beia* erosteko aña diru etzuen noski berekin izango, bañan (...) bazeuzkan (Mujika, *Pernando Amezketarra*, 037)

f) Iru lagunek Ispasterren apostua egin eben, jango ebela goizik gauera *amar erraldeko txala*, nerau laugarren nintzala (Or ixe, *Euskaldunak*, 110)

-tako formarekin. Adibide bat bakarra:

(16) a) Txirrindulan etorri naiz oraintsu: aisa egiten da orrela *lau kilometrotako bidea* (Txillardegi, *Leturia*, 054)

• **Pisua:**

-ko formarekin. Nahikoa adibide ditugu.

(17) a) Errosarioa bukatzearekin bat jarri zuan etxeko-andre gazteak maia zapi zuri batekin, onen erdian plater aundi bat, ertz batean *sei librako ogi erre-berria* (Zabala, *Gabon gau bat...*, 048)

b) Donostiako plaza izanik garestienetako bat, egunik geienetan erosiko da bertan *zortzi edo amar librako azaburu bildua* sei edo zazpi koartoan (Iztueta, *Guipuzcoaco provinciaren condaira*, 155)

c) Olako semiak mundura ekartzia baño *lau librako ogiak* eitia be obe dok (San Martin, *Zirikadak*, 041)

d) Jaietarako geukan *sei libreko oilarra*.. etzinen aituko, ba, epaikari barik (Enbeita, *Bertsoak*, 178)

e) Bainan, bertzaldian maileatzekotan, ez othe dautazu emanen lau liberako *ogi handi bat?* (Barbier, *Ipuinak*, 143)

f) Luis hurbildu zitzaioten, ederki trufatu... eta berak harria galtzarrean bere tokirat eman, *bi liberako ogi bat* bezen aise! (Zerbitzari, *Azkaine gure sorterria*, 103)

g) *Lau liberako haurño bat*, hots, egun goizean... (Lafitte, *Murtuts eta bertze*, 117)

-tako formarekin 2 adibide soilik.

(18) a) Oillar bat banizun nik *zazpi kilotako* Margaitaren ixilik zureki jateko (Laplace, *Xikito Xikito Xikitokan*, 003)

b) Badira uzkaldialat gizentzen direnak eta *hogei eta bost liberatako buztanak* dutienak (Inchauspe, *Diálogos*, 072)

- **Balioa:**

-ko formarekin:

(19) a) Doi doia burua makurtzen duela: (...) emozue Marianari *hogoi liberako paper bat*, eta ez bertzerik (Barbier, *Supazter xokoan*, 090)

b) Han nuen beraz nere panpina, paparoa zabalik, *berrogoi'ta hamar liberako galtzerki-sedak* zangoetan (...), besoak sorbaldetarik beheraxago doi doia kukutuak (Barbier, *Supazter xokoan*, 907)

- **Denbora:**

-ko formarekin. Hona corpusean bildutako adibide batzuk:

(20) a) Ordun *iru orduko tartea* eman nion Santa Kruzi, ta errenditu zan, firmatuko zula (Orixe, *Santa Cruz apaiza*, 116)

b) azkenik agerian, (...): arrapatzen zutenetik bi *orduko beta* emateko, ondo iltzeko prestatu zedin.(Orixe, *Santa Cruz apaiza*, 090)

c) *Bi orduko aldapan* jendea erromes, gurutza bizkarrean ta kateak narres (S. Mitxelena, *Arantzazu*, 119)

d) *Zortzi orduko neurri ori* lanbide guztietarako, egokia eteda? (Eguzkitza, *Gizarte-Auzia*, 032)

e) lan batzuk besteak baño askozaz gogor eta neketsuagoak dira-ta, guztiei *zortzi orduko muga bardiña* ipintea egoki

dan ala ez, auzira ekarri ta eztabaidan erabilli leiken arazoa da (Eguzkitza, *Gizarte-Auzia*, 032)

-tako formarekin. Adibide bat bakarra aurkitu dugu corpusean:

(21) ardura eta neurriz guti jatea hobe da *hainitz ordutako barur hersiagiak* diren baino (Pouvreau, *Philotea*, 320)

Oharra: Lantxo honetan, azpiegiturako *d(it)uen/z(it)uen*-en baliokide diren heinean aztertu ditugu *-ko / -tako* atzizki adjektibatzaileak.

Azpian inesiboa duten denborazko izenlagunak sortzeko erabiltzen diren *-ko / -tako* kasu markak bestelakoak dira eta ez dira hemen aztertzekoak.

Labur bilduz: adina, neurria, pisua, balioa eta denbora adierazten duten izen multzoekin: *-ko* 215 bat aldiz eta / *-tako* 11 aldiz bakarrik agertu zaigu azken bi mendeotako testuetan.

Hemen ez ditugu jaso *kopurua* adierazten duten *lau hankako / lau zangotako mahaina* bezalako beste hainbat adibide, baina horietan ere *-ko* formaren aldeko joera oso nabaria da.

Ondorioa: *-dun* atzizkiaren eta Bahuvrîhi elkarketaren erabilerak albora utziz, *-ko / -tako* bi forma hauen arteko aukera, euskalki guzietako idazleetan, azken mende honetan behintzat, zein aldetakoa izan den garbi ikusten da: *-ko* izan da usuen erabilia.

-ko atzizki forma da, beraz, hobesten dena, nahiz zenbatzaile zehaztua nahiz zehaztugabea daramaten sintagmetan, baita izen hutsez nahiz izenaz + izenondoaz osatutakoetan ere.

I.5. BETIKO / BETIRAKO

Betiko da batasunerako hobestekoa

Betiko/betirako, bi forma hauen artean zein da hobetsi beharrekoa: *betiko* ala *betirako?*

Ikus dezagun pausuz-pausu *beti'* aditzondoak zein gramatika funtzio betetzen dituen eta zein kasu marka har dezakeen funtzio bakoitzeko:

1. *Beti,* eta, hau bezala, *atzo, etzi, sekula, gaur, bihar, herenegun, behin, luzaro*, e.a. denbora adierazten duten aditzondoak dira berez. Eta, aditzondo diren neurrian, ez dute deklinabide atzizkirik hartzen:

(1) a) *beti* da on hizkuntzak jakitea

b) *etzi* izango da Euskaltzaindiaren bilera

c) *sekula* ez dabil hori gaizki esaka

2. Baina, batzuetan, denborazko aditzondo hauek izenlagun funtzioa ere bete dezakete. Hori *nongo/noizko* denborazko genitiboa markatzen dutenean gertatzen da:

(2) a) *betiko leloa* kantatzen dabil hori

b) *betiko ametsa* du horrek buruan

c) *gaurko negarra biharko poz* bihurtuko ahal da

Kasu honetan, ikusten denez, *aditzondo-oinarria* + *ko* forma erabiltzen da. Hori izan da euskalki guzietako literatur testuetan erabat erabili izan den forma bakarra.

(3) *Betiko itoginak* arria zulatu, ta aldi luzeak guztia aztu. (Refranes y Sentencias 16).

(4) Mañasi ona, (...), ta bere *betiko adiskide Josepa.* (D. *Agirre*, Kresala, 23).

(5) Lurreko onra eta izanak ezer ez dirala *betikoen* aldean. (Agirre Asteasukoa, *Erakusaldiak I*, 619).

(6) Hego-alde lehorrak ez zuen gehiegi kilikatzen. *Betiko eguzkiak* gogait eragiten zion. (Mitxelenaren Idazlan Hautatuak, 273).

(7) Ene *bethiko errana* da, abereak usuegi erabiltzen ditugula larrean (Duvoisin *Laborantzako liburua*, 153).

(8) Ez dela hemen gure *bethiko egoitza* (Lapeyre 22)

(9) *Bethiko tenorean*, kax, kax, kax, athean. (...). *Bethiko eskale xaharra* zen berriz ere (Barbier, *Légendes du Pays Basque*, 131)

(10) Hitz hartu nintzan ene *betiko lagun* Lorentzo Tolosarekin. (Xalbador, *Odolaren mintzoa*, 35)

(11) Jinkoak adelatzen deriküla, mündia ürhentü datianeko, *bethiko pausia* (Belapeyre II, 8)

(12) Barnia huntsa zian eta *betiko irrigüra gozua* jarriki zeron (Constantin, 36)

3. Beste batzuetan, berriz, aditzondo horiek adizlagun bihur daitezke. Oinarritzat adlatiboa duen *norako/noizko (noizerako, noizkorako)* kasu destinatiboa adierazten dutenean ageri dira horrelako aditzondoak.

Baina, zein kasu marka edo atzizki erantsi behar zaio aditzondo bati, aditzondo hori kasu destinatiboa adieraziko duen adizlagun bihurtarazteko: *-ko* ala *-rako?*

Auzi hau hobeto argitzeko, egin ditzagun bi sail denborazko aditzondo horiekin. Bi eratakoak izan daitezke: a) kontsonantez bukatutakoak, eta b) bokalez bukatutakoak.

a) Kontsonantez bukatzen direnek *-ko* kasu marka hartu izan dute eta hartzen dute beti, dudarik gabe, adibideotan ikus daitekeenez:

(7) adiskide, ze asmo duk *biharko*?

(8) *gaurko* hemen izango zela esan zuen

(9) *herenegungo zegoen* iragarria eguraldiaren aldaketa

Entzuten dira, hala ere, noizbehinka *noizkorako, biharkorako, gaurkorako* bezalako formak. Horrelakoez zer esan? Bi kasu desberdin gerta daitezke:

a) *noizko, biharko, gaurko* formen ordainetan erabiltzea, hots, *-ko* atzizki formaren ordez *-korako* erabiltzea. Horrela izanez gero, erabilera hori gaitzestekoa da, eransten zaion *-rako* atzizki forma hori aurrean duen *-ko* atzizkiaren errepika besterik ez baita.

b) *noizko, biharko, gaurko*, e.a. bezalako izenlagunek --hauek, gorako 2.ean esan dugunez, izenlagun ere izan baitaitezke--, ondoren duten kasu destinatiboko izen multzoaren elipsia eginez gero, horrek daraman *-rako* atzizkia ere bere gain hartzen dute, ondoko adibideak erakusten digun bezala:

(10) — *Noizko otordurako* dituzu jaki horiek? *Biharko otordurako?*

— Ez, *gaurkorako* < *gaurko* (otordu)*rako.*

Honela sortutako *noizkorako, biharkorako, gaurkorako*, e.a. bezalakoak oso jatorrak dira, birdeklinaketa eginez sortuak besterik ez baitira.

b) Bokalez bukatutakoekin besterik gertatzen da eta hor dago auzia, *-ko* eta *-rako (betiko/betirako* forma bi horietako zeinen alde ebatzi behar da auzia?, zein hobetsi behar da? Lehena, dudarik gabe. Hona arrazoiak:

1. Idazleen eta hiztunen usadioa lehen formaren aldekoa da.

Ekialdekoek, goi-nafarrera barnean dela, *betiko*-ren aldaera diren *betikoz/bethikotz/betikos* forma erabili dute beti.

Mendebaldekoek ere, Arrue izan ezik, *betiko* erabili izan dute XX. mendea arte. XX. mendekoak dira, berriak beraz, beste adibide guztiak.

Eta corpusean ageri diren idazleak hauexek dira: A. Labayen, Lizardi, D. Inza, B. Enbeita, Basarri, Berrondo, Txillardegi eta Irazusta.

Bateko eta besteko erabileraren kopuruari bagagozkio, berriz, aztertu den corpusean azaldu direnak 700 adibide inguru dira *betiko*-renak; *betirako*-renak, aldiz, 40 besterik ez.

2. Usadioaz aparte, formaren aldetiko beste arrazoi bat ere badugu *betiko* forma hobesteko. Izan ere, kontsonantez amaitutakoetan beti *-ko* atzizkia erabiltzen bada *--gaurko, biharko, herenegungo...--*, eta bestelako fonetika-arrazoirik ez bada, bokalez bukatutakoekin zergatik erabili.-rako atzizki forma hori denborazko aditzondoak egiteko?

- **Ondorioa:**

Idazleen erabilerari eta deklinabideko egituratze formalari begiratuta, garbi dago *betirako* ez, baina *betiko* dela forma egokia eta *aditzondoa* + *ko* forma dela hobetsi beharrekoa. Hortaz, *gaurko, biharko...* bezalaxe, *atzoko, etziko, sekulako, luzaroko*, e.a. bezalako formak dira aditzondoentzako hobesten direnak.

I.6. ORDUAK NOLA ESAN

Zalantzak izaten ditugu askotan ordua esaterakoan. Modu honetakoak izan ohi dira zalantzok:

1. Artikulua eta plural marka orduari ala ondorengoari erantsi. Hots:

(1) Hamabi ta laurdenak

ala

(2) Hamabiak eta laurden

esan.

2. Kasu-marka daramatenean ere sortzen dira zalantzak batzuetan:

(3) Hamarrak eta hogeietan

ala

(4) Hamarrak eta hogeian

3. *Gutxi* erabili behar dugunean, nola esan:

(5) Hamarrak hamar gutxitan

ala

(6) Hamarrak hamar gutxiagotan

Hain zuzen, berrikitan argitaratu den *Euskal Gramatika Laburra* liburuan aukeran ematen dira forma hauek guztiak.

Komunztadura-zalantzak ditugu azkenik: *ordu bata*-k komunztadura singularra ala plurala eskatzen du, batez ere 'ordua gehi x minutu' esan nahi denean?

Proposamen zehatzagoren bat egin nahian, literaturako erabilera OEHko corpusetik bildua aztertu ondoren, ondorio hauek atera daitezke:

1. Orduak adierazteko, orduaren zenbakia eta plural marka erabiltzen da, besterik gabe, Hegoaldean, eta Iparraldean ere bai batzuetan:

(7) bederatziak aldean joan zen Bernardatxo berriz ere arkaitzera (Goñi)

(8) lanak egitera etorri nintzen bostak aldean, bazkalduta (Mattin)

(9) Goizeko zortziak hirian (Barbier)

Iparraldean ohizkoena *oren* izena ere esatea da; Hegoaldeko autore bat edo bestegan ere aurki daiteke *ordu* izena:

(10) Hamar orenak yoiteko hinkan (M. Elissamburu)

(11) biharamuneko eguna goizeko bederatzi orenak arte (Joannateguy)

(12) arratsaldeko bi orenak alderat itzuli ginen elizarat (Zerbitzari)

(13) Goiz guziez, ahal zueno, lau orenetako jaikia (Hiriart-Urruty)

(14) biltzen ziran aurrak elizara goizeko zortzi ordu ta laurdenetan (Argi Done laburra)

(15) goizeko zortzi orduetatik illunabarrerañoko guztian (Iztueta)

Hala agertzen da batzuetan ondoren minutuak adierazten direnean ere:

(16) Hamar orenak eta hogoi eta bi minuta ziren (M. Elissamburu)

Ordubata-ren kasuan, Bizkaialdean *ordu batak dira* nagusitzen da; Erdialdean eta Ekialdean *ordu bata / oren bata da.*

2. *Erdia* adierazteko ere bi joera nagusi ikus ditzakegu: artikulua eta plural marka *erdi* osagaiari bakarrik eransten dion Hegoaldekoa (eta

honek emendiozko juntagailua *t'* itxuran idaztea dakar berarekin gehienetan, *ta* forma laburtuan ere bai tarteka)eta Iparraldeko autore batzuetan ere ikus daitekeena:

(17) Hamar t'erdiak dira (Mitxelena)

(18) Ostera oeratu ta sei t'erditarako jeiki, bederatzi t'erditan gosaria ontziko guztieri, zer janarekin (Anabitarte)

(19) Ordubi t'erdietan arpoia sartuta (Arrantzaleen bizitza)

(20) Lau ta erdiak edo bostetan irten zen Aizarnatik (Uztapide)

(21) Eguerdiko amabi ta erdietarako an ikusi zegikezan (F. Bilbao)

Iparraldean, plural marka orduari ere eransten diote; *erdi* batzuetan singularrean ageri da (22) - (23), pluralean beste batzuetan (26) - (27):

(22) Bederatziak eta erdia, elizako ezkilatik (J. Etxepare)

(23) Hiruak eta erdia ditake (J. Etxepare)

(24) Zortziak eta erditako diat galdea (J.B. Etchepare)

(25) seiak eta erditan ardiesten dute plazan sartzea (Zubiri)

(26) Argitu-eta, zazpiak eta erdiak ondoxean jo du komisarioak etxean sartzeko (Hiriart-Urruty)

(27) Eta jadanik hamekak eta erdiak hurbiltzen ari! (Barbier)

Atlas-erako egin diren galdeketetan ere, Iparraldean, erantzun nagusia *lauaketerdiak* da, baina horren ondoan *lauaketerdia*, eta bakanago *lau eta erdiak* ere aurki dezakegu.

Absolutibo kasua ez bestelakoren bat hartzean, ordea, badirudi beti plurala ageri dela *(erditan)*. Proposamena, beraz, plural marka bi osagaiei eranstea litzateke: *seiak eta erdiak.*

3. *Eta laurden* esateko, berriz, zalantza nagusia artikulua orduari eta laurdenari, biei, erantsi ala laurdenari bakarrik erantsi bada, hara nola jokatu duten gure idazleek. Hegoaldekoek, *erdi*-rekin bezalaxe, azkenean bakarrik ematen dute plural marka:

(28) Ilunabarrean, berriz, 8 eta laurdenetatik 9 t'erdietara, jai eta aste (Mitxelena)

(29) Eguerdikoa, 12 eta laurdenetatik ordubietara izaten da astegunez (Mitxelena)

(30) 8 ta laurdenetan (Argi Done Laburra)

(31) Hamabi ta laurdenetan (Oskillaso)

Iparraldekoek, bietan ezartzen dute plurala, edo ordua adierazten duen zenbatzailean bakarrik:

(32) arratsaldeko hiruak eta laurdenetarik, bortzak eta laurden iri arte (Hiriart-Urruty)

4. Hurrengo ordurako zenbat falta den adierazteko, berriz, gehienetan *gutxi* aurki daiteke:

(33) Zer tenore da orai? Bederatziak hogoita-bortz guti! (J.B. Etchepare)

(34) Eguerdi laurden guti zen (Barbier)

(35) Bostak laurden gutxitako pronto nengoela joan egin da (Anabitarte)

(36) Eguardiko amabiak laurden gutxitan illargitik praille bat botako baluteke (G. Mujica)

(37) Gero, seirak amar gutxi zirala, Mirenen etxera jo dut (Txillardegi)

(38) Amarrak amar gutxi ziran da emen nengon sukaldian (Uztapide)

Gutxiago ere aurki daitekeen arren; autore berak bi formak erabiltzea ere gertatu izan da:

(39) Goizeko bostak laurden gutxiagotan (Anabitarte)

(40) Amarrak laurden gutxigo (Labaien)

Atlas-erako egindako galdeketan ere hauxe ageri da: *gutxi / guti* Erdialdean eta Ekialdean, *gutxiago* Mendebaldean.

5. Komunztadurari dagokionez, *ordu bata da* esango dugu, baina gainerakoetan, jakina, pluralean egingo da komunztadura: *hirurak dira* etab.

Zalantzak, *ordu bata* gehi 'x minutu' adieraztean sortzen zaizkigu. Nola egin komunztadura? OEH-ko adibidetegiak ez du gehiegi laguntzen, bi adibide baitakartza:

(41) ordu bata t'erdixak baño eztozak (J. San Martin, *Zirikadak*)

(42) zelan ordu bata t'erdixak! (Oskillaso, *Kurloiak*)

Datu hauek ikusirik, batzordeak zenbait gomendio aurkeztu zituen Leioako biltzarrean. Gomendio horiek, ordea, askotan bikoitzak ziren, bi

modu uzten ziren aukeran. Hori zela eta, batasunerako eskea egin zitzaion batzordeari, forma bakarra gomenda zezala, alegia. Eskeari jaramon eginez, orduak emateko molde bakarra gomendatzen ahalegindu da batzordea, Leioan aurkeztu zen txostena aldatuz.

1. *Orduak adierazteko*

Aski da dagokion zenbatzaileari artikulua eta plural marka eranstea; *ordubata* da salbuespena, jakina. Beraz:

ordu bata da

ordu biak dira

hirurak dira....

Iparraldean *oren bata, bi orenak/biak, hiru orenak/hirurak...*

Eta kasu-markak eranstean:

ordu batean / oren batean

ordu bateko mezatara joango da / oren bateko mezatara joanen da

ordu bietan / bi orenetan / bietan

hiruretan / hiru orenetan...

Bizkaian *ordubatean* "ordubete barru" izan arren, zabalduena delako gomendatzen da batasunerako *ordubatean.*

2. *Erdia* eta *laurdena* adierazteko

a) Erdia adierazteko:

Pluraleko marka bigarren osagaian bakarrik ezartzea gomendatzen da batasunerako, hau da,

hiru eta erdiak	bost eta erdiak
hiru eta erdietan	bost eta erdietan

Oren ezartzen denean, berriz, –Iparraldean maiz egiten den bezala–, bi osagaietan emango da pluraleko marka:

– hiru orenak eta erdiak
– hiru orenak eta erdietan

Idazkerari dagokionez, *t'erdi* da Hegoaldean erabat hedatua; Iparraldean, ordea, *eta* idazteko ohitura dago, eta oraingo erabileran *et'erdi* ere arrunta da. Horiek horrela, batasuna *eta*-ren bidetik egin behar dela uste du batzordeak. Ahoskerari dagokionez, bakoitzak bere euskalkiko ohitura gorde beza.

b) ***Laurdena* adierazteko:**

Orain arte esanaren arabera, bi lekutan ager daiteke pluraleko marka, lehen osagaian ed bigarrenean:

— ordua + *erdiak:* sei eta erdiak
— ordua + *-ak* + minutuak: seiak eta hamar

Bikoiztasun hori bera erakusten dute euskalkiek laurdena adierazterakoan: euskalki batzuetan 'ordua + *laurdenak*' esaten duten bitartean, beste batzuetan 'ordua + *-ak* + *laurden*' aukera egin dute (pluraleko marka bietan ezartzen duten lekuak ere ez dira falta, seiak eta laurdenak esanez). Zaila egin zaio batzordeari forma bakarra gomendatzea; beraz, sisteman kokatzen diren bi formak libre uztea erabaki zuen batzordeak. Hortaz, *laurden, erdi* bezala erabiltzen den lekuetan,

hiru eta laurdenak

esango dute. Minutuen arabera erabiltzen dutenetan, ostera,

hirurak eta laurden

Biak ematen ditu ontzat batasunerako batzordeak.

3. *Zenbat minutu gutxi adierazteko*

Puntu honetan, *gutxi/guti* eta *gutiago*, biak onartzea proposatzen du batzordeak. Nolanahi ere, gogorarazi nahi du *gutxi/guti* dela hedatuena:

hamarrak hamar gutxi dira / hamarrak hamar gutxiago dira
bostak laurden gutxitan / bostak laurden gutxiagotan

4. *Zenbat minutu gehiago adierazteko*

Ordua gehi zenbat minutu igaro diren adierazteko, erabilerak erabilera, batzordeak kasu-marka singularrean ematea gomendatzen du:

seiak eta bostean elkartuko gara
hamarrak eta hamarrean

laurak eta hogeian

"Ordu bata ta berrogeian" (Euskal Jokoak)

5. *Ordua zenbaki bidez adierazi nahi denean*

Ordua zenbaki bidez adierazi nahi denerako honako gomendioak ematen ditu Gramatika batzordeak:

a) Tauletan zenbaki, xifra hutsak ezarri, kasu-markarik gabe. Bilbotik Donostiarako autobusen irteera-orduak, esaterako, honela adieraz daitezke:

09:00
10:15
12:30

Edo denda bat zein ordutatik zein ordutara dagoen zabalik:

goizetan 10:00 - 13:30
arratsaldetan 16:00 - 19:30

b) Kasu-marka erantsi nahi denean, aukera bat baino gehiago egon daiteke: kasu-marka soila erantsi, beti pluralari dagokion forma erantsi, edo kasuan-kasuan dagokiona ezarri. Hurrenez hurren:

15:05n 15:05etan 15:05ean

Batzordearen iritziz, egokia da orduak esateko eman diren gomendioak zenbakietan ere betetzea. Hortaz, orduei pluraleko kasu-marka ezarriko zaie, eta minutuei singularrekoa (behar denean lotura bokala erantsiz):

15:00etan	15:00etara/15:00ak arte	15:00etatik
15:01ean	15:01era/15:01 arte	15:01etik
15:02an	15:02ra	15:02tik
15:03an	15:03ra	15:03tik
15:04an	15:04ra	15:04tik
15:05ean	15:05era	15:05etik
15:15ean	15:15era	15:15etik
15:30ean	15:30era	15:30etik

c) Irakurri, berriz, xifra horiek bere horretan irakurtzeko tradiziorik eza kontuan harturik, hizkera arruntean, egunerokoan (irrati, telebista, etabarretan), honela irakurtzea gomendatzen dugu:

arratsaldeko hiruretan arratsaldeko hirurak arte

arratsaldeko hirurak eta bostean
arratsaldeko hiru(rak) eta laurdenetan

Era berean, erabilera informalean, 00:00, *gaueko* nahiz *gauerdiko hamabiak* irakurriko dugu. Halaber, 00:30, *gauerditan edo gaueko hamabi eta erdietan*, e.a.

Erabilera formalagoetan, ordea, honela irakur daitezke, zenbakien arteko bi puntuen ordez *eta* ahoskatuz:

hamabostetan
hamabostak eta bostean
hamabostak eta hamabostean
hamabostak eta hogeita hamarrean
zero orduan / orenean
zero ordua / orena eta hogeita hamarrean

d) Azkenik, erdibideko erabilerak ere ikusten ditugu behin baino gehiagotan, batez ere egitarau, kartel eta horrelakoetan: hots, orduak hamabika kontatuak *goizeko, arratsaldeko, arratseko nahiz gaueko* erantsiz. Hala egin nahi denean, honela idaztea gomendatzen du batzordeak:

goizeko 10etan
arratsaldeko 5etan
goizeko 11,30etan / goizeko 11 eta erdietan
iluntzeko 8etatik 11ak arte

I.7. DATA NOLA ADIERAZI

Leku batean baino gehiagotan jaso den puntua da, *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak I* liburuan; HABEk argitaraturiko *Hizkuntza Zuzen Erabiltzeko Arau eta Proposamen-bilduma* izeneko liburuan...

Hor aipatzen direnen artean, hedatuenak eta erabilienak honako hauek dira:

Durango(n), 1983ko martxoaren 7a(n)
Durango(n), 1983ko martxoak 7

Dena den, bi horien artean ere, lehena da orain arte gehien erabili dena, bai *-n* kasu-marka leku izenari eta egunari ezarriaz, bai kasu-markarik gabe. Hori da, beraz, batez ere gomendatzen duguna:

Durangon, 1983ko martxoaren 7an
Durango, 1983ko martxoaren 7a

Zenbaki bidez adierazteko, berriz:

1983/03/07

nahiz

1983-03-07

Eta era berean:

1983-03-07ko *Euskaldunon Egunkaria*-n

Hilabetea eta eguna bakarrik adierazi nahi denean, ostera, bi aukera ditugula esan ohi da:

urtarrilaren 20a
urtarrilak 20

Gehiago zehaztu beharko litzateke, ordea, ez baitira beti biak aukeran izaten. *Urtarrilak 20* egitura, kasu-marka agerikorik eskatzen ez duenean erabil daiteke, beste zerbaiten aposizioan doanean esaterako:

Datorren ostegunean, urtarrilak 20, bilduko da epaimahaia

'urtarrilak 20 egun dituela' edo horren antzeko egituraren laburpena genuke, azken batean. Baina kasu-markaren bat ezarri behar zaionean ezin dugu egitura hau erabili. Okerrak dira, beraz, ondokoak:

*Hilak 20 eta 27an, bestalde, Txontxongilo taldeak txikienentzako "Erreka Mari" eta "Altxor bat patrikan" emango du

*Otsailak 24tik 27 arte izango da ikastaroa

*Datorren otsailak 14 egingo dugu bilera

Horrela behar lukete:

Hilaren 20an eta 27an
Otsailaren 24tik 27 arte
Datorren otsailaren 14an

Honek guztiak testuan zehar urtea, hilabetea eta eguna adierazi nahi denerako ere balio du, jakina. Goian aipatu ditugun aukeretatik forma bakarra geratzen zaigu orduan:

1993ko martxoaren 7a egun handia izango da guztiontzat

Jardunaldiak Bilbon, 1994ko urtarrilaren 5etik 7ra izango dira

Azkenik, aposizioetan, hiru modutara eman daiteke asteko zein egun den:

martxoaren 7an, osteguna / ostegunean / ostegunarekin

Azken bolada honetan asko hedatu den arren, ez da gramatikala ondorengoa:

*martxoaren 7an, ostegunez, ezkonduko dira

I.8. ONGI ETORRI!

Ongi etorri!
Ondo ibili!
Ondo lo egin!
Zaretela ongi etorriak!
Ongi etorria eman digu
Ongi etorri gartsua eman digu

Inori, bati nahiz gehiagori, oles egiterakoan horrela esan izan da beti, partizipioa mugatu gabe. Berriro esan: oles egiterakoan. Hala urrundik etorria kalean ikustean edo etxean hartzean edo aireportuan besarkatzean *Ongi etorri!* esan izan zaio beti, ez *Ongi etorria!*. Ez dugu oraintsu arte euskal literatura osoan horrelako alerik aurkitzen: *Ongi etorria!* edo *Ongi etorriak!*. Hauek bart arratsekoak dira gure artean eta bistan da gainera nola eta zergatik sortuak: gazteleraz bezala "bienvenido! bienvenidos!" singularra eta plurala bereiziz esanez gero, hobeto esana dagoelakoan. Euskarak ez du horrelako bereizkuntzarik egin izan eta beti mugatu gabe esan du.

Gure artean sortua dela ohitura berri hori esan dugu eta hori esatean Hegoaldean dela sortu esan nahi dugu eta duela urte gutxi, gainera, nahiz gero denbora gutxian indar handiaz zabaldu den. Hegoaldean bertan ere ez da sortu eta zabaldu herriko hiztun sotilen artean, baizik idazle, hizlari, esatari, kazetari eta maila bereko euskara landu, dotore, ikasia maite duen jende artean, eta uste okerreko hobe beharrez gainera, konturatu gabe erdarakada itzala sartzen zutela eta euskaraz esan inoiz ez eta idatzi gutxitan egin zena. Herri xeheak, ordea, oraindik ere kalean egunoro *Ongi etorri!* esaten jarraitzen du.

Horixe bera erakusten digu *Orotariko Euskal Hiztegia-k.* Ehun exenplu baino gehiagotik bospasei bakarrik dira hemen ematen dugun dotrinaren kontra partizipioa mugatua daramatenak eta guziak azken hogeitabost urte hauetako idazleenak dira, eta guziak hegoaldekoenak gainera.

Iparraldean ez baitituzte gauzak aldatu. Han betiko aztura atxiki dute eta betikoa zein den jakiteko aski da Ziburuko Etxeberriren *Ma-*

nual debozionezkoa zabaltzea; zazpi lerrotan barrena (2301-2308) bost bider oihukarazten dio poetak Aita Eternoari *Ungi ethorri*, dohatsuen tropelak zeruko ateetara iristen ikustean:

(1) "Ungi ethorri, ungi ethorri, diozkete miletan
O arima dohatsuak lekhu saindu hunetan.
Ungi ethorri, fidel eta adiskide maiteak
Eta ene Semearen ordenantzak gordeak.
Ungi ethorri goiz eta arrats guri gomendatuak
Eta urrikariz biluz gorriak beztituak.
Ungi ethorri bihotz sinple malezia gabeak
Eta munduko plazeren oinez zapatzaileak" (Etxeberri, *Manual Debozionezkoa*)

Etxahunek bere "khantoreetan" honela dio hiruzpalau aldiz:

(2) a) "hunki jin ziradela, prima anderia" (66)

b) "hunki jin hizala" (91)

c) "ukhen zünin "hunki-jin"" (104)

d) Eta hunki-jin erran orde

Eta gerokoek ere lege hori atxiki dutelako testigantza batzuk hona hemen. Denbora gutxian hiruzpalau aldiz entzun ahal izan dugu Euskaltzainburua, han eta hemen egin izan dituen mintzaldien hastean, *Ongi etorri!* soilki eta naturalki esaten, beti hala esan duenak eta bestela esaten ez dakienak bezala. Halaber duela bi urte, Oihenarten sortzearen laugarren mendeurreneko Biltzarrari hasiera ematerakoan, Mauleko auzapez jauna entzun genuen han bildu guzioi *Unki jin!* esaten eta Haritschelhar jauna, hari egin zion erantzun mintzaldian *Onki jin!* errepikatzen. Berebat askok dugu oraindik gogoan, duela hogeita hamar urte edo, Mitxelena jauna eta beste hiruzpalau lagun uda batean Erronkarira joan zirelarik, han oraindik bizi ziren eta euskaraz zekiten amonatxo bakanen ahotik hiltzear zegoen erronkarieraren azken aztarrenak biltzera, nola harriduraz ikasi genuen artean zer zen ez genekien *Unki xin!* gozo batez hartu zituztela.

Duela bizpahiru urte Gipuzkoako herri bateko zenbait hormatan pintaketa batzuk agertu ziren, gazetariek kontatu zigutenez, herritik kanpo espetxean urte mordoxka egindako bati ongi etorria emanez honela: *Ongi etorri!.*

Bai, "ongi etorria" emanez *Ongi etorri!* esan. Hori ongi esana dago. Ez baita ukatzen *ongi etorri*-k, beste partizipiozko perpaus askok bezala, izen bihurtu eta mugatzailea hartzen badu, esan daitekeela: "ongi etorria eman digu", duela hilabete Euskaltzainburuak Bilbon Espainiako beste

Akademiburu guziei esan zien bezala: "ongi etorri anaikorrena bidaltzen diet...". Ezta ere ukatzen, beste partizipio asko bezala, izan aditzaren predikatu mugatu bihurtu eta honela esan daitekeela:

(2) a) zarela ongi etorria!

b) zaretela ongi etorriak!

c) orain etxetik aldegin dute, baina egunen batean berriz etxeratzen badira, ONGI ETORRIAK izango dira.

Ohar, haatik, Etxahunek kasu honetan ere mugatu gabe "hunki jin ziradela" esan duela.

Ez gara horietaz ari, beste honetaz baizik, lantxo honen hasieran esan dugun bezala: inon bilduei oles edo agur egiterakoan, oihu edo deiki gisa erabiltzerakoan, esapide hori mugatzaileaz jazteko joera berriaz. Erabilera hori da auzitan ipintzen duguna eta mugatugabea gomendatzen duguna. Bi arrazoigatik batez ere: batetik, orain arte sekula esan ez delako, eta bestetik, orain ere Iparraldekoek inoiz esaten ez dutelako, ezeta Hegoaldeko herri xeheak ere. Hortaz hobe dugu orain arte bezala *ongi etorri!* esaten jarraitu inori edo jendeari agur egitean, deiki gisa erabiltzean.

I.9. ZENBAIT ADITZEN ERREGIMENA

GONBIDATU (ad. du)

Gipuzk. & Bizk. 17 adib.:

"Afaitarako konbidaau ebala fraile sermoilari bere dobozinoko santua" (T. Etxebarria, 231)

"Sanjuanetan konbidau ninduen" (J. San Martin, 232)

"Jabiak nindun gonbidatu" (Txirrita, 171)

"Neskeak bear dau amaiketakoagaz auzoak gonbidau" (E. Azkue, 96)

"Pitxar bat ardorekin gonbidatu zituen bi ganbeluak gizon onek" (Urruzuno, 118)

Nafar & Lap. (76 adib.):

"Gonbidatzen gaituzu zeruko ogi hunetarik jatera" (Materre, 8)

"Aingeruen kantuek gaituzte gonbidatzen" (Echeberri, 7)

"Gonbidatzen zaituztedan bitartean elkarri zor diozuen amorioaren geiagotik geiagora berretzera" (Pouvreau, 17)

"Jainkoaren graziak intzitatzen eta gonbidatzen du gure arima" (Haraneder, 45)

"Umeen bozek gonbidatzen haute ezagutzerat hire aita" (Larregi, 47)

"Elizak gonbidatzen gaitu" (J.B. Elissamburu, 131)

"Gonbidatzen zuen krakada egiterat" (Zalduby, 123)

"Ahaide gaztea bere lagunarekin mahainerat gonbidatu zuen" (Zerbitzari, 209)

Ondorioa:

Nahiz XVI - XVII. mendetik hona, anitz erabiliago den Iparraldean, Hegoaldean baino - GOMITA, GOMITATU formarekin gainera-

GONBIDATU aditzak NORK NOR erregimena darama beti

IGURIKI & IGURIKATU (ad. du & dio)

Naf.Lap. 118 adib.:

"Iguriki zinioen tormentan" (Echeberri, 7)

"Iguriki derautazu orai artean" (Materre, 8)

"Zer izanen da igurikitzen baderaut? Zer izanen da igurikitzen ezpaderaut" (Axular)

"Gaua denean iguriki behar diogu argiari" (Pouvreau, 17)

"Ez dut beraz bertzerik igurikitzen" (Haraneder, 45)

"Josepek ez zue argia iguriki" (Larregi, 47)

"Hanbat gaixto adixkidia: igurikatzen zutu zartaginak gure etxen" (Archu, 89)

"Adimenduak ez du iguriki urtheen adina" (Hiribarren 131)

"Hanbat urthez iguriki eta jasan zaitut" (Duvoisin, 127)

"Birden bizi bat oraino zuela igurikitzen" (Goyhetche, 123)

"Nik hemen igurikatuko zaitut" (Laphitz, 128)

"Luzarotxo bera igurikitzen berari begira egonta, Isabel agertu zitzaigun" (R.M. Azkue, 188)

"Aspaldian igurikatzen zuen untzi xahar hura" (Narbaitz, 274)

"Batak bestea igurikatzen zuten" (Mirande, 278)

Ondorioa:

IGURIKI forma guziz erabilia izan da Iparraldean. Behin batean Nork Nori edo Nork Zeri erregimena zeraman aditz honek, baina XVIII. mendetik hona, NORK NOR edo NORK ZER nagusitu da orotan. Hau da, beraz, batasunerako gomendatzen duguna.

IGURIKI DU

IGURIKATU forma aski berria da.

* * *

ITXOIN, (ad. dio & du)

Gip. 59 adib.:

"Arri itxoiten zagon bitartean" (V. Mokoroa, 121)

"Emen itxoingo ziotet beaz gure gutillai" (M. Lekuona, 203)

"Itxoingo diegu guztiai" (A. Labayen, 200)

"Emen itxoingo diot" (N. Echaniz, 270)

"Plazan itxoingo dizutet" (J. Echaide, 255)

"An berari begira eta itxoiten zeuden" (D. Intza, 182)

Ondorioa:

ITXOIN forma Gipuzkoan baizik ez da aurkitzen eta hor ere XIX. mende bukaeran, euakara mintzatuan bereziki. NORK NORI erregimena darama beti, non ez den objekturik gabe gertatzen. Beraz:

Amari hemen itxoingo diot
Apur bat itxoingo dut

Ikus bada bestalde ITXARON forma.

ITXARON, ITXAROTEN, (ad. du & dio)

Bizk. 173 adib.:

"Zeren begira edo zer itxaroten egongo zara?" (Echeita, 159)

"Artzain txarragan, artalde onik ezin legike itxaron" (Enbeita, 226)

"Jainkoagan itxaroten dot bere kurutziak eruateko indarra" (J.A. Mogel, 71)

"Beragandik itxaroten dogu eskatuten doguna" (Astarloa, 67)

"Gelditu ziran ba bijak, batak bestiari itxaroten" (Kirikiño, 157)

"Ez erritarren aldetik sari on bat itxaron" (Tx. Agirre, 100)

"Itxaron barik gizonai" (E. Azkue, 96)

Gip. 29 adib.:

"Hainbeste itxaron dut!" (Gaztelu, 248)

"Meza ondoan itxarongo dizut" (J. Echaide, 255)

"Alferrik itxaron dut" (Orixe, 176)

"Bi ordu itxaron behar izan genituan" (Oskillaso, 223)

Ondorioa:

ITXARON, aditza, Bizkaian ITXADON agertua eta Gipuzkoak ITXOIN bilakatua, Hegoaldeko idazkietan aurkitzen dugu, bai NORK NORI bait NORK ZER erregimenekin erabilia.

Euskara baturako proposatzen da bide beretik jarraitzea, hots, objektu biziduna badelarik: Itxaron dio eta beste kasuetan: Itxaron du.

amari itxaron dio luzaroan itxaron du

DEITU, DEITZEN (du & da, Ipar. eta dio, Hego.)

Bizk. 164 adib.:

"Asto bati deitu neike andria?" (J. San Martin, 232)

"Notarioari deituko deutsagu" (F. Bilbao, 230)

"Deitu eutsa aitak txakurrari" (Erkiaga, 230)

"Osorik deitu ninduzun" (Gandiaga, 237)

"Deitu biar jako abere sendatzalliari" (Uriarte, 101)

"Deitu eutsa Tramanak Manaziri" (Tx. Agirre, 161)

"Geuk be deitu daiogun txori orren antzera" (K. Enbeita, 149)

"Egongo nintzate luzaruago zubekaz deituko ezpanenduke elexako zereginak" (J.J. Mogel, 70)

"Deituko deutsat konfesore on bati" (J.A. Mogel, 59)

"Naiz ogizaleari deitu Begizuri" (Arrese Beitia, 97)

Gip. 433 adib.:

"Semearen izenaz deituko dizu" (G. Arrue, 116)

"Sendagileari deituko al diogu?" (T. Alzaga, 205)

"Zertara deitu nauzun" (M. Lekuona, 203)

"Ez neri izen itsusi ori deitu" (A. Labayen, 200)

"Deituko ditut lagun berriak" (M. Lasa, 249)

"Askotan deitu zituen munduko guziak bere erreinu berera" (Mendiburu, 33)

"Jaungoikoak deitu zaitu Kristaua bere fede santura" (Agirre Asteasu, 77)

"Deitu omen zituen abere guziak" (Iturriaga, 73)

"Jonasen seme, Simon zera, zuri Zefas, au da Pedro deituko zatzu" (Lardizabal, 111)

"Ribadeneirak deitu zion, soldadu txar zorakerizalea" (J.I. Arana, 114)

"Billera oni ederki leikioke deitu umillen billera" (Beobide, 112)

"Deitu zaidazu Joxe, soil soilik!" (A. Labayen, 271)

"Don Tomasi deitu bearko diogu Joxe Mari" (N. Echaniz, 270)

"Figura trixte deituko diote" (Berrondo, 266)

"Urrutizkinez deitu dit" (Txillardegi, 263)

"Ni ere deitu ninduten" (Anabitarte, 261)

"Altzolako jaunak deitu zun Beltran bere lengusua" (J. Echaide) "Joxeri deitu zion" (Tx. Agirre)

"Deitu zioten Bernardotxori" (F. Goñi, 194)

"Ordezkariak batzar batera deituko zaituztegu" (Lizardi, 189)

"Andresen anai Simoni deitu zion Jesusek izengoitiz Arria, gero deitu zituen besteren batzuk eta aen artean Matheo" (Ubillos, 35)

"Donostiako urian bizi nintzala, deitu izan ninduen Madriltar gizon andizki batek" (Iztueta, 82)

Nafar. Lap. Zub. 233 adib.:

"Maria deitu zuen ixilikan esanez: Maisua or da ta deitzen zaitu" (Iraizoz, 183)

"Jainkoak deitu nindun bidetik aldegin nun, damurik" (Orixe, 176)

"Tribunalera deitu nazazu oiek gezurrak badira" (Txirrita, 164)

"Deitu zituen bertan eriak, itxeko guziak eta kontatu zien ekusi eta aditu zuena" (Mendiburu, 33)

"Zorteak deitu izan gintuen" (M. Etchamendy, 220)

"Telefonoz deitu zuten" (Oskillaso, 223)

"Sabarotz deitu zuten Uztaritzeko erretor" (M. Hiriart Urruty, 134)

"Horra non jende guziek deituko nauten dohatsua" (Joannategui, 130)

"Harmen hartzera deitu ninduen gazterik zorte etsaiak", XXX, 125

"Janpiuarrek deitu zuen bere iloba" (M. Izeta, 224)

"Azkar deitu sendakina!" (F. Irigaray, 219)

"Egun batez, Euskaltzaindiak bere ganat deitu zuen idazle bikaina" (J. Etchepare, 214)

"Toki hau deituko dute Euskaldun Zerumendi" (Iratzeder, 208)

"Bekatu kapitalak komunki mortalak deitzen zazpiak" (Kat. Erronkari, 145, 147, 148)

"Horiek ere pastoral deitu zituzten" (J. Casenave, 281)

"Geley ektoplasma deitu zuen gizaki zenbaiten gorputzetik horrela atera eta hukigai ditekeen ekai hori" (Mirande, 278)

"Lehenago enekin izan dut Etxeberri deitu bat errotik euskalduna" (J. Etchepare, 277)

"Ez zen segur itsasontzi txarra Santiago deitu Karaka" (P. Narbaitz, 274)

"Abokat Pierris deitu zutut ene aintziniala jitea" (Astolasterrak, 92)

"Ni naiz deitu zaitudana. Nik deitu itut ene graziaz" (S. Pouvreau, 16)

"Hunetakotzat deitu zuen Noe zeritzan gizon bat" (Axular, 9)

Ondorioa:

Gaur arte dirauen tradizioari jarraikiz Iparraldean DEITU aditzaren erregimena NORK NOR izan da. Hegoaldean berriz, aditz berarekin NORK NORI nagusitu da.

Euskara batuan bi formak onartzekoak dira,

deitu du nahiz *deitu dio*

LAGUNDU, LAGUNTZEN (ad. dio & du Ipar., dio Hego.)

Bizk. 246 adib.:

"Izekok lagundu eion auzi orretan" (Echeita, 159)

"Ama euskarari bizi dan arte egin daiogun lagundu!" (B. Enbeita, 226)

"Pozik be lagunduko neuskio" (F. Bilbao, 230)

"Badaezpada mutiko onek lagundu begizu!" (Erkiaga, 229)

"Antiguako Amak lagundu dakigula!" (Tx. Agirre, 161)

"Neure Angeru Guardakoa lagundu egidazu!" (Mogel, 70) Gip. 412 adib.

"Arren ta arren, lagundu zadazute!" (V. Mokoroa, 121)

"Jaungoikoak lagunduko dizu ezegoki gabe eta ondo iritxi zaitean" (G. Arrue, 116)

"Itzulkizunak lagundu dezake jatorrizkoa obeki ulertzen" (Gaztelu, 248)

"Bear zalarik alkar lagundu" (Basarri, 245)

"Aurrak asi zaizkio piska bat lanian, lagunduko diote gauza ez danian" (Uztapide, 237)

"Ordu azkenaldikoan ari lagundu zion nere adiskide apaiz on batek" (Mendiburu, 33)

"Berak gau eta egun lagunduko dizu" (Agirre Asteasu, 75)

"Lagundu bear zaio beargilleari, ez ordea beinere jende alferrari!" (Iturriaga, 78)

Ipar. 163 adib.:

"Badakizu lagundu behar zatzaizkidala" (Materre, 8)

"Jainkoa heldu eta lagunduko zaiku" (Pouvreau, 16)

"Nor lagunduko zaika? - Nehork erranagatik ezetz, etzaizula lagunduko, eztuzu sinesten" (Axular, 9)

"Lagundu nauzu graziaz, lagun zakizkit konplitzeko behar den indar guziaz!" (Gasteluçar, 12)

"Behar dugu guziek elkar lagundu" (Chourio, 25)

"Davit galtzera zohan bere bizia, bere emazteak lagundu ezbalu" (Larregi, 46)

"Lagunduko zituzte abokatak" (Monho, 83)

"Hitzeman dauku lagunduko gaituela" (Duhalde, 84)

"Jainkoak erran zuen elkar lagunduko duzue" (Duvoisin, 136)

"Ikusiko dugu nongo jainkoak lagunduko zaituzten!" (Hiribarren, 131)

"Handik ateratzen lagunduko haut nik hi" (Goyhetche, 123)

"Mutila lagundu zuen sukaldeko lanen egiten" (Laphitz, 128)

"Hartu zuen polliki besotik eta lagundu bere ganberalat" (Joannateguy, 130)

"Lagunduko zaitut zure xede handien betetzen" (Hiriart-Urruty, 134)

"Amak gaitik lagunduko" (Oxobi, 207)

"Ez dakizu Mayi lagundu behar dutala beztitzen?" (Lafitte, 215)

Ondorioa:

LAGUNDU, LAGUNTZEN, aditzaren erregimena NORK NORI izan da Iparraldean XVII. gizaldi arte, baina geroztik Iparraldeko tradizioaren arabera NORK NOR besterik ez da. Hegoaldean ordea NORK NORI da nagusi.

Euskara batuan bi formak onartzekoak dira:

lagundu du nahiz *lagundu dio*

I.10. *ARAZI* ADITZAREN ERREGIMENA

Arazi aditz arazlea izanik beste aditz batekin batean agertzen ohi da, biek bat egiten dutela adizkera kausatiboa moldatuz (1).

Arazi ergatiboa manatzen duen aditza da, eta ondorioz arazlea adierazten duen sintagmari marka ergatiboa lotzen zaio. Ez da horretan arazorik.

Buruhauste batzuk agertzen dira, ordea, zenbaitetan, *arazi*-rekin batean, honi eratxekirik, agertzen den aditzaren erregimenak sortuak: zein

(1) Hala ere, bizkaieraz *erazo* aditza bakarrik ere agertzen da batzuetan, orduan *eragin* edo *eginarazi* esan nahi duelarik: *Erazo eikiozuz zeure biotzari iru gauza oneek* (Añibarro).

kasu eman behar zaie perpaus kausatiboetan, bigarren aditz honen osagarri gramatikalei (esan nahi baitu gramatikazko kasua dakartenei)? Alabaina gehienetan euskalki guziek jokabide bera baldin badute puntu horretan, batzuetan ez da horrela gertatzen eta dudak izan ditzake batek osagarri horietarik batzuk kausatiboetan nola agertu behar diren finkatzerakoan.

1. Lehenik kezkarik sortzen ez duten elementuak laburki bederen aipa ditzagun.

1.1. Aditz eratxekiaren objektuen kasuan, euskalki guziak bat datoz: objektu zuzenak —3. pertsonakoak dira beti perpaus kausatiboetan— absolutiboan agertzen dira.

(1) Sagarrak janarazi dizkidazu

(2) Liburua irakurrarazi dizut

Goiko bi adibideetan *sagarrak* eta *liburua, jan* eta *irakurri* aditzei dagozkien bi objektuak, absolutiboan dira. Izen sintagma objektua biziduna denean berdin gertatzen da:

(3) Haur sortu berria medikuari ikerrarazi zioten

(4) Haur guziak elkarretararazi zizkioten irakasleari

Aditz eratxekiaren zeiharkako objektuen kasua piska bat desberdina da, zeren arras gutitan agertzen baitira hauek perpaus kausatiboetan. Halere, bazterreko aukera izanagatik, badirudi testuinguru egokietan onartzekoak direla (ikus EGLU 1:216, 106 adibidea).

1.2. Aditz eratxekiari dagokion subjektuarekin ere arazorik ez da agertzen, aditz eratxekia iragankorra denean. Alabaina datibo gisa agertzen da orduan beti haren subjektua perpaus kausatiboetan:

(5) *Niri irakurrarazi zizkidaten amaren gutunak*

Adibide horretan *aitari* sintagma *irakurri* aditzaren subjektua da, baina sintagma datiboa da perpaus kausatiboan.

2. Arazoak ororen buru aditz eratxekiaren subjektua absolutiboa denean, edo aditz eratxekiak subjektu ergatiboa izanik objekturik ez duenean agertzen zaizkigu. Bi egoera hauek aldizka azter ditzagun.

2.1. **Aditz eratxekiaren subjektua absolutiboa denean:**

Tradizio nagusiaren arabera, aditz eratxekiaren subjektua NOR sintagma denean, absolutiboan gelditzen da perpaus kausatiboan.

(9) Etorri zara, etorrarazi zaitudalako

(10) Mintzaraziko zaitugu

(11) Langileak lanari jarraikiarazi zituzten

Mendebaldeko zenbait euskalkitan datiboa erabiltzeko joera agertzen da holakoetan, beregainki aditz eratxekiari dagokion NOR sintagma biziduna edo pertsona denean:

(12) Alakoari alde eragin eta erbestean bizi-erazi bear genioke (J. Zaitegi, Platoneko atarian)

(13) gizon bat da, okerreko bidetik abiatu dena, eta zuzeneko bidera itzul erazi behar dioguna (G. Aresti, Tobera)

(14) atean Meltxor'eri lenengo igaro arazi nai dio (A. Labayen, Euskal eguna)

(15) Nik esaten diet: gizon honi konfesa arazi zaiozue, eta nola niri eztidan nola konfesa arazitzen dioten batere axolarik (G. Aresti, Tobera)

Bigarren bide hau euskara batuarentzat ez bide da gomendatzekoa, euskalki horietan ere absolutiboaren atxikitzea izan baita joera nagusia, hala bizigabeekin, nola bizidunekin eta pertsonekin:

(16) Joxe lanean jarri arazi nai du (A. Labayen, *Su emailleak*)

(17) etzaitut gogait arazi nai (A. Labayen, *Su emailleak*)

(18) ezmezean dagoenaren aziak ernerazi udaberriko giro ongarrian (J. Zaitegi, *Platoneneko atarian*)

(19) lagun batzuek alkartu arazi, mendia erosi ta piñuz josi zuten (I. Munika, *Gure mendi ta oianak*)

(20) orrek, Maritxok nai ez arren, moja sartu arazi dik (T. Alzaga, *Ramuntxo*)

(21) Jenarorekin ezkondu arazi nai nautelako (T. Alzaga, *Burruntziya*)

Esan gabe doa azken jokabide hau dela Iparraldean kausitzen dena, ondoko adibide hauek erakusten duten bezala:

(22) Jezabelek ere hil arazi nahi ukhan zuen Elias (J. Elissalde, *Ixtorio saindua*)

(23) nik ere nahi nuke egiaño bat erran, bainan..., bainan ahalaz nehor samur arazi gabe (J. Etchepara, *Buruxkak*)

(24) hitz horiek Antiochus arras burutik joan arazi zuten (J. Elissalde, *Ixtorio saindua*)

2.2. **Aditz eratxekiak subjektu ergatiboa izanik objekturik ez duenean:**

Hiru egoeratan agertzen ahal da aditz ergatiboduna ondoan objekturik izan gabe: aditz deponente delakoekin (*iraun, irakin, urten* (mendebaldean), ...), objektu zehaztugabea ezabatua izan dezaketen aditzekin *(jan, edan, kantatu,...)*, eta objektua lokuzio batean aditzarekin bat egina duten aditzekin *(irri egin, hitz egin, min hartu,...)*.

2.2.1. Objektu zehaztugabea ezabatua duten aditzekin, edo objektua aditzari lotua duten aditzekin, subjektu ergatiboa datiboan agertzen ohi da perpaus kausatiboetan. Hori da bederen joera nagusia:

(25) Gizon horrek irri eginarazten dit

(26) Euskaraz hitz eginarazi ziguten

(27) Haurrei ongi janarazi behar genieke

Iparraldean beste joera bat ere kausitzen da batzuetan, subjektua absolutiboan emanik: *irri eginarazten nauzu, behiak edanarazi ditugu.* Badirudi joera berria dela hau, eta ez aparantziarik ere osoki zabaldua. Batasuna zen tokian zatiketa ekartzen duenaz gero, bide hau ez da gomendatzekoa euskara batuan.

2.2.2. Sekula objekturik hartzen ez duten aditz deponenteen kasuan gauzak are nahasiagoak dira, eta baitezpadakoa da, aditzaren izaera semantikoa edo haren subjektuarena kontuan hartzea. Alabaina, aditzak subjektu biziduna eskatzen duenean, datiboan agertzen ohi da hura perpaus kausatiboetan. Alderantziz, subjektu bizigabea eskatzen duenean, absolutiboan ematen ohi da. Horrela *irakin* eta *sofritu* aditzen subjektuak, adibidez, molde desberdinetan agertzen ohi dira perpaus kausatiboetan:

(28) Ura irakinarazi behar da lehenik

(29) Inori ez diogu debaldetan sofriarazi behar

Ura sintagma *irakin* aditz deponentearen subjektua da (30) adibidean, eta absolutiboan agertzen da perpaus kausatiboan. (31) adibidean, berriz, inori sintagma datiboa dagokio *sofritu* aditzaren subjektuari. Erregimen desberdinak dituzte, beraz, perpaus kausatiboetan, subjektu mota desberdinak eskatzen dituzten objekturik gabeko aditz ergatibodun horiek.

Mendebaldean aditz deponenteen subjektu bizigabeak ere datiboan agertzen dira batzuetan:

(30) baña gizonezkoak ere aita izan nai du ta onela bere biziari iraun erazi ondorengoen bitartez (M. Atxaga, *Gaztetxo*)

Halere ez da joera hori aldebat zabaldua, eta badirudi euskara batzerakoan beste joera hobestekoa dela:

(31) Gerardoren aburuz, aipatzen diranetako kopla batzuk galdu baziran, egilleak (...) paperean iraun arazi etzitulako galdu ziran (Gaztelu, *Musika ixilla*)

(32) orrelako erriek gaur arte iraun izan dute (...) eta pentsatzekoa da Jainkoak iraun arazi dituala (L. Villasante, *Kristau fedearen sustraiak*)

Alderantziz, iparraldeko zenbait mintzamoldetan joera nabaria da aditz deponenteen subjektu bizidunak bizigabeak bezala absolutiboan uzteko:

(33) Sofriarazi ninduten

Holakoetan ere batasunaren bidea hausten baita, hobe da beti datiboan uztea aditz deponenteen subjektu bizidunak.

Aditz deponenteez ari baikara, gogorarazi behar da, bestalde, euskalki guziak ez datozela bat aditz deponenteen finkatzeko orduan. Adibidez *bazkaldu* edo *afaldu* aditzak NORK aditzak dira mendebaldean, eta NOR aditzak berriz ekialdean. Halaber, *irten / urten* aditza ergatiboduna da toki batzuetan eta ergatiborik gabea beste batzuetan. Erran gabe doa, araberan aldatzen direla aditz horiek perpaus kausatiboetan dituzten erregimenak.

Bazkaldu NOR aditz gisa derabilten euskalkietan absolutiboan agertzen da haren subjektua perpaus kausatiboetan. Aitzitik aditz hori NORK-aditz gisa derabilten euskalkietan, datiboan ematen ohi da:

(34) Bazkaldu ez bazara, orain bazkalaraziko zaitut

(35) Bazkaldu ez baduzu, orain bazkalaraziko dizut

* * *

ARAZI-REN ERREGIMENA

Laburpena

Perpaus kausatiboetan, aditz eratxekiaren subjektu absolutiboa, izan dadin biziduna edo bizigabea, absolutiboan gera bedi.

Perpaus kausatiboetan, aditz eratxekiaren subjektu ergatiboa datiboan eman bedi, salbu aditz deponente baten subjektu bizigabea denean. Azken kasu honetan absolutiboan ager dadila.

Adibideak:

Aditz eratxekiaren subjektua perpaus kausatiboko sintagma absolutiboa:

Harria erorarazi nuen (NOR aditza, subjektu bizigabea)

Haurrak goizik askalarazi zituzten (NOR aditza, subjektu biziduna)

Zapatak dirdirarazi nituen (aditz deponentea, subjektu bizigabea)

Aditz eratxekiaren subjektua perpaus kausatiboko sintagma datiboa:

Horrek arbolei izerdia aterarazten omen die (aditz iragankorra)

Irakasleak haurrei egun guziez kantarazten zien (aditz iragankorra objektu zehaztugabea ezabaturik)

Lagunei irri eginarazi diet ([IZEN+ADITZ] lokuzioa)

Umeei goiz afalarazi zieten (aditz deponentea, subjektu biziduna)

Bestalde (baina ez du horrek euskara batuari buruz arazorik sortzen):

> Perpaus kausatiboetan aditz eratxekiei dagokien objektuen kasu marka (absolutiboa edo datiboa) ez da aldatzen.

I.11. ??TOPIKOA BIHURTU

> ene laguna apaiz egin da
> Peruk gazteak hartu ditu lagun
> gaua egun bihurtu da
> ??gaua eguna bihurtu da
> ??ametsa topikoa bihurtu da
> ??gutxi ziren baina talde batean
> bihurtu dira

Euskal mugagabearen erabileraren legeak ikertu dituztenek egitura hau aipatzen dute, besteak beste: perpaus baten barnean bi nor-sintagma ager

daitezke, eta askotan horietako bat bestearen predikatu osagarria izan ohi da eta mugagabean joan. Hona Etxepareren bertso lerro hau:

(1) Othoi, Iauna, enguztazu *lagun* zure sainduiak (Etxepare, I,72)

Santuak emazkidazu lagun, alegia. Asko dira egitura hori onartzen duten aditzak, hain iragangaitzak zein iragankorrak: *joan, egon, sartu, jarri, gelditu, egin, hautatu, izendatu, eduki, saldu* eta abar. Hona horietako batzuk:

(2) a) ene arreba neska *zahar* gelditu da

b) ene laguna *apaiz* egin da

c) etxeko alaba *neskame* joan da

d) gazteena hautatu dute *alkate*

e) Peruk gazteak hartu ditu *lagun*

Aditz horien artean bat *bihurtu* da:

(3) a) ikatza *urre* bihurtu zuen

b) eguna *gau eta gaua egun* bihurtu da

c) adiskidea *etsai* bihurtu zaio

Ikusten den bezala, izen-sintagma bat beti mugagabea da eta beste izen sintagmari dagokion predikatua. Izen-sintagma mugatua, berriz, batzuetan subjektua da, baldin aditza iragangaitza bada: "*hura* neskame joan da"; besteetan objektua, baldin iragankorra bada: "*aita* alkate hautatu dugu". Ez zaio axola. Izen-sintagma bata izan, bestea izan, predikatua beti mugagabea izango da.

Arrazoi zuen Mitxelenak ohi zuen ironia mingotsez idatzi zuenean: "Gramatika aldetik, nolanahi ere, ongi baino hobeki gabiltza. Badakigu, behintzat, *geniezazkizuekeen* esaten, baldin ederki esana badago. Baita ere, gainera, *topikoa bihurtu da* (ze arraio bihurtu ote da "topiko" hori),..." (MEIG VII, 29. or.).

Bistan da **topikoa*, hitz mugatu hori, salatzen duela; ez hain bistan, apika, zer esan nahi duen kako arteko "ze arraio bihurtu ote da "topiko" "hori" hitzekin. Hauxe, dudarik gabe: *topikoa* ongi esana izateko subjektu izan beharko lukeela eta hori zer bihurtu den adierazi ("amets bihurtu da *topikoa*", esate baterako), baina perpaus hori esan zuenaren asmoa ez zelarik hori, baizik "beste zerbait TOPIKO bihurtu" zela esatea, Mitxelenak esaten dio mugagabean ipini beharko zukeela hitz hau:

(4) ametsa TOPIKO bihurtu da

Buruenean honen guziaren ikaskaia hau da: horrelako egituretan izen-sintagma bat mugatua dela beti, bestea berriz, predikatu delakoa, mugagabea.

Hori da dotrina orokorra eta gehienetan konplitzen dena. Gauzak nahasixeago dira, ordea, aditza *bihurtu* denean. Honekin ere predikatu delakoa gehienetan mugagabea da, bai, eta aski arrazoi dirudi horrek euskara baturako mugagabea gomendatzeko, baina ezin uka batzuetan mugatua ere ager daitekeela. Aski modutara, gainera: ia beti (ondoko exenpluetatik lehen hamaiketan, (5.a) - (5.k) kasu absolutiboan, baina adlatiboan (5.l) - (5.m) eta inesiboan (5.n) - (5.ñ) ere bai. OEH-n honelakoak irakurtzen ditugu:

(5) a) "Hau Inglaterrako duke-herri BAT bihurtu zen"

b) "...bihotz sendoko gizona haur BAT bihurtua"

c) "...ornament ederrenetarik BAT bihurtu zen"

d) "...ornamentik ederrenA bihurtu baita"

e) "...emakumerik ederrenA biurtu al banendi"

f) "...arnas huts-hutsA biurtu banintz bezela"

g) "Zure bizi moldea guretzat damugarriagoA bihurtzeko"

h) "...biurtu ziraden buztin kolorekoAK"

i) "...biurtu ziran demonio itxusi nazkagarriAK"

j) "...borroka bi anaien artekoA biurtu"

k) "...siñiste gaiztokoA biurtuko litzeke"

l) "...seme izateRA biurtzen gaituana"

m) "Amore loi guzia biurtu zitzaion gorrotoRA"

n) "Biurtu zan gobernadoriaren amodijua gorrotoAN"

ñ) "...ur garbiya ardo oniAN biurtu zuan"

Horrek ez gaitu gehiegi harritu behar, perpaus guziekez baitute mugagabe izateko erraztasun edo egokitasun berdina; aitzitik nolazpaiteko hierarkia-edo seinala baitaiteke. Predikatua izen soila denean arautzat eman daiteke mugagabea dela: "eguna gau bihurtu da". Baina izena bes-

telako ingurukariz (hala nola, izenondoz, izenlagunez, partizipioz, adjektibo superlatiboz nahiz konparatiboz, eta abar) jaztean, hor goiko lehen hamaika exenpluetan bezala, araua joera hutsa gertatzen da eta mugagabearen ordez predikatua mugatua duten salbuespenak nahitaezkoak dira.

Arraroagoak dira, eta horregatik ez ditugu euskara baturako gomendatzen, predikatua kasu adlatiboan edo inesiboan daramatenak, hor goiko azken lauetan bezala. "*Piztia gizonan" edo "*gizona munstro batean" edo "*ametsa topiko batean bihurtu" bezalako perpausak dira bereziki baztertzen ditugunak, eta hori Mitxelenaren lehengo hitzek honetara bultzatzen bide gaituztelako: batasun zurrean maizenik bete beharko genukeen eredura, mugagabearen erabilerara.

I.12. EGITEKO ASMOZ / EGIN ASMOZ

-TZEKO ASMOZ hobe, *-TU ASMOZ* baino

Egiteko asmoz, esateko asmoz, etortzeko asmoz etab. dira hobestekoak; *etorri asmoz, egin asmoz* edo *esan asmoz* bezalakoak askoz gutxiagotan erabili izan dira.

Asko zabaldu da azken urteetan "partizipio burutua + *asmoz*" egitura

(1) Ama ikusi asmoz joan nintzen hara

(1) adibideko erabilera modua, alegia. Autore gehienek, ordea, *-tzeko asmoz, asmoan, asmoarekin...* idatzi dute:

(2) Joan zen andik beste gauzarik Erroman ekusi bage bere errira itzultzeko asmoan (Mendiburu)

(3) Kontu andijagaz ibilteko asmoz, duanak alango danzeetara, pekatu loijari gorroto deutsala, librau leite pekatuti (Mogel)

(4) Otsoa ta Bildotsa eldu ziran bakoitza bere aldetik Ibai batera ura edateko asmoz (V. Mogel)

(5) Kupiturik sartzen du / gaisoak kolkoan,/ ango beroarekin / pizteko asmoan (Iturriaga)

(6) Etxe baten egiteko asmutan (Duvoisin)

(7) Negar samiñak egiñ ondoan asi zan bere ezpataren billan, berearekin Golo josteko asmoz (Arrue)

(8) Izan bere bekatuen damu egiazkoa, bizitza ondotzeko eta Eliza ama sainduak agintzen duenean konfesatzeko asmoarekin (Legaz)

(9) Arratsalde aldera sartu omen zan basamortu batera, emen arkitzen zan koba zulo batean gaua igarotzeko asmoan (A. Zabala)

(10) Jesusen gorputza igortzitzeko asmotan joan ziran illobia zegoan baratzera (Inza)

(11) Ara non datorren arik lasterrian urun zorro bat lepo-lepuan ebala, arrañai begijetara uruna jaurti ta gusti-gustijak itsututeko asmoz (Otxolua)

(12) Zabaldu zetunat ene paperak lanari ekiteko asmoan (Orixe)

(13) Zarautzerat joan nintzan Patxi *Barberoren* omenaldian kantatzeko amotan (Xalbador)

(14) Multzo-teoria, batez ere, zelatan dago beti, alde eta aldi oro, linguistika osoaren oinarri bihurtzeko asmotan edo (Mitxelena)

Hala ere, badira "partizipioa + *asmoz, asmotan*" egitura erabili dutenak ere. Gutxi baina, goikoekin alderatuz gero.

(13bis) Mun egin gogoz ta asmoz Jesusen llagaren bat (Añibarro)

(14bis) Ortan jarraitu asmotan bada / lan txarrak eman lezazke (Basarri)

(15) Bueltatu nitzan atzera, kale aldera jetxi asmuan lengo biria artzera (A.Zavala)

(16) Apaingarriz edo osagarriz ornitu-asmotan, ez natzaizu batere okertuko (S. Mitxelena)

Badirudi bi egituren arteko desberdintasuna, bataren ugaritasuna eta bestearen urritasuna, beste bikote bati loturik azal daitekeela:

(17) a) Etortzeko asmoa dut

b) Etorri asmo dut

Izan ere badira zenbait izen *—asmo, gura, gogo, nahi edo behar— izan (*edun)* aditzarekin perifrasia osa dezaketenak eta, horrenbestez, aurretik partizipioa har dezaketenak:

(18) a) etorri asmo du

b) etorri gura du

c) etorri gogo du

d) etorri nahi du

e) etorri behar du

Aditz perifrasi horien ondoan, "partizipioa + izena" egiturako izen elkartuak ere osa daitezke, hala nola

(19) a) etorri asmoa

b) etorri gura

c) etorri gogoa

d) etorri nahia

e) etorri beharra

Aldi berean, (18)ko perifrasi guztiak ez dira emankortasun-maila berekoak. *Behar, nahi* eta *gura* izenekin egunerokoak ditugu; ez, ostera, gogo eta asmo izenekin. Azken bi hauekin, askoz maizago esan eta idatziko dugu *etortzeko gogoa/asmoa dut, etorri gogo/asmo dut* baino (nahiz badiren literaturan halako perifrasien lekukotasunak, Lardizabal, Etxaide edo Mitxelenarenak besteak beste). Eta hortaz, *etorri gogoa* eta *etorri asmoa* ere askoz bakanago aurkituko ditugu, *etortzeko gogoa* edo *etortzeko asmoa* maizenak izanik.

I.13. ZU EZIK / ZU IZAN EZIK

'Norbait edo zerbait ez, baina gainerako guztiak bai' adierazteko bi egitura dabiltza gaur lehian: *ezik* (gaur gehienbat entzuten dena) eta *izan ezik*. Tradizioko erabilera kontuan harturik,

IZAN EZIK DA HOBESTEKOA

Askotan entzun eta ikusten ditugu azken urteotan honelakoak:

(1) a) Autobusak eta taxiak ezik

b) Zuri ezik, gainerako guztiei bidali diet txostena

Egia da, izen sintagmaren (edo mendeko perpaus jokatu nahiz jokatugabearen) ondoren *ezik* bakarrik ageri dela literatura, baina askoz gehiagotan 'izen sintagma + *izan ezik*'. Hegoaldeko eta XX. mendeko autoreak dira egitura hau erabiltzen dutenak —Jean Etxepare litzateke salbuespen bakarra—; eta oro har herri hizkeran idatzi dutenak. Txomin Agirre, Kirikiño, Azkue, Eguzkitza, T. Agirre, Jean Etxepare, Oskillaso, Erkiaga, T. Etxebarria, Etxaide, Etxaniz, Otxolua, Altuna, San Martin, Alzola, Berrondo, Munita, Zaitegi, Mokoroa, Basarri

(2) Garizuman, Domekak izan ezik, osterantzeko egun guztiak (Vitoria-Eleizbarrutirako Kristiñau-Ikasbidea)

(3) Isabelek, aoz izan ezik, zuka itz egin bear izaten zion aizpari (Azkue)

(4) Teologia izan ezik, beste eledergai guztiak agertu, aztertu, ikertu... (Erkiaga)

(5) Errira polbora-billa zoazenean izan ezik, ondo gordeta zaudeke an (Etxaniz)

(6) Euskalerri guztia, Eibar izan ezik, abadien mendian dago (Tx. Agirre)

Izen sintagma + *ezik* egituraren adibideak, berriz, XX. mendekoak eta Hegoaldekoak izanik, hizkera landuagoa erabili zutenen artean, hala nola Lizardi, Lauaxeta edo Orixeren lanetan. Baina Kirikiño, edo Otxoluagan ere aurki daitezke horrelako adibideak

(7) Ua ezik, guzia gaizto ta aspergarri zitzaidan (Orixe)

(8) Kapitana ezik, beste guztiak aurreko aldean (Anabitarte)

(9) negar-egin eutsen, orok, neska batek ezik (Lauaxeta)

Izan ezik-en ezkerrean doan sintagmak dagokion kasu-marka hartu ohi du: *herri horretan izan ezik, zuri izan ezik, domeketan izan ezik* etab. Salbuespena ergatiboarekin egiten dela dirudi, behin baino gehiagotan aurkitzen baita absolutiboan *izan ezik*-en aurreko sintagma, nahiz ondokoa ergatiboan joan:

(10) arerio purrukaturen bat izan ezik, azkenengo astean etzuan iñork dirurik atera nai (T. Agirre)

(11) Bera izan ezik, ezin zuan iñork hitz egin errosarioa bukatu arte (Oskillaso)

(12) orixe egingo eban zu izan ezik beste edozeiñek (Tx. Agirre, *Auñamendiko Lorea*, 98)

Ergatiboa ere aurki daiteke tarteka (13) adibideak erakusten duenez; *ezik* soila erabili duten autoreen joera, berriz, ergatibo-marka gordetzekoa izan da:

(13) ...eziñekoa, Nikanor'ek berberak izan ezik (Erkiaga, *Batetik Bestera*, 21)

(14) Nork bereizten gaitu, Zuk ezik? (Orixe)

(15) ...geienek alde egiten zutela, bertakoek ezik, gure kastakoek ezin zutela ain bero aundiak jasan (Anabitarte, *Aprika*, 97)

Dena den, jokabidea bietarikoa izanik, eta erregulartasunaren izenean, ergatibo-marka gordetzea gomendatzen da. Hortaz, *horixe egingo luke, suk izan ezik, beste edozeinek.*

Dena den, beste balio batzuk ere har ditzake izen sintagmaren ondoko *ezik* partikulak. Hurrengo adibideetan 'izan beharrean', '-en ordez'... adierazten du:

(16) Lagunekin berriketan asi ba-dadi, itzak-ezik aotik ontzako urre gorriak yalkitzen zari dala dirudit (Lizardi)

(17) Azariarena ezik artzarena egingo nuke (Labaien)

Beste batzuetan, izen sintagmaren ondoren *ezik* bakarrik agertu arren, ez *ezik (...ere)* emendiozko esapidearen balioa hartzen du:

(18) Beterinariyuak emango dizkizu lau ezik, amalau're berak nai badu (Iraola)

(19) Naiz-ta oraiñarteko morrontza-sariak ezik, aginduriko ugartegobernuaren esperantzak ere galdu (Berrondo)

(20) bestean kutxilloa, ta begiak ezik arpegia bere, mozorroz edo sudur-zapiaz estaldurik (Erkiaga)

(21) Enrike ezik geigo ere badituk (A. Barriola)

(22) Berdunen ezik Melillan ere egin du orrek beria (Txirrita)

Partizipioaren ondoren doanean, berriz, baldintza-balioa hartzen du, 'partizipioa + *ezean*' egiturak bezalaxe:

(23) ta alogerik irabazi ezik, ez eukela zegaz janik (Eguzkitza)

(24) eta mirariak ikusi ezik, eztuzue siñesten... (Iraizoz)

Orain arteko adibideetako *ezik* enklitikoa zen, aurrekoari lotua. Baina bada hasierako *ezik* ere, Iparraldeko nahiz Hegoaldeko autoreek erabiltzen dutena, eta balio bat baino har ditzakeena —*ezen*-n parekoa—:

perpaus konpletibo baten edo kausazko baten hasieran joan daitekeena, edo konparazio bateko bigarren alderagaiaren aurrean...

(25) zopatako naioago du errekesuna ezik orioa (Mendigacha)

(26) ordian erran behar falsuko minzatu dela, ezik, ezta permis... (Laneufvilleren Catichima)

(27) aiñ aberatsa, ezik, ateratzen dan menasta guztiak ematen du... (Iztueta)

(28) badaki ezik begira dagokola zeru guzia (Laphitz).

I.14. JUNTAGAILUEI BURUZKO GOMENDIOAK

Literatura-tradizioan juntagailuak nola erabili diren aztertu ondoren eta azken urteetako joerak ikusirik, honako gomendioak eman beharra ikusi du Gramatika batzordeak.

1. *Izen sintagmak ala izenak juntatu*

Lehenik esan behar da *beti* dela zilegi izen sintagmak juntatzea. Areago, juntagaiak erakusleak edo izenordainak direnean, nahitaezkoa da sintagma osoak juntatzea:

honekin eta harekin / *hau eta harekin
zuri eta niri / *zu eta niri

Gainera, bai *eta*, bai *edo/ala/nahiz/zein* juntagailuekin honako joerak ikusten dira literaturan:

a) Singularrean izen sintagma osoak juntatu ohi dira (kasu-marka errepikatuaz beraz), eta ez izen soilak:

Etxean eta kalean nonahi berdintsu jokatzen du
Aitari edo amari esaiozu nirekin hitz egitera etortzeko

dira beraz gomendatzekoak (ez *etxe eta kalean* edo *aita edo amari*)

Dena den izenlaguna (berdin erlatiboko perpausa) edo izenondoa egoteak izen-juntaketa errazten du, bai eta juntagaiak izen propioak izateak ere:

Bizinahiak ematen duen indar eta adorez / bizinahiak ematen duen indarrez eta adorez:

Mikel eta Xabierrek esan digute / Mikelek eta Xabierrek esan digute

b) Pluralean, izen sintagma osoak nahiz izenak junta daitezke:

Ikasle eta irakasleek egindako eskaria da
Ikasleek eta irakasleek egindako eskaria da.

Hala ere, juntagailu hautakariekin (*edo, ala, nahiz, zein*-ekin) joera handiagoa dago izen sintagma osoak juntatzeko.

c) Nolanahi ere, sintagma osoak edo izenak juntatzea da aukera, ez kasu-marka gabeko sintagma eta kasu-markaduna:

*Etxea eta kalean berdintsu jokatzen duen horietakoa da
*Ikasleak eta irakasleei egingo diegu bilerarako deia.

d) Posposizio-sintagmekin halere batzuetan lehen osagaiak artikulu soila eraman dezake, baina artikulua singularra denean bakarrik; badira literaturan halako adibideak, nahiz ez den hori juntabiderik ohizkoena. Baina ez da zilegi gaur horrenbeste hedatu den egitura, artikulu plurala duen osagaia ezkerreko juntagai izatea. Orain arte esana kontuan izanik, hauek ditugu beraz aukerak lehen juntagaia singularra denean:

Zuzendariordearen eta zuzendariaren arteko liskarra (ohizkoena)
Zuzendariordea eta zuzendariaren arteko liskarra (bakanagoa gaur arteko tradizioan)
Gure ikastetxeko zuzendariorde eta zuzendariaren arteko liskarra.

Plurala denean ostera:

Irakasleen eta zuzendarien arteko liskarra
Irakasle eta zuzendarien arteko liskarra
*Irakasleak eta zuzendarien arteko liskarra.

2. Edo *eta* ala *juntagailu hautakarien erabileraz*

Bi juntagailu horien arteko desberdintasuna aukera inklusibo edo esklusiboari lotua dagoela irakatsi iza da askotan azken urteetan. Horregatik, batek baino gehiagok uste du "aukera inklusibo ala esklusiboa" esan behar dela, bietatik bat izan behar baitu, ezin dira biak batera izan. Ez da hori izan baina literaturako erabilera. Bi juntagailuen arteko desberdintasuna azaltzeko, bi puntu hartu behar dira kontuan: zein motatako perpausean azaltzen diren juntagailuok eta zein motatako aukera adierazten duten.

Bi puntu horiek uztartuaz eta literaturako erabileraren arabera, honako gomendioak eman daitezke:

1. Beti da zilegi *edo* erabiltzea, hori baita juntagailu hautakari markatugabea.

2. *Edo* eta *ala* bereizi nahi badira, *ala* juntagailuaren erabileremua finkatzea da errazena, gainerakoetan *edo* izango da-eta erabiltzekoa:

a) *Ala* galde-perpausetan, zuzeneko nahiz zeharkakoetan, erabiltzea gomendatzen da, galdegai diren sintagma osagaiak juntatzeko:

Zer nahi duzu, ura ala ardoa?
Aitarekin ala amarekin joango zaren jakin nahi dut.

Perpaus sintagmak ere junta daitezke, bien artean galdera bakarra osatzen dutenean:

Etxean geldituko zara ala gurekin etorriko zara sagardotegira?

Baina *ala* juntagailua ez da galde-hitzak juntatzeko erabiltzen:

Zerk edo nork ikaratu zaitu?
*Zerk ala nork ikaratu zaitu?

b) Bereziki Iparraldean adierazpen-perpausetan ere erabiltzen da, askotan antonimoak diren osagaiak juntatuaz, baina ez du aukera esklusiboa adierazten, baizik òrobatasuna', hor aipatzen diren aukerak parekoak zaizkigula alegia; berdintsu zaigula bata nahiz bestea. Pare-pareko balioa dute *nahiz* eta *zein* juntagailuek:

Hizkuntza bat edo bestea jakiteak, ongi ala gaizki, hala nahiz honela mintzatzeak (...) larru-azaleko koloreak baino gehiago batzen eta bereizten gaitu (K. Mitxelena, *Mitxeenaren Idazlan Hautatuak*)

3. Hortaz, *edo* erabiltzea gomendatzen da adierazpen-perpausetan balio esklusiboa adierazi nahi denean:

Hil edo biziko auzia
Salbazioko edo kondenazioko epaia ematen dute irakasleek ere kurtso-amaieran.

I.15. EKARTZEA MEREZI DU / EKARTZEAK MEREZI DU

ez du merezi hari ezer esatea
merezi du gogotik ikastea
merezi ote zuen hala bizitzea?
??merezi du gau-pasa egiteak
??merezi du isilik egoteak

Ekartzea ala *ekartzeak?* Askok izan dugu duda hau eta, halere, sortu berria eta azken urteotakoa da eta zenbait gramatikariren nola-halako gogoeten mozkina. Ez, noski, leku batzuetan modu batera eta besteetan bestera esaten delako; Gramatikaren itxurazko logikaz adizkiaren subjektu-ergatiboa izatea dagokiolako baizik. Maizegi egin izan den arrazoinamendua da hau: ez da ikusten zergatik den zerbait esaten den bezala, eta beste gabe, oker bailegoan, aldatu egiten da.

Tradizio guzia kasu absolutiboaren alde dago: *ekartzea.* OEH hartuz gero, ehunka perpaus jasoak daude *merezi* aditza dutenak. Guri dagozkigunak, ordea, gutxi. Askozaz gehienak bestelakoak dira: "Iñaxiok ez du merezi", "Jainkoak laguntzea ote du merezi?", "hark hiltzea merezi du". Guri, izan ere, ǹork' espresuki nahiz inplizituki esan gabeko perpausak axola zaizkigu, alegia, beste ergatibo gabeak, halakoetan, nominalizazioa absolutiboan agertzen bada, jakiteko garbi ez dela ergatiboa beste bat delako, baizik, beste bat ez izanik ere, absolutiboan joan behar duelako. Hau, esate baterako, nola esan beharko litzatekeen jakiteko: (1a) bezala ala (1b) bezala?

(1) a) merezi al du jaiotzea?

b) merezi al du jaiotzeak?

Ez inork, noski; kasu horretan bigarrena ezina litzateke, baizik beste zentzu honetan: "Jaio? Zertako? Merezi al du?". Esan bezala, OEH-n askozaz gehienak bestelakoak dira eta mordoxka bat bakarrik guk behar bezalakoak direla diruditenak; baina ez da gauza segurua, zeren ia beti gelditzen zaizu duda, ez ote dagoen testu inguruan ergatiboren bat isildua edo izkutatua. Hauetan, esate baterako:

(2) a) orain akordatzia ez al du merezi? (Udarregi, *Udarregi Bertsolaria*, 131)

b) ez dau mereziduten kasurik egitia (Fray Bartolome, *Euskal Errijetaco Olgeeta...*, 166)

c) bera danagatik, beste gabe merezi du, guziak ...bere serbizioan enpleatzea (Guerrico-078)

d) iduritzen zait merezi duela orotara zabaltzia (*Astolasterrak*, 065)

e) emen aitatzea merezi duena (Lardizabal, 213)

f) lenengo mallan ipintzea merezi duena (Lardizabal, 485)

g) etzun merezi zuk argi egitea (Orixe, *Aitorkizunak*, 380)

h) ori abonatzia ez al du merezi? (J.M. Barandiaran?- 162)

Ez dira kasu absolutiboaren aldeko froga txarra honelakoak, "eztu merezi kontatzerik...", "ez du merezi zabarkerian orain galtzera uzterik" eta abar, pilo bat direnak; alegia, beti ere nominalizazioaren ǹor' kasua suposatzen dutenak. Eta frogarik onena, agian, beste hau: *merezi du* esapideak, arrazoi batengatik edo besteagatik, ergatiboa han duelako edo isildua dagoelako, "de facto" beti ǹor' kasuan darama nominalizazioa. Bi salbuespen bakarrik aurkitu ditugu OEH-ko ehunka exenpluren artean: bata Orixerena, bestea Basarrirena:

(3) a) "Luzeioko du, nik..., baiña merezidu luzeago iarduteak" (Orixe)

b) "Ez gaitzala gu artaño poztu inbentu asko sortzeak, merezi baitu zer ondorenak datozkigun pentsatzeak" (Basarri).

Baina zergatik? ez al da nominalizazio hori, edo ez al du izan behar, *merezi du* adizkiaren subjektu-ergatiboa? Ez, ez da, eta ez du izan behar; osagarri zuzena da. Eta hori batzuetan garbiro ageri da, ergatibo dena bistan dagoelako, honako adibide hauetan bezala:

(4) a) *Zuk* bai merezi duzula jan gabe gelditzea

b) *Hark* ez du gurekin etortzea merezi

c) *Zuek* ez duzue merezi zigortuak izatea

d) zure liburu *honek* merezi du argitaratzea

e) argudio txepel *horrek* ez du erantzutea merezi.

Beste batzuetan ere ez da, edo ez dirudi hala denik, nahiz horren aldeko froga garbirik ez den, non ez den aski froga garbia, batetik herriak beti *merezi*-ren erregimen nominalizazio hori kasu absolutiboan erabiltzea eta bestetik literaturako tradizioan ere kasu ergatiboan ez agertzea. Zein da, hortaz, ergatiboa honako hauetan?:

(5) a) San Ferminetara joatea ez du merezi.

b) eguraldi honekin mendira joatea merezi du

Horrelakoetan ez da ergatiborik, eta honek ez gaitu gehiegi harritu behar, bai baita euskaraz ergatibo gabeko aditz gehiago, hala nola batzuetan *iruditu, eman, aritu*:

(6) a) euria egin behar duela ematen du

b) kazkabarra ari du

c) iduri du laster hilko dela.

Edozein gisaz hau ez da guri gehiena axola zaiguna, bestea baizik: *merezi*-ren erregimena nominalizazioa denean kasu absolutiboan ipini behar dela, ez ergatiboan. Alegia:

(7) a) ez dakit merezi duen erantzutea

b) mereziko ez du, bada, guziok elkartzea!

c) ez du merezi horregatik haserretzea

d) merezi ote du horrela bizitzea?

Ez ahantz iparraldekoek *balio* erabiltzen dutela eta ez *merezi*, absolutiboan ez ezik ergatiboan ere bai, gainera:

(8) a) "Ez din laxüki...aipatziak balio" (Constantin)

b) "Zer balio zuen tematzeak?" (Narbaitz)

c) "Ezdakit balio duen gauza horren aipatzeak" (J.B. Elizanburu)

Halere absolutiboa nagusitzen bide da han ere eta uste dugu hori jo behar dugula hobetzat euskara baturako.

I.16. (E)Z GERO / EZKERO

Ezagun denez, euskal gramatikan baldintzazko perpausak egiteko dagoen era arruntetariko bat, aditz-adjektiboari erantsitako *-(e)z gero/ezkero* postposizioa dugu:

(1) lana eginez gero, behar den bezala ordainduko dizute

Era berean, postposizio berberaz eta aditz jokatu batekin batera perpaus kausalak egin ditzakegu:

(2) lana ondo egin duzunez gero, behar den bezala ordainduko dizute.

Azkenik, aditz jokatu zein jokatugabeekin batera perpaus denboralak ere egin daitezke postposizio honen bidez:

(3) eskolako lana eginez gero, jolas egitera joan zaitezke

Agerian dago, bestalde postposizio hau elementu biz dagoela osoturik, alde batetik instrumentalaren marka den *-z* postposizioaz, eta bestetik *gero* aditzondoaz.

Tradizionalki, Iparraldeko idazleek joera izan dute elementu bi horiek aparte idazteko: *-z gero.* Hegoaldekoek, ostera, batera idaztekoa: *ezkero.*

Aipaturiko erabilkera horiek, baina, ez dira postposizio honek dauzkan bakarrak, aditzondo denboral gisa ere guztiz arrunta baita:

(4) heldu den igandeaz gero Baionako etxean aurkituko nauzu

(5) Irugarren umea ezkero ama asko...(Eguzkitza, *Gizarte-Auzia,* 185)

Azkenengo adibideetan ikus dezakegun bezala postposizioaren aurreko izena beti da mugatua, hala izan behar badu behintzat: *igandea, umea* e.a. Izan ere, puntu honetan ipar-ekialdeko eta hego-mendebaldeko tradizioak banatzen dira. Lehenengoan (4)an bezala *-(e)z gero* erabiltzen da kasu guztietan. Bigarrenean, ostera, eta postposizio denboral gisa *ezkero* formaren bidez gramatikalizatu da.

Hori kontutan hartuta, eta orobat Arantzazuko txostenaz geroz nagusitu den joera, ondokoak proposatzea erabaki du Gramatika batzordeak:

a) Kasu guztietan *-(e)z gero* hobesten da, baita erakusleekin ere:

(6) a) hori eginez gero

b) hori egin duzunez gero

c) egun horretaz gero

Ahoskerari dagokionez, *ezkero* ahoskatzeko ohitura duten euskalkietan, betiko ahoskerari eutsi behar liokete ([ori egin ezkero]).

b) Orduekin, eta oro har denbora-posposizio gisa, *ezkero* era ere ontzat jotzen da:

(7) a) hamarrez gero / hamarrak ezkero

b) zortziez gero / zortziak ezkero.

c) San Ferminez gero / San Ferminak ezkero

d) atzoz gero / atzo ezkero

e) herenegunez gero/herenegun ezkero

c) *Honezkero, horrezkero* (beste biak baino gutxiago erabili dena) eta *harrezkero* aditzondoak, era horretan ontzat jotzea, horretara idatzi baitira gehien bat gure literatur tradizioan.

I.17. LEHENAGO ETORRIKO ZEN

Baldintzaren ondorioetako adizki bezala, egingo nuen eta antzekoak onetsi egiten dira.

Bi esaldi hauek ontzat ematen dira:

Garaiz esan bagenio, lehenago etorriko zatekeen.
Garaiz esan bagenio, lehenago etorriko zen.

Hauek baliokideak izan daitezke, gaztelerara honelaxe itzul daitezkeenak: *"Si le hubiésemos dicho a tiempo, habría venido antes"*. Areago, bigarren moldea zalantzarik gabe lehena baino maizago aurkitzen da edozein euskalkitan edo erregistro mailatan. Hortaz, ez dugu ikusten erabilpen hori gaitzesteko edo ez bultzatzeko arrazoirik.

Zenbait gramatikarik normaltzat jo izan dute *etorriko zen* forma ezinezko ondorio direlakoetan, hala nola Lafittek (*Grammaire*, 376-7) eta Gramatika Batzordeak (*EGLU II*, 431). Bestalde esan behar da Altube (*Erderismos*, 230) eta Txillardegi (*Oinarri bila*, 143), besteak beste, guk ontzat emandako etorriko zen baztertzearen alde egon izan direla.

Iragan-geroa delakoa (adibidez, *etorriko zen*), hemen interesatzen zaigun erabileran (besteak baditu eta: ikus *EGLU II*, 425), baldintzazko ondorioetan ez ezik, baldintzarik aipatzen ez den zenbait perpaus motatan ere erabili ohi da, hala nola: *Oso gustora geldituko nintzen berarekin egun hartan; nork esango zuen hau gerta zitekeela? Beharbada berriro saiatu beharko genuen.* Beti gertatu ez zen ekintza edo egoera hipotetiko batez ari gara, hau da, mundu irreal bateko gertakariak aipatzen ditugu forma hauen bidez (egiazko munduan, ostera, *ez nintzela berarekin gelditu, inork ez zuela esan, eta berriro saiatu ez ginela* presuposatzen dute perpaus hauek).

Haatik, beste modu-nozio bat adierazteko, gertakari hipotetikoak baina gerta litezkeenak aipatzen dituena alegia, iragan-geroaz baliatzea onartezina da goi-mailako euskaran: beraz gaitzetsi behar dugu.

*orain bertan txuleta eder bat jango nuen

esan nahi delarik

orain bertan txuleta eder bat jango nuke.

II. OKERRAK ZUZENDUZ

II.1. *-A BOKALAZ AMAITZEN DIREN IZENEN MUGAGABEKO KASUAK*
(eta mugagabearen beste erabilera oker batzuk)

1. Aski garbia eta zehatza da euskara batuan-*a* bokalaz amaitzen diren izenei dagokien jokabidea: bokal hori berekin dutela erabiltzen dira beti. Horrela izaten da, esate baterako, izenondoa, erakuslea edo horrelakoren bat lagun hartzen dutenean: *eliza ederra, edozein gauza, anaia bat, gaiztakeria hori....* Ez dute amaierako *-a* galtzen, hiztun batzuek, artikuluarekiko analogiaz edo, horretarako joera erakusten badute ere.

Deklinatu ere bokalez amaitutakoen arabera deklinatzen dira: *elizako, elizara, elizatik....* Pluralean, berriz, *a+e* → *e* kontrakzioa egiten da euskara batuan, jakina denez: *horrelako gauzek, hiriko elizetan....*

Nahiko ondo eta zehatz betetzen da hori guztia egungo erabileran.

2. Mugagabean, hala ere, zalantzaren bat edo beste izan ohi da inoiz:

bi pertsonek galdu dute bizia
bost pertsonek hartuko dute parte epaimahaian
berrehun pertsonen aurrean
zenbait pertsonen iritzia
bi pertsonentzako bidaia
hiru enpresek botatzen dituzte zaborrak ibaira

eta horien antzekoak entzun eta irakurtzen dira maiz hedabideetan, sintagmak mugagabeak izan arren, hitzok azken buruko *-a* galdua bailuten, alegia. Mugagabeak diren neurrian, ordea,

bi pertsonak galdu dute bizia
bost pertsonak hartuko dute parte epaimahaian
berrehun pertsonaren aurrean
zenbait pertsonaren iritzia
bi pertsonarentzako bidaia
hiru enpresak botatzen dituzte zaborrak ibaira

behar lukete horiek, berezkoa duten amaierako *-a* galdu gabe.

Gogoan hartu behar da, noski, sintagma diferenteak direla *bi pertsonak* (egin dute) eta *bi pertsonek* (egin dute), *hiru gauzatan* eta *hiru gauzetan* diferente diren bezala: pare bakoitzeko aurrena mugagabea da ('dos personas–, 'deux personnes– eta èn tres cosas–, èn/dans trois choses–, hurrenez hurren) eta bigarrena, berriz, mugatua ('las dos personas–, 'les deux personnes– eta èn las tres cosas–, èn/dans les trois choses–).

3. Baten batek pentsa lezake, beharbada, goiko adibide horiek ikusita, *pertsona* eta *enpresa* bezalako hitzek berek dutela bere baitan zerbait azken buruko *-a* hori zalantzazko egiten duena; hau da, gisa horretako mailebuak direla mugagabean okerbidera maizenik eramaten gaituztenak. Horrela ote, ordea? Ez dirudi. Izan ere, nork idazten du, erabilera jasoan behintzat, *pertson bat, hiru enpres* edo horrelakorik? Ez, absolutiboan behintzat ez dago zalantzarik. Eta, gainera, bestelako hitzetan ere somatzen da inoiz –gero eta gutxiagotan, egia da– aztertzen ari garen forma makurretarako joera. Aipatu hitzak nabarmendu badira, hedabideetan duten maiztasunari zor zaio hori, seguruenera, ez besteri.

Beste zerbait dabil hor tartean. Mugagabetasunaren erabilera behar bezala ez menderatzea, alegia. Ikus ditzagun zenbait adibide, azaldu nahi dugunaren argigarri:

(1) "Itolarrian" daudela ohartarazi dute Errioxako hiru ikastolek (Euskaldunon Egunkaria, 93-11-24, 1. or.)

Albiste baten izenburuan ageri zen esaldi hori. Esaldia irakurrita badirudi Errioxan hiru ikastola baizik ez dagoela eta hirurak daudela "itolarrian". Plural mugatua dela. Gero, ordea, artikuluan barrena (11. or.) hiru ikastola baino gehiago aipatzen direla ematen du. Hori horrela bada, beraz, eta albistea gaizki ulertu ez badugu, izenburuko *hiru ikastolek* horrek *hiru ikastolak* behar luke. Behin baino gehiagotan sortzen zaigu zenbait testuren aurrean horrelako zalantza: zer esan nahi ote zuen zinez idazleak, *los tres..., los dos...* ala sinpleki, eta oker idatzita, *tres..., dos...*?

(2) 11etan Mariaren Zeruratze parrokian, Meza bi bertsolariekin.

(Errenterian joan den urteko abenduaren 21ean Atañori egindako omenaldirako banaturiko egitarauanInon ez zen adierazten, ez aurretik ez ondotik, zein bertsolarik hartuko zuten parte. Beraz, izatekotan ere, *bi bertsolarirekin* behar zuen horrek)

(3) Konstituzio hori (...) zenbait askatasun basikoen babesle

(Euskaldunon Egunkaria, 93-12-28, 2. or., kolaborazioa. Zenbait mugagabea denez, zenbait askatasun basikoren behar luke horrek)

(4) (...) zenbait auzoetako kultur elkarteen (...) inguruetan

("Bertsolariya", 1993ko abendua, 3. or. Zenbait auzotako behar du horrek ere, jakina, mugagabe izaerari dagokionez)

Aski, horrenbestez. Ez dago zer luzatu adibideak emanaz (ikus *Eraskina 1*), nahiko garbi erakusten baitute emandako gutxi horiek nondik datorkeen aztertzen ari garen okerrerako bidea: *zenbait, bi, hiru* eta horrelakoak semantikoki pluralak direnez, deklinabidean ere plurala 'markatzeko' eta 'agerian jartzeko' joera izaten dugu askotan —inguruko erdaren eraginaz edo bestela—, mugagabetasunaren ikuspegia galduta. Zenbatzaile horiek esanahiz 'pluralak' direnez, pertsonek, *pertsonen, enpresetan, auzoetan, basikoen, bertsolariekin* eta gisa horretako 'plural' morfologikoak ipintzen dizkiegu aldamenean, esanahiaren 'aniztasunak' bultzatuta-edo eta, esan bezala, mugagabetasunaz ahantzita. Izan ere, *bi pertsonak, hiru ikastolak, hiru pertsonaren, zenbat lege basikoren* eta abar idatzita 'plural' semantikoa aski garbi ikusten ez ote den edo iruditzen zaigu, beharbada, oharkabean bada ere.

Gogora dator hori dela-eta Mitxelenak Arantzazuko Txostenean idatzi zuena (*Euskera* XIII, 1968, 216-217. orr.):

> Izenari buruz, Baionako erabakietan hain gogoan duten bereizkuntza guk ere gorde eta indartu behar dugu, betidanikoa eta alde guztietakoa denez gero: erabilbide bat duela izenak mugatzailearekin doanean eta bestea, oso bestea gero, mugatzailerik gabe dagoenean. Hori baita gure artean, Gipuzkoan batez ere, idazle berriek ahantzi dutena: *zenbait gizon, edozein lekutan, bi mendiren erdian, zein ikaslek, ez du begik ikusi,* eta abar, alegia.

Eta zalantzak besteetan ere bai, baina batez ere *-a* berezkoa duten hitzetan gertatuko zirela aurreikusiz edo, honela erantsi zuen:

> Horretarako, nahi ta ez, beharrezkoa da hitz batek azken buruan daraman *-a* berezkoa duen ala erantsia jakitea.

4. Hona, bada, gogoan hartu behar genukeena: ondo berezi behar direla deklinabide mugagabea eta plural mugatua. Eta berezketa hori izen eta izenki guztiekin egin behar bada ere, kontu eta arreta berezia izan behar dugula azken buruan *-a* daramaten hitzekin, horietan nahasten baikara maizenik.

ERASKINA

1. **Mugagabearen erabilera okerrak**

— Bost neske*k* osatzen dute taldea
— Hamabi atlete*k* positibo eman dute
— Bizkaiko bi enprese*k* egin dute gaur greba
— Bi sozialis*ten* ustez...
— Orain bi erakusket*en* berri emango dizuegu
— Hamabi enpres*en* kasua agertuko dizuegu
— Hori bi enpres*en* artean egingo dute
— Bi artist*ei* egingo dioten omenaldia komentatuko dizuegu
— Hamasei enpres*etan* egin dute proba
— Hiru asignatur*etan* porrot egin du *(irakaskai gehiago zituelarik)*
— Hamar mila pertson*etik* gora hartu zuten parte
— Hamahiru pertson*etatik* hamar

— Zenbait pertson*ek* galdu zuten bizia
— Zenbat atlet*ek* hartu dute parte?
— Zenbait protagonist*ekin* hitz egingo dugu
— Zenbat hizkuntz*etan* esaten da horrela?
— Edozein dend*etan* aurkituko duzue
— Zenbait ekintz*etan*...

— Hirurehun bat preso*ek* egin dutena
— Eibarko hamabi margolari*ek* erakusketa egingo dute
— Bi egunkari*en* aipamena egingo dugu
— Hirurogei liburu*ekin* osatuko dute
— Bi sozialista milante*en* ustez...
— Enpresa hau lau alderdi*en* artean osatzen da
— Berrehun preso*en* zigorra
— Hiru-lau metro*en* aldea
— Zazpiehun bat ikusle*en* txalo beroak jaso zituen
— Hamar puntu*etan* gelditu da
— Zazpi ikastetxe publiko*etan* gertatu da
— Hiru mila liburu*etan*
— Ehuneko hamabi*etan*
— Hego Amerikako hiruzpalau herri*etara* eramango du

— Zenbait iturri*ek* aditzera eman dutenez...
— Zenbait Estatu*ek* ez dute parte hartu
— Beste zenbait neurri*en* artean
— Zein herri*ari* dagokio hori?
— Zenbait jende*arentzat* interesgarriak izango dira
— Hainbat kide*ekin* batean joan dira

— Zenbait ekipo*ekin* egiten duzue lan
— Beste zenbait herri*etan* ere...
— Leku asko eta asko*etan*
— Agerraldia bi saio*etan* emango dute
— Hainbat hiri eta herri *etan*...
— Bere zenbait idatzi*etan*...
— Badira zenbait toki*etan* gauza ikusgarriak
— Zenbait aldizkari*etan* idatzi zuen
— Iruñan emandako zenbait kontzertu*etan*
— Edozein bazkari edo afari*etarako*
— Espezialistak daude zenbait arlo*etarako*
— Beste hainbat zerbitzu*etarako*

2. **Adibide zuzenak**

Nor: Bi pertsona etorri dira

Nork: Bi neskak irabazi dute lehen saria

Zein enpresak egin du hori?
Zenbat pertsonak dakite hori?
Hiru pertsonak galdu dute bizia
Hirurogei ikastolak erabaki dute publiko egitea
Zenbait nekazarik eskatu dute hori

Noren: Ehun pertsonaren aurrean egin zuen hori

Zenbat enpresaren artean egingo dute hori?
Lau neskaren ondoan sartu zen
Zenbait dendariren nahia

Nori: Lau neskari eman diete saria

Zenbat pertsonari bidali diezu gonbidapena?
Hiru enpresari jarri diete isuna
Hiru enpresariri jarri diete isuna

Norekin: Bi alabarekin joan da

Zenbat neskarekin ibili zara?
Bi mutil gazterekin joan da

Norentzat: Zenbat enpresarentzat dira laguntza horiek?

Bi alabarentzat arropa erosi dut eta bestearentzat liburuak
Bi musikarirentzat bada hemen lana

Non: Zenbait enpresatan

3. **Bibliografia**

Deklinabideaz, ikus Euskaltzaindia, *Euskera. Bergara-ko biltzar ondoko erabakiak*, Bilbao, 1979, 27.-49. orr.

-a bokalaz amaituriko izenen deklinabideaz, berariaz, ikus Euskaltzaindia, *EGLU-I, Eraskina*, Bilbao, 1987, 107.-108. orr. eta Euskaltzaindia, *Gramatika Laburra*, Bilbo, 1993, 519.-520. orr.

II.2. -Z INSTRUMENTALAREN ZENBAIT ERABILERA OKER

Azken bolada honetan, komunikabideetan eta administrazioan batez ere, *-z* instrumentalaren erabilera asko ugaldu da edo ari da ugaltzen behar ez den kasuetan. Dudarik ez da *zertaz* kasua denean beti instrumentala erabili behar dela; baina mendebaldean, ekialdean ez bezala, erabilera urria duela eta, batzuek erabilera hori ugaltzera jo dute azken urteotan. Hori dela eta, EGLUk (2) dioen bezala, "anitzetan erabili beharko ez litzatekeen" tokietara ere hedatu da *-z* instrumental horren erabilera.

Erabilera okerrak, labur bilduta, honako kasu hauetan egiten dira batipat:

1. *Modua adierazten denean*

Zuzen erabiliak dira, noski, ondorengo adibideotan ageri diren *oinez, eskuz, trenez, autoz, itxasontziz* bezalako sintagmak:

(1) a) *trenez* joan naiz Donostiara.

b) Erromara *autoz* joateko asmoa du.

c) *Itxasontziz* egin genuen Palmako joan-etorria.

d) *euskaraz* ari dira.

e) *oinez* askotan egin dut Tolosako bidea

f) *eskuz* ari dira pilotan jokatzen.

Markaturik eman ditugun *trenez, autoz*, e.a. bezalako aditzondoak kasu instrumental mugagabean doaz batere zehaztasunik gabe. Moduz-

(2) *Euskal Gramatika Laburra,* Euskaltzaindia, EHUren edizioa.

ko aditzondo hutsak dira horiek. (EGLU-I, 80., 292. eta 335. orr.; *Euskal Gramatika Laburra,* 485. orr.).

Egituraz konplexuago izan arren ere, goiko horien antzekoak dira beste hauek: *zure erruz, nire ustez / gogoz / aburuz / iduriz / bitartez...*

Baina aditzondo horien antzera instrumental mugagabean doazen izen sintagmak ere ikusten dira eta entzuten, hala nola:

(2) a) **zazpietako trenez* joan naiz Donostiara.

b) Erromara **bere autoz* joateko asmoa du.

c) **Bartzelonako itxasontziz* egin genuen Palmako joan-etorria.

d) **euskara batuz* ari dira.

Baina hauek oker erabiliak dira, (1)eko egiturak itxiak baitira, adberbioak hain zuzen, forma eta kontestu horretan bakarrik erabiliak. Hala, (1)eko aditzondoak ez bezala, (2)ko adizlagunak, mugatuak eta zehaztuak dira. Horrenbestez, mugatzailea eskatuko dute eta, gainera, inesiboan joango dira: *zazpietako trenean, bere autoan, Bartzelonako itxasontzian, euskara batuan,* e.a.(EGLU-I, 293. orr. eta *Euskal Gram. Lab.,* 485. orr.)

2. ***Denbora adierazten denean***

Denbora adierazten duten aditzondoak ere badira: *egunez, gauez, garaiz/tenorez,* e.a. bezalakoak.

Hala ere, egunen eta hilen izenak ez dira era horretara instrumental kasu mugagabean erabiltzen. *Igandez, astelehenez, martxoz, abuztuz...* bezalakoek ez dute tradiziorik. Horien ordez, *igandean/igandeetan, astelehenean/astelehenetan, martxoan, abuztuan...* inesiboko forma mugatuak erabiltzen dira. Eta gauza bera gertatzen da *arratsez, arratsaldez, goizez* bezalakoekin ere. Ahozko eta idatzizko tradizioan *arratsaldean, arratsean, goizean...* adizlagunak erabili baitira. Azkenik, horrenbeste zabaltzen ari den *momentuz* aditzondoak ere ez du tradiziorik (*Orotariko Euskal Hiztegia*-k ez dakar agerraldi bakar bat ere). Balio hori adierazteko *oraingoz* da erabili izan dena eta jatorra.

Denborazko aditzondoen modura instrumental mugagabean eratutako izen sintagmak ere badira maizegi gure artean:

(3) a) **joan zen igandez* Urbian izan ginen familia osoa

b) **datorren astez* etxetik kanpo izango naiz

c) **astelehen goizez* etxean egiten du lan, eta **astearte arratsez* kanpoan.

d) *datorren*ostiral gauez* bertsotara joango naiz

Horien ordez besteok lirateke egokiak:

(4) a) *joan zen igandean* Urbian izan ginen familia osoa

b) *datorren astean* etxetik kanpo izango naiz

c) *astelehen goizetan* etxean egiten du lan, eta *astearte arratsetan* kanpoan

d) datorren *ostiral gauean* bertsotara joango naiz

Horren arrazoia, goiko 1-ean, moduaz aritu garenean eman duguna da, hots, denbora adierazten duen adizlagun batek, nolabait zehazturik baldin badator, mugatzailea behar du, eta inesiboaren kasu marka ere bai. (EGLU-I, 293. orr. eta *Euskal Gram. Lab.,* 471. orr.).

Denbora adierazteko modua dela eta, argitu dezagun, azkenik, bi bide ditugula zehaztugabeko (hasiera eta amaiera konkreturik gabeko) denbora adierazteko, biak zuzenak, batasunean lekua dutenak:

(5) a) igande arratsaldez zoin den zoragarri / Baigorriko gazteak plazan pilotari! (Xalbador, *Odolaren mintzoa*, 153)

b) ostiral gauetan lagunekin afaltzera joaten gara

3. *-ekin* soziatiboaren ordez *-z* instrumentala

-ekin eta *-z,* hurrenez hurren kasu marka soziatiboa eta instrumentala direla eta, bada nahikoa nahasmen bi horien ahozko eta idatzizko erabileran. Azken urteotan, batasunaren izenean, *-z* instrumentalaren erabilera bultzatu dugu, batzuetan egitura okerrak ere sortuz. Batzorde honen iritziz, ordea, *-z* eta *-kin* parekoak dira zenbaitetan, biak zuzen eta onargarri:

(6) a) Aizkorarekin moztu zioten burua Maria Antonietari

b) Aizkoraz moztu zioten burua

Ohar gaitezen, nolanahi ere, soziatiboa mugatua izan ohi dela, eta instrumentala ez: *aiztoarekin / aiztoz.*

Azken urteetan hedatu zaizkigun instrumentalaren erabilera okerrak aztertzean, berriz, ohartzen gara erabilera oker horiek bi iturri dituzke-

tela: lehena, batzuetan halabeharrez eta besteetan agian beharrik gabe, erdaratik asko itzultzen denez, gaztelerazko *con* preposizioaren kasuan kasuko balio eta esanahi desberdinak ez bereiztea edo kontuan ez hartzea. Honako adibide hauek bezalakoak ditugu horren lekuko:

(7) a) Athletic hirugarren doa *hogeita bi puntu(z) eta *lau positiboz

b) X bertsolaria doa lehenengo *zazpiehun puntuz

c) *horrenbeste kiloz ezin hartu aurrea

d) Gasteiz izan da, *hiru graduz, Euskal Herriko hiribururik hotzena

Adibide horietan izartxoz markatutako sintagmek instrumentalaren *-z* kasu marka daramate, baina soziatiboarena *ekin* behar litzaieke atxeki eta *hogeita bi puntu(rekin)* eta *lau positiborekin, ... zazpiehun punturekin, ... horrenbeste kilorekin, ... gerriko gorriarekin* eta *gerriko urdinarekin, hiru gradurekin* esan edo idatzi.

Bigarren iturria, EGLU-Iek, 290. orr. eta Euskal Gram. Lab. 483. orrialdean aurreratzen digutenez, bizkaierazko *-gaz* atzizki soziatiboa izan daiteke. Izan ere, "[...] nahasketa fonetikoaren bidez, jatorrizko soziatiboa (singularrean *-a(ga)z = arekin*) instrumentaltzat (singularrean *-az*) jotzen dute batzuek..." Hala nabari da ondorengo exenpluotan:

(8) a) Lasa ezker hegaletik doa **baloiaz* < *baloiagaz*

b) neuk bere egingo neuke hori **zure sasoiaz* < *sasoiagaz*

c) ehizera doa **eskopetaz* < *eskopetagaz*

Baina, bai gaztelerazko *con'* preposizioaren kasuan kasuko funtzioa ongi ez bereiztetik, bai *-gaz* atzizkiaren laburtze fonetikotik sortu bide diren erabilera okerreko sintagma horiek ez dute norbait horietaz 'baliatu dela' esan nahi, norbaitek dituela horiek baizik. Beraz, azpiegituran ukan aditza baldin bada, *-ekin* deklinabide atzizkia erabili behar da. Esate baterako, (6)(a)ko adibideak, azpiegituran, 'Lasa ezker hegaletik doa *baloia duela*' esan nahi badu, horren ordezkoa gainegituran 'Lasa ezker hegaletik doa *baloiarekin*' izango da. Eta *-ekin* soziatiboa erabili beharrean, *-z* instrumentala erabiltzen dutenek berek sendesten dute diogun hau, '... *lau positiboz*' forma erabili ondoren, '... *edo lau positibo dituela*' formula erabiltzen baitute askotan.

Eta, aitzitik, zerbait *X-z baliatuz* burutua dela adierazi nahi bada, orduan *-z* kasu marka instrumentala erabili beharko da gainegituran.

II.3. PARTITIBOAREN ERABILERAZ

Partitiboaren marka lotzen zaienean, mugabagean izan behar dute izen sintagmek. Adibidez (2)ko adibideak gaizki eratuak dira, zeren izen sintagma partitiboak artikulua baitakar ondarrean.

(1) a) Ez dut liburu garestirik erosi

b) Ez dut lanik egin

(2) a) *Ez dut liburu garestiarik erosi

b) *Ez dut lanarik egin

Mugagabean izanik, izen sintagma partitiboek ez dakarte sekula numero markarik, eta galdera egin daiteke, beraz, aditzarekilako komunztadura dela-eta, ea pluraleko marka agertaraz dezaketen adizkera jokatuan.

Erantzuna garbia da: ez. Inoiz ere ez. Izen sintagma partitiboek ez dute sekula pluraleko komunztadura sorrarazten dagokien adizkeretan. Literaturaren lekukotasuna ezin garbiago da puntu honetan, euskalki guztietan.

Azken denbora honetan, ordea, honelako erranaldiak irakur edo entzun daitezke, hain segur erdal interferentzia bati dagozkionak:

(3) *Ez dituzte gaixoak sendatzeko behar diren tresnarik

(4) *Aspaldian ez ziren entzuten horrelako hitzik

Goiko (3-4) adibideak gaizki moldatuak dira. Alabaina *tresnarik* eta *hitzik* sintagma partitiboak *dituzte* eta *entzuten ziren* aditzen osagarriak dira, eta hauek gisa hartara pluraleko marka dakarte, lehenak objektuaren indizean *(dituzte)*, bigarrenak subjektuarenean *(ziren)*. Baina komunztadura hau ez da haizu euskararen gramatikaren arauen arabera, eta, horretaz, perpaus horiek euskara txarrean emanak dira.

Bestalde *tresnarik* perpaus erlatibo baten burua izanik, perpaus horretako izen sintagma subjektuarekin guztiz lotua da, eta honek ere ezin dezake numero komunztadurarik sorraraz perpaus erlatiboko aditzaren barnean. Horregatik (5)eko adibidea, (3)koa bezala, gaizki moldatua da:

(5) *Ez dute gaixoak sendatzeko behar diren tresnarik

Partitiboa maiz eta maiz ezezkako perpausetan agertzen da euskaran. Hori ikusirik, batek uste izan dezake beharbada, ezetzak eragozten duela pluraleko komunztadura goiko adibideak bezalako perpausetan.

Ez dirudi hori horrela dela. Alabaina, baiezkako perpausetan, eta, nolabait esateko, ugaritasuna adierazten dutenean ere, ez dute pluraleko komunztadurarik ekartzen sintagma partitiboek. Horrela (6) ongi eratua delarik, (7) euskara gaiztoan da:

(6) Lagun onik ekarri duzu zurekin. (Eta jakinaren gainean mintzo naiz, gehienak ezagutzen baititut)

(7) *Lagun onik ekarri dituzu zurekin. (Eta jakinaren gainean mintzo naiz, gehienak ezagutzen baititut)

Goiko adibideetan, *lagun onik* sintagmak aipu dituen lagunek ematen diote erreferentzia ondoko perpauseko *gehienak* sintagmako izen ardatzari ezabatuari. Argi da erreferentzia hori pluralekoa dela, baina hala eta guztiz ere, bere perpausean sintagma partitiboak ezin sorrarraz dezake pluraleko komunztadurarik. Horregatik (7) adibidea ez da euskara onean, hartan *dituzu* formako numero marka lekuz kanpo dagoelako.

II.4. BERRI VS. BESTE(A) ... BAT/BATZUK

1. *Iruzkina*

Nola Administrazioko eta Komunikabideetako gaietan batez ere, halabeharrez —batzuetan beharrik gabe?—, itzulpen giroan mugitzen garen, askotan erdal testuaren edo hitz baten itzulpen bihurri eta gaiztoa egiteko arriskuan eror daiteke itzultzailea, itzulpen hori, hiztegian aurkitzen den lehen ordaina itsu-itsuan aukeratuz burutzen bada. Eta hori da, hain zuzen ere, lexiko mailan zenbait hitzekin gertatzen ari dena.

Hemen horietako biren erabilera okerra aztertu eta zuzendu nahi da, *berri* eta *garbi* izenondoena.

Komikabideetan honako esaldi hauek bezalakoak ikusten dira eta entzuten:

(1) a) bonba **berri* batek egin du eztanda

b) tanto **berri* bat egin du Titinek

c) falta **berri* bat egin diote Alkizari

d) goizean arrautza jan dut; gauean arrautza **berri* bat jango dut.

Hiru exenplu horietako *berri* izenondoak gaztelerazko *nuevo, -a* adjektiboaren ordaintzat eman nahi dira, baina euskarazkoa ez da beti erdarazkoaren baliokide egokia. *Berri* izenondoak zenbait adiera ditu:

a) *'zaharra ez'* dena, 'erabili gabea', 'lisatu' edo 'urratu gabea': 'zuhaitzetako osto berriak', 'liburu berria', 'jantzi berria'. Adiera hau da OE-Hetik jasotako adibideok erakusten digutena:

(2) Bere borondateko *bizitza* barri bategaz (Urquizu, *Liburu Virgina Santissimien errosario santuena*, 42)

(3) Errazago zala zimentuti *etxe* barri bat jasoten [...cb *zur barri ta orma barriak* egitea baño (Moguel, *Peru Abarca*, 198)

(4) Pilotari *xaharrak* / joaiten has orduko / *Berriak* dire bethi / ondotik helduko (Zalduby, *RIEV 1908*, 92)

(5) XVI garren mendean, literatura *berria* sortzearekin, hein batean gizartea legundu eta xukundu baitzen (Lf *in* Casenave-Harigile *Santa Grazi*, 9)

b) Erdarazko *'reciente', 'fresco'*-ren ordain den adiera, *orain-oraingoa*-ren baliokidea. Adibideak ugari dira euskal literaturan. Hona batzuk:

(6) Gisu *berriago* eta hobeago, nahiz esku-lanetako, nahiz laborantzako (Duvoisin, *Laborantzaco liburua*, 186)

(7) Gazta berria ekatzan. 'Un fromage *frais'* (Orixe, *Mireio*, 40)

(8) *Berriagoak* eta gaurkoagoak ere ba-genituen begien aurrean antxiñako klasiku igatu oriek baiñon ernagarriagoak (Ibiñagabeitia, *Berjiliren idazlanak osorik*, 22)

(9) Zeina [Axular, Materre,eta Etxeberri Ziburukoaren hizkuntzacb guretzat hain baita *berria* eta freskoa, nola egungoa (Etxeberri Sarakoa, 100)

(10) Hala egin behar da bada bekhatuetan, eta bekhatuzko obretan ere: *berri* direino egotzi behar dira (Axular 79s (V 53).

(11) Zor *berria* dugu euskaldunok, lehengo askoren gain, Orixerekin (Mitxelena, *Idazlan Hautatuak*, 354)

(12) Errege *barri*, lege *barri.* (*Refranes y Sentencias*, 261)

c) Maila bereko beste baten *'ordeko'* esanahiarekin:

(13) Asto *barri* bat erosi bear ebala-ta, feriara joan zan (Bilbao *Ipuin barreka*, 25)

(14) Erretore *berria* etorri zaigu herrira.

(15) Etxebizitza *berrira* aldatu gara dagoeneko.

d) Maila bereko gauzei *erantsia* eta *beste ... bat/batzuk*-en balioa duena. Aldiz, aurrekoak ez bezala, *berri*-ren erabilera honek berria, gaur-

gaurkoa dirudi eta okerra. *Orotariko Euskal Hiztegia*-n adibide bat bakarra ageri da:

(16) Piper *berri* bat olio beroaren gainean ipiñten zuten bakoitzean (Oskillaso, *Kurloiak*, 128)

Esanahi bera dute (1) (a) (b) (c) (d)-ko *berri* izenondo guziek ere.

Ohartxoa: *berriro/berriz* aditzondoak *berri* izenondotik eratorriak ditugunez, azken sail honi dagozkio esanahiaren aldetik, *beste behin* esan nahi baitute, baina, hala ere, berri oinarria dute.

2. *Ondorioak*

a) *Berri* izenondoak adiera bat baino gehiago ditu.

b) a), b) eta c)-*ko* adierak *nuevo,-a* erdal adjektiboaren ordain egokiak dira, kontestuaren arabera.

c) d)-*ko* esanahia adierazteko ezin gaitezke *berri* izenondoaz baliatu. Horregatik, (1)-eko (a), (b), (c), (d) adibideak honela eman behar dira:

(17) a) *beste* bonba *batek* egin du eztanda.

b) *beste* tanto *bat* egin du Titinek.

c) *beste* falta *bat* egin diote Alkizari.

d) ..., *beste* arraultza *bat* jango dut gauean.

Izan ere, euskaraz *bonba berria, falta berria* bezalakoak esaten badira, 'zaharrak ez direla' edo 'inoiz egin gabeak direla' esan eta ulertu ohi da. Eta ez da hori, noski, hor esan nahi dena, ez baita bonba zaharrik, paper zaharrik, falta zaharrik, e.a. Bazter dezagun, beraz, horrelako kontestuetatik *berri* izenondoa eta, horren ordez, erabili *beste(a)/beste ... bat-/beste ... batzuek,* dagokien kontestuaren arabera.

II.5. HONEZKERO / DAGOENEKO

Honezkero Parisen da (dateke, izango da..)
honezkero ez da etorriko
*honezkero ez da sinatu hitzarmena
(txarrena gainditu du eta) honezkero sendatuko da
(bi urte darama ikasten eta) honezkero badaki euskaraz
*honezkero jaiki zara, e!

Baldin guziok onartzen badugu egungo literaturan izenburuko forma horiek direla denborazko bi aditzondo horien aldaera maizkoenak —*dagoeneko*-ren hamar dakartza OEH—, pasa gaitezke beste gabe gaurko zenbait hiztuni aski zaila egiten zaien bion erabilera jatorra zein den laburki aztertzera. Euskalki guzietan bizirik ez daudenez gero eta bizirik daudenetan ere, dudamudazko erabilerak sortu direnez gero, badu garrantzia orain arteko erabilera jatorra bermatzeak.

1. *Honezkero*

Har dezagun hau lehendabizi eta ipin dezagun adibideren bat, ahalik argienerakusteko zein den perpausari ematen dion ñabardura. Demagun Anek arratsaldeko 4etan hegazkina hartu duela Sondikako aireportuan Parisa joateko eta, aita handik bi ordutara Donostiara iritsi eta, emazteari hauetako perpaus bat esaten diola:

(1) a) *honezkero* Parisen da
b) *honezkero* Parisen izango da
c) *honezkero* Parisa iritsi da
d) *honezkero* Parisa iritsiko zen
e) *honezkero* Parisa iritsia izan behar du

Bostetan ñabardura bera du aditzondoak. Zein? Aitaren *susmoa* edo *barrunda* alaba jadanik Parisen delakoa. Jakin, ez daki han denik. Ez du segurantzarik. Ez du alabak oraindik deitu esanez heldu dela, baina aitak, lehen ere Sondikan Parisa joateko hegazkina hartua delako-edo, ja-

kinik zenbat irauten duen hegaldiak, ateratzen ditu kontuak eta "susmatzen" du: *honezkero* iritsia izan behar du.

Bi hitz lehenik adizkiaz, nahiz ez den hori hemen auzitan dagoena, baizik aditzondoa. Diogun laburki Hegoaldeko usarioa direla adizki horiek. Iparraldeko batzuek oraindik bizirik baitituzte Hegoaldekoek aspaldi galdu zituzten *dateke/duke* adizkiak, horko horien ordez honako beste hauek erabiliko lituzkete haiek, baieta liburu zaharrak irakurtzen ohitua den beste edozeinek:

(2) a) *honezkero* Parisen *dateke*

b) *honezkero* Parisa iritsi *dateke*

Edo aditz iragankorraren exenplua ipini nahi izanez gero, ondoko bi lehenak Hegoaldean esango lituzkete eta hirugarrena Iparraldean:

(3) a) *honezkero* bukatu du Jonek lana

b) *honezkero* bukatuko zuen Jonek lana

c) *honezkero* bukatu duke Jonek lana.

Irakurlea ohartu da *honezkero* (hala da gure susmoa) hiru gauzaz. Bat, gazteleraz eta frantsesez futuroa erabiltzen dela horrelako susmoz eihotako perpausetan: ikus (1.b) "estará ya en Paris"/ "il sera bien à Paris"; (1.d) "habrá llegado ya a Paris"/ "il sera arrivé à Paris". Bi, aditzondoaren kidea gazteleraz "ya" izan ohi dela. Hiru, adizkiak euskaraz forma diferenteak har ditzakeela: aspektu burutua eta aspektu gerokoa, batez ere (ikus (1.a) - (1.e); ez, ordea, gerokoa gehi orainaldiko laguntzailea, presuposizio berezi batean izan ezik, laster esango dugunez:

(4) *honezkero* iritsiko da Parisa

Halaz ere, baldin susmoa bada, ez orain arte bezala, baiezko perpausez baizik ezezkoez oratua, aditz nagusia komunzki aspektu gerokoan eramaten du; eta ezin da ezezko perpausetan aspektu burutua erabili. Beraz (5.a) - (5.b) zuzenak dira, ez ordea (6.a) - (6.b):

(5) a) *honezkero* ez da etorriko

b) *honezkero* ez digu deituko

(6) a) **honezkero* ez da sinatu hitzarmena

b) **honezkero* ez da ito

Egia al da, ordea, 4.-eko adibidea bezalakorik inoiz esan ez daitekeela? Uste dugu eskuarki ezetz, baina inoiz, bai, esan daitekeela. Presuposizio kontua dela uste dugu. Hona zergatik.

Honezkero denborazko aditzondoa dela esan dugu; gutxi gorabehera honela parafrasea daiteke: 'honenbeste denbora pasa delarik', edo 'den ordua delarik', edo laburkiago 'hainbat denboran', eta ez da dudarik kontzeptu hauek aldeko edo kontrako izan daitezkeela, noiz eta nola hartzen diren. Alegia, pasa den denbora pasa izana seinale ona dela uste baduzu, esan dezakezu:

(7) a) *honezkero* bizirik aterako da

b) *honezkero* sendatuko da

c) *honezkero* iraungo du

d) *honezkero* bukatuko du

e) "Onezkero laster izango da" (Tx. Agirre, *Garoa*, 261)

Arrazoi beragatik, uste baduzu Peruk euskara ikasten edo Parisen bizitzen urte asko daramala, edo maratoiaren 40 kilometro jadanik egin dituela, edo patata berriaren garaia heldu dela, eta abar, esan ditzakezu honako perpaus hauek, adizkia orainaldi trinkoan nahiz perifrastikoan dutenak:

(8) a) *honezkero* euskaraz badaki

b) *honezkero* ongi ezagutzen du Paris

c) *honezkero* bukatuko du maratoia

d) *honezkero* salgai dago patata berria

e) *honezkero* txikitzen du enborra ordubetean.

Baina eskuarki denbora pasea, partidua galtzen aritzea, goizeko bostetan oraindik lokartu ezina, hiru ordu zain egon eta laguna ez etorria eta abar kontrako seinaletzat, kaltegarritzat, hartu ohi dira eta horregatik ezin esan izaten da:

(9) a) **honezkero* haziko da, 20 urte ditu eta

b) *19-4 galtzen ari da, *honezkero* irabaziko du

c) *honezkero loak hartuko du

d) **honezkero* etorriko da

Baina, berriro esan, ez da adizkia hemen guri axola zaiguna, baizik aditzondoa, eta honi dagokionez exenplu guzietan garbi ageri da *honezkero* aditzondoak adierazten duena dela norbaitek ziur ez dakien zerbaitez egiten duen susmoa, frogarik gabekoa; ez ordea dakien edo ikusten duen zerbaitez. Beraz okerrak dira honako perpaus hauek:

(10) a) **honezkero* jaiki zara, e!

b) *nolatan ari zara zu *honezkero* lanean?

Bere begiz ikusten duenak norbait iadanik jaiki dela edo lanean ari dela, ezin dezake honezkero erabil; horrek beste aditzondoa, dagoeneko, erabili behar du, ezinbestean.

Oharra. Aipatu bakarrik *harrezkero* eta *hor(re)taz gero*, ez baitute beste horren arazorik eta ez baitiote perpausari ñabardura berezirik ematen. Aditzondo soilak dira, lehena denborazkoa ("*harrezkero* lagun minak dira", "*harrezkero* ez dute elkarrekin hitz egiten"); bigarrena ondoriozkoa ("*hor(re)taz gero* hobe duzu etxean gelditu", "*hor(re)taz gero* itzuli dirua neri").

2. *Dagoeneko*

Dagoeneko esnatu da Txomin!

*dagoeneko esnatuko da

*dagoeneko ez zaio damutuko

goiznabarra zen dagoeneko (?)

(berriki etorri eta) dagoeneko erretxindu!

etorri al zara dagoeneko!

lasai!, dagoeneko eritetxean da eta

Norbaiti bere begiz ikusten duenak edo, bere belarriz entzuten duenak edo, arrazoi batengatik edo besteagatik, sorrarazten dion ezustekoari edo ezohizkoari zor zaion aditzondoa da *dagoeneko*. Ezusterik ez bada ez da esaten "*dagoeneko* hor dago Pello", baizik "hor dago Pello". *Dagoeneko*-k suposatzen du ez zenuela hain goiz espero. Hori batetik; bestetik egitate erreala suposatzen du, gertatua eta ikusia edo jakina; hitz batean, nolazpait frogatua, ez "susmatua" bakarrik. Horra zergatik den aspektu burutua edo puntuala horri dagokiona.

Ikus adibide batzuk: guzietan suposatzen da gertatu dena uste baino lehen edo uste ez bezala gertatu dela, eta horrek sortzen duela ezustekoa: esate baterako, beti berandu jaiki ohi den bat goizeko lauretan gosaltzen ikusteak esanarazten dizkizu ondoko hiru lehen horiek:

(11) a) *dagoeneko* esnatu da Txomin

b) *dagoeneko* jaiki da

c) *dagoeneko* gosaltzen ari da

d) *dagoeneko* hil da amona

e) *dagoeneko* atera da espetxetik

f) *dagoeneko* etxeratu da

g) *dagoeneko* aditzen da trumoia

h) *dagoeneko* badator

i) *dagoeneko* heldu dira sagarrak

j) *dagoeneko* bidean da (badakust) vs. *honezkero* bidean da (nik hala uste)

Horrenbestez ez du beste aspekturik onartzen eta ezin esan daiteke:

(12) a) **dagoeneko* esnatuko da

b) **dagoeneko* oheratuko zen

Are gutxiago onartzen ditu ezezko perpausak, eta arrazoi beragatik, errealak ez direlako:

(13) a) **dagoeneko* ez du idazten lehen bezala

b) **dagoeneko* ez zaio damutuko

c) **dagoeneko* ez daki euskaraz mintzatzen

Beste erabilera bat zabaldu zen Orixez gero batez ere, gure ustez, lehenago testigutza askorik ez zuena, eta da lehenaldi urruneko aditzarekin agertzen dena, Miranderen eta Mitxelenaren hauetan bezala, baina beste aditzondo bat, *orduko*, egokiago lukeena:

(14) a) "goizñabarra zen *dagoeneko*"

b) "hori, urte haietan, *dagoeneko* aldarrikatua zuten Altubek, Mokoroak..."

Lehen ikusi dugu *honezkero*-ren ezezko perpausek kasuistika nahasixea dutela, presuposizioa dela kausa. Bada *dagoeneko*-renek ere bai. Honen parafrasia hau dateke, izan ere, bestearen guztiz kontrakoa: ħonen denbora gutxi pasa delarik', edo ðen bezain goiz delarik'. Baina, jakina, norbaitek luzetsi dezake inon den denborarik laburrena ere, eta alderantziz ere bai. Horrela esplikatzen dira hau bezalako perpausak:

(15) a) adizu! Bi minutu bakarrik daramagu hemen eta ez zaitez *dagoeneko* erretxindu!

b) duela bost minutu ezarri diozu zigorra eta ez zaiozu *dagoeneko* barka!"

c) hasi berria da jokatzen eta, *dagoeneko* nekatu ez zaigu, bada!"

Bestalde ezusteak edo ezohiak esplika ditzake honelako sasi-galdera erretoriko hauek ere, non ez baitu galdegileak "bai" edo "ez" erantzunik espero, "jakin" nahi duena begien bistan daukanez gero:

(16) a) *dagoeneko* etorri al zara!

b) egin duzu *dagoeneko*, e!

c) *dagoeneko* hemen al duzu *Egunkaria*!

Ikus gainera presuposizioak bakarrik argi dezakeen perpaus bikote hau ere. Demagun norbait duela bost hilabete eritetxean dagoela eta denbora horri luze deritzanak honela dioela:

(17) ez dago eskubiderik; **dagoeneko* eritetxean dago

Dudarik gabe oker erabili du hor aditzondoa eta *oraindik* esan behar zukeen. Baina beste inguramen batean, ixtripu bat izan eta, baldin anbulantzi-autoak zauritua iadanik eritetxera eraman duela badakit, jo diezaieket haren etxekoei telefonoa eta esan:

(18) lasai!, *dagoeneko* eritetxean dago eta

Amaitzeko merezi du begirada bat ematea OEHri. Damurik *honezkero* ez dugu oraindik eskueran, baina *dagoeneko* bai. Hogeita hamahiru aipamen daude sarrera horren pean. Aurreko lerroetan irakatsi duguna alderik-alde birresten duela uste dugu. Hara: erdiak baino gehiago *jan ditu* bezalako moldekoak dira. Zazpi dira adizki sintetikoa orainaldian dutenak, "(hemen) gaituzu dagoeneko" bezalakoak. Beste sei dira adizkia lehenaldi urrunean dutenez gero ("hura lo zegoen... dagoeneko"), *ordu(ra)ko* hobe luketenak, *zegoeneko*-rik ez dago eta. Bi soilik, Orixerena eta Erkiagarena, ezezko perpausean erabili dutenak:

(19) a) "Ta nork uka lengorik dagoneko ez dala?" (Orixe)

b) "...*dagoaneko* ez da ori ondo" (Erkiaga)

Zenbait hiztuni, *dagoeneko* bizi osoan erabili dutenei, min ematen diete horiek belarrian. Ibinagabeitiaren beste hau nekez har daiteke ezezko perpausa bezala:

(20) "Inork ez lezake orrelakorik ez iakin *dagoneko*" (Ibiñagabeitia)

Oharra. Bi hitz hemen ere, aditzondo honen bi hitz kideri buruz. Aditzondo soilak dira eta ez dute arazorik sortzen, ezeta perpausari ñabardura berezirik eransten. Bata aipatu dugu hor goian eta esan, horrelakoetan hobe dela *orduko*, gure ustez, *dagoeneko* baino:

(21) a) *orduko* elkar ezagutzen zuten

b) *orduko* Irunen bizi zen

Baiezkoetan bakarrik, ordea; ezezkoetan, aldiz, *artean* erabiltzen baita:

(22) a) *artean* ez zuten elkar ezagutzen

b) *artean* ez zen Irunen bizi

Jakina!, erabiltzen direla diogunean esan nahi dugu biak bizirik dauden euskalkietan hala erabiltzen direla, beste euskalki batzuetan beste modu batzuek baitituzte horien esanahia adierazteko.

II.6. IRAUN, BALIO/KOSTA, LUZATU, NEURTU, PISATU...

Adizki laguntzaile iragankorrari entzun edo ikusi orduko osagarri zuzena lotzen diogu buruan ia beti, iruditzen baitzaigu hau gabe ezin daitekeela aditza iragankorra izan. Hori horrela da gehienetan, hala nola adizkiaren objektua lehenengo eta bigarrengo pertsona denean: *nau, hau, gaitu, zaitu, zaituzte*; ez, ordea, nahitaez adizkia hirugarren pertsonako singularra denean *(du)*, "esneak irakin du", "lanean ihardun du", "goizean irten du" eta horien antzeko gehiagok irakasten diguten bezala.

Hori horrela izanik, *nor-nork* sistemako aditza izateak ez du esan nahi osagarri zuzena daramala nahitaez, adizki hori *nor* sintagma dugunean bezalakoxea izan arren: *du*. Ez dira horrelako aditz guziak mota berekoak: ikus *Euskal Gramatika Laburra: Perpaus bakuna*, 206. or. Hor izenburuan aipatu ditugun aditzei lotuko gatzaizkie gu, nahiz, ikusiko dugun bezala, bospasei horiek ere ez diren mota berekoak. Baina azken urte hauetan oker erabiltzen hasi da jende askotxo eta merezi du hitz bi egitea.

1. ***Iraun***

hamar ordu iraun du bizirik
*hamar ordu iraun ditu bizirik

Itxuraz nor sintagma duten aditzetako bat da hau, baina itxuraz bakarrik da hori *nor* sintagma. Baldin itxuraz bakarrik bada eta osagarri zuzena dirudiena egiaz ez bada, aditzak ez du, nahiz eta plurala izan, pluraleko komunztadurarik beharko. Hori horrela al da? Perpaus hauen adizkia zein da, *du* ala ditu?:

(1) a) *hamar ordu* iraun du/*ditu bizirik

b) *hogei egun* iraun zuen/*zituen jan gabe

c) *urteak eta urteak* iraun du/*ditu erdi hilik

Konpara ditzagun beste hauekin:

(2) a) *hamar ordu* egon da bizirik

b) *hogei egun* egon zan jan gabe

c) *urteak eta urteak* egon da erdi hilik

Ezer aldatu ez eta, *iraun* iragankorra gabe *egon* iragangaitza ibili ahal izateak usain txarra ematen dio: *hamar ordu, hogei egun, urteak eta urteak* osagarri zuzena ote dira gero?

Bestalde *erosi, eraman, konpondu* eta beste edozein aditz iragankorri egin diezaiokezu *zer*? galdera: *zer erosi duzu?, zer eraman du?, zer konpondu zuen?*, aditz iragankorrak izan eta osagarri zuzena dutelako. Aldiz *iraun*-i ez; honi egin diezaiokezun galdera bakarra da: *zenbat?*.

Beste iragankor omen diren horiei ere egin dakieke *zenbat* galdera, esango du norbaitek agian: *hiru liburu erosi ditut*, eta *zenbat liburu erosi dituzu?*. Bai, hala da; hauei *zer?* galderaz gain *zenbat?* ERE egin dakieke, baina *iraun*-i, *zenbat?* baizik ezin egin dakioke.

Beraz sasi-objektuak dira osagarri zuzenak diruditen horiek eta ez da horiekin pluraleko komuztadurarik egin behar. Bestela esan, (1.a) (1.-c) adibide haiek honela esan behar dira:

(3) a) hamar ordu iraun *du* bizirik

b) hogei egun iraun *zuen* jan gabe

c) urteak eta urteak iraun *du* erdi hilik

Diogun, esanaren sendogarri, Axularrek *iraun* darabilen hemeretzi aldietatik behin bakarrik ezartzen diola konplementu gisa *zenbat iraun* esan nahi duen izen sintagma bat; gainerako guzietan "noiz arte iraun" ("iguzkia sar arteiño", 181), edo "non iraun" ("nahi baduzu iraun trabailuan", 318) edo horien antzekoren bat ipintzen du. Baina "nahi duen bezanbat iraun" ere badio (76), eta horrenbestez zabalik uzten du "zenbat iraun"-eko konplementua ere erabiltzeko atea. Eta badarabil, berriro esan; behin, halere; eta ez guk bezala kasu absolutiboan, osagarri zuzena dela dirudien horretan, baizik kasu instrumentalean:

(4) "egoitza hartan iraun baitzuen *bi urthez"* (Axular, *Gero,* 125)

Horren ondoan ez da harritzeko aditz honek batzuetan osagarria inesiboan ere eramaten badu:

(5) a) "Zenbait denboran iraun zuan..." (Ubillos, *Kristau dotriñ berri-ekarlea*)

b) "Finerainokoan iraun behar du..." (Baratziart, *Meditazione ttipiak*)

c) "Egun bittan iraun eban..." (Etxeita, *Josetxo*)

2. *Balio*

lau milioi balio du/ditu etxeak
milioiA balio du
milioiAK balio ditu
balio DU vs. kosta ZAIO

a) Balio

Esan al daiteke beste horrenbeste *balio* aditzari buruz?: *nor* sintagma dirudiena ez dela halakoa; aditz honek ez duela osagarri zuzenik; aditzak ez duela pluraleko komunztadurarik egin behar, nahiz osagarri zuzena dirudiena plurala izan; "zer balio" ez, "zenbat balio" galdetzen dela, eta abar? Kontuak ez daude EGLU-n uste genuen bezain garbi. Zein da biotarik adizki zuzena?

(1) a) zenbat miloi balio *du/ditu* zuen etxeak?

b) lau milioi balio *du/ditu* autoak

c) baso horrek ehunka milioi balio *du/ditu*

Gramatikak eta gramatikariak bide batetik dabiltza eta askoren egunoroko aztura bestetik. Jende askotxori esanarazi dizkiogu egunotan *balio* aditza zuten perpausak; ez itzularazi, baizik bere gisa esanarazi. Ondorio honetara heldu gara: badira oraindik singularraz baliatzen direnak, baina hiztun askok eta askok pluraleko komunztadura erabiltzen dute: gazteleraz jantziago eta gehiago, adinez gordinago eta maizago.

Pluraleko komunztadura ere egiteko ohitura hau, gainera, oso zaharra da, dirudienez. Aski dugu eskuetan OEH hartzea eta BALIO IZAN sarrerapean agertzen diren ehun eta berrogeita hamabi-hamahiru aipamenak aztertzea; ohartuko gara guri axola zaizkigun hamar-edo adibideak —gehienek ez baitute zenbatzailea gehi izena duen konplementurik— oso bereiz dabiltzala. Ikus:

(2) a) "Dineroazenmoneda motabathamalaur ardit Franziakorik balio *zituenik* (Leiz., Decl â 2v)

b) "Damaseko urek balio ahal *dituzte* Israelgo ur guziak" (Larregi, I 371)

c) "Argatik esaten da / buru batek milla / balio *dituela* / baldin bada abilla" (Iturriaga, *Fabulak*, 102)

d) "Dardanburu semea ez da itsasoko / Bainan balio ditu guziak lurreko" (Hiribarren, *Eskaldunak*, 2981. lerroa)

e) "Talentu bakoitzak 31.680 erreal bezalatsu balio *zituen* (Lardizabal, 434)

f) "Orrek diruak balio *ditu* Franzian" (Etxaide, *Joanak joan*, 41)

Sei horietan, ikusten denez, adizkiak bere pluralgilea du. Egia esan, (2.c) eta (2.d) "metri causa" izan daitezke eta (2.f) berriz, izena mugatu plural duena da. Ikus beste lau hauek ere:

(3) a) "Borz zorziko baliyo *dubela*" (I. Sarasola, "Contribución al estudio y edición..."; *ASJU*, 1983, 5.2.9.)

b) "Zazpira sos balio dina saltzen beitü hamabia" (Etchaun, 306)

c) "Azkenean balio izaten *dabe* ...bost eun bana erreal ta geiago" (Iztueta, *Guipuzcoaco Provinciaren Condaira edo Historia*, 152)

d) "Ogeita amar diru oiek... oraingo irurogei erreal balio *zuten*" (Lardizabal, 437)

Horiek horrela direla, ze arau eman? Biak onartu behar direla uste dugu; gehienez ere —eta beharbada hau ere ez— singularra gomendatuz. Lege seguru bat bada, haatik: konplementua mugatua denekoa. Ez da dudarik hauek honela esan behar direla:

(4) a) duroa (pezeta, erreala, libera bat) balio du

b) baso horrek miloiak balio ditu

b) **kosta**

Beste zerbait esan behar da aditz hori dela eta. Ez dirudi erraza, baina badira egungo egunean aditz hori, *balio* alegia, eta *kosta* elkarrekin nahasten dituztenak. Honako bi perpaus hauek taiutu zituztenek, esate baterako. Bata entzuna da eta bestea irakurria:

(5) a) *zenbat kosta dezakeen jakin nahi dut

b) *1500 miloi balio dizkigu

Balio-ren ordez *kosta* erabili zuen lehenak eta *kosta*-ren ordez *balio* bigarrenak. Lehenak aski zuen *balio* esatea; izan ere, honi, eta ez inondik ere *kosta*-ri, dagokion adizkia erabili zuen. Zeren, batetik, bi aditz horiek bi esanahi desberdin dituzte eta bestetik kosta aditz iragangaitza da, maizenik nor-nori sisteman erabiltzen duguna; *balio*, berriz, nor-nork sistemakoa, ikusi dugun bezala, eta osagarri zuzenik ez duena; beraz **balio dizkigu ez, balio digu* esan beharko zuen gehienez ere.

Bestela esan, *balio DU* esan ohi dugu, baina *kosta ZAIO*. Beraz bi hauek bi gauza desberdin dira eta biak zuzenak, noski:

(6) a) zenbat miloi balio *duen* galdetu diot

b) berari hamar miloi kosta *zaiola* esan dit

Aldiz hor goiko (5.a) - (5..b) horiek okerrak dira biak, eta horrela esan behar ziren:

(7) a) zenbat *balio* dezakeen jakin nahi dut

b) 1500 milioi *kosta* zaigu

OHARRA: Ikus gero hegoaldekoen "merezi du festara joatea" bezalakoaren ordez iparraldekoek darabilten "balio du" (*Batasunerako Gomendioak* atalean).

3. **Luzatu**

amak luzatu dizkio galtzak
bost metro luzatu du katea
ordubete luzatu ditu hitzaldiak

Ezin esan daiteke hau lehengo beste bi aditzak bezalakoa dela. Inondik ez. Hau iragankorra izateaz gain, osagarri zuzena eraman dezakeen eta maiz eramaten duena da, lehengo beste biak ez bezala:

(1) a) amak luzatu dizkio galtzak
b) gose-greba luzatzea erabaki dute

Badute halere puntu batean antza: *zenbat* luzatu galdera eransten zaionean. Orduan honela esan behar da:

(2) a) bost metro luzatu du katea
b) hamar minutu luzatu ditu hitzaldiak

Biotan *katea* eta *hitzaldiak* dira osagarri zuzenak edo nor sintagmak eta horiekin dute komunztadura adizkiek, ez *bost metro*-rekin eta *hamar metro*-rekin. Hori garbi ikusten da (2.a)-n: *bost metro* izanagatik *du* baita adizkia.

4. **Neurtu**

tunelak berrehun metro neurtzen du/ditu (?)
erraldoiak bi metro neurtzen du/ditu (?)

Galde-zeinua ezarri diegu bi perpausei. Aurki ikusiko da zergatik. Aditz honek ere bi lehenbizikoekin baino antz handiagoa du hirugarrenarekin, *luzatu*-rekin. Beti neur baitaiteke zerbait, luzatu bezalaxe. Orain arte bere indarrak neurtzen zituen batek bestearekin:

(1) "Naiago zukean...bereindarrak aitarekin baño beste edozeñekin neurtu" (Tx. Agirre, *Garoa*, 54. or.).

Orain aldiz jokalariak berak neurtzen dira:

(2) Aizkolariak Tolosako zezen-plazan neurtuko dira

Lehen jertsea egiteko-edo hartzen zizkiguten "neurriak". Agintariek ere hartzen zituzten beren "neurriak", uholdeek kalte handirik egin ez zezaten. Baina bi erabilera horietaz gainera, badugu beste bat gaztelerak kutsaturik, edo ez, egunoroko hizkeran maiz erabiltzen duguna batek ze neurri duen, edo dituen, jakiteko. Alegia,

(3) a) Zenbat neurtzen duzu?

b) Zenbat metro neurtzen du/ditu makila honek?

c) Metro eta erdi neurtzen du

Honela ere galdegin daiteke hori, noski:

(4) a) Ze neurri ditu horrek?

b) Zein da makila horren neurria?

Nolanahi ere, esan behar da aski berria dirudiela hor goiko (3.a) - (3.b) galde-perpaus horrek. Ezen *neurtu* partizipioak OEH-n dituen 150 sarrerak banaka aztertzen baditugu, ohartuko gara guziak, batere salbuespenik gabe, honelakoak direla: 'norbaitek zerbait neurtu' edo, gauza bera dena, 'zerbait neurtu da' (norbaitek neurtu duela esateko); ez, ordea, alerik ere tankera honetakorik: 'halakok hainbeste neurtzen du'.

Hiruzpalau egitura izan ditu euskarak zerbaiten neurriak zein diren esateko:

(5) a) enbor hau bi metro luze/zabal da

b) soro hau ehun metro da luzean/zabalean

c) soro honek ehun metro ditu luzean/zabalean

Edota soil-soilik:

(6) a) mutil au metro bat exkax da

b) tunelak berrehun metro ditu

Horien arabera eta *zenbat handi egin behar duzu?* egunoro haur bati esaten diogunez gero, honela egin izan da galde eskuarki zerbaiten handi-txikia, luze-laburra edo estu-zabala jakin nahi zenean:

(7) a) zenbat luze (zabal, handi) da hori?

b) zenbat zara luzean (zabalean)?

c) ze zabalera (luzera) du horrek?

d) zenbateko zabalera du pilotalekuak?

Edota orokorki:

(8) ze neurri du?

Hona Txomin Agirreren perpaus hauek *Garoa*-tik hartuak:

(9) a) "Ura zan gizona,ura! Zazpi oin ta erdi,bai" ("zen luzean", alegia) (Tx. Agirre, *Garoa*, 41. or.)

b) "Etzan txabola zazpi oin zabal, amarez luze, goruntz ez zituan zortzi" (Tx. Agirre, *Garoa*)

Ohar, azken hitz horietan bi egitura ditugula:

(10) a) zazpi (hamar) oin zabal da

b) zortzi oin ditu goruntz

Guk (5)-eko adibideetan bildu ditugun hiruretatik bi, hain zuzen. Ikus honako beste hauek ere:

(11) a) "neurtu zenbat metro luze dan!" (I. Munita)

b) "380 metro luze zan eta 290 metro zabal" (A. Anabitarte)

Halere, berriro esan, euskaldun asko dira egungo egunean honelako perpausek belarrian minik ematen ez dienik:

(12) a) erraldoiak hiru metro neurtzen zituen

b) eliz-dorreak hirurogei metro neurtzen ditu

c) ñaño horrek ez du metro bat neurtzen

d) trenbideko zubiak 80 metro neurtzen ditu

Areago, badirudi zientzia-ikaslan nahiz ikerlanetan aritzen direnek *neurtu* inpertsonal horren beharra somatzen dutela, adibidez angelu baten neurria zein den adierazteko. Nolanahi ere halakoei komeni zaie jakitea inguruko hizkuntzek ere, gaztelera salbu, ez dutela *neurtu* esan nahi duen aditz inpertsonalik eta honelatsuko perpausez baliatzen direla:

(13) a) ze neurri du/ditu angelu honek?

b) zein da angelu honen neurria?

Halaz ere gai hori hobeki aztertu eta txosten bat presta dezaten eskatu diegu zientzia munduko aditu batzuei. Leioako biltzarrean, bi txosten aurkeztu ziren gai honetaz, eta bietan argi ikusi zen ez dela *bi metro neurtzen ditu* bezalako egituren beharrik.

5. **Pisatu**

zenbat pisatzen duk?
laurogei kilo pisatzen dinat
laurogei kilo pisatzen dizkinat

Norbaiten edo zerbaiten pisua adierazteko ez du euskarak neurria adierazteko duela oraintxe ikusi dugun bezalako egiturarik. Ez da esaten, alegia, **Zenbat haiz astunean?*, lehen *Zenbat haiz luzean?* esaten dela ikusi dugun bezala. Agian arrazoi horrexegatik lehen zalantzakotzat eman dugun *Zenbat neurtzen duk?*-en parekoa ongi esana dago pisatu aditzarekin: *Zenbat pisatzen duk?*. Beraz hona nola egiten den galdera:

(1) a) zenbat pisatzen duk?

b) ze pisu duk?

Ohar halere *zenbat haiz astunean?* esaten ez bada ere, bai, ordea, *astunean* esan gabe, testu inguruak erakusten baitio entzuleari pisuaz ari dela. Hona Txomin Agirreren hauek:

(2) a) "zazpi arroa bazan bakoitza" (Tx. Agirre, *Garoa*, 54.or.)

b) "badira amalau libra gutxienez (oilaskoak)" (Tx. Agirre, *Garoa*, 99. or.)

Hor goian esanak irakasten digu *pisatu* erabil daitekeela "hark hura" pisatu duela esateko, bai eta inork nolako pisua duen adierazteko ere, eta horrenbestez biok esan daitezkeela:

(3) a) etxeko andreak oilaskoa pisatu du

b) oilaskoak bost kilo pisatzen ditu/du

Adizkiari dagokionez, izan ere, komunztadura egitea edo ez egitea, *ditu/du*, aukerakoa da, ez beharrezkoa, horko (2.b) horretan bezala. OEHn bi eratako exenpluak aurkitzen ditugu:

(4) a) zerriak pisatu izan ziola ogei ta lau arroba

b) eun bana erralde ta geiago pisatu izan dutenak

c) ezurrak pisatu omen zuten amazazpi erralde

d) "ozta ozta pisatzen du larogei ta bi edo iru libra" (Iztueta)

e) "len eun kilo pisatzen zuen, orain ezta sei arrua" (Txirrita)

Baina horien ondoan beste hauek ere bai:

(5) a) ogei ta amar ontza pisatu zituan

b) bost umeak pisatu izan zituzten amabostna arroba

c) laurogei libra sebo pisatu dituena

d) "Ogeita amar ontza pisatu zituan" (Urruzuno)

Halaz eta guztiz ere, ikasleei gauzak ez gehiegi zailtzeko, iruditzen zaigu *iraun*-ek adizkia singularrean daraman bezala ("bost ordu iraun du"), *pisatu*-ren kasuan ere singularra gomendatzea hobe dela.

II.7. *EHUN PEZETATAN GARESTITU

zenbatean erosi duzu?

*zenbatean garestitu da?

zenbat garestitu da?

patata bost pezeta merkatu da

patatak hiru pezeta garestitu dira

Ez da gauza berri handirik perpaus honetaz esateko. Izartxoa ipini diogu aurretik izenburukoari; beraz garbi dago txartzat ematen dugula. Elkarren antzeko diruditen aditzak ez dira beti halakoak eta errekzio desberdina izan dezakete. Hala nola, galdera-erantzun hauek ongi daude:

(1) a) *-zenbatean* erosi/saldu duzu?

b) *-hiru miloitan* saldu/erosi dut

Baina *garestitu* eta *merkatu* ez dira horiek bezalakoak, eta hori bistan dago. Ez du inork galdegiten horrela:

(2) a) **zenbatean* garestitu da?

b) **zenbatean* merkatu da?

Guziek honela galdegiten dute:

(3) a) *zenbat* garestitu da?

b) *zenbat* merkatu da?

Beraz hauek dira perpaus zuzenak: lehenbiziko laurak adizki iragangaitza dutenak eta beste laurak iragankorra dutenak:

(5) a) okela bost libera garestitu da

b) oilaskoak libera bat merkatu dira

c) antzarra ehun pezeta garestitu da

d) patatak pezeta bat merkatu dira

e) patata bost pezeta garestitu da

(6) a) ogia hamar pezeta garestitu du okinak

b) gobernuek zazpi pezeta garestitu dute gasolina

c) gure nekazariakpatatak hiru pezetamerkatu ditu

d) zerk garestitu du bost duro tabakoa?

Hor garbi ageri da —ikus goian II.-an esana— bi aditz hauek ere osagarri zuzena izan dezaketela, noski, baina hori garestitzen edo merkatzen den gauza dela, ez garestitzen edo merkatzen den kantitatea edo diru-kopurua; *ez bost duro, adibidez*, azken exenplu horretan, baizik *tabakoa*, eta horregatik dagoela adizkia pluralgilerik gabe. Alegia,

(6) a) -zenbat garestitu du gobernuak gasolina?

b) -bi pezeta garestitu du

c) -*bi pezeta garestitu ditu

OEH-ko bi aditzon sarrerek ez dakarte batere exenplurik beren errejimena argitzen digutenik; esan nahi baita, *zenbat* ala *zenbatean* behar duen erakusten digunik.

II.8. *EZ DAUKAZU ZERTAN NEGAR EGIN BEHARRIK

ez duzu zertan nigar egin
ez duzu nigar egin beharrik
ez duzu zer etorri gurekin
ez duzu zertan etorri gurekin
ez duzu zergatik etorri gurekin
ez duzu gurekin etorri beharrik

Txosten honi hasiera ematerakoan, hara non irakurtzen dugun gaurko egunkari batean izenburuko horren guztiz antzeko beste hau: *"ez dutela zertan planteamendu guztietan bat etorri beharrik"*. Ikus dezagun lehenik zer dioen *Euskal Gramatika Laburra*-k horrelako esapideei buruz. Aditzoinaren erabileraz (223. or.) ari dela sartzen du horiei buruzko dotrina *Perpaus txertatuetan* deritzan titulupean. Hauxe dio: aditzoina ekialdeko euskalkietan sarri agertzen omen da zehar galderetan, adizki laguntzailea isiltzen denean. Hala nola,

(1) a) ez dakit nondik sar
b) dudan nago zuri sal edo hari eskain
c) badakigu non har
d) badugu, horrenbestez, zer pentsa eta zertaz grina

Aditzoina gabe partizipioa erabil omen daiteke, baita artikulua erantsia duela ere, eta are partitiboa erantsia duela ere bai. Ikus

(2) a) badugu guk nondik hasi
b) badugu guk zer esana
c) badugu guk zer esanik

Honaino *Euskal Gramatika Laburra*. Axularrek partitiboa darabil beti, dozena erdi bat aldiz:

(3) a) "eztu bitartean zer etsiturik, eztu zer esperantza galdurik" (Axular, *Gero*, 131)
b) "ezta beraz zer gehiago igurikirik" (Axular, *Gero*, 78) c. "ezta zer fidaturik" (Axular, *Gero*, 139)

Horrelako perpaus txertatu aditzoina-edo dutenak nahi adina aurki daitezke literaturan. Har ditzagun Iparraldeko eta Hegoaldeko exenplu batzuk, eta horretarako onena izango dugu Ebangelioko testu bera batzuek eta besteek nola itzultzen duten ikustea: San Mateoren Ebanjelioko pasarte hura, "Filius autem hominis non habet ubi caput reclinet" (VIII,20).

(4) a) "eztik non bere burua reposa dezan" (Leizarraga)

b) "ez du non burua pausa" (Haraneder)

c) "ez du ordean non etzan burua" (Duvoisin)

d) "ez du nun pausa burua" (Lapurdiko, 1828)

e) "burua non ezarri ez du" (Olabide)

f) "ez du burua non ezarri" (Elizen arteko...)

g) "ez du burua non etzanik" (Idatz)

h) "ez du burua nun etzanik" (Olariaga)

Hona Hegoaldeko beste bi idazleren beste adibide batzuk. Lehenik Fray Bartolomeren *Euskal errijetako olgeeta*-tik harturiko hauek:

(5) a) "ez dabee...topau...dantzara nokeruan" (Fray Bartolome, 59. or.)

b) "dantzagaldubak nok zaintu asko daukeez" (Fray Bartolome, 45.or.)

Hauek berriz *Garoa*-tik harturiko bihiak dira eta lehena Fray Bartolomeren bi horien oso antzekoa:

(6) a) "izan zuan nork entzuna ugari" (Tx. Agirre, *Garoa*, 118.or.)

b) "bertan daukagu emen zer jana ta non lan egiña" (Tx. Agirre, *Garoa*, 119.or.)

c) "nork zainturik ez du euki ta" (Tx. Agirre, *Garoa*, 202. or.)

d) "etxean zeukan nori begiratu" (Tx. Agirre, *Garoa*, 135. or.)

e) "ia zer janik ez daukagu" (Tx. Agirre, *Garoa*, 203. or.)

f) "nun erosia badugu" (Tx. Agirre, *Garoa*, 260. or.)

Horiek guziak puntu batean bakarrik bereizten dira, ea zein erabili, aditzoina ala partizipio burutua, eta hau mugatzaileaz ala partitiboaz. Baina puntu nagusian bat datoz guziak eta horregatik ez dute arazorik sortzen: alegia, galde-hitza beti ondoko aditzaren argumentuari ongi da-

torkio. Esan nahi baita, azken sei exenpluak hartzen baditugu, "NORK entzun-", "ZER jan eta NON lan egin-", "NORK zaintu-", "ZERI begiratu", "ZER jan" eta "NUN erosi", aditzari dagokion argumentua du bakoitzak.

Katramila sortzen da galde-hitza aditzaren argumentu zuzena ez denean; nahiago bada, galde-hitzaren funtzioa eta aditzaren argumentua elkarrekin ongi ezkontzen ez direnean. Adibidez, hauek bezalako bi osagai *—nigar egin? zergatik?—* norbaitek zehar galderazko perpaus txertatu bihurtu nahi dituenean, egitura honen arabera: *da/du + galde-hitza + aditzoina/partizipioa*, hor goiko (2) -(6)ko exenplu guziek egitura hori baitute bere baitan. Edo beste bikote hau: *gurekin etorri? zergatik edo zertako?* Nola esan behar da? Zer kasu marka zor zaio orduan galde-hitzari?

Nola esan behar ez den behintzat badakigu, tituluan esana dagoen moduan: **ez daukazu zertan nigar egin beharrik.* Bistan da hori (edo horren antzeko bestea) dioenak buruan dituen bi molde hauek elkarrekin urtu eta irabiatu dituela:

(7) a) ez daukazu nigar egin beharrik

b) ez daukazu zertan nigar egin

eta bi molde hauek nahasturik sorturiko iratxoak ez duela funtsik ez tradiziorik; eta horrenbestez bere osoan txartzat ematekoa dela. Alegia, *beharrik* esaten bada, *zertan* kendu behar da, edota alderantziz.

Banaka harturik lehena erabat zuzena da eta euskalki guzietakoa; bigarrena ere zuzena, nahiz ez euskalki guzietakoa, eta hori sinesteko aski da Fray Bartolomeren lehen aipatu liburuko hiru esaldi eta Juan Jose Mogelen *Baserritaar jakitunaren* deritzaneko beste hiru irakurtzea:

(8) a) "ez dauka inok zetan pensau estubak gariala" (Fray Bartolome, *Euskal Errijeetako...*, 63)

b) "ez da bada zetan esan..." (Fray Bartolome, *Euskal Errijeetako...*, 105,108)

c) "ez dauka inok zetan buruba kansau..." (Fray Bartolome, *Euskal Errijeetako...*, 107)

(9) a) "ez dago zetan esan zelakuak oi diran..." (J.J. Mogel, *Baserritar jakitunaren...*, 91.or)

b) "ez da zetan arritu..." (J.J. Mogel, *Baserritar jakitunaren...*, 103)

c) "ez da zetan amesik egin..." (J.J. Mogel, *Baserritar jakitunaren...*, 104)

Bestalde azken Bertsolari Txapelketan Lizasori honako bertso hau entzun genion, aurreko sei horietan ez bezala partitiboa zerabilela:

(10) "Telebistari ez dago zertan / itxirik bere bideak".

Ez da dudarik zer esan nahi duten perpaus horiek, testu inguruei ongi begiratuz gero. Har dezagun Fray Bartolomeren hura: "ez dauka inok zetan pensau estubak gariala". Ez du esan nahi inola ere "inork ez daukala buruan *ezer, hartan* pentsatzeko", burua pentsamenduz eta gogoetaz erabat hutsik daukalako, edo pentsatzen ez dakielako. Hala izatekotan ondoko perpaus konpletibo *estubak gariala* alferrik legoke. Hau esan nahi du: ez duela hori pentsatu behar, ez duela arrazoirik hori pentsatzeko, ez zaiola zilegi hori pentsatzea. Euskaraz dakienarentzat, izan ere, biok desberdin dira, batean eta bestean *zertan* bi funtzio desberdin betetzen ari denez gero:

(11) a) ez du *zertan* jardun

b) ez du *zertan* jardun gaizki esaka

Lehenean *zertan* ondoko aditz jardun-en argumentu zuzena da, inesiboa eskatzen baitu, besteak beste; bigarrenean, aldiz, gaizki esaka da aditzaren argumentua —"otoika, irrika, keinuka jardun"— eta *zertan*, berriz, Fray Bartolomeren perpausa parafraseatzean esan duguna: 'ez du gaizki esaka jardun behar', 'ez du arrazoirik gaizki esaka jarduteko', eta abar.

Horko exenplu horiek Fray Bartolomeren eta Mogelen eta Lizaso azpeitiarrarenak izateak esku ematen bide digute susmatzeko mendebaleko joera dela galde-hitza inesiboko forma horretan, *ze(r)tan*, erabiltzea, gainerako euskalkietakoak zer absolutiboaz baliatzen diren bitartean.

Etxeparek adibide bat bakarrik du:

(12) "ezta heben zer duda" (Etxepare, III,26)

Hemen ere 'ez da duda behar', 'ez da arrazoirik dudatzeko', lehengoen esanahi berarekin esana. Mendiburuk balio bereko asko ditu:

(13) a) "ez da zuk zer erantzun; ekusten dugun gauza da" (Mendiburu, 72. or.)

b) "ez da zuek zer penatu" (Mendiburu, 109. or.)

c) "ez zutela gizoni zer begiratu" (Mendiburu, 133. or.)

d) "ez da zer nere haurragatik horrenbat neke zuk hartu" (Mendiburu, 186. or.)

Ikus Beizamako Otaegiren hauek ere:

(14) a) "ez zenduten zer ibili zabiltzaten bezala" (Otaegi, 307. or.)

b) "ez da zer zu haserratu" (Otaegi, 412. or.)

c) "ez dugu zer bildur izan" (Otaegi, 417. or.)

d) "badegu zergatik negar egin" (Otaegi, 236. or.)

Eta batzuek egunoroko hizkuntzan diotena, mendeko perpaus txertatua, *eskerrak eman*, isildurik:

(15) - Eskerrik asko

Ez da zergatik (Iparraldean "Ez da zeren")

Eta azkenik *Garoa*-tik harturiko exenplu nahasi xamar hau, non itxuraz baiezko perpausa dena ezezkoaren pareko baita, hasieran galderazko *Zer zeukan?* duelako:

(16) "Zer zeukan zer joan or barrura...?" (Tx. Agirre, *Garoa*, 116.or.)

"Ez zeukan zer joan(ik)", alegia. Hor goian *zertan* formaz esan duguna errepikatu behar dugu orain *zer* honetaz, izan ere: ondoko bi perpaus hauetan bi funtzio desberdin betetzen ari dela, han esan bezala:

(17) a) ez du zer egin

b) ez du zer egin besteri dagokion lana

Lehenean *zer* berez eta jatorriz *egin*-en osagarri zuzena da, nahiz gero *zer egin* izen bihurtu eta lexikalizatu den, eta hainbestez osagarri zuzenik ezin izan, bera delarik *du*-ren osagarri zuzen; bigarrenean, aldiz, *egin*-en osagarri zuzena "besteri dagokion lana" da eta zer kausazko balioz jazten da gehienetan, eta euskaraz dakienak hor "zergatik"-edo somatzen du.

Hori inon baino hobeki ageri da Mendibururen lehen adibidean: (13.a). Lehen perpausa soilik irakurriak pentsaraz liezaioke norbaiti —zentzua bortxatuz, baina tira!—, 'ez duzu esanari ihardukitzeko argudiorik'-edo esan nahiko duela agian, baina bigarren perpausak —"ekusten dugun gauza da"— uxatzen du interpretazio hori: "zure erantzunaren beharrik ez dugu" esan nahi du inongo dudarik gabe.

Irakurlea ohartu da apika gauza batez: ia exenplu guziak ezezkoak direla. Guri axola zaizkigun azken bederatzi edo hamar zenbakietakoen artean baiezko salbuespen bat bakarra dugu: (14.d), eta ohar gainera, galde-hitzaren forma ere orainarte ikusitakoek ez bezalakoa duela: "badegu *zergatik* negar egin". Iparraldeko zeren tonikoa *zergatik* horren pa-

rekoa dela jakinik, horren antzekotzat, nahiz ezezkoa izan, jo behar da Hiribarrenen *Ezkaldunak* poemako honako hau:

(17) "Ezda zeren beiratu bethi partilerat" (Hiribarren, *Ezkaldunak*, 4298)

Horrenbestez lau modu ditugu izenburukoa bezalako perpausak euskaraz antolatzeko: hiru, galde-hitza kasu-marka diferentez hornitua dutenak, eta bestea, galde-hitzik gabekoa. Hona laurak:

(18) a) ez duzu zer nigar egin

b) ez duzu zertan nigar egin

c) ez duzu zergatik nigar egin

d) ez duzu nigar egin beharrik

Azken hau galde-hitzik gabea eta euskaldun guziona, segurki. Hauen antzeko mila asma daitezke, eta zer forma baita aditzaren, batez ere iragangaitzaren, argumentutik urrutiena gelditzen dena, hona argumentu hori duten zenbait exenplu, aditza iragangaitza zein iragankorra dela. Zer esanik ez, goian aitortu bezala eta Axularren baieta Lizasoren exenpluetan ikusi bezala, partizipio burutu hori forma partitiboan ere ipin daitekeela:

(19) a) ez duzu etxean zer gelditu/-rik

b) ez du zer egon/-ik egun osoan bakarrik

c) ez duzu hainbeste ordu lanean zer aritu/-rik

d) ez duzue zer erosi/-rik guri autorik

e) ez duzu zer hustu/-rik zahagia

f) ez da zer hartu/-rik zuk nigatik hainbat neke

g) ez zen zer xahutu/-rik hainbeste diru

II.9. BAITA ERE / EZTA ERE

..... , baita zuek ere
..... , baita ere zuek
Ni gaur. - Eta zu? - *Gaur ere
Ni gaur. - Eta zu? - Ni ere gaur
Ni ondo. - Eta zu? - *Ondo ere
Ni ondo. - Eta zu? - Ni ere ondo
Gu goian. - Eta zuek? - *Goian ere
Gu goian. - Eta zuek? - Gu ere goian
..... , *zuek baita ere
..... , *zuek ere baita
..... , *etorri zenean baita ere
Jango luke... baita harria ere
Badaki, baita txinoa ere

Gai honetaz guk dakigun gehiena *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-III*an eta Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-IVan esana dago eta ez dugu hemen gauza berririk esango. Bai, ordea, erabilera zuzenak eta okerrak laburki bilduko, esplikazio luzerik eman gabe, aipatu liburuetan hauek emanak baitaude. Labur zurrean baiezko formak bakarrik erabiliko ditugu, baina diogun guziak *ez eta ere*-rentzat ere balio du. Eman dezagun Ainhoak perpaus hau dioela:

(1) Manuk atzo Bilbon autoa erosi nahi zuen

Hori entzun eta Lidek modu hauetara osa lezake Ainhoak esana:

(2) a) eta Jonek ere *bai* / eta Jonek ere *erosi nahi zuen*

b) eta iaz ere *bai* / eta iaz ere erosi *nahi zuen*

c) eta motoa ere *bai* / eta motoa ere *erosi nahi zuen*

d) eta erosi ere *bai* / eta erosi ere *zuen*

Aukeran daude ezkerrekoak eta eskuinekoak; biak erabil daitezke; alegia, aditza kendu nahi bada, *bai* (edo *ez*) ipini behar. (Honela ere bai, noski: "eta Jonek ere bai, erosi nahi zuen", eta abar, koordinazioko bigarren perpausaren baiezkotasuna azpimarratzeko, baina ez gara horre-

taz ari). Badira halere "Jonek ere", *bai* gabe, diotenak; horiek berok, ordea, ezezkakoan "Jonek ere ez" esan behar dute, eta esaten dute ezinbestean.

Beste modu hauetara ere osa zitzakeen, *bai/ez* juntagailuaren ondoan ezarriz:

(3) a) eta *bai* Jonek ere
b) eta *bai* iaz ere
c) eta *bai* motoa ere
d) eta *bai* erosi ere

Honela ere bai, juntagailua eta *bai/ez* trukatuz gero, grafia gorabehera:

(4) a) *Bai*(e)ta Jonek ere
b *Bai*(e)ta iaz ere
c) *Bai*(e)ta motoa ere
d) *Bai*(e)ta erosi ere

Ere aurreratuz gero, honela ere bai:

(5) a) *Bai(e)ta ere* Jonek
b) *Bai(e)ta ere* iaz
c) *Bai(e)ta ere* motoa
d) *Bai(e)ta ere* erosi

Hor juntagailua aurreratuz gero, honela ere bai:

(6) a) *Eta bai ere* Jonek
b) *Eta bai ere* iaz
c) *Eta bai ere* motoa
d) *Eta bai ere* erosi

Maizenik egiten diren okerrak zein diren galdetuz gero, bi seinalatuko genituzke:

1. *Ere* zein osagairen atzean ipini behar den ez asmatzea. Ari dira ikasleak, esate baterako, latineko eskolan hitzen azterketa morfologikoa egiten eta batek esaten du: "*pater:* hirugarren deklinabideko nominatiboa. *meus:* *nominatiboa ere", esan beharrean "*hau ere* nominatiboa

(da)", galdera inplizitoa hau baita "beste hitz *hau* zer da?", eta mintzagaiaren ondoan ipintzen baita beti *ere*.

Honen antzeko oker esanak piloa dira eta guziak gaztelerazko oker esandako laburdura berriek eraginak. Oraintsu zabaldu baita gazteleraz ere "en 3.º de BUP también" edo "también en 3.º de BUP" esateko ohitura, ez ordea "eso lo hacíamos también en 3.º de BUP" (alegia, "no sólo en 2.º") adierazteko, hori oso ongi bailegoke, baizik "*también yo* estoy en 3.º de BUP" esateko eta horrela ez, baizik goiko era txarrean esanez.

Barra-barra entzuten dira, izan ere, honelakoak:

(7) -¿Noiz etorriko zara?
Bihar
Eta zu?
*Bíhar-ere

"Ni ere bai" edo "Ni ere bihar" erantzun beharrean. Edo beste hau:

(8) - Non hartu duzu min?
Motoan
Eta zuk?
*Mótoan-ere

"Nik ere bai" edo "Nik ere motoan" erantzun ordez, galdera inplizitoak "*zu noiz* etorriko zara?" batean eta "zuk *non* hartu duzu min?" bestean baitira (3).

2. Bestea oso xehea da, kutsatzen erraza eta zuzentzen gero oso zaila, Mitxelenak hitz hauetaz aspaldi seinalatua: "Ahozko euskal hizkeran eta agiriko komunikabideetan gehienik nabarmentzen den hutsa da, agian, ere bezalako hitz azentugabeei, beste hitzen laguntzarik gabe ezin ager daitezkeenei, aitortzen zaien burujabetasuna, euskal ebakeraren kalte gorritan". Berak ez du adibiderik ematen, baina sarri entzuten dira

(3) Hor (7)-(8an) ipiniriiko euskarazko perpaus horien guziz antzekoak entzuten ditugu gaut euskaldun gazteen ahotik gazteleraz mintzatzean ere, hemengoa baizik ez den gazteleraz, segurki. Batez ez daki, egia esan, zeinek zein kutsatu duen, euskaraz hemengo gaztelera ala hemengo gaztelerak euskara.

¿Cuándo vienes? —Mañana.

¿y tú? —*Mañana también.

"Yo también (mañana)", erantzun ordez, eta, jakina, euskaraz ere "*Bihar ere" esanez, "NI ere bai" edo "NI ere bihar" erantzun ordez. Edo.

¿Dónde te has hecho daño? —En bici.

¿Y tú? —*En bici también.

"Yo también (en bici)", erantzun ordez, eta euskaraz "*Bizikletan ere" esanez, "*nik* ere bizikletan" esan beharrean.

horrelakoak, aurrean geldialditxo bat egin eta ere azentuz dohaturik: "gaur arratsaldean / ere (bai)", "nik ikusi nuenean / ere (bai)".

3. Hirugarrena hau da: *bai(e)ta / ez(e)ta* moldeak ez dagokien lekuan ipintzea. Izan ere, berriki zabaldu den ohitura hau da: perpausaren zenbait osagairen atzean ipintzea, nahiz eta tradizio osoan salbuespenik gabe eta are egun oraindik bizi diren euskaldun berrogeita hamar urtetik gorako ia guzien artean legea beste hau den: bi molde horiek (*ere* horiei itsatsirik nahiz bereiz joan dadila) beti perpausaren hasieran ipintzea. Hala ezin ontzat eman daitezke idazterakoan bederen:

(9) a) beste bost *baita(e)re* erosi ditu

b) bakarrik egin du *baita(e)re*

c) neri *baita(e)re* esan dit

d) "hori *baita(e)re* eskatu behar diogu, baita Joxeri baita Nekaneri"

Horiek gaurdainoko tradizioaren argitan ezin eman daitezke inola ere ontzat, hor aipatu dugun arrazoia dela kausa: "baita... ere" eta "ezeta... ere" perpausaren haste-hastean baizik ezin ager daitezkeelako.

Hori dela eta, zenbait jendek harriturik galdegiten du ea honako hauek gaizki dauden, bizirik baitaude egunoroko hizkeran, *baita* zaharren artean *ere*:

10 a) horrek jango luke *baita* harria ere

b) horrek hitz egingo luke *baita* mihia moztuta ere

c) horrek salduko luke *baita* ama ere

d) "neuk billatuko det *baita* lurpean badago ere" (Tx. Agirre, *Garoa*, 244. or.)

e) "Iñazio Marik urtuko luke, ondatuko luke, *baita*..." (Tx. Agirre, *Garoa*, 202. or.)

Ikus Mitxelenaren lumatik ateratako hau ere, bere baitan bi bider "baita...ere" txertatua daukana:

(11) "Herriaren batasunik ezak ekarri bazuen hizkuntzarentzat, *baita* hizkuntza idatziarentzat *ere*, desberdintzea, puskatzea eta, azken-azkenean, *baita* apurtzea, birrintzea eta xehakatzea *ere*, hizkuntzaren batasuna izango zen euskaldunon batasunaren seinale eta ondorio" (MEIG 27, 169. or.).

Bistan da horiek ez daudela oker, baina halaber bistan da hauek perpaus arruntak ez direla, baizik enfasiaz beteak eta komunzki ez be-

zala ahoskatzen diren hitzak dituztenak. Hori markatu nahi izan du Txomin Agirrek azken exenpluan, batetik *baita*-ren ondoan ezer ez esanez, geurok askotan egiten dugun bezala, puntu suspensiboak ipiniaz, eta bestetik "ondatuko luke"-ren eta *baita*-ren artean koma jarriaz, Mitxelenak bezalaxe, ahoskeran ere *baita*-ren atzean (nahiz aurrean, edota bietan) egin ohi dugun pausaldia seinalatuz. Zeren bi perpaus dira egiatan hor elkartzen ditugunak eta, hala izanik, *baita* perpausaren hasieran dagoela ezin uka. Ohar zaitez gainera —har dezagun (10.a), *baita*-ren ondoan bai baitu zerbait— perpaus hori normalean honela esaten dela eta honen enfatikoa dela:

(12) horrek jango luke harria *ere*

Bestea, berriz —"horrek jango luke *baita* harria ere"—, ahoskatzen den eran, aditzaren ondoan nahiz aurrean pausaldia eginik, beste honen pareko bilakatzen da:

(13) horrek jango luke edozer gauza, *baita* harria *ere.*

Eta bistan da honek bi perpaus dituela eta horrenbestez esankizunik ez duela, legea betetzen baitu.

II.10. *BAZKARIA ETA GERO / BAZKALDU ETA GERO

Txartzat eman behar dira esaera hori eta egitura bereko guziak inongo dudarik gabe:

(1) *klaseak eta gero
*zinea eta gero
*hitzaldia eta gero
*bilera luze bat eta gero

Arrazoia: *eta gero* ezin ipin daitekeelako partizipio burutuaren ondoan baizik. Alegia:

(2) bazkaldu eta gero
ezkondu eta gero
esan eta gero

Horiek dira Hegoaldean *bazkalduta, ezkonduta, esanda* bezalako formak, ahoskatzean eta idaztean, eman dituztenak. Bestalde txartzat eman ditugun horien ordain zuzena hau litzateke: *-ren ondoren.* Hona beraz aukerak:

(3) bazkaldu eta gero
edo nahiago bada

bazkariaren ondoren
bazkalondoan
bazkaldu ondoren

II.11. ??HITZALDIA MEDIO / HITZALDIA DELA MEDIO

Esapide honi adizkia zor zaio, zuzena izango bada. Badira beste esapide batzuk, adizki jokaturik gabeak, eliditua dutenak, hauen antzekoak norbaiti irudi dakizkiokeenak, hala nola *joanak joan, besteak beste, Jainkoa lagun, prezioak prezio, jatorria jatorri* eta abar, eta agidanean horien nolazpaiteko antzak bultzatzen du zenbait jende titulukoaren gisakoetan ere adizkia kentzera. Baina baliabide hori ez da erabat zilegi, hizkuntzaren molde jator baten kontrakoa baita. Hala

(1) a) ?? euskara idatziaren urria medio

b) ?? alferkeria eta arduragabekeria medio

c) ?? idatzi zituen euskal hitzak medio

berrikeriak dira eta hobe dugu betiko esanmoldera itzuli, *medio*-ren aurrean *dela* edo *direla* sartuz.

Gure literaturan sekula ez da agertzen **hitzaldia medio* bezalako egiturarik, baizik beti *hitzaldia dela medio* bezalakoak. Hala OEH-n berrogei-edo aurki daitezke, iparraldeko nahiz hegoaldeko idazleenak: hala nola Elizanburu, Duvoisin, J.B. Etxepare, Txirrita, Mitxelena eta abarrenak. Hona batzuk:

(2) a) "Hori beradela medio, hainitz hobeki ehaiten du" (Duvoisin)

b) "Den baino ere hamar aldiz laburrago iduritu zitzaidan bide hori, nere laguna zela medio" (J.B. Elizanburu)

c) "Horrexegatik nonbait, argirik eza dela medio, ez diot antzematen zer ikuskizun duten oraindik..." (K. Mitxelena)

II.12. *HOBE ESAN / HOBETO (HOBEKI) ESAN

Bi esamolde horietatik lehena berri-berria izateaz gainera okerra dela erakusten oso erraza da. Mundu guziak *ondo esan* esaten du, izan ere, eta ez *on esan*; alegia, aditzondoa erabiltzen du, eta ez izenondoa. Era berean hori bera esan nahi badu, baina maila konparatiboan, *ondo*-ren

konparatiboa erabili beharko du, *hobeto* edo *hobeki*, eta ez *on*-ena, *hobe* alegia. Puntu honetan ere gaztelera ari zaio azpilanean euskarari, hizkuntza honetan izenondoa ("es mejor") nahiz aditzondoa ("mejor dicho") izan baitaiteke mejor. Noiz dagokion gaztelerazko *mejor* euskarazko *hobe*-ri eta noiz *hobeto / hobeki*-ri jakiteko, onena hau da: maila konparatiboan baino lehen maila arruntean esan:

(1) a) ongi/ondo etorri da

esaten da, hortaz

(1) b) hobeto/hobeki etorri da

esan beharko da; aitzitik

(2) a) lan ona egin du

esaten da, beraz

(2) b) lan hobea egin zezakeen

esan beharko da.

II.13. *GALDERA ITSUSIET(Z)AZ / GALDERA ITSUSIEZ

Ez zuen bart arratsean idatzi Mitxelenak: "Euskaldun guztion aholumetan aspaldidanik dabilen *osasunaren gainean*-en ordez, ezin barkatuzko erdalkeria zelakoan (*hamar egunen buruan, hilabete barru* eta horien gisako beste zenbait esaera ere ez bagenerabilzki bezala), farragarrizko edo negargarrizko *-tzaz* agertu da, atzizki jator bat dagokion lekutik atereaz".

Jatorra da, izan ere, atzizki hori, baina bere lekuan ipintzen denean. Hona zein den zor zaion lekua: izenordainen ("nitaz", "zutaz", etab.) eta erakusleen kasu ("honetaz / hauetaz", "horretaz / horietaz", "hartaz / haietaz") kasu instrumentala, eta horien antzeko beste izenordain batzuena: *zenbaitetaz, batzuetaz, askotaz (askozaz), nornahitaz.*

Aldiz ez da bere lekua izen nahiz izen sintagma arrunten kasu instrumentala, arrazoi sinple bategatik: horien leku-kasu deriztenek bakarrik (eta kasu instrumentala ez da horietako bat) har dezaketelako *-ta*-pluralean eta mugagabean. Alegia,

(1) a) etxeetan

b) etxeetara

c) etxeetatik

edo

(2) a) lau etxetan

b) lau etxetara

c) lau etxetatik

bai, ongi dago, baina (3a) eta (3b) gaizki.

(3) a) *etxeetaz mintzatu da

b) *lau etxet(z)az mintzatu da

Hori honela esaten da:

(4) a) etxeez

b) lau etxez mintzatu da

etxeaz (singularrean) esaten den bezala. Beraz *galdera itsusiez* eraso dio.

II.14. -TAZKO?

benetako / *benetazko
txantxetako / *txantxetazko
egiazko / *egiatazko

Urte hauetan *-tazko*-ren erabilera asko eta gehiegi barreiatu da: **benetazko, *txantxetazko, *egiatazko.* Nekez eman daitezke hauek ontzat. Har dezagun, esate baterako, *benetako* arruntaren ordezko **benetazko* berria. Hau ez da ezer, eta ez da ezer *benetaz* ezer ez delako, inoiz izan ez delako. *Benetan* aldiz bai (ez zaigu axola zer dagoen horren azpian eta erroa zein duen); aski dugu jakitea *benetan* izan dela eta badela. Horrenbestez *(hiru) menditan formak (hiru) menditako* forma eman duen bezalaxe, *benetan*-ek ere *benetako* eman du.

Ez da zilegi esatea *zinezko* ere hortxe dagoela. Bai, noski, eta *egiazko* ere bai. Baina *zinezko* ez da *benetazko*, honek *-ta-* du eta hark ez. Eta bestetik *zinez* bada zerbait eta *benetaz*, esan bezala, ezer ez. Seguru aski *zinezko, egiazko* eta hauen antzekoen eraginez sortu dira analogiaz-edo besteak, baina oker sortu.

II.15. *ELKAR ARITZEN DIRA LANEAN / ELKARREKIN ARITZEN DIRA LANEAN

EGLU-I, 63. orrialdean, ongi azaldua dago elkar izenordain elkarkariari buruzko dotrina guzia. Hona hemen hor goiko perpaus oker horri dagokiona. Izenordaina denez, edozein izenek bezala lan egiten du perpaus batean, eta (1a) bezalaxe bezalaxe esan daiteke (1b) ere:

(1) a) Senideek Andoni maite dute

b) Senideek elkar maite dute

Halaber deklina daiteke eta *elkarri, elkarren, elkarrekin* eta abar, formak ditu. Andoni-ren paralelo dela (2a) eta (2b) perpausetan ageri da, baita (3a) eta (3b)etan ere:

(2) a) Gu Andoniren ondoan gaude

b) Gu elkarren ondoan gaude

(3) a) Zuek Andonirekin joango zarete

b) Zuek elkarrekin joango zarete

Halaz ere aitortu behar da *elkar*-ek muga batzuk dituela bere erabileran, ezin esan baitaiteke, esate baterako, (4)ko adibideak guztiak baitira agramatikalak:

(4) a) *Nik elkar maite dut (aurrekariak plurala behar duelako izan)

b) *Andoni elkarren ondoan eseri da

c) *Elkarrek gu ikusi gaitu

Baina tituluko perpausa ez da honelakoa, batetik, eta honelako astakeriarik ez da oraindik esaten gure artean, bestetik; beraz horien berri ikasi nahi duenak jo beza EGLU-I-era, eta hemen tituluko perpausari lotuko gatzaizkio.

Horko horiek ezin esan badaitez, beste hauek bai, esan daitezke, eta esan behar dira:

(5) a) elkarrekin ikusi gaituzte Miren eta ni

b) elkarri ez diote onik opa

Zergatik esan behar diren horrela? Perpaus barnean betetzen duen funtzioaren araberako kasu marka hartu behar duelako, eta esan:

(6) a) Elkarrekin afalduko dugu gaur / *Elkar afalduko dugu gaur (ondo egotekotan, erabat bestelako esanahia duena)

b) Elkarrekin joango gara pasiara / *Elkar joango gara pasiara

Beraz *elkarrekin aritzen dira lanean.*

II.16. KANPO MINISTROAK DIMITI LEZAKE?

Kanpo ministroak dimiti lezake, hamar urte izan ditzake, Bagdad berriro bonbardea d/lezakete, euria egin dezake, egia izan daiteke eta hauen antzekoak ongi daude, ala hobe ote da esatea *Baliteke kanpo ministroak dimititzea, gerta daiteke Bagdad berriro bonbardeatua izatea* eta abar?

EGLU II) posibilitatea adierazten dute. Baina bi posibilitate mota daude, bata epistemikoa dena eta bestea ez dena.

Epistemikoa ez den posibilitateak subjektuak duen gaitasuna, baimena, edo potentziala adierazten du, esate baterako hauetan: *Miren Bilbora joan daiteke, kotxea dauka eta; hemen erre dezakegu; ez dezaket edan ardo hau.* Posibilitate mota hau adierazteko *ke*-aspektugabea maiz erabili arren, badaude beste aukera batzuk, sinonimoak izatera beti iritsi gabe, hala nola: *Ezin dut edan ardo hau, ez dut edaten ahal..., ezin dezaket/nezake/neike edan..., ez dirot/diroket edan..., ez naiz edateko gauza, ez daukat edateko modurik, ez daukat edaterik.*

Posibilitate epistemikoak, berriz, proposizio batek (hiztunaren ustez) egia izateko edo gertatzeko duen posibilitatea adierazten du. *Daitekeena da/zen/litzateke* formulaz balia gaitezke posibilitate epistemikoaren aurrean gauden egiaztatzeko, adibidez "daitekeena da (berak) hamar urte izatea". (Euskaldun berri batzuk, posible hitzaz baliatuz posibilitate ezepistemikoa adierazteko, *posible da hemen erretzea* bezalakoak esateko zaletasuna badute ere, hau ez da euskara idiomatikoa.)

Nola adierazten da posibilitate epistemikoa euskaraz? Berriz ere, lokuzio asko erabil daitezke, hala nola:

* *Ke*-forma sinplea edo aspektuduna erabiliz, adibidez *hamar urte dituzke.* Honen esanahia beti epistemikoa da. Baina forma hauek ez dira erabiltzen mendebaldeko euskara informalean, eta idatzizkoan ere estilistikoki markatu samarrak dira.

* Geroaldia erabiliz, adibidez *hamar urte izango ditu*, edo: *Nora doa autobus hori? - Ez dakit ba; Baionara joango da.* Erabilera hau aski zabaldu da mendebaldeko hizkuntza informalean, baina ez da guztiz literariotzat jotzen.

* *Bide, omen/ei edo ote/ete* partikula modalak erabiliz, adibidez: *Bagdad berriro bonbardeatuko omen dute*; eta (galderetan) Egia ote da?

* Zenbait adberbioren bidez, adibidez *beharbada kanpora joan zen edo euria egingo du, antza. Agian, apika, menturaz* eta *dohaika* era berean erabil daitezke, besteak beste.

* *Edo* partikula gisa erabiliz: *Kanpora joango zen edo.*

* Zenbait esaldi arrunt erantsiz edo tartekatuz, adibidez *nire ustez, dirudienez, diotenez, nik uste.*

* Posibilitatearen kontzeptua predikatu gisa adieraziz eta proposizioa honi menperatuz, adibidez: *Uste dut euria egingo duela, euria egingo duelakoan nago, badirudi euria egingo duela, banago euria egingo duela, eta badaiteke/baliteke euria egitea edo gerta daiteke/liteke euria egitea.*

Eta *ke*-aspektugabea (*daiteke, lezake, zitekeen* eta abarrekin egiten dena) ere zentzu epistemikoan erabiltzerik ba al dago? Bai; adibidez: *Hori egia izan daiteke; Kontuz, euria egin dezake berriro!*; eta abar. Baina kontuan izanda *ke*-aspektugabeak maizago nozio ez-epistemikoa adierazteko erabiltzen dela, eta euskarak bide berezi franko dituela posibilitate epistemikoa adierazteko, gehienetan ez da komeni *ke*-aspektugabeaz baliatzea esanahi epistemiko batekin, batez ere ikuspegi estilistiko batetik.

Oharra: Posibilitate ez-epistemikoa adierazteko beste modu gehienak (ikus goian) ezin daitezke zentzu epistemikoan erabil, baina batzuk bai, ezin adibidez *(Ezin ditu izan hamar urte!).* Lafittek dioenez (*Grammaire*, 349), *ahal* ez da inoiz epistemikoa izaten.

II.17. GUZTIEI GONBIDATZEN ZAIE

Guztiei gonbidatzen zaie, ez zaio ikusten Pellori, mutilari zigortu zaio, ume honi askotan jotzen zaio eta era berekoak, ongi daude?

Erantzuna: Ez, *guztiei gonbidatzen diegu, ez diot ikusten Pellori* eta hauen antzekoak guztiz onartezinak diren arrazoi berberagatik. Aipatutako esaldiak ez dira onartzen, nori kasuan agertzen diren izen sintagmei (*guztiei, Pellori* etab.) ez dagokielako nori kasuan egotea, ez baitira beren aditzen zehar- objektuak. Modu berean ez daude ongi *niri gonbidatu zait, ez zait ikusten, zigortuko zaizu* eta abar.

Euskararen inpertsonalizazio erregela sintaktikoak (hau da, *ikusten dut*-en alboan *ikusten* da esaten uzten digunak), edo ez du ametitzen, edo gutienez asko mugatzen du (hor zenbait xehetasun oraindik ilun samarrak gelditzen dira eta) jasale humanoa duten esaldiak inpertsonalizatzeko posibilitatea. Adibidez, *alkohola debekatu da* onartzen duten euskaldun guztiek ez luketeke erabiliko *mutila ikusi* da. Hortaz, honelako esaldiak era inpertsonalean adierazteko, beste molde edo parafrasi bat

bilatu beharra dago. Horregatik, *Eta ondoren guztiak lunch batetara gonbidatzen dira* baino hobe genuke beste esamolde batzuk erabiltzea, azken finean testuinguruaren arabera aukeratu beharrekoak noski, hala nola: *Eta ondoren guztiak lunch batetara gonbidatzen ditugu, ...gonbidatuta daude, ...gonbidatuak dira* eta abar; baina ez, noski, *Miren egunero taberna horretan ikusia da.*

II.18. KONPLETIBOEN INGURUKO GORABEHERAK

1. *-Enik eta -Ela*

Euskal gramatiketan ontzat eman ohi den araua da perpaus nagusia ezezka doanean konpletiboari dagokion atzizkia *-ela* barik *-enik* izan daitekeela. Hots:

(1) a) Aurrekontua murriztu egin behar dela uste du oposizioak.

baina

b) Aurrekontua murriztu behar denik inork ez dio.

Nolanahi ere, delako "lege" hau ez da erabatekoa, baditu debekuak. Debekua erabat bortitza izan liteke batzutan eta, beste batzutan, horrenbestera iritsi gabe, hobeto ematen duela dirudi *-ela*-k *-enik*-ek baino.

1.1. **Arauak izan ditzakeen mugak:**

a) Perpaus nagusia ezezka eman arren, *-ela* atzizkia aurkituko dugu zenbaitetan. Kasurik nabarmenena perpaus konpletiboa izen predikatu baten (*egia, gezurra, dudazkoa, gauza jakina*, e.a.) subjektu gisa doanekoa genuke:

(2) {Egia, gezurra, gauza jakina} da inflazioak behera egin duela.

Litzateke baiezka. Baina honen pareko ezezkakoak *-ela* eskatzen du eta ez, *-enik:*

(3) a) Ez da {egia, gezurra, ...} inflazioak behera egin duela.

b) *Ez da {egia, gezurra, ...} inflazioak behera egin duenik.

Debeku honen arrazoia aski argia da. *Gezurra, egia*, eta antzeko predikatuekin subjektuak ezin du *-enik* hartu, partitiboa baita. Izan ere, partitiboa, izen sintagma "normaletan" ere debekatua dago izen-predikatuzko perpausetan:

(4) *Libururik ez da merkea.

Debekatua dago, halaber, aditz jokatugabezko subjektu perpausetan ere:

(5) a) Ez da bidezko gezurrak esaterik.

b) Ez da bidezko gezurrak esatea.

(3b) eta (4) eta (5a) arrazoi beragatik izango lirateke okerrak. Horra, beraz, lehen muga.

b) Gainerako aditz predikatiboekin, ezezkakoetan *-enik* erabiltzeko arauak zenbateraino behartzen gaituen ere jakin beharko genuke. Hau dela eta, esan behar da delako erregela horrek tradizio labur samarra duela euskaraz, gure autore zaharrek ez baitzuten erabiltzen edo oso bakanka erabiltzen baitzuten (adibide nabarmenena Prai Bartolome izango genuke). Baina ustezko gramatika arau hori geure egina dugunok ere zenbaitetan ez dugu bete beharrik ikusten. Adibidez, *ahaztu* aditzarekin, beti ere ezezkakoetan, ez dirudi *-enik* erabiltzen dugunik:

(6) a) Ez ahaztu bihar bilera dugula.

b) ??Ez ahaztu bihar bilera dugunik.

Baizik juntagailua tartean dela ere, perpaus nagusia ezezka joateak ez dakar, nahi eta ez, *-enik*-en erabilera, *-ela*-rena baizik:

(7) Ez zidan esan etorriko zela ahaleginduko zela baizik.

(7)-an galdegai-mintzagai jokoa sartzen da tartean, dirudienez. Arrazoi bera legoke honako adibide honetan ere partitiboa ez erabiltzeko izen sintagma "arrunt" batekin:

(8) Ez zidan liburua eskatu, boligrafoa baizik.

Batzuetan, aditza ezezka emanda ere, konplementuan baieztatzen dena egiazkotzat ematen dugu. (6)-an, adibidez, hori gertatzen dela dirudi. Agian horregatik ez dugu hain erraz onartzen partitiboa.

c) *Ukatu* eta honen kidekoen arazoa.

Ukatu eta honen kideko zenbait aditzekin ere joera dago *-ela* erabiltzeko. Ditudan datuen arabera, aditz honek konpletiboa daramanean, gehienetan ezezko perpausa dugu. Eta horrelakoetan konpletiboa *-enik* nahiz *-ela* atzizkiarekin agertuko zaigu:

(9) a) "Hobe bai, neretzat behintzat, euskaldun naizenik ez bailidakete ukatuko" (Mitxelena, *MIH*, 204)

b) "Ez diñat ukatuko ori ditekenik" (Orixe, *Mireio*, 31)

c) "Zuk andra irañez ezarten dautsezun akatsetarik zerbait euki legijenik eztautsut ukatuko" (Otxolua, *Bertolda eta Bertoldin*, 21)

d) "Etzuen batek ere ukatu emen arkitzen dela Kristo Jaun Jangoiko gizonaren gorputz eta odola" (Mendiburu, *Igande eta Festegunetarako Irakurraldiak*, 389)

Exenplurik ugarienak, hala ere, *ezin ukatu* tankerakoak ditugu:

(10) a) "Eziñ ukatu diteke, asko laguntzen duela liburu onak" (J.B.Agirre, *Erakusaldiak I*, 463)

b) "Jaungoikua izanik gauza gustijeen egilla, ta jaubia, ezin iñok ukatu lei, daukala eskubidia emoteko, gura badau, ta ez emoteko, nai ezpadau" (J.J. Mogel, *Baserritar Nekezaleentzako Eskolia*, 202)

Horrelako itzuliak dira gehienak. Eta gehienetan, ezezko forma izan arren, ez da *-enik* inondik ere ageri *-ela* baizik. Arrazoia goian eman dena izan liteke, alegia, "ezin uka daiteke" dioenak esaten duenaren egia balioa azpimarratu nahi du. Jakina, zenbait autore zaharrek -Agirrek, adibidez,-bestela ere ez luke *-enik* erabiliko, ez baitu inoiz erabiltzen. Baina beste autore gehienek ere *-ela* erabiltzen dute kasu honetan. Hau litzateke, hortaz, *-enik* atzizkiaren erabilerari ezarri beharko litzaiokeen bigarren muga. Hots: zenbait aditzekin edo zenbait esamoldetan, perpaus nagusia ezezkakoa izan arren, *-ela* agertuko zaigu. Oraingoan, haatik, debekua ez da lehen bezain zorrotza, zeren sarritan txandakatze bat bezala aurkitzen baitugu.

1.2. **-Enik *baiezko perpausetan?***

Orain arte ezezkakoez aritu gara eta ustezko lege horrek mugak izan ditzakeela ikusi dugu. Gaurko zenbait idazlek, ordea, eta, batez ere, komunikabideetan, *-enik* atzizkiaren erabilera murriztu beharrean, hedatu egiten dute baiezko perpausetan ere *-enik* erabiltzea proposatuz. Ez dirudi, ordea, zenbait estilo-liburutan egin diren proposamen horiek zuzenak direnik ez eta ere gomendio horien eraginez euskal komunikabideetan gero eta hedatzenago ari diren *enik* guztiak.

Gure literaturan oso gutxitan ageri da *ukatu* baiezka konpletibo batekin. Baina kasu gehienetan, *ukatu*-rekin *-ela* agertzen da eta ez *-enik*, bai baiezkoetan bai ezezkoetan.

Hortaz, hemendik atera dezakegun ondorioa da *-enik* atzizkiaren erabilerari ezezkako perpausetan mugak jar dakizkiokeela. Baina atzizki honen erabilera baiezkoetara zabaltzea okerra dela esatea askotxo bada

ere, bultzatu behar ez litzatekeen jokabidea litzatekeela behintzat esan daiteke. Beraz, *ukatu*-k, ezezka zein baiezka doanean, bere konpletiboari *-enik* ezarri beharrean *-ela* ezartzea eskatzen duela dirudi.

2. *Zehargalderetan -EN atzizkia, baina ez *-ENIK*

Arau hau ere aski argia da, baina zenbaitek *-enik*-en erabilera ezezkako aditz nagusi baten mende doanean urrutiegi eraman ohi dute. Zehargalderetara hedatzea da, hain zuzen, gehiegizko erabilera hau:

(11) Ez dizut esan nork esan duen

izango da zuzena eta ez

(12) *Ez dizut esan nork esan duenik.

Okerrak, nolanahi ere, sarriago gertatzen direla dirudi zehargaldera bai-ez erakoa denean:

(13) Ez zekien etorriko nintzenik

Perpaus hau zuzena da baldin eta aditzera eman nahi dena zehargaldera ez, beste honen antzeko zerbait baizik:

(14) Ez zekien etorriko nintzela

Zehargaldera izanez gero, okerra litzateke, honako hau ere okerra den bezala:

(15) *Ez zekien etorriko (ote) nintzenik.

Zehargaldera bada, atzizkia *-en* da, besterik gabe:

(16) Ez zekien etorriko (ote) nintzen = ez zekien etorriko nintzen ala ez.

Beraz, zilegi izan liteke testuinguru berean *-enik* eta *-ela,* biak, agertzea, esanahi berarekin ((13) eta (14) ditugu horren froga), baina zehargaldera adierazi nahi badugu, adierazpen perpausa adierazi nahi dugunean ez bezalako atzizkiaz baliatuko gara. *-En* eta *-enik* ez baitira gauza bera: batean zehargaldera adierazten dugu, bestean adierazpen perpausa.

3. *-(E)LA atzizkiaren zenbait erabilera oker*

3.1. **Ondoriozko perpausetan**

Oso zabalduak ditugu gaurko euskaraz honelako esamoldeak:

(17) *Hain gaiztoa da ez duela inork maite

Euskaraz ondoriozko perpausek aski estatus iheskorra badute ere, hori esateko bide hoberik bada. Akatsa hor ageri den *-ela* horretan dago. Izan ere, euskaraz, *-ela* atzizkia edo konpletiboetan agertuko zaigu edo modu-denborazkoetan. Eta goiko adibidea ez da ez bata ez bestea.

Bi bide ditugu hori aditzera emateko: bata inolako juntagailurik gabe, bi perpausak elkarren ondoan jarriz:

(18) a) Hain da gaiztoa, ez du inork maite.

Edo, ordena aldatuz:

b) Ez du inork maite, hain da gaiztoa.

Agian, juntagailurik ezak deseroso sentiarazi gaitzake. Baina alborakuntzazko bidearen ordez, menperakuntza bidea ere eskura dugu, *bait*-erantsiz aditzari:

(19) Hain da gaiztoa , ez baitu inork maite.

Bigarren atalaren buruan *non* edo *ezen* ezarrita ere antola ditzakegu ondoriozko esapide hauek:

(20) Hain urruti bizi da, {ezen/non} berandu iritsi baita.

Jakina, *bait*-en ordez *-en* atzizkia ere erabil daiteke.

3.2. **Erlatiboetan**

(21) *Neska batzuk agurtu ditut zu ezagutzen zaituztela.

Horra beste esaldi trakets bat. Ez du aurrekoak adinako arrakastarik baina ikastolumeen artean eta, bereziki, euskaldun berrien artean, aski entzuten da. Perpaus hau erlatiboa dugu, osagaiak lekuz aldatuak dituena, baina erlatiboa hala ere. Ez legoke alde handirik beste era honetara esango bagenu:

(22) Zu ezagutzen zaituzten neska batzuk agurtu ditut.

Oraingoan ez litzaioke inori bururatuko-*en* atzizkiaren ordez *-ela* eranstea aditzari. Lekuz aldatua dagoenean ere ez, hortaz:

(23) Neska batzuk agurtu ditut zu ezagutzen zaituztenak.

Hau litzateke bide zuzena.

3.3. **Beste erdarakada bat**

(24) *Kontuz platerarekin, beroa dagoela!

Hona hemen beste esamolde trakets bat. Hemen ere erdarazko *que* juntagailua dagoela ematen du okerraren iturrian: *Cuidado con el plato, que está caliente.*

Baina hau ere ez da adierazpenezkoa, kausazkoa baizik. Euskaraz hori esateko bide egokirik bada. Adibidez:

(25) Kontuz platerarekin, beroa dago eta!

edo

(26) Kontuz platerarekin, beroa baitago.

II.19. KONPARAZIOZKOAK

Konparazio-perpausetan hainbat oker egiten dira. Hona hemen bi.

1. *-AGO-rik gabeko BAINO-dun konparazioak*

Euskaldunon Egunkaritik jasotako adibide batzuk hona hemen:

(1) a) "Telebistak urdailera zuzendu behar du burura baino";

b) "Euskal zinegile baino zinegile soila naiz";

c) "Sentimentuei baino emozioei jaramon egin behar zaie"

Baina ongi ote daude esaldiok? Euskal literatura zaharrean inoiz horrelakorik aurki badaiteke ere (Etxepare, adibidez) ez du bide honek oso gomendagarria ematen.

Baino eta ...*-ago*, jakina denez, konparazioetan erabiltzen ditugu. Biak batera. Hala ere, *-ago*-dun izenondo nahiz aditzondoa *baino*-rik gabe erabil daiteke, testuinguruak bide ematen duenean. Adibidez:

(2) Ni zaharragoa naiz

esan daiteke, nor baino zaharragoa naizen esan gabe.

Baino elementua sartzen badugu, ordea, *-ago*-dun izenondoa edo aditzondoa behar dugu nahi eta ez. Ezin dugu onartu, adibidez,

(3) a) *Ni Peru baino naiz.

edo

b) *Ni Peru baino bizi naiz.

Konparazioa zertaz egiten dugun esan behar da. Adibidez:

(4) Ni Peru baino maltzurragoa naiz.

Hizpidea eman diguten goiko adibideetan, hain zuzen, oker horixe dugu: ez zaigu esaten zertaz egiten dugun konparazioa:

(5) a) Telebistak urdailera zuzendu behar du

b) Telebistak burura zuzendu behar du

Bi baieztapen horietan zer da konpara dezakeguna? Bien arteko gradua, nolabait. Alegia, telebistak urdailera zuzendu behar du *maila batean*, baina burura ere zuzendu behar du *beste maila batean*. Bi maila horietaz egin nahi da konparazioa eta, horrela, esaten da *urdailera gehiago burura baino*. Hortaz, honela esan beharko genuke:

(6) a) Telebistak urdailera zuzendu behar du burura baino {areago, gehiago,...}

b) "Euskal zinegile baino areago zinegile soila naiz"

c) "Sentimentuei baino areago emozioei egin behar zaie jaramon"

Horrela esaten ez badugu, perpausa herren gelditzen da, ez baitugu adierazten zertaz egiten dugun konparazioa.

Jakina, maila alderatu ordez, egin liteke perpaus bata baieztu eta bestea ukatu:

(7) a) Telebistak urdailera zuzendu behar du eta ez burura.

b) Ez naiz euskal zinegile, zinegile soila baizik.

c) Sentimentuei ez, emozioei egin behar zaie jaramon.

eta abar.

Baina, jakina, horrela eginez gero, ez dugu inolako mailakatzerik, baieztapen bat eta ukapen bat baizik. Beste aukera bat, nolanahi ere.

2. **Nahiago eta Nahien; Gehiago eta Gehien**

Konparazioaren arloan ari garenez, hona hemen beste arazo bat.

Ongi ote daude honako esaldiok?:

(8) Zein da nahiago duzun jakia?

(9) Egin ezazu gehiago gustatzen zaizuna.

Badirudi horrelakoetan superlatiboa eskatzen dela. Alegia, horrelako galderetan egiten den galdera gauza guztietarik zein duzun gogokoena izango litzateke. Ez gauza jakin bat baino nahiago zein duzun. Horrela,

(10) *Gauza guztietarik NAHIAGO dudana ezer ez egitea da

ez legoke ongi. -AGO-dun konparazioak, eta *nahiago* eta *gehiago* halakoak dira, bigarren konparazio buru bat eskatzen du. Adibidez:

(11) Zinera joan baino nahiago dut etxean geratu.

Baina erlatibozko perpausa tartean delarik, neke egiten zaigu konparatiboa erabiltzea. Superlatiboa behar dugu:

(12) Zein da nahien(a) duzun jakia?

(13) Egin ezazu gehien gustatzen zaizuna.

II.20. BALDINTZAZKOAK

Hori gutxi balitz bezala

Telebistan inoiz entzuten dira honelako esapideak:

(1) *Esandako guztia gutxi balitz, paper pila bat eskuratu dio.

Perpaus horrek, ondo egongo bada, *bezala* aditzondoa eskatzen du:

(2) Esandako guztia gutxi balitz bezala, paper pila bat eskuratu dio.

Bezala gabe, jakina, erabil daiteke baldintzazko perpausa, baina orduan beste zerbait esan nahi da. Adibidez:

(3) Hori gutxi balitz, beste bat eskatuko nuke.

Nolanahi ere, hizpidea eman digun esapide hori beste era honetara ere esaten dugu:

(4) Esandako guztia nahikoa ez dela, paper pila bat eskuratu dio.

GRAMATIKA BATZORDEAREN *ADIERAZPENA* *

Gramatika Batzordekideok txosten hauek prestatzean miraz ohartu ginen gaurko eztabaidetan barrena okertzat eman ditugun ia perpaus guziak geurok jende gaztearekin hizketan edo telekomunikabideetan entzunak direla, eta ez OEH-n aurkitu ditugunak, ez eta herri xeheko jende helduari entzun dizkiogunak. Egun gutxiko sorkariak direla, alegia, eta erroak egin gabeak.

Horregatik perpaus konkretuak zuzentzeaz gainera eta zuzentzearen gainetik, Gramatika Batzordekideok on deritzogu euskal idazle, esatari, irakasle eta, erabat esateko, euskal hiztun guziei bi hitz egiteari, perpaus okerrak bakanka zuzentzen arituz baino mesede handiagoa egingo eta guzion artean zaindu beharra dugun hizkuntzaren zuzentasuna hobeki zaintzen lagunduko diegulakoan.

Zer da hizkuntza zuzena? Hobeto esan: zer da konkretuki perpaus zuzena? Lehenik gure gurasoek ahoz-ahoko tradizio luzean aurrekoengandik hartu eta guri gero helarazi zigutena, eta ez inola ere geure logikak edo gramatikak irakasten digula uste duguna, nahiz guk geure buruari "goseak nago", "bost ordu iraun du", "ahaztea merezi du" eta horien antzeko beste mila perpausen arrazoia ematen jakin ez.

Bigarrenik –baina bi gauza ez, baizik biak, lehengoa eta hau, bat direla jakinik– tradizio idatzian moldezko letretan josia gureganaino heldu dena eta gure idazleen liburuetan atxiki zaiguna. Horra perpaus zuzenari igertzeko irizpidea.

Gramatika Batzordekideok uste dugu badela garaia guziok betiko gal dezagun haurretan ikasi genuen euskara okerra zelako konplexua. Gal dezagun herri xeheak, betidanik euskaraz mintzatu denak, gaizki hitz egiten duelako konplexua; aski zorigaitz eta ondiko dugu, izan ere, herri xeheak berak hala uste izatea, gu gauza bera pentsatzen eta esaten ibili gabe. Sines dezagun askotan hobe beharrez geure barne-isuriaren kontra asmatzen duguna, zuzentzeko ez baina okertzeko izaten dela.

Entzun ditzagun puntu honetan ere Mitxelenaren hitzak: "Hizkuntzaren legeak eta ereduak, bide zuzenetik ibiliko bagara, ez du egon be-

* *Adierazpen* hau Iruñean onartu zen, 1994ko martxoaren 25ean.

harko gure baitan, nahierara alda dezagun, gugandik kanpo eta gure gainetik baizik" (Mitxelena, MEIG, 24, 40. or.). Hizkuntzaren jabe bagina bezala geure gogara eta nahierara legeak eta arauak alda ditzakegula uste izateak ekarri du euskara denok dakigun egoerara eta "euskal gramatikaren punturik gehienak auzi bihurtzera", Mitxelenak berak dioen bezala. Ipin dezagun, beraz, hizkuntzaren legea eta eredua "gugandik kanpo eta gure gainetik", eta ez "gure baitan", baizik betiko euskaldunen ahozko hizkeraren eta tradizio idatziaren baitan.

HIKAKO ADIZKEREN PARADIGMEN AURKEZPENA

Leioa, 1994.10.04
B. Oyharçabal

Badu abantzu mende laurden bat egin zituela Euskaltzaindiak aditzaren jokabidearen batzeko lehen urratsak, 1971ko udan bildu baitzen lehen aldikotz horretako izendatua izan zen batzorde berezia.

Bi jokabide nagusi agertu omen ziren orduan: batak, P. Altuna, batzorde hartako idazkariaren hitzetan erraiteko, *antzinako jatortasun-aberastasunak, zernahiren gaindik gorde nahi zituenena*, eta besteak, aldiz, *eguneroko premiari (...) begiratuz, formarik erabilienak, maizenik ahotan eta lumatan hartzen ditugunak, finkatu nahi zituztenena* (*Euskera*, 1977: 669). Bigarren ikusmolde hau zutenek zuhurragotzat zeukaten abiadura hartan hikako adizkera alokutiboak paradigma batuetarik baztertzea.

Badakigu, azken joera hau nagusitu zela orduan, eta beraz hitanoko paradigma alokutiboak batu gabe gelditu zirela orduan. Haatik, sartu ziren paradigma batuetan hikako forma zuzenak, erran nahi baitu IKUSI DUK edo ETORRI ZAIN bezalakoak.

Handik zenbait urtetara, 1977an, Euskaltzaindiak onartu zituen aditz batzordeak prestaturikako adizkera trinkoen paradigmak, gisa horretan emana izan baitzen aditzaren batzeko bigarren urratsa.

Egun hirugarren urratsa emaitera dago Euskaltzaindia, eta eman aitzin biltzar honetan aurkezten ditu, euskara batuko hitanoarentzat egokienik iduritzen zaizkion paradigmak.

Hastetik jar ditzagun proposamen honek dituen mugak. Hiru dira bereziki aipatzekoak, eta hirurak erabilerari dagozkionak.

Lehenik lagun arteko adizkera alokutiboak baizik ez ditugu emaiten hemen, ez errespetua dakarten zukako (edo xukako) adizkera alokutiboak. Dakigun bezala, azken alokutibotasun mota hau ekialdeko euskalkietan baizik ez da bizi, molde hedatu batean bederen. Gisa horretan erran daiteke dialektalki aski markatuak direla berenaz, eta euskaldun gehienentzat arrotzak edo guti ezagunak.

Lagun arteko adizkera alokutiboak, aitzitik, garai guzietan, euskalki guzietan erabiliak izan dira. Gisa horretan, batzeko premia premiatsuago

zen haien kasuan, eta bateraketaren obratzea ere teknikoki molde desberdinean agertzen zen.

Bigarren puntua: proposamen honek ez ditu zehazten, zuzenean behintzat, alokutibotasuna mugatzen duten ingurumen sintaktikoak. Dakigun bezala adizkera alokutiboak ez dira nolanahi non-nahi erabiltzen, baizik eta, nolabait erraiteko, solas mailako marken hartzeko libro diren adizkeretan. Zein diren hauek, ez da, haatik, beti hain erraz finkatzea, garaien eta euskalkien arabera aski aldaketa handiak gertatu baitira, azken mende honetan bereziki.

Baina hain zuzen ere, ez da egungo proposamenaren gaia adizkera alokutiboei dagozkien ingurumenen zehazki finkatzea, eta horretaz zerbait jakin nahi duenak Gramatika batzordea egiten ari den gramatikan aurkituko du behar duen informazioa, literatura tradizioan oinarritua (ikus EGLU II, 387-392. o.). Dugun erran halere, delako muga horrek ondorio zerbait izan duela hemengo zerrendetan, haietan ez baitira sartu aurrizki menderatzaile bat behar duten adizkerak, hala nola *ba-* baldintzakoa behar dutenak, edo *b(e)-* aginterakoa dutenak. Horrela BEDI, BETOR, BALEGO, edo BALEZA-ren aldaera alokutiborik ez da aurkituko hemen.

Hirugarren eta azken ohar orokorra euskara batuari doakio. Adizkera alokutiboen zerrenden eratzerakoan, aurretikako erabakien ildotik ibili da batzordea, eta, orok uler dezaketenaz, nekez egin zezakeen bestela.

Hiru modutan ulertzeko da puntu hau:

— Lehenbizikorik, aukeren egiteko orduan batzordea saiatu da aitzinetikako filosofiaren atxikitzera, tradizioaren eta egungo euskararen artean halako oreka bat xerkatuz, eta paradigmen erregulartasuna, sinpletasuna eta argitasuna kontuan hartuz, bai eta, hein batean bederen, egoera sozio linguistikoa ere. Orohar aski interpreta-errazak dira zerrendetako adizkera alokutiboak eztabadakakoak ezagutzen dituen edonorentzat.

— Bigarrenekorik 2. pertsonako indizeari buruz lehenagotik onartutakoa ez dugu berriz auzitan jarri. Horrek puntu batean bereziki bazuen garrantzia. Tokako indizearen forma silabikoa denean beti -A- forman emana dugu, eta ez -KA- forman, tokako forma zuzenak batzerakoan horrela erabakia izan baitzen. ZUAN eta ZIAN, beraz, eta ez ZUKAN edo ZIKAN.

Hirugarrenekorik, zerrendak osatzerakoan lehenagotik eztabadakako paradigmetako moldatu zerrendei batere zeiharkatu gabe jarraiki gatzaiz-

kie, nahiz horrek behartu gaituen batzuetan usatu gabeak izan diren, eta diren, paradigma batzuen moldatzera.

Har dezagun adibide bat. Badakigu, euskara batuan NOR-NORI-NORK saileko aditz laguntzaileen paradigmak DIT modukoak direla aspektu marka erabilia denean. Orainaldiko KE-dun adizkeretan, datiboa lehen pertsonakoa denean, DIDAKE edo DIZKIGUKE bezalako formetan, hots, nekez atzeman daiteke hikako lekukotasunik literatura tradizioan, forma hau eztabadakako erregistroan ere usatu gabea baita aditz batuari kasu honetan oinarria eman dion gipuzkeran. Horrelakoetan, batzordeak, usaiako erregelak aplikatuz, eta bereziki beste ondoko euskalki batzuetan erabili auzo hurbileko formetan oinarriturik, eratu ditu adizkera alokutiboak. Ohar honek, nola ez, adizkera trinko askorentzat ere balio du.

Kontuan har, bestela egin izan balu batzordeak, aditzera emanen zuela jadanik onartu adizkera batzuek ezin izan zezaketela aldaera alokutiborik, eta dakigunaz ez da horrelako adibide bihirik agertzen literatura guzian. Makurrik ez egiteko asmo onaren izenean are makur makurragoa eginen zen beraz.

Bide beretik, erran dezagun oraino, batzordeak ez duela eskurik sartu nahi izan, ez baitzen haren egitekoa, esateko, noiz ziren eztabadakako paradigmetako adizkera batuak ziren bezala zuzenean, menderagailurik gabe, erabiltzekoak, eta beraz alokutibotasunari irekiak, eta noiz ez. Arazo hau adizkera trinkoetan agertzen zen bereziki, baitira haietan forma batzuk orain artinoko tradizioan menderagailu bat izanik bakarrik agertzen direnak. Ordean, ez da erraz erraitea zein diren adizkera horiek, adizkera trinkoen paradigmak erabilera urriko formez beterik baitaude. Are gehiago batzuetan menderagailu ez den morfema batekin bakarrik agertzen dira literatura tradizioan adizkera horietarik batzuk, araberako forma euskara batuko zerrendetan ez sarturik ere. Har dezagun, esaterako, EGIN aditza. NOR-NORK saileko formak menderagailu batekin kausitzen ohi ditugu 20. mendea arteko literaturan. Aitzitik, KE-dun adizkeretan edo -IDI- erroarekin agertzen da menderagailurik gabe; adibidez, *nik zer dagiket?* dio Gazteluzarrek (Egia catolicak, 163. o.). Ordean, aditz horretako orainaldiko KE-dun formak ez ziren sartu euskara batuko zerrendetan. *Dagiket* kontuan ez harturik, zer egin *dagit* adizkerarekin? Hots, nola kontsidera, euskara batuan onartuak izanik, literatura lekukotasunen arabera menderagailu batekin erabiliak izan diren forma horiek? Behar zena aurretik erabakia nolabait hunki edo murriztu? Zenbatetaraino? 20. mendeko erabilera berriak baztertu behar ote ziren? Gai hori berez ez baitzen haren egitekoetan sartzen, batzordeak ez du nahi izan gora-behera horietan zuzenean sartu, eta ohar bat egina izan da,

arazoa abisu orokor baten bidez agertzen duena, eta adizkera trinkoen paradigmen hastapenean emana izan dena.

Garbi izan bedi, beraz, aldaera alokutiboak eskaintzen direla hemen erabilerak kontuan hartu gabe, eta eztabadakako paradigma eratu zireneko eztabaidetan, edo haiei dagozkien murritze lanetan, sartu gabe.

Halaber, baina gauzak aurkako aldetik ikusirik, euskara batuko paradigmetan sartu ez ziren adizkeren aldaera alokutiboak ez ditugu emaiten hemen, tradizioan ongi oinarrituak izanik ere. Hots, ez da aurkituko hemengo zerrendetan adizkera alokutiborik, aurretik euskara batuan onartu adizkera bati ez dagokionik. Esan gabe doa forma horiek ez direla txartzat jotzen, baizik eta eztabadakako aldaeren parean emaiten.

Jokabide honen funtsa markadura alokutiboari behatzeko moldean datza. Euskal gramatikagintzan egin ohi denaz, adizkera alokutiboak arau morfosintaktikoen bidez eratorririko adizkera gisa kontsideratu ditugu, ez bereber dabiltzan forma gisa.

Beraz, aditz batuko eztabadakako paradigmak soil-soilik, baina osorik, kontuan harturik eratu dira hikako paradigmak.

Aise hauteman zitekeenaz, errazago gertatu da aditz laguntzaileei zegozkien adizkera alokutiboen onartzea, adizkera trinkoei zegozkienak baino.

Aditz laguntzaileentzat bost pundutan bildu ditugu erabaki orokorra eskatzen zuten arazoak:

— erro-aldaketa noiz emaiten den;

— aditz erroaren aitzinean -I- bat edo palatalizazio zerbait grafian agertu behar denetz, noiz eta nola;

— orainaldiko adizkeretan D- aurrizkia Z- bihurtu behar denetz, eta noiz?

— indize alokutiboak adizkeraren barnean duen tokia;

— *EDUN aditzaren NOR-NORK saileko pluralgilearen formaren finkatzea.

1. ADITZ LAGUNTZAILEEN ERRO-ALDAKETAK

Adizkera alokutibo batzuk ez dira zuzenean eztabadakako adizkeretarik eratortzen. Nolabait erraiteko, erro-aldaketa eskatzen dute. Bi aditz laguntzailerekin agertzen da, bereziki, arazo hau, IZAN-ekin eta

*EDUN-ekin, bi kasuetan datiborik gabeko formetan. Bi kasu hauek bata bestearen ondotik ikus ditzagun.

1.1. **IZAN-ekin**

IZAN-ekin gertatzen den aditz erro aldaketak bi dudazko kasu sortarazten zituen. Alde batetik, KE ahalkizunaren marka duten formetan (guk hemen KE-dunak deituko ditugunetan), eta bestetik ez-oraineko tempusetan NOR 3. pertsona duten formetan.

1.1.1. KE-dun adizkerei so egin diezaiegun lehenik.

IZAN aditzarekin erro aldaketa euskalki guzietan gertatzen da, orainaldiko eta iraganaldiko KE gabeko formetan. Are gehiago, erroaz aldatuz NOR-NORK saileko adizkerak baliatzen dira orduan euskalki guzietan. Zubereraz, baxenabarreraz, goi nafarreraz, bizkaieraz, lapurteraz edo gipuzkeraz, denetan DA → DUK bilakatzen da, eta NINTZEN → NINDUAN. Pertsona guzietan molde erregularrean gertatzen da aldaketa hori (toki bakoitzeko modu berezian noski), eta, beraz, batasunerako bidearen aurkitzea erraz izan da. Aski zen horretako NOR-NORK saileko forma batuen hartzea.

KE-dun formetan gauzak ez ziren hain argi haatik. Alabaina Leizarraga batek, adibidez, DATEK (Luk 1, 15) adizkera alokutiboa erabiltzen zuen orainaldiko KE-dun formetan (erro aldaketarik egin gabe). Iraganaldian, ordean, ZATEAN (Mat. 11, 23) bezalako formak erabiltzen bazituen batzuetan, beste batzuetan ZUKEAN (Joan, 11, 21) bezalakoak ere bazerabiltzan, azken kasu honetan erro aldaketa egiten zuelarik.

Alegiazko hipotetikoetan ere horrelako zerbait gertatzen da. Bonaparteren taulei behatzen zaienean (*Le verbe basque en tableaux*, Bilduma, I, 184) ikus daiteke, LITZATEKE adizkerari dagokion aldaera alokutiboan erro aldaketa badela lapurteran eta zubereran (LUKEK, LUKEN / LÜKEK, LÜKEN), ez ordean bizkaieraz (LITZATEKEK, LITZATEKEN) eta ez gipuzkeran (LITZAKEK, LITZAKEN). Are gehiago, Bonaparteren datuen arabera, gipuzkera eta bizkaiera ez datoz beti bat alegiazko paradigma eratzeko orduan. Bizkaieraz pertsona guzietan atxikitzen da IZAN aditzaren erroa, eta adibidez NINTZATEKE adizkeraren molde alokutiboa NINTZATEKEK da; gipuzkeraz, aitzitik, erro aldaketa gertatzen da lehen pertsonarekin: NINDUKEK, NINDUKEN / GINDUKEK, GINDUKEN.

Gauzak horrela izanik, joerak euskalkien artean nola banatzen diren eta zeri buruz doazen ikusirik, azkenean erro aldaketa pertsona guztietan eta NOR bakarreko paradigma guzietan agertaraztea proposatzen du

Euskaltzaindiak, KE-dun formentzat salbuespenik egin gabe, ez orainaldian, ez iraganaldian, ez alegiazkoan ere, paradigma guztietan NOR bakarreko formaren ordez, *EDUN-en paradigmako formak ditugula, bigarren pertsonako indizeak ergatiboaren tokia duelarik: NAUKEK / NAUKEN, NINDUAN / NINDUNAN, NINDUKEK / NINDUKEN.

1.1.2. Orain, hari berari jarraikiz, beha dezagun hurbilagotik zer gertatzen den 3. pertsonarekin, IZAN-en NOR bakarreko saileko iraganaldian eta alegiazkoan.

Erro aldaketa onarturik ere, beste arazo bat agertzen da. Alabaina euskalki guziek ez dituzte berdin emaiten ez-oraineko 3. pertsonako adizkera alokutiboak.

Batzuek, bazterretakoek bereziki, EDUN-en paradigma erregularra erabiltzen dute forma alokutiboetan, hots forma ergatibodunetan gertatzen den indize-mugimendua ez dute erakusten forma alokutiboetan. ZEN eta ZIREN adizkeren aldaera alokutiboak ZUAN, ZUNAN eta ZITUAN, ZITUNAN formakoak dira, ez NOR-NORK saileko HUEN formakoak.

Erdialdeko euskalkietan ordean, gipuzkeraz bereziki, gauzak ez dira horrela agertzen. Hemen ere Bonaparteren emaitzei behatuz gero UKAN eta UNAN dira gipuzkerako formak, jokabide zuzenean ere aurkitzen ditugunak. HUEN forma bera Bonapartek biltzen ez badu ere, lapurtera klasikoan ere aurkitzen da, Etxeberri Ziburukoaren lanetan bereziki.

Hemen joera nagusiak zein izan diren ikusirik, ZUAN eta ZUNAN formen alde jo dugu proposamenean, eta hala-hala egin dugu alegiazko araberako adizkerentzat ere: LUKEK, LUKEN eta LITUZKEK, LITUZKEN; (eta ez HUKE, HITUZKE modukoak).

1.2. **Bigarren erro-aldaketa, edo guk hemen molde horretan aurkezten dugun aldaketa, *EDUN aditzarekin, NOR-NORK sailean, agertzen da, orduan -U-ren ordez, -I- erroa agertzen baita.**

Bonaparteren taulen lekukotasuna onartzen badugu, *du* adizkerari *jok* forma alokutiboa dagokio bizkaieraz (hartan U aditz erroa gorderik dagoela pentsa dezakegularik), baina *dik* besteetan.

Ordean, forma batean gertatzen den sasi batasuna ez da baitezpada gero ondoko paradigma guzietan kausitzen.

Adibidez, lehen pertsona objektua duten formetan erro aldaketa ez da beti agertzen. Horrela NIAIK-en ondoan NIAUK forma ere kausitzen da lapurtera klasikoan. Halaber Urtek NIAUK eta NIAUTEK for-

mak emaiten ditu objektua lehen pertsona singularrekoa denean (-U-erroa atxikiz), baina GIAITIK eta GIAITIZTEK (-I-erroarekin) lehen pertsona pluralekoa denean (*Grammaire cantabrique basque*, 158. eta 161. o.).

Bonaparteren bildumak, bestalde, jokabideak euskalkien arabera kanbiatzen direla salatzen digu: NAU adizkerari NAJOK, NATXIOK, NIAK eta NAIK adizkera alokutiboak dagozkio.

Hemen ere literatura tradizioa ikusirik eta erregulartasuna ere kontuan harturik, paradigma guztietan -I- erroa atxekitzea erabaki da. Beraz, NAIK eta GAITIK, NINDIKEK eta GINTIZKEAN formak proposatzen dira.

2. ADITZ LAGUNTZAILEEN ERROAREN AITZINEAN EDO AURREALDEAN *-i-* SARTU ALA EZ SARTU

Segurenaz ere eztabaida gehienik sortu duen puntua izan da hau. Euskara zaharrean, nola egun ere oraino zenbait euskalkitan, joera da -I- bat aditz erroaren aitzinean agertarazteko adizkera alokutiboetan.

Aditz laguntzaileekin arazo hau IZANen NOR-NORI saileko formetan, edo *EZANen eta *EDINen KE-dun formetan bereziki agertzen zen.

Ez da dudarik euskaran barneenik finkatua den tradizioan lehen silaban -I- agertarazten dela. Ordean, asko euskalkitan atzeraka joan da joera hau. Lehenik *EZAN edo *EDIN laguntzaileekin, baina IZANekin ere bai.

Adibidez, literaturan, lapurteraren kasua aski adierazgarria dugu horretan. Leizarraga NIAITEK (*ezniaitec scandaliza*, Mat. 26, 33), eta Urtek NIAZAKETEK / GIAITZAKETEK emaiten zituzten (*Grammaire cantabrique*, 217. o), baina jadanik Gazteluzar batek NEZAKEN zioen noka: *Mundua kreatu ez banu (...) orai hiregatik krea nezakeen* (*Egia catolikak, Prefazioa*, 29. o.), hala nola 200 urte geroago Elizanburuk ere NEZAKEK baitzioen; ez NIEZAKEK.

NATZAIO-ren forma alokutiboa NATXAKOK emaiten du bizkaiarentzat Bonapartek (palatalizazioa markaturik gelditzen delarik), baina NATZAYO (-I-rik gabe beraz) gipuzkera eta lapurterarentzat. Hirugarren

pertsona subjektua delarik, ZAIOK emaiten du gipuzkeran, berriro ere -I- gabe, nahiz ZIAYOK den lapurteran haren tauletan. Halere Elizanburuk *P. Adame*-n ZAIOK zioen, eta ZAITAK, -I-rik gabe, beraz.

I-ren agerpena modu erregular batean tratatu nahiago izan dugu. Edo onartzen zen eta paradigmetan modu erregularrean sartzen zen. Edo ez zen batere egiten. Erran gabe doa arteko aterabidea ere har zitekeela. Ordean, nola eman mugak: noiz bai, noiz ez? Kasuistika batean sartzea ez zen egoki ikusten, eta horrengatik, adizkera alokutiboen kasuan joera zahartuxeak edo irregulartasuna sortaraz zezaketenak nahiago izan ditu baztertu batzordeak. Horrela asko duda-muda erabili ondoan proposameneko paradigmetan -I-rik ez emaitea erabaki du azkenean, *EDIN eta *EZAN aditzekin bereziki aski forma zaharkituak agertzen baitziren orduan. Beraz, NAITEKEK eta NAKIOKEK, NAZAKEK eta GAITZAKETEK, NATZAIOK eta GATZAIZKIOK hobetsi dira, egungo euskaldunaren belarrietan franko gogor diren NIAITEKEK eta NIAKIOKEK, NIAZAKEK eta NIAZAKETEK, NIATZAIOK eta GIATZAIZKIOK adizkerak baino.

3. ADITZ LAGUNTZAILEETAKO ORAINALDIKO ADIZKERETAN PERTSONA AURRIZKIRIK EZ DENEAN ADIZKERAK *d-* EDO *z-* BEHAR DUEN HASTAPENEAN

Arazo hau aurrekoari zuzenean lotua da. Alabaina 1. eta 2. pertsonak aurrizki direnean, -I-rik ez emaiteko erabakia hartu ondoan ez da dudarik gelditzen formari buruz: NIAITEKEK ez bada: NAITEKEK.

1. edo 2. pertsonako aurrizkirik ez denean, ordean, nola -I-ren sartzeak aurreko herskaria Z bilakaraztea ekarri baitu orainaldiko adizkera alokutiboetan, -I-rik ez emaiteko erabakia harturik ere, bi forma gelditzen dira: bata D-rekin, bestea Z-rekin. Adibidez, DAKIOKE adizkerarentzat, DAKIOKEK (gipuzkeran), ZAKIOKEK(lapurteran) eta DITAKIOK (zubereraz) emaiten ditu Bonapartek (*Le verbe basque en tableaux, Bilduma*, I, 289. o), eta araberan DEZAKEK, ZEZAKEK edo DIZAKEK, DEZAKE formarentzat.

Puntu horri buruz, aditz laguntzaileen kasuan, erdibidetik jo du batzordeak. Adizkerek anbiguitaterik sortzen ez duten kasuetan D- utzi du aurrizki gisa, adibidez *EDIN-en forma KE-dunentzat (DAITEKEK, DAKIOKEK), baina Z- hobetsi du anbiguitaterik sor daitekeen kasuetan, erran nahi baitu ergatibodunetan; adibidez: ZEZAKEK (ezt. DEZAKE) eta ZIDAK (ezt. DIT) onartu dira, eta ez DEZAKEK eta DIDAK.

4. INDIZE ALOKUTIBOAREN TOKIA ADIZKERA LAGUNTZAILEEN BARNEAN

Solaskideari dagokion indize alokutiboa adizkeretan beti atzizki gisa agertzen da gure paradigmetan. Haatik ikustekoa da oraino beste indize pertsonalen arabera zer tokitan agertu behar den alokutiboarena.

Tradiziorik finkatuenean indize alokutiboa datiboarenaren eskuinean da. Adibidez NOR-NORI saileko aditzetan, datiboaren indizea alokutiboarena baino lehenago agertzen ohi da: ZAIOK edo ZAIGUK.

Ergatiboaren indizearekin gauzak ez dira hain argi. Badirudi joera nagusia dela alokutiboaren indizea ergatiboarenaren ezkerrean emaitea DIAT forman bezala.

Sintagma ergatiboa 3. pertsonakoa eta pluralekoa denean, besterik da, halere. Orduan bi forma bereziki agertzen dira:

— DITEK eta JUEK mendebaldean;

— DIE ekialdean, jadanik 16. mendean Leizarragaren eta Etxepareren lanetan kausitzen duguna. Azken forma hau A+E, ordena horretan emanikako elkarketarik sortua da, indize alokutiboa (-A-) indize ergatiboaren (-E) ezkerrean izanik.

Erregulartasuna, indizeen usaiako ordena atxikitzen duen, azkenik aipatu adizkera honen alde zen. Ordean ordenari behatu orde, formari so egiten bazaio DITEK forma, -TE atzizkia atxikitzen baitu, eta alokutiboari bere tokia uzten baitio, anitzez erregularrago da, bestea baino.

Egia da DIATE forma harturik azken arazoa konpontzen dela, baina iduritu zaio batzordeari piska bat artifiziala izanen zela bide horretarik jotzea, DIE eta DIATE bi formen arteko paralelotasuna ez baita argi, ez ikusgarri, hiztunentzat.

Horregatik, kasu honetan -TE ergatibo pluralaren marka alokutiboarenaren ezkerrean emaitea hobetsi da.

Bide beretik, alokutiboaren indizea KE morfemaren eskuinean emaitea hobetsi da, hori baita joera zabalduena: NIKEK eta LIKEK, beraz.

5. *EDUN ADITZ LAGUNTZAILEAREN INDIZE PLURALGILEA

Azken arazoa *EDUN-en NOR-NORK saileko formetan agertzen da: zer forma eman behar zaio absolutiboaren indize pluralari: -IT- ez-

tabadakako formetan bezala (DITUT), ala -ZK-, NOR-NORI-NORK saileko formetan bezala (DIZKIK)?

Puntu horretan, bai tradizioak, bai euskalkien arteko hedadurak (1), bai erregulartasunak, bai hizkuntza ekonomiak -IT-ren alde bultzatzen zuten, eta ez da eztabaidarik sortu: DITIAT, ZITIAN, LITIZKEK,... besterik gabe onartu dira.

Horra beraz, zein izan diren aditz laguntzaileen forma alokutiboen batzeko erabili diren irizpideak.

Gisa batez, ber problemak agertzen ziren aditz trinkoekin ere. Ordean, Euskaltzaindiak, bi atal berezitan ikertu ditu paradigmak ez baitzen segur jokadura batean onartzen zen moldea, bestean ere berdin komeni gerta zitekeela.

Ikus dezagun, bada, orain aditz trinkoez zer dioen proposamenak.

Nahiz eztabaidak berex egin diren, oro har erran daiteke aditz trinkoetan ere aditz laguntzaileetan onartu jokabide berak onetsi direla.

6. ADIZKERA TRINKOETAKO LEHEN SILABAN *i*-RIK SARTZEA ALA EZ SARTZEA PERTSONA INDIZEAREN ONDOTIK

Aditz trinkoen kasuan ere lehen silabaren formaren auzia molde orokor batean agertzen zen, eta oso eztabaidatua izan da.

Gaur egun oraino anitz euskalkitan molde batean edo bestean agertzen dira NIAGOK edo NIOAK bezalako formak. Haatik iraganaldian edo alegiazkoan aski itxura zaharkitua hartzen dute NIENTHORREAN edo GIEUNDEKEK bezalako adizkerek.

Jadanik Urteren garaian, orainaldiko adizkerak, eta horien artean KE-gabekoak eta gaineratikoak, desberdintzen ziren puntu horretan. Izan ere NIAGOK eta NIATHORK emanik, gero NENGOAN, NAGOKEK, eta NATHORKEK emaiten zuen (I-rik gabe). Aldiz Leizarraga batek NIANGOAN emaiten zuen, adibidez, iraganean ere.

Hemen ere batzordeak nahiago izan du puntu horri buruz erabaki bakarra hartu, kasuistika beldurgarri batean sartu baino. Askotan

---

Ekialdean eta mendebalean baina gipuzkeran ere aurkitzen da -IT- pluralgilea forma alokutiboetan, Bonaparteren arabera behintzat. Adibidez, *Le verbe basque en tableaux* idazlanean DITUT formari dagokion adizkera alokutiboak hauek dira: ZETIKAT (G), JITUBADAZ (B), DITIAT (L, Z) (Bilduma, I, 339. o). Bonapartek bildu eskuizkribuetan ere molde horretakoak dira bildurikako gipuzkerazko formak: ZETIKAT, ZITIAGU, ZETIK (Ik. Pagolak (Zuz.) argitara emanikako *Bonaparte ondareko eskuizkribuak, Gipuzkera-6*, 3100-3105.o).

-I-ren onartzeak anitz forma zaharkitu ekar baitzezakeen, zuhurrago iruditu zaio molde berriagoen onestea, eta I-rik gabeko adizkerak hobetsi ditu ondorioz.

-I- ez emanik, palatalizazioarengatik silabaren forman batzuetan agertzen diren beste ganbiamenduak ere ez ditu onartu batzordeak, adibidez eztabaidakako adizkeretako orainaldiko A ---h E bilakatzen denekoa. Izan ere bestelakoa da tradizio nagusia, ekialdekoa bereziki, baina ez bakarrik hangoa, bizkaieraz ere palatalizazioaren markaren ondoan aurkitzen baita -A- lehen silaban: NAIAGOK, GAYAGOZAK, edo JAKIAT bezalako formetan bezala. Horrela orainaldian NAGOK, NATORREK, eta hauek bezalako formak sartu dira paradigma batuetan, ez NEGOK. Haatik, ikusiko dugu berehala pertsona aurrizkirik gabeko adizkeretan beste soluzio bat proposatzen dela honen ondoan.

7. ORAINALDIKO ADIZKERA TRINKOETAKO LEHEN SILABAN FORMA PERTSONA AURRIZKIRIK EZ DENEAN

Orainaldiko adizkera trinkoetan pertsona aurrizkirik ez denean bi arazo mota agertzen dira.

Lehenbizikoa da ea Z- ala D- behar den haien hastapenean. Asko euskalkitan gaur egun duda handiak agertzen dira puntu honi buruz, eta aditzen arabera gauzak aldakorrak dira. Adibidez, Toribio Etxebarriak, Eibarko euskara aurkeztean *(Flexiones verbales y lexicon del euskera dialectal de Eibar)*, D- emaiten du *etorri* eta *ibili*-rentzat (DATOK, DABIK), baina iota beste batzuetan: JOAN aditzarekin edo ergatibodunetan. Iparraldean, P. Barbier-en *Piarres* eleberria ikertzen bada, batzuetan ZABILAK, ZAKIK,... aurkitzen da, baina beste batzuetan DIAUDEK. Lapurtera klasikoan ere, -I- agertzen delarik, aldaketak baditugu. Leizarragak beti D- atxikitzen du hasieran: DIAGOK, DIAUDEK, DIATZAK, DIARIOK, DIOHAK. Ordean, Gazteluzarrek Z- emaiten du beti: ZIOK, ZIAGOK, ZIAUDEZEK, ZIATZAK,...

Gauzak horrela izanik, batzordeak jokabide bakarra hartu du, eta Z-ren aldekoa izan da.

Bigarren arazoa da ea, Z-ren ondotik, -A- edo -E- izan behar duen horrelako adizkeren lehen silabako bokalak (erro hasiera kontsonantikoa denean); adibidez, ZARAMAK ala ZERAMAK? Bi erabilerak agertzen dira egungo euskaran, eta -A- nolabait erregularrago bada eztabadakako paradigmari hurbilagotik jarraikiz, gaurko erdialdeko hiztun askorentzat oso sartuak dira -E-rekilako formak.

Kasu honetan, iritziak ezin batera ekarriz, hautua libro utzi nahiago izan du Euskaltzaindiak. Horrela, ZAGOK / ZEGOK, ZABILEK / ZEBILEK, ZAKUSAK / ZEKUSAK, etab...bikoteak sartu ditugu paradigmetan, oraingoz behintzat euskara batuan bi moldeak ontzat emaiteko proposatuz.

8. ADIZKERA TRINKOETAKO ERROAREN ETA INDIZE ALOKUTIBOAREN ARTEKO LOTURA

Aditz trinkoek sortzen zituzten arazo berezien artean nabarmenena, aditz erroaren ondoko loturak emaiten zigun.

Alabaina indize alokutiboa aditz erroari lotzen zaionean, eta hau kontsonantikoa denean (orduan, pratikan, -L edo -RR du bukaeran erroak), euskalkiek ez dute denek jokabide bera.

Batzuetan kontsonante erortzen da: DABIK, DATOK,..., nahiz orduan, zenbaitetan grafian bederen, idazten den kontsonantea: DABILK, DATORK, ZAKARK,... Joera hau bizkaierarena da gehienbat.

Beste batzuetan, -E- loturazko bat emaiten da: NABILEK, NATORREK, ...

Azkenik Iparraldeko joera da hartan A- agertzen baita aditz erroari josia. Ordean -A- hori eztabadakako adizkeretan ere agertzen da (DABILA / ZABILAK).

Batzordearen hautua loturaren markatzearen aldekoa izan da hori baita joera nagusia. Bi loturazko bokalen artean, berriz, -E- hobetsi da. Kontuan har indize alokutiboa silabikoa denean ere agertzen dela loturazko bokala: ZAKARREAT / ZAKARRENAT; ZARABILEAT / ZARABILENAT, etab... (ik. beherago 10. puntua).

9. NOR BAKARREKO ADIZKERA TRINKO BATZUETAKO PLURALGILEA

Aurreko puntua erabaki ondoan, duda gelditzen zen ea DOAZ, GOAZ, DATOZ, GATOZ bezalako adizkera alokutiboetan E loturazkoa erabiliko zen, edo -ZA hartuko zen pluralgile gisa. Hautua honelakoa zen: DOAZEK / DOAZEN ala DOAZAK / DOAZAN? Eta berdin iraganaldian: ZIHOAZEAN / ZIHOAZENAN ala ZIHOAZAAN / ZIHOAZANAN?

Kasu honetan bigarren aukeraren alde jo du batzordeak, pluralgile forma gisa -Z(A) hobetsirik (-Z hutsa baino).

10. INDIZE ALOKUTIBOAREN TOKIA ERGATIBOAREN ERETZEAN

Indize alokutiboaren tokiaren arazoa adizkera ergatibodunetan bereziki agertzen zen, oroz gainetik aditz erroaren bukaera kontsonantikoa zutenetan (DAKARGU bezalako adizkeren forma alokutiboetan, hots). Izan ere, erroaren bukaera bokalikoentzat batasun bidea aski argia zen: ZAKIAT / ZAKINAT hobestekoa zen ZAKIDAK / ZAKIDAN baino. Ordean, erroaren bukaera kontsonantikoekin -E- loturazkoaren arazoa agertzen baitzen, gauzak beste modu batean agertzen ziren: ZAKARREAGU / ZAKARRENAGU ala ZAKARGUK / ZAKARGUN? Azkenik, jokabide erregularrari lehentasuna eman dio batzordeak, pertsona indize ergatiboaren aurrean utzirik beti indize alokutiboa, bai erro bukaera bokalikoetan: ZARAMAAT / ZARAMANAT (ez ZARAMADAK / ZARAMADAN), bai kontsonantikoetan -E- loturazkoa sartuz: ZAKARREAT / ZAKARRENAT (ez ZAKARDAK / ZAKARDAN).

Halere, aditz laguntzaileekin bezala, ergatiboaren indizea -TE pluralgilea delarik indize alokutiboa haren eskuinean emaitea onartu du batzordeak: NAKARTEK / NAKARTEN eta ZAKITEK / ZAKITEN (ez NAKARREATE / NAKARRENATE edo ZAKIATE (ZAKIE) / ZAKINATE (ZAKINE) bezalakorik).

HITANOA NON ETA NORK ERABILTZEN DUEN

Leioa, 1994.10.04
Javier Alberdi Larizgoitia,
EHU/UPVko irakaslea

Ondorengo lerro-iruzkinak neurri handi batean nire tesi-lanerako erabili dudan inkestagintzaren emaitzak dira. Emaitzok, euskararen geografia osoan barrena (51 herri) hika aritzen diren 210 lekukoren artean bildu dira. Tratamenduekiko usarioak leku batetik bestera, etxe batetik bestera eta are pertsona batengandik beste batenganda ere hain aldakorrak izanik, gure emaitzak, ezinbestean, euskal ohitura desberdinen gutxi-gorabeherako ispilua edo batez besteko irudia direteke eta ez, noski, balio unibertsaleko lege urragaitzak. Horra hor, bada, modu eskematikoegian, nire zenbait iruzkin-ondorio hitanoaren erabileraz.

0. Euskaraz ez da bat ere ohizkoa pertsona berarekin tratamendu bat baino gehiago maiztasun berberaz erabiltzea; normalean tratamendu berbera erabili ohi da pertsona bakoitzarekin. Hau da, gorabehera handirik gabeko kontua izaten da tratamendu-aukerarena.

Gainera, euskal tratamendua sarritan ohiturazko zerbait izaten da. Egiten den aukera egiten dela, hasierako hura bihurtzen da gero ohiturazko, "nola hasi hala segi" printzipioaren arabera.

Esanak esan, tratamendu-aldaketaren posibilitatea ez dago itxita, ezta gutxiago ere. Hala ere, noizbehinka gertatzen diren aldaketak gehienetan adierazkorrak izaten dira, aldarte edo testuinguru berezi baten adierazpide eta ondorio, alegia.

1. Hitanoaren erabilerari bagagozkio, azpimarkagarria da Iparraldeko eta Hegoaldeko euskalkiak, funtsean, bat datozela. Hots, bateko eta besteko usarioak lehenengo eta behin *euskal* usarioak dira, hots, frantsesaren edo gaztelaniaren ikuspuntutik nekez esplika daitezkeenak. Nahiko bitxia da lagunarteko tratamenduaren erabileran halako batasuna egotea, beste kasu askotan hizkuntz ukipenak ondorio lardaskagarriak izan baititu tratamenduen arlo honetan.

2. Oro har, familiaren esparruan beste inon baino maizago ager daiteke hitanoa. Edozein kasutan ere, aurreko baieztapenaz ez dugu esan nahi familia barruan hiketa arau guztiz orokorra edo unibertsala denik, ezta gutxiagorik ere.

Hasteko, senide nagusiek gazteagokoei hika *(T)* egiteko joera badute ere, hori ez da inondik inora arau orokorra, hiketaren maiztasuna kasurik onenean (semearekiko harremanean) % 70aren ingurukoa baita eta alabaren kasuan % 30aren ingurukoa. Hortaz, "goitik behera" ere hiketa ez da arau guztiz orokorra familian. Alderantzizko zentzuan, ordea, senide gazteak beren nagusiagoei zuzentzerakoan, *V* (eztabada, zuka) eta xuka alokutiboa *(X)* ia-ia derrigorrezkoak gertatzen

dira. Beraz, tratamenduen erabileraren azterketa zentzu bakar batean egin beharrean, zentzu bietan egiten bada, hots, binakoetan oinarritzen baldin bagara, bistara ateratzen da aurreko baieztapenen ondorio garbia: familian tratamenduekiko ohitura aski asimetrikoa da, gazteak nagusiagoari *V* esan beharra baitauka eta berarengandik *T* jasotzen baitu maiz. Beherago ikusiko denez, familian beste inon —familiatik kanpo— baino asimetria *(T-V, X-T, X-V)* gehiago gertatzen dira euskaraz; eta ohitura hau, zalantzarik gabe, euskararen berezitasuna da inguruko hizkuntzetan aspaldi alboratu baitzen delako joera asimetrikoa.

Edozein modutan ere, aipaturiko joera asimetrikoa ez da erabatekoa edo orokorra, erdizkakoa baizik. Hain zuzen ere, neskekin (alaba, iloba, biloba) eta suhi-errainarekin simetria gailentzen da; hots, noketaren erabilera urriagoaren ondorioz, neskekin *V-V* eta *X-X* aukera simetrikoak gailentzen dira asimetrikoen gainetik.

3. Euskaraz, mendebaldeko hizkuntza gehienetan ez bezala, *V-V* da legea ezkonduen artean. Hauen lehengo ohitura hikakoa baldin bazen, tratamenduaren aldetik ezkontza halako mugarria izan daiteke, ezkontzaz geroztik eta sarri-askotan ezkontza-atariaz geroztik elkarrekiko *V*-ra aldatu behar izaten baitute ezkongaiek. Legeak lege, han-hemenka (Amikuzen, adibidez) ez dira falta *T-T* simetrikoaz edota *T-V* asimetrikoaz aritzen direneko gune bakartuak, salbuespenak, alegia. Ezkonduei buruz aipatu "legea" ez da hain urrezkoa ezkongaien artean, senargai eta emaztegaien artean aiseago (% 19,2) urratzen baita *V-V*-ren aldeko joera. Nolanahi ere, oso adierazgarria izan daiteke hurrengo konparazioa: senargai eta andregaiak gutxiago aritzen dira hika elkarren artean (% 19,2), sexu desberdineko adiskideak beren artean baino (% 39,5).

4. Iragarpenen arabera, hitanoa eta, zehatzago esateko, elkarrekiko hitanoa *(T-T)* haurrideen artean gerta omen daiteke beste inon baino gehiago. Euskarazko emaitzak, oro har, ildo horretatik doaz; hala ere, hikako maiztasuna oso desberdina da sexuaren arabera: % 90,3koa anaien kasuan (toka-toka), % 48,6koa neba-arrebenean (toka-noka) eta % 49,4koa ahizpen artean (noka-noka). Sexua kontutan hartzen baldin bada, portzentaiok, euskaraz gerta daitezkeen altuenak dira, adiskideen artekoak baino altuxeagoak, alegia. Datu erlatiboak eta konparaketa hasierako hipotesia sendotzera datoz, beraz.

Hala ere, goiko hikako portzentaiak erlatiboki altuenak badira ere, datu atsolutoak aztertzen baldin badira, konturatzen gara hitanozko emaitzak ez direla altuegiak. Gainera, begi bistan geratzen da toketa eta noketa tratamenduen erabilera desberdina: toketak, guztiz orokorra ez bada ere (kasurik onenean, anaien artean, % 90,3koa), bizitza zabala eta osasun ona dituen bitartean, noketak, askozaz ere bizitza makalago eta murritzagoa du (kasurik onenean, ahizpen artean, % 49,4koa) (1).

5. Familiaren barruan gaudelarik, lotura handiagoko eta lotura makalagoko senidetasunezko harremanak bereiz daitezke hitanoaren erabilerari begira. Goitik behera, adibidez, hika gehiago egiten zaie seme-alabei, biloba eta ilobei baino eta

(1) Noketak erdialdeko euskalkietan —batez ere gipuzkeran eta zerbait kaxkarrago goi-nafarreran— iraun du hobekien; gainerako euskalkietan oso nabarmena da atzerakada.

askozaz ere gutxiago suhi-errainei. Berdinen artean, adibidez, haurrideen artean biziki gehiago mintzatzen da hika, lehengusuen eta koinatuen artean baino.

Ematen du, beraz, senidetasun-mailak paper garrantzitsua bete dezakeela hitanoaren erabileran. Itxura denez, guraso eta seme-alabek osatutako familia-gunean beste inon baino aiseago azaltzen da hitanoa eta alderantziz, ahaidetasun-mailan urrundu ahala, beherantz egiten bide du *T*-ren gertagarritasunak.

6. Familiarteko esparruan adina, sexua eta ahaidetasun-maila ditugu aldagairik erabakigarrienak tratamenduaren hautaketari begira. Aipatu hiru aldagaien artean adinak berebiziko pisua du. Adinaren aldea, bereziki gazteagotasuna, traba larria izaten da hitanoa erabiltzeko, are ahaidetasun-mailaz berdinak direnen artean ere (2).

Familiartean adinak jokatzen duen paper garrantzitsua ikusita, familiatik kanpo ere adinezko nagusitasun nabarmenak hiketa berez lekarkeela pentsa liteke. Hala ere, gaztetxo ezezagunari helduak ez dio *T* ematen familiarteko gaztetxoari ematen dion erraztasunaz. Hortaz, adinezko nagusitasun hutsa ez da aski hiketa nagusitzeko; kidetasuna, ezagutza edo etxekotasuna ere ezinbestekoak dira goitik behera hitanozko joera gailen dadin.

Adin, sexu eta ahaidetasun-mailarekin batera, zenbaitetan harremanaren maiztasunak ere eragin handia izan dezake tratamenduan. Alegia, tratamenduak ez du zertan berdina izan behar lehengusu guztiekin, iloba guztiekin edo koinatu guztiekin; ahaidetasun-maila beraren barruan egonda ere, harremanaren maiztasun eta nolakotasunaren arabera (harreman gehiagokoei *T* eta gutxiagokoei *V*), maiz aldatzen da tratamendua.

Bigarren maila batean, familiarteko erabilera markatuen berri eman nahi izanez gero, bestelako aldagaiak aipatu behar lirateke, hala nola, izakera, osasuna, itxura, e.a. Era berean, ohizko tratamenduaren aurka altxatzen diren noizbehinkako hikako erabilera markatuak esplikatzeko, testuingurura jo beharra dago. Senar-emazte batzuek, adibidez, normalean eztabadaka aritu arren, jai-giroan edo txantxetan hitanora jo dezakete solasari umorezko ikutua ematearren. Orobat, semearekin hika aritzen den amak *V*-ra jo lezake haserrealdi batean urruntasun psikologikoa adierazteko eta, alderantziz, eztabadaka aritzen dena une jakin batean hiketaz balia liteke lagunarteko kidetasuna edo hurbiltasun psikologikoa adierazteko. Hauek guztiok, adierazkortasuna bilatzen duten erabilera markatuak dira eta gure ikerketan zeharka baizik ez ditugu jaso.

7. Haurrekiko jokabidean ez dago batasunik tratamenduaren erabileraz. Askok txikitatik egingo omen lioke hika bere semeari; beste askok kozkortu artean ez lukete hitanorik erabiliko beren semearekin. Asmoak asmo, errealitatean *V* omen da gurasoen artean usario zabalduena hiruzpalau urteko seme txikiarekin aritzeko. Hiketa geroztik omen dator, haurra hazitakoan, gizonkeriak edo okerkeriak egiten hasterakoan. Salbuespen ugari duen ohitura honen arrazoia ez dago

(2) Teorian adinaren eragozpena inon ezabatzekotan, anaien artean ezabatu beharko litzateke; hala ere, euskaraz anaitasunak ez du guztiz neutralizatzen adinaren eragozpena, anaia dexente zaharragokoarekin jaitsi egiten baita hikako portzentaia.

guztiz argi, baina edozein kasutan ere, herriko jende xehearen ustetan, haurraren ahotik hitanorik ez entzutearren egiten omen zaio eztabadaka edo zuka haur txikiari. Hots, arrazoi psiko-soziolinguistikoak omen dira hasiera batean gurasoak beren semearekin V erabiltzera bultzatzen dituztenak.

8. Espero zitekeenez, barne-bakarrizketan beste inon eta inoiz baino gehiago erabiltzen bide da hiketa: gizonezkoen kasuan, anaien artean bezainbeste edo maizago eta emakumezkoenean, ahizpen artean baino dexente gehiago.

Bestalde, bada kontuan hartzeko moduko euskaldun-kopuru bat —emakumezkoen artean, bereziki—, bakarrizketaz landa hika noizbait egin arren, bere buruarekin hika mintzatzen ez dena. Datu hau nahiko harrigarria da eta agian hiketaren eta bereziki noketaren izaera markatuarekin du zerikusia.

Hortik aparte, bakarrizketan hika aritzen diren emakumezkoen artean noka da usarioa nor bere buruari mintzatzeko. Hau da, hiztuna bitan banatzen deneko bakarrizketa elkarrizketatuan nahitaez islatu behar da emakumezkoaren sexua *(zer egin dun?)*; emakumea noketa erabili beharrean gertatzen da, solaskide bere burua hartu duela eta bere buruari zuzentzen ari zaiola konturatzen den neurrian. Aitzitik, bakarrizketa den alegiazko elkarrizketan solaskidearen kontzientzia argirik ez baldin badago, hots, hiztun emakumea inori bereziki —ezta bere buruari ere— zuzendu gabe ari baldin bada, orduan toketa nagusitzen da bakarrizketan eta eztabada ere ez da ezinezkoa (Segurola, 1992).

9. Animaliekin mintzatzeko hiketa da berezko tratamendua euskaldungo hikatzailearentzat. Pertsonekin hika nekez edo kostata aritzen direnek ere, aise onartzen dute tratamendu hau animaliei zuzentzeko.

Bestalde, sexuaren araberako hautaketari bagagozkio, animalia emeekin erabilera arruntena eta zabalduena toketa denez gero, esan daiteke noketa dela tratamendu markatua toketaren aldean. Emetasuna ageri-agerian ez bada eta berariaz azpimarkatu nahi ez bada, toketa da aukera seguruena eta ohizkoena animalia emeekin.

10. Hiketa (euskararen gainerako tratamenduak bezala) berez eta jatorriz solaskide bakarrari mintzatzeko tratamendua izan arren, gaur egun guztiz hedatuta dago tratamendu honen erabilera talde bati mintzatzeko. Erabilera hau berezi samarra da eta gramatikaren ikuspuntutik begiratuta, ez dirudi zuzenegia.

Berez, gramatikaz, bat baino gehiagori zuzentzerakoan, pluralean neutralizatuta geratzen da tratamenduen arteko aurkakotasuna, pluralean bigarren pertsonako izenordain bakarra *(zuek)* eta adizkera bakarra *(zarete)* baitauzka euskarak. Hala eta guztiz ere, gramatikalki kontraesana bada ere, adizkera alokutiboen bidez posible da adieraztea zein tratamenduri loturik ari den burutzen jarduna. Talde bati zuzendutako jardunean ezagun da hika ari dela hiztuna, ez pertsona-izenordainengatik *(ni, zuek, gu...)*, ezta bigarren pertsona argumentala islatzen duten adizkerengatik *(zarete, duzue, dakizue...)* ere, adizkera alokutiboengatik baizik *(izan nauk, joan nauk, ikusi diat...)*. Jende aurreko hikako solasetan, alokutiboa ez da komunztadurazko gertakari gramatikal hutsa (gramatikaz ezkontezinak baitira entzule-aniztasuna eta alokutiboak islatzen duen bigarren pertsona singularra), solas-mailan egiten den tratamendu-hautaketaren agergarria baizik.

11. Orokorrean, familiaz kanpoko gizarteko harremanetan hitanoa tratamendu markatua da, *V*-ren aldean ozta-ozta erabiltzen da eta. Beti ere, euskaldungo hikatzaileak osatzen duen gutxiengoari gagozkiola, ondoko datu orokorrak azpimarka daitezke.

Elkarrekiko hitanoak *(T-T)*, sexu bereko adiskide adinkideen artean du azaltzeko probabilitaterik handiena (% 76,3aren ingurukoa). Adiskidetasuna garrantzi handikoa da, maila desberdineko, sexu desberdineko eta adin desberdineko adiskideen artean eta are batera mailaz eta adinez kidekoak ez diren adiskideen artean *T-T* izaten baita aukera nagusiena. Lankide eta ikaskideen artean ere *T-T* erabiltzen da nagusiki (% 59,4 inguruan), baldin sexukide eta adinkideak badira.

Bestela, mailazko eta sexuzko diferentziak batera daudenean edota adinezko eta sexuzko desberdintasunak batzen direnean *T-T* aukera ateratzen da galtzaile V-Vren aurka eta zer esanik ez, gauza bera jazotzen da maila, adin eta sexuzko desberdintasunak batera daudenean. Adibidez, adiskideak sexu-desberdinekoak izatera, hitanoak nabarmenki egiten du behera, emaitzak *T-T, V-V* eta *T-V* aukeren artean banatzen eta zatikatzen direlako. Hortaz, aipatu bi kasuez landa (kide eta adiskideez landa), ez da bat ere ohizkoa hiketa simetrikoa.

Gizarteko harremanetan, familiakoetan ez bezala, tratamenduzko asimetria ez da sekula nagusitzen aukera simetrikoen gainetik. Gizarteko harremanetan, adinezko nagusitasunak eragindako *T-V* erabilera asimetrikoak behin ere ez du lortzen familiaren eremuko nagusitasun garbia *V-V* aukeraren gainetik. Familia barruan mutilekiko harremanetan *T-V* aukera *V-V* baino biziki maizago gauzatzen den bitartean, familiatik kanpo aurki daitekeen asimetriarik handiena –mutiko kozkorrarekikoa– ez da hain nabaria, orduan ere *V-V, T-V* baino maizago gertatzen baita. Bestalde, mailazko desberdintasunak ez du tratamenduzko asimetriarik eragiten.

Ondorio gisa, euskal gizarteko harreman gehienetan (adiskide eta kideen artekoetan eta agian besteren batean izan ezik) kortesiazko tratamendu simetrikoa *(V-V)* jaun eta jabe dela esan dezakegu.

Adibidez, adiskidetasunezko lotura eduki ezik, sexu eta adin bereko langile eta nagusiaren arteko harremanak nagusiki (*V-V* = % 77an) V simetrikoaz gauzatu ohi dira; era berean, ezagutzak egiten dituzten ezezagunen artean *V-V* nagusitu ohi da (% 81). Eta egoera formaletan zer esanik ez, hitanoak ez du ia-ia tokirik horrelakoetan; esate baterako, aita-ama baten eta institutuko zuzendariaren arteko bileraren kasuan (*V-V* = % 95ean) edo bere nagusia izango dena (etxeko andre nahiz etxeko gizon gaztea) ezagutzen duen neskame zaharrarenean (*V-V*, % 93,3an eta % 91,8an). Salbuespenak salbuespen eta asimetria posibleak gorabehera, gauza bera esan liteke ikasle eta maisuaren arteko harremanaz, apaizarekikoaz, jatetxeko bezeroaren eta zerbitzariaren artekoaz (*V-V* = % 85,3an), etxeko andre eta neskame gaztearen artekoaz (*V-V* = % 71,6an) edota neskame zaharraren eta etxeko gizon gaztearen artekoaz (*V-V*, % 74,2an). Aipaturiko kasu guztiotan, hiztunak sexu desberdinekoak izatera, areagotu egiten da *V-V* eta *T-V* aukeren gertagarritasuna eta murriztu, erabat, hitanoarena *(T-T)*. Orobat, ezezagunen artean, are adinaren alde nabarmenena egonda ere, joera *V-V* nagusitzekoa da (% 65,9an, hamar-hamabost urte gazteagokoari mintzatzerakoan eta % 50,4ean mutiko kozkorrari zuzentzerakoan).

12. Familiaren eremutik at, honako hauek dira tratamenduaren erabilera ohizko, neutro edo markatugabea baldintzatzen duten aldagai nagusiak: kidetasuna, adiskidetasuna, adina, sexua eta maila.

Oro har, gutxi dira kidetasunik gabe hika aritzen diren euskaldunak, kidetasuna ezinbesteko baldintza baita elkarrekiko hitanoa *(T-T)* maiz (*V-V* baino maizago) gerta dadin. Elkarrekiko harremana –berau lanekoa, auzokoa, herrikoa edo jolasekoa izan dadin– aski izaten da berdinen artean, adiskidetasunik gabe ere, hitano simetrikoa maiz jazotzeko. Lankidetasuna, auzokidetasuna, herrikidetasuna eta jolaskidetasuna, besteak beste, *T-T*-ren bultzagarri izaten dira sarritan eta are sarriago, aspaldidanikako edo betidanikakoak baldin badira. Honek guztiak esan nahi du hurbiltasun psikologikoa, elkarrenganako estimua edo adiskidetasuna ez direla baitezpadako baldintzak hitanorako, guztiz lagungarri gertatzen badira ere (ik. De Rijk, 1992). Kidetasunak hitano simetrikorantz *(T-T)* bultzatzen baldin badu, kidetasunik ezak ez du asimetriarik *(T-V)* eragiten, elkarrekiko kortesia *(V-V)* baizik.

Kideen artean hiketa sarri jazotzen bada, adiskideen artean inoiz baino sarriago azaltzen da. Hortaz, kidetasunarekin batera, adiskidetasuna hiketaren eragile garrantzitsuenetariko bat da, garrantzitsuena ez bada. Adiskidetasunak, kidetasunak bezalaxe, simetriak (*T-T*, bereziki) sortarazten ditu eta sekula ez asimetriarik. Hala ere, familian bezala, hitanoaren aldeko baldintza guztiak bete direlarik ere, ez da guztiz segurua hikako tratamendua; alegia, adiskidetasunak ez dakar beti eta nahitaez hitanoa.

Azpimarkatzekoa da kidetasunak eta adiskidetasunak *T-T* aukeraren alde izan dezaketen eragina ez dela albo-hizkuntzetakoa bezain nabaria, ez baita adinaren eta sexuaren ondoriozko asimetriak erabat berdintzeko edo ezabatzeko lain.

Tratamenduari begira, adina funtsezko aldagaia gertatzen da euskaraz. Azken batean, kidetasuna eta adiskidetasuna neurri handi batean adinari lotuak azaltzen zaizkigu: kideak normalean adinkideak izan ohi dira eta etimologiaren arabera adiskideak ere bai, "adinez kideak", alegia. Adinkidetasuna ez da izaten aski *T-T* nagusitzeko eta gehienez ere, hitano elkarrekikoaren gutxienezko baldintzen artean aipatu beharra dago. Adin-desberdintasunak, ordea, *T-T* aukeraren aurka jokatzen du, zenbaitetan tratamenduzko asimetriak sortaraz ditzakeelarik. Oro har, adinezko nagusitasunak erraztu egiten du hitanoaren erabilera eta gazteagotasunak oztopatu. Ondorio garbia asimetriaren posibilitatea da; posibilitate nahiko urria, nolanahi ere, familiaren esparrukoarekin alderatzen badugu.

T-T maiz gertatuko bada, sexukidetasuna egon behar du. Sexuzko desberdintasunak garbiro jokatzen du elkarrekiko hitanoaren aurka eta *V-V/T-V* soluzioen alde; horrela, kasurik onenean, sexukide ez diren adiskideen artean lagunarteko tratamendua (*T-T* = % 39,5) eta kortesiazkoa (*V-V* = % 32,3) nahiko parekatuta geratzen dira. Beraz, orokorrean sexuzko desberdintasuna *T-T* aukeraren eragozgarri galanta izaten da. Bestalde, ondorengo atal batean hobeto ikusiko denez, toketa eta noketa tratamenduen bizitza eta erabilera erabat bestelakoak dira. Toketak askoz ere bizitza eta eremu oparoagoak dauzka, noketak baino eta ondorioz, sarritan gertatzen dira asimetriak *(T-V, T-X)* emakumezkoaren alde, are nebaarreben eta adiskideen artean ere.

Mailak ere bere garrantzia dauka. Aski ez bada ere, mailazko parekotasuna nahitaezkoa da *T-T* maiztasun handiz azal dadin eta alderantziz, mailazko desberdintasunak elkarrekiko hiketaren aurka jokatzen du. Hala ere, nagusitasuna eta menpekotasuna normalean ez dira kodetzen *T-V* asimetriaren bidez. Alegia, adinak eta sexuak ez bezala, mailak ez du asimetria narbarmenik eragiten, mailazko desberdintasunaren aurrean gehienetan *V-V* nagusitzen da eta.

Maila edo estatusa garrantzitsua bada ere, ezin esan daiteke gauza bera klase sozialaz edo klase sozioekonomikoaz; historikoki euskal gizartea ez da izan hierarkizalea eta egun, agian, are inoiz baino gutxiago. Ondorioz, tratamenduak ez dira bereizten solaskidearen ondasunen, jatorri prestuaren edo leinu argiaren arabera, berarekiko menpekotasunezko edo berdintasunezko harremanaren (maila edo estatusaren) arabera baizik.

13. Aipaturiko bost aldagai nagusiez gain, badira kontutan hartu beharreko bestelako aldagai eta bereizgarri pisuzkoak.

Lehenengo eta behin, testuingurua aipatu behar da. Euskaraz tratamendua, erabileraren erabileraz errotutako ohitura den neurrian, nekez aldatzen da testuinguruagatik. Hala ere, oso kontuan hartu behar da nortzuen aurrean burutzen den solasaldia, entzulego-motak neurri handi batean baldintzatzen du tratamendua eta. Talde baten aurrean mintzatzerakoan nekez agertuko da hitanorik, taldekide guztiekin bakarka hika aritu ezik. Bestalde, tartean ohituraren indarra ez baldin bada, asko igertzen da testuinguruaren eragina. Harreman baten hasieran, esate baterako, egoera formalek ez dute inolako biderik ematen hitanorako; aitzitik, erabat oztopatzen dute lagunarteko tratamenduaren aukera. Zenbait egoeratan eta lekutan alderantziz gertatzen da; mendian eta tabernan, adibidez, agian beste inon baino berezkoago eta egokiago gauzatzen da *T-T*, tokiak desberdintasunak ezabatu eta kidetasunak sortarazten baititu.

Hizkuntzazko urruntasunak eta jatorriak eragin meharra omen dute tratamenduaren gain. Hala ere, kontutan hartzeko moduko gutxiengo batek (% 11-% 17,6) bere herrira mugatzen du hitanoaren erabilera eta beste multzo handiago batek (% 16-% 25,3) bere euskalkira. Ez da erraza jakitea mugatze horien zioa, hala ere, pentsatzekoa da bietariko arrazoiak egon daitezkeela kanpotarrekin hiketa ez erabiltzeko: alde batetik, hiketaren ikuspegi meharregia, betidaniko ezagun eta kideei mugatua; eta beste alde batetik, hizkuntzazko arrazoiak, urruntasun dialektala, alegia.

Aipatuez gain, tratamenduen erabileraren berri emateko, oso garrantzitsua da joera mimetikoa kontutan hartzea (3). Mimesizko joera zentzu bitan gertatzen da: batzuetan ezohizko edo ausardiazko hitanoari berdin erantzutearren sortzen da *T-T*, biziki gazteagokoaren ausardiari erantzunez edota kideko ezezagunaren joera hikatzaileari erantzunez; beste batzuetan, alderantziz jazotzen da eta, adibidez, adiskideetariko bata, hika mintzatzen ez dakiena edo hala aritzen ez dena

(3) Ekialdeko behenafarrerazko hiztun zenbaitek solaskide kanpotarrekin alokutiboa (xuka nahiz zuka) baztertzeko eta eztabaidara jotzeko duten ohituran beharbada bi aldagaiok dute eragina: joera mimetikoak eta urruntasun dialektalak.

baldin bada, *V-V* nagusituko da asimetria faltsu baten desegokitasuna saihestearren.

Psikologiak ere badu eraginik. Begikotasunak, gogaidetasunak eta izakeraberdintasunak elkarrekiko hitanorantz bultzatzen bide dute: solaskidea norberaren araberakoago eta probabilitate gehiago dago *T-T* azal dadin. Gainera, kidetasun psikologikoaren ondorioz azkarrago (afari batean, adibidez, ordu batzuen buruan) gerta daiteke hitanoranzko *(T-T)* aldaketa ezagutu berrien artean.

Tratamendu-aldaketari gagozkiola, lehendabizi, aldaketaren zailtasuna azpimarkatu behar dugu. Ezagutu berriarekin euskaraz ez da aldameneko erdaretan bezain azkar aldatzen lagunarteko tratamendura. Batzuek, elkar ondo ezagutzeko adinako denbora (aski denbora luzea) behar izaten dute hitanora jotzeko eta beste batzuek, sekula ere ez omen dute hika egiten adiskide berriekin. Edozein kasutan ere, beste hizkuntza batzuen aldean, euskaraz *T*-ranzko berezko aldaketa ez bide da hain erraza eta berehalakoa. Bestalde, ez dirudi hizketagaiak tratamendu-aldaketarik eragiten duenik.

14. Singularreko bigarren pertsonako izenordainaren *(hi)* hautaketak nahitaez dakar komunztadura morfologikoa menpekoak ez diren perpaus adierazgarrietako (enuntziatiboetako) aditz jokatuan, komunztadura bikoitza, ekarri ere. Horrek esan nahi du bigarren pertsona alokutiboa adizkeran islatu behar dela, bigarren pertsona argumentala islatzen den bezalaxe. *Hi* izenordainaren aukera eta adizkera alokutiboena ezin askatuzko eran daude loturik euskaldungo hikatzailearen gogoan. Hikako tratamenduak (gainerako tratamendu alokutiboek bezala) horixe du bereizgarri, beste hizkuntzetako tratamenduen aldean: aditz jokatuarekiko komunztadura bikoitza.

Aditz alokutiboak badu sintaxizko urrezko arau bat, soilik menpekoak ez diren perpaus adieraz-garrietan (enuntziatiboetan) erabiltzen da literatur tradizio landuan. Orokorrean gaurko euskara mintzatuan ere halaxe gertatzen da; salbuespen batez, hala ere. Galderazko perpausetan alokutiboa erabiltzeko joera dago euskalki gehienetan, eguzki aldekoetan izan ezik (behenafarreran eta zuberoeran). Gainerakoan, salbuespenak salbuespen, bete egiten da sintaxizko arau edo debekua, menpeko perpausetan ez baita adizkera alokutiborik sartzen. Baldintzazkoetan, hala ere, sarritan urratzen da aipatu legea, gazteen artean batik-bat (45 urtez beherakoetan).

15. Tratamendu-izenordainei buruzko ikerketa soziolinguistikoen historiarako oinarrizkoa den ikerketa ezagun baten arabera (Brown and Gilman, 1960), mendebaldeko zenbait hizkuntzatan, hala nola, espainieraz, frantsesez, alemanez, italieraz eta ingelesez, Brownek eta Gilmanek "boterearen semantika" deritzotenetik "elkartasunaren semantika" deritzotenera igaro da. Hizkuntza guztiotan tratamendu nagusi bi bereizten dira, aurrerantzean, gauzak erraztearren, *T* eta *V* laburdurez adieraziko ditugunak. Lehenengoa *(T)*, lagunarteko tratamenduari dagokio eta bigarrena *(V)*, begirunezko tratamenduari (4). Hitz laburrez, bi dira ikerkuntza honek dakartzan diakroniazko hipotesiak: 1) XX. mendean aipatu bost

(4) Horrekin ez dugu esan nahi hizkuntza desberdinetako T guztiak (edo *V* guztiak) pragmatikoki eta soziolinguistikoki erabat baliokideak direnik.

hizkuntzetan (frantsesa, italiera, alemana, espainiera, ingelesa) lehenagoko "boterearen semantikari" "elkartasunaren semantika" nagusitu bide zaio edo erabat nagusitzeko bidean dago (5) eta ondorioz, gaur egun gero eta nekezago gertatzen da tratamenduzko asimetriarik *(T-V)*; 2) elkartasunaren semantikaren barruan gaudelarik, gero eta joera garbiagoa ageri da *T* simetrikoaren alde (T-T), urruntasunezko edo formaltasunezko *V* simetrikoaren (V-V) kaltetan. Hau da, gero eta handiagoa da T elkarrekikoa eragiteko moduko binakoen kopurua gizarteko harremanetan.

Beraz, lehenbiziko aldakuntza semantikoak ardatz baten (boterearen) zokoratzea ekarri baldin badu, bigarrenak —orain gauzatzen ari omen denak—, sistema bakuntzearen alde jokatzen du, lagunarteko tratamendua *(T)* gero eta esparru zabalagoak beraganatzen ari delarik. Bigarren urrats hau beteko balitz, ziklo historikoaren abiapuntura itzuliko ginateke (T → T/V → T) eta agian horrekin batera bereizketa edo bikoiztasun berrien beharra (T/V) sentituko ere.

Aurkeztu ditugun diakroniazko hipotesiak eta bilakabidezko eredu teorikoa euskararentzat onartuz gero (6), berehala sortzen zaigun galdera bikoitza hizkuntzaren bilakabide historiko berriari buruzkoa da:

1) XIX-XX. mendeetako euskararen eboluzioan boteretik elkartasuneranzko joera atzeman daiteke?

2) XX. menderako inguruko zenbait erdaratan iragarritako elkarrekiko T-ranzko joera garbia somatzen ote dugu gaur egungo euskaran?

Lehen galderari dagokionez, iraganean boterezko desberdintasunak kodetzeko joera *(T-V)* egun baino askoz handiagoa izan zela onartuz gero, ia-ia bere osotasunean postula daiteke gaur egungo euskararentzat R. Brown eta A. Gilmanen lehen hipotesi diakronikoa: joera gaurko euskaran tratamendu-berdintasuna edo simetria (*V-V* eta *T-T*) da, familiaren eremuan asimetriazko usarioak *(T-V)* atxiki diren arren. Hots, familiatik kanpo garbiro ageri da *V-V* simetrikoranzko joera; eta familiaren eremuan "boterearen semantika" deiturikoaren aztarnak ugari diren arren —ugariegiak inguruko hizkuntzetakoen aldean—, boterezko asimetriak tratamenduaren bidez *(T-V)* kodetzeko uzkurtasuna, edo hobeto esan, *V-V*-ranzko joera garbia ikusten da neskekiko harremanetan (alaba, iloba eta biloba neskak).

Behin simetriaranzko joeraren hipotesia onartuta, joera sartaldeko hizkuntzetan *T-T*-rantz dela defenditzen duen Brownen bigarren hipotesiari dagokionez,

(5) Hala ere, ohartarazi beharra dago soluziobide hau ez dela orokor eta unibertsala, ezta aipaturiko hizkuntzetan ere. Beraz, hizkuntza-kontuetan ia-ia beti gertatu ohi den bezala, erregela edo lege gisa barik, joera-gisa aurkeztu behar da delako bilakabidea. Boterearen aztarnak —indar edo pisu espezifiko handiagoz edo txikiagoz— hizkuntza gehienetan agertzen dira. Eta badirudi "enplegu-emailea/enplegatua" dela botere-zamarik handiena atxikitzen duen harremana.

(6) Brownen hipotesi diakronikoak euskarari buruz egiaztatzea edo gezurtatzea ez da bat ere eginkizun erraza, batetik, idatzizko lekukotasunen berankor-tasunagatik, bestetik, haien urritasunagatik. Dokumentu zahar idatziek ez digute erakusten bere osotasunean hizkuntzaren gizarte-bizitza eta are gutxiago izenordainen bidezko tratamenduen eremu sozial murritz edo zabalagoa.

esan beharra dago, salbuespenak salbuespen, gaurko euskaran ez dela somatzen horrelako bilakaerarik. Gaurko euskaran, maiztasunezko hitano simetrikoa aukera berezi eta markatua da, senidetasunezko harreman jakin batzuetara (haurrideak, lehengusuak eta koinatuak) eta adiskide eta kideen arteko harremanetara mugatua; eta edozein kasutan ere, zalantzaren aurrean *V-V* izaten da aukerarik ohizkoen eta seguruena. Bestalde, sexuzko eta adinezko desberdintasunek, asimetrien eragileak diren neurrian, elkarrekiko hitanoaren aurka eta *V-V* aukeraren alde joka dezakete etorkizunean. Hitz batez esateko, ez dirudi inola ere *T-T* orokortzeko bidean dagoenik. Gainera, bildutako iritzien arabera, gaur-gaurkoz ez dirudi euskaldungo hikatzaileak begi onez ikusiko lukeenik –familiartean, behinik-behin– *T* simetrikoranzko aldaketarik. Are gutxiago, euskaldungo osoa gogoan hartzen bada, orduan joera garbi-garbia somatzen baita kortesiazko tratamendu elkarrekikoa *(V-V)* orokortzeko.

Labur bilduz, hitanoa tratamendu markatua dugu eztabadaren edo zutanoaren aldean eta, era berean, hitanoaren barne, noketa tratamendu markatua dugu toketaren aldean.

Azken iruzkin bat bukatzeko. Gure artean "tratamendu" eta "erregistro" terminoak era nahasian erabili izan dira, bata eta bestea erabat parekatuz. Horrela, adibidez, hikako tratamendua hizkuntzaren erregistro apalekin identifikatu izan da, esanez "lagunarteko erregistroa" dela, "arruntkeria" dela eta abar. Gure ustez, berdintze hori, nahi gabe, kaltegarri gerta daiteke hitanoaren iraupen eta zabalkunde "normalerako", adierazpen horretatik honako gaizkiulertua sor daiteke eta: hitanoak hizkuntzaren maila arruntera mugatua geratu behar du eta nekez gerta daiteke erabilgarri maila estandarrean edota jasoan. Gure ustetan azken ondorioztapena ez da zuzena. Berez, hikako tratamendua –beste edozein tratamendu bezalaxe– hizkuntzaren era elkarrizketatuari dagokion zerbait da eta "elkarrizketako era" izateak ez du esan nahi nahitaez hizkuntzaren erregistro apalenekin (estandarretik beherakoekin, hots, lagunarte-koarekin, herrikoiarekin edota arruntarekin) identifikatu behar denik eta literaturarako edota estandarrerako ezgai edo desegokia denik. Hitanoa "elkartasunaren" (berau kidetasunaren zentzuan ulertuta), etxekotasunaren eta lagunartekotasunaren tratamendua da, hizkuntzaren maila estandar eta jasoan ere elkarrizketaren orduan eta aipatu helburu adierazkorrez jantzita guztiz erabilgarri eta egoki gerta daitekeena. Gure ustez, beraz, "erregistro" eta "tratamendu" terminoak ez dira kontzeptu parekagarriak, nahiz eta sarritan kointzidentziak gertatzen diren: hikako tratamendua "lagunarteko erregistroan" gertatzen da maiz, baina horrek ez du esan nahi erregistro horretara mugatua geratu behar duenik (hizkera herrikoian, arruntean eta bestetan ere gerta daiteke-eta); hots, gure aburuz, tratamenduetariko bakoitzak ez du zertan egonik hizkuntzaren erregistroetariko bati (hizkera jasoa, estandarra, lagunartekoa, herrikoia, arrunta) atxikirik.

AIPAMEN BIBLIOGRAFIKOAK

BROWN, R. and GILMAN, A. (1960): "The pronouns of power and solidarity" in T. A. SEBEOK (1960): *Style in Language*, Cambridge, Mass., MIT Press. Baita in P. P. GIGLIOLI (1972): *Language and Social Context*, Penguin Books.

DE RIJK, R. P. G. (1992): "Familiarity or Solidarity?: The Pronoun *Hi* in Basque", *RIEV*, 1991-2 (Año 39), XXXVI, 373-378.

SEGUROLA, I. (1992): "Gizon, gizarte, gizagaixo", *Euskaldunon Egunkaria*, 1992,430, 26. orr.

HITANOA AHOZKO HIZKUNTZAN
(Euskal Herriko Hizkuntz Atlasaren arabera)

Leioa, 1994.10.04
G. Aurrekoetxea,
EHHA. Euskaltzaindia

Nire lankide batek, asko ez dela, "Euskal Herriko Hizkuntz Atlasa-(EHHA)" jaio aurretik umeak sortzen hasi dela, umeak aita baino lehenago hasi direla argia ikusten, alegia, esandakoari kasu egiten dio txosten honek. Halere, eta bitxitzat jo arren, ez da mirakulutzat hartu behar, proiektu honek bizi duen egoeraren adierazgarri baino.

Penatan gelditu ordez euskararen bilakaeraren gune garrantzitsua den honetan bere ekarria aurkeztu gura izan dugu, inora ez garamatzan negar-anpulua lehortzen egon barik. Batasunerako bidean ahozkoaren balioa eta beharra aldarrikatzen dugu, jakinik zenbat izerdi eta neketan sartu diren batzordekideak eta Euskaltzaindia bera.

Areago, jadanik eskuetan diren datuak ezagutu gabe behintzat standardizazioan aintzinerat joatea tamalgarritzat jotzen dugu.

Oraingoan, bada, hitanoaz EHHAk zer bildu duen azaltzen ahaleginduko naiz, nahiz badakidan gai honetan ni baino trebatuagorik izango den.

1. EHHAn ZER BILTZEN DEN

Alokutiboa era desberdinez lantzen da EHHAn; gai oso bat (93.a) dauka aditz forma alokutiboak lantzeko; 64 galdera erabiltzen dira horretarako eta, aditz laguntzaileaz gain, aditz trinkoen formak ere biltzen dira; oin diferenteak eta marka desberdinetako formak. Eta erregistro diferenteetan: *hitanoa* bai, baina *zuka* eta *xukazko* adizkiak ere ez dira ahaztu, hauek erabiltzen diren esparruetan (1).

Formez gain inkestagileak noiz, non, nola eta nori egiten dion ere itauntzen dio lekukoari, alokutiboaren erabileraz informazio zabala eskaini asmoz.

Azkenik, perpaus beregainez at, mendekoetan erabiltzen den ere aztertzen du beste galdera batean; halaber, adierazpenezkoetarik landa, galde perpausetan erabiltzen den ere.

---

(1) Ikus "Euskal Herriko hizkuntz atlasa: galdesorta / cuestionario / questionnaire", *Euskera* 1993-3, 529-648.

Gure txosten honetan datu batzuen irakurketa geolinguistikora mugatuko gara, ez dugu azterketa soziolinguistiko edota filologikorik egingo, azterketa diakronikoa egiteko tentazio handia izan arren.

2. ALOKUTIBOAREN MUGA SOZIALAK

Nork-nori-noiz-non egiten zaion ere ikertu du EHHAk bere ibilpidean. Galdesorta osoa itaundu ostean testu libre batzuk bildu dira. Testu hauetako batean alokutiboaz mintzatzen da, goiko galdera horiek egiten zaizkiolarik, elkarrizketan zehar, lekukoari. Testu libre hauek transkribatu barik utzi dira kasu guztietan. Halere, bada nora jo herriak, gaur egun, alokutiboaz zer uste eta nola erabiltzen duen jakiteko. Baina ez da hemen sakonduko, jadanik X. Alberdik aztertu du eta.

3. HITANOAREN HIZKUNTZ MUGAK

Alokutibozko formak ez dira ibiltzen ahal noiznahi. Bada esparru morfosintaktiko bat, zeinetan ezin den alokutiborik erabili. Erabilpenaren bi muga aipatu gura nituzke:

3.1. Muga sintaktikoa

Gramatika tradizionaletan, hala ikasi dut nik behinipehin, beti esan da alokutiboa perpausa adierazpenezko eta beregainetan baino ez dela erabiltzen edo erabili behar. *Euskal gramatika laburra*-k (2) perpaus txertatuetan "debeku argiak daude"la dio. EHHAk bi itaun egin ditu hitanoa adierazpenezko perpausez gain erabiltzen den jakiteko: galderazko eta menpekoetan.

Interesgune bi hauen arabera bi mapa gauzatu dira:

— Lehena galde perpausetan non egiten eta non ez den agertuko da (ikus 1. mapa). Ikus daitekeenez euskararen ekialdean izan ezik beste eremuan nagusi da perpaus mota honetan alokutiboa erabiltzea. Zuberera eta nafarrera beherera ia osorik dira, egitura hauetan, hitanoa onartzen ez duten euskalkiak. Beste eremu guztian, tarteetan hitanorik onartzen ez dituzten hizkerak azaldu arren (Lemoa-116, Kortezubi-127, Bolibar-132, Oñati-305, Zegama-313, Aia-322 eta Andoain-330), hitanozko formak errazki azalduko zaizkigu.

— Txertatuetan, ordea, murritzago da alokutiboaren erabilera (ikus 1. mapa). Mapa berean azaltzen diren hizkera banaka batzuetan (Mungia-110, Zaratamo-108, Larrabetzu-114 eta Errigoiti-119), denak bizkaieraren mendebaldean, baino ez da zilegi alokutiboaren erabilera honelako perpausetan. Hizkuntza gertakari

(2) Euskaltzaindia, 1993, 406. orr.

hau, ohartarazi nahi dut, Azkuek, jadanik, aipatzen duela Bizkaiko toki batzuetan egiten dela (3).

3.2. **Muga morfologikoa**

Era guztietako perpaus beregainetan zilegi ote da alokutiboa erabiltzea? Modua eta aldiari dagokionez [+ahal] eta [-ahal] batetik, eta *orain, iragan* eta *alegiazko* formetan ere itaundu du EHHAk.

Taula bat eginez zera genuke:

ALDIA MODUA	ORAINA	IRAGANA	ALEGIAZKOA
– KE	BAI (du)	BAI (zuen)	BAI/EZ (balu)
+ KE	BAI (duke)	BAI (zukeen)	BAI (luke)

Aldia, bai *orain* eta baita iragan denean ez da arazorik alokutiboa erabiltzeko. Alegiazko formetan, ostera, Euskaltzaindiaren proposamenean ez da *[-ke]* morfemadun adizkietako hitanozko formarik aurkituko. Ez omen da posible. Baina ahozko hizkeran badu euskarak eremu bat, zeinetan oso normal erabiltzen diren alokutibozko adizkiak, 2. mapan ikus daitekeen moduan: ohizko bizkaieraren eremuan, hain zuzen ere (Azkuek (4) *balitz* > *ballitzak/n*). Eremu honetatik kanpo irla batzuk baino ez dira agertzen: Itxaso-314, Andoain-330, Sunbila-414, Senpere-505 eta Itxasu-510.

4. **Alokutiboaren sistema desberdinak EHHAren arabera**

Azaleko datuak albo batera utzi eta sar gaitezen harira. Hitanoari buruz jasotako formak eta paradigmak ematen hasi ordez ezaugarri, indize edo morfema batzuen analisira mugatuko gara, beharrezko ez den astuntasunetik urruntzeko. Proposamenean azaltzen diren bidegurutze batzuk (ez denak) aztertzera mugatuko naiz.

4.1. Euskaltzaindiaren proposamenean NOR-NORK erako *edun* adizkietako erroa *-i-* egitea onartu da. Zelan gauzatzen dira ahozkoan edun-eko formak? EHHAk bildu dituen datuen arabera 3. mapa eraikitzen da. Bi eremu garbi azaltzen dira: bizkaierarena (*-u-* egiten duena) eta beste euskalki guztiek osotzen dutena (*-i-* egiten duena). Tartean bi irtenbideak ezagutzen dituzten iraganbide-hizkerak

(3) *Morfología Vasca*, GEV, Bilbo, 1969, 593. orr.
(4) *Idem*, 517. orr.

azaltzen dira, gipuzkeraren hego-mendebaldean kokatzen diren Urretxu, Legazpi, Zegama eta Itxaso, hain zuzen ere.

4.2. Pertsona aurrizkirik, ez erro-aldaketarik ez duten orainaldiko adizkeretan *z-* hobetsi da (*d-* aukeraren kaltetan) forma standardeko hitanorako. EHHAren arabera (ikus 4. mapa) bi eremu geolinguistiko desberdin agertzen dira: *d-* aukera erabiltzen da maparen ezker eta eskuman; hau da, bizkaiera eta ekialdeko hizkerek (zuberera, Baztanaldea eta Nafarroa Behereko ia hizkera guztiek) *yagok, diagok, yakik, diakik* eta antzeko formak erabiltzen dituzte. Erdigunean, hau da, gipuzkera, goi-nafarrera (Baztan salbu) eta Lapurdiko ia hizkera gehienek z- darabilte *(zegok, zekik, zetorrek, zioat, zioagu...).* Bi eremuotako mugetan ba dira hizkera batzuk bi aukerak ezagutzen dituztenak: Urretxu-311, Anitz-418 eta Itsasu-510 Lapurdin.

Ikusten denez, bi eremu eta bietarik *d-* aukeraduna dexente handiagoa delarik, hizkeretan behintzat.

4.3. Aditz trinkoetako orainaldietan *-a-/-e-* bikotean kokatzen da erabakigune berri bat proposamenean *(zagok/zegok...)*; lehena Iparraldeko eta bigarrena erdialdekotzat jotzen da. Eta erabilera ere kontuan izanik ez du hauturik egin Euskaltzaindiak, biak ontzat joz.

EHHAren datuen araberako mapan (ikus 5. mapa) *-a-* da geolinguistikoki zabalduen dagoen aukera (bizkaiera osoa, gipuzkerako hizkera batzuk (Urretxu, Legazpi, Andoain, Ibaeta-Donostia, Oiartzun...), Nafarroako eremu handiak eta Iparraldeko hiru euskalkietan); *-e-*dun formak gipuzkeraren zati batean eta goi-nafarrerako mendebaldeko hizkera batzuetan baino ez dira agertzen.

Ondorioz, kasu honetan eta alde geolinguistikoari begiratu *-a-*dun formak dira zabalenak, bai lurraldez eta baita hizkera kopuruz ere.

4.4. *Nor-nork* erako pluralgileaz *-it-* hautatzen da proposamenean. EHHAko datuetan zera dugu (6. mapa):

a) batetik *-z- (yosak, yoasen)*: bizkaieran, baina ez osoan;

b) *-it- (jittuk, ttik, ditik; jittuan, zitien, zitean)* hautua da luzeen erabiltzen dena: bizkaieraren ekialdean, gipuzkeraren hego-mendebaldean eta goi-nafarrera eta Iparraldeko 3 euskalkietan;

c) *-zki-*dun formak *(dizkik, zizkian)* oso urri dira eta gipuzkerako erdigunea baino ez du hartzen.

Bada eremu bat, gainera, gipuzkeraren mendebaldeko hizkerak osotzen dutena, forma hibridoak ezagutzen dituena edoeta bietarik.

4.5. Adizkera trinkoetan erro eta hitanoaren markaren arteko loturazko hizkitzat -e- hautatu du proposamen ofizialak. EHHAko datuak mapan proiektatuz hiru eremu desberdin genituzke (7. mapa):

a) mendebaldean (bizkaieraren eremuan) zuzen lotzen da, loturazko hizkirik gabe *(yabik/ñe, jabik/n; yatok/na, jatok; yakak/jakak)*;

b) erdialdean (gipuzkera eta mendebaldeko goi-nafarreran) *-e-* hizkia erabiltzen da *(zetorrek/datorrek, zebillek/dabillek, zekarrek/dakarrek)*;


c) ekialdean (Iparraldeko hizkerak eta Nafarroako ekialdeko hizkeretan) *-a-* da erabilia *(zabilak, dailak, zaukak, diakarrak, zailaian, zakoian...)*.

4.6. Azkenik, bizkaiera desitxuratzen doakigun lurraldetik andren alokutiboak bere eremu mendebaldarrenean agertzen duen ñabardura bat aipatu eta erakutsi gabe ezin dezaket amai: *-n* morfemaren ordezko *-na* morfema. 8. mapan ikusten den moduko *etorri dona, esan yotzena, joan yatana* (niri), *yabiñe* eta horrelakoak ere desagertzeko dauzkagu.


5. **Ondorioa**

Zer esan daiteke ondorioz? Badakit forma standard kultua gauzatzerakoan ikuspuntu geolinguistikoak ez direla bakarrak kontuan hartzekoak. Beste faktore batzuk ere begi aurrean izan behar direla eta, agian, garrantzi handiagoa izan beharko luketeela. Nire helburua batasunerako puntu honetan ikuspegi geolinguistikoa azaltzea izan da.


Ikusi duzuenez, erdialdeko euskalkiak (ohizko gipuzkera eta berdin direnean bere ekialdean diren euskalkiak) dira garaile ateratzen direnak proposamen ofizialean. Dena den, galtzailerik gabeko batua behar dela esaten bada ere, nik galtzailerik bakoa gura izango nuke.




1. mapa: alokutiboa galderazko eta menpeko perpausetan




2. mapa: alokutiboa alegiazko [-ahal] adizkietan




3. mapa: *edun* adizkietako erroaren aldaketa alokutiboan




4. mapa: ez pertsona aurrizkirik, ezta erro aldaketarik ez duten orainaldiko adizkerak alokutibean




5. mapa: alokuliboan aditz trinkoetako orainaldietan hartzen den bokala



6. mapa: nor-nork adizkietako pluralgilea alokutiboan



7. mapa: aditz trinkoetan erro eta hitanoaren markaren arteko lotura hizkia



8. mapa: andrazkoen hitanoa

ADITZ MODALEN ERABILPENA DELA ETA

Leioa, 1994.10.04
Alan King

Modal(tasun) terminoak bi esanahi izaten ditu gramatiketan, bata formala (morfosintaktikoa) eta bestea nozionala (semantikoa); hauek beti ongi bereizi izan ez badira ere, ez da komeni nahastea.

Kategoria formal bezala, *modalak* "laguntzaile modal" edo "aditz modal" direlakoen laburdura gisa agertzen da, batez ere gramatika ingelesetan (1). Ingelesez, hain zuzen ere, aditz egitura berezi batek eta laguntzaile multzo berezi batek adierazten dituzte nozio modal nagusiak, hala nola posibilitatea, beharra eta abar. Esan beharrik ez dago ingelesezko gramatiketan aipatu ohi diren aditz modalen ezaugarri nagusiak (2) —ezaugarri morfosintaktikoak, alegia— hizkuntza askotan bilatzerik ez dagoela (3).

Kategoria semantiko gisa, aldiz, *modaltasun* kontzeptua edozein hizkuntzaren azterketan erabil daiteke (4). Euskarak ere nozio modalak adierazteko bitartekoak baditu, izan; galdetu behar da, ordea, ea bitartekook *gramatikalizatuak* dauden eta zenbateraino.

Esate baterako, har ditzagun euskarak posibilitatezko nozioak adierazteko dituen bi era ezagun, *ahal*-ekin osatutakoa eta *-(te)ke* morfemaren bitartez osatzen dena. Egon, biak sistema gramatikalean daude, baina bigarren forma aspaldiko partez, euskararen prehistoriatik alegia, paradigma morfologikora pasatua da; ondorioz, maila sinkronikoan, bata adierazpide perifrastikoa dugu eta bestea trinkoa edo sintetikoa.

Posibilitatea adierazteko hirugarren era bat, *gauza/gai/kapaz izan* lokuzioekin lortutakoa, oraindik ez da *ahal*-ek eta *-(te)ke*-k ezagutu dituzten gramatikalizazio bideetan abiatu. Laburtuz, beraz, honako eskala hau dugu, gramatikalizazioaren arabera mailakatua:

gauza izan < *ahal* < *-(te)ke*

Euskararen adierazpide modalek erakusten dutenez, hizkuntza baten barruan edozein nozio adierazteko aukera desberdinak, eta maila desberdinetakoak,

---

(1) Ikus Richards et al. (1985:179), Trask (1993:173), eta hurrengo oharreko erreferentziak.

(2) Ikus adibidez Cobuild (1990:218), Halliday (1970/1976:192), Palmer (1986:33).

(3) Antzineko ingelesean ere ez omen ziren aurkitzen aditz modalen ezaugarri bereziok, edo ez hizkuntza modernoan bezala bederen (ikus Goossens, 1987).

(4) Hizkuntza naturaletan ez ezik logikan ere erabili izan da: ikus Allwood et al. (1977:108-124).

egon daitezke. Era berean, nozio modal *desberdinak* adierazteko forma nagusiak, edo formarik gramatikalizatuenak, ez dira beti maila berdinekoak izango, eta berriro euskara dugu honen lekuko:

gauza izan < *ahal izan* < *-(te)ke*

premia eduki < *behar izan* < ∅

gogoa eduki < *nahi izan* < ∅

1. MODALEN SAILKAPEN SEMANTIKOA

Modaltasuna, hitz gutitan esanda, egoerei edo gertaerei buruzko posibilitate, probabilitate, behar, asmo edota ustea isladatzeko proposizioen modifikazio mota bat da (5). Modaltasuna modutik bereiztea komeni da (6). Modua (edo era; *mood* inglesez) proposizioei dagokien errealitate –edo hipotesi– mailarekin zerikusia duen kategoria dugu. *Subjuntibo, optatibo, inperatibo/agintekera, hipotetiko/alegiazko*, eta modu ezmarkatua –*indikatiboa*– dira "modu" kategorian biltzen diren baliorik ezagunenetako batzuk; indikatibotik kanpo, hauek denok egiazko "mundutik" urruntze edo deslotze bat adierazten dute. *Modaltasunak*, berriz, delako mundu –balizko zein benetako– horren barruan gertakizun batek daukan gertatzeko posibilitate zein probabilitea neurtzen du. Hortaz, ondoko hiru perpausotan:

(1) Joango bazina, bazkaldu gabe geratu beharko zenuke.

(2) Joango bazina, bazkaldu gabe gera zintezke.

(3) Joango bazina, bazkaldu gabe geratuko zinateke.

"mundu" hipotetiko berdinaz ari da hiztuna, baina hiru nozio desberdin adierazten dira bakoitzaren bigarren atalean: (1)ean *beharra* (mundu horretan zer gertatuko den derrigorrez), (2)an *posibilitatea* (mundu horretan zer gerta daitekeen) (7), eta (3)an modaltasun ezmarkatu edo neutrala (mundu horretan zer gertatuko den).

Modaltasun mota desberdinen artean, garbien ikusten den bereizketa modaltasun *epistemikoaren* eta beste mota guztien artekoa da (8). Hitz gutxitan, modaltasun epistemikoak hiztunaren sinesmenak adierazten ditu. Ondoko bi adibideotan beharraren kontzeptu ez-epistemikoa (4) eta epistemikoa (5) kontrastatzen dira:

(4) Etxera joan behar duzu.

(5) Nekatuta egon behar duzu.

---

(5) Xehetasun gehiagorentzat, ikus King (1993:101-115 eta 263-290).

(6) Ikus Palmer (1986:2-23).

(7) Hegoaldeko euskaran; Iparraldeko hizkeretan, berriz, (2)ko egiturak askotan ondorio neutrala adierazten du. Ikus honetaz King (1987:96), King (1993:227).

(8) King (1993:108).

Badirudi semantika mailan honelako bereizketak hizkuntza guztietan egin daitezkeela. Baina bestalde, bion arteko anbiguotasun formalak askotan gertatzen direla dirudi (9).

Hizkuntza naturaletan erabiltzen diren modaltasunezko kontzeptuak oso subjektiboak eta labankorrak dira. Modaltasun mota desberdinak sailkatzeko —direla epistemikoak, direla bestelakoak— erizpide desberdinak erabil daitezke (10). Hizkuntza desberdin askotan formalki agerian egoten diren bereizketak (hala nola [beharra: ahala] edo [beharra: nahia]) oinarri bat izan daitezke; hiztun arruntaren intuizioa beste bat izan daiteke; eta corpus haundietako ikerketa kuantitatiboek ere zerbait adieraz dezakete gai honetaz (11). Hemen proposatuko den sailkapena ahalik eta sinpleena eta laburrena da, baina nahikoa izango da (12):

MODALTASUN EPISTEMIKOA:

- posibilitatea edo ez-segurtasuna
- probabilitatea
- beharra edo segurtasuna
- ezinezkotasuna

MODALTASUN EZ-EPISTEMIKOA:

- posibilitatea
- nahikundea
- beharra

Zerrenda honetako elementu bakoitza modaltasun mota bat da eta hortaz nozio xeheen multzo bat jasotzen du. Esaterako, "posibilitate ez-epistemikoaren" barruan *gaitasuna, baimena, ahalmena* eta abar luze bat biltzen dira; "nahikundearen" atzean *gogoa, asmoa* eta *joera* izkutatzen dira, besteak beste. Beraz, lema bat zenbait forma modali aplikatzeak ez du esan nahi forma horiek derrigorrez sinonimotzat jotzen direnik, baizik eta hein batetako kidetasun semantikoa somatzen diegula.

2. MODALEN SAILKAPEN MORFOSINTAKTIKOA

Ikusi denez, hizkuntza beraren barruan nozio modal batek askotan maila ezberdinetako gauzapenak izan ditzake, sistema gramatikalaren ikuspegitik; gogora dezagun adibide hau:

(9) Ikus Coates (1983:9), King (1993:107), Palmer (1965:106), Perkins (1982:245), Walton (1989).

(10) Ikus adibidez Palmer (1986).

(11) Coates (1983:28).

(12) King (1993:110).

gauza izan < *ahal* < *-(te)ke*

Katea hau gramatikalizazio prozesuaren bidez azaldu dugu; ikuspegi sinkroniko batetatik, *geruzapena* delako kontzeptuaz ere balia gaitezke (13). Frantses modernoan, adibidez, geroaldia bi modutan adieraz daiteke, hauek hizkuntzaren egituraren "geruza" desberdinei dagozkielarik: *je chanterai, je vais chanter.* Latinean beste geroaldi mota bat zegoen, hots cantabo, baina geruza hori aspaldi desagertu zen hizkuntza honetatik (14). Geruzapena prozesu orokor diakroniko baten ondorio sinkroniko bat da. Oro har euskararen aditz sistema osoa hiru geruza nagusitan eratua dagoela dirudi: esaterako *[dakar: ekartzen du: ekartzen ari da]* (15).

Gramatikalizazioaren beste alderdi bat, bestalde, *berriztapena* delakoa da (16). Denboran zehar, forma batzuk gramatikalizatu ahala, horren gramatikalizatuak ez ziren beste perifrasi batzuk formula bihurtu eta pixkanaka sistema gramatikalean sartzeko joera da. Hauek azkenean geruza berri bat osa dezakete. Maila sinkronikoan, ondorioz, nozio kidetuak adierazteko geruza desberdinetako eta jatorri ezberdinetako formak egongo dira.

Gramatikalizazio prozesuak, beraz, sistema morfosintaktikoa birmoldatu egiten du; bestalde, gehienetan modifikazio semantikoak dakartza. Forma gramatikalizatuagoen esanahiak orokorragoak, zabalagoak eta neutralagoak izaten dira; hortaz, geruza desberdinetako formen artean hautatzeak aukera semantiko edo erretoriko bat suposatzen du.

Hona hemen euskaran agertzen diren modaltasunezko esamoldeak, gramatikalizazio mailen arabera sailkaturik:

(A) Aditzaren morfologia sintetikoaren mailan, *-(te)ke* da indizio modal bakarra; posibilitate epistemikoa zein ez-epistemikoa adierazteko erabiltzen da (17).

(B) Aditz joko perifrastikoaren lehenengo mailan (hots, sistema perifrastikorik gramatikalizatuenean), modaltasunaren indizio bakarra bezala, zenbait erabileratan *-tuko* formarekin osatutako geroaldiko egiturak aipa daitezke, euskara informalean behintzat maiz posibilitate (edo ez-segurtasun) epistemikoa adierazten baitu (18), adibidez:

(7) Nekatuta egongo zara. (= "Nekatuta zaudeke.")

---

(13) Gramatikalizazioaz, ikus Heine et al. (1991), Hopper & Traugott (1993); eta modaltasunaren kontestuan konkretuki, Palmer (1986:3). Denbora perifrastikoen gramatikalizazioa batzuetan "auxiliarization" bezala ezagutu da: ikus Harris & Ramat, eds. (1987). Geruzapenaren kontzeptuarentzat ("layering" ingelesez), ikus Hopper & Traugott (1993:124), King (1993:99).

(14) Hopper & Traugott (1993:42).

(15) King (1993:202-262).

(16) "Renewal" ingelesez: ikus Hopper & Traugott, op. cit.

(17) Agirre (1991:742), Euskaltzaindia (1987:413 eta 430), Lafitte (1944:368, passim), Villasante (1980:59-62).

(18) King (1993:226).

(C) *Ahal, ezin, behar* eta *nahi*-rekin sortutako egiturak hirugarren "geruza" osatzen dute. Dudarik gabe, euskarak dituen adierazpide modalik gehienak, sarrien erabilitakoak, edo tipikoenak, multzo honetakoak dira, eta ondorioz, gramatikariek euskal "modalak" identifikatzerakoan hauexek aipatu ohi dituzte. Lafonek, Lafittek, Eguzkitzak, Wilbur-ek, eta Trask-ek, besteak beste, inoiz berezitzat hartu dituzte ikuspegi sintaktiko batetatik, dagokien kategoriaren izena proposatzerakoan guztiz bat ez badatoz ere (19). Hauexek dira behean aztertuko ditugun "euskararen modalak".

(D) Euskaraz modaltasuna adierazteko dauden baliabideak zerrendatu nahi badira, "modal"-tzat jo litekeen kategoria *formal* hutsa identifikatu ordez, laugarren "geruza" batetako zenbait aditzezko egiturak ez lukete aipatu gabe gelditu behar. Hauek gehienez ere bakarrik semigramatikalizatuak daude; horrexegatik, noski, ez dira agertzen gramatika deskribapenik gehienetan. Guk ere ez ditugu hemen sakonean aztertuko, baina aipamen bat derrigorrezkoa dela dirudi. Hona hemen, besterik gabe, erabilienetako batzuen zerrenda (nozio ez-epistemikoei dagozkie) (20):

(i) Posibilitatea: *-tzeko gauza izan, -tzeko gai izan, -tzeko kapaz izan, -tzen jakin, -tzeko modua (modurik) egon/eduki, -tzerik egon/eduki/ukan* (galderetan etab.).

(ii) Ezina: *-tzeko modurik ez egon/eduki, -tzerik ez egon/eduki/ukan* (22).

(iii) Nahikundea: *-tzeko gogoa ukan/eduki, -tzeko asmoa ukan/eduki, -tzeko asmotan ibili/...* (23)

(iv) Beharra: *-tzeko premia ukan/eduki, -tzeko izan/ukan* (latinezko gerundiboa bezalatsu erabilirik) (24).

(E) Baliabide linguistikoen zerrenda ez da amaitzen hemen aditzezko perifrasietara mugatzen ez bagara. Adibidez (25):

---

(19) Ikus Lafon (1943:134-141). Lafitte-k (1944:347) "semilaguntzaile" deitu zituen. Eguzkitzarentzat (1985:215) *ahal izan* eta *ezin izan* aditz modalak dira; *behar izan* eta *nahi-/gura izan*, ostera, "aditz semimodalak" deitzen ditu, bereizketa zenbait arrazoi sintaktikotan oinarritzen dituelarik. Wilbur-en eta Trask-en erreferentzientzat ikus 26. eta 27. oharrak behean.

(20) King-ek (1993:263-290 eta passim) dakar hauen deskribapen sakonago bat. Alzo-k (1961) ere badauzka adibide batzuk. Halere orokorki esan behar da gramatakariek ez dutela euskararen alderdi hau oraindik aski ikertu.

(21) Ikus Gramatika batzordea (biltzarre honetan), King (1993:254-6, 274-5).

(22) Ikus Euskaltzaindia (1987:472), King (1993:254-6, 287), Lafitte (1944:214, 221), Villasante (1980:101).

(23) Ikus King (1993:286).

(24) "Gerundiboa" dela eta ikus Agirre (1991:720), Alzo (1961:66), Euskaltzaindia (1987:468), King (1993:257, 282-4), Rebuschi (1982:482), Villasante (1980:194-5). (C) atalean bildutako egituratik *(joan behar dut)* desberdina den heinean, *behar*-ekin osatutako egitura alternatibo bat ere, *joan beharra dut/daukat*, hemen aipatzekoa da noski. Honetaz ikus Euskaltzaindia (1987:454), King (1993:241-3).

(25) Ikus King (1993:263-290 passim).

(i) Adberbio eta esapide adberbial batzuek modaltasuna adierazten dute (gehienetan epistemikoa): *beharbada, noski, derrigorrez, seguraski, dirudienez, nere ustez* eta abar luze bat.

(ii) Partikula modalek *(omen, ote, al, bide)* eta edo (zalantza adierazteko: *bihar edo*) beharbada modaltasun epistemikoa adieraz dezakete.

(iii) Beste adierazpide batzuk sintaktikoak dira, hala nola *Uste dut...-la, Bistan da...-la* eta antzekoak.

3. EUSKARAREN LAGUNTZAILE MODALAK

Ahal, ezin, behar eta *nahi* modu desberdinetan sailkatu izan dituzte gramatikariek. Partikulak direla diote batzuk (26), eta izenak beste zenbaitek (27). Kasu desberdinak ez lirateke nahastu beharko kontu honetan.

Adibidez, (8)an *behar* izena dateke, ez ordea (9)an:

(8) Zure beharrik ez daukat.

(9) Ez zaitut lagundu behar.

(10)ean *a(ha)l* partikula hutsa da, (11)an aldiz *ahal izan/ukan* aditza dugu (28):

(10) Isilduko a(ha)l zara?

(11) Ez zaitut laguntzen ahal.

Jakina, (11)an *ahal izan* aditza dela diodalarik, aditz konposatua esan nahi da, *maite izan/ukan* ere aditza den bezala (12)an:

(12) Ez ditut haur horiek maite.

Orobat, *behar izan/ukan* (9)an aditza da, *uste izan/ukan* aditza den hein berean (13)an:

(13) Ez dut uste joango denik.

Hortaz, (14a)ren analisia seguraski (14b) da, eta ez (14c) edo (14d):

(14a) ulertu behar duzu

(14b) ulertu + behar duzu

---

(26) Wilbur-entzat (1981:172) *ahal, behar* eta *nahi* "root-modal particles" lirateke, hau da, partikula modal ez-epistemikoak.

(27) Trask-en (1984) iritziz euskarak "modal nouns" (izen modalak) dauzka.

(28) Lhandek (1926 sub *ahal*) *ahal izan* aditza eta *ahal* partikula bereizi zituen, partikularen adibide hau emanez: *ahalbanabil* (Hiribarrena) 'si je puis aller'. Ekialdeko eta antzineko sistemei dagokienez, *ahal*-i buruzko zenbait puntu oraindik ilun samar gelditzen direla aitortu behar da: ikus honetaz King (1993:247), Wilbur (1981).

(14c) *ulertu duzu + behar

(14d) *ulertu behar + duzu

Eta (15a)rena (15b) da, ez (15c):

(15a) laguntzen ahal zaitut

(15b) laguntzen + ahal zaitut

(15c) *laguntzen zaitut + ahal

Hau da, kasu hauetan egitura orokorra (16) da, laguntzaileak beren aldetik aditz konposatuak direlarik:

(16) ADITZ NAGUSIA *(ulertu, laguntzen)* + LAGUNTZAILE MODALA *(behar duzu, ahal zaitut)*

Hala ere, laguntzaile hauen ezaugarri morfosintaktiko bat aditz nagusiaren sujeto eta objetoekiko komunztadura da; ezaugarri hau, euskal aditzaren sistemaren barruan, geruza oinarrizkoagoa osatzen duten laguntzaileekin dute amankomunean. Hortaz, (17)k eta (18)k objetuekiko komunztadura erregela bera konpartitzen bide dute:

(17) Zu lagunduko zaitut/*dut.

(18) Zu laguntzen ahal zaitut/*dut.

Fenomeno hau *nori* kasuko objetuetara ere zabaltzen da.

Gaur egun irakurtzen eta entzuten denetik juzkatzeko, laguntzaile modalen komunztadurari buruzko zenbait puntu ilun gelditu dira, edo bestela esanda, desadostasunak soma daitezke hiztunen edo idazleen artean. Beraz, modalen zenbait ezaugarri orokor eta amankomun ikusirik, goazen, zailtasun horiei bereziki erreparatuz eta erabilera zuzen edo gomendagarri batzuk aipatuz, banan-banan laburki aztertzera.

3.1. **Ahal izan**

3.1.1. Posibilitatea adierazteko erabiltzen den aditz modal hau forma trantsitibo nahiz intrantsitiboan agertuko da *—ahal dut zein ahal naiz*, alegia— aditz nagusiaren esanahiaren edo trantsitibitatearen arabera. Beraz,

(19) erosi/erosten ahal dut

(20) joan/joaten ahal naiz

3.1.2. Mendebaldeko euskaran esamolde honen erabilpena aski mugatua izan da, eta ez da gomendagarri erabilpen hori neurriz gain bultzatzea edo tradizioz *eros(i) dezaket* (edo honen aldaki dialektalak), *joan naiteke*, eta beste zenbait baliokide erabili ohi diren testuinguruetara larregi zabaltzea.

3.1.3. Era berean, noski, eta beti mendebaldeko erabileraz ari garelarik, ez litzateke egokia *eros(i) nezake* (bizkaieraz *neike*) eta *joan ninteke* baztertzea, *erosi ahal izango nuke, joan ahalko nintzateke* edo tankerakoez ordezkatuta.

3.1.4. Aparte utzi behar da denbora perifrastikoen eta forma ez-jokatuen kasua, non derrigorrezkoa baita *ahal izan*-en erabilpena (edo beste perifrasiren batena) adibide hauetan bezala:

(21) erosi ahal izan dut

(22) joan ahal izateko

eta abar.

3.1.5. Aipa dezagun hemen beste molde hau ere badagoela, nahiz eta honen erabilera gaur egun, literaturako erregistroaz kanpo, eskasagoa izan:

(23) eros ahal dezaket

(24) joan ahal naiteke

3.1.6. Ez da gutiago errespetatu behar Nafarroan eta ekialdean zabalduta dagoen erabilera bat, *ahal izan/ukan*-ez baliatzen dena alegia, baina ohar gaitezen tradizio horretan *eros dezaket*-en baliokidea (25) dela, ez (26):

(25) erosten ahal dut

(26) erosi ahal dut

3.1.7. Aditz nagusia isilpean gordetzen delarik aditz modal honek –besteek bezala, ikusiko denez– forma trantsitiboa hartzen du beti (esaldia inpertsonala ez bada behintzat: *ahal da* 'on peut, se puede'):

(27) Joan zaitezke? - Bai, ahal dut. (*Bai, ahal naiz).

3.2. **Ezin izan**

3.2.1. Euskalki guztietan, ezin elementuaz osatutako perifrasiak erabil daitezke ezinezkotasuna adierazteko. Baina ekialdeko euskalkietan hau ezinaren nozioaren adierazpide desberdinen arteko bat baizik ez den bitartean, (28) eta (29) ere esan daitezke eta:

(28) ez dut erosten ahal

(29) ez naiteke joan

mendebaldeko euskaran *ezin izan*-ekin osatzen da, (30) eta (31)an bezala, ideia hauek adierazteko bide nagusia:

(30) ezin dut erosi

(31) ezin naiz joan

Ez bakarra ordea, (32) ere esan bait daiteke, besteak beste, euskara informalean bederen:

(32) ez daukat joaterik/erosterik

3.2.2. Idatzizko literaturan, (30)az gainera, (33-35) ere agertzen dira:

(33) ezin erosi dut

(34) ezin dezaket eros

(35) ezin eros dezaket

Baina lau hauetarik, ohar gaitezen (30) dela zalantzarik gabe gaurko egunean gehienetan topatzen den forma; aldi berean, beste aukera horiek ezin gaitzetsi dira alternatiba estilistiko bezala.

3.2.3. Trantsibitateari dagokionez, *ezin izan*-en erabilera *ahal izan*-enaren antzekoa dela esan beharko genuke. Laguntzailearen formak aditz nagusiaren mota isladatzen du beraz: (30) eta (31) gonbara daitezela. Ez dirudi (36-39) euskal tradizioan orokorrenak direnik:

(36) ?ezin dut joan

(37) ?ezin joan dut

(38) ?ezin dezaket joan

(39) ?ezin joan dezaket

Halere, azken urteotan nahaste bat gertatzen ari da zenbait hiztunengan, erabileran berean ez ezik, zuzentasunari buruzko kontzeptuetan ere. Konfusio honen aurrean argitu beharra dago (31) dela bai jendeak normalean esaten duena, bai euskal tradizioz eta gure gomendioz esaten jarraitu beharko litzatekeena, eta ez (36).

3.2.4. Aditz nagusia falta denean, berriz, *ezin izan*-en forma beti trantsitiboa izango da (inpertsonaltasuna adieraztean izan ezik: *Ezin da!*):

(40) Joan zaitezke? - Ez, ezin dut. (*Ez, ezin naiz.)

3.3. **Behar izan**

3.3.1. Lehen aipatu da *behar* berez izena dugula, (8) eta (41) adibideek erakusten dutenez:

(41) Horren beharrean gaude.

Esan beharra dago, halere, izen gisa ere *behar*-ek baduela modaltasunarekin zerikusi handia (29). Lehenbizi, esanahiaren aldetik: nozio modal bat adierazten

(29) Konpara 27. oharra.

baitu, hots, "beharra" (premia, nahitaezkotasuna, ezinbestekotasuna, edo dena delakoa). Bigarrenik, aditz modalekin agertzen den ezaugarri sintaktiko berezi bat dela-eta: honen perpaus-osagarrietako aditzak partizipio forman agertzen baitira, eta ez beste izenenetakoak bezala (*asmo, gogo, modu* eta *premia* barne) *-tzeko* atzizkiarekin: hortaz:

(42a) Esan beharrik ez dago.

(42b) Zu ikusi beharrean nago.

(42c) Joan beharra daukat.

eta ez:

(43a) *esateko beharrik

(43b) *ikusteko beharrean

(43c) *joateko beharra

nahiz (44-47) eta abar erabili, bestalde:

(44) joateko asmoa

(45) joateko gogoa

(46) joateko modua

(47) joateko premia

Hurrengo lerroetan, berriz, interesatzen zaiguna *behar izan/ukan* aditz modalaren erabilera sintaktikoa izango da.

3.3.2. Erabilera hau dela eta, bi joera dira aipatu beharrekoak. Joera horietako batetan, *behar izan* beti forma trantsitiboan egoten da:

(48) erosi behar dut

(49) joan behar dut

inpertsonaltasuna adierazteko izan ezik, jakina:

(50) erosi behar da (= "norbaitek edo inork erosi behar du")

(51) joan behar da (= "norbaitek edo inork joan behar du")

(52) Kontuz ibili behar da gizon horrekin. *(zentzu inpertsonala)*

3.3.3. Joera nagusia da esandakoa: segur aski gaur egun halaxe idazten eta esaten dute euskaldun gehienek, eta guk ere erabilera horri jarraitzea gomendatuko genuke. Baina honen aldamenean beste joera bat ez da ezezaguna, aditz nagusi intrantsitiboekin *behar izan* intrantsitibo moduan erabiltzekoa alegia:

(53) erosi behar dut

(54) joan behar naiz

Bigarren erabilera hau nahiko zabaldua dago zenbait lekutan, batez ere ahozko hizkuntzan eta estilo informaletan. Ohar gaitezen aditz modal desberdinen erabilerak berdintzen direla, joera honekin, trantsitibitate kontuan. Nahiz eta erabilera hau, antza denez, hizkuntzaren barruko berezko bilakaeraren ondorio izan, eta logika izpirik falta ez bazaio ere sistemaren ikuspegitik, erabilera trantsitibo hutsa da sustraituena eta zabalduena, eta gaurko euskararen estetikan dudarik gabe dotoreena da; hortaz, euskara batuan *joan behar dut* erabiltzea gomendatzen da, *ez joan behar naiz.*

3.4. **Nahi/Gura izan**

3.4.1. *Behar* bezala, *nahi* berez izena da, nahiz *nahi*-ren izenezko erabilera zertxobait murritzagoa izan *behar*-ena baino, gehiagotan beste izen batzuk erabili ohi baitira, hala nola *gogo, borondate, desio, gurari* eta abar (30).

3.4.2. Orokorrean, *nahi izan* edo *gura izan* aditzen erabilera sintaktikoari buruz esan daitekeena *behar izan*-i buruz arestian esandakoa bera da. Badaude, alegia, 3.3.2 eta 3.3.3an aipatutako bi joerak berak. Euskara literarioari dagokionez, erabilera trantsitiboari atxikitzea gomendatzen da berriro-hots, (55) eta (56), (55) eta (57) erabiltzea baino hobe:

(55) erosi nahi dut

(56) joan nahi dut

(57) joan nahi naiz

Haatik, (57) ere zenbait lekutako euskaldunen artean bizirik dagoela eta erabat okertzat jotzeko arrazoirik ez dagoela gaineratu behar da. Egoera orokorra aski konplexua da, (54)en eta (57)en erabilerek distribuzio dialektal ezberdinak baitituzte, bakarrik lehena entzuten delarik mendebaldeko hizkeretan.

ERABILITAKO ITURRIAK

AGIRRE BEREZIBAR, J. M. (1991): *Euskal gramatika deskriptiboa.* Bilbao: Labayru Ikastegia.

ALLWOOD, J.; ANDERSSON, L. G., and Dahl, Ö. (1977): *Logic in linguistics.* Cambridge: Cambridge University Press.

ALZO, D. J. de (1961): *Estudio sobre el euskera hablado.* San Sebastian.

COATES, J. (1983): *The semantics of the modal auxiliaries.* Beckenham: Croom Helm.

(30) *Logura* bezalako hitz konposatuak alde batera utzita, *gura*-ren izenezko erabilpena *nahi*-rena baino are murritzagoa dela dirudi.

COBUILD (1990): *Collins Cobuild English grammar.* London: Collins.

EGUZKITZA, A. (1985): "Aditz modalak euskaraz". *Euskera XXX* (1985, 1: 215-221).

EUSKALTZAINDIA (1987): *Euskal gramatika: lehen urratsak*, 2. tomoa. Bilbo: Euskaltzaindia.

GOENAGA, P. (1985): "Nahi eta behar". In Melena, ed. (1985). *Symbolae Ludovico Mitxelena septuagenario oblatae.* Vitoria: Universidad del País Vasco.

GOOSSENS, L. (1987): *The auxiliarization of the English modals: a functional grammar view.* In Harris & Ramat, eds. (1987).

HALLIDAY, M. A. K. (1970): "Functional diversity in language, as seen from a consideration of modality and mood in English". *Foundations of Language* 6.3, 1970, 327-5. orr.

— (1970/1976): *Modality and modulation in English* [Halliday (1970)-ren laburpena]. In Kress, ed. (1976).

HARRIS, M. and RAMAT, P., eds. (1987): *Historical development of auxiliaries.* Amsterdam: Mouton.

HEINE, B.; CLAUDI, U. and HÜNNEMEYER, F. (1991): *Grammaticalization.* Chicago: University of Chicago Press.

HOPPER, P. J. and TRAUGOTT, E. C. (1993): *Grammaticalization.* Cambridge: Cambridge University Press.

KING, A. R. (1987): *Euskal aditzaren deskribapenaren arazo nagusiak.* In Salaburu, ed. (1987).

— (1993): *Communicative grammar of the Basque verb.* Tesi doktorala, University of London.

KRESS, G., ed. (1976): *Halliday: system and function in language.* Oxford University Press.

LAFITTE, P. (1944): *Grammaire basque. Navarro-labourdin littéraire* (éd. revue et corrigée). Reprinted, Donostia: Elkar, 1979.

LAFON, R. (1943): *Le système des formes verbales à auxiliaire dans les principaux textes basques du XVI^e siècle.* Donostia: Elkar, 1980.

LHANDE, P. (1926): *Dictionnaire basque-français.* Paris: Gabriel Beauchesne.

PALMER, F. R. (1965): *A linguistic study of the English verb.* London: Longman.

— (1986): *Mood and modality.* Cambridge: Cambridge University Press.

REBUSCHI, G. (1982): *Structure de l'énoncé en basque.* Tesi doktorala, Université de Paris 7.

RICHARDS, J. C.; PLATT, J., and WEBER, H. (1985): *Longman dictionary of applied linguistics.* Harlow: Longman.

SALABURU, P., ed. (1987): *Euskal morfosintaxia eta fonologia: eztabaida gaiak.* Bilbao: Universidad del País Vasco.

TRASK, R. L. (1984): *Synchronic and diachronic studies in the grammar of Basque.* University of London Ph. D. thesis.

— (1993): *A dictionary of grammatical terms in linguistics.* London: Routledge.

VILLASANTE, L. (1980): *Sintaxis de la oración simple.* Aranzazu: Editorial Franciscana.

WILBUR, T. H. (1981): "Basque syntax": *Euskalarien Nazioarteko Jardunaldiak.* Iker-1, pp. 169-186, Bilbo: Euskaltzaindia.

NEURTU ADITZAREN ERABILERA BERRIAZ

Leioa, 1994.10.04
Alfontso Mujika,
***Elhuyar** Kultur Elkartea*

Neurtu aditzak bi esanahiz erabiltzen da edo erabiltzen du zenbaitek gaur egun:

1. Esanahi zaharra, ohizkoa, jatorra: *hark hura neurtu* (norbaitek edo zerbaitek beste norbaiten edo zerbaiten neurriaren balioa zehaztu), hau da, neurtzailea eta neurtua daudelarik: *dinamometroak indarra neurtzen du.*

2. Esanahi berria: *hark hainbesteko neurria ukan* (norbaitek edo zerbaitek nolako neurria ukan), hau da, neurtzailerik ez dagoelarik: *isats eta guzti ez du 25 cm baino gehiago neurtzen.*

Bi esanahion erabilera-esparrua ez da berdina. Esanahi berriarena mugatuagoa da eta adizki jakin batzuk baino ez ditu onartzen.

Neurtu aditzaren ohizko erabileran, ohizko esanahiaz, neurtzen dena edozein magnitude fisiko izan daiteke (luzera, erresistentzia elektrikoa, denbora, abiadura, ...). Esanahi berriaz ordea, badirudi magnitude geometrikoez kanpo ezin erabil litekeela. Adibidez, *25 ampereko intentsitatea neurtu dugu eroale horretan edo 175 gradu zentigraduko tenperatura neurtu zuten labean* eta antzekoak normalak diren bitartean, ez dirudi **Intentsitateak 25 ampere neurtzen du eroale horretan* edo **Tenperaturak 175 gradu zentigradu neurtzen zuen labean* modukoak esan daitezkeenik. Beraz, erabilera berria onarturik ere magnitude geometrikoetara mugatuta egongo litzateke. Honako hauetara hain zuzen:

— luzera (zabalera, altuera eta sakonera barne)

leizeak 42 m neurtzen du

— azalera

golf-zelaiak 150 hektarea neurtzen du

— bolumena (?)

eraikinak 600 metro kubiko neurtzen du (?)

— angelua (angelu laua eta angelu solidoa)

angeluak 30 gradu neurtzen du/angeluak 0,3 estereorradian neurtzen du

Bestalde, ohizko erabileran, aspektuari dagokionean *neurtu* aditza forma burutuaz *(zangoko hezurrak neurtu zizkion),* ezburutuaz *(kronometroak denbora neurtzen du)* edo geroa formaz *(uraren hasierako tenperatura neurtuko dugu ondoren)* erabil daiteke. Erabilera berrian ordea, badirudi forma burutua ezin erabil litekeela *(*angeluak 45 gradu neurtu du / *eliz dorreak 50 metro neurtu zuen).* Alde honetatik pisatu aditzaren moldetik irteten da, honek forma burutua onartzen baitu *(hezurrak 5 kilo pisatu zuen).*

Erabilera berria erroturik al dago?

Gramatika batzordeak *Orotariko Euskal Hiztegiko* corpus-a arakatu du eta neurtu-ren 150 sarrera aztertu ditu, erabilera berria behin ere aurkitu gabe. Esanahi berriaz gaur eguneroko hizkeran zenbat erabiltzen den, sustraiturik dagoen ala ez jakiteko datu fidagarririk ez dago. Dena den, gaur eguneko euskara idatzian erabilera berri hori zenbateraino isladatu den jakiteko iturri ezin hobea da UZEIk landutako Egungo Euskararen Bilketa Sistematikoa (EEBS). Hona hemen EEBSren datuak:

Neur lema duten 505 agerraldi daude EEBSn eta horietatik 103 agerraldi dira neurtzen formakoak. 103otatik 82, hau da % 80, ohizko erabilerari dagokio eta 21, hau da % 20, erabilera berriari. Bestalde, *neur* lema duten gainerako formetan *(neurtu, neurtuko,...)* ez da erabilera berriaren lekukorik ageri.

Lekukotasunik zaharrenak 1971koak dira; Gexan Alfaro "Lantziri"-ren *Itsasoko gauza harrigarriak* eta Benantxio Otaegiren *Lehen gizarteak* liburuetan ageri dira. Hirugarren agerraldirik zaharrena 1975ekoa da; Jesus Altunaren *Ugaztunak* liburuan ageri da. Gainerako agerraldi guztiak 1980ko hamarkadakoak dira.

Erabilera berri hori irakaskuntzarako testugintzan diharduten hainbat erakunderen lanetan ere (Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saila, UZEI, Gipuzkoako Ikastolen Elkartea, Elhuyar Kultur Elkartea) ageri da inoiz. Dena den, badirudi erabilera hori ez dela sistematikoa eta euskarak kontzeptu hori adierazteko dituen gainerako egiturak ez dituela ordezkatu.

ONDORIOA

1. *Neurtu* aditzaren erabilera berri hori ez da inola ere ezinbestekoa euskara zientifikoan.

2. Erabilera berria ez dago oraindik oso errotuta euskara idatzian, baina errotze-bidean dagoela erakusten dute datuek.

NEURTU ADITZAREN ERREGIMENAZ

Leioa, 1994.10.04
Iñaki Azkune Mendia,
***Elhuyar** Kultur Elkartea*

Euskaltzaindiko Gramatika batzordeak bere bileretan "neurtu" aditzaren erregimenaz izandako eztabaida dela eta, Elhuyarkideoi iritzia eskatu zitzaigun. Hitz gutxitan, beraz, arazoa aurkeztu eta horri buruz gure aburu edo proposamenaren berri emango dugu.

Arazoaren aurkezpena

Euskaltzaindiko batzordeak dioenez, euskal literatura klasikoan *Mattinek etxea neurtu du* eta antzeko perpausak ugari dira, hor "neurtu" aditz iragankor arrunta delarik. Euskaltzaindiko batzordeak dituen datuen arabera, ordea, *Etxeak 10 metro neurtzen du/ditu* bezalako formarik ez da agertzen. Forma horiek tradiziorik gabeak eta aski berriak omen dira.

Zientzilarien artean *Angelu horrek 10 gradu neurtzen du/ditu* forma eta antzekoak maiz erabiltzen direla eta, ezinbestekoak diren ala ez galdetzen zaigu, hau da, *Angelu hori 10 gradu da* edo *Angelu hori 10 gradukoa da* formak erabilita ordezkatzerik ez ote dagoen.

Arazoari buruzko iritzia

Lehenik eta behin zientzia eta teknikaren alorreko hizkuntz erabilerak bermatu behar duen zehaztasunaren ikuspegitik, *A-k hainbeste (unitate) neurtzen d(it)u* ("Etxe horrek hamar metro neurtzen du") moduko adierazpenak erabiltzea gure ustez "ezinbestekoa" ez da. Horren ordez A-*k hainbeste (unitate)ko dimentsioa du* ("Etxe horrek hamar metroko luzera du"), A *hainbeste unitate* + *dimentsioari dagokion adjektiboa)* + *da* ("Etxe hori hamar metro (luze) da"), A-*k hainbeste unitate ditu* ("Etxe horrek hamar metro ditu"), A *hainbeste unitatekoa da* ("Etxe hori hamar metrokoa da") etab. bezalako egiturak erabil daitezke.

Horregatik ELHUYAR Hiztegi Entziklopedikoan "neurtu" aditza *zerbaiten edo norbaiten neurriaren balioa zehaztu* esanda definitu genuen, hau da, *Mattinek etxea neurtu du* adieraren arabera. Hemen tradiziorik gabekotzat hartzen den *norbaitek ala zerbaitek halako neurria ukan* adiera ("Mutil horrek metro t'erdi neurtzen du", "Angelu honek 10 gradu neurtzen du", etab.) zalantzazkoa zelako ez genuen ipini.

Dena den, *Angelu honek 10 gradu neurtzen du* eta antzeko egiturak askotan *Angelu horrek zenbat neurtzen du?* bezalako galderen erantzunak izaten dira.

Arazoari beste alderdi batetik begiratuz, esan beharra dago teknikaren munduan elementu eta pieza askoren neurriak (torlojoenak, adibidez) estandarizatuta daudela. Nazioarteko Estandarizaziorako ISO erakundeak, esaterako, torlojoen diametroak araututa dauzka. 1,6; 2; 2,5; 3; 4; 5; 6; 8; 10; 12; 16 ... milimetro diametroko torlojoak egiten dira, eta ez, adibidez, 3,25; 7,1; 11 edo 13 milimetro diametrokoak. Horregatik mekanikarien munduan *Zenbatekoa da torlojo hori?* galdetzen da, galderagileak eta erantzuleak estandarizazioaren berri dutenean, eta erantzuna *Hamar milimetrokoa da* motakoa izaten da. Baina estandarizatu gabeko edozein piezaren neurria jakin nahi denean, *Zenbat neurtzen du pieza horrek?* galdetu ohi da, eta erantzuna normalean *15 zentimetro neurtzen d(it)u* motakoa izaten da.

Badakigu piezak berak ez duela neurtzen; pertsonak baizik (pieza beste batek neurtzen du, hau da, piezak ez du neurtzen; piezak neurria dauka). Alde horretatik *Zenbat neurtzen du?* edo *Hamar zentimetro neurtzen d(it)u* erantzutea erdarakada litzateke.

Dena dela, gaur egun zientzilariek eta zientzilari ez diren euskaldun arruntek (edozein mekanikarik, zurginek ...) *Zenbat neurtzen du?* eta *Hamar zentimetro neurtzen d(it)u* egiturak oso maiz erabiltzen dituzte. *Leiho horrek zenbat neurtzen du?* galdera egiten da normalean, eta ez *Leiho hori zenbatekoa da?* Zenbatekoa den galdetzeak, gaur egun galderagileak eta erantzuleak estandarizatutako leihoen neurriak (70 zentimetrokoak, 80koak, 90ekoak ...) badakizkitela eta araututako baten galde egiten duela esan nahiko luke.

Beraz, *Angelu horrek zenbat neurtzen du?* eta *Angelu horrek 10 gradu neurtzen d(it)u* egitura saihesterik badagoen arren, jende arruntak nekez baztertuko duela iruditzen zaigu; *Zenbat balio du?, Zenbat pisatzen du?* eta antzekoak ondoan izanik endemas.

Bestela esan, gaur egun *Zenbat neurtzen du?* eta *Hamar zentimetro neurtzen d(it)u* egiturak okertzat jotzea "galdutako gerra" litzateke.

NEURTU ADITZAREN ERREGIMENAZ

Leioa, 1994.10.04
Julio Garcia,
Kepa Altonaga,
Martxel Ensunza,
Jose Ramon Etxebarria.

Gramatika batzordeak eskaturik, zenbait kontsiderazio egingo ditugu *NEURTU* aditzaren erregimenaren inguruan.

Batzordeak adierazi digunez, literatura klasikoan erraz aurki daitezke *Mattinek etxea neurtu du* bezalakoak —aditz iragankor arrunta, ikus daitekeenez—, baina inoiz ere ez *etxeak hamar metro neurtzen du/ditu* bezalakoak. Hau da, gaur egun hain sarri erabiltzen diren *zenbat metro neurtzen du mutil horrek?* bezalakoek ez dirudi inolako tradiziorik izan dutenik. Aitzitik, aski berriak direla dirudi. Hala ere, Batzordean bertan, baten batek, zientzilarien artean holakoak erabiltzea ezinbestekoa dela aipatu zuen; adibidez, *angelu horrek 10 gradu neurtzen du* motakoak.

Hori dela eta, hona hemen Batzordeak luzatu digun galdera: hain beharrezkoa al da hori horrela esatea? Ez al da beste modurik? Gure aldetik, eginiko galderari elkarrekin bateragarriak diren bi oinarri desberdinez edo bi ikuspuntutatik erantzutera saiatuko gara, geure eritzia horietan finkatuko dugularik.

1. OSAGARRI ZUZENAREN ETA EGITURA LOGIKOAREN ARABERAKO ERITZIA

Plazaratutako galderari erantzun zuzena eta zehatza eman behar baldin badiogu, ondokoa esan beharra daukagu: aipatu diren esaldiak, beste modu batean adieraz daitezke, gure ustez. Esate baterako,

— *Etxeak 10 metro neurtzen du/ditu* esan barik, *etxearen neurria 10 metro(ta)koa da* esan dezakegu.

— *Zenbat neurtzen du mutil horrek?* esan barik, *zein da mutil horren neurria/altuera?* edo *zenbatekoa da mutil horren neurria/altuera?* esan dezakegu.

— *Angelu horrek 10 gradu neurtzen du/ditu* esan barik, *angelu horren neurria 10 gradu(ta)koa da* esan dezakegu.

Zalantzarik ez dago, lehenengo motako egitura horiek kalkoaren bidez sortuak direla, hau da, erdaraz *"medir"* aditzak dituen adierak eta jokaera, besterik gabe, kalkatu egin direla; eta kalkoa ekidin daitekeenean edo ondo eginda ez da-

goenean (morfologikoki, sintaktikoki, edota semantikoki) hobe da, gure eritziz, bestelako baliabideak erabiltzea. Horregatik, jarritako adibideen kasuan, bigarren moduan eginiko esaldiak hobesten ditugu.

Baina, bestalde, segidan aipatuko ditugun adibideak, erabat zuzenak dira gure aburuz, *"neurtu"* aditzaren erregimena, kasu hauetan ere, ZER-NORK delarik:

— *Topografoak 10 aldiz neurtu du mendi bien arteko distantzia.*

— *Behatzaileak neurtu/neurtzen duen abiadura arbuiagarria da.*

— *Dinamometroak indarra neurtzen/neurtu du.*

— *Dinamometroek indarrak neurtzen/neurtu dituzte.*

— *Entropia neurtzen duen funtzioak tenperaturarekiko menpekotasuna du.*

Ikus daitekeenez, bigarren motako esaldi hauetan, osagarri zuzena neurtutako objektua da, eta subjektua, neurtzailea —pertsona edo tresna—, neurtzen duena alegia. Horretan datza korapiloa askatzeko gakoa eta horixe da, gure eritziz, bide zuzena.

Oso alderantziz, desegokitzat dauzkagun esaldien kasuan, duten egitura dutelako, dirudienez, neurtzen duena neurtua den objektua da izatez, eta osagarri "zuzen" modura darabilguna, ez da neurtutakoa, neurtutakoaren neurria baizik. Erabilmodu hori kontzeptualki eta logikoki ere gaizki dagoelakoan gaude. Arrazoi horregatik, desegoki deritzogu erregimen horri, eta, bestelako posibilitaterik ere badugunez, baztergarri.

Labur esanda, ikuspuntu honetatik, gure eritziz, arazoa osagarri zuzenean datza. Osagarri zuzen hori neurtu den objektua bada, *"neurtu"* aditza erabil daiteke oztoporik gabe. Baina osagarri zuzen modura *"neurria"* —hots, neurketaren emaitza— erabiltzea, desegokia da. Kasu honetan *"neurri"* izena erabili behar da. Zer esanik ez, kasu bietan aditzaren aspektua oso kontutan hartu behar da.

2. *NEURTU* ADITZAREN ASPEKTU SEMANTIKOAN OINARRITURIKO ERITZIA

Ikuspegi honetatik, darabilgun auziaren muina, ez datza hizpide ditugun bi esapide horien erregimenean, beraien aspektualitatean baizik, edo, zehatzago esatearren, beraien aspektuzko izaeran.

Aspektualitatean, oro har, aspektu gramatikalaren eta aspektu semantikoaren arteko bereizketa egin ohi da.

a) Lehenengoa, *aspektu* izena eman ohi zaiona, aldi jakin batean situazioak duen garapen-fasea adierazteko erabil daitezkeen baliabide sintaktikoei datxekie (Gramatika Batzordeak ekarririko terminologia erabiltzearren, aspektu burutu edo burutu gabeei doazkien markak lirateke).

b) Bigarrena, ostera, aditzaren —edo aditzak eta berau osatzen duten osagai desberdinek sortarazten duten— adierari dagokio (iteratibitatea, inkoatibitatea,

ohizkotasuna, berehalakotasuna, ...) edo baita situazio bakoitzari antzeman dakiokeen barne-egitura edo izaerari ere, hau da, situazioa egoera izan edo ez izateari (estatiboa/ dinamikoa oposaketa), iraunkorra izan edo ez izateari (iraunkorra-/puntuala oposaketa), eta berezko bukaera izan edo ez izateari (telikoa/atelikoa oposaketa).

Sailkapen errazena ematearren goiko hiru erizpide horietaz baliatuz gero, ondoko situazio-mota hauek bereiz daitezke:

— Egoerak (+estatiboa, +iraunkorra, -bukaera): *egon, ezagutu.*

— Iharduerak (-estatiboa, +iraunkorra, -bukaera (atelikoa, alegia)): *korrika egin, edan.*

— Burutzapenak (-estatiboa, +iraunkorra, +bukaera (telikoa, alegia)): *edalontzi bat ur edan, liburu bat irakurri.*

— Lorpenak (-estatiboa, -iraunkorra, +bukaera): *heldu, jo.*

Situazio-mota hauek elkarretik bereizteko, test sintaktiko-semantikoak erabiltzen dira.

Bigarren aspektu-mota honi izen bat baino gehiago eman ohi zaio, maizenik *aktionsart* edo *ekintza-mota* erabiltzen direlarik. Batzuek, hala ere, esanahiari lotuago dauden sailak (iteratibitatea, inkoatibitatea,...) barne-egiturari doazkionetatik bereiztearren, azken hauek izendatzeko, *ezaugarri aspektual* izena erabiltzen dute. Txosten honetan gu ere bereizketa horretaz baliatuko gara, situazioen ezaugarri aspektuala delakoa baizik aintzat hartuko ez dugularik.

Sarreratxo hau —ondoren erabiltzekoak diren argudioak ulertzeko funtsezkoa— bukatu eta gero, lot gakizkien hizpide diren bi esapideei: *Mattinek etxea neurtu du, etxeak hamar metro (neurtzen) du / etxea hamar metro da.*

Abiatzeko, diogun esapide hauek dakartzaten situazioak ezaugarri aspektual desberdinei dagozkiela. Horrela, estatiboa/dinamikoa oposaketa (kasu honetan erabiltzeko bakarra) erabiliz gero, lehenengoa, *Mattinek etxea neurtu du* alegia, situazio -estatiboa dugu, hots, dinamikoa; bigarrena, berriz *(etxeak hamar metro (neurtzen) du / etxea hamar metro da.)* +estatiboa. Berau frogatzeko, oposaketa honetako osakideak elkarretik bereizteko erabiltzen diren testetariko batzuez baliatuko gara: progresibitatearen testaz, egin aditzaren testaz, eta aditzondoen testaz.

Lehenengoaren arabera, situazio estatiboek, salbuespenak salbuespen, ez dute progresibitatea adierazten duen baliabiderik onartzen; dinamikoek, ostera, bai. Horrela, *Mattin etxea neurtzen ari da* esan dezakegu, baina ez, **etxea bi metro izaten (neurtzen) ari da.*

Bigarren testak, situazio estatibodun esapideek —dinamikodunek ez bezala— *egin* aditzak sarturiko esaldirik ondo onartzen ez dutela adierazten du: *Mattin egiten ari dena, etxea neurtzea da / *etxea egiten ari dena, bi metro izatea da; Mattinek egin duena, etxea neurtzea izan da / *? etxeak egin duena, bi metro izatea izan da.*

Eta azkenik, aditzondoen testa dugu. Test honen arabera, situazio estatiboek beren izaeraz nekez onartzen dute dinamismoa adierazten duen aditzondorik: *Mattinek astiro/arin neurtu zuen etxea / *etxeak bi metro zuen astiro/arin.* Orobat, situazio estatiboek, nekez onartzen dute moduzko aditzondorik: *Mattinek arretaz neurtu zuen etxea / *etxeak arretaz zuen bi metro.*

Badira test gehiago, situazio estatiboak dinamikoetatik bereizteko erabil daitezkeenak, baina ondorio bera lortuko genuke.

Hortaz, situazio-mota bi daukagula frogatu ondoren, emateko hurrengo urratsa, euskaraz bi situazio-mota horiek era berera ala banatara eraikitzen diren aztertzea izango genuke. Horretarako, hiztegi eta liburuetara jo behar dugu, literatura-usadioa ikertzeko. Eta hori eginez, ondoko adierazpen hau egin daiteke: aditz estatibo banaka batzuen kausan *(etzan, ezagutu, jakin)* izan ezik –zeintzuek adizki sintetikoak dauzkaten– berezko ezaugarria edo situazio estatibo iraunkorra (ez ohizkoa) adierazi nahi denean, *-tzen* aspektu-marka ez daramaten baliabideak erabili ohi dira, batez ere aditz-esapideak: *maite izan, gorroto izan, beldur izan, nabari izan, salgai egon, zapore izan, usain izan, lotsa izan, min izan, zalantza izan, bekaizti izan, ageri izan, espero izan, merezi izan, begirune izan,* ... Aditz hauek guztiok situazio estatiboa ematen dute aditzera, eta ohizkoa ez den situazioari dagozkiolarik, kalkoz ez bada, ez ohi dute *-tzen* marka eraman. Aitortzekoa da, hala ere, *maitatu, gorrotatu, beldurtu, usaindu, lotsatu, mindu, agertu,* ... gisako aditzak ere ba direla, baina gehienetan ez dira situazio bakar eta iraunkorra adieraziz aurkitzen; horietariko zenbaitek are aditz-esapidearenaz bestelako adiera daukate, adibidez, *usain izan/usaindu, min izan/mindu, beldur izan/ beldurtu,... (eta neurria izan/neurtu?).*

Txosten honen hariari berriro eutsirik, hauxe esan dezakegu: batetik, bi situazio-mota (bata dinamikoa eta bestea estatiboa) darabilgula; bestetik, euskarak, oro har, bi situazio-mota horiek eraikitzeko bide bereziak dauzkala; eta, azkenik, hizpide dugun kasu jakin honetan, usadioa oinarri hartuz, bereizketa hori gauza daitekeela ikusita, ikuspegi sintaktikotik ez deritzogu zuzen bietarako egitura berberaz, hau da, neurtu aditzaz baliatzeari. Gure ustez, bi situazio horietarik zein adierazi nahi den, adiera hori duen baliabide egokia erabili behar da.

Beste aldetik, eta zientzi arloan bi situazio horiek adierazteko *neurtu* aditza ezinbestekoa delako baieztapenari gagozkiolarik (berori auzi honen eragile delarik), aipatu ezinbestekotasun hori benetakoa ez dela frogatzen saiatuko gara. Gure ustez, situazioa estatibo denean, *neurtu* aditz honek ez du inolako ñabardurarik ez argibiderik ekartzen *etxe hori hamar metro (luze) da / etxea hamar metro(ta)koa da direlako* egituren aldean, hau da, Gramatika Batzordeak proposaturiko egituren aldean.

Frogapen horretarako, gorago erabiliriko bi esapideetatik abiatuko gara: *Mattinek etxea neurtu du/ *etxeak hamar metro neurtzen du.* Aditz beraz baliatu bagara ere, ezin eman diezaiokegu aditz horri adiera bera biotan, izan ere, parafrasia eginez hauxe baikenuke: *Mattinek etxeari neurria hartu dio* edo *etxearen neurria hartu du,* lehenengoari bagagozkio, eta *etxeak hamar metroko neurria du,* bigarrenari gagozkiolarik. Azken hau batzordeak proposaturikoekin erkatuz gero, aise antzemango dugu batak zein besteek etxeaz informazio berbera dakarkigu-

tela, etxeak, kasuan kasu, hamar metroko zabalera, luzera edo altuera duela, alegia.

Bestalde, *neurtu* adiztun egiturek gabekoen aldean ekar lezaketen ñabardura bakarra, neurriaren ideia izango litzateke, batzordeak dakarzkigun egituretan kontzeptu hori argi eta garbi ez baita inon ageri; baina, *metro* edo *gradu* hitzak neurri-sistema jakinei datxezkiela eta, beraz, neurriaren ideia hori berez dakartela aintzakotzat hartuz, ustezko ñabardura horrek gure argudio-hariari buruz lekarkeen eragozpena zeharo gainditua daukagulakoan gaude.

Bukatzeko, diogun ez dugula maila sintaktikoan ez semantikoan inolako ezinbestekorik atzeman zerbaiten neurria adierazteko neurtu aditza erabilarazten digunik; bai, ordea, ez erabiltzera garamatzaten argudioak.

Hortaz, gure eritziz, *etxea bi metro(ta)(koa)(luze) da / etxeak bi metro(ta)ko neurria du / etxearen neurria bi metro(ta)koa da* edota, beste adibide bat jartzeko, *angelu hori hamar gradu(koa) da / angelu horrek hamar graduko neurria du / angelu horren neurria hamar gradu(ta)koa da* gisako esapideak egokiak dira, eta *etxeak bi metro neurtzen du* edo *angelu horrek hamar gradu neurtzen du* desegokitzat dauzkagu.

Amaitzeko, diogun ezen *"neurtu"* aditzari buruz eginiko kontsiderazioak *"pisatu"* aditzari buruz ere luza daitezkeela, eta *"neurria"* hitzaz esan duguna, bestelako zenbait neurri-mota desberdini ere aplika dakiekeela, hala nola, *"luzera", "altuera", "bolumena", "masa"* eta antzekoei.

Eta hasieran eginiko galderaz pixka bat urruntzea bada ere, esandakoaz gainera, lehenago aipaturiko "aditzaren aspektu burutu edo burutu gabea" ere arduraz aztertu beharreko kontua dela uste dugu, gaur egunean alde batetara utzita dagoelakoan baikaude, horrek dakartzan ondorio kaltegarriak oso nabarmenak izanik. Ekintza burutu gabe edo buruturik dagoen markatzen duten -TZEN/-TU formen erabilpenari buruz ari gara. Edozertara, puntu horrek aparteko azterketa berezia eskatuko liguke, agian, eta, horregatik, txosten labur honetan geure kezka hori plazaratzea besterik ez dugu nahi.

LEIOA, 1994.10.05

Lexiko Ebazpenen Finkapena
(LEF)

LEF BATZORDEA

Burua:	Miren Azkarate
Idazkaria:	Jose Antonio Aduriz
Kideak:	Patxi Altuna Xipri Arbelbide Martxel Ensunza Patxi Goenaga Jose Mari Larrarte Luis Mari Mujika Beñat Oihartzabal Lourdes Otaegi Elixabete Perez Gaztelu Andoni Sagarna Patxi Uribarren Tomas Uribeetxebarria Patri Urkizu Mikel Zalbide

ERATORPENAZ (*)

Bi urte eman ditu LEF batzordeak erator-atzizkiak aztertzen, Azkuek eta Villasantek egindako lana osatu, eta azken urteetako erabilerak ikertu nahian. Lan horren ondoren, atzizki bakoitzaren tradiziozko erabilera zein izan den eta azken urteotan zertan desbideratu garen jakin ahal izan dugu. Horixe da txosten honen helburua hain zuzen, erabilera okerrak bildu eta zuzentzeko bideak eskaintzea.

Lau modutako auziak aipa daitezke azken urteetan sortutako hitz eratorriak direla eta:

1. Atzizkiaren lema eta aldaeren distribuzioa finkatzeko zailtasunak. Halakoak dira *-ari* eta *-lari* formen artean edo *-ar / -tar* bikotean sortzen direnak. Atzizkiaren beraren lema zein den jakiteko ere buruhausteak ditugu *-go(a)* eta *-xka (-ska), -xka (-ska)* atzizkietan behintzat.

2. Atzizki jakin batek eskatzen duen oinarriaren kategoriatik sortzen dira beste huts egite batzuk. Hemen sartuko genuke 'aditzoina + *-ari*', 'izena + *-gailu*' edo 'izena + *-kor*' erabileretarako debekua (edo halakoetan kontuz ibili beharra, behintzat). Halaber aditz-izenak sortzeko, *-era* eta *-keta* atzizkien arteko bereizkuntza, oinarriko aditzoinaren araberakoa.

3. Akatsik larrienak, ordea, atzizkiaren adiera aldatu den neurrian egin ditugu. Leku berezia eskatzen dute hemen *-go(a)* eta *-garri* atzizkiek; bai eta *-garri*-ren erabilera okerraren ondorioz aldi berean okertu den *-kor* atzizkiaren erabilerak ere.

Adiera kontuak direla eta, bada aipatu beharreko beste joera nagusi bat ere, batez ere azken urteetan garbi ikusten dena: oinarriaren kategoria alde batera utzirik, atzizki jakin bat adiera jakin baterako —eta horretarako bakarrik— erabiltzearena, alegia. Besteak beste, pertsona baten lanbidea adierazten duten izenak (nahiz euskaraz sortuak nahiz maileguz hartuak izan) *-ari* atzizkiaren bidez moldatzen ari gara. Lekua adierazteko, *-tegi* baino ez dugu; kualitate txarra adierazten duen izena eratzeko *-keria* eransten diogu edozein kategoriari...

4. Azkenik, maileguen egokitzapenetatik sortzen zaizkigun eztabaida eta zalantzak ditugu. Erdal hitza eratorria denean, erdal atzizkiaren ordez dagokion euskal atzizkia jartzea izan da oro har azken urteetako

(*) Txosten hau, Donostian 1994ko urtarrilaren 28an, eta Gasteizen, apirilaren 22an, egindako LEF Jardunaldietan auzkeztu zen.

joera (lehenagoko garaietan ere ez da halako adibiderik falta, noski). Erdal *-ario*, lanbidea adierazten duena euskaraz *-ari* forman egokitu behar den, erdal *-torio/-terio* dagoen lekuan euskaraz *-tegi* ezarri behar dugun etab. da auzirik eztabaidatuenetakoa gaur egun.

Horrelakoetan, ordea, "maileguen egokitzapena" izaten da auzia, ez euskal oinarri bati atzizki bat eranstetik sortzen dena. Horregatik nahiago izan dugu puntu hau berariaz aztertertzea, Hiztegi Batuko batzordearen langaietan sartuz.

Eztabaida-puntuak horrela multzoka daitezkeen arren, atzizkiak banan-banan aztertuko ditugu. Izan ere, behin baino gehiagotan gertatuko zaigu atzizki bat alderdi batetik baino gehiagotatik eztabaidagai izatea. Hobeto iruditu zaigu atzizki bakoitzari dagokion guztia batera aurkeztea, bizpahiru puntutan sakabanatu gabe.

-ARI (-lari, -tari / -dari)

Alderdi askotatik da aipagai atzizki hau.

1. Lema eta aldaerak

Gaur egun auzia *-ari* eta *-lari* formen arteko banaketan dugu, *-lari* aldaera nagusitzen ari baita. Azken batean aski litzateke *-ari* noiz erabili behar den zehaztea, gainerakoetan *-lari* izango baita aukeratuko dena. Oinarriaren amaieraren arabera erabaki daiteke bi formen artean zein hautatu, eta hartara gomendio bakarra ematea aski litzateke:

-a + -ari: oinarria *-a* bokalaz amaitzen denean, eta batez ere hiru silaba edo gehiagoko oinarrietan

dantzari, tabernari, pelotari, dendari, errotari

etabar bezala, berrietan ere

fisikari, politikari, gramatikari, kritikari

bultzatu, eta ez

fisikalari, politikalari, gramatikalari...

Halakoa izan da azken urteetako jokabidea ere. Honek ez du esan nahi, jakina, oso sartuak dauden *hizkuntzalari* bezalakoak aldatzen hasi behar denik.

-ia bukaerako oinarrietan, joera, amaierako *-a* galduaz, *-i* + *-lari* egitekoa da:

biologilari, zientzilari, filosofilari, teologilari...

Hauen ondoan, ezin ahantzi hor ditugula aspaldidanik *filosofo, teologo* etab., eta berriagoetan ere bide hori jarraitu dela, *podologo, pedagogo* edo *tokologo* izenek erakusten duten bezala.

Gainerakoetan ez dirudi gomendio orokorrik eman daitekeenik.

2. Oinarriaren kategoria

-ari atzizkiaren oinarria izen kategoriakoa izan da, eta aditzoin kategoriako oinarriari *-le* edo *-tzaile* erantsi izan zaio. Izena izateaz gainera, arrunta eta bizigabea tasunak izaten ditu *-ari*-ren oinarriak. Hala ere, honek ez du esan nahi edozein izen arrunt, bizigabek har dezaketenik *-ari*: guztiok baitakigu *mahaiari* edo *elizari* bezalakorik ez dela sortzen. Bidezko dirudi, beraz, hala egitea aurrerantzean ere eta *ikerle* edo *ikertzaile* esatea (aurreraxeago arituko gara bi forma hauen arteko auziaz), ez *ikerlari. Aurkezle* hobe, *aurkezlari* baino, etab. Erabat sartua dugun *gidari* eta besteren bat ere bere horretan utzi daitezke, noski.

Dena dela badira aditzoin berari bi atzizkiak, *-le* eta *-ari*, erantsiz sortutako izen bikoteak ere, esanahi diferentea dutenak:

zuzendari - zuzentzaile, zaindari - zaintzaile, idazkari - idazle...

Erabat zuzen eta onargarri diren bikote horietan *zuzendu* aditzaren bi adiera desberdin daude oinarrian, edo *idatzi* ekintzarekin loturiko bi lanbide desberdin. Horrelako kasuetan zilegi da, beraz, aditzoin berari *-le* edo *-tzaile* eta *-ari*, biak eranstea.

Zenbaitetan, gerta daiteke *-ari* eta *-tzaile* atzizkiez eratutako bikoteak aurkitzea, bi oinarri-kategoria desberdinetatik sortuak, eta biak ontzat eman daitezkeenak. *Ikuskari* eta *ikuskatzaile* bezalakoez ari gara: *ikuska* (aditzondoa) + *-ari* lehena (Iparraldean tradizioa duen eramoldea, nahiz jatorriz aditzondo moduan erabiltzen ziren halakoak) eta *ikuska(tu)* + -tzaile, aditzonoinetik sortua, bigarrena. Pentsa dezakegu benetako sorbidea bigarrena litzatekeela (ondoan erdarazko *inspector/inspecteur* baititu), baina ikuskari ezin da txartzat eman.

Horrelakoetan, gerta daiteke izen bakoitzak bere adiera edo esanahia izatea; orduan, zer esanik ez, biak gordeko ditugu, bakoitza bere adieran. Aztergai dugun bikotean, ordea, ez dago esanahi-desberdintasunik; hortaz, batasunerako bietatik bat aukeratu behar da. Baina hautu hori ez dagokio batzorde honi, hitz hori erabiltzen duten langile euskal-

dunek erabaki beharreko kontua da. LEF batzordeak esan dezakeena hau baita, ongi eratuak dauden ala ez.

-TEGI

Bi puntu dira aipatzekoak atzizki honen inguruan:

1. Oinarriaren kategoriari dagokionez, 'izena + *-tegi*' askoz ugariago izan da historian zehar 'aditzoina + *-tegi*' baino. Egia da *garbitoki / garbitegi, ikastegi/ikastetxe* moduko bikoteak ez direla falta euskaraz. Baina gogoan izan beharko genuke aditzoinari izena erantsi eta izen elkartua sortzea *(jarleku, egongela)* ere baliabide indartsua izan dela gure historian. Gainera ekialdean 'aditzoina + *-gia*' egitura ere bada: *sargia, bilgia...*

2. Maileguei dagokionez, azken urteetan inoiz erdal *-torio, -terio, -ería, -tegi* atzizkiaren bidez ordezkatu diren arren *(monastegi, anbulategi, laborategi)*, hobe da aurrerantzean halako egokitzapenik ez egitea, euskal oinarririk ez badugu behintzat *(santutegi, kafetegi)*. Gainera *monastegik, monasterio* formak (Iparraldeko eta Hegoaldeko autoreek erabili dutenak) lortua zuen batasuna hautsi besterik ez du egin.

-GAILU

Atzizki honen oinarria aditz kategoriako da, eta atzizkiak 'baliabidea' adierazten du. Lehen osagaia izena denean, ostera, 'izena + *makina, tresna, ontzi*' moduko izen elkartuen ondoan, *supizteko, bizarra kentzeko makina, belarra ebakitzeko makina, nahiz belar moztekoa, bizar moztekoa, babea eta artoa ehotzeko tramankulua* etab. ere ezagunak eta tradiziodunak dira euskaraz.

Azken urteetako *irratigailu, telebistagailu, elektrogailu* edo *ortopediagailu* bezalako adibideak direla eta, batzordeak gogorarazten du *-gailu*, aditzoinari eransten zaion atzizkia dela, 'baliabidea' adierazten duena. Beraz, *-gailu* izen gisa erabiltzea —adibide horietan egiten den bezala— ez da onartzekoa. *Irratigailu*ren ordez, esaterako, *irrati-aparatu* nahiz *irrati* hutsa aski da (*aparatu* esatea ez baita beti beharrezko).

-TU

Azken urteetan behin baino gehiagotan entzun eta egin zaigun galdera izan da: nola esan behar da *formaldu* ala *formalizatu, normaldu* ala *normalizatu, sistematu* ala *sistematizatu*? LEF batzordearen iritziz ez dago

inolako eragozpenik *-izatu* batasunerako gomendatzeko, Europako hizkuntzen bide orokorrari jarraituz. *Liofilizatu, sistematizatu, normalizatu, industrializatu* etab. gomendatzen dira, beraz, batasunerako.

Zenbait kasutan, hala ere, badira bikoteak *formalizatu/formaldu* bezalakoek, *formal* izenondoaren bi adieratan oinarritzen direnak ("forma edo eredu jakin baten araberako egin" lehena, "zintzotu"-edo, bestea). Oso antzekoa da bikote hau ere *normalizatu/normaldu* ("norma batera ekarri"/ "normal izatera iritsi"). Horrelakoetan biak gordeko dira, bakoitza bere adieran.

Argi dago bestalde beti ere maileguez ari garela; euskal oinarri bati ez baikenioke *-izatu* erantsiko. Adibidez, *sabaikaritu* litzateke forma egokia eta ez *sabaikarizatu.*

-KERIA

-a berezkoa duen atzizki honekin ere adierari eman zaio lehentasuna, oinarriaren kategoria nolakoa izan den gehiegi kontuan hartu gabe. Bide horretatik 'kualitate, jokabide gaitzetsia' adierazteko sortu ditugu *arrazakeria, asmakeria, bazterkeria , bortxakeria, gehiegikeria, indarkeria, siniskeria, txokokeria.* Batzorde honek begi onez ikusten du kualitate edo jokabide gaitzetsiak adierazteko, *-keria* atzizkiari bide berriak irekitzea; goian aipatutako adibideek ez baitute baztertzen orain arte nagusi izan den inolako egiturarik

-GO

1. Lema:

XIX. mendean zehar hasi zen atzizki hau Iparraldeko testuetan ordura arte berea izan zuen *-a* itsatsia gabe agertzen. Hala izanik, ez dugu eragozpenik ikusten atzizkiaren lematzat *-go* forma (*-a* itsatsi gabea) emateko (gainera, atzizki honek izen abstraktuak sortzen dituela gogoan izanik, gehienetan artikulua hartuko du).

2. Atzizkiaren adiera:

Bi adiera nagusi izan ditu atzizki honek Iparraldeko tradizioan:

a) Hegoaldeko *-tza* atzizkiaren pareko da lanbide baten izena adierazten duenean

artzaingo - artzaintza, merkatalgo - merkataritza,
hargingo - hargintza...

edo pertsonaren lanbidetik sortutako erakundeen izenetan: *errektore-go-errektoretza, dekanogo-dekanotza.*

Azken urteetan Hegoaldean, erakundea izendatzeko ere erabili da *-go*: *errektorego-errektoretza, dekanogo-dekanotza* moduko bikoteak sortuz. *-Go* atzizkiak ez du, baina, halako baliorik izan, aspaldi honetan, Iparraldean. Hobe dugu beraz, *errektoretza* edo *dekanotza* bultzatzea batasunerako.

b) *-tasun* atzizkiaren kide da beste adibide hauetan:

ahaidego - ahaidetasun, etsaigo - etsaitasun,
adiskidego - adiskidetasun...

Berria da, beraz, azken urteetan Hegoaldean eman zaion adiera multzokaria, kolektiboa, *ikuslego, entzulego, hiztungo, biztanlego, ikaslego, irakaslego* etab.ek adierazten dutena. *Ikusle, entzule, hiztun...* ez dira lanbideak, eta horrenbestez ez du zentzurik Iparraldeko euskaldunentzat *hiztungo* edo *entzulego* esateak. Hitz mordoa sortu da, bestalde, bide oker honetatik.

Tradizioaren arabera, multzoa adierazteko, *-eria* gomendatuko luke batzordeak. Hasieran gogor samarrak egin arren, *gazteria* eta *langileria* bezala, hiztuneria, *ikasleria, entzuleria...* lirateke zalantzarik gabe zuzenenak. (Orain arte "oker" sortutakoetatik bat edo beste geratu arren, berrietan ez litzateke *-go* erabili behar).

Batzordeak, gainera, bere kezka adierazi nahi du azken urteetako multzokarien gehiegizko erabilera dela eta. Askotan, gehienetan, beharrik gabe erabiltzen ditugu gaur *ikuslego, entzulego, hiztungo, biztanlego* etab. Ez dago *ikaslegoaren kopuruak behera egin du* esan beharrik, *ikasleen kopurua edo ikasleek* bera bakarrik ere nahikoa da. Ez dago *ikuslegoaren gehiengoak* esan beharrik, euskaraz *ikusle gehienek* esan baitugu orain arte.

Beraz, bizidunen multzoa, kolektiboa, adierazteko *-eria* atzizkia erabili beharko genuke (ez *-go*) eta gainera multzokarien erabilera urritzera jo beharko genuke, gehienetan plurala nahikoa da eta. Salbuespen bezala *gehiengo* eta *gutxiengo* onartuko genituzke, baina hemen ere gogoan izanaz askotan *gehienak* eta *gutxienak* esatea aski izan daitekeela *(gehienek hala uste dute...).* Honen ondoan, *baserritar jende* ere erabili izan da esanahi berarekin.

-AR / -TAR, -dar

1. Lema eta aldaerak:

Bi formen arteko banaketari dagokionez, honelako gomendioren bat emango luke batzordeak:

-ia + -ar

Batetik oinarria *-ia* amaierakoa denean *-ar* eranstea gomendatu. Gainerakoetan, libre utziko litzateke *-ar/-tar* aukera. *-ar* aldaeraren eremua zabalagoa da berez *(baigorrriar, iholdiar)*, baina adibidetegiko datuak ikusi ondoan ez dugu ikusten gomendio orokor bat emateko modurik. Dena den, *-tar* aldera ugaltzea Hegoaldekoa eta mende honetakoa izan da. Argibide gisa Euskaltzaindiaren *Euskal Herriko Udalen Izendegi*ko zerrenda eskaintzen dugu eranskin modura txostenaren amaieran, *-ar* eta *-tar* aldaeren artean hautatzeko lagungarri izango delakoan.

-n / -l + -dar

Kontsonante sudurkariaren eta albokariaren ondoren *-dar* aldaera erabiltzea ere orokorra dela esan daiteke:

andoaindar, ataundar, errezildar, israeldar, mogeldar,
madrildar, jerusalendar...

2. Oinarriari dagokionez, gogorarazi beharko genuke batez ere leku-izen propioei eta izen bizidunei erantsi izan zaiela atzizki hau. Oinarriak, beraz, leku-izena izan behar du, ez maileguz hartutako jentilizioa: *arabe* edo *arabiar*, baina ez **arabear*; *musulmar*, eta ez **musulmandar, europar* eta ez **europear*, etab. (morfologiaren aldetik arazo larrigoak sortuko lituzke *estatu batuar* bezalako izenondoen esplikazioak, oinarrian pluraleko sintagma baitugu, *Estatu Batuak*, eta ez izen soila).

3. Azken urteetan asko ugaldu dira *espainiar parlamentua, aldizkari galiziarra, frantziar eiraultza* eta horien antzekoak. Ez da ohizkoena *-ar / -tar* atzizkiaren bidez sortu den izenondoa izen bizigabeekin erabiltzea; nolanahi den, ez genuke ahaztu behar *Espainiako parlamentua* edo *Frantziako iraultza* ere erabil daitezkeela (nahiz *galiziar* eta *Galiziako* ez izan beti sinonimoak).

ADITZETIKO IZENAK

Izenburu zabal honen azpian aditzoinari lotzen zaizkion eta izen kategoria sortzen duten atzizki guztiak sartu beharko genituzke. Hiru azpimultzotan bana daitezke:

1. **-le / -tzaile**

Bi atzizkien arteko banaketa oro har Azkuek markatutakoa dela esan daiteke: *-le* eransten zaie sudurkariz amaituriko aditzoinei (forma bereko partizipioa dutenei):

eman - ema(i)le, jasan - jasa(i)le

eta dardarkariz nahiz txistukariz amaiturikoei, baldin eta -i badute partizipio burutuaren marka:

ekarr(i) - ekarle, eros(i) - erosle, irakats(i) - irakasle

-tzaile, berriz, gainerakoei:

jaso - jasotzaile, sala(tu) - salatzaile, erabaki - erabakitzaile...

Bereizketa hau gehienetan hala egiten den arren, badira salbuespen ezagunak euskal lexikoan, *eskale (eskeko), begirale, jo(i)le* esate baterako, *eska(tu) begira(tu)* eta *jo* aditzoinak izanik ere, *-le* hartu dutenak eta ez *-tzaile* (aipatutako banaketa horren arabera beharko zuketen bezala).

Egilea adierazten duten izen berriak sortzean ere, Azkuek egindako bereizketaren arabera jokatzea gomendatzen da. Dena den, Hiztegi Batuko batzordeari dagokio salbuespenak finkatzea.

-tu partizipio-marka izanik txistukariz amaitzen diren aditzoinei eransteko, *-taile* aldaera gomendatzen da:

moz(tu) - moztaile, piz(tu) - piztaile...

2. **-era, -keta, -kuntza, -pen...**

Aditzak adierazten duen horren 'gertatzea' adierazten duten atzizkiek sortzen dizkigute buru-hausterik larrienetakoak. Noiz erantsi *-era*, noiz *-keta* edo noiz *-men/-pen*? Zaila da galdera honi asebeteko erantzuna ematea; ikerketa teoriko sakonagoak beharko ditugu horretara iritsiko bagara. Nolanahi ere, hiru gomendio eman daitezke argi apurren bat egin dezaketenak:

1. *-zio* atzizkia (euskal oinarriei erantsirik ere aurki dezakeguna *amorrazio, burutazio, asmazio, segizio...*) onartu eta bultzatu maileguetan. Ez dugu uste *instalakuntza, integrapen* eta *ebaluaketa* esanez ezer irabazten dugunik; hobe genuke *instalazio* eta *integrazio* onartzea, Hegoaldean behintzat.

2. *-tze/-te* edozein aditzoinek har dezakeen atzizkia dela gogorarazi, eta batzuetan baliagarri gerta dakigukela: *lanaren beteketa* edo *betepena* baino askoz samurragoa litzateke *lanaren betetzea* gaztelerazko "cumplimiento" adierazteko. (Izen balioan gogoratu, nahi eta ez, aurretik genitiboa eskatzen duela).

3. Nor motako aditzekin, hau da, *da* laguntzailea hartzen dutenekin, *-era* edo *-tze* atzizkiak erabiltzea gomendatzen du batzordeak, aditzak adierazten duenaren gertatzea edo gauzatzea adierazi nahi denean. Hobe *bihotzaren geldiera/gelditzea, bihotzaren geldiketa* baino (perpausegitura ere, jokatugabea nahiz jokatugabea, beste batzuetan oso egokia

izan daitekeela ahantzi gabe, *bihotza gelditzea, bihotza gelditu zitzaion*). Edo *Titanic-en hondoratzea* hobe, *Titanic-en hondoraketa* baino. Bide beretik, *damutze* edo *damuera* hobetsiko genuke, eta ez *damuketa.*

3. **-kari, -kin**

Aditzoinari erantsiz izen bizigabeak sortzen dituzten atzizki hauek 'ondorioa' adierazten dute oro har: *gertakari* 'gerta(-tu, -tzen, -tuko) dena', *opari* 'opa izan/izaten dena', *eskari* 'eska(-tu, -tzen, -tuko) dena', *aurkikari* 'aurki(-tu, -tzen, -tuko) dena', etab. Alde honetatik *hilkari* 'pestizida' edo *garbikari* 'detergente' baino egokiago litzateke *hilgarri* edo *garbigarri* esatea. Era berean, *lisakin* ez da egokia erdal 'plancha' adierazteko: tresna adierarako *lisagailu* litzateke egokiagoa, edo ezer berririk asmatzen ibili gae, Iparraldekoen *lisa-burdina. Errekin* ere, ezer izatekotan, 'erre dena' litzateke, ez 'combustible'ren baliokidea: horretarako *erregai* dugu forma zuzena.

-GARRI

-garri atzizki izenondo sortzaileak hiru adiera izan ditu, funtsean bitara bil daitezkeenak. Lehena, historian zehar nagusi izan dena; bigarrena, azken urteetan lehenari nagusitu zaiona:

1. Azkuek 'productor de' bezala definitu zuena, balio aktiboa, eragilea, duena. Halakoak dira:

negargarri, barregarri, penagarri, pozgarri, galgarri,
higuingarri, nazkagarri, mingarri...

Axularrek *alferkeria arimaren galgarri* dela dioenean, 'alferkeriak arima galtzen du' ematen du aditzera. Ohar gaitezen atzizki honek aditzoina hartzen duela oinarri edo aditz esapideko izena *(negar egin → negargarri, barre egin → barregarri).* Iparraldean, berriz, aditz esapide osoa izan ohi da oinarri *irri egingarri, pena egingarri* modukoak sortuz.

2. Balio pasibo dei dezakeguna, bi azpisail bereziaz:

a) 'Digno de ser...'

ikusgarri, jakingarri, aipagarri...

Berri jakingarria, esaterako, 'jakitea merezi duen berria' da.

b) 'Que puede ser...'

ulergarri, jasangarri, zenbakarri

azalpen ulergarria 'uler daitekeen azalpena' da. Hauxe da hain zuzen erdal *-ble* atzizkiaren adiera nagusia gaur (nahiz erdaraz ere badiren *admirable* 'digno de ser admirado' edo *terrible* 'productor de' adierako adibideak.

Lehen euskal testuetatik gaur arte aurki ditzakegun *maitagarri, miresgarri, miragarri* eta antzekoak zubi modukoak lirateke balio aktiboaren eta pasiboaren artean.

Erdal *-ble* atzizkiaren parekorik ez dugunez, asko ugaldu da azken urteetan hirugarren adiera. Ez genuke baina ahaztu behar *-garri* atzizkiaren adiera nagusia zein izan den. Bestela, *-garri* erdal *-ble* adierazteko, eta horretarako bakarrik, gordetzen badugu, balio aktiboa adierazteko atzizkirik gabe geratuko gara. Hobeto esan, beste atzizki batez, inoiz halako baliorik izan ez duenaz, ari gara baliatzen balio eragileko izenondoak sortzeko, *-kor* atzizkiaz hain zuzen.

-KOR

Aditzoin kategoriako oinarria hartzen duen atzizki honek 'joera, erraztasuna' adierazten duela esan dute Azkuek eta Villasantek. Oinarriko aditzoina askotan nor motakoa izan ohi da, eta izenondoari dagokion izena aditz horren ekintza 'jasaiten' duena:

arbola betakor, beira hauskor, irakasle haserrekor,
gizon hilkor, pertsona sineskor...

Beraz atzizki honek ez du *-garri*-k bezalako balio agente edo eragilerik izan. Gaur ordea halako balioa ematen diogu askotan, honako adibideetan esaterako:

gramatika araukor, neurri murrizkor, sustantzia hilkor,
giro erasokor...

Neurria, ordea, ez da murrizten, bilera ez da erabakitzen, sustantzia ez da hiltzen ez eta giroa erasotzen; ezer egitekotan, neurriak (zerbait) murrizten du, bilerak (zerbait) erabakitzen du, sustantziak (norbait) hiltzen du eta giroak norbait/zerbait erasotzen du (norbaiti eraso egiten dio). Hiruretan *-garri* edo *-tzaile* beharko luke, beraz: *arautzaile, murriztaile/murrizgarri, hilgarri, erasogarri/erasotzaile.*

Bestetik, *-kor* atzizkia aditzoinari eransten zaiola gogorarazi beharko genuke eta, horrenbestez, *bihozkor* edo *anaikor* ez direla erabat zuzenak. Dagoeneko behin baino gehiagotan esan dugun bezala, adibide pare bat geratzeak ez du garrantzi handiegirik; bide horretatik aurrera egitea litzateke larriena.

Kontu honetan bai egin beharko genukeela ahalegin berezia gauzak ondo bideratzen. Batzordearen iritziz, jarrera hauxe izan daiteke: *-garri* atzizkia bada erdal *-ble*-ren pareko. Baina honek ez digu ahantzarazi behar zein izan den historian bere balio nagusia. Ezinbestean *-garri*-ren balioa bikoiztera garamatza bide honek, baina uste dugu ez dagoela beste aukerarik. Ez genuke gainera erori behar erdal eta euskal atzizkien parekatze sistematiko arriskutsutan. Hauxe da esan nahi duguna, oro har egia da *-ble* = *-garri*; baina hala ere *sustancia oxidante* = *sustantzia oxidagarri*, eta *sustancia oxidable* = *sustantzia oxidakor*.

Azken gomendio batek ere ez luke kalterik egingo: *-garri* erdal *-ble* atzizkiaren pareko izan arren, horrek ez du esan nahi erdaraz *-ble* erabiltzen duten bakoitzean euskaraz ere *-garri* atzizkiaz baliatu behar dugunik. *Ur edangarri* esan edo ipini beharrik ez dago, nahiz espainolez *agua potable* izan.

-SKA/-XKA, -SKO/-XKO

Atzizki txikigarri edo diminutibo hauen lema finkatu beharko genuke. Orotariko Euskal Hiztegiak eta EEBSek ematen dutenari begiratu bat eman ondoren LEF batzordearen ustez, izenetan, *-xka* eta *-xko* aldaerak har daitezke lematzat, salbuespenak salbuespen (*oilasko* adibidez). Eta salbuespenak hiztegiak finkatu beharko lituzke.

Esate baterako, ia *herrixka* edo *liburuxka* besterik ez da azaltzen. *Mendixka* nabarmen nagusitzen zaio *mendiska* formari. Bestalde, XX. mendera arte Ipar-Ekialdean *-sko* eta *-xko*, *-ska* eta *-xka* nahikoa parekatuak bazeuden, mende honetan euskalki guztietan *-xko* eta *-xka* nagusitu direla esan daiteke.

Izenondoetan datuak ez dira erabatekoak, baina badirudi hauetan ere *-xka* forma adierazkorra bultza daitekeela: beraz, *gorrixka, horixka*, etab. Salbuespena, kontsonante ozenen ondoan egingo genuke, *ilunsko, gogorsko* formak hobetsiaz (eta ez *ilunxko, gogorxko*).

Bestalde, *-xko* eta *-sko*, *-xka* eta *-ska* forman arteko auzia konpondu nahi dugu hemen. Honek ez du esan nahi -zta atzizkia baztertzekoa denik: *horizta, gorrizta...*

-KI

Zaharrak ditugu euskaraz *-ki* atzizkiaz eratutako *bildoski, ardiki, ahunzki, ahateki, eperki, zerriki, odolki, tripaki, saiheski*, etab. animaliaren

haragia edo beste parteren bat, jateko dena, adierazteko. Horregatik on litzateke aurrerantzean ere erabilera honi eustea eta berrietan ere bultzatzea (*oreinki*, esaterako), animalia-izena batetik, eta animalia horren haragiz osatutako jakia bestetik, bereiziz.

Bada azkenik, lema kontuetan, auzi orokor bat txistukarien ondoko herskari ahostunekin, nola jokatu? Ahoskabe bihurtu behar al ditugu herskariok, *hozkailu, izozkailu, aberaskarri, mireskarri, ahoskabe, ahostun* bezalakoak batasunerako hobetsiaz? Ala jatorrizko forman gorde behar ditugu: *hozgailu, izozgailu, aberasgarri, miresgarri, ahosgabe, ahosdun*? Batzuetan badirudi jokabide bakarra aplikatzea gogorregia gertatzen zaigula (atzizkiz atzizki erabaki behar litzateke, hitzez hitz?), Mitxelenak ere antzeko zerbait esan zuen Arantzazun orain dela 25 urte. Komeniko litzateke Ahoskera batzordeak bideren batzuk markatzea.

* * *

ERANSKINA: *Euskal Herriko Udalen Izendegia*, herritarren izenak

abadinar
abaigartar
abaltzisketar
abantar
abartzuzar
abaurtar
aberindar
ablitastar
adioztar
adunar
agilartar = arranotegitar*
agoiztar = agoizko
aguraindar
ahastar
aheztar
ahuntzegitar* = kabreador
ahurtiar
aiar
aiarar
aiegiar
aihertar
ainhiztar
ainhoar
aintzildar
aiñharbiar
aizarnazabaldar
aiziriztar
akamartar
albiztutar
aldudar
alegiar
alesbestar
alkizar
aloztar
altsasuar
altzabehetiar
altzaiar
altzietar
altzotar
altzumartar
altzürükütar
allindar
alloar
amenduztar
amezketar
amezkoar
amorotar
amoroztar

amurriar
andoaindar
andosillar
angeluar
anhauztar
anoetar
antsoaindar
antzindar
antzuolar
anuetar
añorbear
araiztar
arakaldar
aramaiar, aramai(o)ar
aramar
aramiñondar
aranaratxear
arangurendar
aranoar
arantzar
arantzazuar
arastar
arberaztar
arbizuar
arboitar
arbonar
areaztar = billaroztar
arellanoar
aresoar
aretxabaletar
argantzundar
argetastar
arhantar
arhantsusar
ariatar
aribetar
armañantzastar
armendariztar
arnegitar
arrangoiztar
arrankudiagar
arranotegitar* = agilartar
arrasatear = mondragoetar
arratzuar
arrietar
arrigorriagar
arrokiages
arroniztar
arrosatar
arroztar
arruazuar
arrutar
artaxonar
artazuar
arteagar
arteagaztar = arteagar
artzentalestar
artzibartar
artziniegar
arüetar
asparrendar
asteasuar
astüar
atarrabiar = billabar
ataundar
ateztar
atharraztar
atheiar
atxondar
aulestiar
auriztar
azagrar
azkaindar
azkaratiar
azkoiendar
azkoitiar
azmetar
azpeitiar
azueloar
baigorriar
baiones
bakaikuar
bakiotar
balmasedar
balterratar
bankar
bañostar = mainuetar
barakaldar

barasoaindar
barbarindar
bardoztar
bargotar
barillastar
barkoxtar
barrikoztar = barrikar
barrundiar
basaburuar
basauriar
bastidar
basusartar
bazkazandar
baztandar
beasaindar
bediaztar = bediar
behaskandar
behauztar
behorlegitar
beiretar
beizamar
belaskoaindar
belauntzar
berangoztar = berangar
beranturiar
berastegiar
beratar
berbintzandar
bergarar
bermeotar
bernedar
berriztar
berrobitar
berrogaintar
berruetar
bertizarandar
beskoiztar
beteluar
bianar
biasteriar
bidaniar, goiaztar
bidankoztar
bidarraitar
bidartar
bidaurretar
bidaxundar
bilartar
bilatortar
bilbotar
bildoztar
biriatuar
biurrundar
bizkaitiar
bokales
bunuztar
buñueldar
burgeluar
burgiar
burguetar
burlatar
bustoar
busturiar
buztintziar
debar
deierriar
deikazteluar
desoiar
dimoztar = dimar
domitxindar
donaixtiar
donamariar
donamartiriar, Donamartiri-Untz
donamartiritar, Donamartiri (NB)
donapaleutar
donazahartar
donemiliagar
donostiritar
doneztebar
doniandar, Donibane-Garazi
donibandar, Donibane-Lohizune
donostiar
dorreagar* = torrestar
dulantziar
durangar
duzunariztar
eatar
eaurtar
eguestar

eibartar
eiheralartar
ekorar
elantxobetar
elduaindar
elgetar
elgoibartar
elgorriagar
eloar
elorriar
elortzibartar
eltziegar
eneriztar
erangoar
erasundar
ereñar
ergoiendar = ergondar
ermuar
erreitiar
errenteriar
errezildar
erribareitar
erriberar
errigoitiar
erripazuloagar
erroibartar
erronkariar
esar
eskiulatar
eskoriatzar
eslabar
espartzar
esprontzedar
esteribartar
etaiuar
etxalartar
etxarriar, (Zuberoa-) Etxarri
etxarriar, Etxarri-Aranatz
etxarriar, Etxauri-Etxarri
etxauriar, Etxauri (N)
etxebarritar, Etxebarri
etxebartar, Etxebarre
eulatear
ezkabartear
ezkaroztar
ezkiotar
ezkurrar
ezpeiztar
ündüreintar
ezpeletar
ezporogiar
ezterenzubiar,
eztunigar
faltzestar
fikar
fiteroar
fontellastar
fruiztar
funestar
fustiñanar
gabadiar
gabiriar
gaintzar
galartar
galdakoztar = galdakar
galdamestar
galipentzuar
galoztar
gamartiar, Gamarte
gamerear, Gamere
gamiztar, Gamiz
gamuar, Gamue
garaioar
garaitar
garapear* = sopuertar
gardar
garestar
garindaintar
garinoaindar
garraldar
garruztar
gasteiztar
gatikar
gatzagar
gaubear
gaunar
gazteluar
gazteluberriar

gernikar
gesalaztar
gesaltzar
getariar
getariar
getxoztar = getxotar
girgillanoar
gixundar
gizaburuagar
goizuetar
goñibartar
gordoxolar
gorliztar
gorztar
gotaintar
guendar = guenestar
haltsuiar
harandar
hauztar
hazpandar
heletar
hendaiar
hernaniar
hernialdetar
hiriburutar
hondarribiar
hoztar
i(z)paztear
ibargoitiar
ibarlar,
ibarrangelutar
ibartar
ibartar
idauztar
idiazabaldar
igantziar
igorreztar = igorretar
iguzkitzar
iholdiar
ilhartar
imoztar
irabarnetar
irañetar
iribertar
irisartar
iruerrietar?
iruindar
iruindar = irunxeme
irulegitar
irunberriar
irundar
iruraiztar
irurar
iruritar
isturiztar
ithorroztar
itsasoar
itsasondoar
itsasuiar
iturendar
iturmendiar
itzagaondar
itzaltzuar
itzatar
izabar
izpurar
izuratar
izurtzar
jaiztar
jatabear
jatsiar, (Garazi-) Jatsu
jatsuiar, (Lapurdi-) Jatsu
jestaztar
jutsitar
kabanillastar = kapanagar
kabredoar = ahuntzegitar*
kadereitar
kanboar
kanpezuar
kaparrosoar
karkartar = karakarretar
karrantzar
kasedar
kaskantar
kastejondar
koartangar
korellar
kortestar

kripandar
labaiendar
labeztar
lagrandar
lahünztar
lakartar
lakuntzar
lanar
landibartar
lanestosar
lantarondar
lantziegar
lanztar
laphizketar
lapueblar
larrabetzuar
larrabiltar
larragar
larraintar
larraonar
larrauldar
larraundar
larresoar
larribartar
larroritar
larzabaldar
lasar
laudiar
laukiztar
lazkaotar
leaburuar
leatxear
lediar
legardar
legariar
legazpiar
legorretar
legutiar = bilerlar
lehunztar
leioztar = leioar
leitzar
lekeitiar
lekondar
lekuindar
lekunbertar
lemoaztar
lemoiztar
leoztar
lergar
lerindar
lesakar
lexanztar
lezamar
lezar
lezaundar
lezoar
ligiar
liginagar
lizagorriar
lizarratar
lizartzar
lizoaindar
lodosar
lohitzündar
longidar
luhosoar
lukiaindar
lukuztar
lumotar
luzaidar
maeztuar
makear
mallabitar
mañariar
mañeruar
maranondar
markinar
martxutar
martzillar
mauletar
meanuriar
mehaindar
melidar
mendabiar
mendazar
mendatar
mendexar
mendiar

mendibar
mendibiltar
mendigorriar
mendikotar
meñakar
metautendar
miarriztar
milafrangar
milagroar
miliarriar
mirafuentestar = iturriagar
mirandar
mithikiltar
mithiriñdar
monjolostar
monteagudoar = mendikutear
morentiaindar
moretar
morgar
muestar
mugertar
mundakar
mungiar
munitibartar
muntories
mureluar
murietar
murtxantear
muruartederretar
muruzabaldar
muskildiar
muskiztar
mutiloar
mutrikuar
muxikar
nabaridastar
nabaskoztar
nazartar
obanostar
odietar
oiartzuar
oibartar
oihergiar
oiondar
oiztar
okoar
okondar
olaberritar
olaibartar
olaztiar
olexoar
olhaibiar
olitear
olkoztar
oloriztar
oltzar
ollarandar
omiztar
ondarroar = ondarrutar
oniztar
oñatiar
oñatiar
oragartar
orbaiztar
orbartar
ordiziar
orexar
oriotar
orisoaindar
ormaiztegiar
oronztar
orozbeteluar
orozkoar = orozkomar
orreagar
orzaiztar
ospitales
ostankoar
oteitzar
otsagiar
otxandiar
ozaztar
ozeraiñtar
pasaitar
pentzitar = gaminiztar
petillar
phagolar
piedramillerar
pitillastar

portugaletetar
puioar
ribaforadar
saldiastar
samaniegar
samaztar
samikolar = sukarrietar*
sanadriandar
santagraztar
santakarar
santurtziar
santzoldar
sarasketar
saratar
sarrikotar
sartagudar
sarztar
sastiar
segurar
senpertar
sesmar
sestaoar
sohütar
sopelaztar = sopelar
sopuertar = garapear*
soraluzetar = plaentziar
sorhapürtar
sorholüztar
suhuskundar
sukarrietar* = samikolar
sunbildar
surusladar
tafallar
tirapuar
tolosar
torralbar
torrestar = dorreagar*
trapagar
trebiñar
tulebrastar
turtzioztar
tuterar = muskariar
ubarrundiar
ubidear
ugaotar = miraballestar
uhartiar
ukartar
ultzamar
unastar
undüreintar
untzitibartar
untzuetar
urantziar
urdazubiar
urdiaindar
urdiñarbetar
urduliztar
urduñar
urepeldar
urionar*
urizahartar
urkabustaiztar
urketar
urnietar
urrauldar
urretxuar
urroztar
urruñar
urrüxtoitar
urtuellar
urzainkiar
usuar
usurbildar
utergar
uxanuriar
uztariztar
uztarroztar
xabiertar
xemeindar
xulapaindar
zabaltzar
zaldibartar
zaldibiar,
zalduondar
zalgiztar
zallar
zanbranar
zangozar

zaratamoztar = zaratamar
zarauztar
zarear
zaroar
zarrakazteluar
zeanuriztar = zeanuritar
zeberioztar = zeberiar
zegamar
zentronikoar
zeraindar
zestoar
zibiztar
ziboztar
ziburutar
zierbenar
zigoitiar
zihigar
zilhekoar
ziordiar
ziraukiar
ziritzar
zizurkildar
zizurtar
zohaztiar
zohotar
zokhoztar
zornotzar
zubietar
zugarramurdiar
züharatar
zuiar
zumaiar
zumarragar
zunharrar
zuraidar

HIZTEGI BATUKO BATZORDEA (*)

Burua: Ibon Sarasola

Idazkaria: Jose Antonio Aduriz

Kideak: Miren Azkarate
Luis Baraiazarra
Pierre Charritton
Andoni Sagarna
Iñaki Segurola
Mikel Zalbide

(*) Txosten hauek, Gasteizen, 1994ko apirilaren 22an eta 23an egindako Hiztegi Batuko Jardunaldietan aurkeztu ziren.

EUSKALTZAINBURUAREN SARRERA HITZAK (*)

Biltzarkideak, agur!

Euskaltzaindiaren historian badira bi gertakari nagusi:

– Lehena, "kanpora jalgitzea" 1918-1919an, lehen aldikotz bildu zirelarik euskaltzainak Gipuzkoako Foru Aldundian 1919ko urriaren 7an.

– Bigarrena, Arantzazuko Biltzarrean, euskara batuaren "kanpora jalgitzea" 1968ko urriaren 3tik 5era.

Bi gertakari horien ospatzeko, biak elgarrekin, bigarrena lehenaren ondorioa izan baita urre-ezteikari, Euskaltzaindiak erabaki du deituko zituela biltzar nagusi batera –XIII.a hain zuzen– Euskal Herri osoan euskararen eta euskal kulturaren alorrean lanean ari direnak.

Hogeita bost urtez an egin da, euskara batua errotu da Euskal Herri guzian, euskal komunikabideak sortu dira, handitu, hedatu, euskal irakaskuntza indartu maila guzietan, unibertsitateak barne, eta denetarik etorri ziizkigu galdeak, euskara baturantzerako bide luze horretan urrats bat gehiago ematekoarenak.

Euskal Herriko Unibertsitatean, Leioako campusean ospatuko da, beraz, Euskaltzaindiaren XIII. Biltzarra. Horretara gomitatuak zarete eta horri buruz lanean ari izan dira Euskaltzaindiko batzordeak, hemen bertan dauzkagularik hauen emaitzak:

– *Euskara Batuko batzordeak* azken urteetan batasunerako emaniko gomendioak aurkeztuko dizkizue.

– *Gramatika batzordeak* bere proposamenak egiten ditu euskara batuari buruz, haien artean hitanozko formak. Aldi berean azken urteetan hedatu diren erabilera okerrak bildu eta forma zuzenak zein diren adierazten dute.

– *LEF batzordeak* erator-atzizkien inguruko zalantza eta desbideratzeak aztertzen ditu.

(*) Leioako XIII. Biltzarrean eztabaidarako banatu ziren batzordeen txostenen 'sarrera hitzak'.

– *Hiztegi Batuko batzordeak* bere irizpideak proposatzen dizkizue.

Literatura batzordearen lana da euskal metrikan diren nozioen eta hiztegiaren finkatzea, irakaskuntzak ukan dezan batasunerako bide bat.

– *Onomastika batzordea* exonomastikaz arduratu da, ikusiz nola idatzi euskaraz atzerriko jende eta leku izenak, batasuna lortu nahiz komunikabideetan.

Ahoskera batzordeak, azkenik sortua denak, eskara idatziaren ahoskeraren inguruan egin du lan.

Urtarriletik eta uztaila arte jardunaldien bidez eztabaidatuak izan dira batzorde bakoitzaren proposamenak eta hemen doazkizue, aski goiz, zuen iritziak, idatziz, nahi bailituzke ukan Euskaltzaindiak biltzarra baino lehen, jakinik mintzatzeko ahala ukanen duzuela eztabaidetan.

Joan den urteko urriaren lean, Oñatiko bilkuran erran dudan bezala, XIII. Biltzarra irekia izanen da. Dei zabal bat egin du Euskaltzaindiak, bertzeen iritziak lortu nahi baititu, gehiengoaren onespena aardietsi, duela hogeita bost urte euskara baturantz urratu zuen bidearen hobeki segitzeko.

Euskara landu, euskara hobetu, euskara gaurkotu, hau da Euskaltzaindiaren helburua XIII. Biltzarreko lankide guziekin egin gogo duena.

Aitzinetik milesker.

Jean Harischelhar,
euskaltzainburua

MAILEGUZKO HITZEN ZENBAIT MUGA-ARAZO

Mikel Zalbide

Gainditutako problematzat hartu ohi da, gaur egun, maileguzko hitzen idazkera-kontua. Eta badirudi, alde horretatik, alfer-lana litzatekeela konpondurik dagoena konpontzen hasi nahi hori. Alfer-lana edo, okerrago dena, bazterrak nahasten ibiltzeko gogoa. Egia da pauso handiak eman direla alor horretan azken hogeita hamar urteotan. Mitxelenaren Arantzazuko txostenak bide bat markatu zuen, honetan ere, euskara batuaren idazkerari zegokionez. Eta Euskaltzaindiak 1986an, hiru bat urtez aztertu eta landu ondoren, argitara emandako erabakiek zalantza eta auzigai askori irtenbide argia eskaini zioten. Geroztikako jokabidea aztertzen duenak erraz samar antzemango du 1986ko erabaki horiek onarpen zabala izan dutela: maileguzko hitzen idazkeraz denaz bezainbatean aski bide beretik gabiltza, egun, euskal idazleok. Egia da, beraz, hainbat puntutan gainditutzat eman daitekeela auzigai izanikako hori.

Arazorik edo arazotxorik badago ordea, oraindik. Hiztegi batuko batzordeak behin baino gehiagotan egin izan du, bere bi urte ta gehiagoko jardunean, era honetako buruhausteekin topo: maileguzko hitz jakin bat >g< ala >j< grafiaz eman; noiz *-tate* eta noiz *-dade* aukeratu; bukaera *-ari* behar duen, edo *-ario*; eta abar. Batzordeak eskuartean darabilen informazioak bietara bultzatzen du sarri, arrazoi eta arrazoibide desberdinen indarra eta pisua neurtzen hain erraza ez delarik. Banan-banako erantzunak prestatu behar izaten ditu noski batzordeak: irizpide nagusien batezbesteko joerak, lagungarri sendoak direlarik ere, ez ditu horrelakoetan aski.

Arazo-kontu horiez jabetzeko on izango da, batetik, Euskaltzaindiak 1986ko erabakien berri ematerakoan, sarrerakoan (9. or.), zer zioen gogoan izatea:

"Maileguez ari garenez gero, zer den mailegua, edo hitz honekin zer esan nahi den, behar dugu garbi utzi. Izan ere, hirutariko maileguak bereiz daitezke:

1. Euskarak aspaldidanik etxera ditu kanpoko hitzak, hots, beste hizkuntzetatik hartuak. Noizbait mailegatuak dira, eta euskarak gaur be-

reganatuak eta egokituak ditu. Horiek, egia esan, noizbait maileguak ziren, baina ez dira gehiago maileguak, euskal hitz arruntak baizik.

2. Badira beste hitz batzuk hizkuntzan lur hartu ez dutenak, nahiz eta hizlari eta idazleek noizbehinka erabili. Hitz hauek beren arrotz-itxura kopetan nabarmenkiro agertzen dute. Horiek ere, zehazki mintzatuz, ez dira maileguak, zeren euskarak, orain arte behintzat, ez baititu bereganatu.

3. Bien bitartean kokatzen dira guk hemen mailegu berriak deitzen ditugunak. Ez daude hizkuntzak aspaldidanik mailegatu zituenen artean, baina gaurko premiei erantzuteko hartu beharko liratekeenak dira. Bigarren motatakoen artean ere ez daude, zeren hauek moda igarokor bati men eginez edo esnobismo hutsez soilki erabiltzen baitira. Hirugarren motatakoek, berriz, gaurko beharrei erantzuteko premiazko dirudite, eta askotan, gertatzez, bai mintzoz eta bai idazkiz ere, arruntki erabili ohi dira; baina oraindik gure hiztegian ez dira sartu, ate zabaletik ez behintzat, eta zalantzarik asko nabari da beroien itxuraz, idazkeraz etab. Hirugarren sail honetakoak dira, bada, guk hemen *mailegu berriak* deitzen ditugunak, eta beroien erabilpena nolazpait arautu nahirik ematen dira presenteko arauak".

Erabakietan bertan behin baino gehiagotan egiten da, ondorioz, mailegu zaharren eta berrien arteko bereizkuntza idaztarauak eskaintzerakoan. Mailegu zaharrez hitz egiterakoan ahozko tradizio zaharra aipatzen da batzuetan, eta idazle zaharren testigantza eskaintzen bestetan. Hizkera arrunteko esanahia duten hitzak kultur maila jasoagokoetatik bereizi beharra ere azaltzen da inoiz. Bien arteko muga non dagoen ez da ordea, konprenditzekoa ere denez, erabaki haietan zehazten. Multzoak eta multzoak badaudela aipatzen da, eta erabaki horiek batez ere mailegu berri, "jasoago"etarako ematen direla esaten. Hiztegi batuko batzordeak multzo guztietariko hitzak landu behar izaten ditu, eta mugakontuak berariaz aztertu beharra gertatzen zaio. Non amaitzen da mailegu zaharren edo arrunten multzoa eta non berriena hasten? Non ipini, beraz, bien arteko muga?

Bada bigarren puntu bat, gainera, arazo-kontuok areagotzen dituena. Maileguzko hitzen idazkeraz dihardu, batez ere, Euskaltzaindiaren 1986ko erabaki-idazkiak. Sarrerakoan (13. or.) esaten denez, "esan behar da Arau hauetan ebakera edo ahoskerari buruz ez dela deus erabakitzen, zuzenean behintzat. Hitzen itxura eta idazkera xoil-xoilik hartzen da kontutan [...Q. Hitz mailegatuak euskaraz darabiltzagunean nola idatz: hori da lan honen helburu bakarra". Zenbait puntutan zaila da, ordea, idazkera-kontu hutsez jardutea. Mailegu berrietarako *-tate* forma hobesten bada *-dade*-ren ordez, edota >g< grafema [g] bezala irakurri ohi dela gogorazten bada, bistan da ebakera-kontuak ere aurrez aurre ditugula.

Arrazoi bat eta beste dela medio, erdaratiko hitzen zenbait muga-arazori irtenbidea aurkitu behar izaten dio batzordeak. Gorago esan denez, gainera, zirt-edo-zarteko aukera egin behar izaten du halakoetan. Hiztegi batuari horixe eskatzen baitzaio, hain zuzen: dudazko kasu horietan zer egin esatea. Aldian aldiko irtenbide horiek itsu samarrak izateko arriskua dute, ordea: batean irtenbide bat aukeratuz eta hurrengoan kontrakoa, hartarako arrazoi sendo-itxurakorik eman ere gabe, idazleei bidea erakutsi baino bidea galarazi errazago egiten da noski.

Muga-arazo hauei gainbegiratuzko berrikustaldi bat ematea komeni dela uste izan du, ondorioz, Hiztegi Batuko batzordeak. Ez da hau, seguruenik, premia larrieneko kontua. Lehenengo epealdian, maiztasun handieneko hitzak aztertzerakoan eta, ez dira auzigai hauek hain ugariak. Hitz-zerrendak osatu ahala, gero eta sarriago agertuko dira ordea honelako muga-arazoak. Eta mesedegarri litzateke, ordurako, batezbesteko irizpide batzuk finkaturik izatea. LEF batzordea egiten ari den argitze-lana aintzakotzat hartu nahi da noski: *-ari* eta *-ario* bukaeren kontuan, esate baterako, hortik jo nahi dugu ahaleginean. Era horretako finkapen-lanaz gainera, beste zenbait puntu ere zehaztapen handiagoaren beharrean ikusten da eta horien aurkezpena egin nahi da gaurkoan. Horietariko batzuena, zehatzago esateko, aurrerantzean besterik aurkeztu eta landu beharko baita. Ondoko puntuok landu nahi genituzke gaurkoan:

– maileguzko hitzetan noiz >g< eta noiz >j<

– noiz >j<, noiz >i< eta noiz >x<

– noiz -tate eta noiz -dade

– *subjektu, adjektibo ,... ala sujetu, adjetibo,*

Banan-banan ikusiko ditugu ondoren, halako xehetasun batez, lau puntu hauek.

I. MAILEGUZKO HITZETAN NOIZ >G< ETA NOIZ >J<

Gaiak zenbait eragozpen sortzen zigula ikusirik, Hiztegi Batuko batzordean eztabaidatzeko barne-txostentxo bat prestatu zen orain urtebete inguru. Ebakera-kontuak ordurarte baino akaso zuzenago aintzakotzat hartu beharra aipatzen zen han, besteak beste. Puntu eta punttu batzuetan zenbait egokitzapen egin bazitekeen ere, zail ikusten zen ordea ebakeraren izenean goitik beherako aldaketen bidetik jotzea. Batzordean egindako ohar haiek aurrez aurre eta banan-banan konprobatu nahi izan dira, geroztik. *Orotariko Euskal Hiztegia*-ren jakiniturrietara jo da, horre-

tarako, hainbat eta hainbat kasutan. Egungo Euskararen Bilketa-lan Sistematikotik jasotako corpusa ere berariaz landu da UZEIn, hainbat kasu konkretutarako txosten-koadroak prestatuz. Aurrelan horiek laguntza egokia eskaini dute, orain urtebeteko txostenean oinarrituz honako idazkuntza hau prestatzeko.

I.1. ARAZOA ZEIN DEN

Maileguzko hitzei buruz erabakiak hartu zituenean, gehientsuon idazmoldearekin bat zetorren gomendio-araua eman zuen Euskaltzaindiak (Ikus *Maileguzko hitz berriei buruz Euskaltzaindiaren Erabakiak*, 37. orrialdea):

"Mailegu zaharretako j eta i ikutu gabe, orain mailegatzen diren hitzetan g grafia hobetsiko da: *biologia* (biologoa), *geografia* (geografoa), *filologia* (filologoa), *dramaturgia* (dramaturgoa). Jakina da *g* grafema /g/ bezala irakurri ohi dela euskaraz edozein bokalen aurrean".

Inor gutxik eztabaidatu du, azken zazpi-zortzi urteotan, arau hori. Denok edo ia denok onartu dugu, gainera, panorama argitzen eta 1968tik aurrera indartuz zihoan >g<-bidea finkatzen lagundu duela. Baina problema badago, egon, eta ez dirudi konpontzen erraza. Izan ere,

a) "Mailegu zaharretako *j* eta *i* ikutu gabe" jarduteko aginduak zehaztapen argiago bat eskatzen du: zein dira "mailegu zaharrak", eta zein ez. Hau ez da batere gauza xinplea, gure hizkuntzaren etorbidea kontuan izanik. Dĕmagun *jende, erlijio, jenio* hitzak mailegu zaharrak direla, eta horretan denok bat gatozela (hor ere izango da, halere, lehenengo biak ahoz bezala idatziz barra-barra erabili direla, eta hirugarrena ez hain maiz, gogoraziko duenik; baina tira).

Ez al dira ordea zaharrak, eta horrenbestez >j<-z idaztekoak, *jenero, jeneral, errejist(r)atu, kolejio, jendarma, bijilantzia* moduko hitzak ere? Zer egin idazkera aldetik bederen idazle askok orain ere mailegu zaharren zakura sartzen dituen *ajentzia, orijinal, jestio, esijentzia (esijitu), jerente, hijiene, injineru* moduko hitzekin?

Maileguen idazkera nekez erabaki daiteke kronologi irizpide hutshutsez: are gehiago gurean, XVIII. mendetik honakoan bederen herrian ongi erroturiko zenbait mailegu paperera pasatzeko era bateko eta besteko eragozpen nabarmenik falta izan ez delarik.

b) Euskaltzaindiaren gomendioa, >g< grafema mailegu berriotan ere [g] bezala irakurtzearen aldekoa, ez da gaur osorik betetzen. Hau ez da iritzi hutsa, gure ustez: aski da euskaldun-jendearekin (xehe zein jan-

tzi) hitz egitea, irrati-telebistetako esatariak entzutea edo hitzaldi nahiz mahainguruetara hurbiltzea. Erregela sendoa baino areago salbuespen dira arau hori beti eta zuzen betetzen dutenak. Inor gutxik ebakitzen badu [geologia] edo [geografia], are gutxiago dira [gestio], [agente] esatera iristen direnak.

Euskal idazkeraren ezaugarri nagusietariko bat, hotsen eta grafemen arteko bat-banako harremanean oinarritua, sendotzen baino gehiago ahultzen (kolokan gelditzen, zenbaiten ustez) ari da joera honekin. Euskara batuak hizkuntza osoa, ez idatzia soilik, kontuan hartu nahi badu, balegoke arrazoirik, beraz, hiztegi batua prestatzerakoan gai honi berrikustaldi bat emateko. Kontu hau ez dago, gainera, >j<, >i< eta >x< arteko auzi-alorretik hain urrun.

I.2. ZER IRTENBIDE DAUDEN

Esan berri denaren aurka, erantzun azkarra emango dizu batek baino gehiagok: forma idatziaz ardura gaitezen orain, eta ebakeraren kontuak hurrengo baterako utz ditzagun. Gero ikusiko da, [agente] behar duen ala [axente], [aÛan], etab... Arantzazukoan, nondibait hasi behar eta, honelako zerbait egin zen funtsean (ikus, besteak beste, bertako II.9. eta IV.9. puntuak).

Egia da hiztegi batua hitzen formaz kezkatzen dela nagusiki: definizio hori eman zitzaion hasiera batean, eta ezin hasiko gara orain, bideari ekin ondoren, gauzak itzulipurdikatzen. Ez dugu uste, ordea, formaz arduratze honek hots-irudia alde batera uztea esan nahi zuenik eta duenik; semantika-kontuak eta geroko uztea zen gogoan, aukera hori egin zenean. Hitzen ebakerazko ondorioak bete-betean sartzen dira beraz, gure ustez, batzorde honen azter-eremuan.

Zein bide dauzkagu, hortaz, goiko bi arazo-modu horiei aurre egiteko? Arazo batari zein besteari, banaka, aurre egiteko formulak ez lirateke hain zailak. Punta batean, honako irtenbidea geneukake: >j< bidez idaztekoak diren mailegu zaharren multzo itxia (*jende, birjina, ijito*, etab.) ongi definitu, salbuespen gisa banan-banan azalduz, eta gainerako guztiguztiak >g< bidez eman. Kontrako puntan, berriz, bide-modu hau genuke: *gentleman, manager, Gestapo* moduko erdal hitzetarako bakarrik utzi >g< letra eta beste hitz guztiak, kultur erroak barne, >j< bidez eman. Irtenbide horiek badute nork bere abantaila: idazkera aldetik buruhauste gutxiago sortuko luke, seguru asko, lehenengoak. Ebakerari dagokionez ondotxoz buruhauste gutxiago lekarke, itxuraz, bigarrenak. Arazo bata edo bestea konpontzeko aski erosoak lirateke. Arazo biei, ez bietako bati bakarrik, erantzutea da zaila. Punta-mutur bietako bat sa-

krifikatu nahi ez bada, konpromisozko formula bat aurkitu beharko da. Horren aldeko apustuan ari gara batzordean behintzat, eta horren araberako proposamena egin nahi da ondoren.

Konpromisozko erdibidera jo nahi bada, ondoko lau atal moduok bereiz daitezkeela dirudi:

a) Aspaldidaniko mailegu zaharrak, jakina, >j<-z idatzi eta, oraingoz, euskaldun bakoitzak lekuan lekuko ebakeraz ahoska ditzala: *bijilia, birjina, imajina(tu), erlijio, ebanjelio, ijito, jende, jentil, jira(bira), jenio, jenero, jeneral.*

b) Hain zaharrak (edo idazkietan hain dokumentatuak) ez izan arren, herri mailan aski txertatuak dauden hitz arruntak (kultur erroz osaturiko hitz "ikasiak" ez direnak, batez ere) >j< grafemaz idatzi orobat: *bijilatu, errejimen(tu), errejistro, falanjista, esijitu, jerente, sarjentu, jestio, orijinal, jeranio.*

c) Kultur erroz osaturiko hitzak eta, oro har, nazio artean aski idazkera bateratua ageri dutenak >g< grafiaz idatzi: *geologia, psikologia, gimnosperma, kirurgia, hagiografia, antropologia, energia, genetika, genitibo, pedagogia, siderurgia, meningitis, geometria, biologia.*

d) Irentsi gabeko maileguak bere horretan utzi: *Gestapo, gentleman, Gillette, Niger, manager, aqua regia, Gisbert, Piaget.*

Dirudien baino ondotxoz ahulagoa da lau ataleko banaketa hau. Barne-lotura edo koherentzi maila, behintzat, ez du berebizikoa: kultur erroz osaturiko hitzak herrian aski txertatuak egon daitezke (gaur egun hala daude, egon, horietariko zenbait); maileguen zahartasun-kontua euskaldunen hitzezko jardunean eta liburuetako agerpenetan ez letorke beti bat. Bere ahuldade eta aje guztiekin ere, badirudi ordea abiaburu gisa baliagarri gerta daitekeela.

Arazo txikiena, bistan denez, banaketa horren a) eta d) atalek sortzen dute. Alde-mutur biotan ez dirudi eztabaida handitarako motiborik dagoenik. Horietan ere izaten da ordea, inoiz edo behin, buruhausterik. Lehenengo atalari dagokionez, esate baterako, maileguen zahartasun-kontuaz goian esandakoaz gainera, hitz baten zenbatsu agerpen dokumentatu behar dira testuetan hitz hori aspaldidanik errotua dagoela esan ahal izateko?; erdaratiko hitzen ahozko tradizioa nola balioetsi behar da?

Problema nagusia beste nonbait dugu ordea: b) eta c) multzoen arteko muga-ezarketan. Arazoa larriagotu egiten da >g< idazkera duten hitzak [g] ebaki nahi izatekotan. Hizkuntzalaritzaz gainera bestelako faktoreak ere oso kontuan hartu beharko dira horretarako: erdaratiko zein hitzetan da >g< grafemaren eta [g] ebakeraren arteko bat-banako harre-

man hori egungo eta bihar-etzietako euskaldunengan eskuragarriago, eta zeinetan ez?

Hegoaldeko joera, gaur egun, esan dugu zein den: gaztelaniaren modura idazten ditugun *agente, gimnasia, oxigeno, meningitis* modukoak gaztelaniaren modura ebakitzea. Beste horrenbeste esan daiteke itxuraz, frantsesari begira ordea, iparraldeko joeraz.

Joera horri aurre egin nahi bazaio, letraren eta ebakeraren lotura bat-banakoa izango bada alegia, badirudi eskolan eta unibertsitatean ikasten diren kultur hitzetara mugatzea komeni dela >g< idazkerako multzoa. Honela ere lanak izango dira [geo], [logia] eta antzeko ebakerekin. Bideak jarri beharko dira, onenean ere, horretarako: jendaurrean eraginik duten (dugun) euskaldunen konpromisoa ezinbestekoa izango da, hasteko. Eskolan baino areago, lehenago eta presio-indar biziagoz, etxean eta lagunartean eskuratzen diren hitzetan hegoaldeko [x] eta iparraldeko [Û] edo [j] hots-ebakerak aldatzea, aldiz, ondotxoz zailagoa dirudi.

I.3. **PROPOSAMENA**

Zer ondoriotara garamatza ordea, konkretuki, orain arte esandako horrek guztiak? Zein hitz sar dezakegu, batez ere, a), b) edo c) multzoen zakuan? OEHtik eta EEBStik jasotako datuak beste hainbat jakiniturrirekin konparatu ondoren honako zerrenda hauek proposatzen dira hemen, Euskaltzaindian aurkeztu eta eztabaidatzeko:

a) Aspaldidaniko mailegu zaharrak, >j< grafemaz idaztekoak: *bijilia; (ama)birjina, birjintasun; ebanjelio, ebanjelista, ebanjelizatu; erlijio, erlijioso; ijito (ijitano), ijitokume; imajina, imajinatu, imajinazio; jende, jendetza, jend(e)artean, jend(e)aurrean; jeneral, jeneralean; jenero; jenio (jeinu); jentil, jentildu, jentiltasun; jira, jiraka, jiratu (jirabira, jirabuelta, kalejira).*

b) Gaur eguneko herri-hizkeran aski txertatuak dauden [g] gabeko hitz arruntak: *bijilatu, bijilantzia; dijeritu, dijestio; dirijitu, dirijente; errejimen; errejimendu; errejistro, errejist(r)atu; esijitu, esijentzia; garaje; injineru; jenerazio; jeranio; jerente; jestio, jestionatu, jestoria; jigante; kolejio; korrejitu, korrejidore; lejitimo; majia, majiko; orijinal, orijinaltasun; prestijio; pribilejio; sarjentu; trajedia, trajiko.*

c) Nazio artean aski idazkera bateratua ageri duten, sarri asko kultur erroz osaturik dauden, hitz ikasiak >g< grafemaz idatzi eta ahal delarik [g] hotsez ebaki: *agente, agentzia, angiospermo, angiosperma; digitu, digital; dramaturgia; energia; estrategia; exegesi; gene, genesi, genetiko, ge-*

netika, genealogia, genital; genitibo; genotipo, genozida, genozidio; geo kultur erroa dutenak (geodesia, geodinamika, geografia, geologia, geometria; hipogeo, perigeo); geriatria; gerundio; gimnospermo, gimnosperma; ginekologia; ginezeo; giroskopio; hagiografia; hegemonia; heterogen(e)o; hidrogeno; homogen(e)o; konbergente, konbergentzia; liturgia; -logia, -logiko guztiak (antropologia, biologia, filologia, mikologia, pedagogia, psikologia, sinbologia; logika, ilogiko); metalurgia; nitrogeno; nostalgia; oxigeno; tangente (kotangente).

Gorago esandakoa errepikatuko dugu: lehen begiratu batean dirudien baino ahulagoa da sailkapen-modu hau. Konpromisozko formula hauek badute alde onik; hizkuntzaren baitan eragiten duten indar desberdinak batera biltzen laguntzeko balio izan dezakete. Baina apustumodukoa dira berez. Batera biltzeko mesede posiblearen ondoan, horregatik, eragozpenak eta kalteak ere ekar ditzakete: konprenditzen hainhain errazak ez diren bereizkuntzak egiten ikasi beharra. Hitzak, izan ere, ez ditugu hiztun-idazle arrunt gehienok irizpide nola-hala formalizatu batzuen arabera idazten; are gutxiago ebakitzen. Gauzak "hala direlako" idazten (ahoskatzen) ditugu normalean, zergatik "hala diren" bi aldiz pentsatu gabe: okerrenean ere albokoari galdetzen diogu, edo hiztegira jotzen dugu, gauzak "nola diren" jakiteko. "Hala izate" hori da, zinez eta benetan, hizkuntzaren (kasu honetan lexikoaren) batasuna: horrelakoetan antzematen da albo-hizkuntzek zenbaterainoko batasun-maila duten eta euskararen batasun-egoera zenbateraino den sendo eta zer neurritan ahul.

Zailtasun hori arintzeko bestelako bideak ere aurki daitezke, jakina: gaztelaniak *esponja* baina *espongiario* dituen moduan, erro bereko idazkera-ebakerak proposa litezke gurean ere. Horrela jokatuz *jenero* eman dezakegu alde batetik, eta *generiko* bestetik. Gauzak erraztu ordez konplikatu ez ote ditugu, ordea, bitasun horiekin egingo?

II. MAILEGUZKO HITZETAN NOIZ >*J*< , NOIZ >*I*< ETA NOIZ >*X*<

Aurreko puntuan esandakoa errepikatu behar da hemen ere, ezer baino lehen: Euskaltzaindiak 1986an maileguzko hitzez argitara emandako erabakiek argitze-lan ohargarria egina dute. Argitze-lan hari eskerrak, ordurarte *majuskula* edo *projektu* modukoak >j< grafiaz idazten genituen gehienok *proiektu, traiektoria* moduan idazten ditugu harrez gero. Behinolako idazkera desberdinak bateratzen ari dira, ondorioz, alor honetan ere. Bateratu gabeko puntu askotxo dago, ordea, oraindik. Aski da eguneroko adibide ezagunetara jotzea, horretaz jabetzeko.

II.1. ARAZO-MOTA NAGUSIAK

Idazle askok honako bi duda-modu nagusiok ageri ditu, batez ere:

a) Noiz >j< eta noiz >i<: *bidaje, maneju, manejatu, lenguaje, koju, masaje, majestade, erloju, koraje, bendaje, montaje, enbalaje, engranaje, errodaje, salbaje, ekipaje,... ala bidaia, manaiu, manaiatu, lengoaia, koiu, masaia, maiestate, erloiu, kuraia, muntaia, engranaia, pelegrinaia,...* Hemen bina forma eman badira ere jakina da horietariko bakoitzak (bigarren zerrendakoek, bereziki) aldaera ugarisko izan ohi dituela. Aski dateke, halere, zalantzaren zer-nolakoaz jabetzeko.

b) Noiz >j< eta noiz >x<: *baju, bajatu, bajura, fijo, fijatu, enbajada, enbajadore, keja, kejatu, ajola, ojala, lujo, torlojo, ejenplu, kaja, kajoi, lejia,... ala baxu, baxatu, baxura, fixo, fixatu, kexa, kexatu, axola, oxala, luxu, torloxu, exenplu (etsenplu), kaxa, kaxoi, lixiba.*

Aski kontu eta arazo desberdinak nahasten dira, bistan denez, itxuraz bi duda-modu bakar diren horietan. Duda-mudazko bi puntu nagusi horiezaz gainera beste puntutxorik ere kontuan hartzea merezi luke, gainera. Esate baterako noiz >j< eta noiz >il<: *apareju, konseju, kontzeju, bentaja,...* baina *aparailu, kontseilu, kontseilari, abantaila,... Edota noiz* >ts<: *etsenplu, etsamina, etserzizio?* Aurreneko bi multzoak dira, ordea, idazteko orduan zalantza gehien sortzen dutenak. Haietaz jardun nahi dugu, beraz, hemen.

II.2. ARAZOA ZEIN DEN

Problemari bere neurria hartzeko, has gaitezen arazorik ia sortzen ez duten puntuak azaltzen. Horrela,

II.2.1. Hitz-hasierak >j< bidez ematen dira ia beti, nahiz lekutik lekura ebakera aldatu: *jesuita, jornal, jubilatu, judu, juerga, juntatu, juntura, justu, juzgatu (juzkatu).* Salbuespen dira, beraz, zenbait kultur erro eta teknika-hitzetako >i<, >hi< idazkerak: *iodo, ionosfera, hierarkia, hieroglifiko,...*

II.2.2. Hitz barnean, kontsonante ondoren, kultur hitz jasoetan zein hizkera arruntekoetan >j< idazkera da orobat nagusi: *adjudikatu, injektore, konjuntzio, subjuntibo; kalonje, laranja, granja, forjari, monje,...*

II.2.3. Hitz barnean eta bokal artean dago, beraz, arazoaren funtsa. Arazo-moten azalpena egiterakoan eman diren adibide guztiak hitz barrukoak eta bokal artekoak dira, hain zuzen.

Esplikazio asko eman litezke problemaren funts hori azaltzeko. Badirudi, nolanahi ere, honako puntuok behintzat kontuan hartzekoak direla:

a) Euskaldunon artean hots-balio desberdinak dagozkio >j< letrari, aspaldidanik. Hau ez da, beraz, maileguzko hitz berriekin azken orduan sortu den auzi-mauzia.

b) Alboko erromantze-hizkuntza nagusietarik hartzen ari garen mailegu asko are korapilatuago uzten ari da, gainera, kontua: lehendik aski nahasia zen egoera ez da oraingo (batez ere gaztelaniatik samaldan etorritako) mailegu berriekin erraztu.

c) Euskara batuaren arauetan [x] ebakeraren aurka ezer erabakita ez badago ere, egia da aspaldidanik datorkigula [j] ebakeraren aldeko joera: Azkue aipatzen zuen A. Irigoienek gerra aurrekoen artean, orain hamar urteko bere txosten batean; eta Txillardegik Bergarakoan (hots, 1978an) bide hori berori proposatu zuela gogorazten zigun.

d) Mitxelenak Arantzazuko txostenean azaldutako hobespen hau ere kontuan hartzea komeni da (ikus bertako II.10. puntua): "antzinako hotsa x denean (antzinakoa Euskal-erri osoan eta egungoa hainitz eskualdetan), *x*-i lotu behar gatzaizkio, batasunera bagoaz: *axola, ez ajola*, etc."

e) Gaztelaniaz >j< idazten den zenbait kultur hitz ere >x< bidez idazteko joera indartuz joan da: *konplexu, paradoxa.*

f) Hegoaldeko Euskal Herrian batez ere *-aje* bukaeraz iritsi berriak (edo ez hain iritsi-zaharrak) ditugun maileguak -aia bukaeraz emateko joera zabaltzen ari da, orobat: *bi(d)aje*-rekin iparraldeko *bi(d)aia* aldera jo den moduan, erreportaia, pertsonaia gisakoak ari dira mailegu berrietan, jendaurreko hizkeran zein testuetan, indartzen.

II.3. **PROPOSAMENA**

Esandakoaren arabera, badirudi lehenengo banaketa-modu bat proposatzeko egoeran gaudekeela. Hona, hoberik ezean, OEHko (eta, neurri apalagoan, EEBSko) iturrietara joaz gogora datorrena.

II.3.1. *Noiz >**j**< eta noiz >**x**<*

a) Mitxelenak Arantzazun proposaturiko bidetik, edo idazle arruntaren begietan haren antza duten zenbaitetatik, >***x***< idazkeraz ageri dira

gaur, nagusiki, honako hitz hauek: *axola, axolagabe, axolatu; taxu, taxutu; baxera, baxerategi; baxu, baxura, kontrabaxu (-o).* Delako *taxu*-ren ondoan *taju*-k ondotxoz erabilera zabalagoa izana du, halere; eta bananbanan aztertzea komeni litzateke, ondorioz, multzo hau noraino zabaldu. Formaz antzekoak diren *balixa* moduko hots-egokitzapenak oinarri handirik gabeak dira, itxuraz, eta ez dira hobestekoak.

b) Orainagoko kultur hitz eta mailegu "jaso"etan, azken urteotan zabal hedatu den >x< idazkera hobesten da orobat: *apoplexia, konbexu, konplexu, paradoxa, zirkunflexu.*

c) Ahozko tradiziotik eta, batez ere, hegoaldeko hizkera-molde arruntetik hurbilago dauden formak >j< letraz ematea genuke, aldiz, erosoena: *antoju, antojatu, antojagarri, kaja, kajakada, kajoi, enkajatu, torlojo, mondejo, ajuste, ajustatu,...*

Dudazko kasurik ez da, halere, falta izango: *kexu, kexatu* modukoetara jo behar dugu, ala *keja, kejatu sailera?* Merezi ote du aspaldidaniko *lisiba* edo *lixiba*-ren ondoan *lejia* formari leku egitea? Hitz jasoen eredura luxu eman behar dugu, ala bertsolari askoren bidetik *lujo (-u)* moldera biltzea komeni da? Bere duda-muda guztiekin ere bide bat genuke goiko sailkapen-modu hori, eta eztabaidarako bederen aukera eman dezake.

II.3.2. *Noiz >j< eta noiz >i<*

Hemen ere multzoka saiatzea izan liteke, itxuraz, jokaera erosoena. Honako multzo eta azpimultzo hauek egin ote daitezkeen-edo dirudi, lehen begiratu batean:

a) Noiz *-aje* eta noiz *-aia*

— Aspaldidaniko *usaia, pasaia, bisaia* modukoetan badirudi *-ia* bukaerak ez lukeela eragozpenik edo zalantza handirik sortu behar, *bisaje* modukorik falta ez den arren. Horietan *-aia* hobetsi, beraz.

— Idatzizko erabileran, batez ere hizkera-molde jasoagoetan, azken urteotan iparrean ezezik hegoaldean ere sarbide zabala lortzen ari diren hitzak ere *-aia* bidez eman: *bi(d)aia, lengoaia, pertsonaia, portzentaia.* Honelakoetan egokia izan liteke halere, maila arruntagoko errejistroan-edo, *bi(d)aje, lenguaje* modukoei ere sarbidea ematea.

— Hizkera-molde jasoan halako sarbiderik izan ez duten mailegu berrietan, lehenagotiko *paraje*-n bezala *-aje* idazkera izan liteke, itxuraz, erosoena: *brikolaje, engranaje, errodaje, kabotaje, makilaje, masaje, montaje.*

– Euskal atzizki bihurturik-edo dauden *-(a)je* amaierak bere horretan ematekoak dira, azkenik: *adaje, ilaje, jendilaje, lumaje, musaje, tximaje, zuraje.*

Bietara dabiltzan formetan *(kuraia/koraje)* zaila dirudi aukera bakarra egitea. Hobe izango da, horrelakoetan, forma biei (edo direnak direlakoei) parez pareko balio-indarra aitortzea.

b) Bestelakoetan noiz >*j*< eta noiz >*i*<

Aurreko puntukoen ondoan gutxi dira, hemen, duda-mudazko idazkera duten hitzak. Hitz horietan aski ugariak dira, halere, era bateko edo besteko aldaerak: *aloitu, aloitze, aloimendu/ aloju (alojü), alojatu (alojitu), alojimendu.* Zaila da, ondorioz, multzokatze-lanik egitea. Banan-banako adibideei dagokienez:

– Euskara batuan *erloju* forma nagusitu zaio *erloiu-ri; borraja*, orobat, *borrai(n)a* baino zabalduago dago;

– batetik, Iparraldeko *manaiu, manaiatu, manaiukor, manaiukortu...* eta bestetik Hegoaldeko *maneju, manejatu...* hitz-segidak batera ematea proposatzen da. Oraingoz ez da ikusten forma-bikote horietan *próximo-/prójimo* edo *estricto/estrecho* moduko adiera-banaketarako joera sendorik. Erdibideko *maneiu, maneiatu,...* formetara jotzea izan da, aitzitik, zenbaiten konponbidea.

II.3.3. *Hegoaldean sarri darabilgun zenbait mailegu arrunt*

Hegoaldeko aho-hizkera arruntean aski txertaturik dauden *aje, aje(a)tu, antiojo, baja (eman), bandeja, dibujo, dibujatu, fijo, fijatu, flojo, flojatu, granuja, koneju, lenteja, lija, majo, mejora, mejoratu, pareja, potaje, traje* modukoekin zer egin. Erantzun azkarra emango du, bistan da, batek baino gehiagok: horrelako hitzak hiztegi batuan sartu beharrik ez dago; horiekin ez dugu, beraz, idazkera-arazorik. Baliteke hala izatea; beste momentu batean aztertzekoa litzateke, halere, hitz horiek (denak ez bada ere batzuk behintzat) beharrezkoak diren. Gerta liteke, esate baterako, hiztegi batuan bandeja eta *erretilu, betaurreko* eta *antiojo, dibujo* eta *marrazki, koneju* eta *untxe (untxi), lenteja* eta *dilista, bikote eta pareja,...* biak ematea komeni izatea.

Oraingoz hitzak nola idatzi aztertzen ari garenez, era honetako grafiak edo bestelakoak hobestekoak ote diren argitzearekin aski genuke. Txosten honetan, hegoaldean behintzat aski txertaturik dauden aho-hizkera arrunteko hitz hauek >j< letraz idaztea proposatzen da: *aje, baja, majo, traje.*

II.4. GAZTELANIAZKO [X] EBAKERAREN ERAGINA

Gaztelaniaz [x] ebakitzen dira azken ataleko hitz horiek denak, eta euskaraz ere halatsu entzuten dira gehienetan. Aurreko ataletako beste hainbatekin ere, kontrako adibideak ondotxoz ugariagoak izan arren, horixe bera gertatzen ari da. Letra-kontuaren esparrua gainditzen duen gertaera zabala dugu hau, eta merezi luke agian Euskaltzaindiak, hala dagokion alorrean, berariaz aztertzea.

III. MAILEGUZKO HITZETAN NOIZ >-*TATE*< ETA NOIZ >-*DADE*<

Ohiturik gaude, honez gero, euskara batua >-tate< grafiarekin identifikatzera: berezkoa bezala dirudi, euskaldun gazteenentzat batez ere, *unibertsitate, fakultate, elektrizitate, aktibitate, trinitate* moduko hitz-idazkerak ikusi eta hitz-ebakerak entzutea. Ondo pentsatzen jarrita berritasun handia da hori, ordea, euskal eskualde gehienetan. Ipar-ekialdeko euskalkietan izan ezik, eta haietan ere ez da beti-beti arau hori bete izan, *-dade* bukaera *-tate* baino ondotxoz zabalduagoa izan da grafiaz eta hotsez.

L. Villasantek inoiz aipatu izan duenez, erdaratiko hitzetan hain ugaria dugun bukaera honek *-tate (erlatibitate), -date (borondate), -dade (konformidade), -dare (ondare), -tade (bakartade)* eta, agian, *-tada (egitada)* formak ageri ditu euskaraz: bospasei forma beraz, eta ez bi bakarrik. Egia da ordea, guztiarekin ere, egungo maileguak euskaraz ematerakoan goiko bi aukera horiek direla hautakizun nagusiak.

III.1. ARAZOA ZEIN DEN

Euskal hitz-erroei txertatuz atzizki moduan dihardute, hainbat kasutan, *-dade (-dare, -tade, -tada)* zein *-tate* bukaerek: *ondare (ondade), ahuldade, txukundade, bakardade (bakartade), moztade, gogortade (-tada), egitade (-tada, tate), jakitate, ikustate,...* Horietan ez dago, gaur-gaurkoz, batasunaren izenean forma bakarrera jotzeko ohiturarik: gehienera ere *-tasun (bakartasun, gogortasun, ondasun), -eria, ezia (ahuleria, abilezia), -duria, -turia (jakinduria, jakituria)* bukaerekiko adiera-banaketa indartu eta finkatu nahia ageri da han-hemen.

Arazoa, beraz, atzizki moduan ez baizik eta (beren *-tate* edo *-dade* eta guzti) maileguz jasotako hitzekin daukagu. Orain hartzen ari garen maileguetan, zer esanik ez jakintza-alor edo hizketa-modu jantzi, lan-

duetan idatziz darabiltzagunetan, *-tate* forma dugu nagusi: *erlatibitate, intentsitate, errealitate, probabilitate.* Kontrakoa gertatzen zaigu, ordea, garai bateko *kuxidade, konformidade, formalidade* modukoekin. Eta, berriro ere, duda-muda handia ageri da, egungo idazleon artean, bi mutur horien tarte-bitartean dauden hitzekin: *soziedade/sozietate, kasualidade-/kasualitate.*

Aurreko puntuetan bezala, muga-arazoarekin egiten dugu hemen topo: *unibertsitate* edo *fakultate* hitza idazterakoan egungo idazleen artean batasun-maila handia lortu dela dirudi; beraz, hitzok hiztegi batura eramatekotan forma aldetiko buruhauste handirik ez genuke behar. Dauden-daudenean hobetsi-edo daitezke forma horiek hiztegi baturako; bestelako formei, behar izatekotan, horien menpeko sarbidea emango litzaieke. Beste hainbeste esan liteke *edade, nobedade* modukoekin: sartzekotan *-dade* formaz sartzea genuke bidezkoen, lehengo eta oraingo ohituraren arabera. Zer egin tarte-bitarteko guztiekin, ordea: noiz berrijasoen multzora eraman eta noiz aspaldidaniko, edota hegoaldeko herritar gehienen ohizko moldera ekarri.

Kontu honek badu, jakina, alboko beste auzigairik ere: mailegu berrietan noiz *-tate* eta noiz *-tasun* erabil, bereziki. Azken urteotan *gramatikaltasun, anbiguotasun, obje(k)tibotasun, artifizialtasun, orijinaltasun, neutraltasun* moduko idazkerak ugaritzen ari dira, lehenxeagotik ere beren bidea egiten hasiak ziren *naturaltasun, segurtasun, normaltasun* gisakoen antzera. Bide hau indartzen laguntzera, ez eragoztera, jo behar genuke eginahalean. Horrek ere bere mugak ditu ordea eta *grabitate, unitate, kantitate* modukoetan (zer esanik ez aspaldidaniko *karidade, nobedade* gisakoetan) ezer gutxi egin liteke irizpide horren ildotik. Egon badago, beraz, noiz *-tate* eta noiz *-dade* erabili finkatzeko muga-arazorik.

III.2. **PROPOSAMENA**

Esandako kontu horien arabera, eta oraingoan ere egungo erabilera idatzitik hurbilenik -edo legokeen erdibideari eutsi nahirik, honako multzo-banaketa hau proposatzen da:

a) Atzizki moduko *-dade (-tade, -tada, -dare), -tate* zaharrak bere horretan eman: *bakardade (-tade), ondare (-dade), moztade, txukundade, ahuldade, gogortade (-tada), egitate (-tade), jakitate, ikustate,...* Aldaera bat baino gehiago daudenetan, egungo erabilera nagusia zein den argitzea ez da zaila: *bakardade*, esate baterako, erabat ari zaio euskara batuko testuetan *bakartade*-ri nagusitzen. Erabilmaiztasunak ez du, halere, beti eta nonahi azken erabakiaren giltzarri izan beharrik.

b) Atzizki izan gabe aspaldidanik gureganaturik ditugun *-dade* bukaerako maileguetan, egungo erabileran *-tate* moduko trataerarik apenas ageri dutenetan, *-dade* bukaera bere horretan utzi: *kristandade, abil(i)dade, umedade, nobedade, amistade, konformidade, kuxidade, edade (edadeko, edadetu).* Egungo idazle gehien-gehienek era bakarrean ematen duten borondate hitza horrelaxe eman, bestalde.

c) Mailegu berriagoetan hizkera-molde landu, jasoan sarri erabiltzen diren eta normalean, iparraldeko tradizioaren ildotik, euskara batuan *-tate* bidez idatzi ohi direnetan, *-tate* bukaera hobetsi: *propietate, elektrizitate, unibertsitate, fakultate, aktibitate, erlatibitate, dentsitate.*

Hemen ere b) eta c) multzoen arteko mugak sortuko ditu, sarri aski, buruhausteak. Batezbesteko irizpideak joera argi samarra eman arren banan-banako aukerak egin beharko dira, izan ere. Eta, xehetasunetara iritsi orduko, duda-mudak ugari izango dira. Duda-mudazko kasu horietarako lagungarri gerta daitezke, agian, ondoko bi irizpideok:

d) Muga-mugako hainbat kasutan, gerta daiteke forma biak eman eta adiera osagarriz hornitu ahal izatea. Halakoetan, egungo erabileran hartarako oinarririk nabari denetan alegia, bide horri eusten saiatu: fisikaren alorrean *grabitate* hitza erabil daiteke horrela, grabitate-legeaz eta hitz egiterakoan, eta hizkera-molde arrunteko *grabedade*-ri lehendikako bere lekua aitor dakioke bide batez. Beste horrenbeste egin daiteke agian *soziedade (gastronomiko,...) / sozietate (anonimo)* bikotearekin eta abar. Hemen ere kontuak xuxen atera behar genituzke ordea, horrelako aukera-bitasunekin zer irabazten den, eta zer galtzen, aldez aurretik neurtuz.

e) Gorago esan denez, azkenik, egungo erabilerak hartarako joerarik eta indarrik ageri duen neurrian *-dade* edo *-tate* bukaerako hitzak hiztegi batuko zerrendan emateaz gainera "euskal patroi"z sorturiko baliokideen aipamena egin daiteke: *seriedade* ik. *seriotasun, amistade ik. adiskidetasun (adiskidantza), libertade (-tate) ik. askatasun...* Ibaiaren urak berez garamatza, hainbat kontutan, erdal itsasora; euskal mintzoari bere osoan eta bizian eusteko lagungarri gerta daitezke saio horiek, tentuz eta neurrian erabiltzen asmatzen bada.

IV. *ADJEKTIBO, OBJEKTU,...* ALA *ADJETIBO, OBJETU*

Euskaltzaindiak 1986an maileguzko hitzen idazkeraz emandako arauek zera diote, besteak beste: erdaratiko mailegu berrietan >kt<, >kz< eta abarreko kontsonante-multzoak osorik, letrarik jan gabe alegia, idaztea komeni dela. Lehendik ere antzekorik esana zuen Mitxelenak

Arantzazuko txostenean (eta esateaz gainera egin ere bai: *dialektu, transkripzio* moduko idazkera zerabilen bertan). Idazle gehienak ere Euskaltzaindiak gomendaturiko bide horretatik zebiltzan aspalditxoan, eta egungo egunean beste horrenbeste gertatzen da. Mailegu berrietan kontsonante-multzoak osorik gordetzearen arau hori nahiko zabal betetzen da: *arkiteto, didatiko, aministrazio, deduzio* moduko idazkerak bakan ageri dira egungo testuetan.

Badira ordea, hemen ere, adostasun handirik gabeko puntuak. Puntu horietariko batzuk, ez denak, aipatu nahi dira atal honetan. Latinezko *jacere*-tik datozen hitzak, hain zuzen. Alemana eta ingelesa bide beretik doaz, k/c grafemak gora-behera, hitz horietan kontsonante-multzoari osorik eutsiz: *Adjektiv/adjective, Subjekt/subject, Objekt/object, Objektiv/objective, Injektion/injection,...* Gaztelaniak eta frantsesak ez dute, aldiz, beti-bateko idazkera ageri: *proyecto, trayecto, trayectoria, inyectivo, proyección, suprayección* modukoak bi kontsonantez ematen ditu gaztelaniak, baina kontsonante bakarrez *objeto, sujeto, subjetivo, adjetivo.* Frantsesa ere antzeko bidetik, erabat ez bada ere hurbilekotik behintzat, dabil hizkera arruntean aspalditxodanik ezagun-erabiliagoak diren hitzetan.

Maileguzko hitzetan euskarak kontsonante-multzoak bere horretan gorde behar dituela esana dauka, hortaz, Euskaltzaindiak. Zein hizkuntza hartu behar dugu, ordea, maileguzko hitzen iturri? Mailegu-iturriaren bila forma klasiko greko-latinoetara jotzen badugu, erantzuna argia da: latinezko "jacere" hitzetik datozenak *-ektu (objektu), -ektatu (proiektatu), -ektore (injektore), -ektibo (subjektibo), -ektil (proiektil), -ekzio (injekzio), -ektoria (traiektoria)* bidez eman behar ditugu, kontsonante ondoren >j< eta bokal ondoren >i< grafema erabiltzen dugula. Euskara mailegu kontuan frantses-gaztelanien menpeko herstu bihurtu nahi ezak beste kultur hizkuntza handien bide horretara bultzatzen du, neurri on batean. Euskararen eguneroko bizimoldeak, bere interferentzi-erasanak, frantses-gaztelaniekin batera edo bateratsu jokatzera bultzatzen du aitzitik, formulazio teorikoetara gehiegi lerratu gabe. Azken irizpide hau kontuanago hartzen dutenek iparraldean suiet, sujet forma aspaldidanik etxekotua daukagula gogorazten dute, hegoaldean indizio *(cf. injekzio)* bezala, eta albo-hizkuntza nagusiek kontsonante-bakantzera jo dutenetan guk ere hartara jotzea hobe izango dugula diote.

Aukera bi (inoiz hiru) dauzkagu gaur egun, hori dela eta, multzo honetako hitzetan. Ondoko bost hitzotan, bereziki: *adjetibo/adjektibo, objetu/objektu, objetibo/objektibo, suiet/sujetu/subjektu,* eta *subjetibo/subjektibo.*

Zer bidetatik jo behar dugu hauetan?

IV.1. MAIZENIK ERABILITAKO FORMAK

Galdera horri honako beste galdera honekin erantzun dakioke noski: nola erabili (hots, nola idatzi) dira hitz horiek orain arte, eta nola idazten dira orain? Zein forma da, alegia, hitz bakoitzaren kasuan erabiliena? *Orotariko Euskal Hiztegia, EEBS*, I. Sarasolaren maiztasun-hiztegia eta beste zenbait iturri sistematikoki arakatu ditu Miriam Urkiak, hori argitzeko. Atzeko eranskinean ageri dira, gainerako aztergaienekin batera, arakatze-lan horren emaitzak. Badirudi, labur bilduz, honelako zerbait esan daitekeela:

a) *Adjektibo/adjetibo*

UZEIk bere garaian hartutako erabakiaren arabera idazten dugunok, >kt< kontsonante-multzoa bere osoan gorderik, gutxiengoa gara EEBSren arabera. Badirudi *adjetibo* dela, mende honetan zehar eta gaur egun, gehien erabiltzen den forma.

b) *Objektu/objetu; objektibo/objetibo*

Hitz-bukaerako *-o/-u* kontua alde batera utziaz (hori konpondua baitago 1986ko erabakiekin), eta iparraldeko *objet* formak mendetako bidea duela gogoratuz, badirudi objektu idazkera *objetu* baino erabiliagoa dela. Beste horrenbeste esan daiteke, tarteak ondotxoz txikiagoak badira ere, *objektibo*-ren alde.

c) *Subjektu/sujetu; subjektibo/subjetibo*

Forma-aldaerak bestetan baino askoz ugariagoak izan dira hemen, historian zehar. Lehenengo bikoteari dagokionez, honako hamabi grafia hauek aurkitu izan dira azterketa-lanean (ikus eranskina): *subiekt, subiet, subjektu, subjekto, subjetu, suiekt, suiet, suieta, sujet, sujeta, sujetu eta sujeto.* Aniztasun horren parte bat *-u/-o* bukaerari zor zaio, eta hori konponduta dagoela esan berri dugu. Ez, aldiz, hitz-barrukoa. Hemen ere iparraldeko *suiet, sujet, subjet,...* formaren tradizio luzea aipatu beharra dago, izenetan ezezik izenondoetan hain ugaria dena. Hiztegi batuan bere lekua behar du noski hitz-forma horrek, oraindaino bere-bereak izan dituen adieretarako.

Gramatika-alorreko (eta abarretako) adieran, berriz, *adjektibo/adjetibo*-ren kasuan bezalatsu daude kontuak: Kintanaren hiztegiko eta UZEIren araberako idazkera-aukera egin genuenok *subjektu, subjektibo* darabilgu ia beti; aldiz hortik kanpora *sujetu* hitza maizago erabiltzen dela dirudi *(sujetibo*, aldiz, *subjektibo* baino askoz bakanago ageri da).

IV.2. PROPOSAMENA

Esandakoaren argitan zail da proposamen garbirik egitea. Badirudi, lehen hurbilketa moduan, honako bide hau egungo erabilera nagusiarekin egoki samar ezkon daitekeela:

a) *Adjetibo* eta *sujetu* idatzi, jatorrizko kontsonante-multzoak ezabatuz.

b) Duda-mudazko beste hiru kasuetan kontsonante-multzoei eutsi: *objektu, objektibo, subjektibo.*

c) Lehendik zalantzarik ageri ez dutenak dauden-daudenean mantendu, beren kontsonante-multzoekin: *proiektu, proiekzio, traiektoria, injektore.*

d) Bere ohizko adieran eutsi, iparraldean, *suiet* formari. Berdin, hegoaldean, *indizio*-ri.

Egungo erabilera ustez nagusian oinarriturik egin da, esan bezala, sailkapen-modu hau. Erabilmaiztasuna, lehen ere esan dugunez, ezin izan liteke ordea neurpide bakar eta azken giltzarri. Hemen ere galde liteke, adibidez, bi salbuespenengatik bakarrik bereizketa hauek egitea merezi duen. Alderantziz ere berdintsu plantea liteke, jakina: *sujetu* hartzen bada zergatik ez *objetu*, eta abar.

Hemengo gai hau, nolanahi ere, aurreko ataletan ikusi denaren ondoan berezi samarra da: hemengo hitz gehien-gehienak "jaso" horietarikoak dira, eguneroko mintzajardun arrunt, lagunartekoan baino sarriago liburu eta azalpen tekniko-espezializatuetan erabiltzen direnak. Ez dirudi, beraz, *adjektibo* eta *subjektu* ere osorik idazteak eta idazten erakusteak hain zaila behar lukeenik. Eskertuko litzaioke Euskaltzaindiari horri buruzko erabaki xehe bat hartzea.

V. AZKEN HITZ

a) Txosten honetan aurkeztu diren gaiak ez dira, gorago esan denez, Hiztegi Batuko batzordean maizenik agertzen diren arazoak, ez eta buruhauste larrienak sortzen dituztenak. Tartean-tartean agertzen dira, ordea, eta erantzun bat zor zaie. On da, beraz, horrelako kontuotan nondik jotzea komeni litzatekeen argitzen saiatzea.

b) Argitze-lan hori bideratzen laguntzeko prestatu da, hain zuzen, txosten hau. Proposamen gisa aurkezten zaizkio Euskaltzaindiari, bertan eztabaidatu eta aztertzeko eskariaz. Gogoz jasoko ditugu, idatziz badatoz are gogozago gainera, zuen guztion iruzkin, kritika-ohar eta hobekuntza-asmoak.

c) Gogoan izan, azkenik, une honetako azterkizuna ez dela zein mailegu hartu eta zein ez argitzea, hartu beharrekoak nola hartu zehaztea baizik. *Nolako* horrek idazkera finkatzea eskatzen du, bistan denez. Ez hori bakarrik, ordea: maileguzko hitzen ebakera ere oraindainokoan baino xeheago eta begiramen handiagoz aztertzea komeni litzatekeela uste dugu.

* * *

-ARI / -ARIO

Hasieran LEF batzordeak prestaturiko txostenean aipatzen zen *-ario* atzizkidun maileguak nola egokitu. Baten eta bestearen iritziak entzun ondoren, egokiago iruditu zaigu Hiztegi Batuko batzordearen langaietara pasatzea. Nolanahi ere, LEF batzordearen txostenean egiten zen formulazioari, Xabier Kintanak eta Pello Salaburuk egin dizkiote oharrak.

Nolanahi ere, lehen puntuak, *-ario* duten maileguen artean izenak eta izenondoak bereizteari zegokionak, alegia, ez du kontrako iritzirik sortu. Egia da *-ari*-rekin osatzen ditugun hitzak behin baino gehiagotan izenondo modura-edo erabiltzen ditugula; aspaldikoak dira, gainera, halako adibideak (ikus Axularren *esku trabailari* eta *hitz jokolari*). Erdal *-ario* izenondoak, ordea, izenondo erreferentzialak direnez, urrun samar geratzen dira (askotan behintzat) euskal *-ari* atzizkiaren esanahitik. Zer zentzu dute *borroka proletari* edo *sistema planetari*-k? "Proletan ari den borroka" eta "planetan ari den sistema"? Betiko erabileretan, aldiz, *gizon bertsolari* "bertsotan ari dena", *hitz jokolari* "jokoan ari dena", *zakur zaunkari* "zaunkaz ari dena", etab. bezala uler daitezke.

-ari / -ario auzian, beraz, hau litzateke lehen gomendioa: erdal -ario/-aire *atzizkiaz osatutako izenondoak -ario* forman mailegatu:

> autoritario, estatutario, finantzario, frakzionario, hipotekario, humanitario, komunitario, monetario, parlamentario, primario, sektario, sekundario, solidario, unitario...

-ario / -aire atzizkiez osatutako izenen mailegatzeaz

LEF batzordearen txostenean egin zen proposamena ikusirik, Pello Salaburuk dio euskal oinarririk ez duten -ario guztiak ezin direla zaku

berean sartu, *notario* eta *komisario* gauza bat direla, eta *funtzionario* eta *legionario* beste bat.

Gauzak horrela, bi irtenbide eskaintzea erabaki zuen batzordeak, geure artean ere iritziak bereiz dabiltza eta. Lehen formulazioa, *-ario*-ren alde egina da, nolabait esateko; bigarrena, *-ari*-ren alde egina.

1. *-ario / -aire → -ario*

Bide hau hobetsiko balitz, funtsean euskaraz izen eratorritzat har daitezkeenak eta halako azterbiderik onartzen ez dutenak bereiziko genituzke. Gomendioak honakoak lirateke:

1. Erdal formak alde batera utzita, *-ari* bultzatu, euskaraz beregainki erabiltzen den oinarria dugunean: *enpresari, finantzari* (pertsonaz ari garenean), *gerrilari, kritikari, parlamentari, senatari*, etab. Horretarako gogoan izan behar da euskaraz oinarriaren eta *-ari* atzizkiaren artean gertatu izan diren hots-aldaketak, *parlamentu → parlamentari* edo *senatu → senatari* azaltzen laguntzen digutenak (garai bateko *merkatu → merkatari* eta *ezkutu → ezkutari* bezalaxe).

Senatari behar bada ken daiteke, *senatore* ala *senatari* zer gomendatu behar den aztertu arte.

2. *-ario* hartzen duen atala euskaraz izen beregaina ez denean, *-ario* forma gordeko dugu, ez baitugu euskal eratorritzat hartzerik: *notario, komisario, unibertsitario, funtzionario...*

Egia da kasu batzuetan —hala nola *funtzionario* edo *legionario*-renean— baditugula *funtzio* eta *legio*. Baina batasunerako aukeratu ditugun forma horiei *-ari* erantsiko bagenie, *funtziolari* eta *legiolari* izango genituzke (*misio*-tik *misiolari* dugun bezalaxe, forma zaharra *misionari*). *Funtzion* eta *legion* ez dira, beraz, izen beregainak euskara batuan (ez eta euskalki askotan ere). Horrek berak erakusten digu, *función* eta *funcionario*, biak mailegatu ditugula euskaraz.

Datuen azterketa:

OEHko eta EEBSko corpusak aztertuaz ikus daiteke *-ario* dela ia bakarra Hegoaldean (azken urteak kenduaz, jakina). Iparraldean ere ez da ezezaguna. Egia da, bestalde, izen gutxi direla dozenerdi bat inguru tradizioan ditugunak; kontua da izan dugun tradizio, urri samar, horrek etorkizuneko bidea markatu behar duen ala ez.

Antikuari: BA47

Bikario: "Documentado, tanto al norte como al Sur, desde principios del s. XVII. En cuanto a la distribución de variantes, bikario es la más utilizada: es prácticamente la única forma que se documenta al Sur (excepto un ej. de Mendiburu) y es también la más general en los autores septentrionales; los suletinos sin embargo sólo usan bikari, empleado también por algunos autores bajo-navarros y labortanos, alternando en ocasiones con bikario. En DFrec hay 9 ejemplos (4 septentrionales) de bikario, y 2 (uno septentrional) de bikari" (OEH). EEBSen ere 67 agerraldi ditu (kontuan izan OEHko batzuk ere hemen egongo direla)

Botikario: La forma más usada es *botikario*, documentada en autores guipuzcoanos y vizcaínos desde la segunda mitad del s. XVIII hasta nuestros días, y en Barbier y Lafitte. Se encuentra *botikari* en los labortanos Pouvreau, Haraneder y Duhalde y en Mendiburu; *apotikari* en Archu; *potikari* en Duvoisin y *potikario* en Jean Etchepare. En *DFrec* hay un ejemplo de *botikario* y otro de *botikari*" (OEH).

EEBSen 10 agerraldi, horietatik bost Ipar-ekialdekoak eta bi euskara batukoak

Boluntario: forma bakarra, salbuespena Monho-ren *bolontier* izanik.

Funtzionari: EEBS (68 ager.) euskara batuko testuetan.

Funtzionario: EEBS (9 ager.) euskara batuko testuetan eta Mitxelenaren adibide bat (gehi beste bat *funtzionariotza*).

Komisari: Erkiaga, EEBS (31 ager.), Euskal Balada batean.

Komisario: Ipar eta Hego-aldeetako autoreetan (Hiriart-Urruty, J. Etchepare, Elizanburu, etab.). EEBSen 7 ager.

Kontsignatari Merkatalgo Izendegian.

Kontzesionari Merkatalgo Izendegian (baina behar bada izen bizigabetzat hartu beharko genuke, erdal *concesionario* bezalaxe).

Korsari: EEBS (4 agerraldi obra berean) eta Irakaskuntza Mundua izeneko corpusean adibide bat.

Korsario: OEH, Arrese Beitiaren adibide bat.

Legionari: EEBS agerraldi bat, euskara batuko testu batean.

Legionario: EEBS agerraldi bat, gipuzkerazko testu batean.

Milionario (millonario): EEBS agerraldi bakarra, euskara batuko testu batean. Oskillaso (8 agerraldi).

Milionari: AB58 (eta *miliondun* Mirande).

Notari: Iparraldean ia forma bakarra, Orixek ere bai; EEBS 19 agerraldi.

Notario: Hegoaldean (Astarloa, F. Bilbao, Eguzkitza, Uriarte), EEBS 22 agerraldi.

Proletari: EEBS 20 agerraldi, euskara batuko testuetan proletario: EEBS 29 agerraldi, gehienak euskara batukoak (baina batzuk izenondoak ere izango dira, seguruenik).

Proletalgo: EEBS 49 agerraldi, batukoak.

Proletargo: EEBS 74 agerraldi, gehienak batukoak.

Sekretari: Axular, Hiribarren, Iztueta, Mirande, Harriet *(segretari)*, Mercy, Constantin.

Sekretario: Azkue, Arrese Beitia, Akesolo, Añibarro, Arrue, Mitxelena, Labaien, Uztapide, Iztueta, Beovide... *Segretario:* Barbier, Lafitte...

Unibertsitari: EEBS 18 agerraldi, horietatik 9 izenondoak izanik. OEH: Mitxelenaren adibide bat.

Unibertsitario: EEBS 13 agerraldi, horietatik 11 izenondoak.

Datu hauek ikusirik, garbi samar ikusten da, *-ario* izan dela Hegoaldeko joera nagusia eta baita Iparraldekoa ere behin baino gehiagotan. Batasunerako gomendioak ematean erabiltzen dugun irizpidea hartuz gero, ez legoke zalantzarik -ario-ren aldeko gomendioa emateko. Orduan eztabaida daiteke izen jakin batzuekin Hiztegian salbuespenik egin behar den ala ez, *funtzionari* eta unibertsitari izenekin, esaterako.

Tradizioaren irizpidea hobetsi beharrean, beste bide bat ere aukera daiteke eta ondorengo lerroetako formulazioa (edo horren antzekoa) eman:

2. *-ario / -aire → -ari*

Hizkuntza baten estandarizazioa bideratzean, oso kontuan hartzekoak dira forma bakoitzaren erregistro-mailak ere; hau da, nolako iritzia duten hiztunek, gizarteak oro har, forma, atzizki, nahiz egitura batez: maila jasokoa den, lagunartekoa, euskal itxura hobea duena, etab.

Alde honetatik, ez da zalantzarik *-ari* hobetsi dugula azken urteetan pertsona baten lanbidea adierazten duten izenak sortzeko. Hori dute, beraz, gaurko euskaldun eskolatuek eredu.

Hau guztia kontuan izanik, (eta nahiz tradizioan ez den hau izan jokabide nagusia), *-ario/-aire* atzizkiez eratutako maileguak *-ari* forman mailegatuko ditugu:

funtzionari, unibertsitari, legionari, notari, enpresari...

Tradizioan *-ario* forman heldu zaizkigunak, ordea, horrelaxe gordeko ditugu: *botikario, komisario, bikario edo sekretario* (nahiz azken hau baztertuxe geratu zaigun batasunean).

3. Badugu bestalde hitz-sorta bat, mailegu ez izan arren (ez guztiak behintzat), *-ario* horren forma herrikoiagotzat har dezakegun *-ero* atzizkiaz osatua. Horietako batzuk lagunarteko erregistroa dute, hala nola, *gezurtero, politikero, zurrutero, saltsero, litxarrero* edo *parrandero*, non *-ero* atzizkiak "zale" adiera duen. Batzuetan, mespretxuzko adiera ere badu. Lagunarteko erregistro horretan ari garenean erabiliko ditugu halakoak; ez euskara zainduan.

Badira beste batzuk lanbidea adierazten dutenak, hala nola *igeltsero, albaitero, artifiziero, batelero, banderilero, barkilero, pastelero.* Halakoetan, erabilera zainduagoetarako, forma "egokiagoak" aurkitzen edo bultzatzen ahalegindu gara: *su-hiltzaile, gozogile, batelari/batelzain...* Bide horri jarraiki, *barkilero* eta *banderilero* baino lehenago esango genuke *barkilo-saltzaile* edo *banderilari* nahiz *banderila-jartzaile.* Modu berean, forma jasoagoak direlakoan, hobetsiko ditugu batasunerako *igeltsari, albaitari* edo *ingeniari.*

Berriagoetan, hala nola *erreportari* eta horren antzekoetan, behar bada Hiztegi Baturako utz daiteke *erreportari* ala *erreportaiagile/erreportajegile* bultzatu beharko litzatekeen aztertzea.

4. Orain arteko guztia, pertsonak izendatzeko erabiltzen den *-ario*-dun maileguei dagokie, jakina. Gauzak edo animaliak izendatzen dituzten izenak erdaraz *-ario* atzizkiaz eratuak, bere horretan hartuko genituzke: *akuario, brebiario, dromedario, denario, kalbario, eskapulario, seminario...* Betiko *bozkario, sofrikario* edo *zintzilikario*-ren bidea jarraituz.

5. Badira, gainera, *tripulante* edo *navegante* bezalako maileguak, aditzoin batetik eratorriak. Euskaraz ere, inolako oinarririk izatekotan, *tripula(tu)* eta *nabiga(tu)* lituzkete. Egokiago da, beraz, baldin mailegu hauek erabili nahi badira, *tripulatzaile* eta *nabigatzaile* esan eta idaztea. Besterik da, beti bezala, oso sartua egon daitekeen bat edo beste (*interpretari* esaterako) bere horretan uztea.

6. Azkenik, bikoteak eta hirukoteak ere sor daitezke, *manifestari/manifestatzaile, protestari/protestagile/protestatzaile* modukoak, eta zuzen eratuak daudenak. Hiztegi Batuko batzordeak erabaki beharko luke halakoetan, banan-banan, zein forma hobetsi batasunerako.

HIZTEGI BATUA LANTZEKO IRIZPIDEAK: AURKEZPEN-HITZAK

Jose Antonio Aduriz

Bi urte pasatxo dira Hiztegi Batuko batzordea sortu zuela Euskaltzaindiak, oinarriko dokumentu baten bidez egituratuz eginkizunak eta jardun-moldeak (ik. "Hiztegi Batua. Lanketa- eta onespen-prozedurak", in: *Euskera*, XXXVI, 1991-3, 1135-1145 or.). Berehalako batean ekin zion batzordeak bere lanari, hots: bilerak egiteari, aztergaiak mugatzeari, azterkizunak erabakitzeari, etab. Oraingoaren aurretik ezagutu ditugun txostenetan, landu direnen berri eman digu Miren Azkaratek, eta batzordeak aurkitzen dituen arazoetako batzuk azaldu dizkigu Mikel Zalbidek.

Hitz bitan aipatu nahi genituzke orain landu diren irizpideak eta horien formalizazioa: aipatu edo aurkeztu, "Jardunaldion egiazko eta benetako mintzagaia"ri, guztion arteko eztabaidari, bide emateko.

1. Historia baten ondorio direla nabarmenduz egingo genuke lehen oharra: landutako aztergaiak, lehenago jakinarazi zaigunez, aski desberdinak izan dira, begiratzen zaien aldetik begiratzen zaiela; aztertu beharreko formen desberdintasun horren eskutik etorri dira, ezinbestean, irizpideen egituratzea eta garapen-zehaztasunak. Gogora ditzagun berriro aztergaiok.

Z1 kode-marka daraman lehen zerrendan (1968ko "Batasunaren hiztegia" eta 1979ko "H letraren ortografi arauak" zerrendak batean biltzen dituenean) *forma zaharrak* (are zaharkituak) aurkeztu dira: horiei esker, batasuna egiteko zailtasunen bat zuten formak batasun-bidean jarri zituen Euskaltzaindiak, eta Euskara Batuaren sinbolo eta bide-seinale izan dira geroztik euskal idazleriarentzat. Tradizioko erabileretan duten oinarriari erreparatu dio horietan batzordeak, eta ondoko erabilera zainduetan izan duten harrera edo onarpen-mailari.

Z2 zerrendaren (hau da, bigarren aztergaiaren) bereizgarri nabarmenetako bat, **forma berriak** ugari eskaintzea da. Premia berriei erantzuteko proposatuak dira, izan ere, *Zortzi urte arteko Ikastola Hiztegia* (1975), *Matematika-Hiztegia* (1978), *Merkatalgo Izendegia* (1984) edo *Maileguzko*

hitz berriei buruz Euskaltzaindiaren erabakiak (1986) hiztegietako eratorri-konposatu berri nahiz mailegu asko eta asko: tradizioko erabileretan oinarri handirik gabeak direnez, dagozkien irizpideak lantzeko bidea eskaini dute; adibidez, osaeraren aldetik zuzen, zalantzazko ala okerrak diren gertutik zaintzekoa; edo horien premia eta oinarrizko hiztegi batean izan dezaketen lekua neurtzen saiatzekoa.

Z3 zerrendak gaurko *forma erabilienak* jaso ditu, batetik (EEBSko korpuseko 5.200 lema maiztasun handienekoak, edo 20na agerralditik gorakoak); bestetik, *tradizioko* erabilerek bermaturikoak txertatu ditu batzordeak, OEH oinarri harturik. Besteak beste, lehengo eta oraingo erabilerak haztatzeko nahiz aldaeren eta lehiakideen arteko auziak konponbidean jartzeko irizpideak zehaztea eragin dute.

Aldian aldian eskura izandako informazioen araberakoa da, ondorioz, hemengo bilduma: formak aztertuz ateratako ondorio dira, eta ondorio hauen argitan ikusten eta berrikusten dira gero formak; jarraitu ere, horrelaxe jarraitu beharko da, gainera, ondoko urratsetan. Irekia da, beraz, hasieratik eta, horregatik, etengabe landu, zehaztu, formalizatu beharrekoa. Batzordearen egitekoa da hori nagusi-nagusiki, aztergai berriek berekin dakartzaten galdera nahiz azter- edo konponkizun berriei aurre eginez. Baina euskaltzainek eta beste iritzi-emaileek izango dute zer esanik, eta esateko dutena eskatuz dator hemen batzordea.

2. Bere soilean eta gordinean ikusi duzuenok badakizue (eta batzordeak ere badaki) bilduma hau ez dela erosoa, ez atsegina; edo, atzekoz aurrera esanik, ukaezina da zail eta ilun gertatzen dela maiz presentaera honetan. Ez da gutxiago egia, ordea, ezinbestean dela ilun edo konplexua, eta ez inoren egoskorkeriaz edo bazterrak nahasteko asmoz hala korapilatua. Ez da argia izango, baina argigarri izan nahi du (paradoxa batez esatea zilegi baledi); argi egitea du xede behinena, funtsezko bi bereizgarriri esker: agiri horren leialtasuna eta zehaztasuna dira orain eta hemen azpimarratzekoak.

Lehenik eta behin, *leiala* izan nahi du: lekukotasuna eskaintzen du, batzordea zeri ohartu zaion, nola aztertzen dituen auzigaiak, zer-nolako pisua aitortzen dien informazio nahiz jokaera desberdinei, etab. Era berean salatzen du, noski, zer ahantzi den. Ez dago bi aldiz esan beharrik, ahantziak gogoraraztea izan daitekeela iritzi-emaileen ekarririk oparo eta aberasgarrienetako bat.

Une berean, *zehatza* izan nahi du. Analitikoegia izan daiteke gaur duen itxura edo egitura, eta izango da zer soildua; baina baditu, gure ustez, alde on bat baino gehiago. Pare bat behintzat aipatu nahi genuke: hasteko, argi eta labur adierazi ahal izango dira hala egin daitezkeenak, alferrikako sasietan galtzeko arriskutik ihesi. Bestalde, sistematikoa eta

homogenoa izango da (baita formalki ere, datu-base lexikografikoaren egitura islatuz); eta zurruntasun horri esker: a) eginak eta eginkizunak nabarmenduko ditu aldi oroz; b) berrikusteak eta birmoldaketak gertutik jarraitzeko bidea emango du; c) irizpide bakoitzari darizkion ondorioak batera ikusteko modua eskainiko du; d) usu aipatuen ondoan, oso gutxitan baliaturiko irizpideak ere jaso ditzake, ikusitako kasuetatik abiatuz ager daitezkeenak aurrikusiz. Azkenik, hierarkiak definitzeko tresna egokia izatea espero dugu, irizpideak pilatzen eta gurutzatzen diren kasuetan.

3. Lehen begiratuan baso itxi dirudiena, argiago ikus genezake begiak pixka bat aldendu eta gainez gain ikusten saiatuz gero (dokumentuaren hasierako eskemari kasu egitea aski da **ikuspegi osoaz** jabetzeko): bost sail nagusitan egituratua dago, eta hainbat azpisailetan banatua. Gogoratu baino ez ditugu egingo, ohartxo bat edo beste tartekatuz geure aldetik, seinalatzekoenak nabarmentzeko nahiz batzordeak iritzi-emaileengandik espero duena azpimarratzeko okasio gisa.

3.1. Erabakia edo batzordearen proposamena eskaintzen da lehenik, A-H letra nagusien bidez. A erabaki-marka legoke batetik, hots: batzordearen ustez, beste gabe onartu-hobesteko formei dagokiena; eta besteak bestetik. Balegoke zer esanik horietako bakoitzaz; bi puntu aipatuz etsiko dugu, ordea:

Erabaki-markatzat B dutenak izan daitezke forma ugarienak; gero eta ugariagoak izango dira, gainera, hiztegia itxura osora hurbiltzen den heinean. Informazioren bat erantsiz eskainiko dira hauek: formari berari dagokion oharra izan daiteke, erabilerari dagokiona edo adierari dagokiona, etab. Batasuna egiteko formak proposatzea denez eginkizun behinena, nabarmentzekoak dira hemen B1 eta B2 markak, besteak beste Euskaltzainen eskabidea izan baitute eragile: literatur tradizioak bermaturiko euskalki-formak seinalatuko dituzte, lehiakideen arteko hierarkiak egituratuko, Euskara Baturako hobestekoak bereiziko, etab.

F erabaki-markak hurrengo itzulietan (berr)ikustekoa den forma adierazten du. Askotarikoa izan daiteke erabaki hori eragin duen arrazoia, baina gehien-gehienetan informazio osoagoaren premiak hartaratzen du, eta UZEIko prestalaneko lantaldeari informazioa biltzeko eskabidea izan ohi du berehalako ondorio, eta batzordea momentuz zain geratzea. Nolanahi ere, halako forma bat batzordeak baino hobeto ezagutzen dutenen argibideak inon baino premiazkoagoak izango dira kasu hauetan, berezi-bereziki erabileremu sektorialetakoak.

3.2. Erabilerei buruzko informazioaren lekua dator bigarren. Deus berririk asmatzen ibili gabe, nahikoa dugu sorrerako agirian esan eta aginduak gogoratzea:

> "Lexikoaren batasunerako erreferentzia nagusia, batezbesteko erabilera da (idatzizkoa, guri dagokigunean)" (1141. or.).

Argi azaltzen du dokumentu berak erabilera horien lekukotasuna non dagoen: "OEHren corpusa eta EEBSrena izango dira erabileraren oinarrizko erreferentziak" (1142. or.). Baita erabilerok ezagutzeko bitartekoak ere:

> "UZEIko lantaldeak, nagusi-nagusiki OEHko eta EEBSko corpusetan oinarrituz, hitz-zerrendak eta beharrezkoa litzatekeen kasuetan txostenak prestatuko lituzke Hiztegi batuaren batzordeari aurkezteko" (1139. or.).

Modu bat baino gehiagotan aurkezten ditu lantaldeak bere sinopsi eta txostenak, segun eta nolakoa den batzordearen eskabidea. Horiek aurrean dituela, informazioaren *irakurketa* egiten du gero batzordeak.

Zubi bezala da atal hau erabileren eta batzordearen irizpideen artean. Bestela esan, erabilerak irakurtzeko eta, bidenabar, haztatzeko modu "objektiboak" bilatzen ditu. Aitortu beharra daukagu, ordea, hainbat kasutan ez dela batere erraza helburu horretara iristea: zail dela, alegia, datu guztiak eta bakoitza zergatik edo zein neurritan diren esanahitsu erabakitzea; zertan esanik ez, oso delikatua dela halako autoreri zor zaion pisua eta eragina balioztatzea.

Neurri handi batean eginkizun dago haztapen-lan hori, adierazi den bezala. Hala ere, lehen zirriborroa baino zerbait gehixeago moldatu dugula esatera ausartuko ginateke. Aldaera edo forma lehiakideen arteko banaketen tipologia itxuratzeko hainbat oinarri finkatu da jadanik, etorriko direnen hasikin: banaketa diakroniko-dialektalak dira ongien zedarrituak, jakina; autoritatezko banaketak, aldiz, muga askoz ere definigaitzagoetan mugitzen dira.

Saiotzat hartu behar da, horregatik, oraindainokoan formalizatu dena. Saio, eztabaidagai eta, batez ere, eskaeratzat: izango baitu honetaz zer esanik iritzi-emaile bat baino gehiagok, eta ez baitigu inolako kalterik egingo gure tradizioari tamaina hartzeko ahaleginak.

3.3. Batzordearen irizpideak datoz hirugarren lekuan. Hasiera batean bestela egin bagenituen ere, forma zahar / forma berri bereizketa nagusiaren gain berregituratu dira idaztaldi honetan, hobeto erantzutearren bateko zein besteko auziei.

Forma zaharrez edo tradizioko ondareaz ari direnei buruz ez dago esateko berri handirik, teilakatu egiten baitira erabileren irakurketa-irizpideekin. Aski bedi gorago esana.

Forma berriei dagozkienak sailkatzen eta egituratzen egin den ahalegina, berriz, aipatzekoa dela uste dugu. Premia ere halakoxea delako ipini da horretan ipini den arreta. Izan ere, behin eta berriro salatu eta salatzen da gaur korritzen duen hainbat forma oker edo arrotz edo bitxi, bidenabar hiztun-idazleen zabarkeria, utzikeria edo ezjakina jorratuz. Euskaltzaleen artean bizi-bizirik dagoen kezka hori ezin gera zitekeen hiztegi batuaren eginkizunetatik aparte. Eta ez da geratu.

Edozein auzigaitan bezala, maileguei buruzkoetan ere batzordeak izan du non oinarritua, hutsetik abiatu gabe; gogoan izan ditu, eta gidari, Euskaltzaindiaren gomendio-erabakiak. Aparteko arreta zor zaie, noski, bai formez ari diren 1986ko erabakiei, bai 1991ko agiriari ("Euskaltzaindiaren bigarren agiria euskal hitzei buruz"). Azken honek dioena gogora genezake:

> "orduan [1959an, "Euskaltzaindiak euskal hitzei buruz lehen agiria eman zuen"ean] zenbait hitzen euskal nortasuna defendatu zuen bezala, egungo egunean beste zenbaiten arroztasuna salatu nahi du Euskaltzaindiak, esanez: *Euskara bizian sustraituak ez daudenak ez dira euskal hitzak,* sustraitzen ez diren bitartean bederen (...) ez dira erabat euskal hitzak gaztelera edo frantsesa jakin gabe euskaldun batek ezin adi ditzakeenak".

Erabakia *negative* formulatua egoteak izango du azalbiderik eta, uste izatekoa denez, baita alde onik ere. Beste horrenbeste esan liteke adibide konkretu gutxi emateaz (hala dio agiriak: "Ez da beharrezko (...) hemen zerrenda luzea eskain dezagun gure ustez euskal hitzak ez direnena. Askiko da ale batzuk ematea"). Batzordea, berriz, erabaki eta gomendio horiek puntuka eta kasuka aplikatu eta zehaztu beharrean aurkitu da, aztergaietatik zetozkion formak ikusi ahala. Eta bere irizpideak xehekiago formulatzen saiatu da: zein kasutan den onartzekoa mailegu berria eta zeinetan baztertzekoa, eta zergatik (noiz den "nazioarteko", noiz betetzen duen "baldintza minimoa", nolako egokitzapena dagokion, horren zein premia dagoen, etc.).

Gisa bertsuan aztertu dira eratorri-konposatu berriak: LEF batzordearen (eta besteren) ikerketak eta Euskaltzaindiaren gomendioak gogoan izanik, kasuan kasuko proposamena egin da, forma berri bakoitza onartzeko nahiz baztertzeko arrazoiak aipatuz.

Azken bi sailak gaingiroki aipatuz bukatuko ditugu aurkezpen-hitzok. Azterraldi honetan berezikiago enplegatzen gaituen forma soilen lanketatik hiztegi-egitura osorako bidean ikustekoak dira bata nahiz bestea.

3.4. Informazio osagarria biltzen duen laugarren sailean, bi motatako oharrak jaso ohi dira batez ere: formen eta lexemen arteko erlazioa

argitzen dute batzuk (esate baterako, baliokideak emanez, lehiakideak haztatuz; edo "lehen mailako" / "bigarren mailako" onarpen-graduak proposatuz). Formaren osaera argitzen saiatzen dira besteak: dela forma jakin batena, dela hainbat formak batera duten arazo sistematiko-paradigmatikoa.

3.5. Bosgarren eta azken saila informazio lexikografikoari dagokio. Gerora findu beharko direnen erakusgarri gisa, oinarri-oinarrizkoa da pasaldi honetan biltzen dena: formak ulertzeko eta, bidenabar, zuzen erabiltzeko eskain daitezkeen abiapuntuko argibideak, alegia, erabileremuaz, erabilera sintaktikoaz nahiz adiera edo arlo semantikoaz.

Horiek dira batzordeak egin ohi dituen oharrak; horiek, une honetan nabarmendu nahi genituen puntu eta punttuak. Zuei dagokizue eztabaidatzea, okerrak zuzentzea nahiz onak hobetzea. Aldez aurretik, mila esker.

HIZTEGI BATUA OSATZEKO IRIZPIDEAK

Hiztegi Batuko batzordea

0. Hitzen formak erabakiz joateko, hainbat hitz-zerrenda izan du batzordeak abiapuntu. Forma bakoitzari dagokion erabakia hartu du (A-tik H-ra arteko letraz adieraziz), eta hainbat informazio erantsiz agertu nahi du bere erabakia (zenbaki-kodez formalizaturik). Hona, eskema gisa, horien sail nagusiak:

1. Batzordearen erabakia

2. Batzordeak oinarri izan duen erabilerei buruzko informazioa
   20. erabileren bermagarria
   21. erabileren irakurketa formal-laburtua
   22. erabileren irakurketa haztatu-kritikoa

3. Batzordearen irizpideak
   30. Zerrendako forma baztertzekoa denean
   31. Forma zaharretan
   32. Forma berri(ago)etan
   33. Forma berrietan
      33.1. Mailegu berrietan
      33.2. Eratorri-konposatu berrietan
   34. Erabaki gabe utzitako formetan

4. Informazio osagarria formari buruz
   41. Baliokideak (edo/eta ordezkoak)
   42. Forma berria(k) gehitzea
   43. Forma baztertzekoak seinalatzea
   44. Formaren osaera argitzea
   45. Erregulartasun sistematikoa lantzea

5. Marka edo/eta informazio lexikografikoa
   50. Formatu-arazoak
   51. Forma onartu(ar)en erabileremuak
   52. Erabilera sintaktikoa
   53. Adierak edo arlo semantikoa

1. BATZORDEAREN ERABAKIA

A Beste gabe onartu eta hobetsi du batzordeak zerrendako forma, eta ez du, bere aldetik, gehiago esan beharrik ikusi
B Zerrendako forma onartu du batzordeak, baina informazio bat gehituz eskaini nahi du
B1 Zerrendako forma hobestekoa da, baina badu bigarren mailan onartzekoa den aldaera
B2 Zerrendako forma bigarren mailan onartzekoa da, hobestekoa denarekin erlazionatuz
B3 Zerrendako forma onartzekoa da, baina azpisarrera dagokio formatuz
C Zerrendako aldaera edo lexema bat onartu du batzordeak, eta bestea baztertu
D Zerrendako forma biak (nahiz gehiago) onartzekoak direla erabaki du batzordeak
E Zerrendako forma baztertu, eta beste batez ordezkatzea erabaki du batzordeak
F Zerrendako forma hurrengo urrats batean erabakitzeko utzi du batzordeak, argibideen txostena eskatuz eta argitu beharrekoak zehaztuz
G Forma bakar-batua erabakitzerik ez du izan batzordeak
H Zerrendako forma baztertzea erabaki du batzordeak, ordezkorik eman gabe
Z1 Lehen aztergaian ikusi zen forma bera
Z2 Bigarren aztergaian ikusi zen forma bera
ZZ1 Lehen aztergaian errepikaturik agertu da forma
ZZ2 Bigarren aztergaian errepikaturik agertu da forma

2. BATZORDEAK OINARRI IZAN DUEN ERABILEREI BURUZKO INFORMAZIOA

20. Erabileren bermagarria

20.1. txosten osoa (lauki sinoptikoa)

20.2. txostenaren laburpena eskainiko da, egokitzat jotzean

20.20. jasotako informazio osoaren laburpena: OEH, EEBS, Maiztasun Hiztegia, Irakasmunduko eta Komunikabideetako hustuketak; hiztegi, entziklopedia, estilo-liburu, etab.etako proposamenak, etc.

20.21. OEHko datuak

20.22. EEBSko datuak

20.3. ahozko erabilerak (EHHA, EAEL,...)

21. **erabileren irakurketa formal-laburtua**

21.1. lehen A / gaur B

21.11. euskalki guztietan edo gehienetan (Ipar eta Hego) nagusitu den forma

21.12. euskalki edo eremu bateko hitza izanik, horretan nagusi(tu) den forma: cf. *andrazko*

21.13. lehen bakarra zen forma, gero etorri da aniztasuna, euskalkiren batek eraberritzean: cf. *alkandora*

21.14. euskara batuak hautsi du bideraturik zegoen batasuna

21.2. Iparralde-ekialde A / Hegoalde-mendebalde B

21.21. Bizkaiera-Gipuzkeretan A / bestetan B: cf. *are-2 / arre, arhe*

21.22. Bizkaieraz A / bestetan B

21.23. Gipuzkeraz A / Bizkaiera-Iparraldeetan B: cf. *amaginarreba*

21.3. Gaurko joerak

21.4. etc.: formalizatzeko dago

22. **erabileren irakurketa haztatu-kritikoa**

22.1. batasuna egina dago delako formaren inguruan

22.11. forma zaharra da

22.111. forma nagusia da alde eta aldi guztietan (baina datuok jakinaraztea komeni da): cf. *arpoi*

22.112. forma nagusia da gaur

22.112.1. zaharra da, eta, berriagoa egon den arren, zaharra nagusi da erabilera zainduetan (ik. 31.231): cf. adina

22.112.2. forma zaharrak hainbat dira, baina bat nagusitu da erabat gaurko erabilera zainduetan: cf. *amaginarreba, ardo, arrain, arraun, arrazoi, arrazoiketa, aulki*

22.112.3. forma berri(ago)a da, baina hedatu-nagusitu dena: cf. *arraildu*

22.12. forma berria da, edo erabilera urri samarrekoa; baina onartzekoa

22.120. lehiakide posibleen kaltetan: cf. *abadesa/?abatesa; abangoardia; adasdun, adausi, adaje*

22.121. ongi eratua baita: cf. *adierraz, aurrekari, aurrerakarga*

22.122. jatorri-osaerak gorabehera, hedatu-nagusitua baita: cf. *abelazkuntza, angelu*

22.123. adierazle egokia da, eta horren premia dago (cf. 33.212): cf. *aberrigabe, adindun, adingabe*

22.13. forma zaharra da, gerora beste lexema batek ordezkatua: cf. arregatu: ik. ureztatu

22.15. forma (zahar) baztertzekoa izanik, baztertze-markarekin aipatuko da, forma hobetsirako bidalketa eginez: cf. *?abots: ik. ahots*

22.2. batasuna gabe, aniztasuna dago edo/eta egon da delako formaren inguruan, eta batera ikustekoak dira forma lehiakideak

22.21. aldaerok daude lehian: cf. *atximurkatu/atximurtu*

22.22. forma honek beste lexema hau(ek) d(it)u lehian

22.23. forma honek aldaerak eta beste lexema hau(ek) ditu lehian: cf. igurain

22.3. erregimenak daude lehian

29. Onartzekoa da, nahiz orain arte formalizatu diren irizpideen arabera onartezina izan (cf. 33.113.14): cf. yate

3. BATZORDEAREN IRIZPIDEAK

30. **Zerrendako forma baztertzekoa** dela erabaki du batzordeak (ordezkorik eman gabe)

30.1. hitz-zatiak ez dira sarrera gisa emango, eskuarki: cf. *ada-*

30.2. lexia konplexuak (inoiz erabileremu mugatukoak) ez dira sarrera gisa emango, eskuarki: cf. *diedro baten plano erdikari*

30.3. Izen komertzialak, pertsona- edo leku-izenak baztertzekoak dira

30.4. Jentilizioak eta hizkuntzen izenak oraingoz baztertzekoak dira (cf. Onomastika batzordearen lana, eta 34.1 irizpidea)

30.51. Adieraz ilun-nahasia delako bazter utzi da oraingoz

30.52. Adiera soiltzean, ulertezina gertatuko litzateke forma (berria, hedatu gabea izaki)

30.6. iratxoak ez dira aipatuko, beren okerraz abisatu beharrik ez dagoenean

30.7. Forma erabat nagusituaren aldaera izanik, ez dago hiztegi honetan aipatu beharrik: cf. *alkar, elgar*

30.8. Osagai gramatikalak gero ikustekoak dira: cf. *bait-*

31. **Forma zaharretan**

31.0. Forma (zahar) baztertzekoa izanik, baztertze-markarekin aipatuko da, forma hobetsirako bidalketa eginez

31.1. ***Euskaltzaindiak EBrako proposatua***

31.11. Euskaltzaindiak EBrako proposatua da hobestekoa

31.111. Euskaltzaindiak EBrako proposaturiko forma da hedatuena eta erabat (edo ia erabat) nagusitu dena

31.112. Euskaltzaindiak EBrako proposaturiko forma berrestekoa da, aldatzeko arrazoi pisuzkorik ez dagoenean, nahiz gaurko erabileretan erabat nagusitu ez

31.113. Euskaltzaindiaren lehendiko proposamena berrestekoa da, nahiz ahoz darabiltenek beste forma erabili: cf. *anitz / aunitz, hanitx*

31.114. Euskaltzaindiak EBrako proposaturiko forma berrestekoa da, nahiz B eta Gkoa beste forma bat den: cf. *dorre, pilota*

31.12. Euskaltzaindiaren lehendiko proposamena berrikustekoa da, bideratua zegoen batasuna hautsi duenean, baina atzera egiterik badagoen ikusi behar denean: cf. *amor(e) eman*

31.13. Euskaltzaindiaren proposamena baztertzekoa da, eta beste batez ordezkatzekoa

31.131. B eta G ez beste euskalki bat edo batzuetakoa denean

31.132. bitasuna sortarazi duenean, bideratua zegoen batasuna hautsiz: cf. **monastegi: ik. monasterio*

31.133. beste forma bat nagusitu denean gaurko erabileretan

31.134. Onarpenik izan ez duen proposamena da (cf. 33.234): cf. *agentzialari*

31.135. Tradizioko oinarririk gabea da: cf. *balixa*

31.136. Ez da forma okerra, baina ez dago oraingo maila honetan jaso beharrik, ba baitago ordezko hedatu-hobestekorik

31.2. ***Formarik hedatuena*** da hobestekoa

31.20. Formarik hedatuena, tradizioko erabilerek bermatzen dutena da

31.21. batera B eta G euskalkietakoa den forma da hobestekoa

31.22. Ipar eta Hego, mugaren bi aldeetan hedatuena da hobestekoa, aldeetako batean beste bat erabiliagoa izan arren

31.23. forma zahar komuna da hobestekoa

31.231. forma zahar komuna da hobestekoa, euskalki batek eraberritzean sortu denean bitasuna

31.232. forma zahar komuna da hobestekoa, analogiaz eratutako berri(ago)ak hautsi duenean batasuna: cf. airatu/aireratu

31.24. euskalki mugatuetako formak, dagokien markarekin jasotzekoak dira

31.25. Erabilera urriko formetan bat hobestean, kasuan kasuko arrazoia agertu du batzordeak: cf. asaskatu

31.3. ***Gaurko "erabilera zaindu"etan nagusitua*** da hobestekoa

31.31. atzera-bueltarik gabe nagusitu denean: cf. *aulki*

31.32. nagusitu denean, aldeko arrazoi handirik ez duen arren

31.33. nagusitu denean, eta beste ezein forma hobesteko arrazoirik ez dagoenean

31.4. ***Sistemak agintzen duen forma da*** hobestekoa, hots: paradigmaren arabera erregularra (ik. beherago 45)

31.41. forma garden-ulergarriak hobestekoak dira: cf. aheri: ik. ahoeri

31.42. anbiguitatea saihesteko bidea eskaintzen duten formak hobestekoak dira: cf. islada vs. isla

32. **Forma berri(ago)etan**

32.1. forma berriagoa da hobestekoa, baldin

32.11. B eta G euskalkiek batera berritua, eta nagusitua, bada

32.12. euskalki bateko forma izanik, eta honek eraberritu ondoren, euskalki horretan gaur erabiltzen den forma bada

32.13. forma zaharr(ago)a erabilera urrikoa bada

32.131. forma zaharr(ago)a herri-hizkerakoa bada: cf. albaitero

32.132. forma zaharr(ago)a zaharkitua bada

32.133. forma garden-analogikoa bada (ik. 45)

33. **Forma (mailegu eta eratorri-konposatu) berrietan,** tradizioko erabilerek ezin berma ditzaketenetan

33.1. ***Mailegu berria da***

33.11. Mailegu onartzekoa da:

33.111. nazioarteko forma da, eta

33.111.1. nazioarteko forma da, eta beste gabe onartzekoa

33.111.2. nazioarteko forma da, eta onartzekoa, euskal osaerazko baliokidearekin batera (cf. 33.213.5)

33.111.3. nazioarteko forma da, eta onartzekoa, korritzen duen euskal baliokidea okerra baita osaeraz (cf. 44.2): cf. *noria*

33.111.4. nazioarteko forma da, eta onartzekoa, proposatu den euskal forma ez baita egokia adiera horretan: cf. libre (vs. *taxi hargai*)

33.112. "baldintza minimoa" betetzen duen forma da (antzekoa da gaztelaniaz eta frantsesez), eta

33.112.1. baldintza minimoa betetzen duen forma da, eta beste gabe onartzekoa

33.112.2. baldintza minimoa betetzen duen forma da, eta onartzekoa, euskal osaerazko baliokidearekin batera (cf. 33.213.5): cf. konberjente/joerabakar; larba/eltxar

33.112.3. baldintza minimoa betetzen duen forma da, eta onartzekoa, korritzen duen euskal baliokidea okerra baita osaeraz: cf. bolumen-/barnera

33.112.4. baldintza minimoa betetzen duen forma da, eta onartzekoa izan daiteke, horren premia handirik ez dagoen arren, euskal osaerazko hedatu(ago)a baitu ondoan (ik. 33.131.11 irizpidea ere): cf. paralitiko (vs. perlesiadun)

33.112.5. baldintza minimoa betetzen duen forma da, eta onartzekoa, forma hobeto aztertuz: cf. album

33.112.6. baldintza minimoa betetzen duen forma da, eta onartzekoa, adiera(k) argituz: cf. apartamentu

33.113. ez du "baldintza minimoa" betetzen (gaztelania eta frantsesa bide banatatik dabiltza), baina onartzekoa da:

33.113.11. nazioarteko formatik hurbilena edo forma nazioarteko(en)a da hobestekoa

33.113.12. ezaguna da bai Ipar. eta bai Heg. (gaztelaniatikoa izan nahiz frantsesetikoa)

33.113.13. mugaren bi aldeetan da hedatuena (aldeetako batean beste bat erabiliagoa izan arren): cf. *aliketa*

33.113.14. hedatua dagoen forma onartu da (ordezko hoberik ez duena)

33.113.15. erdaretako batetikoa onartu da, bakarra aski delakoan: cf. *seilu*

33.113.2. onartzekoa da, euskal osaerazko ordainarekin batera

33.113.21. euskarazko forma da batasuna egiteko bidea: cf. *aberia: ik. matxura*

33.113.22. gaztelaniatiko eta frantsesetiko mailegu biak onartu dira bigarren mailan, euskal ordain posiblea indartzeko, honetarako bidalketak eginez (ik. B1 eta B2 erabaki-markak): cf. *koltxoi, matalaz vs. lastaira; kortxo vs. artelazki*

33.113.3. batzordeak ezin ezar dezake forma baturik Euskal Herri osorako, eta erabiltzen diren biak jaso ditu (ik. 41.115): cf. *ezantza, gasolina*

33.113.4. onartzekoa da, korritzen duen euskal baliokidea okerra baita osaeraz: cf. *komisaldegi*

33.114. onartzekoa da, egokitzapenaren sistematika zainduz (hots, gisako arazoa dutenekin batera aztertuz: ik. 45.4): cf. *r-; -ng; -y*

33.12. mailegu baztertzekoa da

33.120. beste bat da forma nazioartekoa, eta onartzekoa

33.121. ez dago jaso beharrik, inolako egokitzapenik gabekoa denez, erabili nahi duenak jatorrizko forman erabiliko baitu: cf. *self-service*

33.122. ez dago maileguaren premiarik, ba baitu (euskal) ordain egokia: cf. *bar / taberna*

33.123. ez du "baldintza minimoa" betetzen

33.123.1. erdaretako batean bakarrik egiten den forma- nahiz adiera-bereizketari dagokio delako forma, eta bereizketa hori ez egitea erabaki da: cf. *fruta/fruitu, kontrata/kontratu*

33.123.2. ulertezina da Euskal Herriaren alde batean (gaztelaniatikoa izanik, ulertezina da Iparraldean; frantsesetikoa izanik, ulertezina da Hegoaldean)

33.124. onarpenik izan ez duen proposamena da

33.13. erabakitzeko dago onartu ala baztertu

33.131. baldintza minimoa betetzen du, baina:

33.131.1. batzordeak ez daki horren premiarik badagoen, eta hobeto ikustekoa da, edo/eta sektorekoek erabakitzekoa

33.131.2. aski erabilia den arren, (oso) aldartekoa izan daiteke

33.131.3. oinarria onartzekoa izanik, izond. erreferentzialaren premia ez dago horren argi: cf. *koniko*

33.132. ez du baldintza minimoa betetzen, baina adierazle bat behar denez:

33.132.1. zer-nola erabiltzen den ezagutu nahi da, eta forma erabilia(k) onartzeko modukoa(k) ote d(ir)en

33.132.2. euskal ordain egokia bilatu eta proposatuko da (horretarako, proposamenak ekarriko dituzte batzordekideek hurrengo bileretara)

33.133. baldintza minimoa betetzen duen ikusi behar da: cf. *aseguro*

33.133.1. Erdaretako formak ikusiko dira, mailegu berriaren forma erabakitzeko

33.134. Forma bakar-batua erabakitzerik ez du batzordeak, eta inoren (berezi-bereziki Euskaltzaindiaren) esku utzi du erabakia

33.14. Ez da horrenbestez euskal hitza dela esaten; baina, erabiltzekotan, forma horretan erabiltzekoa da

33.2. ***Eratorri-konposatu berria da***

33.21. Eratorri-konposatu onartzekoa da

33.211. Beste gabe onartzekoa da, ez baitu tradizioko lehiakiderik, ongi eratua baita, eta ez dago zer argiturik (cf. 22.121)

33.212. Adierazle egokia da eta horren premia dago (cf. 22.123): cf. *aberrigabe*

33.213. Lehiakideekiko erlazioa argituz onartzekoa da

33.213.1. hobestekoa da, tradizioko forma lehiakidearen kaltetan: cf. *albaitari/albaitero*

33.213.2. hobestekoa da, lehiakidea baino hedatuagoa baita: cf. *urlehortar/ur-lehorreko*

33.213.3. onartzekoa da, eta hobestekoa mailegu onartuaren aldean (cf. 33.112.2): cf. *hegazkin*

33.213.4. onartzekoa da, EHko parte bateko forma lehiakidearekin batera: cf. *altuera/goratasun*

33.213.5. onartzekoa da, mailegu onartuarekin batera (cf. 33.11.2; 33.112.2): cf. *hegazkin / abioi*

33.213.6. onartu-hobestekoa da, maileguaren ordez: cf. *irristailu*

33.214. Osaeraz argibideren bat eskaini nahi da

33.214.1. beste hizkuntzetako erreferentzi(ar)en arabera moldatua da

33.214.2. ik. 44

33.22. Hobeto aztertzekoa da eratorri-konposatu berria

33.221. Forma lehiakideak ditu, eta erabilerak ikusiko dira: cf. *arnasbotatze*

33.222. Erdaretako formak ikusiko dira, osaera ezagutzeko

33.223. Erabilia da eta ez du lehiakiderik; baina EHren parte batean onartzeko modukoa den ikusi nahi da: cf. *laborategi*

33.224. Formaren aldetik ez dago arazorik, nahiz zalantzak dauden hiztegi honetan sarbidea emateaz: cf. *askaldegi*

33.23. Eratorri-konposatu baztertzekoa da

33.231. Tradizioan "egina zegoen batasuna hautsi" baitu: cf. *monastegi*

33.231.1. Tradizioko forma saihesteko sorturiko neologismoa baita: cf. *bakaldun*

33.232. Tradizio urriko forma izanik, garden-analogikoa nagusitu baitzaio (cf. 44; 45)

33.233. Osaera okerrekoa baita (cf. 44.2): cf. *aintzinatekari*

33.234. Inoiz proposaturiko forma onartu-hedatu ez dena baita (cf. 31.134): cf. *agentzialari*

33.235. Badu lehiakide hedatuagoa, eta hau aski baita: cf. *ur-lehorreko* > urlehortar; baieztu > baieztatu

34. **Erabaki gabe utzi da,** edo/eta hurrengo ikustaldi batean erabakitzeko (cf. F eta H erabaki-markak)

34.0. Batzordeak ez du forma onartu ala baztertu erabaki, baina aipatu egin nahi du, zer esanik duenak esan dezan: cf. *banka*

34.1. Euskaltzaindiaren beste instantzia bati dagokio delako forma erabakitzea, eta batzordea zain geratu da (cf. EGLU, LEF, Onomastika, EHHA batzordeak; cf. 30.4; 42.131)

34.11. Euskaltzaindiaren esku utzi da forma erabakitzea, eta batzordeak esku arteko datuak eskainiko ditu

34.2. Lehiakideen arteko banaketa argituko da, txostenak eskainiko duen informazio osagarriaren argitan

34.3. Erabilera urriko formak daude lehian

34.31. erabilera urriko formak daude lehian, eta informazio osagarria bilduz erabakitzekoak dira: cf. *abixoi*

34.32. idatzizko erabilera urriko formak daude lehian, eta ahozko erabileren banaketa ezagutuko da (cf. EHHA)

34.33. idatzizko erabilera urriko formak daude lehian, eta iritzi-emaileengandik etor daitekeen argiaren zain geratu da batzordea

34.34. sektorekoei galdetzekoa da zer darabilten

34.4. Batzordearen irizpideak gurutzatu egiten dira, eta horien arteko hierarkia ez dago erabakia

4. INFORMAZIO OSAGARRIA FORMARI BURUZ

41. **Baliokideak** (edo/eta **ordezkoak)** emango dira

41.1. Zerrendako forma onartuaren baliokideak, formen arteko ***hierarkia*** adieraziz

41.10. Forma onartuaren aldaera baztergarriak seinalatu dira

41.101. Forma zuzen-onartuaren (inguruko) eraikuntza okerrak seinalatu dira (ik. 44.25): cf. *eta abar luze bat*

41.11. Zerrendako forma onartuaren parekoak

41.111. sinonimoa(k) jasoz

41.111.1. hiperonimoa emanez

41.111.2. sinonimo erabateko/partezkoak diren argituz: cf. *bihi, garau*

41.112. zerrendakoaren pareko forma(k): cf. *neurtezin / neurgaitz*

41.113. euskalki-banaketa desberdineko forma parekoa: cf. *marexal*

41.114. zerrendako mailegu onartuaren pareko euskal osaerazkoa (cf. 33.111.2; 33.112.2)

41.115. zerrendako mailegu onartuaren pareko beste mailegua (cf. 33.113.3)

41.116. zerrendako formaren laburdura: cf. eta abar, etc.

41.12. Zerrendako forma hobetsiari dago(z)kion bigarren mailako forma(k)

41.121. zerrendakoa da hobestekoa, hedatuena baita (markatugabea, etc.)

41.122. zerrendakoa da hobetsi eta indartzekoa, mailegu onartuaren aldean (cf. 33.111.2; 33.112.2; 33.113.2): cf. *isun*

41.123. zerrendakoa da teorian eta irizpideen arabera hobestekoa, nahiz zalantzak izan horren onarpen sozialaz: cf. *arbendol*

41.13. zerrendako onartua baino forma gomendagarriagoa(k)

41.131. Zerrendako forma bigarren mailakotzat onartuz, beste bat proposatzen du batzordeak EBrako

41.131.1. zerrendakoa markatua (adib., lexiko zainduko autoreek ez darabiltena) edo erabilera urriagokoa baita

41.131.2. zerrendakoa erabileremu geografiko-dialektal mugatukoa baita

41.131.3. zerrendakoa erdibideko mailegua da, bigarren mailan onartzekoa eta beste bat baita indartzekoa: cf. *zorte* baino egokiagoa da *zori*

41.131.4. zerrendakoa baino egokiagoa da beste hau, adiera jakin baterako: cf. *aztertu* baino hobe da *industu*

41.2. Zerrendako forma baztertzekoaren ***ordezkoak***

41.201. zerrendakoa baztertzekoa da, eta ez dago aipatu beharrik (cf. 30.07)

41.202. zerrendako hau baztertzekoa da, baina aipatzekoa, forma hobetsirako bidalketa egiteko: cf. †*alkar: ik. elkar*

41.203. forma okerra da, eta sarrera emango zaio, forma zuzenerako bidalketa eginez: cf. **haina: ik. adina*

41.21. euskal ordain egokia

41.210. batasuna egiteko bidea eskaintzen duen forma

41.211. grafia hobestekoa: cf. *and(e)re: ik. andre*

41.212. aldaera baztertuaren ordaina: cf. *aintzin: ik. aitzin*

41.213. lexema baztertuaren ordaina (tradizioan oinarritu(ago)a, etc.): cf. *araberatu: ik. arautu*

41.214. forma hedatuagoa: cf. *parasol: ik. aterki*

41.215. eratorri-konposatu baztertuaren ordaina

41.215.1. konposatu desegokiaren ordez (cf. 44.22): cf. **ontziz-aldatu: ik. ontzialdatu*

41.215.2. zerrendako eratorri desegokiaren ordez (cf. 44.23): cf. †*norantza: ik. noranzko*

41.215.3. zerrendako forma berri, batasun-haustailearen ordez: cf. †*ministergoa: ik. ministerio; ?ohizko: ik. ohiko*

41.216.1. mailegu baztertuaren euskal ordaina (cf. 33.122): cf. †*aberia: ik. matxura*

41.216.2. mailegu gaizki egokituaren ordez (cf. 44.241): cf. *neumatiko: ik. pneumatiko*

41.216.3. mailegu erdizka egokituaren ordez (cf. 44.242): cf. *airedromo: ik. aerodromo*

41.22. zerrendako forma osatua(k) baztertuz, osagaietako bat jaso da

41.3. ***bereizketa semantikoak*** landuz gehitzekoak

42. **Forma berria(k)** gehitu d(it)u batzordeak

42.0. Zerrendako formaren inguruko beste zein forma onartu behar den ikusteko dago

42.1. Forma berria(k) gehitu d(it)u batzordeak, zerrendakoak eraginik

42.11. Zerrendako lexia, eratorri edo hitz-zatiak eraginda, hitz oinarria erantsi da

42.12. Zerrendakoaren oinarri bereko eratorri, konposatu, esapide edo/eta izond. erreferentzialak

42.120. gerora ikusiko da eratorriari dagokion lekua, formatu aldetik (sarrera, azpisarrera, adibide; cf. txikigarri-handigarriak, *-ka* bidezko adlag., *-ko* bidezko izond., *x egin, x jo*, etc.)

42.121. sarrera bati dago(z)kion azpisarrera(k) (cf. B3 erabakia)

42.122. sarrera autonomoan ematekoa

42.123. sistematika zainduz gehitzekoa (cf.45.5); adib., *-tze* aditz-izen tradizioak izen-banaketan bermatuak; *-arazi;* partizipio izen-banaketan usu erabiliak, etab.

42.123.1. leku-denborazko izenen eratorriak: cf. *aurren / azken; aurre / atze*

42.123.2. atzizki jakin batzuen bidezko eratorriak: cf. *-tsu*

42.13. Aditz-izenak eta aditzoina (era burutuaz gain)

42.131. Aditzoinaren forma erabakitzeko dago, Euskara Batuko batzordeak argibideak eskaini zain (cf. 34.1)

42.131.1. sistematika batean bil daitezkeen aditzoinak: cf. *lant(u), zuri(tu), aberas(tu)*

42.14. Forma berria(k) gehitu d(it)u batzordeak, zerrendakoak eraginda (adib., antzekotasuna dela medio): cf. *amor(e): ik. halaber amodio*

42.2. Forma berria(k) gehitu d(it)u batzordeak bere aldetik (zerrendakoekin zerikusi zuzenik gabe)

42.21. Tradizioan halako erabilera-bermea duen forma (hiztegiari oreka-osotasunak emateko egokia dena: OEHko agerraldiak dira irizpide nagusia; eskuarki ez da markatu, baina irizpide honen arabera txertatuak dira Z3:HBB kodea daramaten forma gehienak)

42.211. Euskalki mailan tradizioz erabilitako forma, eta hobetsia aipatuz jaso beharrekoa: cf. *bagil: ik. ekain*

42.22. Forma berria(k) gehitu-proposatu d(it)u batzordeak, tradizioan oinarri handirik izan ez arren

42.22.1. premia bati erantzuteko

42.22.2. eskaera bati erantzuteko

42.22.3. hitz-elkarketako osagai berria(k) gehitu-proposatu d(it)u batzordeak, adiera bat emateko egokitzat joz: cf. *azal-*

42.3. Baztertzekoa dela abisatzeko gehitu da korritzen duen forma

43. **Forma baztertzekoak:** ik. 30; 31.13; 33.12; 33.23; 41.2; 42.3

44. **Formaren osaera** argitu nahi da

44.0. Forma osatua den arren (lexia, adib.), onartzekoa da

44.1. ***Osaera egokia*** seinalatu da

44.11. Forma zaharra da: cf. *garbi-ikuziak*

44.12. Forma berria da, eta ongi eratua

44.120. idazkera egokia eskaintzen du

44.120.1. idazkera egokia eskaintzen du, ez baitagokio behialako hots-legea: cf. *zainzuri*

44.120.2. idazkera hedatuena baita: cf. lotuta/bereiz idatz daitezkeen forma osatuak

44.121. Forma osatu lexikalizatua da

44.122. Hitz-elkarketa egokia da

44.123. Eratorri egokia da

44.123.1. Oinarri hobetsiaren gain eraikitako eratorri-konposatua da: cf. *igogailu*

44.123.2. Atzizki-aldaera hobestekoa darama: cf. *-gabe(ko), -orde(ko)*

44.124. Beste hizkuntzetako erreferentzi(ar)en arabera moldatua da (ik. 33.214.1)

44.2. ***Osaera okerreko forma*** dela ohartarazi da

44.20. Osaera okerreko forma da, baina onartzekoa

44.201. oso hedatua dagoelako: cf. gasolindegi

44.202. erabili(a) delako: cf. haikatu

44.203. arau orokorraren salbuespena delako: cf. urtukor

44.21. Forma berria izanik, behialako hots-legea aplikatu zaio

44.22. Elkarketa desegokia egin da (cf. 41.215.1)

44.23. Eratorri desegokia da (cf. 41.215.2)

44.231. oinarri baztertzekoaren gain eraikitako eratorri-konposatua da

44.232. eratorpen-atzizki hobestekoa besterik da: cf. -gabe/-gabeko, -orde/-ordeko

44.24. Maileguaren egokitzapen okerra da

44.241. Maileguaren egokitzapen okerra da, arautuaren kontrakoa (cf. 41.216.2): cf. diska

44.242. Maileguaren erdizkako egokitzapena da (cf. 41.216.3; hibridoak): cf. airedromo

44.25. eraikuntza okerra da, osagaiak zuzenak izanik (cf. 41.101): cf. eta abar luze bat

44.3. ***Osaera azterkizun dago***

44.30. Jatorria argituko da lehenik: cf. flasko, islada

44.31. Idazkera egoki(en)a eskainiko da: cf. lotu/bereiz

44.32. Forma osatu lehiakideekin batera ikustekoa da: cf. arnasbotatze

44.321. oinarria erabaki behar da lehenik (ik. irizpide orokorra, s.u. loradenda): cf. aire-untzi

44.322. Eratorpen-atzizkien banaketa argitu behar da: cf. -go, -tza, -tasun

44.33. Elkarketaz zalantzak ditu batzordeak: cf. aire-bidaia, aire-garraio

44.34. Maileguaren egokitzapena zehazkiago aztertzekoa da (cf. 45.4)

45. **Erregulartasun sistematikoa**

45.0. Hainbat formak, ahaidetasun formala dela kausa, aztergai komuna dute, sistematikoki eta paradigma erregularretan lantzekoa

45.1. Lexemen erregulartasuna: cf. *b-/p-, d-/t-, g-/k-; (t)x-/z-; -z-/-x-, -s-/-x-; -n* zalantzazkoak

45.2. Eratorpen-atzizkien (eta -aurrizkien) erregulartasuna: cf. *-eri(a); -zain/-zaingo/-zaintza*

45.3. Oinarri-eratorrien arteko erregulartasuna: cf. *abantaila/abantaila-tu*

45.4. Maileguen egokitzapen sistematikoa (cf. 33.114): cf. *r-; st-; -ng; -y*

45.5. Eratorri sistematikoki gehitzekoak (cf. 42.123)

45.51. Atzizkien araberako erabakiak (adib., *-tsu, -garren* bidezko zein eratorri sartu?)

5. MARKA EDO/ETA INFORMAZIO LEXIKOGRAFIKOA

50. Formatu-arazoak

51. Forma onartu(ar)en ***erabileremua(k)*** argitu eta mugatuz

51.0. Forma lehiakideen artean bat hobetsiz: cf. Jainko/Jaungoiko

51.1. Erabileremu dialektala: cf. G, Ipar., Zub., etc.

51.2. Mailak: cf. Jasoa, herritarra, adierazkorra...

51.3. Maiztasuna: cf. g.g.er., g.er.

51.4. Diakronia: cf. Zah., neol.

51.5. Jakite-arloak: cf. matematika, medikuntza,...

51.6. Ahozko erabilera ezagunak

51.61. ahozko erabileren banaketa ikertuak (cf. EAEL, EHHA)

52. ***Erabilera sintaktikoa*** argituz

52.0. Numeroa: cf. ez-sing.

52.1. Kategoria: cf. iz., izond., etc.

52.2. Aditz-erregimena: cf. *da ad., da/du ad.*, etc.

52.3. Deklinabidea: cf. *bihartik/bihardanik*

52.4. Esapide ohizko(en)ak emanez

52.41. hitz-elkarketan hartzen duen forma berezia adieraziz: cf. *anaia, arnasa*

52.5. Adibide argigarriak, testuinguru egokiak... gehituz

52.51. aditzoinaren erabilerak argituz (adib. *"urdin(du) ezazu laukia, eta gorri(tu) hirukia"; "beltz/belztu* (ez *belz) *ezazu"; "motz/moztu (ez *moz) dadin")*

52.52. zerrendako forma osatua (nahiz OEHko azpisarrera) oinarriari dagozkion adibideen artean jasoz

53. ***Adiera(k)*** edo arlo semantikoa argituz (mugaketaz, ik. *abade)*

53.0. adiera mugatzeko zailtasunak seinalatuz

53.1. forma baten adiera(k) zehaztuz

53.11. hedapenezko adierak jasoz (cf. zabalkuntza semantikoak): cf. *haztatu*

53.12. forma bat sarrera desberdinetan bereiziz: cf. *adar*

53.13. erabileremuen araberako adierak argituz

53.2. forma batek ez d(it)uen adiera(k) abisatuz, okerrak zuzentzeko

53.21. *faux-amis* arriskutsuak seinalatuz: cf. *antsia*

53.22. hedapenezko adiera okerra seinalatuz / eta ordezko forma(k) eskainiz: cf. *abarketa*

53.3. Formen arteko bereizketa semantikoak landuz: cf. *adaska / aldaska; arbola / zuhaitz*

53.31. Eratorpen-atzizkien araberako bereizketa semantikoak landuz: cf. *-keta/-tze/-kin*

53.32. Forma-adieren gurutzamenduak argituz: cf. *apartamentu*

53.9. espezie mailako taxonomi izena emanez landare- eta animali izenetan

KOLDO MITXELENAREN ZINEMA-KRITIKETAKO HITZ ELKARTUAK

Leioa, 1994. 10. 05
Elixabete Perez Gaztelu

A) HITZ ELKARTUEN SAILKAPENA: AZTERGAIA

Euskaltzaindiak sorreraren hirurogeita hamabostgarren urtea lan-akuilu eta ospakizun hartu duela-eta, ondoko txostenok ere jardunaldiontzako bihiño lagungarria izan nahi lukete. Horretarako, euskalaritzan oro har eta Euskaltzaindian zehazki hainbat eta hainbat arrazoigatik bazter eta atzenezina den Koldo Mitxelena errenteriarraren hitz-altxorreko bi erakusgarriño dira ekarriak (Mitxelenaren zinema-kritiketako hitz elkartuena lehenik eta hitz eratorriena bigarren) **(1)**, Euskaltzaindiak berak adieraziriko aholkuari eutsi nahiz; hau da, urteotako batzordeen lana eta orain plazara doana uztartzearen kariaz.

Begien bistakoa eta jakinaren gainekoa da gaiak hemen eskainia baino halako hamaika merezi duela eta litekeena da, gainera, axaleko lardaskatzeak eta galde-zalantzak besterik aidean ez uztea. Halaz ere —astiaren urria eta gaiaren sakona izaki tarteko— luzamendutan ibili gabe zenbait puntutara murriztuko dut eginkizuna, esan bezala, biltzar honen xedea eta Mitxelenaren hitz-altxorreko atal hau uztarkide bilakatzen dituen zuzenenetara.

Bi txostenok molde bera hartuko dute: lehenik Koldo Mitxelenaren zinema-kritiketako hitz elkartu eta eratorrien bilduma sailkatua eskainiko da eta ondoren iruzkinak.

I. HITZ ELKARTU KOPULATIBOAK

I.1. Dvandvak

I.1.1. Izena + Izena → Izena: neska-mutil (130, 164) **(2)**, gizon-emakume (131, 142, 158, 159, 171, 186), atso-agure (132), beso-zanko (133), gaunegu (136), arrazoi-eskarmentu (141), zentzu-adimen (143), senaremazte (144), jainko-jainkosa (146), nagusi-langile (149), aurpegi-gogo (152), jantzi-soineko (154), begi-belarri (154), egile-zuzentzaile (159),

(1) Hitz eratorriak biltzen eta sailkatzen Marilis Telletxea laguntzaile izan dut.
(2) Orrialdeen zenbakia *MEIG* argitaraldiari dagokio.

neke-oinaze (159), zahar-gazte (159) (izond → iz), poz-nahigabe (164), neke-nahigabe (172), gorputz-arima (174), maitasun-gorroto (179), Azkoiti-Azpeitia (192), zeru-lur (193), izen-deitura (195), begi-adimen (198)

I.1.2. Adberbioa + Adberbioa → Izena: gorabehera (144, 191), gainbehera (123) **(3)**?

I.1.3. Aditza + Aditza → Izena: joan-etorri (194)

I.1.4. Izenondoa + Izenondoa → Izenondoa: zabal-lehor (130), txuri-beltz (134), ezti-mingots (136), xuri-gorri (160), txuri-gorri (164, 175), luze-zabalean (izond → adlag) (160), gor-mutu (160), handi-garesti (165), dotore-argi (173), nabar-alai (175), harro ausart (181), gazi-gozo (183), garbi-aldakor (183), ezur-aragizko (191)

I.1.5. Aditza + Aditza → Aditza: handi-zabaldu (141), hautsi-konpondu eta josi-urratu (187)

I.1.6. Zenbatzailea + Zenbatzailea: bospasei (130, 195), bizpahiru (154), laubost (194)

I.2. **Tautologiak:** poz-atsegin (178), izu-ikara (164)

I.3. **Aposizioak:** Rubicon ibaia (152), Prai Bartolome (191), Joxe komeriante (199)

I.4. **Atribuziozkoak:** izen arrano (133), andre atezai (149), zine-etxe (171)?, zaldun ezpatari (177), haur mukizu (179), oinarri (191, 197) **(4)**?

I.5. **Koordinaziozkoak:** leon-kastilo (132) **(5)**, irri-parre (136), Garat-Luis Mariano (166)?, Claudette Colbert-Mme. de Maintenon, Sacha Guitry-Luis XIVgarrena (178)?

(3) Dvandva peto-petotzat jotzeko debekuak dituena, ene ustez.
Bidenabar esan dezadan behin eta birritan ikusi ahal izango den galde-ikurra aztertzailearen ezjakinari zor zaiola, dela osagaiaren morfologi izaera, dela hitz elkartuaren ulermodua tarteko izaki.

(4) Ikus daitekeen bezala, dudazkotzat joak ez beste guztiak "B den A" egiturakoak dira.

(5) "Leon-kastiloan bezala da". (132).

II. IZENEN INGURUAN

II.1. Menpekotasunezko izen elkartuak

II.1.1. *Eguzki-lore* **(6)**:

'Iturburua' (Behi-esne): gizarte auzi (123), oinordeko (126)?, politika-lokatz (127), kandel-argi (131), pelota-txapeldun (133)?, parre-algara (136), haur-amets (146, 170)?, arkaitz-zurrunbilo (146), maitasun begi (145) **(7)**, jainko maitasun (147)?, jainko-begiramen (147)?, "Zorte etsaiak" (154), artile (175), oinatz (179), poesi igortzi (181), neke-sari (186), txistu-soinu (188), kitarra soinu (191), tronpeta-soinu (194), bonba-eztanda (194)

'Jabegoa': joko-lege (129), egun-argi (143), suge-mizto (145), giza-izaera (143), haur amets (146, 170)?, errege jauregi (164), haur-irudimen (170), haur-jolas (175), eliz-torre (164)?, gizarte eta eliz-pilare (182)?, bihotz gogorkeria (183)?, bihotz-mugida (183)?, jeneral-seme (195), gogo-urduritasun (198)?

'Osotasuna/zatia': igande-eguerdi (133), hezur-muin (136), udazken buru (136), zine-atari (141), mahats-ale (146), gizarte-klase (149), asto-belarri (157), gorosti-makila (174), eliz-torre (164)?, gizarte eta eliz-pilare (182)?, haur-arpegi (183) galtz-ipurdi (134)? **(8)**

'Zer-noiz': pake-egun (188)

'Zer-non': hil-ohe (194)

'Edukia': erruki-etxe (132)?, listor-kabi (158), garibiltoki (164), etxajaun ["mamu edo iratxo"] (174)?, irudi-liburu (178)?, taberna zulo (173), taberna-zulo (181), zezen-plaza (181)?

'Ondorioa' (Esne-behi): "amets-fabrika" (123, 172), txoro-fabrika (172), poz eta negar-iturri (152), atsegin iturri (181)

'Zeri-zer': jainko maitasun (147)?, jainko-begiramen (147)?

'Baliabidea, Gaia': "espatadantxan" (132), giza-neurriko (142), giza-irudiko (146), euskal deitura (150), giza-sinbolu (153), erdal idazki (158), argi-oihal (160), amets-ate (170), teknika-joko (170), urriki-laino (170), amets-herri (171), marrazki-film (174), amets-bizitza (177), irudi-liburu (178)?, amets-laino (181), horma-burruntzi (182), irudimen-jolas (192), euskal literatura (193), gar-hodei (194), euskal idazle (197)

---

(6) Mota oparo honen barruan zalantzaz jositako zatisailkapen modukoa egin dut, osagaien arteko harreman semantikoa iparrorratz hartuz.

(7) "Maitasunak ez baititu nahi eta ez begiak lausotzen, aitzitik argitu eta zorroztu egiten ditu sarri. Eta maitasun begi erne hori ez da batzuetan, gehienetan ez bada, kaxkarrena izaten". (145).

(8) "... ez ezkontza hautsi eta ez, daraman jantzia daramala, Iñaki galtz-ipurditik hartu eta arkaitz batetik behera bota". (134).

'-(r)i buruzkoa': arte-gai (139, 197)?, mediku-gai (149)?, teatro-gai (192)?, zinema-aste (182)

'Helburua': begi-festa (merke) (123), haur-eskola (132), "Muxu-zapi" (141), giltza-zulo (144), haur-ipui (146), liktore-aizkora (146), gerra-ontzi (177), zezen-plaza (181)?, prediku-leku (193), hil-ohe (194) atseden eta jolas behar (124)?

'Non-zer': eskola-liburu (142), itsas-ontzi (158), herri-plaza (173), basetxe (175, 176)?, itsas-hegazti (186), herri-landare (190), oinarri (191, 197), eliz-torre (154), gizarte eta eliz-pilare (182), bihotz gogorkeria (183), gogo-urduritasun (198)

'Multzo- eta zati-elkarteak': "osto-pilo" (130), artalde (140), film-andana (143), irudi-andana (178), amorante-sail (178), korapilo (133), film pila (189), zakar-pila (196); aldakuntza-apur (150), musika-zati (154), pikardi-ttantto (159)

basa-bazter (130), itsas-ertz (132, 173, 197), ezpain-ertz (133), osin ertz (183), arkaitz-mutur (132), ur-axal (158), kale-kantoi (173), itsas-axal (186)

eguerdi(alde) (132)

'Konparazio- eta irizpen-elkarteak': Erromar itxura (129), giza-itxura (129), bizitz-itxura (149), amets-itxura (143), kristau itxura (160), otxan-itxura (191), negar-usai (131), arrotz-usai (143), egi-usai (152), kartoi-usai (154), arrisku eta heriotz-usai (169), arto bero usai (145)?, Luzifer-airetxo (147), Prometheu-aire (147), egi-antxa (149), lehor-antxa (191)

egi-antzeko (141), oker-antxean (159), makur antzeko (gizon zuzen) **(9)** (167); animali-itxuratan (175), kartoi-itxurazko (124), pixti itxurako (146), aingeru itxurako (183), pailazo itxurako (183), ontto-itxurako (194), eliz-torre gisako (164) **(10)**

euskaldun izen(eko) (131), Erromar izen (142), palmondo (152), arte-lan (160, 187), antze-lan (170), dirukontu (166), itsu-mutil (140)?, gizaseme (179, 180, 198)?, giza-seme (187)?,arte-gai (139, 197)?, mediku-gai (149)?, teatro-gai (192)?

Eskola-molde: jakintza-mota (142), borroka-mota (166), film-mota (190)

Andregai: eguraldi (132), hotzaldi (151), hitzaldi (181) (hitzalditxo (147), loaldi (197); Pizkunde-aro (154)?, haurtzaro (129, 142, 158, 160, 171, 181, 196)?; eskubide (136, 158), negarbide (136), arnaspide (145), bizibide (179), arrazoibide (180, 187), amets bide (181), tren-bide (181, 182), poz eta harrotasun-bide (183), algara-bide (185), ubide (190) ["acueducto"], heriotz-bide (193), lanbide (195); andregai (132)

zirku-gizon (173), legegizon (189), elizgizon (197); giza-arraza (194)?; adiskide (125, 126, 127, 158, 178); gizakume (142), antxume (157), emakume (182); bizilagun (128); itsu-mutil (140)?, gizaseme (179, 180, 198)?, giza-seme (187)?, errukietxe (132)?, zine-etxe (171)? **(11)**, basetxe (175, 176)?, etxola (173)

(9) Ez dakit Bogartek zer iritziko liokeen errenteriarrarentzat ere hagitz aldrebes ez den definizio moduko hitzjoko honi.

(10) *LEF-4* laneko sailkamoduari nagokio, Azkaratek (1990:406) adierazi bezala, nik ere sail honetako batzuk, beharbada, postposizioen artean sartuko nituzkeen arren.

(11) Atribuziozkotzat jo al daiteke adibidetegiko beste bi "etxe" (*erruki etxe, basetxe*) ez bezala?

Mugakizuna leku-denborazkoa: lurralde (131, 146, 171, 181), gainalde (145, 178), huts eta oker-alde (152), azken-alde (173), herrialde (170), goizalde (196), Iparralde (198); gizarte (123, 138, 149, 163, 182), txolarte (128, 178), lagunarte (135), lagun-arte (181), etxarte (144) **(12)**, hutsarte (146), hutsartetxo (174), jendarte (165, 173, 179), betaurreko (135), etxe aurre (149) **(13)**; bihotz-barren (152, 173), giza-izaera barren (143), etxe barren (154); 24 ordu barru (163) **(14)**, etxebarru (164); aterpe (123), barrunbe (125), giltzape (138, 159, 179); etxe-gain (132), bekain (160), soingaineko (164)

mugatzailea leku-denborazkoa: goi-mailako (123, 124), azpi-lan (150)

Ipar-Amerika (129), Ipar-Ameriketarik (142) (eta Ameriketatik (186)), Ipar Ameriketako (149, 157), Ipar Ameriketan (163) (eta Ameriketako, orrialde berean), Ipar Amerika urrutietan (167), Ipar-Amerikako (152), Ipar-Amerikan (152) **(15)**

Ihartuak **(16)**: gizarte (123, 138, 149, 163, 182), adiskide (125, 126, 127, 158, 178), goganbehar (126), txolarte (128, 178), korapilo (133), artalde (140), txori-malo (142) (metafora?), ugazama (150), buruzagi (125, 131, 175, 190, 192), sukalde (152), erdipurdiko (155)?, izengoiti (158), bekain (160), artile (175), azterren (180), txorabiatu (181)?, emakume (182), uholde (186), bekaitz (191)

Metaforak: lur-ikara (126), hotzikara (136, 174), arto bero usai (145), zakur--amets (146), txakur-amets (170), gau-txori (182), horma-burruntzi (182), txoriburu (196)

Izen-elkarketazko postposizioak: erdi-aldera (151, 174), azken-aldeko (169), azkenalderako (199), Australia aldean (194); azken-aldi honetan (150, 187), azkenaldi honetan (177); handizki arteko (150), zakar-artean (182), begi-aurrean (172), ate-atzean (141); ezpain gainean (124), lur-gainean (194); Doniane-inguruan (146), etxe-inguruan (172); kai-ondoan (132), gerra ondoko (182), hil ondoko (iraute) (197)

II.1.2. **Asmo-elkarteak** (*nahi, gose, zale, min, behar, beldur, ezin* mugakizundunak): agindu nahi (125), agin-nahian (126), handi-nahi (127), alda-nahi (137), jakin-nahi (150), suma-nahian (174); diru-gose (126), odol-gose (169), fede-gose (198); euskaltzale (iz) (127), arrantzale (iz) (132) **(17)**, axal-eder zale (145), Garatzale (166), Cervantes-zale (181), Chaplin-zale (185), baleazale (iz) (186), gerrazale (187, 195), pakezale (195); negu-min (136), herrimin (171), maite-min (186); goganbehar (126), jaso eta (...) jatxi behar (130), eginbehar (131), mugi-behar (135), behera-behar (137)?, hil-behar (137), erantzunbehar (139, 177) (erantzunbeharre-

(12) 'Patio'.

(13) 'Fachada'.

(14) "... egitekoak 24 ordu barrukoak baitira". (163).

(15) Hemen sartu arren, ez dakit justu hau duten berezko tokia.

Amerika hitzaren erabilerak (singular-pluralek) makurtu naute adibide guztiak aldatzera.

(16) Sail honetan sartuetan badira osagaiak garden xamar bereizteko modukoak dituztenak eta niri hala iruditu ez zaizkidanak.

(17) Hau eta beheragoko *baleazale*, hemen baino hobeto egongo lirateke eratorbidean, *LEF-3*k dioen modura. Han ere jasoko ditut.

ko (170)), erdi-behar (157), jaso beharrez (159), etsibehar (183); jainko-beldur (147), arrisku-beldur (175); etsai-asmo (126); ezin-eraman (125), ezin-ikusi (126, 171, 185), ezinegon (177)

gaizkile usteko (138), adiskide usteko (183) **(18)**

II.1.3. **Aditzoina + izena:** harralditxo (123), ekitaldi (128), astinaldi (131), begiralditxo (139), agerraldi (154), ibilaldi (183), aterraldi (196); pentsabide (124), argibide (130)? **(19)**, ikuspide (135), hazibide (138), aurrerapide (142, 160)?, galbide (147) (galbideratu (154)), okerbide (150)?, irakaspide (150), lasapide (151), itzulbide (151), ihespide (165), kontabide (170)?, sendabide (174), irtenbide (174), amilbide (179), ikasbide (181, 195), hobe bidean (195), mintzabide (199); errekai (126), ezkongai (129, 151), irakurgai (129, 146), salgai (130) **(20)**; eserleku (124), dantzaleku (152)?, gordeleku (165), borrokaleku (165, 189)?, antzeztoki (136, 143), jolastoki (152), (gari)biltoki (164); eginahalean (124, 145, 152), eginahal (159), nahaspil (125), itzulinguru (126), jaioterri (146), helburu (174), hil zorian (196), leher-eztanda (gaizto egin) (145)

bizialargun (163) ('bizirik dagoenak alargun utzi' ulertuaz)

II.1.4. **Hitz elkartu sintetikoak:**

Egile-elkarte sintetikoak

Errokariak: harakin (151), ikazkin (195), ongile (125), amesgile (126), gaizkile (138, 180), langile (139, 149), zinemagile (147); atezai (149, 179); bihoztun (iz) (127), atorra dotoredun (133), (pelota-)txapeldun (133), hiztun (136), (film eta nobela) tesisdun (138), (Historia) H-dun (142), (mediku) izandun (150), euskaldun (131, 150), (etsai itsu eta) begidun (153), dirudun (157, (gazte) dirudun 163), jakitun (170), zaldun (177), errudun (180, 192), fededun (198, 199)

Soilak: buru-neke (123)?, begi-neke (147)?, etxekalte (166), galtza-jario (182)

Osatuak: gona-neurtzaile (140), gizon-jale (146), zinema-ikusle (147), turuta-jotzaile (158), gaizki-esale (165), mutur-jokalari (166, 190), tren-gidari (171), kate haustaile (173), begi-gozagarri (187), hagin-ateratzaile (190), kale-argitzaile eta garbitzaile (192)

asko jakin (135)

gizon hiltzaile? (189) **(21)**

Ekintza-elkarte sintetikoak

(18) *LEF-3*n (110-111) aipatzen ez den egiturakoak, han "izenondoa + uste(ko)" edo "aditza + uste(ko)" besterik ez baita papereratzen. Hauek, ordea, izenak dira.

(19) Multzo honetako galde-ikurradunak duda beraren adierazgarriak dira: ezpaigabea al da oinarria aditzoina dela?

(20) Ez da izena:

"Beste zerbait ere behar da apika, baina 'zer' hori ez da dendetan salgai daudenetakoa". (130).

(21) "... eta gure Akiles eta Ulises aukeratzekotan gizon hiltzaile burutsua eta legegizon maltzurra hautatu beharko genituzke". (189).)

Errokariak: gaizkintza (128), zubi-gintza (187) **(22)**

Soilak: egunsenti (136), haize-erauntsi (145), bihotz-ukitu (136), bihotz-mugida (183)?, azpi-jan (127, 151), azpi-jan(ean) (142)

Osatuak: odol ixurtze (129), odol-isurtze (174), malko-ixurtze (136), hegaztijate (137), oroimen galtze ("edo amnesia") (146), buru hauste (149) **(23)**, buruhauste (149, 158, 180), famili galtze (159), gizon-hiltze (174), kontu-garbitze (190), lan-banaketa (138), ume-jostaketa (169), moda-erakusketa (178)

Jardun-elkarte sintetikoak

Soilak: atun-bila (132), eskola bila (138), izu-bila (174), amets-bila (177), bidebila (196), Jainko-bila (196), begiramen-zur (136)? **(24)**; argi eske (196) "denborapaxako" (139); etxa-ihes (adb) (182)?

Osatuak: mutur-joka (133), mutur-joka (157) (baina mutur-joka (iz.) (166) **(25)**, bertso kantari (193)

Kartoi-itxurazko gelditasun (124), pixti itxurako arkaitz-zurrunbilo (146), deus gutxiko arazo (152), ardura gutxiagoko (152), bi ahoko ezpata (183), aingeru itxurako pailazo edo pailazo itxurako aingeru (183), eite beretsuko gai (187), hamar bizitzako etxe (191), bihotz garbiko (199) **(26)**

II.1.5. **Zenbait mugatzaile berezikoak** *(zehar, sasi, urruti):* zehar-joko (151), sasi-ezkontza (157), urrutizkin (194)

II.2. Sintaxi-egituretatikakoak

II.2.1. **Justaposizioak (Izena + Izenondoa):** zorioneko (129, 149, 199), zorionezko (196), zorionez (197), herriko plaza nagusi (133)?, udazken (136), udaberri (136), ilunabar (136), hitz-aspertu (136), herri xehe ("—populu—") (139)?, lagun zahar (163)?, meza nagusi (165), kale gorri (179), merezi onez (182)?, zoritxarrez (186, 190), eleberri (187), kañoizar (190), joko garbi (191) **(27)**, zorigaitz (195), Ama Birjina (191), Aita Santu (195), Malakias dohatsu (195), Familia Santu (199)

II.2.2. **Neurri-sintagmak:** botila ardo (132), eskua betean (145)

---

(22) Marratxoa hitz-jokoari zor zaioke, apika:
"Elkarren lehian ari dira ingelesak, zubi-gintzan batzuek eta zubia desegin beharrean besteak." (187).

(23) Zinema-kritika eta orrialde beretan bi moldeetara idatzia.

(24) Gaiaz arduratzen diren lanetan berariaz aipaturik ikusi ez dudan arren, nonbait egotekotan, apika, hemen luke kokalekua.

(25) "Ukabilkak, mutur-jokak, baditu aldekoak eta etsaiak". (166).

(26) Adibideok ekartzeko arrazoia "izen-sintagma + *dun*" egiturari kontrajartzeko bide egokia ematean datza. Halaz ere, eratorbidean bere tokia izango dute.

(27) "... ingelesek alemanekin darabilten *fair play* edo joko garbiaren ezaugarria da". (191).

II.2.3. **Sintagma-egiturak, esaldi-hitzak...:** azken hitz (137), azken juizio (193, 195), azken-aldeko (169), azkenalderako (199), azken-aldi honetan (150, 187), azkenaldi honetan (177), azken gerrate (191), azken ordu (194, 197), azken juzio (195), lan gehiegia (176) **(28)**; Altzo-ko Handi (142), Mendiko Hitzaldi (199); ezerez (iz) (152, 197), ezerezeko (127), zeregin (132), zer egin (140), zer ikusi (139), zer esan (150, 151), halabeharrez (135), halabehar (153, 180), bere eskuko (→iz) (127), bere eskuko (159), berebiziko (173, 194), eztabaida (171), ezinbesteko (174), erdibitu (130)? **(29)**, zinegotzi (179, 180)? **(30)**

II.3. **Izengoitiak**

Peru Abarka (174); Malakias dohatsu (195); Altzo-ko Handia (142), Mendiko Hitzaldi (199) **(31)**

III. IZENONDOEN INGURUAN

III.1. **Bahuvrîhiak**

Kopet harro (124), kopet-ilun (127), beltzuri? (127), bihotz-zabal (130), begi-bakar (147), buru-urdin (169), buru eta bihotz-gogor (173), mutur-beltz (175), lepaluze (181), hanka-motz (186)

esku hutsik (141), bilotxik (159), biluxi (189)

bihotz gogorkeria (183)?, gogo-urduritasun (198)? **(32)**

zinegotzi (179, 180)? **(33)**

buru-iritzi (165)? **(34)**

---

(28) "Eta goseak, lan gehiegiak, mendetasun ezin-eramanak borrokara daramatza berriz ere abere azpiratuak". (176).

(29) Hemen kokatzekoa al da aditz eratorri honen oinarria? *?erdibi.* Eratorbidearen barrutian sartzea bada ere, esango nuke ez dela, bestalde, hau zenbatzailedun sintagma oinarri hartzen duen eratormolde bakarra: *elebitasun...*

(30) LEF batzordeak posesiboen artean sartzen badu ere:

"Îzena + partizipioa' erakoak (*zinegotzi, etxe-kalte*) askoz urriagoak dira". (*LEF-3*:157).

Ene ustez, hemen ere sar daiteke, apika. Mitxelenaren hitzak hartzen ditut adigarri:

"... zinegotziak dira, hau da, auzia maitasun-gorrotorik gabe erabakitzeko zina egotzi duten gizasemeak". (179).

(31) Azkenok bi sailetan kokatu ditut biotan egoteko arrazoiak ikusten nituelako.

(32) LEF batzordeak dudazkotzat jotzen dituen kasuen artekoak. (*LEF-3*:153-157).

(33) Ik. II.2.3. puntuan hitz honezaz diodana.

(34) Ez dakit, egia esan, nola aztertu behar den hitz hau.

III.2. **Lotsagabe, lo falta**

Ustekabean (125), atsekabe (iz) (128), dohakabe (iz) (142, 183), lotsagabe (151), berdingabe (159), axolakabe (163), erruki gabe (164), itsaso goldatu-gabe (146), nahigabe (iz) (171, 182) (nahigabetu (129, 142, 170), nahigabetsu (139)), neurrigabe (175), etengabe (adond), (176) bidegabekeria (176), hondargabe (177), errugabe (180), fedegabe (199), botoi-falta (iz) (194), kafe eta gasolina-eskasia (194)

III.3. **Izaera-elkarteak** (*erraz, gaitz, gogor, bera, ezin* mugakizundunak): Kontentagaitz (124, 129, 137), izukaitz (130), moldakaitz (142), itxuragaitz (157), ameskaitz (iz) (170, 175), muga-gaitzeko (177), etengaitz (196), sinesgogor (167), bihozperaago (190) **(35)**, huts ezin (149) **(36)**, ezinegon (izond) (163) **(37)**, ezin-eraman (izond) (176) **(38)** **(39)** ezin-baztertuzko (178), ezin-burutuzko (199) **(40)**

III.4. **Egin berri**

Ezkon-berri (iz) (165); itzuli berri (164), hasiberrian (183)

III.5. **Erdi-ase**

Erdi hondatu (130), erdi parregarri erdi negargarri (143), erdi inozo (173), erdi-ezagun (178), erdi-biluxi (189)

---

(35) Testu-hitz osoa aldatu dut islatzen duen itxura bereziak horretaraturik.

Bestetik esan behar dut, *LEF-3* laneko irizpideari jarraiki, beste *bera* duen *minbera* eratorbidean ikusiko dugula.

(36) "Ez dira, esan nahi dut, zineman egunoro ikusten ditugun neskatxa panpox, gazte belgurgabe eta blankolari huts ezinenak". (149).

Bitxia da, oso, enetzat izenondo honen erabilmodua. Izan ere, badirudi *huts-ezin* hitz elkartuak, 'huts ez daitekeena' edo eskatzen duela. Hemen, aitzitik, ez da horrela, gizaki bat baita "hutsik egiten ez duena".

Argumentu-kontuen aztertzaileentzako adibide aproposa, nik uste.

Ezkerretara daraman *blankolari* bitxiaz, hitz eratorriezko txostenean arduratuko gara.

(37) "... arlote ezinegon eta axolakabe". (163).

(38) "mendetasun ezin-eramanak borrokara daramatza berriz ere azpiratuak". (176).

(39) Errepara zatisail honetako kasu bat ez beste guztiak aditz-partizipioa eskuinean daramatenak direla.

(40) Berez ez dira lexiko-baliabideen ondore, sintaxizkoenak baizik. Halaz ere, egoki izan daiteke hauen lekukotasuna hona aldatzea, besteak beste, "*ezin* + partizipioa" (edo "partizipioa + *ezin*") prozeduraren ondoan, zenbait erdal aurrizki ordaintzeko bide aproposa izan daitekeelako.

IV. ADITZAK

IV.1. Benetako aditz elkartuak

Onetsi (137), gutxietsi (138, 176), ederretsi (145, 158, 175), erdietsi (159), gaitzetsi (199), itxuratxartu (130), zahar-berritu (150), antzaldatu (169); goraipatu (145)

Eta *eraberritze* (169) izenkiaren azpiko aditza ere hemen sar daiteke.

IV.2. Aditz-esapideak

Pot egin (129), aldegin (131, 180), hutsegin (135), leher-eztanda gaizto egin (145), ihes egin (151, 182, 193), parre egin (151), zirkin egin? (134) **(41)**, jaramon egin (154), leherrenak egin (159), kalte egin (179), algara egin (185), topo egin (197), gogait eragin (155), gogait-eragin (185), amor eman (134), antzeman (145, 173)

Eta *hutsegite* (179) izenkiaren azpiko aditza **(42)**.

V. BIKOIZTAPENAK; HOTS-JOKOAK

Gogo-gogoko (127), xoko-xokoan (129), egi-egia (130), erdi-erdian (133), egunean eguneango (135), itsu-itsuan (138), adi-adi (144), harro harro (151), gaxte-gaxtetango (154), astiro-astiro (154, 166), antzina-antzinako (158), azken-azkenean (159), axal-axalean (165), barren-barrenean (169), bene-benetan (175), aldiz-aldiz (178), axal-axaleko (178), tarteka-tarteka (188)

hitzez hitz (133), erdiz erdi (135), teilatuz-teilatu (185)

marmar (129, 165), jira-bira (166), jirabira (169), arao-birao (181)

VI. BI OSAGAI BAINO GEHIAGOKO HITZ ELKARTUAK

Gizarte **(43)** auzi (123), atseden eta jolas behar (124), jaso eta (...) jatxi behar (130), eguerdi(alde) (132), giza-izaera barren (143), arto bero usai (145), leher-ez-

(41) "Itsasoa, nagi xamar bada ere, gora eta behera ibili arren, ez du ontziak zirkinik egiten, hondoari iltzaturik balego bezala". (134).

(42) *LEF-4* lanak (68. or.) hitz hau elkartu sintetikoen adibideen artean dakar, *lekualdatze*rekin batean. Kasu batean zein bestean, ez dut debekurik ikusten aditz-esapidearen (lehena) eta aditz elkartuaren (bigarrena) nominalizaziotzat jotzeko, *LEF-3*k (13. or.) *aldegite, min hartze...* jotzen dituen bezala.

Erantzun taxuzkorik ez izaki-eta, galdera hutsean utziko dut: esan al daiteke hitz elkartu sintetikoen berezitasuntzat jotzen den oinarrian aditz gorpuzturik ez izatea ez litzatekeela debeku aditz-esapideentzat? Alegia, oinarrian benetako aditz elkartua ez izatea besterik ez dela behar sintetikotzat jotzeko? Baina orduan *lekualdatze*?

(43) *Gizarte* ihartua elkartutzat hartuz.

tanda gaizto egin (145), axal-eder zale (145), huts eta oker-alde (152), poz eta negar-iturri (152), eliz-torre gisako garibiltoki (164), arrisku eta heriotz-usai (169), buru eta bihotz-gogor (173), gizarte eta eliz-pilare (182), poz eta harrotasun-bide (183), kale-argitzaile eta garbitzaile (192), kafe eta gasolina-eskasia (194)

[Erdal hitz elkartuak: "vasco-románico" (133), base-balle (180), guardia civil (191), Auto Sacramental (191)]

B) AZTERGAIAK AGERIAN UTZIA

Hona, hortaz, hitz elkartuen bildumak agerian utzia hiru puntu zehatzetara murriztuz: hots-aldatzeak, sailez saileko gertakari azpimarkatzekoak eta amaia.

1. Hots-aldatzeak

Hitz elkartu kopulatiboetan ez da lehen osagaiaren hots-aldatzerik gertatzen, bi kasutan izan ezik: *Azkoiti-Azpeitia (Azkoitiaren -a* mugatzailea izatearen ondorioz) eta zenbatzaile dvandvetan kokaturiko *bospasei, bizpahiru.*

Beste egituretako hitz elkartuetan sarrienik gertaturiko hots-aldaketak honakoak dira **(44)**:

A) **-a#** > ∅: *arnaspide, bizitz-itxura* **(45)**, *heriotz-bide* **(46)**, *heriotz-usai, eliz-gizon, eliz-torre, eliz-pilare, kandel-argi, kate haustaile, kopet harro, kopet-ilun.*

-ia# > **-i#**: *egi-usai, egi-antxa, egi-antzeko, egi-egia, animali-itxuratan, poesi igortzi, famili galtze (baina Familia Santu).*

giza: *giza-itxura, giza-arraza, gizakume, gizaseme, gizarte, giza-izaera, giza-neurriko, giza-irudiko, giza-sinbolu (baina gizon-jale, gizon-hiltze, gizon hiltzaile).*

erdal, euskal: *euskal deitura, erdal idazki, euskal literatura, euskal idazle, euskaldun, euskaltzale.*

itsas: *itsas-ertz, itsas-axal, itsas-ontzi, itsas-hegazti korapilo, basa-bazter, basetxe, lepaluze, palmondo, emakume, artalde, artile, eguerdi, eguraldi, ubide, uholde (baina ur-axal), txolarte?, etxola, etxa-ihes, etxarte, etxajaun (baina etxe aurre, etxe barren, etxebarru, etxe-gain, etxekalte, etxe-inguruan), aterpe, bekain, bekaitz, betaurreko (baina begi-aurrean), azterren?, txorabiatu?, goganbehar (baina gogo-urduritasun).*

---

(44) Laburbeharrez, aldakuntzen kontu-emate hutsean utziko dut, amaiko *-a* berezkoaren gainekoa izan ezik.

Gertakarion luze-laburra eta zabal-meharra: Michelena (*FHV*), Azkarate (1990a).

(45) *Bizitza*, ala *bizitze*tik ere abia gaitezke?

(46) Jakina, *heriotze*tik ere abia daiteke. Hitz eratorriezko txostenean ikusiko den bezala, Mitxelenak bietara darabil.

Bikotea jasotzen du Euskaltzaindiak zerrendan. Ik. Euskara Zerbitzua (1991_4).

B) *ekitaldi, jaioterri*

arnaspide, aurrerapide, ikuspide, irakaspide, ihespide, lasapide; errekai; ikazkin, gaizkile, gaizkintza; ustekabean, atsekabe, dohakabe, axolakabe; izukaitz, moldakaitz, ameskaitz, bihozpera; jakitun.

Kontrakorik adierazten ez den kasu guztietan forma aldatu horiexek besterik ez ditut aztergaian kausitu; hau da, zehaztu ezean ez dut molde lehiakiderik aurkitu.

Hortaz, Mitxelenaren jokamoldea azterturiko laginean honela laburbil daiteke:

A) **-ia#** bukaerak azken -a hori galtzen du, hitz elkartuaren ezkerreko osagaia den adibide guztietan. Salbuespen bakarrak *Familia Santu* eta *Australia aldean* dira.

Halaz ere, kontuan hartu beharra da galtze hau hondarrik hondarrenean lau hitzi besterik ez dagokiela: *egia, animalia, poesia* eta *familia.*

-a#ren galtzea, berriz, proportzioan askozaz ere gutxiagotan egiten du: *bizitza, heriotza, eliza, kandela, katea* eta *kopeta.* Gainerantzeko guztietan (hogeita hamar inguru), eutsi egiten dio berezko bokalari **(47)**, Euskaltzaindiaren zerrendan **(48)** hartu edo utzizkotzat jotzen den *giltz(a)* barne dela.

gizon > giza, euskara, erdara > euskal, erdal eta **itsaso > itsas** aldakuntzei dagokienez, joera nagusia aldakuntza hauek egitearen aldekoa dela ikus daiteke. Aldakuntzak sistematikoak dira azkenekoetan (beti *euskal, erdal* eta *itsas*, alegia). Aitzitik, *gizon* ezkerreko osagaia ere erabili du, *giza* baino gutxiagotan, halaz ere. Bidenabar esango nuke dudan utzitako *gizon hiltzaile* hori argitzeko, hagitz litzatekeela eskertzekoa aldakuntza (edo marra), sintetikoaren aurrean ote gauden argituko bailuke.

Multzo honetako gainerako gehientsuenak ihartutzat jo ditzakegu seguru asko, eta Mitxelenak datozkion bezalaxe hartu eta erabili dituela. Honen seinale litzateke, apika, eskuak askeago dituenean-edo, lehen osagai osoari eusten diola.

B) multzoan sartuei dagokienez, berriz, uste dut azpimarkatzekoa dela ez dagoela ixuri erabatekorik sumatzerik bigarren osagaiaren kontsonantearen bozgaltzean.

Hau da, ez dut uste hots-inguramenduari zor zaionik, xixtukariaren eskuinean jokatzen duen bezala (arrunta izan daitekeena) egiten baitu aldizka bokalaren eskuinean ere; ez beti, halaz guztiz (hortxe daude aztergaiko *lotsagabe, neurrigabe, kontentagaitz* edo *itxuragaitz* bezalakoak).

---

(47) *musika-zati, jakintza-mota, borroka-mota, algara-bide, gerra ondoko, gerra-ontzi, gerrazale, politikalokatz, pelota-txapeldun, kitarra soinu, tronpeta-soinu, bonba-eztanda, taberna zulo, teknika-joko, horma-burruntzi, zinema-aste, zinema-ikusle, giltza-zulo, eskola-liburu, eskola bila, baleazale, galtza-jario, turuta-jotzaile, gona-neurtzaile, moda-erakusketa, meza nagusi, botila ardo, lotsagabe, axolakabe, gasolina-eskasia.*

Hauek dira aztergaian aurkitu ahal izan ditudanak.

(48) Euskaltzaindiaren zerrenda in Euskara Zerbitzua (1991_4).

Zeinahi gisaz, euskal testuetan izan duten (edota izan ez duten) erabilera ardurazkoa izan daiteke Mitxelenaren aukera argitu ahal izateko.

OEH eta *HLEH* lanak eskuztatuz ikus daiteke bi izan ezik (hiztegiok ez aldaera moduan, ezta gaitzesteko ere jasotzen ez dituzten *errekai, gaizkintza*) beste guztiek Mitxelena baino lehenagoko moldezko lekukotasuna badutela, hiztegiok formoi eta lehiakideei ematen dieten lehentasuna gora-behera **(49)**.

Hortaz, dauzkagun baliabideek ondorioztatzera naramate Mitxelenaren moldeok ez direla tradiziogabekoak eta bere bizkar, antza, *errekai* eta *gaizkintza* besterik ezin utzi daitezkeela.

Halaz ere, gogoan behar da izan LEF-4 lanean gomendatua:

> Hots afrikatuekin ongi betetzen den lege hau ez da komeni, ordea, noranahi zabaltzea. Gainerako kasuetan, horrela, hobe hots-aldaketarik gabe jokatzea. *(LEF-4:76).*

Hots-aldakuntzak eta hitz elkartu motak uztartuz, honako ondorioetara irits gaitezke:

Oro har, esan daiteke Mitxelenaren erabilera (lerro nagusienetan bederen), Euskaltzaindiak (1992b) gomendatua dela **(50)**:

Hitz elkartu kopulatiboetan ez dago eskuarki aldakuntzaren arrastorik.

Eguzki-lore mota da, ezpairik gabe, aldakuntzarik ugarienak biltzen dituen saila. Areago, mota honetan dira nagusi lehen osagaiaren amaiko hots-aldakuntzak. Beste motetan (*Lotsagabe, lo falta* eta Izaera-elkarteetan nagusiki) bigarren osagaiaren (mugakizunaren) hasiera da batipat aldakuntza jasan duena.

a# bukaera dela-eta, esan daiteke Mitxelenaren erabilerak, zabal hartuta, Euskaltzaindiaren gomendioaren gogaide dela,

Ez dut *unibertsital-* edo *politikal-* edo antzeko osagai itxuraldaturik aurkitu.

Sasoian aurkitutako mugatzailearen aldakuntza-mota bakarra, *giza, euskal, erdal, itsas* ondorio dituena bide da.

2. Sailetako gertakari azpimarkatzekoak

Hitz elkartu kopulatiboen sailak agerian utziriko gertakaririk aipagarrienak, ene ustez, hauek dira:

---

(49) Esate baterako, *OEH*k **ameskaitz**etik **amets gaitz**era igortzen du, **aurrerapide**tik **aurrerabide**ra, **bihozpera**tik **bihozbera**ra eta **axolakabe** eta **arnaspide**, **axolagabe** eta **arnasbide** sarrera nagusietan jasotzen ditu.

*HLEH*k berriz **erregai** hiztegi-sarrera ematen du, baina ez du Mitxelenaren moldea aipatzen. **Lasaibide**ren barnean *lasapide* jasotzen du. **Ihespide, irakaspide** txartzat eman eta **ihesbide, irakasbidera** igortzen du.

(50) Ik. halaber, Azkarate (1990a:142-157), *LEF-4* (38-42).

Dvandva motan bilduriko konta daitezkeen izen dvandva guztiak pluralean erabili ditu, ohi den bezala **(51)**.

Bi kasutan ez da horrelakorik gertatzen: hitz elkartu osoa partitiboaren markaz jantzia topatu dut batean eta mugagabeaz beste batean, baina hau ere, ez da ohiko bidetik saihesten *(LEF-1:159)*:

> Hamabi gizon gelditu dira giltzapean: zinegotziak dira, hau da, auzia **maitasun-gorrotorik** gabe erabakitzeko zina egotzi duten gizasemeak **(52)**. (179). (Beltz. nirea).
>
> Ez dago gure arteko **edozein gizon-emakume kaxkarren** bizitza hartu besterik... (171). (Beltz. nirea).

Sail honetako gaiei begiratuz zerbait nabarmentzekotan aipatu beharko lirateke sexu desberdineko bikoteak *(neska-mutil, gizon-emakume, atso-ągure...)*, antonimoak *(poz-nahigabe, zeru-lur, maitasun-gorroto...)* eta, nolazpait esan, semantikoki gertu sumatzen direnek osatuak *(beso-zanko, zentzu-adimen, begi-belarri, jantzi-soineko, neke-oinaze, neke-nahigabe* **(53)**...*)* **(54)**.

Bestetik ikus daiteke, izen bizidunak, bizigabeak, arruntak, bereziak (behin), konkretuak eta abstraktuak baliatu dituela zein bere kidearekin elkarketa osatzeko.

Izenondo dvandven saila ere ugari xamarra da. Multzo berezia osatzen dute kolorea adierazten duten izenondoek (benetako izenondo dvandvak, Azkarateren (1990a:167) irizpideari jarraiki) **(55)**.

---

(51) Oroi LEF batzordearen lanean (*LEF-4*:38) azpimarkatua.

(52) Errepara *zinegotzi* hitzaren osamodu-irakurrerez ematen duen berriari.

(53) Azken hirurok tautologikotzat jo daitezkeela ukatu gabe, uste dut Mitxelenaren erabileran dvandvatzat har daitezkeela. Pluralean aurkitzen dut ene ustearen indargarria.

"Jantzi-soinekoak, etxe-barrenak, Vlad'en musika, dena da eder baino ederragoa". (154).

"Ez du ongi hartuko malabarista lur berriak, neke-oinazeak eraman beharko ditu pakea erdietsi baino lehen". (159)

"Ez ote dituzte horrenbesteko neke-nahigabeak etxe-inguruan ikusten?". (172).

(54) Azkuek (1923-1925:397), Euskaltzaindiak (*EGLU-I(Er.)*:65-67; *LEF-1*:161-162) eta Azkaratek (1990a:170hh), esate baterako, adierazi bezala.

Halaz ere, gauzatxo batean ez nator guztiz bat lan horietan darabilten formulazioarekin. Ene iritziaren eta bat ez etortzearen euskarri Euskaltzaindiko lana hartuko dut, hor ikus baitaiteke besteetan baino argiago azaldu nahi dudana:

"Horrelako hitz elkartuei ***kopulatibo*** izena eman izan zaie, eta bi izen horrela elkartu ahal izateko beharrezkoa da bi izen horiek edo aurkakoak, antonimoak, izatea (***goi-beheak, atze-aurreak, zeru-lurrak,...***) edo kontrakoak ez badira, eremu semantiko berekoak izatea (***ate-leihoak, zuhaitz-loreak, ama-semeak...***)". *EGLU-I(Er.)*:66).

Bai hitzotan, bai aldatu ez ditudan aipaturiko beste ikertzaileenetan ere, atze-oihalean uste berak agintzen duelakoan nago: 'aurkako', 'kontrako' harremana eta eremukide izatea elkarren ukatzaile dira.

Eremuen mundua sakonkien jorratu duen semantika estrukturalak, ordea, ez ditu gauzak honela ikusten. Eremu semantiko (edo lexiko) bereko kideak dira gertu nahiz kontrara sumatzen ditugunak. Harremana mota batekoa nahiz bestekoa izan, ***irizpide semantiko berari*** (Coseriuren *dimensión* delakoari) begira dira elkargai eta elkarkizun, eta irizpide horixe da, hain justu, eremua definitzeko giltza. (Coseriu (1964, 1968, 1975)).

(55) Bazterrean utzi dut elkartu-izaeraren auzia eta, beste gabe, kolorea adierazten ez dutenak ere multzo berean sartu ditut, *LEF-1* lanean egiten den bezala.

Auziaz, Azkarate (1990a:166-168).

Aditz dvandvak berariaz aipatu beharrekoak direlakoan nago.

Honela dio Azkaratek:

> *Ekin-eraso, errautsi* eta *nai-bear* hor ditugun arren, euskaraz ez ditugu bi aditz elkartzen aditz elkartu kopulatiboa osatzeko. Bi izen elkar daitezke (...) bien esanahia jasotzen duen izen elkartua sortzeko (...) ez, ordea, bi aditzoin edo bi partizipio bi ekintzak jasoko dituen aditz elkartua sortzeko (...) Horrenbestez, nola esplikatu hiru kasuok? Alde batetik, *ekin-eraso* Enbeitarena eta *nai-bear* Lizardirenak direnik ezin ahaztu, hitz elkarketa bultzatu eta indartu nahirik, mendeetan zehar azaltzen ez ziren hitz elkartu motak sortu zituen garai batekoak, alegia. Hiriart Urrutyren *errautsi* izan daiteke "Izena + atzizkiak" sailekoa, *errauts* izen elkartua gehi -i partizipio ezaugarria. (Azkarate 1990a:168).

Aztergaian hiru adibide besterik ez badira ere *(handi-zabaldu, hautsi-konpondu eta josi-urratu)* aipagarria da berezi edo bitxitzat jotzen den elkarketa-mota honek Mitxelenagan hatza utzia; izan ere hiru diren arren, hirurogeita hamabost orrialdeñotakoak eta autore berarenak dira hirurak.

Koordinaziozkoetan sartu ditut *Garat-Luis Mariano, Claudette Colbert-Mme. de Maintenon, Sacha Guitry-Luis XIVgarrena* bitxiak; nonbait sartu beharraren poderioz eginiko kokatzea, egia esan. Mota honetan kokatuagatik, aukera ez da zalantzagabekoa izan, izan ere.

Bi izaki uztarturik osaturiko multzoa da eta bitasun horixe da, hain zuzen ere, tautologietatik apartatzeko bidea ematen duena: *Garat* bat da eta *Luis Mariano* beste bat, bistakoa den bezala. Guztiarekin ere, gizasemeak bi izan arren, fikziozko pertsona bakarra osatzen dute; ezin, hortaz, dvandvetan sartu eta, bakartasunak bulkatu nau azkenean, beste toki hoberik ezean, gertuen sumatu uste izan dudan honetan sartzera.

Atribuziozkoen artean ere, apika, bila zekiekeen tokirik, 'Garat den Luis Mariano' edo antzeko irakurrera eginez **(56)**. Adibideak gutxi eta berezi xamarrak izaki, berariazko sailik osatzeko premia ez dut ikusi.

Ez dut bibliografian honen antzeko adibiderik kausitu ahal izan **(57)**.

Beste sailetara eginez, berriz, honakoak azpimarkatuko nituzke:

Espero zitekeen bezala, *Eguzki-lore* mota da Mitxelenanean ere oparoena. Sailkapenaren atalean adierazi bezala, zatisailak antolatu baditut ere, nire ulermoduaren arabera egin ditut; bestek, jakina, bestela egin zitzakeen eta ditzake.

---

(56) Beste biak atzekoz aurrera ulertu beharko lirateke, noski.

(57) Osamoduaren arabera hurbilenik dabilkiona Azkaratek (1990:290) zehazten duen "Izen berezia + Izen berezia" mota da; ez da *baina* gabea, ordea.

"Migel Antzorrei, Pello Saikola, Peru Arraizpe, pertsona izenak, zeinetan bigarren osagaiak jaiotetxearen izen berezia adierazi ohi duen". (Azkarate 1990a:290).

Mitxelenagandikakoak ezin kabi daitezke hemen, ez *LEF-1* (211-216) lanean bereizten direnetan ere.

Nolanahi dela ere, uste dut multzo honetako aztergaiak baduela gogoetagairik.

Hona batzuk:

Bigarren osagaia *gai* duten hitz elkartu guztiak ez dira gisa berekoak; bestela esan, guztiak ezin sar daitezke *andregai*ren zaku berean. Mitxelenak darabiltzanei begira, hiru *gai* desberdinez hitzegin beharko litzateke: *andregai* da eredu baten ordezkaria ('oraindik ez den baina *andre* izateko ahalmena duen, horretako bidean dagoen emakumezkoa'), *errekai* eredua ('lehengaia' edo adierakoa; aditzoina oinarrian duena) **(58)**, eta *arte-gai* eredua, 'teatroari buruzko gaia' edo uler daitekeena.

Bereizkuntza honetan oin hartuz, uste dut azken mota hau subsumptiveen artean sar daitekeela, behar bada, *kontu, lan* eta abarrekin batean.

Ez dut *elkarlan* edo *kontramaisu* modukorik kausitu Errenteriako kritikagilearengan, ezta exoelkarterik ere (*antisorgailu, minigona* eta enparauen eitekorik, alegia...); aztergaian aurkituriko *telebisiok* (180) eta *melodramak* (136) agerian uzten dute maileguzara edo maileguaren egokitzapenera jotzenago duela Mitxelenak hemen bedere.

Azpimarkatzeko deritzat zein gutxitan darabilen mugatzaile leku-denborazkoa. Gertakari biak gaurko euskaran sumatzen den joera indartsua ez bezalakoak, nik uste.

Halaber da azpimarkatzekoa "izenkia + izena" (zehazkiago esan "*-t(z)e* + izena", *jaiotze-data*...) egiturak aztergaian aztarrenik ez izatea eta, kontrakotik, aldiz, "aditzoina + izena" frankotan erabiltzea.

Alde honetatik, hortaz, Mitxelenaren ixuri hau tradizioari lotzen zaiola esan daiteke (Azkarate-Olarte 1991).

Hitz elkartu sintetikoak ere ez dira gutxi **(59)**, ez mota bakarrekoak.

Sail hau dela-eta, aipatu izan da *(LEF-3:59, LEF-4:66)* elkarketa-mota honen egokitasuna auzo hizkuntzetako egiturak euskaratzeko. Zilegi bazait, besterik erantsi gogo dut. Mitxelenaren *hegazti-jate* hartuko dut autu, gaur nonahi antolatzen diren "sardinada" eta antzekoen aurrez aurre ipintzeko. Halakoez baliatu beharrean, ez ote du Mitxelenak ispilu egokiagoa eskaintzen?

Bestetik, ene uste apalez, ez dago behar bezain argi zedarritua hitz elkartu sintetiko soilen eskuineko elementu izateko zein baldintza diren nahitaezko eta ekintza-elkarte sintetiko soilak ditut gogoan batez ere. Egile-elkarte sintetiko soi-

(58) Edo *otoitz-gai*, izena? ala aditz-esapidea? oinarrian duena.

Andregai eredutik gertu egonik, ez dakit bizidun/bizigabe jokoak horretan ikuskizunik ez ote duen.

LEF-4 lanak oinarriaren morfologi izaerari begira, bi multzo besterik ez ditu bereizten: "aditzoina + *gai*" eta *andregai* mota.

(59) Halaz ere, *LEF-3*n *Mitxelenaren Idazlan Hautatuak* bildumari dagokion kodeaz horniturik ikus daitekeen *film-kritikari* (HE27, 307) ez da errenteriarrarena, Altuna paratzailearena baizik.

lez, *LEF-3* (38-39) lanak adierazia (aditz eratorriaren balizko oinarri izatea, alegia) irizpide hartuz, aztergai honetako *buru-neke* eta *begi-neke* kokatzekoak direla ondoriozta daiteke.

Ez da, ordea, kontua horren argia (ez niretzat behintzat) ekintza-elkarte sintetiko soilak erabakikizun direnean. Izan ere, lan horretan bertan (48-49) izenki atzizkidunak ez diren (baina zero morfemaz kategoria aldatua duten) aditz-jatorrikoen ondoan *(azpi-jan, bihotz-ukitu...)* kokatzekoak izan al daitezke nolabaiteko 'ariketa' adierazten duen semaren bat duten izenak? **(60)** (*LEF-3*:49)ko *ganadutrafiko* edo *muxar-eize* gisa honetan arrazoitu beharko liratekeela ematen du.

Honela ulertu dudalako sartu dut aztergaiko *bihotz-mugida* **(61)** sintetiko horien artean.

Eratorbidearen eltzean burduntzalia sartzea bada ere, uste dut egoki dela azpimarkatzea *atorra dotoredun* sintetiko errokaria "IS + *dun*" egiturako bakarra dela, beste guztietan *-ko* da erabiliriko atzizkia; sail honen buruan aldaturiko adibideak lekuko.

Etsi, txartu, berritu eta *aldatu* aditzez osaturiko benetako aditz elkartuak dira Mitxelenak usatuak.

Egun maizkara erabiltzen den prozedura bat, behin besterik ez dut topatu: lehen osagaia leku-denborazko izena duen aditz elkartu bakarra *goraipatu* da.

Bi osagai baino gehiagoko elkartuei begiratua eginez, ikus daiteke kasurik gehienetan, zortzitan, "mugatzailea *eta* mugatzailea-mugakizuna" dela errepikatzen den egitura.

Badira, bestalde, mugatzaile ihartuko bi berrelkarketa *(gizarte auzi, eguerdialde)*; beste bitan, "[izena + izenondoa] izena" egitura dantzatu du *(arto bero usai, axal-eder zale)*. Behin, egile hitz elkartu sintetikoa, objektuaren betekizuna duen izen berari dagozkion bi izenki etaz lotuz osatu du (*kale-argitzaile* eta *garbitzaile*).

Leher-eztanda gaizto egin, seguru asko berez berrelkarketan sartzekoa ez bada ere –aditz-esapidearen barne-antolamendua baita tartean–, jasotzekoa iruditu zait.

Era berean, berariaz aipatzekoa iruditu zait *eliz-torre gisako garibiltoki* bere egitura luzea, baina gardena, dela medio *[eliz-torre] gisako] [gari]biltoki]*.

Hiru izen elkarren gainean pilaturik dituen berrelkartu bakarra *giza-izaera barren* da.

Uste dut Mitxelenak puntu honetan ispilatzen duen jokamoldea ere, Euskaltzaindiak bere gomendioetan (1992b:28) gidatzen duen ezpalekotzat har daitekeela.

---

(60) Azalpen-modu lasaiegi eta zedarrigaitz hau besterik ezin orain eman dezaket.
(61) Bigarren osagaiaren morfologi izaera ez da niretzat gardena.

3. Amaia

Halabeharrez anitz puntu utzi behar izan dut uki eta sakontzeke. Halaz ere, uste dut Mitxelenak zinema-kritiketan mamitzen dituen hitz elkartuen isla modukoa aurkeztu dudala, baita hitz-altxorreko atal horren ezaugarririk funtsezkoenak (edo niri, behinik behin hala iruditu zaizkidanak) ere.

Alabaina, bada golkoan gorde dudan zerbait, ene ustez, esatekoa.

Jaso ditudan hitz elkartuen gorabeherei erantsi beharko litzaieke gramatika-kategoriekin jolasean aritzeko (nolazpait esan) Koldo Mitxelenak hartzen duen lizentzia. Sintaxi-kontuetan ez ezik, lexikoarenetan ere ondoreak dituelako ekarri nahi dut hona.

Hitz-elkarketatik at daudenak atzenduz eta barruti honi dagozkionei bakarrik eutsiz, ikusi ahal izan dugu, batetik, aski ohikoak diren gertakariak: *zaledunak* izenondo nahiz izen moduan erabiltzea, urrutirago gabe. Bada besterik, ordea.

Berez, erabilera usuan esan nahi da, izen diren *ezin-eraman* edo *ezinegon*, izenondo moduan darabiltza. Hau ere, ez da, apika, horren harritzekoa.

Harrigarrienak, ene ustez, *mutur-joka* eta *lan gehiegi(a)* (izenak biak) dira. Izan ere, lehena jardun-elkarte sintetikoen samaldatik atera, adizlagun balioa galarazi eta izen elkartu bilakatua dugu; bigarrenean, berriz, izen elkarturik ez dago izen bilakatuaren azpian, baina Mitxelenak izen moduan darabil, *gehiegi* zenbatzaile zehaztugabea, erabateko izenaren soinekoz jantziz.

Bukatzeko, berriz ere Biltzar honen izpirituari heldu nahi diot eta adierazi ene azterlantxo honek agerian utzi uste duela hitz elkartuen alorrean nabarmenduriko auturik gehienetan errenteriarrak munduratua eta Euskaltzaindiak gerora gomendatua elkarren besotik dabiltzala.

KOLDO MITXELENAREN ZINEMA-KRITIKETAKO HITZ ERATORRIAK

Leioa, 1994.10.05
Elixabete Perez Gaztelu,
Marilis Telletxea

A) HITZ ERATORRIEN SAILKAPENA: AZTERGAIA

Aurreko txostenaren atarian esanak honentzat ere balio duelakoan ekingo diogu beste gabe hitz eratorrien gainekoari.

Hona, hortaz, galde moduan ondoko lantxoaren bizkarrezur izan nahiko lukeena

– Zein jokamolde erakusten du Mitxelenak hitz-eratorbidean? Nola marraz daitezke bere erator-erresumaren arrastorik nagusienak?

– Arestikoaren sabelkide bilakatu gogo izan duguna: zenbatetaraino gotortzen du Errenteriako maisuaren lagin honek Euskaltzaindiak –zehazkiago esan LEF batzordeak– aspaldi honetan eratorbideaz plazaratua? Izan ere, batzordeak, aztergai zurrean ibili ez den arren, ez du gu orain jendarteratzera goazena osoro miratu (1).

Bi ardatzeko gurdi hau itxuratzen saiatuko gara, beraz. Ez ahal da izango, harako beste gurdi zahar negarti hura bezain kurrinka eta karrankaria!

---

(1) Patxi Altuna euskaltzain maisuak paraturiko *Mitxelenaren idazlan hautatuak* da batzordearen langaietan aipatuak ikusi ahal izan ditugun Mitxelenaren lanak.

Honakoak dira:

"Cancha Vasca", "Julius Caesar", "Limelight", "Nous sommes tous des assassins", "Ulisse", "Marty", "City Lights".

Bibliografian berresango dugun bezala, hirurogeita lau zine-kritika eta antzerki-kritika bat dira denera.

I. ATZIZKI IZEN-SORTZAILEAK

I.1. Izen abstraktuen sortzaileak

I.1.1. *-TASUN (-TARZUN; -asun, -arzun)* (2)

a) Izenondoa (3): gelditasun (124), zehaztasun (125), askatasun (126, 176), zuzentasun (126), handitasun (127, 147), leialtasun (127, 188), xehetasun (128), garbitasun (129), aberastasun (134, 167), berritasun (134), arrotz (eta urrutitasun) (4) (143), maitasun (145, 147, 179), argitasun (147), lasaitasun (150), prestutasun (150, 153, 197), edertasun (157), trebetasun (157, 187), ondasun (5) (164, 165, 175, 187) [+konkretua], gaztetasun (165), gogortasun (179), ontasun (182) [-konkretua], poz eta harrotasun-bide (183), zintzotasun (185), berdintasun (186), ixiltasun (186, 199), nagitasun (197), gogo-urduritasun (198) (6).

Parasintesia (7): desegokitasun (198)

b) Izena [+gizakia]: haurtasun (141), gizontasun (141, 153, 188), adiskidetasun (170), gizatasun (173, 191, 196), jendetasun (182)

c) Bestelako oinarriak:

– Aditzondoa: (arrotz eta) urrutitasun (143)

– Zenbatzaile mugagabea: urritasun (177, 189)

– Oinarriaren kategoria?: mendetasun (176)

I.1.2. *-TATE (-dade, -dare, -tade, -date)*

a) Izenondoa: bakardade (153, 177)

Mailegu egokitua (8): karitate (139)

---

(2) Atzizkien deizioak honela emango ditugu, paperera aldaera guztiak Mitxelenak ez erabili arren.

(3) Atzizkiko barnesailkapena oinarriaren kategoriaren araberakoa izango da.

(4) Hitz eratorri metatuak osorik jasoko ditugu.

(5) Txostenaren luze-laburra dela medio, ez dugu hots-aldaketen barrutia berariaz jorratuko.

(6) Aztergaian zehar muzin egingo diogu oinarriaren izaera eratuari eta eratorbidearen alderdi soiletik helduko.

Oinarri elkartua, hitz elkartuen azterlanean ikusi da.

(7) Kontzeptu honen gaineko eztabaida teorikorik falta ez den arren, saihetsean utzi eta beste gabe parasintetikotzat joko ditugu aurrizki-atzizkiak jantziak dituzten hitz eratorriak, osamodua osamodu.

Eztabaidaz: Mascaró (1986:31), Cabré-Rigau (1986:131), Scalise (1987:168hh).

(8) Deizio hau erabiliko dugu jatorri kontuaz gain, euskal oinarri garbia ezin antzemana gertatu zaigunean.

I.1.3. *(K)ERIA*

a) Izenondoa **(9)**: huskeria (139), ustelkeria (145), harrokeria (147), zurikeria (152), bidegabekeria (176), biguinkeria (179), bihotz gogorkeria (183), mordoilokeria (185), zentzugabekeria (187), txorakeria (189), ergelkeria (196)

Atzizki-metaketa: nabarmenkeria (143)

Parasintesia: desegokikeria (192)

b) Izena **(10)**: pailasokeria (136), pailazokeria (182), txarlotkeria (136) **(11)**, umekeria (141, 171, 181), etsaikeria (142, 196) **(12)**, sorginkeria (146, 173); trapukeria (195)

c) Zenbatzaile zehaztu gabea: gehiegikeria (140)

I.1.4. *-TZA$_1$* **(13)**

a) Izena [+ofizioa] **(14)**: arrantza **(15)** (133), maisutza (140), nausitza (175), morrontza (176, 182)

Atzizki-metaketa: gidaritza (140), salataritza (195)

I.1.5. *-GINTZA (-KINTZA)* **(16)**

I.2. **'Egilea'**

I.2.1. *-ARI (-kari, -lari, -tari)* **(17)**

a) Izena [+konkretua, -biziduna] **(18)**: pelotari (132), pilotari (134) **(19)**, dantzari (133, 165), kantari (159) **(20)**, berriketari (177), ezpatari (177), errementari

(9) Kasu guztietan, oinarriko izenondoak [+gaitzetsia] tasuna duela esan daiteke.

(10) Multzo honetakoen artean ere bada [+gaitzetsia] tasuna duen eta ez duen izenik nahaste.

(11) Izen berezia oinarria duen bakarra.

(12) Hona arteko guztiek [+gizakia] tasuna dute. Ondokoak, ez.

(13) Zenbait atzizkiri eskuinean eransten diogun numerotxoak, atzizki desberdinen eta alomorfoen arteko bereizkuntzarekin du ikuskizuna. Honela markatuak, atzizki desberdintzat joak dira.

Ez goaz orain arrazoi teorikoak argitzera. (Ik. Nida (1946)).

(14) *Lato sensu.*

(15) Ikus daitekeen bezala, hitz honen osamodua besteena ez bezalakoa da, besteen oinarrria ofizio-izena da-eta (*maisu...*).

(16) Honela osatuak, hitz elkartu sintetikotzat jo ditugu, *LEF-3* lanari jarraiki. Ik. "Koldo Mitxelenaren zinekritiketako hitz elkartuak", honen aurreko txostena.

(17) Bazterreko oharñoa: paperera aldatu hauen ondoan, gure aztergaian Mitxelenak *igeltsero* (195) darabil.

(18) Zatisailkapena oinarriaren amaiari zor zaio.

(19) Errepara zinema-kritika berean bietara darabilela.

(20) *Kantu*tik ere abia daiteke.

(186), borrokalari (177); txistulari (132), merkatari (153), gobernari (195), pekatari (195), ezkutari (198, 199); eskelari (126), agintari (177, 188); blankolari (149) **(21)**; egurkari (130)?, ukabilkari (166)? **(22)**; aintzindari (193)

b) *-ka*dun aditzondo eratorria: mutur-jokalari (166, 190) **(23)**

c) Aditzoina: antzezlari (123, 127, 143, 164, 169, 173), zuzendari (124), idazlari (158) **(24)**, gidari (165, 196, 169) **(25)**, (tren-gidari (171))

Atzizki-metaketa: gidaritza (140), salataritza (195)

I.2.2. *-GIN/-GILE (-kin, -kile, -kila)* **(26)**

I.2.3. *-LE/-TZAILE (-la, -tzaila, -tzale, -zale, -taile)*

a) Aditzoina [+Nor-Nork] **(27)**: irakurle (123, 131, 141, 195), ikusle (127, 135, 137, 147, 151...), eragile (130, 145, 176), idazle (130, 150, 197), gizon-jale **(28)** (146), irakasle (149, 179), ikasle (149), maitale (154, 155) **(29)**, egile (159 **(30)**,178,

---

(21) Bitxia benetan hitza (ez dugu hiztegietan aurkitu) eta bitxia aldamenean daraman izenondo eratua (Ik. "Koldo Mitxelenaren zinema-kritiketako hitz elkartuak").

Itxura guztiz oinarria *blanko* da eta pentsatzekoa da, "pistolero" edo antzeko zerbait adierazteko darabilela (egingo genuke erdal "dar en el blanco" esamoldea ez dabilkiola hagitz urruti). Hortaz, "blankoa egiten duena", "blankoan jotzen duena" edo antzeko zerbait ulertu behar al dugu?

(22) Hauek biak b) multzoan ere sar daitezke, apika, bi osamoduak onar baititzake: *egur, ukabil + -kari*, nahiz *egurka, ukabilka + -ari*.

Hauek bezalako morfema *portemanteau* direlakoek bizten duten zalantza.

(23) Ala *mutur + jokalari*?

(24) Litekeena da hitz honek aita Mitxelena ez izatea:

"Gutxi gorabehera, badakizue, Oraune"ko Errolbak itzuli zigun "Florenziar idazlari koxkorra"ren kidea". (158).

Itzulgilearen berririk ezean, bestelakorik ere pentsa daiteke, *idazlari* eta *idazle*ren arteko ñabardura bila bagabiltza. Jatorrizko ipuinean aurki daiteke, apika, argibidea:

Edmondo D"Amicis-ek idatzitako *Corazón* liburuko ipuinean ("El pequeño escritor florentino") mutiko batek, aitari laguntzearren, aitak egiteke utzitako lanari ekiten dio gauetan: papertxo batzuetan argitaletxe bateko harpidedunen izen-deiturak eta helbideak idazteari, hain zuzen ere.

Mutikoak, hortaz, idatzi, idazten du, baina kopiatzera mugatzen da bere "idazle-izaera".

(25) Arestiko *zuzendari*ren eta beheraxeagoko *zuzentzaile*ren baliokideak, *zinemagile* ere atzendu gabe; "film-zuzendari", alegia.

(26) Ik. "Koldo Mitxelenaren zinema-kritiketako hitz elkartuak" txostenean Egile-elkarte sintetikoak.

(27) -LE/-TZAILE banaketa, eskuarki, Azkuek proposatutakoarekin bat dator.

(28) Hitz elkartu sintetikoak ere osorik pleguetarako ditugu, batik-bat bere osamodu bereziagatik. (Ik. *LEF-3*).

(29) *Amorante* ere badarabil (178).

(30) Gure ustez, 'produktore, ekoizle' da hemen duen zentzua:

"Bi izenek ekarri gintuzten zinera: egilea, Stanley Kramer da, oraindik bere eskuko

192 **(31)**,198 **(32)**, gaizki-esale (165), irabazle (167), eraile (190), hiltzaile (126, 189), garaitzaile (131), urkatzaile (139), gona-neurtzaile (140), pintatzaile (154), purrukatzaile (154), turuta-jotzaile (158), zuzentzaile (159, 164), laguntzaile (159, 165), galtzaile (167), maneatzaile (171), moldatzaile (171), askatzaile (176), menderatzaile (176), timatzaile (182), hagin-ateratzaile (190), kale-argitzaile eta garbitzaile (192); kate-haustaile (173); arrantzale (132), baleazale (186)

I.2.4. *-KO$_I$*

a) Izena [+tokia]: portuko (124), aldameneko (129), aldeko (166), auzoko (141, 144, 194), etxeko (173), lekuko (180, 195)

b) Adberbioa: ondorengo (125), erregezko (149)? ["erregearen seme-alabak"], ixpiazko **(33)** (191)?

I.3. **'Multzoa' edo 'kolektiboa'**

I.3.1. *-DI (-ti, -doi, -dui)*

Ez dugu atzizki honek ohikoena duen oinarriaren (landare-izenen batez ere) aztarnarik aurkitu.

Bestelako oinarriari, aditzari, loturik: izadi (147)

I.4. **"Tresna" edo 'baliabidea'**

I.4.1. *-GAILU (-kailu, -ailu)*

a) Aditzoina: jostailu (164, 187) **(34)**

---

omen delakoa, eta zuzentzailea, Edward Dmytryk". (159).

Hurrengoa, berriz, ez dugu horren argi, Mitxelenaren kritikaren arabera, Sacha Guitryk bai baitzuen ixuria zeregin bat baino gehiagotan aritzeko.:

"Sacha Guitry zenaren film bat ikustea (...) Sacha Guitryk gaingiroki eskuztatzen duen irudi-liburutik gogoan gelditzen dira bat edo beste (...) Sacha Guitry-Luis XIVgarrena aguretua eta. Egile gizarajoak, heriotzera baino lehen, beste mila eta milaren ondoan, mundu guztiaren aurrean jantzi nahi izan zuen erregezko apaindura ederra txairo eta egoki darama". (178).

Hortaz, antzezlari, zuzendari eta produktore aldi bertsuan?

(31) Hau, berriz, 'autorea' da.

(32) Bergman da oraingoa; 'autorea' nahiz 'zuzendari-gidoigilea' izan daiteke.

(33) "... azken gerrateko ixpiazkoaren gorabeherekin, polita da". (191).

Bitxia egiten zaigu forma hau.

(34) Hemen, itxura guztiz, izenondoa da:

"Nahiago izan du beti txairo eta jostailu agertu, astun eta sarkor baino". (187).

I.4.2. *-GARRI (-karri)*

a) Aditzoina: oroigarri (125), edergarri (136), bereizgarri (143, 169), betegarri (144, 152), apaingarri (152, 161, 186), bixigarri (159), pizgarri (159), negargarri (164) **(35)**, lazgarri (164), ahazgarri (172), gozagarri (172) (begi-gozagarri (187)), alaigarri (180), ezaugarri (191), lokarri (196, 197)

I.4.3. *-KI*$_1$

a) Aditzoina: estalki (125, 136, 145), janzki (134, 197), adabaki (146, 192)

I.5. **'Objektua', 'produktua', 'emaitza', 'gauzakia'**

I.5.1. *-KI*$_2$ **(36)**

a) Animalia- izena: hegaztiki (137); jaki (137) **(37)**?

b) Izena [+biziduna]: gizaki (124, 134, 164, 193); handizki (125, 150)?, handiki (149)? **(38)**; izaki (146) **(39)**?

c) Aditzoina **(40)**: idazki (124, 158), antzerki **(41)** (128, 164), marrazki (175)

I.5.2. *-KO*$_2$

a) Izena [+gorputz-atala]; hitz eratorria [+janzkia]: gerriko (132), soineko (154, 192), soingaineko (164)

---

(35) Berez izena luke oinarrian baina *negar egin* aditz-esapidearen "aditzoin" gisa ere har dezakegu.

(36) Eta *itsas-hegazti* (186) ere hemen sartzekoa litzateke, apika, oinarria ilun badugu ere.:

«En vista de esto, cabe admitir que el nombre que significa "ave" estuviera formado con el suf. *-ki* (cf. a.-na. Elcano *erazki*), cambiado por disimilación en *-ti(n)*: *egazti, hegazti(n)*». (Michelena *FHV*:259).

Deigarria zaigu *-ti, -ki* eta *-kin* atzizkien artean dabilen dantza; adierak eta hots-hurbiltasunek izan bide dezakete ikuskizuna.

(37) Azken honek, bistakoa den bezala, ez du ez animalia eta ez bestelako izenik oinarrian, halaz eta guztiz ere, multzo hau zuzenenik dagokiona delakoan gaude.

(38) Oinarrian etorkizko izena ez baina izenondoa duten arren sail hau iruditu zaigu gertuena.

(39) Hau ere zalantzaz sartzen dugu hemen. Oinarria aditzoina badu ere, izena izan ohi dutenek adierazten dutena ("halako multzo bateko unitatea" edo) adierazten baitu.

(40) Urteren *antzemanki* eta Uhlenbecken (1909) *errekir*en traza hartzen diegu. Horrexegatik, hain justu, aztergai honetako *eraskin* atzizkidunaren aski gertukoak direla uste dugu.

(41) Oinarria ezagungabea egiten zaigu.

b) Izena [+gorputz-atala]; hitz eratorria [+kolpea]: muturreko (160)

I.5.3. *-KADA$_2$ (-ada)*

a) Izena [-biziduna]; hitz eratorriak "kolpea" adierazten du: ukabilkada (124, 167)

I.5.4. *-KIN$_1$*

a) Aditzoina: eraskin (127)

b) Bestelako oinarria (izena?): urrutizkin (194)

I.5.5. *-KARI$_1$* (-ari)

a) Aditzoina: ikuskari (123, 198), gertakari (130, 142, 169, 170, 172, 193); gertari (177) **(42)**, eskari (126) **(43)**?, mirari (126) **(44)**, edari (142)

urrikari (127)?

b) Izena [+garaia]: egunkari (138), aldizkari (150) **(45)**

Eta ihartutzat jo dezakegun *zinema-atariko* (141) bigarren elementuak ere izena izango luke oinarrian.

I.5.6. *-KIZUN*

a) Aditzoina **(46)**: antzezkizun (125, 143), eginkizun (125, 128, 132, 139, 174, 188), asmakizun (128, 129), eramankizun (132), esankizun (135, 147), aitorkizun (137), gertakizun (137, 144, 151, 163), ikuskizun (144 **(47)**;171, 187, 191, 194, 199), igerkizun (174, 195), etorkizun (175, 194), hilkizun (178)

---

(42) Errepara azken biok osatzen duten bikote lehiakideari eta proportzioei.

(43) *Eske* izenetik ere abia gaitezke, behar bada.

(44) Ezin uka hitz honen osamodua berezi xamarra dela; *miratu*tik abia al gaitezke, aditz honek dituen esanahiak izanik? Ala *mira* izenetik abiatu beharra dago? Larramendirena da (*HLEH*).)

(45) Hitz honen oinarria ez da izena, *aldizka* adberbiotik abiatu behar dugu, seguru asko; halaz ere, [+garaia] tasunak makurtu gaitu arestikoaren multzo berean sartzera.

(46) Hitz eratorriok guztiok izenak dira.

Aditz gehienak [+Nor-Nork] motakoak dira.

(47) "Elbar batek, hobeto esan elbarritu batek, ez du leihoa beste ikuskizunik: leihotik ikusten duen etxartea, alegia". (144).

I.6. **'Lekua' edo 'tokia'**

I.6.1. *-TEGI (-degi, -egi)* **(48)**

a) Izena [±biziduna]: presondegi (138, 190), jauregi (146, 164, 173), ardandegi (152), auzitegi (159, 180, 189), lantegi (181)

b) Aditzoina: zabaldegi (164)

I.7. **'Garaia'**

I.7.1. *-TE*

a) Izena: gerrate (141, 187, 191, 196), izurrite (197)

I.8. **Aditzoinari erantsirik 'ekintza' edo 'ondorioa'**

I.8.1. *-T(Z)E* **(49)**

a) Aditzoina: odol ixurtze (128), odol-isurtze (174), aditze (129, 174, 180), itsasoratze (134), malko-ixurtze (136), hegazti jate (137), jeiste (146), oroimen galtze (146), buru hauste (149), buruhauste (149, 158, 180), jakite (150), erazte (159), famili galtze (159), entzute (166), eraberritze (169), gizon-hiltze (174), aginte **(50)**? (175, 188), hutsegite (179), adarra jotze (185), kontu-garbitze (190), hauste (192), nahaste (193), hil ondoko iraute (197)

I.8.2. *-ERA (-kera)*

a) Aditzoina **(51)**; hitz eratorria [+ekintza]: egokiera (123, 144, 160), galera (123), esaera (127), izaera (128, 175, 176, 193), sarrera (140, 181, 182) **(52)**, egoera (178), joera (150, 182), hasiera (151, 169, 186, 198), egiera (185), gertaera (164, 189, 191), bukaera (174, 190, 193, 199), bilera (195), galdera (197, 198)

b) Aditzoina; hitz eratorria [+ekintza-modua]: ibilera (124, 130, 141, 147, 153, 167...), hizkera (133) **(53)**, harrera (135, 137, 189), kontaera (144) **(54)**, jazkera (158, 178), mintzaera (198)

---

(48) Bazterreko oharñoa: *monasterio* da 190. orrialdean Mitxelenak darabilena.

(49) Benetako izenak, ez sintaxi-eskakizunak eraldatuak.

(50) Ez gaude seguru hitz honen kokalekuaz. *-te* atzizki izen-sortzailea (*izurrite...*) izenei josi ohi zaiela ikusteak makurtu gaitu hemen sartzera.

(51) Gehientsuenetan –ez beti– aditza [+Nor] motakoa da.

(52) 'Txartela', kasu guztietan.

(53) *Hitz egin* aditz-esapidetik abiatuz.

(54) 'Ekintza', 'modua' ala ekintza horren 'ondorea', "gauzakia"?:
"Bardemen kontaera daitekeen arin, labur eta zoliena da". (144).

I.8.3. *-MEN/-PEN (-mendu, -mendi)*

a) Aditzoina **(55)**; hitz eratorria "[+ondorioa, +ekintza]: baimen **(56)** (124), sentimendu (124), hondamen (126, 154), begiramen (134) (begiramen-zur (136), jainko-begiramen (147)), aukeramen (145) **(57)**, merezimendu (141, 198), harrimen (150), gozamen (176, 185), antolamen (181 **(58)**,186) **(59)**, prestamen (185) **(60)**, nabarmen **(61)** (136, 145, 170, 187, 189, 191, 193), zoramen (187), goramen (195); hondamendi (158, 165, 179, 186, 188, 195); irakaspen (130, 147), irudipen (160, 165), aurrerapen (160, 161, 175, 197), oroitzapen **(62)** (171, 177, 196, 197)

b) Aditzoina; hitz eratorria [+ahalmena] **(63):** ahalmen (125, 150), adimen (129, 143, 191, 198), oroimen (136), harrimen (139, 170), itsumen (187), irudimenjolas (192)

Mailegu egokitua: arrazoi-eskarmentu (141)

Atzizki-metaketa: nabarmenkeria (143), nabarmenkiro (182)

I.8.4. *-ZIO (-zino, -zione, -ziño)*

a) Aditzoina: salbazio (195)

Mailegu egokitua: ofizio (182, 185)

---

(55) Aditz-motak nahasi dabiltza [+Nor] eta [+Nor-Nork].

(56) Zein oinarritatik abiatu behar da? Atzizki hauen historian murgildu den De Rijk-ek ere ez dirudi oso garbi duenik: :

"Le mot *baipen*, qu"on utilise parfois dans le sens d'affirmation, mérite un peu plus de discussion, car son histoire est assez curieux. On le rencontre d'abord dans le *DBF* comme mot roncalais. Le sens indiqué est 'consentement', 'approbation', sens qu'Azkue répétera plus tard dans son étude "Particularidades del dialecto roncalés": consentimiento, *baipen* (p.352). Il faut y voir une variante de *baimen* au *p* renforcé, qui doit reposer sur *bait+pen*; pour la forme *bait*, réduction de *baita*, comparez le verbe souletin *baitetsi* 'approuver', de *bait(a)+etsi* (...) Le derivé *baipen* supposse une base verbale, qui ne peut être que le verbe *baitu*. Ce verbe existe et possede plusieurs sens, mais point celui d"affirmer. Pour ce sens on se sert de *baieztatu* ou de *baieztu*". (De Rijk 1991:720).

(57) Ez da 'ahalmena', aukera zehatza baizik; egun nonahi entzun-irakurtzen den *aukeraketa* horren ordaina, alegia:

"Maiz aipatzen dugun, eta maizago aipatu beharko genukeen kritiko batek eman digu geroxeago 'Espainiako zinema onaren' artean egin duen aukeramena". (145).

(58) 'Ekintza, ondorio' konkretua da:

"Antolamena, Michael Anderson eta gainerakoak direla bide, taxuz egina dago". (181).

(59) Aurrekoa bezalaxe:

"Oraingoan, H. Melvilleren eleberri ezaguna zinemaratzean, antolamen leiala, trebea eta biluzia eman digu...". (186).

(60) "Lapurreta baten prestamenak, egiera, ondoreak". (185).

(61) Izenondoa da. Bitxia egiten zaigu. Ala gaizki sailkatu dugu?

(62) Honen oinarria ere ilun egiten zaigu.

(63) Adiera honetako guztiak *-men* atzizkidunak.

I.8.5. *-KETA (-eta)*

a) Aditzoina **(64)**: jostaketa (129) (ume-jostaketa (169)), hizketa (136) **(65)**?, lan-banaketa (138), moda-erakusketa (178), lapurreta (185), aldaketa (190), hileta **(66)** (194), probaketa (197)

b) Izena: gogoeta (158), berriketa (178)

I.8.6. *-KUNTZA*

a) Aditzoina: hizkuntza (130, 191, 197) **(67)**, aldakuntza (150) **(68)**

I.8.7. *-DURA (-tura, -kura)*

a) Aditzoina: deitura (150) (izen-deitura (195)), apaindura (178), ohitura (125, 143, 158, 182, 190, 192)

errenkura (175)?

I.8.8. *-DURIA* **(69)**

a) Aditzoina: ausardia (151, 194), apainduri (135), jakinduria (147), jakinduri (198) **(70)**

I.8.8. *-KUNDE (-gunde, -kune, -kunte)*

a) Aditzoina: pizkunde (154)

---

(64) Gehientsuenak [+Nor-Nork] motakoak.

(65) Berriz ere *hitz egin* aditz-esapidera jo beharrean gaude. Ala b) multzoan sar dezakegu?

(66) Hitz honen adierari ere bitxi deritzogu, izan ere, *hileta* ez da, ez 'inor hiltzea', ezta *-(k)eta* atzizkiak izenei josirik har dezakeen 'bila joatea' ere, 'hilaren omenez egiten den saioa edo dena delakoa' baizik.

(67) Oraingoan ere *hitz egin* esapidera jotzen dugu oinarri bila.

(68) Errepara jatorriz [+Nor] motako aditza bide duela oinarrian, halaz ere, gogoan behar da izan inkoatiboa (Euskaltzaindia 1993:209-211) dela.

(69) Egia esan, ez dakigu arestiko atzizkiaren aldaera den ala ez. Ez gaude seguru, halaber, hau duen kokalekua ala izen abstraktu sortzaileen artean. Aurrekoarekiko antzak (*apaindura/apainduria*) eta oinarriaren izaerak makurtu gaituzte hemen paratzera.

(70) "La pérdida de *-a* es, puede decirse, regular detrás de vocal: (...) suf. *-keri* <*-keria, -duri* (en *apainduri* 'adorno, elegancia', *jakinduri* 'sabiduría') < *-duria*, etc.". (Michelena *FHV*:132).

I.8.9. *-TZA$_3$/-TZE*

a) Aditzoina: bizitza (125, 144, 151, 171 **(71)**,172, 191, 198), heriotza (125, 127, 171, 172, 174, 189, 193, 194, 196, 197), heriotze (129, 136, 138?,178?) **(72)** **(73)**, ezkontza (128, 134, 149, 157, 196), zuzentza (138), laguntza (134, 153, 177, 181), egintza (150)

I.8.10. *-ADA*

a) Izen berezia: matxinada (175, 192)

I.9. **'Zero morfema edo atzizkia' (74)**

– Aditza → Izena: jantzi (134, 147, 164...), entzun (154) **(75)**, esan (158,165) **(76)** **(77)**, etsi (164 **(78)**,198) **(79)**, izan (176 **(80)**,187) **(81)**, egin (192) **(82)**,

(71) Baina kritika berean beheraxeago:

"Guziaz ere, hor azaltzen digun tren-gidariaren bizia eta heriotza ikusgarriak dira beti..." (171).

(72) "Esate baterako, heriotzez hiltzen ditugu, Detxeparek zioenez, gaizkilerik okerrenak". (138).

"Egile gizarajoak, heriotzera baino lehen, beste mila eta milaren ondoan...". (178).

Heriotz ere izan daiteke hauetan oinarria. .

-TZA$_3$ / -TZE bikoteaz, Michelena (*FHV*:500).

(73) Oinarria aditzoina ez baina izena dela esango genuke. Halaz ere, *heriogarri* eta *heriokor* ikusi ditugu hiztegian (*HLEH*).

(74) Izen hau du, besteak beste, ageriko marka formalik gabe kategori aldaketa mamitzen duen gramatika izakiak. (Ik. Cabré-Rigau (1986), Scalise (1987), esate baterako).

Euskaraz, halaz ere, aitor dezagun gauzak ez direla nahi bezain argiak, ez baitago beti jakiterik zein den zeinen abiapuntu:

"No es válida la inferencia, tan implícita como usual, según la cual, si hay un nombre al lado del verbo, éste se deriva de aquél. No faltan nombres postverbales vascos: *aipatu* 'mencionar' no es necesariamente un derivado de *aipu* 'mención', ni vizc. *amaitu* 'acabar' lo es de *amai* 'fin', del mismo modo que *costa, coste* o *costo* no tienen precedencia histórica sobre *costar*". (Michelena 1977:318).

Bestalde, argitu behar dugu nazioarteko bibliografian Aditza → Izen bilakaera bada ere gertakari honen barruan biltzen dena, guk zabalago jokatuko dugula bestelako kategorien arteko joan-etorriak ere pleguotara ekarriz, hitz elkartuezko txostenean adierazi bezala, uste baitugu Mitxelenak oso berea duela gramatika-kategoriak dantzatzeko ixuria.

igortzi (192) **(83)**; **(84)**egiteko (128 **(85)**,163 **(86)**,178 **(87)**,196) **(88)**, ikusteko (132) **(89)**, eroriko (151, 182, 198)?; zena (130) **(90)**...

– Izenondoa → Izena: berri (165, 177...), zale (123) **(91)**, zahar (136) **(92)**, mutu (136 **(93)**,191) **(94)**, labur (136) **(95)**, nagi, ustel (196) **(96)**, eder (150 **(97)**,154) **(98)**, gogor (142) **(99)**, ezagun (197) **(100)**.

– Izena → Izenlaguna → Izena: oinordeko (126)

Hemendik beherakoan ez dugu era agorgarrian jokatuko eta adibide solte batzuk hautatuko ditugu.

(75) "Guretzat, berriz, ipui hori, entzunaren entzunez edo, lizunduxea ageri da". (154).

(76) "Lehengo aurpegiak, esanak, ohiturak eta jazkerak parregarriak iruditzen zaizkigu". (158).

(77) "Historiaren belarrira ixurtzen dituzte beren esan sonatuak". (165).

(78) "... tranbean sartu baino lehen, etsia emana du". (164).

(79) "Bizitzak irakatsi dion jakinduri mingotsa daki eta horrekin hartu du etsia, horrek gogoa ase ez badio ere". (198).

(80) "Izenak ez dira gehiegi aldatu, baina izanak...". (176).

(81) "... ez da izanez izenez baino urriago". (187).

(82) "... orduko zenbait buruzagi argituren asmoak eta eginak jendeak, bere nahiz besteren eraginez, ontzat hartu ez bazituen ere". (192).

(83) "... ez dela hemen aurkituko ez molde berririk, ez bihotz-izkuturik, ez poesi igortzirik". (181).

(84) Ondokoentzat, Izenkia → Izenlaguna → Izena proposatu behar dela dirudi.

(85) "... badirudi urtean behin gutxienez horrelako egitekoren bat egin behar izan duela lehenago ere". (128).

(86) "... egitekoak 24 ordu barrukoak baitira". (163).

(87) "Egiteko aspergarri xamarra, batetik, eta ezin-baztertuzkoa, bestetik". (178).

(88) "... baina ari ahala gero eta zailago zaio egotzi dioten egiteko zikina". (196).

(89) "Lekeition edo beste nonbait jai handiak direnean han ikusten dira ikustekoak!". (132).

(90) "Zenaren arimak ere badu zer esana". (130).

Kasu hau besteak ez bezalakoa da, adizki jokatutik abiatu behar dugu-eta.

(91) "Ez da, bada harritzekoa gure artean ere zinemak, begi-festa merkeen horrek, gero eta zale gehiago izatea". (123).

Errepara Mitxelenak ez duela egun maizago entzun uste dugun *zaleturik* erabiltzen.

(92) "Zaharra begiramen-zur omen dabil". (136).

(93) "... lehengo mutuan iraun zuen Charlotek". (136).

(94) "Bere mutuan, ordea, ez du mintzoaren beharrik oraingo bizitzaren alegia azaltzeko". (191).

(95) "... adierazi nahi digu zein diren goxo oraindik udazken buruko egun epelak, bere laburrean zein eder". (136).

(96) "Beti baita gizona bere nagian eta ustelean, Jainkoari eskerrak, itxura jakinik ez duten ametsen mirabe". (196).

(97) "Zinemagileek nahiago dute nonbait mediku izandun eta indartsuen ederra irabazi eri arloteona baino". (150).

(98) "Ba ote zitekeen libreto hoberik begi-belarriak ederrez asetzeko?". (154).

(99) "... gogorrean ezin, eta azpi-janean liluratzen dute Erromar izeneko gizakume apain haiek". (142).

(100) "... erosoak eta maldarik gabeak izan ohi dira, ezagunaren ezagunez aspertzen bagaituzte ere". (197).

– Adberbioa → Izena: beti (124) **(101)**, lehen, orain (158) **(102)**, ez (177) **(103)**, lasterka (180) **(104)**, ukabilka (166) **(105)** **(106)**

– Aditzondoa → Izenlaguna → Izena: berehalako (137 **(107)**,195) **(108)**

– Zenbatzailea → Izena **(109)**: azken (142 **(110)**,151 **(111)**,163 **(112)**,186) **(113)**

– Galdetzailea → Izena: zer (153 **(114)**,155) **(115)**

– Izenordaina **(116)** → Izena: ezerez (152 **(117)**,197) **(118)**

– Aditza → Izenlaguna **(119)**: esaneko (133) **(120)**

– Izena → Izenondoa **(121)**: ikara (131) **(122)**, gose (175) **(123)**

– Izena (→ Aditza) → Izenondoa: amorratu (142, 195)

---

(101) "Gere gogoetak eta nahiak aldakorrak izaten dira; ez dugu beti etengabe batean irauten (...) Ez dute atseden eta jolas beharrik; asmo batek, sentimendu batek, beti batek ordea, darabiltza". (124).

(102) "Lehena eta oraina". (158).

(103) Gramatika-zer honen izaera gora-behera, adberbiotzat hartuko dugu.

"Eza da oraingo urritasunaren iturburua: gogoko filmik eza, gogorik eza eta astirik eza". (177).

(104) "Berehalaxe, eskaileretan behera lasterka bizian zetorrela ikusi zuen semea agure elbar batek". (180).

(105) "Ukabilkak, mutur-jokak, baditu aldekoak eta etsaiak". (166).

(106) Eta hitz elkartuetan ikusiriko *mutur-joka* izena.

(107) "Ez du artean zinemak horrelakorik egin, ezta egingo ere berehalakoan, ez baitu inork, ...". (137).

(108) "..., baina ez gara berehalakoan ikustez aspertuko". (195).

(109) Hitz elkartuen atalean ikusiriko *gehiegi* ere hemen sartzekoa litzatekeelakoan gaude.

(110) "... eta haren azken gaiztoa ikusi behar". (142).

(111) "... azken gaiztoa izango badu ere". (151).

(112) "Joseph van Sternberg"ek eraman zuen zinemara aspaldi xamar; gero eta azkena pittinen bat gozatuta, duela urte gutxi, George Stevens"ek". (163).

(113) "Azken gaiztoa dute, ohi denez...". (186).

(114) "Buñuelek badu, denentzat ari bada ere, zer berezi bat". (153).

(115) "... badu teatroak halako 'zera' bat, hemen aurkitzen ez duguna". (155).

(116) Berez *ezer* elementuari dagokion kategoria bada ere.

(117) "Baina, bere ezerezean, ez da Martyrentzat ardura gutxiagokoa...". (152).

(118) "...Jainkoa, hil ondoko irautea ala ezereza". (197).

(119) Laburbeharrez, muzin egingo diogu gertaerarik ohikoena hona ekartzeari; hots, Partizipioa → Izenondo bilakaera ispilatzeari eta bitxien iritzi dioguna besterik ez dugu aldatuko.

Bestalde, *esaneko* hau, *-ko*$_3$ azpian bilduen kidetzat jo ote daitekeen susmoak hartuak gaude; ez du, haatik, izen-multzorik ez zenbatzailedun sintagmarik oinarrian.

(120) "Euskaldun hauek jende jatorrak dira, zintzoak, leialak, esanekoak". (133).

(121) Bi kategorion arteko muga labainak direla medio, adibide-sorta luza zitekeen, noski. Hau deigarrienen erakusgarriñoa besterik ez da.

Bestalde, betiko dudan murgildurik gabiltza; jasoko ditugun moduko egiturok iluntzen dute, guk uste, gramatika-kategoriaren izaera.

(122) "... kandel-argi ikara baten gisa". (131).

(123) "Eta, zakur gose batzuek harturik lagun,...". (175).

II. IZENONDO-SORTZAILEAK

II.1. 'Ugaritasuna' eta 'maiztasuna'

II.1.1. *-TI* **(124)**

a) Izena [-biziduna]; izenondo eratorria [+gizakia]: bildurti (130, 131), beldurti (153, 194), gezurti (135), negarti (130, 136), lotsati (151)

II.1.2. *-TSU$_1$ (-zu)*

a) Izena [-biziduna]: burutsu (128, 146, 189), urrikaltsu (134, 199), jakintsu (135, 167) **(125)**, berritsu (136, 194), nahigabetsu (139), harritsu (146), indartsu (150, 189, 192), dohatsu (160, 195), eguzkitsu (164), ospetsu (169, 187), arranditsu (173), adoretsu (186), koipatsu (189), lainotsu (196), behartsu (199), paketsu (199); zarpazu (149, 164), mukizu (179)

II.2. 'Jatorria' adierazten duena: -(T)AR (-dar)

a) Izena [±berezia, +tokia]: erromar (125), japondar (130), italiar (146, 158, 196), amerikar (149), calabriar (158), lonbardiar (158), siziliar (158, 192), florenziar (158), napolitar (159); ipartar (131), hegoar (131)

b) Izena [-berezia, -biziduna]: goitar (158, 198), herritar (195) **(126)**

II.3. 'Joera', 'zaletasuna'

II.3.1. *-BERA (-pera)*

a) Aditzoina: minbera (131, 172)

Atzizki-metaketa: minberatu (145)

II.3.2. *-KOI (-oi)*

a) Izena [±biziduna]: berekoi **(127)** (130), elizkoi (193)

---

(124) Baina *setoso* (180) ere bai.

(125) Ezin esan daiteke oinarria izena denik. Halaz guztiz usu darabilgun hitza denik ere ezin uka eta Etxeparegan lehen moldezko lekukoa duena, gainera (*HLEH*).

(126) 'Sorterrikide':

"... giltzapean dauzkaten Bertoniren herritarrak sala eta sal ditzan". (195).

(127) Oinarri duen izenordaina izenetik oso urrun ez ibiltzeak zilegiztatzen du, seguru aski, eratorbidea.

II.3.3. *-KOR (-or)*

a) Aditzoina: aldakor (124, 183), hilkor (147), hilezkor **(128)** (147), sarkor (171, 182, 187), elkor (171, 182), irristakor (189)

II.4. **'Gaitasuna'**

II.4.1. *-GARRI (-karri)*

a) Aditzoina **(129)**:

'Aktibo' edo 'eragile' zentzuaz: harrigarri (123, 141, 142, 154, 160, 169, 170, 193) (harrigarrizko (137)), penagarri (123), lotsagarri (124, 137, 179, 185), kaltegarri (127), kiskalgarri (127), bildurgarri (132), beldurgarri (136, 146, 186, 195, 198), apaingarri (141), ikaragarri (142, 175, 193), parregarri (143, 157, 158, 167), negargarri (143), zoragarri (143), gogaikarri (143), ukigarri (158), nekagarri (158, 171, 197), mingarri (158, 170), izugarri (159, 197), aspergarri (155, 157, 174, 178), pozgarri (169), erdiragarri (171, 173, 194), higuingarri (189), gogaikarri (190), pizkarri (195), atsegingarri (198), lazgarri (199)

'Merezi duena' zentzuaz: gogoangarri (127, 183), miragarri (129), ikusgarri (135, 143, 160, 171, 186, 190), goragarri (144, 192), begiragarri (154), miresgarri (198)

II.5. **'Jabegoa'**

II.5.1. *-DUN (-tun)* **(130)**

II.5.2. *-KO*$_3$

a) Izen-Multzoa edo Zenbatzailedun Izen-Sintagma: kartoi-itxurazko (124), bere eskuko (127), ezerezeko (127), zorioneko (129), euskaldun izeneko (131), gaizkile usteko (138), giza-neurriko (131), egi-antzeko (141), pixti itxurako (146), giza-irudiko (146), deus gutxiko (152), ardura gutxiagoko (152), probetxu hobeko (157), eliz-torre gisako (164), makur antzeko (167), bi ahoko (183), aingeru itxurako, pailazo itxurako (183), eite beretsuko (187), hamar bizitzako (191), hots handiko (192), ontto-itxurako (194), bihotz garbiko (199)

---

(128) Larramendiren sorkari honen oinarria (*HLEH*) ez da, antza, oso txukuna.

(129) Gehientsuenak [+Nor-Nork] motakoak.

Aditzoin oso-beteak eta aditz-esapideenak nahaste.

(130) Hitz elkartu sintetikoen artean jaso ditugu. Ik. "Koldo Mitxelenaren zinema-kritiketako hitz elkartuak".

III. ADITZAK SORTZEKO ATZIZKIA: *-TU* (131)

a) Izena: baliatu (123), lagundu (124, 133, 134, 198), aldatu (124, 164, 176, 195), zirtatu (125)?, ohitu (125, 139) **(132)**, baztertu (126, 139, 143, 177, 186), odoldu (126), harritu (126, 135, 139, 145, 195), haserretu (126), mintzatu (126, 131, 136, 138, 167...), aukeratu (127, 132, 187, 189), jabetu (128, 147, 195, 199), nahigabetu (129, 142, 170), hondatu (130, 182), erdibitu (131)?, loratu (132), aitortu (132, 137, 142, 161, 180, 187, 197, 198), oratu (133), aurkitu (133, 181, 187, 190, 194), bataiatu (133), asmatu (134, 175, 190), sorgindu (134, 170), iltzatu (134), ukatu (136, 197)?, balakatu (137), kezkatu (137, 167), iruditu (137), nekatu (139), debekatu (141)?, moldatu (142, 153, 169, 194), azaldu (144, 163, 191, 192, 193), kontatu (145, 196), lausotu (145), miratu (145)?, goldatu (146), inguratu (146, 170, 181), amestu (151), zulatu (152), galdetu (158), liluratu (158, 191), zaletu (160), damutu (161), samindu (164, 195), izerditu (164, 185), zukutu (165), lotsatu (166, 197), nazkatu (166, 196), landatu (170)?, haizatu (170), lehiatu (170), izutu (174), sumatu (175, 194, 198), zentzatu (177), bizitu (177), aguretu (178), txigortu (180), eskatu (181), txorabiatu (181)?, topatu (181)?, ordaindu (182), larrutu (185), zimurtu (185), zarratatu (185)?, mamitu (186, 198), gidatu (186)?, itzali (186)?, hautatu (189)?, jokatu (190, 198), ohartu (190, 194), akabatu (194)?, ikaratu (194), mugatu (194), dardaratu (194) **(133)**, puztu (196), kantatu (196), barrendu (197)

b) Izenondoa: agertu (125, 135, 136, 138, 144...), berdindu (125, 169 **(134)**; 161, 169, 183, 187, 196, 199) **(135)**, zuritu (125, 145, 149, 151, 187), alaitu (125), aberastu (128), zorroztu (129, 145), gertatu (130, 139, 142, 146...)?, beztu (130, 198), edertu (130), larritu (131, 160 **(136)**,174), piztu (131), biztu (142), bizkortu (131), arindu (133, 149, 164, 173, 178), txepeldu (134), hurbildu (136), zahartu (137, 140), zabaldu (137, 144, 179, 194, 197, 199), garbitu (138), usteldu (138), makurtu (141, 145, 153, 160, 178, 179), mehartu (141), agortu (141), handi-zabaldu (141), elbarritu (144), ahuldu (145), ixildu (145, 194), minberatu (145), argitu (145, 165, 179), ausartu (146, 177, 186), ondu (146), bihurtu (146), atertu (147), egokitu (147), zahar-berritu (150), lasaitu (152), itsustu (153), lizundu (154), txehatu (160), handitu (160), loditu (160), luzatu (160, 177, 191), gozatu (163, 171, 175), gelditu (163, 169, 194)?, gaztetu (163), nabarmendu (164, 175), zapaldu (165, 176), itsutu (167, 180), mingostu (175), erraztu (179), ilundu (179, 197), zuzendu (179), amerikanotu

(131) Ez dauzkagu atzendurik, halaz guztiz, lehen aldaturiko Michelenaren (1977:318) esanak.

(132) Perifrasi-multzoen artean aditz modalak osatzeko elementu (*EGLU-II* 1987:462) honen oinarrian *ohi* izena dagoela esan al daiteke?

"... *eun* 'cien', cf. *ehun*; cf. *oi* 'costumbre', or. *ohi*". (*FHV*:116).

"(24) Lafon, Système I, 473 ss. y 491 ss. No han perdido, sin embargo, la aspiración determinantes adverbiales, ***nombres en su origen***, como *ahal, ohi*, othe". (*FHV*:214). (***Beltz.*** gureak).

(133) "..., ez da tronpeta-soinurik entzuten, zerua pixkaren bar dardaratzea nahi bagenu ere". (194).

Harrigarri xamar egiten zaigun aditz honek Larramendigan du, antza, iturburua (*HLEH*).

(134) 'Ase'.

(135) 'Alderatu', 'erkatu'.

(136) Hemen "larriago, handiago egin".

(181) **(137)**, eskarmentatu (186)?, zintzotu (187), moztu (192), estutu (194), hustu (194), hobetu (195), nabaitu (195, 196), berritu (197)

c) Aditzondoa: kuzkurtu (146), aurkeztu (151, 157, 181)

d) "IS + *-z*": eskuztatu (178), deuseztatu (180); izendatu (146) **(138)**

e) "IS + *-ra/-gana*": goratu (130, 149, 192), begietaratu (130, 143), elkarganatu (134), konturatu (134), mahaieratu (137), etxeratu (141), bideratu (142, 180), azpiratu (142, 176), bereganatu (143, 180, 189), zinemaratu (146, 165, 180, 186, 190), menderatu (151, 174), beheratu (153, 199), galbideratu (154), alderatu (157, 161, 171, 179, 187), gogoratu (158, 166), begiratu (160), aurreratu (166, 171), eskuratu (175), guregana(tu) (187) **(139)**

e) *-ka*dun aditzoina: laurdenkatu (138), oinkatu (146), orakatu (196)

Atzizki-metaketa: gaiztotu (138), minberatu (145), egokitu (147), nabarmendu (164, 175)

IV. ATZIZKI ADITZONDO-SORTZAILEAK

IV.1. *-KI*$_3$

a) Izenondoa: ederki (125, 152), gaizki (128, 132, 146...), ongi (130, 197...), poliki (137), lazki (137), hobeki (139, 189), egoki (178, 189, 198) **(140)**, eskuarki (189) **(141)**?

b) Izena: gizonki (198) **(142)**

IV.2. *-TO (-do)*

Ondo edo hobeto adibideak kenduz, ez darabil atzizki hau eta honen ordez paretsukoa den -ki$_3$ darabil.

---

(137) Aditz honi interesgarri deritzagu bi alderditatik: oinarria erdal izenondoa duelako eta bestetik, 'x bilakatu' adierazteko *-tu* soila darabilelako.

(138) Instrumental markagabekotzat hartuz.

(139) Hau da pasartea:

"Film honek, guregana baino lehen, bazekarren aurretik zarata eta zalaparta". (187).

Egia esan, aditza, nahiz aditza (*iritsi*...) isilpean gorderik duen adizlaguna izan daiteke.

(140) Diakroniari begira soilik jo daiteke eratorritzat, guk uste.

(141) Egia esan, diakroniari begira ez dirudi oinarria izenondotzat jo daitekeenik. (*FHV*:121,496-7). Azken aipamen horretan "esku + (h)ar[tu] + *-ki*" egitura proposatzen da.

(142) Oinarri bitxikoa. Guztiarekin ere, *gizonki* adberbioa 1757. urtean jasotzen da, nonbait, lehen aldiz. (*HLEH*).

IV.3. *-RO*

a) Oinarri desberdinak: zeharo (126, 153, 192, 195), biziro (127, 152, 167, 191), luzaro (128, 139, 146, 160, 169, 195), berriro (129), astiro (139, 147, 154, 166), osoro (144), zintzoro (152), argiro (175, 187)

-ki$_3$ atzizkiarekin batera: zehazkiro (142), handikiro (158), laburkiro (163), nabarmenkiro (182); gaingiroki (178)

IV.4. *-KA*

a) Izena [-biziduna]: karraxika (126), oihu eta garraxika (147), agurka (129) **(143)**?, taldeka (132), zirika (132), irrintzi eta saltoka (133), aztarrika (145)?, keinuka (160), lasterka (165, 180) **(144)**, atzaparka (177), deadarka (180), zatika (189), tiroka (190), arrastaka (197), tantaka eta pittinka (197)

b) Adberbio-esapidea: noizean behinka (123)

c) Izenondoa: bakarkako hizketa (154) **(145)**

c) Aditza, aditz-esapidea: iraulka (127), tiraka (157), aurreraka (160)

d) Perpaus osoa: baiezka (149), "Noiz ezkondu behar duk"-ka (151)

Atzizki-metaketa: oinkatu (146), mutur-jokalari (166)?

V. ATZIZKI TXIKIGILEAK (146)

V.1. *-TXO/-TXA*

a) Izena: har-alditxo (123), jauntxo (123), gizontxo (126, 129), giltzatxo (128), haurtxo (129, 141, 153, 171, 191), begiralditxo (139), Luzifer-airetxo (147), hitzalditxo (147), xagutxo (157), etxetxo (164), gauzatxo (164, 183), ingurutxo (165), hutsartetxo (174), astotxo (176), iturritxo (183), kezkatxo (185), elizatxo (186), zalduntxo (192), aspalditxo (195), neskatxa (149, 151, 163, 164, 171, 173, 186)

b) Izenondoa: luzetxo (151), gaztetxo (155), zahartxo (171)

c) Bestelako oinarriak: askotxo (124); zertxobait (178, 182, 193)

(143) Ala *agur egin* aditz-esapidetik abiatuz?
(144) Hau izena, lehen esan bezala.
(145) Honelaxe darabil egun hagitzez barreiatuago dabilen *bakarrizketa*ren ordez.
(146) Handigilerik atzeman ez dugu-eta.

V.2. *-XKO/-XKA*

a) Izena: mordoxka (189)

b) Izenondoa: laburxko (140), luzexko (140), lodixko (151); belaxka (139)?

V.3. *-TSU*

a) Izena: gisatsuko (128)

c) Izenondoa: berdintsu (130)

d) Bestelako oinarriak: era batetsuko (130), orobatsu (178); bateratsu (159); gehientsu (135, 161); bezalatsu (185, 194)

V.4. *-ZTA*

c) Izenondoa: horizta (141, 154)

VI. **EUSKAL AURRIZKIAK**

VI.1. *DES-*

a) Izenondoa: desberdin (179)

b) Aditza: desegin (160, 187)

c) Izena: destenoreko (179)

Parasintesia: desegokikeria (192), desegokitasun (192)

VI.2. **EZ-**

a) Izena: ezbehar (128)

b) Izenondoa: ezjakin (124, 170)

B) **AZTERGAIAK AGERIAN UTZIA**

Elkarketazko txostenean egin bezala, orain ere sailez sail ariko gara lehengo hiru puntuak bitara ekarriz, izenez esan, sailez saileko gertakari azpimarkagarriak eta azken erabatekoa.

1. Sailetako gertakari azpimarkagarriak

I. *Izen-sortzaileak*

Mitxelenak maizenik darabiltzan atzizki izen abstraktu sortzaileak *-tasun* eta *-keria* dira.

Azpimarkatzekoa da, egungo azterketetan ikusten ahal den legez, atzizkiok oinarri-mota desberdinei josteko duten (edota eman diegun) askatasuna. Askatasun horrek, halaz ere, Mitxelena honengan **(147)** mugak ditu.

Honela, ez dugu adibide bat bera aurkitu erdal izenondo erreferentzial bati josia (*normaltasun, ofizialtasun* edo antzekorik).

Beste alde batetik, ez dugu uste gure aztergaiko Mitxelenaren jokamoldeak egun sumatu uste dugun *-tasun* atzizkiaren desmasia *(antzekotasun...)* azaleratzera daramanik. Hona, beherago ere ahotan hartu beharko dugun prozeduretariko bat arrisku horri itzuri egiteko:

> Soinua eta harekin batean hitza, agertu zenean zineman, **lehengo mutuan** iraun zuen Charlotek. (136). (Beltz. gurea).

Bistakoa da hemen Mitxelenak *mututasun* edo erabil bazezakeen ere nahiago bide izan duela gramatika-kategorien arteko jokoari etekina atera.

Abian paperera berri ditugun atzizki bion arteko "markatu/markagabe" (atzekoz aurrera lot bitez) bereizkuntza ere ez zaio arrotz errenteriarrari eta badaki komeni zaionean alde horrezaz baliatzen:

> Ez bazarete haurtxo bihurtzen, ez zarete sartuko zeruetako erreinuan–, esan zuen Norbaitek: Horrelako zerbait ipini behar lukete maiz asko zine-atarietan. Baina hemen eskatzen zaigun haurtasuna ez da gogo garbia eta apala. **Gehiago eskatzen zaigu: haurtasunaren orde umekeria**, ate atzean uztea sartzerakoan arrazoi-eskarmentuak. (141). (Beltz. gurea).

*-KERIA*ren alorrean, izen berezia oinarrian duen *txarlotkeria* nabarmenduko genuke (*pellokeria, Peñakeria...* eta abar ezpal berekotzat joko genituzke).

Bi atzizki hauek ezezik, *-tate, -tza*, eta *-gintza* (hitz-elkarketan ikusi duguna) ere badarabiltza izen abstraktuak sortzeko, lehengoak baino gutxiagotan, halaz guztiz. Aitzitik, ez dugu *-ezia, -(t)zia* edo *-go(a)*ren arrastorik kausitu.

Abstraktu-izaera dela-eta, uste dugu lexiko-baliabideetatik harantzago jo behar dela balizko urritasun hau azaltzeko; nolazpait esan, sintaxi-baliabideetan aurkitzen du Mitxelenak horni-iturria lexiko-baliabideetatik etengabe edan behar ez izateko. Beheraxeago, 'multzoaz' aritzean, itzuliko gara hona.

---

(147) Ardurazko deritzagu hau zehazteari, errenteriarrak beste zenbait testutan ez baitu aipatzera goazen lehen debeku hori: *jeneraltasun* (1979:174), *linealtasun* (1972:82), *ofizialtasun* (1972:131;1978a:44;1978b:165;1983:50) badarabiltza, esate baterako.

'Egilea' adierazten duten izen-sortzaileen multzoan bada, guk uste, esatekorik.

Nonbaitetik hastekotan, *-ARI* eta *-LE/-TZAILE* atzizkien ugaritasuna azpimarratu beharko genuke, apika.

Oinarri dituzten kategoriei begira, ikusi ahal izan dugu, lehena askozaz ere gehiagotan darabilela izenari josirik aditzoinari josirik baino; bigarrenak, aitzitik, aditzoina du ([+Nor-Nork] motako aditzoina **(148)**) berezko erabarrutia.

Ez dugu *mugalari/mugatzaile* bezalako adiera-banaketarik topatu (aztergaian arrazoituriko *idazlari/idazle* bitxia salbu), horretarako bidea eman zezaketen *zuzendari/zuzentzaile* bikote-osagileen arteko alderik eza dela medio.

LEF batzordearen txostenean adierazten den bezala, bada azkenaldi honetan *-ario*dun erdal hitz eratorria euskaraz, oinarriari muzin eginez, *-ari* janzteko joera *(notari, funtzionari...)*; joera hau, gainera, erruz zabaldu da, *-ario* atzizkirik gabe ere, zeinahi "egile" edo "agente" ordaintzeko *(ministrari, artifiziari, korrespontsari...)*.

Gure korpusean ez dugu honen aztarnarik ñimiñoena ere aurkitu.

Hona, Mitxelenaren bidearen erakusgarriño batzuk:

– EL FERROVIARIO izeneko filma du kritikakizun, aukera ezin hobea *ferrobiari* edo horren eitekoa osatzeko. *Tren-gidari* du, aitzitik hautetsia; hau da, hitz elkartu sintetikoetara irauli ditu begiak.

– *Kritiko* da, bestetik, behin eta birritan darabilen moldea zine-kritika guztietan zehar. Ez dugu **hemen** *kritikari/kritikalari*ren modukorik irakurri **(149)**. Halaber, *komeriante* (199) erabiltzeko debekurik ere ez du (Xenpelarrek bezalaxe), ezta *igeltsero* (195) ere.

Argigarriok, guk uste, Mitxelenaren jokamoldearen adierazgarriak dira: egile-elkartera jo, mailegu osoari heldu, nahiz, erdal atzizkidun hitz etxekotu (gutxiasko) moldatuari eutsi. Baina ez dio, noski, uko egiten *-ARI* eta *-LE/-TZAILE* euskal oinarritzat har daitekeenari emendatzeari (hortxe dago guk Mitxelenaren sorkaritzat joko genukeen *blankolari* bitxia, erdal ordain bixki jakinik gabekoa).

"Multzoa" edo "kolektiboa" adierazteko darabilen atzizki bakarra *-DI* da, baina arras urri eta aski bazterrekotzat jo daitekeen moduan.

Ez dugu, bestela esan, *-ERIA, -TZA$_2$, -KETA$_1$, -TEGI, -KADA$_1$/-TARA*... atzizkien aztarrenik ikusi.

---

(148) Baten bat bereiztekotan, apika, *timatzaile* ekarri beharko litzateke, arrotz xamar egiten zaigun *timatu* aditzera baikaramatza.

(149) *-ari/-lari* atzizkien arteko banaketa dela-eta, aztergaiak erakutsi digu LEF batzordearen proposamenarekin bat ez datorren bakarra, hiru silabako *-a* bukaeradun *borrokalari* dela (Hegoaldekoa eta mende honen hasierakoa (*OEH*), *borrokari* zaharragoarekin oraindik ere borrokan dabilena, bestalde.

Mitxelenak mamitzen duen multzokarien urri honek begien aurrean jartzen digu LEF batzordeak Donostia-Gasteizetan plazaratua: plurala beldurrik gabe erabiltzeko abisua, alegia.

Irizpide honen euskarri da, guk uste, hitz elkartu dvandvekiko atxikimendua, besteak beste.

Hortaz, Mitxelenak lantxootan eginak erakusten digu abstraktu-izaera eta izterlehengusu duen multzo-izaera beti atzizki bidez zer eman ez dagoela, hau da, hitz-elkarketa eta sintaxi-baliabideak ere hortxe daudela nork erabiliko.

'Tresna, baliabidea' adierazten dutenei begiratùa eginez, ondoriozta daiteke, batetik, behin darabilen *-GAILU* aditzoinari josten diola, atzizki hau berea duten eskualdeetan egin ohi duten bezala. Ez zaigu, hortaz, aztergaian barrena *puregailu* edo *elektragailu* bezalakorik bidera atera.

Bestetik, uste dugu baiezta daitekeela Mitxelenak lanabesik indartsuena *-GARRI* izen-sortzailean ikusten duela, hego-mendebaleko euskalkietan arrunteko usadio bide zena. Atzizki honezaz baliatuz, hain zuzen ere, gatzatzen ditu testuinguru ugaritan hain egokiak diren zain zaharreko *begi-gozagarri* bezalako hitz elkartu sintetikoak.

'Objektua', 'produktua', 'emaitza', 'gauzakia' adierazten dutenen oparoan, gaur, apika, oso osasuntsu ez dabilen *-KIZUN*en nagusitasuna da nabarmen.

'Lekua' edo 'tokia' adierazteko atzizkiek ere sortu dute kezkabiderik. Mitxelenak oso maiz ez badarabiltza ere, uste dugu egoki dela atzemandako joera hona ekartzea LEF batzordearen aburuen irozgarri gertatzen da-eta.

Mitxelenak izenari (euskaraz baden izenari, esan nahi dugu) eta aditzari (behin) lotzen die *-TEGI* atzizkia. Ez dugu, alegia, *monastegi, anbulategi* edo antzekorik aurkitu. Aitzitik, *monasterio* darabil lasai asko (190).

Ez dugu, alabaina, ahantzi behar, hor dauzkagula Mitxelenaren *zine-etxe, antzeztoki, garibiltoki, borroka-leku, prediku-leku* eta antzeko hitz elkartuak.

Aditzoinari erantsirik 'ekintza' edo 'ondorioa' adierazteko atzizki izen-sortzaileen artean *-T(Z)E, -ERA,* eta *-MEN/-PEN* dira dantzatuenak. Gutxitan darabiltza, berriz, ia besterik ez balego bezala-edo, egun usuegi darabiltzagun *-KETA* eta *-KUNTZA.*

Atzizkion arteko oreka-desorekaren gainean, zenbait gogoetagai ematen digu Mitxelenak munduratua:

– Inongo lotsaizunik ez du xehegi eta xumeegitzat hartu izan den *-T(Z)E* erabiltzeko **(150)**. Baita ekintza-elkarte sintetikoak osatu behar dituenean ere.

--ERA/-KERA atzizkia ere sarri darabil eta gehientsuenetan [+Nor] motako aditzari lotuz.

(150) Oroi 1984an egin zuen erreibindikazio mingots antxaz. (Mitxelena 1984:44-45).

Mitxelenaren hitz eratorriek agerian uzten dute ez dagoela bi aldaeren arteko erabateko adiera-banaketa aldezterik, hau da, ez dagoela *-era* 'ekintza' vs. *-kera* 'modua' bereizkuntzari eusterik. Areago, bigarren adiera hau duten eratorri guztiak *-era* atzizkidunak dira.

--MEN/-PEN atzizkien alorra ere ez da erabat gardena.

Egia bada ere *-men* dela 'ahalmena' adierazteko begiz joa, egia ere da atzizki hau berau darabilela 'ekintza' zehatzerako: hor dauzkagu, urrutirago gabe *antolamen, aukeramen, prestamen*, egun, seguru asko *antolaketa, aukeraketa, prestaketa* itxuraldatuak nonahi topatuko genituzkeenak.

– Adibide bana besterik ez badago ere, *-ZIO* atzizkiduna eta mailegu egokitua badarabiltza Mitxelenak *(salbazio, ofizio)*.

Jokamodu honek berez bezala dakar azalera bukaera horren kontrako ixuririk aztergaian guk sumatu ez izana *(manifestapen...)*; hau da, ez dugu, erdal *-ción* bukaera mozorrotzeko asmo-izpirik usaindu.

Puntu honetan ere, Mitxelena eta LEF batzordeak gomendatua elkarren eskutik datoz.

II. Izenondo-sortzaileak

Zenbait gertakari hartuko ditugu hizpide:

-LEF batzordearen proposamenarekin bat dator, oro har, *-(T)AR* atzizkiaren erabilera: ez dago erdal jentilizio "birjantzirik" *(iraniar, europear...)*. *-ia* bukaerakoek *-ar* hartzen dute, eta sudurkaria amaian duen *Japon*ek *japondar* du ondorioa.

– Horren nahasian dabiltzan 'joera, zaletasuna, ixuria' eta 'gaitasuna' adierazteak honela egiten ditu Mitxelenak:

– Lehenaren adierazgarri den *-KOR* beti **(151)** aditzoinari josten dio, *-KOI*, berriz, ez dio sekula oinarri horri josten, izenari baizik **(152)**.

– Ez dugu *-KOR* balio 'eragilea', 'aktiboa' duela ikusi, guztiak dira 'halakoa egiteko joera, erraztasuna, ixuria... duena' moduan edo adi daitezkeenak; *erabakior, eraginkor* eta abarrik ez, hortaz.

– Kontrako aldetik, ez dugu balio 'pasiboko' *-GARRI*ren adibide bat bera ere aurkitu; guztiak dira 'eragilea' edo 'merezi duena'. Eta guztiek aditzoina (normalean [+Nor-Nork] motako aditzoina) dute oinarri; *hilgarri, lorgarri...* 'pasiborik' ere ez.

(151) Jakina, *hilezkor* salbuetsi beharko genuke.

(152) Hemen ere *berekoi* joan den XVIII. mende-bukaerakoa (*OEH*) aparte ikustekoa da.

Honezaz gain, ez legoke soberan, gure ustez, gogoraztea adierok mamitzeko besterik badagoela eta Mitxelenak, hain zuzen ere, besterik badarabilela:

Hortxe daude *zale*dun erdi elkartu erdi eratorriak; hortxe *-kizun* atzizkia, *-t(z)*eko gertu dabilkiola; hortxe *gaitz, erraz, gai*, bigarren osagaiaz eratuak; *hor ezin...* eta hor ahalerazko adizkiak *(daitekeena, litekeena...)* eta sintaxi-baliabideak, oro har.

Esan dezagun, beraz, Mitxelenak erakutsiak, LEF batzordeak eta Azkaratek (1990b, 1993) aldarrikatuari men egiten diola.

'Jabegoa' adierazteko *-DUN* eta *-KO*$_3$ darabiltzala ikusi ahal izan dugu.

Berriz ere gogora ekartzekoa da bigarren hau duela Mitxelenak lehena baino gogokoago eratorgaia izenetik goiti doan neurrian.

III. **Aditz-sortzailea**

Maizenik darabiltzan oinarriak izenak eta izenondoak dira.

Ez dugu, bestalde, *normaldu/normalizatu* bezalako bikoteekin topo egin; zabalago esan, ez dugu *-izatu* bukaeradunik aurkitu.

IV. **Atzizki aditzondo-sortzaileak**

IV.1. *-KI*$_3$

a) Izenondoa: ederki (125, 152), gaizki (128, 132, 146...), ongi (130, 197...), poliki (137), lazki (137), hobeki (139, 189), egoki (178, 189, 198) **(153)**, eskuarki (189) **(154)**

b) Izena: gizonki (198) **(155)**

IV.2. *-TO (-do)*

Ondo edo hobeto adibideak kenduz, ez darabil atzizki hau eta honen ordez paretsukoa den *-ki*$_3$ darabil.

---

(153) Diakronian begira soilik jo daiteke eratorritzat, guk uste.

(154) Egia esan, diakroniari begira ez dirudi oinarria izenondotzat jo daitekeenik. (*FHV*:121,496-7). Azken aipamen horretan "esku + (h)ar[tu] + *-ki*" egitura proposatzen da.

(155) Oinarri bitxikoa. Guztiarekin ere, *gizonki* adberbioa 1757. urtean jasotzen da, nonbait, lehen aldiz. (*HLEH*).

IV.3. *-RO*

a) Oinarri desberdinak: zahero (126, 153, 192, 195), biziro (127, 152, 167, 191), luzaro (128, 139, 146, 160, 169, 195), berriro (129), astiro (139, 147, 154, 166), osoro (144), zintzoro (152), argiro (175, 187)

-ki$_3$ atzizkiarekin batera: zehazkiro (142), handikiro (158), laburkiro (163), nabarmenkiro (182); gaingiroki (178)

IV.4. *-KA*

a) Izena [-biziduna]: karraxika (126), oihu eta garraxika (147), agurka (129) **(156)**, taldeka (132), zirika (132), irrintzi eta saltoka (133), aztarrika (145)?, keinuka (160), lasterka (165, 180) **(157)**, atzaparka (177), deadarka (180), zatika (189), tiroka (190), arrastaka (197), tantaka eta pittinka (197)

b) Adberbio-esapidea: noizean behinka (123)

c) Izenondoa: bakarkako hizketa (154) **(158)**

d) Aditza, aditz-esapidea: iraulka (127), tiraka (157), aurreraka (160)

e) Perpaus osoa: baiezka (149), «Noiz ezkondu behar duk»-ka (151)

Atzizki-metaketa: oinkatu (148), mutur-jokalari (166)?

V. Atzizki txikigileak (159)

Aztergaian esan dugun bezala, ez dugu atzizki handigilerik atzeman.

Txikigileetan *-TXO* ageri da gailen; maizenik izenari itsatsia.

-XKO/-XKA bere horretan aurkitu ditugu, hau da, ez dugu, busti gabeko aldaerarik ikusi, oinarriak oinarri.

VI. Euskal aurrizkiak

Euskal aurrizkirik apenas darabilen.

Erdal aurrizkidun (edo elkartu "landuren") euskal moldaerarik ere *(polikiroldegi, autoizendatu...)*, itzuri ezean, ez dugu bat ere harrapatu.

(156) Ala *agur egin* aditz-esapidetik abiatuz?
(157) Hau izena, lehen esan bezala.
(158) Honelaxe darabil egun hagitzez barrelatuago dabilen *bakarrizketa*ren ordez.
(159) Handigilerik atzeman ez dugu-eta.

2. AZKEN ERABATEKOA

Kontu-emate honen bukaerarako utzi gogo izan dugu "zero morfema" bataiatuaren gainekoa, izenen sailean sartuagatik, hori baino itzal handiagokoa baita.

Bildu dugun uzta apalak, uste dugu ageri askoan jartzen duela Mitxelenak aspalditik garbi ikusten duela euskarari txinpartak litezkeen alde guztietatik atera behar zaizkiola, eguneratzeko gauza izango bada. Behar-premia hauetan kokatzen dugu guk hitz elkartuen azterlanean ere azpimarragarri iritzi diogun gramatika-kategoriak dantzatzea.

Auzi honek, beste adarrik ere badu, ordea, geure burua ausardia pittin batez estaliz hemen kanporako duguna.

Euskal lexiko-baliabide sasoi onekoak Mitxelenari probetxuzkoak zaizkion arren, ez dugu uste aztergai hautatu dugun Mitxelenaren alderdi hau behar bezala azal daitekeenik lexiko-kontu hutsetan (zentzu hertsian) planto eginez, sarri askotan txoil baitaude kateatuak hizkuntza-maila desberdineko —izenez esanez, lexikoko eta sintaxiko— gertaerak. Besteren moldeaz esan, lexikoaren eta sintaxiaren barrutiak ez daude hain urruti zein diruditen.

Zubigintza hau aurrean izan ezean, guri behintzat, neke zaigu *egiteko, esaneko* eta beste hamaika hona ekarri eta ekarrigabeak aditzen.

Oso argigarria litzateke (mesedegarria bai behintzat) gure aurreko autoreek zein jokamolde izan duten puntu honetan jakitea, ez baitugu uste Mitxelenak hutsetik asmaturikoa denik.

Bi mundu hauen arteko ika-mikak eta lokarriak, ordea, ez dira begien itxireki batean eta lantxo honen luze-labur estu-meharrean garbi daitezkeenak. Bego, hortaz, lan-gomitea.

Makina bat gauza isilpean gorde behar izan ditugu, gaia hain oparoa izaki! Beste asko, berriz, gure ezjakinaren edo oharkabearen poderioz, itzuri zaizkigu seguru aski. Guztiarekin ere, espero dugu Koldo Mitxelena errenteriarraren eremutxo hau aldez edo moldez jorratu izana.

Hitz-jorra honek agerian utzi du Koldo Mitxelenaren zinema-kritiketako hitz elkartuez esana hitz eratorriez ere errepika daitekeela, alegia, itxura guztiz, errenteriarra eta Euskaltzaindia puntu honetan ere gogaide dira.

Uste dugu pozgarria dela Euskaltzaindiarentzat eta halaxe litzatekeela gure artean izan gabe bizirik dirauen Mitxelenarentzat.

C) BIBLIOGRAFIA (160)

Aztergaia

MITXELENA, K.: 1988, "Zinema" **(161)**, *Koldo Mitxelenaren Euskal Idazlan Guztiak I (Bertso berriak, berriketan, zinea eta ababakiak),* "Klasikoak" 21, Donostia, EEE (Erein), 121-199).

Testuetan aipatutako bibliografia

ALTUNA, P. (par.), 1972, *Mitxelenaren idazlan hautatuak,* Bilbao, Etor.

AZKARATE, M., 1990a, *Hitz elkartuak euskaraz,* Donostia, Deustuko Unibertsitatea, *Mundaiz.*

—1990b, "Euskal *-garri* vs. latinezko *-bilis* bi balio desberdin", *Patxi Altunari omenaldia,* Donostia, *Mundaiz,* Deustuko Unibertsitatea, 19-39. or.

—1993, "*-garri* eta *-kor* atzizkien erabileraz", *Berba* 10.

AZKARATE, M.; OLARTE, F., 1991, "*Erator-atzizki* ala *eratorpen-atzizki?*", *Memoriae L. Mitxelena Magistri sacrum,* ***Anuario del Semanario de Filología Vasca*** "Julio de Urquijo". Gehigarriak, XIV, Donostia, Gipuzkoako Foru Aldundia, 753-766.

AZKUE, R. M., 1923-1925, *Morfología Vasca* (1969, Bilbao, La Gran Enciclopedia Vasca).

CABRE, M. T.; RIGAU, G., 1986, *Lexicologia i Semàntica,* Barcelona, Enciclopèdia Catalana(1987_2).

COSERIU, E., 1964, "Introducción al estudio estructural del léxico", 1977, *Principios de semántica estructural,* Madrid, Gredos (19812, 87-142).

—1968, "Las estructuras lexemáticas", 1977, *Principios de semántica estructural,* Madrid, Gredos (1981_2, 162-184).

—1975, "Hacia una tipología de los campos léxicos", 1977, *Principios de semántica estructural,* Madrid, Gredos (1981_2, 210-242).

De RIJK, R., 1991, "Deux suffixes capricieux: *-pen et -men", Memoriae L. Mitxelena Magistri sacrum,* ***Anuario del Semanario de Filología Vasca*** "Julio de Urquijo". Gehigarriak, XIV, Donostia, Gipuzkoako Foru Aldundia, 709-752.

EUSKALTZAINDIA, 1987a, *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak I (Eranskina),* Bilbo, Euskaltzaindia. *[EGLU-I(Er.)].*

(160) Bi txostenei dagokiena batean emango dugu.

(161) Hirurogeita lau zine-kritika eta antzerki-kritika bat. *Egan*en, 1954-1961 bitartean argitara emanak.

—1987b, *Hitz-elkarketa/1*, Bilbo, Euskaltzaindia, *[LEF-1]*.

—1991, *Hitz-elkarketa/3*, Bilbo, Euskaltzaindia. *[LEF-3]*.

—1992a, *Euskaltzaindiaren Gomendioak eta Erabakiak (I)*, Bilbo, Euskaltzaindia.

—1992b, *Euskaltzaindiaren Gomendioak eta Erabakiak (II)*, Bilbo, Euskaltzaindia.

—1992c, *Hitz-elkarketa/4. Hitz elkartuen osaera eta idazkera*, Bilbo, Euskaltzaindia *[LEF-4]*.

—1993, *Euskal Gramatika Laburra: Perpaus Bakuna*, Bilbo, Euskaltzaindia.

EUSKARA ZERBITZUA, 1991_4, *Euskaltzaindiak batasunerako eskaini dituen erabakiak*, Gasteiz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.

MASCARO, J., 1986, *Morfologia*, Barcelona, Enciclopèdia Catalana.

MICHELENA, L., 1961, *Fonética Histórica Vasca*, San Sebastián (1977_2,1985_3) *[FHV]*.

—1977, "Notas sobre compuestos verbales vascos", *Revista de dialectología y tradiciones populares* 33, 145-271, (*PT*, 311-335).

MITXELENA, K., 1972, *Zenbait hitzaldi*, Bilbo, Etor (1990, "Klasikoak" 36, Donostia, EEE (Etor)).

—1978a, "Euskararen bide luze bezain malkarrak", *Euskararen liburu zuria*, Bilbo, Euskaltzaindia, 15-28 (*MEIG* VI, 25-46).

—1978b, "Arantzazutik Bergarara", *Euskera* XXIII 2. aldia, 467-477 (*MEIG* VII, 161-172).

—1979, "Euskal hitzen jatorri eta itxura desberdinaz", *Euskera* XXIV 2. aldia, 773-785 (*SHLV*, 341-348; MEIG VII, 173-186).

—1983, "Euskara eta euskararekiko ikerlanak (1700-1880)", *IX Congreso de estudios vascos. Antecedentes próximos de la sociedad vasca actual. Siglos XVIII y XIX*, Bilbao, Eusko Ikaskuntza, 239-250 (*MEIG* VI, 47-88).

—1984, "Aurkezpena", Ibon Sarasola, *Hauta-Lanerako Euskal Hiztegia.* ***a-aurten***, Donostia, GK, 11-23 (*SHLV*, 349-360; *MEIG* VII, 25-46).

MITXELENA, K.; SARASOLA, I., 1987, *Orotariko Euskal Hiztegia,* ***a-ama***, Bilbo, Euskaltzaindia [OEH].

—*Orotariko Euskal Hiztegia,* ***ame-asd***, Bilbo, Euskaltzaindia.

—*Orotariko Euskal Hiztegia,* ***ase-bapuru***, Bilbo, Euskaltzaindia.

—*Orotariko Euskal Hiztegia,* ***bar-berp***, Bilbo, Euskaltzaindia.

—*Orotariko Euskal Hiztegia,* ***berr-daf***, Bilbo, Euskaltzaindia.

—*Orotariko Euskal Hiztegia,* ***dag-erd***, Bilbo, Euskaltzaindia.

NIDA, E., 1946, *Morphology. The Descriptive Analysis of Words, Ann Arbor*, The University of Michigan Press, (1949_2, 1970_{12}).

SARASOLA, I., 1984, *Hauta-Lanerako Euskal Hiztegia,* ***a-aurten***, Donostia, GAKP *[HLEH].*

—*Hauta-Lanerako Euskal Hiztegia,* ***aurtiki-ebaki***, Donostia, GAKP.

—*Hauta-Lanerako Euskal Hiztegia,* ***ebaki-gabizain***, Donostia, GK.

—Hauta-Lanerako Euskal Hiztegia, ***gabon-hegazterren***, Donostia, GK.

—*Hauta-Lanerako Euskal Hiztegia,* ***hegazti-jabe***, Donostia, GK.

—*Hauta-Lanerako Euskal Hiztegia,* ***jabedun-loratze***, Donostia, Kutxa.

—*Hauta-Lanerako Euskal Hiztegia,* ***lorabide-orbain***, Donostia, Kutxa.

—*Hauta-Lanerako Euskal Hiztegia,* ***orbaindu-tolesdun***, Donostia, Kutxa.

SCALISE, S., 1984, *Generative Morphology*, Dordrecht, Foris Publications (1987, *Morfología generativa*, Madrid, Alianza Universidad. Textos).

UHLENBECK, 1909, "Suffixes du Basque servant à la connaissance de la formation des mots en Basque", *RIEV* III, 1, 192-401.

HIZTEGI BATUAREN DATU-BASE LEXIKOGRAFIKOA

Leioa, 1994.10.05
Jose A. Aduriz,
Miriam Urkia

Askotan sumatu izan dugu "eginak (berr)egiten" ari garelako errezeloa, eta, okerrago dena, etengabe "eginak desegin eta berregin" ari garelakoa. Giza eta gizarte-zientzien inguruan mugitzen garenok —"letretako" gajo-gizarajook— sumatzen dugun errezelo hori, errukizko irribarrez goxaturiko salaketa bilakatzen da maiz "zientzietako" jende prestuaren ahotan.

Erremedioak jartzen hasi orduko, berriz, kontuak bere onetik atera eta sekulako konplikaziotan barrena abiatzen ote garen iruditzen zaigu: etekin urriko nahasmendutan galtzen garela, aztergaiak argitu ordez, itxuratxarki korapilatzen ditugula. Urrutirago joan gabe, ez da gisa honetako salaketarik falta izan Hiztegi Batuko batzordeak iritzi-emaileen artean banatu duen dokumentazioaren inguruan.

Egoki iritzi diogu, horregatik, zor diren azalpenak eskaintzen saiatzeari, bestetan eskainitakoen osagarri. Ez, noski, inori dagozkion esparru teknikoetan murgilduz, ez baikenituzke lardaskatu baino egingo. Aski mundu badugu "letren mundua", Hiztegi Batua lantzean esku artean izan den informazioa bildu eta gordetzeko ahaleginaren berri emateko.

Euskara Batuaren 25 urteko historiarekin paralelo, mende-laurdena pasatxoa omen da ordenadorea erabiltzen dela hiztegigintzaren lagungarri, guregana heltzeko denbora gehixeago behar izan badu ere. Bide aski luzea egina du, beraz, eta ez atzera-aurrerarik gabea, informatikariek beren buruei ezarritako erronka eta helburuen eraginez, eta baita informatikarien eta hizkuntzalarien arteko elkar-lanaren eraginez ere.

Informatikarien desafioak argitzeko lana informatikariei utziz, bi xede edo amets nagusiren inguruan bil ditzakegu, labur-zurrean, horien ahalegin-saioak: a) egituratu egin nahi dute hiztegigileak darabilen informazioa, baina b) egitura arin, ireki, malguan egituratu nahi dute.

Arrotzik arrotzenak ere susma dezake bi printzipio horiek ez dutela oso bateraerrazak izan behar. Batetik, *erredundantziari ihes egin* nahi zaio, hots: informazio bera behin eta berriro errepikatzen jardun ordez, aldian aldian behar dena, eta hori bakarrik, eskuratu eta jaso nahi da (egitura arin-irekiko baliabideak erabiliz). Bestetik, ordea, *sistematikoa* izan nahi du bilketak: aztergai bakoitzaren inguruko berriak noiznahi berreskuratzeko aukera eskaini behar du, eginkizun des-

berdinetarako eta modu neutralean eskaini ere (eta horrek egitura zurrun-konplexuko baliabidea luke aproposena).

Aski kontrajarriak iruditzen zaizkigun helburu biok etengabeko erronka dira informatikarientzat, hainbat saio egitera behartuz. Ez da hau saio horien berri emateko paradarik egokiena, are gutxiago horietako bakoitzaren argi-ilunak edo alde on eta ez hain onak neurtzeko; besteak beste, azalpen guretzat teknikoegiak eskatuko lituzkeelako.

Bestetako saio handiak utzi eta Hiztegi Batuko datu-basera hurbiltzearekin batera ohartarazi beharrean gara, gurea ez dela eredu teoriko-ideal horien lerroan kokatzekoa, ez behintzat horien maila berean; askoz apalagoa da, edo, zehazkiago mintzatuz, erdibideko baliabide hibridoa dela esango genuke: arlo gutxiko fitxategia da, eta, azpiarloak ugaritu ordez, zenbaki-kodez bereizten ditu arlo bereko jakingaiak. Inplementazio-lana zailagotzen duela aitortuz, ereduen eskakizun nagusienak kontuan dituela uste dugu. Alegia, *datu-basea* da, eta, horregatik, informazioa egituratzera behartzen du, egitura ireki samarrean bada ere. Egituratzearen onurak goratzen eta aldarrikatzen hasi gabe, berehalako batzuk aipa genitzake, erakusgarri gisa: a) behin jaso den informazioa sistematikoki kontsultatzeko bidea eskaintzen du, abiapuntu gerta dadin ondoko saioetan; b) jasotako informazioaz gain, gerora egin daitezkeen zuzenketa, fintze eta formalizazio berriak biltzeko irekia dago; c) egitura egokiagoren batera moldatu beharra gertatuz gero, lan osoa berregin gabe leku-aldatzeko modua izango da.

Egiturak egitura eta eginkizunak eginkizun, bada hurbilagoa egiten zaigun konturik: zer jasotzen da datu-base horretan, eta, batez ere, zertarako da baliagarri? Adibide baten argitan saia gaitezke erantzuten, *erretore* formaren fitxari begira.

Forma	Kodea	Erabakia	Data
erretore	Z1: BatHizt	B	94.05.26

Erabilerak

201:	
2021:	'apaiza' adierakoa bakarrik agertu da: erretor da forma nagusia 408 agerraldirekin (IE: 399; B-G: 8; EB: 1); erretore 141 aldiz azaldu da (B: 5; G: 106; IE: 24; EB: 6); ertor (IE: 35) bakarrik.
2022:	'eliza bateko buru den apaiza' adieran erretor 78 aldiz jaso da (B: 1; G: 5; IE: 66; EB: 6), erretore 71 aldiz (B: 2; G: 21; IE: 19, hiru testutan; EB: 20; EgAs: 9) eta ertor 3 aldiz (IE). 'Unibertsitateko burua' adierarekin errektore eta eratorriak (errektoregai, errektoretza) dira nagusi, 13 ager.ekin; eta ager. banarekin: erretore, erretore-orde, erretoreordetza, erretoretza.

Azalpena

3121:	erretore da hobestekoa (hots: 'parrokiako arduradun nagusia' adieran), B eta G batetik eta IE bestetik baitabiltza; hori da, gainera, erabilera zainduetan hedatuena (ik. 3133 irizpidea ere).
454:	-or/-ore.
5332:	parrokiako arduradun nagusia; cf. errektore 'Unibertsitateko kargudun nagusia'.

Iritzi-emaileak

Oharra

jatorrizkoan: erretor(e).

Xehetasunak alde batera utzirik, lau sail handitara ekar ditzakegu fitxa horretako arloak:

1. **Forma / Kodea / Erabakia / Data** arloak biltzen ditu lehenak: aztergai izan diren formen abiapuntu edo jatorriaren berri daukagu hor (bestek azaldua du jatorrizko aztergaien nondik-norakoa, jadanik landurikoena nahiz lantzekoena), batzordearen erabakia laburbiltzen duen kodea (A, B, B1, etc.), eta aztertu nahiz berraztertu den egunaren data.

2. **Erabilerak** izeneko arloak batzordearen lanaren oinarrietako bat jasotzen du: delako forma nork-noiz-nola erabili duen adierazten duten txosten-laburpenak jasotzen dira hor, OEH eta EEBS korpus bietako datuak, alegia. Beste oinarri edo informaziorik ere izan ohi du batzordeak kontuan, baina korpus horietakoa du funtsezkoena eta, hori ezagutu nahiz ezagutarazi beharra ikustean, UZEIko prestalaneko taldeari laburturik emateko eskatzen diona.

3. **Azalpena** arloan bi multzo handitako berriak ikus litezke. Batzordearen irizpideena da bat, forma jakin bat (dela ondare zaharrekoa, dela berrikitan eratua, dela mailegu berria) baztertzeko, onartzeko zein hobesteko aipatu diren arrazoiena; maiz gertatzen da irizpide bat baino gehiago kontuan izan beharra forma beraren inguruan eta, bakanago bada ere, baita elkarren kontrako arrazoiak neurtu beharra ere. Guztiak jaso ditzake arlo honek, zeini bere zenbaki-kodea dagokiola.

Bigarren multzoan, "informazio osagarria" deitzen duguna aipatu ohi da (hitzaren osaera formala, inguruko formekiko erlazioa, erabileremua, erabilera sintaktikoa, adiera); formak erabakitzea da oraingo pasaldi honetan batzordearen egiteko behinena, eta egiteko horri begira "osagarria" da horko informazioa; gerora, jakina, lehen mailakoa ere izan daiteke.

Forma jakinei dagozkien datu espezifikoen ondoan, hainbat formari dagozkienak batera ikusi eta lantzeko baliabidea nabarmenduko genuke, azkenik: ha-

lako irizpide zein kasutan aipatu den jakiteko modua eskaintzen baitu (aipatu denean, noski) edo, alderantziz, halako auzi orokor-sistematiko zein formari dagokion (adibide-fitxako *-or/-ore* bezalako beste zenbait: maileguetako "g/j" grafi bitasuna; *-ari/-ero* atzizkien banaketa; [(sonante) + txistukari + herskari] segidak; aditzoinen forma eta banaketa zalantzazkoak, etab.).

4. **Iritzi-emaileak** alorrean, etorri eta etorriko diren iradokizunak, proposamenak, kritikak, etab. gorde ohi dira. Batzordearen lan-prozedura gogoratzea nahikoa dugu, ekarri hauen garrantziaz jabetzeko: 1) batzordeak bere proposamena egiten du; 2) proposamen horren berri ematen die iritzi-emaileei; 3) iritziok kontuan izanik, berrikusi egin behar ditu bere proposamenak, eta 4) informazio, iritzi eta proposamen guztiok Euskaltzaindiaren esku jarriko ditu, honek bere ondorioak atera eta bere erabakiak har ditzan. Alegia: behin-behinekotzat jo behar da oraingo lana, eztabaida soziala eragin nahi da (zer esanik daukanak garaiz esan dezan) eta, horretarako, ahalik eta leialkienik jakinarazi behar dira unean uneko datuak.

Datu guztiak eta bakoitza ez ditugu denok modu berean balioztatzen eta pisatzen; gerta litekeena da, gainera, datua datuaren gain pilatzeak iluntzea ondorioak, argitu ordez, edo, onenean ere, zailagotzea bitarteko lana...

Ezin ukatuko ditugu zailtasun eta emendailuzko lanok. Arrazoizkoa da emaitzen oraingo itxura "kodetuegia" dela salatzen dutenen kritika, arrazoizkoa eta eraginkorra: adierazpenak gero eta esplizituago egitea eragin baitute. Hori bezain argi aitortu nahi dugu, ordea, biltze- eta egituratze-saio hauek luzarora emankorrak izango diren esperantza: informazio, eztabaida, irizpide nahiz konponezinak zein egoeratan dauden adierazteaz gain, han-hemenka tartekatu ditugunak bezalako kontsultak noiznahi egiteko aukera eskaintzen baitute.

NOIZ *G(E,I)* ETA NOIZ *J(E,I)* LATINETIKO MAILEGU 'BERRIETAN'

Leioa, 1994.10.05
Jose Antonio Mujika

Euskaltzaindiaren 1986ko araua honela zehaztuko nuke:

— Mailegu berri jasoek, hau da, batez ere eskolan eta unibertsitatean erabiltzen diren jakintza arloko hitz 'ikasiek' jatorrizko *g(e,i)* grafia gordeko dute eta ebaki ere, ahoskera jasoan bederen, [g] hotsaz ebakiko dira: *—biologia, genesi*, etab.—.

— Gainerako guztiak, hau da, ohiko hitz bilakatu diren mailegu arruntagoak, nahitaez zahar-zaharrak izan gabe ere, ahozkoan sartuxeak direlako-edo, **j* ebakera guztiz finkaturik dutenak —ahaleginak ahalegin, aldatzeko modu segururik ez dutenak, alegia— eta askotan bestela ere "etxekotuak" diren seinaleak bere baitan dituztenak *j(e,i)* grafiaz idatziko dira, mailegu zaharrak bezala: *ajenda, ajente, ajentzia, bijilantzia, bijilia, dilijentzia, errejimen, exijentzia, intelijentzia, jestio, kolejio, majiko, orijinal, plajio, pribilejio*, e.a., *birjina* eta *ebanjelio* bezala.

1. Maileguzko hitzen idazkeraz erabakiak hartu zituenean, honako arau hau eskaini zuen Euskaltzaindiak, besteak beste, 1986an:

> Mailegu zaharretako *j* eta *i* ikutu gabe, orain mailegatzen diren hitzetan *g* grafia hobetsiko da: *biologia* (biologoa), *geografia* (geografoa), *filologia* (filologoa), *dramaturgia* (dramaturgoa). Jakina da *g* grafema /g/ bezala irakurri ohi dela euskaraz edozein bokalen aurrean. (Euskaltzaindia, 1986: 37)

Irakurri batera argia eta erraza dirudien arau honek uste baino korapilo eta gorabehera gehiago dauka bere baitan gorderik, Hiztegi Batuko batzordeko kide den M. Zalbidek erakutsi berri duen bezala (1). Bi dira arazo-bide nagusiak:

a) Argibide gisa-edo adibide batzuk ematen diren arren, ez da behar adina zehazten non dagoen mailegu zaharren eta oraingoen arteko muga. Izan ere, zein da mailegu 'zaharra' eta zein 'oraingoa' edo 'berria'? Zein multzo edo sailetan sartu behar dira, esate baterako, *kolejio/kolegio, jeneral/general, ajentzia/agentzia, errejistro/erregistro* eta horrelakoak: *j-z* idatzi ohi diren mailegu etxekotuen sailean

(1) Ikus Zalbide 1994.

ala *g-z* idatzi beharreko mailegu berri eta irentsi gabeen multzoan? Egia esan behar bada, mailegu 'zaharren' multzoa gehiegi murriztu eta 'oraingoena', berriz, zabal hartzeko joera somatzen da gaur egun zenbait idazlerengan, ene irudiko, oraintsu arte ez bezala. Etxekoturik daudenen kopurua ezinbestekoetara mugatu eta gainerako guztiak besterik gabe, erraz eta erruz, *g* etimologikoaz idazteko joera, alegia.

> Hona adibide gutxi batzuk arazoaren erakusgarri gisa ekarriak: *errejidore* (HLEH), *errejimen* (Lur), *errejimentu* (HLEH eta Lur), baina *erregidore* (Elhuyar), *erregimen* (EE, Elhuyar), *erregimentu* (Kintana 1980, EE, Elhuyar); *errejistro* (Lur), baina *erregistro* (EE, Elhuyar); *kolejio* (HLEH), baina *kolegio* (EE, Elhuyar); *lejio* (Lur), baina *legio* (Kintana 1980, EE, Elhuyar); *majia, majiko, mago* (Lur), baina *magia* (Kintana 1980, HLEH, Elhuyar); *orijinal* (Kintana 1980, Lur), baina *original* (EE, Elhuyar); *pribilejio* (HLEH), baina *pribilegio* (Kintana 1980, EE, Elhuyar)... Oro har bi joera nagusi sumatzen dira mailegu horiei dagokienez: *j*-ren alderago dira HLEH eta Lur —eta OEH bera ere, beharbada: *bijilantzia, dilijentzia, dirijitu*—; *g*-ren alderago, berriz, Kintana 1980, EE eta Elhuyar. "Oraingo" mailegu ote dira, dena den, XVI. mendean dokumentatuak omen dauden *kolejio* eta *pribilejio*, esate baterako?

b) Arauak, bestalde, *g* grafema edozein bokalen aurrean [g] irakurri ohi dela dio, baina gehienetan ez dugu horrela ahoskatzen mailegu berrietako *g* etimologiko hori. Araua eta praktika bereiz dabiltza horretan: **j*-ri dagokion ebakera, lekuan lekukoa, da nagusi hitz horietan ere (2). Mailegu "jasoetara" mugatuko balitz *g* etimologikoaren erabilera, ez lirateke beharbada guztiz alferrekoak izango legea indarrean gordetzeko egin daitezkeen ahaleginak, baina grafia hori **j* ebakera erabat errotua duten era guztietako hitzetara, are arruntetara ere, hedatzen bada —*agentzia, bigilantzia, exageratu, exigentzia, general, gerente, gestio, original, plagio, pribilegio* eta horrelakoetara, alegia—, itxura hutsekoak izango dira, nire ustez, arau guztiak. Ahaleginak ahalegin, **j*-z ebakiko ditugu aurrerantzean ere *g* etimologikoaz idatzitako mailegu horiek guztiak. Eta horrek, noski, euskal idazkeraren ezaugarri nagusienetako bat ahultzea eta haustea ekarriko du ezinbestean: hotsen eta grafemen bana-banako egokitzapenari dagokiona, hain zuzen.

Argi dago, hortaz, zehaztu beharra dagoela nolabait Euskaltzaindiak 1986an eman zuen araua. Komeni dela, alegia, araua zein mailegu-motari dagokion ahalik zehatzen mugatzea, batetik, eta ahoskerarenak indarrean dirauenentz berariaz adieraztea, bestetik.

Joan den apirilaren 22an Hiztegi Batuko Jardunaldietan M. Zalbidek "Maileguzko hitzen zenbait muga-arazo" izenburuko txostenean kontu hauek plazaratu zituenean, entzuleen arteko norbaitek esan zuen, goraki esan ere, ahoskerari batere begiratu gabe eta askatasun osoz erabaki daitekeela hobetsi nahi den idazkera. Idatz ditzagun mailegu hauek guztiak *g*-z, esan nahi bide zuen entzule hark, nolanahi ahoskatzen ditugularik. Utz dezagun, bada, alde bat Euskaltzaindiaren

(2) Jakina denez, ebakera diferenteak ditu **j* honek batean eta bestean: [j], [x], [ž], [dž]; **j* ikurra, hain zuzen, ebakera horiei guztiei dagokie, lekuan lekuan gauzatzen den modu(et)an gauzatzen dela.

arauak ebakeraz dioena. Izan ere, idazkerak eta ahoskerak zeinek bere izaera propioa dute eta ez dute zer ibili bata besteari loturik.

Baieztapen orokor hori zuzena da, noski, kontu hauetan lehen urrats zalantzatiak emanak dituen edozein ikasle hasi berrik dakien moduan. Ezin da, ordea, zuhur jokatu nahi bada behintzat, edozein modutara erabili. Izan ere, bide jakin bat hartu *ahal* izateak ez du esan nahi ez derrigor hura hartu *behar* denik ez eta hura denik har daitezkeenetan *egokiena* ere. Aukera kontua da. Idatziak ahoskeraren eskutik derrigor ibili *behar* ez duela egia izanik ere —eta egia da, noski—, ez da horregatik pentsatu behar *ezin* ibil daitekeenik haren pare, neurri handiagoan edo txikiagoan, horrela komeni bada edo tradizioak eta usadioak horrela hobetsi badute.

Eta kontua horixe da, hain zuzen, gurean eta gurea bezalako idazkera alfabetikoetan: teoriaz *beharrezko* izan gabe ere, eskuarki ebakeraren isla izan ohi direla. Ez guztizko eta erabateko isla, noski, beste zenbait irizpide osagarri ere erabili ohi baita normalean, gutxi edo asko —hala nola irizpide morfologiko-analogikoa, *eztu* idatzi beharrean *ez du* idaztera garamatzana, adibidez; edo etimologikoa, *curriculum* idazten denean nagusitzen dena, esate baterako—, baina bai neurri handiz hartara zuzenduak daudenak.

Eta hori da, hain juxtu, hemen jokoan dagoena, baieztapen orokor guztiak gorabehera: zer-nolako lekua aitortzen zaion gure idazkeretan oinarrizko irizpide fonografikoari eta zer-nolakoa bestelako irizpide osagarriei. Hizkuntza bakoitzak bere tradizioa du horretan ere. Batzuek leku handi samarra ematen diote idazkera morfologikoari eta beste batzuek, berriz, txikia. Batzuk zabalak dira idazkera etimologikoan, beste batzuk hartara horren emanak ez diren bitartean...

Euskarak ere badu bere tradizioa kontu horretan, zehatzagoa edo nabarragoa eta ez oso luzea beharbada, baina bai nolabait ere bere bidea egin duena, ohiko hitzetan bezala baita maileguetan ere. Eta horixe ezagutzea komeni zaigu beste ezer baino lehen, *g* etimologikoaren auzi honetan egiten dugun hautua egokia izan dadin, aldioro premiarik gabeko aldaketa eta berrikuntzetan murgilduta azkenean zorabioak har ez gaitzan. Hona zer zioen Mitxelenak *Mailegu berrien idazkera*-z idatzi zuen ohar laburrean:

> Gure legeak hartu genituen, edo jendeak hartuak izan dira, eta hobe genuke, premiarik gabe ez aldatu. [...] Hobe, beraz, ohiturazko jokabide horiek gorde, salbuespenak salbu. Salbuespenak, jakinaren gainean egin direnean, badute edo izan dezakete esan-nahia (1985: 458).

Azter dezagun, bada, nolakoa den gure tradizioa —edo tradiziotxoa, nahi bada— eta har ditzagun gero, ez lehenago, hartu beharreko erabakiak. Eta zerbait aldatzekotan, jakinaren gainean egin dezagun, aldaketak zer oinarri duen eta zer mesede edo kalte dakarkeen ondo neurtuta, ez itsumustuan eta beti ere —egin eta desegin etengabeko lan-deslanean— hastapenetan ariko bagina bezala. Askotan itxura hori ematen dugu, beti hasten ote garen itxura...

2. Euskal idazkerak eredu hurbil izan dituen ortografiak, frantsesarena alderdi batean eta gaztelaniarena bestean, hotsen eta letren arteko egokitzapenean oinarritzen dira, esan bezala, erabat ez bada ere bai neurri haundian. Frantsesak,

izan duen historia izan duelarik, leku zabal eta oparoa eskaini die fonologikoaz bestelako irizpideei, etimologikoari eta beste zenbaiti. Baina, halaz guztiz ere, oro har fonologikoa da idazkera hori ere (3). Beti izan dira, gainera, eraberritu eta ebakerari lotuagoa egiten saiatu direnak, erreforma saioek arrakasta handiegirik izan ez badute ere. Hona nola mintzo zen Frantses Akademia 1935ean argitaratu Hiztegiari egin zion hitzaurrean:

> Lorsqu'en 1637 la Compagnie [Akademia bera, alegia] décida de composer un "trésor" de la langue française, entre les deus manières en usage alors d'écrire les mots elle choisit la plus savante, la plus compliquée, celle qui pouvait intéresser seulement les lettrés du temps. Par la suite elle s'aperçut de son erreur (Biedermann-Pasques 1992: 258an aipatua).

Fonologikoagoa da, jakina denez, gaztelaniaren idazkera. Alde bat utzi zituen honek, frantsesak ez bezala, grekotiko *ph, th, ch* eta *y* grafiak eta latinetiko kontsonante bituak. Ez zituen, ordea, baztertu garai bateko gertakarien ondorio diren *b/v, z(a,o,u) / c(e,i), c(a,o,u) / qu(e,i), g(a,o,u) / gu(e,i)* bikoiztasun historikoak eta ezta aztergai hartu dugun auziarekin zerikusia duen *j(a,o,u) / g(e,i)* bikoiztasuna ere. Izan dira hemen ere erreforma saio eta saiotxoak; arrakastarik izan ez duten ahalegin solteak izan dira, halaz ere, gehienak.

Eta euskarak? Euskararen ortografiaren historia askatze-historia izan da neurri batean. Ereduen kopia hurbila izatetik idazkera autonomoagoa izatera daraman bidearen historia, alegia, gorabehera eta ezker-eskuin eginiko saiheste guztien barnean edo, nahiago bada, azpitik gauzatzen joan dena. Hau da, bere arau propioak garatzen joan dena, euskalkien arteko diferentziek eragiten zituzten aldeak gorabehera. Eta bilakabide propio horrek are fonologikoagoa egin du, hain zuzen, euskal idazkera. Hasteko, grekoko grafia etimologikoak eta latinetiko kontsonante bituak eta horrelakoak utzi eta maileguei "etxeko" hitzen itxura ematen joan zen, abiada biziago edo mantsoagoan. Azken bi mende hauetan (4), berriz, gurean zereginik ez duten *mb / nb, v / b, c(a,o,u) / qu(e,i), z(a,o,u) / c(e,i)* eta bereziki axola zaizkigun *g(a,o,u) / gu(e,i)* eta *j(a,o,u) / g(e,i)* bikoiztasun historikoak alde batera utzi eta irizpide fonologiko eta biunibokoari jarraiki, hau da, 'halako fonemari halako letra eta halako letrari halako fonema' bana-bana egokitzea eskatzen duen irizpideari jarraiki, batasun bidea egiten joan da: */b/* beti *b (balio, bizi, debozio...),* */k/* beti *k (kantu, ke, kilika...),* */s/* → beti *z (zale, zeru, ziri...).* Eta, hemen dagokigunez berriz, */g/* beti *g (gari, gero, egin...)* eta */*j/* beti *j (jakin, jende, jipoi, erlijio...)* (5).

---

(3) HESO izeneko ikerketa talde batek egin zuen azterketa batek erakutsi duenez, "Dans l'ensemble des textes, le rendement des phonogrammes (la partie 'prononcée' ou phonologique de notre orthographe) se monte à 82,51 %" (Catach 1981: 63). Eta M. P. Imbsek esan duenez, frantses ortografia "encore dans une très large mesure phonétique [da]" (Catach 1981: 108an aipatua).

(4) Ikus Zuazo 1988: 219-261 eta 377-401. Esan gabe doa hemen 'hitzaren idazkeraz ari naizela, ez hitz elkarketari edo diskurtso mailako hitz kateei dagokienaz.'

(5) Gorago esan bezala, ebakera diferenteak ditu azken honek batean eta bestean eta are euskalki berean hitz desberdinetan. Dena den, batera zein bestera ebaki, beste fonemekin nahasten ez den unitatea osatzen du eta horrexegatik */j* ikur bakar eta batua eman die-

Mesede nabariak ditu batasun eta sinpletasun horrek —albokoentzat inoiz inbidiagarri ere gertatu izan direnak—: errazago eta erosoago egiten zaie idazpide hori bai idazleei bai irakurleei eta baita, ahaztekoa ez dena, nekez eta kostata ari den ikasle andanari ere, ebakeraren aski parekoa gertatzen baita horrelako idazkera. Esan gabe doa hori guztia ohiko euskal hitzei dagokiela eta ez hainbeste grekotik eta latinetik harturik nazioartean zabal dabiltzan kultur hitz jasoei. Hauek berex aztertu beharrekoak dira eta halaxe egingo dugu ondoko atalean. Gauza bi esan daitezke, halaz guztiz ere, atal honi amaiera eman aurretik:

a) Ohiko hitzetan azkenerako nagusi gertatu den tradizio hori beti ere gogoan izatea komeni den irizpide eta joera nagusi baten lekuko dela, irizpide fonografikoari aitortzen zaion lehentasunaren lekuko, hain zuzen.

b) Maileguz harturiko hitz jasoak ohartu gabe bezala pasatzen direla maiz eguneroko ohiko berba arrunten sailera eta hori gertatu ahala hitz horiek irentsi, 'etxekotu' eta euskal hitzen itxura emateko joera izan duela euskarak. Etengabeko bilakabidean aurkitzen dira maileguak eta 'kultur hitzak' ohiko berbetatik bereizten dituen muga erraz gainditzen dutelarik. Berba jaso izatetik ohiko hitz izatera erraz pasatzen dira, itxura ere 'etxekotuz':

> Hitza gureganatzean, zenbait gauza kentzen saiatzen gara (edota saiatu izan gara), beste zenbait gehitzen, beste batzu, azkenik, aldatzen. Horrelakoak gertatzea hitza sartua eta hartua dagoelako seinalea da. Hobe, beraz, ohiturazko jokabide horiek gorde, salbuespenak salbu. (Mitxelena 1985: 458)

3. Zenbateraino balio du esandako horrek guztiak mailegu "berrien" idazkerarako? Zer gertatzen da, alegia, idatzian behintzat horren "zahar" ez diren maileguekin, batez ere kultur hitz jasoekin? Horiekin sortzen da, hain zuzen, auzia: zein dira, horietan, etorkiz dakarten itxura aldatu gabe gorde nahi ditugunak eta, gordetzekotan, nola gorde behar dute itxura hori?

Auzi horretan ere ez gaude aintzin-lanik gabe. Kontua plazaratzen lehena Krutwig izan omen zen 1950eko urtarrilaren 27an Euskaltzaindian irakurritako txosten batean, gorabehera hauen historia aztertu duen Zuazok gogorarazi digunez (1988: 394 hh.). Grekotiko eta latinetiko maileguen beharra aldarrikatu zuen hark, batetik, eta mailegu horiek dakarten eta nazioartean, nahiz ez beti berdin eta neurri berean, zabal dabilen idazkera etimologikoa gorde beharra defenditu zuen, bestetik. Zuazok azaltzen duenez, ordea, lehen proposamena, hau da, maileguen beharrarena, aski zabal onartu bazen ere, bigarrenak ez zuen arrakastarik izan:

> Proposamen hauek erdizka baizik ez dira nagusituko ondorengo urteetan: kultur hitzak mailegatu premiaren aski jabetze zabala baldin bada ere, ez da beste horrenbeste jazotzen —salbuespen urri batzuk gorabe-

---

zaiokegu, ebakera horien guztien adierazgarri. Idazkeran ere izan ditu gorabeherak, *j, y* eta *i* idatzi izan baita, azkenerako lehena nagusitu bada ere. Arantzazuko txostenak dioenez (II,9): "*J* idatzi behar dugu, noski, beti bezala, oraingoz nork bere moldera ebakitzen duela: *jakin, jende, jo*, etc." (Mitxelena 1968: 208).

> hera– kultur hitzon jatorrizko itxura eta ortografia ere gorde beharra dagoelakoan (1988: 396).

Horrela da, bai. Arrazoi praktikoengatik –Mitxelenak behin eta berriro aipatzen zuenez– idazkera etimologiko zabala alde batera uztea hobetsi da, erabilera hedatuenean behintzat (ikus, besteak beste, Arantzazuko txostena IV.6) (6).

Urte batzuk geroago, 1986an, batzuen eta besteen iritzia entzun ondoren, arau batzuk eskaini zituen Euskaltzaindiak mailegu berri horien idazkeraz. Villasanteren ustez bere bidea aurkitu du euskarak erabaki horietan, ez frantsesarena ez gaztelaniarena ez besterena ez dena. 'Oreka' izan daiteke euskararen bide propio hori ondoen definitzen duen hitza. Honela dio, hain justu, aipatu arau horiek biltzen dituen liburuxkaren hitzaurreak:

> Badirudi, bada, euskarak ere auzi honetan halako oreka bat bilatu behar duela. Eta hori bilatu nahirik, erreferentzi puntu asko hartu dira kontutan: usadioa (gurea eta besterena), begi kolpea, etimologia, fonetik legeak etab. (Euskaltzaindia 1986: 12; ikus, halaber, Villasante 1988: 254).

Nola gauzatzen da, bada, 'oreka hori'? Zein da, aukeran diren bide desberdinen artean, euskararentzat hobetsi dena? Hona: nazioartean zabal dabiltzan kultur mailegu berrietan jatorrizko itxura nolabait gordetzearen aldeko da Euskaltzaindia, baina ez guztiz. Grekoko grafia etimologikoak, esate baterako, bazter utzi ditu, aspaldiko joerari jarraiki; eta berdin latinetiko zenbait grafia, hala nola kontsonante bituak etab. Onartu ditu, hala ere, zenbaitetan idazkera etimologiko batzuk. Eta neurri batean bada ere onartu dituen idazkera etimologiko horiek badute nire ustez ezaugarri amankomun nagusi eta guztiz jakingarri bat, berariaz aipatzea eta kontuan hartzea merezi duena, aipatu 'orekaren' funtsa hortxe egon baitaiteke beharbada: *idazkeran onartu diren joera etimologikoak ahoskeran ere idazkeran bezalaxe gauzatzen direnak direla, alegia; hau da, beste modu batera adierazita, ahoskeran ere gauzatzen diren neurrian onartzen direla idatzian joera etimologiko horiek.*

Idatziaz ari da Euskaltzaindia proposamen horietan, noski, eta, hain zuzen, mailegu jaso horiek zenbait puntutan euskararen lege fonetiko zaharrak erabat bete gabe *idaztea* proposatzen du. Baina, bide batez, berez idazkeraz aritu arren, ahoskeran ere lege fonetiko zahar horiek bete gabe geratzen direla erakusten du: *konstituzio* eta *amnistia* idazteko arautzen duenean, esate baterako, garai batean bakunduko ziren *ns(t)* eta *mn* kontsonante multzoak bakundu gabe uzteko esaten du; baina, jakina, horrela idatziz gero, esan ere osorik esango dira multzo horiek, sinpletu eta bakundu gabe. Idazkera bezala ebakera bera ere 'etimologikoa' da, nolabait esan. Labur esan, euskararen ortografian nagusi den bide fonografikotik aldendu gabe dabiltza, oro har, proposamen hauek ere: *idazkera eta ebakera eskutik doaz hemen ere.* Ikus dezagun hori gertuagotik, Euskaltzaindiak eskaini arauak banan bana aztertuz:

– Hitz hasieran, eskuarki protesia ipintzea proposatu du Euskaltzaindiak, mailegu berri-berrietan izan ezik: *erremedio* idatziko da, hortaz, baina *radar*, ale-

(6) Mitxelena 1968: 215.

gia. Ebaki ere horrela ebakiko dira horiek, noski, lehena protesiarekin eta bigarrena gabe.

– Hitz amaierarako hartu diren erabakiak ere –noiz *-u* noiz *-o* , noiz *-is* noiz *-i* etab.– idatzian ezezik ahoskeran ere eragina izango dutenak dira.

– Bere baitan *x* letra dutenetan salbuespen bat ezartzen da: kontsonante aurrean *s* idatziko da, bestetan ez bezala, tradizioari jarraituz *–estrainio, esplikatu, testu...–*. Salbuespena, hain zuzen, fonografikoa da: letra hori kokagune horretan [ś] ebakitzen denez eta, hori dela eta, tradizioan ere *s* idatzi izan denez, hori hobetsi da aurrerantzerako ere. Idazkera eta ebakera elkarren eskutik berriro (7).

– Kontsonante multzoetan erabaki diren idazkerak ebakeran ere islatzen direnak dira, arestian esan bezala: *amnistia, teknika, administrazio, adjudikatu, institutu, eszeptiko...* Horiek guztiak "idatzi bezala" irakurtzen dira. Ohar hau egin behar da gainera: *adberbio* eta *eskema* bezalako hitzetan kontsonante multzoak onartzen badira ere, *–dv–* eta *–sch–* grafia etimologikoak gorde beharrean, *–db–* eta *–sk–* grafiak hobetsi dira, bestetan bezala. Hau da, esan ere egiten diren kontsonante multzoak bere horretan gorde diren arren, idatzizko itxura aldatu eta etxekotu egin da, gure idazkeran nagusi den irizpide fonografiko hertsiak eskatzen duen */b/* → *b* eta */k/* → *k* parekotasun biunibokoa ez hausteko.

4. Are garbiago eta esplizitoagoa da, ordea, kontua, gure auziari dagokion arauan, *g* grafema [g] irakurri ohi dela baitio berariaz, garbi erakutsiz idazkera eta ebakera eskutik doazela hemen ere. Horrela gauzatzen eta zehazten da, Villasanteren ustez (1988: 246), *g* grafia honen aldeko aitzindari izan zen Ormaechevarriak bere *Crestomatia*-n iradoki zuena:

> Así, pues, se escribirá "Birjiña", "Birtute", "Ebanjelioa", según la pronunciación corriente; pero se conservará la "G" de "Genesis", puesto que, si bien en castellano se pronuncia "Jénesis", no es preciso que tenga la misma pronunciación en euskera, ya que se trata de palabra no asimilada aún, cuya pronunciación se deja un poco al arbitrio del leyente (1959: 149).

Bi puntu azpimarra daitezke lehen iradokizun honetan: a) ezaugarri zehatzak dituen mailegua du aipagai, izen propioen sailetik hurbil dabilena eta "irentsirik" ez dagoena, hau da, inola ere ohikoa eta arrunta bilakatu ez dena; b) ebakera aipatzen du berariaz idazkeraren irizpide gisa ("según la pronunciación corriente") eta horri jarraiki *Ebanjelioa* idatzi behar dela dio; irentsi gabeko-Genesis hitza , ordea, ez da nahitaez [x] ebaki behar eta hori dela eta, ebakerak lotzen ez duenez, *g*-z idatz daiteke.

Arantzazuko txostenean ere aipatzen du kontu hau Mitxelenak (IV.9):

> Nik [...] *-logia* azken buruz dutenetan eta antzekoetan, g gordeko nuke, bakoitzak bere erara esan dezan: *jeolojia*, etc., hobeak lirateke

(7) Bokalarteko *x*-rena izan daiteke salbuespena: euskal hitzetan */š/* adierazten du eta maileguetan *ks* ebakiko da beharbada. Orobat, beharbada, adibide batean ageri den *psikosi* hitzaren hasierako *ps*-...

belarriarentzat; ez, ordea begientzat. Eta hizkuntza idatzia begiek jasotzen dute bestek baino lehenago (1968: 216).

Bi puntu azpimarra daitezke aipamen honetan ere: a) mailegu jakin batzuez ari da berriro Mitxelena, *-logia* dutenez eta antzekoez, ez, ordea, guztiz "zahar" izan gabe ere ohiko eta arrunt bilakatu den edozein maileguz; b) txostenaren ildo nagusiari jarraiki idazkerara mugatzen da hertsiki Mitxelena, ahoskera kontuak artean alde bat utziz. Esaten den moduan esaten dela ere –horretan ez du berariazko arau berririk ematen, bakoitzak *de facto* egiten duena aintzat hartuz–, nola idatzi behar den proposatzen du. Hori dela eta, batzuen ahoskeran esana idatziarekin bat etorriko ez balitz ere, komeni denean hauek bereiz ibil *daitezkeela* gogorarazten digu.

Kontua garbitzera dator, ordea, azkenik, Euskaltzaindiaren 1986ko arauak. Lehen puntuari dagokionez, gauzak gehiegi zehazten ez baditu ere, eskaintzen dituen adibideek adierazten dute nolabait zein mailegu-motaz ari den 'orain mailegatzen diren' hitzez ari denean. Aurrekoek bezala honek ere batez ere jakintza arloko mailegu jasoak ematen ditu adibide, ez edozein mailegu. Hona: *biologia, geografia, filologia, dramaturgia.* Bigarren puntuari dagokionez, berriz, guztiz esplizitoa da Euskaltzaindia, aurretik leudekeen zalantzak guztiz uxatzeko moduan: idazkera hori daramaten maileguei [g] ebakera dagokie.

Ikusten denez, euskal ortografiak finkatuxea duen bide nagusitik dabil arau hau ere: ahoskeraren pareko den neurrian onartu da idazkera 'etimologikoa'.

5. Horiek horrela, bada, Euskaltzaindiak hobetsitako bide horri jarraitzea proposatuko nuke nik aztergai dugun araua zehazterakoan ere. M. Zalbidek aipatu Gasteizko Jardunaldietan aurkeztutakoaren ildotik doa nire proposamena, idazle eta hiztegigile zenbaiten orainagoko jokabidea gorabehera:

a) Latinetiko kultur mailegu jasoak eta jakintza arlokoak dira jatorrizko *g(e,i)* grafia gordeko dutenak, [g] hotsez ebakitzen direlarik beti ere, ahoskera jasoan bederen. Zalbideren txostenaren 8. orriko c) multzoan zerrendatzen dira horrelako maileguak. "Hitz ikasiak" dira, batez ere eskolan eta unibertsitatean erabiltzen direnak, jatorri grekoa dutenak asko eta asko. Horiek baizik ez nituzke nik *g*-z idatziko (8).

b) Aldi berean, eta alderantziz esana, gainerako guztiak, hau da, ohiko hitz bilakatu diren mailegu arruntagoak eta guztiz zaharrak izan gabe ere, ahozkoan sartuxeak direlako-edo [g] ez baina **j*-ri dagozkion ebakeretakoren bat finkaturik dutenak eta, ahaleginak ahalegin, aldatzeko modu segururik ez dutenak, *bijilantzia, bijilia, dilijentzia, exijentzia, intelijentzia, jestio, kolejio, majiko, orijinal, plajio, pribilejio* eta horrelakoak, *j(e,i)* grafiaz idatziko nituzke, mailegu zaharragoak bezala. *Izan ere, horrela egitea aholkatu eta gomendatuta ere [g] ebakiko ez diren maileguak hobeto dugu j-z idaztea, euskararen tradizioan nagusi izan den irizpidearri jarraiki!*

(8) Zerrenda horretatik hitz batzuk kenduko nituzke nik, beharbada, hala nola, erroari begiratu gabe, arruntak bilakatu diren *nostalgia, agente, agentzia* etab: *j*–z idatziko nituzke hauek ere, arruntagoak eta etxekotzen hasiak direnak bezala.

Hitz arrunten multzokoak izateaz aparte eta ebakera guztiz finkatua izateaz beste, hirugarren ezaugarri bat ere badute mailegu hauetako askok: etxekotzen hasiak direlako seinaleak dituzte bere baitan. Horrela, esate baterako, errejimen hitzak *e* protetikoa du; kolejio -k k letra, jatorrian ez bezala; bijilantzia hitzak *b* eta *tz* grafiak, geureganatzen hasia delako seinale... Harrigarria izango litzateke, gero, e protetikoa, *b, k, tz* eta horrelakoak hobesterakoan jatorrizko idazkera aldatu eta gureganatzeko batere arazorik izan ez eta horien alboan, berriz, *g* letra *j*-ra ezin aldatu izatea, "begiek onartzen ez dutelako"!

Proposamen honek *g(e,i)* grafia daramaten hitzen zerrenda murriztu eta ahalik zehatzen mugatzea dakar nahitaez. Multzo zabal eta irekia izan beharrean, multzo "markatua" izango litzateke hau nolarebait, hitz "ikasiak" bildu eta gainerakoak kanpoan uzten dituena. Hiztegi Batuan egin beharko litzateke mailegu bakoitzarekin baterako edo besterako hautua eta han ikusiko genuke argi eta garbi zein maileguk gordetzen duen itxura etimologikoa bai idatzian bai ebakeran *–g(e,i)* gordez– eta zeini ematen zaion etxekotuen itxura ebakeran bezala idatzian ere *–j(e,i)* hobetsiz–.

Aukera honen mesedeak eta alderdi onak honako hauek dira, besteak beste:

a) Dugun tradizioarekin –tradizio zehatz nahiz nabarra, baina tradizioa azken finean– bat dator eta euskal ortografiak izan duen joera nagusietako bati segida ematen dio.

b) Sinpletasuna eta segurtasuna dakarkio euskaraz idazten eta irakurtzen duenari. Eta gogoan hartu behar da euskaldun askorentzat ari garela –gaur egun hezkuntza sistematik pasatzen den ikasle-jende andana handiarentzat, besteak beste– eta ez bizpahiru jakitunentzat. bakarrik. Ez da mesede txarra izango ikasle horientzat, eta ez horientzat bakarrik, noski, ahoskeraren pare doan ortografia hobestea. Bestela egingo bagenu, ostera, hau da, "berri" ustezko denak *g*-z idatziko bagenitu, batasunaren izenean honako bikoiztasun hau bultzatuko genuke: *G(e,i)* grafia [g] irakurriko genuke batzuetan eta **j* beste zenbaitetan –[biologia] irakurtzea lortuko da beharbada, *egin, giro* etab. bezala, baina nekez esango dugu [kolegio], [original] eta abar–. Bi ebakera, beraz, grafema baterako. Eta, era berean, **j* esaten duguna *j* idatziko genuke batzuetan *(birjina)* eta *g* beste zenbaitetan *(kolegio)* (9).

Orain arte ez genuen zama ezartzea ez ote da hori?

BIBLIOGRAFIA

BIEDERMANN-PASQUES, Liselotte. 1992: *Les grands courants orthographiques au XVIIe siècle et la formation de l'orthographe moderne.* Tübingen (Max Niemeyer Verlag).

(9) Bikoiztasun hori nahasketa iturri bilakatuko litzateke ezinbestean. Dagoeneako soma daitezke horrelako nahasketak: hiztun berak hitz bat inoiz [g]-z inoiz [x]-z esaten du, arau finkorik gabe, edo batzuetan *g*-z eta beste batzuetan *j*-z idazten du. Egunkari baten artikuluan *teniente jeneral* eta alboko argazkian *teniente general* irakurri berri dut egunotan.

CATACH, Nina. 1988: *L'orthographe.* Paris (Presses Universitaires de France).

EE: ikus EUSKALDUNON EGUNKARIA.

ELHUYAR. 1993: *Hiztegi Entziklopedikoa.* Usurbil.

EUSKALDUNON EGUNKARIA. 1992: *Estilo Liburua.* Donostia.

EUSKALTZAINDIA. 1986: *Maileguzko hitz berriei buruz Eusklatzaindiaren erabakiak.* Bilbo.

HLEH: ikus SARASOLA, Ibon. 1984.

KINTANA, X. eta beste. 1980: *Hiztegia 80.* Bilbo.

LUR. 1991: *Lur Hiztegi Entziklopedikoa.*

MITXELENA, Koldo. 1968: "Ortografia", *Euskera* XIII (205-211) ("Arantzazuko txostena" gisa ezagutua).

—. 1985: "Mailegu berrien idazkera". *Euskera* XXX, 2 (457-459).

—. 1987tik aurrera: *Orotariko Euskal Hiztegia.* Bilbao (OEH laburduraz aipatua).

OEH: Ikus MITXELENA, Koldo. 1987.

ORMAECHEVARRIA, Ignacio. 1959: *Euskera. Un poco de gramática y algo de morfología del verbo vasco.* Zarauz (Icharopena).

SARASOLA, Ibon. 1984tik aurrera: *Hauta-Lanerako Euskal Hiztegia.* Donostia (HLEH laburduraz aipatua).

VILLASANTE, Luis. 1988: *Euskararen auziaz.* Oñati.

ZALBIDE, Mikel. 1994: "Maileguzko hitzen zenbait muga-arazo" (Hiztegi Batuko batzordearen Jardunaldietan, apirilaren 23an, irakurritako txostena).

ZUAZO, Koldo. 1988: *Euskararen batasuna.* IKER-5. Bilbo. Euskaltzaindia.

OSASUN ZIENTZIETAKO LABURTZAPENAK

Leioa, 1994.10.05
Iñaki Ugarteburu,
Jon Irazusta

1. Honako lan honetan laburtzapenak osasun zientzietan erabiltzeko orduan agertu ohi diren hainbat arazo agerian jarri nahi ditugu. Igone Zabalak egin du beste lan batean laburtzapenen sailkapen formala eta eskaini ditu laburtzapenen erabilerarako erizpideak. Horretaz gain laburtzapenen erabilerarako kontutan hartu beharreko beste eragile batzuk ere jarri nahi ditugu agerian, bereziki zientzia eta teknikaren jakintzagaiari dagokien hizkuntza maila berezian.

Igone Zabalak eta Odriozolak emanak dituzte gaiaren inguruko zehaztasunak eta kontzeptuen azalpenak. Hemen laburtzapenez arduratuko gara akronimo, sigla edo besterik ote diren gehiegizko bereizketatan aritu gabe.

2. Osasun zientzietan eta medikuntzan darabilgun hizkerak jakintzagai zehatz bati egiten dio erreferentzia baina gai horren inguruan darabiltzagun termino batzuen erabilera oso hedatua da, eta hizkuntz maila desberdinetan agertu ohi dena. Horrela, nekez jakingo du hiztun arruntak zer den GABA ("azido gamma-amino-butiriko"), baina agian bai TAK ospitalean inoiz egon bada ("tomografia axial konputerizatu"), edo erreazago EKG ("elektrokardiograma"), eta nork ez daki gaur egun zer den HIES ("hartutako inmuno-eskasiaren sindrome")? Laburtzapen horiek, ezagun edo arrotz, hiztun arruntak idatzirik aurkituko ditu maizen eta era batera edo bestera ahoskatuko ditu. Horixe da gero, ahoskera hain zuzen, idatzirako formarik egokiena zein den erabakitzeko orduan kontutan hartu beharko dena. Hau da, nola ahoskatu horrela idatzi, gero idatziaren arabera ahoskatuko delako.

Eta laburtzapenak modu batean edo bestean irakurtzeko badira hainbat eragile. Hona hemen batzuk:

– Laburtzapenaren jatorria, ez baita berdin kultur hitzaren, ingelesezkoaren edo euskal hitzaren laburtzapena izatea.

– Erabileraren zabalpena (erabiltzaile kopurua), laburtzapena oso erabilia denean errazago aurki daiteke halako edo bestelako "consensus"a irakurketa modu baten inguruan.

– Erabilera maila, ez baita berdin erabilera espezialdua eta laburtzapenak klitxetzera eta ahal den neurrian lexikalizatzera jotzen duen erabilera arrunta.

– Kodifikazio eta dekodifikazio arazoak.

– Kantitate eta muga fonikoak, soluzio erraza dute HIES edo GABA laburtzapenen antzekoek, baina nola ahoskatu HPIN edo GalNAc?

Bestalde, osasun zientzietako laburtzapenen erabileraz oharrak egiteko interesgarria dirudi laburtzapen hauek ataletan bereiztea. Alde batetik notazio eta formulazio kimikoa (oinarrizkoa eta unibertsala den paradigma) eta biokimikaren inguruko formula eta laburtzapenak (bereziak eta espezialitatekoak). Eta bestetik lanbidetik kanpo ere edozein hiztunengana iristen den tresneria, proba, sendagai eta eritasunen izenen multzoa.

3. Formulazio kimiko eta biokimikoa.

Atal honetan, jakina, zer den laburtzapen eta zer den sinbolo edo ikur bereiztu beharko genuke. Sinboloen erabilera alde batera utzirik (Odriozolak tratatu baitu gaia beste lan batean), osasun zientzietan erabiltzen diren atal honetako hainbat laburtzapen aipatu nahi ditugu. Laburtzapen hauek konplexuak izan ohi dira eta gehienetan bazilazioak gertatzen dira irakurketan, bereziki hizkuntza naturalez osatutako inguruetan.

Adibideak:

cAMP ("adenosin monofosfato zikliko")

ADN / DNA ("azido desoxirribonukleiko")

G ("energia askea")

Dena den, bereiztea komeniko litzateke hemen zer den oinarrizko eta zer espezialitateko:

– Oinarrizko formulazio kimikoko laburtzapenak.

- Gehienetan kultur erroetatik sortuak.
- Corpus mugatua osatzen dutenak.
- Erabilera eremu zabalekoak.
- Ikur edo sinbolotzat har daitezkeenak.
- Ezagun eta ulertzen erraz direnak (Na).
- Adibideak: Fe, P, Ca, K,...

– Biokimikako laburtzapenak: espezialitatekoak, biokimikan edo beste jakintzagaietan (mikrobiologian, patologian, e.a.) erabiliak, baina espezialitatekoak direnak; atal honetan laborategiko tresnen izenen laburtzapenak edo halakoak ere har genitzake. Bi atal bereiz litezke: (a) formula bezala erabil daitezkeenak, eta (b) formula gisara inoiz erabil ezin daitezkeenak.

- Gehienetan erdal hizkuntza bat edo besteko hitzetik sorturiko sigla edo laburdura.
- Corpus irekia: etengabe sortzen dira berriak.
- Erabilera eremu estua: espezialitatea eta espezialitateko hiztunak.
- Hiztun arruntak nekez ulertuko dituenak (A ???).

- Adibideak: A ("adenina"), cAMP ("adenosin monofosfato zikliko"), eta abar.

Bi multzo hauetatik lehen multzokoak izango dira ikurren erabilera eskatuko dutenak eta bigarrenekoak laburtzapenena. Dena den, gauza jakina da batzuetan zalantza izan daitekeela, A ("adenina" izeneko base nitrogenatuari dagokiona) bigarren multzoan (biokimikako molekula konplexuen izenen laburtzapenen artean) sartuko genukeen arren lehenean ere (P = fosforo, K = potasioa) sar litekeela pentsa baitaiteke.

Batzuk ikur huts dira ("G" adibidez, nahiz eta jatorrian sigla izan agian) baina siglak ere ugari dira: ATP, DNA,... maiz beste hizkuntzetatik zuzenean hartuak. Laburtzapen hauek urrun daude ondoren aipatuko ditugun lexikalizatuetatik eta nekez onar liteke (nahiz eta lagun arteko hizkeran, ekoizpen modura, entzun daitekeen) "denea". Beti ere "de-ene-a" gisara ulertu beharko dugu, hau da, irakurketa silabikoa.

4. Eritasun, proba funtzional, tresneria eta antzekoen izenak ere laburtzapenen bidez ematen dira maiztasun handiz osasun zientzietan. Izen hauek hiru berezitasun nagusi dute besteen aldean:

a) Izen arruntak dira.

b) Irakurketa naturalerako joera du hiztunak.

c) Lexikalizatzeko joera handia dute.

Edo beste era batera esanda, maiz gertatzen da lexikalizazio prozesua laburtzapen hauek ohizko izen arrunt bihurtzeko. Ondorengo urratsak dira prozesu horretan gertatzen direnak:

— Hartutako inmuno-eskasiaren sindrome (izena bera, maiz izen tekniko, luze eta konplexua; ekonomia arrazoiak bultzatzen gaitu hori laburtzera).

— H.I.E.S. (laburtzapena, laburtzapen eta beste izen oso baten ordezko delako arrastoa galde gabe, horra hor letra bakoitzaren ondorengo puntua horren adierazgarri).

— HIES (laburtzapena, ahoskerara eta izen moduko erabilerara hurbilduz; hau da hizkuntza naturaleko ez diren puntu, gidoi eta halako ikurrak baztertuz).

— Hies (izen arrunt berria, hiztunak laburtzapena delako kontzientzia galdu duen neurrian lexikalizatu egin dela esango dugu).

Erdaraz ere irakur daiteke gaur egun komunikabideetan "el sida", eta garai bateko erdarazko "la minipimer" edo el "rotri" izen komertzial arrunt bihurtuak ez bezala (hizkuntz maila kolokialean, jakina), beste hauek geratu egingo dira edo geratu egin daitezke hizkuntzan (gaisotasunen izenak): lexikalizazioa gertatzen da. Esan nahi duguna da arrunt bihurtu diren izen komertzialak edo erakundeen izenak nekezago geratuko direla hizkuntzan (beste horrenbeste gertatuko da medikuntzako tresnen edo proba funtzionalen izenekin) baina errazago edozein hiz-

kuntza mailatan erabiliko den erreferentea duen laburtzapena, kasurako eritasun baten izena. Eta azken hau da, hain zuzen ere, HIES laburtzapenaren kasua.

Egia da sigla gehienak izen propiotzat hartzen direla (UZEI 1988): "EHUk agindu du" eta ez "EHUak agindu du", baina hala da erakunde edo instituzioen izen diren neurrian. Hauek irakurketa bikoitza dute (gaztelaniaz berdin gertatzen da): "Athletic 2 Zaragoza 0", baina herriak aise darabil "Athletixak irabazi dau" (hau da, "Athletic" talde-ak), mugatzailerik gabeko erabilerarekin batean. Beraz, izen propiotzat har daitezkeen laburtzapenak mugatzailerik gabe erabiltzen ditugu, nahiz eta talde eta instituzioen izenen kasuan mugatzailedun zein mugatzailerik gabeko erabilerak ezagun ditugun. Honen lekuko dira komunikabideetako zalantzak: "FISek" entzun daiteke, araua bete eta mugatzailerik gabe, baina maiz eta sarri entzungo ditugu "FIS fronteak" eta antzekoak agian inguruko erdaren eraginez ("el FIS") edo besterik gabe "fronte-ak" mugatzailea jarri nahian.

Lexikalizaziorako joera nabaria duten izen hauen kasuan ez dirudi laburtzapern hauek besterik gabe izen arrunt gisara erabiltzea gomendatu beharko litzatekeenik (hiztunek erabakiko dute azken finean, baina denbora beharko da horretarako; hau da, hitz hauetatik zein geratzen eta zein desagertzen den ikusteko), baina badirudi laburtzapen gisako erabilera ere izen arruntari dagokiona izan beharko litzatekeela. HIESa eta ez HIES. Ohitura hedatua da halakoetan hitz laburtua mugatzaile eta guztiz erabiltzea edo izen arrunt modura deklinatua, baina ez beti. Hona OEE medikuen erakundeak antolatutako batzar medikoetatik hartutako adibideak:

"TBK HIES baino lehen agertu zen"

"HIESak jotako % 17an eman zen ..."

"TBKren ondorioz hil ziren"

"GIBek infektatutako pertsonak"

"GIBren antigenoa"

"GIBen transmisioa"

"HIESaren progresioa"

Edo Osasun Sailaren argitalpenetan:

"HIESari AURREHARTZEKO ETA KONTROLATZEKO EGITASMOA"

"HIESaren prebentzioa"

"Hiesari osasunketaren esparruan aurrea hartzea"

"Hiesari Aurrea Hartzeko eta Kontrolatzeko Plana"

Hizkera zaindurako baztertzekoak izango dira "hies" (gaztelaniazko "el sida" terminoaren pareko) edo "tak" (nahiz eta ospitaletan medikuei lagunarteko hizkeran erraz entzun dakiekeen erdaraz ere "le haremos un tac" (Tomografia Axial

Konputerizatua). Baina HIES edo GIB laburtzapenen erabileran bereiztea komeni da batez ere mugatzailea erabiliko den ala ez. Azken batean izen nagusi edo arrunt gisara erabiliko ditugun. Oinarrizko erizpidea litzateke mugatzailea beti jartzearena "HIESa dugu gaur egungo izurriterik kezkagarriena" eta ez "HIES dugu gaur egungo izurriterik kezkagarriena". Salbuespena litzateke aposizio modura, izen sintagma osoaren ondoan parentesi artean doanean "Hartutako inmuno-eskasiaren sindromea (HIES) dugu gaur egungo izurriterik kezkagarriena", edo aurrerago zehaztuko ditugun antzeko kontestuetan.

Bestalde, arazo fonikoari dagokionean gogora dezagun bi modu ditugula laburtzapenak irakurtzeko:

HIES (hies)

HIES (hatxe-i-e-ese)

Esparru honetan aztertu ditugun hitzek duten lexikalizaziorako joera hain nabaria denez, bietatik lehena da maizenik erabiliena, "hies" ahoskera, hiztunak askotan dekodifikatu ere ezin dezakeelarik (hiztun asko dira HIES terminoa ezagutu bai baina siglen esanahirik ezagutzen ez dutenak). Baina erabilera horretarako badira mugak, adibidez zailtasun fonikoak: "hies" bai, baina "gib"?, "got"?, et zer esanik ez dago TBK "te-be-ka" ahoskatu beharra dagoela. Horrela, badirudi arazo fonikorik ez dagoenean lexikalizatzeko joera dagoela eta besteetan deletreatu edo silabeatu egiten dela. Gainera kantitate fonikoak ere eragin dezake. Nahiz eta aipatu berri dugun arrazoiagatik HPIN ezin ahoska daiteken hitz autonomo gisara nekeza gertatzen da "hatxe-pe-i-ene" bezalako formula luzea erabiltzea, eta izena bera erabiltzen ez dutenek (Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusia) bestelako formulak asmatzen dituzte; horrela "hatxepin" erabiltzen dute hiztun batzuek hizkera kolokialean. Baina hemendik aurrera kasuistika zabalegian sartuko ginateke.

Laburbilduz, nola irakurri izen hauek?. Kontua ez da, ordea, nola irakurri behar den esatea, irakurleak berak (hiztunak) erabakiko baitu hori, eta bai honela edo horrela irakurtzeak zer suposatzen duen idazketarako.

– Hizkuntza maila: landua, tekniko espezializatua:

Izena irakurtzen da laburketen kasuan.

Antitr. III ("hiru antitronbina").

Izena irakurri edo deletreatu egiten da formula eta sigletan.

IgA ("A inmunoglobulina", edo "i-ge-a")

ATP ("adenosin-trifosfato", edo "a-te-pe")

BSF ("bromosulftaleina", edo "be-ese-efe")

DNA ("azido desoxirribonukleiko", edo "de-ene-a")

Ahoskerarako arazorik ez duten siglak hitz autonomo gisa erabiltzen dira.

DOPA, GABA, HIES ("dopa", "gaba", "hies")

Lehen A laburtzapenaren kasuan esan bezala, orain ere muga fonikoan kontutan izan beharko ditugu; esate baterako DNA deletreatu egiten da (ezinbestean), baina horren ordez DAN izan balitz besteek adinako joera izan zezakeen lexikalizatzeko "dan". Alde horretatik ikusi besterik ez dago "hitz naturala" aurkitu nahian hiztunek maiz laburtzapen eta siglen ahoskeran asmatzen dituzten konponbideak; hau da lehen aipatu dugun HPIN siglaren kasua edo eradarazko TCSA "tecesa" ahoskatua entzun daitekeena. Azken multzo honetakoetan asmo didaktikoak hartaraturik erabiltzen da maiz izenaren forma osoa ("azido gamma-amino-butirikoa, edo hartutako inmuno-eskasiaren sindromea").

– Hizkuntza maila: ez tekniko espezializatua.

ADN ("a-de-ene", edo "azido desoxirribonukleiko")

TAK ("tak", edo "tomografia axial konputerizatu")

EKG ("elektokardiograma")

HIES ("hies").

Halakoetan badirudi joera lexikalizazioa dela, bereziki siglak ahoskatzeko arazo fonikorik ez dagoenean ("hies"), nahiz eta arrotz samar gertatu ("tak"). Hitz arrunt gisara irakurtzeko arazoa dagoenean deletreatu egiten da batzuetan eta hitza bera irakurtzen da besteetan, maiz arrazoi ekonomikoak erabakitzen duelarik: ez dago arazo larregi TBK edo EKG "tuberkulosi" edo "elektrokardiograma" (azken hau mugan dagoela dirudi) irakurtzeko, baina errazago dirudi "ge-pe-te" eta "a-de-ene" esatea "transaminasa glutamiko-pirubiko" eta "azido desoxirribonukleiko" baino, GPT eta ADN siglen kasuan.

5. Idazkerarako proposamenak.

(1) Laburtzapena nola idatzi erabakitzeko orduan ezinbestekoa da laburtzapen hori nola irakurtzen den jakitea. Batera edo bestera joka daiteke irakurketaren arabera. Baina nekez erabaki liteke laburtzapena nola irakurri. Hau da, gomenda daiteke modu batera edo bestera idaztea "Fe" (mugatzailearekin edo gabe, marrarekin edo gabe), baina "Fe" "efe-e" irakurtzen dela pentsatuz aholkua hau edo hura baldin bada, beste era batera joka lezake edo jokatu beharko luke "burdina" irakurtzen duenak. Gomendioen orduan, beraz, halako edo bestelako laburtzapenen idazketak nola beharko lukeen pentsatu beharko da (laburtzapen horien ezaugarri formalen arabera), eta ez laburtzapen jakin bat hala edo hola irakurri behar dela eta idatzi behar dela esaten hasi.

(2) Elementu ortotipografikoek eragina izan dezakete laburtzapenen idazkeran. Esan ohi da, eta horrela jokatu da maiz, tituluetan ez dagoela mugatzailearen beharrik, baina ez dirudi oso egokia mugatzailerik ez jartzea laburtzapena hitz arrunt bati dagokionean (eritasun baten izena, adibidez) eta titulu horretan perpausaren barruan agertzen denean (aditz ageririk izan ez arren).

"HIESa, gaurko izurritea". Eta ez "HIES, gaurko izurritea". Nahikoa garbi ikusten baita IS bien arteko lotura kopulatiboa dela eta beraz "HIESa gaurko izurritea da" ("Minbizia eritasun larria da" bezalaxe) eta ez "HIES gaurko izurritea da" ("Minbizi eritasun larria da"), "HIES" sigla izen arrunt bati baitagokio. Eta

azken hau garbiro ikusten da gaurko komunikabideetan HIES erabili beharrean "HIES gaitza" zein maiz erabiltzen den ikusita.

Bestelakoa da kontua hitza (laburtzapen edo sigla) bera bakarrik agertzen baldin bada titulu, azal edo orrialdean, hau da, testua elementu lexiko bakarrekoa baldin bada. Halakoan hitz arrunta erabiliz gero mugatua erabili ohi dugu, "Erlijioa" eta ez "Erlijio", "Geografia fisikoa" eta ez "Geografia fisiko". Baina laburtzapena baldin bada, demagun kontsumoko produktuen etiketaziorako erabiliko dugun izena, mugatzailerik gabe erabili ohi da maizen "Antitr. III" ontzi baten etiketan, laborategian, eta ez "Antitr. III-a".

Horregatik halakoetan bietara jo daiteke, mugatzaile eta guztiz izen arrunt osoen kasuan, eta mugatzailerik gabe laburtzapen eta siglen kasuan. Tartean egongo lirateke lexikalizatze bidean dauden siglak:

"DIRUA" (izen arruntak mugatzailea behar du)

"HIESA" edo "HIES"

"Antitr. III" (laburtzapena)

(3) Hizkuntza maila.

Espezializaziokoetan maiz aurki daitezke forma laburtu konplexuak, besteak beste letra larri eta xeheak laburtzapen bakar batean biltzen dituztenak; halakoetan ezinbestekoa izango da laburtzapena eta atzizkia marra baten bidez lotzea

Anti HBc-aren

IgG-aren

mRNA-ren

baina espezialitatetik kanpo hedatu eta lexikalizatze bidean daudenen kasuan ordea, ohizko sigla edo laburtzapenen erabilera dirudi egokiena, hau da, marrarik gabe.

Hizkuntza inguruneak sailkatuz gero honelako zerbait izango genuke:

— Espezializazioko hizkera.

— Zientzia jakintzagaia (oinarrizko ikasketa formalak adibidez).

— Zientziaren dibulgazioa.

— Kazetaritza.

— Hizkuntza maila kolokiala.

Arazoa behin eta berriz agertuko da zientzia jakintzagaia darabilen eta espezializaziokoa izan ez arren arrunt ere ez den hizkuntza mailan, erdi mailako ikasketa formaletan adibidez

(4) Mugatzailea eta egokitzapen fonetikoak.

Arazoa absolutiboan edo —a— daraman atzizkien kasuan (ergatibo, datibo, genitibo edutezkoa) agertzen da laburtzapen edo siglaren amaiera -a baldin bada.

Lau egoera gerta daitezke.

a) Laburtzapenaren idazkera zein irakurketaren amaiera -a denean:

DNA ("de-ene-a")

GABA ("gaba")

DOPA ("dopa")

Laburtzapenaren amaiera tipografikoki "a" denean mugatzailerik ez jartzeko joera izan ohi da (ikusi I. Zabalaren lana), hortaz:

DNA da

DNAk du

DNAri zaio

DNAren egitura

Baina plurala denean, ergatiboan adibidez:

DNAek, sing./pl. bereizketa eginez (DNAk / DNAek) ???

Inguruko hizkuntzetan ere problematikoa gertatzen da ("los DNA, los DNAs"?), eta pentsa daiteke sigla nekez erabil daitekeela pluralean. Plurala adierazi behar izanez gero "DNA kateak" "DNA molekulak" edo antzeko formulak erabili beharko genituzke, hau da, sigla izen arrunt baten aposizio modura (gaztelaniaz "las cadenas de DNA"). Baina agian estilo liburuek argitu beharko lukete puntu hau.

b) Laburtzapenaren amaiera tipografikoa -a izanik irakurketa naturala erabili eta beste amaiera bat irakurtzen denean

TA, baina "tentsio arterial" irakurria

OTA, baina "ordenadore bidezko tomografia axial" irakurria

Aurreko sailean ez bezala jokatu beharko litzateke hauetan eta mugatzailea jarri

TAari, TAren

OTAari, OTAaren

c) "-a" ez den amaiera duten laburtzapenak, deletreatzen direnak edo irakurketa naturala eskatzen dutenak (irakurriz -a amaierarik ez dutenak)

ATP (a-te-pe)

Halakoetan ohi bezala jokatu beharko litzateke mugatzailea idatziz:

ATPa, ATPak, ATPari, ATParen,...

Salbuespen izango dira arrazoi tipografikoengatik (tituluak) edo formulazioko ikurrak direlako (matematika edo haren inguruko metahizkuntza) mugatzailerik gabe idatziko ditugunak

ADP + P = ATP

d) "-a" ez den amaiera duten laburtzapenak, deletreatzen direnak edo irakurketa naturala eskatzen dutenak (irakurriz -a amaiera dutenak):

EKG (elektrokardiograma)

Halakoetan irakurriari lehentasuna ematea litzateke egokiena, mugatzailerik ez jartzea alegia:

EKG, EKGk, EKGri, EKGren,...

(5) Forma laburtu konplexuetan, hau da, letra, sinbolo eta bestelako elementu tipografikoak erabiltzen dituztenen kasuan marra erabili beharko dugu beti laburtzapenaren muga zehazteko.

GalNAc-ak

HAV-IgM-aren

HLA-A-25-ari

Antitr.III-a

DPN+-a

Ig-ak

GABAb-ak

Pi-a (fosfato inorganiko-a)

Beste horrenbeste gertatzen da formulazioak darabiltzan ikurren eta euskal deklinabideak darabiltzan atzizkiak bat datozenean eta nahasi egin daitezkeenean.

GABAa-k (sigla GABAa denean)

DHEA-a-k (sigla DHEA-a denean)

Kantitate foniko urriko formuletan ere badirudi arrazoi pragmatikoak badirela marra erabiltzeko

A-ri (ez Ari)

Eta lehentasuna irakurriari ematen baldin bazaio beti gertatuko dira bietara jokatzeko aukera ematen dutenak

mRNA-ari (datiboan), "azido ribonukleiko mezulari-ari"

mRNA-ri (datiboan), "eme-erre-ene-a-ri"

BIBLIOGRAFIA

EGUNKARIA: *Estilo liburua.* 1992.

EL PAIS: *Libro de estilo.* 1990.

EUSKALTZAINDIA. EGLU: *Euskal Gramatikaren Lehen Urratsak.* 1985-90.

KOCOUREK, R.: *La langue française de la cience et de la technique.* Oscar Brandstetter Verlag, 1982.

MARSA, F.: *Diccionario normativo y guía práctica de la lengua española.* Ariel, 1986.

OEE: *Minbizia, Medikuntz Ihardunaldiak.* Elhuyar-Elkar, 1992.

OEE: *Gaixotasun infekziotsuak. 2. Ihardunaldi Medikoak.* 1992.

OEE: *Osasun Arazoak Zahartzaroan. 3. Ihardunaldi Medikoak.* 1993.

OEE: *Aurrerapen Terapeutikoak. 4. Ihardunaldi Medikoak.* 1994.

OMC: *Clasificación terminológica de actos y técnicas médicas.* 1989.

PALACIO, G.: *Hitz-laburtzapenak euskal hizkuntzan.* Tesi doktorala. EHU. 1992.

SALVAT: *Diccionario terminológico de ciencias médicas.* 1976.

SANTAMARIA, A.: *Diccionario de incorrecciones, particularidades y curiosidades del lenguaje.* Paraninfo. 1983.

UZEI: *Siglen esku-liburua.* 1988.

LITERATURA

LITERATURA BATZORDEA (*)

Herri-literatura azpibatzordea

Arduradun: Antonio Zavala
Idazkari: Pello Esnal
Kideak: José M.ª Aranalde
Antonio Aranburu
Juan Manuel Txebarria
Jesus M.ª Etxezarreta
Alfonso Irigoien.
Jose M.ª Iriondo
Emile Larre
Abel Muniategi

Literatura-Ikerketa azpibatzordea

Arduradun: Juan Mari Lekuona
Idazkari: Jon Kortazar
Kideak: Xabier Altzibar
Aurelia Arkotxa
Gorka Aulestia
Jean Haritschelhar
Juan Kruz Igerabide
Luis M.ª Mujika
Karlos Otegi
Txomin Peillen
Ana Toledo
Patri Urkizu

(*) Txosten hauek, Donostian 1994ko uztailaren 22an egindako Literatura Jardunaldietan aurkeztu ziren.

EUSKAL ESTROFEZ

Juan Mari Lekuona

1. SARRERAKO OHARKIZUNAK

1.1. MUGAKETAK

1.1.1. Estrofa ez da *modulu metriko bakarra:* hor daude euskal tradizioko baladenak, bihurkidunak, tiradak, formula periodotuak, bertso libreak eta abar (1)

1.1.2. *Estrofei buruz bakarrik* hitzegiten dugu hemen, moduluetan ugarienak edo direlako eta nolerebait garrantzitsuenak.

1.1.3. *Ia ezinezkoa da estrofa denak edo gehienak hartuko lituzkeen sailkapen bat egitea:* asko dira generoak, ereduak eta aldaerak.

1.1.4. *Hurbilketa bat emango dugu,* beste literatur barrutietan egin ohi denez. Aipatuko ditugu eredurik erabilienak eta ardatz gertatzen direnak.

1.2. LANMETODOA

1.2.1. *Eskema metrikoetatik hasi beharra dago,* berauen arteko konparaketak eginez, estrofen sistemek marka ditzaten berdintasunak eta desberdintasunak, eta gainerako ñabardura bereziak.

1.2.2. *Ifarraldeko eta Hegoaldekoen artean dagoen diferentziaz* ohartzea ere ezinbestekoa da estrofak idazteko eta izendatzeko unean. Bi sistemok oso kontuan hartzekoak dira euskal estrofagintzaz preseski hitzegin nahi bada, nahiz eta hurbilketa bat ikus daitekeen azken urteotan, bereziki bertsolaritzan.

(1) J.M. LEKUONA, "Kontapoesiaren modulu metrikoak Hegoaldeko usarioan", *Euskera,* 36 (1991, 825-852. or.)

1.2.3. *Bertsolaritzan estrofagintzari buruz esan denak eta egin denak* kontuan hartu beharrekoa dirudi, indarrean dagoen estrofagintza ia bakarra delako, bertako sistema delako, asko landu dena prasi mailan, eta ez gutxi teoria mailan ere.

1.2.4. Bertsolaritzak agortzen ez duenez gaiaren eremua, *kontuan hartu beharrekoak lirateke, orobat, gainerako generoak eta hemen sarturik dauden erdal modulu metrikoak*, hala nola "soneto", "seguidilla", eta hainbat estrofa-mota.

2. ESTROFAREN OSAGAI AIPAGARRIENAK

2.1. *Zenbat bertso-lerro* hartzen dituen eredu jakin batek.

2.2. Bertso-lerroen *silaba-kopurua eta etenak*

2.3. Bertso-lerroak *isosilabikoak edo anisosilabikoak diren.*

2.4. *Monorrimoak edo plurirrimoak* diren puntuen aldetik.

2.5. Etenaldiek *hemistikio desberdinak edo berdinak* egiten dituzten.

2.6. *Hausturarik* dagoen bertso-lerroen erregularta sunean, ereduak aldatuz.

2.7. *Errepikarik* nahiz *bihurkirik* sartzen den estrofa-barruan, edo fono-estilistikaren amorez sarturiko beste espresibitate poetikoak.

3. ESTROFAREN EZAUGARRI TEKNIKOAK ETA IZENDAPENA

3.1. Bi gauza dira egiaz bata eta bestea. Ezaugarri teknikoak denak markatu behar dira estrofa jakin bat deskribatzekoan. Izendatzea, ordea, egin daiteke —eta hala egiten da gainera— ezaugarri tekniko batekin edo birekin.

3.2. Izendatzean, hiztegiaren erabilgarritasuna da kontuan hartu beharrekoa, asko lagundu dezaketelarik usarioak, (hala nola bertsolaritzak), ezaugari tekniko nabarmenena aipatzeak, edota moduluaren edozein ñabardura historikoz asmamen onaz baliatzeak.

I. MULTZOA

HEMISTIKIO DESBERDINAK

1. *Ezaugarri teknikoak:* lerro jakinak, isosilabikoak puntutik puntura, hemistikio desberdinak eta monorrimoak.

2. *Izendatzea:* hemistikio-lerroen kopuruak agintzen du hegoaldean, laukoa, seikoa, zortzikoa, hamarrekoa eta abar, lerro-kopuruaz markatuz estrofa-mota honen ezaugarri nagusia. Eta hemendik hartuz ere horrelako ereduen izena.

Ifarraldekoek, ordea, beste idazkera bat darabiltenez estrofak idazterakoan, puntuen kopurua dute gogoan, bi, hiru, lau, bost eta abar puntukoa den.

Bigarren osagai bat ere hartzen da gogoan estrofak izendatzean: hemistikio bakoitzeko silaben kopurua Hegoaldean, 10-/ 8A (handia), 8-/ 7A (ertaina), 7-/ 6A (txikia) eta abar konbinaketak aipatuz, egiten da. Eta Ifarraldean ere berdintsu, nahiz eta silabak puntutik puntura hartu, 18 (10+8)A (handia), 15 (8+7)A (ertaina), 13 (7+6)A (txikia) izendatu.

3. *Eredu erabilienak:* hemen aipatzen ditugun ereduetan ez daude denak, baina gehienak bai; eta ematen dira zentzuak hemen ez dauden ereduak ere non kokatu eta nola aztertu jakiteko.

1. MOLDE HANDIA

1.1. TESTUAK

a. *Hegoaldeko idazkera*

"Mutil kozkor bat itxuaurreko
zubela aldamenian,
gizon buru-soil, bizar-zuri bat
bi makuluren gañian,
kale ertzian ikusi nuen
inora ezin joanian;
ta bera nor zan jakin nayian
inguratu nintzanian...
limosnatxo bat eskatu zidan
Jainkoaren izenian" (2)

(2) I. UNZURRUNZAGA, *Pedro Mari Otañoren bertsoak*, (Limosnatxo bat), in "Kuliska Sorta", 31-32. zz., Zarautz, 1959, 55. or.

"Zenbat errezo egin izan det
nere denboran elizan;
te pozik nago ikusirikan
pakian nola gabiltzan.
Ni naizen bezain kobarderikan
inor ezin leike izan,
semiak gerra ez joateatik
mutilzar gelditu nintzan" (3)

"Jose Joakin Izuelako
auspez lurrean jarririk,
bizkarra ere makurtu zaizu
bakarkasunez beterik;
admiraturik aurkitutzen naiz
ez dezulako andrerik" (4)

"Harmen hartzera deitu ninduen
gazterik zorte etsaiak;
urrundu nintzen, herri alderat
itzuliz usu begiak" (5)

b. *Ifarraldeko idazkera*

"Mutil koxkor bat itxu-aurreko zubela aldamenian,
gizon buru-soil, bizar-zuri bat bi makuluren gañian,
kale ertzian ikusi nuen inora ezin joanian;
ta bera nor zan jakin nayian inguratu nintzanian...
limosnatxo bat eskatu zidan Jainkoaren izenian"

"Zenbat errezo egin izan det nere denboran elizan;
ta pozik nago ikusirikan pakian nola gabiltzan.
Ni naizen bezain kobarderikan inor ezin leike izan,
semiak gerra ez joateatik mutilzar gelditu nintzan"

"Jose Joakin Izuelako auspez lurrean jarririk,
bizkarra ere makurtu zaizu bakartasunez beterik;
admiraturik aurkitutzen naiz ez dezulako andrerik"

"Harmen hartzera deitu ninduen gazterik zorte etsaiak;
urrundu nintzen, herri alderat itzuliz usu begiak"

(3) A. ZAVALA, *Tirrita (Bizitza ta bat-bateko bertsoak),* in "Auspoa", 18-19. zz., 222. or.

(4) ID., *Pastor Izuela (1780-1873),...*, in "Auspoa", 106. z., 79. or.

(5) A. SALABERRI, "Solferinoko itsua", in *Kantu, kanta, khantore,* "Kordelieren irarkolan", Baiona, 1967, 254. or. Laburdura: KKK.

1.2. ESKEMA METRIKOAK

a. *Hegoaldeko usarioa*

10-	10-	10-	10-
8a	8a	8a	8a
10-	10-	10-	10-
8a	8a	8a	8a
10-	10-	10-	
8a	8a	8a	
10-	10-		
8a	8a		
10-			
8a			

a. *Hegoaldeko izendatzea*

- Hamarreko handia
- Zortziko handia
- Seiko handia
- Lauko handia

b. *Ifarraldeko idazkera*

18 (10+8)A	18 (10+8)A	18 (10+8)A	18 (10+8)A
18 (10+8)A	18 (10+8)A	18 (10+8)A	18 (10+8)A
18 (10+8)A	18 (10+8)A	18 (10+8)A	
18 (10+8)A	18 (10+8)A		
18 (10+8)A			

b. *Ifarraldeko izendatzea*

- Bost puntuko handia
- Lau puntuko handia
- Hiru puntuko handia
- Bi puntuko handia

2. MOLDE ERTAINA (6)

2.1. TESTUAK

a. *Hegoaldeko idazkera*

"Gai horrek badu mamia
baldin ez banago gor,
hainbat jende gizaseme
ikusten ari naiz hor;
ogiaz gain gizonari
anitz gauza zaio zor,
bestela mundu hontara
hobe ez gaitezen sor;
ogiakin justizia
behar dugu derrigor;
hau sinisten ez duenik
ba al-da hemen inor?" (7)

"Argi azkorrian jinik
ene arresekila,
beti beha, entzun nahiz
nunbaitik zure botza.
Ardiak nun utzi tüzü?
Zerentako errada
nigarrez ikhusten deizüt
zure begi ederra?" (8)

"Hasperena habilua
maitenaren borthala:
habil eta erran izok
nik igorten haidala;
bihotzian sart hakio
hura eni bezala" (9)

"Kazkarotak badakite
trikun-trakun egiten,

(6) "Ertaina" izena hartu dugu: A. ZATARAIN, "Euskerazko bertsokerak", Euskaltzaindia, Iker 2, *Piarres Lafitteri omenaldia,* 1983, 689. eta hur. or.

(7) X. AMURIZA, *Bertsolari txapelketa Nagusia,* Donostia, 1980.01.06, in "Auspoa", 141. z., 80. or.

(8) KKK, "Agota", 133. or.

(9) A. ZATARAIN, ibid., 690. or.

oiloñuak ebatsita
sasipean gordetzen" (10)

b. *Ifarraldeko idazkera*

"Gai horrek badu mamia baldin ezbanago gor,
hainbat jende gizaseme ikusten ari naiz hor;
ogiaz gain gizonari anitz gauza zaio zor,
bestela mundu hontara hobe ez gaitezen sor;
ogiakin justizia behar dugu derrigor;
hau sinisten ez duenik ba al-da hemen inor?"

"Argi azkorrian jinik ene arresekila,
beti beha entzun nahiz nunbaitik zure botza.
Ardiak nun utzi tüzü? Zerentako errada
nigarrez ikusten deizüt zure begi ederra?"

"Hasperena habilua maitenaren borthala:
habil eta erran izok nik igorten haidala;
bihotzian sart hakio hura eni bezala"

"Kazkarotak badakite trikun-trakun egiten,
oiloñoak ebatsita sasipean gordetzen"

2.2. ESKEMA METRIKOAK

a. *Hegoaldeko idazkera*

8-	8-	8-	8-
7a	7a	7a	7a
8-	8-	8-	8-
7a	7a	7a	7a
8-	8-	8-	
7a	7a	7a	
8-	8-		
7a	7a		
8-			
7a			
8-			
7a			

(10) ID., ibid.

a. *Hegoaldeko izendatzea*

- Hamabiko ertaina
- Zortziko ertaina
- Seiko ertaina
- Lauko ertaina

b. *Ifarraldeko idazkera*

15 (8+7)A	15 (8+7)A	15 (8+7)A	15 (8+7)A
15 (8+7)A	15 (8+7)A	15 (8+7)A	15 (8+7)A
15 (8+7)A	15 (8+7)A	15 (8+7)A	
15 (8+7)A	15 (8+7)A		
15 (8+7)A			
15 (8+7)A			

b. *Ifarraldeko izendatzea*

- Sei puntuko ertaina
- Lau puntuko ertaina
- Hiru puntuko ertaina
- Bi puntuko ertaina

3. MOLDE TXIKIA

3.1. TESTUAK

a. *Hegoaldeko idazkera*

"Lagundurikan danoi
gugatik hil zanak,
seme, hazi zaitugu
aitak eta amak,
beti zure gidari
izandu geranak.
Orain gurutze honen
oinean esanak

ondo gogoan hartu
biaituzu danak" (11)

"Gernikako Arbola
da bedeinkatua,
euskaldunen artean
guztiz maitatua.
Eman da zabal zazu
munduan frutua;
adoratzen zaigutu
Arbola santua" (12)

"Oles ezkonberriak,
Yaungoikoak gau hun:
toberaketan gatoz
bost edo sei lagun
zuen baimenarekin
kantatu dezagun" (13)

"Zazpi Euskal-Herriek
bat egin dezagun;
guziak bethi-bethi
gauden gu euskaldun" (14)

b. *Ifarraldeko idazkera*

"Lagundurikan danoi gugatik hil zanak,
seme, hazi zaitugu aitak eta amak,
beti zure gidari izandu geranak.
Orain gurutze honen oinean esanak
ondo gogoan hartu biaituzu danak"

"Gernikako Arbola da bedeinkatua,
euskaldunen artean guztiz maitatua.
Eman da zabal zazu munduan frutua;
adoratzen zaigutu Arbola santua"

(11) I. UNZURRUNZAGA, ibid., "Aita-semeak", 67. or.
(12) J.J. BELAUSTEGI, *Iparragirreren olerki-eresien bilduma ta erti-iritzi laburra,* "Koldobika Rodriguez", Oñati, 1933, 10. or.
(13) A. ZATARAIN, ibid.
(14) KKK, "Agur eta ohore Euskal Herrian", 7. or.

"Oles ezkonberriak, Yaungoikoak gau hun:
toberaketan gatoz bost edo sei lagun
zuen baimenarekin kantatu dezagun"

"Zazpi Euskal-Herriek bat egin dezagun;
guziak bethi-bethi gauden gu euskaldun"

3.2. ESKEMA METRIKOAK

a. *Hegoaldeko idazkera*

7-	7-	7-	7-
6a	6a	6a	6a
7-	7-	7-	7-
6a	6a	6a	6a
7-	7-	7-	
6a	6a	6a	
7-	7-		
6a	6a		
7-			
6a			

a. *Hegoaldeko izendatzea*

- Hamarreko txikia
- Zortziko txikia
- Seiko txikia
- Lauko txikia

b. *Ifarraldeko idazkera*

13 (7+6)A	13 (7+6)A	13 (7+6)A	13 (7+6)A
13 (7+6)A	13 (7+6)A	13 (7+6)A	13 (7+6)A
13 (7+6)A	13 (7+6)A	13 (7+6)A	
13 (7+6)A	13 (7+6)A		
13 (7+6)A			

b. *Ifarraldeko izendatzea*

– Bost puntuko txikia
– Lau puntuko txikia
– Hiru puntuko txikia
– Bi puntuko txikia

OHAR OROKORRA

Lehenengo multzo honetan batez ere, doinua eta melodia funtsean aldatu gabe, espresibitatearen amorez, sartzen dira estrofa barruan zenbait aldaketa, (hala nola monorrimotik plurirrimora igaro, edota errepikak egin, edota errimak gurutzatu, edota errimak besarkatu eta abar), diskurtsu poetikoa eta intentzioa aldatzen dutenak. Hona zenbait eredu kontuan edukitzekoak.

1. Bizkaiko zortziko txikia, melodia eta plurirrimoan erabiltzen duena, bi puntu sartuz:

"Asko dira gaur eta/ leh bere zirean, 13A
antzak ez diñotsenak/ zer ete direa. 13A
Iruditxu bategaz/ sartu yat gogoan 13B
argitutea egi au/ zortziko bertsoan" (15) 13B

"Maritxu nora zoaz/ eder galant hori 13A
iturrira Bartolo/ nahi baduzu etorri 13A
Iturrian zer dago/ ardotxo txuria... 13B
biok edango dugu/ nahi duzun guztia" (15) 13B

2. Errepikak eta bihurkiak ere aipatzekoak dira. Zenbait kantu ezagun aipa ditzagun.

– Lauko txiki errepikaduna:

"Iruten ari nuzu,/ kilua gerrian, 13A
ardura dudalarik (bis)/ nigarra begian" (16) 13A

– Zortziko txiki errepikaduna, plurirrimoa:

"Bautista Basterretxe/ mutiko pijua, 13A
neri gurdi ardatza (bis)/ ostuta dijua. 13A
Beltzak eta txuriak/ izango dituzu 13B
neri gurdi ardatza (bis)/ emate ez baidazu" (17) 13B

(15) E.M. AZKUE, "Astoak... arrantza", in "S. ONAINDIA, *Milla Euskal-Olerki Eder*, "Karmeldar Idaztiak", Larrea-Amorebieta, 1954, 274-275. or.
(16) KKK, 185. or.
(17) "Mariya", "M. Mendiburu", Bordeaux, (s/d), 54-55. or.

3. Zortziko txikia, hasiera *kopla-eran* emanik

Bortian Ahuzki	6a
Ur onak osoki...	6a
Lili bat ikusi dut	7a
baratza batean...	6a

Doinu bera dute baina lehenengoak puntuduna egiten du hasierako hemistikioan.

4. Gurutzatuak:

"Lo! lo! nere maitea;	7a
Lo! ni naiz zurekin.	6b
Lo! lo! paregabea,	7a
nigarrik ez egin.	6b
Goizegi da munduko	7c
esnatzen bazira.	6d
Nigarretan urtzeko	7c
baduzu denbora" (18)	6d

5. Besarkatuak, errimak abba erako lokeran kokatuak:

"Berritzen ar'iz, Xuria	8a
Nitan, egun guziez,	7b
Noizten begiez	5b
Egin erautan zauria;	8a
Et'ene bihotz gaxoak	8c
Higanik, maita-sari,	7d
Herskailu ordari,	5d
Zitin tragasa-xiloak" (19)	8c

(18) Dr. LARRALDE, "Lo! Lo! Nere maitea", KKK, 245. or.

(19) A. OIHENART, *Proverbes et poesies basques* (1657-1664), "Izpegi", Baigorri, 1992, 57. or.

4. MOLDE XEHEAK

4.1. TESTUAK

a. *Hegoaldeko idazkera*

"Izan zaite beti,	6-
Jesus maitea,	5a
nere bihotzaren	6-
Jaun da Jabea" (20)	5a
"Begira, Jauna	5-
ez nadin gal:	4a
erakuts beni	5-
bihotz zabal" (21)	4a

b. *Ifaraldeko idazkera*

"Uztazu hurrantzera, amore maite;	11A
Orai partitzeko damu ginate" (22)	11A
"Amoriak: -Othoi, parti gitezen,	11A
Jendiak diradela hasi bekhaitzen.	11A
Laidoz hartu gabe parti gitezen,	11A
Jendek irrigarri gerta ezkiten" (23)	11A
"Begira; Jauna, ez nadin gal:	9A
erakuts neri bihotz zabal" (24)	9A

4.2. IZENDATZEA

Orokorki multzo bereko beste moduluak bezala izenda daitezke: lauko, seiko eta abar Hegoaldean; bi puntuko edo lau puntuko eta abar Ifarraldeko usarioan.

Baina, silaben kopuruak ezartzen duen bereizketa, lehen handia, ertaina, txikia esanez izendatu ditugunak, oraingo hauek nola esan ez da

(20) Eliz kantu ezaguna.
(21) X. IRATZEDER-G. LERCHUNDI, *Salmoak*, in "Ezkila", Urt. 1968, 61. or.
(22) B. DECHEPARE, *Linguae Vasconum primitive*, in "Edili", Donostia, 1968, "Amorosen disputa", 104. or.
(23) ID., ibid.
(24) X. IRATZEDER-G. LERCHUNDI, ibid.

erabiltzen izen ezagunik, nahiz eta "molde xeheak" esanez izenda daitezkeen, hala nola: lauko xehea, (6+5) silabez; lauko xehea (5+4) silabez.

Ifarraldekoek ere, lehengo sistemari jarraituz, izenda ditzakete modulutxo hauek bi, lau puntuko xehea esanez, hala nola bi puntuko xehea 11 silabez; lau puntuko xehea 11 silabez; bi puntuko xehea 9 silabez.

II. MULTZOA

HEMISTIKIO BERDINAK

1. *Ezaugarri teknikoak:* lerro jakinak, isosilabikoak, hemistikio berdinak silabez, eta monorrimoak.

2. *Izendatzea:* hemistikiorik markatzen ez bada, berdin idazten da hegoaldean eta ifarraldean. Beraz, berdin izendatu beharko lirateke. Horrenbeste lerroko berdina: biko, hiruko, lauko, bosteko berdina... Eta zehazteko, zenbat silabako berdinak diren esanez egingo litzateke.

Hemistikioak markatzen badira, orduan esango litzateke: hegoaldean, lauko, seiko, zortziko, hamarreko berdina, honenbeste silabez eta honenbeste puntuz. Ifarraldean, berriz, honenbesteko berdina, honenbeste silabez.

Beraz, hemen ere bertso-lerroak markatzen dira lehenik, gero "berdinak" izatea, hau denez multzoaren ezaugarri jakina, eta gero xehetasun beharrezkoenak, zenbat silaba eta hegoaldean zenbat puntu ere bai hemistikio puntugabeak egon daitezkeenez.

3. *Eredu erabilienak:* lehenengo multzokoak baino gutxiago dirateke eskuarki. Hala ere, bada horrelakorik, euskal kantutegian batez ere.

1. HEMISTIKIOAK BEREZI GABE IDATZIAK (H) eta (I)

1.1. TESTUAK

"On bihurtu du bidea,	8a
otoitz-giro nahigabea,	8a
uste on bakardadea" (25)	8a

(25) *Orduen Liturgia,* Iruñea-Baiona-Gasteiz-Bilbo-Donostia, 1977, 629. or.

"Mehetegiko xakurra	8a
zangoz, errainez makurra,	8a
berga bat luze muturra,	8a
larrutik hurbil hezurra,	8a
urte guzian barura,	8a
zeren den toki xuhurra" (26)	8a
"Arnoa zuten Bordalekotik,	10A
edo bertzela taula zokotik,	10A
agollatua ongi uretik;	10A
edan dezagun beraz gogotik,	10A
orditziaren beldurra gatik,	10A
horrek ez gaitik joko burutik" (27)	10A

1.2. IZENDATZEA

– Hiruko berdina zortzi silabez
– Seiko berdina zortzi silabez
– Seiko berdina hamar silabez

Berdin idazten direnez Ifarraldean eta Hegoaldean, izen bera behar lukete eraman. Eta hemen proposaturiko izenetan, kontuan hartzen dira: zenbat bertso lerro dituen; gero, berdintasuna, multzoaren ezaugarria; eta azkenik silaben kopurua, ereduak bereizteko.

2. HEMISTIKIOAK BEREZIRIK IDATZIAK

2.1. TESTUAK

a. *Hegoaldeko idazkera*

"Agur, Jainkoaren	6-
Ama, maite, ederra,	6a
zeruko atea,	6-
itsasoko izarra" (28)	6a
Zatoz zintzoen barnera,	8-
Espiritu sortarazle,	8a

(26) KKK, 193. or.
(27) KKK, "Ezpeleta herrian", 221. or.
(28) *Orduen Liturgia,* 622. or.

bete graziaz bihotzak, 8-
Zu baizaituzte egile" (29) 8a

b. *Ifarraldeko idazkera*

"Agur, Jainkoaren Ama, maite, ederra; 12 (6+6)A
zeruko atea, itsasoko izarra" 12 (6+6)A

"Zatoz, zintzoen barnera, Espiritu sortarazle; 16 (8+8)A
bete graziaz bihotzak, Zu baizaituzte egile" 16 (8+8)A

2.2. IZENDATZEA

a. *Hegoaldean*

— Lauko berdina sei silabez eta bi puntuz
— Lauko berdina zortzi silabez eta bi puntuz

b. *Ifarraldean*

— Biko berdina hamabi silabez.
— Biko berdina hamasei silabez.

III. MULTZOA

KOPLA ERA

1. *Ezaugarri teknikoak:* lerro jakinak, anisosilabikoa, monorrimoa. Silaben konbinaketan, hemistikio laburrak bakarrik erabiltzeko joera agertzen da, hemistikio luzea behin bakarrik aipatzen delarik.

2. *Izendatzea:* kopla hitza hartu daiteke multzo hau izendatzeko. Kopla deitzen zaio eske-bertsotan erabili ohi den moduluari, eta berau da horrelako multzoaren funtsezko eredua eta paradigma, nahiz eta izen orokorra ere baden, batez ere ifarraldean (koblakaria) eta Bizkaian bi puntuko eske-bertsoak. Hala ere, esanahi zehatza har dezake euskal metrikaren barruan, hemistikio laburrak jarraian erabiltzeko joera markatzen duena hain zuzen.

(29) Ibid., 594. or. Orixek erabili moldea gorazarreetan.

3. *Eredu erabilienak:* agian molde nagusikoak dira, besteak ez hainbeste. Molde berdinekoak ditu hasierako eta bukaerako hemistikioak. Baina tarteko hemistikio puntugabeak ematen dio berezitasuna, arnasa, diskurtsu poetikoa lasaituz eta esanahitsu bihurtuz.

1. KOPLA

1.1. TESTUAK

a. *Hegoaldeko idazkera*

"Eder zeruan izarra,
erredaldian lizarra.
Etxe hontako nagusi jaunak
urre gorriz du bizarra" (30)

"Uso polit bat, zer pena!
ezer txarrik ez zuena;
bihotz oneko begi zabala
borondatia diena,
herrian zen ederrena,
arrosa zirudiena" (31)

"Bertsuak jartzen naiz hasi,
kopiatuaz ta guzi,
nahi dituenak ikasi;
Afrika aldera oraingo aldian
gazteri haundiak doazi;
diote adierazi,
ez dela joan behar ihesi;
amak negarrez daudezi" (32)

b. *Ifarraldeko idazkera*

"Eder zeruan izarra,
erredaldian lizarra.
Etxe hontako nagusi jaunak urre gorriz du bizarra"

(30) M. LEKUONA, *Literatura oral vasca*, in "Idaz-lan guztiak", "Karadaberaz bilduma", 22. z., 1. t., "Aozko Literatura", Gasteiz, 1978, 343. or.

(31) *Bertsolariya* (1931-1932), "Makazaga", Errenteria, 55. or.

(32) A. ZAVALA, *Paulo Yanzi ta bere lagunen bertsoak*, in "Auspoa", 77-78. zz., 76. or.

"Uso polit bat, zer pena!
ezer txarrik ez zuena;
bihotz oneko begi zabala borondatia diena,
herrian zen ederrena,
arrosa zirudiena"

"Bertsuak jartzen naiz hasi,
kopiatuaz ta guzi,
nahi dituenak ikasi;
Afrika aldera oraingo aldian gazteri haundiak doazi;
diote adierazi,
ez dela joan behar ihesi;
amak negarrez daudezi"

1.2. ESKEMA METRIKOAK

a. *Hegoaldeko idazkera*

		8a
8a	8a	8a
8a	8a	8a
10-	10-	10-
8a	8a	8a
8a	8a	8a
	8a	8a
		8a

b. *Ifarraldeko idazkera*

		8a
8a	8a	8a
8a	8a	8a
18a	18a	18a
8a	8a	8a
	8a	8a
		8a

1.3. IZENDAPENA

Bi usarioetan berdin, kopla hitzaren bidez izendatzen direnez, bietan berdin izan litekeena.

– Kopla
– Kopla nagusia
– Kopla luzea

2. KOPLA ERTAINA

2.1. TESTUAK

"Nere senar tontozko,	7a
arto-jale aundizko:	7a
zazpi talo behar ditu	8-
otorduan jateko" (33)	7a

2.2. IZENDAPENA

Bi usariotan berdin, aurrekoan esan dugunaren arabera.

– Kopla ertaina

3. KOPLA TXIKIA

3.1. TESTUAK

"Hor goian etxea,	6a
jo daigun atea;	6a
gizonak bentanara	7-
nekez irtetzea!" (34)	6a

3.2. IZENDAPENA

Bi usariotan berdin, gorago esandakoaren arabera.

– Kopla txikia

(33) A. ZATARAIN, ibid., 693. or.
(34) ID., ibid.

IV. MULTZOA

PUNTUAK MOLDEA

1. *Ezaugarri teknikoak:* lerro jakinak, anisosilabikoak, monorrimoak, hiru hemistikio-mota, eta 6A estikoa bost, lau eta hiru aldiz errepikatzeko moldea eta abilezia.

2. *Izendatzea:* puntu anitz edukitzeak markatzen du multzo honen bereiztasuna. Eta alderdi hau aipatzea izan da horrelako moldeak izendatzeko erabili izan den hitza. Eta izen egokia eta erosoa dirudi honek gure sailkapenerako.

3. *Eredu erabilienak:* Bederatzi eta zortzi puntukoak dira aipatuenak bertsolaritzaren esparruan. Sei puntukoa gehitzen diogu, molde bereko ezaugarriak dituelako.

Bestalde, gaur egungo bertsolariek badituzte zenbait estrofa bederatzi puntukoak deitzen dituztenak: puntuen ugaritasuna dute gogoan, noski. Hauek izenda litezke "bederatzi puntuko berria" esanez. Hemen sartuko genuke, baita ere, ifarraldeko "Iduzki denian" kantu ezaguna.

1. PUNTUAK MOLDEA

1.1. TESTUAK

"Ostegun joandanian
hamabost Hernanin,
betroi baten tratua
genuen egin;
Inazio saltzaile,
erostuna Fermin;
hemeretzi ezkutu
genion eragin;
sabelian du min,
inork ase ezin,
artuari muzin,
ez du nahi edozin;
atzetik behar ditu
zazpi medezin" (35)

(35) A. ZAVALA, *Xenpelar bertsolaria*, in "Auspoa", 88-89-90. zz., "Betroyarenak", Donostia, 1969, 295. or.

"Frantxisku zer dakarrek
hik gure herritik?
aspaldian ez diat
hango berririk.
Zerbait jakin nahi nikek
alderdi hartatik:
haserria niagok,
ez dek milagrorik.
Ez diat egunik,
ez eta arratsik,
sinista nazak hik,
pentsamentuz etxera
joan gabetanik" (36)

"Aizazu, Suantxa,
zer modu daukazu?
Pobre eta alegre,
zer esain degu!
Soka bat ekatzu;
lotu bear zaitugu,
baina ez izutu;
agintzen digutena
ein bearko degu" (37)

b. *Ifarraldeko idazkera*

"Ostegun joandanian hamabost Hernanin,
betroi baten tratua genuen egin;
Inazio saltzaile, erostuna Fermin;
hemeretzi ezkutu genion eragin;
sabelian du min,
inork ase ezin,
artuari muzin,
ez du nahi edozin;
atzetik behar ditu zazpi medezin"

"Frantxisku zer dakarrek hik gure herritik?
aspaldian ez diat hango berririk.
Zerbait jakin nahi nikek alderdi hartatik:
haserria niagok, ez dek milagrorik.

(36) J. DORRONSORO, *Bertsotan, 1789-1936*, "Elexpuru", Bilbo, 1981, 26. or.
(37) ID. ibid., 24. or.

Ez diat egunik,
ez eta arratsik,
sinista nazak hik,
pentsamentuz etxera joan gabetanik"

"Aizazu, Suantxa, zer modu daukazu?
Pobre eta alegre, zer esain degu!
Soka bat ekatzu;
lotu bear zaitugu,
baina ez izutu;
agintzen digutena ein bearko degu"

1.2. ESKEMA METRIKOAK

7-	7-	6-
6a	6a	6a
7-	7-	7-
5a	5a	5a
7-	7-	
6a	6a	
7-	7-	
6a	6a	
6a	6a	6a
6a	6a	6a
6a	6a	6a
6a		
7-	7-	7-
5a	5a	5a

b. *Ifarraldeko idazkera*

13A	13A	12A
12A	12A	12A
13A	13A	
13A	13A	
6a	6a	6a
6a	6a	6a
6a	6a	6a
6a		
12A	12A	12A

1.3. IZENDAPENA

Bi usarioetan berdin, gorago esan dugunari jarraituz. Beraz izango litzateke:

– Bederatzi puntukoa
– Zortzi puntukoa
– Sei puntukoa

Oharra: Gogora dezagun I. multzoan, ifarraldekoek "puntua" hitzarekin egiten dutela beren izendatzea. Bereizketa, hala ere, nahiko argi dago, I. multzoan zehaztu egiten denez zernolako hedadura duen bertso-lerroak: handia, ertaina, txikia, xehea. Hemen berriz zenbat puntu dituen estrofak, ez da besterik zehazten.

2. BEDERATZI PUNTUKO BERRIAK

2.1. TESTUAK

"Gustagarria gertatu zait gaur
albotik datorren hitza
hoiek daukate gaur eguneko
etorkizunaren giltza
hargatik nere amodioan
nai nuke berentzat mintza
beren artean dagoelako
gure semeen emaitza
sarri hoiekin konpondutzea
gertatuagatik gaitza
denok zaletu gabiltza
neurria hartu al balitza
al dan ondoen bete nai nuke
eskatzen duten baldintza
emakumeei begira baita
gaur Lopetegin bizitza" (38)

"Itsaso hori dago zatarra
nere oihua eta negarra
untzi bat horra nun azaltzen den
nik behar nuen izarra (bis)

(38) J. LOPATEGI, *Bertsolari Txapelketa 1982, Jagon* bilduma, Euskaltzaindia, Bilbo, 1983, 304. or.

oraintxe sartu zait arra
berriz piztutzeko garra
baina hau da zoritxarra
ikusi naute aurrean eta
ai hau destino baldarra
laguna ondotik pasatu eta
nik hemen ito beharra (bis)" (39)

b. *Ifarraldeko idazkera*

"Gustagarria gertatu zait gaur albotik datorren hitza
hoiek daukate gaur eguneko etorkizunaren giltza
hargatik nere amodioan nai nuke berentzat mintza
beren artean dagoelakogure semeen emaitza
sarri hoiekin konpondutzeagertatuagatik gaitza
denok zaletu gabiltza
neurria hartu al balitza
al dan ondoen bete nai nukeeskatzen duten baldintza
emakumeei begira baitagaur Lopetegin bizitza"

"Itsaso hori dago zatarra
nere oihua eta negarra
untzi bat horra nun azaltzen den nik behar nuen izarra (bis)
oraintxe sartu zait arra
berriz piztutzeko garra
baina hau da zoritxarra
ikusi naute aurrean eta ai hau destino baldarra
laguna ondotik pasatu eta nik hemen ito beharra (bis)"

(39) X. AMURIZA, ibid., 317. or.

2.2. ESKEMA METRIKOAK

10-	10A
8a	10A
10-	10-
8a	8a (bis)
10-	8a
8a	8a
10-	8a
8a	10-

10-	8a
8a	10-
8a	8a (bis)
8a	
10-	
8a	
10-	
8a	

b. *Ifarraldeko idazkera*

18A	10A
18A	10A
18A	18A
18A	8a
18A	8a
8a	8a
8a	18A
18A	18A (bis)
18A	

2.3. IZENDAPENA

Asko ugaldu dira horrelako moduluak bertsolarien artean txapelketen eraginez gehienbat.

Bederatzi puntukoa deitzen diote bertsolariek.

Har liteke "bederatzi puntuko berria", "zortzi puntuko berria", horrelako estrofak izendatzeko.

V. MULTZOA

HAUTSIAK

1. *Ezaugarri teknikoak:* lerro jakinak, anisosilabikoak, bertso-lerro ereduak nahasian, eta inoiz plurirrimoak.

2. *Izendatzea:* alderdirik aipagarriena dute estrofok hautsi egiten dutela molde jakin bat, moldeak nahastuz edo/eta errimak ere aldatuz. Horregatik, estrofa hautsiak dei dakieke horrelakoei.

Alde orokorra deituko litzateke estrofa-mota zein eredutakoa den aipatuz; eta alde berezian hautsia dela esanez.

3. *Eredu erabilienak:* bertsolaritzakoak eta kantutegietakoak aipatuko genituzke batez ere.

1. HAUTSIAK DERITZATEN MOLDEAK

1.1. TESTUAK

"Iparragirren bozian ditut
bertso berriak paratu
Gipuzkoako euskal erria
al-banezake nombratu;
asko ezkongai daude,
gustokorikan gabe,
ezin dutela topatu;
projimuari erakustia
ez da izango pekatu" (40)

"Jesukristori kendu ezkero
pekatuakin bizitza,
baldin ez badet negar egiten
harrizkoa det bihotza;
guztiok lagun,
kanta dezagun
bere penazko heriotza" (41)

"Iya guriak egin du,
badegu zeinek agindu;

(40) A. ZAVALA, *Xenpelar bertsolaria*, ibid., 167 or.

(41) A. BASTERRECHEA, *Jesu-Christo gure Jaunaren Passioa*, in J. Urquijo, Del teatro litúrgico en el País Vasco. "La Passion Trobada" de Diego de San Pedro (representada en Lesaca en 1566), RIEV, 22 (1931), 211. or.

ez oraindik umildu
elkarrengana bildu;
gerra nahi duen guzia,
berari kendu bizia!" (42)

"Albaiteruen sala
demonio hartan,
demoniozko estropezu bat
egin nuen bertan.
Demonioak hemen,
demonioak han,
demonioak nonahi
gorputzaren bueltan.
Demonioak sasoi zeukaten
demonioetan" (43)

"Urrikaldu nintzen ta
egin nion kura (bis)
Etxian zen botika,
gatza eta ura.
Joxe Bentura:
ez gehiago etorri
gure konbentura" (44)

"Aizak, Mañuel maiñontzi,
hurrengorako goraintzi,
ez al hakiken hor pipa hartzia
ez zela lizentzi?
Jenio txar hoiek utzi,
bestela hezurrak hautsi.
Giza legea nola behar den
ezin erakutsi!" (45)

b. *Ifarraldeko idazkera*

"Iparragirren bozian ditut bertso berriak paratu
Gipuzkoako euskal erria al-banezake nombratu;
asko ezkongai daude,
gustokorikan gabe,

(42) A. ZAVALA, ibid., 410. or.
(43) A. ZAVALA, *Txirrita*, ibid., 32. or.
(44) Herrikoia, J.J. Mitxelenari Oiartzunen jasoa.
(45) M. LEKUONA, *Literatura oral vasca*, ibid., 382. or.

ezin dutela topatu;
projimuari erakustia ez da izango pekatu"

"Jesukristori kendu ezkero pekatuakin bizitza,
baldin ez badet negar egiten harrizkoa det bihotza;
guztiok lagun,
kanta dezagun
bere penazko heriotza"

"Iya guriak egin du,
badegu zeinek agindu;
ez oraindik umildu
elkarrengana bildu;
gerra nahi duen guzia,
berari kendu bizia!"

"Albaiteruen sala demonio hartan,
demoniozko estropezu bat egin nuen bertan.
Demonioak hemen, demonioak han,
demonioak nonahi gorputzaren bueltan.
Demonioak sasoi zeukaten demonioetan"

"Urrikaldu nintzen ta egin nion kura (bis)
Etxian zen botika, gatza eta ura.
Joxe Bentura:
ez gehiago etorri gure konbentura"

"Aizak, Mañuel maiñontzi,
hurrengorako goraintzi,
ez al hakiken hor pipa hartzia ez zela lizentzi?
Jenio txar hoiek utzi,
bestela hezurrak hautsi.
Giza legea nola behar den ezin erakutsi!"

1.2. ESKEMA METRIKOAK

10-8a	10-8a	8a	7-6a	7-6a	8a
10-8a	10-8a	8a	10-6a	7-6a	8a
7b	5b	7a	7-6a	5a	10-6a
7b	5b	8b	7-6a	7-6a	8a
8a	8a	8b	7-6a		8a
10-8a			10-6a		10-6a

b. *Ifarraldeko idazkera*

18A	18A	8a	13A	13A	8a
18A	18A	8a	16A	13A	8a
7b	5b	7a	13A	5a	16A
7b	5b	7a	13A	13A	8a
8a	8a	8b	16A		8a
18A		8b			16A

1.3. IZENDAPENA

a. *Hegoaldean*

- Zortziko handi hautsia
- Seiko handi hautsia
- Seiko berdin hautsia
- Hamarreko txiki hautsia
- Zortziko txiki hautsia
- Kopla bikoitz hautsia

b. *Ifarraldean*

- Lau puntuko handi hautsia
- Hiru puntuko handi hautsia
- Seiko berdin hautsia
- Bost puntuko txiki hautsia
- Lau puntuko txiki hautsia
- Kopla bikoitz hautsia

VI. MULTZOA

BEREZIAK

1. *Ezaugarri teknikoak:* lerro jakinak, anisosilabikoak, plurirrimoak, moldeak nahasian, hamar silabatik (10A/ 10-) goragoko hemistikioak ere bai tartean eta 7-/6-tik beheragokoak ere bai; eta etenak leku desberdinetan.

2. *Izendatzea:* moldeak nahasian da haren ezaugarri jakinetako bat, eta gainera, bertso-lerroen luze-laburra, eta errimen zenbakia. Beraz, ho-

nela izenda daitezke: honenbeste lerroko "nahasi-berezia" eta plurirrimoa (nahiz monorrimoa)

3. *Eredu erabilienak:* hauek ere bertsolaritzan eta kantutegian dauzkagu batez ere.

Badirudi estrofa-eredua erdal kanturen batek ezartzen duela, ahotan dabilelako noski.

1. BEREZIAK DERITZATEN MOLDEAK

1.1. TESTUAK

"Maite bat maitatzen den maitagarria;
begi ederra du ta guztiz argia;
daukat urruti,
baina ezin kendu det buruti
haren itxura.
Saldu ahal baliteke pisura
urriaren truke,
nork erosi faltako ez luke" (46)

"Iragan besta biharamunian,
berek dakiten xoko batian.
Lau andre hirur mutxurdin, bat alarguna, jarriak itzalian.
Harri xabal bat belaunen gainian,
ari ziren, ari ziren trukian" (47)

"Nagusi jauna, hauxe da lana,
amak bialtzen nau berorrengana.
Ai! bialduko bazinduke maiz,
zu ikusita kontsolatzen naiz.
Sinista zazu,
oso txoraturikan naukazu,
horren polita nola zera zu?" (48)

"Bertzek erran bai-tute nik baino lehen:
anitz aditu dela anitz ikasten.
Uste dut on den.
Nik dakidan bezala guziek arren

(46) S. ONAINDIA, *Milla Euskal-Olerki Eder*, ibid., 382. or.
(47) KKK, "Iragan besta biharamunian", 223. or.
(48) I. BIZKARRONDO, "Bilintx", *Bertso ta lan guztiak*, in "Auspoa", 12. z., Zarautz, 1961, 77. or.

jakin dezaten.
Beraz, aipa dezagun Maria nor den" (49)

Bizkaia ta Aragoa
gero Castilla;
diferentziarikan
ez dute milla,
leku zirtzilla.
Nere alojatzeko
lasto txar billa,
umil umilla.
Han bizi nahi duena
ito dedilla" (50)

1.2. ESKEMA METRIKOAK

12A	11A	10A	12A	7-
12A	11A	11A	12A	5a
5b	20A	10B	5a	7-
10B	11A	10B	12A	5a
5c	11A	5c	5a	5a
10C		10C	12A	7-
5d		10C		5a
10D				5a
				7-
				5a

1.3. IZENDAPENA

– Zortziko "nahasi-berezia", plurirrimoa.
– Bosteko "nahasi-berezia", monorrimoa.
– Zortziko "nahasi-berezia", plurirrimoa.
– Sei puntuko "nahasi-berezia", monorrimoa (I)
– Hamarreko "nahasi-berezia", monorrimoa (H)

(49) J.B. ELIZANBURU, in S. Onaindia, *Milla Euskal-Olerki Eder*, ibid., 542. or.
(50) N. ORMAETXEA, "Orixe": Erderaz *seguidilla* esaten zaion ahapaldi edo estrofak eraontaratsu jotzen du, ta euskeraz ba ditugu beste bertso batzuk ezagunak". In "Orainda-ñoko euskal-neurtitzak (1)", *Idazlan guztiak,* III. t., "Artikuluak eta saiakerak", Etor, Donostia, 1991, 340. or.

4. AZKEN ZEHAZTAPENAK

Estrofak bakarrik modulu metriko guztiak agortzen ez dituen bezala, guk hemen aurkezturiko eredu estrofikoek ere ez dituzte agortzen estrofa-mota guztiak. Aukera bat egiten dugu eta sistematze bat eskaintzen, lagungarri on gertatuko delakoan.

Gaur egun egindako sailkatze-lana da hau; eta kantua batez ere gogoan edukiz eginikoa gainera.

Gaur egun eginiko lana dela esatean, adierazi nahi dugu, oraingo egoera izan dugula begiaurrean, hau da, poesia eskuarki estrofismotik urruti dabilen garaikoa. Eta bestalde, bertsolaritzak, pastoralak eta kantugintzak ia bakarrik estrofak erabiltzen dituzten unean egina dela gure lan hau. Izan ere, kantua baita gehienik agintzen duena, ez bakarrik euskal estrofen erabileran, baita ikerkuntzan eta dibulgazioan ere azken urteotan.

Gauza sinkroniko bat eskaintzen dugu oraingoz. Badaude lan partzialak estrofei buruzkoak autore jakinei buruzkoak, oso kontuan hartzekoak. Baina agian ongi landu gabe daukagu estrofen aurkezpen diakroniko bat, zehaztasun egokiekin hornitua, euskal literaturaren historiako uneak bereiziz.

Hala ere, badugu irizpide nahiko onarturik ikuspegi diakroniko hau dela eta. Adibidez:

– Ez direla autore asko izan estrofen alderdi fono-estilistikoak sistematikoki landu dituztenak: mugimendu eta autore banakak izan direla hori egin dutenak, inguruko erdal literaturekin erkatuz gero behintzat.

– Baina nahiko ugaria dela estrofa-moten altxorra, batez ere mugaz bi aldetakoa kontuan hartzen bada.

– Garrantzizkoak direla guretzat zenbait mugimendu estrofismotik begiratu eta: ernazimendu-ondoko poetak (Etcheberri, Oihenart); antzerkigileak (Barrutia, S. Baroja); XIX. mendeko poeta-kantugileak; "Olerti" inguruko olerkariak (Lizardi, Lauaxeta); eta berriro estrofa herrikoietan aritu zirenak (S. Mitxelena, Aresti...) Eta gaurko poesian dagoen estrofarik eza.

– Gero itzulpenen eragina legoke markatu beharra, bai Frantziako eraginpean eginikoetan (S. Monho, J.B. Camoussarri) bai Espainikoan ("Jautarkol", "Satarka", "Orixe"...)

– Kantutegietan oinarri hartzeak segurantzia bat ematen digu; ez eredu denak hartzen ditugulako, baizik eta eredu hauekin, eta beren aldaerekin, beste asko ere hartzen ditugulako; gaurko sentiberatasunari ai-

tormen bat egiten diogulako; eta euskal estrofismoaren ikuspegi nahiko zabala eta berarizkoa ematen delako. Guzti hauekin hurbiltzea nahi genuke horrelako lan bat hastean aurrean dituzun helburuetara: euskal estrofen sistematizazio bat eta izendatze bat lortzera.

BERTSO LERROA

Patxi Altuna

1. Hegoaldeko usarioaren arabera eskuarki "bertsoa" deitu ohi genuena, —diogun arruntki, ezkerretik eskuinerainoko hitz erreskada, luzea nahiz laburra— gaurgero "bertso lerroa" edo soilki lerroa izendatuko omen da; ahapaldi edo estrofa osoa, berriz, Iparraldeko ohituraren arabera "bertsoa". Eta "neurtitza" zer? Jakina denez, Oihenartek asmatua da hitz hori eta *Adigarria* deritzan hiztegiñoan dioenez, "*Neurtitz*, vers, de *Neurtu hitz*, mots mesurés" esan nahi du. Bistan da gerkerazko *métron* zuela buruan eta hura itzuli nahi izan zuela. Iritzi bereko da Mitxelena, aurrerago esango baitigu "euskal neurtitzen oinarri" dela silaba; horrenbestez garbi dago hau ere berez "lerro" deituko dugunaren pareko dela.

Hori ez da orain lehenbiziko aldiz gure artean egiten. Proposamen hau Mitxelenak 1978an Arestiren *Maldan behera*-ko zenbait bertsoz ari zela idatzi zuenarekin ongi dator, nahiz eta, gazteleraz mintzo zelako, "lerro" hitza aipatu ez zuen, baina bai "línea", euskarazkoaren erdal ordaina, "bertsoa" besterik zela esanez. Honela zioen: "Ya se sabe que pausas y cesuras constituyen un elemento fundamental de buena parte del verso vasco conocido, si no de todo su conjunto. La disposición en versos (es decir, en líneas, por decirlo a la inglesa, ya que vasc. bertso', etc., sul. berset', tampoco significa vèrso', sino más bien èstrofa') es arbitraria y cada una de las seis líneas de una estrofa, al igual que las de todas sus similares, podría dividirse sin excepción en dos partes..." (1).

Hori, da eskaini didaten gaia, "bertso lerroa", hartaz txosten txiki bat molda dezadan eskatuz eta, nondik edo handik gaiari ekin behar baitzaio, Mitxelenaren aipamen horrek eskaintzen didan heldulekuari eutsi eta hortixek abiatuko naiz, haren hitzak berriro errepikatuz, orain euskaraz: ezagutzen ditugun euskal bertso, guzien ez bada, askotxoren oinarrizko osagaiak omen dira pausaldiak eta etena. Mitxelenaren baieztapen hori asertiboa da, ez exklusiboa, eta ez dugu pentsatu behar horiek

(1) MITXELENA, K.: "Miscelánea Filológica Vasca", FLV, 1978, 30. zb., 409. or.

direla euskal bertsoen osagai bakarrak, ez eta garrantzitsuenak ere, orain esango digunez.

Bere *Historia de la Literatura Vasca*, 1960an argitaratuan, honela idatzi zuen: "Dejando a un lado los cantares más antiguos, de metro irregular, la versificación posterior está basada normalmente, como el mester de clerecía, en el número de sílabas y en la rima" (2). Bi urte geroago Joan Inazio Goikoetxea, "Gaztelu" izengoitiz ezagunagoak, bere *Musika ixilla* argitara eman zuenean, Mitxelenak egin zion kritikan honela zioen: "begi zorrotzez begiratu ohi dio (Gazteluk)... euskal neurkerari: ez zaio ez egokia iruditzen ez jatorra... Gazteluren ustez, ez lukete silabek izan behar —Detxeparez gero, gutxienez, diren bezala— euskal neurtitzen oinarri" (3).

Isiltzea ez da ukatzea. Mitxelenak azken aipamen honetan puntua isildu eta silabak bakarrik ahotan hartzen baditu, arrazoia bistan da: puntuaren kontra ez zuen ezer Gazteluk, silaben kontra bai, ez omen luketelako izan behar euskal neurtitzen oinarri; eta Mitxelena hauei bakarrik loturik, hala direla aitortzeaz gainera, aspalditik direla hala erantzuten dio, "Etxeparez gero gutxienez" (4). Beraz isiltze hori gorabehera, aurreko hitzei behatuz garbi dago Mitxelenarentzat lau hauek direla euskal neurtitzen oinarrizko osagaiak: hots, silaben kopurua, puntua, etena eta pausaldiak; bi azkenak ez, halere, nahitaezkoak. Lau hauetaz egin beharko dugu guk ere hitz erdi bat.

Azentuari dagokionez, berriz, euskal bertsogintzarekin batere zerikusirik ez duela dio *Historia* berean: "El acento no parece haber jugado ningún papel en las muestras que han llegado hasta nosotros, incluso en los dialectos que como el suletino tienen hoy un acento de intensidad parecido al del castellano, y tampoco, como es natural, las diferencias de cantidad" (5). Lafitte ere iritzi berekoa agertzen da honako hitz hauetan: "On est à peu près d'accord pour admettre que le vocalisme basque n'est pas sensible à la quantité", eta euskaran silaba luzeak ikusi uste izan dituztenek ez dutela halakorik ikusi, baizik hartu izan dituztela luzetzat doinuzko edota musikazko azentua zuten silabak (6).

(2) MITXELENA, K.: *Historia de la Literatura Vasca*, 1960, 64. or.

(3) MITXELENA, K., MEIG III, 23. zb., 107. or.

(4) Hamabost urte geroago modu berean pentsatzen segitzen du: "Orain eta lehentxeago, Etxeparez geroz, silaben kontua izan da neurkeraren muina, kontaketan bereizkuntzak aurkitzen badira ere. Lehenago, ordea, Erdo Aroko kanta zaharretan esaterako, bertsoak ez dira berdinak luze-laburrean, neurri jakin baten ingurutsuko badira ere. Itxura ohi baino engainagarriago gertatzen ez bada, gainera, badirudi *hitz andanek* badutela, silabek ez ezik, zer ikusirik antzinako, eta are geroko, euskal neurkerarekin" (K. Mitxelena, "Euskal hizkera eta euskal neurkera", MEIG IV, 24 zb., 93. or.).

(5) MITXELENA, K.: *Historia de la Literatura Vasca*, 64. or.

(6) LAFITTE, P.: "Les hexamètres de B. Borda", FLV 1978, 30. zb., 494. or.

Gaur inor gutxik jarriko ditu dudan Mitxelenaren hor goiko hitz horiek, non garbi bereizten baititu batetik silaba oinarri dutenak, "gutxienez Detxeparez gerozkoak" omen direnak, eta bestetik, beheraxeago dioen bezala, "silaba jakinik ez duten kanta zaharren neurria". Honenbestez, eta bestela bezala, esana utzi digu silaba kopuru jakineko bertsoak direla Etxeparerenak.

2. Zer da silaba, ordea, eta nola kontatzen dira lerro bateko silabak? Ez dirudi beti gauza erraza denik, Mitxelenak berak behin aitortu baitzuen: "uno no sabe muy bien cómo contaba Oihenart las sílabas: a mí al menos me resulta difícil llegar a una cuenta que concuerde siempre con la suya" (7). Nola jakin, hortaz, honako bertso-erdi honetan —"azken finian eman diazan"— edota harako beste hartan —"txoriak bere umeak baino"— zenbat silaba kontatu eta ahoskatu zituen egileak? Ikusi batera, silaba fonologiko hutsak kontatuz, hamar. Baina silaba fonologiko guziak silaba metriko al dira beti? Bertsogile guzientzat?

Egunoroko azturak erakusten digu ezetz. Eta ez bakarrik, askotan pentsatu ohi den bezala, elisioen edo sinalefen erruz; hor aipaturiko lerro-erdi horretan —"azken finian eman diazan" (Etxepare I, 40)— ez baita elisio-sinalefetarako biderik, eta halaz ere hori poetak zortzi silabaz bakarrik ahoskatu baitzuen, ez hamarrez, beste "txoriak bere / umeak baino" hura ere bere egileak zortziz kantatu zuen bezalaxe; nahiz eta gero beste euskalkietako interpretek hau hamar silabakotzat eduki izan duten, euskalki hauetan "txoriak" eta "umeak" hiruna silaba dituztela eta, jatorrizko euskalkian ere hala izan behar zituztela pentsaturik. Egia da, halaz ere, lerroan hitz bat bokalez amaitzen eta hurrengoa bokalez hasten denean direla maizenik desberdinak lerroko silabak kontatzeko moduak. Maizenik, baina ez beti; esate baterako, "Adios izar ederra (zazpi silaba) / Adios izarra" (sei) dioen herri kantan lehen "adios"-ek bi silaba ditu eta besteak hiru, dieresia dela bide.

Euskarak bere-berea zuen silabak kontatzeko moduaz gain beste bat, ikasia eta landua, ondu nahi izan zuen lehen mementutik beretik xixtren, desadostasunaren eta kalapitaren hazia erein zuen bere etxean. Elisio-sinalefen egikera arautu gabetik arautura pasa nahi izan zenez gero eta, behin asmatzen hasita, burua asko nekatu gabe arautzeko bide bat baino gehiago asma zitezkeenez gero, ikusia zegoen aurretik eskola edo iritzi edo joera, nolanahi deitzen dela, bat baino gehiago agertuko zirela, agertu ere ziren bezala. Lehenaz gain hiru, alafede!; eta, jakina, bertsogileak beretzat haietako zein onartzen duen, hark gehituko edo gutxituko du haren lerroetako silaben kopurua beste bat onartzen duen bertso-

(7) MITXELENA, K.: "Descubrimiento y redescubrimiento en textos vascos", FLV 1971, 8. zb., 153. or, 6. oharra

gilearenaren aldean. Bertso honek, esate baterako, "ia negua etorri da eta elurra ere bai", Oihenartentzat hamabi silaba baizik ezin izan ditzake, ez gehiago eta ez gutxiago; Etxeparerentzat, berriz, hamabost ere bai.

Zergatik? Euskal bertsogintzan elisio-sinalefak egin behar diren ala ez galderari lau eratako erantzunak, esan bezala, eman zaizkiolako, eta Etxeparek eta Oihenartek nork berea. Hona laurak laburkiro. Bat: Oihenartek "Bai, eta beti gainera, nahitaez", erantzun zuen. Bi: Arana Goirik haren araua pixka bat eztituriK: "Beti ez, ia beti", eta bi lege eman zituen noiz bai eta noiz ez jakiteko. Hiru: "Inoiz ez, edo ahal den gutxiena bederen", irakatsi zuen Jose Ignazio Aranak, eta hala egin, adibidez, Hiribarrenek bere *Eskaldunak* poeman, hango bost mila eta laurehun bertso baino gehiagotan ez baitu sekula elisio-sinalefarik egiten, behin izan ezik ("Oren etsaia! Larak, noiz eta ere baitu"), eta orduan ere bortxaturik eta ezinbestean, "eta ere" hiru silabaz ahoskaturik, lerroa 7/6 silabakoa izan zedin. Lau: modu zaharrena, betikoa, bertsolariena: "Bai eta ez, komeni denean, aisiara, batere araurik gabe".

Bertsolariena esan dut, baina jende askok egungoak edo bart arratsekoak bakarrik baititu gogoan, on dateke hemen esatea eztabaida-gai dugun auzi honi dagokionez bertsolari zirela, besteak beste, Etxepare, Ziburuko Etxeberri eta Aresti, hiru bakarrik aipatzeko. Hona zer idatzi zuen Mitxelenak lehen aipatu dugun artikulu hartan Arestiz ari zela: "Todas las líneas, eso sí, tienen siempre trece sílabas porque Aresti, de acuerdo con la métrica tradicional (más que con la de Oihenart o la de los òlerkaris'), no se consideraba obligado a elidir vocales o a hacer sinalefas. En otras palabras, no evita el hiato, aunque no medie cesura o pausa: àrbol(a) adar-gabeen,' pero ùire arima dago', en grupos de 7 sílabas cada uno" (8).

Horra zergatik den garrantzitsua lerro baten silabak kontatzerakoan bertsogileak lau jokabide horietatik beretzat zein hautatu duen jakitea; eta horra zergatik den ezezkoa lehengo galderari ("silaba fonologiko guziak silaba metriko al dira beti?") eman behar zaion erantzuna. Honako lerro honek, esate baterako —"sosa gabe ez baita eskola fransesik" (9)—, hamahiru silaba fonologiko ditu edozein irakurlerentzat; Oihenartentzat, ordea, hamaika silaba metriko; Hiribarrenentzat, berriz, fonologiko adina metriko.

3. Zenbat silabakoak dira, ordea, bertso lerroak euskaraz? Ezen silabak euskal neurtitzen oinarri direla eta lau modutara konta daitezkeela agirian utzi dugu, baina ez dakigu oraindik, modu batera nahiz bestera

(8) MITXELENA, K.: "Miscelánea Filológica Vasca", 1978, 30. zb., 409. or.
(9) HIRIBARREN, J. M.: *Eskaldunak*, col. HORDAGO, 5. or.

konta, zenbat silabakoak diren. Iritziak bereiz dabiltza, egia esan, eta, laster esango dugunez, bereiz ibiliko dira, harik eta horri lotua dagoen beste puntu bat adituek argitzen duteino.

Diogun bizkitartean, zenbaiti jaramon egitekotan, txikiena bikoa eta handiena hogeita batekoa direla. Hala dio, esate baterako, Aita Arana azkoitiarrak: "desde versitos de dos solas sílabas hasta los de veinte y uno inclusive", erabilienak bostetik hamabostera bitartekoak (bederatzikoak, hamabikoak eta hamalaukoak izan ezik) direla gaineratuz (10). Silaba bikoaren exenplutzat hau aipatzen du:

(a) Nondik
Ator?
Goitik
Nator,
Nausia.

Hogeita batekoarentzat, berriz, berak onduriko hau::

(b) "Betiko Aitak Alaba maitea, bere ama seme Jaungoikoak, Pozkidaturik kantatzen duela Emaztetzat Megope Santubak"

Baina gehiagokorik ere bada eta laster aipatuko dugu Orixeren bat. Bi exenplu horiek mahaigaineratzen digute, hain zuzen, lehen aipatu dugun auzia, zein, esan baitugu, adituek argitzen duteino ezin jakin dezakegula zenbat silabakoak diren euskal lerroak. Alegia, zer da bertso lerroa euskaraz? Hori definitu behar da lehenik. "Ezkerretik eskuinerainoko hitz erreskada, luzea nahiz laburra" esan dugu txosten honen hasieran, baina hori esatea eta ezer ez esatea berdintsu da; kontua baita ea zer idatzi behar den ezkerretik eskuinera eta zer utzi behar hurrengo lerrorako. Bestela esan, hor goiko bi silabako lerroak omen dituen bertsoak, esate baterako, halakoak al ditu ala bi lauko eta hiruko bat?:

(c) "Nondik ator?
Goitik nator,
Nausia"

Eta beste hogeita bat omen dituenak, hainbeste al ditu eta lerro bakarra al da ala ez, baizik

(d) "Betiko Aitak Alaba maitea,	(5/6)
bere ama seme Jaungoikoak,	(10)
Pozkidaturik kantatzen duela	(5/6)
Emaztetzat Megope Santubak"	(10)

(10) ARANA, J. I., "Tratado de métrica vasca, 1872", FLV 1992, 24. zb., 130. or.

Izango dira, agian, lehen zatiketa (c) onartzen ez dutenak, esanez hor bi puntu daudela: "nondik/goitik" bata eta "ator/nator" bestea; beraz lau lerro osatzen dituztela lau hitz horiek. Hauentzat dotrina zuzena hau baita: zenbat puntu, hainbat lerro, eta punturik ez duena, ez da lerroa. Hori horrela izatekotan, zortziko handia deritzagunaren 10/8 silabek, esate baterako, hamazortzi silabako lerro bakarra osatuko lukete; halaber zortziko txikia deritzagunaren 7/6 silabek hamahirukoa. Alde horretatik Etxepareren 15 silabakoak behar bezala idatziak leudeke:

(e) "Munduian den gizon orok behar luke pensatu
Iangoikoak nola duien batbedera formatu"

Ez hain ongi, nonbait, Harizmendiren silaba kopuru bereko hauek (11):

(f) "Oren oro zuk dakizu
Zeren dugun premia:
Orai eta gero bethi
Zakizkigu balia"

Zer esan geure aldetik? Ez dugu garbi ikusten, egia esan, zergatik lerroak beti, lerro izateko, puntua behar duen izan eta zergatik ez duena ez den lerroa, baizik lerro-zatia, puntutik punturainokoa omen delako nahitaez lerroa. Nola froga hori? Baina garbi ikusi ez arren, ez dugu ere geure baitan kontrakarra handirik zenbait kasutan hori onartzeko eta Oihenartek bezala pentsatzeko, Ziburuko Etxeberriren *"Manual"*-az beste liburuetako lerroez ari delarik: "et les vers y sont de quinze syllabes, aussi bien que ceux du Manuel, non obstant qu'ils sont distribués en quatre versets, car de ces quatre ni en ayant que deux qui riment, les autres deux doivent être pris pour des hémistiches, et non pour des vers entiers" (12).

Ez gara gu, ordea, eztabaida horretan sartuko; guretzat aski da jakitea lerroak, luze samarra denean, hamabost silabatik-edo gorakoa, bere baitan dituela multzo edo lerro-zati batzuk, lerroaren pausaldiez edo etenez markatuak. Horren frogarik onena Arana beraren hamazortzi silabako omen diren (13) lerro hauetanxe dugu:

(g) "Aingeru danen Erregin dala, parerik gabe Zeruan
Ama Birjinak nola lezake antzekorikan munduan?"

(11) HARIZMENDI, C.: *L'Office de la Vierge Marie*, col. HORDAGO, 16. zb., 3. or.
(12) A. OIHENART: "L'Art Poétique Basque", Tirage à part de *Gure Herria*, 39. or.
(13) ARANA, J. I., "Tratado...", 149. or.

Bada horiek, hamazortzi silabako lerroak izan edo ez izan, ezin uka badirela bederen zortziko handiaren erdia:

(h) "Aingeru danen Erregin dala
parerik gabe Zeruan,
Ama Birjinak nola lezake
antzekorikan munduan?

Eta berriz ere lehengo auzira gatoz: bi lerro al dira horiek ala lau, modu batera nahiz bestera idatzi? Esan dugu guri ez zaigula hori asko axola; guri axola zaiguna da, bi direla dioenak ere aitor dezan halako lerroek bere baitan multzoak, zatiak dituztela, zesurak edo etenak erdibituak, komunzki hemistikio deituak, nahiz eta hauek silaba kopuru berbera ez eduki beti alde banatan.

Hogeita bat silabako baino gehiagokorik bazela esan dugu eta Orixeren hau izan daiteke horietako bat. Edo ez; nola hartzen den hemen ere lerroa. "Lenengo gaiñezkaldiak" deritza olerkiari eta honako lehen hau bezalako hamahiru multzo ditu:

Begoñako Karmel-
Elizara noa
Gergori-kanta-zun
Meza nagusira (14)

Zer da hori: bertsoa? lerroa? Sei silabako lau lerro dituen bertsoa ala lau zatitan —6+6+6+6— hogeita lau silaba dituen lerro bakarra, honela tolestatua ez egonagatik? Baldin bertsoa bada, horrek esan nahi du bertso delako horrek eta beste hamabiek hiru lehen lerroak segidan punturik gabe dituztela (ez al da askotxo?), eta halaber olerkiaren hamahiru "bertso" direlakoen "azken lerro" direlakoek bakar-bakarrik dutela puntua —beti "-ira/-ida"— beren artean. Baldin lerroa bada, berriz, olerkia hogeita lau silabako hamahiru lerro hoskidek osatzen dute.

Orixeren obra osoan ez dugu aurkitzen olerkirik, egia esan, sei silabako lau multzo lerro berean idatziak dituenik; bai, ordea, seiko hiru multzo dituenik, hala nola "Argi ta margo", *"Panpa*-etan izan", "Lur ikara", "Azken afaria" eta abar, non lerro bakoitza 6+6+6 emana baitago. Hori dela-eta, "Lenengo gañezkaldiak" deritzan hau ere ene ustez, eta iritzia eskatu diedan beste bizpahiru aditurenez, hala da, hogeita lau

(14) Orixe, in *Euskaldunak Poema eta Olerki Guziak*, Edit. Auñamendi, S. S., 1972, 584. or.

—6+6+6+6— silabako bertso-lerroa, eta ez sei silabako lau lerroko estrofa edo bertsoa.

4. Zein lerrok dute etena eta zein lerrok ez? Silaba gutxikoek ez baitute zatituak egon beharrik. Zenbat da, ordea, gutxi? Zenbat arterainokoek ez dute behar eta zenbatetik gorakoek bai? Hori jakiteko bide bakarra kopuru batekoak eta bestekoak aztertzea da. Egin dezagun hala.

Hamarren inguruan dirudi dagoela muga. Zortziko handiko lehen hamar silabak beti —ia beti bederen— 5/5 izan ohi dira, zesura edo etena erdi-erdian dutenak, alegia; aldiz horien ondoko zortziak ez dira beti 5/3 izaten, ezta gutxiago ere (15). Hori batetik. Bestetik Etxepareren X. kantuko lerroak hamaika silabakoak dira eta guziek dute etena seigarrenaren ondoan: 6/5.

Beraz zortzi silaba gutxiegi dira etena eramateko; hamar, aldiz, nahikoa dira gehienetan, ez beti; eta hamaika, zer esanik ez, beti. Eta bederatzi? Herri-bertsogintzan bederatzikoak ez bide dira oso ezagunak; "Ardoa edanda txoratzen naiz" eta beste bakarren bat. Hala esan digu Aranak ere hortxe goian, 3. zenbakian. Berak, bizpahiru lerro soltez gain, bertso bakarra dakar (16), eta itxura guzien arabera berak asmatua. Hauxe:

(i)	Mutil gipuztarra	9
	Gipuzkoatar / mutil ona	8
	Da ezagun hiru gauzatan:	9
	Sagardua edan / ibili oinez	8
	Eta jokatu pilotan	9
	Oaindic obeto / beste iru	8
	Ditu biziro beriak:	9
	Kristautasuna / erri-grina	8
	Ta alkarri lagun alaiak	

(Izengabia)

Utz dezagun alde batera bertso hau nork egina den, "izengabe" batek ala Aranak berak (neretzat Aranak; tituluko "gipuztarra" aski da sa-

(15) Ikus zer dioen honi buruz Mitxelenak lehen ere aipatu dugun pasartean Arestiren bertsogintzaz ari delarik: "Se trata simplemente del zorcico mayor, 10-8, 10-8, con rimas finales: (...). Más exactamente, sigue el esquema según el cual dentro de esa medida inalterable, se admite una partición normal, pero no sin excepciones, por la cual 10-8, 10-8 = 5/5//5/3 /// 5/5//5/3. (...) Esta subdivisión, insisto, no es inexorable. El corte puede caer en medio de palabra *(bizi/tegia)*, analizándola como si dijéramos en sus morfemas componentes. O la cesura puede estar situada de manera irregular como en *hegaztina kan/taria*, frente a *orduan nintzen garbia* (5/3), ambos en 6.° verso. (Mitxelena, K., FLV 1978, n.° 30, p. 409)

(16) ARANA, J. I., "Tratado...", 147. or.

latzeko; hala izatekotan, ezin genezake herri-bertsolaritzaren ispilutzat har); utz dezagun orobat, besterena izatekotan, neurriak Aranak ematen dituenak diren ala ez. Hori guzia utzirik eta kontuan harturik ia zortziko handia dela, lehen lerroan eta parekoetan silaba batez gutxitua, bidezko da bestea 5/5 bezala hau ere 5/4 izatea.

Nolanahi ere kopuru bereko bertso gehiago aztertu beharko lirateke eta, berriro esan, herri-bertsogintzan bederatzikoak ez dira sarri aurkitzen. Aldiz bertsogintza landuan eta ikasian Oihenarten testigantza dugu eskueran, eta ez olerki batean edo bitan, ezpada gehiagotan, lehenbizikotik hasita. Ikus batzuk.

Lehenbizikoan 5/4eko zenbait lerrok etena zor zaiela dirudite ("Zu begiztatuz geroz laket", "Geroz oihana lilitu da", "Ud ère negu, negi' uda", "Noiz ere batzen baitzitzautzat" eta abar), baina neurri hori gabe 4/5-eko batzuk ere agertzen dira ("Zuk nizaz nik zuzaz atsegin", "Minak zatiz arhinzen zautzat", "Orai zure minez hiltzera"), erabat debekatzen digutenak esatea lerro horiek etena dutela, zeren kantu edo olerki batek etena duela esateko silaba jakinaren ondoan behar baitu eraman kopuru bereko lerro guzietan.

Bosgarren olerkia oso interesgarria da. Hirurogeita bi lerro dituelarik, osoa dago distikoz egina: hamar silabakoz eta bederatzikoz. Orai bada, hamarrekoek beti bosgarren silabaren ondoan dute etena, 5/5 dira beti alegia; aldiz bederatzikoek ez, eta lehengo olerkian bezala 5/4 dira gehienak, baina 4/5 ere badira batzuk, eta are 3/6 ere bai ("Zu beti lehiatu zira", "Harzaz-huts zirate hospasu").

Eman diezaiogun begirada beste bati bakarrik, zortzigarren olerkiari, ez gehiegi luzatzearren. Eskema honetako, 9A-9A-12B-12B, zazpi bertsok osatzen dute. Lehengo beste bietan esan dena errepikatu behar da hemen ere bederatzi silabakoei dagokienez: ez dute taxu berdinik eta ez dute etena beti silaba jakin baten ondoan. Honenbestez garbi da, Oihenarti dihoakionez bederen, bederatzi silabako lerroek ez dutela eten edo zesurarik. Besterik da egungo egunean, Iratzederrek beti zesura duten 5/4koak maiz baitarabiltza. Beraz, esan bezala, hamarrean dago muga: hamar silabatik behekoek ez dute; hamarrekoek ia beti; hortik gorakoek beti. Hala idatzi zuen behin Zalduby-k ere: "8. règle. Dans les vers de dix syllabes et au-dessus, la césure ou hémistiche est de rigueur..." (17).

5. Zenbait silabako lerro arnasaldi batean esateko luzeegi gertatzen direla eta, zatiak bere baitan hartu behar dituztela ikusi dugun bezala, beste horrenbeste gertatzen zaie zati horiei, baldin horiek ere bere

(17) *Euskalduna*, 1899. III. 3, 611. zb.

aldetik luzeegiak badira. Bestela esan, hemistikio direlakoak ere "pausaldiek" erdibiturik hemistikio erdi bilakatzen dira eta halatan lerroa lau moldez edo lau adreiluz osatua gelditzen.

Baldin mugaren bila abiatzen bagara, ohartuko gara hamahiru silabakoei ez zaiela horrelakorik gertatzen. Hala nola, Iztuetaren hauei:

(j) Gauza askoren izen / txit antzinakoak
Maitaro gorde ditu / euskara zintzoak
Berenez diralako / eztitsu gozoak
Gutizia andia / diote auzoak.

Ez eta Arestiren Maldan beherako hauei ere, direla 6/7 eskema dutenak, direla 7/6 dutenak:

(k) Gurutze batetik / zintzilik hil artean
josiko zaitugu / biharko goizaldean
mintzatu zen ozenki / epai-emalea.

Aldiz hamabostekoei bai, eta hor ditugu gehiagoren artean Etxepareren ak eta Ziburuko Etxeberrirenak, honelako eskema, 4/4//4/3, ezagunarekin, batak ongi besteak ez hain ongi betetzen duenarekin.

Hamalaukoei? Ez bekigu ahantz, Aranaren ustez hauek ere gehiena erabilitako lerroen artean salbuespen direla, eta halere berak asmatutako hauek badituzte "pausaldiak"; ez, ordea, bi hemistikio lautan zatikaturik, aurrekoan bezala, baizik hamalauak hiru zati eginik. Honela: 5/5/4. Ikus

(l) Bere pausuak Eliz aldera zuzendurik
¡Ikusgarriya!, dauzka mundubak arriturik.

"Eten txikiak" ere deitzen zaie pausaldi hauei, nahiz azken horiek bezala zesura gabe lerroa hirutan zatikatzen dutenei, nahiz Etxepareren kasuan bezala, zesuraz gain hemistikio bakoitza ere erdibitzen dutenei; horregatik deitzen zaie hemistikio-erdiko pausaldiak ("pausas semihemistiquiales").

Ez da esan beharrik "txiki" deitzea ez dela inoren apetazko asmakizuna, baizik nori berea emateko modu zuzena. Esan nahi baita, badela jerarkia bat lerroaren kabuko geldialditik, luzeena denetik, hasi eta, etena edo zesura deitu dugunetik igaroz, txikiena den eten edo pausaldira iritxi arte. Jerarkia horrek markatzen du alabaina handitik txikira zein mailatako zangalatrauak egin daitezkeen horietako bakoitzean eta zeinetakoak ez: alegia, zenbat eta luzeagoa geldialdia, zenbat eta estuagoa hitzen lotura, hanbat eta ezinagoa bien bateratzea. Hau da, bi hitzen arteko lotura estuak biziki higuin du geldialdi luzea; estuagoak eta higuinago. Mitxelenagandik ikasirik aspaldi esana berresatea zilegi bazaigu, hona orduan gazteleraz idatzia: "pausas y cesura en el verso corres-

ponderían èx hypothesi' a ciertos (...) tipos de juntura (...), según que la pausa que cada uno de los cortes (...) implica sea mayor o menor" (18).

Puntuaz zerbait esatea geldituko litzaiguke, baina hori besteren eskuetan dago. Nik neure aldetik gauza txiki bat esango nuke, tradizioak erakusten diguna: herri-bertsolaritzak edozein puntu ontzat ematen du —nahiz gero aldien joan-etorrian gauzak aldatu eta "hobetu" diren—, baita ahulena ere, edota gaur ahulena dirudiena ere, baita ezein bertsolarik gaur erabiliko ez lukeena ere; hala nola "orduian : guziaz : sainduiak : finian". Eta horiek ez dira edozeinenak, ezagutzen ditugun "bertsolarietan" lehenbizikoa eta, norbaiten iritziz, hoberena izan omen zenarenak baizik ("Et je ne crois pas que ce soit un paradoxe de dire que notre premier poète basque est peut-être le plus grand", Gil Reicher), Etxeparerenak.

(18) ALTUNA, Patxi: *Versificación de Dechepare: métrica y pronunciación*, 26. or.

PUNTUA BERTSOLARITZAN

Pello Esnal

SARRERA

Bertsogintzan erabiltzen den puntua dugu txosten honetan aztergai. Hori aztertzera eta azaltzera mugatuko gara oraingoz, nahiz eta zabalagoa izan gure egitasmoa: ahozko literaturako puntua ezezik, euskal errima ere aztertzea, alegia.

Helburu xumea du gure lan honek: bidea urratzen hasi eta zenbait oinarrizko kontzeptu garbi uztea. Gero gerokoak.

Bost ataletan banatu dugu lana. Lehenengoan, oro har aurkeztu dugu puntua: puntua zer den, oina eta potoa zer diren, nola gauzatzen den hoskidetza. Bertsolaritzan aurkitzen ditugun bi puntu-motez dihardugu bigarren atalean: puntu luzeaz eta laburraz. Euskal puntuaren ezaugarri nagusienetako bat dugu aztergai hirugarren atalean: bikoitza eta deklinagarri izatea. Puntu luzearen eta laburraren legeak azaltzen saiatu gara laugarren atalean. Estilistika dugu bosgarren ataleko gaia: gutxieneko legea betez, zer-nolako aldaerak eta joera bereziak aurki ditzakegun puntuaren erabileran.

Esan dezagun, halaber, didaktikotasunez jokatu nahi izan dugula gaia azaltzean. Ahalik eta argien eman nahi izan dugu mamiaren berri, adibide ugari erabiliz.

Era berean, ahalik zabalen eta egokien jokatzen saiatu gara adibideak aukeratzeko orduan. Horretarako, hogeita lau liburu izan ditugu adibide-iturri. Hona hemen, banan-banan, argitaratze-urtearen arabera zenbatuta. Zenbaki hori erabiliko dugu, hain zuzen, gero adibideen ondoren, horietako bakoitza nondik hartu dugun adierazteko. Honela irakurri behar da, beraz, lehen adibidearen ondorengo 24, 267. or. hori: Antonio Zavalaren Bilintxi buruzko liburutik hartuta dagoela adibideko bertsoa; 267. orrialdetik, hain zuzen.

1. Zavala, Antonio. 1961: *Bertsolarien txapelketa-1960* (Kuliska Sorta, 43-44). Zarautz: Itxaropena Argitaldaria.

2. Satrustegi, Jose Mari. 1965: *Bordel bertsularia.* Tolosa: Auspoa Liburutegia.

3. Zavala, Antonio. 1966: *Udarregi bertsolaria.* Tolosa: Auspoa Liburutegia.

4. Zavala, Antonio. 1967: *Bertsolari txapelketa (1967-VI-11).* Tolosa: Auspoa Liburutegia.

5. Enbeita, Balendin. 1974: *Nere apurra.* Tolosa: Auspoa Liburutegia.

6. Lasarte, Manuel. 1975: *Gordean neuzkanak.* Tolosa: Auspoa Liburutegia.

7. Olaizola, Manuel "Uztapide". 1976: *Sasoia joan da gero.* Tolosa: Auspoa Liburutegia.

8. Aire, Ferrando "Xalbador". 1976: *Odolaren mintzoa.* Tolosa: Auspoa Liburutegia.

9. Casenave, Junes. 1978: *Ibañeta pastorala.* Oñati: Jakin.

10. Lekuona, Juan Mari. 1979: *Ilargiaren eskolan.* Donostia: Erein.

11. Zavala, Antonio. 1980: *Bertsolari-Txapelketa Nagusia (Donostia, 1980-1-6).* Tolosa: Auspoa Liburutegia.

12. Dorronsoro, Joanito. 1981: *Bertsotan 1789-1936.* Donostia: Gipuzkoako Ikastolen Elkartea.

13. Askoren artean. 1983: *Bertsolari txapelketa 1982.* Bilbo: Euskaltzaindia.

14. Dorronsoro, Joanito. 1988: *Bertsotan 1936-1980.* Donostia: Gipuzkoako Ikastolen Elkartea.

15. Askoren artean. 1990: *Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusia 89.* Donostia: Elkar.

16. Ormaetxea, Nikolas "Orixe". 1991: *Idazlan guztiak (I): Sorkuntzakoak.* Donostia: Etor.

17. Altuna, Patxi. 1992: "Tratado de métrica vasca (1872)" (Jose Ignazio Aranarena) in *Fontes Linguae Vasconum* 59: 119-164.

18. Zavala, Antonio. 1992: *Txirrita (Jose Manuel Lujanbio Retegi).* (Auspoaren Sail Nagusia, 1.) Tolosa: Auspoa Liburutegia.

19. Eizmendi, Inazio "Basarri". 1992: *Nere bordatxotik.* (Auspoaren Sail Nagusia, 2.) Tolosa: Auspoa Liburutegia.

20. Zavala, Antonio. 1992: *Pello Errota (Pedro Elizegi Maiz).* (Auspoaren Sail Nagusia, 5.) Tolosa: Auspoa Liburutegia.

21. Zavala, Antonio. 1993: *Pedro M. Otaño eta bere ingurua (I).* (Auspoaren Sail Nagusia, 6.) Tolosa: Auspoa Liburutegia.

22. Zavala, Antonio. 1993: *Pedro M. Otaño eta bere ingurua (II).* (Auspoaren Sail Nagusia, 7.) Tolosa: Auspoa Liburutegia.

23. Zavala, Antonio. 1993: *Xenpelar eta bere ingurua.* (Auspoaren Sail Nagusia, 8.) Tolosa: Auspoa Liburutegia.

24. Zavala, Antonio. 1993: *Bilintx (bertsoak eta bizitza).* (Auspoaren Sail Nagusia, 9.) Tolosa: Auspoa Liburutegia.

1. PUNTUA

Ezinbesteko osagai du bertsoak puntua. Punturik gabe ez dago bertsorik. Puntuarekin egingo dugu topo ahozko literaturako hainbat lanetan ere.

Hain zuzen, puntu hori dugu aztergai lehen atal honetan. Baina bertsogintzara mugatuko gara ia erabat.

PUNTUA ZER DEN

Llabur-llabur esanda, hoskidetza da puntua: zenbait bertso-lerroren amaierako hoskidetza.

Bertso-lerro batzuk puntudunak dira eta beste batzuk ez. Nolakoa den bertso-moldea eta nola idazten den.

Bertsoei dagokienez, normalean tartekatu egiten dira bertso-lerro puntudunak eta punturik gabeak, eta bigarrena izan ohi da puntuduna. Horixe da molderik erabiliena. Molde horretakoa da, esaterako, Bilintxen honako bertso ezagun hau:

Triste bizi naiz eta
illko banintz obe,
badauzkat biyotzian
zenbait atsekabe;
dama bat maitatzen det
bañan... aren jabe
sekulan izateko

esperantza gabe.

(24, 267. or.)

Baina bestela ere idatz zitekeen bertso hori. Eta halaxe idatzi zituen Xalbadorrek "Nigarra begian" saileko bertsoak, Bilintxek erabilitako doinu berean jarriak. Hona hemen lehenbizikoa:

Jainko maitea, nago noiz deituko nauzun
munduan zabaltzerat zerbait alaitasun;
ez dakit beti danik zer gaitik naukazun
gutarteko berri txar guzien oihartzun.

(8, 224. or.)

Bada, ordea, bestelako molderik ere. Eta horietako batzuk segidako zenbait bertso-lerro puntudunez daude osatuak. Oso ezaguna da bederatzi puntukoa. Molde horretan jarri zituen Xenpelarrek, esaterako, betroiaren bertsoak. Hona hemen lehenengoa:

Bertso berriak jartzen
orain naiz abian,
predikatzera nua
Euskalerrian;
betroi bat artu nuen
Ernanin feriyan,
galantziya egingo
zuela agiyan;
tristura begiyan,
beti auleriyan,
ez aren premiyan
nere fameliyan;
Senpelarrek dakizki
Errenteriyan.

(23, 215. or.)

Hamalau bertso-lerro dira eta bederatzi hitz puntudun, era berezi horretan banatuak. Baina bestela ere idatz zitekeen bertso hori. Xalbadorrek, adibidez, bederatzi lerrotan idatzi zituen "Mattin nigarrez ikusi dut" saileko bertsoak. Molde berekoak dira, baina ezberdin idatziak:

Mattin, zu atzo arte irriaren giltza,
gaur euskal mingainetan kurri zabiltza;
izpiritua duzu argi ta zorrotza,
jend'artean omore pitzarazle gaitza;
gainerako gauza
ginaukazun hotza,
zure nigar-otsa

ginuen arrotza;
atzo ikusi dugu zure bihotza.

(8, 166. or.)

Dena den, era batera edo bestera idatzi, bertso-moldeak agintzen du zein lerro den puntuduna eta zein ez. Baina ez gara gehiago luzatuko.

Eta, aldeak alde, hemen bertsoei buruz esanak balio du, noski, ahozko literaturako beste piezetarako ere: pastoral, esaera zahar, kanta eta abar.

OINA

Normalean hitz batean doa puntua bertsoan. Halaxe da aurreko lau bertsoetan, eta halaxe Bilintxen "Izazu nitaz kupira" saileko bigarren bertso honetan ere:

Neskatxa gazte pare gabia,
apirilleko arrosa,
izarra beziñ dizdizariya,
txoriya beziñ airosa;
oraintxen baño gusto geiago
nik eziñ nezake goza:
zori onian ikusten zaitut,
nere biyotzak au poza.

(24, 237. or.)

OSA/OZA da bertsoaren puntua; eta **arrosa, airosa, goza** eta **poza** oinetan gauzatzen da. Horixe baita, hain zuzen, oina: puntua daraman hitza.

Beraz, hitz bakarrekoa izaten da normalean oina. Baina bikoa ere izan daiteke. Hona hemen, adibidez, Bilintxen beraren "Biyotz erituba" saileko laugarren bertsoa:

Nere amoriyua
aiñ fiña izanik,
beti goguan zauzkat
aztu gabetanik;
ez da mundu guztiyan
iñor kapaz danik,
dama, zu maitatzeko
ainbeste nola nik.

(24, 270. or.)

Bertso horrek, hain zuen, **ANIK** du puntua; eta bi hitzekoa azken oina.

Noizean behin, hiru hitzek ere har dezakete parte puntuan. Hala gertatzen da Uztapideren bertso erdi honetako azken bigarren puntuan:

Len bezelako alaitasunik
aldi ontan bai al da or?
Zu burutikan kendu eziñik
emen nabil ni, Xalbador.

(7, 278. or.)

POTOA

Hoskideak izan behar dute oinek. Arau hori bete behar du bertsoak. Eta beste hau ere bai: hitz ezberdinak izan behar dute oinek; eta berdinak badira, esanahi ezberdinekoak izan beharko dute. Esanahi bereko oin berdinak erabiliz gero, poto egiten du bertsolariak. Eta huts egitea da poto egitea: bertsoak bete behar duen arau bat ez betetzea.

Hona hemen, adibidez, bertso potodun bat. Uztapidek kantatua da, euskararen gainean, 1960ko bertsolari-txapelketa nagusian. Bi aldiz erabili zuen **apaña** oina, poto eginez:

Gai au ezta izandu
nere atsegiña,
baña Irigoyen'ek
du itzegiña;
kantatuko ez banu,
danentzako miña;
esango lutekena:
ori ezta diña.
Ni enaiz apaña,
bertsolai apaña,
baña in nai azaña
luzaturik zaña;
euskeragatik ein det
nere alegiña.

(1, 116. or.)

Ez da poto egitea, ordea, arestian adierazi dugunez, esanahi ezberdineko oin berdinak erabiltzea. Hona hemen, esaterako, bertso baten hasiera:

Iritsi zaigun berria
ez da batere berria.

Berdinak dira bi oinak: **berria**. Berdinak formaz, baina ezberdinak esanahiaz. Beraz, bertso horretan ez dago potorik.

HOSKIDETZA

Hoskidetza da puntua. Eta hoskidetza hori batzuetan erabatekoa izaten da: hots-berdintasuna, alegia; beste batzuetan, berriz, ez hain erabatekoa, nahiz eta beti kidetasun handikoa izan.

Bertsoetako puntuari dagokienez, bestalde, bada azpimarratu beharrekorik: hoskidetza erabatekoa ez denetan ere, aldea handiagoa izaten dela irakurlearen begiarentzat entzulearen belarriarentzat baino; izan ere, entzuteko dira bertsoak, irakurtzeko baino areago. Eta, horrela, hoskidetza betekoak dira belarriarentzat, adibidez, **bakea** eta **atea** hitzak, nahiz eta begientzat desberdinak izan. Berdin gertatzen da honako hitz-pare hauekin ere: e**zti**, no**ski**; e**gin**, da**din**; **errenta**, **herrenka**...

Kontsonanteen artean soilik gertatzen dira hoskidetzak. Honako hauek dira, hain zuzen, kontsonante hoskideak:

— **b, d, g** eta **r**: tra**b**a, ba**d**a, la**g**a, ha**r**a.

— **p, t** eta **k**: men**p**ean, ur**t**ean, ba**k**ean.

— **s, z, x, ts, tz** eta **tx**: o**s**a, po**z**a, go**x**a, ho**ts**a, ho**tz**a, txo**tx**a.

— **n** eta **m**: la**n**a, ba**n**a, a**m**a, da**r**ama.

Hoskide dira **rr** eta **rb, rb** eta **rg** kontsonante bikoitzak ere: a**rbi**, e**rdi**, a**rgi**, ha**rri**.

Honako baliokidetza hauek erabiliko ditugu aurrerantzean, hoskidetza horiek adierazteko:

— **S** (letra larriz): **s, x** edo **z** hotsak adierazteko.

— **tS = ts, tx, tz**

— **Z = s, x, z, ts, tx, tz**

— **R = b, d, g, r**

— **T = p, t, k**

— **N = n, m**

Zenbaitetan, kontsonante "gehigarri" batzuk aurkituko ditugu puntuan, baina hoskidetza galerazi gabe: **l, n** edo **r** kontsonanteak, hain zuzen. Esaterako, honako bertso honetan:

> Erreka-bazterrean
> ernetzen da altza,
> hark bezela guk ere
> orriak altxa.

Euskal Herri gurea
da gure mahatsa,
nahiz ta askatasunez
ez dan aberatsa.
Hau destino latza,
askotan garratza,
gakoa hor datza
aldatzeko martxa,
behera muga lotuak
gora esperantza.

(11, 98. or.)

Era berean, hoskideak dira h**otza**, h**ortza**, h**ontza** eta oh**oltza**; eta h**itza**, ek**intza**, dab**iltza**...

Baina **p, t** eta **k** kontsonante aurreko **s** eta **z** kontsonanteek, ordea, aldatu egiten dute hotsa eta hoskidetza: beraz, elkarrekiko hoskidetza urrunxeagokoak dira **bete** eta **beste**, edo l**otu** eta m**oztu**; eta elkarrengandik hurbilago daude hoskidetzaz honako bi hitz-multzo hauek: batetik, ur**te**, b**e**te, ba**ke** eta me**npe** eta, bestetik, e**ske**, dituz**te** eta o**spe**.

2. BI PUNTU-MOTA

Esan dugunez, hoskidetza da puntua: batzuetan erabateko hoskidetza eta beste batzuetan ez hain erabatekoa, nahiz eta beti izan kidetasun handiko. Baina, hala izanik ere, bada alderik zenbait punturen artean. Ez dugu puntuak osatzeko modu bera ikusten bertso guztietan. Batzuetan luzeagoa da puntua, beste batzuetan laburragoa; batzuetan beteagoa, besteetan azalekoagoa... Puntuak osatzeko era desberdin horiek ditugu bigarren atal honetan aztergai. Zer alde dagoen puntu batzuen eta besteen artean. Zertan diren antzeko eta zertan ez. Eta, azken batean, zenbat puntu-mota desberdin dauden.

Funtsean, bi puntu-mota bereizi ditugu bertsoetan, nola bat-bateko etan hala jarrietan ere: batetik, gaurko bat-bateko bertsogintzan erabat nagusitu den puntu luzea eta, bestetik, puntu laburra. Puntu labur honekin egiten dugu topo, hain zuzen, zenbait kantatan ere. Horrexegatik erabili ditugu horien zati batzuk ere adibideetan.

BI ADIBIDE

Oro har, bi puntu-mota erabili ohi dituzte bertsolariek. Luzeran dago bien arteko aldea: bata laburragoa da bestea baino.

Adibidez, hona hemen bi bertso, molde berekoak eta garai berekoak: Joan Bautista Elizanbururen (Sara, 1828-1891) "Ikusten duzu goizean" sailekoa lehena, 1861ean jarria; eta Xenpelarren (Errenteri, 1835-1869) "Ezkondu eta ezkongai" sailekoa bigarrena, 1867an jarria:

Piarres ene semea,
nahiz oraino gaztea,
da mutiko bat ernea:
goizean goizik bazken erdira
badarama artaldea,
segituz ene bidea,
nola baitu egitea,
ez du galduko etxea.

(12, 74. or.)

Zarra bezela gaztia,
bat beziñ oker bestia,
beti barrendik eskia;
lenago janak eztu beteko
utsa daguan estia;
au gure pena tristia,
nai degu irabaztia,
orrekin dago nastia.

(23, 165. or.)

Garaikideak eta moldekideak izatea ezezik, bi bertsoek badute besterik ere amankomunean: **gaztea** oina (**gaztia** Xenpelarrenean). Baina hor amaitzen da bien oinen arteko berdintasuna; izan ere, puntu ezberdinekoak dira: **ea** du lehen bertsoak puntua eta **STia** bigarrenak; azkeneko bi hotsetara mugatua lehenengoa; bi hots gehiago dituena bigarrena. Hitz batean, puntu laburragoa du lehenak; luzeagoa bigarrenak.

BI PUNTU-MOTA NAGUSI

Puntuz ezberdinak izaki, bi puntu-mota ezberdinen adibide ere badira aurreko bi bertso horiek: puntu laburrarena lehenengoa eta puntu luzearena bigarrena. Baina argi ditzagun "laburra" eta "luzea" kontzeptuak.

Puntu laburra eta luzea

Puntu laburra eta puntu luzea. Horrela deituz bereiziko ditugu euskal bi puntu-motak; izan ere, arestian ikusi dugunez, lehenengoa labu-

rragoa da bigarrenaren aldean, baldintza berdinetan. Esaterako, oin bera erabiliz, **gaztea, ea** puntua egiten du Elizanburuk eta **ztea** puntua Xenpelarrek.

Baina nahasbide ere izan ditzakegu "laburra" eta "luzea" hitzak, ondo ulertu ezean. Argi ditzagun, beraz. Puntu laburrak, izan ere, puntu luzeak baino silaba gehiago izan ditzake: esaterako, bada silaba t'erdiko puntu laburrik **(ian: biharamunian, batian, itzalian, gainian, trukian)** eta silaba erdiko luzerik **(ai: ai, ezkongai, bai, jai)**. Izan ere, labur edo luze izatea ez dagokio puntu osoari, puntuaren erroari baizik, hirugarren atalean ikusiko dugunez.

Eta, besterik gabe, ikus ditzagun puntu banaren beste zenbait adibide. Berriro ere bertsoak batik-bat erabiliko ditugu adibidetzat. Baina bestelakoz ere baliatuko gara.

Puntu laburra

Gaur egun, apenas erabiltzen den puntu laburrik bertsotan. Puntu laburreko bertsoren bat edo beste entzungo dugu agian plazetan, baina konta ahalak. Beste hainbeste gertatzen da bertso-paperetan ere. Zenbait urtetan atzera egin eta bertsolari jakin batzuengana jo beharko dugu, hain zuzen, puntu laburreko bertsoak aurkitzeko.

Puntu laburra erabili ohi zuen Pierre Etxahun bertsolari zuberoarrak (Barkoxe, 1786-1862). Harena da, hain zuzen, "Ahaide delezius huntan" saileko honako bertso hau:

Etxahun, nausi famatia,
galdü dük libertatia;
eta orai dük trixtezia,
harekin ezin-bestia,
hire ixter-begiek
goihera die erria;
amuinan behar dük ebili, edo
hartü pelegri bidia.

(12, 49. or.)

"Emezortzi serore" kanta dakar Orixek bere *Euskaldunak* poeman. Eta honela dio hirugarren ahapaldiak:

Oillo beltz eder orrek daukan egitea!
Emakume zârrenak sorgin biurtzea.
Karakak egin eta, aren arroltzea
bero-bero da, baiñan laister du oztea.

(16, 133. or)

Puntu laburra erabili ohi zuen nagusiki Balendin Enbeitak ere (Muxika, 1906-1986). Harena da, hain zuzen, "Mutilzar bateri" saileko bertso hau:

Toki askotan emazte billa
jo izan dozu atia,
patxadazkoa izan baziñan
topauko zendun andria;
orain ordia
zuri alabia
nok dauka emon guria?
Belu dabizen gau-txoriari
bat be emon ez da bakia.

(5, 108. or.)

Ezaguna da, bestalde, puntu laburreko honako eliz kanta hau ere:

Agur, Jesus Ama,
Birjina Maria,
agur, itsasoko izar
diztiratzallia,
agur, zeruko eguzki
pozkidaz betia,
agur, pekatarien
kaia ta estalpia.

Eta puntu laburrekoak dira, gainera, beste zenbait bertsolari eta kantariren bertso eta ahapaldiak ere.

Baina "puntu labur" kontzeptuak merezi du argibiderik; bai baita hemen ikusitakoak baino puntu laburragorik ere. Oro har, pastoraletan erabilia, adibidez. (Baina bada horrelako puntu labur-laburra erabilitako bertsolaririk ere: Etxahun-Iruri (Iruri 1908-1979) pastoralgile eta bertsolari zuberotarra, besteak beste.) Hona hemen, esaterako, Ibañeta pastoraletik hartutako bi ahapaldi segidako:

Ordüko Otso-Zantxezek,
Uskal Düke Erregiak,
Arrunt hitzartu zütian
bühürt litian Uskaldünak.

Basak bezala Frankuak
Iruinea Hiriala
Zalhe ützültzen dirade
itxuski mendekatzera.

(9, 19. or.)

Laugarren atalean ikusiko dugunez, "puntu laburra" izatera ere ez dira iristen **Erregiak / Uskaldünak** eta **Hiriala / mendekatzera** oinak. Txosten honetan "puntu labur" esatean, ez dugu esan nahi, beraz, puntu labur hau dela erabili ohi den laburrena.

Puntu luzea

Lehen esan dugunez, ia-ia puntu luzea besterik ez da erabiltzen gaur egun bertsotan, bai bat-batean, bai bertso jarrietan. Baina ez da gaur-gaurko joera, ordea; lehendik ere datorrena baizik, ondorengo adibideetan ikus dezakegunez. Dena dela, puntu luzea ez da bertsoetara soilik mugatzen. Bada puntu luzea darabilen poetarik ere: Juan Mari Lekuona (Oiartzun, 1927), Gabriel Aresti (Bilbo, 1933-1975) eta Xabier Lete (Oiartzun, 1944), besteak beste.

Puntu laburreko bertsoak eta ahapaldiak aukeratzeko, bestalde, lehengo irizpide bera erabiliko dugu orain ere: **gaztea** oinaren puntu berekoa izatea. Hala, errazago ohartuko gara zer-nolako aldea dagoen bi puntu-motaren artean.

Udarregi bertsolariarena (Aia, 1825-Usurbil, 1895) da lehenengo bertsoa; haren "Asto demaren bertsoak" sailetik hartua.

Markos argiña eta
Maraita bestia,
desiatzen zan oiek
plazan ikustia;
nai zuten marka on bat
an erakustia,
asto diabru aiek
portatu eztia.

(3, 121. or.)

Pello Errota bertsolariak (Asteasu, 1840-1919) jarria da "Amasako sega-apustua" saileko honako bertso hau:

Errespuesta nik eman niyon:
"Aizazu, dama gaztia,
ez nuan uste modu orretan
desanparatzen astia;
zurekin nere oraindañoko
itzak onela eztia,
borondatia kunpli dedilla

merezi badet uztia".

(20, 125. or.)

Txirrita bertsolariak (Hernani, 1860-Alza 1936), berriz, honako bertso hau sortu zuen "Nere andreari" sailean:

Ogei ta amar urte daukazkit,
oraindik franko gaztia,
eta andriak bi gutxiago,
au bizi-modu tristia!
Ark neri egiñ dizkidan gauzak
esatekuak eztia,
txurrero batek engañatuta
eraman dit emaztia.

(18, 479. or.)

Manuel Olaizola 'Uztapidek' (Zestoa, 1909- Oiartzun, 1983) honela dio "Jaungoikoaren legeko aginduak" saileko bertso batean:

Bederatzigarren agindua
emen daukagu bestia,
esaten du ez desiatzeko
beste baten emaztia;
ori ondo ikusita
dago galerazita
zarra bezela gaztia;
bestela gero kostako zaigu
zerua irabaztia.

(7, 217. or.)

Inazio Eizmendi 'Basarrirena' (Errezil, 1913) da beste bertso hau, "Entzun, gurasoak!" izenburupean jarria:

Gaztelera, frantzesa,
inglesa bestea,
ta obe alemanez
lenbailen astea.
Gauzik ederrena da
danak ikastea,
bañan ez nork berea
zokoan uztea.

(19, 246. or.)

Manuel Lasartek (Leitza, 1927), berriz, honako bertso hau jarri zuen "Aitona gixarajua" sailean:

Botika eta trastia

artuaz, lengo astia
nolabait ere pasa det baño
naikua tristia;
oñazea ta pestia,
eziña ta desgastia,
garai batean ez nuen uste
ola eskastia.

(6, 140. or.)

Gabriel Arestik ere (Bilbo, 1933-1975) puntu luzea erabili zuen, besteak beste, "Bizkaiko aberatsak" izeneko bertso-sailean:

Hura ikusi eta
dendari guztiak
zaharrak geldi eta
korrikan gaztiak;
saldu nai dizkiote
makailu bustiak
guerdiko izarrak
eta eguzkiak;
inor engainatzeko
nolako trastiak!

(14, 279. or.)

Azkenik, hona hemen Xabier Amurizak (Zornotza, 1941) 1982ko bertsolari-txapelketako azken saioan Lopategiri kantatutako bertsoa:

Hauxe da orain sortu
diguten nastea
bata lengoa eta
ni ez gaztea
nai zuten hemen lagun
hauek ikustea
neure auzoa haiz ta
ez egon tristea
herri bat askea
baita emaztea
lagunen eskea
hori nik ustea
ez diat sentituko hik
irabaztea.

(13, 318. or.)

Era berean, puntu luzekoak dira, besteak beste, Bilintx (Donostia, 1831-1876), Pedro Maria Otaño (Zizurkil, 1857- Argentina, 1910) eta gaurko ia-ia bertsolari guztiak.

Puntu laburraren eta luzearen oinak

Aurreko adibide horietaz baliatuz, aldera ditzagun puntu laburretan eta luzeetan erabilitako oinak. Alderagarriak baitira, denek **gaztea** oina puntukidetzat onartzen duten neurrian.

Hona hemen puntu laburreko bertsoetan erabilitako oinak: **alabia, andria, arroltzea, atia, bakia, betia, bidia, biurtzea, diztiratzallia, egitea, erria, estalpia, ezin-bestia, guria, libertatia, Maria, ordia, oztea.**

Puntu luzeetako bertsoetan, berriz, honako oin hauek erabili dira (oin bakoitza zenbatetan azaldu den esan nahi du parentesi arteko zenbakiak): **askea, astia** (astea), **astea/astia** (hastea), **bestea/bestia** (2), **bustiak, desgastia, eguzkiak, emaztea/emaztia** (2), **erakustia, eskastia, eskea, eztia** (ez dira) (3), **gaztea/gaztia** (3) **/gaztiak, guztiak, ikastea, ikustea/ikustia, irabaztea/irabaztia, nastea, pestia, trastia/trastiak, tristea/tristia** (2), **ustea, uztea/uztia.**

Begien bistan dagoenez, bi puntu-motek ez dituzte oinak berdin erabiltzen. Puntu laburrean, kide dira **ea** amaiera duten oinak; horregatik askoz ere oin gehiago erabil daitezke elkarrekin, eta askoz ere aukera zabalagoa ematen dute zerbait esateko. Puntu luzean, berriz, gehiago eskatzen zaie hitz hoskideei: **STea** edo **STia** amaierako izatea; horregatik, askoz ere oin gutxiago erabil daitezke elkarrekin, eta askoz ere maizago azaltzen dira, gainera.

Baina puntu luzeak badu zerbait bere alde: gutxiago izaki, errazago hartzen direla gogoan; eta, aldi berean, erabilterrazagoak ere badirela, errazago gogoratzen diren neurrian. Ahozko kulturaren aztarnak dira ezaugarri horiek: oroimena beste euskararririk ez duen kulturaren arrastoak.

TARTEKO PUNTU-MOTA: HIRUGARREN BIDEA?

Bi puntu-mota horiek hor egonik ere, ez dira beti argiak bien arteko mugak. Batzuetan moztu egiten da puntu luzea eta bestetan luzatu puntu motza; eta, hala, nabartu bien arteko muga.

Arrazoi asko egon daitezke mugak hurbiltze horretan. Besteak beste, bi puntu-moten arteko eragina, eta dena delako kantagile eta bertsolariaren joera.

Bi adibide

Basarriren bertsoeran sumatzen da batzuetan puntu luzea laburtzeko joera. Hona hemen adibide bat, arestiko bertsoen harikoa puntuz. Afrikan jarria da bertsoa, 1943an:

Bakartasunez illunki nabil
arantz mingotsez betea,
unetxo batez aztu eziñik
gure Donosti maitea.
Otaño'n gisa beti zugana
dijoa oroipen nerea:
"alaipide bat bakarrik daukat
amets etan sinistea,
zu ikusteko noiznai aski det
nere begiak ixtea".

(19, 106. or.)

Pedro Maria Otaño (Zizurkil, 1857- Argentina, 1910) bertsolaria aipatzen du Basarrik, eta haren bertso batean oinarrituz idazten berea. "Amerikatik Jose Bernardori biralduak oraiñ dala bost urte" (1889) sailekoa da bertso hori eta Donostiari jarria. Hona hemen:

Urruti zaude eta zalla da
ni zugana irixtia,
onenbeste nai dizun batentzat
zer bizimodu tristia!
Alaipire bat bakarra daukat
ametsetan sinistia:
zu ikusteko noiznai asko det
nere begiak ixtia.

(21, 188. or.)

Puntu luzekoa da Otañoren bertsoa; laburragoa, ordea, Basarrirena, nahiz eta erabat laburra izan ez. Izan ere, bi oin ditu **iStea** hoskideak, beste bi **tea** dira puntuz eta bat **ea**.

Antzeko beste zenbait bertso

Beste honako bertso hau, berriz, Joan Etxamendi 'Bordel' (Luzaide, 1792-1879) bertsolari nafarrarena da, "Ene andregaiari" sailetik hartua:

Abertitzen zaitut
andere gaztia,
pizariz ar dezazun
banitatia.
Fortunaz izan banu
nik borondatia,
ez omen zinazteken
nitaz hautatia.
Aise da, maitia,
kunkil izaitia
urgulu hartzia;
oraino zerbait bada
gogoan pastia.

(2, 72. or.)

Ikus daitekeenez, Basarriren arestiko bertsoaren antzekoa da puntuz: puntu laburra baino luzeagoa darabil, baina luzea izatera iritsi gabe. Halakoxea da, era berean, Xalbadorren "Mattin nigarrez ikusi dut" saileko honako bertso hau ere:

Euskal haurrak etxetik urrun joaitea
da mendeak dakarren ezin-bestea;
jakinik baduela zorion-partea,
hura ezin bilatuz dabila gaztea;
gure gizartea,
herria, etxea,
semetaz hustea,
zer gauza tristea!
Urrikal zakizkigu, Jainko maitea!

(8, 168. or.)

Baita Juan Mari Lekuonaren honako hau ere:

Behatz lodiak bota
du bere zortea;
behatz lodiak bota
du bere zortea;
goizean hil digute
gudari gaztea,
ai!, oi!, ei!,
gudari gaztea...
Behatz lodiak bota
du bere zortea.

(10, 36. or.)

ONDORIO GISA

Itzul gaitezen atal honen hasieran esandakora: "Oro har, bi puntu-mota erabili ohi dituzte bertsolariek". Atala amaitzean, egoki izango da zenbait zertzelada eranstea.

- Ñabardurak ñabardura, bi puntu-mota nagusi bereiz ditzakegu bertsogintzan, nahiz eta bien artekoa ere aurki dezakegun.

- Iparraldeko zenbait bertsolariengan (Etxahun-Irurirengan, esaterako) eta bertsogintzaz kanpo (pastoraletan, batik bat), bada orain arte puntu laburra deitu duguna baino laburragoa.

- Normalean, puntu-mota bera erabiltzen du bertsolari batek bere bertsogintzan, nahiz eta bilakaerarik ere ikusten den urteetan zehar. Baina ez ditu aldi berean bi puntu-mota erabiliko.

- Oro har dihardugu atal honetan; baita txosten osoan ere. Eta ez dugu beste aukerarik izan. Baina ez litzateke gaizki etorriko, noski, autorez autore eginiko azterketa, bakoitzaren puntuak erabiltzeko era eta bilakaera (bilakaerarik badenean) zehazteko.

Dena den, baliagarri iruditzen zaigu atal honetan esana; eta, ñabardurak ñabardura, horren arabera jarraituko dugu datozen orrialdeetan.

3. PUNTU BIKOITZA

Hizkuntza atzizkiduna da euskara: etengabe baliatzen da dena delako atzizkiz; eta puntuak osatzean ere bai, jakina. Eta hori izan behar da derrigor kontuan, puntua ulertuko bada.

Beraz, bi zati bereiz ditzakegu puntuan: erroa eta atzizkia. Horrexegatik esan dezakegu bikoitza dela puntua: bi zatikoa, alegia. Bikoiztasun hori funtsezkoa du puntuak. Bikoiztasun hori aztertuz jabetuko gara puntuaz.

Eta bikoiztasuna aztertzeak, jakina, bi zatiak aztertzea esan nahi du. Horixe egingo dugu atal honetan, erroa eta atzizkiak bereizi ondoren.

PUNTUA: ERRO ETA ATZIZKI

Deklinabidea dela eta, euskaran bi zati bereiz ditzakegu izenetan eta izenlagunetan: erroa eta atzizkia. Jakina denez, "herrian" hitzak "herri"

du erro eta "an" atzizki: herri-an. Era berean, honelako zatiketak ere egin ditzakegu: gozo-a, bertsolari-ak, bat-ean, itsusi-ko, kale-etan...

Zatiketa bera aurkitzen dugu puntuan. Beraz, erroa eta atzizkia bereiz ditzakegu puntuan ere: gizon-**ak**, egon-**ak**, zorion-**ak**, on-**ak**; bete-**an**, bake-**an**, urte-**an**, urpe-**an**... Atzizkirik gabeak, berriz, **0** batez adieraziko ditugu: gizon-**0**, zorion-**0**; bete-**0**, bake-**0**...

Baina oin guztiak ez dira izen eta izenlagun. Bestelakoak ere izan daitezke, jakina: izenorde **(hauetan, bera, nik...)**, aditz **(izan, ekarriko, dituzte...)**, adizlagun **(maiz, bai, hemen...)**, juntagailu **(eta, edo, baina...)** eta interjekzio **(ai!, ja-jai!, danba!...)**. Horietako batzuek ez dute atzizkirik onartzen eta beste batzuek bai. Baina atzizki guztiak ez dira berdinak.

ERROA

Hiru erro-mota

Hiru erro-motako oinak bereiz ditzakegu euskal puntuan: 1) **a** bokalez amaituak, 2) **a** ez den bokalez amaituak eta 3) kontsonantez amaituak.

Lehenengo motako erroa dute, adibidez, honako hitz hauek: bezpera, bezperak, bezperan, bezperako...; kanta, kantak, kantan, kantako...

Bigarren motako erroa dute, esate baterako, honako hitz hauek: harri, harria, harriak, harrian, harriko...; itsusi, itsusia, itsusiak, itsusian, itsusiko...; urte, urtea, urteak, urtean, urteko...; aste, astea, asteak, astean, asteko...

Hirugarren motako errima-erroa dute, besteak beste, honako hitz hauek: lan, lana, lanak, lanean, laneko...; azal, azala, azalak, azalean, azaleko...; behar, beharra, beharrak, beharrean, beharreko...; bihotz, bihotza, bihotzak, bihotzean, bihotzeko...

Erroak

Ondoren doaz, banan-banan, puntu luzean gehien erabiltzen diren puntu-erroak, motaz mota sailkatuta, arestian esandakoaren arabera. (Ez ditugu puntu laburrekoak emango; horiek berak baitira, baina hasierako hotsik gabe.)

A bokalez amaituak:

aRa: ikara, bolada, aldaba, alaba, dardara...
eRa: bera, minbera, aukera, zera, arreba...
iRa: distira, gida, segida, gupida...
oRa: denbora, kanpora, proba, boga...
uRa: ura, hura, itxura, duda, muga...

aTa: zarata, matraka, aldapa, kanta, hanka, aparta, alta...
eTa: beta, seta, arreta, erreka...
iTa: bisita, zita, musika, barrika, pipa...
oTa: soka, borroka, errota, erronka, koloka, zopa...
uTa: konduta, zurruta, turuta, kulunka, kulpa...

eSTa: festa, kezka, neska, ezpa...

A ez den bokalez amaituak:

Re: jabe, alde, mesede, mende, lege, bide, hobe, gure...
Te: ate, bake, arte, kalte, maite, aterpe, merke, menpe, urte, truke...
STe: aste, eske, triste, gerizpe, oste, ozpe, uste...

Ri: kantari, bertsolari, ogi, ongi, irudi, zubi...
Ti: kezkati, zapi, aulki, aurki, egoki, egunsenti, txiki, poliki, eduki...
STi: aski, azpi, ezti, garesti, izpi, eguzki, busti...

ai: alai, bai, gai, jai, kai, nahi...
RRi: harri, argi, garbi, herri, irri, horri, urri...

Ro: salbo, gero, giro, igo, ondo, agudo...
To: gako, franko, Jainko, kanpo, gaurko, lepo, orpo...
STo: asto, arrasto, baiezko, begizko, hosto, hauspo...

Ru: zeru, eredu, modu, buru, mundu...
(**Tu:** zaku, leku, gertu, meritu, pilotu, aholku, mutu...)
STu: gastu, esku, estu, txistu, bekozko, apustu...

Kontsonantez amaituak

Lau multzo handitan biltzen dira kontsonantez amaitutako puntuerroak: **N** (n, m) hotsez amaituak, **l** kontsonantez amaituak, **r** kontsonantez amaituak eta **Z** (s, x, z, ts, tx, tz) hotsez amaituak. Eta multzo bakoitzak beste lauzpabost sail ditu, azkeneko bokalaren arabera. Hona hemen, banan-banan:

aN: lan, jan, izan, esan, eman, eraman, dan, etzan...

eN: lehen, den, kemen, izen, zuzen, eten, irten, azken...
iN: min, egin, atsegin, berdin, urdin, ezin, jakin...
oN: on, zorion, gizon, egon...
uN: lagun, ezagun, ihardun, euskaldun, egun, ilun, bigun...

al: ahal, azal, hegal, itzal, formal, hutsal...
el: txartel, epel, txepel, gibel, horbel, goibel, ustel...
il: hil, abil, isil, opil, murgil, mutil, gurpil...
ol: odol, ohol, oskol...
ul: ahul, mardul, eztul...

ar: indar, behar, negar, bizar, txar, zoritxar, zahar...
er: eder, oker, alfer, bazter, esker, ezker...
or: zor, gogor, lehor, bizkor, alor...
ur: agur, apur, zakur, egur, zimur, lur, beldur...

aZ: erraz, jolas, solas, latz, arrats, orratz, urrats...
eZ: amets, babes, juez, aldrebes, beltz, saihets...
iZ: hitz, bortitz, murritz, mintz...
oZ: poz, sos, hotz, hots, motz, bihotz, arrotz, zorrotz...
uZ: huts, gorputz, ahuntz, umezurtz, zaputz...

ATZIZKIA

Hiru atzizki-sail

Atzizki asko erants dakizkieke puntu-erroei: euskal hitzei –izen, izenlagun, izenorde, aditz eta abarrei– erants dakizkiekeen guztiak. Baina bi motakoak dira funtsean atzizki horiek: 1) izen-atzizki edo izenlagun-atzizki eta 2) adizki-atzizki.

Lehenengo motako atzizkiak dituzte, esaterako, honako hitz hauek: berezia, gizona, txanda, ateak, zabalak, kantak, ustean, zuzenean, bezperan, dotoretan, garretan, penatan, sariz, odolez, euskaraz, aldeko, bihotzeko, sarrerako, gerokoa, izenekoa, aukerakoa, eskurik, indarrik, lotsarik...

Bigarren motako puntu-atzizkiak dituzte, besteak beste, honako hitz hauek: hasten, zuzentzen, etsita, eginda, bustiko, gizendu, sartu, helduta, ibiltzeko...

Badira, gainera, lehenengo eta bigarren motako puntu-atzizkiak: aldi berean izen-atzizki eta aditz-atzizki direnak. Horietakoak dituzte, adibidez, honako hitz hoskideok: herriko, jarriko; beterik, aterik; sartuz, tratuz...

Baina, mota bateko edo besteko izan, hiru puntu-sail bereiz ditzakegu, puntu-atzizkiaren arabera: 1) atzizkirik gabeak (zarata, sarrera, ikusi, ate, busti, gabe, herri, gero, jai, jaio, ilun, isil, gogor, bihotz...), 2) **A** eta **AK** atzizkidunak, (zarata, sarrerak, ikusia, atea, bustia, gabea, herria, jaia, jaioa, ilunak, isilak, gogorrak, bihotzak...) eta 3) gainerako atzizkidunak (zarataz, sarrerarik, ikusiko, atean, bustitan, gabeetan, herririk, geroko, jaikoa, jaiotzen, ilunean, isildu, gogorretan, bihotzik...).

Puntu-atzizkiak

Azal ditzagun ondoren, hiru sailetan, puntu-atzizkirik erabilienak:

0: kanta, ate, bizi, izan, odol...

A: kanta, atea, bizia, izana, odola...
AK: kantak, ateak, biziak, izanak, odolak...

AN: kantan, atean, bizian...
EAN: izanean, odolean...
DA: izanda...
GO: izango...
DU: izan du, odoldu...
TA: bizita...
TU: kantatu, bizitu...
TAN: kantatan, atetan, bizitan...
ETAN: kantetan, ateetan, bizietan, izanetan, odoletan...
Z: kantaz, atez, biziz...
EZ: ateez, biziez, izanez, odolez...
IK: izanik, odolik...
RIK: kantarik, aterik, bizirik...
KO: kantako, ateko, biziko...
KOA: kantakoa, atekoa, bizikoa...
EKO: izaneko, odoleko...
EKOA: izanekoa, odolekoa...
TE: izate...
TEN: izaten...
TZE: kantatze, bizitze, odoltze...
TZEN: kantatzen, bizitzen...

Gehiago ere luza dezakegu zerrenda. Baina hor daude atzizkirik erabilienak. Dena den, argi ditzagun honako hauek:

- Adibideetarako, erroaren amaieraren arabera aukeratu ditugu bost hitzak: 1) **kanta**: berezko **a** bokalez amaitua, 2) **ate**

eta **bizi**: **a** ez beste bokal batez amaituak eta 3) **izan** eta **odol**: kontsonantez amaituak.

• **Kanta, bizi, izan** eta **odol** hitzek, bestalde, izen-atzizkiak eta aditz-atzizkiak har ditzakete. Horrexegatik hautatu ditugu: jokabide bikoitz hori adierazteagatik.

• Atzizki gehiago har ditzake zenbait atzizkik. Esaterako, **du** atzizkiak: dua, duak, duta, duaz...; **tu**: tua, tuak, tuta...; **ko** atzizkiak: koa, koak, koan, kotan, koetan, korik...; **te**: tea, teak, tean, terik...; **tze**: tzea, tzeak, tzean, tzerik...

• Bada atzizki bat, puntu-erroen zerrendan ere eman duguna: **tu**. Berdin izan daiteke puntu-erro (gertu, pilotu, mutu...) edo puntu-atzizki (kantatu, edertu, bizitu, lotu, lortu...). Hala jokatzen du beste zenbait hizkik ere. Horrelakoetan, aukeratu beharra dago. Eta hala egin dugu hemen. Izan ere, adibide gisa utzi dugu **tu** hori erroen zerrendan; parentesi artean utzi ere, han behin-behineko dagoela adieraztearren.

• Ez da beti ematen, ezta hurrik eman ere, hemen azaldutako bereizketa hain argi eta zehatz: batetik erroa eta bestetik atzizkia. Baina sistema baliagarria iruditzen zaigu, nolabait, puntua sistematizatzeko. Azter ditzagun, adibidez, bizpahiru oin.

• **Txanda**. Berez, **a** bokalez amaitutako hitza da eta atzizkirik gabea. Baina gure sailkapenaren arabera, **izanda** oinaren pareko jotzen dugu eta tx**an-da** bezala zatitu, **an** puntu-erro eta **da** puntu-atzizki balira bezala.

• **Ditu**. Adierazi berria dugu, **tu** hizkiaz aritzean. D**i-tu** balitz bezala bereizten dugu, biz**i-tu** hitzaren modura, nahiz eta bereizi ezina izan.

— **Maiz**. Gar**ai-z** eta al**ai-z** oinen modura osatuta jotzen dugu: m**ai-z**. Ez dago esan beharrik, noski, bereizketa hori ere guztiz behartuta dagoela, n**ai-z** oinean bezala, eta puntua argitzeko.

BI IRUZKIN

Atal hau amaitu baino lehen, ikus ditzagun bi puntu, aurretik ikusitakoaren ondorio.

Bederatzi puntu-multzo

Hiru erro-mota eta beste hiru atzizki-sail izaki, bederatzi puntu-multzo bereiz ditzakegu euskaraz, nolako erroa eta atzizkia elkartzen diren kontuan hartuta. Hurrengo atalean ikusiko dugu zer-nolako legearen arabera osatzen den bakoitza.

Puntu laburra eta puntu luzea

Bigarren atalean aurreratu dugunez, bi puntu-mota nagusi ditugu euskaraz: puntu laburra eta puntu luzea. Baina, aldi berean, hitz horiek nahasbide ere izan ditzakegula aurreratu dugu, eta nahasbidearen arriskua non dagoen esan ere bai: puntu laburrak izan ditzakeela puntu luzeak baino silaba gehiago, eta alderantziz; esaterako, silaba t'erdi izan dezakeela puntu laburrak **(ian: biharamunian, batian, itzalian, gainian, trukian)** eta silaba erdi luzeak **(ai: ai, ezkongai, bai, jai)**. Eta argibide bat erantsi dugu azkenean: labur edo luze izatea ez dagokio puntu osoari, puntuaren erroari baizik.

Hirugarren atal honen amaieran garbiago dago bigarrenean aurreratua. Aurreko adibide beroiek lagun diezagukete argiago ikusten: silaba t'erdiko puntua dute **biharamunian, batian, itzalian, gainian** eta **trukian** oinek, baina biak atzizkiari dagozkionak; silaba erdiko puntua dute **ai, ezkongai, bai** eta **jai** oinek, baina erroari dagokiona. Horrexegatik deitu diogu lehenengoari laburra: puntua ez delako oinen errora iristen; eta horrexegatik bigarrenari luzea: puntua errora ere iristen delako. Dena den, hau are gehiago xehetu beharra dago; eta horrexetara goaz laugarren atalean.

ETA OHAR GARRANTZIZKO BAT

Oro har ari gara txosten honetan: xehetasun eta ñabardura guztiguztiak aipatu gabe. Eta halaxe ihardun dugu hirugarren atal honetan ere, ezinbestean. Eta horrek bere arriskuak ditu, esandakoak estu-estu hartuz gero. Horrexegatik gaude hemen ohar garrantzizko bat erantsi beharrean, lehentxeago ikusitakoaren harian.

Oro har, bikoitza da puntua: erroz eta atzizkiz osatua. Baina horrek ez du esan nahi, jakina, oin guztiek berdinak izan behar dutenik erroz eta atzizkiz; ezta beti errodunak eta atzizkidunak izan behar dutenik ere.

Adibidez, puntukideak dira **batean, betean** eta **katean** oinak; ez, ordea, errokideak eta atzizki berekoak: bat-ean, bet(e)-an, katea-n. Oro har

ari garenez, gehien erabiltzen diren oinen arabera azalduko ditugu hemen azaldu beharrekoak. Kasu horretan, esaterako, **te** erroduna joko dugu puntua eta **AN** atzizkiduna, nahiz eta badakigun ez dela horrela.

Era berean, puntukideak dira **kontentuz, Jesus, aingeruz** eta **kantuz** oinak ere; eta puntu laburrekoak, aurreraxeago ikusiko dugunez. Baina ez daude laurak erroz eta atzizkiz osatuak; bai, **kontentu-z, aingeru-z** eta **kantu-z**; ez, ordea, **Jesus**, jakina. Hala ere, **u** erroz eta **S** atzizkiz osatuta baleude bezala jokatzen dute, eta halaxe azalduko ditugu.

4. PUNTU-ARAUAK

Euskal puntugintzak bere arauak ditu: bertsolari, kantagile eta abarrek erabiliak. Arau horiek adieraziko ditugu atal honetan, baina berriro ere bertsogintzari begira.

Puntu-arauak ematean, ezinbestezkoa da, noski, euskal puntuaren ikuspegitik egitea. Horrexegatik saiatu gara aurreko ataletan, hain zuzen, euskal puntuaren bereizgarriak atzemateneta behar hainbat bereizketa egiten.

Puntu-erroen arabera egindako sailkapena erabiliko dugu hemen ere. Beraz, hiru puntu-multzo bereiziko ditugu, baina lehen ez bezalako ordenan: 1) **a** ez beste bokal batez amaitutako erroa duten puntuak, 2) kontsonantez amaitutako erroa duten puntuak eta 3) **a** bokalez amaitutako erroa duten puntuak.

Puntu-multzo bakoitzean, bestalde, arestian aipatutako hiru atzizkisailak bereiziko ditugu.

Eta motaz mota eta sailez sail izango ditugu gogoan, jakina, bi puntu-mota nagusiak: puntu laburra eta puntu luzea.

"A" EZ BESTE BOKAL BATEZ AMAITUTAKO ERROA DUTEN PUNTUAK

Honako puntu-multzo honetan ageri da nabarmenen, noski, puntu laburraren eta luzearen desberdintasuna. Horrexegatik azalduko ditugu berex: laburrak lehenik, denak jarraian, eta luzeak ondoren.

Puntu laburra

A ez beste bokal batez amaitutako erroa duten puntuetan, puntu laburrak nahikoa du erroaren azken hotsa kideko izatea, bai atzizkirik ga-

beko puntuetan, bai **a** eta **ak** atzizki dutenetan eta baita beste atzizkiren bat duten puntuetan ere. Ikus ditzagun banan-banan.

Atzizkirik gabeko puntuetan

"Emezortzi serore" kanta dakar Orixek bere "Euskaldunak" poeman. Hiru bertsoetako bigarrenak atzizkirik gabea du puntua eta **i** bokalez amaitua erroa. Eta **i** horixe da ahapaldiaren puntua.

Uju jupa labirulena, jupa jupa beti,
odei guzien azpiti, sasi guzien gaiñeti.
Sorgin oroin Errege da Akelarren jarri.
Jupa erran dezagun, beti bizi bedi.

(16, 133. or.)

A eta AK atzizki duten puntuetan

"Emezortzi serore" kanta bereko hirugarren bertsoa dugu, berriz, honako hau, lehenago ere aipatu duguna:

Oillo beltz eder orrek daukan egitea!
Emakume zârrenak sorgin biurtzea.
Karakak egin eta, aren arroltzea
bero-bero da, baiñan laister du oztea.

(16, 133. or.)

Ikus daitekeenez, **ea** du bertso horrek puntu: **e** erroz eta **a** atzizkiz osatua. Beraz, atzizkirik gabeetan bezala, erroaren azken hotsa soilik da puntuaren zati. Berdin gertatzen da, esaterako, Elizanbururen "Ikusten duzu goizean" sortako bertso honetan ere:

Landako hirur behiak,
esnez hanpatu ditiak,
ahaxe eta ergiak,
bi idi handi, kopeta zuri,
bizkar beltz, adar handiak,
zikiro, bildots guriak,
ahuntzak eta ardiak
nereak dira guziak.

(12, 73. or.)

Beste atzizkiren bat duten puntuetan

Jose Ignazio Aranaren "Tratado de métrica vasca" lanetik hartu dugu, dagoen-dagoenean, honako herri-kanta hau:

Nor ez da zoratuco
Atseguiñ-contentuz
Icusi ezquerzotic
Aurcho eder Jesus?
Inguraturic dago
Belen-en aingueruz
Arin datoz artzayac
oidu eta cantuz.

(17, 134. or.)

Errepara diezaiegun oinei: **uS** dute puntu, **u** erroz eta **S** atzizkiz osatua, nahiz eta **Jesus** oinak ez duen horrelako zatiketarik onartzen, jakina (gogora hirugarren ataleko azken ohar garrantzitsua). Beraz, atzizkirik gabeetan eta **A** eta **AK** atzizkidunetan bezala, erroaren azken hotsa soilik da bertso horren puntuaren zati.

Berehala itzuliko gara berriro ere puntu honetara.

Puntu luzeak

A ez beste bokal batez amaitutako erroa duten puntuetan, bere erroan beti ditu kideko gutxienez azken bi hotsak errima luzeak (eta hirurak honako errodun hauetan: **STe, STi, STo, STu**). Eta hala da atzizkirik gabeko puntuetan, eta **a** eta **ak** atzizkidunetan, eta baita beste atzizkiren bat duten puntuetan ere. Ikus ditzagun banan-banan.

Atzizkirik gabeko puntuetan

Hona hemen, adibidez, Bilintxen bertso ezagun bat:

"Dama polita zera,
polita guztiz, ai!
Bañan alare zaude
oraindik ezkongai.
Ezkon gaitezen biyok!
Esan zadazu bai!"

"Ni zurekin ezkondu?
Ni zurekin? Ja-jai!"

(24, 220. or.)

Ikus daitekeenez, **ai** du puntuak erro, eta atzizkirik gabea da. Beraz, bi hots kideko ditu.

Beste honako bertso honek, berriz, **Ste** du puntu. Lazkao Txikik kantatua da bat-batean, atariko txakurra gai izaki:

Txakur maitea ni etortzean
gelditu da oso triste,
kiñu ta abar nik esan diot:
"berriz'e banator laiste";
ate ondoan gaixoa an da
nola jai ta nola aste,
eskolik ez du baiñan badaki
zenbait pertsonak ainbeste.

Hiru hots kideko ditu puntuak bertso horretan, **Ste** puntu-errokoa izaki.

A eta AK atzizki duten puntuetan

Manuel Lasarterena da honako bertso hau, "Nere sorterria" sailetik hartua:

Ez dit kezkarik eman iñoiz nun
sortu nintzan esateak,
ainbesteraño poztu izan nau
Leitza'koa izateak;
an ditut txiki-denboran egin
nituen lagun maiteak,
nere biotza kontsolatzen du
aien artera joateak,
beti zabalik billatzen ditut
erri artako ateak.

(6, 45 or.)

Ikus daitekeenez, **teak** puntukoa da bertsoa (zehatzago esateko, **ateak** puntukoa, **maiteak** oinaren **i** hori gora-behera). Beraz, bi hots ditu gutxienez puntuaren erroak: **te**.

Beste honako bertso honetan, berriz, hiru hotseraino iristen da puntu-erroaren kidetasuna, puntu-erroa **STi** denez. Ezaguna da bertsoa, Jon Lopategik 1989ko txapelketa nagusian kantatua:

Ondo betea jarri genuen
jan edaritan saskia,
subentziotan hornitu ere
ibilera garestia,
bion bihotzak sentitzen zuen
esperantzaren izpia,
Everest gaina ia eskuan,
ibilera amestia,
baina ozpina agertutzen da
aienatu zen eztia,
hargatik nire abestia,
sentimentutaz bustia,
Everest punta genun amesa,
hura gendun eguzkia,
baina laguna eroritzean
itzali zaigu guztia.

(15, 242. or.)

Beste atzizkiren bat duten puntuetan

Txirritaren bertso bat izan dezakegu honako adibiderik argiena. Bi ezezik, hiru hots berdin ere baditu (lau hotseraino ere iristen da berdintasuna hiru oinetan) puntu-erroak: **rti**, hain zuzen. (Oin hauek, bestalde, sarri samar errepikatzen dira Txirritaren bertsoetan):

Milla zortzireun larogei eta
amairugarren urtian,
landaretxo bat jaio da Irun'go
Bidasoa'ko partian;
ni bizi naizen palaziotik
ezta leku apartian,
ia itoan ibilli naute
iru atsoren artian.

(18, 266. or.)

Bertso-sail berekoa da beste honako hau ere:

Aur gaiso ori or agertu da
urrikaltzeko moduan,
estimazio aundirik gabe
bere amaren onduan;
arentzat ere ez dira izan
gusto guziak munduan,
enpeño batez biartuta ere
ez daki aita nor duan.

(18, 267. or.)

Berriro ere bi hotsekoa da, gutxienez, puntu-erroaren hots-kidetasuna; eta hirura ere iristen da bi oinetan.

Berdin jokatzen dute puntu luzeko bertsolari guztiek. Edozein puntu-atzizki erabilita ere, gutxienez bi hots berdinez edo kidekoz osatuko dute puntua, **a** ez beste bokal batez amaitutako erroa duenean, puntu laburreko bertsolari eta kantagileek ez bezala.

KONTSONANTEZ AMAITUTAKO ERROA DUTEN PUNTUAK

Aurreko puntu-multzoan ez bezala, neurri batean kidekoak dira mota honetako puntu luzeak eta laburrak. Erabat kidekoak dira atzizkirik gabeetan eta antzekoak **A** eta **AK** atzizkidunetan, nahiz eta desberdinak izan gainerakoetan.

Horrexegatik, elkarren ondoan aurkeztuko ditugu adibideak, puntu laburrekoak lehenik eta luzekoak ondoren, lehen erabilitako sailkapenari jarraiki.

Atzizkirik gabeko puntuetan

Kontsonantez amaitutako erroa duen puntuak, bai laburrak eta bai luzeak, beti ditu gutxienez azken bi hotsak kideko, atzizkirik gabe denean.

Hona hemen puntu laburreko ahapaldi bat. Berriro ere Orixek "Euskalduna" poeman dakarren "Emezortzi serore" kanta dugu adibideiturri. Honela dio lehen bertsoak:

> Emezortzi serore eta bortz emagin,
> buruz agindu eta sartu dire sorgin.
> Uxta egiten dute larunbat gauerdîn,
> erratz-girten gaiñean zaldiz doazanîn.

(16, 133. or.)

Bestalde, oso ezaguna da Lazkao Txikiren bertso hau, 1967ko txapelketa nagusian, baserri hutsari kantatua:

> O, baserritxo, artuko dezu
> biotz berrenetikan min,
> eskerrak mirik ez dezun eta
> ezin dezun gaur itzegin;

zenbait fameli azi dezuen
Jainkuak bakarrik jakin,
orain bakarrik uzten zaituzte,
ondotik danak aldegin.

(4, 76. or.)

Argi dagoenez, bi bertsoak dira puntuz berdinak. Are gehiago: bertso horiekin bakarrik ez dago jakiterik zer-nolako puntu-mota erabili ohi zuten kantagileak eta Lazkao Txikik. (Gainerako bertsoei esker dakigu, hain zuzen, puntu laburra erabili zuela kantagileak eta luzea Lazkao Txikik.) Eta hala gertatzen da beti sail honetako bertsoen puntuekin; berdinak baitira puntu laburrekoak eta luzekoak.

A eta AK atzizkia duten puntuetan

Puntu-erroa kontsonantez amaitu eta **a** edo **ak** atzizkia duen puntu luzeak beti ditu kideko bere erroaren azken bi hotsak. Puntu laburrak ere bi hots kideko izaten ditu bere erroan, baina ez beti.

Hona hemen Nemesio Etxanizen kanta ezagun baten hasiera. Bertso hau bakarrik aztertuz ez dago jakiterik puntu laburra edo luzea erabili zuen egileak:

Ormatxoriak negu gorrian
ez du atsegin elurra,
zerua goibel, kabia otza
ta janari gabe lurra;
ai, maite nere biotzak duan
zure otzaren beldurra.
Biontzat kabi bat berotzeko
bilduko nuke egurra.

Beste atzizkiren bat duten puntuetan

Puntu-erroa kontsonantez amaitu eta **A** edo **AK** ez beste atzizkiren bat duen puntu luzeak beti du kideko, gutxienez, bere erroaren azken hotsa, puntu laburrak ez bezala.

Lehen ere esan dugunez, puntu laburra erabili zale dugu Joan Bautista Elizanburu. Baina, joerak joera eta gustuak gustu, bertso gutxi izango da, noski, haren honako hau baino ezagunagorik:

Ikusten duzu goizean,
argia hasten denean,
menditto baten gainean:
etxe ttipitto aintzin xuri bat
lau haitz-ondoren erdian,
xakur xuri bat atean,
iturriño bat aldean?...
Han bizi naiz ni bakean.

(12, 73. or.)

Errepara diezaiegun lehen lau oinei. Puntu-atzizkia besterik ez dute hoskideko, puntu luburreko izaki: goiz-**ean**, den-**ean**, gain-**ean**. Baina bada besterik ere. Har ditzagun azken hiru oinak: at**e-an**, ald**e-an**, bak**e-an**. Puntu laburrekoak dira hauek ere, baina bokalez amaitua dute puntu-erroa. Eta gorago ikusi dugu nola osatzen den horrelakoetan puntua: puntu-erroaren azken hotsetik hasita.

Beraz, zer gertatu da bertso horretan? Elkarrekin azaltzen direla bertso berean, elkarren puntukide diren oinetan, bokalez eta kontsonantez amaitutako puntu-erroak. Behin baino gehiagotan gertatzen da berdin puntu laburreko bertsoetan. Hauxe geratu zaigu esan gabe lehentxeago, **a** ez beste bokal batez amaitutako erroa duten puntuak aztertu ditugunean. Eta berriro itzuliko gara hona, **a** bokalez amaitutako erroa duten puntuak aztertzean. Izan ere, **A** eta **AK** ez beste atzizkiren bat eranstean, elkarrekin nahasian joan baitaitezte erro desberdinetako puntuak, baldin eta puntu laburrak badira.

Bestela gertatzen da, ordea, puntu luzeko bertsoetan; ez baitira puntu-erro desberdinetako puntu-erroak nahasten. Bere lekuan aztertu dugu bokalez amaitutako puntu-erroaren osakera. Ikus dezagun orain nola osatzen den puntua, kontsonantez amaitutako erroari **A** eta **AK** ez beste atzizkiren bat eranstean:

Nola ibiltzen giñan
sasoi gendunian,
gogoratutzen bati
zartu danian;
nekatzeko bildurrik
batere etzanian,
etzan gabe ere berdin
iru egunian;
alare lenian
jarraitu lanian
sasoi onenian
da umore onian,
gorputz-aldi bat ona
zeguanian.

(7, 49. or.)

Horra hor, lehentxeago aurreratu dugunaren adibidea: puntu luzea denean, kontsonantez amaitutako erroari **A** eta **AK** ez beste atzizki bat eranstean, puntuaren zati dela erroaren kontsonantea ere. Uztapideren bertso horretan, esaterako, **nian** da puntua: erroaren **n** kontsonanteaz eta **IAN** atzizkiaz osatua.

"A" BOKALEZ AMAITUTAKO ERROA DUTEN PUNTUAK

A bokalez amaitutako erroa duenean ere, batzuetan berdin eta bestetan desberdin osatzen da puntua, luzea edo laburra izan. Ikus dezagun lehenik luzea eta ondoren laburra.

Puntu luzea

Oso lege errazaren arabera osatzen da **a** bokalez amaitutako erroa duen puntu luzea: beti azken hiru hotsak kideko izaten ditu erroan, bai atzizkirik gabe doanean eta bai atzizkiduna denean ere.

Adibide berak balio lezake, hain zuzen, atzizkirik gabeko puntuarentzat eta **A** edo **AK** atzizkidunarentzat; berdinak baitira biak formaz. Basarriren bertso bat aukeratu dugu: 1989ko bertsolari-txapelketa nagusian, Jon Lopategiri txapela jazterakoan kantatua:

Ekarri naute garaileari
txapel eder bat jaztera,
bertsolariok jarrai gogotsu
herri batetik bestera,
gure lurrean guk ez daukagu
zertan egon buruz bera,
une honetan aitor dezagun
bagera edo ez gera,
bertsolaritza bizi dan arte
biziko baita euskera.

(15, 313 or.)

Uztapiderena da, berriz, hurrengo bertsoa, "San Juanak" sailekoa, **A** edo **AK** ez beste atzizki batez osatutako puntuaren adibidetzat aukeratua:

Garagarrillen ogei ta irua
oi da San Juan bezperan,
oitura onak jarraitu bear
nola sinismendun geran.

Au illunabar aldera edo
eguzkiaren sarreran
egin izan da, ta ez gaiñera
iñorentzako galeran;
oitura onek segitzen du gu
gazte giñaneko eran.

(7, 212. or.)

Puntu laburra

Oso lege errazak agintzen du, era berean, **a** bokalez amaitutako erroa duen puntua laburra denean ere: gehienetan —baina ez beti— kideko izaten ditu erroan azken hiru hotsak, bai atzizkirik gabe doanean eta bai **a** eta **ak** atzizkiduna denean ere.

A bokalez amaitutako errodun puntua, laburra denean eta aipatu berri ditugunak ez bezalako atzizkiren bat daramanean, nahasian joaten da bestelako erroa duten puntuekin.

5. ESTILISTIKA

Tradizioak ez du iraupen huts esan nahi, transmisio baizik. Eta transmisioak hauxe dakar berekin: lehena ikasi, norbereganatu eta bersortzea. Tradizioari esker, orainaldian txertatzen da lehena, geroaren eskuetan uzteko. Horrexegatik iraupena eta aldaketa da; bizia eta bizitza bezalakoa: iraunkorra eta aldakorra aldi berean.

Horrela ulertu behar dugu bertsoaren (eta puntuaren) teknika ere. Tradizioaren baitan jasoa eta ikasia dugu, eta tradizio horren baitan erakutsi eta irakatsi beharra: batetik iraunkor eta bestetik aldakor.

Aurreko ataletan ikusiak ditugu puntuaren bi alderdi horiek: iraunkortasuna eta aldakortasuna. Saiatu gara aldeak azaltzen eta sistematitzen, eta ahal den neurrian elkarrengana hurbiltzen. Orain bertsolari bakoitzak du hitza. Honi dagokio, izan ere, tradizioz jasotako hori ikasi, bereganatu eta erabiltzea; eta, are gehiago, bere estilo propioz bersortzea.

Horrexegatik, estilistikaz ihardungo dugu azken atal honetan. Puntu-erabiltzaile guztiek ez dute puntua berdin erabiltzen. Hor daude tradizioak, arauak, legeak, eskolak, joerak...; eta hor dago gaur egun zabalduen dagoen puntu-mota ere. Baina hor daude, era berean, bakoitzaren erabilera, estetika, estiloa eta aukera ere, jaso duenaz norberak landuta-

koaren emaitza. Izan ere, gutxienekoak markatzen dituzte arauek eta legeek. Norberaren esku geratzen da, hain zuzen, gutxieneko horiek lokabe utzitakoa lantzea.

Norberak erantsitako horretaz ihardungo dugu atal honetan: gutxieneko arau horietaz nola baliatu, nola jantzi eta dotoretu puntua...

Puntua: arau eta baliabide

Ahozko literaturatik dator puntua: ez dago bertsorik punturik gabe, puntudunak dira esaera zahar asko ere. Literatura idatziak bereganatu egin zuen gero puntua, baina puntuaren egitekoa aldatuz, neurri batean behintzat.

Ahozko literaturan, baliabide mnemoteknikoa da batez ere puntua: bertsoak gogoan errazago hartzeko erabiltzen den baliabidea; baina sortze-baliabidea ere bada: bertsoak errazago sortzeko erabiltzen dena. Pixkana-pixkana, baliabide estetiko bihurtuko da errima literatura idatzian: poemak-eta apaintzeko baliabide.

Ahozko literaturan beharrezko baliabide da puntua. Literatura idatzian, berriz, gero eta apaingarriago da errima; horrexegatik gero eta baztergarriago gertatzen ari da, traba egiten duen araua den neurrian.

Puntu luzea eta laburra

Aurreko ataletan ikusi ditugu bi puntu-motak. Eta tarteko puntu-motaz hitz egiteko aukera ere izan dugu bigarrenean. Garbi dago, noski, puntu luzea nagusitu dela ia erabat gaur egunean. Baina ez da ahaztu behar, jakina, bizirik dagoela oraindik ere puntu laburra eta hor izango dela beti tarteko puntu-motari bideak zabalduz.

Puntua luzeagoatzen

Baina puntu luzea laburtzeko joera bezain handia da gutxienez kontrakoa: puntu luzea luzeagotzekoa.

Horretan maisu dugu Manuel Lasarte. Eta eragin handia izan du gero haren betsokerak! Hona hemen, esaterako, Lasartek bere aitari jarritako bertsoa:

Eskol-aldetik etzan

gizon jakintsua,
euskera bakarrik zan
beraren mintzua;
eldu zitzaionean
eriotz mintsua,
betiko ixildu zan
guraso zintzua,
frutu asko emandako
arbola zaintsua.

(6, 53. or.)

Nahikoa zuen, noski, **Zua** puntuarekin; baina bi hots gehiago erantsi dizkio: **in**. Urrutirago doa, berriz, "Mutil koskorretako bizitza" saileko honako bertso honetan:

Bizitza diot mutil
koxkorretakua,
izan ez arren buru
pixkorretakua,
nola zan pobrea ta
kaxkarretakua
gu jaio giñan mendi
baxtarretakua.

(6, 57. or.)

Bertso jarri horietan erakutsitako joera bera zuen Lasartek bat-bateko bertsoetan; eta halaxe dute haren bidea landu dutenek ere. Bestalde, nahiz eta beste bidetik izan, Amurizaren bertsokerak ere badu zerikusirik puntua luzetzearekin.

Puntua eta euskararen erabilera

Gogora ditzagun Xalbador zenaren hitzak. Honela dio puntuaz ("rima" hitza darabil berak) ari delarik:

"Ez ginuke hargatik, rimaren itxura egin beharrez, gure hizkuntza gaizki erabili behar. Etsenplu asko emaiten ahal nituzke hortaz; bainan, ez luzegi izaiteagatik, hau emanen dut bakarrik. Maizegi entzuten da zerbait holako, konparazione:

Deitoragarri zaut hiltzia,
maitatzen baitut bizia.

Bizia'rekin ongi joanarazi nahiz, erran du horrek *hiltzia*, hiltzea delarik hitz xuzena. Poto egitea baino lotsagarriago zaut eni hori. Poto egi-

ten duenak, ez du nehor enganatzen; hura agerian gelditzen da. Aldiz, *hiltzia* erran duenak, enganatu nahi izan du.

Holako zerbait ezin bertzean egin izan ez duen pertsularirik ez ditaike; bainan zer egiten duten ongi dakitela eta noiz nahi egiten dutenak badira.

Pertsu idatzietan ere agertzen da maiz huts hori. Han oraino itsusiago egiten du.

Badakit ber horier etzaiotela bekatu; baina nik ez dut hori onartzen. Denek behar dugu gure hizkuntza ongi ahozkatu, eta pertsulari batek bietan."

(8, 59-60. or.)

Iritzia garbi eta argi emana dago. Baina bat-bateko bertsogintzan bertsolari askok jokatzen dute bestela, nahiz eta bertso jarrietan gehiagok aintzat hartu Xalbadorren iritzia.

Dena den, bego hemen, puntua landu nahi duenarentzat bide-erakusle.

Puntu atzizkidunak

Aurreko ataletan ikusi dugunez, sarritan erabiltzen dute bertsolariek puntu atzizkiduna. Horrelakoetan badago bertsoa itsusteko arriskurik, tentuz ibili ezean: atzizki bera erabiliz osatzea bertso bateko puntu guztiak. Esaterako, honela: **aitari, amari, etxeari, kantuari...; edertasuna, alaitasuna, erraztasuna, zorroztasuna...; naizelako, dalako, geralako, diralako...** Bertsolari bakoitzaren esku dago berdintasun aspergarri eta errazegi hori apurtzea.

Potoarekin jolasean

Adierazia dugu zeri deitzen zaion bertsotan poto egitea: esanahi bereko hitz bera erabiltzeari bertso bateko puntuan behin baino gehiagotan; eta erantasia dugu ez dela poto, ordea, esanahi ezberdineko hitza erabiltzea, nahiz eta hitz bera izan formaz.

Oso ezaguna da, esaterako, Goiburu bertsolariak Zepai sari batean "Bertsolari onena zein den" galdeari erantzunez kantatutako bigarren bertsoa. Lehenengo bertsoan, "Manuel Lasarte" erantzun eta gero, honela osatu zuen hurrengoa:

Leitzan jaio ta Orion
bizi dana erriz,
parekorikan ez du
rima eta neurriz;
denok txoratzen gaitu
bere bertso berriz,
ao-sapai ederra
eztitsua, berriz,
ez dakit olakorik
sortuko dan berriz.

(14, 102. or.)

Horra hor, **berriz** oina hiru aldiz errepikatua, baina esanahi ezberdinez. Eztabaida luzea ekarri zuen bertso horrek: bertsolariak poto egin zuen ala ez. Epaia garbi geratu zen: bertso horretan ez dago potorik, nahiz eta **berriz** oina hiru aldiz erabili; hiru oin horiek ezberdinak baitira esanahiez.

Eta besterik ez. Badu bertsolari bakoitzak aukerarik, bere puntua landu eta erabiltzeko. Aurreko ataletan arauak eta legeak bezala, honako honetan ditu zenbait baliabide. Bere eskuetan du, aurerantzean, lehendik datorkigun tradizioa ikasi, bereganatu eta bersortzeko aukera.

HIZTEGI TEKNIKOAK

Leioa, 1994.10.05
Andoni Sagarna

1. LEXIKO BEREZITUAREN BEHARRA GAUR EGUN

Hizkuntza beti aldatzen ari den arren hiztunok ez garela aldaketa horretaz jabetzen esan izan da, baina, egia esan, lexikoari dagokionez gaur egun denok konturatzen gara aldaketa handiak eta lasterrak gertatzen ari direna.

André Martinet-ek (1968) zehatz eta argi azaldu zituen lexiko-arloko berrikuntzen arrazoiak eta gizarte modernoan hauek ugaritzearen zergatiak:

> *Hizkuntza baten eboluzioa, erabiltzen duen taldearen komunikazio-heharren eboluzioaren menpeko da. Jakina, behar horien eboluzioa zuzenean lotuta dago talde horren eboluzio intelektual, sozial eta ekonomikoarekin. Hau nabarmena da lexikoaren garapenari dagokionez. Kontsumoko ondasun berriak agertzeak izendapen berriena dakar; lanaren banaketan egin diren aurrerapenek, funtzio berriei eta teknika berriei dagozkien termino berrien sorkuntza izan dute ondorio. Honekin batera doa baztertutako gauzak eta teknikak adierazten dituzten terminoak ahaztea ere.*

Bestalde, argi dago, asmakuntza-erritmoa, produktu berrien sorkuntza, modak kaleratzea, ezagutza zientifikoen zabalkundea, teknologia eguneroko bizimoduan sartzea, gero eta gehiago gertatzen diren gauzak direla eta baliteke XX. mendeko bukaerako urtebetean Antzinateko mende batean baino izendapen berri gehiago sortu behar izatea.

Mendebaldeko zibilizazioan bizi den edozein taldek erantzun behar dio erronka honi, baina hizkuntza guztiak ez daude erantzuteko egoera berean. Konkretuki, euskara ahul harrapatu zuen industrializazioak eta ahul ari da harrapatzen oraintxe bertan gertatzen ari den industri arotik informazio- -arorako aldaketa kupidagabeak.

Bistan da, denbora luzean bazterturik egon diren hizkuntzek, hiztunek borondaterik onenez jokatuta ere eta herri-erakundeek babesik

handiena emanda ere —eta hauek egunero gertatzen diren gauzak ez direla badakigu— eskasia handiak dituzte bizimodu modernoaren eskakizun hauei aurpegi eman ahal izateko. Ahulezia hauen artean nabarmenenak hizkuntzaren aldaera estandarraren falta, gaurkotasun-falta eta behar adina hizkuntz erregistro ez edukitzea, izaten dira.

Autore askok behin eta berriz esan digute, lexiko-sorkuntza dela, hain zuzen ere, gizarte industrializatu batean hizkuntza bati eskatzen zaizkion funtzio guztiak beteko dituen aldaera estandar baten eraikuntzaren giltzarria. Honela Karam-ek (1973):

> *Eta modernizazioak, egungo zibilizazioaz komunikatzeko behar diren lexikoa eta berbaldi- -motak irispidean jarriz, horretarako behar diren funtzio guztietan arau supradialektala erabiltzea ahalbidetzen du.*

Lexiko-sorkuntzak hizkuntz plangintzan duen garrantzia autore askok azpimarratu dute. Horrela, Fishman-ek (1973):

> *Benetan hizkuntz plangintzari buruzko kontzientzia popularraren parterik handiena hizkuntz akademiek edo beste erakunde ofizial edo erdi ofizialek gidatzen duten lexiko-lanketarekin lotua dago...*
>
> *...Azken gertakari hau, modernizaziorako lanketa-printzipioei edo zenbait teknologi eta kultur arlotan eginiko lanketa horren (edo lanketa-faltaren) adibideei buruzko literaturak duen tamainan isladatzen da.*

Berez hizkuntza guzti-guztiak etengabe lexikoa sortzen ari dira, baina normalizazio-bidean dauden hizkuntzetan egin beharreko lanaren tamaina eta presa askoz handiagoak dira, mendetan zehar egoera berrietara egokitu ahal izan duten hizkuntzetan baino. Valter Tauli (1973) batek azpimarratu izan du hau:

> *Hizkuntz Plangintzaren beharra ez da berdina hizkuntza guztietan. Egoera desberdinak dituzte literatur tradizio luzea, morfologia sinple samarra eta dialekto arteko diferentzia txikiak dituen hizkuntza batek eta literatur tradizio gaztea, morfologia konplexua, dialekto arteko diferentzia handiak eta Hizkuntza Estandarraren forma lehiakide asko izanik 19 edo 20. mendera arte kultura konplexuaren espresiobide izan ez den eta hitz berrien fabrikazio masiboaren premia karrian dagoenak.*

Sortu beharreko lexikoaren bolumen izugarria, teknologia berriaren garapen geraezinari zor zaio. Azken bi mendeotan hainbat eta hainbat gauza eta kontzeptu jaio dira lehen ez zeudenak. Sortu behar diren izen-

dapen berrien kopurua bildurgarria da, Felber-ek (1980) dioenaren arabera:

> *Oraintsu arte hizkuntzalaritzari hizkuntza arruntaren garapen aske eta zuzendugabea soilik axola zitzaion. Hizkuntzalaritzak aintzakotzat hartu gabe utz zezakeen estandarizazioa, hizkuntza arrunteko hiztegia ez delako oso zabala (600.000 hitz inguru ingelesez) hizkuntza teknikokoarekin konparatzeko. Shakespeare-k bere lanetan 23.000 hitz desberdin inguru erabili zituen. Hizkuntza teknikoetan, ordea, zientziak eta teknologiak duten garapen lasterrak eraginda kontzeptu eta termino ugari sortzen baitira (4 milioi kontzeptu injinerutza elektrikoan bakarrik) terminologiaren garapen askeak nahasmendu jasanezina ekarriko luke.*

Azken bi aipamen hauek, lanaren tamaina ikaragarria ezezik, plangintzaren beharra ere azpimarratzen dute.

2. TERMINOLOGIA TEKNIKOAREN ESKAKIZUNAK

Terminologia teknikoaren sorkuntza eta finkapenak hizkuntza arrunteko hiztegiarenak ez dituen eskakizunak ditu. Hizkuntza arruntean erabilerak finkatzen du lexikoa eta hiztegi arauemailearen egileak berak ere errespetoz begiratzen dio tradizioari, ezer proposatu aurretik. Sinonimoen eta antonimoen ugaritasuna egokia da, hitzen konnotazioak denotazioak adinako garrantzia du, etab. Hizkuntza teknikoan guztiz bestela dira gauzak: terminoaren finkapena arautik dator, honek zertzen du erabilera, sinonimiak ez du lekurik, konnotazioak ere ez. Terminoa finkatzeko garaian kontzeptua zehaztu behar izaten da lehenbizi eta ez alderantziz. Kontzeptuak ez dira bakoitza bere aldetik hartzen, kontzeptu-sistemak osatuz baizik. Sistema hauetan kontzeptuek beren artean erlazio-modu desberdinak eduki ditzakete.

Gai hauek aztertzen dituen disziplina berri bat jaio zen mende honen lehen herenean araugintza industrialaz arduratzen ziren teknikarien eskutik: Terminologiaren Teoria Orokorra deritzona. Azken hogei urteotan disziplina hau hedatuz joan da eta gaur egun hainbat unibertsitatetan irakasten da munduan zehar, bereziki Vienan, Moskun eta Quebeceko Laval Unibertsitatean.

Termino teknikoen eraketari dagokionez, badu zeresanik lexikologiak ere, zeren eta azken finean termino tekniko berriak sortzeko ditugun bideak hitz arruntak sortzeko ditugunak berberak baitira: maileguen egokitzapena, eratorpena, hitz-elkarketa, zabalkuntza semantikoa, berrikuntza fonologikoa eta eraikuntza sintagmatikoak.

Termino teknikoak hiztegietan eta sistema informatikoetan biltzeaz eta autolatzeaz lexikografia teknikoa edo terminografia arduratzen da.

3. EUSKAL HERRIAN ORGA IDIEN AITZINEAN EZINBESTEAN

Euskal Herrian terminologia teknikoak arazo bereziak planteatzen dituela konturatu denik aspaldidanik izan da. Esate baterako, beste gauza askotan bezala, aita Larramendik honetan ere iritzi argiak zituela erakutsi zuen hiztegiaren hitzaurrean. Geroztik "hizkuntza larrekoa noranahiko" bihurtzen ahalegindu denik izan da, baina ez era sistematikoan, harik eta 1977an UZEI sortu zen arte.

UZEIren sorkuntza, hizkuntzaren erabilera arlo berrietara hedatu beharrak zekartzan premiei erantzun nahiak eragin zuen. Honek esan nahi du, jakina, hiztegiak erabileraren aurretik etorri zirela eta ez ondoren. Hiztegi teknikoak egiteko behar ziren ezagutza espezializatuak ere lanean hasi ondoren etorri ziren eta ez lehenago. Orga idien aitzinean jarri zen ezinbestean.

Normalizazio-bidearen hasieran gauza askotan gertatu zen hau. Ikastolak sortu aurretik ez ziren irakasle-eskolak sortu, baizik eta alderantziz, esate baterako. Honek bere arriskuak ditu noski eta behin baino gehiagotan datu-faltaz edo ezjakintasunez hankasartze handi samarrak egin daitezke. Logika hutsari kasu egin behar balitzaio ezingo litzateke hiztegi-lanik egin *Orotariko Euskal Hiztegia* osatu arte, esate baterako, bestela tradizioa behar bezala ezagutu gabe jokatzea delako, baina hizkuntza-gauzetan, bizirik matendu nahi den hizkuntza baten gauzetan behintzat, logika hutsak ez du balio. Gaurko egoeran hizkuntza arlo guztietan erabiltzea hil ala bizikoa da. Paraleloan lan egin behar da tradizioa aztertzen, hiztegi arauemaile modernoa egiten eta erabilera berrietarako terminologiak prestatzen. Behin-behineko lan asko eta berrikuspen ugari egin behar da, bizitzaren gurpila gerarazten ahalegintzea alferrikakoa baita.

Terminologia teknikoari dagokionez, egoera normal batean, jakintzagai desberdinetako espezialistek, nork bere arloaren barnean, testuak eta berbaldiak sortzen dituzte eta hauetan terminologia erabiltzen dute. Erabilera hau zehatza eta egokia izaten da, espezialistok beren gaia oso ongi ezagutzen dutelako, baina hauek ez dute ez denborarik ez ezagutza bereziturik izaten terminologia era sistematikoan lantzeko. Eginkizun hori terminologoek betetzen dute. Hauek eremu desbedinetako testuak arakatuz, terminoak testuinguruetan atzematen dituzte. Beren metodologia propioa erabiliz espezialisten lanetan agertzen diren terminoak aztertzen dituzte araugintza xedetzat harturik eta komunikazioan azken

erabiltzaileekiko bitartekari-lana egiten duten itzultzaile, interpretatzaile, idazle eta xede berezietako hizkuntzen irakasleei terminograflaren emaitzak eskaintzen dizkiete.

UZEI sortu eta lehenbiziko urteetan gauzak ez ziren horrela gertatzen eta ezin ziren gertatu, ez baitzegoen bere espezialitatean euskaraz ziharduen espezialistarik. Horren ordez, espezialistei hiztegigintzan parte hartzera deitzen zitzaien. Terminologi lanetarako prestakuntza berezia hartutako inor ere ez zegoen. Pixkanaka egoera hau normalduz doa eta esan daiteke euskaraz egiten den terminologi lanak beste hizkuntzetan egiten direnen parekoak direla.

4. ZENBAIT LORPEN INTERESGARRI

Hamazazpi urtetan hamabost bat lagunek egun osoz eta kanpoko seiehun bat lankidek eginiko lanak fruituak eman ditu, besteak beste berrogei hiztegi tekniko hainbat arlotakoak. Horrezaz gain, bereziki azpimarratu nahi nuke urte hauetan informatikak eskaini dituen baliabideei atera zaien etekina.

Lehen lau urteetan paperezko fitxekin lan egin zen ia erabat. Hala ere, laster planteatu zen ordenadorea erabiltzeko posibilitatea eta adituei deitu zitzaien aholku eske. Denak bat etorri ziren iritzia ematerakoan, salbuespen bakarrarekin. Denek esan zuten baliabide izugarriak eskuratu ezean terminologi lana ezin izango zela informatizatu, adituetako batek izan ezik. Klaudio Harluxet zena izan zen, baietz, egin zitekeela esan zuen bakarra. Esan eta egin. Ondoko urteetan bera izan genuen aholku--emaile eta gidari eta berari esker lortu da hainbat gauza. Okasioa ezin dut pasatzen utzi behar baino lehenago gure artetik joan zitzaigun lagun gogoratzeko.

Datu-base terminologikoak maneiatzeko sistema guztiz orijinala asmatu zuen, guztiz malgua, fitxaren egitura moldakorra onartzen zuena eta orduan ohizkoa zen eremuko karaktere-kopuru jakin batera mugatu beharra gainditzen zuena. Makina ikaragarri handitara jo gabe ehundaka mila fitxa aski konplexu eroso maneiatzeko datu-basea egin ahal izan zen.

Gero, datu-base hori telematika bidez kontsultatzeko EUSKALTERM sistema jarri zen martxan. Gaur egun Euskal Herrian gai gara terminologi lana munduan zehar erabiltzen diren prozedura sistematikoak erabiliz egiteko.

5. HUTSUNEAK ETA LANDU BEHARREKO GAIAK. DORTOKA ERBIAREN ATZETIK

Lortu dena esatea ongi dago, baina egin denaren kontenplazioan geratzea oso arriskugarria da. Ezin dugu esan hiztegi teknikoen arloak euskaraz alderdi ilunik ez duenik. Hona hemen kezkatu behar gaituen zenbait arazo:

1. Desoreka dauka gaurko euskal lexikoak. Pentsatu behar da, duela hogeita bost urte lehen irakaskuntzan behar zen hiztegia ere ez zegoela euskaraz. Urte gutxitan aurrerapen batzuk egin dira eta zenbait arlotan, hala nola, Kimikan, Informatikan edo Metalurgian ikertzaileek lana euskaraz egiten duten bitartean, beste batzuetan hiztegi arruntak bildu behar lukeena ere ez dugu. Kontuan izan behar da hiztegi arauemailerik ez dugula eta orain arte hiztegi teknikoetan bakarrik bildu den hainbat termino, egoera normalean dagoen edozein hizkuntzatan hiztegi arruntekotzat hartzen dela. Hamasei urte arteko irakasmailetan erabiltzen den terminologia teknikoa hiztegi arruntaren mailan finkatu beharra dago. Hiztegi Batuko batzordeko kide naizen aldetik, oso urruti ikusten dut *Euskararen Hiztegi Arauemailea.* Oraingo lan-prozedurak eta -erritmoak segitzen badute, urte asko falta dira horrelako hiztegi bat kalean ikusteko. Neurri handi batean orga idien aurrean jarri beharrean gaude oraindik.

2 Hasieran aipatu dugun terminologia teknikoaren ugaritasuna areagotzen ari da urtetik urtera, garapen teknologikoak azelerazio ikaragarria duelako. Gure gizartea asko ari da aldatzen eta askoz gehiago eta lasterrago aldatuko da hemendik aurrera. Orain arte jarriak ditugun baliabideekin erbiaren atzetik doan dortoka gara. Nire ustez ez da txanpon-arazo bat edo txanpon--arazo hutsa behintzat. Paradigma-aldaketa baten premia larrian gaude. Esate baterako, Euskaltzaindiak berak duen egitura eta funtzionatzeko era ez dira nire uste apalean egokienak euskarak dituen beharrei gaurko egoeran erantzuteko. Irekitasunez eta tabuak alde batera utzita elkarrizketari ekin beharra dago. Ideiajasa batetik abiatu beharko litzateke inoren ekarpenik bazterrean uzteko arriskurik izan ez dadin.

3. Euskarak, sendotuko baldin bada atzera egiteko arriskurik gabe, enpresen eta profesionalen munduan sartu beharra dauka eta hor, jakina, sekulako lana dago egiteko terminologigintzan eta beste gauza askotan. Orain jarriak ditugun baliabideak, bereziki giza baliabideak, urriegiak dira. Elkargo profesionalak, sindika-

tuak, enpresario-elkarteak eta enpresak mobilizatu behar dira euskararen erabilera beren esparruetan areagotzeko.

4. Terminologia teknikoaren estandarizazioak beharrezkoa du legezko indarra administrazioaren erabilerari dagokionez eta nazioarteko estandarizazio-erakundeen babesa araugintzari dagokionez. Hau lortzea herri erakundeen eginkizuna da.

6. EUSKALTZAINDIAREN EGINKIZUNA HIZTEGI TEKNIKOEN ARLOAN

Euskaltzaindiak 1982ko abenduaren 29an adierazpen bat egin zuen. Adierazpen horren lehenbiziko puntua hiztegigintzari buruzkoa zen. Bertan lehentasunak ezarri zituen hiztegigintzaren arlo desberdinentzat eta hiztegi espezializatuez zenaz bezainbatean, hauek egitea eta banan banan aztertzea ez dela Euskaltzaindiaren lana esaten zen.

1984an, berriz, Hiztegigintza-Batzordearen epe luzerako plana onartu zuen. Plan horren arabera, *Orotariko Euskal Hiztegia*, Egungo Euskararen Bilketa-lan Sistematikoa (EEBS) eta Lexikologi Erizpideen Finkapena (LEF) amaitu osterako Hiztegi Hiritartu Arauemailea egitea eta Jakintzagai eta Bizigune Berezituetarako Terminologia Teknikoak prestatzea proposatzen zen. Lehen hiru programak bukatu eta azkeneko biak hasteko urtea 1991 zen. Azkena, terminologia teknikoari dagokiona hain zuzen, oraingoz ez da formulatu.

Nire ustez Euskaltzaindiak ez du azpiegitura egokirik terminologi lana egiteko eta seguraski ez litzaioke komeniko gaur duen egitura lan hori egiteko gehiago kargatzea. Ez al du hortaz terminologigintzaz ezer esatekorik Euskaltzaindiak? Bai horixe, nola ez? Euskararen osasunerako hain inportantea den gai bat axola zaio Euskaltzaindiari, baina horrek ez du esan nahi eguneroko lana Akademiak egin behar duenik. EEBS proiektuan erabili zen formula egokia izan daiteke. Kasu honetan Euskaltzaindiak garbi agertu zuen 1987ko urtarrilaren 31ko bilkuran hartutako erabakian, ez zuela berak "bilketa-lan sistematiko hori burutik burura, bere gain hartzeko asmorik" eta ez zuela berak "bilketa hori egiteko lantalde propiorik sortu eta beharrezko baliabidez hornituko" eta "lehendik lanean ari diren elkarte eta lantalde beregainen bidez" burutu beharko litzatekeela. Lantalde hori EEBSren kasuan UZEI izan zen.

Euskaltzaindiak proiektu horren jagoletza akademikoa egin zuen Hiztegigintza-Batzordeko berariazko azpibatzorde baten bidez. Azpibatzordearen lana proiektua egiteko proposatzen zitzaizkion irizpide eta metodoak aztertu eta onesten ala zuzenduarazten zituen, baina eguneroko lanean lantaldea guztiz beregaina zen.

Nik formula hau gehiagotan erabiltzea proposatuko nuke eta konkretuago esateko, bai Hiztegi Batuaren kasurako eta bai Terminologia Teknikoen kasurako, baina kasuan-kasuan formula egokituz. Hiztegi Batuarenean akademiaren jarraipenak zorrotzagoa izan beharko luke eta Terminologiarena, aldiz, lasaiagoa izan liteke.

Ez dakit proposamen hau doi-doi jende gehienaren gustokoena izango litzatekeen, baina formularen bat asmatu beharra dagoela uste dut hiztegigintza-lanak bizkortzeko.

EUSKAL HIZTEGI JURIDIKOA

Leioa, 1994.10.05
Andres Urrutia Badiola

"Official Welsh is, of necessity, something of a hybrid. Much of it is the result of the translation of material originally composed in English. No amount of painstaking translation will quite eradicate the Englishness of thought and concept which underlie it."

"Until documents are prepared in straightforward Welsh and translated into equally lucid English, or even nice verso, official Welsh will continue to be the rather oddly unnatural, slightly discordant, slightly strangulated and peculiar creature it has now become. But if its development brings with it an increased respect and an increasing self-respect, I am sure we can easily learn to live with official Welsh, whatever its faults."

B. P. Jones "Official Welsh" in M. J. Ball (ed.) "The use of Welsh" Multilingual Matters Ltd. Clevedon. Philadelphia, 1988.

1. SARRERA ETA HELBURUAK

Aspaldiko kontua dugu, Euskaltzaindiaren zereginetan, hiztegi juridikoarena. 1973. urtean, hain zuzen ere, Aita Villasante euskaltzainburuak honela jarduten zuen Antonio Arrue euskaltzainak euskaratzeko igorri zion hitz juridiko andana baten aurrean:

> "Nahiz eta zerrenda luzea ez izan, sail berezi bateko hitzak dira, eta ez dut uste lan hau arinki eta nolanahi egin daitekeanik. Alde batetik, euskeraz ongi jakin behar da, eta bestetik, lege gauzatan jantzia egon. Euskera lege gauzatan gutxi erabilia izan bada ere, agian badira zenbait hitz eremu hontakoak, izkribu zaharretarik, euskal foruetarik edota herriaren ahotik jaso eta kontuan eduki beharko lirakenak." (1)

Hogei urte geroxeago, gure eguneroko bizimoduan administrazio zein aginpide desberdinetako boletin nahiz aldizkari ofizialek egunean eguneango euskarazko testugintzaren lekukotza ekartzen digute, gai eta

(1) Aita L. VILLASANTE: "Lege gizonek behar duten hiztegi berezia" in *Euskera*, XVIII, 1973, 203. orr.

arlo anitzetan. Neurri txikiagokoan bada ere, gauza bera gertatzen da Justizia Auzitegi, Lanbide, Elkargo eta Zuzenbide Fakultateetan, hauek beren zereginetan euskara gero eta erabilgai edo tresna zabalagoa dutelako.

Zertan aldatu da gure gizartea, hortakoz, Aita Villasantek berea bota zuenetik gaur egun arte, bere barnean halakoak gertatzeko? Nik neuk, jarraiko bi aldarteotan ikusten ditut nagusiki horretarako arrazoiak.

Batetik, euskarak juridikotasunaren lanabesa izateko bizi duen parada areagotu egin da, gehitu egin zaigu. Oztopoak ugaldu beharrean, Euskal Herriko zenbait lurraldetan "ofizial" bihurtu zaigu euskara, honetara ere, administrazioaren eta administratuen arteko harremanetan legezko baliabidea dugularik.

Beraz, badira faktore batzuk, euskararen bizimodu juridikoan berebiziko eragina izan dutenak aldi tarte honetan. Bestalde ere, esan beharra dago historian lehendabizikoz sortu dela (Errepublika garaikoa salbuetsia, jakina) modu egonkor eta jarraiko batean, euskara erabiltzeko borondatea eta xedea erakutsi duen botere publiko gunea.

Aldi berean ere, aldameneko bidea egin du euskarak berak 1968. urtetik aurrera, bere batasunaren prozesuan luze ibili baita eta dabil, oraindik ere, gure hizkuntza. Hauxe genuen, geroxeago ikusiko dugunez, ezinbesteko baldintza euskal hizkera juridikoa sortu eta eraikitzerakoan, hizkuntzaren standarizazio ezak ekarri baitio sarri askotan euskarari goi egitekoetan murgiltzeko arnasa falta, goi eginkizun hauen artean mundu juridikoarena ere tarteko dugula .

Mundu juridikoa esan dut, eta berehala antzemango duzuenez, berba eta hitz juridikoak esan nahi izan ditut, baita ere, Villasanteren ildotik, horixe baita, izan ere, nire gaurko egitekoa, hain zuzen, euskararen hiztegi juridikoarena.

Horretarako eta zuzenbide mundutik etorria, nire egiteko hori hirutara bihurtu dut:

1. Lehena izango litzateke, euskararen hiztegi juridikoa aztertzerakoan, euskarak Euskal Herriak bizi izan duen foru kultura juridikoarekin dituen loturak azaltzea, ezinbestekotzat jotzen baitut, geroari buruz jardun baino lehenago, aurrekoari buruz eta gure kasuan, euskarak jatorriz duen hiztegi juridikoari buruz zertxobait esatea. Beren-beregi aipatuko ditut euskarak nola hezurmamitu zuen, hezurmamitu bazuen ere, foru mundua eta zer ekar dezakegun guk mundu horretatik gurera, hiztegiari dagokionez bederen. Hona hemen Aita Villasanteren lehen ardatza:

> "Badira zenbait hitz eremu hontakoak, izkribu zaharretarik, euskal foruetarik edota herriaren ahotik jaso eta kontuan eduki beharko lirakenak." (2)

2. Aurreko hori gure egungo premiei erantzuna emateko nahikorik ez delakoan, nahitaez sartu beharko dut nire burua beste eginkizun batzuetan, alegia, hizkera arruntaren eta hizkera juridikoaren arteko dema latzean. Joko honek euskararen kasuan orain arte zernolako ondorioak ekarri dituen eta hurrengo batean ere ekar ditzakeen azaleratzen saiatuko naiz, lehen esan legez, hiztegigintza juridikoaren alorrean. Gogoratu Villasanteren bigarren ardatza:

> "Ez dut uste lan hau arinki eta nolanahi egin daitekeanik. Alde batetik euskaraz ongi jakin behar da eta bestetik, lege gauzatan jantzia egon". (3)

3. Hirugarrenez, gogoetaren aldeko joera hartuko dut, eta berak eramango nau, beste behin ere, arlo honetan ustezko etorkizunerako baliagarri izan daitezkeen zehazbide batzuk plazaratzera, jarraiko baldintzen barnean:

1) Hiztegigintza juridikoaren autua Euskal Herrian nondik nora bideratu hori, herri honek bizi duen sistema juridiko eta hizkuntzen arteko aniztasunaren barnean kokatzen dut nik. Bi (edo hiru, europarra bilduz geroz) sistema juridiko eta hiru hizkuntzek (egoera desberdinetan, jakina) osatzen duten ingurunea ez da, halafede, erraz konpontzekoa.

2) Bukatzeko, labur eta gaingiroki bada ere, hiztegigintza juridikoan euskarak berak daraman batasunerako abiadurak eta Euskaltzaindiaren azken gomendio-arauek, zernolako eragina izan dezaketen azalduko dut, beti ere, azken helburutzat hartuta bene-benetan eskuratzea behin batean euskarak bete beharko lukeen "zuzenbidearen harrera" deitu nuen hura. Hortxe dira, izan ere, egungo itzulpen lanetik biharko sortze lanera doan bidean urratsak emateko gogo eta asmoak.

Hala ere, nire jomuga hauek azaldu eta gero, berehalako ohar metodologiko batzuk egin beharrean nago:

1. Hasteko eta hala nahita gainera, esan behar, hiztegi juridikoa hartu dudala xedetzat, hizkera juridikoak duen batasun zatiezinaren kalterako, begien bistakoa delako lexiko eta diskurtsoak elkarrekin osatzen dutela hizkera juridikoaren eremua.

---

(2) ibidem.
(3) ibidem.

2. Jarraitzeko, eta zuen aurrean bereziki azpimarratu nahi dut honako hau, ez dut izan lexiko eta hiztegi juridikoak egunero ekartzen dizkigun arazoak konpontzeko asmorik ezta haien korapiloen mataza askatzeko bide magikorik ere.

Aitzitik, jakitun naiz lan honetan nire burua juridiko den orori lotzen diodala eta honela egiterakoan, gainera, honek duen orokortasun horretan gelditzen naizela, orokortasun horrek galarazten didala, ohar eta guzti, zuzenbidearen adar eta azpiadarretan behar bezala barneratzea.

Administrazioa, legegintza zein epailetzaren hizkerak ere aztergai izango nituzke horrelakoetan, abiapuntuak modurik zehatzenean hartzekotan.

Hizkera juridikoaren hiztegia, horra hor nire jórana eta hona hemen, jarraian, nire lehen ardatza, mendeen mendeetan euskarak berezkoa izan duen kultura juridikoaren barnean murgiltzerakoan.

2. HIZKERA JURIDIKOAREN BARNE-MUINA, LEXIKOAREN ALDETIK: HITZ JURIDIKOEN SAILKAPEN OROKORRA

Izan ere, nire eginkizunaren lehenengo puntua izango nuke, ahal den neurrian, hizkera juridikoaren zernolakotasuna zehaztea, batik bat hizkera arruntarekikoarenean, beti ere, hizkuntza oso baten barnean.

"Zenbat buru, hainbat abúru", dio esaera zaharrak. Ni neu ere, horretan nago eta ondorioz, batera nator Duarte i Broto katalanekin hizkera juridikoaren kontzeptua honetara azaltzen dutenean:

> "Doncs bé, el llenguatge jurídic és el tecnolecte de l'ambit conceptual corresponent al món del dret" (4).

Motz eta labur, hona hemen lehen ideia. Katalanak laburregi ari direlakoan, batzuek arbuiatu ere egingo lukete aurreko hori, bestelako ñabardurak ezarriz. Nire ustez, ostera, gaia jorratzeko haina argigarri izan dakiguke katalanez idatzitako hori.

Honetara etorrita, esan dezadan bidenabar hizkera juridikoak hitz juridikoak nahitaez barneratzen dituela. Hitz eta termino juridiko horiek, halaber, sentidu eta esanahi osoa dute gune juridiko jakin batean edo zuzenago esateko, sistema juridiko edo ordenamentu juridiko baten barnean.

(4) Carles DUARTE i MONTSERRAT-Pilar de BROTO i RIBAS: *Introducció al llenguatge jurídic.* 3.ª Edició.Generalitat de Catalunya. Barcelona, 1990, 11. orr.

Euskal Herriaren kasuan sistema juridiko oso hori, orain arte, usu kokatu dugu Mendebaldeko Europan, XIX. mendean sorturiko nazio estatuek eraiki zituzten sistema juridikoetan. Horrelakoetan, hau da, tradizio juridiko baten jabe diren hizkuntzetan, idazleek, hitz juridikoei buruz jarduterakoan, bi multzo bereizten dituzte nagusiki, jarraiko banaketa egiten dutelarik:

1. Hitz juridiko hutsak. Kopuruz gutxienak badira ere, hizkera juridikoaren gune-gunean kokatzen dira.

2. Bigarren multzo batean, hizkera arruntaren hitzak leudeke, beraien karga semantikoa, juridikoa bezain arrunta izan daitekeela. Hemen izango genituzke kokaturik hitz juridiko gehienak.

Bataz beste, horrelakoak aurkitzen ditugu inguruko hizkuntza garatuetan ere, hauek oinarritzat duten sistema juridikoa edozein delarik ere.

Har ditzagun, hauen argigarri gisa, hiru autore, hiru hizkuntza desberdinetan aritu izan direnak autu honen argiketan. Santiago Mollfulledak (5) gazteleraz, Cornuk (6) frantsesez eta Alcarazek (7), berrikitan agerturiko ingeles juridikoari buruzko azterlan batean, antzeko adibideak alderatzen dituzte alor hauek zehazteko.

Bestetik ere, termino edo hitz juridikoen berezko osagarriak ditugu sinonimia eta polisemia, hain zuzen ere, hizkera zientifikoetan eskuarki gaitzetsiak izaten direnak.

Baina orain arteko hizkera "normalizatu" batean gertatzen dena azaldu badut ere, berehalakoan gogora datorkiguna bestelako hau dugu: gauza bera gertatzen al da euskararen kasuan?

Villasanteren hitzak nahiko argigarri ez balira ere, ohizkoa egin da gure artean euskarak lantze juridikorik izan ez duela esatea. Beste alde batetik ere, inguruko mintzamoldeen alboan euskara bestelako aiurrikoa izateak ez dio lagundu ere horrelakoetan. Dena den, hori ere zalantzan jartzea komeni zaigu, ea benetako argumentuak diren horiek ala beste errealitate batzuk estaltzeko modukoak.

Arestian egin dugun sailkapenari arretaz begiratzen baldin badiogu, ondorio batzuk eskuratzeko tenorean gaudela berehala antzematen dugu:

(5) Santiago MOLLFULLEDA BUESA: *Lenguaje jurídico y lenguaje común.* Doktoradutzarako tesis baten laburpena. Universidad de Barcelona. Barcelona, 1980. 17. orr eta jarr.

(6) Gérard CORNU: *Linguistique juridique.* Ed. Montchrestien. Paris 1990, 61. orr eta jarr.

(7) Enrique ALCARAZ VARO: *El inglés jurídico.* Ed. Ariel, S.A. Barcelona, 1994. 82. orr. eta jarr.

1. Lehen alorrean, hots, euskarazko hitz juridiko hutsetan, nabarmen da hutsunea, historian zeharreko erakunde jakin batzuen salbuespena alde batera utzita. Honela, euskalki desberdinetako *gasaila, erdirikoa, alkarpoderosoa, zaingoa, abere hazgarri, korta ganadue, garbitzalda,* eta baserri ustiaketari buruzko kontratu zein figura juridikoek osatuko lukete jatorriz multzo hau, esandakoaren froga gisa eskaini daitekeelarik erdarazko foru testuek erakunde hauetariko batzuk arautzerakoan halabeharrez erabiltzen zuten euskal hitza, komunikazio eragina kontutan hartuta eta herriak euskal hitzarekin lotzen zuen eta duen kontzeptua barneratuta. Badira hiztegi juridiko mota honen adibideak gure foru testuetan.

Hori horrela bada ere, ezin uka dezaket teorian bederen eta ikuspuntu garaikideago batetik ikusita, gaur egun euskaraz darabilgun itzultze lanaren bitartez, honelakoak ere euskaraz ager daitezkeenik.

Agertzen diren neurrian ere, hizperri zein maileguen bitartez, beste sistema juridiko baten erreferentziak izango dira. Horrelakoetan leudeke, esaterako, *sinalagmatiko, subrogazioa*, eta abarrekoak.

2. Bigarren alorrean, ordea, gertaerak askoz arruntagoak izango lirateke, hemen ere kokatuko bainituzke nik, alde batetik historian zeharreko berbak: *lege, testamentu, estatu, gobernu, usario, kontratu* eta gero ere, euskararen esparrura etorritakoak: *akzio, errebokazio,* eta abar.

3. EUSKARAZKO KULTURA JURIDIKOA: FORU SISTEMA ETA HIZTEGI JURIDIKOA

Aurrekoa agerian utzi eta gero, hiztegi juridikoak euskararen ikuspegitik duen lehen berezitasun semantikoari heltzeko tenorean geundeke, alegia, historian zehar hiztegi honek sistema juridiko zehatz bati, foruen sistemari hain zuzen ere, erabat atxekirik agertze kontuari.

Izan ere, euskarak bere lehen erreferentzia semantiko-juridikoa foruetan izan du. Nola, ordea, halakoa baieztatu, foru testu juridikoak erdaraz idatziak izan zirelarik?

Arrazoi franko izan dira tartean euskaldunek foruak erdaraz zergatik idatzi zituzten azaltzeko. Aspalditik Lacarrak (8) esan zuena baieztatuz, aurtemein Grosclaudek (9) ere begibistan utzi du arlo horretan alboko erdarek izan zuten eragina eta indarra.

(8) José María LACARRA: *Vasconia medieval. Historia y filología.* Publicaciones del Seminario Julio de Urquijo. Diputación Provincial de Guipúzcoa. San Sebastián, 1957.

(9) Michel GROSCLAUDE: "La langue de"La Coutume de la Soule" in *La Coutume de la Soule.* Ed. Izpegi. St. Ettienne de Baïgorry, 1993. 151¡ orr. eta jarr.

Lehen esan legez, euskarak badu agertzerik honelako testuetan, Villasantek aipatzen zuen moduan, agertze hori urria bada ere. Zenbait kasutan erakunde juridikoa bera izendatzen da euskaraz, herriarengan izen honek izan zezakeen ezagupidearen lekuko gisa. Beste batzuetan, aldiz, euskarak berak jasotzen eta barneratzen ditu aldameneko mintzairen hitz juridikoak, honela ere bere lege hitzak sortuz. Horra hor, berbarako, Txomin Peillen euskaltzainak Pabeko hirian gogorazi ziguna, euskara gaskoineratik jasoriko lexiko juridikoa dela eta (10).

Honek guztionek, beraz, ondorio batera eraman gaitzakeelakoan nago. Izan ere, ez dut uste zilegi denik, neurri batean bederen, foru eta lege idatzietan dugun euskararen ageri urria dela eta, euskarak mundu juridiko hori bizitu ez zuela ondorioztatzea.

Nire ustez, euskararen presentzia eta erabilera juridikoa *idatzizkoa* baino, *ahozkoa* izan zen foru garaietan.

Ez dezagun ahantz gaur ezagutzen dugun XIX. mendeko Kode *"nazional"* horietan aldarrikatzen dela nagusiki lege idatziaren lehentasuna. Gure foruetan, ostera, lehentasun hori erabat baldintzaturik zegoen ohituraren bidez. Ahozko eta ohiturazkoa, horra hor euskal hitz juridikoen bila dabiltzan ikerlariek aintzakotzat hartu beharreko bi ardatzok.

Bide beretik joanez ere, ez nuke nik, alabaina, gai hau okerreko lekura eraman nahi. Aurrekoa egia bada ere, are egiatsuagoa da XIX. mendean, Frantziar Iraultzaren ondoan aipaturiko kode eta lege idatziaren nagusitasuna Europan zehar zabaltzen denean, euskarak ez duela eskuratzen mundu juridiko oso bat adierazteko modurik.

Honek, eta liberalismoak bultzaturiko kode idatziek gehi foruen galerak, batera jokatuko dute euskararen corpus juridikoaren sorrera oztopatzeko orduan eta abagunean.

Ezinbestekoa izango zaio euskarari, nolabaiteko juridikotasun baten izenean (lege idatzi horiek emandakoa, jakina), Espainia eta Frantziako estatuetatik datozen legeak itzuli eta euskaratu beharra. Itzultze hori, segidan aztertuko dugunez, helburu batera zuzendua da, alegia, mezu berri hori euskaldunei zabaltzeko gogo zuzenarekin egiten da.

Lan horretan estekatzen dira XVIII.-XIX. mendeetan Euskal Herriko barne mugaren bi aldeko hurrengo saio hauek:

---

(10) Txomin PEILLEN: "Euskara eta gaskoinaren arteko harreman eta loturak" in *Euskera*, 1993, 2. 38. liburukia (2. aldia). Bilbo, 292. orr. Hona hemen haren hitzak:

"Nous avons marqué notre étonnement devant la rareté des termes juridiques et administratifs basques d'origine occitane malgré un monopole de cette langue durant trois ou quatre siécles chez nous, le plus remarquables sont: *debeka-* "defendre", sans doute pleteiu "plaidoirie", notari: notaire et le synonyme de *zuzenbide* "dret".

1. Lehena, XVIII. mendeko hondarrean, iraultza frantsesak galdaturikoa eta lege idatziaren ezaguera zabala izan beharrak bultzatua. Hortik etorri zen testu iraultzaileen euskarapena. Fruituak, haatik, ez ziren izan, euskal hitz juridikoei zegokienez bederen, eragin handikoak.

Rica (11) azterlariak agerian utzi duenez, maileguen agerpen anitza eta zedarriztatugabeak komunikazioaren xede horretan lagundu baino, oztopoak ekarri zituen.

2. Bigarrena, Bizkaiko Batzar Nagusietakoarena litzateke, hemen ere, herri euskaldunaren eta batzar hauetan eztabaidatzen eta erabakitzen ziren erdarazko gaien arteko jausia eta amildegia garaitzeko zubia egin nahi izan zutela sasoi haretakoek euskararen bidez. Hitzei buruz, esan beharra dago itzultze lanak, hasieran zenbait irtenbide larramendiarren aldeko izanik ere, azkenean mailegu hutsetan eman zituela bere emaitzak. Hortxe dago, egon ere, Espainiako legedia etengabe barneratzen Euskal Herrian eta hortxe dugu ere, orduko estatu liberalaren hainbat erakunderen lehen euskal deitura.

Ez batak ez besteak, ez dute lortuko hiztegi juridiko idatzi baten eraikitzea. Itzulpen eta maileguaren bidez egindako lana ez da besterik izango orduko testu erdaldun hanpatuen ordain itzala baino.

Foruak foru, hauen galera gertatu eta gero ere, antzeko zerbait biziko du euskarak lehen aldiz XX. mendeko hirugarren hamarkadan. Gerra garaiko esperientziaz ari natzaizue, jakina, eta bertan gauzatu zen legegintza elebidunaz.

Gertaera honek, ene aburuz, bi aurrebaldintza izan zituen nahitaezko:

a) Alde batetik, XX. mendeko hasieran sorturiko kezka eta Euskaltzaindian bertan emaniko eztabaidak, euskarak aro garaikideari aurre egiteko behar zituen hizperriak nola antolatu eta zabaldu eta euskararen lexikoa nola osatu horiei buruzkoak. Altube, Azkue eta abarrek badute honetan zeridatzia *Euskera* agerkarian. Aipamen berezia bihoakio hemen Bonifazio de Etxegarai legelariari, berari baitagokio gai hauetan aintzindari izatea (12). Ondorioz, gerla denporako hiztegi juridikoa neologis-

(11) Margarita RICA ESNAOLA: "Traduction en basque de termes politiques sous la revolution" in *Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo*, IX, 1975, 3. orr. eta jarr.

(12) *Euskera*, VIII. urtea-I-II zenbakia. 1927 ilbeltza-garagarila. Bilbao 1927. Hona hemen orduko batzar baten aipua:

"V. Etxegarai jaunak adierazi digu, egin nai lukela lege-gizon artean dabiltzan itzen iztegitxo euskaldun bat. Oraingoz ez dakar besterik: *Belena* ta *Kardaba* nolaz eta zertaz esaten diran. Euskaltzaindiak gogoz entzun diyo ta lenbailen datorela Etxegarai'k egin nai luken iztegi ori". 36. orr.

moaren bidetik badoa ere, ez ditu euskararen arauak eta erregelak ahanzten edota hiztegi juridikoaren altxor historikoa erabat baztertzen.

Hala ere, eta oro har, komunikazio eroso batetik aldentzen dela ezin uka, neurri handi batean bederen.

b) Bestetik ere, Euskal Herriko herrialde batzuek autonomia eskuratzeak bidea erraztuko du. 1936-1937. urte bitartean aritu zen Eusko Jaurlaritzak beregain hartu zuen euskara hizkuntza ofizial gisa erabiltzea eta ondorioz ere, euskal hitz juridikoen bila ibiltzea.

Arestian esan bezala, euskararen barnean lehendik ziren hitz juridikoak erabiliz, neologismoaren bidea jorratu zuen gehienbat saio honek:

> "Esanbeharrik ez dago —dio Leizaolak, orduko Eusko Jaurlaritzaren boletinaren atarian— nere 'Oroagindua' laphurtarretik oro hitza arturik eta Zaingoa nik aspalditik Zuberoko lege-Zarrean artzaintzarentzat erabilia irakurria neukalako Eguneroko ortan sartu nituala."
>
> "Itzultzaileen lanaren eredutzat, izendatze bakar bat aukeratuko det. Erdarazko 'Juzgado de Instrucción' aitatzeko 'Epailetza Argibidelaria' irakurtzen da urrengo orrialdetan".
>
> "Ba, erdal-iztegigintzan instrucción ori zer dan adierazi nayean *elucidación* edo *elucidar* hitzak emango zaizkizute, *lux, luz* (argia) itz bakunak sustrai bezala dutenak. Euskal itzulpena benetan egokiya iruditzen zait aurrean daukazuten Egunerokoarena" (13).

Gerlaren poderioz, hilean gelditu zen honek, beraz, bazuen nondik jo. Orduko lehen euskalgintza juridiko hark, arrasto nabariak utzi zituen, utzi ere, zenbait kasu eta pertsonengan, egunotararte ere heldu direnak.

4. EUSKAL HIZTEGI JURIDIKOA MOLDATZEN: HIZTEGIGINTZA JURIDIKOA

Gerla osteko giroak, erraz ulertuko denez, ez zuen, euskal agindu eta manu beregain baten ezaz, hizkeraren lantze juridikorako aukera handiegirik ekarri. Itzulpen txiki batzuk eta bizpahiru artikulu izan ezik, basamortu lehorra izango zaigu zuzenbidearena euskararen baitan.

Nolanahi ere, euskal aginte publiko baten ezak ez zuen ekarri Euskaltzaindiaren lan-uztea. Eta langintza horretan Euskaltzaindiak emaniko urrats batzuk aintzakotzat hartzekoak dira hitz juridikoen arloan.

---

(13) LEIZAOLA'tar Josu Mirena: "Irakurleei" in *Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunerokoa*. Ed. Leopoldo Zugaza. Durango, 1977.

Lehena, datari begiratuta behinik behin, 1959. urteko "Euskaltzaindiaren agiria euskal hitzei buruz" litzateke.

Han, honela mintzo zitzaigun:

> "Euskal itzak dira euskera bizian sustraituak daudenak. Sustrai hori zenbat eta sakonagoa izan, ainbat eta eskubide geiago du itz batek erabillia izateko." (14).

Haren ondoan zetorren zerrendatxoan, bagenuen esanahi juridikodun hitz nahikorik. *Testamentu, alkate, lege, errege* eta antzekoek, beste behin ere, maileguen garrantzia azpimarratzen zuten, oro har, euskararen eta batik bat , euskara juridikoaren baitan.

Harez gerokoa bada ere, Euskaltzaindian bertan hasten dira hitz juridikoak euskaraz emateko arrenkurak. Lan honen hasieran hona alderaturiko Villasanteren hitzek bidea zabalduko diote 1979. urtean *Euskera* aldizkarirako Jose Luis Lizundia euskaltzain urgazleak paraturiko "Herri Administralgo hiztegiño baten eskabide eta premiaz" lanari (15). Artikulu horretan, Lizundiak *UZEI*ren lana aipatzen zuen, erakunde honek horretan ziharduelako aspalditik. Izan ere, 1977. urtean Joseba Intxaustik *UZEI* asmoa aurkeztu zion Euskaltzaindiari eta haren helburuen artean hiztegigintza espezializatuarena adierazi, bere barruan zuzenbidearena ere sartua zuela (16).

Euskaltzaindiak berak ere, 1982. urtean, hiztegigintzari buruzko adierazpena egina zuen, jite honetakoa:

> "Hondarribian, 1981.eko Abenduaren 29an bildurik, Euskaltzaindiak honako hau aditzera ematen du: Euskaltzaindiak literatura eta gramatikaz beste alde, hiztegi lana du bere eginkizun nagusienetarikoa.
>
> Hizkuntzarekiko plangintza orokor baten barnean sartua aurkitzen da hiztegigintza, eta Euskaltzaindiak erantzun egokiak eman nahi dizkio honi.
>
> Langintza horretan ordea, maila bat baino gehiago bada eta beren arteko lehentasuna kontutan eduki behar du. Euskal hiztegietan, adibidez:
>
> Orokorra.
>
> Hiritartua:
>
> Espezializatuak.

(14) *Euskera*, IV, 1959, 215. orr.
(15) *Euskera*, XXIV, (2. aldia), 1979-I, 279. orr. eta jarr.
(16) *Euskera*, XXII, (2. aldia), 1977, 935. orr. eta jarr.

1. Hiztegi orokorrean, Euskaltzaindiak aspaldidanik hasiak dituen lanak aurrera daramatza ahalik eta lasterren buru emateko asmoz.

2. Bilera honetan beharrezkoa ikusi da batzorde bat sortzea, horretarako behar diren gaiak, ahalak eta lankideak biltzeko.

3. Zuzenean ez da Euskaltzaindiaren lana, beste edozein hizkuntzatan ere ez den bezala, hiztegi espezializatuen sortzea eta banan banako azterketa egitea, hizkuntzari eta euskararen egiturari dagozkion funtsezko punduak zaintzea izan ezik.

Hitz teknikoetan Euskaltzaindiak pozik ikusten du grafia gai orokorretan erabakiak daudenek harrera ona izan dutela. Erabaki gabe daudenak lehenbaitlehen argitzen ahaleginduko da.

Ezin hobeki deritza Euskaltzaindiak edonork taldeka nahiz bakarka arlo honetan lan egiteari." (17).

Aiurri berekoak izan dira Jean Haritschelhar-rek berrikitan egin dituen adierazpenak, administrazio hizkeraren inguruan:

"Azkenik Euskaltzaindia delakotz hizkuntzaren zaintzalea, hiztegi espezializatu guziek behar lukete Euskaltzaindiaren oniritzia ukan, batasun bat ukan dezaten denek ortografiaren aldetik edo joskeraren aldetik." (18).

Badirudi beraz, bi alor hauek bereiztuz doazala: batetik, hizkuntzaren batasun ortografiko eta morfojoskerarena,

Euskaltzaindiaren egitekoa litzatekeena eta bestetik hiztegi espezializatuena, disziplina bakoitzaren barnean landu beharrekoa eta gure kasuan, zuzenbidearen adituek egin beharko luketena, horretarako hizkuntzak dituen mekanismo linguistiko guztiak profitatuz.

Euskaltzaindiak ere, mundu juridikoan esanahi zabala izaten duten maileguak euskaraz barneratzeko araubidea 1986. urtean eman zuen:

"Euskarak, nahi eta ez kanpotikakoak hartu behar ditu eta ari da hartzen, baina hartu, neurriz hartu behar, hizkuntzak bere muina galduko ez badu.

1959-an Euskaltzaindiak euskal hitzak zein diren mugatzeko eman erabakian, maileguzko hitz zaharrei buruz lehen-lehen urratsa eman zuen.

Euskararen lege fonetiko historikoak gorde behar dira, baina maileguzko hitzek erdaretan duten itxurari leialtasuna zor zaio, begiz ere

(17) *Euskera*, XXVII, (2. aldia), 1982, 271. orr.

(18) Jean Gratien HARITSCHELHAR DUHALDE: "Administrazioaren eginbeharra hizkuntz minorizatuen etorkizunean" in *IVAP. Hamar urte.* Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundea, 1994.

sartzen bait dira hitzak. Hortik sortzen zaio Euskaltzaindiari bat-batean eta erabat konpontzeko zaila ikusten duen auzi korapilatsua, eta premia.

Bi lege horiei ahalik eta zehatzen erantzutea da Euskaltzaindiaren eginbidea. Zenbait aldiz, hitz mailegatuek inguru hizkuntzetan duten itxura aldatu behar dute gureganatzean, eta euskararen zenbait lege zaharrek amore eman beharko dute, beste askotan." (19)

Azkenean ere, 1991. urteko apirilaren 26an, Euskaltzaindiak euskal hitzei buruzko bigarren erabakia dugu , aldarte honetakoa:

"Euskara bizian sustraituak ez daudenak, ez dira euskal hitzak...

Azkenik orduan esana berriz errepikatu, inork gaizki adi ez dezan mezua: kultura eta zibilizazioko hitzak, mailegatuak izanik ere, ontzat hartzen dira, hala nola politika, teknika, literatura, metro, kilometro eta abar." (20).

Bi elementu hauek, euskara bera eta arlo juridikoa beren osotasuna erabiliz, *UZEI*k egina zuen ordurako (1985. urtea) *Zuzenbidea* hiztegia, aurretik egin zituen *Politika* (1980) eta *Administrazioa eta Zirkulazioa* (1983) lanei segida emanez.

'Zuzenbidea' hiztegia, beraz, orain arteko saiorik oro hartzaileena dugu euskal eremu juridikoan, bere mugak baditu ere. Muga horiek kontuan hartuta, hiztegi honen berezitasunak, bere hitz propiotan esanda, honakook lirateke:

1. Behin-behinekoa izatea.
2. Beste sistema juridiko baten euskarapena izatea.
3. Hiztegi entziklopedikoa izatea.
4. Hiztegi terminologikoa izatea. (21).

Lekuz kanpo legoke hemen, hiztegi honek euskaraz landuriko eremu juridiko txikian izan duen garrantziaz mintzatzea. Hala ere, gerokoan etorri diren hainbat ekimenen sustengua eta euskarri nagusia izan dela ezin ahantzi.

Bide beretik ere, Euskal Administrazioak bere fruituak eman ditu langintza honetan:

– "Agintaritza-Aldizkarietatikako Hitz-Bilduma" (22).

---

(19) EUSKALTZAINDIA: *Maileguzko hitz berriei buruzko erabakiak*, Bilbo, 1986.
(20) *Euskera*, 1991, 2. 36. liburukia (2. aldia). Bilbo, 445. orr.
(21) UZEI: *Zuzenbidea Hiztegia*. Ed. Elkar. Donostia, 1985, 2 bol.
(22) *Agintaritza-aldizkarietatikako hitz-bilduma/Vocabulario de los Boletines Oficiales*. Diputación Foral de Alava. Gasteiz, 1985.

– "Hezkuntza Administrazioko Hiztegia" (23).

– Bizkaiko Foru Aldundiak eginiko "Compendio de términos Administrativos" (24).

– Teoria mailan ere, azpimarratzekoak dira IVAP ek antolaturiko "Administrazioko hizkera eta terminologiaz Jardunaldiak" (25) edo Bizkaiko Abokatuen Elkargoak paraturiko "Euskal terminologia eta praktika juridikoari buruzko lehen ihardunaldiak" (26).

Aspaldi honetan ere, honetaz arduratu beharra daukan erakunde ofiziala badugu lanean, *IVAP*en barneko *Itzulpen Zerbitzu Ofiziala-IZO* (27) eta ondorenez ere, *IVAP*ek eta *UZEI*k, bakoitzak bere kabuz egindako aurreko lana bateratzeko eta terminologia juridiko administratiboa jorratzeko asmoarekin, *UZEI* eta *IZO*ren arteko Lotura-Batzordea sortu da, gaur egun, eta Euskaltzaindiaren ordezkaria ere tarteko duela, lanean ari dena. Bide beretik ere, ekimen honen bidez badugu terminologia juridiko-administratiboa erabiltzeko datu basea, *UZEI*k landutakoa eta akordio horren bitartez etengabe aberasten ari dena, *UZEI* eta *IZO*-ren ekarri osagarriekin.

Dena den, aipatu beharra dago oraindik orain asko dagoela egiteko. Hasi besterik ez dugu egin eta hasierako lana ez da izan batasunean egindakoa, sakabanatze eta elkarren arteko tirabirena baino. Badirudi bakoitza gurdiari tiraka dabilela, alboan dagoena ikusteke edo ikusi nahi izan gabe.

---

(23) *Hezkuntza Administrazioko hiztegia.* Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa saila. Eusko Jaurlaritza. Gasteiz, 1993, 2. argitaraldia.

(24) BIZKAIKO FORU ALDUNDIA: *Compendio de términos administrativos.* Argitaragabea. Bilbao (24-03-1994).

(25) *Administrazioko hizkera eta terminologiaz jardunaldiak.* Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundea. Oñati, 1989.

(26) *Euskal terminologia eta praktika juridikoari buruzko lehen ihardunaldiak.* Bizkaiko Abokatuen Bazkun Ohoretsuak antolatua. 1991. urteko apirila-maiatza. Argitaragabea.

(27) 461/1991 Dekretua, abuztuaren 30koa, Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundearen jardute-egitura ezartzen duena.

14. atala.—...Bere helburuak betetzeko, Zuzendariordetza hau zerbitzu bitan egituratuko da:

a) Euskalduntze Zerbitzua;

b) Itzulpen Zerbitzu Ofiziala.

16. atala.—...2. Itzulpen Zerbitzu Ofizialak honako egiteko hauek beteko ditu:

i) euskal lege eta administrazio terminologia biltzea eta aztertzea, hustuketa eginez, fitxetan jasoaz eta datutegian gordeaz, bai euskal administrazio-terminologia finkatzeko eta bai administrazioko itzultzaileen galderei erantzuteko eta hiztegiak egin eta argitaratzeko.

3. Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundeak, itzulpen zerbitzu ofizialaren proposamenez, administrazio-hizkeraren eta lege eta administrazio-arloko terminologiaren erabilerarako arteztarau teknikoak landu eta finkatuko ditu.

Nolanahi ere den, eta idatzita dago hau ere, badirudi hiztegi juridikoaren etorkizuna konpontzeko tenorean izan dezakegula. Elkar lanerako osagai batzuk bederen, tartean ikusten dira, nork bere "lehen-izate" horien gainetikoak.

Lantxo honetan zehar eta labur-labur, egoera nolakoa izan den eta nolakoa dugun azaltzen saiatu naiz. Egitekoa dut, beraz, gaia osotzekotan, hirugarren bat, alegia, euskal hiztegigintza horren barruan geroko hiztegi juridikoaren kontuak azaltzearena.

Horretarako bi alor bereiztu nahi ditut:

a) Lehena, esanahi juridikodun hitzek hiztegi arruntean izan dezaketen eragina eta alderantzizkoa, juridikotasun hori dela medio. Labur esanda, hizkera arruntaren ortografia eta morfologiaren eragina hizkera juridikoan.

b) *Corpus* juridikoaren sorkuntza lanean nahiz honen agertzean euskal hiztegi juridikoa lantzeko elementuek duten zerikusia azaldu, hori ere estekaturik dagoelako bizi dugun egoera bi juridiko eta hiru eledunarekin batera.

Has dezadan. Nago, eta diodan honen froga gisa, ikusi besterik ez dago, aurrekoarekin erkatuta bederen, azken urteotan euskarak arlo juridikoan izan duen hazkunde ohargarria, askotan hitz juridikoen erabiltzaileak bi motako zalantzak izaten dituela euskaraz lan egiterakoan:

1. Hasteko, hitza bera izaten du dudamudazkoa. Zer esan nahi duen, nola adierazten duen esan nahi duen horixe eta abar.

2. Bigarrenez , hitz hori non eta nola erabiltzen den, zer den, non kokatu eta abar.

Lehenengoari bagagozkio, nik esango nuke lehen puntu hau erabat loturik dagoela hitz horri zuzenbideak ematen dion karga edo zama semantikoarekin. Honetan ikusten ditut nik gehienbat zuzenbidean aditu direnen eta hitza aukeratu behar duten terminologo eta espezialisten arteko harremanak.

Hemen ere, bi ardatzok jokatzen dute:

1. Hizkuntzak berak dituen baliabideak hitzak azaltzeko. Gure kasuan, seguraski, hizkuntzaren altxorretik baino, kanpotik ekarri beharrekoak.

2. Eta bestetik, aukeraturiko hitz hori nola kokatu den sistema juridiko baten barnean.

Lehendabiziko saioan helburua bada euskaraz ematea Euskal Herrian indarrean dauden sistema juridikoen muina, egungo egoera ondokoa izango litzateke:

	Frantsesa	Gaztelera	Euskara
Zuzenbide europarra	+	+	(?)
Zuzenbide frantsesa	+	−	(?)
Zuzenbide espainola:			
− Estatua	−	+	(?)
− Erkidego Autonomoa	−	+	+
− Nafarroa	−	+	+

Ikus dezakegunez, frantsesa eta gaztelera dira sistema juridiko oso bati datxezkion funtzio guztiak betetzen dituen bakarrak. Baina honek ere, bestelako bide baterako abiapuntu batzuk ematen dizkigu:

a) *Europako zuzenbidea*, gure konpetentzien kanpo geldituko litzateke. Hala ere, Ipar nahiz Hegoaldeko euskaldunentzat amankomunean lan egiteko esparrua legoke hemen, horretarako berri-berria datorkigun zuzenbidea, lerro eta testu nagusietan bada ere, euskaraz barneratuz (28). Badirudi honetan ere ez dela oso zilegi, gure artean gertatu denez, testu berberaren bi itzulpen desberdinak egitea.

b) *Frantziar sistema juridikoa.*

Ez dut hemen ikusten euskaraz lantzeko aukera handirik, gaurkoz bederen.

Itzultze lan horrek, dena den, sistemaren orokortasunari men egin beharko lioke eta langintza hori, sistema horretan aditu direnek egin be-

(28) Zuzenbide europarraren bateratze prozesuan, gero eta nabarmenagoak dira estatuen kezkak. Hona hemen, adibidez, Espainiako *Consejo de Estado*k bere 1992. urteko *Memoria* —Madrid 1993— idatzi duena:

> "Finalmente, y por lo que se refiere a la terminología, —que planteó mayores dificultades al principio— es indudable que aun disponiendo de una traducción oficial de las Directivas, el legislador interno puede y debe ajustar la terminología a las exigencias de su propio lenguaje jurídico, no sólo por razones lingüísticas sino por mantener la identidad de los conceptos. El Consejo de Estado —una de cuyas misiones es velar por la pureza y la cohesión del ordenamiento jurídico— lo ha visto siempre así y unas veces ha sugerido cambios de expresiones por pura corrección gramatical, y otras, en fin, por cuestión de concepto. Y cuando es inevitable utilizar un neologismo, ha propuesto que, al menos, se explique su significado en el preámbulo". 140. eta 141. orr.

harko balute ere, Hegoaldean egin zitekeenaren berri izan beharko lukete hauek, hango berezitasunak ahaztu gabe.

Haatik, ez dira ikusten, lehen esan legez, hori gertatuko den seinalea edo arrasto nabarmenak. Agian, Baionako Unibertsitatea izan daiteke horretarako hazia.

c) *Espainiako sistema juridikoa.*

Hemen jokatzeko esparrua askoz zabalagoa izango genuke, Estatu eta Komunitate Autonomoaren arteko konpetentzia guneen araberakoa, hain zuzen ere.

c.1. *Estatuari* dagokion eremuan, egoera Frantziaren parekoa izango litzateke. Aurrerapauso galanta izango litzateke arauik nagusienen euskarapena. Abiaburu honetan daude IUk (29) egindako proposamenak edo gazteleraz besteko hizkuntzen erabilera urria zenbait estatu erakundetan. Bide beretik datoz ere, IVAPek azken urteotan argitaraturiko estatu lege batzuen itzulpenak (30).

c.2. *Euskal Komunitate Autonomoa zein Nafarroa.*

Burutik bururako aukera izango genuke hemen euskarari lekua emateko eta hiztegi juridikoa erabat osatzeko.

Bistakoa da itzulpena dela irizpide nagusia une honetan esparru honetako autuetan, baina itzulpenetik aurrera ere zerbait sortu behar daitekeela esan genezake.

---

(29) Ikus Espainiako Gorte Orokorretan IUk (1993-07-22) aurkezturiko lege proposamena (222/000013) eta Katalunyako Parlamentuak (1994-03-01) paraturikoa (125/000010) :

1. El *Boletín Oficial del Estado*, simultáneamente a la publicación del texto de la ley en castellano, como lengua oficial del Estado, procederá a su publicación en las restantes lenguas del Estado, también oficiales en las respectivas comunidades autónomas de acuerdo con sus estatutos (Katalunyako Parlamentuaren proposamena).

1. El *Boletín Oficial del Estado*, de forma simultánea a la publicación del texto legal en castellano, como lengua oficial del Estado, procederá a su publicación en las restantes lenguas españolas, también oficiales en las respectivas Comunidades Autónomas de acuerdo con sus estatutos (IUren proposamena).

(30) Honako hauek, besteak beste: *Administrazioaren Jardunbideari buruzko legea.* Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundea. Oñati , 1991. *Europako Ekonomia-Elkartearen Eratze-Itunea.* Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundea. Oñati, 1991. *Europako Agiri Bakuna.* Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundea. Oñati, 1991. "Toki-Jaurbidearen oinarriak arautzen dituen legea". Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundea. Oñati, 1992. Ildo beretik ere, bestelako itzulpenak baditugu euskaraz, hala nola Ilustre Colegio de Abogados del Señorìo de Vizcaya delakoak bultzaturiko eta María Inés Gandarias Lekuona eta Angel Lobera Revillak, Angel Elias legelariaren aholkularitzarekin itzuldutako *Legegintzako erret dekretua, lan prozedurari buruzkoa.* Bilbao, 1992.

Horretarako, hala ere, lan egiteko elementuak behar ditugu. Nabaria denez, horrek, hasteko, beste maila bateko arazoak planteatuko lituzke, hots , hizkuntza eta sistema juridikoen arteko euskaratzeko aukerarena.

Berbarako, honek gogoraraziko lizkiguke hainbat kontzepturen esanahia eta beraien ondorio juridikoak.

Honetara, esaterako, *testamentua* adiera ez litzateke gauza bera izango sistema zibil espainol eta frantsesean, indarreko euskal foru sisteman baino. Lehenengo horietan kontzeptua bateratze baten barnean moldatuko genuke, bigarrenean, aldiz , kontzeptu horren elementu batzuk, hala nola norberak egin beharreko ezinbestekotasun hori askoz ñabartuagoa izango litzaiguke.

Orobat testamentu motak deskribatzerakoan edota berauek izendatzerakoan, Espainiar legeriak onarturiko testamentu mota nagusiak, Frantziakoan bestera agertzen baitira eta foru euskal zuzenbidean, azkenez , hirugarren modu batean.

Hala ere, horri erantzuna eman baino lehenago, agian, euskaraz *testamentua* esateko erabiliko dugun hitza ere zehaztu beharko genuke. *Testamentua, ordeinua* edo *azken nahia.*

Honek ekarriko luke aukeratu beharra, hizkuntzak hizperriak sortzeko dituen baliabiden artean.

Antzeko zerbait ere gertatu da arazo honi aurre egin behar izan dioten bestelako herrialde batzutan. Kanadan, esaterako, bi sistema juridiko desberdinak bi hizkuntzen bitartez adierazi izan dira historian zehar.

Honela *itzulpenaz* (alegia, hizkuntza batetik beste batera igarotzea sistema juridiko baten barnean) edo *trasposizioaz* (sistema juridiko batetik beste batera joatea, hizkuntza berean edo beste batean) aritu dira.

Ondorioak, eta hiztegiari dagokionez behintzat, sorkuntza berriak *kalko, mailegu* eta *neologiaren* bidez eman dira.

Hiruotan ere, nagusi izan dira horrelakoak onartzerakoan honako arau hauek:

1. Maila ortografiko eta fonikoetan barneratzeko errazak izatea.
2. Hizkuntzak duen moldeari ondo egokitzea.
3. Nazioarteko hitzak bihurtzeko erraztasuna.
4. Hitzek, onartuak izateko malgutasuna izan, hizkuntza horren hizkera arruntean zein espezializatuan.

5. Hitz horietatik eratorriak sortzeko bideak erabilgarriak izatea.

Era berean, arbuiagarritzat hartuak izan dira:

a) Lehendik diren izenekin batera baldin badatoz hitz horiek.

b) Hizkuntzaren maila ortografiko zein fonetikoan sartzeko zailak baldin badira.

c) Mailegu eta kalkoak, neologismoak haiek ordezkatzeko indar haina badu (31).

Gurean ere, bi joera nabarmen ditugu honelakoetan, nolabait laburtzearren eta gero eta ugariagoak diren bestelako bideak ere ahanzteke:

a) *UZEI*ren inguruan mamitu dena, maileguari pisu gehiago eta neologismoari gutxiago eman diona, termino zaharren berrezartze lexikala ere eskura erabili duena.

b) Joera *garbizaleago* bat, zelanbait deitzearren, neologismoa eta berrezartze lexikala aldean erabili dituena, batez ere Euskal Herriko Agintaritzaren aldizkarian eta Bizkaiko Batzar Nagusietako zenbait testutan.

Nolanahi ere, bai batean eta bestean, gehienok, guztiak ez esatearren, itzulpenaren bidetik abiatu gara halabeharrez.

Egia esan, badirudi mailegua nagusitzen ari dela oro har, neologismo edo hizperri batzuk ere tartean ditugula. Gaur egun, *akzio, subrogazio, hipoteka* eta abar egunerokoak ditugu, nahiz eta *eskuduntza*, eskuetsi, eta gainerakoak ere, maiz ikusi eta sarri erabili (32).

Bi osagarriok batera landuz, hau da, batetik karga semantiko juridikoa eta bestetik hizkuntzak hizperriak sortzeko zein mailegu eta kalkoak bereganatzeko duen indarra, irtenbidea bidera daiteke hurrengo batean *bigarren belaunaldiko* hiztegi terminologiko juridikoak egitearen ildotik, bertan bereziki bilduko liratekeela euskarazko hitza eta bere kontzeptua, erdarazko hitza bera eta bere kontzeptuarekin batera, eta baita ere honen lege kokapena, sinonimoak, antonimoak eta berba horren erregimena ere. Horren arrastoak ditugu *UZEI*k berrikitan atera duen *Hirigintza* hiztegian (33), eta hori izan daiteke ere , zuzenbide arlo nagusitan

(31) Emmanuel DIDIER: *Langues et langages du droit.* Ed. Wilson & Lafleur ltée. Montreal 1990, 266. orr.

(32) Josu BARAMBONES ZUBIRIA eta Oscar GONZALEZ ATXA: *Euskarazko Zuzenbidea: printzipio orokorrak eta orain arteko ibilbidea itzultzailearen ikuspegitik.* Laster agertzekotan.

(33) Ildo berekoak ditugu honako hauek ere: Pierre LERAT et Jean-Louis SOURIOUX. *Dictionnaire juridique. Terminologie du contrat.* Conseil international de la langue

banaturik, hurrengo urteotako eginkizun posiblea. Honen emaitzek, zeresanik ez, oneritzia eskuratu beharko lukete Euskaltzaindiaren aldetik.

Horretarako, dudarik ez izan, lehendaurrezko lana, hitza bera finkatzea da. Honetan ere badu zeresan handia Euskaltzaindiak.

Honela, esaterako, eta Euskaltzaindiak emaniko azken arau-gomendioen artean, honako hauek lirateke azpimarratzekoak, hitz juridikoek izan dezaketen eragina ikusita:

a) *Letra larriz-letra xehez* emanikoa, honek garrantzi handia daukalako zuzenbide alorrean, dela lege testu tituluetan, dela erakunde izenetan, edo baita ere estatu, herri, herrialde eta administrazio entitateetan, egoitza ofizialak ere ahaztu gabe, nahiz eta zenbait kasutan ez izan hain argi letra larri noiz den ezargarria eta noiz xehea.

b) *-ZIO -ZIONE -ZINO.* Hiruko horren barneko tirabirak, latinetik datozkeen hainbat hitz juridikoren erroan dira. Eskertzekoa da, beraz, gaia jorratzea, nahiz eta gaur egun mundu juridikoan erabat normaldurik egon honen modukoak: *subrogazioa, kolazioa, administrazioa* eta abar.

c) *-ARIO -AIRE.* Izenondoko erreferentzia kasuetan bat nator -ario izan beharko lukeen horrekin; bukaera horrek hiztegi juridikoan duen maiztasuna ikusirik, bultzada handikoa izango da hemen erabakitzen dena.

Beraz *testamentario, errefakzionario, hipotekario* eta abar sartuko nituzke nik hemen.

Bigarrenekoetan, ordea, izen kontuetan *-ARI* forma baino *-ARIO* bultzatuko nuke nik, horrela *komisario, notario, aktuario* eta abarrekoak euskaratuz. Arazoa, seguru asko, bestetik etorriko litzateke, berbarako *Notaría* (lekua), *Notariado* (Notario multzoa) eta abar euskaratzerakoan.

d) Bestalde ere, garrantzitsutzat jotzen dut Hiztegi Batua azaltzeko irizpideetan arlo semantikoa kontuan hartzea. Berbarako, *abandonatu* onartzen du hiztegi horretarako proposamenak eta *abandonu*, ordea, ez da ageri, honek izen gisa izan dezakeen garrantzia hartu gabe. Bestalde ere, orobat gerta daiteke bestelakoetan, esaterako *gozamena* eta *usufruktu* kasuetan. Azken horri ematen zaion tratamentua, esaterako, oso jakingarria da gure kasuan, eta berriro ere, lehenengo puntura eramaten gaitu, alegia, euskararen altxorrean diren euskalkietako hitz juridikoak berreskuratze kontu horretara, historian zehar euskarak jasotako hitz horiek

---

française. Paris, 1994 eta Quebec Research Centre of private and comparative law. *Private Law Dictionary and Bilingual Lexicons.* Les éditions Yvon Blais inc. Cowansville (Québec) Canada, 1991.

arlo honetan beharrezko diren hizperriekin batera erabiltzeko, sistema juridikoaren osotasuna behar den legez ematekotan. Hemen ere, horren aldekoa erakutsi behar dut nire burua, euskara juridikoaren eraikigintza prozesuan.

Bukatzeko, esan beharra dago Euskaltzaindiaren 75. urte betetze honetan, erakunde honek baduela bere zeregina arlo juridikoan ere. Arlo juridikoan hizkuntza da nagusi, hitzekin lan egiten baitu lege munduak. Segurtasun juridikoa ahalik eta zabalen, sakonen ematea dugu legelariok hiztegi juridikoaren zeregina.

Beraz, jar bitza Euskaltzaindiak, guztion laguntzarekin, gure hizkuntzaren barneko neurriak eta moldeak, eta lan egin dezagun euskara juridikoaren erabiltzaileok ere, aurretiaz zehazturiko eremu horren fruitu zaharrak eraberritzen eta kimu berriak loratzen, euskararen onerako.

LEIOA, 1994.10.06

ONOMASTIKA

ONOMASTIKA BATZORDEA

Burua: Endrike Knörr
Idazkaria: Mikel Gorrotxategi
Kideak: Ricardo Cierbide
Jose Antonio González Salazar
Andrés Iñigo
Alfonso Irigoien
Jose M.ª Jimeno Jurio
Jose Luis Lizundia
Jean-Baptiste Orpustan
Patxi Salaberri
Juan San Martin
Jose M.ª Satrustegi

Exonomastika lantaldea

Dionisio Amundarain
Andolin Eguzkitza
Martxel Etxehandi
Antton Gurrutxaga
Iñaki Irazabalbeitia
Xabier Kintana
Xabier Mendiguren

SARRERA HITZAK *EXONOMASTIKAZ (*)*

E. Knörr

Bada Euskal Herrian halako kontraesan ezin nabarmenago bat: ahoa betetzen zaigu, zein herri zahar garen aipatzen, zein antzinako hizkuntza dugun behin eta berriz esaten, aspaldiko mendeetan sustraituak diren geure ohiturak goraipatzen. Baina, aldi berean, tradizioak utzi duena, jendearen ezpainetan ez ezik, paperetan dagoena, ez dugu kontuan hartzen, muzin egiten diogu, eta berrasmatzen aritzen gara. Bai: asmatua dagoena asmatu nahi izaten dugu. Jauzika bezala ibiltzen gara, etenik eten eta hastapenetik hastapenera, berariazko umezurtz, gure aurrekoek egin zutenaz jabetu gabe.

Zoritxarreko jokabide hau inon argi badago, agian onomastikan da. Har itzazue pertsona izenak, ponte izenak izan edo pertsonaia historikoenak. Zenbat aldiz jardun gara euskaldunok dena sorkizun balitz bezala, *tabula rasa* eginik! Zenbat aldiz dena goitik behera eraikitzen, izenen forma berriak eratzen! Forma horiek heriosuhar burutu, hizkuntzaren garbitasunaren alde omen egin edo inguruko erdaren morrontza negargarrian erabili, berdintsu da, honi dagokiola. Modu batera edo bestera, katea eten da, haria hautsi da (1).

Horrelako jokabidearen, edo jokabideen arrazoi nagusia jakina da: gure hizkuntzaren eta kulturaren lehengo (eta, hein batez, oraingo) egoera bera da. Goi-ikasgurik gabe, nazio gisa behar genuen oinarrizko gogo-azpiegiturarik gabe, literatur tradizioa nekez iragan daiteke osorik.

Bi eginkizun nagusi ziren kanpoko pertsona zein leku-izenei buruz: batetik, biltzea, iturriak ongi arakatzea eta biluztea; eta, bestetik, sailkatzea eta aztertzea, proposamenak egin baino lehen. Aitortu beharra dago bi esparru hauetan anitz dela azken berrogei urteotan aurreratu dena. Horra, nola ez, pertsona izenei dagokiela, Mitxelena, Irigarai, Irigoien, Jimeno Jurio, Lz. de Guereñu (2), Satrustegi eta besteren lanak. Eta horra *Orotariko Euskal Hiztegi*-ko altxor jori ederra. Aberaskizun eta osakizun dira, jakina, material guzti hauek. *Elmu* izena, adibidez, ez dakusat azken aipatu dudan izen propioen corpusean, jasotzekoa zen mu-

(*) Txosten hauek, Miarritzen 1994ko uztailaren 1ean eta 2an egindako Exonomastika Jardunaldietan aurkeztu ziren.

(1) Jauzi eta eten honetan Arana eta Elizalderen *Deun izendegi euskotarra* (1911) liburuak toki berezia du, zer esanik ez. Baina harez gero Eleizalde iritziz aldatu zen, inoiz kontatu dudan bezala: Enrique Eguren arkeologilariak galdetu zion behin nola sinatu behar zuen eta Eleizaldek *Endrike* gomendatu.

(2) Nola ez dugu kontuan hartuko, besteak beste, beronen *Toponomia alavesa*-n ageri den *Kristobaregaña* (Burgelun)? Jimeno Juriok jorratu du gai hau aspaldisko, eta berdin eginen du egunotan José A. Gonzalez Salazarrek.

Itsassoco ô Patroñac, Virgina Ama Saindua,
San Pierrez, **Elmu** *eta Xauier famatua.*
Gure gañean çaudete bethi iratçarriak,
Itsassoan har ezgaitçan calte içigarriac (3).

Egia da tradizioa ñabarra dela, izenok ez zaizkigula beti itxura berean agertzen. Leizarragaren *corintiano* eta, adibidez, menturaz ez genuke egungo egunean onetsiko. Halaber, agian, *Mars-en karrika*, "areopago" itzultzeko (4). Zenbaiti, bederen, iruditzen zaigu *Sibilia* urruti gelditzen dela, lastertasun biziko trena gorabehera (5). *Kanpoko Medina*-ri Mendiburuk darabilenari, agian barregarri iritziko dio baten batek. Baina bestelako izen asko, hala nola Orixeren *Urte guziko meza-bezperak* liburuan ageri den *Lurrarteko itsasoa*, baztertu behar dugu? (6).

Hautatzea bera da zaila, baina zirt edo zart egin behar. Forma bat onartu behar dugu, horixe gomendatu (7). Baina aitortu behar da, era berean, iritziak aski bateratuak daudela, ustez baino bateratuagoak, batzordeñoaren jardunean erakutsi denez.

Bada, alabaina, puntu bat, gutxitan baizik azaleratzen ez dena: ebakera. Nola ebaki behar dira kanpoko izenok? Ezen ez gara idazkeraz soilik ari. Nola ahoskatu behar dugu *Descartes*? Nola esan behar dugu *Malraux* eta aldi bateko haren nagusia izan zen *De Gaulle*, noren kasuan, demagun?

Esker onez agertu behar dut, sarrera hitz labur hauetan, ia bi urtez lanean aritu diren lagunekiko. Zinez lan handia da egin dena. Ohi bezala, eta hala behar, jakina, Euskaltzaindiak bestek ondu duena entzun du eta mahaigaineratu. Hots, azken urteotan alor honetan bereziki idatzi dena (Elhuyarren bi liburuak, oroz gain) edota entziklopedietan, eskola liburuetan eta abarretan dagoena, aintzat hartu nahi izan du batzordeño edo lan taldeak.

Alor hau, bada, jorratu dugu, gure ahalen neurrian, langile askoren laguntzaz, eta bukatu arte jarraitzeko asmoa dugu. Beste hizkuntzek zer egiten duten gogoan izan dugu beti ere, baina ezin genuen onartu —Aracilen hizkera erabiliz—

(3) *Manual demotionezcoa*, II, 138.

(4) Apostoluen eginak, 17, 19.

(5) Hala ere, Euskal Herriko Unibertsitateko telefono liburu batean erabili izan da. Ezaguna da, bide batez, Durangoko kantua, ostegun zurian kantatzen dena:

Sibirije ta Granada
urdeiazpije ona da
urdeiazpije ona da baiña
hiru lukainka hoba da.

Gauza interesgarri asko dira eremu hauetan. Besteren artean, badirudi euskaratik izen batzuk esportatu direla. Gaskoieraz, adibidez, *Donagrace deux Ports* esaten zen, Zuberoako *Santagarazi* izendatzeko. Luzaideko *Madaritx* baserria ez ote da *Madrid? Erreparatze* euskal izena Cheme de Erreparaçe deituran ageri da garbiro, Martín Duqueren "Peajes navarros..." lanean, *Homenaje a J. E. Uranga*, 71-86, e.a.

(6) Dirudienez, 1932an agerturiko *Lutelestia* eskola liburutik jaso zuen Orixek.

(7) Barruko izenetan ere zalantzak ugari dira. Adibidez, esan daiteke, batzuk *Miarritze* izenaz aski uzkur anitz agertzen direla. Bertakoa, bide batez, nola deitzen da? *California-ko Eskual Herria*-n ageri den *miarritzar* arrunta zen edo da?

llengua interposada, tarteko hizkuntzarik (8), izen berezien eremu honetan. On da inguruan zer den begiratzea, baina menpekotasun eta morrontzan erori gabe.

Asmoa garbi dago: zerrenda eta irizpide hauek entzulego handi honen, barka, entzule ugari zareten guztion aitzinean plazaratu eta eztabaidatzea. Ondoren, Euskaltzaindiak lerrokadak argitaratuko ditu, idazleen eta hiztunen argigarri izan daitezkeen oharrez hornituak.

(8) *Dir la realitat*, Barcelona, 1983, 171 eta darr. Gogoetak egin du bere bidea. Ikus, besteak beste, Francesc Vallverdú-ren *L'ús del català: un futur controvertit*, Barcelona, 1990.

CRITERIOS LINGÜISTICOS PARA LA TRADUCCION DE LOS NOMBRES PROPIOS AL CATALAN *

M. Teresa Espinal,
Universitat Autònoma de Barcelona (**)

1. INTRODUCCION

En este trabajo se apuntan algunos de los rasgos más destacables del funcionamiento de los nombres propios (NNPP) en el interior de los sistemas lingüísticos de las lenguas naturales, y se exponen las reflexiones más importantes que de este comportamiento se desprenden con respecto a la traducción interlingüística. De un modo muy especial voy a dedicar buena parte de este estudio a las propuestas que se han planteado para el catalán como lengua terminal en la traducción de los topónimos.

Sin embargo, antes de entrar en el tema de la traducción creo que puede ser útil analizar cuál es la posición que ocupan los NNPP dentro de los sistemas lingüísticos de las lenguas naturales, resumiendo los rasgos lingüísticos propios de estas expresiones nominales. Intentaré de este modo realizar una aproximación a la pregunta de ¿qué tipo de nombre son los NNPP?

Los NNPP ocupan un lugar peculiar dentro de los sistemas lingüísticos y poseen propiedades específicas que los distinguen de otras palabras o secuencias de palabras, concretamente de los otros miembros de la categoría nominal, es decir, de los nombres comunes. Es precisamente en este sentido como deben entenderse las palabras de E. Coseriu (1973) según las cuales los NNPP constituyen un tipo específico de categoría verbal.

Desde un punto de vista lingüístico, los NNPP son formas defectivas y se caracterizan en distintos niveles de análisis por tener unas pro-

---

* Este trabajo se presentó como ponencia invitada en las *V Jornadas de Onomástica. Exonomástica*, organizadas por la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia en Biarritz del 30 de junio al 2 de julio de 1994. En él se amplía la información aparecida en Espinal (1992) y se comentan las soluciones aportadas para el catalán por distintos organismos y escritores.

(**) Quisiera hacer constar mi agradecimiento a la CIRIT-GRQ-93-2-035 y a A. Badia i Margarit y J. Rafel de L'Institut de'Estudis Catalans.

piedades idiosincrásicas. Por ejemplo, los NNPP no muestran ciertos rasgos característicos de los SSNN comunes, tales como la definitización contrastiva, el número gramatical contrastivo, o la posibilidad de combinación libre con adjetivos y cláusulas de relativo restrictivas. Por otra parte, tienen rasgos de flexión y derivación propios. Semánticamente son, en términos generales, parcialmente o totalmente opacos. Podemos afirmar que su interés lingüístico descansa en las particularidades que presenta en relación con otras subcategorías del sustantivo: los NNPP se integran sólo parcialmente dentro de la gramática de una lengua natural. No puede olvidarse tampoco que los NNPP constituyen un tipo específico de símbolo en el interior de las lenguas naturales y, asimismo, son palabras portadoras de unos valores culturales y etnolingüísticos que plantean un reto importante para el proceso de traducción.

Creo que disponemos de datos empíricos suficientes para afirmar que los NNPP forman realmente parte de los sistemas lingüísticos de lenguas particulares, aunque sea marginalmente. Es incuestionable que mientras algunos de ellos están bien integrados dentro de los sistemas lingüísticos (y tienen formas específicas en cada lengua y rasgos gramaticales similares a los de los NNCC), en el otro extremo encontramos algunos NNPP que son altamente idiosincrásicos e independientes de las lenguas (y tienen una forma lingüística casi idéntica para distintas lenguas).

El carácter lingüístico fronterizo de los NNPP, puesto de manifiesto en su comportamiento fonológico, morfológico, sintáctico y semántico peculiar (defectivo incluso) no puede aislarse, evidentemente, de su función fundamental como elementos designativos, pero además parece señalar que el lugar ocupado por estas unidades lingüísticas es cercano a la periferia de los sistemas gramaticales.

Recuérdese que, de acuerdo con una concepción moderna de la gramática, para cada sistema lingüístico existe por un lado la gramática nuclear, en la que se describen las propiedades generales y sistemáticas de una lengua natural, y por el otro la periferia, donde deberían describirse construcciones residuales, préstamos de lenguas y todos aquellos aspectos más idiosincrásicos y menos sistemáticos de la gramática de cualquier lengua.

Si postulamos que los NNPP ocupan la frontera entre núcleo y periferia de las gramáticas de las lenguas naturales, resulta relativamente fácil dar una explicación al comportamiento lingüístico singular de estas unidades (concretamente, a la integración parcial –fonológica, morfológica, sintáctica y semánticamente hablando– de los NNPP dentro de los sistemas lingüísticos) y, a su vez, indicamos la fuente principal de los

problemas que surgen, desde una perspectiva lingüística, en el proceso de traducción de dichas unidades.

Para ilustrar lo que acabo de decir, tomemos el siguiente punto de estudio. Aunque no parece que pueda hablarse de un subsistema fonológico de los NNPP, claramente definido en ninguna lengua natural, López García (1985) observa que el NP español puede presentar ciertas "combinaciones de fonemas francamente desviantes respecto a la norma de la lengua y, por tanto, respecto a la clase de los nombres comunes. Esto sucede —sigue el mismo autor— de manera especialmente frecuente y ostensible en algunos nombres propios de creación moderna, a saber en las siglas (...), pero se da también en los nombres de introducción más antigua, que a menudo són préstamos adoptados tal cual, sin modificación alguna *Bucarest, Popocatepetl*".

Desde un punto de vista diacrónico pueden detectarse también algunas diferencias entre la evolución fonética de los NNPP y la de los NNCC. Así, por ejemplo, Badia (1951, 1981:128-9) comenta la evolución de A tónica en contacto con U. Es interesante observar, tal como se ilustra en (1), que la tendencia de la lengua ha sido hacia la monoptongación; sin embargo, las voces cultas o semicultas, entre las cuales habría que incluir los NNPP, mantienen generalmente el diptongo arcaico.

(1) **Catalán**

a) AU > ou> o; AURU > or, CAUSA > cosa

b) PAULU > Pau vs. Sant Pol

c) Ridaura, Valldaura

Por su parte, Menéndez Pidal (1904) señala que es de toda evidencia que muchos nombres de lugar fueron transmitidos oralmente desde la época latina hasta hoy, pero que la escritura y pronunciación oficiales (la influencia eclesiástica en el caso de los nombres de santos) obstaculizaron a veces en ellos la evolución popular y, consiguientemente, son voces semicultas. Un ejemplo lo constituyen los topónimos que faltan a la regla de desaparición de la vocal postónica interna, por ser una vocal relajada.

(2) **Español**

a) CALĬDUS > caldo, VIRŬDE > verde

b) EMERĬTA > Mérida, GALLĬCŬS > Gállego

La transición entre núcleo y periferia, a la que he aludido hace un momento, también daría cuenta de la cantidad de préstamos y calcos de NNPP que tiene lugar entre lenguas y, por tanto, de la interferencia fo-

nológica que puede producirse entre dos sistemas lingüísticos a través de la incorporación de NNPP de otro idioma a una lengua receptora.

Desde un punto de vista fonológico lo más destacable es la evolución que siguen los NNPP cuando se incorporan a un sistema lingüístico distinto de aquel del que proceden. La evolución (como señalan varios teóricos de la traducción, entre ellos Molino 1982 y Newmark 1981, 1988) se produce normalmente en la dirección de integrar y naturalizar los fonemas extranjeros, aunque también es posible la coexistencia parcial durante cierto tiempo de los dos sistemas fonológicos.

Así, por ejemplo, en el caso de los NNPP de persona, que son los que sufren más movilidad entre lenguas, dichos nombres conservan inicialmente los rasgos fonológicos de la lengua propia hasta que terminan por adaptarse al sistema fonológico de la lengua receptora. Así ha podido detectarse con el nombre irlandés de (3).

(3) Seán [ʃá:n]

pronunciación castellanohablantes [tʃón]

pronunciación catalanohablantes [ʃón]

2. NORMAS Y CONVENCIONES PARA LA TRADUCCION DE LOS NNPP

A la luz de lo que se acaba de comentar, seguidamente expondré y evaluaré ciertas normas y convenciones establecidas en el campo de la teoría de la traducción para la correcta traducción de los NNPP; de este modo realizaré una aproximación a la pregunta de ¿cómo y cuándo deben traducirse los NNPP y, más en concreto, los topónimos?. Téngase en cuenta que la respuesta a estas preguntas tiene interés no sólo para la traducción propiamente dicha, sino por supuesto también para la normalización de NNPP extranjeros, entre ellos los nombres geográficos, porque existe la necesidad de fijar la lengua escrita sobre modelos estandarizados, de modo que dicha lengua sea un vehículo adecuado para la adaptación de los NNPP.

La necesidad de traducir NNPP escritos según un determinado sistema de escritura de una lengua a otra lengua, que utiliza un sistema de escritura distinto, surge de un modo especial en textos de índole histórica y geográfica, en documentos cartográficos y en trabajos bibliográficos en los que es necesario convertir varios sistemas de escritura según un único alfabeto, para permitir, por ejemplo, su ordenamiento alfabético (piensen en los índices toponímicos que incluyen los atlas).

Se han señalado tres clases de topónimos a efectos de su escritura y pronunciación en los medios de comunicación (cf. Agencia EFE 1987: 76):

1. Nombres de uso tradicional y muy bien arraigado en la lengua terminal, en nuestro caso el catalán.

2. Nombres que, aun teniendo correspondencia en la lengua terminal, por intereses políticos del país correspondiente deben usarse en su forma original, pero siempre recordando el exónimo más conocido entre paréntesis: *Sri Lanka (Ceilan).*

3. Nombres que no tienen correspondencia catalana, y que hay que transcribir catalanizando las grafías.

En términos generales la traducción de un NP puede realizarse según distintos criterios. Siguiendo las normas internacionales de la ISO (Organización Internacional de Normalización), los dos métodos básicos de conversión de sistemas de escritura son la transliteración y la transcripción. Una tercera vía es la que introduce la exonimia tradicional. Voy a comentar estas tres soluciones y propuestas específicas para el catalán como lengua terminal.

La **transliteración** es el proceso que consiste en representar los caracteres de un sistema alfabético o silábico de escritura mediante los caracteres de otro alfabeto. Por carácter se entiende un elemento de un sistema de escritura cualquiera que representa gráficamente un fonema, una sílaba, una palabra o incluso un rasgo prosódico de una lengua.

En principio, esta conversión debería ser de uno a uno; es decir, cada carácter del sistema gráfico de origen debería tener su correlato en un sólo carácter en la lengua terminal. Sin embargo, puede suceder que el número de caracteres usados en el sistema gráfico en que se representa la lengua terminal sea menor que el número de caracteres del sistema de partida; en este caso la ISO recomienda usar dígrafos o marcas diacríticas que siguiendo una justificación fonética puedan ser ampliamente aceptados por la comunidad receptora.

Así, por ejemplo, en la transliteración al catalán de los tres caracteres árabes que corresponden a la TA, y se pronuncian [t], [θ] y [t] (enfática) respectivamente, se han utilizado diacríticos. Compárense los tres caracteres que se especifican en (4) (cf. IEC 1990:144-6).

(4) ت <t>

ث <t̲>

ط <ṭ>

Nótese que el grafismo que se ha propuesto en (4) puede muy bien darse el caso de que no sea pronunciado correctamente de acuerdo con los hábitos fonéticos del catalán o de cualquier otra lengua que use el alfabeto latino. Por otro lado, este grafismo pretende ser tal que permita a un lector que tenga conocimientos de la lengua traducida reproducir de un modo inequívoco el grafismo original y pronunciarlo correctamente.

Siguiendo las instrucciones de la ISO, en el caso de que un carácter de un determinado alfabeto sea usado con algunas diferencias en distintas lenguas, este carácter debería recibir una única transliteración con la finalidad de que sea ampliamente aceptado.

Este nivel, que es el único que permite la reversibilidad entre sistemas distintos de escritura, es el que se conoce como nivel de la **transliteración rigurosa**. Este tipo de conversión no admite variantes. Cabe señalar que en la representación de palabras árabes en catalán el Institut d'Estudis Catalans recomienda seguir esta opción en publicaciones especializadas o de alta divulgación que dispongan de un público relativamente familiarizado con el árabe. La transliteración rigurosa es especialmente relevante en los estudios de paleografía, epigrafía y numismática, por cuanto que interesa reproducir con la máxima exactitud posible los fonemas del árabe. Es decir, dado el alto grado de correspondencia grafema-fonema en el sistema gráfico del árabe clásico, interesa representar del modo lo más fiel posible los caracteres gráficos de la lengua original, de modo que el lector pueda recuperar de un modo inequívoco el grafismo original y pronunciarlo adecuadamente.

Otro nivel posible es el de la conversión simplificada o transcripción. En este caso la simplificación puede ser motivada por el uso de máquinas (ordenadores, máquinas de escribir, etc.) que no disponen de todos los caracteres alfabéticos necesarios en una conversión rigurosa.

La **transcripción** es el proceso por el que la pronunciación de una lengua determinada se representa mediante el sistema de signos gráficos que se utilizan para representar gráficamente la lengua terminal. Un sistema de transcripción se basa necesariamente en las convenciones ortográficas de la lengua terminal y, por tanto, en el sistema fonológico de la lengua meta. De ahí que pueda suceder que la transcripción no sea estrictamente reversible.

Tomemos un ejemplo, en obras de ficción que hagan referencia a mundos o lenguas inexistentes y, por tanto, inventados, los NNPP (sean del área de la onomástica o de la toponimia) deberían transcribirse, es decir, grafiarse según el alfabeto y el sistema fonológico de la lengua

meta, aunque siguiendo de cerca la pronunciación que el autor dió a los nombres en la lengua original de la obra traducida (cf. Espinal 1992).

Así, en la versión catalana de *The Lord of the Rings* de John Ronald Tolkien encontramos las siguientes transcripciones:

(5)

Inglés	**Catalán**
Gandalf	Gàndalf
Gimli	Guimli
Gamgee	Gamgí

El objetivo de esta adaptación fonológica y gráfica es ofrecer al lector-receptor de la obra traducida unos términos que no muestren ninguna violación de las estructuras fonológicas permitidas en la lengua de llegada, para de este modo evitar pronunciaciones incorrectas por parte del lector. Como se ilustra en (5) la transcripción supone una cierta naturalización e integración de los sistemas fonológicos y gráficos.

Es importante tener en cuenta que la transcripción puede usarse para la conversión de cualquier sistema de escritura. Es el único método que puede usarse para sistemas que no son totalmente alfabéticos o silábicos, y para sistemas de escritura que son ideográficos. Así pues, con el objeto de realizar la **romanización** de un mensaje, es decir, la conversión desde un sistema de escritura que no sea el alfabeto latino a dicho alfabeto, puede recurrirse bien sea a la transliteración, bien a la transcripción, dependiendo de la naturaleza del sistema gráfico de origen y del objetivo de la traducción.

Siguiendo las normas de la ISO en la traducción de textos escritos mediante un sistema ideofonográfico es más importante la transmisión del significado que la transmisión de la pronunciación. Cada carácter debe transcribirse mediante uno o más caracteres latinos que permitan reflejar la pronunciación o pronunciaciones del carácter de origen. Ésta sería la solución que se ha seguido en chino romanizado, de acuerdo con la cual se ha preferido transferir sin traducir (cf. Espinal 1992).

(6) **Chino**

人民
日报

Rénmìn Ríbáo (Periódico del Pueblo)

Una transcripción simplificada va dirigida a obras de divulgación (histórica, política, lingüística, literaria, etc.) y a los medios de comuni-

cación de masa. Los receptores son un público culto aunque no familiarizado con la lengua de origen. Por ejemplo, en el caso de la transcripción simplificada de los sonidos árabes mediante los grafemas de uso habitual en catalán encontramos diferencias con respecto a las soluciones adoptadas en (4). Compárense los tres caracteres que se especifican en (7) (cf. IEC 1990:150-1).

(7) ت <t>

ث <th>

ط <t>

Este tipo de transcripción está pensada para ser reproducida mediante los medios tipográficos que están más al alcance en el sistema de escritura de llegada, y evita los signos diacríticos más inusuales.

Con respecto a la onomástica árabe, y en los campos de uso propios de la transcripción simplificada, el IEC recomienda seguir los siguientes criterios:

a) Se respetarán los antropónimos y topónimos de los que se dispone de una grafía reconocida en catalán (y para ello se remite a la *Gran Enciclopedia Catalana*).

(8) Marràqueix *(GEC)* vs. Marrākech *(Atlas)*

Fes, Tunis, el Caire, Damasc, Riad, Rabat, Trípoli

b) Al resto de nombres se aplicarán en general las normas de la transcripción simplificada, incluyendo las del artículo y la acentuación; a saber, que el artículo se transcribe siempre unido mediante un guión a la palabra siguiente (con la que forma una unidad gráfica en árabe)

(9) An-Nàssir

y que el acento de intensidad se representará según las normas de acentuación gráfica del catalán. Así pues, en la transcripción simplificada al catalán la última sílaba sólo llevará acento en el caso de monosílabos tónicos (generalmente imperativos), del morfema dual y de las ultralargas finales.

(10) Abu-Qarnayn

Abu-Jihad

Ibn Bassam

La penúltima sílaba lleva acento si es larga.

(11) Al-Mudàffar

Jàfar

Ibn Mufàwwiz

Finalmente, en palabras de más de dos sílabas que no tengan las características anteriores, el acento se remonta hasta que encuentra una sílaba larga o bien al principio de palabra.

(12) Al-Qàhira

c) Los antropónimos con nombres compuestos que constituyen un constructo se unirán mediante guiones.

(13) Abu-Sufyan

Abd-ar-Rahman

d) En el caso de estos antropónimos (y ocasionalmente topónimos) compuestos unidos mediante guión, se recomienda el uso de mayúscula sólo en aquellas partes que sean realmente NNPP (muchos de ellos son NNCC habilitados), pero sin mayúscula el artículo, la preposición u otros NNCC, excepto cuando aparezcan como iniciales.

(14) Abd-al-Wahid

Abu-al-Mansur

Al-Mansur

En términos generales puede afirmarse que la tendencia actual es la de respetar los topónimos extranjeros, antes que traducirlos o introducir en ellos cualquier modificación, incluso fonética (cf. Espinal 1992). Véanse los ejemplos de (15).

(15)

Español	**Catalán**
Santo Domingo	Santo Domingo
Tetuán	Tetuan
Buenos Aires	*Bons Aires
Río de Janeiro	*Riu de Gener

Sin embargo, como ya se ha dicho, en relación con los nombres geográficos encontramos muchos otros ejemplos que parecen justificar bien sea una transliteración bien sea una transcripción, dado que son nombres de lenguas que se expresan habitualmente mediante un sistema de escritura distinto del alfabeto latino. En (16) se dan algunos ejemplos interesantes.

(16) Pečora *(GEC, Atlas)* vs. Petxora

Manxúria

Chicago, Manchester

En los dos primeros ejemplos se ha obviado el dígrafo *ch*, porque además de ser extraño en catalán tampoco aparece en las palabras correspondientes en ruso o en chino, aunque sí se encuentre en alguna transcripción de estas palabras en una tercera lengua como el francés. Se justifica de este modo (cf. Fabra 1955:74) que en catalán se reemplace *ch* por *tx* o *x*. El caso de los nombres *Chicago, Manchester* es distinto, puesto que aquí el dígrafo *ch* aparece ya en la grafía original.

Fabra propone que la catalanización de un NP extranjero, es decir, la naturalización o transcripción de dicho nombre, sea solamente tolerable cuando se trate del nombre de un estado o de un nombre convertido en común, como sucede en (17).

(17) La Xina, Xile

xampany, xerès

En los demás casos, cuando se trata de palabras de una lengua que sigue el alfabeto latino, lo más racional parece ser respetar la ortografía original y, por tanto, admitir en la traducción de los NNPP símbolos tales como *k, y, w, ch, sh*, etc. Tenemos algunos ejemplos en (18).

(18) Euskadi, Wagner, Château Tierry, Sheffield

No debería utilizarse ninguno de estos símbolos, sin embargo, cuando se trata de transferir palabras de lenguas como el ruso, el griego, el árabe, el chino o el japonés que utilizan otros sistemas gráficos.

El problema fundamental es que, al mismo tiempo que se efectúa la transliteración, muchos NNPP requieren una adaptación de sistemas fonológicos, porque los sistemas de sonidos de las dos lenguas no son idénticos.

Corominas (1971) y Fabra (1955), por su parte, en sendos estudios sobre la lengua catalana, coinciden en recomendar la transcripción de los sonidos del nombre original mediante los signos más usuales o, al menos, más conocidos, entre los usuarios de la lengua meta, de modo que la realización fónica se parezca, dentro de los límites posibles, cuanto más mejor al original, pero sin introducir violaciones en el código fonológico, fonético o gráfico de la lengua de llegada.

La consecuencia más visible de este doble enfoque es que algunos topónimos han recibido doble solución, sea por la vía de la mera trans-

literación (método que como ya se ha dicho puede tener el inconveniente de introducir considerables dificultades tipográficas o de lectura para un público no especializado), sea por la vía de la transcripción o correspondencia de signos y grafías. Observamos ambas tendencias en dos de las obras más consultadas, y con más repercusión cultural sobre toponimia (ambas publicadas por Enciclopèdia Catalana) de las que disponemos en catalán. En (19) puede compararse la transliteración que se ofrece en el Atlas con la transcripción que se ofrece en la GEC.

(19) Tōkyō *(Atlas)* vs. Tòquio (GEC)

Kashmir *(Atlas)* vs. Caixmir *(GEC)*

Se pueden plantear por este motivo ambivalencias en el proceso de traducción, sobre todo cuando se parte de una lengua escrita que se adapta a otra lengua escrita. Asimismo, una adaptación del alfabeto cirílico al catalán como la que propone la *GEC* es una **transcripción**, porque pretende una fidelidad mínima a los sonidos esenciales del ruso (o de otra lengua eslava); pero es una **transliteración** porque parte de la lengua escrita y su finalidad es proporcionar un código de lectura, no reproducir la pronunciación real del original.

En este sentido la ISO advierte que otro aspecto importante a tener en cuenta cuando se habla de transcripción simplificada es que un sistema de conversión propuesto para uso internacional requiere cierta voluntad de compromiso y el sacrificio de ciertas convenciones nacionales.

Así, por ejemplo, para transcribir el sonido consonántico velar fricativo sordo [x] del ruso las publicaciones catalanas suelen utilizar *kh*, que de hecho no corresponde a ningún dígrafo catalán. Se recomienda, adecuadamente, transcribir gráficamente [j] mediante *i* latina; pero, en cambio, [k] se transcribe *k*, a pesar de que esta grafía no existe en las palabras vernáculas del catalán. Tal como se afirma en el documento que actualmente prepara la Sección Filológica del *IEC* sobre la transliteración y transcripción de los nombres rusos en catalán, se adopta *k* por tradición. La escritura *c/qu*, perfectamente posible, rompería con ciertos hábitos adquiridos. De ahí el símbolo # utilizado ante una de las formas de (20).

(20) Bukhanin, Dostoievski, Tòlstoi

Txaikovski vs. # Txaicovsqui

Otro ejemplo de esta voluntad de compromiso de no romper con la tradición surge cuando consideramos que el sonido [f] que aparece en posición final absoluta en ruso se escribe mediante la letra v en catalán, obedeciendo bien a una transliteración rigurosa bien a una transcripción

simplificada del símbolo *B* del alfabeto cirílico. Nótese que esta convención se ha aceptado aún contraviniendo las propiedades del sistema fonológico catalán (que no tiene la consonante fricativa labiodental sonora en posición final absoluta) y, por tanto, no existe ninguna palabra vernácula en catalán que tenga la letra v en posición final.

(21) Txèkhov, Khàrkov

Kovrov, Khàrkiv

Kíev *(GEC)* vs. Kíef (cf. Torrent 1990) vs. # Quíef

En cuanto a las normas de acentuación se siguen las normas habituales en catalán. En el caso de *e* y *o* en sílaba acentuada, se recomienda la grafía fiel a la pronunciación original. Dado que la pronunciación de las vocales [e] y [o] en ruso es más cerrada que las vocales correspondientes abiertas en catalán, e incluso a menudo más cerrada que las vocales cerradas catalanas, el acento que se debería usar es el agudo. Así, *Txékhov* debería escribirse con acento agudo. Sin embargo, siguiendo una tendencia menos fiel al original y de mayor adaptación al catalán, se puede defender la acentuación abierta, que es la usada por los traductores más destacados (entre ellos, Riba y Nin) y que parece responder a la tendencia del catalán oriental en la adaptación de palabras extranjeras (cf. Badia 1973).

Antes de abandonar este apartado y pasar al siguiente, deberían contrastarse las tablas de transliteración del alfabeto cirílico, árabe, hebreo, y griego propuestas por la ISO, con las tablas de transliteración y transcripción de estos alfabetos elaboradas por la *GEC* para el catalán, y también con la tabla de transliteración y transcripción del alfabeto griego y la de transcripción del alfabeto latino propuestas por Alberich - Ros (1993).

Una de las conclusiones que pueden inferirse de este estudio comparativo es que las soluciones aportadas para un determinado sistema lingüístico tienen validez únicamente en relación con el resto de caracteres propuestos para la transliteración o transcripción de aquel sistema lingüístico. No es raro encontrar, por tanto, que un mimsmo carácter se utilice como solución de naturaleza distinta para varias lenguas.

Tomemos el caso del dígrafo *th*. El ICE propone estos caracteres latinos como transcripción simplificada de [ɵ] en árabe; mientras que Alberich - Ros (1993) proponen estas letras como transliteración, pero no como transcripción, de [θ] en griego; y la *GEC* da soluciones contrapuestas: *z* para la transcripción de [θ] en árabe, pero *th* tanto para la transliteración como para la transcripción de [θ] en griego.

En la traducción de sistemas de escritura alfabéticos existe un tercer nivel, basado en la conversión popular o **transcripción rigurosa**, que consiste en la adaptación fónico-gráfica a la lengua terminal. Es la vía de la traducción entendida como adaptación o integración de sistemas gráficos y de sistemas fonológicos. Esta solución es estrictamente nacional y da cuenta de la existencia de determinadas prácticas en el uso de los nombres propios, especialmente topónimos. Ahí entra la **exonimia tradicional**, entendiendo por exónimos tradicionales los NNPP que en una lengua vienen designando secularmente a personas o entidades geográficas cuyos nombres tienen forma distinta en el país a que pertenecen.

(23)

Catalán	**Italiano**	**Inglés**
Florència	Firenze	Florence
Londres	Londra	London

(24)

Catalán	**Inglés**	**Francés**	**Alemán**	**Italiano**
Venècia	Venice	Venise	Venedig	Venezia
Aristòtil	Aristotele	Aristote	Aristoteles	Aristotele

Se trata de nombres de individuos o lugares que pueden "traducirse" íntegramente o parcialmente, según se trate o no de nombres accesibles culturalmente en la comunidad receptora, y según el grado de conocimiento del objeto referente.

En este sentido se da por sentado que nuestros propios nombres personales no deberían ser traducidos a una lengua extranjera, aunque sean pronunciados de un modo distinto para adaptarse mejor al sistema fonológico, y quizás también a las correspondencias sonido-grafía de esta lengua. Solamente un número muy limitado de nombres de persona bien conocidos (nombres de reyes, de personajes bíblicos, históricos mitológicos, de papas, de artistas o filósofos destacables), así como los nombres de países o de ciertas ciudades, tienen formas específicas en cada lengua natural. Vendler (1967) rechaza hacer uso del término traducción y prefiere hablar de versiones equivalentes en distintas lenguas: Vienna sería la versión inglesa y no la traducción inglesa del nombre alemán Wien. Pero también es cierto que se ofrecen soluciones eclécticas: *New York, Nueva York, Nova York* en catalán, sería un caso evidente de traducción parcial.

Más que la estricta fidelidad al sistema fonológico y/o al código gráfico original predomina la intención de adaptación al sistema de la lengua terminal, aunque ello suponga imprecisiones o variaciones. La justificación de esta solución es que intenta regularizar la introducción de préstamos. Del mismo modo que se adaptan nombres comunes ya

usuales, acerca de los cuales se supone que deberían incorporarse al léxico común, al lenguaje de la divulgación popular, y de la literatura de creación, también se adaptan nombres propios muy integrados.

Entre las propuestas del IEC para la adaptación fónico-gráfica árabe-catalán están los apartados que se apuntan en (24).

(24).a) Se parte de la transcripción simplificada:

b) Unificación de <q> y <k> en >ca, que, qui, co, cu>

c) Eliminación de <h> en los dígrafos <th>, <kh>, <dh>, <gh>

d) Simplificación de todas las letras geminadas de concurrencia inhabitual en catalán (sólo quedarían <rr> y <l.l>)

e) Transformación de <w> y <y> en <u> y <i> respectivamente.

f) Se siguen las reglas generales sobre el acento y la onomástica de la transcripción simplificada.

g) El artículo, en el caso que deba representarse, se une directamente a la palabra siguiente, sin necesidad de guión.

Queda como una cuestión pendiente, por lo problemática que es, la transcripción que debería adoptarse en el caso de topónimos y antropónimos, divulgados internacionalmente a través de transcripciones francesas o inglesas, muchas de ellas ya usuales, e incluso oficiales, en el mismo país de orígen. Como se apunta en el *Manual de español urgente* de la Agencia EFE, el problema se presenta con NNPP en lenguas con alfabetos distintos del latino, o sin tradición escrita; su transcripción latina varía según se haga al español, al inglés, al francés, al alemán o al italiano. La consecuencia más inmediata es que aparece un mismo nombre con varias grafías, correspondientes a las distintas lenguas intermediarias; ello afecta directamente a la prensa, la radio y la televisión, y supone un problema importante en la confección de mapas y bibliografías.

En estos casos el IEC arguye que una solución catalanizadora o clasicizante a ultranza quizá haría inidentificables o poco convenientes ciertos nombres en determinados ámbitos de uso, y que una decisión razonable debería ser discutida dentro del fenómeno general de la interposición y de las lenguas vehiculares, con la participación de profesionales de los medios de masa y de los países implicados.

Pensemos, para ilustrarlo, en el caso de las más de 650 ciudades homónimas entre América y España, el exónimo catalán sólo es válido para la ciudad española, pero no para la americana.

(25) Còrdova (España) vs. Córdoba (Argentina)

Otro ejemplo parecido lo tenemos en (26). El exónimo catalán sólo es válido para la capital británica.

(26) Londres (Gran Bretaña) vs. London (Canadá)

En relación con este punto cabe señalar también que la mayoría de acentos incorrectos que encontramos en catalán corresponden a palabras técnicas y topónimos que se han vehiculado a través del español.

(27).a) Port-Saïd, Biarritz

b) Marràqueix, Ucraïna

c) Etiòpia, Hèlsinki, Himàlaia, Bàssora

En (28) tienen dos ejemplos de topónimos de ciudades del mundo con el exónimo catalán, el nombre original y otros exónimos usados internacionalmente (cf. Martínez de Sousa 1987, *GEC* 1993).

(28)	**Catalán**	**Original**	**Otros Exónimos**
	Anvers	Antwerpen	Amberes (e.), Anvers (f.), Antwerp (i.), Anversa (it.)
	Coblença	Koblenz	Coblenza (e.), Coblence (f.)

En (29) tienen varios ejemplos de topónimos chinos en tres versiones (cf. Martínez de Sousa 1987: 332-334): el exónimo español, el nombre según la grafía pinyin y otros exónimos según la adaptación que han sufrido en las lenguas francas más conocidas. (Recuérdese que el pinyin es el sistema de romanización usado para transcribir el chino moderno. Se trata de una transcripción simplificada, puesto que el traductor escribe la pronunciación de los caracteres de acuerdo con su lectura en la lengua original).

(29)	**Español**	**Grafía pinyin**	**Otros exónimos**
	Cantón	Guangzhou	Kouangcheou (f.), Kwangchow (i.)
	Pekín	Beijing	Peking (f., i.), Pechino (it.)
	Shanghái	Shanghai	

Los ejemplos de (30) ilustran la coexistencia en un mismo sistema lingüístico de dos formas: una forma basada en la adaptación fónico-gráfica de un NP extranjero (lo que conocemos como **exónimo**), y otra forma basada en la transcripción simplificada. Es lo que ocurre a menudo

al traducir al catalán topónimos chinos. Comparénse los ejemplos de (30) con los correspondientes en (29).

(30)	Pequín *(GEC)*	vs.	Beijing *(Atlas)*
	Xangai	vs.	Shanghai
	Canton	vs.	Guangzhou

Recuérdese que en los sistemas de escritura ideográficos es imposible una transliteración signo a signo. Cada carácter debe transcribirse mediante una o varias letras del alfabeto latino que reflejen la pronunciación del carácter en la lengua original. Dado que la transcripción de signos ideofonográficos es básicamente una notación fonética de caracteres en letras latinas, unos mismos caracteres requerirán transcripciones distintas según se encuentren en textos chinos, japoneses o coreanos.

Resumiendo lo que se ha comentado hasta ahora, en la traducción de NNPP extranjeros, y más en concreto de topónimos, al catalán, existen varias propuestas:

1. IEC. Nuestra Academia se ha pronunciado sobre la transliteración rigurosa, la transcripción simplificada y la adaptación fónico-gráfica del árabe al catalán. Las tres soluciones, como ya se ha comentado, tienen justificaciones y usos distintos. Actualmente la Sección Filológica del Institut está elaborando las normas para la transliteración y transcripción del alfabeto cirílico. En este documento de trabajo se recomienda la adaptación al catalán en la prensa, la literatura y los textos de divulgación; se recomienda la transliteración internacional en publicaciones especializadas y en la investigación; en bibliotecas, diccionarios y enciclopedias se recomienda seguir el sistema de la *GEC* con sus adaptaciones al catalán.

2. *GEC*. De un modo no oficial, y añadiría también que de un modo muy eficaz, la *GEC* es la obra que más ha influido en el momento de fijar la toponimia no catalana y vehicular su uso en la enseñanza, en los medios de comunicación, y en cualquier texto escrito. Aunque bien es cierto que podemos hablar de criterios muy diversos (hemos mencionado ya algunos de ellos) que pueden justificar en cada caso la solución más indicada; en general, podemos hablar de un acuerdo tácito dentro de la comunidad de usuarios que debe seguirse el criterio establecido por Enciclopèdia Catalana, bien sea a través de la solución adoptada en la *GEC*, bien sea a través de la que se ha adoptado en el *Atlas*. Y lo digo en estos términos, porque es importante tener presente que las soluciones que se dan en una y otra obras son a menudo distintas. En la *GEC* se opta básicamente por la transcripción más o menos sim-

plificada y por la exonimia, cuando existen tales variantes, mientras que en el *Atlas* se recurre básicamente a la transliteración más o menos rigurosa.

En el prólogo de la *GEC* se especifica que en la onomástica se mantienen las formas originales de los NNPP, incluso cuando son más conocidas por medio de un idioma distinto del original. En el caso de lenguas escritas en alfabeto latino, la forma se incluye en la ortografía original, y en el caso de los idiomas de alfabeto no latino la forma original pasa por el filtro de la transliteración. En determinadas situaciones la forma original se sustituye por la forma catalana o se adapta por transcripción a la fonética catalana; en relación con la toponimia esto ocurre en los siguientes casos:

a) Los nombres de los estados y países de todo el mundo. La mayoría de estos nombres ya tienen una tradición, secular algunos, en nuestra lengua. Otros, de formación reciente, no disfrutan de esta tradición, y su adaptación, como ocurre también en otras lenguas romances se puede considerar muy superficial o inexistente.

(32) Xipre, Malawi, Sierra Leone, Costa d'Ivori, Txad

Se opta también por la adaptación al catalán en

b) La llamada gran toponimia universal, es decir, aquella que forma parte de los conocimientos geográficos adquiridos en la enseñanza media. Por un lado, pueden citarse ejemplos de nombres geográficos respecto a los que existe una forma catalana tradicional

(33) Londres, Milà, Alger, Rin, mar Roig, Volga

por otro lado, en relación con otros nombres existe una tradición más reciente e insegura que la *GEC* ha tratado de fijar.

(34) Apalatxes, Altai, Carib

c) Asimismo, los nombres de persona y lugar de la antigüedad clásica (griega y latina) entran a través de la forma catalana, fijada por vía tradicional o por vía literaria (en especial, a través del trabajo realizado por Carles Riba).

(35) Peloponnès, Esparta, Míconos, Atenes, Bizanci

d) Los nombres de personalidades históricas y actuales importantes de citación frecuente en los textos de cultura media entran por su forma transcrita, la cual remite a la forma transliterada.

(36) Txèkhov > Čekhov

Khruixtxov > Krusčov

e) En la onomástica referente a nombres de lugar o de persona de culturas que no utilizan el alfabeto latino se adopta el criterio de dar equivalentes gráficos del alfabeto original con el fin de permitir que pueda restituirse la grafía original. En la *GEC* esta vía se distingue de la transcripción, es decir, la conversión en nuestro alfabeto de lo que sería el equivalente fonético del original. La transliteración se presenta como la tendencia moderna más general, no sólo en obras especializadas, sino también en obras de consulta general, como son las enciclopedias. Sus ventajas están en el hecho de que tiende a unas formas universales, no desfigura las grafías originales, y permite encontrar de un modo fácil los nombres transliterados.

En contraste con los criterios ahora mencionados, en la introducción del *Atlas universal català* se describen los tres criterios generales que se han utilizado para fijar la toponimia:

a) En todos los mapas, los nombres de los estados y de las nacionalidades de todo el mundo entran únicamente en su forma catalana. La mayoría de estos nombres tienen una tradición en nuestro idioma. En el *Atlas* se utilizan las formas previamente aceptadas por la *GEC*, salvo en el caso de los nombres de algunas repúblicas o nacionalidades autónomas de la antigua URSS y de China, que han sido totalmente catalanizados.

(37) Regió Autònoma dels Uigurs, Oblast Autònoma dels Karatxai i dels Txerguessos

b) En los mapas universales, continentales o que comprendan una gran parte de un continente, así como en el mapa de la península ibérica, se utiliza el catalán en todos los accidentes geográficos:

(38) Oceà Atlàntic, Mar Egea, Muntanyes Rocalloses

así como en todas aquellas ciudades que tienen una forma tradicional catalana.

En cuanto a países que utilizan alfabetos distintos del latín, en este grupo de mapas se ha seguido el criterio de la simple transcripción o la adaptación a la grafía y fonética catalanas:

(39) Txeliàbinsk, Arkhànguelsk, Ioànnina

c) En los mapas de estados, tanto si abarcan un solo estado o una parte de él como si abarcan más de uno, se utilizan las formas oficiales de cada uno de ellos, acompañadas de la forma catalana, cuando existe, entre paréntesis.

(40) Milano (Milà)

Saronikós Kólpos (Golf Sarònic)

En cuanto a los países que tienen alfabetos no latinos, en este tipo de mapas se adopta la norma de respetar los sistemas de transliteración oficialmente reconocidos por cada uno de estos países, especialmente los que han elaborado las Academias de Ciencias de la antigua URSS, de Bulgaria y de Mongolia, el sistema pinyin para la República Popular de la China, el wade para Taiwan y el sistema hepbrun para el Japón. En los casos de Grecia e Israel en el *Atlas* se opta por la utilización de los métodos de transcripción internacionalmente admitidos. En cuanto a los países árabes, se utiliza la transcripción admitida oficialmente por cada uno de ellos, que responde a menudo a bases inglesas o francesas.

Otros criterios más singulares que también se han seguido en el *Atlas* son:

d) En los países catalanes, salvo en las zonas de habla castellana u occitana, se utilizan exclusivamente las formas catalanas, tanto en el mapa como en el índice.

e) En las zonas de habla castellana del País Valenciano y de habla occitana del sur de Francia se utiliza la doble forma de los topónimos, castellana u occitana y catalana. En cuanto al Valle de Arán se utilizan las formas catalanas y aranesas.

f) En el País Vasco, Galicia, Occitania, Bretaña y Córcega aparece la toponimia en la forma propia de sus lenguas y entre paréntesis la forma catalana, si existe.

(41) Donostia (Sant Sebastià)

Bilbo (Bilbao)

Bizkaiko Golko (Golf de Biscaia)

Miarritze (Biarritz)

g) En Irlanda se mantiene la doble forma oficial, gaélica e inglesa.

h) En Ucrania, Georgia, Armenia, Tibet y la República Autónoma de los Yugures la toponimia se presenta, convenientemente transliterada, en sus idiomas respectivos, sin atender a las formas o a las transliteraciones oficiales rusas o chinas.

En resumen, en los mapas se da preferencia a las lenguas de cada país y a la catalana.

3. Un grado de difusión mucho menor han tenido las propuestas realizadas por los Servicios de lengua catalana de las universidades ca-

talanas. En este sentido tanto el Servei de Llengua Catalana de la Universidad de Barcelona como el Gabinet de Llengua Catalana de la Universidad Autónoma de Barcelona han elaborado criterios de traducción de NNPP dentro del ámbito universitario. Veamos algunos de ellos:

a) Los nombres de estados, países y regiones extranjeros y, en general, la toponimia mayor se traduce, siempre que por tradición exista una forma catalana equivalente. Cuando esta equivalencia no existe, se recomienda respetar la forma original en su forma oficial.

(42) Florència, Saragossa, Cadis, Londres, Milà, Còrdova, Terol, Montpeller,

Tolosa, Nova York

l'Adriàtic, els Alps, els Apenins, el Tàmesi

vs. Logroño, Ciudad Real, Jerez de los Caballeros, Düsseldorf

Cuando se traducen nombres geográficos que van acompañados del genérico, éste se traduce si no forma parte del topónimo propiamente dicho (por norma general el genérico se escribe con minúscula).

(43) la badia Hudson, el (riu) Iang-Tsé, la mar Roja, el desert Al-Nafud

vs. Long Island

b) Dentro de textos escritos en lengua catalana, los nombres genéricos de la toponimia urbana se traducen, y se mantienen sin traducir los topónimos propiamente dichos. Sin embargo, cuando se conocen internacionalmente con el nombre de origen, no se traducen.

(44) el carrer de Serrano, la plaça de la Castellana, la plaça d'Oriente de Madrid, la plaça de Mayo de Buenos Aires

vs. Times Square, Alexanderplatz

c) Los nombres de las universidades, centros y departamentos que las constituyen se traducen al catalán, siempre que exista una equivalencia entre el idioma original y el catalán.

(45) Universitat Autònoma Metropolitana de Ciutat de Mèxic, Escola Universitària d'Enginyeria Tècnica Industrial de la Universitat del País Basc, Institut de Matemàtiques de Kíev

4. Más particulares son todavía las soluciones aportadas por la revista *El Temps* y el periódico *Avui* en sus libros de estilo. En lo que respecta a la traducción de topónimos, *El Temps* recomienda, ya sea para traducirlos o mantenerlos en la lengua original, seguir los criterios mar-

cados por la *GEC*, pero añade que en las referencias bibliográficas es conveniente escribir la denominación catalana de las ciudades.

5. En cuanto a la transcripción catalana de NNPP clásicos (griegos y latinos), un trabajo importante es el de Alberich y Ros (1993), que parte de las formas introducidas por Carles Riba en sus traducciones de los clásicos griegos.

En conclusión, ante la duda de traducir o respetar el idioma original, en el caso catalán se recomienda partir de una voluntad normalizadora que permita suplir cualquier vacío que encontremos y contrarrestar las deficiencias léxicas con que nos enfrentamos. Los NNPP de alfabeto no latino se tratan de acuerdo con la Enciclopèdia Catalana y, más recientemente, de acuerdo con los criterios fijados por la Sección Filológica de l'Institut d'Estudis Catalans, huyendo de las adaptaciones al francés, inglés o español. Estos nombres, según el tipo de texto en que aparezcan, deberán transliterarse, transcribirse o traducirse por el exónimo tradicional. Debe pues recordarse que en el proceso de traducción coexisten varia técnicas diferenciadas, entre las cuales la selección final dependerá más de criterios extralingüísticos (tales como, convenciones adoptadas por los escritores o soluciones tomadas en obras lexicográficas de distinta naturaleza), que de criterios científicos de naturaleza lingüística.

Así pues, los nombres extranjeros de alfabeto distinto del nuestro pueden traducirse al catalán bien por transliteración bien por transcripción. Se entiende por transliteración la técnica consistente en reproducir un texto escrito en una lengua a otra lengua, de alfabeto distinto, con los medios gráficos de ésta; pero a menudo origina una grafía que resulta extraña para los usuarios del texto producto de la traducción. Se entiende por transcripción la técnica consistente en reproducir ya sea los fonemas (transcripción fonemática) ya sea los sonidos de una lengua, con aproximación a su pronunciación real (transcripción fonética), sin forzar la grafía de la lengua meta ni provocar formas exóticas.

La transliteración sólo es aconsejable para aquellos nombres que, sin estar incorporados al catalán, queramos darlos a conocer, con toda la precisión fonética posible acerca de la lengua origen, a lectores conocedores del alfabeto latino, mientras que aquellos nombres que usamos de forma natural como si formasen parte de nuestro caudal léxico, debemos transcribirlos y darles la forma propia de cualquier nombre en nuestro idioma.

Por último, recuérdese que los NNPP de alfabeto latino deben mantenerse en su ortografía original, pero en el proceso de traducción

es altamente recomendable respetar la acentuación original según las reglas ortográficas de la lengua meta.

BIBLIOGRAFIA

AGENCIA EFE (1987): *Manual de español urgente*, Cátedra, Madrid.

ALBERICH J.; M. ROS (1993): *La transcripció dels noms propis grecs i llatins*, Enciclopèdia Catalana, Barcelona.

—*Atlas universal català* (1983), Enciclopèdia Catalana, Barcelona.

—Avui, *Llibre d'estil de l'Avui*, Barcelona.

BADIA MARGARIT, A. (1951, 1981): *Gramàtica històrica catalana*, Tres i Quatre, València.

BADIA MARGARIT, A. (1973): "Phonétique ett phonologie catalanes", en *La Linguistique Catalane*, 11, Klincksieck, París, 115-179.

COROMINES, J. (1971): "Alguns noms propis estrangers usats sovint en forma incorrecta", *Lleures i converses d'un filòleg*, Club Editor, Barcelona, 55-60.

COSERIU, E. (1973): "El plural de los nombres propios", *Teoría del lenguaje y lingüística general*, Gredos, Madrid, 261-281.

—El Temps, *Llibre d'estil d'El Temps*, València.

ESPINAL, M. T. (1992): "Sobre la traducción de los nombres propios", *Cuadernos de Traducción e Interpretación*, 11/12, 1989-91, 73-93.

FABRA, P. (1955): *Converses filològiques*, vol VI, Barcino, Barcelona.

GABINET DE LLENGUA CATALANA (1993): "Criteris de traducció de noms propis en l'àmbit universitari", Universitat Autònoma de Barcelona, Bellaterra.

—*Gran Enciclopèdia Catalana* (1969-80), Enciclopèdia Catalana, Barcelona.

—*Gran Enciclopèdia Catalana. Tercer suplement* (1993), Enciclopèdia Catalana, Barcelona.

INSTITUT D'ESTUDIS CATALANS (1990): "Proposició sobre els sistemes de transliteració i transcripció dels mot àrabs al català", *Documents de la Secció Filològica*, I, 141-158.

INTERNATIONAL ORGANISATION FOR STANDARDIZATION (1988): *ISO Standards Handbook 1. Documentation and Information*, Ginebra.

LOPEZ GARCIA, A. (1985): "Lo propio del nombre propio", *Lingüística Española Actual*, 7.1, 37-54.

MARTINEZ de SOUSA, J. (1987): *Diccionario de ortografía técnica*, Fundación Germán Sánchez Rupérez, Madrid.

MENENDEZ PIDAL, R. (1904): *Manual de gramática histórica española*, Espasa-Calpe, Madrid.

MOLINO, J. (1982): "Le nom propre dans la langue", *Langages*, 66, 5-20.

NACIONES UNIDAS (1972): *Segunda conferencia de las Naciones Unidas para normalizar los Nombres Geográficos*, Nueva York.

NEWMARK, P. (1981): *Approaches to translation*, Pergamon Press, Oxford.

NEWMARK, P. (1988): *A textbook of translation*, Prentice Hall, Londres.

SERVEI DE LLENGUA CATALANA (199): "Proposta de traducció de noms propis", Universitat de Barcelona, Barcelona.

THE UNIVERSITY OF CHICAGO PRESS (1982): *The Chicago manual of style*, Chicago.

TORRENT, A. *et al.* (1990): "Criteris d'elocució formal", Departament de Filologia Catalana, Facultat de Ciències de la Informació, Universitat Autònoma de Barcelona, Bellaterra.

VENDLER, Z. (1967): "Singular terms", *Linguistics in Philosophy*, Cornell University Press, Ithaca, 33-69.

EUSKALTZAINDIKO EXONOMASTIKA AZPIBATZORDEAREN PROPOSAMENAK: HISTORIA ETA IRIZPIDE NAGUSIAK

Xabier Mendiguren Bereziartu

Duela zenbait hilabete Bilbon hasi eta ondoren Iruñean, Gasteizen, berriz Bilbon egindako lanekin jarraitu, eta orain Miarritze honetan egiten ari garen jardunaldiarekin ematen dio bukaera Euskaltzaindiak euskara batzeko orain 25 urte Arantzazun egin zen lehen bilera haiek ospatuz, orduan bezalako adore eta saiamenaz euskararen finkatze- eta bateratze-egintzari, harik eta udako etenaldiaren ondoren datorren urrian Leioan egingo den biltzarre nagusian, urte honetako azken saio nagusia egin arte.

Milaka ordu eta orrialde idatzi, ehundaka bilera egin eta garrantzizko urrats batzuk gehiago eman dira hilbizikoa dugun euskara batze eta finkatzearen bidetik. Onomastika batzordearen baitako Exonomastika azpibatzordean lanean ari izan garenok, hamar izen-zerrenda landu ditugu bi urteko epean eta horietxek zuen aurrean aurkeztu eta geure irizpideak azaltzea du helburu, dakizuenez, gaurko jardunaldi honek. Beraz, horretarako Exonomastikaz zenbait gogoeta egitetik hasiko naiz, ondoren mendez mende exonomastikari dagokionez euskararen baitan nabarmendu diren joerak gain-gainetik aipatuko ditut, XX. mendekoak eta bereziki azken hamarkadetako joerak azpimarratuz; gero Euskaltzaindiak onomastika-alorrean orain arte egindako urratsen berri emango dut, berorren baitan Exonomastika azpibatzordearen sorrera eta lanak aipatuz, eta amaitzeko bertan nagusi izan diren irizpideak azalduko dizkizuet. Berehala, eta egitarauan datorrenez, nire beste azpibatzordekideek zerrenda bakoitzaren berri zehatza eskainiko dizuete arratsalde osoan zehar.

1. EXONOMASTIKARI BURUZKO ZENBAT OHAR ETA GOGOETA

a) Izen berezien ikerketari *onomastika* deitzen zaiolarik, ikergai horren baitan azpimultzoa eratzen duten izen berezi atzerritarren ikerketari *exonomastika* esan ohi zaio. Nabaria denez, izen bereziek alor za-

bala eratzen dute eta berorien baitan bederatzi bat sail bereizi beharra dago gutxienez:

1. Pertsona-izenak: *Joanes, Maria.*

2. Pertsona gisako izenak: *"Pintto"* txakurra.

3. Pertsonifikatu gabeko objektuei emandako izen nabariak: *Kaaba.*

4. Leku-izenak: *Erroma.*

5. Izen berezi/arruntak: *magiar, Ford, xiitak.*

6. Arte-obren tituluak, ipuinen izenburuak: *Mona Lisa.*

7. Marka-izenak: *Vaseline.*

8. Gertakari historikoen izenak: *Ehun Urteko Gerratea, Errenazimendua.*

9. Pertsonifikatu gabeko kontzeptu eta abstrakzioak: *komunismoa, castrismoa* (1).

Sail horietako batzuk gaur esku artean daukagun lanaren baitan sartzen dira, beste batzuk itzulpenarenean batipat, eta hirugarren batzuk, aldiz, bere horretan hartzen direlarik, hitz berriak eratortzerakoan sortzen dute zenbait zalantza eta arazo: *nailonezko/ nylonezko, cartesiar/kartesiar...*). Dena den, euskararen baitan oraindik bide luze samarra egin beharrean gaude sail guztiei eta bakoitzari dagokion erantzuna eman arte.

Zenbaitetan ez dago oso garbi izen berezi (name) eta arrunt edo apelatiboen (common noun) arteko muga. Izen bereziek berba-kategoria apartekoa eratzen dute eta analisi-maila desberdinetan ezaugarri idiosinkratikoak izaten dituzte; gainera, semantikoki erabat edo neurri handi batean opakuak diren heinean, ez dira hizkuntza naturalaren gramatikan osoki sartzen ere. Bestalde, sinbolo berezi gertatzen dira zenbaitetan hizkuntza naturalen barruan, kultura eta etnolinguistikazko balioen eroale gisa.

Ikuspuntu fonetiko-fonologikotik izaten duten bilakaeraren ondorioz, hizkuntza bakoitzak fonema arrotzak irenstera jo ohi du, nahiz eta sarritan, denbora aski luzean, bi sistema fonologiko desberdin bizikide gertatzen diren. Ortografiari dagokionez, sorburu-hizkuntzetako grafia ia osoki onartzen da hasieran, eta gerora piskanaka moldatuz joan ohi da hizkuntza bakoitzaren tradizio eta arau orokorren ildotik. Jakina, horre-

(1) "Name" in *Encyclopaedia Britannica*, 15.º ed., USA, 1988.

tan zeresan handia dute hizkuntza desberdinetako sistema fonetiko-fonologikoen eta alfabetoen izaerak, baita horien hurbil-urruntasunak ere.

Hizkuntza batzuetan, berriz, izen berezi eta arruntaren arteko bereizketa bitarteko formalen bidez egin ohi da, hots, lehenak idaztean hitzaren hasieran letra larria erabiliz. Hori gertatzen da alfabeto latindar, greko, ziriliko, armeniar eta georgiarrean, esate baterako. Baina alemanez, aitzitik, letra larria erabiltzen da izen bereziekin ez ezik, baita arruntekin ere. Azkenik, artikuluaren erabilerak ere lagun dezake bereizten, zenbait hizkuntzatan hori ezinezkoa bada ere.

Gainerakoan, izen berezi eta arrunten arteko bereizketa eskuarki arazorik gabe egiten da: izen bereziak banakakoen aipamenak egiteko erabiltzen dira eta eta arrunt edo apelatiboak, berriz, klase bateko kide guztiak aipatzeko, adibidez, *ibaia, mendia, gizona, neska, autoa, mahaia...* Halere, badira muga-arazoak eta esate baterako, nazio bat banakako izakitzat har daiteke: *amerikarrak, frantsesak, errusiarrak* (horregatik idazten bide dira ingelesez letra larriz), "soldaduak", "marinelak", "bulegariak" eta abar apelatibo edo arrunt-tzat jotzen diren bitartean.

Bestalde, zaila da "baptista", "mormoi" edo "ebanjeliko" bezalakoen estatusa erabakitzen. Era berean, Henry Ford-ek sorturiko auto guztiak Ford izena badute eta Ford-a banako gisa erosgarria bada, "Ford" hori izen berezia ote da? Estatus horretatik hurbil dago edozein modutara ere. Halere, eguneroko erabileran izen arrunt bezala hautematen ditugu beste zenbait produkturen markak bezala: *dodotak, aspirinak, kasa, coca-cola*, e. a.

"Eliza Katoliko Erromatarra" edo "Hezkuntza Saila" (estatu jakin batekoa) egoera zalantzakorrean daude eta horregatik izaten dira ezbaiak letra larriz idatzi ala ez erabakitzerakoan. Zalantza horien historia luzea da eta izen berezi eta arruntak *onoma* hitzaz adierazten zituztelarik, *onoma* kyrion erabiltzen zuten izen berezi edo propioa adierazi nahi zutenean.

Izen berezien *(names)* kategoriei bagagozkie, beroriek ikertzen dituen zientzia *onomastika* da, *onomatologia* hitza zaharkiturik gelditu delarik. Gaia guztiz zabala da eta ezinbestekoa gertatzen zaio ikertzaileari sailak antolatzea, hizkuntza, geografia, historiaren, edo izenek duten izaeraren arabera (*antroponimoak/ antroponomastika* eta *toponimoak/toponomastika*). Halere, erabilera laxoagoan, *onomastika* pertsona-izenetarako uzten da, eta *toponimia*, aldiz, leku-izenetarako.

Azken hitz hau zentzu zabalean toki, eraikin, bide, herrialde, mendi, ibai, laku, ozeano, izar eta abar bezalakoak hartzeraino iristen da; aldiz, zentzu hertsian, hiri, herri, herriska eta auzategiak aipatzeko soilik.

Toponimiaren bigarren adiera horretan, jendeztatu gabeko lekuak aipatzen dituenean *mikrotoponimia* izena hartzen du. Kale, bide eta antzekoen ikerketari *hodonimia* deitzen zaio, ur-multzoen ikerketari *hidronimia*, mendien ikerketari *oronimia*. Eskuarki ez da beste izenik erabiltzen, errege-izenak aipatzeko baliarazi ohi den *krematonimia* kenduz gero.

Halere, sarritan izen-kategoria desberdinak batera ikertu behar izaten dira, iragaitzak eta lerraketak gertatzen baitira *eponimoak* sortuz, adibidez, pertsona izenak leku-izen (Washington), eta izen mitologikoak planeta-izen *(Venus)* bihurtzen direlarik.

Exonimo/Exonomastika izenei dagokienez, badirudi beti ez direla oso zentzu zehatz eta bakarrean erabiltzen. *Adibidez, Collins English Dictionary*-k honela dio: "Exonym: a name given to a place by foreigners. *Londres is an exonym of London*" (2). Badirudi, taxonomia egoki batean *exonimoari endonimoa* legokiokeela (London → Londres, Donostia → San Sebastian), baina izen nagusi tradiziodun edo sarri erabiliekin bakarrik gertatzen da hori eta ez beti.

Erabilera zabalagoan, berriz, hizkuntza baten eremutik kanpora dauden izen berezien (izen atzerritarren) izendapena hartuko luke bere baitan, horretan denbora eta espazioa mugatzearen arazo gordinak sortzen direlarik.

Bestalde, nahiz eta jatorri arrotzekoak izan, mendez mende hizkuntzak erabili dituen zenbait antroponimo exonimotzat, hots, izen arrotz eta atzerritartzat hartzeak ere arazo nabarmenak ditu, zeren horrek maileguen irenspenaren gaira baikaramatza eta edozein hizkuntzatan aurkitzen diren mailegu zahar eta berrien estatusaren auziaren aurrez aurre jartzen gaitu.

Oro har, badirudi planteaketa deduktibo-arauemaileak baino induktibo-deskribatzaileak fruitukorragoak izan daitezkeela kasu honetan, zeren lehen bidetik abiatuz gero sarritan auzi nahasi eta korapilotsuak bezain emankortasun gutxikoak sortzen baitira.

Elhuyar kultur elkarteak, gai honetaz euskaraz egin den inoizko lanik zabal eta sistematikoena burutzean, *atzerriko leku-izen* (3) eta *atzerriko pertsona-izenak* (4) esamoldeak erabili ditu, lehen izendapenaren barruan, munduko geografi, estatu- eta hiriburu-izen eta gentilizioak sartuz, eta bigarrenean barruan, munduko pertsona, giza multzo (familia, dinas-

(2) "Exonym" in *Collins English Dictionary*, London & Glasgow, 1979.

(3) ELHUYAR: *Munduko Leku-izenak: euskaraz emateko erizpideak eta izendegia.* Elkar, Donostia, 1991.

(4) ELHUYAR: *Munduko Pertsona-izenak: euskaraz emateko erizpideak eta izendegia (euskara, ingelesa, gaztelania, frantsesa).* Elkar, Donostia, 1992.

tia, etnia) eta mitologi izenak jasoz. Hain zuzen ere, aipaturiko Elhuyar elkartearen aldez aurretiko lana hartu du abiapuntutzat Exonomastika azpibatzordeak bere eztabaida eta ikerketa-lanerako. Beraz, gure azpibatzorde honek ere adiera zabalago hori hautatu du bere lanerako, eta aurrerantzean *exonimo* hitza erabiltzean jatorri atzerritarreko antroponimo edo/eta toponimo gisa ulertu behar dela jakinarazten dugu.

2 MENDEZ MENDE EXONOMASTIKARI DAGOKIONEZ EUSKARAREN BAITAN NABARMENDU DIREN JOERAK

Leizarragaren *Testamentu Berria*-tik (5) hasi eta orain hilabete aurkeztu den *Elizen Arteko Bibliara* arte batipat izen hebraitar, greko eta latindarren erabilera mendez mende nola aldatuz joan ikustea argigarri eta ikasgarri izan liteke gure hizkuntzak, oro har, nola jokatu duen, non aurkitzen garen eta Exonomastikako azpibatzordeak bere garaian erabilitako irizpideak nolakoak izan diren ulertzeko.

Hasteko, esan dezagun exonimoen transliteratzailea, edozein testuren itzultzailea bezalaxe, bi leialtasunen artean ezarritako kordel batean alde batera eta bestera dabilen funanbulu edo sokaibiltaria bezala ageri zaigula, eta zenbaitetan, hitza jaso berria denean batipat, sorburutik hurbilago ibiltzeari irizten diola egokien eta geroago xede-hizkuntzaren nortasunera pixkanaka moldatzeari, idatzian ez ezik mintzatuan ere sarri samar erabiltzeak horretarako isuri berezia ematen diolako.

Horrela, bada, Bibliaren itzulpenetan ageri zaizkigun exonimoak hurrenez hurren ezarriz gero *(Leizarraga-1571, Duvoisin* (6)*-1858, Olabide* (7)*-1931, Kerexeta* (8)*-1976, Elizbarrutien Liturgi batzordea* (9)*-1980 eta Elizen Arteko Biblia* (10) *1984-94)* argi eta garbi ikusten da alde batetik

(5) LEIZARRAGA, IOANNES: *Iesus Christ gure Iaunaren Testamentu Berria, Othoitza ecclesiasticoen forma. Catechismea. Kalendrera, ABC edo Christinoen instructionea*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1990.

(6) DUVOISIN, J.: *Bible edo Testament zahar eta berria. Duvoisin kapitainak latinezko Bulgatatik Lehembiziko aldizko Laphurdiko eskarara itzulia. Luis Luziano Bonaparte Printzeak argitara emana*, Londres, 1859/65.

(7) OLABIDE, E.: *Itun zaar eta berria*, Yesu'ren Biotzaren Deya, Bilbo, 1958. *Itun Berria* bera bakarrik 1931n argitaratu zuen.

(8) KEREXETA, J.: *Euskal-Biblia (bizkaieraz)*, Bilboko Elizbarrutiko Gotzaintza, Bilbo, 1976.

(9) LITURGI EUSKERATZAILE TALDEA: *Itun Berria*, Idatz Elizbarrutiko argitaldaria, Donostia, 1980.

(10) ELIZEN ARTEKO BIBLIA: *Itun Berria*, Bibli Elkarte Batuak, Donostia, 1983.
ELIZEN ARTEKO BIBLIA: *Itun Berria*, Bibli Elkarte Batuak (2. argitalpena, zuzendua), Donostia, 1987.
ELIZEN ARTEKO BIBLIA: *Itun Zaharra eta Berria*, Bibli Elkarte Batuak / Euskal Elizbarrutiak, Donostia, 1984.

goian aipatu dugun joera, nahiz eta koherentzia eta sistematikotasuna ere nabarmen agertzen ez diren.

Adibidez, *Zara, Mari(a), Salomon, Israel (Ixrael)* eta abar, ia aldaketarik gabe agertzen dira mendez mende.

Beste kasu batzuetan, XIX. mendearen erdiaz geroztik grafiaren aldaketa soilen bat ageri da: *Isaac = Isaak, Iacob = Jacob, Nasson = Nason, Thamar = Tamar.*

Hurrengo sail batean, fonema aldaketaren bat eta grafia eta fonemaren baten aldaketa izan dutenak datoz: *Abraham = Abrahan, Aram = Aran, Phares = Pares; Iosaphat = Josapat = Josafat, Ioseph = Josep = Yose = Jose.*

Irenspen-prozesuan atzera-aurrerak izan direla ikusteko erka bedi hitz beraren honako forma-sail hau: *Ruth = Erruth = Errut = Rut = Errut = Rut edo Rama = Errama = Rama = Errama = Rama; Ioannes = Joanes = Yon = Joan; Ieesous Xristos = Iesus Christus = Iesus Crist = Jesus Kristo Yesu Kisto = Jesukristo = Jesu Kristo = Jesukristo; Cilicia = Zilizia = Kiliki = Zilizia; Perge = Perye = Perge = Perjes = Perje = Perge; Secundus = Seconde = Sekundo = Sekun = Sekundo = Segundo = Sekundo; Cyrene = Cyrene = Zirene = Kirenai = Zirene = Kirene = Zirene.*

Oro har, eta laburbilduma bat eginez, Olabideren kasua salbu izenak latinaren bidez jaso dira eta Leizarragak ia osoki onartzen du jatorrizko grafia eta forma zenbait hitzen kasua salbu, okzitaniera-kutsua duten hitz banaka batzuk badakartza: *Pierris, Andriu, Iacques, Phillippe, Smyrne, Ephese...* zalantzak hitzen bukaeran ageri zaizkio zenbaitetan **[o]** onartzen duelarik eta beste zenbaitetan **[e]**: *Bartholomeo, Thaddeo, Alpheo, Rufo; Seconde, Aristarque, Tychique, Pilate...*

Duvoisinek, berriz, alde batera uzten ditu *[ss]*, *"[tt]* eta *"[nn]* bikoitzak: *Naason, Jese, Mathan, Joanes; hitzen hasierako [r]* soinuak biguindu egiten ditu: Erruth, Errama, baina kontsonante arteko eta ondoko hatxeak ezabatu gabe: *Thamar, Josaphat, Mathan, Errahab, Abraham.* Zenbait hitzetan frantses eragina nabariagotu egiten da: *Piarres, Mathiu, Perye, Friyia, Athenes, Zipro..., "Y"* grekoa desagertu eta *"z"* eta *"k"* agertzen dira.

Arana-Goiriren *Egutegi Bizkattarra* (11) (1879) eta Eleizalderen hitzaurrearekin Euzko-Alderdi jeltzalearen Euzkeraren Bizkai-batzar Or-

(11) ARANA-GOIRI, S.: *Egutegi Bizkattarra*, Bilbao, 1897. Hurrengo urtean hormarako argitalpena agertu zen.

diak argitaratu zuen *Deun-Ixendegi Euzkotarra* (12) (1910)-ren eraginpean Olabidek bide berri batetik jotzen: jatorrizko grekozko hitzetatik moldatzen ditu euskararako transliterazioak deklinabide-bukaerak baztertuz *(Kiliki, Ponti, Sekun...)*, kontsonante-multzoak biguduz *(Kiper, Pirigi, Kisto)*, grekozko diptongoak, *"k"*, *"g"* eta *"t"*, fonemak onartuz, *"ph"* fonemak *"p"* bihurtuz eta bustidurak eginez: *Aigito, Alpai, Kirenai, Ponti, Pillipe, Moxe, Ixrael.*

Hala ere, mendearen lehen hamarkadetan beste joerarik ere izan zen parez pare: Arrue, Urruzuno eta beste zenbait itzultzaile eta idazle herritarrena, Azkuerena eta mezaliburuan (13) islaturik gelditu zen Orixerena, endozentrikoago baina aldi berean usariozko bidetik gutxiago aldentzen zena, eta *Iñaki, Diburtzi* eta abar bezalako asmatu berriei ere muzin egiten ez ziena, *Eduvigis* bezalako grafiekin batera.

Azkenik, Hegoaldean azken bi hamarkadotan agertu diren *Itun Berria*-ren itzulpenetan irenspen-prozesua aurrera doa: *Bethlehem = Betlem = Belen; Egipto = Ejipto*, horretan gaztelaniaren eragina nabarmentzen delarik: *Rajab, Ejipto, Txipre, Segundo, Fortunato Frijia, Rufo, Perje... Baina Elizarteko Itun Berriak*, 1984an, erreakzioa ageri du: *Errahab, Errut, Egypto, Jesu Kristo Isaia, Yakue, Toma, Moise, Fariseu, Kesar, Kirene, Libya, Cypre, Faraoi, Perge, Sekundo, Tikiko...*, alde batetik tradizioa berreskuratzen du batasunari begira: Errahab, Yakue, grafia kultoagoa onartzen du zenbait hitzetan: *Egypto, Cypre, fariseu* eta jatorrizko formak berreskuratzen ditu: *Segundo, Sekundo, Fortunato, Tikiko / Laodizea = Laodikia* eta mende-hasierako joeraren ildotik hitzen bukaerako [s]-ak baztertzen ditu zenbait kasutan: *Toma, Moise, Isaia, Kaifa, Ana...*; gainera, iraganean bezala *Jesu Kristo* bereizirik idaztean zentzu etimologikoa berreskuratu nahi bat ere atzeman daiteke.

---

(12) ARANA-GOIRI, S.: *Deun-ixendegi euzkotarra edo deunen ixenak euzkeratuta ta ixentzat ezarten diran jayetako ixenan euzkerazko ikurpenak Arana-Goiri'tar Sabin'ak asmaubak Egutegi Bizkattarra'rentzat Eleizalde'tar Koldobika'k egindako itxaurre bategaz. Euzko-Alderdi Jeltzalia'ren Euzkera'ren Bizkai-Batzarr Ordia'k argitaratuta (Santoral vasco ó sea lista de nombres euzkerizados de los santos y traducción de los nombres de festividad aplicables como nombres propios adaptados por Sabino de Arana y Goiri para Egutegi Bizkattarra con un prólogo de Luis de Eleizalde.* Publicado por la Comisión Bizkaina de Euzkera del Partido Nacionalista Vasco), Bilbao, 1910.

(13) ORMAETXEA, N. "ORIXE": *Urte guziko meza-bezperak*, Tours, 1950.

Hona, adibidez, Orixek proposatzen dituen zenbait izen: *Joan, Markel, Eztebe, Erromual, Faustino, Donibane, Gabirel, Patrizio, Markos, Keleto, Petri, Prantzisko, Bonifazio, Hipolito, Tzeferin, Alfonso, Pilipe, Mari, Eduvigis, Bentzeslas, Fidel, Rapael, Jenaro, Keleopa, Kaparnaum, Ezekias, Mois, Barrabas, Pilatus, Prigia, Panpili, Kirene, Kapadokia, Igitoerri...* Bere garaian nagusi izan ziren zenbait joeratarako zaletasuna nabari bazaio ere, oro har, ez da oso garbi ageri zer irizpide darabilen exonimoak euskaraz ematerakoan.

3. XX. MENDEKO ETA BEREZIKI AZKEN HAMARKADETAKO JOERAK

Bibliaren eta bereziki Itun Berriaren, itzulpenetan zenbait gorabeherarekin ageri den irenspen-prozesuak XIX. mendearen bukaeran eta XX.aren hasieran jadanik aipatu dugun Arana-Goiriren *Ixendegia*-ren eten eta astindu traumatikoa izan zuen. Arana-Goirik berak eta geroago Eleizaldek argi eta garbi azaldu zituzten "deun-ixendegi" edo santu-izendegian egin nahi izan zuten iraultzaren zergatia eta izaera, eta aitortu beharra dago proposamen horren eragina gerraostean Olabideren *Idazteuna* eta Larrakoetxea'tar Beditaren Shakespeareren dramaturgiaren itzulpenetaraino iristen dela, nahiz eta eliza katolikoaren tradizioan, parentesi txiki bat salbu, hainbesteko eraginik ez izan.

Dena den, proposamen aranatiarrak zenbait ponte-izen sakon erroturik uzteaz gain: *Iñaki, Kepa, Jon, Jone, Joseba, Nekane, Agurtzane, Edurne, Alazne, Garbiñe,...*, alde batetik kolpe gogorra eman zien ordura arteko izenen grafia eta ahoskerari: *Andres = Andere, Yakue = Jagoba, Aaron = Aron, Abraham = Abarran, Felipe = Pillipa, Matias = Mati, Rufo, Errufo = Errupa...* eta exonimoen zenbait fonema berreskuratzeko bideak urratu bazituen ere, *Zeferino = Keperin, Jenaro = Genar* bezalakoetan kontsonante-multzoak suntsitu edo biguintzera ere jo zuen: *Khrisostomos = Kixostome, Konrat = Korrade, Florian = Polen, Beatrix = Batirtza, Blandina = Bandiñe*, oro har, herritar edo populistatzat jo dezakegun bidea nagusitu zelarik.

Hala ere, aitortu beharra dago 70. hamarkadaren erdi-aldera Xabier Mendigurenek *Estatu-Izenak* (14) (1975) lehen aldiz argitaratzean, eta ondoren Xabier Kintana eta Luis Mari Mujikaren hiztegiek ildo beretik jotzean, exonimoen jatorrizko grafiak eta fonemak berreskuratzeko joera bat nabarmentzen dela, Mitxelenak Arantzazuko ponentzian izen arruntentzat markatzen zuen erdi-bidetik harago joanez: *Thessalonika, Ukraina, Syria, Egypto, Ethiopia, Cypre, Strasburg, Geneva...* Joera horrek nazioartean, ingelesa, frantsesa eta alemanaren eremuetan nagusi den exonimoen ortografiara hurbiltzea eta ipar eta hegoaldeetan azken mendeetan sorturiko tradizio bikoitza gainditzea zuen helburu: *Korse, Kortzega = Korsika; Sueda, Zueda, Suezia = Suedia; Suisa, Suiza = Suitza....*

Halaber, bide beretik abiatuko zen zenbait unibertsitari exonimoetatik izen arruntetara grekoa eta latinaren bidetik jasotako ortografia hitz kultoetan hedatzeraino, eta horrela, hamarkada bat igaro ondoren eta joera irensle edo endozentrikoagoak berriz nagusitzen hasten direnean, oraindik ere Eguzkitza-Palaziok argitaratutako *Geografidatutegia. Geografi*

(14) MENDIGUREN, Xabier: "Estatu Izenak" in *Euskera*, XX, 1975, 373-387 orr.

izen arrotzen ortografia eta ortoepia finkatzeko saioa (15) (1991) entseiuak Estatu-izenekin hasitako bide hura berresten du.

Azken hamar-hamabost urteetan nagusitu den joera orokorrari bagagozkio, lehenengo eta behin esan beharra dago estatu-izenek urraturiko bidetik exonimoen artean dagoeneko zenbait forma berri finkatu direla: *Suitza, Suedia, Korsika, Ukraina, Marokko, Vatikano, Hungaria, Valentzia...*, baina *Syria, Thessalonika, Cypre, Iraq...* bezalakoen ordez *Siria, Tesalonika eta Txipre, Irak...* hobetsi direla, bai ikasliburugintzan, eta bai azken bizpahiru urteetan agertu diren estilo-liburuetan (EITB, Egunkaria, HABE...) erdi-bide beretik jo dela. Izan ere, exonimiaz gure artean inoiz egin den lanik zehatz, sistematiko eta eskergena burutu duen Elhuyar Kultur elkartearen *Munduko Leku-izenak* (1991) eta *Munduko Pertsona-izenak* (1992) dira azken aldi honetako status quaestionis-aren errainu eta oraindik zeuden zalantzetan erabakigarri gertatu direlarik. Bestalde eta aldaketa txiki batzuk gorabehera badirudi Elhuyar eta Lur entziklopedietan, "Pentsamenduaren Klasikoak" bilduman eta argitaletxe gehienen bildumetan ere joera bera nagusitu dela. Bestalde, Elizen Arteko Bibliaren itzultzaileek ere hamar urteren buruan izan duten jarrera-aldaketa bera ere adierazgarria da zentzu horretan.

Azkenik, Iparraldean azken urteotan izan den joerari bagagozkio zaila da bakar eta sistematiko samarrik izan dela aitortzea: alde batetik, orain 14 urte Narbaitzak euskaratu eta argitara eman zen Blas Pascalen *Gogoetak* (16) (1980) obran: *Euclide, Archimede, Zueda, Inglaterra, Agusto, Ciceron, David, Platon, Aristote, Epictete, Persée, Macedonia, Bernat, Isaac, Jacob, Thamar, Ruth, Mateo, Luk, Mahomet, Hierusalem (Jerusalem), Suetone, Tacito, Josephe, Nazareth, Nicodemo, Calvin, Genève, Xavier, Atanasio, Teresa, Krisogono, Clemente, Mois, Egypto, Philon, Jondone Petri...* bezalako hitzen grafian, ez da irizpidea oso garbi ikusten, baina exozentrismo aitortua baino frantsesaren eragina nabariagoa dela esatera ausartzen gara.

Herria astekariak exonimiaz duen jarrera Narbaitzaren itzulpenean ageri denarekin alderatuta, agian zerbait endozentrikoagoa dela esan daiteke, baina Mitxelenak (17) orain hogeita bost urte Iparraldekoengan salatu zituen frantsesaren eta ahozkoaren eragin markatua duen ortografiak agertzen dira zenbait hitzetan: *Izrael izraeldar, Paleztina, paleztindar, alzaziano, Marsella/Marzella, Beljika, Maroka, Mexika...*; beste zenbait hitzetan zalantzak nabari dira: *Jericho/Jeriko, Paris/Parise, Marsella-*

(15) EGUZKITZA, A.-PALAZIO, G.: *Geografidatutegia. Geografi-izen arrotzen ortografia eta ortoepia finkatzeko saioa*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbao 1991.

(16) PASCAL, B.: *Gogoetak, P. Narbaitz-ek eskuararat itzuliak*, Baiona, 1980.

(17) MITXELENA, K.: "Euskararen Batasun bideak", *Mitxelenaren Idazlan Hautatuak*, Etor, Bilbo, 1972, 111. or.

/Marzella, Liban/Libano, serbiar/serbiatar...; kasu batzuetan frantses ortografiaren bidetik ingeles eta alemanaren nazioarteko-eredutik hurbilago dauden grafiak ere nabari dira: *Syria, Thailandia, Egypto...*, edota zuzenean frantsesetik jasotako izenak *Haut Adige, Boris Eltsine.* Azkenik, zenbait formatan bat hartzen dute ipar eta hego-erabilerek: *Jamaika, Nigeria, Japonia, Kalifornia, (T)xina.* Laburbilduz, jokabide asistematiko samarra nabari dela esan behar da, eta joera exozentriko eta endozentrikoak berdin samar nahasten direla badirudi ere, salbuespen, ezbai eta ahoskera arruntaren kutsadurapean finkaturiko grafiak ugari samar direla ematen du. Baina, nolanahi ere, gai honetaz Emile Larrek, *Herria* astekariaren zuzendariak, hitz egingo digu laster nik baino ezaguera eta denbora gehiagorekin.

Laburbilduz, eta E. Coseriuri (18) bagagozkio, Izen bereziek berba--kategoria aparteko bat eratzen dute eta analisi maila desberdinetan ezaugarri idiosinkratikoak dituzte; bestalde, semantikoki erabat edo neurri handi batean opakuak dira eta horregatik ez dira erabat integratzen hizkuntza naturalaren gramatikan. Gainera, sinbolo berezi ere gertatzen dira hizkuntza naturalen barruan eta, halaber, kultur eta etnolinguistikabalioen hitz eroaleak ere badira, itzulpengintzan garrantzi berezia dutenak, esaterako.

Ikuspuntu fonologikotik, Molino eta Newmark (19) diotenez, bilakaera izaten dute eta fonema arrotzak integratzera jotzen da, nahiz eta sarritan bi sistema fonologiko desberdin bizikide izaten diren, eta ortografi sistematik ere sorburu-hizkuntzetako grafia ia bere osotasunean hartzen da gerora piskanaka aldatuz eta egokituz joateko.

Horrela Leizarragak (1571) *Testamentu Berria*-n erabilitako ortografia da nagusienik erabili zuen jatorrizko Vulgata bertsioari lotzen zaio, *Pierris, Andriu, Iacques...* bezalako zenbait salbuespen gorabehera, jatorrizko grekoa ere esku artean izan zuen arren.

Duvoisinen (1859) itzulpenean beste urrats bat ematen da euskararen baitan asimilatzearen aldera, adibidez, *"ss"* eta *"pp", tt", "dd"* digrafoak soilduz: *Naason, Agripa, Mathiu, Thadeo*, hitzen hasierako *[R]* fonemari bokala ezarriz: *Erruth, Errama.* Garai hartan lapurterazko euskalkian erabiltzen ziren *"ph"* eta *"th"* digrafoak bakarrik geratzen dira aurreko ortografiatik: *Mathiu, Kapharnaum*, eta bestalde, *"c"*-ren ordez *"k"*-ren erabilera ere orokorra da Duvoisinen itzulpen horretan.

(18) COSERIU, E.: "El plural en los nombres propios", *Teoría del lenguaje y lingüística general*, Gredos, Madrid, 1973, 261-281. orr.

(19) MOLINO, J.: "Le nom propre dans la langue", *Langages*, 66, 1982, 5-20. orr.
NEWMARK, P.: *Approaches to translation*, Pergamon Press, Oxford, 1980.

Olabidek (1931) egindako itzulpenean izen bereziek hartzen duten trataera nabarmena ez dago ulertzerik aurrez Arana-Goirik proposaturiko ortografi sistema berria kontutan izan gabe: *Lecciones de Ortografía del Euskera Bizkaino* (1896) eta beronen *Deun ixendegi euzkotarra*, egilea hil eta gero Eleizaldek 1910ean argitara emana dira joera berriaren sorburuan daudenak.

Olabidek egindako aukeraren ezaugarri nagusiak hauek dira:

a) Mendebaldeko euskaraz ahoskatzen ez diren grafiak baztertzea: *th, ph, ss, tt, dd, h.*

b) Sorburu-hizkuntzako -grekozko- diptongoak eta [z]-ren ordez [k], [t] soinuak berreskuratzea: *Bartolomai, Kananai, Matai, Kaisarai, Dalmati, Galati...*

c) Deklinabide-amaieren aztarnak ezabatzea: *Bartholomeo = Bartolomai...*

d) [f] = [p] bihurtzea.

e) Palatalizazioak agertzea: *Pillipe, Ixrael, Moxe...*

f) Kontsonante-multzoak *(cluster)* ezabatu edo biguintzea: *Kristo / Kisto, Agripa / Agiripa, Trakonitide / Tarakonitide.*

g) Aurrez "J" eta "I" grafemez idatziriko hitzak "Y" grafemaz idaztea: *Ioannes, Joanes / Yon; Iuda, Juda / Yuda.*

Ondoren datozen Kerexeta (1976) eta Elizbarrutien (1980) itzulpenak parekatzean oso diferentzia gutxi ageri da da: *Erodes/Herodes, Ander/Andres, Errama / Rama, Errahab / Rajab, Josapat / Josafat.* Aurreko zerrendekin alderatuta *Ejipto, Rajab* bezalako grafia berri bat agertzen da gaztelaniazko ahoskeraren ondorioz. Hitzen amaierako "n"-ak sendotu egiten dira: *Abrahan, Aran, Kafarnaun, Belen, Jerusalen.*

Duela hamar urte argitaraturiko *Elizen Arteko Itun Berria* aztertzean honako ezaugarriok nabari dira:

a) Oro har, azken hamarkadetako tradizioa jasotzen da, baina lehenagoko grafia batzuetara itzuliz:

b) Zenbait hitzen bukaeran "s" galtzen da: *Dekapoli, Moise, Jekonia, Mesia, Toma, Isaia, Klopa, Nikola.*

c) Izen jakin batzuetan "y" eta "th" berreskuratzen dira: *Syria, Egypto, Ethiopia, Cypre.*

d) Sorburu-hizkuntzako "k" soinuak berreskuratzen dira: Makedonia, sadukear, Laodikia, Kenkreas, Kesarea, Kesar.

Badirudi azken hamarkadotako eta bereziki hegoaldeko tradizioa, eta euskara batuaren aldian pizturiko tradizio zahar eta exozentrikoagoa herabeti uztartzearen bidetik jo zuela.

Halere, orain hilabete bat dela, Bibli Elkarte Batuak eta Euskal Elizbarrutiek elkarrekin euskaratu eta argitaratu duten *Elizen Arteko Biblia*ri (20) bagagozkio bide horri eutsi ordez tradizio katolikoan ohikoak izan diren formetarako hurbiltze bat egin dela esan behar da, oro har, azken urteotako euskalgintzan soziolinguistikoki nagusitu diren irizpide eta jokabidearen ildotik, eta lehen erabilitako *Errut, Jesu Kristo, Egypto, Isaia, Yakue, Toma, Moise, Errufo, Kirene, syriar, Lybia, Cypre, Laodikia, Sardis Sadukear....* bezalako forma eta grafien ordez, *Rut, Jesukristo, Egipto, Isaias, Santiago, Tomas, Moises, Rufo, Zirene, siriar, Libia, Txipre, Laodizea, Sardes, saduzear....* modukoak onartu dira.

Beraz, huts egiteko beldurrik gabe aitor liteke erlijio-testu, ikaslibu-rugintza, Elhuyar eta Lur entziklopediak, bidean den Eusenor, Pentsamenduaren Klasikoak Literatura Unibertsala, *Euskaldunon Egunkaria* eta beste zenbait argitaletxetako bilduma eta proiektuetan, oro har, antzeko joera eta filosofia nabari dela exonomastikari buruz eta beren artean ageri dituzten diferentzia eta zalantzak bigarren mailakotzat jo behar direla..

4. EUSKALTZAINDIAREN ONOMASTIKA-ALORREKO LANAK

Euskaltzaindiaren Onomastika batzordearen baitako Exonomastika azpibatzordeak egindako lanaren berri eman aurretik bidezko ez ezik beharrezkotzat jotzen dugu aurreko hamarkadetan egindako urratsen berri laburra ematea.

Hasteko esan dezagun 1936-37ko gerrateaz aurretik Azkue (1920, 1933, 1935) (21), Ormaetxea (1933) (22), eta Altubek (1935) (23) onomas-

(20) *Elizen arteko Biblia*, Idatz, Donostia, 1994.

(21) AZKUE, R. M.: "Erderatiko itzak, itz sorberriak eta beinolako itzak. Batzar bertan Azkuek egindako ikerpena" in *Euskera*, 1920.

AZKUE, R. M.: "Acerca del Santoral Vasco" in *Euskera*, 1932.

AZKUE, R. M.: "Advertencias a las Ǹotas sobre el Santoral Vasco', publicadas en nuestra Revista, año XIV, núm. II, por nuestro caro y activo compañero Altube." in *Euskera*, 1935.

(22) ORMAECHEA, N.: "Mi Santoral Vasco. Contribución a Èl Santoral Vasco'" in *Euskera*, 1933.

(23) ALTUBE, S.: "Notas sobre el Ṡantoral Vasco' o Ḋeun Ixendegi Euzkotarra' de Arana Goriti'ttar Sabin" in *Euskera*, 1933.

tikaz idatziriko artikuluekin hasi eta 1981ean Onomastika Batzordea sortzen den arte artikulu mordoska ageri dela *euskera*-ren orrialdetan Gorostiaga (1958) (24), Satrustegi (1961, 1973, 1977, 1979) (25), Basterretxea (1963) (26), Zatarain (1968) (27), Mendiguren (1975, 1977) (28), Knörr (1976) (29) euskaltzainek idatziak, guztira 214 orrialde osatzen dituztenak. Lehen urteetan santu-izendegiaren inguruko ohar eta iruzkinak dira nagusi, harik eta 1972 *Euskal Izendegia* (30) Satrustegi jaunaren lanari esker hiru bider argia ikusten duen liburuskaren lehen argitalpena egiten den arte. Ondoren *Estatu Izenak* (1975) eta *Herri eta herritarren izenak* (1976) (31) dira onomastika alorrean agertzen diren proposamen nagusienak, biak eragin eta onarpen nabaria euskal gizartean izan dutenak.

Geroztik, *Euskera* agerkarian argitaratutako bi lan dira bereziki aipatzekoak: Yon Etxaidek euskal pontizen zahar batzuez, 1984an (32), eta Ibon Sarasolak exotoponimoen euskal formaz, 1991an (33), idatzirikoak hain zuzen.

---

(24) GOROSTIAGA, J.: "Los nombres vascos de los meses" in *Euskera*, III, 1958.

(25) SATRUSTEGI, J. M.: "Aportación al estudio de la onomástica tradicional vasca" in *Euskera*, VI, 1961.

SATRUSTEGI, J. M.: "Euskal izendegiaz" in *Euskera*, XVIII, 1973.

SATRUSTEGI, J. M.: "Euskal izendegiaz" in *Euskera*, XII, 1977.

SATRUSTEGI, J. M.: "Euskal izendegiari buzurko agerpena" in *Euskera*, XXIII (2. aldia), 1977.

(26) BASTERRETXEA, "OSKILLASO": "Batasunerako urhatsak, euskal-analphabetismua ta kultur-hiztegia" in *Euskera*, VIII-IX, 1963-64.

(27) ZATARAIN, A.: "Euskerazko itz berrika" in *Euskera*, XIII, 1968.

(28) MENDIGUREN, X.: "Euskarazko neologismo eta terminologiaren inguruan" in *Euskera*, XXII, 1977.

MENDIGUREN, X.: "Estatu izenak" in *Euskera*, XX, 1975.

(29) LIZUNDIA, J. L. & KNÖRR, E.: "Herri eta herritarren izendegia" in *Euskera*, XXI, 1976.

(30) EUSKALTZAINDIA: *Euskal izendegia. Nomenclator onomástico vasco. Liste des prénoms basques*, Iruñea, 1972.

EUSKALTZAINDIA: *Euskal izendegia. Nomenclator onomástico vasco. Liste des prénoms basques*, Iruñea, 1977.

EUSKALTZAINDIA: *Euskal izendegia. Nomenclator onomástico vasco. Liste des prénoms basques*, Bilbo, 1983.

(31) EUSKALTZAINDIA: *Euskal Herriko udalen izendegia*, Bilbo, 1979.

EUSKALTZAINDIA: *Euskal Herriko Autonomi Elkarteko herrien izenak. Relación de las poblaciones de la Comunidad Autónoma del País Vasco*, Hizkuntza Politikarako Idazkaritza, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen-Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 1986.

EUSKALTZAINDIA: *Nafarroako herri izendegia. Nomenclátor euskérico de población de Navarra*, Nafarroako Gobernuaren Argitarapen-Fondoa, Iruñea, 1990.

(32) ETXAIDE-ITHARTE, Y.: "Euskal pontizen zahar batzuk aztarrikatuz" in *Euskera*, XXX (2. aldia), 1984.

(33) SARASOLA, I.: "Exotoponimoen euskal formaz" in *Euskera*, XXXVI (2. aldia),1991.

Beste maila batean, Calleja & Monasteriok (34) haur eta gazteentzako euskal itzulpenez eta J. G. Etxebarriak (35) Grezia-Erromako idazle klasikoen lanak latin edo greko-euskaraz argitaratzearen garrantziaz idatzirikoak, Euskaltzaindiaren aldizkari berean argia ikusi zutenak ere kontuan hartzekoak dira izen berezien aipamena egiten dutenez gero.

5. EXONOMASTIKA AZPIBATZORDEAREN SORRERA ETA URRATSAK

Gaur aurkezten ditugun zerrendok prestatu eta proposatu dituen Azpibatzordeak baditu bere historiaurrea eta historia, eta labur bada ere, bidezko deritzogu abagune honetan xehetasun nagusien aipamena egiteari.

1971eko irailaren 5ean Luis Mitxelenaren txostena, herri eta herritarren izenei buruzkoa hain zuzen ere, Villasante euskaltzainburuak irakurtzen du Aramaion Udaletxeko batzargelan, Mitxelenak etorri ezina izan baitzuen, Erronkariko Isaban orkatilan min hartu zuelako arestian, J. Corominasekin batera leku-izenei buruzko azterketak egiten ari zela. Txosten hartan lanerako oinarriak eta ikerketa aurrera eramateko batzordea proposatzen ditu errenteriarrak (36).

Hamarkada honen bukaeran eta hurrengoaren hasieran, Euskaltzaindiko batzordeen berrantolaketa burutzean, Herri eta herritarren batzorde hori ere beste batzuen artean ageri da, baina 1983ko apirilaren 28-30era bitartean Arabako Angoston egiten diren Barne-Jardunaldietara arte ez da sortzen Onomastika batzordea gaur egun ezagutzen dugun izenarekin. Iker Saileko Hiztegigintza, Gramatika eta Dialektologiako beste hiru batzordeekin batera sortzen den honi bost eginkizun izendatzen zaizkio hasiera hartan:

a) Kontsultei erantzuteko diktamen edo irizpenak prestatzea.

b) Izenen ikerketa burutzea.

c) Herri-izendegia ikertu eta prestatzea.

d) Toponimi lanak burutzea.

---

(34) CALLEJA, S. & MONASTERIO, X.: "Las traducciones al euskara de libros infantiles y juveniles" in *Euskera*, XXXII (2. aldia), 1986.

(35) ETXEBARRIA MARTIN, J. G.: "Grezia-Erromako idazle klasikoen lanak latin edo greko-euskaraz argitaratzearen garrantziaz." in *Euskera*, XXXVI (2. aldia)

(36) EUSKALTZAINDIA: "Agiriak (1971-IX-5)" in *Euskera*, XVII, 1972.

e) Pertsona-izendegia prestatzea (37).

Horrela, bada, urte hartan bertan ekin zion lanari Jose Maria Satrustegik prestaturiko *Euskal Izendegia*-ren (38) hirugarren argitaraldi gehitu eta zuzendua kaleratuz, zenbait herriren izen-aldaketari eta kale-izenei buruzko argibideak emanez eta Diputazio, Norte Industrial, Telefónica, Bilboko Erakustazoka eta abarren kontsultei erantzunez.

Hurrengo urtean, 1986an, XI Col. loqui d'Onomastica Catalana-n esku hartzen du, baita Armanhac-en egiten den "Toponymie et Défrichements en Europe Occidentale et Centrale" Nazioarteko VIII. Egunetan ere. Aurreko urtean bezala zenbait erakunde publiko eta pribaturen kontsultei, EITB eta "Europistas" enpresari, besteak beste, erantzuten jarraitzen du. Lekarotzen Onomasticon Vasconiae liburu-sorta berria plazaratzea onartu zelarik, José M.ª Jimeno Jurioren *Toponimia de la Cuenca de Pamplona. Cendea de Cizur* obrarekin eman zitzaion hasiera bildumari. Urte bereko irailean Eusko Jaurlaritzan, Lakuan, batzorde berak prestaturiko *Euskal Herriko Autonomi Elkarteko herrien izenak/ Relación de las poblaciones de la Comunidad Autónoma del País Vasco* lana aurkezten da Hizkuntza Politikarako Idazkaritzaren laguntzarekin (39).

1987an, Andrés de Pozaren *De la antigua lengua, poblaciones y comarcas de las Españas* liburuaren laugarren mendeurrena ospatzen du, hasi Gaskoiniatik eta Barakaldoraino, hogei txostengilek Biarno, Nafarroa, Errioxa, Araba, Urduña eta euskara galdua duten beste zenbait ingurunetako toponimia ikertu zuten Jardunaldiei, Avellanedako Juntetxean amaiera emanez, Enkarterrietako toponimiari buruzko bi txostenekin. Ohiko lan eta kontsultei erantzuteaz gainera "Colloque International pour la préparation du Dictionnaire historique des noms de famille romans" jardunaldian esku hartu zuen Alemanian. Baina urte horretako lanik garrantzitsuena *Nafarroako Herri Izendegia* burutzea izan zen, zalantzarik gabe, eta lan horren ardura José M. Jimeno Juriori egotzi zitzaion, baita *Guía para la recogida toponímica del País Vasco* liburuska prestatzea ere, gainerako batzordekideen laguntzarekin. Urte berean, eta Hizkuntza Politikarako Idazkaritzaren eskariz euskal deituren grafia eta forma ofizialtzeko asmoz berorien nomenklatorra burutu beharra ikusten da. Onomasticon Vasconiae bilduman *Toponimia de la Cuenca de Pamplona. Cendea de Galar* argitaratzen da J. M. Jimeno Jurioren eskutik (40).

(37) EUSKALTZAINDIA: "Angostoko Jardunaldiak" (1983-IV-28-30) in *Euskera*, XXVIII (2. aldia), 1983.
(38) EUSKALTZAINDIA, *Oroit-Idazkia*, Bilbo, 1983-84.
(39) EUSKALTZAINDIA, *Oroit-Idazkia*, Bilbo, 1985-86.
(40) EUSKALTZAINDIA, *Oroit-Idazkia*, Bilbo, 1987.

1988. urteko lanik garrantzitsuena, halaber, Nafarroako herri-izendegigintza izan zen, baina Euskal Herriko mendateen bigarren zerrenda ere biltzen da Euskal Mendigoizaleen Federakundeak eskaturik, mendigailurren izendegia berriztatzeari hasiera emanez. Gasteizko ordezkaritzan, berriz, Erdi Aroko agirietako toponimiaren bilketari ekiten zaio. Batzordeak Pisan Europa-mailako patronomi ikerketako biltzar batean esku hartu eta *Toponimia de la Cuenca de Pamplona. Cendea de Galar* (J. M. Jimeno Jurío) argitaratzen du. *Toponima alavesa, seguido de mortuorios o despoblados y pueblos alaveses* (Gerardo López de Guereñu) eta *I. Onomastika jardunaldiko txostenak* argitaratzeko prestamenak egiten dira (41).

1989an *Nafarroako Herri-Izendegia* eta 642 mendiren *Mendi-Izendegia* prestatzen jarraitzeaz gainera, Erdi Aroko toponimiaren bilketa burutu egiten da M. Angeles Libanoren lanari esker. Bestalde, hurrengo urtean Lizarran ospatuko diren III. Onomastika Jardunaldiak prestatzeari ekiten zaio. Argitalpen sailean *Toponima de la Cuenca de Pamplona. Cendea de Olza* (J. M. Jimeno Jurío) eta *Toponima menor de Añana* (J. A. González Salazar) argitaratzen dira (42).

1990ean, Onomastika batzordeak III. Jardunaldiak ospatzen ditu Lizarran, III. Mapagintza Erakusketarekin batera. Bizkaiko Diputazioarekin udal eta auzo-izenen idazkera erabakitzeko hitzarmen bat sinatzen da. Era berean, Usurbil, Andoain eta Pasaiako leku-izenen azterketa burutu, argitarabidean jarri, eta Arrasate, Bergara eta Hondarribian toponimi azterketarako lehiaketak egiten dira. Argitalpenen sailean *Toponimia de la Cuenca de Pamplona. Cendea de Ansoain* (J. M. Jimeno Jurío) atera da eta, Actas de las II Jornadas de Onomástica eta Actas de las III Jornadas de Onomástica laster plazaratuko direlakoan gaude (43).

1991.ean Onomastika batzordeak bi azpibatzorde edo lantalde sortzea erabakitzen du Munduko Leku-izenen azpibatzordea, Euskal Herritik kanpoko toponimiaz arduratuko dena, eta Ponte Izenen Azpibatzordea deritzana, kristau-antroponimo, izen historiko, mitologiko eta abar finkatuko dituena. Gerora bi azpibatzordeok bateratzean Exonomastika azpibatzordea izenekoa sortuko da. Deituren alorrean eta urte horretan bertan, 400 egiaztapenetik gora egin zituen batzordeak eta euskal deiturei buruzko ikerketarako bi bekadun hartu zituen. Halaber, Bizkaiko eta Nafarroako administrazioentzako lanak egin behar izan ziren kartografiagintzan, errepide-sare, herri-baso, industrialde, parke, atsedenleku, kultur aterpe eta egoitzen izenak errotulatzeko. Eta ohiko beste lanak (egiazta-

(41) EUSKALTZAINDIA, *Oroit-Idazkia*, Bilbo, 1988.
(42) EUSKALTZAINDIA, *Oroit-Idazkia*, Bilbo, 1989.
(43) EUSKALTZAINDIA, *Oroit-Idazkia*, Bilbo, 1990.

penak, kontsultak, mendateen bigarren zerrenda...) beti bezala burutu behar izan ziren batzorde horretan (44).

1992an, Estatu Batuetako Nevadako Unibertsitatean ospatu ziren IV. Onomastika Jardunaldiak dira aipagarri. Baina batzordeak beste jardunaldi batzuetan ere esku hartu zuen: Congres d'Onomàstica. XVII Col. loqui General d'Onomàstica-n, Bartzelonan, PATROM, Romania eremuko deituren bilketaren VI. jardunaldian, eta Gaztela-Leongo toponimiari buruzko I. jardunaldietan Burgosen. Leku-izenen sailean toponimi bilketak (Arrasate, Eibar, Basauri), kale-izendegigintza (Oion, Elizondo, Donostia, Zarautz, Gernika, Durango, Bergara) burutu dira. Ohiko lanari dagokionez, deituren sailean eta aipaturiko bi bekadunen lanari esker, usarioz erdal grafiarekin erabilitako deiturak euskararen arauetara egokitzeari ekin zitzaion. 1700. urte inguruko dokumentazioa bildu eta 27.204 sarrerako corpusa sartu zen ordenadorean. 700 ziurtagiri banatuz. Hiru motatako herri-administrazioarekin lankidetza iraunkorrean aritu zen batzordea: Kale eta errepideetako seinale eta adierazleen hizkuntza aztertu eta normaltzen, Nafarroako katastroko toponimia xehea normaltzen eta Bizkaiko Diputazioarekin sail guztietarako izendapen-toponimikoak berrikusi, bateratu eta hautatzen. Urte honetan *Pasaiako Toponimia* (A. M. Elortegi) eta *Toponimia de la Cuenca de Pamplona. Cendea de Ansoáin* (J. M. Jimeno Jurío) lanek ikusten dute argia (45).

6. EXONOMASTIKA AZPIBATZORDEA

Lehenago esan denez, aurreko urtean izendaturiko bi azpibatzordeak batzean Exonomastika Azpibatzordea sortu zen. Urrian Bilbon, eta abenduan Durangon egin ziren bileren ondorioz lantaldea finkatu eta eginkizunak markaturik gelditzen zaizkio. Azken bilera horretara, batzordekideez landa, Elhuyar, Klasikoak, EITB, HAEE, Unibertsitatea, filme-bikoiztaileak, Bibli itzultzaileak, komunikabideetako kazetariak eta abar etorri ziren. Txosten ugari aurkeztu zen (Knörr, Irigoien, Krutwig, Sarasola, Elhuyar, Eguzkitza-Palacio, Kintana, Mendiguren...)

(44) EUSKALTZAINDIA, *Oroit-Idazkia*, Bilbo, 1991.

(45) EUSKALTZAINDIA, *Oroit-Idazkia*, Bilbo, 1992.

Berton aditzera ematen da nola bi jardunaldi egin diren exonomastikaz, urrian Bilboko egoitzan eta abenduan Durangoko Udaletxean. Harrez gero, guztira beste hamabost bilera egin ditu Exonomastika azpibatzordeak bi Donostian (1993-3-17; 1993-3-17) eta gainerako guztiak Bilbon (1993-2-19; 1993-5-7; 1993-5-21; 1993-6-18; 1993-9-10; 1993-10-22; 1993-11-22; 1993-11-19;1994-1-21;1994-2-18; 1994-3-18; 1994-4-22; 1994-5-20; 1994-6-20). Azkeneko zortzi bilerak Onomastikako batzordekideekin batera egin dira bi lantaldeen arteko koordinazioa lortzeko.

1992ko urriaren 23an, E. Knörr Onomastika batzordeburuaren gogoetetan "jarraipen-sena" behar zela entzunez ibilian jarri zen lantalde hark 1994ko uztailaren lehen egunera arte, guztira 16 bilera egin ditu Bilbon, Donostian eta Durangon: hasierako bederatziak berak bakarrik eta ondorengo zazpiak Onomastika eta Exonomastikako azpibatzordekideak baterako bileratan elkartuz (46).

Elhuyar elkarteak ordurako argitaraturik zeuzkan bere bi liburu garrantzitsuetan azalduriko irizpideen arabera prestatutako izen-zerrendak hartzen ditu azpibatzordeak abiapuntutzat, eta kide bakoitzak egindako ohar, zuzentze eta gehitzeen ondoren bileretan eztabaidatu eta finkatu dira banan-banan zerrendak osatzen dituzten izen guztiak eta bakoitza.

Elkarte berak lanen abiapuntu gisa aurkeztu zuen "Exonimoak euskaraz emateko irizpide-proposamena" txostenaren sarreran esaten zenez, exonomastika-lantaldearen eginkizuna exotoponimia eta exoantroponimiara mugatzen du nagusiki, nahiz eta "Gainerako onomastika" izendaturiko sailean mitologia, giza multzoak (familiak, dinastiak, talde sozial, politiko, etnia...), erakundeak, instituzioak, markak, gertaera historikoak, arte eta kultur lanak, gizakiaz landako izaki bizidun eta bizigabeak eta abar ere finkatu beharrezkotzat jotzen dituen.

Euskal tradizioa txikia eta sarritan bi bide desberdinetatik -Iparraldekotik eta Hegoaldekotik- ibilia dela gogoratu ondoren, tradiziozko izen horiek bildu, zerrenda itxi bat egin eta behin betirako finkatzea proposatzen du.

Moldaketa grafikoari dagokionez alfabeto latindarrez idatzitako izenetan jatorrizko forma errespetatzea hobesten du. Zeinu diakritikoen kasuan, berriz, horrelakorik ez erabiltzea erabakitzen du, *"ü"* eta *"ç"*-ren kasuak salbu.

Alfabeto ez-latindarreko hizkuntzei dagokienez, aldiz, transkripzioa egitea proposatzen da aurkezturiko taula batzuen arabera, euskal alfabeto arruntean ohiko ez diren *kh, sh* eta *v* letrak erabiltzea proposatuz.

Elhuyar elkartearen proposamena toponimia eta antroponimiako beste xehetasun batzuei buruzko oharrak eginez amaitzen da.

Exonomastika azpibatzordeak egin dituen ia lansaio guztietara aurkezten ziren txosten eta ohar berriak, eta horien artean, bereziki azpimarratzekoa da Eguzkitza & Palaziok argitaratutako *Geografidatutegia. Geografi izen arrotzen ortografia eta ortoepia finkatzeko saioa* (1991) obra, gerora "Exotoponimiazko problemak kazetagintzan" deritzon txostenean egileetako batek, Palazio jaunak hain zuzen ere, laburbildu eta azpiba-

(46) EUSKALTZAINDIA: "Agiriak (1992-XI-27)" in *Euskera*, XXXVII (2. aldia), 1992.

tzordearen lanetara moldatu zuena. Txosten horretan lehenago Xabier Mendiguren, Xabier Kintana eta Luis Mari Mujika aurkezturiko irizpideak biltzen dira eta ildo beretsutik jotzen da, aldi berean Elhuyarren lana ere kontuan hartuz. Sarrera luze baten ondoren, txostenak euskaran hagitz erabiliak ez diren grafemen arazoa, itsaso-izenak eta exotoponimo patronimikodunak eta transkripzio-arazoena bezalako gaiak lantzen ditu bereziki eta gainera, bibliografia eta eranskinak dakartza.

Azkenik, Azpibatzordearen lanak, lehen saio honetan amaitzeko zorian zeudela, ikusi du argia batzordekidea duen Alfonso Irigoienen pertsona-izenei buruzko liburuak (47), bilera bakoitzera aurkeztu dituen txosten guztiak bertan bilduta dakartzanak.

Azpibatzordearen baitan bi ikuspegi aski desberdindu zeuden hasieratik exonomastika finkatzerakoan hautatu behar zen irizpideari zegokionez Elhuyarren ponentzia eta zenbait kiderena jarrera endozentrista, asimilatzaile eta erregularrago baten aldekoagoa zen; aldiz, beste zenbait kide, batez ere eremu akademikoagotan nabarmendu diren proposamenen oihartzunak bilduz, jarrera exozentrikoago eta inguruko erdaren ikuspegitik homologagarriagoa den irizpidearen alde agertzen zen. Bileretan zehar eta izenak banan-banan aztertu ahala neurri handi batean bi jarrera horiek hurbilduz joan dira erdigune batean bilduz eta kasu oso gutxi batzuetan utzi diren forma bikoitz eta parentesiak salbu, ia beti erabateko adostasunera iritsi da.

Bi urte inguruko lan luze eta neketsuaren ondorioz azpibatzordeak honako izen-zerrendak landu eta proposatzen ditu, hurrengo saioetan hurrenez hurren aurkeztu eta argibidez hornituko direnak:

1. Ponte-izenak eta Santu-izenak
2. Estatu eta estatu-hiriburuen zerrenda gentilizioekin.
3. Gentilizioak eratzeko taulak eta deklinabiderako erregelak
4. Munduko akzidente geografiko nagusiak.
5. Espainia eta Frantziako eskualde eta probintziak
6. Europako toponimia historikoa
7. Astronomia
8. Ipuin, arte-lan eta literatur obren izenak.
9. Izen propioetatik eratorriak.
10. Antroponimo historikoak

(47) IRIGOIEN, A.: *Pertsona-izenak euskaraz nola eman (eta exotoponymiaz eranskin bat)*, Euskal Ikerkuntzen Institutua, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 1994.

7. BATZORDEAN NAGUSITU DIREN IRIZPIDEAK

Hasteko, euskararen historian zehar exonomastikak, oro har, izan duen norabidea kontutan hartu da. Lehenago aditzera eman denez aski da mendez mende ageri den ortografien konparaketa bat egitea irensteprozesu bat gertatu dela ikusteko; eta gauden mende honen erditik atzerantz, zenbait ahalegin izan badira ere, exonimoen jatorrizko fonetika edo ortografia berreskuratzeko (Olabide, Berriatua-Mendiguren, Kintana, Elizarteko Biblia, Palacios-Eguzkitza, Irigoien, Pujana...), gaur egun soziolinguistikoki nagusi den jokabidea eta berorrek duen hedadura eta eragina kontutan hartuz gero kazetaritza, ikasliburugintza, Biblia eta liturgi testuetan joera "endozentrista" deitu duguna gailendu da. Joera orokor horren barruan, Azpibatzorde hau erdigune orekatu bati eusten ahalegindu da alde bateko, eta besteko mutur-joerei ihes eginez.

Azken mendetan elkarrengandik urrunduz joan diren Iparraldeko eta Hegoaldeko bi tradizioak hurbiltzeko bideak bilatu-nahia beti gogoan izan du Azpibatzordeak, oraindik zenbait izenetan forma bakar bat proposatzeari zail baderitzo ere: *Piarres,/ Pedro = Petri, (Piotr).*

Tradizio hori gureganaino era jakin batean iritsi zaigun heinean ahalik eta gehien errespetatuko da, aldakuntza traumatikotan sartu gabe, eta exonimo ez hain ezagun eta historikoekin transliterazio eta/edo transkripzio-tauletara jotzea hobesten da latina eta grekoaren kasuan, eta gugandik urrunago dauden edo exotikoago zaizkigun hizkuntzen kasuan nagusienik iristen zaizkigun eta nazioarte-mailan hedatuena den formak onartzea proposatzen da oraingoz.

Joera endozentrista eta exozentrista muturrekoetatik ihes eginez, baina tradizio greko-latinoan erroturik gaudela ahaztu gabe, gero eta presenteago dauzkagun Europako hizkuntza nagusien: ingelesa, frantsesa eta alemanaren eraginpean, populismo irensletik eta kultismo konplexutik distantzia berera dagoen erdibide orekatua lortu da hitzen forma eta grafian: *Egypto / Ejito = Egipto, Jazinto / Hyakinthos = Hiazinto.* Guztiarekin ere, erabilera mugatuagoko hitzetan: *Hydra, Cupidus, Psykhis, Zyklope, Terpsikhora, Ulysses, Bacchus...* bezalako forma eta grafiak proposatu dira, nahiz eta bi izen-sailen arteko muga aldakor eta aski lausoa izan.

Batzordea jabeturik dago bide bat urratzea besterik ez duela egin, horregatik zenbait kasutan forma bakarrik ezin izan da proposatu. Historiak berak irakasten digunez, hizkuntza bera eta bereziki exonimoak mugimenduan daude eta ez du zentzurik ezer betirako finkatu edo aukera berriei ateak itxi nahi izateak.

Duela 25 urte, Mitxelena jaunak bere Arantzazuko Txostenean agertu zuen izpiritu hartatik oso urrun ez garela ibili esatera ausartzen gara. Hona hitzez hitz berak orduan esana:

"Bestetariko hitzak lehen hartu ditugu, eta ez dago beste biderik, aurrera ere. Hitz horien itxuraz, ordea, bi iritzi dabiltza gure artean: itxura hori, etorkizkoa alegia, gorde nahi lukete batzuek eginahalean, frantsesaren arabera edo, eta itxura aldatzea, xinpletzea, gogokoago dute besteek, gaztelaniaren arabera."

"Nik, egia esan, lehen bidea hartuko nuke arras ikasientzat ari bagina, baina ez da hori gertatzen. *Xinpletasunera joko nuke areago, edo bide erdira behintzat,* ***y, kh, th,*** *psykhologia, etc) eta gisa horretako idazkerak baztertuaz.*"

"Horiek, noski, izen propioetan behintzat gorde behar lirake (orobat, *c, qu* eta antzekoak). Beste hizkuntzetako izenen transkripzioa (letra berak usatzen ez dituzten hizkuntzetakoa) erabaki beharko da egun edo bihar, baina ez dugu hori lanik presakoena. Euskal izenak berak nolakoak diren erabaki eta irakatsi behar genduke aurrenik" (48).

Labur beharrez aipua etenik gogora ekar bedi frantses eta gaztelania mintzatuaren eraginpean sortu diren ortografi larkeriak gaitzetsiz *(Mozku, zozializta, jeolojia...)* ***"v"*** eta ***"kt"*** kontsonante-multzoak onartzen dituen vektore, *(ez betore)* bezalako hitz batean gauzatzen duela Mitxelenak lehenago aipaturiko erdibidea, eta azpibatzordeak ere antzeko bidea hartu du bere erabaki gehienetan.

c) Zenbait kasutan azpibatzordea ezin izan da erabateko adostasunera iritsi bere baitako irizpideetan aldeak daudelako eta bi hautakizun proposatu dira.

Azpibatzordea jabeturik dago exonimoen forma eta grafia finkatu eta arautze-lanak leku- eta pertsona-izen berezien esparrua gainditu egiten dituela eta berorietatik eratortzen diren hitzek ere (gentilizio, substantibo abstraktu, adjektibo, adberbio eta abarrek) arazo bat baino gehiago sortzen dutela; beraz, datozen jardunetan horiek guztiak ez ezik, izen arrotzak ahoskatzerakoan izaten diren zalantzak argitzen eta oraingoan aztertu ez diren beste izen berezi batzuen kasuak ere argitzen saiatu beharko du.

Azkenik, guztiaren bukaeran eta exonimoen historiak erakusten duen aldakortasunaren aurrean, ez da alferrik etorriko esatea, hizkuntzaren beste alor batzuetan baino higikortasun handiagoa ageri den honetan, ezinbestekoa dela zenbait proposamenen behin-behinekotasuna go-

(48) *Loc. cit.*, 110-111 orr.

gora ekartzea; izan ere, tradizio aski finkatu eta bateratuaren eta exonimo transliteratuen artean, alde batetik, eta tradizio bikoitzak banaturiko mugetan, bestetik, halako eremu lauso bat gelditzen baitzaigu, Eskilok liokeenez, "bere joanean dena irakasten duen denborak" (49) erabaki dezan.

AZKEN ONDORIO GISA

Aldian aldiko modak eta suharraldiak irentsiz aurrera egiten duen hizkuntzaren berezko ibiliaren zantzuak, larriki bederen hauteman, interpretatu eta ulertzen asmatu duen heinean Exonomastikako azpibatzorde honek bere xumean, iraganeko irakatsiak eta presenteko bizitza, nazioartekotasun kultoa eta euskara hedatu beharraren eskakizunak, Iparra eta Hegoa, Europarantz doan bateratze-prozesuan txertatuz, hizkuntzak ez ezik, gure Euskal Herri honek bere osotasunean etorkizunari itxaropen eta ziurtasun handiagoz begiratzeko oinarriak nolabait jarri dituen kontzientzia ere izan du. Euskaldun guztioi eta bakoitzari dagokigu, orain arte bezala, egin den apostua eguneroko bizitzan egia bihurtu eta irabaztea.

(49) "All èkdidáskei pánth' ó gêráskôn khrónos." Eskilo, *Prometeo kateatua*, 215, 981.

MITOLOGI ETA ASTRONOMI IZENEN INGURUAN

Xabier Kintana

Gure planetako herrialde, garai eta kultura ezberdinetan asmaturiko fantasiazko izakiek, giza irudimenak emandako existentziaz landa, bestelako bizitza izan dute gizartean. Alde batetik, horien inguruan bilbaturiko ipuinak, sineskerak eta pasadizoak mendebaldeko kulturan ongi txertaturik daude, eta pinturan, eskulturan eta musikan ere sormen-iturri estimagarriak izan dira.

Are gehiago, mitologiazko izen horiek kosmoseko gorputzak (konstelazioak, izarrak, planetak, sateliteak, asteroideak...) banan banan izendatzeko erabili izan dira oraintsu arte, gure ortzea behialako jainko, jainkosa eta heroiez populatu arte. Gaur egun, aldiz, ohitura hori aldatua da, eta zifrak eta letrak erabiltzen dituzte oraingo astronomoek horretarako, izarrei, izena barik, nortasun-agiri zifratu edo pasaporte-zenbaki bana jarriz. Askok, segur naiz, lehenagoko sistima nahiago.

Edozein kasutan, mitologi izenak, egon, hor daude eta, horregatik, fikziozko izaki horien izenak euskaraz adierazteko eraz arduratzea ez da, norbaiti irudi lekiokeenez, kontu hutsala, gure euskal gizartea kultura unibertsalean bide segurutik gidatzeko premia egiazkoa baizik.

Euskaraz arlo hau gutxi jorratua dugu. Izan da, bai, gure literaturan mitologiari, zeharka bederen, aipamenen bat egiten dion obrarik, baina ez behar bezain sakonki inoiz aztertu gabe. Eta astronomiaz beste horrenbeste esan genezake, nahiz eta gure artean, eta Euskaltzaindian bertan astronomiazaleren bat egon, Saturnoren argazki ederren egile.

Halere, herri-usarioan planeta, izar edo konstelazioei buruzko zenbait izen gorde da. Nagusiak alde batera utzirik (Eguzkia, Ilargia, Lurra...) gainerakoek eguneroko mintzaira arruntaren kutsu nabariegia dute, astronomi metahizkuntza osatzeko ahalbidehandirik gabe *(Donejakue Bidea, Itohoinak, Artizarra...)*, inguruko erdaretan gertatzen denez *(Camino de Santiago, el lucero del alba...)*.

Zodiakoari doakionez, dena den, tradizio luzeagoa izan dugu, horko izenak Joanes Leizarragak azaldu baitzizkigun lehen aldiz 1571. urtean.

Edonola ere, era honetako izenotan aski bateratsu jokatzen dute kultur hizkuntza guztiek, eta horregatik ez da hain zaila izan horiek euskarara moldatzea. Beren erabilera-eremu murritz eta erabat berezitua kontutan izanda, bestalde, ez dugu uste izan beren jatorrizko arroztasunetik guztiz biluztu behar genituela, eta kasu gehienetan latinez edo eta grezierazko transliterazioaz eskaintzen ditugu. Inoiz baina zientzi izenaren ondoan izen arruntak ere eman ditugu, horiek ez

baitira beti erabat sinonimoak izaten, textuinguruen arabera bata edo bestea erabili behar izanez: *Ursa Maior/Hartz Nagusia/Bostizarrak, Itohoinak; Via Lactea/Esne Bidea/Donejakue Bidea.*

Horrela, astronomo profesional edo astronauta baten ahoan (filme batean adibidez) euskaraz *Itohoinak* edo *Donejakue Bidea* entzutea desegokia litzatekeen bezala, ez lihoakioke ongi Pirinioetako artzain bati, semeari zeruko izarrak azaltzean kasu, hango izarrak *Ursa Maior* dela esatea edo eta Erdi Aroko pelegrinek gauean zerura begira *Esne-Bidea* aurkitu nahi zutela kontatzea. Hizkuntzaren mailok bereizteko, hortaz, hiztunak, idazleak eta itzultzaileak halako kulturaz, zentzuaz eta zuhurtziaz jokatu behar du.

Kasu aipagarri bat azpimarratzekotan, gure eguzki-sistemako laugarren planetarena litzateke, alegia, gerraren jainkoaren izenaz bataiatuarena. Horren jatorrizko izena latinez *Mars* da, eta horrela deritzo frantsesez. Espainolez, ordea, horren akusatibotik harturiko aldakia hobetsi dute (*Martem* > *Marte*). Inguruko erdaretan oinarrituz gero, beraz, euskaldunok batasunik ez.

Aspaldiko hogei urteotan, ordea, *Mars/Marte* bikote horren lekuan, Martitz hitza bultzatu izan da gure literaturan. Berau Bizkaian "asteartea" esateko erabiltzen den izenetik aterea da: *Martitzen*-etik, hain zuzen. Mitxelenak azaldu zuenez, berba horren jatorria **Martitz-eguna* < **Martitz-euna* < **Martitz-ena* zen, lehen osagaia erromatar jainko horren genitibotik (Martis) heldua izanda, ohiko euskal eboluzio fonetikoaz aldatua (cfr. *corpus* < *gorputz, fortis* < *bortitz*). Gure ustez, gure hizkuntz ondarean dugun eta, *astearte* hitzaren erabateko nagusigoaz, galtzear dagoen berba hori egokia zen hutsune hori betetzeko.

Kontsideragio hauek guztiok eginda, prestatu dugu, beraz, mitologi eta astronomi izendegi hau, exhaustiboa izateko asmorik gabe, arlo horretako premiarik behinenak ase eta nolabaiteko ereduak erakusteko balio dezakeena. Zerrendan agertzen diren izen asko ez dira gure batzordean xeheki eta behar bezala aztertu oraindik, eta hemen, eskuartean ditugun zereginen erakusgaitzat baizik ez dira eskaintzen; beraz, arlo horretan interesa duzuenon oharrak eta iradokizunak ere esker onez hartuko genituzke. Dakuskezuenez, mitologi izendegi honek, oro har, mitologia greko-latindarra biltzen du, baina ez ditugu ahantzi nahi izan, lekuko gisa, beste eremu geografiko eta kulturaletako pertsonaiak ere. Hori dela eta, sonatuenetako batzuk behitzat tartekatu dira.

Xabier Mendigurenek ihardunaldi hauen hasieran oso ongi azaldu digunez, finkatu beharreko izenen artean arte- eta literatur obren izenburuak ditugu, pintatzaile, eskultore, idazle eta zineasta famatuen lanak euskaraz aipatzeko orduan guztiz premiazkok. Hortaz, gure azpibatzordeak, besteak beste, ondo gogoan ditu Da Vinci-ren *Azken Afaria*, Botticelli-ren *Hiru Graziak* edo *Venusen jaiotza*, Bosch-en *Delizien lorategia*, Rodin-en *Pentsalaria* (ala *Pentsatzailea?*) Daliren *Oroimenaren irauteaz*, Shakespeareren *Uda-gau bateko ametsa*, Dostoievskiren *Karamazov anaiak*, Proust-en *Denbora galduaren bila*, García Marquez-en *Ehun urtetako bakartasuna*, Vivaldiren *Lau urtaroak*, Stravinsky-ren *Suzko txoria* eta *Udaberriaren sagaratzea* (ala *kontsakrazioa?*), *Haizeak eramana, Gehiegi zekien gizona, Egunik luzeena, Sutan al dago Paris?, Izarretako Gerra, Otsoekin dantzari, Schlindler-en zerrenda* etabar luzea euskaraz ere nola edo hala adierazi beharko

direla, eta hor ere ereduren batzuk eman beharko dituela, entziklopedisten eta itzultzaileen mesederako.

Hondar gabeko itsaso horretan murgildu aitzin baina, zilegi bekit horien eta mitologiaren arteko arloska baten barna sartzea: haurren ipuinen izenen hesitxo berezian, hain zuzen.

Edozein herri normaletan honek lotsa sorteraziko lukeen arren, gurean, zoritxar handiz, premiazkoa dugu oraino honelako xehetasunez ere arduratu beharra. Izan ere, euskararen berreskurapenean irakaskuntzak duen garrantzia kontutan izanda, ezin dezakegu ahantz gure anitz eta anitz irakurleren adina, eta haur-ipuinak ditugula, hain zuzen, gehienik publikatzen diren argitarapenak. Horietako gehienak, bestalde, itzulpenak dira. Gainera, editore askok gure hizkuntza ez dakitenez gero, itzultze-lan hori euskara maila exkaxa bezain eskrupulu gutxi duten pertsona kontrolagaitzen eskuetan uzten dute maiz. Ondorioa hortxe dago: *Pulgarzito* eta *Zenizienta* moduko "euskal" izenburuak daramatzaten liburuskak; eta behin bide horretan abiatuz gero, ez gintuzke harritu behar alde honetan *Petipuzeta* eta *Zendrillon* izeneko ipuinak agertuko balitzaizkigu.

Horri erremedioa jartzeko, eta errudunek hori ez zekitela gehiago esan ez dezaten bederen, honekin batera haur-ipuin klasiko ezagunenen izenburuak aurkezten ditugu, orain arteko tradizioan oinarrituak.

Eta besterik ez. Lehen esan bezala, hauek guztiok proposamenak dituzue, azpibatzordekook behin eta berriro eztabaidatu ondoan mamituak. Zuen guztion eritzi, kritika, emendio eta zuzenketak jaso ondoren, guk horiek berrikusi, bere kasuan aldatu eta Euskaltzaindiari aurkeztuko dizkiogu, berak epai ditzan. Eskerrik asko.

ASTRONOMI IZENAK

Eguzki-sistema

Planetak

Merkurio
Venus/Artizarra
Lurra
satelitea:
Ilargia
Martitz
sateliteak
Deimos
Fobos
Jupiter
sateliteak:
Adrastea
Amalthea

Metis
Elara
Europa
Fasifae
Ganymedes
Leda
Ananke
Himalia
Io
Kallisto
Karme
Lysithea
Pan
Sinope

Saturno

Sateliteak:

Enzelade
Dione
Febe
Hyperion
Jano
Japeto
Mimas
Rhea
Tethys
Titan
Kalypso
Atlas
Telesto

Urano

sateliteak:

Ariel
Miranda
Oberon
Umbriel
Titania

Neptuno

sateliteak:

Nereida
Triton

Pluton

satelitea: Karonte

Asteroideak

Astrea
Hebe
Iris
Juno
Flora

Higea
Metis
Palas
Vesta
Zeres

Konstelazio nagusiak

ANDROMEDA/Hiru ahizpak
AURIGA
AQUILA
BOOTES/Itzaina
CAELUM
CAMELOPARDALIS
CANIS MAIOR
CANIS MINOR
CARINA
CASSIOPEIA
CEPHEUS
CENTAURUS
CEPHEUS
CETUS
COLUMBA
COMA BERENICES
CORONA AUSTRALIS
CORONA BOREALIS
CORVUS
CRATER
CRUX/Hegoaldeko Gurutzea
CYGNUS
DELPHINUS
DRACO
EQUULEUS
ERIDANUS
FORNAX
GRUS
HYDRUS
HERCULES
INDUS
LACERTA
LEPUS
LUPUS
LYNX
LYRA
MICROSCOPIUM
OCTANS
OPHIUCHUS
ORION (Orionen gerrikoa)/Oilaloka bere txitoekin
PAVO

PEGASUS
PERSEUS
PHOENIX
PISCIS AUSTRINUS
PLEIADES/PLEIADEAK
RETICULUM
SAGGITA
SCUTUM
SERPENS
TRIANGULUM AUSTRAL
TUCANA
URSA MAIOR/Hartz Nagusia/Itohoina/Bostizarrak
URSA MINOR/Hartz Txikia
VELA

Zenbait izar nagusi

Aldebaran
Algol
Alpha Centauri
Altair
Antares
Arcturus Vega
Beta Centauri
Betelgeuse
Ipar Izarra/Polaris
Kastor eta Pollux
Markab
Procyon
Rigel
Sirius
Spica

Zodiakoko konstelazioak

Aries
Taurus
Gemines
Cancer
Leo
Virgo
Libra
Scorpius
Saggitarius
Piscis
Capricornius
Aquarius

Kometak

Halley kometa
Kohoutek kometa
Bennett kometa
Shoemaker-Levy 9 kometa

Nebulosak

Esne Bidea/Donejakue Bidea/Via Lactea
Magalhaes nebulosa
Andromeda galaxia
Oort-en hodeia

MITOLOGI IZENAK

Adonis
Afrodita
Ahriman
Ahuramazda
Akhilleo/Akhilles
Ammon
Andromeda
Anubis
Apollo
Ares
Artemisa
Asklepio
Astarte
Astrea
Atlas
Baal
Bacchus
Belzebul
Cupidus
Demeter
Diana

Dionysos
Esfingea
Eskulapio
Eros
Faunoak
Febo
Fenix
Flora
Fortuna
Furiak
Gaia/Gea
Ganymedes
Gorgonak
Hades
Helena
Hera
Herakles
Herkules
Hermes
Hydra
Io
Iris
Isis
Ixtar
Jano
Japeto
Jarovit
Jason
Jupiter
Kali
Kalypso
Karonte
Ketzalkoatl
Khimera
Kirke
Klio
Leviatan
Kronos
Lamia
Manitu
Mari
Marduk
Martitz
Merkurio
Minerva
Naiadak
Narkisso/Narzisso
Neptuno
Nereidak
Nereo
Odin
Odysseo
Olympo
Ondinak
Orfeo
Orko
Osiris
Pallas Athenea
Parkak
Parnaso
Pegaso
Perseo
Pluton
Polyfemo
Poseidon
Psykhis
Ptah
Ra
Rhea
Saturno
Satyroak
Sirenak
Sisyfo
Sylfideak
Stygiar Lakua
Tartaro
Terpsikhora
Thalia
Tethys
Thor
Thot
Titan
Tlalok
Tutatis
Tyfon
Ulysses
Urzi/Urtzi
Urano
Venus
Vulcanus, Vulcano
Walhalla
Walkiria
Varuna
Vesta
Vixnu
Wotan
Xiva
Zentauroak
Zerbero
Zeres
Zeus
Zibeles
Zyklopeak

ESPAINIA-FRANTZIETAKO ESKUALDE-PROBINTZIEN ETA EUROPAKO TOPONIMIA HISTORIKOA

Xabier Kintana

Jaun-andreok:

Zuen aurrean aurkezten ditugun zerrenda hauen helburua, Exonomastika azpibatzordeak prestatu dituen gainerakoen antzera, gaur egun Euskal Gizarteak bere hizkuntzaren garabidean gero eta nabarmenago sentitzen dituen premiei erantzutea da. Euskarak gaur egun kulturaren, irakaskuntzaren, hedabideen eta administrazioaren arloan duen gero erabilera zabalagoak, ohiko euskal terminologiaz gainera, kanpoko nazio eta herrialdeak aipatzeko, eta horiekiko tratuan, beharrezkoa du horien izenak erabakitzea, geografia, historia, atlas, kartografia, entziklopedia eta textu-liburuetan inguruko kultur erdaretan bezain finkaturik izan ditzagun.

Bestalde, gure munduko Estatu, eskualde, hiri, herri eta herriskak kontaezinak dira, eta bistan da amaigabeko lana litzatekeela horiek guztiok xeheki eta banan-banan aztertzen eta transkribatzen saiatzea. Praktikotasunari begira, ordea, Azpibatzordeak, hasteko, maiztasun handieneko eta, beraz, erabilera sarrieneko exonimoak hautatu ditu, behin horiek erabakiz gero, euskal erabiltzaileen ohizko beharrizan gehienak asebetez batera, gainerakoak moldatzeko erizpideak ere finka daitezkeelako.

Orain zerrenda bi aurkezten dizkizuegu. Batak, Espainia eta Frantziako eskualde eta probintzien izenak biltzen ditu. Besteak Europa eta inguruko toponimo historikoak dauzka. Lehenaz hasiko natzaizue. Biak, gure kokaera geografikoagatik, maiz erabili beharrekoak.

ESPAINIA-FRANTZIETAKO ESKUALDE ETA PROBINTZIEN IZENAK

Lanean abiatu aitzin, gure azpibatzordea erizpide batzuk finkatzen saiatu zen, bai pertsona eta bai leku izenekin, ahal zen neurriraino bederen, modu berean eta koherentziaz aplikatzeko. Erizpideotan, bestetik, azpibatzordearen kide guztiok batera etorri garela esan dezaket, garrantzi txikiko puntuetan inoiz ñabarduraren bat izan arren.

Erizpide nagusia, nik uste, datuak bildu eta ahalik eta gutxien asmatzea izan da. Alde batetik, hor daude, Euskal Herriak toki batzuekin izandako harreman

historikoaren lekuko, euskaldunok denboraren eta ohituraren poderioz, geure fonetikara moldaturiko toki-izen arrotzak: *Bartzelona, Larrotxela, Madril, Marseilla, Murtzia, Erruan, Palentzia, Tolosa* ... Horiek guztiok tradizio idatzi eta mintzatutik jaso ditugu, eta horietan erosio eta aldaketa fonetikoak errespetatu dira.

Halere, izena jadanik zaharkitua zegoenean, oraingo euskaldun gehienek bestela darabilgulako, era zaharrak lekukotasun urria eta "zabar xamarra" duelako, edo eta gaurko geografi jokabideak atzerriko toki-izenekin errespetu handiagoa izateko agintzen duelako, horiek erabat baztertu gabe ere, bigarren mailan utzi ditugu, forma berri edo ezagunagoari lehentasuna emanez. Horrek ez du esan nahi, ordea, bigarren mailako izen horiek gaitzesgarriak direnik. Aitzitik, beren "zahar" kutsu horri esker, inoiz modernoak baino egokiagoak gerta daitezke toki horien behialako deitura adierazteko: joan den mendeko egoera, Erdi Aroko usaina edo lehenagoko irudia iradoki nahi denean. Gaurko *Sevilla* edo *Asturias* aipatzeko agian *Sibilia* eta *Asturietako Printzerria* pitxi edo eta nahasgarri izan daitezkeen arren, izen horiek, aldiz, egokienak direteke Lope Agirrekoaren garaia edo Espainiaren historia zaharreko giroa sentierazteko, une hartako euskaldunek halaxe deitzen zituzten eta.

Grafia aldaketa nabarmenak fonetika-aldaketek markatu dizkigute, batez ere erdal nc eta rc taldeak *(Palencia, Valencia, Murcia, Barcelona...)* euskarara *ntz* eta *rtz* gisa iragaten baitira (Palentzia, Valentzia, Murtzia, Bartzelona...). Gainerakoetan, toponimo horien izen ofiziala onetsi dugu *(A Coruña, Girona, Lleida, Alacant..)* bere kasuan jatorrizko hizkuntzaren grafia errespetatuz (galegoa, gaztelania, katalana, okzitaniera, frantsesa, bretoiera, alemana, korsiera...), inoiz ohiko izenaren ondoan jatorrizko hizkuntza ezofizialarena ere jarriz *(Bretainia/Breizh, Nantes/ Naoned, Rennes/Roazhon, Perpinyá,...).*

Bestalde, azentuazioa, zeinu diakritikoak eta *c, ç, q, ss, v* eta *y* letrak bere horretan utzi ditugu, Euskaltzaindiak letra horiek izen arrotzetan erabiltzea zilegi jotzen duela kontutan izanda, horrela toponimoen itxura optikoa gehiegi desitxura ez dadin: *Auch, Avila, Cáceres, Cádiz, Carcasona, Coruña, Cuenca, Lyon, Huelva, Oviedo, Pontevedra, Salamanca, Valladolid, Vichy, Vigo*). Ez baitugu uste gaur egun, ez gurean ez eta nazioarteko giroan ere, *Ox, Abila, Albazete, Balentzia, Balladolid, Bixi, Karkasona, Kazeres, Kuenka, Obiedo* edo *Ziudad Real* moduko grafiak jadanik onargarriak diratekeenik.

Kasu batzuetan, ordea, izen horien bukaera aldatu dugu, horien deklinabidea errazteko *(Vosgeak, Alpeak...).* Hau, bestalde, ohitura aski zabaldua izaten da hizkuntza guztietan *(Les Vosges, Les Alpes = Los Vosgos, Los Alpes...).*

Azkenik, toponimoaren ondoko izen arruntak *(Principado, Comunidad Autónoma, Territorio, Alto, Bajo)* euskarara itzuli edo moldatu ditugu *(Printzerria, Autonomi Elkartea, Herrialdea, Garaia, Beherea...)* hor guztion kontsentsua topatu nahian.

Batzordekoen artean adostasunik edo eta erabateko segurtasunik izan ez dugunean, bi era utzi ditugu, erabiltzaileen aukeran.

ESPAINIA-FRANTZIETAKO ESKUALDE-PROBINTZIEN IZENAK

Euskara	Erdara
Coruña/A Coruña	La Coruña
Agen	Agen
Ain	Ain
Aisne	Aisne
Ajaccio	Ajaccio
Akitania	Aquitaine
Alacant	Alicante
Albi	Albi
Alençon	Alençon
Allier	Allier
Almería	Almería
Alpe Garaiak/Hautes-Alpes	Hautes-Alpes
Alsazia	Alsace
Amiens	Amiens
Andaluzia	Andalucía
Angers	Angers
Angulema	Angoulème
Annecy	Annecy
Aragoa	Aragón
Ardèche	Ardèche
Ardenak	Ardennes
Ariège	Ariège
Arras	Arras
Asturias	Asturias
Asturietako Printzerria (iz. hist.)	Principado de Asturias
Aturbe/Tarbe	Tarbes
Aube	Aube
Auch	Auch
Aude	Aude
Aurillac	Aurillac
Auvernia	Auvergne
Auxerre	Auxerre
Aveyron	Aveyron
Avignon	Avignon
Avila	Avila
Badajoz	Badajoz
Balear irlak (Balearrak)	Islas Baleares
Bar-le-Duc	Bar-le-Duc
Bartzelona	Barcelona
Bastia	Bastia
Beauvais	Beauvais
Belfort Herrialdea	Territoire de Belfort
Besançon	Besançon
Blois	Blois
Bobigny	Bobigny

Euskara	Erdara
Bordele	Bordeaux
Borgonia/Burgundia	Bourgogne
Bouches-du-Rhône	Bouches-du-Rhône
Bourg-en-Bresse	Bourg-en-Bresse
Bourges	Bourges
Bretainia/Breizh	Bretagne
Burgos	Burgos
Cáceres	Cáceres
Cádiz	Cádiz
Caen	Caen
Cahors	Cahors
Calvados	Calvados
Cantal	Cantal
Castelló de la Plana	Castellón de la Plana
Centre	Centre
Ceuta	Ceuta
Châlons-sur-Marne	Châlons-sur-Marne
Chambéry	Chambéry
Champagne-Ardennes	Champagne-Ardennes
Charente	Charente
Charleville-Mézières	Charleville-Mézières
Chartres	Chartres
Châteauroux	Châteauroux
Chaumont	Chaumont
Cher	Cher
Ciudad Real	Ciudad Real
Clermont-Ferrand	Clermont-Ferrant
Colmar	Colmar
Córdoba/(zah.) Gordoa	Córdoba
Corrèze	Corrèze
Côte d'Or	Côte d'Or
Côtes-d'Armor	Côtes-d'Armor
Créteil	Créteil
Creuse	Creuse
Cuenca	Cuenca
Deux-Sèvres	Deux-Sèvres
Digne	Digne
Dijon	Dijon
Dordonia	Dordogne
Doubs	Doubs
Drôme	Drôme
Eivissa	Ibiza
Ekialdeko Pirinioak	Pyrénées-Orientales
Épinal	Épinal
Errioxa	La Rioja
Errioxako Autonomi Elkartea	Comunidad Autónoma de La Rioja
Essonne	Essonne

Euskara	**Erdara**
Extremadura	Extremadura
Eure-et-Loir	Eure-et-Loir
Eure	Eure
Euskal Herriko Autonomi Elkartea	Comunidad Autónoma del País Vasco
Evreux	Evreux
Evry	Evry
Finistère	Finistère
Foix	Foix
Franche-Comté	Franche-Comté
Galizia	Galicia
Gap	Gap
Gard	Gard
Garona Garaia/Haute-Garonne	Haute-Garonne
Gaztela eta Leongo Autonomi Elkartea	Comunidad A. de Castilla y León
Gaztela-Mantxako Autonomi Elkartea	Comunidad A. de Castilla-La Mancha
Gers	Gers
Girona	Girona
Gironda	Gironde
Granda	Granda
Grenoble	Grenoble
Guadalajara	Guadalajara
Guadalupe	Guadalupe
Gueret	Gueret
Guyana Frantsesa	Guyane Française
Hauts-de-Seine	Hauts-de-Seine
Hego Korsika	Corse-du-Sud
Herault	Herault
Huelva	Huelva
Huesca/(zah.) Oska	Huesca
Ile-de-France	Ile-de-France
Ille-et-Vilaine	Ille-et-Vilaine
Indre-et-Loira	Indre-et-Loire
Indre	Indre
Isère	Isère
Itsas Alpeak	Alpes-Maritimes
Charente-Maritime	Charente-Maritime
Seine-Maritime	Seine-Maritime
Jaén	Jaén
Jura	Jura
(Kanaria Handiko) Las Palmas	Las palmas de Gran Canaria
Kanarietako Autonomi Elkartea	Comunidad Autónoma de Canarias
Kanariak/Kanariar irlak	Canarias/Islas Canarias
Kantabriako Autonomi Elkartea	Comunidad Autónoma de Cantabria
Carcassona	Carcassonne
Kataluniako Autonomi Elkartea	Comunidad Autónoma de Cataluña
Korsika Garaia	Haute-Corse
Korsika	Corse

Euskara	Erdara
La Roche-sur-Yon	La Roche-sur-Yon
Landak	Landes
Languedoc-Rosselló	Languedoc-Roussillon
Laon	Laon
Larrotxela	La Rochelle
Laval	Laval
Le Mans	Le Mans
Le Puy	Le Puy
León	León
Lille	Lille
Limoges	Limoges
Limousin	Limousin
Lleida	Lleida/Lérida
Loir-et-Cher	Loir-et-Cher
Loira Atlantiarra	Loire-Atlantique
Loira Garaia	Haute-Loire
Loira	Loire
Loira Herrialdea	Pays de la Loire
Loiret	Loiret
Lons-le-Saunier	Lons-le-Saunier
Lorena	Lorraine
Lot-et-Garonne	Lot-et-Garonne
Lot	Lot
Lozère	Lozère
Lugo	Lugo
Lyon	Lyon
Mâcon	Mâcon
Madrilgo Autonomi Elkartea	Comunidad Autónoma de Madrid
Maine-et-Loire	Maine-et-Loire
Málaga	Málaga
Manche	Manche
Marne Garaia/Haute-Marne	Haute-Marne
Marne	Marne
Marseilla	Marseille
Martinika	Martinique
Mayenne	Mayenne
Melilla	Melilla
Melun	Melun
Mende	Mende
Metz	Metz
Meurthe-et-Moselle	Meurthe-et-Moselle
Midi-Pyrénées	Midi-Pyrénées
Mont-de-Marsan	Mont-de-Marsan
Montauban	Montauban
Montpellier	Montpellier
Morbihan	Morbihan
Mosa	Meuse

Euskara	Erdara
Mosela	Moselle
Moulins	Moulins
Murtzia/Murcia	Murcia
Nafarroako Foru-Elkartea	Comunidad Foral de Navarra
Nancy	Nancy
Nantes	Nantes/Naoned
Nevers	Nevers
Niza/Nice	Nice
Nièvre	Nièvre
Nimes	Nimes
Niort	Niort
Nord-Pas-de-Calais	Nord-Pas-de-Calais
Nord	Nord
Normandia Beherea	Basse-Normandie
Normandia Garaia	Haute-Normandie
Oise	Oise
Orleans	Orleans
Orne	Orne
Ourense	Orense
Oviedo	Oviedo
Pabe	Pau
Paris	Paris
Pas-de-Calais	Pas-de-Calais
Périgueux	Périgueux
Perpignan/Perpinyá	Perpignan
Pikardia	Picadie
Pirinio Atlantiarrak	Pyrénéees-Atlnatiques
Pirinio Garaiak	Hautes-Pyrénées
Poitiers	Poitiers
Poitou-Charentes	Poitou-Charentes
Pontevedra	Pontevedra
Pontoise	Pontoise
Privas	Privas
Proventza Garaiko Alpeak	Alpes-de-Haute-Provence
Provence-Alpes-Côte d'Azur	Provence-Alpes-Côte d'Azur
Puy-de-Dôme	Puy-de-Dôme
Quimper	Quimper/Kemper
Rennes	Rennes/Roazhon
Réunion	Réunion
Rhin Beherea	Bas-Rhin
Rhin Garaia	Haut-Rhin
Rodano-Alpeak	Rhône-Alpes
Rodano	Rhône
Rodez	Rodez
Erruan/Rouen	Rouen
Savoia Garaia	Haute-Savoie
Saint-Brieuc	Saint-Brieuc

Euskara	**Erdara**
Saint-Étienne	Saint-Étienne
Saint-Lo	Saint-Lo
Salamanca	Salamanca
Saona eta Loira	Saône-et-Loire
Sarthe	Sarthe
Segovia	Segovia
Sena eta Marne	Seine-et-Marne
Sena-Saint-Denis	Seine-Saint-Denis
Sevilla/ (zah.) Sibilia	Sevilla
Somme	Somme
Soria	Soria
Strasburg	Strasbourg
Tarn eta Garona	Tarn-et-Garonne
Tarn	Tarn
Tarragona	Tarragona
(Tenerifeko) Santa Cruz	Santa Cruz de Tenerife
Teruel	Teruel
Toledo	Toledo
Tolosa/Toulouse	Toulouse
Toulon	Toulon
Tours	Tours
Troyes	Troyes
Tulle	Tulle
Val-d'Oise	Val-d'Oise
Val-de-Marne	Val-de-Marne
Valence	Valence
Valentzia	Valencia
Valentziako Elkartea	Comunidad de Valencia
Valladolid	Valladolid
Vannes	Vannes
Var	Var
Vaucluse	Vaucluse
Vendée	Vendée
Versailles	Versailles
Vesoul	Vesoul
Vienne Garaia	Haute-Vienne
Vienne	Vienne
Vosgoak	Vosgues
Yonne	Yonne
Yvelines	Yvelines
Zamora	Zamora
Zaragoza	Zaragoza

EUROPAKO ETA ALDIRIETAKO TOPONIMIA HISTORIKOA

Xabier Kintana

Gorago aipaturiko premiei erantzuteko, batzordeak beste zerrenda bat ere prestatu eta onartu du Europa eta inguruko herrialdeetako toki-izenekin. Horietako batzuk Estatu gabeko nazioei dagozkie, baina badira eskualde natural edo eta historikoei dagozkienak ere. Zerrenda hau, bestalde, leku horietako bizilagunen gentilizioaz horniturik dago.

Gure batzordeak jadanik onarturiko zerrenda honekin batera, eranskin gisa, beste zerrenda bat aurkezten dugu, gentiliziorik gabea, oraindik astiroago aztertzeko duguna. Honetan agertzen diren izen hauetako asko gaur egungo errealitateak adierazteko erabiltzen dira, baina beste batzuk iraganeko egoerei dagozkie. Halere, gure kultur ondareko hitzak dira, eta nahitaezkoak ditugu histori eta geografi liburuetan. Bistan denez, zerrenda hauek ez daude itxirik, eta beste izen batzuekin osa daitezke oraindik, baina oraingo lagin honekin arlo hori ere urratu nahi izan dugu, erizpide praktiko bat eskaintzeko.

Guztietan erizpide berberaz jokatu nahi dugu. Alde batetik, izen greko eta latinoen euskal egokitzapena egin da, horien jatorrizko etimoekin batera frantses eta espainolezko eratorriak ere —gure gaurko ohiko iturburuak— kontutan izanda.

Kasu askotan, leku-izen horiek hizkuntza nazional ezberdinetan tokian tokiko moldaera dutenez gero, itzulpenera jo beharko da *(Oihan Beltza, Egoitza Saindua, Ekialde Hurbila, Ilgora Emankorra, Herrialde Saindua...)* eta *(Schwarzwald-/Selva Negra/Forêt Noire/ Black Forest; Santa Sede/Sainte Siège; Creciente Fértil/Croisant Fertile; Tierra Santa/Terre Sainte...)*. Honetarako aspaldiko euskal liburuetan ageri diren aurretikoak hartu izan ditugu kontutan, beti ongi asmatzea ez dela hain erraza alde aurrez aitortzen badugu ere.

Besterik ez. Zerrenda hauek orain eskuetan dituzue, aztergai. Batzordeak Euskaltzaindiari onespena eman diezaien aurkeztu baino lehenago, pozik hartuko ditu zuen ohar, zuzenketa eta proposamenak. Guztioi, aldez aurretik, eskerrik asko.

EUROPAKO ETA ALDIRIETAKO TOPONIMIA HISTORIKOA

Leku-izena	**Gentilizioa**
Abkhazia	abkhaziar
Adjaria	adjariar
Akitania	akitaniar

Leku-izena	Gentilizioa
Alentejo	alentejoar
Algarve	algarvetar
Andaluzia	andaluziar
Aragoa	aragoar
Argovia	argoviar
Artois	artoistar
Atika	atikar
Austria Beherea	
Austria Garaia	
Auvernia	auverniar
Baden-Württemberg	badenwürttembergar
Basilicata	basilicatar
Bavaria	bavariar
Beauce	beaucetar
Beaujolais	beaujolaistar
Beira	beiratar
Berberia	berberiar/berber
Biarno	biarnotar
Bizantio	bizantiar
Brabant	brabantar
Brandenburg	brandenburgar
Burgundia edo Borgonia	burgundiar edo borgoniar
Calabria	calabriar
Calvados	calvadostar
Campania	campaniar
Cumbria	cumbriar
Dagestan	dagestandar
Dalekardia	dalekardiar
Dalmatia	dalmatiar
Dofinerria (Dauphinée)	dofinerritar
Dobruja	dobrujar
Elide	elidear
Emilia Romagna	emiliaromagnar
Epiro	epiroar
Erroma	erromatar
Eskania	eskaniar
Eslavonia	eslavoniar
Estiria	estiriar
Fenizia	feniziar
Florentzia	florentziar
Frankonia	frankoniar
Friul	friuldar
Galia	galiar
Galitzia	galitziar
Gaskoinia	gaskoi(n)
Gaztela	gaztelau/gaztelar; (hizk.) gaztelania

Leku-izena	**Gentilizioa**
Gaztela Berria	gaztelau berri
Gaztela Zaharra	gaztelau zahar
Hainaut/Henao (zah.)	hainautar
Hego Osetia	hegoosetiar
Highlands	highlandstar
Iberia	iberiar
Iliria	iliriar
Ipar Osetia	iparrosetiar
Jonia	joniar
Jura	juratar
Jutlandia	jutlandiar
Kaledonia	kaledoniar
Kamarga	kamargar
Karabakh Garaia	karabakhtar
Kartago	kartagoar/puniko
Krimea	krimear
Kurdistan	kurdu (etnia) kurdistandar (hiritartasuna)
Kurlandia	kurlandiar
Laponia	laponiar/saamiar/lapoi
Lazio/Latio	laziotar, latindar, latino
Liguria	liguriar
Livonia	livoniar
Lonbardia	lonbardiar
Lorena/Lotaringia (zah.)	lorenar
Lowlans	lowlandar
Lusitania	lusitaniar
Magreb	magrebar
Mazovia	mazoviar
Mazuria	mazuriar
Milan	milandar
Muntenia edo Valakia Handia	munteniar
Napoli	napolitar
Normandia	normandiar
Okzitania	okzitaniar
Oltenia	olteniar
Palatinatua	palatinatuar
Peloponeso	perloponesoar
Perigord	perigordar
Persia	persiar
Pikardia	pikardiar
Podolia	podoliar
Poitou	poitoutar
Polesia	polesiar
Pomerania	pomeraniar
Proventza	proventzal/proventzar
Renania	Renaniar
Rosselló edo Ipar Katalunia	rosselloar

Leku-izena	Gentilizioa
Savoia	savoiar
Saxonia	saxoniar/saxoi
Siberia	siberiar
Silesia	silesiar
Smalandia	smalandiar
Suabia	suabiar
Tataria	tatariar
Tesino	tesinoar
Tirol	tiroldar
Torino	torinoar
Toscana	toscanar
Transilvania	transilvaniar
Trazia	traziar
Turena	turenar
Turingia	turingiar
Udmurtia	udmurtiar
Ulster	
Unbria	Unbriar
Valakia	Valakiar
Veneto	Venetoar
Vendée	vendeetar
Vojvodina	vojvodinar
Walonia	waloniar/waloi
Westfalia	westfaliar
Zeelanda	zeelandar

* * *

EUROPAKO ETA ALDIRIETAKO TOPONIMIA HISTORIKOA (ERANSKINA)

Al-Andalus: Al-Andalus
Anatolia: Anatolia
Apulia: Apulia
Asiria: Asiria
Austro-Hungariar Inperioa: Imperio Austro-Húngaro
Baktriana: Bactriana
Besarabia: Besarabia
Betika: Bética
Dazia: Dacia
Egoitza Saindua: La Santa Sede
Ekialde Hurbila: El Cercano Oriente, Oriente Medio
Ekialde Urruna: El Lejano Oriente
Ekialdeko (Erromatar) Inperioa: Imperio (Romano) de Oriente
Eliz Estatuak: Estados Pontificios
Erromatar-Germaniar Inperio Sakratua: Sacro Imperio Romano Germánico

Erromatar Inperio Sakratua: Sacro Imperio Romano
Eskandinavia: Escandinavia
Eskitia: Escitia
Etruria: Etruria
Frigia: Frigia
Frisia: Frisia
Galatia: Galacia
Guiena: Guyena
Germania: Germania
Gurutzatuen Estatuak: Estados Cruzados
Hatti: Hatti
Herrialde Saindua/Leku Sainduak: Tierra Santa, Santos Lugares
Helvetia: Helvecia
Hibernia: Hibernia
Hispania: Hispania
Ilgora Emankorra: El Creciente Fértil
Kaledonia: Caledonia
Kapadozia: Capadocia
Kartago: Cartago
Kaukasia: Kaukasia
Kolkida: Cólquida
Languedoc: Languedoc
Lutetia/Lutezia: Lutecia/Lutèce
Marka Hispaniarra: Marca Hispánica
Mauretania: Mauretania (Erromatarren garaiko Magreb aldea)
Media: Media
Mendebaldeko (Erromatar) Inperioa: Imperio (Romano) de Occidente
Mesopotamia: Mesopotamia
Moldavia: Moldavia
Moravia: Moravia
Narbonensis: Narbonense
Nilo Harana: Valle del Nilo
Novempopulania: Novempopulania
Oihan Beltza: La Selva Negra
Panonia: Panonia
Raetia: Raetia, Recia
Rhin Harana: Valle del Rhin
Ruhr Arroa: Cuenca del Ruhr
Rutenia: Rutenia
Sarmatia: Sarmacia
Sefarad: Sefarad
Silesia: Silesia
Tarraconensis: Tarraconense
Vasconia/ Vaskonia/Baskonia: Vasconia
Wasconia/Waskonia: Wasconia
Zirenaika: Cirenaica

PONTE-IZENAK

Andolin Eguzkitza,
Xabier Kintana

Onomastika batzordeak ponte-izenen arazo honi heldu dionean hiru izen-motari buruzko katramilak konpondu gura izan ditu: pertsona-izen, saindu-izen eta pertsonaia historikoen izenei buruzkoak. Eta era berean, jakina, izen-mota horien artean sortzen diren harremanak zelanbait argitzen saiatu ere egin da.

Egoera historikoa bizpahiru zirriborrotan laburbil daiteke:

a) Lehenengo eta behin saindu-izenen tradizio zaharra aipatu behar dugu, hau da, gehien bat toponimian fosildua geratu zaigun saindu-izenen ondarea: Jaundone *Bikendi* Arana, *Donezte-be, Donibane*, Jaundone *Jurgi* e.a. Baina elizaren eraginez XIV. gizalditik aurrera nagusitu zen joera ere aipatu behar dugu, h.d., ponte-izen gisa saindu-izenen erabilkera eta joera horren ondorioz sarturikoak: *Ageda, Ana, Daniel, Joanes, Kosme, Leon, Marta, Pilare*, e.a.

b) Era berean, Erdi Arotik hainbat etxe-eta familia-izenetan fosilduak geratu zaizkigunak ere aipatu beharrekoak dira, hala nola *Erramundena, Loperena, Mitxelena, Mitxeltorena, Perurena, Petrirena*, e.a.

c) Hirugarrenez, espainiar eta frantses estatuen lege-estatutuek onartu-erazi dizkigutenak, sarri askotan pareka sartuak, iparraldean frantsesetik izen bat, eta hegoaldean gaztelaniatik beste bat: *Jean/Juan, Pierre/Pedro, George/Jorge*, e.a.

d) Sabindar irtenbidea aipatu behar da hurrengo, alegia, oso erizpide arbitrariez gure mendearen hasieran Sabino Aranak proposatu zituen eliza katolikoaren saindu-izenen formak, ezagun denez, horietatik asko guztiz arrunt bihurtu direla: *Jon, Kepa, Mikel, Ander, Iñaki, Josu, Nekane, Edurne, Aintzane, Igone.* Eta beste batzuk, horren famatuak izan ezarren, erabili ere egin dira, adibidez nire izen bera, *Andolin*, edo gure arrebarena, *Keltse.*

e) Hegoaldean frankismoaren garaiko legalitateak sortarazitako saihesbidea ere aipatu behar da. Ezagun denez, diktatura horren azkenengo urteotan gaztelaniazko ez ziren izenak erabil zitezkeen baldin eta hizkuntza horretan "itzulpenik" ez bazeukaten. Izen berezi baten itzulpena izeneko entitatea zer den inork gutik jakin ezarren, Jose Maria Satrustegi apezaren lanari esker batez ere, baldintza horrek Erdi Arotik gordeta zegoen tradiziotik, hainbat izen zahar ahazturen berreskurapena eragin zuen: *Eneko, Maider, Otsanda, Unai*, e.a. Era berean, eta arrazoi legal horregatik ere, lehenagotik bazegoen saindu berrien jaiolekuak edo eta andramarien kokaguneak ponte-izen bihurtzeko joera txikia oso zabaldu zen.

Guti batzuk baino ez aipatzeko: *Aitziber, Arantzazu, Berriotxoa, Garikoitz, Itziar, Xabier*, e.a.

f) Azkenean, ahozko tradizioan geratu diren forma hipokoristiko apurrak ere aipatu behar ditugu, adibidez, Pello, Betiri, Madalen/Matxalen, Pantxike e.a.

Zoritxarrez, ikus daitekeenez, aipaturikoetan ez dugu izen historikorik aipatu, horretarako dugun iturburu apur bakarra euskal literaturaren testuak direlarik. Euskararen historia soziolinguistikoak eragindako egoera zalantzarik gabe, baina egungo egunean konpondu behar dena, ez badugu geure hizkuntza gaztelaniaren edo eta frantsesaren morroi bihurtuko eta era horretan euskarari hainbeste kalte egin dion sitsari, gutiengotasun-konplexuaren sitsari, beste bazkaleku bat eskainiko.

Hori guztiori kontuan hartuta, Onomastika batzordeak uste du bide normalizatu bat aurkitu behar dugula ponte-izenen arazo honetan, alegia, euskal tradizioak batetik eta Europar kulturtradizioa bestetik kontutan hartuko eta batuko dituen bidea.

Izan ere, gaurko egunean aurkezten dugun 100 ponte-izenen zerrenda osotzeko erizpide bi erabili ditugu, batetik saindutegian agertzea, eta maiztasuna edo zelanbaiteko garrantzia edukitzea kultura edo historiaren aldetik izatea bestetik. Beti ere batasuna lortzen saiatu gara eta forma baturik aurkitu ez dugunean, jatortzat jo dugunaren ondoan aipaturiko tradizio desberdinetakoak ere aipatu ditugu. Adibidez: Petri/Peru/Pedro/Piarres/Kepa, argi utzita baina, izen historiko egokitzat lehenengoa jotzen dugula, adibidez: Jaundone Petri apostolua, Petri Haundia, Errusia Guztien Inperadorea, baina Peru Markaida, Pedro Iturzaeta, Piarres Hariñordoki eta Kepa Iturriotz.

Lantzean behin, ez gara forma batu bakarra emateko gauza izan, heldu zaizkigun formok, iparraldetik eta hegoaldetik batez ere, aldagarri desberdinak dauzkatelako: *Albert/Alberto,Frederik/Frederiko* e.a. Kasu horretan forma biak eman ditugu ontzat.

/V/ letra dela eta antzera jokatu dugu: letra horretaz izen historiko eta kulturazkoetan baliatu gara. Aldiz, /B/ letra euskal forma arrunta emateko erabili dugu: *David Erregea*, baina *Dabit Iturriangoitia, Valentin aitasaindua, valentiniarrak* sekta gnostikoa, baina *Balentin Gorospe* zein *Balendin Enbeita.*

Ahozko tradiziotik heldu zaizkigun forma hipokoristikoak ponte-izentzat ematen dira zalantzarik gabe, eta pertsona-izen gisa erabiltzeko onartzen. Hala ere, lehenago esan dugun bezala, argi utzita izen horiek ezin daitezkeela inoiz ez sainduen izenak emateko, ez eta pertsonaia historikoen izenak emateko erabil: *Betiri Santz* bai, baina ez *Jaundone Betiri, Pello Errota* bai, baina ez *Pello Ankerra, Gaztelako Errege.*

Azkenez, generoaren arazoa aipatu behar dugu, hiru erako izen aurkitzen baititugu euskaran: oinarriz maskulinoak direnak *(Ibon, Xabier, Unai)*, jatorriz fameninoak direnak *(Edurne, Pilare, Teresa, Garazi)*, eta bietara ager daitezkeenak *(Joan/Joana, Anton/Antoni).* Euskarak —ez dugu ezer berririk esaten— ez du sexudiferentzia ia inoiz ere markatzen (hika-ko formak, toka eta noka alegia, dira salbuespen ia bakarrak), beraz ez dugu Sabino Aranak markaturiko bidetik aurrera

eginen, hau da, ia izen guztiak, /-a/ morfemaren bidez gizonezkoenak, eta /-e/ morfemaren bidez emakumezkoenak, maskulino eta femenino bihurtzeko bidetik.

Euskara	**Espainieraz**	**Frantsesez**
Adam	Adán	Adam
Adelaida	Adelaida	Adelaïde
Adelardo	Adelardo	
Adolf(o)	Adolfo	Adolf
Agapeto	Agapito	Agapet
1. Agata, 2. Ageda	Ageda	Agathe
Aingeru	Angel(a)	Angèl(e)
Albert(o)	Alberto	Albert
Alexandro	Alejandro	Alexandre
Alfontso	Alfonso	Alphonse
Ana	Ana	Anne
Anakleto (Kleto)	Anacleto	Anaclet (Clet)
Anastasio	Anastasio	Anastase
Anbrosio	Ambrosio	Ambroise
Andres	Andrés	André
Anizeto	Aniceto	Anicet
Anton/Antonio	Antonio	Antoine
Antselmo	Anselmo	Anselme
Apolinar	Apolinar	Apolinaire
Apolonio	Apolonio	
1. Arnalt, 2. Arnaut, 3. Eñaut	Arnaldo	Arnault
1. Argia, 2. Klara	Clara	Claire
Arrosa	Rosa	Rose
Artur	Arturo	Arthur
Atanasio	Atanasio	Athanase
Augustin	Agustín	Augustin
Aurelio	Aurelio	
Balbino	Balbino	
Balduin	Balduino	Balduin
Baltasar	Baltasar	Balthazar
Barbara	Bárbara	
Barnabe	Bernabé	Barnabé
Bartolome	Bartolomé	Barthélemy
Basilio	Basilio	Basile
1. Bernart, 2. Bernard(o), 3. Beñat	Bernardo	Bernard
Benedikto/Benito	Benedicto/Benito	Benoît
1. Bikendi, 2. Bizente	Vicente	Vincent
1. Bladi, 2. Blas	Blas	Blaise
Bonifazio	Bonifacio	Boniface
Brigita	Brígida	Brigitte
Bruno	Bruno	Bruno

Euskara	Espainieraz	Frantsesez
Damaso	Dámaso	
Damian	Damián	
Daniel	Daniel	Daniel
Dario	Darío	
David/Dabid	David	David
Demetrio	Demetrio	
Didako	Diego	
Dionisio	Dionisio	Denis
Domeka	Dominga	Dominique
1. Domiku, 2. Domingo	Domingo	Dominique
Doroteo	Doroteo	
Dorotea	Dorotea	
Edmund(o)	Edmundo	
Eduard(o)	Eduardo	Edouard
1. Elisabet, 2. Isabel	Isabel	Elisabeth
Eloi	Eloy	
1. Emilia, 2. Milia	Emilia	
Elmu	Telmo	
Emilio	Emilio	Emile
Eneko	Iñigo, Eneco	
1. Erramun, 2. Ramon	Ramón	Raimond
Erroman	Román	
Estanislao	Estanislao	Stanislas
Eztebe	Esteban	Étienne
Eufemia	Eufemia	Euphemie
1. Eulalia, 2. Olaia	Eulalia	Eulalie
Eulogio	Eulogio	
Eusebio	Eusebio	
Eustakio	Eustaquio	Eustaque
Eva	Eva	
Fabian	Fabián	
Fabiola	Fabiola	
Fauste	Fausto	Faust
Fausta	Fausta	
Felix	Felix	Félix
Felizia	Felicia	
Fermin	Fermín	Fermin
Fernando	Fernando	Ferninand
Filipe	Felipe	Philippe
Florentzio	Florencio	
Florian	Florián	
1. Frantzisko, 2. Frantses	Francisco	François
Frederik(o)	Federico	Frédéric
Fruktuoso	Fructuoso	
Gabriel	Gabriel	Gabriel

Euskara	**Espainieraz**	**Frantsesez**
Garazi	Engracia	Engrace
Genoveva/Genobeba	Genoveva	Geneviève
German	Germán	Germain
Gertrudis	Gertrudis	Gertrude
Gilen	Guillermo	Guillaume
Grazian	Gracián	Gracien
Gregorio	Gregorio	Grégoire
Gumersindo	Gumersindo	
Gustavo/Gustabo	Gustavo	Gustave
Helena	Elena	Hélène
Henrik(e)	Enrique	Henri
Hiazinto	Jacinto	Hyacinthe
Hilario	Hilario	Hilaire
Hipolito	Hipólito	Hippolyte
Honorat(o)	Honorato	Honorate
Hugo	Hugo	Hugues
Hunberto	Humberto	Humbert
Ignazio	Ignacio	Ignace
Ildefontso	Ildefonso	Indefonse
Inozentzio	Inocencio	Innocent
Isaak	Isaac	Isaac
Isidoro/Isidro	Isidoro/Isidro	Isidore
1. Jakob, 2. Jakue	Jacob(o)/Jaime, Santiago	Jacques
Jenaro	Jenaro	Janvrier
Jeronimo	Jerónimo	Jérôme
Jesus	Jesús	Jésus
Joakin	Joaquín	Joachim
1. Joan, 2. Joanes, 3. Jon	Juan	Jean
1. Joana. 2. Jone	Juana	Jeanne
1. Jose(f), 2. Josepe	José	Joseph
Josepa	Josefa	
Juda(s)	Judas	Jude
Julian	Julián	Julien
Juliana	Juliana	
Julio	Julio	Jules
Jurgi	Jorge	Georges
1. Justi, 2. Justo	Justo	
Justino	Justino	Justin
Kaietano	Cayetano	Gaétan
Kalisto	Calisto	Callisto
1. Karlos, 2. Txarles	Carlos	Charles
1. Karmel, 2. Karmen	Carmen	Carmen
Karmelo	Carmelo	
Kasildo	Casildo	

Euskara	Espainieraz	Frantsesez
Kasilda	Casilda	
Kasimiro	Casimiro	Casimir
Kaspar	Gaspar	
Katalina	Catalina	Catherine
Klaudio	Claudio	Claude
Klemente	Clemente	Clément
Klotilde	Clotilde	
Kosme	Cosme	Côme
Krisostomo	Crisóstomo	
Kristina	Cristina	Christine
1. Kristobal, 2. Kristobare	Cristóbal	Christophe
Lazaro	Lázaro	Lazare
Leandro	Leandro	Léandre
Leokadio	Leocadio	
Leon	León	Léon
1. Laurenti, 2. Lorentzo	Lorenzo	Laurent
Luis	Luis	Louis
Lukas	Lucas	Luc
Luzia	Lucía	Lucie
Luziano	Luciano	Lucien
Ma(g)dalena	Magdalena	Madeleine
Mamerto	Mamerto	
Mami	Mamés	
Manuel	Manuel	Manuel
Margarita	Margarita	Margarite
Maria	María	Marie
Mark(o)	Marcos	Marc
Mateo	Mateo	Matthieu
1. Martin, 2. Martie	Martín	Martin
Matias	Matías	Matthias
Maurizio	Mauricio	Maurice
Maximo	Máximo	
Meliton	Melitón	
Meltxor	Melchor	
Mikel	Miguel	Michel
Monika	Mónica	Monique
Nemesio	Nemesio	
Nikolas	Nicolás	Nicolas
Norbert(o)	Norberto	
Olegario	Olegario	
Oskar	Oscar (Anscario)	Oscar (Anschaire)
Oto	Odón	
Pankrazio	Pancracio	Pancrace
1. Paskoal, 2. Bazkoare	Pascual	Pascal

Euskara	**Espainieraz**	**Frantsesez**
Patrizia	Patricia	Patrice
Patrizio	Patricio	Patrick
Paula	Paula	
Paulo	Pablo	Paul
Pelaio	Pelayo	Pélage
1. Petri, 2. Peru, 3. Piarres, 4. Pedro	Pedro	Pierre
Pia	Pía	
Pio	Pío	Pie
Polikarpo	Policarpo	Polycarpe
Porfirio	Porfirio	
Prudentzio	Prudencio	Prudence
Rafael	Rafael	Raphaël
Raimund(o)	Raimundo	Raymond
Raul	Raúl	Raoul
Remigio	Remigio	Remi
Rikard(o)	Ricardo	Richard
Robert(o)	Roberto	Robert
Roke	Roque	
Rufo	Rufo	
Rufina	Rufina	
Rufino	Rufino	
Sabino	Sabino	
Salbatore	Salvador	
Sanduru	Santos	
1. Saturnino, 2. Saturdi	Saturnino	
Sebastian	Sebastián	Sébastien
Sekundino	Secundino	
Segismund(o)	Segismundo	Sigismond
Segundo	Segundo	
Serafin	Serafín	
Sergio	Sergio	Serge
Severino/Seberino	Severino	Sévérin
Severo/Sebero	Severo	
Silvestre/Silvestre	Silvestre	Sylvestre
Silvia/Silbia	Silvia	Silvie
Simon	Simón	Simon
Susana	Susana	
Tadeo	Tadeo	
Telesforo	Telesforo	
Teodoro	Teodoro	Thiery
Teofilo	Teófilo	
Teresa	Teresa	Thérèse
Timoteo	Timoteo	Timothée
Tito	Tito	Tite

Euskara	Espainieraz	Frantsesez
Tomas	Tomás	Thomas
Toribio	Toribio	
Torkuato	Torcuato	
Ursula	Ursula	Ursule
Valentin/Balendin	Valentin	Valentin
Venantzio/Benantzio	Venancio	Venance
Veronika/Beronika	Verónica	Véronique
Viktor/Bittor	Victor	Victor
Virginia/Birginia	Virginia	
Xabier	Javier	Xavier
Zelestino	Celestino	Célestin
Zeledonio	Celedonio	
Zesar	César	
Zezilia	Cecilia	Cécil
Ziprian(o)	Cipriano	Cyprien
Zirilo	Cirilo	Cyrille
Zosimo	Zósimo	
1. Zuria, 2. Blanka	Blanca	Blanche

HAUR-IPUINAK

Caperucita Roja/Le Petit Chaperon Rouge: **Txanogorritxo**.

Blancanieves y los siete enanitos/Blanche Neige et les septs nains: **Edurne Zuri eta zazpi nanotxoak (= ipotxak)**.

Pulgarcito/Le Petit Poucet: **Erpurutxo**.

El Gato con Botas/Le Chat Botté: **Katu Botaduna**.

La Cenicienta/Cendrillon: **Mari Errauskin**.

Pinocho/Pinocchio: **Pinotxo**.

Aladino y la lámpara maravillosa/Aladin et la lampe merveilleuse: **Aladin eta kriseilu miragarria**.

La Bella Durmiente del Bosque/La Belle au Bois dormant: **Oihaneko Printzesa lotia**.

El Patito Feo/Le vilain petit canard: **Ahatetxo itsusia**.

La Gallina de los huevos de oro/La poule aux oeufs d'or: **Urrezko arraultzedun oiloa**.

Ali Babá y los 40 ladrones/Ali Baba et les 40 voleurs: **Ali Baba eta 40 lapurrak**.

Alicia en el País de las Maravillas/Alice au Pays des Merveilles: **Alizia Herrialde Miresgarrian.**

Los tres cerditos/Les trois petits cochons: **Hiru txerrikumeak.**

Los siete cabritos y el Lobo/Les sept chevreaux et le Loup: **Zazpi ahumeak (= antxumeak) eta Otsoa.**

La Casita de Chocolate/Hansen et Grettel: **(Hansel eta Gretel eta) Txokolatezko etxea.**

La Alubia mágica/Le Haricot enchanté: **Babarrun miragarria.**

Peter Pan/Peter Pan: **Peter Pan.**

El príncipe encantado/Le prince enchanté: **Printze sorgindua.**

La Bella y la Bestia/La Belle et la Bête: **Ederra eta Piztia.**

La tortuga y la liebre/Le lièvre et la tortue: **Dortoka eta erbia.**

El sastrecillo valiente/Le valliant petit tailleur: **Jostun azkarra.**

La sirenita/La Petite Sirène: **Sirenatxoa.**

Piel de Asno/Peau d'Ane: **Mari Astalarru.**

El soldadito de plomo/Le soldat de plomb: **Berunezko soldadutxoa.**

El libro de la selva/Le livre de la jungle: **Oihaneko liburua.**

GAINERAKO EXONOMASTIKAZ

Antton Gurrutxaga

Txosten honen helburua bikoitza da. Batetik, izenburuko "gainerako" delako hori zer den argitzearren, onomastikaren esparruaz ihardutea, haren ohiko aztergai diren antroponimia eta toponimiaz gain bestelakorik ere badagokion gogoeta egitea alegia. Bestetik, eta idatzi honen egilearen ustetan aurreko galderaren erantzuna baiezkoa izaki, direlako aztergai horiek oro har zein diren eta Euskaltzaindiko Onomastika batzordeak zeinetaz arduratu behar lukeen aztertzea, aldi berean exonimoak direnean aurrikusten diren arazo sistematikoak mahaigaineratuz eta erabakia hartzerakoan kontuan izan behar genituzkeen hautabideak azalduz.

1. ONOMASTIKAREN ESPARRUA (1)

Onomastika izen bereziez arduratzen den hizkuntzalaritzaren atala da eta normalean pertsona- eta leku-izenak aztertzen ditu. Baina bi sail horietara biltzen dira izen berezi guztiak? Mugak zehazteko biderik egokiena izen berezi kontzeptua zer den argitzea dela dirudi. Ezer asmatzen hasi gabe, hobe dugu Euskaltzaindiaren beraren *Euskal Gramatika Laburra: Perpaus Bakuna* liburuan (2) izen bereziak arruntetatik bereizteko proposatzen diren bi irizpideak gogoraztea:

– Formala: izen bereziek ez dute mugatzailerik onartzen.
– Semantikoa: erreferente zehatza dute.

Hala ere, argi adierazten da bertan izen berezi batzuek mugatzailea dutela *(Azpeitia, Azkoitia, Bizkaia,...; Eusko Alderdi Jeltzalea, Euskaltzaindia, Estatu Batuak, Jainkoa...)* (3); eta erreferente zehatza duten *(ilargi, zeru, eguzki,...)*, mugatzailerik onartzen ez duten *(amatxo, aitatxo,...)* edo mugatzailerik gabe erabil daitezkeen *(errege, faraoi,...)* izen batzuk ez ditugula izen berezitzat jotzen.

(1) Ondorengo hausnarketa onomastika osoari dagokio, ez exonimoez arduratzen den atalari bakarrik.

(2) *Euskal Gramatika Laburra: Perpaus Bakuna.* 37. or. Euskaltzaindia, 1993.

(3) Beharbada, inork ez luke sutsu defendatuko jainko hitza onomastikaren azterkizun denik, hitz arrunta dela baizik, zenbaitetan izaki bakar eta jakina erreferente duen forma (letra larriz eta mugatu singularrean) den arren.

Salbuespenak salbuespen, aipatu bi irizpideek izen bereziak mugatzeko lehen oinarria finkatzen dutela onartu beharra dago (4), baina, geure iritziz behintzat, semantika-alderdiari pisu handiagoa ematea komeni da. Ildo horretatik, bi irizpideren konbinazioa litzateke izen bereziaren eta arruntaren arteko bereizketarako giltza: espazioan eta denboran erreferente jakina izatea eta edukin semantikorik ez izatea, alegia, definizio-eran azal daitekeen edo eremu semantikoa mugatuz zehazten den esanahirik ez onartzea, deskribapena edo datu-emate hutsa baizik. Egia da izen berezi batzuek ez dutela erabateko erreferente zehatzik, izaki batena baino gehiagorena izan daitezkeelako eta, beraz, bere soilean anbiguo gertatzen direlako (ponte-izenak, grafia bereko toponimoak,...); ezin esan daiteke ordea, "definiziorik" dutenik, ezin da esan halako ezaugarriak dituenak generikoki halako izen berezia duenik (izen arruntekin gertatzen den moduan). Bada, izendapen hutsak dira eta horregatik dira izen berezi. Jakitun gara auzia ezin dugula guk hemen behingoan ebatzi eta irizpide horiek argituko ez dituzten hainbat zalantza izango direla. Hala ere, horiei lotuko gatzaizkie aurrerantzean.

Horiek horrela, antroponimiaz eta toponimiaz kanpo aipatu baldintzak betetzen dituen izen berezirik baden galdetuz gero, baietz erantzun behar. Esaterako, izaki mitologiko edo fikziozkoenak (horietako asko, gizaki-formaz irudikatzen direnak bereziki, pertsonifikatuak dira eta antroponimiaren atal dira askoren ustez). Pertsona ez diren zenbait izaki bizidunek izen berezia dute (animalia zein landare historiko edo mitologiko batzuek: *Buzefalo, Zerbero; Gernikako arbola, Mallatu arbola,...*; etxabereen izenak, etab.). Orobat zenbait izaki bizigabek *(Titanic, Apollo, Koloseo, Graal Saindua,...)*. Erakundeen izenak ere erreferente zehatza dute eta beste hainbeste esan liteke arterlan eta gertaera historikoez. Izen hauek guztiek oso multzo heterogenoa eta sistematizatzen zaila osatzen dute eta ikerlarien artean ez da sailkapen-bateratasunik.

Bestetik, izen batzuk berezi edo arrunt diren erabakitzeko muga-arazoak daude. Horietan garrantzitsuenak herri, etnia, dinastia eta bestelako giza taldeen izenak dira. Pluralez erabiltzen direnean, erreferente zehatza dute, kolektibo osoaren "izena" baitira. Singularra ere onartzen dute noski, eta orduan kolektibo horretako banako bat adierazten dute. Alderen batera jo behar eta, izen arruntak direla esanez konformatuko gara eta ez, *sensu stricto* bederen, onomastikaren aztergai. Alabaina, onomastikarekin nolabaiteko zerikusia badutela uste dugu eta hona hemen hori esateko hiru arrazoi. Lehenik, munduko eta historiako herri askok ez dute nazio, estatu edo lurraldearen adierazgarri den "toponimorik" edo, baldin badute, herri-izenetik eratorria da *(Dorida, Kurdistan, Turkia, Tailandia...)* (5), eta praktikan pluralezko izendapena izen berezi baten baliokide gertatzen da. Bigarren, horietako izen asko izen berezi den eponimo batetik eratorriak dira (dinastia batzuk, antzinako zenbait herri, talde politiko, sozial edo erlijioso batzuk, etab.) eta grafia erabaki behar denean delako izen bereziaren grafia kon-

(4) Beste irizpide bat, izen bereziak letra larriz hasita idaztearena da. Idazkerari dagokion irizpidea dugu berau, ez hizkuntzaren muineko izaeran oinarritua, nolabaiteko ohitura edo hitzarmen bidez gauzatzen dena baizik. Hala ere, izen berezi gehienak maiuskulaz idazten direla baieztatzea ez da burugabekeria eta aintzat hartzeko irizpidea da beraz.

(5) Hauetako toponimo edo estatu-izen batzuek, gainera, ez dute herriaren hedapen osoa hartzen, *tai* edo *turkiar* herriena adibidez.

tutan hartu behar den, eratorpen-bideari ala mailegu-bideari heldu behar zaion eta bestelako gaiak aztertu behar dira. Hirugarren, multzo honetako izen asko ez dira ohiko hizkuntz hiztegietan biltzen, hiztegi entziklopedikoetan baizik, hots, onomastikari ateak zabaltzen dizkioten lanetan. Azkenik, eta muga-arazo hauek teoriko hutsak ez diren seinale, Euskaltzaindiko Hiztegi Batuko batzordeak berak esana du *Hiztegi Batua osatzeko irizpideak* dokumentuko 30.4. atalean "Jentilizioak eta hizkuntzen izenak oraingoz baztertzekoak dira (cf. Onomastika batzordearen lana)". Onomastika batzordeak heldu dio dagoeneko jentilizioak lantzeari eta ihardunaldi hauetan bertan lan horren emaitza aurkeztu digu.

2. GAINERAKO EXONOMASTIKA OSATZEN DUTEN ALORRAK

Honainokoan "gainerako onomastika" terminoaren esanahi edo edukina zehazten saiatu gara. Sailkapen desberdinak egin litezke; gu geu behintzat honako alorrak bereizteko moduan gaude (6):

2.1. Izaki eta toki mitologiko, alegiazko eta fikziozkoak

Pertsona-izen huts ez izan arren edo erreferente errealik ez ukan arren, horrelako izenak antroponimiaren barruan aztertzeko ohitura dago. Ihardunaldi hauetan bertan, X. Kintana eta A. Eguzkitza mitologi izenei buruz mintzatu zaizkigu. Fikziozko zein literatur obretako pertsonaiei buruz *(On Kixote, Falstaff, Lantzelot Lakukoa, Quasimodo...)* ez zaigu antroponimian aztertu ez den arazorik azalduko eta, oro har, han esan, proposatu eta onartutakoak balio bera du hemen ere. Beste hainbeste toponimiaz *(Walhalla/Valhala; Camelot/Kamelot; Atlantida; Tartaros*; etab.). Bada ordea izen-multzo berezi samarra, hizkuntza batetik bestera nolabait "itzuli" egiten direnena hain justu (herri-ipuinetako pertsonaiena kasu: *Edurnezuri, Erpurutxo, Errauskine, Txanogorritxo, Katu botaduna*, etab.). Horien euskarazko formak tradizioan zein izan diren eta batasunerako zein proposa daitezkeen Onomastika batzordearen lana litzateke (7).

2.2. Gizaki ez diren izaki bizidun zein bizigabeak

Animalia eta landare-izenek osatzen dute atal honen lehen multzoa. Zalantzarik gabe, animaliena, eta bereziki abereena, dugu sail zabalena. Jakina, ez da Euskaltzandiaren lana txakur, behi edo txerri bati zein izen jar dakiokeen eta zein grafia beharko lukeen erabakitzea. Zeregin garrantzitsuagoak ditu. Baina, urriak izan arren, historian, literaturan zein herri-tradizioan badira animali izen bereziak *(Buzefalo, Babieka,...)* (8). Antzeko zerbait esan liteke "objektu"en izen bereziez *(Titanic, Eiffel dorrea, Urrezko Ahari-Larrua, Gordiar korapiloa, Itun Kutxa, Legearen Harlauzak, Graal (Grial?) Saindua, Excalibur, Tizona*, etab.). Horietako ba-

(6) Letra etzanez idatzitako euskarazko grafiek ez dute inolako proposamen-asmorik, adibide hutsak dira.

(7) Izen horietako batzuk ipuinaren beraren izenburua ere badira. Ikus 2.4. puntua.

(8) Aurreko atalean aipatutako izaki mitologiko, alegiazko edo literario asko ere animalia itxurakoak dira.

tzuen grafia antroponimiarako onartutako irizpideak ezarriz finka daiteke; beste batzuek berriz, itzulpen-lana eskatzen dute.

2.3. **Erakundeak**

Berez, erakunde, enpresa, denda, etab.ek bere buruari jarri dioten izenaz zer esanik ez du Euskaltzaindiak. Non da orduan arazoa? Zergatik aztertu behar dugu gai hau txosten honetan? Hain zuzen ere, erakunde askoren izena eta sigla hizkuntza batetik bestera aldatu egiten direlako, ez erakundeak berak hizkuntza bakoitzerako izen ofiziala duelako, delako izen hori komunikabide, liburu, etab.etan "itzuli" egiten delako baizik. Askotan, itzulpenari dagokion sigla ere sortzen da (ONU/UNO/NBE; OLP/PLO/PAE; ANC/CNA/AKN?). Beste batzuetan berriz, erakundearen izen ezagunena jatorrizko sigla da, baina osorik aipatu behar denean, erakundearen izena itzuli egin ohi da, nahiz testuinguru jakinetan jatorrizko hizkuntzazko izen osoa ere ematen den (UNESCO, FMLN, NATO/OTAN, IRA, KGB, CIA, BBC...). Honek ez dakar inola ere berekin delako erakundeak itzulitako izendapen hori bere egitea.

Siglen arazoa ez da erakundeen izenetara mugatzen, bestelako termino edo izendapen askoren laburtzapena ere sigla baita: ADN (azido desoxirribonukleikoa), EMS (Europako Moneta Sistema), UBG (umetokibarneko gailua), etab. Beraz, ez da txosten hau horretaz iharduteko gunerik egokiena. Dena den, sigla gehienak izen bereziak izaten dira eta Euskaltzaindiaren Onomastika batzordea gai honetaz eztabaidatzeko eta proposamenak egiteko foro egokia izan daitekeela uste dugu. Hutsetik ere ez du zertan abiatu. Siglei buruz funtsezko bi lan egin dira euskaraz: UZEIko *Laburtzapenen Gidaliburua*-n siglen eraketa, ebakera, deklinabidea eta itzulpena sakon aztertu eta hainbat proposamen egiten dira; horrez gain, hainbat siglaren grafia eta azalpena ere eskaintzen da, horietako asko erakundeizenak direlarik. *Euskaldunon Egunkaria*ren *Estilo Liburua*-n ere komunikabideetan maizen erabiltzen diren siglen bilduma luzea osatu da. Lan biok dira, dudarik gabe, euskaldunarentzako kontsulta-tresna nagusia, baina zenbait kasutan ez datoz bat. UZEIk ONU/UNO proposatzen duen bitartean, *Egunkariak* NBE darabil. Biek ere "Nazio Batuen Erakundea" hartzen dute erakunde horren euskarazko izendapenerako. Gaur egun maiz erabiltzen diren eta horrelako arazoak sortzen dituzten erakunde eta dagozkien siglei eta haien deklinabideari buruz Euskaltzaindiak gomendioak ematea kazetari, idazle, hiztegigile eta beste hainbati mesedegarri izango zaio.

2.4. **Artelanak**

Bi azpimultzo egin beharra dago:

2.4.1. Obra idatziak; filmeak.

Idatzizko obra batek hizkuntza jakin batean izango duen izenburua delako obra hizkuntza horretara itzultzen denean sortzen da. Itzulpengintzari dagokio, beraz, literatur, zientzi edo filosofi lan batek euskaraz izango duen forma sortzea, eta ez, teorian bederen, liburua osorik itzuli gabe obra aipatu behar duelako izenburua bere kabuz itzultzen duenari. Arazoa egiazkoa da ordea. Esaterako, gaur egun Euskal Herrian irakasle batek literatura unibertsala irakatsi behar due-

nean, obren izenburuak nola edo hala eman beharko ditu, eta euskarara itzulitakoen kopurua gaurkoz hain txikia denez, bere kabuz egindako itzulpenez baliatu beharko du ezinbestean. Ikasleei gertuko zaizkien hizkuntzen kasuan (frantsesa, ingelesa, gaztelania, latina, galiziera, katalana, etab.) jatorrizkoa eman lezake agian (beste kontu bat da ikasleek direlako atzerri-izendapenak erabiliko dituzten), baina beste askotan alferlana litzateke (errusiera, grekoa, alemaniera, etab.). Arazoa hor dago, beraz. Beharbada ez da hemen eztabaidatzekoa.

Filmeen arazoa obra idatziena bezalakoa da hein batean, atzerriko filme baten izenburua herrialde batean banatzen eta proiektatzen denean itzultzen edo egokitzen baita. Hala ere, atzerriko filmeen izenburuak nola itzultzen edo "asmatzen" diren ez da hemen aztertzeko gaia.

2.4.2. Arte plastikoak, arkitektura, musika, etab.

Artelana bera ez noski, baina izenburua askotan itzuli egiten da edo grafia egokituz hartzen da (jatorrizko izendapenaz ezagun direnak gutxienak dira: *Cosi Fan Tutte, Porgy and Bess, Empire State...*). Horrelakoen zerrenda mugagabea da eta inork ez du proposatuko batzordeak izenburuak sistematikoki euskaraz emateari ekitea. Bada ordea, monumentu, eraikin, etab.en kasuan bereziki, batzordearentzako moduko lanik, askotan aldi berean nolabaiteko toponimo ere badirelako. Hona hemen adibide batzuk: *Koloseo/Koliseo/Colosseum/Coliseum; Partenoi/Partenon; Sistoar Kapera(?); Taj Mahal; Kaaba; Alhambra*; etab. Mugatzailearen arazoa sortzen da batzuetan, lehen bi adibideetan bezala (*Koloseoan/Koloseon* izan naiz).

2.5. **Gertaera historikoak**

Aurreko ataleko bigarren puntuan esandakoak balio du hemen ere. Milaka termino daude eta gehienak ez dira Onomastika batzordeak bere gain hartzeko modukoak, historialari eta itzultzaileek aztertzekoak baizik. Gehienaz ere, historiako aro nagusiak eta gertaera historiko handiak azter litezke: *Paleolitoa, Neolitoa, Brontze Aroa, Burdin Aroa, Antzin Aroa/Antzinatea; Erdi Aroa, Er(re)nazimentua/Er(re)nazimendua/Berpizkundea, Ilustrazioa, Argien Mendea, Aufklarung, Iraultza Industriala, II. Mundu Gerra*, etab. Horrelakoen oinarrizko zerrenda denbora gutxian osa liteke.

2.6. **Giza multzoak**

Adieraziaren aldetik atal hau hirutan bana daiteke:

- Herriak, etniak eta kulturak.
- Dinastiak eta familiak.
- Talde politiko, sozial eta erlijiosoak.

Formaren aldetik berriz, bestelako hiru multzo bereiz daitezke:

- Antroponimo edo toponimo batetik eratorriak.
- Eratorri gabeak.
- Jatorrizko izendapenetik itzuliak zein itzuligabeak.

Arazo puntualetatik ihesi, euskarazko grafiak emateko dauden arazo sistematikoak eta dagozkien erabakigaiak zein diren labur-labur azalduko dugu:

2.6.1. Berez eratorriak ez diren herri- eta etnia-izenen euskarazko grafietan *-(t)ar* erabiliko den ala ez: *kurdu(o)/kurduar; zulu/zuluar...* Gure ustez, horrelakoetan ez da atzizkirik behar.

2.6.2. Eratorriak ez diren herri- eta etnia-izenetan gramatika-kategoriaren arazoa dago: izen ezezik izenondo ere badiren erabaki behar da. Gure ustez, izenondo ere badirela onartzea komeni da. Egia da *arte maia* eta *inperio mongola* bezalakoak baino gomendagarriagoa dela *maien artea* eta *mongolen inperioa* erabiltzea, eta horretara joko genuke gehienok seguraski; dena den, baliabide horrek ez du beti balio. *Hilobi etruskoa* eta *piramide maia* terminoek adibidez, *etruskoen hilobia* eta *maien piramidea* direlakoek baino egokiago dirudite, eta *buruzagi siux* zein *konde franko* terminoek, hurrenez hurren, ez dute zertan *siuxen buruzagi* eta *frankoen konde* terminoen esanahi bera izan.

2.6.3. Transkripziozkoak edo transkripziozko erroa duten herri- eta etnia-izenen grafia antroponimia eta toponimiarako proposatu diren taulen bidez ala maileguzko hitz arruntetarako Euskaltzaindiak emandako gomendioen bidez sortu behar den: *bashkir/baxkir; khazak/kazak; shii/chii/xii; sikh/sik/sij;...* Oro har, transkripzioaren bidea hobetsi behar dela uste dugu (ez beti noski; adibidez, euskal prentsan *xii* da nagusi).

2.6.4. Greko eta latinaren bidez heldu zaizkigun eta eratorriak ez diren herri- eta etnia-izenen grafia nola mailegatu. Oro har, herri-izenaren jatorrizko grafia aintzat hartu gabe (jatorrizkorik aurkituz gero noski), gure inguruko erdaretan nagusi diren grafietatik abiatzea proposatzen dugu. Hortaz: *zelta, bisigodo, huno, hitita,...*

2.6.5. Estatu kolonizatzailearen hizkuntzazko grafiaz eta berorren aldaerez heldu zaizkigun eta eratorriak ez diren herri- eta etnia-izenen grafia nola eman. Bi azpimultzo egin behar dira: grafia-aldaerak daudenean *(azteca, aztèque, aztec; pigmy, pigmée, pigmeo)* euskarara egokitu behar dela uste dugu: *azteka, pigmeo.* Aldaerarik ez denean, delako grafia errespetatu ala maileguzko hitz arruntetarako Euskaltzaindiak emandako gomendioen bidez aldatuko den erabaki behar da *(apache/apatxe; crow/krou; chibcha/txibtxa; yoruba/joruba).*

2.6.6. Toponimoaren "erro" diren herri- eta etnia-izenen grafia (hots, toponimoa herri- edo etnia-izenetik eratorria denean). Batzuetan toponimoa historikoki zein formalki herri-izenetik eratorria dela bistakoa da: Turkia, Normandia, Kurdistan, Danimarka, etab. Alabaina, historian atzera joan ahala, bereiztezina gerta daiteke zein den zein baino lehenagokoa (bereziki *-ia, -ea* bukaerako toponimoetan: Asiria, Galia, Media, Kaldea,...). Oro har, eratorria sortzea da ohikoena (Ik. 2.6.7. puntua), baina zenbait kasu berezi badira. Toponimoak *-stan, -landia* bukaera duenean, hobe herri- edo etnia-izena horiek gabe ematea (*kurdu, khazak, tadjik, tai*, etab.). Beste batzuetan zalantza sortzen da: *turko/turkiar; normando/normandiar; saxoi/saxoniar; daniar(?)/danimarkar; mongol/mongoliar;...* (9).

(9) Gogoan izan ez garela estatuko herritarren izenez ari, herri edo etnia-izenez baizik. Planteatzen den zalantza honako hau da: ea Asia Zentraleko *turco/turc/turk* herria Tur-

2.6.7. Ageriko erroa (toponimo zein antroponimoa) duten herri- eta etnia-izenen grafia. Onomastika batzordeak berak jentilizioetarako proposatutako irizpideak ezarriz sortu behar lirateke *(feniziar, akadtar* (10), *joniar, kartagoar, iberiar,...)*. Hala ere, batzuetan eratorbide horrek desitxuratze handia eragiten du: *akaiar/akeo; etruriar/etrusko; semdar/semita; aramdar/arameo/aramear* (azken honetan arazoa hirukoitza da, ikus 2.6.8. puntua). Horrelakoetan eratorria edo mailegua aukeratu behar da.

2.6.8. Eratorriaren itxura duten baina ageriko errorik, edo ezagun den errorik behintzat, ez duten herri- eta etnia-izenak mailegatzean, *-(t)ar* gabe mailegatu ala 2.6.7. puntukoekiko analogiaz jokatu: *arameo/aramear; saduzeo/saduzear; dorio/doriar* (11).

2.6.9. Antroponimotik eratorriak diren dinasti eta famili izenen grafia sortzeko *-tar* atzizkiaz ala maileguaz baliatu: *akemenestarrak / akemenidak; abbastarrak / abasidak; meroveotarrak / merovingioak (merobinjioak?); umaiatarrak / omeitarrak / omeiak; utmandarrak / otomandarrak / otomanoak.*

2.6.10. Abizenetik edo toponimotik eratorritako dinasti eta famili izenak *-tar* atzizkiaren bidez edo *top. + -ko etxea* egituraren bidez sortzen dira *(Tudortarrak, Borgiatarrak, Lancastertarrak, Valoisko etxea...)*. Hala ere, arazo puntual garrantzizkoak badira: Espainia eta Frantziako *Bourbon/Borbon/Borboi* (baita *Borbondar* eta *Borboitar* ere), Eskoziako *Stuart/Stewart/Estuardo*, etab.

2.6.11. Dinastia, talde politiko, sozial, eta erlijiosoak: *-i* bukaera duten izenak askotan *-ita/-ite* bukaeraz hartu dituzte mendebaldeko hizkuntzek. Direlakoak mailegatu behar ditugunean, jatorrizko *-i* bukaera hobetsi ala ingurukoak aintzat hartuz *-ita* bukaera hobetsiko den erabakigai da *(xii/xiita; alaui/alauita; ha(t)xemi/ha(t)xemita; sefardi/sefardita)* (12). Funtsean gauza bera diren arren, ez da komeni erabakigai hau *-i* bukaera duten edo, toponimoak *-ia* edo *-ea* bukaerakoa ez izan arren, amaiera aldean *-i-* edo *-e-* agertzen duten erdal jentilizioen arazoarekin nahastea *(iraní/iranien,-enne/iranian; egipcio,-a/égyptien, -enne/egyptian; europeo,-a/européen,-enne/european)*. Hauek euskaraz *top. + -(t)ar* egituraren bidez ematea proposatu da, gaur egun maiz irakurtzen diren *-iar* eta *-ear* bukaerakoak gaitzetsiz (*irandar*, eta ez *iraniar; *egiptoar*, eta ez *egiptiar ez *egipziar; *europar*, eta ez *europear, etab.) (13).

---

kiako herritarren jentilizioa ere baden *turkiar* hitzaz adieraziko dugun. Beste hainbeste esan liteke gainerako adibideez.

(10) Eta ez *akadiar. Toponimoa *Akad* da.

(11) *dorio/doriar* herriari dagokion toponimoa ez da *Doria, Dorida* baizik, eta herriaren izenetik eratorria dela dirudi.

(12) Erdal komunikabide batzuk ere hasiak dira dagoeneko *-i* bukaera bultzatzen (Ik. *El Pais. Libro de estilo.* 1990, 83. or.).

(13) Hau esanda ez dugu *-iar* atzizkia baztergarria dela aditzera eman nahi. Euskaraz jatorriz dituen funtzioez gain (eskuarki *-tiar, -liar* forman: etxetiar, goiztiar, egoiliar, etab.). *-iar* atzizkia pisu geologikoen izenak sortzeko, zenbait jentilizio "gaizto" sortzeko *(daniar, irakiar, txekiar,...)*, eta antroponimo batetik eratorritako *-iano/-ien(ne)/-ian* bukaerako adjektiboak sortzeko erabili izan da (*kantiar, cartesiar, newtoniar, freudiar*, etab.), nahiz eta azken kasu honetan *-(t)ar* ere oso erabilia den (*nepertar, newtondar, browndar*, etab.). Oso interesgarria da gai honi buruz UZEIko *Berba* aldizkariaren 6. zenbakian Mikel Loinazek egindako azterketa.

2.6.12. Antroponimo (batzuetan toponimo) batetik eratorriak diren talde politiko, sozial eta erlijiosoen izenak. Euskaraz horrelako asko emateko arau orokorrena erroari *-tar* atzizki eranstea da: *frantziskotar, domingotar, agramondar, oinaztar*, etab. Ez beti ordea (bereziki, *-ista, -ismo* bukaerak mailegatzeko joera nabarmena dago: *karlista, marxista*, etab.). Horietako asko ez dira gaur egun euskaraz ematen hasiak, eta *Orotariko Euskal Hiztegia*k argitu beharko ditu *lutertar/luthertar/luterano, kalbindar/kalbinista, girondar/girondino*, etab. bezalako zalantzak. Hala ere, jokabide orokorra zein izango den argi izatea komeni da, grafiak sortzeko eratorpenaz ala mailegutzaz baliatuko garen jakiteko: *marondar/maronita; hustar/husita*, etab.

LATIN JATORRIKO IZEN BEREZIAK EUSKAL IDAZLEETAN

Gidor Bilbao Telletxea

Greziar eta latindar izen berezien katalunierazko transkripzioa aztertzen duen liburu baten hitzaurrea egitean (1), Miquel Dolç jaunak Kataluniako Ertaroko idazleei buruz dioenak oso-osoan balio du, izen berezi horiek euskal tradizio idatzian eskaintzen duten irudia azaltzeko: badira gaurko ikuspegitik ere egokitzat har ditzakegun transkripzioak (*Horazio*: Pouvreau, Gandiaga, Villasante), ez dira gutxi latineko formak osorik edo ezer-ez bat aldatuta ematen dituztenak (*Horatius)*, gaztelaniako edo frantseseko aldaerak hartu dituztenak ere asko dira (*Horace*: Zerbitzari; *Horacio*: Etxeberri Sarakoa), eta baita forma berriak asmatzen dituztenak ere (*Orati*: J. Eguzkitza, Gaztelu, Ibiñagabeitia). Normalizaziorako bidean, haatik, ez dago zalantzarik denak ezagutu behar dituguna.

Exonomastika normalizatzeko kontuan hartu beharko da izen arrunten maileguek hartzen duten bidea, beste hizkuntza batzuek egin dutena eta, berriro gatoz lehengora, tradizio idatzia. Irizpide orokorrei dagokienean ez dugu guk agertuko Ibon Sarasola jaunak exotoponimoen euskal formaz idatziriko artikuluan azaldu ez duenik (2). Irizpide horietako batean oinarriturik, latindar izen bereziak nola aipatu dituzten euskal idazleek ikusi nahi izan dugu. Oraingo helburua aukeren aniztasuna erakustea soilik dugularik, izen hauek euskaraz ematean sortzen diren grafia aldaketak biltzen ahalegindu gara. Hurrengo baterako geratzen da hau bezain garrantzitsu eta are korapilatsuagoa den hitz bukaeren arazoa (lat. *-us* > eusk. *-us / -u / -o / ...* etab.) (3).

Antzinako Grezia, Mesopotamia, Egipto, Pertsia, Israel eta Erromako inperioko izen bereziak, denak izan ditugu ikergai, eta baita Antzinate Berantiarreko batzuk ere, izen horiek ezagutzeko tarteko hizkuntza, hurbileneko erromantzea izan ez denean, latina izan dela pentsaturik. Latinezko formaren ondoan grekozkoa eskaini dugu gehienetan, latinarentzat berarentzat jatorrikoa edo tartekoa izan denean.

Euskaltzaindiaren *Orotariko Euskal Hiztegia*-k 1989an eskuzabaltasunez utzitako izen berezi zerrendak erabili ditugu lan hau burutzeko, aipamen guztiak banan-banan jatorrizko testuetan konpultsatu gabe. Guk eskaintzen dugun forma,

(1) J. ALBERICH & M. ROS, 1993, *La transcripció dels noms propis grecs i llatins*, Bartzelona.

(2) I. SARASOLA, 1991: "Exotoponimoen euskal formaz", *Euskera*, 36, 1051-1079.

(3) Ez dugu haatik aurrerapen gisa aipatu gabe utzi nahi Iparraldeko idazleetan ugari aurkitzen direla gaztelaniazko ordainetatik frantsesezkoetatik baino hurbilago diren formak.

gainera, zerrenda horretan agertzen dena da, hots, *Orotariko Euskal Hiztegia*-ren datutegian sarturikoa (4). Geurea da edozein modutan ere hutsen ardura. *Corpus* hau hautatzean, kanpoan geratu dira latinetik euskarara eginiko itzulpen gehienak (5) baina lan horietan erabilitako irizpide ezberdinek beti dutela *corpus* honetan ordezkariren bat esango genuke eta lanak ez duela, beraz, aniztasunik galtzen. *Orotariko Euskal Hiztegia*-ren zerrendetan agertzen diren egileen ondoren azken lau urteetan argitaratu diren gai honi buruzko lanetan proposaturiko formak ere eman ditugu, hots Sarasolaren aipatu artikulukoak, Elhuyar elkartearen *Munduko Leku-Izenak* eta *Munduko Pertsona-Izenak* liburuetakoak, eta Andolin Eguzkitza eta Gorka Palazioren geografidatutegikoak (6). Elhuyar-en proposamenei dagokienean, elkarte honek argitaraturiko hiztegi entziklopedikora ere jo dugu beste liburuetan agertzen ez den formaren bat eskaintzen duenean honek (7). Osotasuna eta hitzak erraz bilatzeko erabilgarritasuna eskaintzen dutelako hautatu ditugu zerrenda eta liburu hauek, beste batzuk gutxietsi gabe (8). Bereziki aipatu nahi genuke Alfonso Irigoien jaunak gai honi buruz berak egindako lanen bilduma gisa argitaratu liburua, asko ikasi baitugu bertan izenen historiari buruz (9).

Beraz, latin izen berezien grafiak euskarara egokitzean gure ustez sortzen diren aldaketen bilduma da lanean aurkezten dena, parentesi angularren artean gure gaurko erabilera agertuz eta euskal tradizio idatzian eskaini diren aldaera ezberdinak kortxete artean emanez. Argi geratu behar da gu ez garela nor Euskaltzaindiaren Exonomastika Azpibatzordeari geure kabuz proposamenik egiteko: soilik geure erabilera agertu nahi izan dugu, bigarren maila baten bada ere, garrantzia euskal tradizioa erakusteari emanez. Ondoren, hortaz, adibide egokiak bilatzen ahalegindu gara, ahal izan den neurrian leku-izenak eta pertsona-izenak nahastuz eta idazleek era anitzetan idatzitakoei lehentasuna emanez. Emandako arau gisa-

(4) Grafiak ez dira beti ez idazleak ez ediziorik hoberenak hautaturikoekin bat etorriko, *Hiztegia*-k berak bere beharretarako egokitu baititu batzuetan; baina hala ere aldaketa horiek ez dute funtsezko eztabaidagaietan eraginik izango eta lan honen izaera kontutan hartuta, lehen hurbilketa bat baino ez denez, forma aniztasuna erakusteko ez du lana baliogabetzen.

(5) 1988a baino lehenagoko itzulpenak ezagutzeko, cf. I. RUIZ ARZALLUZ, 1988: "Catálogo de las traducciones vascas de obras latinas de la Antigüedad", *ASJU* XXII-2, 541-546. Dena den, norbait aipatzekotan ezingo genuke ahaztu Jon Gotzon Etxebarriak bere *Excerpta* aldizkarian egindako itzultzaile lan izugarria. Beranduagokoak dira Piarres Charriton, Imanol Unzurrunzaga eta Boni Urkizuk *Pentsamenduaren Klasikoak* bilduman argitaraturiko lanak edo *Bibliotheca Scriptorum Classicorum Vasconica* delakoan Gidor Bilbao, Iñigo Ruiz Arzalluz eta Guadalupe Lopetegik argitarabidean dituztenak.

(6) Sarasolaren aipatu artikulua, aurrerantzean *Sarasola*. ELHUYAR, 1990: *Munduko Leku-Izenak*, Usurbil; aurrerantzean *MLI*. ELHUYAR, 1992: *Munduko Pertsona-Izenak*, Usurbil; aurrerantzean *MPI*. A. EGUZKITZA & G. PALAZIO, 1991: *Geografidatutegia*, Bilbo; aurrerantzean *Geografidatutegia*.

(7) ELHUYAR, 1993: *Hiztegi Entziklopedikoa*, Usurbil; aurrerantzean Elhuyar.

(8) Ez dugu erabili, adibidez, *Lur Entziklopedia*, amaitu gabe dagoelako. Hala eta guztiz ere, *corpus*-ean lekukotasun egokirik aurkitu ez eta izan dugu noizbait hortik kanpoko idazle edo lanen bat aipatu beharra. Parentesi artean eman dugu halakoetan idazle edo lanaren izena.

(9) A. IRIGOIEN, 1994: *Pertsona-izenak euskaraz nola eman*, Bilbo.

koen salpuespenak edo aipatu beharreko ñabardurak aurkitu ditugunean, heiagora ikurrez markatu eta aurkeztu ditugu.

<bokala> : <bokala>

!! Ptolemaeus (< Πτολεμαῖος)
Tolomeo: Iztueta
Ptolomeu: Ibiñagabeitia
Ptolomeo: Leizarraga, A. M. Zabala, Hiribarren, J. M. Barandiaran. MPI

Ptolemais, Ptolemaida (< Πτολεμαΐς) (10)
Tolemai: (Olabide)
Tolemaida: Beobide, (Elizen Arteko Biblia: *Itun Berria*)
Ptolemaida: (Duvoisin), (Kerexeta)

!! Vergilius, Virgilius (11)
Vergili: Orixe
Bergili: Ibiñagabeitia, Onaindia
Bergilio: Ibiñagabeitia (behin)
Virgile: Zerbitzari
Virgili: Lizardi
Virjilio: Azkue
Virgilio: Etxeberri Sarakoa, V. Mogel, Hiribarren, Lizardi, Irazusta, Ibiñagabeitia. MPI
Birgili: Orixe, Gaztelu, Ibiñagabeitia (behin)
Birjilio: Iztueta, Jon Eguzkitza, Berrondo
Birgilio: Azkue

<y bokalikoa> : <i> [y]

Aegyptus (< Αἴγυπτος)
Egyptu: Etxeberri Ziburukoa
Ejypte: Leizarraga
Egypte: Leizarraga, Pouvreau
Egyptoa: Hiribarren, Zerbitzari, Barbier
Ejypto: Mihura, Hiribarren
Egypto: Materre, Mendiburu, Larregi, Zaldubi
Aigito: Orixe, Zaitegi, Ibiñagabeitia
Ijitu: Mogel
Ijito: Ubillos
Igito: Orixe, Ubillos
Egipta: Belapeire, Egiategi, Intxauspe
Ejipta: Belapeire, Intxauspe

(10) Pertsona izenean bigarren silabako bokala lehenengo silabakoarekin asimilatu da, leku-izenean ordea ez da asimilaziorik gertatu.

(11) Latinez bi aldaerak aurkitzen dira, baina eskuizkriburik hoberenetan lehena da erabili ohi dena.

Egipte: Materre, Pouvreau
Ejipte: Leizarraga, Pouvreau, Etxeberri Ziburukoa
Egiptu: Gasteluzar
Ejiptu: Etxeberri Ziburukoa, Gasteluzar, Laneufville Katixima, J. J. Mogel
Ejiptoa: Mihura, Zerbitzari, Jauffret Katixima
Ejito: Añibarro, Frai Bartolome, Xenpelar, Beobide, Urruzuno, B. Enbeita, Anabitarte
Ejipto: Axular, Baratziart, Mihura, Agirre Asteasukoa, Etxagarai, Gerriko, Duhalde, Iztueta, Arrese Beitia, Lardizabal, Iraizoz, Inza, Argi Done Laburra, Iraizoz, J. M. Barandiaran, Jauffret Katixima
Egipto, Egypto: Geografidatutegia
Egipto: Etxeberri Sarakoa, Kardaberaz, Mendiburu, Larregi, Laneufville Katixima, Jes. Bih., Uriarte, Lardizabal, Altuna, Inza, Zerbitzari, Ibiñagabeitia, Mirande, Aresti. MLI, Sarasola.

Babylon, Babylonia (< Βαβυλων, Βαβυλωνία)
Babyloni(ko): Mendiburu
Babylonia: Etxeberri Sarakoa, Mendiburu, Hiribarren, Arbelbide. Geografidatutegia
Babilon: Orixe, Iraizoz
Babilona: Zerbitzari
Babilone: Leizarraga
Babiloni: Orixe, Zaitegi
Babilonija: Uriarte, J. J. Mogel, Frai Bartolome
Babilonia: Etxeberri Ziburukoa, Axular, Etxeberri Sarakoa, Kardaberaz, Ubillos, Mogel, Agirre Asteasukoa, Gerriko, Monho, Xarlemaña, Arrese Beitia, Duvoisin, Lardizabal, G. Arrue, Inza. MLI, Sarasola

Byzantium (< Βυζάντιον)
Byzantzio: Geografidatutegia
Bizantzio: Mirande. Elhuyar, Sarasola

Libya (< Λιβύη)
Liby: Mendiburu
Libya, Libia: Geografidatutegia
Libi: Zaitegi
Libia: Lardizabal, Arrese Beitia, Altuna, Mirande. MLI, Sarasola

Syria (< Συρία)
Syri: Mendiburu
Syria: Agirre Asteasukoa, Larregi, Zerbitzari
Syria, Siria: Geografidatutegia
Siria: Leizarraga, Etxeberri Sarakoa, Ubillos, Mogel, Agirre Asteasukoa, Iztueta, Lardizabal, Beobide, J. I. Arana, Lardizabal, Intxauspe, Iraizoz, Zerbitzari, J. A. Irazusta, Ibiñagabeitia. MLI, Sarasola.

Tyrrhenus (< Τυρρηνός)
Tirreni: Ibiñagabeitia
Tirreniar Itsasoa: Geografidatutegia, MLI, Sarasola

<yi> : <i>

Harpyia (< 'Αρπυια)
Arpia: Santi Onaindia
Harpia: MPI

<j-> : <j-> [i-; y-]

Juno
Yunon: Goihetxe
Iunon: Ibiñagabeitia
Iuno: Orixe, Ibiñagabeitia
Juno: Ubillos, E. M. Azkue. MPI

Julius
Julio: Etxeberri Sarakoa, Mogel, Iztueta, Lardizabal, Berrondo. MPI

!! Iulus, Julus (12)
Julio *(sic)*: MPI

!! Jugurtha (13)
Jugurta: MPI

Iocasta (< Ιοκδστη)
Jokasta: MPI
Iokaste: Zaitegi

!! <Hie->

Hiero (< 'Ιερών)
Ieron: Zaitegi
Hieron: MPI

Hieronymus (< 'Ιερώνιμος)
Hieronimo: Axular, Pouvreau, Lapitz
Ieronimo: Axular
Jeronima: Akesolo
Jeronimo: Axular, Larramendi, Etxeberri Sarakoa, Kardaberaz, Mogel, Añibarro, Frai Bartolome, J. J. Mogel, Agirre Asteasukoa, Gerriko, Iztueta, J. I. Arana, Xenpelar, Lardizabal, Duvoisin, Lapitz, Inza. MPI

Hierusalem (< 'Ιερουσαλήμ)

---

(12) Latinez hiru silabako izen gisa aurkitzen da bi silabako bezala baino sarriago. Balio bokaliko hutsa adierazteko <i> eta balio erdikontsonantikoa adierazteko <j> erabili dugu latin hitzetan.

(13) Elkarren ondoren ematen ditugu Numidiako erregearen eta Ediporen amaren izenak, gaztelaniak biak bide beretik egokitu arren (*Yugurta* eta *Yocasta*) latinez lehena hiru silabakoa eta bigarrena lau silabakoa zirela azpimarratzeko, hots, erdikontsonantez hasten zela latinez Numidiako erregearen izena, baina ez Laioren emaztearena.

Hierosolyme (< 'Ιεροσόλυμα): Erkiaga
Hierusalem: Etxeberri Ziburukoa, Pouvreau
Ierusalam: Argainarats
Ierüsalem: Belapeire
Ierusalem: Leizarraga, Etxeberri Ziburukoa, Materre, Axular, Oihenart, Pouvreau, Orixe
Ierusalen: Etxeberri Ziburukoa, Orixe
Yerusalem: passimYerusalen: Gerriko, S. Mitxelena
Jerusaleme: Duhalde, Jes. Bih., Lapitz, Zerbitzari, Jauffret Katixima, Baladak
Jerüsalame: Maister, Laneufville Katixima
Jerüzalem: Uskara Libria
Jerüsalem: Belapeire, Uskara Libria, Intxauspe, Zubererazko Doktrina
Jerusalem / Jerusalen: MLI, Sarasola
Jerusalem: passim. Geografidatutegia
Jerusalen: passim

<-j-> : <-i-> [-j-; -y-]

Lajus, Laius (< Λάϊος)
Lai: Zaitegi
Laios: Zaitegi (behin)
Laiya: (BNP 178 Pastorala)
Laio: Zaitegi (behin). Elhuyar (s.v. Edipo)

Troja, Troia (< Τροία, Τρωία)
Troja: Etxeberri Sarakoa
Troya: Zaitegi, Gaztelu
Troia: Mendiburu, Zaitegi, Orixe, Ibiñagabeitia. Elhuyar, Sarasola.

Plejas, Pleias (< Πλειάς, Πληίάω)
Pleiada(k): Ibiñagabeitia
Pleiade(ak): MPI

!! Ajax (< Αίας)
Ajax: MPI
Aiax: Ibiñagabeitia

!! Trajanus
Trajano: Mendiburu, J. M. Barandiaran. MPI

<ae> : <e> [ae; ai]

Aegyptus (< Αἴγυπτος)
Aigito: Orixe, Zaitegi, Ibiñagabeitia
Ijitu (14): Mogel

(14) Ez dugu <i> grafia <ae>-ren ordainen artean sartu, soilik izen jakin honen historiarekin zerikusia duelako.

Ijito: Ubillos
Igito: Orixe, Ubillos
Ejypte: Leizarraga
Egypte: Leizarraga, Pouvreau,
Ejipte: Leizarraga, Pouvreau, Etxeberri Ziburukoa Egipte: Materre, Pouvreau
Ejipta: Belapeire, Intxauspe
Egipta: Belapeire, Egiategi, Intxauspe
Ejiptoa: Mihura, Zerbitzari, Jauffret Katixima
Ejipto: Axular, Baratziart, Mihura, Agirre Asteasukoa, Etxagarai, Gerriko, Duhalde, Iztueta, Arrese Beitia, Lardizabal, Iraizoz,Inza, Argi Done Laburra, Iraizoz, J. M. Barandiaran, Jauffret Katixima
Egyptoa: Hiribarren, Zerbitzari, Barbier
Ejypto: Mihura, Hiribarren
Egypto: Materre, Mendiburu, Larregi, Zaldubi
Ejito: Añibarro, Frai Bartolome, Xenpelar, Beobide, Urruzuno, B. Enbeita, Anabitarte
Ejiptu: Etxeberri Ziburukoa, Gasteluzar, Laneufville Katixima, J. J. Mogel
Egyptu: Etxeberri Ziburukoa
Egiptu: Gasteluzar
Egipto, Egypto: Geografidatutegia
Egipto: Etxeberri Sarakoa, Kardaberaz, Mendiburu, Larregi, Laneufville Katixima, Jes. Bih., Uriarte, Lardizabal, Altuna, Inza, Zerbitzari, Ibiñagabeitia, Mirande, Aresti. Sarasola, MLI

Aegisthus (< Αἴγισθος)
Aigist: Zaitegi
Egista: Zaitegi
Egisto: Axular. MPI

Caesar
Coesar: Egiategi (15)
Kaiser: Lizardi, Gaztelu
Caesar: Etxeberri Sarakoa, Mirande
Kesar: Ibiñagabeitia.
Zesar: Etxeberri Ziburukoa, Axular, Gasteluzar, Ubillos, Lardizabal, Hiribarren, Berrondo, Baladak. MLI

!! Phaethon (< Φαέθων) (16)
Phaeton: IbiñagabeitiaFaeton: MPI

!! Pasiphae (< Φασιφάη) (17)
Pasiphae: Ibiñagabeitia
Pesiphae: Ibiñagabeitia

(15) *ae / oe* diptongoen nahastetik sorturiko forma da Egiategirena (cf. *caelum / coelum*).
(16) Latinez ez dago izen honetan diptongorik, *a* eta *e* biak bokal laburrak baino.
(17) Latinez ez dago izen honetan diptongorik, *a* laburra eta *e* luzea baitira.

Pasifae: MPI

!! Aetius
Aezio: MPI

<oe> : <e> [oi]

Phoebus (< Φοῖβος)
Poib: Zaitegik
Phebu: Ibiñagabeitia
Phebus: Oihenart, Ibiñagabeitia (behin)
Febus: Gasteluzar
Febo: Arrese Beitia, Hiribarren, Berrondo. MPI

Oedipus (< Οἰδίπους/Οἰδίπος)
Oidipu: Zaitegi
Edipa: (BNP 178 Pastorala)
Edipo: MPI

Phoenicia, Phoenice (< Φοινίκη)
Poinike: Orixe.
Penizia: J. M. Barandiaran
Phenizia: Goihetxe
Fenizia: Iztueta, Hiribarren, Inza. Sarasola, Elhuyar.

!! Boethius (18)
Boecio: Etxeberri Sarakoa
Boezio: MLI

<h-> : <h-> [ø] (cf. <Hie-> supra)

Horatius
Oratio: Axular
Orati: J. Eguzkitza, Gaztelu, Ibiñagabeitia
Horatio: Otxolua
Horace: Zerbitzari
Horacio: Etxeberri Sarakoa
Horazio: Pouvreau, Gandiaga, Villasante. MPI

Hannibal, Annibal (19)
Annibal: Hiribarren
Anibal: Axular, J. M. Zabala, Pedro Astarloa, Berrondo
Hannibal: Goihetxe
Hanibal: MPI

---

(18) Latinez ez dago izen honetan diptongorik, *o* laburra eta *e* luzea baitira.

(19) Latinez ugari izan dira <h> letrarekin nahiz gabe idazten ziren hitz-formen bikoteak: *honus / onus, aruspex / haruspex...*

<z> : <z> [tz]

Byzantium (< Βυζάντιον)
Byzantzio: Geografidatutegia
Bizantzio: Mirande. Elhuyar, Sarasola

Zeus (< Ζεύς)
Tzeu: Zaitegi
Zeus: Villasante, Zerbitzari, Ibiñagabeitia. MPI

<th> : <t> [th]

Thebae (< Θῆβαι)
Thebes: Larregi
Tebe: Zaitegi
Tebas: Lardizabal. Elhuyar, Sarasola

Demosthenes (< Δημοσθένης)
Demosthene: Zaitegi
Demosthenes: Hiribarren
Demostene: Axular
Demostenes: Axular, Frai Bartolome, Gaztelu. MPI

<tth> : <t>

Pittheus (< Πιτθεύς)
(Piteo)

<c> : <k> [c] (20)

<qu> : <k> [qu]

Quintilianus
Quintilien: Zerbitzari
Quintiliano: Etxeberri Sarakoa, Kardaberaz
Kintilian: Egiategi
Kintiliano: Kardaberaz. MPI

Aquitania
Akitania: Hiribarren, J. M. Barandiaran. MLI

Aquinum
Aquinas (< lat. adj. Aquinas): Etxeberri Sarakoa
Aquino: Geografidatutegia, MPI (s.v. Tomas Aquinokoa)
Akin(eko): Jauretxe
Akino: Zaitegi, Zerbitzari

(20) Hitz arruntak idaztean ere euskaraz <k> erabiltzeko ohitura aski berria denez, ez dugu uste hemen <c> eta <k> grafien adibideak biltzeak ezer jakingarririk jarriko lukeenik agerian.

<ce> : <ze> [ce; ke]

<ci> : <zi> [ci; ki]

<cy> : <zi> [zy]

Cicero
Kikero: Orixe, Zaitegi
Kikeron: Gaztelu, Zaitegi.
Cicero: Mirande
Ciceron: Etxeberri Sarako, Frai Bartolome, Mogel, Uriarte, Hiribarren, Lizardi
Zizeron: Axular, Kardaberaz, Agirre Asteasukoa, Arrese Beitia, Villasante, M. Atxaga, Berrondo, Zerbitzari. MPI

Cyrus (< Κύρος)
Zyro: Axular
Ziro: MPI

Caesar
Kaiser: Lizardi, Gaztelu
Kesar: Ibiñagabeitia.
Coesar: Egiategi
Caesar: Etxeberri Sarakoa, Mirande
Zesar: Etxeberri Ziburukoa, Axular, Gasteluzar, Ubillos, Lardizabal, Hiribarren, Berrondo, Baladak. MPI

!! Cypros, Cyprus (< Κύπρος)
Chipre: Uriarte, Beobide.
Txipre, Cypre: Geografidatutegia
Txipre, Xipre: Sarasola.
Txipre: Lardizabal, Inza, Ibiñagabeitia, Aresti. MLI

!! C.: Gaius; C. (atzekoz aurrera): Gaia; Cn.: Gnaeus (21)
Caio: Pedro Astarloa, Lardizabal
Kaio: MPI (s.v. Zesar)
Kneo: MPI (s.v. Ponpeio)
Gaio: Leizarraga, Lardizabal

<ge> : <ge>

<gi> : <gi> [ki]

Germanicus
Germaniko: Mogel. MPI

Gorgias (< Γοργίας)
Gorgia: Zaitegi
Gorgias: Zaitegi (behin). MPI

(21) Latin zaharrean <C> letrak adierazten zuen gero <G> letrak adieraziko duena ere. Garai hartako aztarna gisa geratu dira laburdura hauek latinez beti /g-/ batekin esan diren izen hauentzat.

Phrygia (< Φρυγία)
Phrygeia: Mirande
Pirkija: Otxolua
Phrygi: Mendiburu
Phrigia: Etxeberri Sarakoa
Frigia: Egiategi, Lardizabal, Zaitegi. Sarasola, Elhuyar

<x> : <x> [j]

Maximus
Maximo: Etxeberri Sarakoa, Pouvreau. MPI

Sextus
Sextu: Ibiñagabeitia
Sexto: MPI

Syphax
Sifax: MPI

Xenophon (< Ξενοφῶν)
Jenofonte: Arradoi
Xenophon: Zaitegi (behin)
Xenofon: MPI
Xenoponta: Zaitegi
Xenofonte: Berrondo

Xerxes (< Ξέρξης)
Xerxa: Zaitegi
Xerxes: MPI, (Euskaltzaindia - Maileguen idazkeraz)

Alexandria (< 'Αλεξανδρεια)
Alejandri: Ibiñagabeitia
Alejandria: J. J. Mogel, Agirre Asteasukoa, Lardizabal, Beobide, G. Arrue
Alexandri(ko): Mendiburu, Orixe
Alexandria: Pouvreau, Larregi, Andredena Mariaren Ilhabetea, Intxauspe, Lardizabal, Ibiñagabeitia. MLI, Sarasola

<ch> : <k> [x, kh, ch, qu, c]

Achilles (< 'Αχιλλεύς)
Akhiles: Egiategi
Akileu: Ibiñagabeitia, Mirande
Akilles: Frai Bartolome
Akiles: Villasante, Ibiñagabeitia, Mirande. MPI

Antiochus (< 'Αντίοχος)
Antiochos: Egiategi
Antiochus: Baratziart, Zerbitzari
Antioco: Mogel
Antioka: Xarlemaña
Antiokus: Zubererazko Doktrina, Jauffret Katixima
Antioko: Axular, Mendiburu, Ubillos, Agirre Asteasukoa. MPI

Antiochia, Antiochea (< Αντίοχεια)
Antioxe: Leizarraga
Antiokhe: Duvoisin
Antioke: Larregi
Antioki: J. A. Irazusta
Antiokia: Agirre Asteasukoa, Lardizabal, Hiribarren, Beobide, Inza, Iraizoz, J. A. Irazusta. Sarasola, MLI

<cch> : <k> [c, kh]

Bacchus (< Βάκχος)
Bakhus: Goihetxe
Bakus: Monho, Ibiñagabeitia
Bak: Orixe, Zaitegi, Ibiñagabeitia
Bako: Ubillos, Frai Bartolome, E. M. Azkue, Bilintx, Otxolua, San Martin. MPI

Gracchus
Graco: Mogel
Grako: MPI

<-ti-> + <bok.> : <-zi-> + <bok.> [ti, ci]

<-ty-> + <bok.> : <-zi-> + <bok.>

<s/x/t/anti> + <-ti-> + <bok.> : <s/x/t/anti> + <-ti-> + <bok.>

<s/x/t/anti> + <-ty-> + <bok.> : <s/x/t/anti> + <-ti-> + <bok.>

Horatius
Orati: J. Eguzkitza, Gaztelu, Ibiñagabeitia
Horatio: Otxolua
Oratio: Axular
Horace: Zerbitzari
Horacio: Etxeberri Sarakoa
Horazio: Pouvreau, Gandiaga, Villasante. MPI

Antiochus (< 'Αντίοχος)
Antiochos, Antiochus, Antioco, Antioka, Antiokus, Antioko; cf. <ch>

!! Actium ('Ακτιον)
Aktium: Elhuyar

<n/r/l> + <s> : <n/r/l> + <ts> [<n/r/l> + s]

<n/r/l> + <ce> : <n/r/l> + <tze> [<n/r/l> + ce, ze]

<n/r/l> + <ci> : <n/r/l> + <tzi> [<n/r/l> + ci, zi]

<n/r/l> + <ti> : <n/r/l> + <tzi> [<n/r/l> + ti, ci, zi]

Pontius
Pontio: Gasteluzar

Poncio: Kardaberaz, Larregi, Laudioko Doktrina, Mogel, Legaz, Zaraitzuerazko Doktrina, Jauffret Katixima, Mendigatxa
Ponzio: Leizarraga, Materre, Belapeire, Pronus, Burgosko Doktrina, Baratziart, Laneufville Katixima, Baztango Doktrina, Busturiko Doktrina, Mogel, Agirre Asteasu, Uskara Libria, Añibarro, Lardizabal, Hiribarren, Zuberoako Doktrina, Aezkoako Doktrina, Erronkariko Doktrina, Iraizoz, Jauffret Katixima, Ulzamako Doktrina, Oskillaso
Pontzio: Luzaideko Doktrina, Kristiñau-Ikasbidea Bizkaieraz, Inza, Argi Done Laburra, Kristiñau-Ikasbidea Gipuzkeraz, Zerbitzari, N. Etxaniz. MPI

<f> : <f> [p]

Festus
Festus: Leizarraga
Festo: Etxeberri Sarakoa, Lardizabal. MPI

Faustus
Paustu: Orixe
Faustu: Orixe (behin)
Fausto: Lapitz, Erkiaga. MPI

Africa
Apirka: Kirikiño, Tomas Agirre
Aprika: Frai Bartolome, Beobide, Txomin Agirre, Etxeita, Kirikiño, J. M. Barandiaran, Alzaga, Orixe, Ibiñagabeitia, Etxaniz, Anabitarte, Munita
Africa: Mendiburu
Afrika: Etxeberri Sarakoa-z geroztik, passim. Sarasola, Geografidatutegia, MLI

<ph> : <f> [ph, p]

Phoebus (< Φοῖβος)
Poib: Zaitegik
Phebu: Ibiñagabeitia
Phebus: Oihenart, Ibiñagabeitia (behin)
Febus: Gasteluzar
Febo: Arrese Beitia, Hiribarren, Berrondo. MPI

Phoenicia, Phoenice (< Φοινίκη)
Poinike: Orixe
Penizia: J. M. Barandiaran
Phenizia: Goihetxe
Fenizia: Iztueta,Hiribarren, Inza. Sarasola, Elhuyar.

Xenophon (< Ξενοφῶν)
Xenoponta: Zaitegi
Xenophon: Zaitegi (behin)
Xenofon: MPI

Jenofonte: Arradoi
Xenofonte: Berrondo

<pph> : <f> [p]

Sappho (< Σαπφώ)
Sapo: Zaitegi
Safo: MPI

<ps> : <ps>

Psammetichus (< Ψαμμητιχος)
Psammetico: Etxeberri Sarakoa
Psametiko: MPI

Thapsus (< Θάψος)
Tapso: Elhuyar

<pt> : <pt> [t]

Ptolemaeus (< Πτολεμαῖος)
Tolomeo: Iztueta
Ptolomeu: Ibiñagabeitia
Ptolomeo: Leizarraga, A. M. Zabala, Hiribarren, J. M. Barandiaran. MPI

Aegyptus (< Αίγυπτος)
Aigito: Orixe, Zaitegi, Ibiñagabeitia
Ijitu: Mogel
Ijito: Ubillos
Igito: Orixe, Ubillos
Ejito: Añibarro, Frai Bartolome, Xenpelar, Beobide, Urruzuno, B. Enbeita, Anabitarte
Egipta: Belapeire, Egiategi, Intxauspe
Ejipta: Belapeire, Intxauspe
Egipte: Materre, Pouvreau
Ejipte: Leizarraga, Pouvreau, Etxeberri Ziburukoa
Egypte: Leizarraga, Pouvreau,
Ejypte: Leizarraga
Ejiptoa: Mihura, Zerbitzari, Jauffret Katixima
Egypto: Materre, Mendiburu, Larregi, Zaldubi
Egyptoa: Hiribarren, Zerbitzari, Barbier
Ejypto: Mihura, Hiribarren
Egiptu: Gasteluzar Ejiptu: Etxeberri Ziburukoa, Gasteluzar, Laneufville Katixima, J. J. Mogel
Egyptu: Etxeberri Ziburukoa
Ejipto: Axular, Baratziart, Mihura, Agirre Asteasukoa, Etxagarai, Gerriko, Duhalde, Iztueta, Arrese Beitia, Lardizabal, Iraizoz, Inza, Argi Done Laburra, Iraizoz, J. M. Barandiaran, Jauffret Katixima
Egipto, Egypto: Geografidatutegia

Egipto: Etxeberri Sarakoa, Kardaberaz, Mendiburu, Larregi, Laneufville Katixima, Jes. Bih., Uriarte, Lardizabal, Altuna, Inza, Zerbitzari, Ibiñagabeitia, Mirande, Aresti. Sarasola, MLI

<nct> : <nt>

Cunctator
Kuntator: MPI

<rct> : <rt>

Antarcticus (< Ανταρκτικός)
Antarktiar: MLI, Geografidatutegia
Antartiar: Sarasola

<r-> : <r-> [err-]

Romulus
Erromul: Ibiñagabeitia
Romulus: Egiategi
Romulo: Etxeberri Sarakoa. MPI

!! Roma
Roma: Leizarraga, Mercy, Xarlemaña, Goñi
Errüme: Belapeire
Errume: Kardaberaz, Zubererazko Doktrina
Errouma: Xarlemaña
Erruma: Kardaberaz, Jes. Bih., Etxaun, Xarlemaña, Lapitz, Zubererazko Doktrina, Etxaide
Erroma: passim. Sarasola, MLI, Geografidatutegia

<rh-> : <r-> [err-, errh-, rh-]

Rhodos, Rhodus (< 'Ρόδος) cf. Sarasola
Rhodes: Leizarraga, Haraneder
Rhode: Haranader
Rhodas: Etxaun. Geografidatutegia
Errhodes: Duvoisin
Errode: Olabide
Rodese: Lapitz
Rodes: Ibiñagabeitia
Rodes, Rodas: Sarasola
Rodas: Anabitarte, Aresti, Kerexeta. MLI

<s-> + <konts.> : <es-> + <konts.> [<s-> + <konts.>]

Sparta (< Σπάρτη)
Spartea: Etxeberri Ziburukoa
Sparta: Leizarraga

Esparte: Zaitegi
Esparta: Jon Eguzkitza,Ibiñagabeitia. Sarasola, MLI

Strabo (< Στράβων)
Strabon: Etxeberri Sarakoa
Estrabon: Iztueta, Hiribarren. MPI

Scipio
Scipio: Egiategi
Scipion: Etxeberri Sarakoa
Szipion: Axular, Hiribarren
Escipion: Mogel
Eskipion: Ibiñagabeitia
Eszipion: MPI

<ll> : <l> [ll]

Achilles (< 'Αχιλλεύς)
Akilles: Frai Bartolome
Akileu: Ibiñagabeitia, Mirande
Akhiles: Egiategi
Akiles: Villasante, Ibiñagabeitia, Mirande. MPI

Tertullianus
Tertullien: Hiribarren
Tertulian: Axular, Egiategi, Duhalde, Zerbitzari
Tertulien: Hiribarren, Inza, Gaztelu, Villasante
Tertuliano: Pouvreau, Etxeberri Sarakoa, Cardaberaz, Frai Bartolome, J. J. Mogel, Agirre Asteasukoa. MPI

Gallia
Gallia: Mirande
Galia: Mirande. Sarasola, Elhuyar

Illyria (< 'Ιλλυπία)
Illyria(r): Mirande
Iliri: Ibiñagabeitia.
Iliria: Sarasola, Elhuyar

<bb, mm, nn, pp, ss, tt> : <b, m, n, p, s, t> [CC]

Gabba
(Gaba)

Psammetichus (< Ψαμμήτιχος)
Psammetico: Etxeberri Sarakoa
Psametiko: MPI

Ennius
Ennio: E. M. Azkue
Enio: MPI

Appuleius
Apulejo: Etxeberri Sarakoa
Apuleio: MPI

Thessalia (< Θεσσαλία)
Thesalia: Ibiñagabeitia
Tesali: Ibiñagabeitia, Zaitegi
Tesalia: Sarasola, MLI

Attica (< 'Αττική)
Atike: Zaitegi
Atika: Ibiñagabeitia. MPI

<cc> : <k>

<cci> : <kzi>

<cce> : <kze>

Ecclesiasticus (< 'Εκκλησιατικός)
Eklesiastiko: Etxeberri Sarakoa, Frai Bartolome
Accius, Attius
Akzio: MPI

<mn> : <mn> [m]

Clytaemnestra (< Κλυταιμνήστρα)
Kilitaimeste: Zaitegi
Klitemnestra: MPI

<mb> : <nb> [mb]

<mp> : <np> [mp]

<mph> : <nf>

Cambyses (< Καμβύσης)
Kanbises: MPI

Pompeius
Pompe: Gasteluzar
Pompeio: Etxeberri Sarakoa
Ponpe: Zaldubi, Hiribarren
Ponpeiu: Ibiñagabeitia
Ponpejo: Etxeberri Sarakoa
Ponpeio: MPI

Amphitryo(n), Amphitruo(n), (< 'Αμφιτρύων)
Anfitrion: MPI

Amphrysus, Amphrysos (< 'Αμφρυσος)
Anfrosi *(sic)*: Ibiñagabeitia

<herskaria / frikaria> + <r/l> : <dagokion herskaria / frikaria> + <r/l>

[<dagokion herskaria> + <bokala> + <r/l>]

Patrocles, Patroclus (< Πάτροκλης, Πάτροκλος)
Paterokel: (Zaitegi)
Patroklo: MPI

Creta (< Κρήτη)
Kerete: Ibiñagabeitia, Zaitegi
Kretes: Lardizabal
Creta: Mendiburu
Kreta: Leizarraga, Jon Eguzkitza, Ibiñagabeitia, Berrondo, Aresti. Sarasola, MLI, Geografidatutegia.

Clytaemnestra (< Κλυταιμνήστρα)
Kilitaimeste: Zaitegi
Klitemnestra: MPI

Pericles (< Περικλῆα)
Perikel: Zaitegi
Perikles: Axular. MPI

Phrygia (< Φρυγῖα)
Pirkija: Otxolua
Phrygeia: Mirande
Phrygi: Mendiburu
Phrigia: Etxeberri Sarakoa
Frigia: Egiategi, Lardizabal, Zaitegi. Sarasola, Elhuyar

Africa
Apirka: Kirikiño, Tomas Agirre
Aprika: Frai Bartolome, Beobide, Txomin Agirre, Etxeita, Kirikiño, J. M. Barandiaran, Alzaga, Orixe, Ibiñagabeitia, Etxaniz, Anabitarte, Munita
Africa: Mendiburu
Afrika: Etxeberri Sarakoa-z geroztik, passim. Sarasola, Geografidatutegia, MLI

<v> : <b> [v]

Vergilius, Virgilius (> Βεργίλιος) (22)
Vergili: Orixe
Virgile: Zerbitzari
Virgili: Lizardi
Virjilio: Azkue
Virgilio: Etxeberri Sarakoa, V. Mogel, Hiribarren, Lizardi, Irazusta, Ibiñagabeitia. MPI

(22) Latinezko /w/ kontsonantikoa, hots <v>, grekoak bere alfabetora egokitu behar izan duenean batzuetan <ou>, beste batzuetan <u> eta askotan <b> erabili izan du.

Bergili: Ibiñagabeitia, Onaindia
Bergilio: Ibiñagabeitia (behin)
Birgili: Orixe, Gaztelu, Ibiñagabeitia (behin)
Birjilio: Iztueta, Jon Eguzkitza, Berrondo
Birgilio: Azkue

Venus (> Βένους)
Venus: Axular, Pouvreau, Frai Bartolome, E. M. Azkue, Orixe, Ibiñagabeitia. MPI
Benus: Ubillos, Astolasterrak (XVIII. m.), Astolasterrak (XIX. m.), Bilintx

Vespasianus (> Ούεσπασιανός)
Vespasiano: Axular, Mendiburu, Lardizabal. MPI
Bespasiano: Ubillos

Ovidius
Ovidio: Axular, Etxeberri Sarakoa. MPI
Obidi: Ibiñagabeitia
Obidio: Berrondo

Octavius (> 'Οκτάβιος)
Octavius: Ibiñagabeitia
Octavio: J. I. Arana
Oktavio: Axular. MPI
Oktabi: Ibiñagabeitia

Octavianus (> 'Οκταουιανός)
Octaviano: Pedro Astarloa, Txirrita
Oktaviano: MPI
Oktabian: Ibiñagabeitia
Oktabiano: J. M. Zabala, Arrese Beitia

NAFARROAKO ANTROPONIMIA XVI. ETA XVII. MENDEETAN

Andres Iñigo,
Patxi Salaberri

Euskal izenak zein diren finkatzeko orduan, hots, euskal izentzat zer har daitekeen erabakitzeko orduan ezinbesteko iruditzen zaigu toponimiak (hagiotoponimiak bere-ziki, baina ez bakarrik honek) eskaintzen dizkigun materialak, datuak aintzat hartzea. Garrantzi handikoa da, orobat, agirietan berandu arte (XVII-XVIII. mende arte edo. Hemen aldeak badira Nafarroako alderdi batetik bestera, antroponimia euskaldun jator gehien dutenak oraindik ere euskaldun dirautenak direla, guti goiti-beheiti) agertzen diren euskal izen garai batez ohizkoak kontuan hartzea.

Besterik da, ordea, izen eta hagiotoponimo zahar guzti horiek (1) gure egunotan egokiak diren ala ez, baina, dena den, arlo honetan neurriak aski zabalak izaten dira, Sabino Aranaren lanak izan duen arrakasta aintzat hartzen bada (2), eta etsietsiak gaude segidan aipatuko direnetako anitzek lekua badutela (izan dezaketela, alegia) euskal izen normalizatuen zerrendan.

Juan Carrascok argitara eman zuen lanean (3), berriki Alfonso Irigoienek kalera atera duen liburu ederran eta lehenagoko artikulu solte batzuetan bereziki

---

(1) Izenak batzuetan deituretan gorde dira, eta etxe-izenetan, eta hagiotoponimoak erabiliak izan daitezke gaurregun ere, baita hizkuntza arruntean ere, gehienbat bortuaz beste aldeko hizkeretan.

(2) Guztiarekin, hemen ere badira mugak, autore honek proposatutakoak batzuetan aski irenskaitzak suertatzen baitira, izen batzuen erabilerarik ezak ongi frogatzen duen gisara. Gai honetaz ari bela honela mintzo zaigu Alfonso Irigoien euskaltzain bizkaitarra: "Arana Goiri-ren bidetik datorkigun izendegia hor dago eta hainbat saindu-izeni dagokion aldetik eragin handia izan du, baina saindu-izen asko eta asko ez da haurrak bataiatzerakoan haintzat hartu izan, ezta hurrik eman ere, zeren jendearen artean ez baitira iresterrezak", *Pertsona-izenak euskaraz nola eman (eta exotoponimyaz eraskin bat)*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbao, 1994, 19. or. Lan hau aurrerantzean PIENE laburdurarekin aipatuko dugu.

Zalantzarik gabe, maskulinoak **-a**-rekin bukatzea dugu zenbait izenen zabalkundea eragotzi duen faktore nagusia: "Baina, beste alde batetik, nork ipin dieizaioke seme bati gizartean emakumezkoentzat ezagunago litzatekeen moduko izena, hala nola *Adalberta, Adelaida, Adelarda, Agapitta, Agata, Alberta, Aldegunda, Amanda, Antselma, Augusta, Generosa, Jeronima, Kanuta, Monika*, eta abar, eta abar, eta are gehiago, nork ezarriko dio *Begoña* mutil bati? zeren emakumezkoentzat *Begoñe* agertzen baita zerrendan, *Begoña* gizonezkoentzat utzirik [...]", ib., 20. or.

(3) *La Población de Navarra en el siglo XIV*, Iruñea, 1973.

Nafarroan (baina bestetan ere bai. Cf. Del Valle Lersundiren bi lantxoak) ibiltzen ziren izenak azaltzen dira, gehienak Erdi Arokoak. Lan horietan ikuesten den gisan, baziren garai batez euskaldunon artean orain ia zeharo ezezagunak diren hainbeste giza (gizaki)-izen; ia diogu horietako anitz etxe eta toki-izenetan oraindik ere erdi edo erabat ezkutaturik ditugulako, maiz desitxuraketaren jantziaren pean mozorrotuak daukelarik.

Kontua da Nafarroako XVI. eta XVII. mendeetako dokumentazioan XIV. mendean azaltzen ziren izenetako asko eta asko artean ere bizirik zeudela, hots, normaltasun osoz ibiltzen zirela. XVIII. mendean ere uste dugu izen horietako franko azaltzen direla, baina gure ikerlanak batik bat lehenagoko aipatu bi mende horiek izan ditu xede, eta oraingoz horietara mugatuko gara. Izenok horren "berandu" arte bizirik egoteak bide ernan diezaguke, gorago erran dugun bezaía, gaurregun ere horietako asko eta asko erabilgarri izan daitezkeela, alegia, umeak bataiatzeko orduan ponte-izentzat jar dakiziekeela pentsatzeko. Bestela ere hor daude gure euskal autore zaharrek ibiltzen dituzten hainbat sainduizen, batzuetan kanpoko pertsonaia entzutetsuen izenen euskal erabilera zuritzeko ibili izan direnak, baina bestalde baditugu dokumentazioan hain arrunt eta ugariak diren pertsona-izenak, bai eta halaber (hagio)toponimian eta oikonimian aurkitzen ditugun hainbeste izen jator, eta tamalgarria da ikerketarik ez eginagatik honelakoak gehiago aintzakotzat ez hartzea, bi alor horiek harrobi (izenobi, alegia) aberatsa izaki eta.

Erabateko lanik egiteko asmorik gabe, hona hemen guk ibilitako dokumentazioan gehien azaltzen diren antroponimoak:

Adame: aski erabilia izan dela dirudi; pertsona izentzat Nafarroa osoan barrena ageri da (Lesaka, llarregi, Eugi, Larraiotz, Iruñea, Obanos, Garionoain), eta etxe-izenen osagarritzat ere franko arrunta da (Ziaurritz, llarratz, Azotz, Egues-Ibiriku, Lizoain).

Agata: ez dugu sekulan pertsona-izen gisara aurkitu, baina toponimian behin baino gehiagotan azaltzen da, beti erdarazko **Agueda**-ren euskarazko kidetako (Gazolatz, Lerga, Turrillas...).

Andrés, Andreo, Andore: hiruak dokumentatzen dira hagiotoponimian eta oikonimian, eta bigarrena pertsona-izentzat, Estenotzen eta Artazun.

Angel(a), Anxelo, Aingeru: hirugarrena antroponimo modura behin ediren dugu, Garisoainen, eta oikonimo bakun modura bitan (Larunbe, Urtasun); baina oikonimo elkartuetan (alegia, osagarri bat baino gehiago dituztenetan) ere aurkitzen dugu: *Mikelaingerua, Xoaneaingerua* (Doneztebeko etxeak). Lehena eta bigarrena etxe-izen nahiz pertsona-izen modura ageri dira.

Anton(a), Antxon: lehena oikonimian eta dokumentazioan azaltzen zaigu (Betelu, Arakil-Urritzola, Sarasibar, Egues-Ibiriku, Artika, Labio, Elortz, Munarritz); bigarrena bakarrik etxe-izentzat.

Antsako, Anso, Antso, Antsoko, Antxote: hauek, batez ere gizonentzakoak, oso ugariak dira bai pertsona-izentzat eta bai oikonimotzat. Arazo nagusia sudurkari atzean hortz-hobietako igurzkaria **(s)** ala afrikaria **(ts)** duten jakitea da; forma hipokoristikoetan euskarazko sabaiko afrikaria (egun tx idazten duguna) emateko

erdarazko ch ibiltzen da. Bizirik ditugun lekukoetan, etxe-izenetan, hortz-hobietako afrikaria dugu, Malerreka aldean behinik behin: *Antsakonea, Antsokorena* (Doneztebe), *Antsonea* (Ituren).

Arnau(t), Ernaut(on): pentsa daitekeenaren kontra, izenok aski arruntak dira Nafarroa Garaian XVI. mendean. Batzuetan Iparraldetik edo Frantzia aldetik joandako norbaiten izena da (cf. *Arnaut de Baigorri* Madotzen, 1573an, *Hernaut de Jussue* Beriainen, 1588an, *Amaut de pont*, Arzotzen); baina askotan "deitura" nafarrak dituzten lagunen izena da. Herri hauetan aurkitu dugu: Madotz, Azterain, Gazolatz, Zubitza, Egues-Gorraitz, Deierri-Hiriberri, Aiegi...

Arramun, Erramunto: dokumentazioan **Remon** ageri da bitan, bokal protetikorik ez duen aldaera, alegia, baina etxe-izenetan **a-** nahiz **e-** duela aurkitzen dugu: *Arramunea* (Doneztebe), *Erramuntonea* (Elgorriaga).

Arrosa: ez dugu agirietan topatu, baina bai oikonimian: *Arrosenea* (Ituren), *Arrosakoa, Arrosattikia* (Zubieta). Etxe-izen elkarturen batean ere agertzen da: *Petriarrosa* (Zubieta).

Belai(o), Pelaio: hagionimoen osagai aurkitzen ditugu bi aldaerok: lehena Muzki, Undio eta Eslaban; eta bigarrena, sinkopatua, Burgin (*Doneplayo*, 1849an). Ez da dudarik herskari ahostuna duen aldaera estu-estu jarraikitzen zaiola euskal fonetikaren arau zahar ezagunari.

Bernart: Bernardo-k (eta behinedobesteko **Bernad**-ek) dokumentazioan eta hagiotoponimian duten presentzia ukatu gabe, aitortu beharra dago aztergai ditugun bi mendeotan **Bernart** aldaera maiz azaltzen zaigula, Nafarroa euskaldun osoan barrena gutxi gorabehera: Muskitz, Etsain, Eugi, Larrasoain, Etxauri-Etxarri, Argiñao, Elo, Altzorritz, Untziti... Etxe-izenetan ere agertzen da, Muskitzen, Etsainen eta Zuriainen, konparaziorako.

Domeka, Domiko, Domiku, Domingo, Domingot, Domingoto, Domintx, Domix, Domenja, Domenjon, Txomin: erdaraz ere ibilia den **Domingo** franko zabaldua dago dokumentazioan, toponimian eta ez hainbeste, itxuraz, oikonimian, hemen ere azalduagatik. Hala eta guztiz ere, ez dugu pentsatu behar gainerakoak noizbehinka baizik azaltzen ez direla, **Domeka** adibidez maiztasun handikoa baita agirietan, bai eta, orobat, etxe-izenetan ere. Gizonentzako **Domiko Domiku** baino gehiago azaltzen da, ditugun datuen arabera beti ere, toponimian; hauen aldamenean **Txomin** (pertsona-izena, behin), **Domingot, Domingoto** (oikonimian, inoiz edo behin) hipokoristikoak ere aurkitu ditugu. **Domenja** Girgillanon aurkitu dugu behin *(Domenja de Rexil)*, eta beste behin Donibane-Lohizunen, Nafarroatik kanpo *(Domenja de tal)*; **Domenjon** Lizarran ageri da *(Domenjon de Yturmendi)*, **Domix** emakume-izen modura azaltzen da, Egozkuen *(Domix de elvetea)*, eta **Domintx** oikonimian baizik ez dugu ediren (*Domintxenea, Domintxenettikia*, Zubietan).

Eneko(t): azken urte hauetan aski moduan egon den (eta dagoen) izen hau arrunta da agirietan pertsona-izentzat; guk honako herri eta hiriotan topatu dugu, besteak beste: Eugi, Ilarratz, Etulain, Ostitz, Iruñe, Beriain, Mañeru eta Iturgoienen. Oikonimian **Eneko** nahiz **Enekot** dugu, azken hau adibidez Ilarratzen, Ostitzen eta Labion.

Errodrigo: izen hau ez dugu uste sobera ibiltzen den gaurregun, baina honera ekarri nahi izan dugu, hasieran aurkezten duen bokal protetikoa dela kausa. Behin aurkitu dugu horrela, Orrioko 1607ko *Errodrigorena* etxe-izenean. Agirietan gutxi batzuetan ediren dugu, beti Rodrigo itxurapean.

Errolan: dokumentazioan behin besterik ez da ageri, erdal modura (*Roldan de yruynela*, Girgillano), baina oikonimian bokal protetikoa eta **-I-** hutsa dituela aurkitzen dugu (*Errolanea*, Zubieta). Elezaharretan eta toponimian ere, J. M. Barandiaran zenak zioenez, **Errolan** aurkitu ohi dugu, Nafarroan batik bat, baina Iparraldean **Arrolan** aldaera ere ezaguna da (4).

Estebe, Eztebe, Eztebeko, Extebe, Esteban, Estebenia, Estebania: Estebe eta **Eztebe** hirutan aurkitu dugu pertsona-izen bezala, horietako bitan **Estebe** eta **Eztebe** elkarren adierakideak direlarik *(Estebe de echalecu, Eztebe de echalecu, Etxaleku)*. Cf., gainera, *Estebe de Arre*. Toponimian **Eztebe, Estebe** aski arrunta da, eta esaterako Eslaban *(Jaun Done Eztebe)* eta Malerrekan (*Doneztebe* ezaguna) aurkitzen dugu; oikonimian **Estebe, Extebe** eta **Eztebeko** ditugu (*Estebenea, Eztebenekorena* Donezteben, *Extebenea* Iturenen). Emakumeentzako, Alfonso Irigoienek dioenez (5)5, **Estebenia** eta **Estebania** ditugu (*Estebania de galayn viuda*, Lizaso, *Estebania de licasso*, Lizaso) pertsona-izen modura, eta **Estebenia** etxe-izenen osagarritako.

Fernando, Ferrando, Fernandiko, Ferrandilco, Ferranko, Ferrantx, Ferrantxo, Hernando, Errando, Txerran: dokumentazioan pertsona-izentzat **Fernando** eta **Ferrando** ezagunez beste, **Fernandiko, Ferrandiko, Ferranko, Ferrantxo** eta **Txerran** ere agertzen dira. Oikonimian, gainera, **Ferrantx** hipokoristikoa dokumentatzen da.

Fran(t)zes, Frantzisko, Patxi, Patxon, Pantxot: Nafarroan oso zabaldua dagoen eta egon den **Fran(t)zisko** (eta **Fran(t)ziska**)-ren ondoan **Fran(t)zes** ere frankotan aurkitzen dugu, Betelun, Izurdiagan, Saratsan, Elon eta Deierriko Asnan (Montalbán despoblatuan), adibidez. **Fran(t)zisko**-ren lehen txistukariari dagokionez, gaurregun Nafarroan afrikaria duela ibiltzen da gehienbat (cf. *Frantziskonea* etxea, Donezteben). Aldaera hipokoristikoak, bestalde, ez dira atzo goizekoak; cf. Munarrizko *Panchot de munarriz* (1521), Estenozko *Panchot de muez* (1521) eta Biloriako 1694ko *Francisco fernandez alias Pachi*. Toponimian eta oikonimian ere ezagunak dira hipokoristikoetan oinarritutakoak: cf. Ekalako *Pachon yturria* (1686tik aurrera) edo Alzorrizko *Pachirena* etxea (1715etik aitzina).

Bartolome, Martolo: toponimian **Bartolome** izan ohi dugu, baina pertsona-izentzat euskaraz arrunta den **b-/m-** nahasketa jasandako **Martolo** laburtua aurkitu dugu hiru aldiz, Betelun, Etxauri-Etxarrin, eta Satrustegin.

Grazia, Graziato, Graxi, Garaxi, Graxi o, Grazian, Graziana: gehienak maizkoak dira dokumentazioan pertsona-izen gisa; hagiotoponimian **Grazia** ageri da (*Donagracia* 'Santa Engracia', Galarren eta bestetan), eta oikonimian **Grazia** eta **Garaxi**.

(4) Ikus *Diccionario ilustrado de Mitología Vasca*, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1972, 82-83. orr.

(5) PIENE, 50. or.

Jakue: oikonimian *Jakuenea* dugu Donezteben; pertsona-izentzat *Jacue de Yparraguirre* eta *Jacue de alcate* ditugu Lesakan, *Jacue de guridi* Izurdiagan, *Jacue de Elcareeta* Leitzan. Hemen gogorarazi nahi dugu Utergako Juan de Beriainek *Jaun Done Jakue* darabilela, Galiziako Santiago hiria aditzera emateko (6).

Joanes, Juanes, Juan, Joan, Joana, Juana: hau dokumentazioan gehien azaltzen diren izenetako bat da; nabarmentzekoa da XVI. eta XVII. mendeetan asko eta askotan **Joanes** aurkitzen dugula, alegia, Hegoaldean behintzat azken mendeotan ezezaguna izan den izena. Makina bat aldaera eta hipokoristiko ditu. Hona hemen guk pertsona-izenetako bildu ditugunak: **Joanes, Joanesko, Juanes, Juanesko, Joanis, Joan, Juan, Joana, Juana, Joantxot, Joanato, Joaneta, Joaneto, Joane, Juane, Joango, Juango, Joangote, Joangoxe, Joangotxo, Joanico, Juanico, Joanillo, Joanco, Joancote, Joanon, Joanot, Juanot, Joanotico, Joanto, Joantoa, Joantoko, Joantxe, Joanxe, Txoaneto, Xoaneto, Txoanko, Xoanko, Xoankoto.** Oikonimian, gainera, hauek ditugu: **Joanesgo, Joangoxote, Joangoxoto, Joanikote, Joankoto, Juantxe, Joantxeko, Juanko, Juankot, Juanisko, Juantiko, Txoan, Xoaneki** (**Xoane** hipokoristikoa gehi **-ki** atzizki txikigarria) eta **Xoaneaingerua** elkartua. Hagiotoponimian **Juaniz** (eta **Joaniz**) sarritan aurkitzen dugu.

Jurdan, Xurdan, Jurdana: gizonekikoak etxe-izenetan baizik ez ditugu aurkitu; **Xurdan** hipokoristikoa da. **Jurdana**, aldiz, arrunta da ginekonimo moduan XVI. eta XVII. mendeetan (Alli, Irurtzun, Etxaleku, Iraizotz, Ultzama-Gerendiain, Ziritza...).

Julio, Xulio, Xurio, Julia, Juria (Julio, Julián): hagiotoponimian aurkitzen ditugu aldaerok beti; pertsona-izentzat *Julian* besterik ez dugu, Lizarran. Bost horietatik lehenbiziko hiruak gizonentzakoak dira, laugarrena emakumeentzakoa eta bostgarrena, itxuraz, gizonentzakoa.

Jurgi, Jorgi, Jurdia: hauek batez ere hagiotoponimian ageri dira; Ameskoan eta Ibargoitin (cf. *SanJurguialdea, SanJurxizelaia, San Jorxezelaia* Larragoan, *Sandiurdia* Getzen). Halere 1563. urtean bazen *Jorgi Bornat* izeneko laguna Izaban.

Katalin, Katalina, Katalinko, Katelina, Katerina, Kattalin, Katxalin: azkeneko bi aldaera bustiok oikonimian aurkitzen ditugu (*Katxaliñena*, Ituren, *Kattaliñenea*, Zubieta); gainerakoak ginekonimotzat ageri dira, Nafarroa osoan. Azpimarratzekoak dira hemen **Katelina** eta **Katerina** aldaerak, aurrena oso ugaria delako aztergai ditugun bi mendeotan, eta bigarrena gutxiagotan azaldu arren euskaraz ohizkoa den bokal arteko **-I-** > **-r-** pausoa pairatu duelako.

Korboran: bi aldiz ediren dugu, andronimo modura, Etxalekun eta Artazun.

Kostobare, Kostobaro: izen hauek hagiotoponimian baizik ez dira ageri; bigarrena lehena baino aise gehiagotan ateratzen zaigu. Aspaldikoa izateari zor bide zaio saindu-izen hau ia beti **Jaun Done** elementu alboratuak ondoan ez dituela agertzea; guztiarekin ere bada salbuespen bat gutxienez: *Jan Done Costobaro celaya* (Bidaurreta), *Jan Done Costobaro cabala* (ib.). Nolanahi den dela, garbi dago

(6) Honela dio: "Nola batec, eta bertcec erraten baycioten heratu çayo, joancen sobratu cizayon diruarequi luandone lacuera, eta andic etorricen berce lagunac lerusalenetic etorri bayno len.", *Tratado de como se ha de oyr missa*, Iruñea, 621, 114. or.

Kostobaro (eta **Kostobare**) erdal **(San) Cristobal**-en euskarazko adierakidea izan dela nafar euskaldunon artean.

Loren(t)z, Loren: toponimian **Laurendi** eta **Laurenti** aurkitzen dugu, baina **Lorenz** (**Lorentz** ebakia seguruenera) ere bai, etxe-izen eta saindu-izentzat. Pertsona-izen gisa **Lorenz** oso arrunta da dokumentazioan (**Loren** pare bat aldiz aurkitu dugu).

Maiora, Maiorto: lehena behin ediren dugu, emakume izen bezala, Jaitzen, eta bigarrena beste behin, Auzan.

Maria, Mari, Mariki, Marito, Mariato, Mariatxo, Maritonko, Malli, Malliato, Maria Joan, Marijoan, Maria urdin, Mariamartin, Marimartin, Maria Migel, Marimigel, Maria Osoa, Maria Xuri: guzti hauek XVI. eta XVII. mendeetako andronimoak dira, oso-oso ugariak dokumentazioan. Cf. *"Yo maria lopiz de sallinas...mariato mj fija"* (Jaitz, 1521). Oikonimian eta hagiotoponimian, gainera, honako beste aldaera bakun hauek ditugu: **Mariako, Maritx, Maritxo, Marizt(o)**, eta beste elkartu hauek ere bai: **Mariantxon, Mariapetriko, Maribaztan, Maribelo(a), Mariederko, Mariesteban, Mariestebe, Marikatxalin.**

Marti, Martie, Martieto(a), Martietxo, Martixa, Maitie, Martin, Martingo, Martiniko, Martinko, Martino, Martintxo, Martitxo, Matina, Matiko, Matxin, Matxinko, Txartiko, Txartin: Martie oso ugaria da dokumentazioan pertsona-izen moduan, eta hamaika aldaera ezberdin aurkezten ditu; hauen artean **Marti** azpimarratu nahi dugu, eta **Martixa** hipokoristikoa (< Marti + x(e, a). Cf. *Mikelexe, Perutx, Peruski...*). Toponimia eta oikonimian, horietaz gainera beste hauek ere baditugu: **Martia, Martiket, Martix(a), Matxiko.**

Migel, Migeliko, Migelko, Migelto, Migeltxo, Mieltxo, Migelon, Migela, Mikela, Mikel, Mikele, Mikeletxo, Mitxel, Mitxela, Mitxelko, Mitxeto: esperatzekoa zenez erdaratikako **Migel** oso ugaria da dokumentazioan, baina euskarako kidea **(Mikele)** ere oso arrunta da, eta ia beti bukaeran **-e** duela aurkitzen dugu, **Mikel** ere inoiz edo behin dokumentatuagatik; emakumeentzakoa **Mikela** da. Hipokoristikoetan maiztasun handia dute, besteak beste, **Mitxel**-ek, **Mitxelko**-k eta **Mitxeto**-k. Oikonimian, gainera, beste hauek ere aurkltzen ditugu **Mikelexe, Mikelato, Mikeo, Mitxelki, Mixelto, Mitxeo, Mitxet, Mitxetoko.**

Mikendi: hagiotoponimian edireten dugu, adibidez Larraintzarren, Mañerun eta Lergan.

Nikolau: jatorriak jatorri, **Nikolau** aski zabaldurik egon da Nafarroako euskaldunen artean. Guk pertsona-izentzat Arzotz, Zirauki eta Ibargoiti-Getzen topatu dugu, hiruek atzean "deitura" euskalduna dutelarik. Etxe-izen modura ere arrunta da; honako herriotan ageri da, besteak beste: Doneztebe, Elgorriaga, Iragi, Irotz, Zabaldika, Zandio eta Zorokiainen.

Pablo, Paule, Paulo: garai batez **Pablo** nahiz **Paulo** erabili bide dira nafar euskaldunen artean; hagiotoponimian batzuetan aldizkatu egiten direla ikusten dugu: *Jaun Done Paule I Sanpabloaldea* (Larragoa, 1625 eta 1693), eta oikonimian ere biak ditugu: *Paulorena* (Lizoain, 1827) *I Pablobaita* (Doneztebe). Pertsona-izentzat **Pablo** zein **Paulo** bide genuen: *Paulo de Peña* (Elo, 1649), *Paulo de Moriones, Paulo de Zuza* (Izko, 1688).

Paskal, Paskala, Paskoal, Paskoala: euskal bilakaeraren emaitza den **Bazkoare** ez dugu sekulan ediren pertsona-izentzat XVI. eta XVII. mendeetan; baina bai **Paskoal**, honen aldaera laburtua den **Paskal** (behin edo beste), **Paskoala**, eta honen aldaera laburtua den **Paskala**, azken hau bat ere urria ez delarik: *Pascala de Urdiayn, Pascala martinez, Pascala nicolas; Pascalarena* (etxea, Ziaurritzen)...

Petri, Peru, Pero, Perotx, Peruski, Peruskito, Peruskitxo, Peruko, Peruto, Pereton, Periko, Peritx, Pierres: Pertsona-izentzat **Petri** oso zabaldua egon da Nafarroan garai batez, gutxienez **Pedro** bezain zabaldua. Izaban, adibidez, lau urteko epean honako **Petri** hauek ditugu: *Petri errando, Petri algarra, Petrl carrica* (1563), *Petri mancho* (1564), *Petri blasquiz, Petri bereterra, Petri martin* (1565), *Petri ederra* (1567). Izaban ezezik, Otsagabia, Eugi, Esteribar-Gendulain, Lantz, Oskotz, Irurtzun, Ihabar, Ituren, Munarritz, Argiñaritz, Errezu, Arizala, Zabal eta Allin-Etxabarrin ere opatu dugu izen hau, besteak beste. Hagiotoponimian eta oikonimian ere arrunta da.

Pierres izena ere ez zen ezezaguna Nafarroan: *Pierres de añoa* (Etsain), *Pierres de bayllariain* (Ballariain), *Pierres de mend.* (Elo).

Pertsona-izen gisa agertzen diren hipokoristiko ugarien artean **Peruski** nabarmendu nahi dugu, izan duen hedaduragatik: *Perusquito, Perusquicho de Xuarbe* (Etxaleku), *Perusqui de Urrutia* (Oskotz), *Perusquj de elicaberria* (Ibero), *Perusquj de ycurcu* (Bidaurreta), *Perusqui fijo de Jauncerucoa* (Jaitz), *Perusquj de estenoz* (Estenotz), *Perusquj de yrurre* (Estenotz), *Perusqui vazterrecoa* (Allin-Etxabarri)...

Oikonimian aipatu ditugun izen-aldaerez gainera, honako hauek ere aurkitzen ditugu: **Petriko, Petiriko, Petrixe, Peruki, Perutxo, Peruxe, Periket, Peron, Peroxko, Perotxto, Perotza, Peito, Peitoko.**

Salbatore, Salbator: hagiotoponimian **Salbatore Salvador** baino gehiagotan azaltzen dela erratera ausartuko ginateke, honelakoak frogatzea zaila bada ere, eta oikonimian ere **Salbatore** (eta **Salbator**) arrunta da. Pertsona-izen modura ere ezaguna zen: *Salbatore de alcoz* (Alkotz), *Saluatore de yribarren* (Elkano), *Salbator de Arre alias ochoarena* (Arre).

Sanduru: etxe-izenen osagai edireten dugu (Iraizotz, llarregi, Oskotz).

Teresa, Ataresa: bi aldaerok aurkitzen ditugu: *Ataresa de yraycoz* (Anotzibar), *Teresa* (Etxauri-Etxarri), *Ataresa de oscoz* (Oskotz), *Theressa de gascue* (Ultzama-Gerendiain).

Toma, Tomo, Tume (Tomás): beti hagiotoponimian aurkitzen ditugu hauek; *Tomo* eta **Tume** lehenagoko **Tome** batetik atera direlarik, lehena bokal-asimilazioz eta bigarrena ondoko kontsonante ezpainbikoaren eraginez: *Sanditume* Lergan, *Santitume* Elon, *Donetomo* (< *Done Tome) Burgin. Sebastian Mendiburuk **San Thomas (S. Thomas)** eta **Santo Thomas** ibili ohi du, baina behin gutxienez **S. Thome** darabil, toponimian azaltzen den aldaera hori ahoz ere ibilia zen seinale.

Txarles, Txarlot: izen hau oso zabaldua egon da Nafarroan; pertsona-izentzat guk honako herri hauetan aurkitu dugu, besteak beste, atzean beti "deitura" nafarrak dituela: Irurtzun, Elkano, Taxoare, Elortz, Uterga, Etxauri, Beraskoain, Goñi, Arzotz *(Charlot)*, Estenotz, Muru-Artederreta eta Mirandan. Oikonimian

ere arruntak dira **Txarles** eta **Txarlot**; herri hauetan aurkitu ditugu, besteak beste: Saigots, Beortegi, Egues, Lerrutz eta Elortzen.

Zatordio: badakigu erdarazko **Saturnino** euskaraz **Satordi** edo **Saturdi** esan izan dela (cf. Iruñeko **Jaun Done Satordi = San Cernin**) (7); nolanahi ere, ez dugu aipatu gabe utzi nahi Esteribarko Inbuluzketan **Zatordio** dugula 1641eko **Joandone Zattordio** hagionimoan, ezbairik gabe aurreko ***Satordino** batetik atera dena. Hemen dagoke, bestalde, **Satordi**-ren jatorria, bokal arteko kontsonante sudurkaria erortzeaz gainera bukaerako bokala galdu delarik, Barañaingo **San Makario** > **San Makai**-n bezala, kasu.

(7) Ikus Irigoienen PIENE, 174-175. orr.

V. ONOMASTIKA JARDUNALDIAK *EXONOMASTIKAZ*

ADIERAZPENA

Miarritzen uztailaren 1 eta 2an egin diren Exonomastika Jardunaldiek, aurrez erabakiaren arabera burutu dituzte beren lansaio guztiak, eta hori bi urtetan aldez aurretik ikertuaren eta ondoren prestaturiko antolakuntza zehatz eta eraginkorraren seinaletzat hartu behar da.

Bestalde, hizlarien ekarpenak izan duen goi-mailak eta partaideen esku hartze bizi eta saiatuak gainditu egin du aurrez ikusia, sail horretan euskara arautu eta gizarteratzeak duen garrantzia txosten desberdinetan eta eskuhartzaileen galderetan nabermen gelditu delarik, egiteko horrek duen konplexutasun guztiarekin batera.

Jardunaldi hauetan aurkeztu eta eztabaidatu diren hamar izen-zerrendak bere horretan garrantzi handikoak izan badira ere, etorkizunean ildo beretik sakonduz egin beharrekoak ez dira inola ere garrantzi txikiagokoak, izan ere izen berezien eremu zabalean oraindik ikerkizun ugari baitago.

Urteetan zehar landu eta Miarritzen urratas berri eta handi bat emanez garatu den Exonomastikaren sailak, honako beharrizan hauek ere nabarmendu ditu bere ibilbidean:

— Euskararen corpus edo thesaurus bat lehenbailehen egin beharra, gaur eguneko euskararen erabilera tresna teknologiko berrienen laguntzat aztertu eta gidatu ahal izateko, exonomoek bertan duten gero eta garratzi handiagoa ikertuz.

— Mendez mende euskaraz erabili diren exonimoen bilketa sistematikoa egin beharra garai, tradizio eta eremu desberdinetako forma guztiak bilduz.

— Euskaltzaindiaren baitan kontsultarako zerbitzuak sendotu eta pertsonaz eta baliabide teknikoz hornitu beharra, irakaskuntza, komunikabide, hizkuntz enpresa, idazle eta itzultzaileen premia ugariei erantzun bizkor eta zehatzak eman ahal izateko.

— Onomastika Batzordearen eta Euskaltzaindiko gainerako batzordeen artean ahalik eta koordinazio handiena lortzearena, exonimoek lexikoan eta gramatikan dituzten ondorio guztiak ikertu eta arautzeko.

— Itzulpengintzak exonomastikan eta euskararen araubidean duen garrantzi bereziarengatik, sail horrekiko arreta berezia erakutsi eta berorrekiko ildo berriak urratzeko Euskaltzaindiari eskatzea.

Exonomastika Azpibatzordearen lan guztietan, eta bereziki jardunaldi hauetan gailendu diren iritzi-adostasuna eta hurbiltze-giroa ikusirik, etorkizunean ere ankidetza-modu berean urrats handiak egingo diren itxaropen osoa dugu komunikabide, lexikografi talde, ikasliburugintza-enpresa, erlijio-talde deberdinben argitaletxe, idazle-itzultzaileen elkarte eta Administrazioen esku hartze eraginkorrarekin.

Miarritzen, 1994ko uztailaren 2an

V JORNADAS DE ONOMASTICA SOBRE *EXONOMASTICA*

COMUNICADO

Las jornadas de Exonomástica celebradas por La Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia en Biarritz el 1 y 2 de julio han alcanzado plenamente todos los objetivos previstos, lo que pone de relieve la importante investigación realizada de antemano, así cojmo la eficiente y cuidada organización que ha habido durante las Jornadas.

Además, tanto el excelente nivel aportado por las ponencias como la intensa participación de los asistentes, han superado toda previsión, siendo palpable el interés que suscitan la normativización y la difusión del euskara en nuestra sociedad en cada una de las comunicaciones y en las numerosas intervenciones realizadas por los participantes, así como la conciencia de la complejidad que ello entraña.

Las diez listas de exónimos presentadas durante las presentes jornadas son indudablemente de gran importancia en sí mismas, pero las tareas que todavía quedan por desarrollar no son de menor envergatura, ya que aún quedan muchos temas de investigación en el amplio campo de los nombres propios.

La Subcomisión de Exonomástica Vasca que ha realizado sus estudios a lo largo de varios años, dando en Biarritz un nuevo e importante paso hacia adelante, siente la necesidad de llamar la atención sobre los siguientes puntos vinculados a su quehacer:

— La necesidad de iniciar lo antes posible la puesta en marcha de un corpus o thesaurus, para que el uso del euskara actual se estudie y oriente con los medios técnicos más avanzados, investigando en él la creciente importancia de los exónimos.

— La urgencia de una recopilación sistemática de los exónimos, registrando la totalidad de las formas utilizadas en las distintas épocas, tradiciones y ámbitos.

— La importancia de reforzar los servicios de conslta de Euskaltzaindia dotándolos de presonas y medios técnicos suficientes en orden

a responder adecuadamente a las expectativas del mundo de la enseñanza, los medios de comunicación, las empresas lingüísticas y a los numerosos escritores y traductores en su quehacer diario.

– La conveniencia de lograr la máxima coordinación posible entre la comisión de Onomástica y las demás comisiones de Euskaltzaindia, por lo que se refiere a las propuestas realizadas en Exonomástica, en la medida que tengan consecuencias a nivel léxico y gramatical.

– Por último, dada la gran incidencia de la traducción en la normativización de los exónimos, en particular, y en la normalización del esukara, en general, se insta a Euskaltzaindia a que dispense una atención especial a este campo, abriendo nuevos cauces de acción en él.

En todos los trabajos de la subcomisión de Exonomástica, y especialmente, en las presente jornadas se ha constatado un notable clima de comprensión y aproximación entre las distintas posiciones, lo que alienta la esperanza de que en el futuro seguirá también reinando idéntico ambiente de colaboración para seguir avanzando en la misma línea, con la eficaz participación de los medios de comunicación, grupos lexicográficos, empresas de confección de textos escolares, editoriales de distintos grupos religiosos, asociaciones de escritores y traductores y distintas administraciones.

Biarritz, 2 de julio de 1994

V^e SESSION D'ONOMASTIQUE, A PROPOS *D'EXONOMASTIQUE*

CONCLUSIONS

Les journées d'onomastique qui se sont tenues à Biarritz les 1er et 2 juillet ont tout à fait atteint les objectifs fixés, résultat d'un travail de recherche et d'organisation minutieux et efficace mené durant les deux années précédant cette manifestation.

Par ailleurs, l'apport des conférenciers, de haut niveau, et la participation des auditeurs ont dépassé les prévisions des organisateurs. L'importance conférée à la nécessité d'ériger des règles et de diffuser l'euskara dans tous les domaines de la vie sociale a été soulignée lors des interventions des conférenciers et des auditeurs, tout en tenant compte de la complexité du sujet.

Les dix listes de noms présentées et débattues au cours de ces journées de travail revêtent une importance considérable. Pourtant, celles qui, à l'avenir, devront être minutieusement étudiées ne sont pas d'importance moindre, si l'on se réfère au vaste domaine des noms propres, qui devront faire l'objet de bien des recherches.

L'exonomastique a bénéficié de grandes avancées lors des années de recherches précédentes et a franchi une étape importante lors de la session de Biarritz. Néanmoins, des lacunes restent à combler et notamment:

– réaliser, le plus rapidement possible, un corpus ou thesaurus, afin que l'usage de l'euskara actuel soit étudié et orienté à l'aide des moyens techniques les plus avancés, en étudiant les exonymes, dont l'importance s'accroit de plus en plus;

– recueillir de façon systématique les exonymes utilisés en langue basque, depuis les temps les plus reculés, en distinguant les formes propres à chaque période, tradition et aire géographique;

– renforcer le service de consultation de l'Académie en le dotant des moyens tehniques et humains nécessaires, de manière à répondre efficacement aux nombreuses demandes provenant des secteurs de l'enseignement, des médias, de la linguistique, des écrivains et traducteurs;

– parvenir à la meilleure coordination possible entre la commission Onomastique et les autres commissions de travail de l'Académie, afin d'étudier les exonymes et ériger les règles induites dans les domaines du lexique et de la grammaire;

– compte tenu de la place que tient la traduction à l'égard de l'exonomastique et de la normalisation, il convient de veiller sur l'évolution des techniques de traduction et de demander à l'Académie de nouvelles ouvertures.

Constatant le large consensus établi et l'attention accordée aux travaux de la sous-commission d'exonomastique, notamment lors de cette session, l'Académie nourrit l'espoir qu'à l'avenir, de telles étapes seront franchies selon le même mode de partenariat avec les médias, les groupes de lexicographie, les maisons d'édition de matériel didactique, de livres religieux, les associations d'écrivains-traducteurs et l'Administration.

Biarritz, le 2 juillet 1994

MUNDUKO ESTATUAK, BEREN HIRIBURUAK ETA AKZIDENTE GEOGRAFIKO NAGUSIAK

Leioa, 1994.10.06
Inaki Irazabalbeitia

Xabier Mendiguren azalpal argigarriaren ostean eta zerrendak aztertzera pasa baino lehen, hiru puntu aipatu nahi nituzke zerrenda horietako erabakien arrazoia argitu dutelakotan. Izan ere, azalpen teorikoak, filosofia, praktikan nola gauzatzen den azaldu nahi dut.

1. EUSKAL TRADIZIOA

Euskaldunok inguruko herriekin izandako erlazioen ondorioz, leku eta pertsona horiek izendatzeko tradizioa sortu dugu. Nahiz eta kasu askotan tradizio hori bikoitza izan, Euskaltzaindiak jaramon egin behar dio horri. Tradizio horrelakoak dira, ***Bordele, Erroma*** edo ***Londres*** esaterako.

Neurri batean, tradizio hori Euskal Herriaren zati batena baino ez da, ***Akize, Tolosa*** edo ***Bartzelona*** esaterako. Kasu honetan tradizioa Euskal Herri osora zabaldu behar denik ezpairik ez dago.

Beste kasu batzuetan tradizioa galduta dago. Galdutako edo ia galdutako tradizioaren kasuan egon liteken egi beharrekoaz zalantza bat baino gehiago, akaso. Izan ere, ***Naiara, Kalagorri, Ozkabarte, Sibilia, Gordoa, Salduba*** edo ***Santandere*** moduko izenak berreskuratzen ahaleginik egiteak merezi ote duen duda daiteke. Euskal eremua izandakoan, izenok berreskuratzen froga egiteari ezin zaio uko egin exonomastika batzordearen iritziz. Urteen baheak egingo du ostean lana. Izan ere, ***Gasteiz*** edo ***Orerétaren*** kasuan geundeke.

Bestelakoa da ***Sibilia*** edo ***Gordoa***ren kasuan. Nekeza dirudi izen horiek beste modu batean eta hain sarri ikusi duen euskaldungoari forma "berriak" ikastarazteak eta gainera, esfortzua aurreko toponimoetan, ***Ozkarbarten*** alegia, egitea errentagarrigotzat jo da. Beraz, ***Sibilia*** eta gainerakoak fosiltzat jo dira eta garai batean girotutako idazkietan baino ezin daitezke egoki izan.

Zergatik esan dugu hainbat euskal exonimo galduta daudela? Gure ezagutza beti mugatuaren edo intuizioaren gainetik, askok gogoko ez duten estatistikak datu interesgarri asko eman dizkigu. EEBS bilketan pilatutako toponimoak aztertu ditugu eta segidan hainbat adibide emango ditut:

– Sevilla	26
– Sebilla	2
– Sibilia	1
– Najera	3
– Naxera	2
– Naiara	0
– Calahorra	2
– Kalagorri	5

Eta baita forma finkatzeko ere

– Bordale	12
– Bordele	36
– Burdeos	3

Alabaina, beste kasu batzuetan ez diogu estatisitikari kasu handirik egin.

– Salamanca	18
– Salamanka	16

Zilegi dirudike ***Salamanka*** idazteak, nahiz eta guk ***Salamanca*** onartu dugun.

Laburtuz:

– Euskal Herriaren zati batean bizirik dirauten exotoponimo tradizionalak Euskal Herri osora zabaldu behar dira.

– Galduta edo ia galduta dauden formak berreskuratzen saiatuko gara, euskal eremu izandakoenak batez ere.

Hala eta guztiz ere tradizioa ez da gauza finkoa eta betirakoa eta horren adibide moduan, 1914an, *Nuevo Diccionario Manual Ilustrado de la Lengua Castellana* izenekoan Saturnino Calleja Fernandezek hitzaurrean diona irakurriko dizuet:

"Sin protesta se sostienen herejías tales como que 'vascongado', 'Vasconia', 'Vizcaya' y 'vascuence' deben escribirse con 'b' por carecer el vascuence de la letra 'v'... A cada paso se lee 'Toulouse' por 'Tolosa', 'Hainaut' por Henao, 'Torino' por Turín, 'Bale' por Basilea, 'Vich' por

Vique, 'Moscou', o 'Moscú' escriendo esta palabra como suena en francés, por Moscovia. 'Leipzig' por Lispsia, 'Tiber' por Tibre..."

Parrafo honetan gaztelaniaren tradiziotzat jotzen diren hainbat forma, egungo gaztelaniako hiztunei oso arrotz eta bitxi geratutko zaizkie, hain segur. Beraz, euskararen tradizio izan diren forma batzuk gaurko hiztungoak ez onartzeak ez liguke harritu behar. Eta ez genukeen agian, puntu honetan, kemen handirik erre behar.

2. MOLDAKETA GRAFIKOA

Xabierrek jarrera endozentriko eta exozentrikoak aipatu ditu bere txostenean eta batzordea oreka-puntuaren bila ibili dela azpimarratu du. Nahiz eta joera nagusia exonimoen jatorrizko forma errespetatzea izan, exonimo batzuk moldatu beharko dira, euskarazko eitea eman beharko zaizkie alegia.

Nola eta noiz egingo dugu hori? Inguruko erderei so eginez, arau moduko bat eman daiteke: *exonimo bat zenbat eta zaharragoa, gertuagokoa eta garrantzitsuagoa izan hainbat eta moldaketa grafiko handiagoa pairatuko du.*

Exotoponimiaren arau orokor hori beheko sei puntuetan zehaz daiteke:

1. Estatu eta beren hiriburuen izenetan. ***Kamerun, Ruanda, Txad, Nikaragua, Nikosia.*** Zerrenda itxia da eta Onomastika-batzordearen proposamena lehen atalean ematen dugu.

Egindako moldaketa grafikoei buruz **v** letrak sortzen duen tabua aipatu beharko litzateke. Euskaldunok erraz asko bihurtzen ditugu **c**-ak **k** edo **z** edota **ch**-ak **tx** esaterako, baina inoiz gutxitan **v**-ak **b**. Estatistikari begira diezaokegu.

– Txile	34
– Chile	5
– Tchile	1
– Kamerun	4
– Camerun	0
– Kanada	64
– Canada	0
– Venezuela	24
– Benezuela	0

– Valentzia	8
– Valencia	12
– Balentzia	0

Salbuespenak ***Eslobakia, Txekoslobakia*** eta ***Batikanoa*** lirateke. Lehenen v-dun adibiderik ez da EEBSn jaso eta ***Batikano*** 28-5 gailentzen zaio ***Vatikano***ri. Bi lehenetan v-a bokalarteakoa izatea izan daiteke arrazoia, bigarrenean toponimoaren hurbiltasuna akaso. ***Batikano*** salbuetsi beharko al litzateke? Ez da hori batzordearen iritzia izan.

2. Akzidente geografiko nagusiak: kontinente, ozeano, itsaso, irla, laku, ibai eta mendi(kate)ak. ***Atlantiar Ozeanoa, Madagaskar, Polinesia, Danubio ibaia, Karpatoak...***

3. Toponimoaren izenean patronimiko bat agertzen denean, lurmutur, irla, lurralde eta ibaien kasuan bereziki. Horrela egiten baitute frantsesak eta gaztelaniak oro har. ***Santa Luzia irla, San Jurgi kanala, Frantzisko Joseren lurraldea....***

4. Izen deskribatzaileen kasuan, ezaugarri bat adierazten dutenen kasuan alegia. ***Ibai Horia*** (río Amarillo, fleuve Jaune, Yellow river eta Gelber Fluss), ***Itsaso Beltza, Itsaso Hila, Hartzaren Laku Handia, Mexiko Berria, Kaledonia Berria*** (Nueva Caledonia, Nouvelle-Calédonie, New Caledonia eta Neukaledonien)... Hala ere, inguruko erdara nagusietan jatorrizko forma erabiltzen dutenean, horixe erabiliko da. ***Rio Grande, Llano Estacado, Salt Lake City...***

5. Inguruko erdaretan jatorrizko forma ez errespetatzea: ***Turin*** (Turín, Turin, Turin eta Turin), ***Munich*** (Munich, Munich eta Munich), ***Milan*** (Milan, Milan, Milan eta Mailand)...

6. Toponimo historikoak: ***Kartago, Esparta, Korinto, Itaka...***

3. ZEINU DIAKRITIKOAK

Euskaraz egun zeinu diakritikorik ez erabiltzeak (zubererazko hitzak ematean erabiltzen den ü izan ezik) horiekiko ohitura eza sortu du euskal irakurlegoan. Jatorrizko grafia errespetatu behar den kasuetan zeinu diakritikoak ere errespetatu beharko genituzkeela pentsa daiteke. Ez dago arazoa horren garbi aitzitik.

Estatistikak bestetik ez du argibiderik ematen. Frantziako eta Espainiako toponimoen artean, gertuenen artean hain justu, azterketa txiki bat egin dugu EEBSren datu-basean:

– Cádiz	6
– Cadiz	7

– Málaga	0
– Malaga	4
– Córdoba	3
– Cordoba	14
– Nîmes	0
– Nimes	1
– Vendôme	2
– Vendome	0

Datuok ez digute argirik ematen.

Puntu honetara iritsita, zeinu diakritikoen aldeko eta aurkako argudioak jarri behar dira balantzan, ondoren proposamen bat egin ahal izateko.

Zeinu diakritikoen aldeko arrazoi nagusiak bi dira:

– Zeinu diakritikoek informazioa ematen dute izena egokiro ebaki ahal izateko.

– Gure inguruko erdara nagusietan zeinu diakritiko arruntenak maila guztietan (komunikabide, testuliburu, entziklopedia, etab.etan) agertzen dira. Hala ere, zeinu diakritiko guztiak ez dira maila berekotzat hartzen. Hizkuntza latindarren zeinu diakritikoak (', ', ¨...) errespetatu egiten dira. Hizkuntza eslaviar eta turkierazkoenak å, ø, č, ž, ř, ů...) ordea baztertu egiten dira normalean, goi-mailako entziklopedietan izan ezik. Horrela, ***Lech Walesa*** leitzen da jatorrizko ***Lech Walesa***-ren ordez, edo ***Milos Forman, Milo š Forman***-en ordez.

Zeinu diakritikoen aurkako arrazoi nagusiak bi dira:

– Zeinu diakritiko asko ezin idatz daitezke idazmakinaz edo ordenadorez, teklatu arruntean ez daudelako.

– Zeinu diakritikoek ez diote irakurleari informazio gehigarririk ematen baldin eta erdara hori ezagutzen ez badu. Bestetik, buruz ikasi behar dira.

Batzordeak jatorrizko zeinu **diakritikoak gordetzea**, inguratzen gaituzten hizkuntza latindarrenak bereziki, **gomendatzen du** (entziklopedia eta horrelako erreferentzi lanetan, batez ere), baina idazleak **zilegi du horiek ez erabiltzea**, ordenadore- eta makina-teklatu arruntetan egoten ez direnak batez ere.

MUNDUKO ESTATUAK ETA BEREN HIRIBURUAK

Segidan, Onomastika-Batzordeak munduko estatuak eta beren hiriburuak euskaraz izendatzeko proposatzen dituen formak zerrendatzen dira. Aldi berean, estatuari eta hiriburuari dagozkion jentilizioak ere ematen dira. Dena dela, jentilizioa hiritartasunari dagokiola eta ez etniari edo herriari azpimarratu nahi da. Esan nahi baita, Israelgo hiritarrak, arabiar, judu zein kristau **israeldarrak** dira eta **judu** erlijio hori dutenak edota etnia horretakoak bakarrik.

Batzordearen barnean erabakiak kontsentsuz hartu dira. Alabaina, hainbat botu partikular ere badira eta horiek proposamenarekin batera adierazten dira.

Bestetik, zerrendan ***Gales, Eskozia*** eta beste nazionalitate historiko batzuk ere sartu dira, nahiz eta nazioartean estatu ezagutzarik ez duten.

Estatua	Niriburua	Estatu-jentilizioa	Hiriburu-jentilicioa
Afganistan*go Errepublika*	Kabul	afganistandar	kabuldar
Albania*ko Herri-Errepublika Sozialista*	Tirana	albaniar	tiranar
Alemania*ko Errepublika Federala*	Berlin	alemaniar/aleman	berlindar
Aljeria*ko Herri-Errepublika Demokratikoa*	Aljer	aljeriar	aljertar
Alsazia	Strasburg	alsaziar	strasburgar
Amerikako Estatu Batuak/ AEB/EEBB	Washington	estatubatuar	washingtondar
Andorra*ko Printzerria*	Andorra La Vella	andorratar	andorratar
Angola*ko Herri-Errepublika*	Luanda	angolar	luandar
Antigua eta Barbuda	Saint John's	antiguar	saintjohnstar
Aosta*ko harana*	Aosta	aostar	aostar
Arabiar Emirrerri Batuak	Abu Zabi	emirrerribatuar	abuzabiar
Argentina*ko Errepublika*	Buenos Aires	argentinar	buenosairestar
Armenia	Erevan	armeniar	erevandar
Australia*ko Commonwealtha*	Canberra	australiar	canberrar
Austria*ko Errepublika*	Viena	austriar	vienar
Azerbaijan	Baku	azerbaijandar	bakutar
Bahamak/Bahametako Commonwealtha	Nassau	bahamar	nassautar
Bahrein*go Estatua*	Al-Manamah	bahreindar	manamahar
Bangladesh*eko Herri-Errepublika*	Daka	bangladeshtar	dakatar
Barbados	Bridgetown	barbadostar	bridgetowndar
Belgika*ko Erresuma*	Brusela	belgikar	bruselar
Belize	Belmopan	belizetar	belmopandar
Benin*go Herri-Errepublika*	Porto Novo	benindar	portonovoar

Estatua	Niriburua	Estatu-jentilizioa	Hiriburu-jentilicioa
Bielorrusia	Minsk	bielorrusiar	minskar
Bohemia	Praga	bohemiar	pragatar
Bolikostako *Errepublika*	Abijan (legis.)/Yamussukro (adm.)	bolikostar	abijandar/yamussukroar
Boliviako *Errepublika*	La Paz	boliviar	lapaztar
Bosnia-Hertzegovina	Sarajevo	bosniar	sarajevoar
Botswanako *Errepublika*	Gaborone	botswanar	gaboronetar
Brasilgo *Errepublika Federala*	Brasilia	brasildar	brasiliar
Bretainia (Breizh)	Nantes/Rennes	bretoi	nantestar/ rennestar
Britainia Handi eta Ipar Irlandako Erresuma Batua/Britainia Handia/ Erresuma Batua (1)	Londres	britainiar	londrestar
Bruneiko *Estatua*	Bandar Seri Begawan	bruneiar	begawandar
Bulgariako *Herri-Errepublika*	Sofia	bulgariar	sofiar
Burkina Faso	Uagadugu	burkinafasoar	uagadugutar
Burundiko *Errepublika*	Bujumbura	burundiar	bujumburar
Bhutango *Erresuma*	Tinbu	bhutandar	tinbutar
Cabo Verdeko *Errepublika*	Praia	caboverdear	praiatar
Costa Ricako *Errepublika*	San Jose	costarricar	sanjosetar
Danimarkako *Erresuma*	Kopenhage	danimarkar	kopenhagetar
Dominikako *Commonwealtha*	Roseau	dominikar	roseautar
Dominikar Errepublika	Santo Domingo	dominikar	santodomingoar
Egiptoko *Arabiar Errepublika*	Alkairo	egiptiar	kairoar
Ekialdeko Timor	Baguia	timortar	baguiar
Ekuadorko *Errepublika*	Quito	ekuadortar	quitoar
Ekuatore-Gineako *Errepublika*	Malabo	ginear (ekuatoreginear)	malaboar
El Salvadorko *Errepublika*	San Salvador	salvadortar	sansalvadortar
Eritrea	Asmara	eritrear	asmarar
Errumania	Bukarest	errumaniar	bukarestar
Errusia	Mosku	errusiar	moskutar
Ertafrikar Errepublika	Bangi	ertafrikar	bangiar
Eskozia (Alba)	Edinburgh (Dunedin)	eskoziar	edinburghar
Eslovakia	Bratislava	eslovakiar	bratislavar
Eslovenia	Ljubljana	esloveniar	ljubljanar
Espainiako *Erresuma*	Madril	espainiar	madrildar
Estonia	Tallinn	estoniar	tallinndar
Etiopiako *Herri-Errepublika*	Addis Abeba	etiopiar	addisabebar
Fijiko *Errepublika*	Suva	fijiar	suvatar
Filipinak/Filipinetako Errepublika	Manila	filipinar	manilar

(1) Xabier Kintanak botu partikular moduan 'Britainia Haundia' proposatzen du. Haundi izenondoa erdaretako "magno", "great" eta antzekoak itzultzeko erabiltzea komenigarria ikusten du, besteak beste maila jasoagoa adierazten duelako.

Estatua	Niriburua	Estatu-jentilizioa	Hiriburu-jentilicioa
Finlandia*ko (Suomiko) Errepublika*	Helsinki	finlandiar	helsinkiar
Flandria/Flandes	Anberes/Gante	flamenko/flandestar flandriar	anberestar/gantetar
Frantzia*ko Errepublika*	Paris	frantses	paristar
Frisia	Leeuwarden	frisiar	leeuwardendar
Gabon*go Errepublika*	Libreville	gabondar	libreviletar
Gales (Cymru)	Cardiff	gales	cardiffar
Galizia	Donejakue edo Santiago Konpostelakoa	gailego/galiziar	santiagotar/donejakuetar
Ghana*ko Errepublika*	Akkra	ghanatar	akkratar
Gambia*ko Errepublika* (2)	Banjul	gambiar	banjuldar
Georgia	Tbilisi	georgiar	tbilistar
Ginea Bissaue*ko Errepublika*	Bissau	ginear (gineabissautar)	bissautar
Ginea*ko Errepublika*	Konakry	ginear	konakriar
Grenada	Saint Georges	grenadar	saintgeorgestar
Grezia/Heleniar Errepublika	Athenas (3)	greziar	athenastar
Guatemala*ko Errepublika*	Guatemala	guatemalar	guatemalar
Guyana*ko Errepublika Kooperatiboa*	Georgetown	guyanar	georgetowndar
Haiti*ko Errepublika*	Port-au-Prince (Printze Portua)	haitiar	portauprincetar, portar
Hego Tirol	Bolzano	tiroldar	bolzanoar
Hegoafrikar Errepublika	Pretoria (exe.)/Bloemfontein (jud.)/Lurmutur Hiria (legis.)	hegoafrikar	pretoriar
Herbehereak/ Herbehereetako Erresuma	Amsterdam	nederlandar/herbeheretar	amsterdamdar
Hondura*sko Errepublika*	Tegucigalpa	hondurastar	tegucigalpar
Hungaria*ko Errepublika*	Budapest	hungariar	budapestar
India*ko Errepublika*	New Delhi edo Delhi Berria	indiar	newdelhiar/delhiberriar
Indonesia*ko Errepublika*	Jakarta	indonesiar	jakartar
Ingalaterra	Londres	ingeles	londrestar
Ipar Irlanda	Belfast	iparrilandar	belfastar
Irak*eko Errepublika*	Bagdad	irakiar	bagdadar
Irango *Islamlar Errepublika*	Teheran	irandar	teherandar
Irlanda (Eire)	Dublin	irlandar (eiretar)	dublindar
Islandia*ko Errepublika*	Reykjavik	islandiar	reykjavikar
Israel*go Estatua*	Jerusalem	israeldar	jerusalemdar
Italia*ko Errepublika*	Erroma	italiar	erromatar
Jamaika	Kingston	jamaikar	kingstondar

(2) Iñaki Irazabalbeitiak, Elhuyarren izenean, 'Ganbia' proposatzen du botu partikular moduan.

(3) Iñaki Irazabalbeitiak, Elhuyarren izenean, 'Atenas' proposaten du botu partikular moduan. EBBSn kontsulta eginez hauxe ikusten da: Atena 2 bider; Atenas 7 bider; Atenai 4 bider eta Athenas 1 bider. Beraz, h-rik gabeko formak nagusi dira XX. mendeko euskal testuetan.

Estatua	Niriburua	Estatu-jentilizioa	Hiriburu-jentilicioa
Japonia	Tokio	japoniar	tokiotar
Jemen/Yemengo *Errepublika* (4)	Aden	jemendar	adendar
Jibutiko *Errepublika*	Jibuti	jibutiar	jibutiar
Jordaniako *Haxemi Erresuma*	Amman	jordaniar	ammandar
Jugoslavia	Belgrad	jugoslaviar	belgradar
Kamerungo *Errepublika*	Jaunde	kamerundar	jaundetar
Kanada	Ottawa	kanadar	ottawar
Kanputxeako *Estatua*	Phnom Penh	kanputxear	phnompenhdar
Katalunia	Bartzelona	katalan/kataluniar	bartzelonar
Katarreko *Estatua/Qatar*	Dauhah	katartar	dauhahtar
Kazakhstan	Alma Ata	kaz-akhastandar	almaatar
Kenyako *Errepublika*	Nairobi	kenyar	nairobiar
Kirgizistan	Pishpek	kirgizistandar	pishpekar
Kiribatiko *Errepublika*	Bairiki	kiribatiar	bairikiar
Kolonbiako *Errepublika* (5)	Bogota	kolonbiar	bogotar
Komoreak/Komoreetako Islamiar Errepublika Federala	Moroni	komoretar	moroniar
Kongoko *Herri-Errepublika*	Brazzaville	kongoar	brazzavilletar
Koreako *Errepublika*	Seul	korear	seuldar
Koreako *Herri-Errepublika Demokratikoa*	Piongiang	korear	piongiangdar
Kornualles	Truro	kornuallestar	truroar
Korsika	Ajjacio	korsikar	ajjaciar
Kosovo	Pristina	kosovoar	pristinar
Kroazia	Zagreb	kroaziar	zagrebar
Kubako *Errepublika*	Habana	kubatar	habanar
Kuwaiteko *Estatua*	Kuwait	kuwaitar	kuwaitar
Laosko *Herri-Errepublika Demokratikoa*	Vientiane	Laostar	vientianetar
Lesothoko *Erresuma*	Maseru	lesothoar	maserutar
Letonia	Riga	letoniar	rigatar
Libanoko *Errepublika*	Beirut	libanoar	beirutar
Liberiako *Errepublika*	Monrovia	liberiar	monroviar
Libiako *Arabiar Herri-Errepublika Sozialista*	Tripoli	libiar	tripoliar
Liechtensteingo *Printzerria*	Vaduz	liechtensteindar	vaduztar
Lituania	Vilnius	lituaniar	vilniustar
Luxemburgeko *Dukerri Handia*	Luxemburg	luxemburgar	luxemburgar

(4) Iñaki Irazabalbeitiak puntu honetan edozein erabaki hartu aitzin arabieraren transliterazio-taulak zehaztu behar direla azpimarratzen du. Puntu honetan eta Katar/Qatar kasuan hartutako erabakiek ez lukete, hasiera batean bederen, transliterazio-taula horietan adierazitakoaren kontra egon behar.

(5) Alfontso Irigoienek 'Colombia' proposatzen du botu partikular moduan, jatorrizko grafia errespetatu behar dela baitio.

Estatua	Niriburua	Estatu-jentilizioa	Hiriburu-jentilicioa
Madagaskar*ko Errepublika Demokratikoa*	Antananarivo	madagaskartar	antananarivoar
Malawi*ko Errepublika*	Lilongwe	malawiar	lilongwetar
Malaysia/Malasia (zah.)	Kuala Lumpur	malaysiar	kualalumpurtar
Maldivak/Maldivetako Errepublika	Male	maldivar	maletar
Mali*ko Errepublika*	Bamako	maliar	bamakoar
Malta*ko Errepublika*	Valletta	maltar	vallettar
Marokoko *Erresuma*	Rabat	marokoar	rabatar
Mauritania*ko Islamiar Errepublika*	Nuakchot	mauritaniar	nuakchotar
Maurizio	Port Louis	mauriziar	portlouistar
Mazedonia	Skopje	mazedoniar	skopjetar
Mendebaldeko Sahara/ *Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa*	Aaiun	saharar	aaiundar
Mendebaldeko Samoa*ko Estatu Independentea*	Apia	samoar	apiar
Mexikoko *Estatu Batuak*	Mexiko Hiria	mexikar	mexikar
Mikronesia*ko Estatu Federatuak*	Kolonia	mikronesiar	koloniar
Moldavia	Kishinev	moldaviar	kishinevar
Monakoko *Printzerria*	Monako	monakoar	monakoar
Mongolia*ko Herri-Errepublika*	Ulan Bator	mongoliar	ulanbatortar
Montenegro	Podgorica	montenegroar	podgoricar
Moravia	Brno	moraviar	brnotar
Mozanbike*ko Herri-Errepublika*	Maputo	mozanbiketar	maputoar
Myanma*ko Batasuna*/ Birmania	Rangun	myanmar/birmaniar	rangundar
Namibia*ko Errepublika*	Windhoek	namibiar	windhoekar
Nauru*ko Errepublika*	Yaren	nauruar	yarendar
Nepalgo *Erresuma*	Katmandu	nepaldar	katmandutar
Niger*reko Errepublika*	Niamei	nigertar	niameiar
Nigeria*ko Errepublika Federala*	Lagos (hbr. Abuja)	nigeriar	lagostar
Nikaragua*ko Errepublika*	Managua	nikaraguar	managuar
Norvegia*ko Erresuma*	Oslo	norvegiar	osloar
Okzitania	Tolosa	okzitaniar	tolosar
Omango *Sultanerria*	Maskat	omandar	maskatar
Pakistango *Islamdar Errepublika*	Islamabad	pakistandar	islamabadar
Panama*ko Errepublika*	Panama	panamar	panamar
Papua Ginea Berria	Port Moresby	gineaberriar	portmoresbiar
Paraguay*ko Errepublika*	Asuncion	paraguayar	asunciondar
Peru*ko Errepublika*	Lima	perutar	limatar
Poloniako *Errepublika*	Varsovia	poloniar	varsoviar
Portugalgo *Errepublika*	Lisboa	portuges	lisboar

Estatua	Niriburua	Estatu-jentilizioa	Hiriburu-jentilicioa
Puerto Rico*ko Estatu Libre Elkartua*	San Juan	puertorricoar	sanjuandar
Ruanda*ko Errepublika*	Kigali	ruandar	kigaliar
Saint Kitts eta Nevis*ko Federazioa*	Basseterre	sankistar	basseterretar
Salomon Irlak	Honiara	salomondar	honiarar
San Vincent eta Grenadinak	Kingstown	sanvincentar	kingstowndar
San Marino*ko Errepublika*	San Marino	sanmarinoar	sanmarinoar
Santa Luzia	Castries	santaluziar	castriestar
Sao Tome eta Printze*ko Errepublika Demokratikoa*	Sao Tome	saotometar	saotometar
Sardinia	Cagliari	sardiniar	cagliariar
Saudi Arabia*ko Erresuma*	Riad	saudi	riadar
Senegal*go Errepublika*	Dakar	senegaldar	dakartar
Serbia	Belgrad	serbiar	belgradar
Seychelleak/Seychelleetako Errepublika	Victoria	seychelletar	victoriar
Sierra Leona*ko Errepublika*	Freetown	sierraleonar	freetowndar
Singapur*ko Errepublika*	Singapur	singapurtar	singapurtar
Siria*ko Arabiar Errepublika*	Damasko	siriar	damaskoar
Somalia*ko Errepublika Demokratikoa*	Muqdisho	somaliar	muqdishoar
Sri Lanka*ko Errepublika Sozialista Demokratikoa*	Kolonbo (adm.)/Kote (hbr.)	srilankar	kolonboar/kotetar
Swazilandia*ko Erresuma*	Mbabane (adm.)/Lobamba (hbr.)	swazilandiar	mbabanetar/lobambar
Sudan*go Errepublika*	Al-Khartum	sudandar	khartumdar
Suedia*ko Erresuma*	Stockholm	suediar	stockholmdar
Suitza*ko Konfederakundea*	Bema	suitzar	bernatar
Surinam*go Errepublika*	Paramaribo	surinamdar	paramariboar
Tadjikistan	Dushanbe	tadjikistandar	dushanbetar
Thailandia*ko Erresuma* (6)	Bangkok	thailandiar	bangkokar
Tanzania*ko Errepublika Batua*	Dar es Salaam (hbr. Dodoma)	tanzaniar	daresalaamdar
Togo*ko Errepublika*	Lome	togoar	lometar
Tonga*ko Erresuma*	Nukualofa	tongatar	nukualoiar
Trinidad eta Tobago*ko Errepublika*	Port-of-Spain (Espainiar Portua)	trinitatear	portofspaindar/portar
Tunisia*ko Errepublika*	Tunis	tunisiar	tunistar
Turkia*ko Errepublika*	Ankara	turkiar	ankara
Turkmenistan	Ashkhabad	turkmenistandar	ashkhabadtar
Tuvalu	Fongafale	tuvalutar	fongafaletar
Txade*ko Errepublika*	Njamena	txadar	njamenar
Txekiar Errepublika/Txekia	Praga	txekiar	pragatar

(6) Iñaki Irazabalbeitiak, Elhuyarren izenean, 'Tailandia' proposatzen du botu partikular moduan. Puntu honetan ere transkripzio-arazoa dago.

Estatua	**Niriburua**	**Estatu-jentilizioa**	**Hiriburu-jentilicioa**
Txile*ko Errepublika*	Santiago	txiletar	santiagotar
Txina*ko Errepublika*/Taiwan	Taibei	taiwandar	taibeiar
Txina*ko Herri-Errepublika*	Pekin	txinatar	pekindar
Txipre*ko Errepublika*	Nikosia	txipretar	nikosiar
Ugandа*ko Errepublika*	Kampala	ugandar	kampalar
Ukraina	Kiev	ukrainar	kiedar
Urugua*yko Ekialdeko Errepublika*	Montevideo	uruguayar	montevideoar
Uzbekistan	Tashkent	uzbekistandar	tashkentar
Vanuatu*ko Errepublika*	Vila	vanuatutar	vilatar
Vatikano Hiria/Vatikano Hiriko Estatua Vatikanoa	Vatikano Hiria	vatikanoar	vatikanoar
Venezuela*ko Errepublika*	Caracas	venezuelar	caracastar
Vietnam*go Errepublika Sozialista*	Hanoi	vietnamdar	hanoiar
Zaire*ko Errepublika*	Kinshasa	zairetar	kinshasar
Zambia*ko Errepublika* (7)	Lusaka	zanbiar	lusakar
Zeelanda Berria	Wellington	zeelandar	wellingtondar
Zimbabwe*ko Errepublika*	Harare	zinbabwetar	hararetar

(7) Iñaki Irazabalbeitiak, Elhuyarren izenean, 'Zanbia' proposatzen du botu partikular moduan.

MUNDUKO ZENBAIT AKZIDENTE GEOGRAFIKO

Leioa, 1994.10.06
Inaki Irazabalbeitia

Beheko zerrendan munduko akzidente geografiko batzuk, batzordearen ustez nagusienak, biltzen dira. Zerrendan hiru zutabe daude: lehenengoan toponimoa, bigarrenean estatua adierazten duen kodea eta hirugarrenean akzidente-mota. Akzidentea izendatzeko unean aukera bat baino gehiago egon liteke, **irla** edo **uharte** esaterako. Batzordeak horri buruzko erabakirik ez duela hartu behar uste du. Beraz, hor agertzen diren formak informatiboak baino ez dira.

Oharrak:

* Transkripzio-arazoa (forma erabaki gabe).
? Bestelako arazoa (forma erabaki gabe).

Toponimoa	**Nongoa**	**Mota**
Adamen Zubia	333	irla(k)
Adengo golkoa	700	golkoa
Adriatiko, itsaso	700	itsasoa
Afrika		
Afrikako Adarra		
Alaskako mendikatea	213	mendia
Aleutiarrak	213	irla(k)
Alpeak	700	mendia
Altai	325	mendia
Amazonas	207	ibaia
Amazonia	700	eskualdea
Amerika(k)		
Andeak	700	mendia
Anglo-normandiar irlak	408	irla(k)
Antarktiar Ozeanoa	000	itsasoa
Antarktika		
Antillak	0	irla(k)
Apeninoak	418	mendia
Appalacheak	213	mendia

Toponimoa	Nongoa	Mota
Arabiako itsasoa edo Omango itsasoa	700	itsasoa
Arabiako golkoa	700	golkoa
Aragoa	410	ibaia
Aral	341	itsasoa
Arktiar artxipelagoa	220	irla(k)
Arktiar Ozeanoa	000	itsasoa
Arktika		
Arno	418	ibaia
Arrantzaleen irlak	335	irla(k)
Asia		
Asia Txikia		
Atlantiar Ozeanoa	700	itsasoa
Auñamendi	412	mendia
Australa, Ozeano	000	itsasoa
Australiako Alpeak	501	mendia
Azoreak	426	irla(k)
Azov-eko itsasoa	448	itsasoa
Balaton	415	lakua
Baleareak	410	irla(k)
Bali	311	irla(k)
Balkanak	406	mendia
Baltiko, itsaso	700	itsasoa
Barea, Ozeano	700	itsasoa
Barents	700	itsasoa
Barne-itsasoa	700	itsasoa
Bazko	234	irla(k)
Bengalako golkoa	700	golkoa
Bering	700	itsasoa / itsasartea
Bohemiako Oihana	431	mendia
Borneo	311	irla(k)
Botniako golkoa	700	golkoa
Britainia Handia	408	irla(k)
Britainiar irlak	408	irla(k)
Cabrera	410	irla(k)
Cádizko golkoa	410	golkoa
Campeche-ko badia	223	golkoa
Capri	418	irla(k)
Cebu	307	irla(k)
Celebes,	311	irla(k)
Celebes edo Sulawesiko itsasoa	700	itsasoa
Cervino,	418	mendia

Toponimoa	Nongoa	Mota
Chafarinak	410	irla(k)
Charente	412	ibaia
Colorado	202	ibaia
Columbia	213	ibaia
Danubio	700	ibaia
Delaware	213	ibaia
Demanda	410	mendia
Dinariar Alpeak	451	mendia
Dnieper	428	ibaia
Dniester	448	ibaia
Dodekaneso edo Hegoaldeko Esporadak	413	irla(k)
Dolomitak	418	mendia
Don	428	ibaia
Donets	448	ibaia
Dordonia	412	ibaia
Dortoka	217	irla(k)
Drome	412	ibaia
Duero	410	ibaia
Ebro	410	ibaia
Egeo	700	itsasoa
Eivissa	410	irla(k)
Ekialde Hurbila		
Ekialdeko Siberiako itsasoa	700	itsasoa
Txina Ekialdeko itsasoa	700	itsasoa
Elba	418	irla(k)
Elba	402	ibaia
Elbrus	428	mendia
Elur-oreinaren lakua	220	lakua
Erie	220	lakua
Erraldoien mendiak	425	mendia
Erraldoien Galtzada	408	bestelakoa
Ertamerika		
Erzgebirge edo Metal mendiak	402	mendia
Escaut,	405	ibaia
Eskandinaviako Alpeak	424	mendia
Esklabuen Laku Handia	220	lakua
Eslovakiako Metal mendiak	431	mendia
Eufrate	312	ibaia
Europa		
Everest,	327	mendia
Eyre	501	lakua
Faroe	407	irla(k)

Toponimoa	Nongoa	Mota
Filipinetako itsasoa	700	itsasoa
Finlandiako golkoa	411	golkoa
Flores	426	irla(k)
Floresko itsasoa	700	itsasoa
Formentera	410	irla(k)
Frisiako irlak	414	irla(k)
Fuerteventura	410	irla(k)
Fujiyama	315	mendia
Galileako itsasoa edo Kinneret lakua	314	lakua
Ganges	310	ibaia
Gardako lakua	418	lakua
Ginea Berria	507	irla(k)
Gineako golkoa	700	golkoa
Glarisko Alpeak	430	mendia
Gomera	410	irla(k)
Gotlandia	429	irla(k)
Groenlandia,	407	irla(k)
Guadalquivir	410	ibaia
Guadiana	410	ibaia
Guam	213	irla(k)
Haizaldeko irlak	700	irla(k)
Haizebeko irlak	700	irla(k)
Hartzaren Laku Handia	220	lakua
Hawaii	213	irla(k)
Hebridak	408	irla(k)
Hego irla	512	irla(k)
Txina Hegoaldeko Itsasoa	700	itsasoa
Hegoaldeko Alpeak edo Zeelanda Berriko Alpeak	512	mendia
Hegoaldeko Esporadak	413	irla(k)
Hegoaldeko Karpatoak edo Transilvaniako Alpeak	409	mendia
Hegoaldeko Orkadak	408	irla(k)
Hegoaldeko Shetland	408	irla(k)
Hegoaldeko Sierra Madre	223	mendia
Hegoamerika		
Hierro	410	irla(k)
Himalaia	327	mendia
Hindu Kush	329	mendia
Española	700	irla(k)
Hoggar edo Al-Hajjar	101	mendia
Hokkaido	315	irla(k)
Hondo	315	irla(k)
Hondurasko golkoa	218	golkoa

Toponimoa	Nongoa	Mota
Honshu	315	irla(k)
Hudson	220	golkoa
Huron	220	lakua
Ibai Beltza	338	ibala
Ibai Gorria	338	ibaia
Ibai Horia	337	ibaia
Ibai Urdina edo Yangzi	337	ibaia
Iberiar mendikatea	410	mendia
Igokunde	408	irla(k)
Iguazu	207	ibaia
Indiar Ozeanoa	700	itsasoa
Indotxina		
Indre	412	ibaia
Indus	329	ibaia
Inn	402	ibaia
Insulindia	0	irla(k)
Ipar Dvina	428	ibaia
Ipar irla	512	irla(k)
Ipar itsasoa	700	itsasoa
Iparraldeko Esporadak	413	irla(k)
Iparramerika		
Irawadi	326	ibaia
Irla Loriatsuak	412	irla(k)
Irlanda	416	irla(k)
Irlanda Berria	507	irla(k)
Irlandako itsasoa	408	itsasoa
Irtish	428	ibaia
Isère	412	ibaia
*Itaka	413	irla(k)
Itsaso Beltza	700	itsasoa
Itsaso Gorria	700	itsasoa
Itsaso Hila	317	itsasoa
Itsaso Horia	700	itsasoa
Itsaso Zuria	700	itsasoa
Izabal	215	lakua
Japoniako itsasoa	700	itsasoa
Java	311	irla(k)
Javako itsasoa	700	itsasoa
*Jenisei	428	ibaia
*Jerba	148	irla(k)
Joniako irlak	413	irla(k)
Joniako itsasoa	700	itsasoa

Toponimoa	Nongoa	Mota
Jordan	317	ibaia
Jura	412	mendia
Kanaleko edo Anglo-normandiar irlak	408	irla(k)
Kanaria Handia	410	irla(k)
Kanariak	410	irla(k)
Kanbriar mendiak	408	mendia
Kantabriar mendikatea	410	mendia
Kara-Bogaz-Gol	340	golkoa
Karako itsasoa	700	itsasoa
Karibe itsasoa	700	itsasoa
Karniar Alpeak	418	mendia
Karolinak	503	irla(k)
Karpatoak	700	mendia
Kaspiar itsasoa	700	itsasoa
Kaukaso	428	mendia
*Kikladeak	413	irla(k)
Kilimanjaro edo Uhuru	146	mendia
Komunismo	343	mendia
Konstantzako lakua	402	lakua
Koralaren itsasoa	700	itsasoa
Korfu	413	irla(k)
Kubango	428	ibaia
Kurilak	428	irla(k)
Laku Nagusia	418	lakua
Lanzarote	410	irla(k)
Laptevitsasoa	700	itsasoa
Lau Kantoien lakua	430	lakua
Leman	430	lakua
Lena	428	ibaia
Liguriako itsasoa	700	itsasoa
Limpopo	134	ibaia
?Liongo golkoa	412	golkoa
Loir	412	ibaia
Loira	412	ibaia
Maas	412	ibaia
Mackenzie	220	ibaia
Madeira	426	irla(k)
Main	402	ibaia
Mallorca	410	irla(k)
Malvinak edo Falkland	408	irla(k)
Man	408	irla(k)
Manitoba	220	lakua

Toponimoa	Nongoa	Mota
Marañón	227	ibaia
Markesak	412	irla(k)
Markham	600	mendia
Marmara	700	itsasoa
Marne	412	ibaia
?Mazizo Zentrala	412	mendia
Mediterranioa	700	itsasoa
Melanesia	700	irla(k)
Mendebaldeko Dvina	428	ibaia
Mendebaldeko Sierra Madre	223	mendia
Mendi Beltzak	412	mendia
Mendi Arrokatsuak	213	mendia
Metal mendiak	402	mendia
Mendi Urdinak	213	mendia
Mendikatea Betikoa	410	mendia
Mendikatea Penibetikoa	410	mendia
Mendikatea Zentrala	410	mendia
Mendizerra Banatzaile Handia	501	mendia
Menorca	410	irla(k)
Meuse	412	ibaia
Mexikoko golkoa	223	golkoa
Michigan	213	lakua
Midi D'Ossau	412	mendia
Midi de Bigorre	412	mendia
Mikonos	413	irla(k)
Mikronesia	700	irla(k)
Miño	410	ibaia
Mississippi	213	ibaia
Missouri	213	ibaia
Mistassini	220	lakua
Moldava	431	ibaia
Molukak	311	irla(k)
Moluketako itsasoa	700	itsasoa
Mont Blanc	412	mendia
Morava	431	ibaia
Mosa	412	ibaia
Mosela	412	ibaia
Moskova	428	ibaia
Niger	137	ibaia
Nilo	109	ibaia
Norvegiako itsasoa	700	itsasoa
*Novaia Zemla	428	irla(k)

Toponimoa	Nongoa	Mota
Nyassa	128	lakua
Oder	425	ibaia
Oihan Beltza	402	mendia
Oise	412	ibaia
Okhotskeko itsasoa	700	itsasoa
Olandia	429	irla(k)
*Olinpo	413	mendia
?Oloroeko ibaia	412	ibaia
Omango golkoa	328	golkoa
Omango itsasoa	700	itsasoa
Onega	428	lakua
Ontario	220	lakua
Orange	135	ibaia
Orinoco	236	ibaia
Orkadak,	408	irla(k)
Ozeania		
?Pabeko uhaitza	412	ibaia
Palma, La	410	irla(k)
Pamir	343	mendia
Peninoak	408	mendia
Persiako edo Arabiako golkoa	700	golkoa
Picos de Europa	410	mendia
Pirinioak	700	mendia
Po	418	ibaia
Ponte-ko mendiak	336	mendia
Rhetiako Alpeak	430	mendia
Rhin	402	ibaia
Rodano	412	ibaia
Rodas	413	irla(k)
Ross	700	itsasoa
Ruwenzori	150	mendia
Samoa	700	irla(k)
*Samotrazia	413	irla(k)
Saona	412	ibaia
Sardinia	418	irla(k)
Sargazoen itsasoa	700	itsasoa
Scotia	700	itsasoa
Scutariko lakua	401	lakua
Sena*	412	ibaia
Shetland	408	iria(k)
Shikoku	315	irla(k)
Shisha Pangma	327	mendia

Toponimoa	Nongoa	Mota
Shkoder	401	lakua
Siberia Berriko Irlak	428	irla(k)
Sierra Madre	307	mendia
Sierra Maestra	222	mendia
Sierra Morena	410	mendia
Sierra Nevada	213	mendia
Sierra Nevada	410	mendia
Sinai	109	mendia
Sicilia	418	irla(k)
Sonda	311	irla(k)
Suaren Lurraldea	202	irla(k)
Sudeteak	431	mendia
Sumatra	311	irla(k)
Superior	220	lakua
Tahiti	412	irla(k)
Tajo	410	ibaia
Tamesi	408	ibaia
Tanganyika	501	irla(k)
Tasmaniako itsasoa	700	itsasoa
Tenerife	410	irla(k)
Ternua	220	irla(k)
Tiberiades	314	lakua
Tigris	312	ibaia
Timor	311	irla(k)
Timorko itsasoa	700	itsasoa
*Tirreniar itsasoa	700	itsasoa
Titicaca	206	lakuaa
Transilvaniako Alpeak	409	mendia
Tunguska Beherea	428	ibaia
Tunguska Garaia	428	ibaia
Tunguska Harritsua	428	ibaia
Ural Mendiak	428	mendia
Urmiako lakua	313	lakua
Victoria	146	lakua
Vienne	412	ibaia
Vistula	425	ibaia
Volga	428	ibaia
Volta	106	ibaia
Volta Gorria	106	ibaia
Volta Zuria	106	ibaia
Vosgeak	412	mendia
Winnipeg	220	lakua

Toponimoa	Nongoa	Mota
Yonne	412	ibaia
Zaire edo Kongo	102	ibaia
Zambezi	134	ibaia
Zanzibar	146	irla(k)
Zeelanda Berriko Alpeak	512	mendia

ALFABETO LATINOZ IDAZTEN EZ DIREN HIZKUNTZEN TRANSKRIPZIO ETA TRANSLITERAZIOA

Inaki Irazabalbeitia

Edozein gairi buruz ari garelarik, lehenik eta behin zertaz ari garen definitzea komenigarria izaten da, are gehiago hari buruzko arazo kontzeptualak tartean direnean. Gure kasuan bi kontzeptu nahas-mahasten dira ohizko erabileran: transliterazio eta transkripzioa.

Elhuyar Hiztegi Entziklopedikoak (1) hauxe dio:

transkripzio. *iz.* **2.** HIZKL. Hizkuntzaren soinuak zeinu eta ikur konbentzionalen bidez adieraztea. Bi transkripzio-mota daude: *transkripzio fonologikoa* (fonemak adierazten dituena) eta *transkripzio fonetikoa* (hizkerazko hots eta ahoskatze-ñabardurak adieraztea ahalbidetzen duena). **3.** HIZKL. Hizkuntza baten elementuak, hotsak nahiz zeinuak (jatorrizko idazkera zeinnahi delarik ere), letrazko edo zeinu fonetikozko beste sistema idatzi batez adieraztea.

transliterazio. *iz.* HIZKL. Alfabeto bateko karaktereak, letrak nahiz zeinuak, beste alfabeto bateko karaktereez banan-banan adieraztea (transkripzioan ez bezala, zeinuen arteko korrespondentzia bilatzen da, ez soinuen artekoa).

Beraz bi kontzeptuon arteko muga argia da itxuraz. Transkripzioak hotsa, ahoskatzen dena alegia, hartzen du kontutan batez ere eta transliterazioak zeinuak, idatzitako testua. Hala eta guztiz ere, praktikan ez da horrelakorik gertatzen eta horretaz jabetzeko *Enciclopèdia Catalana* (2) delakoaren hitzaurrean bi kontzeptu hauek nola erabiltzen diren aztertzea baino ez dago. Hauxe dio:

"Els noms de personalitats històriques i actuals importants de citació freqüent als textos de cultura mitjana entren per llur forma transcrita que remet a la forma transliterada (Txèkhov remet a Čekhov)."

Eta aurrerago,

"Els noms grecs moderns han estat transliterats quan no corresponen a noms grecs clàssics; aquets darrers són transcrits o catalanitzats."

---

(1) ELHUYAR HIZTEGI ENTZIKLOPEDIKOA: *Elhuyar Kultur Elkartea.* Donostia, 1993.

(2) GRAN ENCICLOPEDIA CATALANA: *Fundació Enciclopèdia Catalana.* Bartzelona, 1974.

Antza, entziklopedia horren egileek transkripzioa eta grafia katalana kontutan harturik egindako transliterazioa identifikatu dituzte. Identifikazio hori ez da zuzena gure aburuz. Izan ere, alfabeto baten transliterazioa ez da bakarra. Betiere, helburu-hizkuntza kontutan hartu da. Zergatik? Helburu-alfabetoko zeinuek ez dutelako soinu bera alfabeto horretaz idazten diren hizkuntza guztietan. Zeinu guztien atzean soinua dagoenez, irakurleari deskodetzeko moduan eman ohi zaio. Esaterako errusierazko ц zeinua **tsch** transkribatzen da alemanez, **tch** frantsesez, **ch** gaztelania eta ingelesez eta **ci** italieraz. Beraz, zeinuak duen hotsa ere kontutan hartzen da neurri batean eta hizkuntza horren mintzatzaileari berak identifika dezakeen moduan moldatzen da transliterazioa. Beraz, alfabeto batek transliterazio-sistema bat baino gehiago izan ditzake. Alabaina, hainbat alfabetoren kasuan transliterazio-sistema batek beste guztiak gainditu baditu, eredu bakarra ibiliko da munduan, japonieraren kasuan adibidez.

Non dago bada, transliterazio eta transkripzioaren arteko muga? Bi alfabetoen arteko zeinuen erlazio biunibokoan, hots, helburu-alfabetotik jatorri alfaberora eta alderantziz pasa daitekeela beti informaziorik galdu gabe.

Guk aurreko parrafoan eginiko ñabardurak kontutan harturik erabiliko dugu transliterazio hitza une honetatik aurrera.

Transliterazioan, jatorrizko alfabetoko zeinu bati beste bat egokitu behar zaio helburu alfabetoan. Letrak soilik erabiliz ezinezkoa gertatzen da kasu gehienetan eta ondorioz, beste bide batzuk erabili behar izaten dira. Kontsonante zein bokalei ezarritako zeinu diakritikoak edo ez-ohizko letra-multzoak usatzen dira horretarako. Horrexeagtik transliterazio-sistemen emaitzak irensgaitzak eta ulergaitzak gertatzen zaizkio batezbesteko irakurleari. Izan ere, honelakoak arrunt dira: Č, I, ç, q̌, kh, zh, etab. Gainera, zeinu horiek arazo tekniko eta mekaniko latzak jartzen dituzte testuak ordenadorez edo idazmakinaz izkiriatu nahi direnean. (Bidenabar, desadan ponentzia honetan erabiltzen ari naizen tipografia berezi hori Elhuyarren sortu behar izan genuela, merkatuan ez zegoelako).

Beraz, transliterazioaren alorrean mailaketa ezartzeak komenigarria dela dirudi. Besteek egiten dutenari begiratzea egokia izaten, gure egoeraren antzekoan daudenei bereziki. Ikuspegi honetatik *Institut d'Estudis Catalans* (3) delakoak alfabeto arabiarraren kasuan eginikoa oso interesgarria da.

Erakunde horrek hiru maila egiten ditu:

a) **Transliterazio osoa** *(Transcripció fonemàtica i lineal, transliteració).* Hau argitalpen berezituetan, goi-mailako dibulgazioan eta arabierarekin erlazioa duen jendeari zuzendutako argitalpenetan erabiltzekoa izango litzateke.

b) **Transliterazio erraztua** *(Transcripció simplificada).* Honen helburua dibulgazio-lanak (historikoak, politikoak, literarioak, etab.) eta masa-komunikabideak dira. Arabieraren soinuak grafema katalanen bidez ematen saiatzen da.

c) **Transkripzioa edo egokitzapen foniko-grafikoa** *(Adaptació fònico-gràfica).* Hau hitz arrunt eta arabismoak emateko proposatzen da batez ere. Maila hone-

(3) PROPOSICIO DOBRE ELS SISTEMES DE TRANSLITERACIO I TRANSCRIPCIO DELS MOTS ARABS AL CATALA: *Institut d'Estudis Catalans.* Bartzelona, 1990.

tan honelako hitzak sartzen dira: **bushido, xii, shah, khalifa/jalifa/kalifa, dikka, estajanovista, estalinista, sobiet, geisha, jihad, kasbah, kibbutz**, etab. Alor honi ez dio exonomastika-batzordeak konponbidea eman behar lexiko-batzordeak baizik. Hala ere, bien arteko komunikazioa behar-beharreazkoa da erabakien artean kontraesanik egon ez dadin.

Euskararen kasuan ere mailaketa hori egitea egokia izan daiteke eta horrelaxe egitea proposatzen dugu. Guk hemen egingo ditugun proposamenak bigarren mailako kasuari dagozkionak dira.

Gorago esan dugunez, kasu batzuetan alfabeto latinoa ez duten hizkuntzak alfabeto latinora bihurtzeko arauak (transliterazio-arauak) eman ditu hizkuntza hori mintzatzen deneko erakunde ofizialen batek. Arau horiek kasu askotan nazioartean onarpen maila handia izan dute, Txinako txineraren kasuan adibidez. Beste batzuetan aitzitik ez da horrelakorik gertatu, errusiera kasu. Datu hau kontutan hartzekoa da beraz.

Laburtuz hauxe da gure proposamena:

1. Erakunde ofizial baten transliterazio-arauak eman eta munduan onarpena izan dutenean, sistema horixe erabiliko da. Betiere zeinu diakritikoak baztertuko dira goiko mailaketaren **a** kasuan ezik. Kasu horretan hizkuntza hauek daude: txinera (Taiwangoa izan ezik), japoniera eta serbokroaziera. Lehenean pin-yin sistema erabiliko da, bigarrenean Herpburn sistema, serbokroazieraren kasuan Kroazian erabiltzen dena (salbuespen moduan đ j moduan emango dugu).

2. Nahiz eta transliterazio-sistema ofizialik egon ez nazioartean nahikoa bateratsu erabiltzen diren grafiak hobetsiko dira. Normalean, potentzia kolonizatzaile batek ezarritakoa da. Kasu honetan *Encyclopaedia Britannica* delakoak proposatutakoa hobetsiko da. Betiere zeinu diakritikoak baztertuko dira goiko mailaketaren **a** kasuan ezik. Hauek dira kasuak: birmaniera, etiopiera, Indostango hizkuntzak urduera izan ezik, khmenera, laosiera eta taiera.

3. Euskarara moldatutako transliterazioa hauek izango dute: alfabeto zirilikoa (bielorrusiera, bulgariera, errusiera eta ukraniera), arabiera, georgiera, grekoa, hebraiera, iranera, pashto-afganera eta urduera, koreera, mongoliera eta Taiwango txinera. Errusieraren kasuan bertako Zientzi Akademiak emandako transliterazio-sistema erabili daiteke **a** kasuan.

Taulak erakustera pasa aurretik, bi ohar egin behar dira:

1. Transliterazioa ez zaio aplikatuko beste bide batetik etorritako tradiziozko izenei. Adibidez, Txina, Tokio, Kanton, Pekin, Tailandia, Kalkuta...

2. Transliterazioa egiten denean oso gutxitan izango da jatorrizko alfabetoa begien aurrean eta kasurik arruntean garraio-hizkuntza bat izango da tartean. Hori kontutan hartu beharko da eta tauletan inguruko hizkuntza nagusien formak era ematen dira. Horren ondorioz *Chejov, Tchekhov* edo *Chekhov* irakur daiteke gaztelaniazko testuetan iturria jatorrizko hizkuntza, frantsesa edo ingelesa den heinean.

ARABIERA

Arabierazko izenen transkripzio-taula osatzeko, *Encyclopœdia Britannica* delakoan eta EFE berri-agentziaren *Manual del Español Urgente* izeneko liburuan ematen diren transkripzio-arauetan eta gutxi gorabeherako ahoskatze-tauletan oinarritu gara. Euskarazko forma zehazteko unean, ingelesezkoa hartu da oinarritzat, baina beste hizkuntzetakoak ere kontutan hartu behar dira. Alabaina, frantsesaren eragina izan duten herri arabiarretan, ingelesa ez da oso iturri fidagarria; frantsesezko transkripzioek kutsatzen bait dute. Esaterako, *u* eta *e* letrak adierazteko *ou* eta *ai* bokal-multzoak erabiltzen dira.

TRANSLITERAZIO OSOA

Arabiar alfabetoa	Transliterazioa	Gutxi gora-beherako ahoskera klasikoa
ا	ʿ	—
ب	b	*b*erri
ت	t	*t*alo
ث	ṯ	ing. *th*in
ج	j, (ŷ)	*j*oan
ح	ḥ	
خ	kh	gip. *j*oan
د	d	*d*ago
ذ	dh, (ḏ)	ing. *th*en
ر	r	ha*rr*o
ز	z	*z*ozo
س	s	*s*arde
ش	sh, (ṡ, x)	*x*aboi
ص	ṣ	—
ض	ḍ	—
ط	ṭ	—
ظ	ẓ	—
ع	ʿ	—
غ	gh, (ĝ)	fr. *r*ien

Arabiar alfabetoa	Transliterazioa	Gutxi gora-beherako ahoskera klasikoa
ف	f	*f*ede
ق	q	be*kh*atu
ك	k	*k*ale
ل	l	*l*ore
م	m	a*m*a
ن	n	a*n*aia
ه	h	ing. *h*at
و	w	ing. *w*atch
ى	y	*j*an (kon.), *i*tzal (bo.)
ـَـ	a	*a*re
ـُـ	u	*u*so
ـِـ	i	*i*h*i*ntz
ـَا	ā	*a* luzea
ـَى	á	—
ـُو	ū	*u* luzea
ـِي	î	*i* luzea
ـَو	aw	h*au*
ـَي	ay	*ai*ta

TRANSLITERAZIO ERRAZTUA

Arabiar alfabetoa	Ing.	Fr.	Gazt.	Euskal grafia
ب	b	b	b	b
ت	t	t	t	t
ث	th, <u>th</u>	th	z	z
ج	j, dj, <u>dj</u>	dj, g	y	j

Arabiar alfabetoa	Ing.	Fr.	Gazt.	Euskal grafia
ح	h, ḥ	h	h	h
خ	kh, kh	kh	j	kh
د	d	d	d	d
ذ	dh, dh	d	d	d
ر	r	r	r	r, rr (bokal artean)
ز	z	th	z	Z
س	s	s	s	s
ش	sh, sh, ch	sch, ch	sh, ch	sh (x, ?)
ص	ṣ, ṣ	s	s	s
ض	ḍ, ḍ	dh	d	d
ط	t, ṭ	t	t	t
ظ	ẓ, ẓ	th	z	z
ع	‘		‘	‘
غ	gh, gh	gh	g, gu	g
ف	f	f	f	f
ق	q, k	k	q	k
ك	k	k	k	k
ل	l	l	l	l
م	m	m	m	m
ن	n	n	n	n
ه	h	h	h	h (aspiratua)
و	w	w, ou	u	u
ى	y	y	ỳ, i	j (hitz has.), i
	-yi-	-yi-	-yi-	-ji- (bo. atz.)
	-iy-	-iy-	-iy-	-ij- (bo. aur.)
ـَ	a, e			a
ـُ	u, oo	ou	u	u
ـِ	i	i	i	i

Arabiar alfabetoa	Ing.	Fr.	Gazt.	Euskal grafia
ا ـَـ	ā	ā	ā	a
ى ـَـ	a, á			a
و ـُـ	ū	ū	ū	u
ي ـِـ	ī	ī	ī	i
ؤ ـُـ	aw	aw	aw	au
ئ ـَـ	āy, ai, ei			ai
	-ah, -at, -at, -a			-ah
	ūw, uww	uw	uww	u

BULGARIERA

Bulgariera alfabeto zirilikoz idazten da. Bulgarierazko izenen transkripzio-taula osatzeko, *Encyclopœedia Britannica* delakoan eta EFE berri-agentziaren *Manual del Español Urgente* izeneko liburuan ematen diren transkripzio-arauetan eta gutxi gora-beherako ahoskatze-tauletan oinarritu gara. Euskarazko forma zehazteko unean, ingelesezkoa hartu da oinarritzat, baina beste hizkuntzetakoak ere kontutan hartu dira.

TRANSLITERAZIO ERRAZTUA

Maiusk.	Minus.	Ing.	Fr.	Gazt.	Euskal grafia
А	а	a	a	a	a
Б	б	b	b	b	b
В	в	v	v	v	v
Г	г	g, gh-	g, gh-	g, gu-	g
Д	д	d	d	d	d
Е	е	e	e	e	e
Ж	ж	zh	j, g, zh	y (bo. aur.), j (kon. aur.)	j (zh, ?)
З	з	z	-s-, z	s	z

Maiusk.	Minus.	Ing.	Fr.	Gazt.	Euskal grafia
И	и	i, ee, y	i, y	i	i
Й	й	i, ee, y	i, y	i, -y	i
К	к	k	k	k	k
Л	л	l	l	l	l
М	м	m	m	m	m
Н	н	n	n	n	n
О	о	o	o	o	o
П	п	p	p	p	p
Р	р	r	r	r	r
С	с	s	s-, -ss-	s	s
Т	т	t	t	t	t
У	у	u, oo	ou	u	u
Ф	ф	f	f	f	f
Х	х	kh, h	kh, h	j, h	kh
Ц	ц	ts	ts	ts	ts
Ч	ч	ch	tch	ch	tx
Ш	ш	sh	ch	sh	sh (x, ?)
Щ	щ	sht	cht	sht	sht
Ъ	ъ	ŭ	e	a	a
	ь	y'o, ò	i, y	i, -y	io, o (kon. atz.), jo (hitz-has.)
Ю	ю	yu	iuo, you	iu, yu	iu, u (kon. atz.), ju (hitz-has.)
Я	я	ya, ia	ia	ia	ia, a (kon. atz.), ja (hitz-has.)

ERRUSIERA

Errusiera alfabeto zirilikoz idazten da. Errusierazko izenen transkripzio-taula osatzeko, *Encyclopœdia Britannica* delakoan eta *Gran Enciclopedia Larousse*n ematen diren transkripzio-arauetan eta gutxi gora-beherako ahoskatze-tauletan oinarritu gara. Euskarazko forma zehazteko unean, ingelesezkoa hartu da oinarri-

tzat, baina beste hizkuntzetakoak ere kontutan hartu dira. Bestetik, alfabeto latinoz idazten ez diren SESBko hizkuntzak alfabeto zirilikoz idazten dira normalean eta gainera errusiarrek eginiko transkripzioren bidetik datozkigunez, errusierari aplikatutako transkripzio-arauak aplikatu dira kasu guztietan.

TRANSLITERAZIO ERRAZTUA

Maius.	Minus.	Ing.	Err. Aka.	Fr.	Gazt.	Euskal grafia
А	а	a		a	a	a
Ь	б	b		b	b	b
В	в	v		v	v	v
Г	г	g		g, gh	g, gu	g
Д	д	d		d	d	d
Е	е	e	e, jej	e	e	e, jej
Ё	ё	o	ò, o, jo			o
Ж	ж	zh	Ž	dj	j	j (zh, ?)
З	з	z		s, z	s	z
И	и	i, ee		i, y	i	i
Й	й	y	j	i, y	i, y	i, j (hitz-has.)
К	к	k		k	k	k
Л	л	l		l	l	l
М	м	m		m	m	m
Н	н	n		n	n	n
О	о	o		o	o	o
П	п	p		p	p	p
Р	р	r		r	r	r
С	с	s		s, ss	s	s
Т	т	t		t	t	t
Ү	у	u, oo		ou	u	u
Ф	ф	f		f	f	f
Х	х	kh, h	ch	kh	j	kh
Ц	ц	ts	c	ts	ts	ts
Ч	ч	ch	č	tch	ch	tx

Maius.	Minus.	Ing.	Err. Aka.	Fr.	Gazt.	Euskal grafia
Ш	ш	sh	š	ch	sh	sh (x, ?)
Щ	щ	shch	šč	chtch	sch	stx
Ъ	ъ	—	—	—	—	—
Ы	ы	y	—	—	—	i
Ь	ь	—	’	—	—	—
Э	э	e		e	a	e
Ю	ю	yu	’u, ju	iou, you	iu, yu	iu, ju (hitz-has.)
Я	я	ya	’a, ja	ia	ia	ia, ja (hitz-has.)

* *je* hitz-hasieran eta bokal edo ’b eta b atzean; *e* kontsonante atzean.

TRANSLITERAZIO OSOA

Maius.	Minus.	Err. Aka.	ISO	Gutxi gora-beherako ahoskera
А	а	a	a	l*a*n
Ь	б	b	b	*b*aso
В	в	v	v	fr. *v*ie
Г	г	g	g	*g*o*g*o
Д	д	d	d	ha*d*i
Е	е	e, je	e	e*d*er edo *j*ende
Ё	ё	’o, o, jo #	ë	*j*ole edo *o*tso
Ж	ж	Ž	Ž	fr. etage
З	з	z	z	*z*o*z*o
И	и	i	i	*i*h*i*ntz
Й	й	j	j	ing. bo*y*
К	к	k	k	*k*ale
Л	л	l	l	*l*ore
М	м	m	m	a*m*a

’o kontsonante atzean ж , ч , ш eta щ ezik; *o* aipatu kontsonanteen atzean; *jo* hitz-hasieran eta bokal atzean

Maius.	Minus.	Err. Aka.	ISO	Gutxi gora-beherako ahoskera
Н	н	n	n	*n*eba
О	о	o	o	us*o*
П	п	p	p	*p*ago
Р	р	r	r	ha*rr*o
С	с	s	s	*s*arde
Т	т	t	t	*t*alo
У	у	u	u	*u*r
Ф	ф	f	f	*f*ede
Х	х	ch	ch	gip. *j*oan
Ц	ц	c	c	*k*atu
Ч	ч	č	č	*tx*erri
Ш	ш	š	š	*x*aboi
Щ	щ	šč	šč	–
Ъ	ъ	–	–	–
Ы	ы	y	y	ing. rh*y*thm
Ь	ь	’	’	–
Э	э	e	e	*e*der
Ю	ю	’u, ju (hitz-has.)	ju	*ju*du
Я	я	’a, ja (hitz- has.)	ja	*ja*un

GREKOA

Greko modernozko izenen transkripzio-taula osatzeko *Encyclopœdia Britannica* delakoan eta EFE berri-agentziaren *Manual del Español Urgente* izeneko liburuan ematen diren transkripzio-arauetan eta gutxi gora-beherako ahoskatze-tauletan oinarritu gara. Euskarazko forma zehazteko unean, ingelesezkoa hartu da oinarritzat, baina beste hizkuntzetakoak ere kontutan hartu dira.

Antzinateko Greziako antroponimoak transkripzio-arau hauetatik kanpo aztertu beharako dira.

TRANLITERAZIO ERRAZTUA

Maius.	Minus.	Elkarketa	Ing.	Euskal grafia
Α	α		a	a
		αι	ai	e
		αυ	av, af	av
Β	β		v	v (b, ?)
Γ	γ		g	g
		γγ, γξ, γχ	ng, nx, nkh	ng, nx, nkh
		γκ	g (hitz-has.), ng (bo. atz.)	g, ng
Δ	δ		dh	d
Ε	ε		e	e
		ει	i	i
		εϊ	eï	ei
		ευ	ev	ev
Ζ	ζ		z	z
Η	η		i	i
		ηυ	iv	iv
Θ	θ		th	z
Ι	ι		i	i
Κ	κ		k	k
Λ	λ		l	l
Μ	μ		m	m
		μπ	b (hitz-has.), mb (bo. atz.)	b, nb
Ν	ν		n	n
		ντ	d (hitz-has.), nd (bo. atz.)	d, nd
		ντζ	ntz	ntz
Ξ	ξ		x	x (ks ?)
Ο	ο		o	o
		οι	oi	i
		ου	ou	u
Π	π		p	p
Ρ	ρ		r	r
Σ	σ, ς		s	s
Τ	τ		t	t

Maius.	Minus.	Elkarketa	Ing.	Euskal grafia
Υ	υ		y	i
		υι	i	i
Φ	φ		f, ph	f
Χ	χ		kh	kh (j ?)
Ψ	ω		ps	ps
Ω	ω		o, ô	o

Jatorri frantseseko edo espainoleko testuetan, grekoaren transkripzioan gertatzen diren aldaketa hauek kontuan izan behar dira:

Ing.	Fr.	Gazt.	Eusk.
z	z	s	z
th	th	c, z, t	t
k	k	c, k, qu	k
r, rh	r	r, rr	r, rr
i	u	u, y	i
f, ph	ph	ph, f	f
kh	kh	j	kh
ô	o	o	o

TRANSLITERAZIO KULTOA*

Maius.	Minus.	Euskal grafia
Α	α	a
Β	β	b
Γ	γ	g
Δ	δ	d
Ε	ε	e
Ζ	ζ	z
Η	η	e

* Altonso Irigoienek proposatu moduan.

Maius.	Minus.	Euskal grafia
Θ	θ	th
Ι	ι	i
Κ	κ	k
Λ	λ	l
Μ	μ	m
Ν	ν	n
Ξ	ξ	x
Ο	ο	o
Π	π	p
Ρ	ρ	r
Σ	σ, ς	s
Τ	τ	t
Υ	υ	y
Φ	φ	ph
Χ	χ	kh
Ψ	ω	ps
Ω	ω	o

HEBRAIERA

Hebraierazko izenen transkripzio-taula osatzeko Encyclopœedia Britannica delakoan eta EFE berri-agentziaren *Manual del Español Urgente* izeneko liburuan ematen diren transkripzio-arauetan eta gutxi gora-beherako ahoskatze-tauletan oinarritu gara. Euskarazko forma zehazteko unean, ingelesezkoa hartu da oinarritzat, baina beste hizkuntzetakoak ere kontutan hartu dira.

Bibliako juduen izenak transkripzio-arau hauetatik kanpo aztertu behar dira.

TRANSLITERAZIO ERRAZTUA

Hebraitar alfabetoa	Ing.	Fr.	Gazt.	Euskal grafia
א				
ב בּ	v, bh; b	v; b	v; b	v; b
ג גּ	g	g	g	g

Hebraitar alfabetoa	Ing.	Fr.	Gazt.	Euskal grafia
ד ד	d	d	d	d
ה	h	h	h	h
ו	v; w	v; w, ou	v; u	v; u
ז	z	z	z, s	z
ח	ḥ, h̲, h̲, ch	h	h	kh
ט	ṭ, t	t	t	t
י	y, j, i	y, dj	y, ch	j, i (bokal denean)
כ	k	k	k	k
כ [ך]	kh	kh	j	kh
ל	l	l	l	l
מ [ם]	m	m	m	m
נ [ן]	n	n	n	n
ס	S, s̲	S	S	S
ע	'	'	'	
פ	P	P	P	P
פ [ף]	f, ph	f	f	f
צ [ץ]	tz, z̲, z, ẓ, ṣ, ts	s	s	ts (tz, ?)
ק	q, k, ḳ	k, c	k, c, qu	k
ר	r	r	r, rr	r, rr
שׁ שׂ	sh, š	sh	sch, sh, ch	sh (x, ?)
ת ת	t, th	t	t	t
	a, ă, ā			a
	e, ė, ê, ĕ			e
	i, î			i
	o, ō, ô			o
	u, û			u

Taulan kortxete artean dauden ikurrak hitz bukaerako letren aldaerak dira.

TRANSLITERAZIO KULTOA

Hebraitar alfabetoa	Euskal grafia*	Gutxi gora-beherako ahoskera sefardia**
א	'	
ב ב	v; b	fr. *v*ite; *b*erri
ג ג	g	*g*urdi
ד ד	d	*d*ago
ה	h	ing. *h*at
ו	w	*u*so
ז	z	*z*ozo
ח	h	gip. *j*oan
ט	t	*t*alo
י	y	*j*oan
כ	k	*k*ale
כ [ך]	kh	gip. *j*oan
ל	l	*l*ore
מ [ם]	m	a*m*a
נ [ן]	n	*n*eba
ס	s	*s*arde
ע	'	
פ	p	*p*ago
פ [ף]	f	*f*ede
צ [ץ]	tz	a*tz*o
ק	q	*k*ale
ר	r	fr. *r*ien
שׂ שׁ	ś, š	*x*aboi
ת ת	t	*t*alo

Taulan kortxete artean dauden ikurrak hitz bukaerako letren aldaerak dira.

* Xabier Kintana jaunak *Benjamin Tuterakoa. Bidaien Liburua* lanean proposatutakoa.
** *Encyclopaedia Britannica*-ren arabera.

IRANERA, PASHTO-AFGANERA ETA URDUERA

Hiru hizkuntza hauek pertso-arabierazko alfabetoz idazten dira. Pertso-arabierazko alfabetoz idatzitako izenen transkripziorako *Encyclopœdia Britannica* delakoak ematen dituen transkripzio-arauak eta gutxi gora-beherako ahoskatze-tauletan oinarritu gara. Euskarazko forma zehazteko unean, ingelesezkoa hartu da oinarritzat, baina beste hizkuntzetakoak ere kontutan hartu dira.

Antzinako Pertsiako antroponimoak transkripzio-arau hauetatik kanpo aztertu behar dira.

TRANSLITERAZIO ERRAZTUA

Bak.	Has.	Erd.	Buk.	Transkripzioa		Euskal grafia
				EB	Alternatibak	
ا	ا	ا	ا			
ب	بـ	بـ	ب	b		b
پ	پـ	پـ	پ	p		p
ت	تـ	تـ	ت	t		t
ث	ثـ	ثـ	ث	s̄	s̲, t̲h	s
ج	جـ	جـ	ج	j	d̲j	j
چ	چـ	چـ	چ	ch	č	tx
ح	حـ	حـ	ح	ḥ	ḥ	h
خ	خـ	خـ	خ	k̲h	k̲h	k̲h
د	د	ـد	ـد	d		d
ذ	ذ	ـذ	ـذ	z̄	z̲, d̲h	z
ر	ر	ـر	ـر	r		r, rr
ز	ز	ـز	ـز	z		z
ژ	ژ	ـژ	ـژ	zh	z̲h	j (zh, ?)
س	سـ	سـ	س	s		s
ش	شـ	شـ	ش	sh	s̲h	sh (x, ?)
ص	صـ	صـ	ص	ṣ	ṣ	s
ض	ضـ	ضـ	ض	Z̲		Z
ط	طـ	طـ	ط	t	t̲	t
ظ	ظـ	ظـ	ظ	ẓ	ẓ̲	z
ع	ع	ـع	ـع	—	—	—
غ	غـ	غـ	غ	gh	g̲h, q	g
ف	فـ	فـ	ف	f	fe	f

Bak.	Has.	Erd.	Buk.	Transkripzioa		Euskal grafia
				EB	Alternatibak	
ق	ق	ﻗ	ق	q	ķ	k
ك	ك	ﻛ	ك	k		k
گ	گ	ﮔ	گ	g		g
ل	ل	ﻟ	ل	l		l
م	م	ﻣ	م	m		m
ن	ن	ﻧ	ن	n		n
و	و	ﻭ	و	v	w	v, u (bokal denean)
ه	ه	ﻫ	ه	h		h
ی	ی	ﻳ	ی	y		j, i (bokal denean)
				a, ā	ā	a
				u		u
				i		i
				e		e
				o		o
				ey	ay, ai	ei
				ow	aw, au	ou

TRANSLITERAZIO KULTOA

Bak.	Has.	Erd.	Buk.	Transliterazioa	Gutxi gora-beherako ahoskera
ا	ا	ﺍ	ا		
ب	ب	ﺑ	ب	b	*b*erri
پ	پ	ﭘ	پ	p	*pa*per
ت	ت	ﺗ	ت	t	*t*alo
ث	ث	ﺛ	ث	ṣ	*s*arde
ج	ج	ﺟ	ج	j	*j*oan
چ	چ	ﭼ	چ	č	*tx*erri
ح	ح	ﺣ	ح	ḥ	ing. *h*at
خ	خ	ﺧ	خ	kh	gip. *j*oan
د	د	ﺩ	د	d	*d*ago
ذ	ذ	ﺫ	ذ	z	*z*ozo

Bak.	Has.	Erd.	Buk.	Transliterazioa	Gutxi gora-beherako ahoskera
ر	ر	ر	ر	r	ha*rro*
ز	ز	ز	ز	z	*z*ozo
ژ	ژ	ژ	ژ	zh	fr. etage
س	سـ	ـسـ	س	s	*s*arde
ش	شـ	ـشـ	ش	sh	*x*aboi
ص	صـ	ـصـ	ص	ṣ	*s*arde
ض	ضـ	ـضـ	ض	ẓ	*z*ozo
ط	ط	ـط	ط	t	*t*alo
ظ	ظ	ـظ	ظ	ẓ	*z*ozo
ع	ء	ـء	ع	—	—
غ	غـ	ـغـ	غ	gh	*
ف	فـ	ـفـ	ف	f	*f*ede
ق	قـ	ـقـ	ق	q	*
ك	كـ	ـكـ	ك	k	*k*ale
گ	گـ	ـگـ	گ	g	*g*ogo
ل	لـ	ـلـ	ل	l	*l*ore
م	مـ	ـمـ	م	m	a*m*a
ن	نـ	ـنـ	ن	n	a*n*aia
و	و	ـو	و	v	°
ه	هـ	ـه	ه	h	#
ی	یـ	ـی	ی	y	$

* g guturala da, askotan fr.ezko *r*ien moduan ahoskatzen da.
° kontsonante denean, fr.ezko *v*ite; bolkal denean, *u*so.
# ing.ezko *h*at; bukaeran mutua.
$ kontsonante denean, *j*oan; bolkal denean, *i*hintz.

KOREERA

Koreera *hangul* alfabetoz idazten da. *Hangul* alfabetoz idatzitako izenen transkripziorako *Encyclopœdia Britannica* delakoak ematen dituen transkripzio-arauak eta gutxi gora-beherako ahoskatze-tauletan oinarritu gara. Euskarazko forma zehazteko unean, ingelesezkoa hartu da oinarritzat, baina beste hizkuntzetakoak ere kontutan hartu dira.

Apostrofoak eta bokalen zeinu diakritikoak kendu egingo dira. Gainera, ondoko transkripzioak egingo dira:

Erdarak	Euskara
tch (fr.), ch, tsch (al.)	tx
y	j, i (kon. atz.)
w	u
dj (fr.), dsch (al.), j	j

TXINERA

Txinako izenak alfabeto latinoz emateko orduan, transkripzio-sistema desberdinak erabili dira. Ingelesek Wade-Giles izenekoa erabili dute, frantsesek E.F.E.O. (Ekialde Urruneko Ikerketen Akademia) erakundeak emandakoa eta alemaniarrek Lessing sistema. Gainera, 1958.ean txinatarrek transkripzio-sistema berri bat eman zuten argitara, txineraren erromanizazioaren arazoa betirako konpondu nahian eta 1979.ean, NBEren babesean, geografi izen estandarizatuei buruzko hirugarren bileran sistema horixe onartu zen nazioarteko arau bezala Txinako izenen transkripzio erromanizatua egiteko. Sistema horri *pinyin* deritzo.

Pinyin sistemak gero eta erabilpen hedatuagoa du, eta euskaraz ere, Txina Kontinentaleko izenak *pinyin* sistema erabiltzea proposatzen dugu.

Baina aurreko sistemek oraindik indarrean diraute, edozein entziklopediaren azterketak erakusten duen bezala; esaterako, *Encyclopaœdia Britannica* ezagunak Wade-Giles sistema hobesten du, baina pinyinezko forma ere ematen du ondoan; eta *Le Robert*; *Nombres Propres* hiztegian Txinako toponimo zein antroponimoek Wade-Gilesezko grafiatik dute sarreM, segidan E.F.E.O.koa eta pinyinezkoa ematen direlarik. Pinyin sistema berria izaki, oraindik pertsonaia batzuk Wade-Giles edo E.F.E.O.zko grafiaz dira ezagunagoak (Wade-Gilesezko *Mao Tse-Tung* edo *Chou En-Lai* adibidez, pinyinez *Mao Zedong* eta *Zhou Enlai* idazten direnak), baina pinyinezko grafien identifikazio-arazoa ez da betirakoa, zabalduz doazen heinean zaharren beharra galdu egiten da eta. Bitarte horretan, jende artean grafia ezagunak ere erabiltzen segituko dira, eta euskaraz ere transkripzio zaharren egokitzapen batzuek bere bidea egin dute *(Txou En-Lai,...)*. Euskarazko grafia hori Wade-Gilesezko grafiatik abiatuta egokitzea hautabide bidezkoa dela uste izan dugu, eta honako aldaketa hauek egin dira:

<ch>: <tx>
<hs>: <s>
<y>: <j> (hitz-hasieran); <i> (bokal artean)
żeinua ezabatu egingo da (<p>': <p>; <t'>: <t>; <ch'>: <tx>;...)

Txina Nazionalistan (Taiwanen) Wade-Giles sistema erabiltzen da gaur egun. Dena den, frantsesez, gaztelaniaz eta alemanieraz Wade-Giles ez den beste sistema batean ematen dira, Txinako Herri-Errepublikako antroponimoetarako hiz-

kuntza bakoitzak erabilitako sistema klasiko berean alegia (ez pinyinez). Bidezkoa dirudi beraz, euskararako egokitzapena lehen esandako bidetik egiteak.

SERBIA

Serbokroaziera alfabeto zirilikoz idazten da Serbian eta alfabeto latinoz Kroazian. Gaur egun, bertako izenak kroazierazko grafiaz hartzen dira, eta ondorioz ez da alfabetzirilikozko izenen transkripziorako taularik behar, hizkuntza guztietan, zeinu diakritikoen arazoa gora-behera grafiak aldatzen ez direlarik.

Hona hemen alfabeto serbiar eta kroaziarrak:

Serbia		Kroazia		Euskal grafia erraztua
А	а	A	a	a
Б	б	B	b	b
Ц	ц	C	c	c
Ч	ч	Č	č	c
			ћ	c
Д	д	D	d	d
		Dž	dž	dz
			đ	j
Е	е	E	e	e
Ф	ф	F	f	f
Г	г	G	g	f
Х	х	H	h	h
И	и	I	i	i
Ј	ј	J	j	j
К	к	K	k	k
		L	l	l
		Lj	lj	lj
М	м	M	m	m
Н	н	N	n	n
		Nj	nj	nj
О	о	O	o	o
П	п	P	p	p
Р	р	R	r	r
С	с	S	s	s

Serbia		Kroazia		Euskal grafia erraztua
Ш	ш	Š	š	s
Т	т	T	t	t
У	у	U	u	u
В	в	V	v	v
З	з	Z	z	z
Ж	ж	Ž	ž	z

Antroponimo historiko batzuetan berriz, grafiak aldatu egiten dira hizkuntza batetik bestera, eta bestelako eredurik gabe, euskarari egokien zaion grafia hartzea proposatzen da.

EXOTOPONIMOEN JENTILIZIOAK OSATZEKO ARAUAK

Inaki Irazabalbeitia

Azken puntu hau ez dagokio exonimiari, lexiko arruntari baizik. Alabaina, exonimiarekin erlazio oso estua duenez, gutxienik arazoa planteatzea egoki iruditzen zaigu. Izan ere, iskanbilatsua eta nahasia da.

Euskaraz, leku-izenari *-ar* atzizkia erantsiz lortzen dira adjektibo jentilizioak, nongotarra den adierazten dutenak alegia. Euskal Herriko jentilizioak Akademia honek eman zituen Euskal Herriko Udalen Izendegia liburuskan. Bertan hauxe dio:

"Herritarren izenetan kontutan eduki da tokiko erabilera eta tradizioa, zeren tokikoak ez direnak ez baitituzte ongi bereizten bukaerako -ar, -tar eta -dar. Baina nola joka, egun euskaraz mintzatzen ez den tokiez?

Kasu honetan analogi irizpidea jarraitu dugu, Araban, Mendebaldeko eren arabera eta Ekialdekoak, Nafarroan."

Kanpoko leku-izenetatik jentilizioak eratortzeko orduan bistan da "tokiko erabilera eta tradizioa" irizpideak hutsaren hurrengoa balio duela. Beraz, kasu horretarako irizpide edo arau bat eman beharra dago. Izan ere, egun oso jentilizio bitxi ikusi ahal da nonnahi idatzirik: irakiar, iraniar, kanadiar, katalandar etab. Guk, Euskal Herriko jentilizioetarako Euskaltzaindiak emaniko zerrenda abiapuntutzat hartu eta exotoponimoen jentilizioak emateko irizpide-taula bat osatu da.

Leku-izenaren amaiera		Atzizkiaren forma	Adibidea	Zenbait salbuespen
KONTSONANTEA	**m / n / l**	**-dar**	Milan: milandar Nepal: nepaldar Jerusalem: jerusalemdar	
	r / s / sh / x / z	**-tar**	Aljer: aljertar Paris: paristar Londres: londrestar	
	ts / tx / tz	**-tstar / -txtar / -tztar**	Metz: metztar	
	ng	**-dar**	Reading: readingdar Hong Kong: hongkongdar	
	gainerako kontsonanteak	**-ar**	Leipzig: leipzigar Al-Jizah: jizahar Hamburg: hamburgar Cardiff: cardiffar Paraguay: paraguayar	Irak: irakiark
	kontsonante + **h**	**h** aurreko kontsonanteari dagokiona	Perth: perthar Phnom Penh: phnompenhdar	

Leku-izenaren amaiera			Atzizkiaren forma	Adibidea	Zenbait salbuespen
BOKALA	a	**silaba bat edo bi**	**-tar**	Txina: txinatar	Suitza: suitzar
		2 > silaba	**-ar**	Kanada: kanadar Albania: albaniar Europa: europar	Erroma: erromatar
		ta	**-ar**	Malta: maltar	
	u		**-tar**	Katmandu: katmandutar Mosku: moskutar	Estatu Batuak: estatubatuar
	au		**-tar**	Dachau: dachautar Passau: passautar	
	i		**-ar**	Miami: miamiar	Napoli: napolitar
	o		**-ar**	Damasko: damaskoar Oslo: osloar Kongo: kongoar	Egipto: egiptiar Mexiko: mexikar Santiago: santiagotar
	io		**io + ar = iar**	Mediterranio: mediterraniar Pirinio: piriniar	Tokio: tokiotar Ohio: ohiotar
	e		**-tar**	Gaborone: gaboronetar Txile: txiletar Baltimore: baltimoretar Sucre: sucretar	

PONTE-IZENAK, ESPAINIA-FRANTZIETAKO ESKUALDE--PROBINTZIEN ETA EUROPAKO TOPONIMIA HISTORIKOA

Leioa, 1994.10.06
Xabier Kintana

1. PONTE-IZENAK

Ponte-izena diogunean pertsonari jaiotzean jartzen zaion izen bereizgarria adierazi nahi dugu. Dakigunez, oraintsu arte, gure artean izen hori jaio berriari bataiatzeko orduan ezarri ohi zitzaion, baina egia da gaur egun, maiz erregistro zibilean besterik ez dela ezartzen. Edonola ere, *luma, arlo, zeru* edo *harrobi* hitzen kasuan bezala, tradiziozko izen zaharrek sarritan geroagoko kontzeptu berriak aipatzen segitzeko duten ohiturari jarraituz eta lehenaldiaren oroipen gisa, bego horrela.

Gutxi dira, izan, kristautu aurreko euskaldunen artean erabiltzen eta guregana heldu diren pertsona-izen zaharrak. Edonola ere, hortxe dira, besteak beste, **Eneko, Seniko, Andere, Bihotz** eta Akitaniako hilarrietan aurkituriko beste batzuk. Bestetik, kristautasunak bere fededunen artean saindu bibliko eta kristauen izenak hedarazi zituen, bestelakoak, paganismo-usainekoak nonbait, pixkanaka baztertu arte, Aro Berritik aurrera batik bat. Jokabide hau ez zen, bestalde, soilki gure artean gertatu, Europar mendebalde osoan baizik.

Horren kariaz, izen judu, greko eta erromatarrak (יעקב *Yaʿaqov,* Γεοργιος *Georgios, Petrus...*) gure artean barraiatu ziren, baina forma horiek, mendeetan zehar, nazio kristau bakoitzeko ohitura fonetikoetara egokituz joan ziren, jatorrizko sainduaren izena mintzaira eta dialekto ezberdinetan era bederaz agertu arte: **Jakue, Jaume, Jaime, Jacob, Jacques, James, Giacomo, Jakob; Jurgi, Jorge, Georges, Giorgio, Jürgen, Georg; Petri, Peru, Pero, Pedro, Pierre, Piero, Peter...** Aldaketa fonetiko berezi hauei esker sortu dira, hortaz, Europako hizkuntza guztien ponte-izenak, mintzaira horiek ofizialtasun-mailara iritsi ahala, jatorrizkoak bezain serio, duin eta dotore bilakatuz, lehenago izen horiek guztiok aldaki lokal edo txikikariak besterik ez baitziren, gaurko ***Quico, Manolo, Perico, Curro, Pepe, Goyo***, edo ***Monchín*** bezalatsu.

Greko-latindar sainduaren jatorrizko izena geure hizkuntzaren fonetika eta ohituretara egindako moldaketen ondorioz, euskaldunok ere

izan ditugu horrelako izenak. Ponte-izen horiek antzinako dokumentuetan aurkitzen dira, Nafarroako artxiboetan batik bat, toponimian –gogora ditzagun **Doneztebe, Donibane, Enekuri**, edo Unibertsitate honen ondoan dugun **Peruri** auzategia–, deituretan **(Petrirena, Mikeltorena, Martinena, Lopategi...)**, eta kasu batzuetan literaturan ere bai, baina, egia esan, oroimen historiko hori luzaro ahantzia izan dugu, gure jendeen gainean Espainia-Frantzietako hizkuntza ofizialek eta administrazioak izandako eragin gogorragatik.

Joan den mendean Euskal Herrian ia ponte-izen guztiak erdara ofizial bietan jartzen ziren, eta euskal izenak, gordetzen ziren neurrian **(Peru, Manu, Mari, Patxi, Pantxika...)** baserritar edo famili kutsuko aldaki prestigiogabe eta arruntzat jotzen ziren, eta ezin pareka zitezkeen inola ere izen ofizial itxuraz dotoreagoekin.

Erdal ponte-izen horiek gure artean betetzen zuten kolonizazio kulturalaz lehenbiziko aldiz jabetu eta hori salatu zutenak Sabino Arana eta Elizalde izan ziren. Eta hori haustea erabaki ere bai. Horretarako, guztiok dakikezuenez, euskal izendegi propio bat plazaratu zuten, euskal jendeari bere nortasunaren lehenbiziko seinalean, izenean bertan, nazio-originaltasun eta hizkuntz burujabetasuna eskaintzeko.

Helburu hori, funtsean, gaurko guztiok ongi ulertu eta onartu arren, Aranak eta Elizaldek, zoritxarrez, beren garaiko semeak izanik, ez zuten aldamenean guk gaur dugun dokumentazioa. Orduko artxiboak ia aztertu gabe zeuden, eta gure lehenaldian antzinako euskaldunek izandako egiazko izenak nolakoak ziren jakin ezinean, asmatzeari ekin zioten, maiz hala-holako erizpideekin.

Ondorioa hortxe dugu: alde batetik guztiz mesedegarria, euskaldunok geure buruak euskal izenez hornitzeko ohitura berreskuratzea alegia, baina bestetik, izen berriegi, asmatu eta tradizio gabeak, maiz, gainera, Espainiako debozio eta ohitura konkretuegiei plegatuegiak, garai bateko espainolen erlijio-hobespen masokista xamarrak **(Dolores, Socorro, Remedios, Rosario, Angustias, Martirio...)** eta beste hizkuntzetan gertatzen ez diren genero-mozioak **(Tomas/Tomasa, Jesús/Jesusa...)** konturatzeke gureganatuz.

Izen horiek, bestalde, gure artean arrakasta handia lortu arren –eta hortxe ditugu **Miren, Iñaki, Josu, Jone, Koldo, Aintzane** modukoak–, beren laborategiko itxura berriegi horrekin, ez digute balio izan hemengo nahiz kanpoko pertsonaia historikoak izendatzeko, eta horregatik **Kepa I.a Errusiakoa** edo **Perderika Prusiakoa** modukoei irrigarri eritziko genieke seguraski. Elizak berak ere, izen horiek gaurko euskaldunen ponteizentzat onartu arren, ez ditu erabiltzen teorian horien iturburu diren

sainduak aipatzeko, eta Jesusi, Bataiatzaileari edo lehenbiziko aitasainduari ez zaie **Josu, Jon** edo **Kepa** esaten.

Gerraondoan, Espainiako gobernu nazionalistak, euskal, katalan eta galiziar izen guztiak galerazi zituen, eta horrek beste bide batetik abiarazi gintuen euskaldunok. Frankismoaren azken garaietan erregistro zibilak gaztelanian kiderik ez zuten izenak onartzean, besterik ezean, **Lourdes, Montserrat, Begoña, Arantzazu, Izaskun, Aitor, Itziar** eta era honetakoetan babestu ginen, hots, Ama Birjinaren gurkera-tokien, Erdi Aroko eta literatur tradizioko izenetan, azken belaunaldietan argi nabari denez. Edonola ere, Espainiako lege-murrizkeria horrek euskaldunoi geure iragan historikoa eten digu, homologazio gabeko izen pitxi xamarrak erabiltzera bultzatuz.

Euskaltzaindiak —eta hemen ezin utz dezaket aipatzeke Jose Mari Satrustegiren lan eskerga— bere euskal izendegia behin eta berriro argitaratuaz, gurasoei ponte-izen autorizatuak aukeratzeko modua eskaini nahi izan die, eta horren edizioak bistako mesedea egin du luzaro. Hor bestalde, Erdi Aroko izen jator asko biltzen ziren, Arana-Goiriren zerrendan ageri ez zirelako, administrazioari nolabait kontrabandoz sartuak.

Baina, izen berri eta maiz aski polit horiekin pertsona-izenen mailan arazoa atondu arren, halere ez daukagu inola ere oraino konpondurik saindu-izendegiaren hasierako problema hura, eta horren frogarik bikainena oraintsu argitaraturiko Biblia batuan ikus dezakegu, Elizak, nora ezean, **Pedro, Felipe, Esteban, Santiago, Moises, Abrahan** moduko aldaki erabat espainolak onartu behar izan ditu eta. Jokabide horrek, gauden textuinguru honetan ulergarria izanik ere, ezin onartuzkoa dirudi Euskal Herri osorako hizkuntz batasunaren ikuspuntutik, eta bazterturik izan dugun arlo horren garrantzia erakusten digu.

Euskararen ofizialtasunak, bestalde, ponte-izenak askatasunez jartzeko aukera eskaintzeaz gainera, izen horiei bestelako funtzioa ere eman die espaldion, hots, irakaskuntzan pertsonaia historikoak zehazki ezaguteraztekoa. Textuliburu, entziklopedia, artikulu eta irakurgaiak hortxe daude, sainduen, enperadore, errege, aita sainduen eta bestelako jende ospetsu batzuen izenak euskaraz ongi nola jarri sarritan jakin gabe.

Euskaltzaindiak arlo honetaz ezer ez zioela eta, autore bakoitzak, zeinek bere kontutik, bere erantzuna eman dio eta nolabaiteko anarkia sortu da. Beharrezkoa zen, hortaz, norbaitek erizpide finko bat eskaintzea, eta gure Akademiak zeregin hori berari zegokiola uste izan du.

Horretarako, exonomastika-azpibatzordeak ponte-izenen arloa bere gain hartu eta bilera eta eztabaida askoren ondoren, zuen aurrean ze-

rrenda batzuk prestatu eta aurkezten ditu, egin gogo dizkiezuen ohar, gehigarri edo zuzenketen zain. Oraingo lan hau, noski, ez dago bukaturik eta izendegi osoa amaitzeak lan-ordu asko eramanen dizkigu oraino, baina geroagoko lan horren aintzindari gisa, oraingoan ehun bat pertsona-izen eskaintzen ditugu, ia erabateko akordioz hautatuak.

Izenok aukeratzeko, alde batetik, geure tradizio zaharra aztertu dugu, lehen esan bezala, literatura, artxibo eta toponimiakoa. Ahal zelarik, beti ahalegindu gara ponte-izen eredu bakarra eskaintzen, horrekin pertsonaia historikoa izendatu ahal izateko, baina inoiz euskalkietako aldakiak edo eta frantses eta espainol eraginpeko erak ere jarri ditugu, bigarren mailan bada ere (**Laurenti**, *Lorentzo;* **Petri**, *Peru, Piarres, Pedro*).

Joan den mendetik hona Europako beste mintzairetatik heldu zaizkigun tradizio berriko izenetan ez da beti posible izan era bakarra ematea, eta ipar eta hegoalderako barianteak edo egokitzapenak eskaintzen ditugu **(Frederik(o), Albert(o), Alfred(o), Henrik(e))**. Gogoratu beharra dago oinarrizko ponte-izenen ondoan maiz horien aldaki hipokoristiko pitxiagoak ere badirela (**Pello, Betiri, Txeru**, adibidez). Hauek, noski, lagun ezagunen izenak izan daitezke, baina ez zaizkie pertsona historiko edo sainduei aplikatu behar, erdaraz ***San Perico, *San Goyo** edo ***San Quico** gisakorik ez dagoen bezalaxe. Berdin jokatu da **David/Dabid, Valentin/Balentin, Venantzio/Benantzio** moduko bikoteetan, v-duna bereziki saindu edo pertsonaia historikoa aipatzeko eta b-duna ohiko euskal izentzat utzirik.

Honi buruz, ez dugu ahantzi behar latindar tradizioa, hispano-frantsesa bereziki, arlo honetan azkoz ere hertsiagoa dela anglosaxoi, germaniar eta eslaviarrena baino, hauek sainduentzat izen bakarra onartu arren, aldaki txikikariak gaurko pertsonen izen seriotzat inolako lotsarik gabe hartzen baitituzte, **Jimmy Carter, Bill Clinton, Willy Brandt** edo **Yuri Gagarin**-en kasuan nabari denez. Gogora dezagun, aldiz, ez dugula oraintsu arte jakin hemen luzaro pairaturiko diktadorearen ohiko izena, **Don Francisco** barik, **Paco** zenik.

Genero-mozioaz hitz bi. Hizkuntza gehienetan izen batzuk berez gizonezkoenak izaten dira **(Marko, Ibon, Xabier, Jurgi)**, eta beste batzuk, aldiz, emakumezkoenak **(Agata, Teresa, Pilare, Margarita)**; Espainolez, ordea, ohitura handia dago genero batetik bestera pasatzeko, -a/-o bukaerak aldatu edo erantsiz: **Jose/Josefa, Adolfo/Adolfa, Helena/Helenio, Esmeralda/Esmeraldo**.

Guk ez dugu uste erdal bide hau mimetismoz onartu behar denik. Badira, bai, aspaldiko tradizioz dauden bikoteak **(Joanes/Joana, Petri-/Petra, Mikel/Mikela, Anton/Antoni, Paulo/Paula...)** eta on da horiek be-

ren horretan gorde eta mantentzea, baina **Edurne**-ren parean ***Edurno** gisakoak proposatzen hastea gehiegikeria litzatekeelakoan gaude.

Buka dezadan lehen parte hau. Euskaldunok europarrak gara, eta mendebaldeko zibilizazioaren partaide. Hortaz, Europako kultur inguru honetan dauden ohitura onomastikoak ezin ditzakegu bazterrean utz. Oraingo urrats honekin, Euskaltzaindiak gure herriari ondare lexiko hori berreskuratzeko bide bat eskaini nahi dio, bai histori lanetan aplikatzeko eta bai, interesatuek hala nahi izanez gero, geure buruei ipintzeko ere.

2. ESPAINIA-FRANTZIETAKO ESKUALDE-PROBINTZIEN ETA EUROPAKO TOPONIMIA HISTORIKOA

Deus gutxi gehi dezaket, lehenago esan ez dudanik, gure inguruko eskualde-probintzien eta europar toponimoez.

Hemen ere beharrak zaharra merkatura darama. Eta gure artean premia hori ofizialtasuna izan da. Ofizialtasunik gabe geunden bitartean munta gutxi zuen idazleok herri bati **Gernika**, beste batek **Gernike** eta hurrengoak **Gerrinke** esateak. Udal horrek bere burua izendatzeko era ofiziala behar izan zuenetik, ordea, era bakarra behar. Eta Euskaltzaindia, Autonomi Elkartearen eta Nafarroako Gobernuaren aholkuemailea denez gero, erakundeek berek hala eskaturik, Euskal Herriko toponimia bildu eta finkatzen hasi zen. Horren lehen emaitza, dakigunez, Euskal Herriko Udalen izendegia izan genuen. Hori ere ez da lan osoa izan: auzategi, ibai, mendi etabarren izendegia ez da oraindik erabat burutu, hor lanean ihardun arren.

Baina errepide-seinale eta mapen premiez gainera, irakaskuntza dugu ate-joka. Urtero geografi eta histori liburu mordoa plazaratzen da euskaraz, anitz mila ikasleren —eta irakasleren— jakinmina asetzeko. Idazleok horretan zalantzan aurkitzen gara: nola idatzi, **Madrid** ala **Madril**, **Barcelona** ala **Bartzelona**? Nola esan behar dira euskaraz **Santa Sede, Imperio Austro-Húngaro** edo **Los Estados Pontificios**? Komunikabideetako kazetariak ere hortxe ditugu, aiduru, noiz bata eta noiz bestea erabiliz, aiko-maiko, nora jo ez dakitela.

Egia da, orain eguneroko agertzen zaigun beharrizan egiazko honi erantzuteko, Euskaltzaindiak jadanik 1975.ean Estatuen izenak delako proposamena atera zuela, begi onez ikusia baina erabat onetsi gabea, besterik ezean orain arte askorentzat gidari izan dena, baina Exonomastika-azpibatzordea eratu arte ez zaio arazo honi behar den zehaztasunaz heldu, horren premia, lehenago esan dudanez, praktikoa barik teorikoa zelako, batez ere.

Euskaltzaindiaren ondotik zenbait autorek eta taldek beren liburuak plazaratu dituzte, erabakizun zeuden exonimoez nork bere proposamen interesgarriak eginez. Lan baliotsua egin dutela ezin uka, eta zorionez kasu askotan batera jokatu dute, kontutan hartzeko puntua berau, baina halere, proposamen horiek partikular gisa plazaratzen ziren, atzean dudagabeko erakunde baten autoritaterik gabe.

Beraz, azkenean, Euskaltzaindiak, azpibatzorde honen bitartez, zerrenda batzuk prestatu ditu, lantzaren punta gisa, atzetik datozkeenen gidari.

Zergatik zerrenda hauek eta ez beste batzuk? galde dezake norbaitek. Erantzun bat baino gehiago eskain daitezke. Alde batetik, noski, nonbaitetik hasi behar, eta bestetik, hastekotan, maiztasun eta erabilera handiko hitzetatik hastea hobe. Hortaz, gure irudiko, pertsona-, Estatu-, eta munduko akzidente geografikoen izenez landa, auzo ditugun Frantzia eta Espainiako eskualde-probintziak eta gu kokaturik gaudeneko Europa honetako eta inguruetako toponimo historikoak lehenbailehen erabakitzeko kontuak ziren, hurbiltasun-arrazoiak zirela medio.

Lanean hasi baino lehen, batzordekideok erizpideak finkatzen ahalegindu ginen, erabakiak bateratsu eta koherentziaz hartzeko. Bidezkoa denez, ez gara guztiok xehetasun guztietan batera etorri, eta ikuspegi aberasgarri bezain interesgarriak eztabaidatu behar izan ditugu, azkenean, elkarrizketaren bidez eta gehienen akordioaz jokatuz.

Jarraipide nagusia tradizioko datuak inbentariatzea eta ahalik eta gutxien asmatzea izan da. Euskaraz gorderiko exonimo zaharrak **(Madril, Palentzia, Bartzelona, Flandes, Londres, Erroma, Jerusalem...)** heldu zaizkigun eran utzi ditugu, eta gainerakoetan aldaketa grafiko eta fonetiko beharrezkoenak besterik ez ditugu sartu.

Kontutan eduki behar da inguruko hizkuntzek ofizialtasuna lortu zuten garaian, modan zegoela kanpoko izenak erabat asimilatzeko joera. Mende honen erdialdetik hona, aldiz, nazioarteko jokabidea guztiz bestelakoa da, eta dirudienez, hiztunen kultur eta eleaniztasun maila gorago doan neurrian, are pitxiago egiten zaigu kanpoko izenak jatorrizkoak ez diren grafietan irakurtzea.

Behiala gaztelaniaz **Gutemberga, Alberto Durero, Carlos Marx, Vladimiro Lenin, Moscovia, Mastrique** edo **Tolosa** deiturikoak adibidez, **Gutenberg, Albrecht Dürer, Karl Marx, Vladimir Lenin, Moscú, Maastricht** eta **Toulouse** bilakatu zaizkigu, eta egunotan, bertakoen eraginez, **Sri Lanka, Taiwan, Beijin, Tokyo, Tbilisi, Donostia, Gasteiz, Lleida, Girona** edo **Yerushalayim**, adibidez, bidea egiten saiatzen dira, oraintsu arteko **Ceilán, Formosa, Pekín, Toquio, Tiflis, San Sebastián, Vitoria, Lérida, Gerona** eta

Jerusalén-en ordez. Guk geure ofizialtasuna oraintsu lortu dugu, hogeigarren mendearen bukaeran, nazioarteko erizpide hauek nagusi direnean, lau mende lehenagoko erizpide lokalista haiek jadanik modaz pasaturik daudenean. Eta zentzuak gaurko eta hemengo korrontearekin bat joatea iradokitzen digula esango nuke.

Nazioartekotasunak aniztasuna onartzea eta kanpokotasuna errespetatzea dakar aldean, eta behiala arroztzat jotzen diren izenak eta grafiak, egun ezin utzizko exotikotasunaren seinaletzat estimatzen ditugu. Ez dut uste, adibidez, bertako Akademiaren hala esan arren, eta espainolek hizkuntz arloan hain garbi erakusten duten nazionalismoa gera behera, **güisqui, Irac, eusquera, quilo** edo **vodca** gisako idazkerek inoiz arrakasta handia izango dutenik.

Horiek guztiok kontutan izanik, erdal *nc* eta *rc* taldeak **(Palencia, Valencia, Murcia, Barcelona)** euskarara ntz eta rtz jarri ditugu, oraindik gure artean bizi-bizirik dirauen fonetikara egokitzeko **(Palentzia, Valentzia, Murtzia, Bartzelona)**, baina gainerako kasuetan c, ç, q, r- ss, v, w eta y letrak onetsi ditugu, toponimoen itxura optikoa gehiegi alda ez dadin, nekez onar baitaitezke, gure ustez, **Abila, Albazete, Balentzia, Balladolid, Estremadura, Kazeres, Kuenka** edo **Ziudad Erreal** gisako grafiak.

Inoiz toponimoen ondoko izen arrunta **(Principado, Comunidad Autónoma, Región...)** edo adjektiboa **(Alta..., Baja...)** itzuli behar izan dira, eta kasu gehienetan tradiziorik ez genuenez gero, gaurko ohizko hizkuntzan erabiltzen diren hitzez baliatu gara: **Printzerria, Autonomi Elkartea, Eskualdea...** etab.

Gauza bera esan dezaket Europako eta inguruetako eskualde batzuez ere, hizkuntza ezberdinetan era banarekin agertzen baitira: **Selva Negra/Forêt Noire/Black Forest/Schwarzwald**; euskaraz **Oihan Beltza** gisa emana; edo **Tierra Santa/Terre Sainte = Herrialde Saindua; Creciente Fértil/Croisant Fertile = Ilgora Emankorra...** Hor batzordekideen arteko adostasun bila aritu gara, beti ere aurretik argitaratu eta literaturan erabiliriko formak gogoan izanik.

Hona hemen beraz, orain arte egindako lana. Berriro gogoratu nahi dizuet ez dela osoa, ez eta hobezina ere. Ibilian hasteko, eta idazle, irakasle eta kazetarien behinbehineko premiei erantzuteko moldatu da, aurrera segitzeko asmoz. Ikus eta arretaz irakur ezazue. Litekeena da hor lapsus, hutsune larririk, ahaztura eta okerren batzuk aurkitzea, gizakiak baikara. Holakorik aurkituz gero edo eta bestelako proposamenik baldin badituzue, otoi, egizkiguzue; ideia guztiak arretaz aztertuko ditugu.

Eskerrik asko.

NAFARROAKO TOPONIMIA NAGUSIA. ARAZOAK

Leioa, 1994.10.06
Patxi Salaberri Zaratiegi

Euskaltzaindiak XIII. Biltzar hau ospatu behar zuela ikasi genuenean ez genuen aukera alferrik, hots, deus prestatu gabe, igarotzen utzi nahi izan, eta Nafarroako toponimia nagusiaz lantxo bat moldatzea erabaki genuen, herrialde honetako herri-izenek (herri-izenek batik bat, baina ez bakarrik hauek) arazo mordoxka aurkezten baitigute.

Arazo hauek molde diferentetakoak dira, eta zuzenean Akademiak Nafarroako Gobernuak hala eskatuta duela urte batzuk burutu zuen *Nafarroako Herri Izendegia-n* islatzen dira. Gure irudiz, lan honek dituen hutsune gehienak ahozko eta idatzizko dokumentazio faltari leporatu behar zaizkio; honek, hala ere, ez du esan nahi liburu horretan ahozko edo idatzizko dokumentazio gutxi biltzen denik, nornahik lan hori edozein orrialdetan irekita egiazta dezakeen gisan, baizik eta Nafarroa bezalako herrialde zabal bateko toponimo nagusi guztiak normalizatzeko urteak eta urteak eman behar direla ikerketan, paper zaharrak miatzen eta herriz herri ibiltzen.

Egia da akatsak badirela, bakarren bat aski nabarmena gainera, baina norbaitek noizbait erran zuen moduan, *errare humanum est*, eta hanka batik bat lanean ari denak sartzen du, ez egonean goxo-goxo dagoenak. Dena den, nafarrok ongi dakigunez, bada betegintzarretik hurbil samar dagoen itzultzaile hutsezin bat gutxienez, eta hari egin beharko diogu kasu hurrengoan, bide zuzenean barrena abiatzeko.

Hariari helduz, eta gorago erran dugun bezala, izendegia egin zelarik informazioa bildu genuen, baina ez behar bezainbeste, hau epe laburrean ezinezkoa baitzen. Bestalde, eta erran ere dugun moduan, izendegian bazen oker bat edo beste, *Olatz Txipia (-a)* adibidez, *(Egues-) Olatz*-en ordez, edo *Sarekota* (Zubietako auzoa dugu hau), *Sarea* arruntaren ordez. Hauetaz gainera badira orain bai baino duela bost urte ezagutzen ez genituen hainbat datu: hauen artean geronek argitaratu ditugun edo argitaratzeko ditugun zenbait herri eta ibar-izen daude, bai eta ere Nafarroan egiten ari den toponimia txikiaren bilketan jasotakoak. Gure irudiz, eta izendegia berritzen bada (berritzeko beharra badagoela uste dugu), nahitaezkoa da nafar Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiari datu horiek erabiltzen uzteko eskatzea, bertan agirietan azaltzen diren hainbat eta hainbat toponimo txikitako herri-izenez landara, ahozko beste lekukotasun anitz ere biltzen direnez gero. Adibidez, Santsoainen (Orban) *Tafallabidea* toponimoa bizirik dagoela jakiteak ez digu bat ere kalterik eginen nafar hiri horren euskal izena zein den berresteko garaian.

Hortaz, alde batetik egindako makurrak zuzendu beharra dugu, eta bestetik lehen ezagutzen ez genituen (edo ezagutu arren behar adinako garrantzirik eman ez genien) datuak kontuan hartu behar ditugu. Hauen artean erabat edo aski seguruak direnak sailka ditzakegu multzo batean, eta horren seguruak ez direnak beste batean. Lehen multzoan *Aizkoa* edo *Azkoa* (Azcona), *Alduate* (Aldunate), *Alu* (Allo; cf. *Camino de Allo* izeneko bidea igarotzen den Oteitzako *Alubidea* > *Lubidia* > *Lúbia)*, Aramendia *(-a), Aranatz* edo *Aranatx* (Aranaratxe), *Argiñao* (*Arginao?,* Argiñano), *Galdio* (edo *Galdeo* agian; Galdiano), *Gauza* (*Gautza?*; Ganuza), *Gollao* (Gollano), *Larragoa* (Larraona), *Murelu* (Murillo de Lónguida) (1), *Oleta* (Olleta), *Urdotz* (Urdánoz), *Xaberri* (Javerri, *Exaberri* izendegian), *Xuarbe* (*Suarbe* izendegian) (2) eta *Zolia* (Zolina) daude. Bigarrenean *Adio(t)s* (Adios), *Ageza* (Ayesa), *Arroitz* (Arróniz), *Beraskoain* (Belascoáin), *Errala* (Rala) (3), *Galbarra (-a)* (4), *Gartzaron* (Gartzarun) (5), *Gezalatz* (*Gesálaz, Gesalatz* izendegian), *Larrasoain* (6), *Mendigorria (-a)* (7), *Olondritz* (Orondritz) (8), *Tebas* (Tiebas) (9), *Zarikegi (Zarikiegi)*...eta beste.

Zenbaitetan *NHI-n* egin zen hautaketa berretsirik gelditu da gero, dokumentazio gehiago aztertuta. Honelakoak ere sartu behar lirateke hurrengo izendegian;

---

(1) Deierri-Murillo **Murelu** ote zen ez dakigu, baina ez litzateke bat ere harritzeko. Honek ez du esan nahi, diogun bidenabar, Erribera aldeko izen bereko beste herriak **Murelu** bilakatu behar ditugunik euskaraz. Nolanahi ere, garbi dago orain (lehen ere bai, franko) erdarazko **Murillo**-ren euskarazko kidea zein den.

(2) Dokumentazioan *Suarbe* nahiz *Xuarbe* azaltzen zaizkigu, elkarrekin aldizkatuz, gure irudiz azpian [š] zegoen seinale. Egungo egunean izendegiak biltzen dituen *Suarbe, Suerbe* ezezik *Xuarbe* ere bizirik dago (Orreaga Ibarrak biltzen du, *Ultzamako Euskararen Azterketa* titulua duen doktorego-tesian), eta erdarazko aldaera (Juarbe [xwárbe] lortzeko badirudi azken honetatik abiatu behar dela, jatorriak jatorri.

(3) Longidan dago, oso berandu arte euskalduna izan den bailara batean. López Selles-ek *Fray Juan de Errala* aipatzen du, "Contribución a un catálogo de ermitas de Navarra. Merindad de Pamplona", *CEEN*, 1974, 117-158. orr. Gai hau gehiago ikertu behar genuke, "de Errala" hori jatorrizko "de Rala" baten zatiketa ustela izan bailiteke.

(4) Honen bukaerako -a hori izendegian berezkotzat jotzen da, baina toponimia txikia honen kontra mintzo da gehienbat. Ikus gure "Nafarroako zenbait ibar, herri eta auzoren euskarazko izenak", *Euskera*, XXXVIII, 1993-2, 329-347.

(5) Hau dokumentaziorik zaharrenean *Garçarun* itxuraz ageri ohi da, eta egun *Gartzaron* nahiz *Gartzaun* esaten da. XVI. mendetik aurrera, ordea, *Garcaron* aurkitzen dugu, eta egungo *Gartzaun* aldaera *Gartzarun*-etik zein *Gartzaron*-etik atera ahal izan da, bokal arteko *-r*-ren erortzeaz lehen kasuan eta dardarkariaren galtzeaz eta sudurkari aurreko **-ao-** > **-au-**hersketaz bigarrenean.

(6) *Lasuín* erraten da Iragin, hizkuntza ofizialeko bukaerako-*a* hori ageri ez dela. Euskarazko testu zaharretan, hala ere, *Larrasuaña* aurkitzen dugu, ez *Larrasuain*. Honetaz "Nafarroako zenbait ibar, herri eta auzoren euskarazko izenaz (II)", *FLV*, 66, 1994, 1-17, lanean mintzo gara.

(7) Cf. Jimeno Juríok biltzen duen *Orti Mendigorrico* Artaxonako bizilaguna, in *Documentos medievales artajoneses*, Iruñea, 1968 (57. zkia., 188. or.).

(8) *Orondri(t)z* aldaera nagusi ageri zaigu dokumentaziorik zaharrenean, *-l*-dun aldaera ere behin azaldu arren, eta XVII. mendearen hasieran ere aurkitzen dugu. XVIII. mendearen amaierarako, ordea, *Olondriz* agertzen da euskal toponimia txikian eta honetatik kanpo.

(9) Euskal izena *Tebas* zen ez dago bat ere garbi, guk "Nafarroako..." lanean *Tebas*-en alde egiten bagenuen ere. Cf. adibidez, zalantza honen erakusgarri, Olatz Nagusiko 1795eko *Tievas aguerria* leku-izena, PRA-Elo, 47. k., 11. zkia.

cf., esaterako, Lizoainibarko *Redín* ofiziala, *Erredin* izendegian eta geroago ezagutu dugun *Erredinbidea* toponimoan (10).

Beste batzuk ere aldatu behar direla uste dugu, zenbaitetan zalantzan bagaude ere:

— *Baternain:* ez dakigu zein neurritan eutsi behar diogun *NHI*-n hautatu genuen aldaerari, hots, *Baternain*-i. Aldaera hau Urritzolako Bautista Etxarren jaunak eman zigun, eta dokumentazio zaharrean ere azaltzen zenez gero, ontzat eman genuen, besteak baztertuta. Izan ere, zenbaitetan aspaldiko dokumentazioan agertzen diren aldaerak oraindik bizirik daudela ikusten da (cf. *Drendiain, Markelain, Niuin*). Oraingoan, ordea, euskal toponimia txikia, edo hobeki esan, guk ezagutzen ditugun datu guztiak, *Paternain*-en alde mintzo dira (11).

— *Bizkarreta-Gerendiain:* alderdiko euskaldunek oker ez bagaude bigarren aldaera ibili ohi dute, laburtua zenbaitetan *(Gerein...)*, eta lehenbizikoa erdarazkotzat jo beharko dugu agian, euskal jatorri garbikoa den arren. Bestela, eta biak euskarazkotzat aitortu nahiago badira, bukaerako *-a* hori kendu behar genioke *Bizkarreta*-ri, aldaera hau dokumentatua badago ere, azken mendeotako agirietan *Vizcarret, Vixcarret* azaldu ohi baitira, behin edo besteko *Bizcarrete-z* gainera.

— *Esnotz:* dokumentazioaren arabera *Esnots Esnotz* baino zaharragoa da, eta *NHI*-n ikus daitekeen moduan oraindik ere bizirik dago. Hemen, dena den, datu gehiago behar ditugu, seguru jokatu ahal izateko.

— *Gerendiain* (Ultzama): XVI. mendeko dokumentazioan azaltzen den *Drendiain* aldaera oraindik bizirik dago, K. Izagirreren (12) eta O. Ibarraren (13) lanetan ikusten denez.

— *Lusarreta, Saragueta:* toponimia txikia, dokumentazioa eta euskarazko erabilera *Lusarreta* eta *Saragueta*-ren alde mintzo dira (14), ez izendegian hautatu ziren *Luzarreta* eta *Zaragueta*-ren alde.

— *Ulibarri:* ondoko herrietako toponimia txikian gehienbat *Iribarri* dokumentatzen da, *Ulibarri* ere agertuagatik. Oraingoan arazo grafiko bat ere izanen genuke: *Iribarri* hobetsiz gero, gainerako ibarretako (Aezkoa, Arakil, Atetz, Orba...) *Hiriberri* bezala *h*-rekin idatzi behar ote dugu?

---

(10) Mendiorotzen azaltzen da, PRA-Atarrabia, 65. k. Antzeko kasua dugu *Erreta*; hau *NHI*-n ikus daitekeen gisan XII. mendean ageri da, aspaldi beraz, baina berrikiago ere aurkitzen dugu, XVII. mendearen bukaeran hain zuzen.

(11) Cf., adibidez, Jimeno Juríok *Toponimia de la Cuenca de Pamplona. Cendea de Cizur* (Onomasticon Vasconiae, 1.) Euskaltzaindia. Lizarra, 1986. Lan honetan biltzen dituen lekukotasunak.

(12) "Ultzamako euskeraren gai batzuk", *BAP*, XXII, 1966, 403-467. orr. Honek *Dreindíndik, Dreindíñe* biltzen ditu, alegia, "Gerendiaindik, Gerendiaina".

(13) Aipatutako lana. Autore honek *Dreindiñe* "Gerendiain, Gerendiaina" bildu du (absolutiboan nahiz adlatiboan, alegia), *G(e)rendiain, Gerindiein*-en aldamenean.

(14) Ikus gure "Nafarroako..." eta "Nafarroako...(II). Ikus, baita ere, Matías Múgicak eta José Luis Mendozak honetaz diotena, "De toponimia Navarra. Sobre el *Nomenclator Euskérico de Navarra.* Aspectos filológicos y sociológicos" lanean, *ASJU*, XXVII-1, 1993, 551-574 (564-565. orr.).

Beste gai irristagarri bat txistukarien tratamendua da. Izendegian zuzen jokatu genuelakoan gaude, tartean hobe edo eztabaida daitezkeen puntu batzuk badira ere. Hemen gunerik labainenetako bat Nafarroako eremu zabal bateko *-zt-*, *-st-*dun herri-izenetan dagoela esan daiteke: *Azterain / Astrain, Eriztain / Eristain, Ezkirotz / Eskirotz, Eztenotz / Estenotz, Ezteribar / Esteribar, Muzkitz / Muskitz, Ozkaritz / Oskaritz, Ozkotz / Oskotz, Ozteritz / Osteritz, Oztitz / Ostitz, Uztarrotz / Ustarrotz, Zuhazti / Zuhasti.*

Izendegian hobetsi ziren beste herri batzuen euskarazko kideak sobera urruti daude guregandik eta erdarazko izenetik, alegia, historian atzeraegi joan ginen aldaera normalizatua aukeratzeko orduan. Hau da Deierriko *Goroziain*-en kasua: *NHI*-n XIII. eta XIV. mendeetako *Goroziain* eman zen hizkuntza ofizialeko *Grocin*-en baliakiadetzat, baina hau zaharkituegi dago gure irudiko, eta hobe genuke beste aldaera bat hautetsi. Herri-izen hau euskal toponimia txikian inoiz azaltzen den ikusi behar genuke, eta horren arabera jokatu. XVI. mendeko erdal dokumentazioan *Gorozin* topatu ohi dugu; *Grozin* ere dokumentatua dago XII-XIII. mendeetan.

[ilV] multzoa duten herri-izenak ere aztertu behar genituzke, eta dokumentazioko eta egungo erabilera zein den ongi finkatu. Hemen *Ilarratz / Illarratz* eta *Ilarregi / Illarregi* ditugu, gutxieneko kontuan.

NHI-tik kanpo gelditu ziren herri-izen batzuk (hots, N.t.e.e.c. daramaten batzuk) euskarazko izenen artera sartu behar genituzke, euskal mikrotoponimiak salatzen duen gisan euskaraz erabili izan zirela bai baitakigu: *Kaseda, Mendabia, Santakara*...eta abar.

N.t.e.e.c. hori daramaten (Erriberako batez ere) beste herri-izen batzuen kasuan gauzak sakonki pentsatu behar genituzke, euskal hedabideek arazoak baitituzte horiek euskaraz ematerakoan, batzuetan aurreko izendegiko (15) aldaera surrealista samarrak ere ibili izan direla. Hauetan eztabaidatu behar genuke adibidez ea *Falces Faltzes* bilakatzen dugun, Nafarroako oraingo euskaldun askok dioten moduan (cf. *Berbintzana*), edo *Falzes* edo *Falces* uzten dugun. Nolanahi ere den, aski paradoxikoa litzateke, konparaziorako, erdarazko urrutiko *Valencia*-rako *Valentzia* ibiltzea, eta Euskal Herriaren barrukotzat jotzen den *Falces*-erako antzeko afrikatzea ez onartzea (16). Honek, dena den, liskarbide bat baino gehiago sor ditzake, anitzek *Caparroso, Castejon, Corella* eta batez ere *Villafranca Kaparroso, Korella, Kastejon* eta *Billafranka* idaztea zeharo arbuiatuko bailukete. Azken honetarako, alabaina, Alesbes proposatu zen aurreko izendegian, ez dakigu zuzen ala oker jokatuz.

(15) *Euskal Herriko Udalen Izendegia*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1979.

(16) Honen guztiaren arazoa honetan datza, gure ustetan: Erriberako herri horiek guztiak Euskal Herriko mapa politikoaren barruan daude, baina ez dago bat ere garbi hizkuntzaz inoiz euskaldun izan diren, eta jakina, gutiz gehienetan ez ditugu euskal toponimia txikian aurkitzen. Honela bada, edozein abertzalerentzat Euskal Herriaren barrukoa dena, kanpoko toponimotzat jotzen da izendegian, esan bezala kanpoko hainbat toponimok (hauek izendatzen dituzten zerak askoz handiagoak eta alderdi batzuetatik inportanteagoak badira ere) merezi duten tratua merezi ez duelarik.

Beste gai interesgarri eta labain bat euskaraz nolabaiteko aldaera laburtua duten herri-izenen kasuan aldaera laburtu hori aukeratu behar den (dagoen-dagoenean edo ukituren bat eginez), laburtu gabekoa hobetsi behar den (erdal izen ofizialaren antzekoa izaten da, edo guztiz berdina) edo biak onartu behar diren erabakitzea da. Arazo hau franko irristakorra da, batzuetan, *Murgindueta*-ren aldaera laburtua den *Murgieta*-ren kasuan bezala, forma laburtu hori aspaldikoa izan daitekeelako, beste batzuetan (oso) berriak diratekeen bitartean: cf. *Beute, Biute* < *Beruete, Doneztua [donéstwa]* < **Doneztebea, Elgorria, Elgorgia* < *Elgorriaga, Goizuta* < *Goizueta, Iruzotze* < **Iraizotze, Ittuna* < **Iturena, Lasuein* < *Larrasoain, Liso* < *Lizaso, Sauta* < *Saragueta, Zubri* < *Zubiri.* Arlo honetan aurrena historian atzera noraino iritsi nahi dugun erabaki beharko dugu, eta gero aldaera laburtu horiek euskararen arau orokor edo aski zabaldu bati zor zaizkion ala hizkuntza idatzia, eskola, komunikabideak eta beste diren galga ez izateagatik tokian tokiko hizkerak bere gisa nozitu duen bilakaera aski halabeharrekoari zor zaizkion aztertu beharko dugu.

Interesgarria litzateke, halaber, dokumentazioa ongi miatzea, berandu (samar) arte euskaldun izan diren hainbat herriren euskal baliakidea aurkitu eta indarrean jartzeko: *Baquedano (*Bakedao?), Girgillano (*Girgillao?), Villamayor de Monjardín, Villanueva de Yerri* (17), *Villatuerta* (Bilatorta?)...

Bukatzeko nabarmendu nahi genuke ibarren eta ibarrez goitiko "batasun"-en arloan ere badagoela zer aztertua eta zer erabakia: *Bortziriak* ala *Bortzerriak, Ergoiena* ala *Ergoiena (-a), Sakana* ala *Sakana (-a), Bertizarana* ala *Bertizarana (-a), Romanzadoa, Erroman(t)zadoa, Erromantzatua edo N.t.e.e.c.*, eta abar.

(17) *El Libro Rubro de Iranzu* delakoan (José María Jimeno Jurío, *PV*, 120-121. zkiak., 1970, 221-269. orr.) *Eraul* eta *Hyriuerri* agertzen dira, baina badirudi bigarren hau Gorozingo aurkientza edo zela. Ikus Santos García Larraguetaren *Documentos Navarros en Lengua Occitana,* Iruñea, 1977, 48. zkia., 454. or.

HIRIBARRENEN *ESKALDUNAC* POEMAKO IZEN BEREZIAK

Leioa, 1994.10.06
Amaia Boneta

Euskal Herriko historiaren, ohituren eta pertsona ospetsuen berri ematen duen poema luzea da *Eskaldunac*, bere 5.428 bertso-lerroetan ugariak dira izen bereziak, leku eta pertsonenak, bai Euskal Herrikoak eta bai kanpokoak.

Bost atal nagusitan bana daiteke Hiribarrenen lana, azpitituluan bertan ageri den bezala: "Iberia, Cantabria, Eskal-Herriac, Eskal-Herri bakhotcha eta hari darraicona", lau lehenengoei *Capitulu* izena ematen dielarik idazleak. Hauetaz gain badu hitzaurre moduko bat ere: "Eskaldunei bi hitz hastean". Banaketa honek badu eraginik idazkeran, bai baitirudi *Laugarren Capitulu*tik aurrera aldaketa batzu gertatzen direla.

Hiru zerrendatan banaturik aurkezten ditut poeman bildutako izen bereziak: Euskal toponimoak (gaur egungo Euskal Herriko mugen barnean daudenak), Exonimoak (muga hauetatik kanpokoak) eta Antroponimoak (bertakoak eta kanpokoak nahasian ematen direlarik; zerrenda honetan Hiribarrenek pertsonak izendatzeko erabili zituen guztiak ageri dira: bataio-izenak, deiturak eta baita zenbait izengoiti ere).

Zortziehun baino gehiago dira zerrendatutako izen bereziak, hauek aztertzeko, ikergai izan zitezkeen guztietatik, lau puntu hautatu ditut : grafia, ebakera, hitz bukaerak eta bikoteak (Hiribarrenek izen bera idazteko erabilitako aldaera ezberdinak).

1. GRAFIA

1853. urtean argitaratutako lana izaki, garaiko grafiaz baliatu zen poeta; tenore hartan eztabaida bizia eman zen Iparraldeko idazleen artean ortografiaren batasuna lortu nahian, Hiribarrenek ere parte hartu zuen honetan, ordurarte erabilitako grafia eta sortzen ari ziren joera berrien artean moldatuz bere idazkera.

Grafiari dagokionez ez du bereizketarik egiten antroponimo / toponimo edo euskal izen / exonimoen artean. Hitz arruntentzat proposatzen zuen bidea jarraituko du izen bereziekin ere, finkatu gabeko grafiari dagokion legez zalantzak eta salbuespenak ere tartean direlarik (1):

(1) Erabilera bakoitzaren adibide batzuk ematen ditut, salbuespenak, guztiak.

1.1. Euskara batuan *k-z* idatziko genituzkeenak adierazteko *k* eta *c* erabiltzen ditu:

1.1.1. Hitz bukaeran beti *c*: *Pyreneac, Alaric.*

1.1.2. *o* aurrean ere *c*: *Cordoba, Guipuzcoa, Seneco, Nicolas.* Salbuespenak: *Beko* (toponimoa), *Amezkoa, Beko* (azken hau antroponimoa).

1.1.3. *a* aurretik *c*: *Cantabria, Africa, Cambo, Carlos.* Salbuespenak: *Eskalherria* (*Eskaldunac* ere bai), *Karle, Karloman, Perkain.*

1.1.4. *u* aurretik *c*: *Barcus, Ascubea, Hercul, Bicuña.* Baina aspiratua denean *khu*: *Lekhuine.*

1.1.5. *e* aurretik *k*: *Ameriken* (baina *Americatic*), *Alariken* (baina *Alaric*), *Mikeleperitz, Henrike...* Salbuespena: *Jacques* (hala ere bi silabatan ahoskatua).

1.1.6. *i* aurretik –adibideak gutxi badira ere– *k*: *Urkiola, Leckzinski.* Leherkari aspiratua ere bai: *Akhitze.* Salbuespena: *Aquitania.*

1.1.7. *Cl*: *Esclabon, Claverie.*

1.2. Euskara batuan *z-z* adieraziko genukeena:

1.2.1. *e* eta *i* aurrean *c*: *Francia, Garcia, Ciburu, Celtiberia, Marcene, Celhay.*

1.2.2. *a, o* eta *u* aurrean *z*: *Azantza, Urdazuri, Elizondo* (toponimoa), *Zoroa, Elizagaray. s* eta *ss* grafiak ere erabiltzen ditu zenbaitetan -gutxitan bada eresoinu hau adierazteko, Iparraldeko izen bereziak idaztean: *Elissondo* (deitura), *Delissalde, Suraïde.*

1.3. /c/ eta /s/:

[s] soinua adierazteko *ch* erabiltzen du: *Chuberoa, Champaña*; baina batzutan grafia horrek [c] ordezkatzen du, Hegoaldeko edo Espainiako izenak idazten dituenean (espainolez emango liratekeen moduan): *Cuchares, Anchieta.*

1.4. Erderaz *v-z* idatziko liratekeenak *b-z* ematen ditu, batez ere toponimoetan *(Nobenpopulania, Bitoria, Montebido)*, salbuespena bakarra delarik: *Vade* (Bordeleko leizea). Antroponimoetan ere ematen da joera hau, baina ugariagoak dira *v* mantentzen dutenak (zortzi izen *v-z* eta zazpi *b-z*), bitara azaltzen direnak ere baditugularik: *David / Dabid; Etcheverry / Etcheberry.*

1.5. Erderaz *ñ* dena *n* idazten du zenbaitetan: *Logrono, Inigo, Iniguez*; baina ez beti: *Estuñiga, Ordoño, Champaña.*

n / ñ zalantza nabaria da exotoponimo batean: ikus beherago *Espainia.*

1.6. *p* eta *b* aurrean *m* erabiltzen du batzutan, erdal erara; bestetan, berriz, *n*, gaur egun erabiliko genukeen moduan: *Sempronio, Cambo, Haramburu* (*Aranburu* ere bai); baina: *Cinbre, Nobenpopulania, Chanpaña* (baita *Champaña* ere).

1.7. Erderaz *j* dena, *y* idazten du, ahoskatzen zuen moduan: *Yaca, Balde-Yunkera, Yoanna*, salbuespena: *Jacques* (ikus *k* ere).

1.8. Kontsonante bikoitzak:

1.8.1. Batzutan biak mantentzen dira: *bb, d'Abbadie*; nn, *Annibal, Sennaar, Yoanna* (*Yoana* behin); *ll, Metello* (baina *Tertulien* < Tertullianus).

1.8.2. Beste batzutan, aldiz, kontsonante bakarra geratzen da: *Agripa* (< Agrippa). Kontsonante ezberdinak direnean ere bai: *Humbolt* (Humboldt), *San Inacio.*

1.9. Frantsesez *ou* idazten dena *u-z* ematen du, batez ere toponimoetan: *Turs, Biriatu, Suraide.* Salbuespena: *Arroubi.* Antroponimoetan, eta bereziki frantses jatorriko deituretan, salbuespenak ugariagoak dira: *Hagou, Labrouch*; hala ere gehienetan *u* erabiltzen du.

2. EBAKERA

Hitz neurtuak aukera ematen digu Hiribarrenek hitza nola ebakitzen zuen jakiteko. Grafiaren kasuan bezala idazleak izen bereziak euskal fonetikara egokitzeko eginiko ahalegina ikus daiteke:

2.1. Beheranzko diptongoak.

Euskaraz diptongo osatu ohi duten bokal elkarketak silaba bakar batez ematen ditu Hiribarrenek:

2.1.1. *au: Maule, Echauz, Yauregui.*

2.1.2. *eu: Europa, Eulate.*

2.1.3. *ai: Lohigarai, Ainhoa, Bordagain.* Bi salbuespen ditugu halere, *a-i*, bi silabatan irakurri behar da hauetan: *Garibaï(c)* (1981. bertso-lerroan, baina 1709.ean *Garibai* hiru silabakoa da) eta *Baigorri(n)* (2199; hiru silabakoa besteetan: 1515, 1555), bertsoak bortxaturik hautsi du bietan diptongoa.

2.1.4. *ei: Biamondei(co), Theilary, Azpeiti(co); ey: Dutey.*

2.1.5. *oi: Cascoina, Bardoitz, Salagoïty.* Baina *o-i: Benoit* (hiru silaba), *o-y: Odoylec* (lau silaba).

2.1.6. *ui: Suinthila* (hiru silaba); baina beste adibideetan diptongorik ez: *Lekhuine* (lau silaba), *Luis, Louis* (bi), *Ruydar (hiru).*

2.1.7. Dena den, bokal elkarketa hauek frantsesez bezala irakurri behar dira zenbait antroponimotan: *Lacroix, Saint-Martin, Thibaut.*

2.2. Hiatusak.

Beste bokal elkarketek hiatusa osatzen dute, bi silabatan irakurri behar dira, bai euskal izenetan eta bai exonimoetan ere, jatorrizkoa diptongo denean hau hautsiz. *i-a (Biarno, Francia, Rusia); i-e (Guereciet, Tertulien, Adrien); i-o (Mendiondo, Silio, Sempronio); i-u (Zubiurre); u-e (Atapuerca, Suebo, Berrueta).* Salbuespen bat dugu: *ua,* aurrekoei jarraiki hiatusa behar luke, baina *Eskualduna* (827, lau silaba) eta *eskualdun* (831, hiru silaba) ditugu, diptongo eginez. Hala ere beste guztietan, izenburuan bertan ere bai, *Eskaldunac* erabiltzen du.

2.3. Azkenik bi familia izen bitxi aipatu behar dira, ahoskatzen zituen moduan idatzi dituenak, grafia euskal ahoskerara egokituz: *Ebruz(co)* (< Evreux), *Baloa* (< Valois).

3. HITZ BUKAERAK

3.1. Hitz bukaerako *-e* ahoskatu egiten du, frantsesez ez bezala: *d'Abbadie, Claverie* (biek lau silaba).

3.2. Iparraldean *e*-z bukatu ohi diren toponimoetan ez da hau eskuarki azaltzen: *Larzabal, Uztaitz, Bardoitz, Bezcoitz*; baina: *Bidarte, Atharratze* (dena den, azken honek deklinatzean *-e* hori galtzen du: *Atharraztic, Atharrazco*).

Exotoponimoetan ere, Iparraldeko tradizioan *e*-z amaitu izan direnak, gabe ematen ditu: *Paris, Londres, Portugal(etic), Madril(ec)* (azken hauetan, deklinaturik azaltzen direnez –inoiz ez absolutiboan–, *Madrile* edo *Portugale* ere izan litezke, baina besteak ikusirik badirudi *Madril* eta *Portugal* behar dutela). Salbuespena: *Bordele.*

3.3. Latineko *-us* bukaera:

Normalki *-us* > *-o* egiten du: *Silio, Sempronio, Fulbio* (< Fulvius), *Sertorio, Yuliano.*

Salbuespenak: *Pompe* **(2)** (< Pompeius), *Tertulien* (< Tertullianus), *Auguste* (< Augustus).

4. BIKOTEAK

Poeman zehar pertsona edo leku-izen bera modu ezberdinetara idatzirik aurki daiteke. Batzutan "metri causa" gertatzen dira bikote hauek, bertsoak bortxaturik; silaba kopuru jakin baten beharrak izena laburtzera darama poeta.

Poemaren aurkibidean (*Non diren erranac*, NDE hemendik aurrera) zenbait izen berezi azaltzen dira, batez ere euskal toponimoak; hauek direla medio jakin dezakegu nola erabiltzen zituen silaba kopurua mantentzearen kezka ez zuenean.

Aurkibide honetan azaltzen ez direnen kasuan pentsa dezakegu maizenik erabiltzen duen formak adieraziko digula zein den "zuzena", hitz lauz erabiliko zukeena.

Beste batzutan, berriz, silaba kopuru bera dutelako edo aldaera bat bestea baino gehiagotan erabiltzen ez duenez, bikoteek idazlearen zalantza ageri dute.

(2) Honela erabiltzen omen zuten Gasteluçarrek (Pompe) eta Zaldubik (Ponpe) ere. Ikus Gidor Bilbaok Miarritzeko Onomastika Jardunaldietan aurkeztutako txostena: "Latin jatorriko izen bereziak euskal idazleetan".

Badira azkenik hirugarren kapitulura arte modu batera eta laugarrenean beste batera idatzirik azaltzen direnak.

4.1. Silaba kopuru ezberdina dutenak:

4.1.1. *-a* / ∅ alternantzia. Maizenik azaltzen diren formak eta NDEkoak *a*-dunak dira:

Iberia (lau alditan) / *Iberi* (behin). NDEn *Iberia.*

Chuberoa (hirutan) / *Chubero* (bitan). NDEn *Chuberoa.*

Donapaleioa(n) (behin) / *Donapaleio* (behin).

Luhosoa (NDEn) / *Luhuso.* Aldi banatan.

Guerecieta (bitan) / *Guereciet* (behin). NDEn *Guerecieta.*

Ebroa (bitan) / *Ebro* (behin).

Aragona (hirutan) / *Aragon* (behin). Bigarren aldakia *Laugarren Capituluan.*

4.1.2. *Iruña* (hiru aldiz) / *Iruñea* (bitan).

4.1.3. *Mauleo(n)* (inesiboa, hiru alditan) / *Maule(co)* (leku genitiboa, behin).

4.1.4. Singular / plural alternantzia: *Ameriken* (gen. pl.), *Ameriketan* (ines. pl.) / *America(n)* (ines. sg.), *America(tic)* (abl. sg.), bata edo bestea erabili silaba kopurua ezberdina denez, hau izan daiteke arrazoia.

4.1.5. Izen beraren aldaera ezberdinak:

4.1.5.1. *Hasparne* (bitan) / *Hasparren* (bitan) / *Haspar* (behin). NDEn *Hasparren.*

4.1.5.2. *Karle* (lau alditan) / *Karloman* (hirutan).

4.1.5.3. *Rolan* (bitan) / *Rolando* (sei alditan). NDEn *Rolan(en).*

4.1.5.4. *Philip* (behin) / *Filipe* (bitan) / *Felipe* (behin). Lehenengoa, *Hirugarren Capituluan* azaltzen da, besteak laugarrenean.

4.1.5.5. *Theobald* (bitan) / *Thibaut* (bitan), silaba kopuru ezberdinak dituztenez, hori izan daiteke aldakiaren arrazoia; hala ere azkena *Laugarren Capituluan* erabilia, besteak hirugarrenean.

4.1.5.6. *Henrike* (behin) / *Henry* (hirutan). Bigarren aldakia laugarren kapitulutik aurrera.

4.2. Silaba kopuru bera dutenak:

4.2.1. *Españia* (lau aldiz) / *Espainia* (bitan) / *Espaiñia* (hiru aldiz) / *Espania* (bostetan).

4.2.2. *Itsatsu* (hirutan) / *Itsasuar* (behin).

4.2.3. *Herrifranca* (behin) / *Billafranca* (bitan).

4.2.4. *Labrit* (bitan) / *Albret* (hirutan). Bigarrena laugarren kapituluan.

4.3. Ortografi aldaketa hutsa ageri dutenak:

4.3.1. *Eskal-herria(n) / Eskal Herria / Eskal-Herria / Eskal-herri(etan).*

4.3.2. *s / z* alternantzia: *Biscaia* (bitan) / *Bizcaia* (zazpi alditan, NDEn eta 1506tik aurrera; hau da, *Laugarren Capituluan*) / *Señoria Bizcaico* ere izendatzen du behin, hau ere aipatu kapituluan.

4.3.3. *i / y* alternantzia: *Pirene* (sei aldiz) / *Pyrene* (hirutan); laugarren kapitulutik aurrera *y*.

Pelaio (behin) / *Pelayo(ren)* (behin): alternantzia bera eta banaketa berarekin.

4.3.4. *u / ou* alternantzia: Luis (bitan) / *Louis* (hirutan); 2095.etik aurrera ou *(Laugarren Capitulua).*

4.4. Gorago aipatu bezala badirudi hauetako zenbait bikotek badutela kapitulu banaketarekin zerikusirik, laugarren ataletik aurrera aldaketa batzuk soma daitezke:

Hiru lehenengo kapituluetan: *Luis, Pirene, Pelaio, Biscaia, Aragona, Philip, Theobald, Henrike, Labrit.*

Laugarrenean: *Louis, Pyrene, Pelayo, Bizcaia, Aragon, Filipe / Felipe, Thibaut, Henry, Albret.*

Dena den honek azterketa sakonago bat merezi luke hitz arruntetan ere zer gertatzen den aztertuz.

ONDORIO GISA

Ondoren datozen zerrendetan ikus daitekeen bezala liburuan izen berezien kopurua handia da. Orokorrean esan dezakegu ez zuela bereizketarik egin euskal jatorriko izen eta exonimoen artean, grafia bera erabili zuen batzu eta besteentzat. Hiribarrenek ahalegin berezia egin zuen azken hauek euskal grafiara ezezik ahoskerara ere egokitzeko, jatorrizko diptongoak hautsiz, $j > y$ bihurtuz.

Zenbaitetan, dena den, eta batez ere Iparraldeko izenetan, frantses grafiaren eragina nabari da *(Delissalde, Lissardy).* Herri-izenekin gainera badu joera frantses aldakia erabiltzeko: *Ascain, Barcus, Hasparren* (baina *Hasparne* ere bai).

Azkenik bikote ugariek idazlearen zalantzak agertzen dizkigute, askotan aukera anitzen artean forma egokia zein zen erabaki ezinik ibili balitz bezala.

EXOTOPONIMOAK (3)

Africa(n) (494), GENTILIZIOA: **Africanoa** (537), **Africar** (4238). Eusk. Afrika, fr. Afrique, gazt. Africa.
Akhitze(rat) (1254). Fr. Dax.
Alayz(at) (1098). Adlatiboa.
Ameriken (256) (gen. pl.), **Ameriketan** (2362) (ines. pl.), **Americatic** (3016) (abl. sg.), **American** (ines. sg.) (3086). Eusk. Amerika(k), fr. Amerique, gazt. América.
Andalucia(n) (1311) bost silaba. Eusk. Andaluzia, fr. Andalousie, gazt. Andalucía.
Aquitania(n) (1249). Eusk. Akitania, fr. Aquitaine, gazt. Aquitania.
Aragona (1300), **Aragona(n)** (1283), **Aragona(co)** (1104) / **Aragon** (1590). Eusk. Aragoa, gazt. Aragón.
Armenia (107) lau silaba. Fr. Arménie.
Arroubi (1490).
Asia, Asia(co) (107). Eusk. Asia, fr. Asie.
Asturia(co) (1713), **Asturia(n)** (3539). GENTILIZIOA: **Asturiar(ren)**. Eusk. Asturias, gazt. Asturias, fr. Asturies.
Atapuerca(n) (1329) bost silaba.
Babel(go) (93).
Beko (1490). Euskal jatorria omen duen ingeles izena.
Berry (1490).
Biarno(tic) (1036) hiru silaba. Eusk. Biarno.
Bordele (1011). Eusk. Bordele, fr. Bordeaux.
Bresil(go) (1694). Eusk. Brasil, fr. Brèsil, gazt. Brasil.
Calahorra(c) (1740).
California(n) (4058) bost silaba. Fr. Californie.
Cantabria (NDE, 262) lau silaba. GENTILIZIOA: **Cantabre** (475), **Cantiberiar(ra)** (506) (*Cantabriaren* etimotzat *canta Iberia* ematen du Hiribarrenek, hortik *Cantiberiarra*). Eusk. Kantabria, gazt. Cantabria, fr. Cantabrie.
Cantorbery (1490).
Cartago (514).
Cascoinia (1007). GENTILIZIOA: **gaskoin(etan)** (812), **Cascoin** (1936). Eusk. Gaskoinia, gent. gaskoi(n).
Castilla (1358). Eusk. Gaztela, gazt. Castilla.
Celtiberia (270) bost silaba.
Cordoba(co) (1311). Eusk. Córdoba, gazt. Córdoba.
Corse(co) (167). GENTILIZIOA: **Corsec** (170) (erg. pl.). Eusk. Korsika (gent. korsikar), fr. Corse, gazt. Córcega.
Chanpaña(co) (1445), **Champaña(co)** (1599). Eusk. Champagne, fr. Champagne.
Derby (1490).

---

(3) Exotoponimoa Hiribarrenek nola idatzi zuen azaltzen da lehenik, liburuan kasu absolutiboan agertzen ez denean parentesi artean ematen da deklinabide atzizkia. Ondoren datozen parentesi arteko zenbakiak bertso-lerroei dagozkie; silaba kopuruak, beti ere absolutiboarena adierazten du.

Liburuan azaltzen diren gentilizioak, toponimoen ondoren ematen dira.

Eusk.: Onomastika batzordeak Miarritzeko Jardunaldietan aurkeztutako zerrendetan egindako proposamenak.

Ebro (1425), **Ebroa** (1586), **Ebroa(n)** (1006) (ines.). Eusk. Ebro, gazt. Ebro, fr. Èbre.

Erroma (513). GENTILIZIOA: **Erromano** (580). Eusk. Erroma (gent. erromatar), fr. Rome, gazt. Roma.

Españia (154, 1505, 2483, 3041), **Espainia** (1007, 3540), **Espaiñia** (1115, 1308, 1315), **Espania** (1462, 1772, 1948, 4646, 5304). Beti lau silaba. GENT. **Español** (453,555). Eusk. Espainia, (gent. espainiar), fr. Espagne, gazt. España.

Europa (176). Eusk. Europa, gazt. Europa, fr. Europe.

Fenicia (488) lau silaba. GENT. **Feniciar** (480). Eusk. Fenizia, gent. feniziar.

Francia (155) hiru silaba. GENT. **Franses** (453). Eusk. Frantzia (gent. frantses), fr. France, gazt. Francia.

Grecia(n) (4899) hiru silaba. GENT. **Greca** (838). Eusk. Grezia (gent. greziar; baina Alfonso Irigoienen ustez, gentilizioa euskaraz *grekoa* da) **(4)**, fr. Grèce, gazt. Grecia.

Iberia (NDE, 97, 108, 206) lau silaba, **Iberi** (831). GENT. **Iberiar** (145), **ibero umea** (376, 384). Eusk. Iberia (gent. iberiar), gazt. Iberia, fr. Ibérie.

Irlanda (1485), **Ybernia** (1484) lau silaba. Azken hau (Hibernia) Irlandaren izen zaharra zen. GENT.: **Eskoti** (1489) omen da, Hiribarrenen ustez, bertako biztanleen izena. Eusk. Irlanda (Eire), gent. irlandar (eiretar), gazt. Irlanda, fr. Irlande.

Italia (985) lau silaba. Eusk. Italia, fr. Italie, gazt. Italia.

Ithakeco (775), (leku-gen.). Iñaki Irazabalbeitiak Miarritzeko Onomastika Jardunaldietan aurkeztutako zerrendan **(5)** *Itaka* proposatzen da, baina, transkripzio arazoak direla eta, erabaki gabeko forma gisa. Alfonso Irigoienek eta Iñaki Usabiagak **(6)**, berriz, *Ithaka* ematen dute. Gazt. Itaca, fr. Ithaque.

Leon(go) (1309). Eusk. León, gazt. León.

Logrono(tic) (1349).

Londres(at) (463). Eusk. Londres, fr. Londres, gat. Londres.

Lur saindu(ei) (1443), (dat. pl.). Eusk. Herrialde Saindua / Leku Sainduak.

Madril(ec) (1977). Eusk. Madril, gazt. Madrid.

Montebido (1494). Baina *Montebideoko berriak* izendatu zuen bere liburua: bertsoak bortxatu du hiri izena aldatzera. Eusk. Montevideo.

Nabas (1371). Gazt. Navas de Tolosa.

Nobenpopulania (1008) zazpi silaba. Eusk. Novempopulania.

Ostende(n) (3286).

Pabe(n) (3326). Eusk. Pabe, fr. Pau.

Palestina(n) (1338). Eusk. Palestina, gazt. Palestina, fr. Palestine.

Paris (463). GENT. **Paristar(rac)** (2949). Eusk. Paris (gent. paristar).

Portugal(etic) (3629). Eusk. Portugal, fr. Portugal, gazt. Portugal.

Re (2811). (Frantziako irla).

---

(4) IRIGOIEN, A.: *Pertsona-izenak euskaraz nola eman,* Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 1994, 293. or.

(5) IRAZABALBEITIA, I.: "Munduko estatuak, beren hiriburuak eta akzidente geografiko nagusiak", Miarritzeko Onomastika Jardunaldiak, (1994-VII-1/2).

(6) IRIGOIEN, A. eta USABIAGA, I.: "Euskal kontextuko exonomastika mundu greko-latinoaren inguruan", Miarritzeko Onomastika Jardunaldiak.

Rusia(n) (3569) hiru silaba. GENT. **Rusiano** (131) lau silaba. Eusk. Errusia, gent. errusiar. Alfonso Irigoienek bere liburuan *Russia* proposatzen du, eta gentilizioa euskaldun arruntentzat *rusoa* dela dio (7). Fr. Russie, gazt. Rusia.
San Domingo(n) (3287). Eusk. Santo Domingo, fr. Saint-Domingue, gazt. Santo Domingo.
Sennaar (107) hiru silaba.
Siberia(n) (3563) lau silaba. Eusk. Siberia, gent. siberiar.
Sina(n) (2072). Eusk. Txina. Alfonso Irigoienek China proposatzen du (8).
Tolosa (1010). Eusk. Tolosa / Toulouse, fr. Toulouse.
Turs(en) (1556). Eusk. Tours, gazt. Tours.
Vade (2122)(Bordeleko leizea).
Yaca(raino) (1099).
Zama (516).
Zaragoza(n) (1117). Eusk. Zaragoza, gazt. Zaragoza: fr. Saragosse.

EUSKAL TOPONIMOAK (9)

Adi (1595).
Adur (1922).
Ahetz (NDE), **Ahetz(ec)** (3071), **Ahetz(erat)**. Eusk. Ahetze, fr. Ahetze.
Ahurti(n) (1770) hiru silaba.
Aiciritzen (3488) (ines.). Eusk. Aiziritze.
Ainhoa (NDE, 1963). Eusk. Ainhoa.
Alaba (NDE, 1463, 1500). Araba.
Aldude(rat) (1579), **Aldude(n)**. Eusk. Aldude. .
Altobizcar (1151).
Amezkoa(co) (1075) lau silaba. Eusk. Amezkoa, gazt. Amezcoa.
Arbona (NDE, 3071). Eusk. Arbona, fr. Arbonne.
Arcangos (NDE, 3087). Eusk. Arrangoitze, fr. Arcangues.
Arcos(en) (3664). Eusk. Losarkos = Urantzia, gazt. Los Arcos.
Arnegui(n) (1580).
Arriaga(n) (1739), lau silaba.
Ascain (NDE, 1969, 1972). Eusk. Azkaine, fr. Ascain.
Ascubea (2069).
Atharratze (1630), **Atharraz(tic)** (1659), **Atharraz(co)** (3491). Eusk. Atharratze.
Azantza(co) (2243).
Azpeiti(co) (4000-1). Eusk. Azpeiti(a).
Aztarritz (2639).
Baigorry (1515), **Baigorri(n)** (1555, 2199), hiru silaba 2199.ean ezik. Eusk. Baigorri.
Baïona (NDE, 853, 1833, 1912, 2724). GENT. **Baïones** (2810). Eusk. Baiona (gent. baiones), fr. Bayonne.

(7) IRIGOIEN, A.: *Op. cit.*, 292. or.
(8) IRIGOIEN, A.: *Op. cit.*, 297. or.
(9) Eusk.: Euskaltzaindiak proposatutako forma. Euskaltzaindia, *Euskal Herriko Udalen Izendegia*, Bilbo, 1979.

Balde-Yunkeran (1296). Gazt. Valdejunquera.
Banca(co) (1652). Eusk. Banka, fr. Banca.
Barcus (1669). Eusk. Barkoxe, fr. Barcus.
Bardena(n) (1280) (ines. sg.).
Bardoitz (NDE, 3352), **Bardoitz(en)** (2103, 2203), **Bardoiz(tic)** (1768), **Bardoiz(co)** (1938). GENT. **Bardoiztar** (3383), **Bardoztar(ra)** (3406). Eusk. Bardoze, fr. Bardos.
Bastida (1941). Eusk. Bastida.
Basusarry (NDE), **Basusarri(n)** (3091). Eusk. Basusarri, fr. Bassussarry.
Baztan(go) (2471).
Behobia (NDE, 3027) lau silaba.
Belate(ri) (1596).
Bera(tic) (1976). Eusk. Bera, gazt. Vera.
Bergara (1687). Eusk. Bergara, gazt. Vergara.
Bezcoitz (NDE, 3317). Eusk. Beskoitze.
Biamondei(co) (3395).
Biarritz(at) (462), **Biarritz(co)** (2217), hiru silaba. Eusk. Miarritze, fr. Biarritz.
Bidachun(etic) (1579), **Bidachun(i)** (1925). Eusk. Bidaxune.
Bidarte (NDE, 2883). Eusk. Bidarte, fr. Bidart.
Bidasoa (NDE, 1764).
Biduce(kin) (1769).
Bilbao (1713, 3672, 3677). Eusk. Bilbo.
Biriatu (NDE, 1999, 3037) lau silaba. Eusk. Biriatu, fr. Biriatou.
Biscaïa (1463), **Biscai(co)** (1474), **Bizcaia** (NDE, 1506, 1593, 1710-1, 1745), **Bizcai(co)** (1717), **Señoria Bizcaico** (1717), NDEn eta 1506tik aurrera *z*-z idatzia. GENT. **Bizcaitar(ra)**.
Bitoria (1732, 3617), lau silaba. Eusk. Gasteiz, gazt. Vitoria.
Bordagain (2933, 2937).
Burgui(co) (3419).
Burunda (1087).
Cambo (NDE, 1947). Eusk. Kanbo, fr. Cambo.
Ciburu (NDE, 2952). GENT. **Ciburutar** (2977). Eusk. Ziburu (gent. ziburutar), fr. Ciboure.
Chaharnea(n) (3397).
Chimeldeguia(n) (2161).
Chubero Arrazte(tic) (1558).
Chuberoa (NDE, 1473, 1647), **Chubero** (1503), **Chubero(co)** (1499, 3489), **Subola** (1623), azken hau Zuberoaren izen zaharra omen zen: *Lur hori deithua cen denboran Subola* (1623).
Diessen (3155) hiru silaba.
Donapaleio (1509), **Donapaleioa(n)** (3425) (ines.).
Donestia (1683, 4964). Eusk. Donostia. Duvoisin-ek ere *Donestia* erabiltzen omen zuen (10).
Donibane Garaci(c) (1067), **Garaci** (1509, 1565). GENT. **garaztar** (1561). Eusk. Donibane-Garazi, gent. doniandar.
Donibane (NDE, 2795). Eusk. Donibane-Lohizune.

(10) IRIGOIEN, A.: *Op. cit.*, 116. or.

Echarri-Arana(n) (3665). Eusk. Etxarri-Aranatz.
Elizondo(rat) (3643).
Eskal-herrian (476), **Eskal Herria** (816-7), **Eskal-Herria** (NDE, 821), **Eskal-herri(etan)** (2377) (ines. pl.), **eskal-herri** (458). GENT. **Eskaldun** (73), **Eskualdun(a)** (827, 831) hiru silaba (*ua* diptongo eginez, etimologia *Eskuda alde duena* omen da, eta hau adierazteko ematen du azken aldaki hau).
Etcheberria(n) (2171).
Eulate(n) (3669) Eusk. Eulate.
Ezpeleta (NDE, 2237). GENT. **Ezpeletar(rac)** (2501). Eusk. Ezpeleta, gent. ezpeletar.
Guereciet (3225) lau silaba, **Guerecieta** (NDE), **Guerecieta(co)** (3233).
Guetharia (NDE, 2883). Eusk. Getaria, gent. getariar.
Guipuzcoa (NDE, 1463).
Haitz(eco) (2429).
Haltsu (NDE, 3168). Eusk. Haltsu.
Harismendi(co) (2571).
Hasparne(z) (1889), **Hasparne(n)** (2279), **Haspar** (2658), **Hasparren** (NDE), **Hasparren(en)** (3389). Eusk. Hazparne, fr. Hasparren.
Helbarren (1963, 2575).
Heleta(rat) (1580). Eusk. Heleta.
Hendaya (NDE, 2991). Eusk. Hendaia, fr. Hendaye.
Herrifranca(ri) (1948), **Billafranca** (NDE, 3251). Eusk. Milafranga, fr.Villefranque.
Hiriburu (NDE, 1754). Eusk. Hiriburu.
Ibañeta (1129).
Ihuri (NDE, 1764).
Irulegui(n) (2189). Eusk. Irulegi, fr. Iruleguy.
Iruña (1095), **Iruña(n)** (3623, 4964), **Iruñea** (1119), **Iruñe(rat)** (1261), **Iruñea(n)** (1456). Eusk. Iruñe(a).
Isaba(n). Eusk. Izaba, gazt. Isaba.
Ithurrotzen (3487) (ines.).
Itsatsu (NDE, 1893, 3099). GENT. **Itsasuar** (3129). Eusk. Itsasu, gent. itsasuiar.
Lahonce (NDE, 3301). GENT. **Lehonztarrei** (3313). Eusk. Lehuntze, fr. Lahonce.
Laphurdi (NDE, 848). GENT. **Laphurtar(ra)** (1499).
Laran (NDE, 1937).
Larresoro (NDE, 3131). Eusk. Larresoro.
Larrun (299).
Larzabal (1516), **Larzabal(go)** (3493). Eusk. Larzabale.
Lekhuine(co) (3247) lau silaba. Eusk. Lekuine, fr. Bonloc.
Lohigarai(co) (3417).
Luhuso (3215), **Luhosoa** (NDE). Eusk. Luhuso, fr. Louhossoa.
Macaia (3225), **Macaïa** (NDE). GENT. **Macaiar(rac)** (3239). Eusk. Makea (gent. makear), fr. Macaye.
Marcene(coac) (2077).
Mauleo(n) (1575, 1629, 1636) (ines.), **Maule(co)** (1656), bi modutara izendatzen du, *Maule* eta *Mauleo*. Eusk. Maule.
Mendiondo (NDE, 1764, 3225), lau silaba.
Mocoenea(n) (2818).
Muguerre (NDE, 3291). Eusk. Mugerre, fr. Mouguerre.

Mundarrain (1893) hiru silaba.

Nafarroa (1454), **Bi Nafarroac** (1584): **Nafarroa gora** (1505, 1561), **Nafarroa-Goicoa** (NDE), **goico Nafarroa** (1585), **Nafarroa-Behera** (NDE, 1503, 3425). GENT. **Nafar** (1300, 1778), **Nafartar(ra)** (1500), **Franses Nafartar** (3514).

Olhaberrita(co) (2075).

Ondarrabia(c) (1679). Eusk. Hondarribi(a).

Oñate(rat) (3636). Eusk. Oñati.

Oragarre(n) (1921). Eusk. Oragarre.

Oriarriaga(n) (1131, 1239, 1263) zazpi silaba. Eusk. Orreaga. Badirudi Pasai Donibaneko inskripzio batean *Orieriaga* azaltzen dela (11).

Orio(c) (1681) hiru silaba. (Ibaia).

Ormaiztegui (3675). Eusk. Ormaiztegi.

Othatz(co) (3025).

Pasaïa (1685), hiru silaba. Eusk. Pasaia.

Pausu (NDE).

Pirenetan (112, 133) (ines. pl.), **Pirenen** (121, 147, 259, 378, 797, 876) (gen. pl.), **Pyreneac** (5408) (abs. pl.), **Pyrenetan** (5227) (ines. pl.), **Pyrene** (1628) (abs). Iñaki Irazabalbeitiak Miarriteko Onomastika Jardunaldietan aurkeztutako zerrendan (12) *Pirinioak* proposatzen da. Alfonso Irigoienek eta Iñaki Usabiagak (13), berriz, *Pyreneoak* ematen dute. Gazt. Los Pirineos, fr. Pyrénées.

Placetcheberria(n) (2176).

Ribera(n) (3661).

Salbatore(co) (3205).

Salina(n) (1729) (ines.).

Sara (NDE, 1961). GENT. **Saratar** (2587). Eusk. Sara.

Senpere (NDE, 2586, 2603), **Senpere(n)** (2575) (gen.), **Senpere(co)** (2576), **Senpere(n)** (3083) (ines.). GENT. **Senpertar** (2616, 2584); **Helbarren** (1963, 2575). Honela dio idazleak: *Senperen icena da Eskaraz Helbarren / Nahiz alderdi batec orai duen arren.* (2575-6). Eusk. Senpere (gent. senpertar), fr. St. Pée.

Serres(tic) (2139), **Serres(co)** (2185), **Serres(en)** (5318).

Suraïde (NDE, 3069) hiru silaba. Eusk. Zuraide, fr. Souraide.

Tolosa (1681), **Ithurisa** (1682), azken hau Tolosaren izen zaharra omen zen: *Orioc frescatzen du luceki Tolosa / Eskaraz deitzen cena lehen Ithurisa* (1681-2). Eusk. Tolosa.

Tudela(rat) (1425). Eusk. Tutera, gazt. Tudela.

Uhalde(co) (2071).

Uhertsi (NDE, 1691).

Ulibari(n) (3659).

Urdainz(co) (3277).

Urdazuri(n) (1691).

Urhandi (NDE, 1944).

Urketa (NDE, 3343). Eusk. Urketa.

---

(11) NARBAITZ, P.: *Orria, o la batalla de Roncesvalles (778)*, Elkar, Iruñea, 1979, 119. or.

(12) IRAZABALBEITIA, I.: *Op. cit.*.

(13) IRIGOIEN, A. eta USABIAGA, I.: *Op. cit.*.

Urriña (NDE, 2651). GENT. **Urriñarra** (2749). Eusk. Urruña (gent. urruñar), fr. Urrugne.
Ursuya (3226).
Urume (1683). Urumea.
Uztaitz (NDE, 2355), **Uztaiz(tic)** (2461), **Uztaiz(co)** (3157). Eusk. Uztaritze, fr. Ustaritz.
Yatsu (NDE, 3168). Eusk. Jatsu.
Yrun(dic) (3460). Eusk. Irun.

GENTILIZIOAK, ETNIA-IZENAK (14)

Alaman (289).
Alan (989).
Angueles (1053).
Arabe(c) (1035), **Araben** (1048) (gen. pl.), **Arabei** (1101) (dat. pl.).
Ariano(ac) (993).
Bandal (989).
Barduli (1746).
Bisigotha (1006), **Bisigoth(ec)** (1006), **Bisigoth(en)** (1021).
Bretoin(ec) (5234).
Casta-gotac (2987), **Casta-Gothac** (5146), **Agoth, Gothac** (5145), **Agotac, Bohemia** (5151).
Celta(c) (149).
Cinbre (116).
Cosak(en) (3585).
Erdaldun(ac) (297).
Esclabon (116).
Hun (116).
Moro (1111), **Moro(ez)** (822), **Moro(en)** (1056), **Moro(ac)** (1094).
Parthiar (839).
Polones (2100).
Sarrasin(ei) (1734).
Suebo (989).
Tartaro (116).
Teuton(ekin) (116).
Turco(ric) (289), **Turco(ei)** (3577).

ANTROPONIMOAK

Abarca(c) (1301) (abs. pl.).
Abbadia (3301) lau silaba.
Abderram (1281).

(14) Toponimoen zerrendetan azaltzen ez diren gentilizio eta etnia-izenak.

Adalric (1246, 1263), **Adalrik(ec)** (1252), azken hau *k-z* idatzia, ondoren *e* baitu.
Adema (2627).
Ader (3091, 3376).
Adrien (3159) hiru silaba.
Agramont (1441).
Agripa (631).
Aguirre (1700).
aita Mariana (1979) lau silaba.
Aita saindu Yulio(c) (1460).
Aita Deyheralde (2303).
Alaric (5138), **Alariken** (2988) azkena, jarraian *e* duenez, *k*-z idatzia.
Alba (1455, 3543).
Albarez (1455).
Aldabe(c) (3086).
Alonzo (1355, 1361), **Zortzigarren Alonzo(c)** (1738). Alfonso.
Amand Lahirigoyen (3269).
Amezketa (1701).
Ampero (141).
Anna (2479).
Annibal(en) (511).
Antonio Burbon (1615). *Antoniok* lau silaba.
Aranburu (1708), **Haramburu** (2966, 3391).
Arbelbide (1571).
Archu (Chuberoco) (3489).
Argellies (2159) lau silaba.
Armendaritz (3452).
Arozteguy (1702).
Arrese (1698).
Arriaran (1707) lau silaba.
Arrondo (1749).
Arroyo (3532).
Artchaina (3619).
Arteaga (1698).
Asdrubal (511).
Atala (277) *Iberian erregue.*
Auguste (617), **Auguste(ren)** (637) (gen.); baina: **Auguste(n)** (605), **Auguste(n)** (633) hauetan ere genitiboa.
Azantza (2271).
Aznar (1099).
Aztarritz (2637).
Bake (2829).
Baldespina (1359).
Baratzabal (3492).
Bardoa (2830).
Barnetche (1750, 3105).
Barrandeguy (2188).
Bascary (2891).
Basterretche (2963).

Bastres (3075).
Baztan (3530).
Beaumont archapezpicu(z) (2092).
Becaz (3067).
Beko (276) *Iberian erregue.*
Belchor (4801).
Beltzunce(ren) (363-4), **Belzunce** (3286, 3452).
Benedicto hamalaugarrena(c) (2135), *Aita Saindua(c).*
Benoit Dorbe (2687) *Benoitek* hiru silaba, **Jacques Dorbe(c)** (2690) *Jacques*ek bi silaba.
Beranguer (1429).
Berddes (yenerala) (2075).
Berho (2338).
Berindoa (2832).
Bermudez (1309), *Leongo erreguea.*
Berritu (1707).
Berro (2832).
Berrueta (3533) lau silaba.
Betiri (3070).
Bicuña (3530).
Bidachunec (3383) (erg.).
Bidart (2420).
Bidegain (3239) hiru silaba.
Biriatu (564, 570) lau silaba.
Blanca (1450, 1601).
Bonihort (3047).
Borda (1700).
Brat (2679).
Brigo (276) *Iberian erregue.*
Butron (3619).
Calvin(en) (3322) (gen.).
Camio (4802) hiru silaba.
Candellé (3493).
Canderatz (3083).
Carandolet (3641).
Caribert(ec) (1009).
Carlos eder (1450), **Carlos Quinto(c)** (1467), **Carlos bigarrena(c)** (2711), **Carlos zazpigarren(ac)** (3457).
Carteron (3327, 3331).
Casa-Eguia (3531).
Cascoina (4801).
Castaignet (3254).
Castelper (2499).
Catalina Fox (1451) (Foix), **Andre Catalina** (1457).
Celhabe (3401).
Celhay (2239).
Cesar (1895).
Claverie (3415) lau silaba.

Clement (2127).
Coepion(ec) (569) hiru silaba *(Coe-pi-on).*
Cordoba(c) (3667).
Cornu (3247).
Costes (2559).
Coutelarre (2337) lau silaba.
Cuchares (4970).
Curutchet (3497).
Chaho (1659).
Chaila(c) (2897).
Chantre (2971).
Chardiet Luberrico (2177).
Chaubadon (2091).
Chegaray (3517).
Chemartin Gracy (2194).
Chilo (1669).
Churio (anaïac) (2077).
d'Abbadie (323, 1557, 2755), **Dabbadie** (3385) lau silaba.
d'Andurin (1656).
d'Arcangos (3263), **d'Arcangos Arbela(c)** (3277).
Daguenet (1543).
Daguerre (2323).
Daille (2161) bi silaba.
Dalbarade (2829).
Damestoy (3399).
Darburu (2997).
Dardanburu (2981).
Dargañaratz (2845).
Darotchetche (3513).
Darraïdu (2335) hiru silaba.
Darricau (3423).
Darrigol (2423).
Darthayet (2333).
Darthez (1651).
Dasconaguerre (2857) bost silaba.
Dassance(c) (2387).
Dathané (2867).
David (2493), **David Hiriart** (3243), **Dabid(en)** (3570).
Decio (785) hiru silaba.
Delissalde (2236, 2419), **Delizalde** (3328), **Perez Elizalde** (1703).
Detchart (2419), **Etchart** (3199).
Dibarburu (2917).
Diharassarry (2485).
Diharce (3079, 3217).
Dihinx (2409).
Diodoro (205) lau silaba.
Dirasse (Burguico) (3419), **Dirassen** (3425).
Dithurbide (2421, 2551, 3147), **Yturbide** (3530).

Dithurry (3146).
Dolhabarratz (2831).
Dolhatz (3254).
Domindina Larrea(c) (329).
Dop (2533).
Dornaldeguy (2830), **Dornaldegui** (2853).
Dornaletche (2529).
Doxamendy (2175).
Doyhambehere (2197).
Doyhenart (2697).
Dubut (2983).
Ducos (2183, 2871).
Dufour (2843).
Duhalde (2071, 2420).
Duhart (3085).
Dumas (2881).
Durizburu (3339).
Duronea (2607).
Durruty (2188), **Urruty** (2337).
Duthary (3529).
Duvoisin (2489).
Duzinague (2919).
Ebruzco condeac (1607). Evreux-ko kondeak.
Echauz (1555) bi silaba.
Elissondo (3496).
Elizagaray (3496).
Elorregui (1704).
Eñaut Bertrandia (3452).
Eraso (1707, 3529).
Eritreo (279) *Iberian erregue.*
Erlande Goyenetche (2691), **Goyenetche** (2601, 3328).
Erro (3499).
Estebe Dussaut (3426).
Estilicon(ec) (1003).
Estrabon (195).
Estuñiga (1441).
Etchegaray (3495).
Etchegoyen (3163, 3179).
Etchelecu (1670).
Etchepare (3245), **Detchepare** (4801).
Etcheverry (1549, 2697), **Detcheverry** (2571), **Paulo Etcheverry** (2685), **Etcheberry** (3146), **Etcheberria(c)** (3531) (abs. pl.).
Evariste (2611) lau silaba.
Eyheraburu(c) (2689).
Ezpeleta (2473, 3451).
Fabien (2609).
Fagalde (2235, 2341, 3295).
Fagoaga (3532).

Febo (1451).
Fernando(ri) (1330).
Francisco lehenac (2808).
Franchisteguy (2332, 2354).
Fulbio(c) (562) hiru silaba.
Gabiri (1698).
Galba(c) (563).
Ganelon(ec) (1186).
Ganicotchec (2902) (erg.).
Garat Picasarry (2299), **Garat-Lorda** (2338), **Garat** (2367).
Garcis (1066, 1086, 1088: baina oharrean **Garcias**), **Garcia** (1109), hiru silaba. **Garcia Sanchez** (1321), **Sancho Garcis** (1278), **Sancho Garci (biekin)** (1302).
Gargari (279) *Iberian erregue.*
Garibai Zamaloa (1709), **Garibaï(c)** (1981) lau silaba, aurrekoak hiru.
Garro (3228, 3453).
Gaston (1608, 1356).
Gaztelu (1703).
Giraldi (1487).
Godefroa(ren) (1338).
Godin (3463).
Goity (3494).
Goñi (3531).
Gorritepe(n) (1672) (gen.).
Goyetche(c) (2567, 2575), **Goyetche(n)** (2674) (gen.).
Grammont (3283).
Gregorio bigarren (1085) lau silaba.
Guebara (1441, 3543).
Guerio (277) Iberian erregue.
Guibelalde (1749).
Habido (279) *Iberian erregue.*
Hagou (1672) bi silaba.
Halti (3105).
Haranchipi (2919).
Haraneder (2172), **Heuty Haraneder** (2173).
Hardoy (2236, 2269).
Harispe (1536), **Dutey-Harispe** (1540).
Harriague (2329, 2351, 4801) lau silaba.
Harriet (3149, 3183) hiru silaba, **Harrietar** (yaunac) (2847).
Heguy (3246).
Henrike Chanpañaco (1445), **Henry bigarrena(c)** (1611), **hirugarren Henry** (1617), **Henry handi** (1619).
Hercul (278) *Iberian erregue*, **Hercul(ena)** (694), **Hercul(ac)** (1015), azken hau izen arrunt gisa, baina letra larriz idatzia, "Herkuleren antzekoak ziren gidariak" adierazteko.
Heristal (1016).
Hespero (277) *Iberian erregue.*
Hiriart (2275, 2337, 2830, 3059) hiru silaba, **David Hiriart** (3243).
Hiribarren (2569, 2843, 2979), **Urtchinaitz Hiribarren** (3109), **Iribarren** (4802).

Hirigoity (2275).
Hispal (277) *Iberian erregue.*
Hispañ (277) *Iberian erregue.*
Hoa (1701).
Humbolt (141).
Ibarra (1697, 1706).
Ibero (276) *Iberian erregue.*
Idiakez (1696) lau silaba.
Inigo Arista (1287).
Iniguez (1093), **Iniguez bigarrena(c)** (1293).
Ipeñarrieta (1702) sei silaba.
Irigoyen (1708), **Hirigoyen** (2167, 2309).
Isabel(endaco) (3604).
Isas (1700).
Isidor (1547).
Itchaina(c) (2897) (erg.).
Ithurralde (1750).
Karle (1016, 1193, 1215), **Karle(n)** (1238) (gen.) / **Karloman** (1116, 1124, 1126) Carlomagno izendatzeko biak.
Labaste (2845).
Labat-Juzan (2527).
Labeguerie (3411) bost silaba.
Laborde(z) (2427).
Labrit (1451), **Albretar yendeac** (1608), **Yoanna Albret** (1614), **Yoannes Labrit** (1457), **Yoannes Albret(en)** (1611).
Labrouche(c) (2849).
Lacroix (1835) bi silaba.
Lafitte (2613) hiru silaba.
Lahet (2527).
Lalande (3373).
Landalde (2338).
Landerretche(c) (1574).
Lantharet (1512).
Lanz (3531).
Lapeyre (2188).
Lara (681), **Pedro Lara** (1359).
Lardapide (3497).
Larraburu (1512).
Larralde (2331, 2501, 2615), **Franchech Larralde(c)** (2935).
Larramendy (2338, 2683).
Larre (1561), **Domindina Larrea(c)** (329).
Larreguy (2943).
Larrondo (2505 ,3125).
Larrouy (3420) hiru silaba.
Larrunbide (1704).
Lasa (1705).
Latsalde (2830).
Laurencena (2697).

Leczinski (2099).
Leon(ec) (845), **Leon Dajas** (3427), **San Leon** (3444).
Leonora (1450).
Leremburu (2837).
Lerma (3543).
Lichero (2633), **(Senpertar)Lichero.**
Lionel (2477) hiru silaba. *Nafarroan marescal.*
Lissardy (2843, 2861).
Lissarrague (3321) lau silaba.
Lizarituny (2832).
Loena (573) bi silaba.
Lopenague (2459) lau silaba.
Lormand (3479).
Luis(en) (1261) bi silaba, **Luis Hutin tcharra** (1449), **Hamabortzgarren Louis** (2095), **Louis bigarrenac** (2711), **Hamalaugarren Louis** (2818).
Luquo (2843).
Luso (278) *Iberian erregue.*
Machet (2845).
Maitï(ren) (1635).
Mancino(c) (574).
Manescau (2831).
Maramamon (1357).
Margarita Baloa (1613) *Baloa* (< *Valois*), hiru silaba.
Martel (1016).
Maximilien Hapet (3015) *Maximilienek* bost silaba.
Mazondo (3055).
Medina-Celi (3544).
Mela (1487).
Mendiondo(c) (2863) lau silaba.
Mendizorroz (1703).
Meso (511).
Metello (573).
Michel Dihursubehere (2555).
Michelena (2977).
Mikeleperitz (2554).
Mina (3529, 3653).
Miramamolin (1379, 1417), **Esmaralda**. Honela dio: *Icen goitia zuen omen Esmaralda* (1419).
Monsegur (2188).
Montes (4970).
Mouza (1284) bi silaba.
Mureto (1369) Moret historialaria.
Napoleon lehena(c) (469), **Napoleon** (3553).
Nepos (573).
Nesme(c) (1203).
Nicolas (NDE, 3558).
Nogues (2831).
Novion (2411) hiru silaba.

Ocaña(c) (3663).
Ochoa bigarrena (1121).
Odoyl(ec) (3657).
Okendo (1706).
Olozabal (1697).
Orcazberro (3105), **Dorcazberro** (3105).
Ordoño (1282).
Orma (276) *Iberian erregue.*
Oroztery (3530).
Orthe (3451).
Otologaray (2701).
Pagol (3495).
Palacio (2502) lau silaba.
Palatu (279) *Iberian erregue.*
Palenket (2911).
Payes (2877).
Pelaio (1088), *Pelayo(ren)* (3537).
Pelot (3001).
Pen (3496).
Peñaranda (NDE, 3544).
Pepin (1016).
Peranburu (3453).
Perez Elizalde (1703).
Perkain (4795).
Perochegui (3063).
Petit (2749).
Philip ederra(ri) (1447), **Filipe ederra** (1604, 1626), **Felipe bigarrena(c)** (1727). Bi lehenengoak pertsona bera izendatzeko.
Pison (562).
Pistres (2847).
Pochelu (3248).
Pompe (handia) (585).
Portu (1708).
Ramirez (1342), **Pedro Ramirez** (1354), **Sancho Ramirez** (1361).
Recarte (1697).
Remiro (1336).
Ribet (2843).
Ricard erregue(c) (3449).
Rodil (3630).
Rodrígues (1021) *Bisigothen erregue.*
Rolando (1180, 1189, 1194, 1199, 1217, 1237), **Rolan(en)** (NDE, 1265) pertsona bera adierazteko.
Romo (278) *Iberian erregue.*
Rospide (3496).
Ruy(dar) (1352) hiru silaba.
Saint-Martin (2834, 2903, 3453).
Salaberry (yauna) (1565), **Sallaberry** (2347).
Salagoïty (2237) lau silaba.

Salha (3375, 3488).
San Inacio (1693).
San Cernin (944).
Sancho (1246), **Sancho Garcis** (1278), **Sancho Garci (biekin)** (1302), **Sancho handia** (1303), **Sancho Lazo** (1335), **Sancho Noblea** (1336), **Sancho Ramirez** (1361), **Sancho yakina, Sancho hazcarra** (1362), **Sancho zazpigarrena(z)** (1600).
Sandobal Ayardi (1695).
Santiago (943) lau silaba.
Santos-Ladron (3611).
Saulte (3453) bi silaba.
Scipion (512, 516, 576) hiru silaba, *i-o* beti bi silabakoa denez, *Sci* silaba bakarrean irakurtzen zuela pentsa daiteke.
Sempronio(c) (561) lau silaba.
Seneco (141).
Sertorio (577) lau silaba.
Sescosse (2399).
Sicano (278) *Iberian erregue.*
Sicel (278) *Iberian erregue.*
Silio (529) hiru silaba.
Sisenande (998) Gazt. Sisenando.
Sopite (2977).
Sopolan (3532).
Sosiondo (2067), lau silaba.
Soya (2915).
Suhy (3347).
Suinthila (995).
Tertulien (652) lat. Tertullianus.
Tesla (278) *Iberian erregue.*
Theilary (2502).
Theobald bigarrena (1440), **Theobald** (1438) hiru silaba, **Thibaut** (1599) bi silaba. Bi azkenak pertsona bera.
Tournely (2087).
Tubal (276) *Iberian erregue.*
Ubilla (1696).
Ugarte (1698).
Ulice(c) 774.
Urdaire (1708).
Urkiola (1705)lau silaba.
Urraca (1297).
Urthubia (2580) lau silaba, **Urthubiar(rac)** (2583).
Uzeda (3543).
Valdes (3668).
Yauregui (1697).
Yaureguiberry (3495).
Yaurretche (anaïac) (2265).
Yoanchuto (2399).
Yoanna Albret (1614), **Yoana(ri)** (1446), behin *n* bakarrekin, **Yoanna** (1605) hiru silaba.

Yoannes Labrit (1457), **Yoannes Albret(en)** (1611).
Yop(en) (2933) (gen.).
Yoseph Anchieta (1694), **Yosepen** (1743) (gen.).
Yrandaitz (3019).
Ysasti (1709).
Yubal (276) *Iberian erregue.*
Yuliano (condeac) (1023).
Zabala (1704, 1706).
Zabaloa (2323).
Zagasti (1750).
Zara (1704).
Zoroa (1749).
Zubiurre (1706).
Zumalacarregui (3609), **Zumalacarreguy** (NDE).
Zuñigas (3543).

LEIOA, 1994.10.07

AHOSKERA

AHOSKERA BATZORDEA (*)

Burua: Patxi Altuna
Idazkaria: Iñaki Gaminde
Kideak: Jose Luis Alvarez "Txillardegi"
Pello Esnal
Juan Manuel Etxebarria
Pilartxo Etxeberria
Jose Ignacio Hualde
Lourdes Oñederra
Rosa Miren Pagola
Xarles Videgain

(*) Txosten hauek, Bilbon 1994ko maiatzaren 27an egindako Ahoskera Jardunaldietan aurkeztu ziren.

AHOSKERA BATURANTZ (I, II, III)

I. AHOSKERA ARAUPETZEAZ

Miren Lourdes Oñederra

I.0. Ahozkoaren arautzean idatziarenean baino askoz beharrezko eta garrantzitsuago da zer, zergatik eta zertarako (erabiltzaileen eskabidea, beharra eta baimena), noraino arautzen den, zer arau daitekeen eta arautu nahi den arauemaileek kontuz neurtu eta erabiltzaileei ongi azaltzea. Gainera, idatziaren arautze orokorretik nahikoa denbora pasa da eta idatziaren arazoak ahozkoarenak baino xumeagoak izan balitezke ere, nahikoa azaldu gabeko arautzearen kaltea apalagoa baliteke ere, bada, badago: kaltea eta esperientzia (1). Horregatik, ahoskerari buruzko lehen saio honetan galderak sortzeari ekin nahi izan diogu erantzunak zerrendatzeari baino areago: goiz da horretarako. Galderak sortzen hasi aurretik, noski, zer nolako galderak egin daitezkeen galdatu diogu geure buruari.

Izan ere, edonork ulertuko du urrian hasitako lana ez dela nahikoa hizkera estandarraren ahoskera finkatzeko, finkatzearen nondik-norakoak erabakitzeko ere ez baita nahikoa. Lan itzela gelditzen da oraindik, lan teoriko eta praktikoa, ikerketa eta datu bilketa. Uste dugu, gainera, alor askoren gurutz bidean gaudela. Gogoan izan behar direnen artean iritzi eta sailkabide psikolinguistikoak, soziolinguistikoak eta linguistikoak (dialektologiazkoak, fonetika eta fonologiazkoak, hizkuntzaren historiari dagozkionak) daude gutxienez.

I.1. **Batzorde honen egiteko zehatzaz**

Euskara batuaren ahoskeraz erabaki daitekeena mutur biren artean koka genezake:

a) Euskalkien artean nahikoa zabalera duten ahoskera ordezkatze guztiak egitea, alegia, lotura eta elkar-eragin guztiak.

(1) Euskara batuaren arau eta paradigmak kaleratu dira, baina ez euskara batua noiz erabili behar den, zertarako den, e.a Pilartxo Etxeberria itzuliko da honetara beherago.

b) Ezer ez "egitea": alegia, idatzi bezala irakurtzen saiatzea.

Batak zein besteak alderdi txarrak dituzte. Lehen aukerak (a) monoestilismoa lekarke, gertatzen direnak ez baitira hizkera maila berekoak, asko eta asko hizkera arduragabeetako ezaugarri direlarik (e.g. egin [ejn], [in] edo ari da [ajðа] bezalakoak.

Bestalde, bigarrenak (b) ez lekarke fonologiarik gabeko hizketa, hori ez baita posible, zeren hizkuntza fisiko egiteari, ahoskatzeari, hizkuntzaren unitate fonologikoak hots bihurtu eta kateatzeari zor baitio ezinbestean gizakion hizkuntzak fonologia izatea: gure kasuan, historia luzea labur kontatuaz, aukera honek lekarke besterik gabe erdarazko fonologiaz baliatzea aukera sortzen den guztietan (<zd> [zd]: *ez da* [ezda], e.a.).

Egokien litzateke, ziurrenik, lehen bidetik (a) abiaturik hizkera maila bakoitzari dagozkion ordezkatze fonologikoak bilatzea. Lanaren erraldoitasunak guztiari ekitea ezinezko egiten du eta, gainera, agian ez da beharrezko ere hasiera honetan. Ziurrenera, azken batean ere ez araupetzeari dagokionean. Izan ere, hizkuntza normalduetan usuenik arautu ohi dena hizkera jasoa izaten da, estandarra, hau izan ohi delarik, ezagutu eta gogoan izaten den neurrian, besteentzako erreferentzia. Alegia, estandarrarekin inolako harremanik ez duen hiztunarentzat ez dago horrelako erreferentziarik bere eguneroko normak ematen diona baizik; estandarra ezagutzen duenak gehiago edo gutxiago erabiliko du arau soziolinguistikoen arabera eta bere ezaugarri psikolinguistikoek baldintzatuta (2). Hasteko modua izan daiteke, beraz, hizkera zainduaren ahoskeraren arautzeari ekitea. Honen aldekoak labur bildurik:

a) Besteak ere honela aritu bide direla, hori delarik linguistikoki zentzuzko gertatzen den norabidea.

b) Eusteko moduko neurria (halaz ere handia) eta bidea eskaintzen digula eginkizunak.

c) Erabilera eremuak mugatu(ago)ak eta erabiltzaileak ikasiagoak izan ohi direlarik (daitezkeelarik behintzat), arauaren hedatzea errazagoa dela. Askotan erabiltzaileak hizketaren profesionalak dira (esaterako, irrati-telebistetako hizlariak) eta eredu-hedatzaile izateko egokiera eta ahalbideak dituztenak.

(2) Hiztun moeta ezberdinak daude ezpairik gabe. Hemen sartzen dira estandarrarekiko interpretazio, jarrera, aurreiritzi, estereotipo, identifikazio mailak, e.a. Beti daude bersteak baino "dotoreago" edo "pedanteago" (nondik begiratzen zaion) hitzegiten dutenak, zabarrako direnak, e.a. Honetxek osatzen du hizkuntza normalduaren unibertso fonologikoa: normaldu gabeetan ordea arau baturik ezak zatitu eta ahuldu egiten ditu normalduetan aberastasun diren arau txiki askoitzak.

I.2. Hizkera-mailen definizioaz

Hizkera mailak zehazki zenbatzea ezinezkoa eta okerra litzateke, hain zuzen ere desberdintasunak mailakakoak direlako eta ezin delako erabateko mugarik aurkitu bataren eta hurrengoaren artean. Dena dela, erabaki praktikoen pedagogia helburu hartzeak justifika lezake ziurrenera xehetasunetatik abstrakzio eginik gutxieneko sailkapen hau: hizkera zaindua *(jasoa)* vs. *arduragabea.* Hizkera zainduan maila edo erregistro neutroak eta ez-horren-neutroak bereiziko nituzke (3). Hemen zaindu-neutroenez ari garela esango nuke, irrati-telebistetako berri-emanaldietakoez edo.

Izan ere, litezkeen kasuetara joaz, neutrotasun handiagoa eska dakioke irrati-telebistako albisteak irakurtzen dituenari literaturazko hitzaldia ematen duen idazleari baino, agian azken honi baino gehixeago literatur kritikoari eta, albiste aurkezleari baino gutxixeago elkarrizketak egiten dituenari, e.a. (kasuan kasuko hierakiak egin litezke). Normaltzat jo genezakeen aldakortasunaren beste adibide bat: hizlariak esatea [-ea] ahoskatzen du hitzaldian, entzulego osoari ari zaionean, baina [-ia] hitzaldiaren ondorengo eztabaidan galdetzaile bakarrari erantzutean. Honelakoak hiztunok distantzia eta hurbiltasuna adierazteko erabili ohi ditugu hizkuntza guztietan.

Ingurune, egoera eta eduki moeta bakoitzak bere eskakizunak ditu ahoskeraren neutrotasun-naturaltasunaren (bapatekotasunaren, bizitasunaren) ardatzean, jakina. Areago, albora ezinekoa da hemen hiztunaren araberako aldakortasuna, aurreko elemenduak baino *inprebisibleagoa* eta kontrolagaitzagoa dena. Aldakortasun hau handiagoa da, noski, normalizatu gabeko hizkuntzetan, hiztunari gizarte arauaren erreferentzia kolektiboa falta baitzaio (lotsa edo ausardien subjetibotasuna indartzen delarik).

Horretaz gainera, jakinaren gainean izateko beste zerbait ere bagenuke. Ematen diren arauak direnak direla ezinbestekoa da gutxieneko artifizialtasuna: ahoskerara propio heldu gabe, *det* edo *dot* esatera ohitu garenok *dut* esatean sentitzen dugun artifizialtasuna: horretan ere hiztun batzuk besteak baino malguago izaten dira, egoera batzuek beste batzuek baino areago errazten dute erabilera batua eta, jakina da, beste zenbaitetan, soberan legoke *dut* esatea.

Azkenik, bada ereduen indarraz kontuan hartzeko beste zerbait ere. Jakinaren gainean gaude eta oso aintzakotzat hartzekoa da arauak euskara zaindu eta jasorako proposatzen badira ere, gainerako erabileretara-

(3) Gainera, batzuetan moetak gurutzatu eta korapilatu egiten zaizkigu, neutrotasuna ez da beti zainduarekin bat datorren neurria, batzuetan kontrakoa ere izan baitaiteke: poesia irakurtzeak neutrotasunik gabeko ahoskera zaindua eska lezake artifizialtasunera iristen daitekeelarik ([h] ahoskatzera esaterako).

ko eredu eta ispilutzat hartzea ezinbesteko eta kontrolagaitza izango dela. Arriskua da hizkera zainduenerako artamendatzen ez denak "puntuak galtzea" hiztunak egiten duen hizkuntzaren balioztatzean (<ea> [ia] eta horrelakoez ari naiz pentsatzen). Nahikoa kalte gertatu da alderdi horretatik idatzirako arauen oker-ulertzearekin.

I.3. **Ahozkoaren berezitasunez**

Ahozkoaz ari garelarik eta garbi dago ahoskera dela ahozkoaren osagairik *bereizituena* (azterketa lehorren eta emaitza harrapagaitzen dituena), oso gogoan izan behar dugu hiztunari besteren hizkera, hizkera horren arroztasuna, ez zaiola agertzen soilik erraztasun-zailtasun ardatzean kokaturik (arauak eta hitzak ikasteak dakarren lananarenean, alegia), baizik eta bete-betean artifizialtasunarenean. Horregatik hiztuna kanpotikakotzat jo litzakeen arauen aurka jartzea errazago gerta daiteke idatziaren arautzean baino.

Hiztuna jakinaren gainean edo bestela identifikatu egiten da nahita edo nahigabe egiten dituen ahoskera hautaketekin. Zailago gertatzen da, hartara, ahoskera arautzea idatzia, ortografia, arautzea baino. Bestela esan, errazagoa da <h> idazten ohitzea, <j> idazten denerako [x] bela-rearen ordez [j] palatala —esate baterako— ekoiztea baino.

Helmuga eta bideen inguruan beharra (eredu bateratu batena) vs. borondatea (erabiltzaileena) ongi neurtu beharreko gauza dira. Hitz egitea, hizkuntza ahoskatzea, hotsak atera eta entzutea eguneroko bizitzako gertakizun arruntak dira. Idatzia eta hizkuntzaren arteko harremana ez da hain zuzen eta bapatekoa. Idatzia, ahoskera ez bezala, berariazko eta gogoeta baten ondorio baita. Badu, ordea ahoskerarako garrantzirik, irakurtzen ikasiz gero, idatziak ahoskera eragin baitezake, batipat, gurean gertatzen den bezala idazkera "fonetiko" deitzen diren horietakoa izanik.

Bada ortografia eta ahoskeraren arteko bereizgarri bat, zalantzarik gabeko diferentziaren adibide on izateaz gainera, geure helburuak neurtzerakoan oso kontuan hartu beharrekoa: ortografia batu eta bakarra posible da, baina, ahoskera baturik bada ez da inoiz erabat bakarra izango. Ahoskerari buruz aritzean ez da hizkera estandarra esaten normalean, hizkerak edo aldaerak, baizik, alegia pluralean.

Esango nuke hauek guztiak kontuan hartu gabe hutsala litzatekeela gure iharduna, kaltegarri ere gerta litekeela eta, agian, itsumustuan arautzen hastea baino hobe litzatekeela gauzak daudenean uztea. Uste dut gure lana ezin daitekeela izan arau zerrenda ateratzea, ez dela hor bukatzen eta, hasi ere, ez genukeela hortik hasi behar.

II. HIZKERA JASOAREN INGURUKOAK

Pilartxo Etxeberria

0. Ororen gainetik, hizkuntza mintzatua komunikatzeko oinarri-oinarrizko tresna dugu. Jatorrizko euskal hiztunak, -edozein hiztunek geroetxean edo lagunartean hizkuntza oharkabean bereganatu duenak, ikasia nahiz ez ikasia izan, hizkuntzaren ezaguera sendoa eta harremanetako erabateko gaitasuna du. Eguneroko usadioan, erabilera jakin bakoitzari buruzko gogoetarik egin ez arren, hiztunak senaz jakin badaki, nola, non eta norekin zein molde, estilo edo erregistro erabili. Itxuraz bederen, ibiltzea, ikustea, ukitzea,... bezain arrunt eta erraz da hitz egitea. Hizketa-hotsen bidez egiten dugun hizketak, pertsonon zein-nahi jardunek dituen ezaugarri berberak ditu: *teleologikoa* da —hau da, ekoizpen-oharmen ekintzek helburu jakina eta bakarra dute, igorle-hartzailearen arteko komunikazioa burutzea—; *ekonomikoa* —ahalik eta lan ttikiena eginez (ekoizpenean eta oharmenean) helburu hori ongi erdiestea— ebakikidetzan, murrizte-mekanismoetan, bilakabide jakinetan,... ongi ispilatzen da alderdi hau; *moldakorra* —hau da, hiztunak ohizko mekanismoak ordezkatuz, ebakera alda lezake (eta aldatu egiten du) denbora, leku, egoera eta solaskidearen arabera egokituz— artikulatzaileen bidezko konpentsazioan, hiper/hipo artikulazioan edota entzumen arretan,... nabarmentzen da.

Egoera sozio-estilistikoek, pragmatikoek edota jarrera psikologikoek baldintzatzen dute hiztuna mintzabidea egokitzera eta hizkera-moldez aldatzera. Aldakortasuna da beraz, hizketaren ezaugarri nagusienetakoa (h. d., aldakortasun diatopikoa, diastratikoa eta diafasikoa) baina bestalde, hizkuntza beraren mintzatzaileek, gradu eta modu ezberdinetako aldakortasuna aldakortasun, elkar aditzen dute zailtasunik gabe. Puntu hau jakintza askoren ikerketa-gai den neurrian, ezinbestean, mugatua izango da nirea. Aldakortasuna gaitzat harturik egin diren istudioetan autore ezberdinek bereizten dituzte hiztun bakoitzaren baitako aldakortasuna (bakarkakoa) eta hiztunen artekoa (gizartekoa). Lehenak, hiztunaren isuria aldarazten duten alderdi psikologikoak eta estilistikoak bilduko lituzke oro har eta bigarrenak berriz, soziolinguistikoak eta dialekto mailakoak (4).

(4) Gutako edonork hitz egiten duenean, behatzaile eta aztertzaile zorrotzari arrasto

Aipatu ditugun alderdien azterketa sakona baliagarria litzaiguke oso jakin ahal izateko aldakortasun horren barrutian joera zabalduenak zein diren, zein bidetatik doazen eta zenbateraino betetzen diren. Bestalde, kontutan izan behar dugu azken urteotan, idatzizko euskarak eremu berriak hartu ahala (erabilera tekniko-zientifikoak, administrazioa, komunikabideak,...) behar berriak sortarazi dituela ahozkoaren praktikan. Euskara eremu ezagungabeetara eramanez bide berriak urratu ditugu idatzian eta beste horrenbeste, idatzitakoak esateko moduan. Berez aberats eta onuragarri izan beharko lukeena, arrisku eta zalantza-iturri suertatu zaigu ahozkoaren joera berriak ugaritu direlako. Entzumena gozagaiztu eta ulerkortasuna zailtzen duten hizkera berri horiek, ez dira ahozkoaren berezkotasunetan sustraituak izkribuzkoarenetan baizik (honelakoak ditugu esate baterako, naturaltasun izpirik gabe sumatzen ditugun esateko modu bitxi eta arrotz itxurakoak, idatziaren berezkotasunetik urrundu gabe irakurritakoak edota gaztelania/frantsesaren morrontza nabarmenegia duten esateko moduak) (5). Sortu berri diren ahozko modu horiek ere azterbide izan beharko ditugu ekarri dituzten aldaketen arrakasta, hedapena eta indarra ebaluatu ahal izateko.

I.1. **Hizkera jasoaren definizioa eta ezaugarriak**

Hizketa jasoaren ezaugarri behinenak batasun-irispidean jartzea da helmuga. Hala ere, ezertan hasi aurretik ez nituzke esan gabe utzi nahi neure burura samaldan datozen galderak. Besteak beste: Zer dugu "ahoskera jaso edo zaindu" izendapenaren azpian (nola defini daiteke)? zein dira gainerantzeko ahoskerei begira dituen ezaugarriak?; zerk bereizten eta zerk batzen ditu hizkera-moldeak?; denboran zehar besteen aldamenean bizi ote liteke ahultze-prozesurik eragin gabe?; zein dira erabilera ezberdinen arteko harremanak? nork elikatzen du nor, edo elikatu beharko luke nor, ala elkar elikatu behar dute?.... Kontu handiz egin beharrekoa dela iruditzen zait "jasoa"ren azterketa eta orobat, gardentasun linguistiko handiz eman jasoari datxezkion azalpenak. Bestela bideak zabalduko genituzke pentsarazteko jasoa dela zuzena eta komunzki

---

eta zentzu ugari eskaintzen dio: ekoizpenari lotuak (artikulatze-modua, hizketa-abiadura, erritmoa,...), bere izaerari lotuak (nortasuna, identitatea, barne-egoera, hizkuntzarekiko jarrera...) eta soziolinguistikari lotuak (euskalkia, klase-soziala, duen estatusa edo lortu nahi lukeena...).

(5) Esate baterako, irratietako zenbait esatarik, enuntziatuen katean —segmentu eta segmentu bilkurei dagozkien askomoduzko ebakerak bazter utziz—, erritmo, hizkera doinu, silaba kopuru, azentuen kokapen, enfasi eta intonazioari loturiko etenaldi eta isiluneak baldintza eta modu jakinetan egin behar dituztela erreparatu gabe, horiek gogoak ematen dien lekuen jarriz, euskal prosodia zilipurdikatzeaz gain, mezua itxuraldatzen dute ulerkortasuna lausotuz.

egiten diren erabilera libreagoak halamoduzkoak, baztertzekoak (maiz askotan entzuten da herritarren artean honako honek eta harako hark bai, ederki egiten dute batuaz, guk berriz, ez dakigu ezer) (6).

Bistan da galdera hauek guztiek ez dutela erantzun bakarra eta erraza orokorki plantea daitezkeen bereizte-irizpideak ezartzerakoan: batetik, dikotomia ez da *ahozko jasoa vs arrunta* (modu honetako banaketa ez dago irizpide linguistikoetan sustraitua, ideologikoetan baizik) (7) eta, bestetik, hizkuntzalaritzak eskaintzen dizkigun azterbideez gain beste zenbait jankintzaren laguntza ere beharrezko izango dugu joera nabarmenez mintzatu ahal izateko.

II.2. **Hizkera mailei buruzko zenbait iritziz**

Ahoskera jasoaren inguruan eta horren deskribapena helburutzat harturik, Tomás Navarro Tomás-ek (1974, 8 or.) ondorengo hauek aipatzen ditu espainiera jasoari buruz: oro har, arrunta baino uniformeagoa da; zeregin jakinetarako ikasiek erabiltzen dutena; idatzira gehien hurbiltzen dena, baina, ohartarazten du, ez dezala inork uste izan: *"Que la lengua española se pronuncia como se escribe"* (9. or.); eskolan irakasten da eta eskola eta unibertsitatea dira eredu honen hedatzaile nagusiak (gaur egun ahozko komunikabideak bazter ezinezko ditugu).

Frantsesaren inguruan idatzi direnak labur bilduz aipa daitezke P. Fouchék (1957, 2. or.) dioena: *"La prononciation en usage dans une conversation soignée chez les parisiens cultivés"* honi P. Leon-ek (1966) eransten dio: *"qualifié de standard ou de normatif"*. H. Walter-en (1977, 17 or.) iritziz *"est un français résultant d'un processus lent d'unification entre diverses usages provinciaux"*; eta P. Durand-ek (1985, 20 or.) honela definitzen du frantses estandarra edo <<normatif>> delakoa: *"Cette dénomination correspond assez bien au besoin qu'ont les gens qui veillent sur la langue d'en codifier l'emploi."* Ik. Van Eibergen (1986), deskribapenak egiteko ohizkoa ez den mailaz.

Fonetikari-fonologoek, oro har, ahoskera arautzekoan hiztunen erabilera hedatuenetan egiten diren prosodiazko ezaugarri nagusi eta ozdezkapenetan sustraitzen dira aditzera emenez horietako zein ordezkatze

(6) Balioiritziak dira "prestigioak" sinestarazten dizkigu, baina egiazki eragile dira: horregatik azalpen linguistiko gardenen premia larria.

(7) Arrunta (eskola gabetuena, ahulena gizartean) vs jantzia (ustezko haundiena, ikasiena). H. López Moralesek (1989, 43) dio: "La variación... se inserta en un parámetro que va desde las posturas más coloquiales y espontáneas a las más formales, todo depende del grado de participación de la conciencia lingüística en el momento de hablar".

den zilegi eta zein debeku. Nola nahi ere den, hiztunen erabilerek, arautua dagoen moldearekin alderatuz gero, hizkuntzaren malgutasuna ispilatzen dute.

Euskarari dagokionez, euskaltzainburu zen Azkue jaunaren aginduz, Navarro Tomás-ek gipuzkeraz egiten zen hizkera-molde jasoaren bereizgarri nagusiak jasotzeko asmoz egin zuen azterketaren emaitza dugu "Pronunciación Guipuzkoana" (1925) izeneko lana. Hitzaurrean honekako hitzat dakartza: *"Porque el objeto de este trabajo se reduce sencillamente a dar una idea de la pronunciación guipuzcoana en su aspecto culto o literario"*. Berriemale nagusitzat Lizarralde apaiza hartu zuen honek Azkueren iritziz, hizkera naturala, xamurra, ulerkorra, gardena eta argia zuelako: *"Ejemplo especialmente adecuado para representar la buena pronunciación guipuzcoana"*.

Adierazgarriak dira bestalde, gipuzkerazko ebakera jasoaren ereduaz ari delarik, aditzera ematen dituenak: "El dialecto popular presenta de un lugar a otro numerosas variantes fonéticas cuyo uso no resultaría aceptable, a juicio de L, ni en el discurso ni en la conversación culta". Beti ere hitzaurrean, aurreraxeago dio: "Ninguna variedad local es considerada en este sentido como modelo de buena pronunciación... frente a dichas variantea el uso de L. aparece principalmente influido por la forma de las palabras en la escritura ordinaria". Ondorengo orrialdeetan hizketa-hotsen azterketa xehea egiten du, kasuz kasu zehaztuz ebakera anitzen artean zein den egokien erabilera jasorako (esate baterako hiatoez ari denean <ea, oa> ebakerak hobesten ditu, horien aldaera disimilatuak beste zereginetarako utziaz).

Erabileran sarritan egiten diren ebakera-aldaerak eta hiztunen dudamudak baztertzeko, aldaeren artean hobesten dena zehaztasunez azaltzea litzateke Akademiaren betekizuna arestian aipatu fonetikariaren iritziz. (ik. hasieran L. M. Oñederrak batzordearen egitekoaz eta hizkera mailen definizioaz esanak).

Labur bilduz, beraz, molde jasoa delakoak, euskalkien aniztasunaren azpian dauden alderdi batzaileak bildu beharko ditu (ik. batzorde honen bilkuretan estabaidatuak izan diren puntuak, besteak beste, <j->, <x> grafemen ebakeraz esandakoak); erabilera-esparruak mugatuak izango ditu (8); hizkuntza guztietan egiten den modura ahozko estanda-

(8) Erabateko xehetasunak eskaintzea erraza ez den arren, gure azterketaren onerako komeniko litzateke zehaztea erabilera-esparru jakin batean aurki daitezkeen mailak. H. d., ez da aski esatea "osasunaren arloan" hizkera jasoa ahoskatu behar dela, hizkera-molde erabilgarriak bat baino gehiago izango baititugu hiztun-entzuleen eta gaien araberakoak: Jardunaldietakoa, ohizko bilkurakoa, sendagile eta gaisoaren artekoa, profesionalen tabernako elkarrizketakoa,... eta abar.

rraren berezkotasunak eskolan irakatsiko dira, oso bestelakoak baitira idatziaren formak eta ahozkoarenak (9). Azken hau ere sakondu beharrekoa da; izan ere, Mauleko, Gernikako edo Ataungo bi edo hiru urteko haurrei eskolan delako jasoan hitzegitea larria litzateke. Irakaskuntzaren alderdiak bere osoan azterkizun ditugu. Kontu handiz egin beharreko talde-lan zabala eta sakona eskatzen du zeregin honek.

II.3. **Erabilera jasoaren esparruak**

Hizkuntzalariak eta soziologoak, xehetasunak xehetasun, bat datoz molde jasoaren erabilera-esparru orokorrenak mugatzerakoan. Egoera formaletan erabiltzen dena dela diote; horiek zehazteko garaian aipatzen dira: nazio-mailako komunikabideetan bereziki albiste-programetan (puntu hau zorrozten dute zenbait maila zehaztuz: nazio mailako albisteak, eskualdekoak, mugatuagoak, ...) funtzio ofizialetan, administrazio zentralean, administrazio lokaletan, justizia administrazioan, erabilera juridioan, hezkuntzan, ikerkuntzan, helduen hezkuntzan, goi-mailako irakaskuntzan,... eta abar (A. Akmajian eta besteak, 1984, 223 or. eta hurr.)

Oker larririk egiteko beldurrik gabe esan liteke, euskaran ere, erabilera jasoaren premia bereziki, iraskaskuntzan, administrazioan eta komunikabideetan dugula (arestian esan dugun moduan, horietako bakoitzean mailak zehaztuz). Esan beharrik ez dago gainerako eremuetan tokian tokikoak bultzatu eta indartu behar direla (10).

Hizkuntza idatziaren aberastasuna edo urritasuna orain-oraingoz alde batera utzirik, ahozkoarenak ekar lezake arriskurik igorle-hartzailerentzat baldin eta ez badira gardentasunez azaltzen erabilera-esparruak. Hau da, "prestigioaren" edota oker ulertutako (baliteke ulertu nahi ez duenik ere aurkitzea) zuzentasunaren irudipean nolabaiteko ebakera koloregabeko/"aseptiko" bakar hori haur-hizkeran, lagunartean eta orohar egoera libreagoetan ere egiten badugu.

Berebiziko garrantzia du beraz, ahalik eta xehen azaltzea eredu bateratu horren (horien) erabilera-esparruak; hau da, erabilera formal, landu eta ikasietarako. Gainerakoetan berriz, tokian tokikoak hiztunen arteko etenik eta traumarik sor ez dadin.

(9) Ik. honi buruz M.L. Oñederraren txostena.

(10) Hemen beste azterkizun bat: zer egin euskara galdu duten lekuetan (Gasteiz, e.g.).

II.4. **Idatziak ebakeran izan lezakeen eraginaz** (11)

Ikertzaileek egindako istudioek azaltzen dute, testu idatzitik abiatuz jarduten duten hizketaren profesionalen irakurtze-ohitura jakinek horien erabilera arduragabeagoetako ebakeretan eragiteaz gain, zenbait eredu prosodiko zurrun hedatzen dutela.

Honela, P. Batt-ek P. Leon-ek (1992, 131-138) solasaldi arrunteko enuntziatuen batazbesteko balio neurtuak erreferentzitzat harturik, hiru irratsaio aztertu zituzten horietako bakoitzaren nondik-norakoak ezagutzeko eta ezaugarri nagusienak zehazteko: kirol-erreportaiari dagokion fonoestiloan etengabeko hizkera-doinu, erritmo eta "tempo" aldaketak azpimarratzen dituzte —kontrasteak bereziki "tempo"an nabarmentzen dituzte silaba azentugabeak normalean baina laburragoak eginez eta azentudunak berriz luzeagoak edo laburragoak jokalariek daramaten erritmoaren arabera— ; musika emanaldiak aurkezten dituztenek berriz, ahoskera modulatzen dute hizkera-doinuak goratuz eta apalduz. J. Fónagy-k (1976, 193-227) albisteetako esatarien azentuatze-erak eta hizkera-doinuaren moldeak aztertu zituen, ezaugarri berezituenak zedarritzeko. M. Callamand (1987) eta beste zenbait ikertzaileek irrati-telebistetako esatarien prosodia ikertu ondoren, bat datoz besteak beste, ezaugagarri hauetan: azentutze nabarmenean, sintagmak baino areago hitzak nabarmentzen dituzten neurrian, erritmo *haché* delakoaren nagusitasunean. Nola nahi ere, orain arte aipatu ditugun urruntze-graduek, frantseren sena eta joera naturalak ez dituzte apurtzen.

Gurean ere, baldin eta Batzordearen txostenean esaten den moduan, azken helmuga erdietsi nahi badugu, —h.d., hizkera-maila ezberdinetako datuetatik mailakatze eredua atera— albora ezinezkoa dugu irrati-telebistetako profesionalen hizkera-moldeen ikerketa.

Bestalde, behar adinako eta behar bezalako azalpenik eman gabe idatzitik ebakerara jotzeak zalantzak eta irakurlearen berezko isuria maizegi zuzendu beharra dakar, nolabaiteko inseguritatea sortuz ahozko jardunetarako (12) eta bilakabide bereziak berrindartuz; esate baterako, izkribuzko etimilogiari atxekiriko zenbait kontsonante bilkuraren <*transkripzio, instrumentala, abstentzio, postposizio, substraktu, ...*> halaholako eta nolanahiko ebakerek, kontsonante-sistema ez ezik euskal silaba-egitura eta erritmoa ere itxuralda lezakete; arazoa aregotzen da lotura-eten zentzugabeetan <*asmo# on hori# bakarrik# izan du*>, hizkera-doinu barrabasetan edo intonazio-modu okerretan.

(11) Gogoratu maila bat arautzeak beste mailetan izan dezakeen eragin mugatzailea.

(12) Inseguritateak hiztunaren berezko sorkuntza-ahalmena ahultzen du; horrez gain, hizketari ez naturaltasunik, ez formaltasunik eta ez bizitasunik ematen dioten estereotipoak eta neurriz kanpoko etenak maizegi egitera behartzen du.

III. ABIABURU ZEHATZ BATZUK

Miren Lourdes Oñederra (*)

Esandakoak direla medio, nolabait hiztun bakoitza noraino iristen den aske utzi behar da (ezinbestean, gainera, ahozkoaz ari garelarik). Honekiko pare bat gauza:

a) agian askatasun horretatik kanpo geratuko lirateke irrati-telebistetako profesionalak eta kidekoak (beren zeregin profesionaletan ari direnean),

b) askatasunak ez du esan nahi gidaritzarik eza, hizkuntza dagoen egoeran egonik batipat (euskalkien arteko zatiketa eta erdarekiko menpekotasuna gogora hemen), kontrakoa baizik.

Menturaz, egokien hizkera zainduetarako aholku-gida modukoa egiten hastea litzateke eta hautaketarako irizpideak eskaintzea. Azken helmuga (hizkera maila ezberdinetako datuetatik mailakatze eredua ateratzea, e.a.) oso urruti dago oraindik.

Hona hemen, apaltasun osoz, irakurriaren ahoskerarako adibidezko abiapuntu litekeena:

III.1. **Bokalak berex**

<*a, e, i, o, u*> idatzi bezala ahoskatzen dira.

<*u*> ren [*y*] ahoskera palatala ahoskera batutik kanpo geratzen da. Garbi dago beren ahoskera-paradigmetan [y] duten hiztunen ebakeratik

---

(*) Atal honetan batzordearen bilkuretan eztabaidatu eta onartuak jaso nahi izan ditut. Neure esker ona, beraz, batzordekideei. Okerrak, noski, nire-nireak dira.

Hasieran aipatu bidegurutzean (ikus I.0) fonologiaren bidean barrena baiatuta, analisi fonologikoak eskaintzen dizkigun irizpideen laguntzak ematen ditut honako abiapuntu alegiazkoak.

Gorago bezala <...> honelako ikurren artean agertzen dena ortografia da (hitz osoak aipatzeko letra etzana erabili da); [...] honelakoen artekoa, transkripzio fonetikoa (ahoskera, beraz); /.../ honelakoen artekoa, ahoskera posibleetarik oinarrizkotzat hartu izan dena. Transkripzio fonetikorako A.F.I. ikurrak erabili dira.

hots hori kentzea zaila litzatekeela (ez dut uste beharrezko denik, gainera).

III.2. **Bokal elkarketak**

<*ea*> eta <*oa*> idatzi bezala ahoskatzen dira. Honelakoen gainerako ahoskerez (<*ea*> /ea/: [ea], [ia], [ie], [i]) esan behar da ahoskera zainduena [ea] litzatekeela; hala ere, bilkura hori [ia] ahoskatzeak formaltasuna gutxitzen dio hizkuntzari, baina ez zuzentasuna. Hortik aurrerakoek, areago.

<*ia*> eta <*ua*> idatzi bezala ahoskatzen dira; [ija] eta ondorengoak ez dira gaitzesten, beste hizkeretarako uzten baizik.

Diptongoak: oro har, beheranzkoak bai, goranzkoak ez. Alegia, bokal bilkuraren bigarrena <u> edo <i> bada, silaba bakarra egingo da (honek, noski <ui> bilkura ere jasotzen du). Batasunaren eta bereizkuntza semantikoen izenean salbuespen bakarra tartean <h> idazten denean gerta liteke (e.g. *ahula, nahiz*). Honetaz ez dago erabateko adostasunik gure artean. Dena den, hiztun batzuek batzuetan behintzat (erregistro zainduenetan esango nuke) hiatoa egiten dutenez, ez dugu arbuiatzeko arrazoirik ikusten.

III.3. **Kontsonanteak berex**

<*b, d, g*> Idatzi bezala ahoskatu. Arazoak <e> eta <i>ren aurreko mailebuetako <g>az gerta litezke (ik. beherago <j>).

<*f*> Idatzi bezala ahoskatu.

<*h*> Ezin da inola ere gaitzetsi hizkeraren formaltasunaren izenean (batipat fonetikoki bizirik duten Iparraldeko hiztunak gogoan), baina eskatzea gehiegizkoa gerta liteke Hegoaldeko hiztunentzat. Ez litzateke onartu behar, noski <h> [x] ahoskera.

Arazoa: *zihoan* bezalakoen grafiek sortua, usuenik [x] (belarraz) ahoskatzen baitira Hegoaldean <h> horiek.

<*j*> Arazoa honen ahoskera belarrak ([x]) sortzen du; horretan <e, i>ren aurreko mailebuetako <*g*> ere lagun du.

Aintzat hartzekoak: euskalkietan aurki daitezkeen ahoskera guztiak. Aukera egin behar al da? Aukera bakarra egin behar al da? Zeren arabera egin behar dugu aukera, zeintzuk dira irizpideak? Zabaleragatik eta

iturburu izan ohi delako (bai diakronikoki ala izan delako askotan, bai sinkronikoki hobeki azaltzen delako alderantzizkoa baino) [Ô, j]?

Hasierakoetarako behintza [Ô] hautatzen da. Beraz, [Ô-] lukete *jan, jaun, janari* bezalakoek hizkera zainduan.

Arazoak:

garajean nola ahoskatu behar litzateke?

Eta beste asko: *gajoa, gizarajoa, ijitoa*, e.a.

Zerrendak osatu-aztertu-sailkatu behar ditugu.

<*k, p, t*> Idatzi bezala ahoskatu.

<*l*> Idatzi bezala ahoskatu.

<*ll, (il)*>

a) Hemen honen ahoskera albokari ala erdikarian sortu da berriki arazoa, jakina baita gure artean ere gero eta maizago gertatzen dela *yeismo* deritzon sabaikariaren des-albokaritzea. Honi buruzko nere iritzia beste batzuena bezain dramatikoa ez bada ere, esango nuke ia zalantzarik gabe hizkera zainduetarako ebakera albokaria proposatu beharko genukeela. Honen irakaskuntzarako ebakera eta oharmenaren aldetik dauden arazo fonetikoen jakitun ere izan behar dugu, dena den (badira kazetari euskaradunak <il, ll> [Ô, j] egiten dutenak; hori konpontzeak lanbide horietarako ahoskerazko prestakuntza sistematikoa eskatuko luke).

b) Jakina da, bestalde, euskaldun *despalatalizatzaileek (sensu lato)* albokariaren palataltasuna aldamenean dagoen edo sortzen duten [i] bokal hotsari egozten diotela. Hain zuzen ere beraiek eman bide digute teila bezalakoak euskara batuan idazten ditugun bezala idazteko bidea eta baimena (cf. *teg'la* > tella). Beraz, eztabaidatu beharko dugu <il> [il] ala [i–], [(j)Á] ahoskatzea proposatu behar den (ik. beherago V-C elkarketei dagokien atalean).

<*m, n, ñ/in*> Bustiduraren arazoaz, ik. albokoez esanak.

<*r, rr*>

<r> [ɾ] (bakun) bokalartean dagoenean bakarrik ahoskatzen da, bestela dardarkaria anizkuna delarik.

<rr>, noski, beti anizkun [r] da.

Badira hemen dialektologia eta fonetikaren aldetik kontuz aztertu beharreko datuak Iparraldeko hizkeretan, baina arau orokortzat esana hartzen dugu.

<*s, z*>, <*ts, tz*> Hizkera zainduenetarako bizkarkaria eta apikaria bereiztea proposatu beharko genuke. Honek lekarke irrati-telbistetako hizlari batzuek ikasi eta bereziki trebatu beharko luketela egiten ez dutena egiten (esango nuke, bai ebakeraren aldetik eta bai oharmenarenetik ere, desalbokaritzearena ([Á] vs. [Ô, j]) baino arazo errazagoa dela, ez nolanahikoa halaz ere).

<*x*> [*ʃ*] Arazorik egotekotan, mailebuetakoarekin sortuko litzateke, *taxi* eta *sexu* bezalakoekin, alegia. [ks] ebakera bere horretan uzteari ez deritzot gehiegizko. Izan ere, horretan bat datoz gaztelera eta frantsesa, geure bi eragin zuzenenak ez dira, beraz, zatitzaile (ezta ere gero eta indar handiagoz ari den ingelesa). Egia da, haatik, zatitzaile ez izanik ere, menperatzaile balitekeela eta [ks] hots bilkura arrotza *zela* (behintzat) euskal fonetikan (edonola ere, forma kopuru txiki eta mugatuegia da desoreka handirik sortzeko.

[ks] bilkuraren euskal ordaina ikuspuntu intra-euskaldunetik [t‰os] litzateke. Mitxelenaren ([1978] 1988: 345) hitzak hemen jasotzea aproposa iruditu zaigu: "Bada orapiloa mozteko modua, askatzen hasi gabe. Aspaldi asmatu zuten, *p* eta *k*+s rentzat, ekialdeko euskaldunek. Ikus, esaterako, zub. *atsolbü àbsoute', atsülütoki, etsenplü, etsamina*, etc., oraintsu arte *x*-ekin idazten zirenak, *exai = etsai, eurixu= euritsü* bezalaxe".

Beraz, ausartzen denarentzat, *bokalaurrean* [t‰os]. Bestela, bere horretan utzi; [‰os] ebakerak hizkera arduragabearen kutsua ematen dio ahoskerari eta beste hizkuntzetan ere gertatzen den ahoskera-erraztea besterik ez da. Bestela esan, zenbat hiztun daude jakinaren gaineanfaxa [fasa] ahoskatzeko prest? Halaz ere eta egia osoa esateko, cf. berriz ere Mitxelena *(loc. cit.)*: "(...) Orduan, *setsu* nahi ez badugu, esaterako, har dezagun sesu eta okerrenean ere *seksu*". Guk hemen proposatu lehentasunen hurrenkera ez dator bat Mitxelenarenarekin (bera, dena den, idazkeraz ari da).

Kontsonante aurrean (exportazioa), [s] proposatzen da ([e‰osportasioa]) (13) afrikatuen leuntzearekin *(huts/hustu, hotz/hoztu)* bat letorkeelarik (ik. beherago kontsonante elkarketez esana); ortografikoki ere hala da, gainera, Euskaltzaindiaren arabera hitz jator eta barneratuetan behintzat (*testu*, e.a.). Batipat hala da euskararen arau paradigmatikoen, morfema egitura baldintzen arabera.

Hitz azkenak, simetriagatik, kontsonante aurreari jarrai diezaioke, baina gogoan izan behar da kontsonante aurrean afrikatuak igurzkari egiten badira ere euakararen egituratze-arauen arabera *(hustu)*, afrikatua

(13) ([s] ala [‰os]?).

bere horretan gelditzen dela hitz azkenean *(huts)*. Gainera, hitz gutxi eta oso bereziak izanik honakook *(cortex, klimax)*, agian [k‰os] ahoskera proposa genezake.

III.4. **Kontsonante bilkurak**

Proposatuko nituzkeen bilkura-ordezkatzeak (honako hurrenkera honetan):

A) Ozenen ondorengo zistukarien afrikatzea gomendagarria iruditzen zait, *fortitio* edo indartzea den aldetik, oharmenaren onerako gertatzen diren ordezkatzeetakoa, beraz. Honelakoak hizkera zainduaren ezaugarri izan ohi dira. Ez, ordea, *egin* [ejn] bezalako ahultzeak (14). Beraz: *ireki zuen* [irekisuen], baina *esan zuen* [e‰osantsuen] (hiato eta guzti hizkera zainduan!), Hz [ertzio] eta ez [erzio] (hobe, dena den, [erts].

Noski, hau gomendatzeak ez du esan nahi ez betetzeak ([e‰osan suen]) hizketa arduragabeago egiten duenik (honelakoetan zerbait ez "egitea" —bilakabide bat ez erabiltzea— ez da inoiz arduragabetasunaren seinale izaten: bilakabide fonologikoak areagotu edota ugaritu egin daitezke hizkera maila jaistearekin batera, ez gutxitu).

Ordezkatze hau bat dator orain arteko idazkera ohiturekin (*pentsatu, unibertsitate, Frantzia*, e.a.) eta, batez ere, euskararen morfema egitura egitura baldintzekin edo arau paradigmatikoekin (ez dago euskal egituretan kontsonante ozen+zistukari bilkurarik).

Pentsatu beharko genuke teoriaren aldetik gertaera arras diferentea (eta diagnosi zailekoa) den *ez zen* [etsen] ere gomendioetan sartu behar den ala ez. Litekeena da hiztunak afrikatze biak lotzea eta didaktikoki komenigarri izatea bien ahoskera gomendatzea. Ezezkotasunaren oharmenerako oso mesedegarri gertatzen da: alegia, [etsen] nabarmenagoa da ([sen]-etik urrutiago gelditzen da) [es:en] edo are [esen] baino.

B) Era berean, asimilazioa bada ere, *fortitio* edo ebakeraren indartzea dakar herskari ahoskabeak nabarmenago baitira oharmenaren aldetik eta, beraz, gomenda genezake hizkera zaindurako: *ez da* [esta], *ez* gara [eskara]. Hemen kontuan izatekoa da gainera, honelako gomendiorik

(14) Egia da askotan guretzat fonologikoki "zerbait" gertatze hutsak kutsu arrunta eta jatorra ematen diola hizketari (ez-zindua, azken buruan), baina hau ez da berez euskarak hizkera zainduaren fenomenoak ez dituelako, baizik eta euskara hizketa zaindu eta jasoetan baztertua gertatu delako belaunaldiak joan, belaunaldiak etorri. Horrela, ahoskeraren oharmenerako garrantzi handiko den *stylistic shrinkage* gertatu zaio.

egiten ez bada, ia ezinbesteko egingo dela gazteleraren erara asimilazio atzekariaz ahoskatzea bilkurok (<ez da> [ezda]) (15).

C) Kontsonante aurreko afrikatuen igurzkaritzeak ez dio hizketari kutsu arduragabea ematen, arretazko eta zainduarena baizik: beraz, *hotz* [ots] baina *hoztu* [ostu], dagoeneko ortografiak jaso bezala, eta *urrats bat* [ura‰spat] kanpo-sandhia arautuaz (beti ere ebakerak hitzok nahikoa ellkartzen dituenean).

Ordezkatze honen sailkapena zaila da. Lehen begiratuan, eta baita bigarrenean ere, *lenitio* itxura osoa du: ebakeraren ahultzea da afrikatuak bere hersketa galduaz igurzkaria bakarrik ahoskatu eta entzutea. Gardentasun morfotaktikoa ere gutxitzen du ([os] urrutiago baitago [ots] baino *hotz* hitzaren barne-irudikatzetik).

Bestalde, egia da halaber afrikatu+herskari bilkurak hersketa-igurtzi-hersketa elementu silabagilerik gabeko kontsonante egitura zaila dakarrela: ebakeraren aldetik zaila eta oharmenarenetik ere ez oso argia. Igurzkaritzeak silaba egitura leunduaz ez al du katearen elemendu guztien oharmena ere hobeki ziurtatzen?

Gainera, ordezkatze honen alde esan behar da **A.**k bezalaxe salbuespenik gabeko arau paradigmatikoa dugula euskaraz (morfema egitura baldintzak erabat errespetatzen dituela, alegia). Ez betetzeaz ere, **A.**z esana esan daiteke.

D) Ezezko partikularen zistukariaren galtzea ozenen aurrean: *ez naiz* [enajs], alegia. Hau, ordezkatze fonologiko bezala ahultzea bada ere, garbi dago egungo euskaran erregela morfonologiko dugula, ingurune morfologiko horretan bakarrik gertatzen dena eta ez dena indar fonetikoen arabera esplikatzen (ezta ere, beraz, baldintzatzen: cf. *esne, hizlari* eta abarren zistukari-ozen bilkurak). Garai batean erritmoaren eta beste zenbait ezaugarri prosodikoen araberakoa bide zenak ez du egun aldakortasun fonikorik. Honelako erregelak, onartuz gero, hizkuntzaren gramatikaren beste zenbait konbentzio bezala ikasi behar izaten dituzte hiztunek. Oso erraz ikasten eta desikasten dira, bestalde, honelako ahoskera arauak.

III.5. **Bokal-kontsonante harremanak**

Bustidura hautatu dugu bokal-kontsonante harremanen atal korapilatu honetan abiatzeko beste zenbait ordezkatze baino zabalera, orokortasun duelakoan.

(15) Ahoskabetzeak, gainera, *baita* eta *baikara* bezalako aukera ortografikoekiko koherentzia gordetzen du (azkenok ahoskabetzearen aldetik hizkera zaindurako egoki, baina kenketarenetik eta gardentasun morfosintaktiko eta morfosemantikoarenetik desegoki badira ere, baina berandu gabiltza horretaz ezer esateko).

<il> [il] ala [iÁ], [(j)Á] ahoskatzea proposatu?

Gogoan izatekoa da [il] ahoskatzearena irakats eta eska daitekeen kontua izanik (cf. oso bestelakoa den [Á] vs [Ô, j]), arriskutsua izan daitekeela hizkera-maila zainduetarako hau proposatzea lekarkeen eraginagatik. Alegia, hizkera arduragabeagoetan ere palatalizazio bilakabidea indargabetzea. Hau bilakabide guztietarako egia izanik, bortitzagoa litzateke palatalizazioaren kasuan ez bustitzeak duen nabarmentasunagatik. Hau landu beharrekoa da estandarraren eredu-indarraz aintzakotzat hartzekoez hasieran esanagatik (16).

Oro har, hedadura eta sistemaren erregulertasunera joaz, ausartuko nintzateke proposatzera:

a) ozenak (<n, l>) bokalaren aurrean behinik behin, busti, aldakortasun estilistikorik gabeko asimilazioa den neurrian,

b) trabariak (<t, d, (t)s, (t)z>) adierazgarrietan bakarrik; asimilaziozkoa beste hizkera mailetarako gelditzen dira (17).

Bestela leudeke, noski, berez asimilaziorik ez duten hiztunak, alegia lehen aipatu *despalatalizatzaileak*, ezin baitzaio hizkera zainduaren izenean inori eskatu ahoskera errazten duen ordezkatze hau egin dezan. Uste dut komeni dela, dena den, gauzak honela aurkeztea eta ez esatea biak, palatalizazioa egitea edo ez egiteak, berdin balio dutela. Mutur biak aipatzeagatik, esan dezagun ez dela berdin [mina] eta [bila], *botella* [botejla] eta *baño* [bajnu] egin dituelako, esaten dituena eta, besterik gabe, gaztelerakoa beste sistema fonologikorik ez duelako [il], [in] egiten duena. Alegia, ez da berdin, euskal sistemaren bizitza eta bizitasunaren babeserako despalatalizazioaren ondorioa dena eta, besterik gabe erdal fonologiaren filtrazio (18) dena (hemen, despalatalizaziorik gabeko palatalizaziorik eza agertzen duten euskalki eta azpieuskalki bakoitzean aztertu beharko genuke zer den zer). Hona hemen proposamena eskematikoki aurkeztua:

---

(16) Dagoenezko zenbaitek dotoreagotzat jotzen du <il> bustidurarik gabeko ebakera, hitz horiei euskal usaina hartzen baldin badiete. Bestalde, gupidarik gabe egiten dituzte <llanta, panatalla, llavero> modukoak, *yeismo* eta guzti: izan ere, palatalizazioa debekatzeak ez dakarrelako despalatalizazioa (ez duelako, beraz, yeismoa uxatzen).

(17) Hau ez da guztiz "zuzen" bizkaieretako <is> bustikuntzarekin, baina gehienok sistema erregular bezala duguna bestea da (alegia muga jartzekotan garbien trabari eta ozenen artean ikusten dela, xehetasunak xehetasun). Gainera bestela egiteak baliabide adierazgarriak kentzen dizkio *gixona* esatean *gizona* -z aparteko zerbait esan nahi duenari.

(18) Mimetismo zuzena (agian irakurtzen duen jendearengan) edo gazteleraren indarraren zeharkako eragin ahultzailea, alegia menpeko hizkuntzari berezko ordezkatzeak galarazten dizkiona.

Oro har: Hizkera zainduan mina [miÑa], *bila* [biÁa], *ditu* [ditu], *gizon* [gison], e.a. Hizkera arduragabeagoetan: [miÑa], [biÁa], [dicu], [gi*f*on] (euskalkiaren arabera).

Despalatalizatzaileek: mina [mina], *bila* [bila]

Tartekoek: mina [mina], *bila* [bila], *zaila* [sa(j)Áa], *gaina* [ga(j)Ña]

II.6. **Azkenik**

Zintzilik geratzen dira, orain arteko zuloez gain, zenbait atal osoosorik. Uste dugu lana zabal, luze eta sakon egin behar dela. Datu bilketa eta azterketa sistematikorako lan taldea ezinbestekoa izango zaigu. Egungo aurrerapen teknikoek ematen diguten aukera paregabeari ere atera beharko genioke etekina fonetikoki gertatzen dena jaso eta aztertzeko orduan, behingoz zehatz —eta ez belarriz eta ustez bakarrik— jakin dezagun zer nola ahoskatzen den. Abiatzeko, ordea, beharrezko izango litzateke galderak, sailkabideak prestatzea.

Adibidez hau liteke datuak biltzen eta bilatzen hasteko sailkapen ardatz bat:

a) hizkera mailen araberako txandakatzeak (*input* edo abiaburu beraren bilakaera maila desberdinak: e.g. *etxea* /et*f*ea/ [et*f*ea] *f* [et*f*ia] *f* [et*f*ie]–[et*f*e]–[et*f*i], e.a);

b) euskalki eta azpieuskalkien araberakoak (input desberdinak batzuetan: e.g. /ardo/, /arno/; input bera erregela eta bilakabide desberdinez moldatuak, besteetan: e.g. /alaba+a/ [alaβea], [alaβa]; /goria/ [goriÔa], [gorija], [gori*f*a], [goriÛa], e.a.

Ikertzaile lan-taldeak sortu eta bermatu behar dira, ikerketa proiektuak burutu. Emaitzak, bestalde, behar bezala zabaltzeari ere garrantzizko deritzogu: hizlari profesionalak trebatzeko eta irakaskuntzarako ikastaroak antolatu behar dira, disziplina-arteko mintegiak antolatu beharko ditugu. Lana puska baterakoa dugu eta batzuek besteengandik ikasteko, asko.

AIPAMENAK

AKMAJIAN. A. eta besteak (1984)A: *Lingüística: una introducción al lenguaje y comunicación,* Madrid: Alianza Editorial, S. A.

BATT, P, eta LEON, P. (1991): "Variables temporelles dans trois phonostyles radiophoniques", *Texte et Parole, Hommage au professeur*

Fernand Carton, Nancy: Presses de l'Université de Nancy, *Verbum, 14/2-2-2.*

CALLAMAND, M. (1987): "Aspects prosodiques de la communication", *Études de Linguistique Appliquée*, 66, Paris: Didier.

DONEGAN, Patricia. 1985: "How learnable is phonology". *Natural Phonology from Eisenstadt.* Wolfgang U. Dressler / Livia Tonelli, eds. Padova: CLESP, 19-31.

DURAND, P. (1985): *Variabilité Acoustique et Invariance en Français Consonnes Occlusives et Voyelles*, Paris: CNRS.

FONAGY, I. (1976): "Prosodie professionnelle et changements prosodiques", *Le Français Moderne*, 44/3.

FOUCHE, P. (1957): *Traité de prononciation française*, Paris: Klincksieck.

HALLIDAY, M. A. K. [1985] 1992: *Spoken and Written Language.* Oxford University Press.

HURCH, Bernhard / M. Lourdes OÑEDERRA. 1987: "Euskarazko fonologiaren zenbait bilakabidez". *Euskal Morfosintaxia eta Fonologia. Eztabaida Gaiak.* Pello Salaburu Etxeberria, arg. Bilbo: UPV/EHU.

HURCH, Bernhard. 1988: Variation in Basque. Ms.

HURCH, Bernhard. 1988: "Is Basque a syllable-timed language?" *A.S.J.U.* XXII-3, 813-825.

HYMES, Dell H. 1960: "Phonological aspects of style: some English sonnets". *Style in Language.* Thomas A. Sebeok, ed. M.I.T.

LEON, P. (1966): *Prononciation du français standard.* Paris: Didier.

LOPEZ MORALES, H. (1989): *Sociolingüística*, Madrid: Gredos.

LUELSDORFF, Philip A., ed. 1987: *Orthography and Phonology.* Amsterdam/Philadelphia: Benjamins.

MALKIEL, Yakov. 1984: "A linguist's view of the standardization of a dialect". *The Emergence of National language.* Aldo Scaglione, ed. Ravenna: Longo, 51-73.

MITXELENA, Koldo. 1988: "Euskararen batasun bideak". *Sobre Historia de la Lengua Vasca* II, 972-982.

MITXELENA, Koldo. [1978] 1988: "Euskal hitzen itxura eta jatorri ezberdinez" *Sobre Historia de la Lengua Vasca* I, 341-348.

NAVARRO Tomas (1925): "Pronunciación Guipuzcoana", *Homenaje a Menéndez Pidal* III, Madrid

NAVARRO Tomas, T. (1974): *Manual de Pronunciación Española*, Madrid: Revista de Fonología Española (1918an lehen argitaraldia).

OÑEDERRA, M. Lourdes. 1986: "Hizkuntzen fonologia". *Euskera* XXXI (2), 327-332.

STAMPE, David. 1985: "On the two levels of phonological representation". *Natural Phonology from Eisenstadt.* Wolfgang U. Dressler / Livia Tonelli, eds. Padova: CLESP, 131-142.

STAMPE, David. 1987: "On phonological representations". *Phonologica 1984.* Wolfgang U. Dressler et al., eds. Cambridge University Press.

VAN EIBERGEN, J. (1986): "Corpus d'un fraçais vernaculaire à caractère spontané et impératif", *Bulletin de l'Institut de Phonétique de Grenoble*, XV, Grenoble.

WALTER, H. (1977): *La phonologie du français*, Paris: P.U.F., Le Linguiste, 18.

HITZ PAREAK

Patxi Altuna

1. Batzordeño honi egotzi zaion egitekoari, euskal ahoskera lantzeari (*), egoki baino egokiago datozkio Mitxelenaren hitz hauek: "Nolanahi ere, eta gai honetan bakar-bakarrik sartzen naiz irakasleen alorrean, zertxobait aldatu behar genituzke geure pentsamoldeak haurrak eta haziak geure hizkuntzan eskolatzekoan. Esaten dena nola idatzi behar den jakiteak badu bere axola. Are gehiago, ordea, egun eta gure artean, irakurtzekoan ikusten dena nola ebaki behar den irakasteak. Letretarik ahora daraman bidean bai baita nahikoa bihurgune" (Mitxelena, MEIG VII, 27 zb., 184. or.).

Esaten dena nola idatzi eta ikusten dena nola ebaki: horra Mitxelenaren kezka bikoitza, ez ordea biritxia, bigarrenak axola handiagoa duela aitortzen baitu, nahiz ez den hori ikusi batera sinesten erraza; idazten jakiteak baino irakurtzen jakiteak axola handiagoa duela, alegia. Eta *axola* hitzak zentzu bat baino gehiago izan baititzake, azken lerroko hitzek argituko digute pasarte honetan duen esanahi zehatza: "Letretarik ahora daraman bidean bai baita nahikoa bihurgune". Bistan da, horrenbestez, nekeaz eta gatazkaz ari dela, ez garrantziaz.

Oraindik ere ez da, haatik, beste gabe garbi ageri zergatik izan behar duen neke eta gatazka handiagoa ikusia eta idatzia ebakitzeak esana idazteak baino, ahotik behatz muturretarainoko bidean ere ez baitira exkax bihurguneak. Puntu hau argitzera datorkigula uste dugu "Euskal azentuaz eta ebakeraz Jardunaldiak" Durangon 1986an egin zirenean, Euskaltzaindiak haien bukaeran egin zuen sei puntuko Adierazpena. Hemen sei puntuetarik laugarrenean esaten zaigu ikusi uste duenak ez duela dena ikusten, eta ikusia ebakitzen ari denak ikusten duena ez ezik ikusten ez duena, eta are ezin ikus dezakeena ere, kontuan eduki behar duela ongi irakurtzeko. Orain jabetzen gara zergatik datekeen ebakitzea eta irakurtzea idaztea baino axolatsuago.

2. Adierazpen horretako hitzak eta Mitxelenaren hor goian aipaturiko beste horiek, zazpi urte bakarrik lehenagokoak direnak, elkarren

(*) Ahoskera batzordea.

antzekoegiak dira luma beretik atereak ez izateko. Mitxelena Durangon izan zela eta Adierazpena taxutzen aritu zirenetako bat izan zela ez bageneki ere, bi dokumentu horien elkarren antzak eta egokitasunak aise frogatuko liguke. Horra zergatik zazpi urteren barnean idatzitako bi testu horiek elkar osatzen duten eta zergatik agertzen diguten euskal ahoskera zela-eta Mitxelenak zuen kezka.

Sei haietarik azken hirurek Batzorde honek orain esku artean duen egitekoarekin zerikusi handia dute; ahoskerari dagozkio, izan ere, eta bi bederen azentuari konkretuki, gure gaurko hiru txostenak bezalaxe. Orduan Euskaltzaindiak igorri zuen mezua beretu nahi izan du, bada, xotilki Batzorde honek. Entzun ezazue hiru puntu haietako mezua laburki:

> "d) Noraezeko da horretarako ("hizkuntza biziaren erabilera artatu eta bultzatu" ahal izateko, alegia) gure irakaskuntzan ahalegin bereziak egitea, haurtzaindegietarik abiatuz, haurrei irakurtzen behar den bezala irakasteko. Beharrezko baita zuzenbidez jokatzeko bi alde erakustea: badirela, alegia, ikus daitezkeen letrak eta ikurrak edo seinaleak; baita ere, ordea, horiek bezain premiazko dena, gogoan eduki behar diren erregela ezinikusiak. *Ez* eta dakit berex bata bestearen aldamenean irakurri arren, *eztakit* dela, euskal legeen arabera, irakurri behar dena".

Beste biak, esan bezala, azentuaz ari dira espresuki. Entzun:

> "e) Ahozko euskal hizketan eta agiriko komunikabideetan gehienik nabarmentzen den hutsa da, agian, ere bezalako hitz azentugabeei, beste hitzen laguntzarik gabe ezin ager daitezkeenei, aitortzen zaien burujabetasuna, euskal ebakeraren kalte gorritan".
>
> "f) Ikerlanak ez baztertzeko asmoz, komeni dela iruditzen zaio Euskaltzaindiari azentuaren lekualdatzeaz soilik bereizten diren hitz pareen zenbait zerrenda prestatzea. Nork bere ingurukoak jasotzeaz kanpora, premiazko genuke euskalariek han eta hemen bildurik argitara dituztenak biltzea" (*Euskera,* 1986, 2, 442. or.).

3. Bistan da hitz labur horien bidez seinalatzen den eta urte handietan zehar egin ez den lan ikaragarria bururatzeko, denbora asko behar dela eta egunerdi honetan zenbait puntu larri ukitu eta zenbait proposamen egin baizik ezin dugula. Gure hasierak xumeak izan daitezen nahi izan dugu: geroko lanaren zimendu eta oinarri. Edozein gisaz Durangoko zuzia bere eskuetan hartzeko eta orain ekin baizik egin ez dion lanari geroan ere aurrera jarraitzeko prest dagoela adierazi nahi du Batzorde honek.

Hiru txosten dakarzkizuegu gaur. Bat Batzordeak prestatua eta Batzordearen izenean datorrena, nahiz irakurriko dutenek egin duten lanik gehiena. Diogun xede xume hau ezarri geniola txostenari: *Euskara idatzia nola ahoskatu.* Bestela esan: irratian nahiz telebistan zerbait irakurtzen duenak nola ahoskatu behar ditu testu idatzi hartako hitzak. Beraz ez da izan gure helburua hizkera bizien —euskalkien, azpieuskalkien eta gainerakoen— ahoskera, beste sotilago hau baizik: *modu bertsuan mintzatzen ez garenez gero, irakur dezagun bederen testu bera modu bertsuan*, hori ez omen denez gero, gaurko hitzaldian Jose Ignacio Hualdek esango digun bezala, hain arazo larria.

Bigarren txostena aipatu berri Hualde Jose Ignaciok dakarkigu Ameriketatik: "Euskal azentuak eta euskara batua" deritzana, eta aurrera gabe nahi diot eskertu txosten bat Jardunaldi hauetan aurkezteko egin genion gomita hartu izana. Nik azkenik Durangoko adierazpenaren azken eskaerari erantzunez, "Hitz pareak" direlakoen behin-behingo zerrenda dakarkizuet. Ez legoke gaizki, ahozko telekomunikabideetan modu berean ahoskatuko liratekeen hitz pareen zerrenda luzexka batean ados jarriko bagina.

4. Nik dakidala, ez da Durangoz geroztik halako lanik egin, nahiz orduko Euskaltzainburu aita Villasantek gartsuki eskatu zuen egin zedin, azentu batuaren bidean lehen pausua bederen izan zitekeelakoan. Halakorik ez eginak ez du esan nahi, ordea, ezta hurrik eman ere, azentu arloan lanik egin ez denik; are gutxiago, egin direnak —bai baitakigu egin direla— balio gutxikoak direnik, ezta inondik ere. Bakar-bakarrik esan nahi du orduan Euskaltzaindiak egin zuen adierazpen hartako eskea zaku zulatuan erori zela eta bertan behera utzi genuela guziok, aintzat hartu gabe. Baina hobe baita inoiz inoiz ez baino, hemen duzue silaba azentuduna aldatzeaz soilik bereizten diren hitz pareen zerrenda bat, berritzeko nahiz osatzeko zabalik dagoena.

Bereizten direla diogunean ez dugu esan nahi euskalki guzietan egiten direla, ez eta euskalki berean herri eta bazter guzietan. Areago, herri berean ere gauzak aldatu egin dira berrogei urte honetan, eta ez naiz segur nik ikasi nituen lekuan berean gauzak gaur oraindik nik diodan bezala direnik. Gazteen artean ez, noski; ene adinekoen artean baietz uste dut. Edolarik neri irakatsi zidaten eta ene baitan neure buruarekin aritzen naizenean entzuten dudan hizkera ixilaren azentuaren oihartzuna islatu nahi dut eta azentu horren, eta ez besterenaren, arabera bereizten diren hitz pareen zerrenda eman. Ez du ere esan nahi hitz pare horiek, baldin beste herri batzuetan ere bereizten badira, nerean bezala egiten direnik, bereiz baitaitezke, baina bestela. Ez du ere azkenik esan nahi bikote guzi horiek umetan ikasi nuen herriko hizkeran erabiltzen nituenik; batzuk gero ikasi ditut eta, euskal senak batetik

eta neure barneko hitz pareen sistemak bestetik era horretan integrarazi dizkidate.

Baina ez dut ere inola èsan nahi, eta ez dut inola uste, ene hizkeran bakarrik bereizten direnik pare hauek, ez eta ez diot inori bide eman nahiere, pentsa dezan herri bateko bitxikeriak direnik. Ez. Pare hauetako batzuk Mitxelenak berak aipatzen ditu, urrunago joan gabe, —eta guziok dakizue, Mitxelena jaunaren eta ene euskalkia ez direla bat—, eta egingo nuke hemen bertan badela, ene herrikideetatik kanpo, bat baino gehiago pare hauetarik batzuk bere hizkeran ere bereizten direla esango duenik. Azentu kontuan ere batasun bila gabiltzanez gero, ez legoke gaizki euskaltzale talde bati, hala nola euskaltzainei eta urgazleei, galdeketa bat egingo balitzaie, ea hitz pare horietatik zeintzuk bereizten diren beren artean eta nola, zein silabatan duten azentua.

Bestalde nahiago nuke norbaitek zerrenda osatzen lagunduko balit, neri seguruena pare batzuk itzuri baitzaizkit. Pozik hartuko ditut zerrenda luzatzeko inork ekarri nahiko dizkidanak. Hona, beraz, abeze ordenan emanak nik bildu ditudan pareak:

agíria/agiría	á(h)aria/haría	áldea/aldéa	
t)ártea/artéa	bálio/balío	básoa/basóa	
báziren/bazíren	bérak/berák	égia/hegía	
élizan/elízan	értzean/ertzéan	étziren/etzíren	
éztena/ezténa	gáinera/gainéra	góizero/goizéro	
gramátikari/ gramatíkari	háiena/aihéna	hástea/astéa	
háuena/auhéna	háurrena/aurréna	híltzea/iltzéa	
héltzea/eltzéa	hérstea/hestéa	jáioa/iaióa	
kále (egin)/kaléa	(kaf)ésnea/esnéa	krítikari/kritikári	
láurena/lauréna	léihoa/Leióa	lékukoa/lekukóa	
lótzean/lotzéan	méndekoa/ mendekúa	méndea/mendía	ónena/honéna
páretara/paretára	pílotari/pilotári		
prézioa/presióa	sáltzie/saltsíe	segúrua/segurúa	
txístua/txistúa	zúena/zuéna		

hártara (<nola) / hartára (< nora)

(Ikus Hiribarrenen bertso-lerro hau: "Ikustecoac dire ohoren eguiten / Atzéco jendeari aisia ematen" (2671-2)). Beraz *átzeko / atzéko).*

5. Ez da dudarik horko hitz pare horietan gehienak hitz desberdinak direla, hiztegi batean nork bere sarrera, mugatzailerik gabe, noski,

eta nork bere esanahia dutenak. Horien ondoan, ordea, baditugu beste batzuk, "pareak" nekez izenda daitezkeenak, ez baitira bi hitz, hitz beraren bi forma desberdin baizik, eta, jakina, hiztegian bat agertzen baita, eta esanahia berbera baitute. Hitz beraren singularra eta plurala dira, izan ere, baina batetik bestera azentua aldatzen dute: singularretik pluralera, alegia. Hona beste askoren artean batzuk:

Pl.	Sg.	Pl.	Sg.	Pl.	Sg.
aingéruak	aingerúa	atzókoak	atzokóa	bekátuak	bekatúa
bertákoak	bertakóa	bihárkoak	biharkóa	errégeak	erregéa
erréginak	erregína	eskáleak	eskaléa	etxékoak	etxekóa
ezínduak	ezindúa	ezkónduak	ezkondúa	garéstiak	garestía
gauékoak	gauekóa	gerókoak	gerokóa	goizékoak	goizekóa
hegáztiak	hegaztía	ikásleak	ikasléa	ikúsiak	ikusía
itsúsiak	itsusía	katíluak	katilúa	marátilak	maratíla
nagúsiak	nagusía	toréroak	toreróa		

Eta abar. Esan bezala, pluralean ez dute singularrean bezala azentua eta nik hor, labur zurrean, kasu absolutiboak bakarrik ipini baditut ere, zer esanik ez gainerako kasu guziak ere, hala singularrean nola pluralean, absolutiboarekin batera doazela. Beraz plural guzia oposatzen zaio singular osoari.

Bestalde azentuaren bereizitasuna zertan datzan bistan dago, ene ustez: kasu singular guziak paroxitonoak dira, eta plural guziak proparoxitonoak. Beste puntu batek ere merezi du agirian jartzea: ene hizkeran singular-pluralen artean horrelako azentu bereizkuntza duten hitzak lau silabakoak dira, artikulua ere kontaturik, noski. Bat bakarra somatu dut oraino, hiru silaba izan arren, azentu desberdin berbera duena: "gráziak/grazía". Lehena da dudarik gabe berezia eta ikus noiz erabiltzen dugun: "Gráziyak han ez zeunden!", "Gráziyak lagundu didazun!".

Berez bi silaba izanik, *-ko* atzizkia artikuluarekin hartzean lau silabako bilakatzen diren hitz guziei gauza berbera gertatzen zaie, zerrendan sartu dugun halakoren batek erakusten duen gisa: "mendíkoak / mendikóa", "kalékoak / kalekóa", "zubíkoak / zubikóa". Ez, ordea, "egunékoak/ *egunekóa", baizik singularra ere plurala bezala, "egunékoa", zeren hauei, bost silabakoak izanik, azentu proparoxitonoa zor baitzaie biei. Aldiz "egúngoak/egungóa", bai, lau silabakoak baitira.

Beste horrenbeste gertatzen da toki izenekin: hala nola, "Eibárkoak / Eibarkóa", "Zaráuzkoak / Zarauzkóa", "Berlíngoak / Berlingóa", "Moskúkoak / Moskukóa"; ez, noski, azentua lehen silaban dutenekin, hauek singularrean nahiz pluralean azentua lehen silaban gordetzen baitute: "Lóndreskoak", "Tókiokoak"/ "Lóndreskoa", "Tókiokoa".

6. Ez da, ordea, gauza bera gertatzen *-ko* atzizkiaren ordez superlatiboen *-en* hartu eta, mugatzailea barne dela, lau silabako hitza sortzen bada. Halakoetan pluralak ez ezik singularrak ere azken hirugarren silaban baitu azentua; hala nola

arínenak/arínena	astúnenak/astúnena	beróenak/beróena
berríenak/berríena	edérrenak/edérrena	eméenak/eméena
handíenak/handíena	gaiztóenak/gaiztóena	gorríenak/gorríena
merkéenak/merkéena	polítenak/polítena	samínenak/samínena
sutsúenak/sutsúena	txikíenak/txikíena	urdínenak/urdínena
zatárrenak/zatárrena	zoróenak/zoróena	zuríenak/zuríena

Ezta ere, dirudienez, baldin lau baino silaba gehiagokoa bada hitza ("garéstienak/garéstiena", "aberátsenak/aberátsena"), ez eta gutxiagokoa bada, hirukoa alegia, ("béltzenak/béltzena", "záilenak/ záilena"). Are gutxiago, jakina, konparaziozko *-ago* atzizkiaz eta mugatzaileaz jantziriko izenlagunak badira ("béltzagoak/béltzagoa", "edérragoak/edérragoa"), bere baitan silaba bat gehiago daukatelako.

Aski bedi gaurkoz. Badira beste sorta handi batzuk, oso ugariak eta emankorrak, haietan elkar hartuko bagenu euskal azentuaren bateratzean berebiziko aurrerapena suposatuko luketenak, baina berez eta osoro "hitz pareak" ez izanik, hemen ez sartzea nahiago izan dugu. Geldi bitez beste baterako.

5. Beste sorta handi bat, ez bare' izendatu ditugun hitz horietakoa, bai ordea molde berbera dutenekoa eta ehunka ale bere baitan hartzen dutenekoa hemen sartu, ez sartu, zalantzan egon eta gero, egitea erabaki dut, beti ere kendu behar badira, kentzea erraza delako. Oihenartek bere *L'Art Poétique Basque*-n zein hitz ziren lerrakor edo irristakorrak Lapurdiko apaizari irakasten hasi, eta honako hauek aipatu zituen aurrenik: "Les mots trysillabes finis par les praepositions *-ra, -ric (-tic)* et *-co*, eta exenpluetan hauek

Oihenartek esana:

záintzea	bíltzea	jótzea	sáltzea	sártzea	hártzea	kéntzea	úrtzea
záintzera	bíltzera	jótzera	sáltzera	sártzera	hártzera	kéntzera	úrtzera
píztera	púztera	póztera	híltzera	hóztera	bélztera	sórtzera	gúrtzera
gáltzera							
záintzeko	bíltzeko		jótzeko		sáltzeko	sártzeko, eta abar	
záintzetik	bíltzetik		jótzetik		sáltzetik	sártzetik, eta abar.	

EUSKAL AZENTUAK ETA EUSKARA BATUA

José Ignacio Hualde,
University of Illinois

Lan honekin Euskaltzaindiko Ahoskera batzordeak egindako aholku edo iritzi-eskaerari erantzuna eman nahi diot. Beraz, txosten hau batzordearen lanaren barnean ulertu behar da.

Patxi Altunak Ahoskera batzordearen egitekoa honelaxe mugatu du: Euskara idatzia nola ahoskatu behar den adieraztea.

Ene ustez, euskara idatziaren ahoskeraren bateratzearen arazoa ez da hain larria. Batek espero lukeen baino bat-etortze gehiago dago gai honetaz hiztun eskolatuen artean (komunikabideetan, eskoletan, eta abar). Adibide bat emateko, bokal elkarketen kasuan, ortografiari jarraitzen dion ahoskera hobetsi da euskara jantzian hiztun gehienen praktikan: [a.te.a]. [ba.so.a], etab. (ikus Irigoyen 1986, adibidez). Euskaltzaindiak edo beste inork ezer erabaki gabe, euskal hiztun eskolatuen gehiengoak aukera bat hartu du euskara batuaz dauden testu idatzien irakurketan eta beste egoera formaletan eta Euskaltzaindiak gizartean zabaldu den mintzamoldea onartu beharko du.

Benetan erabaki gabe gelditzen diren puntuak oso gutti dira. Hauetariko bat kontsonante baten aurrean dauden herskarien ahoskera da; adibidez, [sek.su]. [se.tsu] ala [sesu] hobetsi behar da *sexu*-rako euskara jantzian? eta [elikoptero] ala [elikotero]?

J-ren ahoskera konpontzeke geratzen den beste arazo bat da. Zabaldu den hizkuntz kontzientzia edo iritzia euskara jantzian sabaikari bezala ahoskatu behar dela da. Ahoskera hau hiztegi eta testu-liburu askotan gomendatzen da. Hala ere, arazoa hori baino zailagoa da; onartu den ortografiak berak erakusten duen moduan. Zergatik jaio eta ez *jajo*? eta nola esan *ijito gizajoak ajea duela*? Euskal idazkera batu zenean baziren arrazoiak *-j-* eta *-i-* grafien artean bereizteko bi bokalen arteko testuinguruan. Ahoskeraren polimorfismoa estali nahi zen ortografia batu baten azpian. Orain ahoskera ere batu nahi baldin bada, estalitako problemei erantzuna eman beharko zaie. Hitz-hasierako *j*-ren ebakera erabakitako-

tzat har badaiteke ere, bokalen arteko grafema/fonema korrespondentzia hartu behar da kontuan.

Azkenik, euskara batuari dagokion azentu ereduaren arazoa dugu eta gai honetaz aritzea eskatu didazue. Entzun eta irakurri dudanaren arabera, alderdi honetan ere badago iritzi hedatu bat. Iritzi hau, dena den, ez da oso zehatza. *Communis opinio* edo iritzi orokor hau Txillardegik (1984:410) onartzen eta proposatzen duena da; alegia, "mendebaldeko azentubidea hautatu behar dela". Ni ados nago honekin, Txillardegik ematen dituen arrazoiengatik. Hala eta guztiz, eta hementxe dago koska, mendebaldeko azentubidea zein den ez da guztiz garbi dagoen gauza bat. Txillardegik (1992) mendebaldeko azentu mota bat proposatzen du euskara baturako. Baina, noski, Txillardegirena ez da mendebaldeko azentu mota bakarra. Ez da, adibidez, Azkuek (1923, 1931-32) deskribatu zuena edo Basterrecheak (1974-75) azaldu zuena (19). Hain zuzen ere, eztabaida garratzak egon dira Euskaltzaindian bertan mendebaldeko azentuaren izateaz (Azkue eta Altuberen artean egondako desakordio konponezinaz gogora zaitezte). Eztabaida hauen erroan mendebaldeko euskalkietan oso azentu sistema desberdinak erabiltzen direla ez ikustea edo onartzea egon da. Argiago esateko, ez dago mendebaldeko azentubide bakar bat, mendebaldeko azentubideak baizik. Azkuek eskeini diguna Lekeitioko azentu-bidearen deskribapen zehatza da. Baina hau ez da, inolaz ere, euskal azentu sistemarik orokorrena. Azkuek aldiz mendebaldeko sistema orokortzat hartu zuen eta hortik sortu ziren desakordioak eta elkar-ulertzerik eza (20). Modu berean, Txillardegik (1992) proposatzen duen sistema Gipuzkoako eskualde batzutan erabiltzen den azentubidea da; baina sistema hau ez da Lekeitiokoa, Gernikakoa, Getxokoa (ikus Hualde eta Bilbao 1992, 1993), Elantxobekoa (ikus Gaminde 1992), Zeberiokoa (ikus Etxebarria Ayesta 1991, Hualde 1992), Azpeitikoa (ikus Hualde 1994) edo Hondarribikoa (ikus Hualde eta Sagarzazu 1991). Ez da, beraz, "mendebaldeko azentubidea", Gipuzkoako azentu mota bat baizik; Tolosaldekoa, zentzu zabal batean, nahiz eta apur bat nahasia. Beraz, euskara baturako mendebaldeko azentu-sistema hobestea erabakitzen baldin bada, aukera garbi bat egin beharko da mendebaldeko eskualdeetan erabiltzen diren azentubideen artean.

---

(19) Mitxelenak ez zuen inoiz xehetasun gehiegirik eman mendebaldeko azentuaz, nahiz eta euskal azentuaz arduratu (ikus 1958, 1972, 1985).

(20) Mitxelenak Azjueri egiten dizkion kritika batzuk iturri bera dute; alegia, euskalkien arteko diferentziak. Adibide bat emateko, Mitxelenak (1985:577) honako hay dio: "Es ilusorio tratar de distinguir con Azkue, *Del acento tónico*, 10, el suf. *-(r)ik* "tónico" de *gizonik eztago* ño hay hombres' del "átono" de *gizonik onemà...". Ziur asko kontraste hau Errenterian ez da egiten. Lekeition, aldiz, guztiz garbia da: gizonik eztago* baina *gixónik onéna*, dure notazioan. Gernikaldean ere kontraste bera egiten da, Joseba Lakarrak jakinarazi didanez eta superlatiboan *gixónik ónena* dugu, nahiz eta beste kontestuetan *gixonik* azentugabea izan.

Badaude mendebaldeko euskalkietako eremuan zehar oso zabalduta dauden azentuzko ezaugarri batzuk. Jakina denez, Bizkai-Gipuzkoetako leku askotan (baina ez guztietan) singularra eta plurala bereizten dira azentuaren bidez. Hitz markatu eta markatugabeekoen arteko bereizkuntza are hedatuagoa dago. Erro edo oinarri lexiko multzo batek (*beste, aurre, leku, kanpo*, etabar) azentukera berezi bat erakusten du mendebaldeko hizkera gehienetan. Kointzidentzia orokor hauek direla eta, batek baino gehiagok pentsatuko luke (eta pentsatu du) funtsean azentu sistema bakar bat erabiltzen dela mendebaldeko euskalkietan, azalezko diferentzia txiki batzuk gora-behera. Horrela izango balitz, nahikoa izango litzateke Lekeitioko azentu-bideari jarraitzea, Azkuek egiten duen bezala, edo Tolosaldekoari Txillardegiren proposamenean, mendebaldeko azentu-bidearen ezaugarri nagusiak ezagutu nahi baldin badira. Hala ere, hizkera desberdinetako datuak kontuz aztertzen direnean, hizkeren artean agertzen diren diferentziak sakonak dira, funtsezkoak (21). Hurrengo datuak kontuan har itzazue, Bizkaiko hiru hizkeratan:

(1)	Eusk Batua	Gernikaldea (22)	Lekeitio	Zeberio
	gizonarenari	*gixonanarí*	*gixonenarí*	*gixonánari*
	gizonarenei	*gixonánari*	*gixonenári*	*gixonánari*
	gizonenari	*gixónanari*	*gixonenári*	*gixónanari*
	gizonenei	*gixónanari*	*gixonenári*	*gixónanari*

Adibideok erakusten dituzten azentuzko diferentziak ez dira azalezko gauza bat, arau-sistema desberdinen ondorioa baizik. Diferentzia hauek ikusiz, argi egon beharko luke azentu-ezarketa arauak nahiko desberdinak izan daitezkeela mendebaldeko azentu sistemen artean. Hizkera guzti hauetan azentua erabiltzen da esanahiak bereizteko eta, konkretuki, singularra eta plurala bereizteko, baina azentuaren bidez egiten diren bereizkuntzak desberdinak dira. Azentuak silaba desberdinetan agertzen dira esanahi bereko formetan, hizkera bakoitzean azentu-arauak desberdinak direlako.

Adibideetan aipatutako hiru sistemen arteko diferentzien nolakotasuna ezagutzeko, sistema bakoitza ikertu beharko genuke, arauak bilatuz. Hemen ezin dugu hori egin txosten honek izan behar dituen mugak

(21) Nahiz eta prototipo historiko bakar bati bideratzea posible izan (ikus Hualde 1993a). Baina izan dena ez da orain dena.

(22) Izen hau oso zentzu zabalean hartu behar da, Ajangiz, Getxo, Bermeo, etab. hor sartzen direlarik. Agian Iparmendebaldeko Bizkaiera izena egokiagoa izango litzateke. Ekialderagoko hizkera batzuetan lehengo eta bigarren forma emandakoak bezalakoak dira: hirugarrena eta laugarrena aldiz *gixonanari* da. Diferentzia hau kontsideratuko dugu geroago. Azken silaban markatu ditudan zentuak esaldi mailako azentuak dira eta ez hitz mailakoak edo lexikoak (Gernikaldeko eta Lekeitioko formetan).

direla-eta. Dena den, laburki besterik ez bada ere, konparaketa bat egitea interesgarria izan daitekeela iruditzen zait. Beraz, Gernikaldeko azentu-sistemaren ezaugarri nagusiak eta Lekeitierarenak konparatuko ditut labur-labur, kointzidentzia eta diferentzia garrantzisuenetariko batzuk azpimarratuz. Hori egin baino lehen, zerbait esan nahi dut azentuaren gauzatze fisikoari buruz.

Aipatu bezala, hitz markatu eta markatugabekoen arteko bereizkuntza mendebaldeko azentu sistemen ezaugarri garrantzitsu bat da (23). Bizkaiko iparraldeko alderdi handi batean, bereizkuntza hitz azentudun eta azentugabeen artean egin daiteke zehazkiago. Hitz azentudunek azentu bat dute silaba jakin batean. Azentugabeek aldiz ez dute berez inolako prominentziarik inongo silabatan. Hitz azentugabeak talde sintaktiko jakin batzuen bukaeran agertzen direnean azentua azken silaban hartzen dute (edo azkenaurrekoan zenbait hizkeratan); bestela silaben artean bereizkuntza prosodiko berezirik egin gabe ahoskatzen dira. Hitz gehienak azentugabeak dira, hain zuzen.

Ikus 1-4 irudiak (Hualde eta Bilbao 1992 liburutik hartuta). Irudi hauek emandako adibideen oinarrizko maiztasuna *(fundamental frequency)* edo "tonua" erakusten dute. Adibideok Getxoko hiztun batek ahoskatuak izan ziren. Bizkaiko iparraldean azentuak tonuaren bidez gauzatzen dira. Irudietan ikusten den bezala, silaba azentudunean tonua igotzen da eta berehala oso beherakada haundi bat egiten du (24).

Lehenengo eta bigarren irudiak konpara itzazue. Lehenengo adibidean, *ori lagunena da* 'hori lagunarena da, ese es del amigo', *lagunena* hitza azentugabea da. Hitz honek ez dauka inolako prominentziarik edo azenturik eta doinu monotono batez ahoskatzen da. Azentu bakarrak *ori* eta *da* hitzetan agertzen dira; hau da talde fono-sintaktiko bakoitzaren azken silaban. Bigarren adibideak erakusten duen kontornoa guztiz desberdina da. Adibide honetan, *ori lagúnena da* 'hori lagunena da, ese es de los amigos', *lagúnena* hitzak azentu bat darama bigarren silaban eta tonuak beherakada nabarmen bat egiten du hurrengo silabetan.

Hirugarren eta laugarren adibideetan (*ori gure lagunena da* hori gure lagunarena da, ese es el de nuestro amigo' eta *ori gure aiten lagunena da* hori gure aitaren lagunarena da, ese es el del amigo de nuestro padre') ez dago hitz azentudunik eta tonu kontornoak nahiko lauak dira.

(23) Terminologia hau Jacobsen-ek (1972, 1975) sartu zuen euskal azentuaren ikersailean. Azkue hitz monotono eta ditonoez mintzatu zen.

(24) Eskualde honetako hizkera askotan, tonua ez da beti altuagoa silaba azentudunean bere ezkerraldeko silabetan baino. Maila berean manten daiteke. Azentua markatzen duena goitik beherako tonu aldakuntza da.

5-9 adibideak erka itzazue orain. Hauetan *lékuko* (6. adib.), *bígarren* (7. adib) eta lagúnen *lagunen*, de los amigos' (9. adib.) hitzak azentudunak dira. Hiru kasuetan tonu aldaketa nabarmena da silaba azentudunean. 5. eta 8. adibideetan, aldiz, ez dago silaba azentudunik eta tonua gutti gorabehera maila berean mantentzen da esaldian zehar.

Azentuarekin erlazio estua duen fenomeno sintaktiko bat galdegaia da, Altubek (1939, 1934) erakutsi zuen bezala. Esaldian, galdegaitzat hartzen den elementuak azenturik gogorrena darama. Galdegaia berez azentugabea baldin bada, azken silaban hartzen du azentua. Beraz, lexikoki azentuduna den hitz bat azentu nabari batekin agertuko da esaldiaren galdegaia baldin bada. 10. eta 11. adibideak erka itzazue (hauek Lekeitioko hiztun batenak). Oinarrizko maiztasuna laugarren koadroan agertzen da. Galdegaia azentu zirkunflexo batez markatzen badugu, 10. adibidea lagûnak eran dábe da; hau da, 'LAGUNEK edan dute' edo lo han bebido LOS AMIGOS'. 11. adibidean, aldiz, aditza da galdegaia, edo hobe esan, baieztapena: *lagúnak erân dábe* 'lagunek EDAN dute' edo los amigos sí que lo han bebido' (25).

Orain arte hitz azentudun eta azentugabeez mintzo egin bagara ere, "azentutasuna" morfemei dagokien ezaugarri bat da. Morfema batzuk azentua daramate egitura lexikoan; beste guztiek ez daukate holakorik. Hitz azentudunak morfema azentudun bat edo gehiago dauzkatenak dira.

Gernikaldeko sisteman, hitzak morfema azentudun bat baino gehiago badauzka, azentu prosodikoaren kokagunea lehen azentu lexikoak determinatzen du (hitz hasieratik hasita).

Erroa edo oinarri lexikoa azentuduna izan daiteke. Hau da, silaba jakin batetan azentu bat eraman dezake egitura lexikoan; hala nola, /léku/, /béste/. /belárri/ (edo /bélarri/, beste leku batzuetan), /áurre/, /kánpo/, /dénbora/ edo /eskóla/. Erro gehienak azentugabeak dira: /buru/, /mendi/, /iturri/ (26).

Deklinabidearen atzizkien artean, pluralezko guztiak eta pluralez kanpo erabiltzen diren ablatiboa /'-tik/ eta komitatiboa /-'gaz/ azentudunak dira; edo, zehazkiago, aurreazentuatzaileak, aurreko silabari azentua ematen bait diote (27):

(2) Erro azentugabeak (Gernikaldeko sistema)

(25) Hirugarren posibilitate bat aditzaren esanahia galdegaitzat hartzea litzateke. Kasu honetan ere aditzak eramango luke galdegaiaren azentua eta *egin* sartuko litzateke aditza eta laguntzailearen artean: *lagúnak erân eiñ ddábe* los amigos han BEBIDO'.

(26) Leku izenetan, *Gernika, Lekitto, Getxo* azentugabeak, baina *Ondárru* (edo *Óndarru* zenbait hizkeratan), *Bílbo*, azentudunak, adibidez.

(27) Zenbait hizkeratan, /-'tzat/ edo /-'tzako / ere aurreazentuatzailea da.

sagar	*sagarra*	*sagárrak*	*sagárrok*
sagarrek	*sagarrak*	*sagárrak*	*sagárrok*
sagarreri	*sagarrari*	*sagárrari*	*sagárrori*
sagarren	*sagarran*	*sagárran*	*sagárron*
sagarrentzako	*sagarrantzako*	*sagárrantzako*	*sagárrontzako*
sagarrégas	*sagarrágas*	*sagárrakas*	*sagárrokas*
sagarretan	*sagarran*	*sagárratan*	*sagárrotan*
sagarretara	*sagarrera*	*sagárratara*	*sagárrotara*
sagarretátik	*sagarrétik*	*sagárretatik*	*sagárrotatik*
sagarretako	*sagarreko*	*sagárretako*	*sagárrotako*
sagarrik			
sagartzat			

itturri	*itturri**Z&**e*	*itturri**Z&**ek*	*itturri**Z&**ok*
itturrik	*itturri**Z&**ek*	*itturri**Z&**ek*	*itturri**Z&**ok*
itturriri	*itturri**Z&**eri*	*itturri**Z&**eri*	*itturri**Z&**ori*
itturrígas	*itturri**Z&**ágas*	*itturri**Z&**akas*	*itturri**Z&**okas*
itturrittera	*itturrire*	*itturri**Z&**etara*	*itturri**Z&**otara*
itturrittétik	*itturríttik*	*itturri**Z&**etatik*	*itturri**Z&**otatik*

buru	*burue*	*burúek*	*burúok*
buruk	*buruek*	*burúek*	*burúok*
bururi	*burueri*	*burúeri*	*burúori*
burúgas	*burúagas*	*burúekas*	*burúokas*
burutera	*bururе*	*burúetara*	*burúotara*
burutétik	*burútik*	*burúetatik*	*burúotatik*

ar	*arra*	*árrak*	*árrok*
arreri	*arrari*	*árrari*	*árrori*

Hitz azentugabeek (azenturik gabe utzi ditudanak) ez daukate berez azentu gailurrik eta, jeneralean, azken silaban hartzen dute azentua talde prosodikoaren bukaeran daudenean (28).

Hitzak atzizki aurreazentuatzaile bat baino gehiago badauka, lehendabizikoa bakarrik gauzatzen da, emandako erregelaren arabera. (1)-ean ikusitako adibideen azentukera honelaxe azaltzen da:

(3) Atzizki azentudun eta azentugabeen konbinaketak (Gernikaldeko sistema)

(28) Markinaldean, azkenaurreko silaban.

/gixon-an-ari/	*gixonanari*
sg sg	
/gixon-an-'ari/	*gixonánari*
sg pl	
/gixon-'an-ari/	*gixónanari*
pl sg	
/gixon-'an-'ari/	*gixónanari*
pl pl	

Arau berberaz, erroa azentuduna denean, erroaren azentua nagusitzen da, eta atzizkiek sortu ahal lituzketen bereizketa guztiak ezabatzen dira:

(4) Erro azentudunak (Gernikaldeko sistema)

belárri	*belárri**Z&**e*	*belárri**Z&**ek*	*belárri**Z&**ok*
belárriri	*belárri**Z&**eri*	*belárri**Z&**eri*	*belárri**Z&**ori*
léku	*lékue*	*lékuek*	*lékuok*
lékuri	*lékueri*	*lékueri*	*lékueri*
lékutera	*lékure*	*lékuetara*	*lékuetara*
lékutetik	*lékutik*	*ékuetatik*	*lékuetatik*

Atzizki konparatiboak eta antzekoak azentudunak dira, (5a). Beste eratorpen atzizki batzuk ere azentudunak/aurreazentuatzaileak dira; haien artean /-'garren/ (edo /-gárren/), /-'txu/, /-'ti/, /-'tar/ etab., (5b):

(5) Eratorpen atzizki azentudunak (Gernikaldeko sistema)

a) *báltzagua, ónenari* 'onenari edo onenei', *edérregi**Z&**e.*

b) *saspígarrenari* 'zazpigarrenari edo zazpigarrenei', *txakúrtxue, txakúrtxuek, negárti**Z&**e, Gernikarra, Getxótarrak.*

Erroa azentuduna baldin bada, erroaren azentua nagusitzen da:

(6) Erro azentuduna + eratorpen atzizki azentuduna (Gernikaldeko sistema)

kánpotarra, Bílbotarra, líbrutxue.

Beste eratorpen atzizki batzuk azentugabeak dira, hala nola /-tasun/ edo /garri/:

(7) Eratorpen atzizki azentugabeak (Gernikaldeko sistema)

argittasune, argittasúnek,

*penagarri**Z&**e, penagarri**Z&**ek.*

Aditz jokatugabeetan, /-'t(z)en/ (eta /-'t(z)e/) eta /-'ko/ azentudunak dira:

(8) Aditz atzizkiak (Gernikaldeko sistema)

a) Erro azentugabeak

ikusi	*ikústen*	*ikusíko*	*ikúste*
galdu	*gáltzen - galdúten*	*galdúko*	*gáltze*
emon	*emóten*	*emóngo*	*emóte*

b) Erro azentudunak

bóta	*bótaten*	*bótako*	*bótate*
éreiñ	*éreitten*	*éreingo*	*éreitte*

Emandako adibideetan morfema azentudun/aurreazentuatzaile eta azentugabeen arteko bereizkuntza erakutsi dugu. Halaber, lehen azentu lexikoak beti irabazten duela ikusi dugu. Badira erregela aipagarri batzuk hitz elkartuetan, talde klitikoetan, etabarretan aplikatzen direnak. Baina hemen ezin ditugu fenomeno guztiak kontuan hartu. Aipatu duguna nahikoa da azentu sistemaren konplexutasunaz ohartzeko.

Hizkera askotan (Markinaldean, esate baterako) azentua silaba bat ezkerralderantz mugitu da kasu jakin batzutan:

(9) Ezkerralderanzko lerraketa

tomáte > *tómate*

lagúnek > *lágunek*

Mugimendu honen baldintzak desberdinak dira hizkera desberdinetan; Markinan, adibidez, *gíxonak* baina *alábak* aurkitzen dugu (cf. Hualde 1991a: 154-157). Kontrako mugimenduak ere gertatu dira. Arratzun, adibidez, *numéroa, latígoa, musíkie, etab* (baina *dénbora*) esaten da (29).

Azentu lerrakuntzarik nabarmenena eta aipagarriena Lekeition (eta Ondarroan) aurkitzen dugu. Hizkera honetan, azentu lexiko guztiak hitzaren azkenaurreko silabara mugitu dira. Hau da, sistema honetan mor-

(29) Kontrako aldaketa diakronikoak egon direnez gero ez da beti erreza hitz azentudun jakin baten jatorrizko azentukera zein zen. Maileguekin garbi dago: *tomáte/tómate* bikoetan lehenengo aukerra jatorrizko gaztelaniarena da. Badira arrazoiak *sagárrak/ságarrak* edo *burútik/búrutik* bikoteetan ere lehen aipatu aukera zaharragotzat hartzeko. Hizkera batean *lékutik* eta *burútik* (eta *bururik*, azentugabea), *lékuek* eta *buruek* (eta *buruek* ergatibo singularra) bereizten badira azentuaren aldetik, hizkera horren egoerak bereizketa guttiago egiten duen beste hizkera batenak *(lékutik = búrutik, lékuek = búruek)* baino zaharragoa izan behar du (ikus Hualde 1993a). Beste kasu batzutan, aldiz, ez dago jakiterik. Zein da zaharrena *euskéra* edo *éuskera*? *bélarri* edo *belárri*?

fema azentudunek hitzaren azkenaurreko silabari ematen diote azentua. Morfema azentudunak, neurri handi batean Gernikaldean ere azentudunak direnak dira:

(10) Lekeitio

a) Erro azentugabeak

sagar	*sagarra*	*sagárrak*
sagarrek	*sagarrak*	*sagárrak*
sagarreri	*sagarrari*	*sagarrári*
sagarrentzat	*sagarrentzat*	*sagarréntzat*
sagarrentzako	*sagarrentzako*	*sagarrentzáko*
sagarretara	*sagarrera*	*sagarretára*
sagarretátik	*sagarrétik*	*sagarretátik*

b) Erro azentudun eta azentugabeen konparaketa

Erro azentudunak

Erro azentugabeak	erro azentugabeak
belárri	*itturri*
belarríZ&a	*itturriZ&a*
belarríZ&ak (sg/pl)	*itturriZ&ak (sg) / itturríZ&ak (pl)*
Ondárru	*Lekitto*
Ondarrúra	*Lekittora*
Ondarrútik	*Lekittótik*
léku bat	*buru bat*
lekúa	*burua*
lekura	*burura*
lekútik	*burútik*
Lekittarrentzáko (sg/pl)	*txistulariZ&entzako (sg) / txistulariZ&entzáko (pl)*

(11) Azentu lexikoen kokagunea Gernikaldean eta Lekeition

Gernikaldea	Lekeitio
léku, lékue, lékuetatik	*léku, lekúa, lekuetátik*
lagúnentzako (pl)	*lagunentzáko* (pl)
Bílbo, Bílbora,	*Bílbo, Bilbóra,*
Bílbotar, Bílbotarra	*Bilbótar, Bilbotárra*
Bílbotarrentzako (sg/pl)	*Bilbotarrentzáko* (sg/pl)
kánpotarrari (sg/pl)	*kanpotarrári* (sg/pl)

ónena ('onena' / 'hauena'), *ónenari* *onéna, onenári*
onénak ('honenak'), *onénari* *onénak, onenári*

Adibideok erakusten dutenez, Lekeition azentu lexiko guztiak hitzaren azkenaurreko silaban agertzen dira, erroak zein atzizki batek sartuak izan, Azkuek azaldu zuen moduan. Hitz azentugabeak Gernikaldeko ereduan bezala portatzen dira (hau da, nagusitasun prosodikoa azken silaban eror daiteke talde prosodiko baten bukaeran: *etxe barri**Z&â** *erosi dau*).

Lekeitioko azentu sistemaren deskribapena osatzeko asko gelditu litzaiguke (cf. Hualde, Elordieta eta Elordieta 1994a, 1994b). Hemen erakutsi nahi dudana hauxe da bakarrik: mendebaldeko azentuaren eskualdean, eta, are gehiago, elkarren ondoan mintzatzen diren hizkeren artean, azentu arauak oso desberdinak izan daitezkeela. Esan bezala, Gernikaldeko sisteman morfemak azentugabeak eta azentudunak izan daitezke. Erro azentudunek, azken silaban ez ezik, beste edozein silabatan eraman dezakete azentu lexikoa. Atzizki azentudunak gehienetan aurreazentuatzaileak dira; hau da, aurreko silabari ematen diote azentua. Hitzak azentu lexiko bat baino gehiago badauzka, lehenengoak irabazten du beti.

Lekeition, aldiz, nahiz eta morfema azentudun eta azentugabekoen arteko bereizkuntza lexiko bat egon, Gernikaldeko sisteman bezala, azentu lexikoak kokatzeko araua erabat desberdina da. Hitzaren eremuan morfema azentudunik badago, azentu prosodikoa hitzaren azkenaurreko silaban agertuko da (30). Morfema azentuduna zein den (erroa ala atzizkia) eta non dagoen ez dauka inolako garrantzirik.

Bizkai-Gipuzkoetako beste hizkera batzuk aztertzen baditugu, hala nola Zeberiokoa, Azkoitikoa edo Markinakoa, kasu bakoitzean arau desberdin batzuk dauzkagula ikusiko dugu, nahiz eta amankomuneko ezaugarriak ere aurkitu.

(30) Arau hau dela eta, hitz prosodikoaren mugak nabariak dira Lekeitieraz. Adibidez, *bat*, beste hizkera batzutan ez bezala, ea da sartzen aurreko hitzaren eremuan. *Liburúa* eta *libúru bat* (eta ez **liburú-bat*) konpara itzazue. Bestaldetik, Azkuek (1931:13) azpimarratu zuenez, aditz nagusiak eta laguntzaileak hitz prosodiko bakar bat osatzen dute: *etxiâ ikusikó-dau, ikusiko-dógu* (azentua /-ko/ morfemak sartzen duelarik); baina bakarrik aditza galdegaia ez denean (bestela, *ikusíko dau*, etab.) eta laguntzailea konplementatzailerik gabe agertzen denean. Azkue (1923–43-44) ohartu ere egin zen Lekeition *ete, ei, ba*, eta antzekoak aurrizkiak direla, eta aurrizki azentudunak gainera (hau da, azentu bat jartzen dute ondoko aditzarekin osatzen duten eremuaren azkenaurreko silaban, ikus Hualde, Elordieta eta Elordieta 1994a, 1994b). Dudarik gabe, Azkuek hutsegin zuen bere deskribapena Lekeitioko datuetan oinarritzen zela ez aitortzean. Baina beste ikertzaile askok beste errakuntza handi bat egin dute Azkueren datuak guztiz albora utzi dituztenean (ikus Hualde 1990. Antzeko zerbait Larramendiren deskribapenarekin gertatu da, ikus Hualde 1991b). Hitz prosodikoen arazoan ere datuak ez dira guztiz berdinak hizkera guztietan eta batasuneranzko bidean zuhur jokatu beharko da.

Euskara baturarako azentubide bat aukeratzekotan, nik ez nuke mota honetako sistemarik aukeratuko; ez Gernikaldeko sistema, ez Lekeitiokoa eta ez antzekorik. Hau honako bi arrazoiengatik: sistema hauek konplikatuegiak direlako eta azentu sistema bakoitzaren eremu geografikoa nahiko mugatua delako (31). Badira, bestaldetik, askoz sinpleagoak diren azentubide batzuk mendebaldean. Nik hurrengoa proposatuko nuke euskara baturako:

(12) **PROPOSAMENA**

I. Kasu orokorrean, azentua hitzaren bigarren silaban erortzen da: *mendía, txakúrra, emákumea, bertsólariarekin.*

II. Salbuespenak. Azentua hitzaren lehenengo silaban erortzen da

a) Erroa silababakarra denean: *lúrra, lúrrera, lúrretako.*

b) Hitz markatu batzuetan: *lékuan, bésteari, áurrera, átzetik.*

III. Bigarren mailako azentu bat talde prosodikoaren azken silaban erortzen da: *txistúlarià, txistúlaria dà.*

Sistema honek sinpletasunaren abantaila dauka, lehen ikusitako sistemekin konparatzen badugu. Gainera, ez dago lurralde bakar bati mugatuta. Ezaugarri hauek dauzkan sistemak Gipuzkoako, Bizkaiko eta Nafarroako eskualde batzutan erabiltzen dira. Hau da Oiñatin eta Elorrion aurkitzen dugun azentubidea (ikus Hualde 1989, 1991a:170-172, 1993a, Michelena 1976, Jansen 1992) eta arau berak, funtsean, Bidasoako hibai arroako hizkeretan aurkitzen ditugu. Arrazoi hauengatik nik sistema hau proposatuko nuke euskara baturako.

Txillardegik (1992) ere antzeko sistema bat proposatzen du, baina arau bat gehiago erantsiz: erro bisilabaduna daukaten izenetan, pluralean azentua lehenengo silaban agertzen da. Erroa luzeagoa baldin bada, ez dago aldakuntzarik singular eta pluralaren artean. Antzeko gauza bat Tolosaldeko hizkera batzuetan gertatzen da. Bildu ditudan datuen arabera, hizkera hauetan *gizóna (da)* eta *gízonak (dia), lagúnakin* lagunarekin' eta *lágunakin* lagunekin' edo *txakúrrai* txakurrari' eta *txákurrai* txakurrei' bereizten dira azentuaren aldetik, baina *emákumia (da)* eta *emákumiak (dia)* , *emákumiakin* èmakumearekin edo emakumeekin' hitzek silaba berean daukate azentua. Arau honekin lehen ikusitako sistemekin azalezko antzekotasun haundiagoa lortuko genuke ; baina antzekotasuna bakarrik azalezkoa izango litzateke; funtsean arau-sistemak zeharo des-

(31) Mugatuagoa kasu batzuetan beste batzuetan baino, dena den. Adibidez Leketioko sistema, oso eskualde txikian erabiltzen da, baina Gernikaldekoak eremu zabalago bat dauka, aldakuntza txiki batzuekin.

berdinak bait dira. Nik ez nuke erregela hau sartuko sistema batuan eta singularra eta plurala ez nituzke bereiztuko azentuaren bidez, atzizkiak beti desberdinak direnez gero.

Kontuan hartu behar da (12-III)-an aipatu dudan bigarren mailako azentua talde prosodiko mailako arau bat dela eta ez hitz mailakoa. Hau *da, txistúlaria dà* eta ez **txistúlarià dá.* Lehenengo edo bigarren silaban agertzen den lehen mailako azentua ere talde prosodikoari dagokion gauza bat izan daiteke hizkera askotan. Hau da: *itúrri ederrà, bertsólari handià, mendítik natòr.*

Honelako azentubide bat onartzen baldin bada, hitz markatu edo berezien arazoa kontuz aztertu beharko litzateke, honetan ere diferentziak aurkitzen bait dira mendebaldeko hizkeren artean. Adibidez, *kafe* hitza markatua da Arratzun baina ez Lekeition; *leku* markatua da leku gehienetan baina ez Oiñatin, etabar. Txillardegik (1992) hitz markatuen zerrendan aipatzen dituen hitz asko markatugabeak dira neuk aztertu ditudan Bizkaiko hizkeretan (*gauza, kale, lege, seme*, etab.). Lan hau ondo egiteko (eta ondo egitea merezi du), mendebaldeko hizkera talde bat aukeratu beharko da eta bakoitzarentzat hiztegi edo hitz zerrenda azentudun bat lortu beharko da. Batuaren hitz markatuek mendebaldeko hizkera guztietan edo behintzat gehienetan markatuak direnak izan beharko lukete (32).

Beste arazo bat erro silababakarren salbuespena interpretatzerakoan sortzen da. Arazo hau hitz eratorriena da. *Bigarren, onena, beltzagoa* eta abarretan, lehen morfema hartu behar da azentuaren eremutzat, eta *bígarren, ónena, béltzagoa* azentuatu lehen morfema silababakarra denez gero, ala patroi orokorra erabili behar da, eratorpen atzizkia azentuaren eremuan sartuz, *bigárren, onéna, beltzágoa* esanez? Bi aukerak aurkitzen dira hizkera desberdinetan eta bat aukeratu beharko litzateke. Noski, badago hirugarren aukera bat; alegia, (12-IIa) kentzea eta *lurrá, lurréra, lurrétako* hautatzea.

Laburbiltzeko eta bukatzeko, neurri handi batetan Txillardegiren proposamenarekin bat nator, euskara jantziaren azentua batu behar baldin bada. Proposatutako azentu moldearen arau nagusia, kasu orokorrean, azentua bigarren silaban doala izango litzateke. Honelako eredu

(32) Alderantziz, Zuberaren datuak ez dira elkargarriak honelako sistema bat onartzen bada; Zubereraren azentubidea guztiz desberdina baita. Hitz markatuen arazoan mendebaldeko hizkeren artean konponketa bat aurki badaiteke ere, Mendebaldeko eta Zubererako azentu sisteman artean ez dago konponketa posiblerik. Argi utzi behar da hemen, beste zenbait kasutan bezala (aditzaren jokabidea, esaterako), aukera bat egin behar dela, besteak baztertuz. Zubereraren azentu bideaz, ikus Larrasquet 1928, 1931, 1934, 1939, Gabel 1920, Hualde 1993b.

bat onartuko balitz, puntu asko geldituko lirateke finkatzeko: maila lexikoan, hitz markatuen arazoa, eta gainera esaldi mailako fenomeno guztiak, galdegaiaren gauzatze prosodikoa hor sartzen delarik.

Edozein kasutan, azentu eredu bat hobesten baldin bada, eredu hori ezin daiteke "euskal azentubide orokorra" edo "mendebaldeko azentubide orokorra" izan, horrelakorik ez bait dago. Gehienez, eskualde txiki batzuen azentu bidearekin zerikusi estua daukan eredu bat izan daiteke; besterik ez. Hori denok garbi izan behar dugun gauza da.

Txosten hau lagungarri izango zaizuela espero dut. Asmo horrekin idatzi dut, behintzat.

AIPAMENAK

ALTUBE'tar, S. 1929: *Erderismos. Euskera* 10 [Berrarg. 1975, Bilbo: Indauchu, Orain Sorta 1].

ALTUBE'tar, S. 1934: *Observaciones al Tratado de 'Morfología Vasca' de Don R. M. de Azkue.* Bermeo: Gaubeka [Berrarg. 1969, Azkue-ren *Morfología Vasca*-ren 3. liburukiarekin, Bilbao: La Gran Enciclopedia Vasca.]

AZKUE, R. M. 1923: *Morfología Vasca.* [Berrarg. 1969, Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca, 3 lib.]

AZKUE, R. M. 1931-1932: "Del acento tónico vasco en algunos de sus dialectos". *Euskera* 4, 282-318, eta 6, 3-50.

BASTERRECHEA, J. 1974-1975: "Estudios sobre entonación vasca según el habla de Guernica". *Fontes Linguae Vasconum* 18, 353-393 eta 21, 289-338.

ETXEBARRIA AYESTA, J. M. 1991: *Zeberio haraneko euskararen azterketa etno-linguistikoa.* Bilbo: I.K.A.

GAMINDE, I. 1992: Elantxobeko azentuaz. *Ele* 14 (agertzeko).

GAVEL, H. 1920: *Élements de phonétique Basque.* Paris: Edouard Champion.

HANSEN, W. 1992: "Acento y entonación en Elorrio". *ASJU* 26, 391-440.

HUALDE, J. I. 1989: "Acentos vizcaínos". *ASJU* 23, 275-325.

HUALDE, J. I. 1990: "Euskal azentuaren inguruan." *ASJU* 24, 699-720.

HUALDE, J. I. 1991a: *Basque Phonology.* London eta New York: Routledge.

HUALDE, J. I. 1991b: "Manuel de Larramendi y el acento vasco". *ASJU* 25, 737-749.

HUALDE, J. I. 1992: "Notas sobre el sistema acentual de Zeberio". *ASJU* 27, 767-776.

HUALDE, J. I. 1993a: "On the historical origin of Basque accentuation." *Diachronica 10*, 13-50.

HUALDE, J. I. 1993b: "Topics in Souletin Phonology". J. I. Hualde eta J. Ortiz de Urbina, arg., *Generative Studies in Basque Linguistics.* Amsterdam eta Philadelphia: Benjamins, 289-327.

HUALDE, J. I. 1994a: "Observaciones acerca de los sistemas acentuales de la zona occidental de Gipuzkoa". *Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo 27.*

HUALDE, J. I. eta X. Bilbao. 1992. *A phonological study of the Basque dialect of Getxo.* ASJU-ren gehigarriak, 29. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.

HUALDE, J. I. eta X. Bilbao. 1993: "The prosodic system of the Basque dialect of Getxo: A metrical analysis." *Linguistics 31*, 59-85.

HUALDE, J. I., G. ELORDIETA eta A. ELORDIETA. 1994a: "Focalización y prosodia en vascuence vizcaíno". *ASJU.*

HUALDE, J. I., G. ELORDIETA eta A. ELORDIETA. 1994b: *The Basque dialect of Lekeitio.*

HUALDE, J. I. eta Tx. SAGARZAZU. 1991: "Acentos del Bidasoa: Hondarribia." *ASJU* 25, 139-152.

IRIGOYEN, A. 1986: "Hizkuntzaren normalizazioa, kontzientzia linguistikoa eta euskal ebakerak". *Euskera* 31, 351-359.

JACOBSEN, W. 1972: "Nominative-Ergative Synchretism in Basque". *Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo* 6, 67-109.

JACOBSEN, W. 1975: "Historical Implications of the Western Basque Tonal Accent". eskuizkribua, Univ. of Nevada, Reno.

JANSEN, W. 1992. "Acento y entonación en Elorrio". *ASJU 26*, 391-440.

LAFON, R. 1935: "Observations sur la place de l'accent dans quelques formes basques des parlers souletins". *Mélanges de Littérature, d'Historie et de Philologie offerts à Paul Laumonier par ses èlèves et ses amis*, 635-643. Paris: Librairie E. Droz.

LARRAMENDI, M. 1729. *El impossible vencido: arte de la lengua bascongada.* Salamanca.

LARRASQUET, J. 1928: *Action de l'accent dans l'évolution des consonnes étudiée dans le basque souletin.* Paris: Vrin.

LARRASQUET, J. 1931: "Beñát: Larrajáko belhagilii". *Revue Internationale des Études Basques* 22:229-22.

LARRASQUET, J. 1934: *Le basque souletin nord-oriental.* Paris: Maisonneuve.

LARRASQUET, J. 1939: *Le basque de la Basse-Soule orientale* (Collection Linguistique, 46). Paris: Societé de Linguistique de Paris.

LASPIUR, I. 1979. "Azentu Diakritikoa Eibarko Euskaran". *Euskera* 24, 175-268.

MICHELENA, L. 1958: "Á propos de l'accent Basque". *Bulletin de la Societé de Linguistique* 53, 204-233. [Berrarg. Michelena 1988 , I, 220-239].

MICHELENA, L. 1972: "A Note on Old Labourdin Accentuation". *ASJU* 6, 110-120 [Berrarg. Michelena 1987, 235-244].

MICHELENA, L. 1976: "Acentuación alto-navarra". *Fontes Linguae Vasconum* 23, 147-162 [Berrarg. Michelena 1987, 245-260].

MICHELENA, L. 1985: *Fonética histórica vasca,* 3. arg. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.

MICHELENA, L. 1987: *Palabras y textos.* Leioa: EHU.

MICHELENA, L. 1988: *Sobre historia de la lengua vasca,* 2 lib., ASJUren gehigarriak, 10. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.

TXILLARDEGI [Alvarez Enparantza, José L.]. 1985: *Euskal Azentuaz.* Donostia: Elkar.

TXILLARDEGI. 1992: "Ahoskera baturantz". *Ele* 10, 47-71.




figure 1




figure 2




figure 3




figure 4




figure 5




figure 6




figure 7




figure 8






figure 9



10. lagûnak eran dabe



11. lagúnak erân dabe

EUSKAL AZENTU EREDUEN SAILKAPENERAKO

Leioa, 1994.10.07
José Ignacio Hualde,
University of Illinois

Euskal azentuaren ikerkertan, Mitxelenak (1972) egin zuen sailkapena oinarrizkoa izan da. Ordutik hona, azentuari buruzko lan gehienetan abiapuntutzat hartu da (cf. Txillardegi 1985, Salaburu 1984, Ibarra 1994, beste askoren artean). Mitxelenak, hala ere, ez zuen sailkapen hori behin-betikotzat hartu. Hain zuzen, ondoko hitz hauekin bukatzen du bere artikulua: "Almost everything remains to be done".

Oraindik ere, asko gelditzen bada egiteko, 1972. urtetik hona, bai azentuzko datuen ezagutzaren aldetik eta baita analisiaren aldekik ere, zertxobait aurreratu dugula ezin dezakegu ukatu. Ene ustez, bada, Mitxelenak 1972. urtean egin zuen euskal azentu ereduen sailkapena gainditzeko garaia heldu da. Orain dakiguna kontuan hartuz egin dezakegun sailkapena ere, dena den, behin-behinekoa izango da, oraindik hutsune handiak gelditzen baitira gure ezagutzan.

Euskal azentuari buruz daukagun lehen lan sakona Larramendirena (1729) da. Larramendik azaltzen duen eredua Bizkai-Gipuzkoetakoa dela dio, eta honetatik Irun eta Hondarribiakoa beriezten du. Azkuek, bere aldetik, bai Bidasoako azentu eredua eta bai Zubererarena bereizten ditu berak orokortzat hartzen duen azentubidetik (funtsean, Lekeitiokoa, nahiz eta berak bestela pentsatu, cf. Hualde 1990). Mitxelenak (1972) Azkueren sailkapen hirukoitzari, beste azentubide bat eransten dio, lau azentubide bereiztuz: mendebalde-erdialdekoa (edo Bizkaiera eta Gipuzkerarena), Bidasoakoa, Nafarroa Garaikoa eta Zuberoa-Erronkarietakoa. Artikulu berean, Pierre d'Urte idazle lapurtarrak erabili zuen azentua aztertzen du, eta azentubide berezitzat hartzen du. Hau bostgarren azentu-mota izango litzateke, beraz. Sailkapen honetatik at, gaurko Lapurtera eta Behenafarrera gelditzen dira. Oraindik ere, Lapurtera eta Behenafarreraren azentuari buruz oso gutti dakigu, tamalez. Orain dakigunaren arabera, hala ere, nik bi zuzenketa nagusi proposatuko nituzke Mitxelenaren sailkapenean.

Lehenengo eta behin, Gipuzkera eta Bizkaieraren eremuan bi azentubide nagusi bereiz ditzakegu, Mendebaldekoa eta Erdialdekoa; nahiz eta biak historikoki loturik egon. Funtsean, Erdialdeko ereduan, azentu

nagusia hitzaren bigarren silaban erortzen da kasu markatugabean. Mendebaldeko sisteman, aldiz, eskuinaldetik, edo bukaeratik, kontatuz sartzen da azentua hitz markatugabeetan.

Bigarrenik, Erdialdeko ereduan Bidasoakoa ere sartuko nuke (Txillardegik 1985 egiten duen moduan), sistema honetan ere azentu nagusia bigarren silaban erortzen baita kasu normalean.

Bi zuzenketa hauek, beraz, erlazionatuta daude. Horretaz gain, gaurregun dauzkagun datuekin, azpieredu batzuk bereiz ditzakegu eredu nagusietan. Eredu nagusietatik kanpo geratzen diren hizkerak ere badira.

Euskal Herriko mendebalde-erdialdeko eskualdeetan hiru sistema nagusi bereiz ditzakegu: 1. Mendebaldekoa, 2. Erdialdekoa eta 3. Hondarribikoa eta Lapurtera zaharrarena. Hiru sistema hauek lotura historiko garbia erakusten dute eta proto-eredu bakar baten barruan kokatu beharko genituzke, nahiz nahiko arau desberdinak izan (cf. Mitxelena 1985:587). Esan bezala, nire Mendebaldeko sistema, Mitxelenaren Lehen Saila baino askoz murriztuagoa da. Honen barnean, bi azpi-eredu bereizten ditut: 1.1. Iparraldeko bizkaierarena (Gernika/Getxo eta Lekeitikoko azpi-azpi-ereduekin) eta 1.2. Zeberio/Azpeitiakoa. Nire Erdialdeko eredua, berriz, nahiko zabala da eremu geografikoaren aldetik, Bizkai, Gipuzkoa eta Nafarroako hizkera batzuk hor sartzen direlarik. Lan honetan, hiru azpi-eredu kontuan hartzen ditut: 2.1. Oñatikoa, 2.2. Ekialdeko Gipuzkerarena eta 2.3. Bortzerrietakoa. Esan dudanez, eredu honen ezaugarri nagusia azentua kasu normalean bigarren silaban jartzea da. Beraz, Elorrioko azentubidea ere azentu eredu honen barnean kokatzen da, adibidez (cf. Jansen 1992). Hondarribiko sistema Erdialdeko eredutik bereizten dut eta Lapurtera zaharraren azentubidearekin batu, azentua hitz-erroaren eskuinaldetik kontatuz ezartzen baita hizkera hauetan.

Ekialderantzago, azentu bereizgarririk gabeko bi eredu nagusi aurkitzen ditugu: Hegoaldean, Goinafarrerarena eta Iparraldean, Lapurtera/Behenafarrerarena. Berriro, Lapurdi-Behenafarroetako eskualdeetan erabiltzen den azentubideei buruz ez dakigu gauza handirik. Goinafarreraren eremuan, aldiz (eta Bortzerrietako sistema alde batera utziz), eredu orokorretik aldentzen diren bi sistema aurkitzen ditugu, behintzat: Sakanako zenbait herritan erabiltzen dena eta Imoz eta Basaburuan Ibarrak (1994) aurkitu berri duena.

Azkenik, Zubererak duen eta Erronkarierak izan zuen azentubideak aurkitzen ditugu, Ekialdeko saila osatuz.

Goazen, beraz, eredu eta azpi-eredu bakoitzaren ezaugarri nagusiak ikustera.

1. MENDEBALDEKO AZENTU-EREDUA

1.1. Iparraldeko bizkaiera

Ikertzaile askok ikusi duten moduan (Azkue 1923, 1931-32, Basterrechea 1974, Rotaetxe 1978a, 1978b, Hualde 1989, 1991, Gaminde 1992, 1993), Bizkaiko iparraldean doinu-azentuzko sistema bat aurkitzen dugu. Azentu eredu honetan badago oinarrizko bereizketa bat hitz azentudun eta azentugabeen artean. Hitz azentugabeek ez daukate silaba azentudunik. Normalean, hitz azentugabeek osatutako hitz-andanetan badago goiko tonu bat bigarren silabatik azken silabaraino (edo azkenaurreko silabaraino, Markinaldeko hizkeretan), eremu honen azken silaba pixkat altuagoa izan badaiteke ere. Hitz azentudunek, aldiz, silaba jakin batean azentu lexikala daramate (tonu gorakada-beherakada garbi batez gauzatzen dena). Azentu-eredu hau, Getxo eta Sopelatik Mutrikuraino hedatzen da, Bizkaiko iparraldetik (Gaminde 1993). Azentu lexikalak morfemei dagozkie. Azentu hauek ezartzeko erabiltzen den araua kontuan hartuz, bi azpi-eredu bereiz ditzakegu, Gernika/Getxokoa, edo orokorra, eta Lekeitiokoa.

1.1.1. *Gernika/Getxo*

Azpi-eredu honetan, erro azentudunek, azken silaban ezezik, beste edozein silabatan eraman dezakete azentua: /dénbora/, /eskóla/. Atzizki azentudun gehienak aurreazentuatzaileak dira; hau da, aurreko silabari ematen diote azentua: /gixon-'ari/ *gixónari* 'gizonei', /on-'en-a/ *ónena*. Hizkera batzuetan, atzizki azentudunek bi silaba aurrerago ezartzen dute azentua: /esan-"go/ *ésango*, baina bakarrik testuinguru jakin batzuetan. Hitzak azentu lexikal bat baino gehiago badauzka, lehenengoa bakarrik gauzatzen da: /kánpo-'tarr-'ak/ *kánpotarrak*, /gixon-'an-'ari/ *gixónanari* 'gizonenei' (cf. Hualde 1990, 1991, Hualde eta Bilbao 1992, 1993).

1.1.2. *Lekeitio*

Nahiz eta beste aspektu guztietan, Lekeitioko sistemak Gernika-/Getxoko azentu ereduaren ezaugarri berberak izan, azentu lexikalak kokatzeko araua zeharo desberdina da. Lekeition, hitz azentudun guztiek azkenaurreko silaban daramate azentua. Hau da, azentu lexikalak azkenaurreko silabara mugitzen dira. Arau hau Lekeition eta Ondarroan aurkitzen da (cf. Hualde, Elordieta eta Elordieta 1994).

1.2. Zeberio/Azpeitia

Zeberion erabiltzen den azentu sistemak orain arte ikusitako beste azentu ereduekin antzekotasun nabaria du (cf. Etxebarria 1991, Hualde 1992). Badira, hala ere, desberdintasun garrantzisuak ere. Hasteko, azentuaren gauzatze fonetikoa desberdina da. Bizkaiko iparraldeko hizkeretan ez bezala, ez dago tonu hedatzerik.

Morfema azentudun eta azentugabeen banaketa Gernikan edo Lekeition aurkitzen duguna da. Gainera, Zeberioko ereduak Gernika-/Getxoko arau berbera du hitz azentudunetan; hots, lehen azentu lexikalak irabazten du. Diferentziarik nagusiena flexiozko morfemen azentuzko ezaugarrietan aurkitzen dugu. Bizkaiko iparraldeko sistemetan ez bezala, hitz mugatu (flexiodun) guztiak azentudunak dira; hau da, hitz mailako azentua jasotzen dute. Zehazkiago, flexiozko morfemek azentu eremuaren muga markatzen dute. Azentua ez da inoiz lehen mugatzailetik eskuinaldera pasatzen. Hitz-erro azentugabeekin, azentuaren kokagunea silaba kopuruaren arauera determinatzen da: *gixonári* (sg), *gixónari* (pl), baina *mamarróari* (sg) *mamárroari* (pl). Oso antzeko sistemak Gipuzkoako mendebaldean aurkitzen dira (Hualde 1993b).

2. ERDIALDEKO AZENTU-EREDUA

Gipuzkoako eskualde handi batean, eta baita Bizkaiko eta Nafarroa Garaiko zenbait tokitan, azentu nagusia hitzaren bigarren silaban kokatzen da kasu normalean. Kasu batzuetan, aldiz, lehenbiziko silaban erortzen da. Patroi markatua sorterazten duten kasuak ez dira berdinak mota honetako hizkera guztietan. Hemen hiru azpieredu kontuan hartuko ditugu, aurkitzen den aniztasuna agortu gabe, Oñatikoa, Ekialdeko Gipuzkera deitu dezakeguna eta Bortzerrietakoa.

2.1. Oñati

Oñatin, kasu markatugabean azentua bigarren silaban erortzen da (cf. Izaguirre 1970): *argála, alákia, burdíñia.* Atzizkiek ez dute inolako eraginik azentuaren kokagunea determinatzeko: *abáde, abádia, abádiak.* Hitz batzuk, bestaldetik, azentua lehenbiziko silaban hartzen dute. Patroi markatu hau hurrengo kasuetan agertzen da: (a) Hitz-erroa silababakarrekoa denean: *lúrrera, báltzagua* (hau da, azentu eremua erroa da); (b) Hitz-erro markatuekin (salbuespen lexikalak): *ántzar, ántzarra, séme, sémia, éguen, éguena, ídola, ídolia, dénpora, dénporia.* (c) Hitza bisilaba-

duna denean: *lau bába* baina *babía, babáak; gérri, gerríxa; áize, aizía; ágiñ, agíña* (hau da, hitzaren azken silabak ezin du azentua eraman).

2.2. Ekialdeko Gipuzkera

Gipuzkoako ekialdeko hizkera gehienetan Oñatiko sistemarekin antzekotasun haundia duten sistemak aurkitzen ditugu. Hizkera hauetariko askotan, dena den, azentu eremua hitz osoa da, eta ez hitz-erroa. Horregatik, azentua bigarren silaban ager daiteke hitz-errroa silabakarra denean ere: *lurrían.* Bestaldetik, eskualde honetako hizkera askotan, hitz--erro silababakar eta bisilabadunen pluralean patroi markatua (lehenbiziko silaban) erabiltzen da: *gizóna* baina *gízonak, lurrétik* baina *lúrretatik.* Datu honek Mendebaldeko sistemarekiko lotura diakronikoa erakusten du argi eta garbi. Izan ere, leku batzuetan arau-aldaketa oso berria izan daiteke; azken belaunaldiotan gertatu den aldaketa bat.

2.3. Bortzerrieta

Bortzerrietako hizkerak azentuari lotutako fenomeno bereziak ditu; alegia, bokal neutralizazio eta galketa gogorrak. Agian, arrazoi honetatik aparteko sistema bezala ikusia izan da. Dena den, fenomeno hauek "epifenomenoak" dira, Mitxelenaren (1972) hitzetan esateko. Azentu nagusia ezartzeko erabiltzen diren arauak kontuan hartzen baditugu, erdialdeko patroi berberak aurkitzen ditugu; hots, kasu orokorrean azentu nagusia bigarren silaban: *mendía, inpórtantzi, armónirik, madárikatu*; eta kasu markatuan azentu nagusia lehenbiziko silaban: *búeltaka, bésta.* Oñatin bezala, azentu eremua hitz-erroa da: *mendítik* baina *lúrretik.* Oñatin ez bezala, aldiz, azentua hitzaren azken silaban ager daiteke: *lau mendí, lau zakúr.*

3. HONDARRIBIA /LAPURTERA ZAHARRA

Hondarribiko sisteman, azentu eremua hitz-erroa da, Bortzerrietan eta Oñatin bezala. Bortzerritako sisteman ez bezala, azentua hitz-erroaren eskuinaldetik kontatuz ezartzen da. Hitz-erroak hiru silaba edo gehiago dituenean, erroaren azken silaba astuna bada azentua erroaren azken silaban ezartzen da, eta arina bada, erroaren azkenaurrekoan: *euskaldún.a, txistulári.ya, txistulári.yakentzat.* Hitz-erroa bisilabaduna bada, azentua bigarren silaban (erroaren azkenean) erortzen da kasu markatugabean: *mendí.ya, txakúrr.akin, lau mendí.* Silababakarra bada,

eremuak duen silaba bakarrean erortzen da azentua: *lúrr.etikan, árr.akentzat* (Hualde eta Sagarzazu 1991).

Pierre d'Urteren eskribuetan Mitxelenak (1972) aurkitu zuen azentu sistema berdintsua zen. Beraz, Mitxelenak Lapurtera zaharra deitzen duen azentu eredua, funtsean gaurregun Hondarribian erabiltzen dena da.

Orain arte ikusi ditugun hiru azentu eredu nagusiek (Mendebaldekoa, Erdialdekoa eta Hondarribia/Lapurtera Zaharra) ezaugarri garrantzitsu bat dute amankomunean; hots, hitz markatu eta markatugabekoen arteko bereizkuntza. Are gehiago, neurri handi batean, hitz markatuak edo azentuzko salbuespen lexikalak berdinak dira eremu honetako hizkeretan, Mitxelenak (1985:588) ohartu zuen moduan. Ezaugarri hau erabil dezakegu sail zabalago bat definitzeko.

4. GOINAFARRERAREN AZENTU EREDUA

Nafarroa Garaiko zati handi batean, azentua ez da bereizgarria eta normalean azkenaurreko silaban ezartzen da, Mitxelenak (1972) esaten digun moduan. Era honetako sistema baten deskribapena Salabururen (1984) Baztango hizkeraren ikerketan aurkitzen dugu. Ibarrak (1994) sistema berbera deskribatzen du Ultzamako hizkerarako. Goinafarreraren eremuan ezezik, Aezkeran (I. Camino, ahozko komunikazioa) eta Zaraitzeran (Mitxelena 1967, 1976) ere aurkitzen dugu sistema hau.

5. SAKANA

Arbizun eta Sakanako beste herri batzuetan, azentua ez da bereizgarria. Hala ere, azentu-patroia ez da aurreko atalean aipatu duguna. Normalean badago azentu bat hitzaren edo hitz andanaren lehenbiziko edo bigarren silaban eta beste bat azken silaban: *árbizuarrá* edo *arbízuarrá*.

6. BASABURUA/IMOZ

Guttien espero genuenean, edo, hobe esan, guttien espero genuen lekuan, Ibarrak (1994) azentu bereizgarria duen hizkera bat aurkitu du, non eta Goinafarreraren eremuan; Basaburua eta Imozeko hizkeran, hain zuzen. Bizkai-Gipuzkoetako hizkera askotan bezala, hemen ere singula-

rra eta plurala bereizten dira azentuaren bidez. Baina, bereizkuntza erabat bestelakoa da. Nafarroako Basaburuan eta Imozen "[s]ingularrean, azentu nagusia joaten da ezkerretik hasita, lehenengo edo bigarren silaban, eta azentu birrenkari bat badago azken silaban" (Ibarra 1994:402). Pluralean, aldiz, azentu nagusia pluralaren morfema daukan silaban erortzen da; hau da, azken silaban absolutibo eta ergatiboan, baina azkenaurrekoan datibo, soziatibo edo benefaktiboan, adibidez. Bereizketa hau deklinabidean zehar egiten da, Ibarrak datu akustikoen laguntzaz erakusten duen moduan. Era honetan, hurrengo singular/plural pareak bereizten dira: *gizonàk/gizonák, emákumèk/emàkumék, emákumirì/emakumíri, emákumeekìn/emakumékin, emákumeentzàt/emakuméntzat.* Ibarrak ez digu esaten hitz markatu edo berezirik dagoen, Mendebaldeko eta Erdialdeko ereduetan bezala. Kointzidentzia hori aurkituko bagenu, horrek zerbait esango liguke sistema honen jatorri historikoaz. Nire susmoa, hala ere, horrelakorik ez dagoela da. Aldiz, Zubererak eta Erronkarierak duten sistemarekin antza handiagoa ikusten dut, Mendebaldeko/Ekialdeko sistemekin baino. Lotura historiko bat bilatzekotan, nik, beraz, ekialderantz begiratuko nuke.

7. LAPURTERA/BEHENAFARRERA

Gaurko Lapurtera eta Behenafarreraren azentuari buruz ezin esan gauza handirik. Dakigunaren arauera, euskalki hauetan azentua ez da bereizgarria eta esaldi-mailako fenomenoa da, frantsesez bezala edo Mendebaldeko sisteman bezala, hitz azentugabeek osatutako esaldietan, eta ez hitz-mailakoa. Gauzak horrela badira ere, egoera honek nahiko berria izan behar du leku askotan. Lehen esan bezala, XVIII. mende arte guttienez gaurko Hondarribiko azentuarekin zerikusi estua zeukan sistema bat erabiltzen zen Lapurdiko kostaldean (Mitxelena 1972). Bestaldetik, Leizarragak (Beraskoitzen sortua) gaurko Zubereraren azentubidearekin erlazionatutako sistema bat erabili zuen (Lafon 1935).

8. EKIALDEKO AZENTU-EREDUA (ZUBERERA/ERRONKARIERA)

8.1. Zuberera

Gaurko Lapurtera eta Behenafarrerarekin gertatzen zaigun ez bezala, Zubereraren azentua nahiko ondo ezagutzen dugu, bai fonologia eta baita fonetikaren aldetik ere, batez ere Larrasqueten (1928, 1931, 1934, 1939) lanari esker (cf. baita Gavel 1920, 1960, Hualde 1993a, Gaminde 1994). Jakina den moduan, euskalki honetan azentua bereizgarria da.

Gehienetan azentua azkenaurreko silaban ezartzen da; baina kasu jakin batzutan azken silaban kokatzen da: *lau gízun, gizúna, gizúnak* baina *gizunék; alhába*, mugagabea, baina *alhabá*, singularra, etab.

8.2. **Erronkariera**

Mitxelenak (1954) erakutsi zuen moduan, Erronkarieran erabiltzen zen azentu-ereduak antzekotasun handia zuen Zubererarenarekin, nahiz eta konplexuagoa izan. Deklinabide-atzizkirik gabeko hitz gehienak paroxitonoak dira, baina badira oxitonoak eta proparoxitonoak. Kasu orokorrean, hitz-erroaren azentua ez da mugitzen deklinabide-atzizkiak erroari eransten zaizkionean: *gízon, gízona, gízonak; morrói, morróia, morróiak, morróiari; bézino, bézinua; orrátz, orrátza, orrátzareki; méndi, méndia, ménditik, méndiara; lúr, lúrriara; maiorál, maiorála, maiorálentàko; gúzu, gúzia, gúziak , gúzietarìk.* Hala ere, bi kasutan, atzizkiak hartzen du azentua. Lehen eta behin, absolutibo plurala izan ezik, pluraleko beste atzizki guztiek erakartzen dute azentua: *gízon* baina *gizonék, gizonéntako; artzái* baina *artzayéki.* Bigarrenik, /a/-z bukatzen diren hitz-erroekin, azentua kontrazioa gertatzen den silabara mugitzen da: /alaba-a/ *alabá, arropák, karrikán*; /azienda-a-ra/ *aziendára, aziendáreki.* Bi salbuespen hauek, noski, Zubereran ere ematen dira eta batasun historikoa erakusten dute.

Esan bezala, sailkapen hau ez da behin-betikoa. Alderantziz, dauzkagun hutsuneak betetzen diren neurrian, sailkapena zuzendu eta aldatu beharrean aurkituko gara. Zorionez, hizkera jakin bati buruzko ikerketa monografikoak gero eta ugariagoak dira eta hauetan ikertzaileek, garai batean ez bezala, azentuzko fenomenoak kontuan hartzen dituzte gaurregun. Mitxelenak (1972) markatu nahi zuen ikerkerta bidetik ibiltzen hasiak gara, bada. Dena den, azentuera eta intonazioa euskal fonologiako alderdirik ezezagunenak dira, oraindik ere.

AIPAMENAK

AZKUE, R. M. 1923: *Morfología Vasca.* [Berrarg. 1969, Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca, 3 lib.].

AZKUE, R. M. 1931-1932: "Del acento tónico vasco en algunos de sus dialectos". *Euskera* 4, 282-318, eta 6, 3-50.

BASTERRECHEA, J. 1974-1975: "Estudios sobre entonación vasca según el habla de Guernica". *Fontes Linguae Vasconum* 18, 353-393 eta 21, 289-338.

ETXEBARRIA AYESTA, J. M. 1991: *Zeberio haraneko euskararen azterketa etno-linguistikoa.* Bilbo: I.K.A.

GAMINDE, I. 1992: "Elantxobeko azentuaz". *Ele* 14 (agertzeko).

GAMINDE, I. 1993: "Bizkaiko azentu ereduez". Eskuizkribua.

GAMINDE, I. 1994: "Zubereraren azentuaz". Eskuizkribua.

GAVEL, H. 1920: *Élements de phonétique Basque.* Paris: Edouard Champion.

GAVEL, H. 1960: "Réponses souletins à un questionnaire linguistique". *Euskera* 5, 293-316.

HUALDE, J. I. 1989: "Acentos vizcaínos". *ASJU* 23, 275-325.

HUALDE, J. I. 1990: "Euskal azentuaren inguruan". *ASJU* 24, 699-720.

HUALDE, J. I. 1991: *Basque Phonology.* London eta New York: Routledge.

HUALDE, J. I. 1992: "Notas sobre el sistema acentual de Zeberio". *ASJU* 26, 767-776.

HUALDE, J. I. 1993a: "Topics in Souletin Phonology". J. I. Hualde eta J. Ortiz de Urbina, arg., *Generative Studies in Basque Linguistics.* Amsterdam eta Philadelphia: Benjamins, 289-327.

HUALDE, J. I. 1993b: "Observaciones acerca de los sistemas acentuales de la zona occidental de Gipuzkoa". *ASJU* 27, 241-263.

HUALDE, J. I. eta X. Bilbao. 1992: "A phonological study of the Basque dialect of Getxo". *ASJU*-ren gehigarriak, 29. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.

HUALDE, J. I. eta X. Bilbao. 1993: "The prosodic system of the Basque dialect of Getxo: A metrical analysis". *Linguistics* 31, 59-85.

HUALDE, J. I., G. Elordieta eta A. Elordieta. 1994: *The Basque dialect of Lekeitio.* Eskuizkribua.

HUALDE, J. I. eta Tx. Sagarzazu. 1991: "Acentos del Bidasoa: Hondarribia". *ASJU* 25, 139-152.

IBARRA, O. 1994: *Ultzamako euskararen azterketa.* Argitaragabeko doktoradutza tesia. Euskal Herriko Unibertsitatea, Gasteiz.

IZAGUIRRE, C. 1970: "El vocabulario vasco de Aránzazu-Oñate y zonas colindantes". *ASJU* 4.

JANSEN, W. 1992: "Acento y entonación en Elorrio". *ASJU* 26, 391-440.

LAFON, R. 1935: "Observations sur la place de l'accent dans quelques formes basques des parlers souletins". *Mélanges de Littérature, d'Historie et de Philologie offerts à Paul Laumonier par ses èlèves et ses amis*, 635-643. Paris: Librairie E. Droz.

LARRAMENDI, M. 1729: *El impossible vencido: arte de la lengua bascongada.* Salamanca.

LARRASQUET, J. 1928: *Action de l'accent dans l'évolution des consonnes étudiée dans le basque souletin.* Paris: Vrin.

LARRASQUET, J. 1931: "Beñát: Larrajáko belhagilii". *RIEV* 22:229-32.

LARRASQUET, J. 1934: *Le basque souletin nord-oriental.* Paris: Maisonneuve.

LARRASQUET, J. 1939: *Le basque de la Basse-Soule orientale* (Collection Linguistique, 46). Paris: Societé de Linguistique de Paris.

MICHELENA, L. 1954: "La posición fonética del dialecto vasco del Roncal". *Via Domitia* 1, 123-157. [Berrarg. Michelena 1988, I, 273-297].

MICHELENA, L. 1967: "Notas fonológicas sobre el salacenco". *ASJU* 1, 163-177. [Berrarg. Michelena 1987, 221-234].

MICHELENA, L. 1972: "A Note on Old Labourdin Accentuation". *ASJU* 6, 110-120 [Berrarg. Michelena 1987, 235-244].

MICHELENA, L. 1976: "Acentuación alto-navarra". *FLV* 23, 147-162 [Berrarg. Michelena 1987, 245-260].

MICHELENA, L. 1985: *Fonética histórica vasca*, 3. arg. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.

MICHELENA, L. 1987: *Palabras y textos.* Leioa: EHU.

MICHELENA, L. 1988: "Sobre historia de la lengua vasca", 2 lib., *ASJU*-ren gehigarriak, 10. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.

ROTAETXE, K. 1978a: "L'accent Basque: Observations et hypothèses". *La Linguistique* 14, 55-77.

ROTAETXE, K. 1978b: *Estudio estructural del euskara de Ondárroa.* Durango: L. Zugaza.

SALABURU, P. 1984: *Arau fonologikoak.* Leioa: EHU.

TXILLARDEGI [Alvarez Enparantza, J. L.]. 1985: *Euskal Azentuaz.* Donostia: Elkar.

EUSKARAREN NORMALIZAZIOA ETA LINGUISTIKA KONPUTAZIONALA (1)

Leioa, 1994.10.07
Itziar Aduriz,
Izaskun Aldezabal,
Joxe Mari Arriola,
Xabier Artola,
Miriam Urkia.

INFORMATIKA ETA HIZKUNTZA

Txosten honen helburu orokorra, euskararen normalizazioari eragiteko, sistematizazio eta formalizaziorako tresna lagungarrien berri ematea da, linguistika konputazionalaren ildotik.

Linguistika konputazionalak edo, nahi bada, lengoaia naturalaren prozesamenduak hizkuntza hartzen du gai eta ordenadorea lanabes. Konputagailuz hizkuntza ulertu eta sortzea, edo hizkuntza batetik bestera itzulpenak egitea, edota, esate baterako, gizaki-makina elkarrizketetako hariei igartzea, horrelakoxeak dira arlo honetan dabiltzan ikertzaileen asmo eta kezkak.

Horiek guztiak taxuz landuko badira derrigorrezkoa da hizkuntzaren azterketa sistematizatzea eta normalizazio-bidean aurrera jotzea. Guri behintzat urteotako eskarmentuak hori erakutsi digu. Uste dugu, gainera, sakondu behar horrek bi alde dituela: batetik, ordenadorea lagun, orain dela gutxi ezinezkoak ziruditen azterbideak egingarriak dira eta, bestetik, hizkuntz trataera automatizatzeko ahaleginak berarekin dakar hizkuntzaren deskribapena formalizatu eta doitu beharra. Lehenengo aldeak hizkuntzalariari lagundu egingo dio, bigarrenak, akuiluak bezala, behartu egingo du.

Aspalditxotik hasi ziren informatikari eta hizkuntzalariak burutazio hauei forma ematen. Hasieran, 60. hamarkadan, ilusioz beteta, burua baino gogoa arinago, goi-mailako itzulpen automatikoa laster lortu zitekeelakoan. Gero, etsipenak jota, ez gogo, ez ilusio. Azken urteotan, berriz, aplikazio erabilgarriak egin nahi izan dira, nahiz eta bistakoa den hizkuntza —lengoaia naturala— moldagaitza dena. Baina, hala ere, badira gaur egungo merkatuan aplikazio interesgarriak, batzuk oso eskura daudenak: hizkuntz egiaztatzaile/zuzentzaileak, terminologi datubaseak, hiztegi elektronikoak, etab.

---

(1) Txosten honek UZEI eta Donostiako Informatika Fakultateko (EHU) LNP ikertaldea elkarlanean garatzen ari diren proiektuen aurkezpena izan nahi du.

INFORMATIKA ETA EUSKARA

Gure taldearen erronka joera berri hauetara euskara egokitzea da. Helburu horrek ia hutsetik hasi beharra ekartzen du batetik eta, euskararen berezitasunak direla eta, zenbait problema desberdini aurre egin beharra bestetik. Gauzak horrela, azpiegitura sendo bat eratzen saiatu gara. Emaitza edo produktu ikusgarrietara jotzea baino nahiago izan dugu ezari-ezarian hasi eta norabide egokian pausoak ematea.

Aipatu azpiegiturak bi zutabe ditu: oinarrizko datu-base lexikala eta testuz nahiz hiztegiz osatutako korpusa. Biltegi horiek laguntza paregabea ematen dute euskararen izaera aztertzeko, izan ere, halako azterketarik gabe prozesamendu automatikoa herren geratzen baita. Euskarria osatzeko analizatzaile/sortzaile morfologiko eta sintaktikoak beharrezkoak dira. Morfologia landu zen aurrena, sintaxiarekin dihardugu egun eta semantika dugu gure asmoen artean.

EUSKARARAKO APLIKAZIOAK

Ingurune honen barruan garatutako eta garatzen ari garen proiektuen aurkezpentxoa da ondoko lerroetan dakarguna, axalekoa bada ere.

0. HAIN: Hizkuntz Aplikazioetarako INgurunea

Proiektu honen helburua hizkuntz aplikazioetarako ingurune informatiko bat lortzea da, alegia, xede desberdinetarako hizkuntz tresnaz osaturiko multzo bat era integratu batez biltzea. Ingurune honek irekia izan nahi du eta edozein erabiltzailerentzat eskura egon, modu atseginez kontsultatu ahal izateko.

Ondoren aurkeztuko ditugun moduluek osatzen dute aipatu ingurunea:

1. EDBL (Euskararako Datu-Base Lexikala)

EDBL, lexikoari buruzko informazio-biltegi erraldoia den neurrian, helburu askotarako erabilgarria izan daiteke [Agirre eta beste 94a]. Gure interesa, oraingoz, euskararen tratamendu automatikoari dagokiona da. Beraz, EDBL euskararen prozesamendu automatikoan zeregin desberdin askotarako oinarri lexikala da, hau da, arloko lan desberdinetan beharrezko diren lexikoien oinarri eta iturri.

50.000 sarreratik gora ditu datu-baseak, bakoitza bere kategoria eta informazio morfologikoarekin. Funtzioari buruzko hainbat informazio ere gehitu da, sintaxia eta semantikarako bidea irekiz. Hiztegi moderno eta zabala da, euskara batua oinarrian duena eta Euskaltzaindiaren erabaki/gomendioekin batera eguneratzen dena.

EDBLk honako ezaugarriak ditu: **helburu askotarako tresna** (analisi morfologikorako bezala beste mailetako analisiak egiteko oinarri egokia); **neutrala** (ez du formalismo jakin bati estuki lotuta egon behar); **malgua eta irekia** (edozein momentutan helburu berrietarako egokitzen erraza, informazio-mota berriak aise onartzen dituena) eta **erabilerraza** (erabiltzaile arruntari zein berezituari behar bezalako laguntzak eta erraztasunak eskaintzen dizkiona).

Bertan informazio guztia taula desberdinetan banatua dago ondoko adibidean errepresentatuta ikus dezakegun bezala:

TN_HS (Sarrera, Homografo-identifikadorea, Kategoria, Forma flexionatua, Hitz anitzeko sarrera, Eratorria, Hitz-elkarketa, Iturburua, Iturburuko forma)

(idazmakina, 1, IZE, –, –, –, +, K, idazmakina)

BIM_FORM (Sarrera, Homografo-identifikadorea, BIM-Forma, Jarraitze-klasea, Lexikoia)

(idazmakina, 1, idazmakinA, I, izenak)

IMS_IZE (Sarrera, Homografo-identifikadorea, Azpikategoria, Biziduna, Zenbakarria, Neurgarria, Plurala)

(idazmakina, 1, ARR, –, +, –, –)

IMS_ELK (Sarrera, Homografo-identifikadorea, Mugakizuna, Mugakizureren Homografo-identifikadorea, Mugatzailea, Mugatzailearen Homografo-identifikadorea, Elkarketa-mota)

(idazmakina, 1, makina, 1, idatzi, 1, ADI+I)

2. Analizatzaile Morfologikoa

Euskararen morfologia konplexua kontuan izanda (eranskaria) eta gaurko egoera ikusirik (batu berria, formalizatu gabea ikuspegi konputazionaletik behintzat), beste hizkuntzetan egindakoa aztertu eta Koskenniemi-ren [Koskenniemi 83] bi mailatako morfologiara jo dugu euskal morfologiaren tratamendu automatikoa gauzatu ahal izateko [Agirre eta beste 89], [Agirre eta beste 91].

Formalismo honen ezaugarri nagusiak bat datoz gure beharrekin: a) eredu orokorra da, edozein hizkuntzari aplika dakiokeena; b) baliagarria da hitzen analisi morfologikorako zein hitz sorkuntzarako; c) ezagutza linguistikoa eta algoritmoa bereiz daude, eta ondorioz, programa berak edozein hizkuntzatarako balio dezake; d) analizatu edo sortuko den hitzaren azaleko maila eta sakonekoa argi eta garbi bereizten ditu; ondorioz, ez dago aldaketa morfofonologikoengatik sor-

tutako morfema baten forma desberdinak gorde beharrik; e) fonologia sortzaileko berridazketa-erregelen ordez, erregela paraleloak erabiltzen ditu, sistema kontzeptual zein konputazionalki errazago bihurtuz.

Oinarrizko osagaiak **sistema lexikoa** (lexikoa bera bere jarraitze-klaseekin, hau da, lemaren atzean joan daitezkeen morfema-multzoekin) eta **erregelak** dira.

Azkenean lortzen den analisiaren emaitza horrelakoa da:

```
IZENA: amak
((forma "amak")
    ((anal 1)
      ((lema "amA")((KAT IZE)))
      ((morf "ak")((KAT DEK)(KAS NOM)(NUM P)(MUG M))))
    ((anal 2)
      ((lema "amA")((KAT IZE)))
      ((morf "ak")((KAT DEK)(KAS ERG)(NUM S)(MUG M))))
    ((anal 3)
      ((lema "amA")((KAT IZE)))
    ((morf "Ek")((KAT DEK)(KAS ERG)(MUG MG))))
```

3. XUXEN: Egiaztatzaile/Zuzentzaile Ortografiko Automatikoa


Goian aipatutako bi proiektuek albo-produktuak sortzeko aukera eman digute. Denetan behinena XUXEN egiaztatzaile/zuzentzaile ortografikoa izan da [Agirre eta beste 92].

Analisi morfologikoan oinarrituta dagoenez, hitz bat aintzakotzat hartzen da analisi posiblerik badu, eta bestela errore dela kontsideratuko du eta zuzentzeko prozesuan sartu. Oraingoz XUXENek ez du errore sintaktiko edo semantikorik detektatzen, hitz-forma hartzen baitu aztergai. Azaltzen diren erroreak ezjakintasunak eragindakoak izan daitezke (erregela eta azpilexiko berezien bidez konpontzen direnak) (2) edo tipografikoak (trigramen konbinazioen bidez konpontzen direnak).

EDBLko sarrerek osatzen dute hiztegia, nahiz erabiltzailearen hiztegi pertsonala sortzea ere posible den zuzendu nahi den testua oso espezializatua denean (medikuntza, kimika...).

Testu baten zuzenketa-prozesuan XUXENek hartzen duen itxura honako hau da, zuzen ez dagoen hitzaren ordezko aukerak eta guzti:

(2) Hizkuntzaren ezagutzari erreparatuz (ezagutza-eza normalizazioaren eraginarengatik, forma dialektalak erabiltzeagatik...) zenbait errore sarri gertatzen dira. Horiek aztertu eta sistematizazio-saio bat egin dugu bi mailatako azpisail paraleloa sortuz, gure sisteman egoki integratu ahal izateko eta sistemak berak horretarako aukera ematen zigulako.



4. **Analisi sintaktikoaren bideetan**

Bada hainbat lan aipagarri euskal gramatikaren inguruan (Euskaltzaindiaren *EGLU* [Euskaltzaindia 85], Patxi Goenagaren [Goenaga 80] *Gramatika Bideetan*, etab.), baina maila deskriptiboan mugitzen dira eta analisi automatikorako erregela finkoak dira beharrezkoak. Maila morfologikoan ez bezala, sintaxian horren falta nabaria sumatu dugu.

Sistematizazio konputazionalerako *Murriztapen-Gramatikak* [Karlsson eta beste 92] izeneko formalismoan oinarritu gara, euskararen kasurako egokiena delakoan. Testuingurua kontuan hartzeaz gain, informazio morfologikoan oinarritzen da analisirako eta desanbiguaziorako. Testu errealak helburu dituenez, korpusetatik abiatuta eraikitzen dira erregelak.

Lehenengo urratsak eman dira, oinarrizkoenak nahi bada, baina poliki goaz ezinbestean. Oraingoz desanbiguazioa (morfologia mailakoa, kategoriala, paradigmatik kanpokoa eta sintaktikoa) eta funtzioen asignazio sintaktikoak landu ditugu, hurrengo azterketarako oinarri izango direnak.

Hona hemen formalismo honekin lortuko dugun analisi sintaktikoaren itxura:

```
itsasoak ez du esperantzarik.

((forma "itsasoak")
    ((anal 1)
      ((lema "itsaso")((KAT IZE)))
      ((morf "ak")((KAT DEK)(KAS NOM)(NUM P)(MUG M))))
    ((anal 2)                                          @SUJ (@NORK)
      ((lema "itsaso")(KAT IZE)))
      ((morf "ak")((KAT DEK)(KAS ERG)(NUM S)(MUG M)))))

((forma "ez")
    ((anal 1)                                          @EZ_PART
      ((lema "ez")((KAT ADB))))
    ((anal 2)
      ((lema "ez")((KAT IZE))))
    ((anal 3)
      ((lema "ez")((KAT IZE)))
      ((morf "0")((KAT DEK)(KAS NOM)(MUG MG)))))

((forma "du")
    ((anal 1)                                          @+JADNAG
      ((lema "duE")((KAT ADL)(MDN A1)(NOR 3)(NRK 3)(ERR
*edun)))))

((forma "esperantzarik")
    ((anal 1)                                          @OBJ
      ((lema "esperantzA")((KAT IZE)))
      ((morf "Rik")((KAT DEK)(KAS PAR)(MUG MG)))))

((forma "."))
```

Sistema honen aplikazio nagusietako bat erroreak detektatu eta zuzentzeko oinarriak finkatzea izango da. Bestalde, baliagarria izango da testuen azterketarako, hizkuntzen irakaskuntzarako eta estilo-zuzentzaile gisa (idazketarako laguntza-sistemak), euskararen tratamendu automatikoa beharrezko duten beste aplikazio aurreratu askotarako bezalaxe.

5. **Informazio lexiko-semantikoaren erabilera**

Apenas landu den gaia dugu honako hau. Azpikategorizazioa osatu nahirik, hautapen-murriztapenak ezartzeari ekin diogu.

Batetik, hitzaren argumentuek bete beharreko ezaugarri semantikoak adierazten dituzten hautapen-murriztapenak ezarri ditugu. Hartara, *apurtu* hitzaren azpikategorizazioa kontuan hartuta, zuzentzailea gai izango da "lehio bat apurtu dut" esaldiko *lehio* hitz okerrari dagokion zuzena *lehio: lehia, leiho, lesio* proposamenen artetik bereizteko.

Bestetik, formalismoaren arabera, hierarkia semantiko baten barruan hitzen adieren arteko distantzia semantikoa neurtuko da. Beraz, *itsasuntzi eta kapitain* formen arteko distantzia "hurbila" izango da eta *itsasuntzi* eta *negar* formen artekoa, berriz, "urruna" [Agirre eta beste 94b].

6. Zuzentzaile aurreratua

3. atalean aipatu bezala, zuzentzaileak ez ditu errore sintaktiko edo semantikoak tratatzen, hitzaren analisira mugatzen da. Baina gure erronka testuingurua kontuan hartuko duen analizatzaile eta zuzentzailea bideratzea da [Gojenola 94]. Horretarako ezinbestekoak dira analizatzaile sintaktikoa (4. atala) eta semantikoa (5. atala).

Egun XUXENek (3. atala) ontzat ematen ditu *Joseba liburua ekarri du edo Gezurra eman dit* bezalakoak, testu-hitzak banaka gramatikalak baitira. Baina ergatibitatea eta azpikategorizazioa ez dira lehen maila honetan landu. Goiko puntuak landu ahala, zuzentzaile aurreratua posible izango da [Abaitua eta beste 92].

7. EUSLEM: EUSkararako LEMatizatzaile automatikoa

Proiektu honen helburua lematizatzaile/etiketatzaile sendoa eta erabilpen orokorrekoa (lexikografia, datu-base dokumentalak, sintaxia...) sortzea da, hitz-formetatik lemak lortu eta horrekin batera kategoria esleituko duen tresna [Aduriz eta beste 94]. Horretarako oinarri bezala erabili dira EDBL eta analizatzaile morfologikoa, bertan errore tipikoen tratamendua erantsi delarik.

Aurreko proiektuetan bezala, hemen ere ez dira formalizazio-arazoak falta izan, etiketa-sistemaren aldetik eta, orokorrean, oinarri linguistikoen aldetik. Teorizazio- eta sistematizazio-lan handia egin da gai honen inguruan.

Behar guztiei erantzuteko hitz anitzeko terminoek eskatzen duten tratamendu berezia aztertu da, lexiko gabeko lematizazioa prestatu eta estatistiketan oinarritutako desanbiguazio automatikoa ere landu da. Bestalde, zenbakiak, laburdurak, puntuazio-ikurrak, etab. aurreprozesatzen dituen tresna bat garatu da.

TESTU-HITZA	LEMA	ALDAERA LEMATIZATUA	KATEGORIA
testuko	testu	testu	IZE
baltzaren	beltz	baltz	ADJ
zuaitzeko	zuhaitz	zuaitz	IZE

8. Beste proiektu batzuk

Orain arte aipatutakoez gain badira lengoaia naturalaren prozesamenduaren inguruan beste proiektu edo asmo interesgarri batzuk, hauek ere euskararen tratamendu automatikoan lagungarri izan daitezkeenak:

8.1. **Lexikografia konputazionala** (Agirre, E., Arregi, X., Arriola, J. M., Artola, X., Díaz de Ilarraza, A., Sarasola, K., Soroa, A.): arlo honen barruan eraikitako hiztegi-sistema urgazle adimendunak (HIZTSUA [Artola 93] eta ANHITZ [Agirre eta beste 94c]) dira orain arte egindako lanak, hiztegiko ezagutza era inteligente batean ustiatu ahal izateko errepresentatuta daudenak.

HIZTSUA hiztegi elebakarra den bezala, ANHITZ itzulpenerako laguntza-sistema da, hots, hiztegi elebidunetan pentsatua dago.

8.2. **Elkarrizketen azterketa** [Zubizarreta 93]: pragmatika, diskurtso-azterketaren alorrean kokatua, gramatikak esaldiaren mailatik elkarrizketaren mailara eramatea du helburu, hau da, elkarrizketaren gramatika funtzional bat garatu da. Domeinutzat argazkigintza hartu da.

8.3. **Bigarren hizkuntzaren ikaskuntza-prozesuaren azterketarako sistema laguntzaile adimenduna** (Díaz de Ilarraza, A., Maritxalar, M.): linguistika, psikolinguistika eta adimen artifiziala biltzen dituen sistema honekin ikaskuntza-prozesuan gertatzen diren fenomeno konkretu batzuen azterketa egiten da (tartehizkuntza, fosilizazioa eta ikaslearen zenbait ikaste-estrategiaren eragina aurreko bietan). Horretarako euskaltegietako ikasleen testuak erabiltzen dira eta elkarlana suspertu.

8.4. **Korpusaren estandarizazioa eta aberastea** (Alegria, I., Ezeiza, N.): Europa mailan erabiltzen ari diren estandarrak eredutzat hartuta, biltegituta dauzkagunak haietara egokitu eta testu gehiago gorde nahi dugu.

8.5. **AHOZKA** (Hernaez, I., Etxeberria, P., Txillardegi): ahotsa sintetizatzeko garatzen ari den proiektua. Makinen eta gizakien arteko harremanetan makinak gizakiari eman beharreko mezuak idatzizko hizkuntzaz eman ordez ahozkoaz ematea da iharduera honen oinarrizko helburua.

ONDORIOAK

Aurreko puntuetan euskararen tratamendu automatikoa bideratu ahal izateko beharrezkoak diren tresna eta moduluen aurkezpentxoa egin da eta zein ingurune eraiki den aipatu. Baina ez da automatizazioa helburu bakarra; izan ere, horren aurretik hizkuntzak normalizatua behar du eta hutsune hori sumatu dugu zenbaitetan, gehienetan deskribapen hutsa aurkitu dugulako eta sistematizaziorako ez da nahikoa. Horregatik, gure saioa hankamotz gera daiteke.

Gure aurkezpena egiteko aukera eman zaigunez, ez genuke aipatu gabe utzi nahi diziplina arteko elkarlanaren beharra, gramatika finkatu ahala arlo guztietara

aplikatu ahal izango dugulako eta, azkenean, euskara bera ere automatikoki tratatzea amets baino errealitate izango delako.

Bestalde, tresna hauek, euskara lantresna duen edonorentzat baliagarri ere badira, gure altxorra biltegiratua edukitzea eta zuzenean ustiatzea ezinbestekoa baita luza gabe.

ERREFERENTZIAK

[Abaitua eta beste 92] Abaitua, J., Aduriz, I., Agirre, E., Alegria, I., Arregi, X., Arriola, J. M., Artola, X., Díaz de Ilarraza, A., Ezeiza, N., Gojenola, K., Maritxalar, M., Sarasola, K., Urkia, M., Zubizarreta, J. R.: *Estudio comparativo de diferentes formalismos sintácticos para su aplicación al euskara* (barne-txostena UPV/EHU/LSI/TR-193), 1992

[Aduriz eta beste 94] Aduriz, I., Aldezabal, I., Alegria, I., Artola, X., Díaz de Ilarraza, A., Ezeiza, N., Gojenola, K., Urkia, M.: "EUSLEM: Un lematizador/etiquetador de textos en euskara", in *SEPLN*, Córdoba, 1994.

[Agirre eta beste 89] Agirre, E., Alegria, I., Arregi, X., Artola, X., Díaz de Ilarraza, A., Sarasola, K., Urkia, M.: "Aplicación de la morfología de dos niveles al euskara", in *SEPLN (8)*, Barcelona, 87-102, 1989.

[Agirre eta beste 91] Agirre, A., Agirre, E., Alegria, I., Arregi, X., Artola, X., Díaz de Ilarraza, A., Goenaga, P., Maritxalar, M., Sarasola, K., Urkia, M.: "Bi mailatako morfologiaren euskararako egokitzapena", in *Elhuyar*, 1991, 7-14.

[Agirre eta beste 92] Agirre, E., Alegria, I., Arregi, X., Artola, X., Díaz de Ilarraza, A., Maritxalar, M., Sarasola, K., Urkia, M.: "XUXEN: A spelling checker/corrector for Basque based on two-level morphology", in *Proceedings of the Third Conf. on Applied Natural Language Processing* (ANLP'92), Trento, 1992, 119-125.

[Agirre eta beste 94a] Agirre, E., Arregi, X., Arriola, J. M., Artola, X., Insausti, J. M.: *Euskararen Datu-Base Lexikala (EDBL)* (barne-txostena UPV/EHU/ LSI / TR 8-94), 1994.

[Agirre eta beste 94b] Agirre, E., Arregi, X., Artola, X., Díaz de Ilarraza, A., Sarasola, K.: "Conceptual Distance and Automatic Spelling Correction", in *Workshop on Comp. Linguistics for Speech and Handwriting Recognition*, Leeds University, 1994.

[Agirre eta beste 94c] Agirre, E., Arregi, X., Artola, X., Díaz de Ilarraza, A., Evrad, F., Sarasola, K.: "Sistema Diccionarial Multilingüe: aproximación funcional", in Boletín *SEPLN* 1, 313-333. Santiago de Compostela, 1994.

[Artola 93] Artola, X.: "HIZTSUA": Hiztegi-sistema urgazle adimendunaren sorkuntza eta eraikuntza / Conception d'un système intelligent d'aide dictionnariale (SIAD)" Doktorego-tesia, EHU, 1993.

[Euskaltzaindia 85] Euskaltzaindia: *Euskal Gramatika: Lehen urratsak* (I, II eta III). Euskaltzaindia, Bilbo 1985, 1990.

[Euskaltzaindia 91] Euskaltzaindia: *Euskaltzaindiaren Gomendioak eta Erabakiak* (I eta II), 1992.

[Goenaga 80] Goenaga, Patxi: *Gramatika Bideetan*, Erein, Donostia, 1980.

[Gojenola 94] Gojenola, Koldo: "Aplicación de la relajación gradual de restricciones para la detección y corrección de errores sintácticos", in *SEPLN*, Córdoba, 1994.

[Karlsson eta beste 92] Karlsson, F., Voutilainen, A., Heikkilä, J., Anttila, A.: *Constraint Grammar: A language-independent system for parsing unrestricted text* (eskuizkribua), Department of General Linguistics, University of Helsinki, 1992.

[Koskenniemi 83] Koskenniemi, K.: *Two-level Morphology: A general Computational Model for Word-Form Recognition and Production*, University of Helsinki, Department of General Linguistics. Publications 11, 1983.

[Díaz de Il. & Maritxalar 94] "An Icall System for studying the learning process", in *Computers in Applied Linguistics Conference*, Iowa State, USA, 1994.

[Zubizarreta 93] *Un modelo funcional para diálogos orientados por la tarea*, Doktorego-tesia, EHU, 1993.

AHOSKERA ARAUPETZEAZ *

Leioa, 1994.10.07
Miren Lourdes Oñederra

I. ALDEZ AURRETIKAKO GOGOETAK

I.0. Aurkezpena

Hona dakardan lan honen atzean batzorde osoa dago, Ahoskera batzordea, Euskaltzaindiaren batzordeen artean berriena. Ikasturte exkaxa eman dugu lanean (zortzi hilabete ere ez, zazpi bat bilera guztira), beraz berriena eta gazte xamarra dela esan daiteke. Garbi dago, beraz, beste batzorde batzuen emaitzetan puntu irekiak badaude, gurean nahikoa lan izan dugula puntuak berak kokatzen.

Euskara Batuaz lehen erabakiak hartu zirenetik nahikoa denbora pasa da, batzuen ustez gehiegi, ahoskeraz, baina orain arte Euskaltzaindia ez da hasi ahoskera batuaz edo batuaren ahoskeraz (ez dira gauza bera) lanean. Garbi dago gauzak modu praktiko eta errealistan egin behar direla, lehentasunak lehentasun direla eta hizkuntzen estandartzeak idatzitik hasi ohi direla. Egia da, halaber, ahoskera kontuak bereziki labain, irristakor eta harrapagaitzak izaten direla.

Ahozkoaren arautzean idatziarenean baino askoz beharrezko eta garrantzitsuago da arauemaileek kontuz neurtu eta erabiltzaileei ongi azaltzea zer, zergatik eta zertarako (erabiltzaileen eskabidea, beharra eta baimena), noraino arautzen den, zer arau daitekeen eta arautu nahi den. Gainera, idatziaren arautze orokorretik nahikoa denbora pasa da eta idatziaren arazoak ahozkoarenak baino xumeagoak izan balitezke ere, nahikoa azaldu gabeko arautzearen kaltea apalagoa baliteke ere, bada, badago: kaltea eta esperientzia (1). Horregatik, ahoskerari buruzko lehen saio honetan galderak sortzeari ekin nahi izan diogu erantzunak zerrendatzeari baino areago: goiz da horretarako. Galderak sortzen hasi aurre-

* Mitxelenari, euskarari hizkuntzalaritzatik begiratzen irakatsi zigulako.

(1) Euskara batuaren arau eta paradigmak kaleratu dira, baina ez euskara batua noiz den egoki, zertarako den, nork erabili behar duen, zenbaitetan ulertzea nahikoa ote den, e.a.

tik, noski, zer nolako galderak egin daitezkeen galdatu diogu geure buruari.

Izan ere, edonork ulertuko du urrian hasi eta apirilean amaitutako lana ez dela nahikoa hizkera estandarraren ahoskera finkatzeko, finkatzearen nondik-norakoak erabakitzeko ere ez baita nahikoa. Lan itzela gelditzen da oraindik, lan teoriko eta praktikoa, ikerketa eta datu bilketa. Uste dugu, gainera, alor askoren gurutz bidean gaudela. Gogoan izan behar direnen artean iritzi eta sailkabide psikolinguistikoak, soziolinguistikoak eta linguistikoak (dialektologiazkoak, fonetika eta fonologiazkoak, hizkuntzaren historiari dagozkionak) daude gutxienez.

Batzordekideen artean bada dialektologilaririk, fonetikaririk, filologilaririk, soziolinguistarik eta, etiketak etiketa, hizkuntzaren errealitatea ahal bezain osoen aintzat hartzea da gure asmoa. Hasi, fonologiatik hasi gara. Zergatik? Nonbaitetik hasi behar zelako eta Fonologia izanik gure gaitasun linguistikoan hotsen kudeatzearen erantzukizuna duena, bizkar hezur teorikoa ematen zigulako gerora gainerako alorrak uztartuko dituena. Izan ere ahoskeraren izaeraren funtsa fonologia da eta ez naiz gremioaz ari, gremiokoek aztergai dugunaz baizik, hiztunak hizketa-hotsak atera ahal izateko duen baliabide akustikoaz baizik. Ez da esan nahi arazo dialektologikoez ahaztu egin garenik, azterketa fonetikorik nahi ez dugunik, hots-ordezkatzeen historia poliki ausnartu beharra ikusten ez dugunik, arazo soziolinguistiko eta psikolinguistikoak ukatzen ditugunik; alor guztiok mahai gainean dauzkagu oraingoz eta ezinbestean, maila inpresionista xamarrean bagabiltza ere. Ikasturteak ematen duena ematen du. Beraz, lehen kolpea fonologiatik eman dugu bidea ixten duten sasiak kentzeko saioan. Oraindik asko dago egiteko, alor guztietan, baita fonologiarenean ere.

I.1. **Batzorde honen egiteko zehatzaz**

Euskara Batuaren ahoskeraz erabaki daitekeena mutur biren artean koka genezake. Muturretara begiratuta, beti egoten dira bi aukera gutxienez eta, sarritan behintzat, tarteko bideak ere bat baino gehiago izaten dira bilatzen hasiz gero:

a) Euskalkien artean nahikoa zabalera duten hots-ordezkatze guztiak egitea, alegia, hotsen arteko lotura eta elkar-eragin guztiak.

b) Ezer ez "egitea": alegia, idatzi bezala irakurtzen saiatzea.

Batak zein besteak alderdi txarrak dituzte. Lehen aukerak (a) monoestilismoa lekarke, gertatzen direnak ez baitira hizkera maila berekoak, asko eta asko hizkera arduragabe lasaietako ezaugarri direlarik (e.g.

egin [ejn], [in] edo *ari da* [ajða] eta, oro har, kenketak, hotsak "jateak"). Gainera, moeta honetako ahoskerek ez dute oro har ahoskera batzeko balio, leku bakoitzak bere moldabideak izaten baititu askotan.

Bestalde, bigarrenak (b) ez lekarke fonologiarik gabeko hizketa, hori ez baita posible: hizkuntza fisiko egiteari, ahoskatzeari, hizkuntzaren unitate fonologikoak hots bihurtu eta kateatzeari zor dio (ezinbestean) gizakion hizkuntzak fonologia izatea. Gure kasuan, historia luzea labur kontatuaz, aukera honek lekarke besterik gabe erdarazko fonologiaz baliatzea aukera sortzen den guztietan. Adibidez, <zd> letra bilkura "idatzi bezala irakurtzen" bada [zd] ahoskatzen da, bigarren datorren [d] hotsak aldaerazten duelarik berez euskaraz ahoskabe ([s]) denaren ahoskera: *ez da* ahoskatzeko bi era daude [ezda] edo [esta], bietan "zerbait egiten" da. Bigarren bide hau (b) beraz faltsua da, ez da itxurazko aukera baizik.

Egokien litzateke, ahal izanda, lehen bidetik (a) abiaturik hizkera maila bakoitzari dagozkion ordezkatze fonologikoak bilatzea. Lanaren erraldoitasunak guztiari ekitea ezinezko egiten du eta, gainera, agian ez da beharrezko ere hasiera honetan. Bestalde, normalduetan usuenik arautu ohi dena hizkera jasoa izaten da, estandarra, hau izan ohi delarik ezagutu eta gogoan izaten den neurrian, besteentzako erreferentzia. Alegia, estandarrarekin inolako harremanik ez duen hiztunarentzat ez dago horrelako erreferentziarik bere eguneroko normak ematen diona baizik; estandarra ezagutzen duenak gehiago edo gutxiago erabiliko du arau soziolinguistikoen arabera eta bere ezaugarri psikolinguistikoek baldintzatuta (2). Hasteko modua izan daiteke, beraz, hizkera zainduaren ahoskeraren arautzeari ekitea. Honen aldekoak labur bildurik:

a) Besteak ere honela aritu bide direla, hori delarik linguistikoki zentzuzko gertatzen den norabidea.

b) Eusteko moduko neurria (halaz ere handia) eta bidea eskaintzen digula eginkizunak.

c) Erabilera eremuak mugatu(ago)ak eta erabiltzaileak ikasiagoak izan ohi direlarik (daitezkeelarik behintzat), arauaren hedatzea errazagoa dela. Askotan erabiltzaileak hizketaren profesionalak dira (esaterako, irrati-telebistetako esatariak) eta eredu-hedatzaile izateko egokiera eta ahalbideak dituztenak.

(2) Hiztun moeta ezberdinak daude ezpairik gabe. Hemen sartzen dira estandarrarekiko interpretazio, jarrera, aurreiritzi, estereotipo, identifikazio mailak, e.a. Beti daude besteak baino "dotoreago" edo "pedanteago" (nondik begiratzen zaion) hitzegiten dutenak, zabarrago direnak, e.a. Honetxek osatzen du hizkuntza normalduaren unibertso fonologikoa: normaldu gabeetan ordea arau baturik ezak zatitu eta ahuldu egiten ditu normalduetan aberastasun diren arau txiki askoitzak.

Gauzak horrela, estilo eta hizkera maila guztietatik datuak jasotzeko helburua baztertu gabe, beraz, erabaki dugu hizkera maila edo erregistro zainduaren arautzerako lanari ekitea. Gainera, egin baliteke ere, ez luke zentzurik hizkera maila arruntak, bapatekoak, araupetzeak. Ez luke zentzurik definizioz, horrelakoak hiztunek erreferentziatzat hartzen den arau edo norma jantzitik eratorriak izaten baitira. Alegia, hizketa lasai arduragabearen ahoskera ez da "ikasia" (estudiatua, nahita eta jakinaren gainean ikasia) izaten, espontaneoa eta ohargabea baizik.

I.2. **Hizkera-mailen definizioaz**

Dena dela, hizkera mailak zenbagaitzak dira, hain zuzen ere desberdintasunak era eta maila askokoak direlako, eta ezin delako erabateko mugarik aurkitu bataren eta hurrengoaren artean. Onenean, erabaki praktikoen pedagogia helburu hartzeak justifika lezake xehetasunetatik abstrakzio eginik gutxieneko sailkapen hau: hizkera *zaindua (jasoa)* vs. *arduragabea.* Fonologian bereziki egoki gertatzen da "zaindua" esatea, hain zuzen ahoskerari arreta jartzea errazten duten egokieretako hizkeraz ari gara: irakurtzean, entzulego handi edota ezezagunaren aurrean eta antzekoetan erabiltzen denaz. Irakurtzean errazago gogoratzen da bat hots unitateez; halaber, entzulea fisiko edota psikologikoki urruti dagoenean mezua uler dadin ahalegin handiagoa egiten da eta hots katea kontu handiagoz ebaki ohi da konsziente edo inkonszienteki. Normalean prosodiak ere (erritmoak, ahotsaren indarrak), hainbatik hainbatean behintzat, hotsen oharmena zaindu ahal izatea errazten du.

Hizkera zainduan maila edo erregistro neutroak eta ez-horren-neutroak bereiziko nituzke (3). Hemen zaindu-neutroenez ari garela esango nuke, irrati-telebistetako berri-emanaldietakoez edo.

Izan ere, litezkeen kasuetara joaz, neutrotasun handiagoa eska dakioke *ceteris paribus* irrati-telebistako albisteak irakurtzen dituenari literaturazko hitzaldia ematen duen idazleari baino, agian azken honi baino gehixeago literatur kritikoari eta, albiste aurkezleari baino gutxixeago, elkarrizketak egiten dituenari, e.a. (kasuan kasuko hierarkiak egin litezke). Normaltzat jo genezakeen aldakortasunaren beste adibide bat: hizlariak *esatea* [-ea] ahoskatzen du hitzaldian, entzulego osoari ari zaionean, baina [-ia] hitzaldiaren ondorengo eztabaidan galdetzaile bakarrari erantzu-

(3) Gainera, batzuetan moetak gurutzatu eta korapilatu egiten zaizkigu, neutrotasuna ez da beti zainduarekin bat datorren neurria, batzuetan kontrakoa ere izan baitaiteke: poesia irakurtzeak neutrotasunik gabeko ahoskera zaindua eska lezake beste kasuetan artifizial litzatekeenera ere irits daitekeelarik ([h] ahoskatzera, esaterako).

tean. Honelakoak hiztunok distantzia eta hurbiltasuna adierazteko erabili ohi ditugu hizkuntza guztietan.

Praktikotasunak justifika dezakeenak, noski, ez digu ahaztarazi behar ingurune, egoera eta eduki moeta bakoitzak bere eskakizunak dituela ahoskeraren neutrotasun-naturaltasunaren (bapatekotasunaren, bizitasunaren, adierazgarritasunaren) ardatzean. Areago, albora ezinekoa da hemen hiztunaren araberako aldakortasuna, aurreko elemenduak baino *inprebisibleagoa* eta kontrolagaitzagoa dena. Aldakortasun hau handiagoa da, noski, normalizatu gabeko hizkuntzetan, hiztunari gizarte arauaren erreferentzia kolektiboa falta baitzaio (lotsa edo ausardien subjetibotasuna indartzen delarik).

Horretaz gainera, jakinaren gainean izateko beste zerbait ere bagenuke. Ematen diren arauak direnak direla ezinbestekoa da gutxieneko artifizialtasuna. Ez dago ahoskerara iritsi beharrik jabetzeko *det* edo *dot* esatera ohitu garenok *dut* esatean sentitzen dugun artifizialtasunaz. Horretan ere hiztun batzuk besteak baino malguago izaten dira, egoera batzuek beste batzuek baino areago errazten dute erabilera batua eta, jakina da, beste zenbaitetan, soberan legoke *dut* esatea (ez da berdin, esaterako, hitzaldi mikrofono aurrean irakurtzea edo adiskide batekin mundua konpontzen aritzea goizeko ordu txikietan).

Azkenik, bada ereduen indarraz kontuan hartzeko beste zerbait ere. Jakinaren gainean gaude eta oso aintzakotzat hartzekoa da arauak euskara zaindu eta jasorako proposatzen badira ere, gainerako erabileretarako eredu eta erreferentzia izango direla. Hori hala izaten da beti, baina hizkuntza ez normalduaren kasuan (hiztun klaseak gutxiago eta "ikasien" proportzioa handiagoa izanik) arriskua da hizkera zainduenerako artamendatzen ez denak "puntuak galtzea" hiztunak egiten duen hizkuntzaren balioztatzean. Beldurra da, alegia, <ea> bilkuraren irakurketa zainduarako [ea] proposatzeak, esate baterako, ez ote duen [ia] edo [ie] ahoskatzeko ohitura duen jendea berea *(semia, semie)* baztertzera bultzatuko. Nahikoa kalte gertatu da alderdi horretatik idatzirako arauen okerulertzearekin.

Saia gaitezen, beraz, agindu manikeoegietatik ihes egiten. Ez genuke esan behar "hau ona da, beste guztiak *fuera*". Berezkoa bada (hizkuntzen fonologiaren araberakoa) hotsen ahoskera egoerari eta entzuleari egokitzea, eman diezaiogun hizkuntzari berea eta ez dezagun pentsa "ongi" ahoskatzeagatik, "batuan" ahoskatzeagatik, beti eta guztiok berdin ahoskatu behar dugunik.

Horregatik, berriro esan, gure proposamenak maila jasorako eta erabilera zainduetarako dira. Hemen ez da esaten euskalkiak nola ahoskatu.

I.3. **Ahozkoaren berezitasunez**

Bistan da ahozkoa eta idatzia ez direla gauza bera, baina lotuak daudenez, iruditzen zaigu komeni dela diferentziak benetan zein diren ikustea sinplekerietan erori gabe. Erosoa litzateke bakoitzari ezaugarri bat emanez arazoa konpontzea, baina gauza errazek askotan ez dute egia osoa esaten. Egia da idatzia ikusmenaz jasotzen dugula, baina egia da, halaber, begiz jasotzen dugun hori ahoz kanporatzean kode bien arteko korapiloa askatzea ezinezkoa dela batzuetan. Hemen agertuko ditudanak ez dira noski ahozkoak idatziarekiko dituen bereizgarri guztiak, baina bai gure lanaren oinarri-oinarrian behar luketenak behintzat.

Besteren edo bestelako hizkuntz eredu bat ikasi eta erabili beharrak hiztunari lana eskatzen dio beti (arauak eta hitzak ikastea funtsean), baina, ahoskera denean ikasi beharrekoa, zailtasuna bete-betean artifizialtasunaren ardatzean agertzen da. Horregatik hiztuna kanpotikakotzat jo litzakeen arauen aurka jartzea errazago gerta daiteke gramatikaren, hiztegiaren edo are idatziaren arautzean baino.

Hiztuna jakinaren gainean edo bestela identifikatu egiten da nahita edo nahigabe egin dituen ahoskera hautaketekin. Zailago gertatzen da, hartara, ahoskera arautzea idatzia, ortografia, arautzea baino. Bestela esan, errazagoa da <h> idazten ohitzea, <j> idazten denerako [x] belarearen ordez [j] palatala —esate baterako— ekoiztea baino.

Helmuga eta bideen inguruan beharra (eredu bateratu batena) vs. borondatea (erabiltzaileena) ongi neurtu beharreko gauza dira. Hitz egitea, hizkuntza ahoskatzea, hotsak atera eta entzutea eguneroko bizitzako gertakizun arruntak dira. Idatzia eta hizkuntzaren arteko harremana ez da hain zuzen eta bapatekoa, idatzia, ahoskera ez bezala, berariazko eta gogoeta baten ondorio baita. Badu, ordea ahoskerarako garrantzirik, irakurtzen ikasiz gero, idatziak ahoskera eragin baitezake, batipat, gurean gertatzen den bezala idazkera "fonetiko" deitzen diren horietakoa izanik.

Bada ortografia eta ahoskeraren arteko beste bereizgarri bat, zalantzarik gabeko diferentziaren adibide on izateaz gainera, geure helburuak neurtzerakoan oso kontuan hartu beharrekoa: ortografia batu eta bakarra posible da, baina, ahoskera baturik bada ez da inoiz erabat bakarra izango. Ahoskerari buruz aritzean ez da hizkera estandarra esaten normalean, hizkerak edo aldaerak, baizik, pluralean alegia.

Esango nuke hauek guztiak kontuan hartu gabe hutsala litzatekeela gure iharduna, kaltegarri ere gerta litekeela eta, agian, itsumustuan arautzen hastea baino hobe litzatekeela gauzak daudenean uztea. Uste dut gure lana ezin daitekeela izan arau zerrenda ateratzea, ez dela hor bukatzen eta, hasi ere, ez genukeela hortik hasi behar.

II. ABIABURU ZEHATZ BATZUK **

Irakurriaren ahoskera harturik berehalako helburu, letra edo letra bilkura batek euskaraz eskuarki zein balio fonetiko duen, nola ahoskatzen den alegia, zerrendatzeari ekin genion. Egiteko horrek ez du batere arazorik sortzen, teoriatik behintzat, guztion arteko adostasuna dagoenean, euskalki eta hizkera guztietan berdin ebakitzen diren letrekin.

Problemak bestelakoekin ditugu, hiztun batzuek era batera, beste batzuek bestera esaten ditugunekin, aukera bat baino gehiago eskaintzen digutenekin. Hiru bide dauzkagu aurrean:

a) Aukera bat hobestea eta bestea txartzat ematea.

b) Aukera bat hobetsiaz besteari ere lekua uztea.

c) Aukera biak bere horretan uztea.

Mutur bietakoez hitz pare bat esan nahi nituzke: (a) litzateke erosoen psikolinguistikarik gabeko robotak bagina eta egia da hizkera formalagoetan, neutroagoetan, zainduagoetan geundekeela robotetatik gertuago egoera intimoagoetan baino, baina halaz ere ez nahikoa gertu. Aukera honek, noski, estilo eta hizkera mailen arteko diferentziarik gabeko hizkuntza murriztua emango liguke.

(c), berriz, araurik ez ematea da eta batzuetan, apika, ez da beste erremediorik egongo, baina prozedura orokor bezala ez dirudi oso egoki. Problemak ditu bederen. Irteera honen eske "tokian tokikoa" aldarrikatu izan da, baina horrek ez du batere balio Gasteizen eta ez du erabat balio tokietako mintzo bizia ez denean oro har maila formaletarako erabili (edota erabiltzen). Gainera, hain zuzen ere, tokian-tokikoaren balio hori —hizketa bizi, adierazgarri, eguneroko, bapatekoarena— bere horretan ari da sendotzen Batuaren ondoan, hau izanik formalagotzat jotzen dena. Hala behar luke behintzat.

Dena den, tokian tokikoa gaindituko lukeen aukera aurkituta ere, ezin izango zaio ahozkoari erabat kendu tokikotasuna, hizkerarik neutroenak ere izan behar du koloreren bat sinesgarri (erabilgarri) gertatuko

---

** Atal honetan batzordearen bilkuretan eztabaidatu eta onartuak jasotzen ahalegindu naiz. Neure esker ona, beraz, batzordekideei. Okerrak, noski, nire-nireak dira.

Hasieran aipatu bidegurutzean (ikus I.0.) fonologiaren bidean barrena abiatuta, analisi fonologikoak eskaintzen dizkigun irizpideen laguntzaz ematen ditut honako abiapuntu alegiazkoak.

Gorago bezala, <...> honelako ikurren artean agertzen dena ortografia da (hitz osoak aipatzeko letra etzana erabili da); [...] honelakoen artekoa, transkripzio fonetikoa (ahoskera, beraz); /.../ honelakoen artekoa, ahoskera posibleetarik oinarrizkotzat hartu izan dena. Transkripzio fonetikorako A.F.I.ko ikurrak erabili dira.

bada. Inportantea da B. Hurch-ek bilera batean gogoratu zigun bezala, proposatzen duguna egungo ahoskerekin konpatiblea izatea, errealista eta gutxieneko naturaltasuna duena. Halaz ere, hasieran batipat, ahoskera formal "batua" izaten ohitu arte, beti izango da zertxobait artifizial, ikasiari eta konbentzioz onartuari dagokion bezala.

Esandakoak direla medio, nolabait hiztun bakoitza noraino iristen den aske utzi behar da (ezinbestean, gainera, ahozkoaz ari garelarik). Honekiko pare bat gauza:

a) Agian askatasun horretatik kanpo geratuko lirateke irrati-telebistetako profesionalak eta kidekoak (beren zeregin profesionaletan ari direnean).

b) Askatasunak ez du esan nahi gidaritzarik eza, hizkuntza dagoen egoeran egonik batipat (euskalkien arteko zatiketa eta erdarekiko menpekotasuna gogora hemen), kontrakoa baizik.

Halaz ere, esatari profesionalak ere gizakiak dira eta giza hizkuntzari aldagarritasuna dagokio. Ezin ditugu bada aukera guztiak azken muturreraino bultzatu. Proposatzen ditugunak, hobeto esan, proposatzeko modukotzat jo ditugunak, lehentasun estatusa dute: lehen aukera lirateke, ez derrigorrez bakarra. Eta lehenak lirateke, hasieran azaldu denez fonologiatik hasi garelako, batipat irizpide fonologikoei jarraiturik. Zer esan nahi du honek? Kontuan izanik ahoskera zainduaz ari garela, ikusi dugu, euskararen nolakotasun fonologikoa eta orotariko fonoestilistikaren legeak aintzakotzat hartuta, zein aukerak dituen hizkera formalerako ezaugarri fonologiko hobeak.

Hona bada gauzak nola dauden, lehenengo bokalak eta gero kontsonanteak, gutxi gora-beherako hurrenkera alfabetikoan:

II.1. **Bokalak berex**

<a, e, i, o, u> idatzi bezala ahoskatzen dira.

<u> ren **[y]** ahoskera palatala ahoskera batutik kanpo geratzen da (euskalkietarako). Garbi dago beren ahoskera-paradigmetan [y] duten hiztunen ebakeratik hots hori kentzea zaila litzatekeela eta ez lukeela zentzurik, gainera.

II.2. **Bokal elkarketak**

<ea> eta **<oa>** idatzi bezala ahoskatzen dira ([ea] eta [oa]). Daitezkeen ahoskerez (adib., **<ea>** /ea/: [ea], [ia], [ie], [i:], [i]) esan

behar da ahoskera zainduena [ea] litzatekeela; hala ere, bilkura hori [ia] ahoskatzeak formaltasuna gutxitzen dio hizkuntzari, baina ez zuzentasuna. Hortik aurrerakoek, areago.

<ia> eta **<ua>** idatzi bezala ahoskatzen dira; [ija] eta ondorengoak ez dira gaitzesten, beste hizkeretarako uzten baizik. Hemen, aurrekoan baino areago, garbi ikusten da dialektologiazkoa irizpideak erabili ditugula (alegia, [ija]-ren ondoan [iʃa] eta [iʒa] ere badirela). Bestela ez zegoen fonologiazko arrazoirik eransketa hau hizkera zaindurako ez proposatzeko.

Diptongoak: oro har, beheranzkoak bai, goranzkoak ez. Alegia, bokal bilkuraren bigarrena <u> edo <i> bada, silaba bakarrean ahoskatuko dira biak (honek, noski <ui> bilkura ere jasotzen du), bestela, ez.

Batasunaren eta bereizkuntza semantikoen izenean salbuespen bakarra tartean <h> idazten denean gerta liteke (e.g. *ahula, nahiz*). Honetaz ez dago erabateko adostasunik gure artean. Dena den, hiztun batzuek batzuetan behintzat (erregistro zainduenetan esango nuke) hiatoa egiten dutenez (bokal bilkura silaba bitan ahoskatzen dutenez, alegia), ez dugu arbuiatzeko arrazoirik ikusten.

II.3. **Kontsonanteak berex**

<b, d, g> Idatzi bezala ahoskatu. Arazoak <e> eta <i>ren aurreko mailebuetako <g>az gerta litezke (ik. beherago <j>).

<f> Idatzi bezala ahoskatu.

<h> Ezin da inola ere gaitzetsi hizkeraren formaltasunaren izenean (batipat fonetikoki bizirik duten Iparraldeko hiztunak gogoan), baina eskatzea gehiegizkoa gerta liteke Hegoaldeko hiztunentzat. Ez litzateke onartu behar, noski <h> [x] ahoskera. Bada arazo txiki bat *zihoan* bezalakoen grafiek sortua, usuenik [x] (belarraz) ahoskatzen baitira Hegoaldean <h> horiek.

<j> Arazoa honen ahoskera belarrak ([x]) sortzen du; horretan <e, i>ren aurreko maileguetako <g> ere lagun du.

Aintzat hartzekoak dira euskalkietan aurki daitezkeen ahoskera guztiak. Aukera egin behar al da? Aukera bakarra egin behar al da? Zeren arabera egin behar dugu aukera, zeintzuk dira irizpideak? Bat proposatzekotan, hedaduragatik eta iturburu izan ohi delako (bai diakronikoki ala izan delako askotan, bai

sinkronikoki hobeki azaltzen delako alderantzizkoa baino), [ɫ, j] bultzatuko genuke.

Hortaz eta hasierakoetarako behintzat, [f] hautatzen da. Beraz, [f-] lukete *jan, jaun, janari* bezalakoek hizkera zainduan. Gelditzen dira, halaz ere, arazoak. Esaterako, nola ahoskatu behar litzateke *garajean* ? Eta beste asko: *gaj̨oa, gizarajoa, ijitoa*, e.a.? Zerrendak osatu-aztertu-sailkatu behar ditugu eta ortografi arazoen azterketan dabiltzanekin elkarlana mesedegarri izango litzaiguke guztioi.

<k, p, t> Idatzi bezala ahoskatu.

<l> Idatzi bezala ahoskatu.

<ll, (il)>:

a) Hemen honen ahoskera albokari ala erdikarian sortu da berriki arazoa, jakina baita gure artean ere gero eta maizago gertatzen dela *yeismo* deritzon sabaikariaren des-albokaritzea. Honi buruzko nere iritzia beste batzuena bezain dramatikoa ez bada ere, esango nuke ia zalantzarik gabe hizkera zainduetarako ebakera albokaria proposatu beharko genukeela. Honen irakaskuntzarako ebakera eta oharmenaren aldetik dauden arazo fonetikoen jakitun ere izan behar dugu, dena den. Badira kazetari euskaradunak <il, ll> [f, j] egiten dutenak eta ez beza inork hau salaketatzat hartu, erabakia onartuz gero egin beharreko lanaren neurritzat baizik. Yeismo hori konpontzeak lanbide horietarako ahoskerazko prestakuntza sistematikoa eskatuko luke.

b) Jakina da, bestalde, euskaldun *despalatalizatzaileek (sensu lato)* albokariaren palataltasuna aldamenean dagoen edo sortzen duten [i] bokal hotsari egozten diotela. Hain zuzen ere beraiek eman bide digute *teila* bezalakoak euskara batuan idazten ditugun bezala idazteko bidea eta baimena (cf. *teg'la* > *tella*). Beraz, eztabaidatu beharko dugu <il> idazten den hori [il] ala [iʎ], [(j)ʎ] ahoskatzea proposatu behar den (ik. beherago II.5. bokal-kontsonante elkarketei dagokien atalean).

<m, n, ñ/in> Bustiduraren arazoaz, ikus albokoez esanak.

<r, rr>:

<r> [ɾ] (bakun) bokalartean dagoenean bakarrik ahoskatzen da, bestela dardarkaria anizkuna delarik.

<rr>, noski, beti anizkun [r] da.

Jakina da hitz azkenekoa anizkun izanik ere, bokalarteko anizkuna baino ahulagoa izan ohi dela eta honetan diferentziak egon daitezkeela euskalkien artean. Badira, beraz, dialektologia eta fonetikaren aldetik

kontuz aztertu beharreko datuak batipat ipar eta ekialdeko hizkeretan. Arau orokortzat, dena den, esandakoa hartzen dugu. Kontuan izan behar da, gainera, ziurrenera hitz azkeneko neutralizazio bizi –maileguen egokitzean ere erabiltzen da– horren azpian dagoen arrazoi perzeptiboa ere (askoz hobeto "entzuten" dira hitz azkenean dardakariak, dardar egiten ez duten bakunak baino). Argi dago perzepzioa hobetzea ongi datorrela oso hizkera maila zainduarekin.

<s, z>, <ts, tz> Hizkera zainduenetarako bizkarkaria eta apikaria bereiztea proposatu beharko litzateke. Honek, onartuz gero, lekarke irrati-telebistetako esatari batzuek ikasi eta bereziki trebatu beharko luketela egiten ez dutena egiten (esango nuke, bai ebakeraren aldetik eta bai oharmenarenetik ere, yeismoarena baino arazo errazagoa dela, ez nolanahikoa halaz ere).

z/s bereizkuntzarik gabe ere ez dator gaizki gogoratzea "z" [s] (zistukaria) dela euskaraz. Hain zuzen ere Batzorde honen helburutzat dugu ahoskera batu ikasiaz gain letraren eta erdaren eragina dagokien neurrira moldatzea (*soziolinguistiko, eskizofrenia, esplizitoa* –bat ez beste, Euskaltzaindiaren biltzarrean ahoskatu dira gaztelerazko ahoskeraz).

<x> [ʃ] (*xagu, xoxo* eta *Xabier*):

Arazorik egotekotan, mailebuetakoarekin sortuko litzateke, *taxi* eta *sexu* bezalakoekin, alegia. [ks] ebakera bere horretan uzteari ez deritzot gehiegizko. Izan ere, horretan bat datoz gaztelera eta frantsesa, geure bi eragin zuzenenak ez dira, beraz, zatitzaile (ezta ere gero eta indar handiagoz ari den ingelesa). Egia da, haatik, zatitzaile ez izanik ere, menperatzaile balitekeela eta [ks] hots bilkura arrotza *zela* (behintzat) euskal fonetikan (edonola ere, forma kopuru txiki eta mugatuegia da desoreka handirik sortzeko.

[ks] bilkurarentzat euskararen historian izan den ordain bakarra [tś] da. Mitxelenaren ([1978] 1988: 345) hitzak hemen jasotzea aproposa iruditu zaigu: "Bada orapiloa mozteko modua, askatzen hasi gabe. Aspaldi asmatu zuten, *p* eta *k+s* rentzat, ekialdeko euskaldunek. Ikus, esaterako, zub. *atsolbü* "absoute", *atsülütoki, etsenplü, etsamina*, etc., oraintsu arte *x-* ekin idazten zirenak, *exai = etsai, eurixu = euritsü* bezalaxe".

Beraz, ausartzen denarentzat, bokalaurrean [tś]. Bestela, bere horretan utzi; [ś] ebakerak hizkera arduragabearen kutsua ematen dio ahoskerari eta beste hizkuntzetan ere gertatzen den ahoskera- erraztea besterik ez da. Bestela esan, zenbat hiztun daude jakinaren gainean *faxa* [fasa] ahoskatzeko prest? Halaz ere eta egia osoa esateko, cf. berriz ere Mitxelena *(loc. cit.)*: "(...) Orduan, *setsu* nahi ez badugu, esaterako, har dezagun *sesu* eta okerrenean ere *seksu*". Guk hemen proposatu lehenta-

sunen hurrenkera ez dator bat Mitxelenarenarekin (bera, dena den, idazkeraz ari da).

Kontsonante aurrean *(exportazio)*, [ś] proposatzen da ([eśportasio]) afrikatuen leuntzearekin *(huts/hustu, hotz/hoztu)* bat letorkeelarik (ik. beherago kontsonante elkarketez esana); ortografikoki ere hala da, gainera, Euskaltzaindiaren arabera hitz jator eta barneratuetan behintzat (*testu*, e.a.). Batipat hala da euskararen arau paradigmatikoen, morfema egitura baldintzen arabera (4).

Hitz azkenak, simetriagatik, kontsonante aurreari jarrai diezaioke, baina gogoan izan behar da kontsonante aurrean afrikatuak igurzkari egiten badira ere euakararen egituratze-arauen arabera *(hustu)*, afrikatua bere horretan gelditzen dela hitz azkenean *(huts)*. Gainera, hitz gutxi eta oso bereziak izanik honakook *(cortex, klimax)*, agian [kś] ahoskera proposa genezake.

Ohar bat hemen fonetika-fonologiaren hauziaz: nolabait [kś] hots unitatea sartzeak fonetika ikutzen du (hemendik inbentario fonologikora pasatzen bada ere) —gainera ez da horren berria afrikatuak fonetikoki baliakide direla kontuan hartzen bada eta *produkzio* [produksio] bezalakoetan hots bilkura berori badela. Kontsonante aurrean [kś] ahoskera normaltzen badugu, zilegiztatzen dugunak hizkuntzaren bilakabide fonologikoak ikutzen ditu (kasu honetan *hitz-hiztegi* edo *utz-uztazu* egiten duena) eta hori hizkuntzaren barruragoko egiturak ikutzea da.

II.4. **Kontsonante bilkurak**

Proposatzeko moduko bilkura-ordezkatzeak (honako hurrenkera honetan):

II.4.1. Ozenen ondorengo zistukarien afrikatzeak gomendagarria dirudi, ahoskeraren indartzea den aldetik, oharmenaren onerako gertatzen diren ordezkatzeetakoa delako. Honelakoak hizkera zainduaren ezaugarri izan ohi dira. Ez ordea, gorago esan bezala (I.1) *egin* [ejn] bezalako ahultzeak (5). Beraz: *ireki zuen* [irekisuen], baina *esan zuen* [eśantsuen], Hz [erts] (txarrenean, [ertzio] baina ez [ersio]), [intśumisio], e. a.

(4) Ez ikusiaren egiten ari gatzaizkio hemen frantsesetik datozen [ks] bilkuretako bizkarkarien arazoari.

(5) Egia da askotan guretzat fonologikoki "zerbait" gertatze hutsak kutsu arrunta eta jatorra ematen diola hizketari (ez-zaindua, azken buruan), baina hau ez da berez euskarak hizkera zainduaren fenomenoak ez dituelako, baizik eta euskara hizketa zaindu eta jasoetan baztertua gertatu delako belaunaldiak joan, belaunaldiak etorri. Horrela, ahoskeraren oharmenerako garrantzi handiko den *stylistic shrinkage* gertatu zaio.

Noski, hau gomendatzeak ez du esan nahi ez betetzeak ([eśan suen]) hizketa arduragabeago egiten duenik (honelakoetan zerbait ez "egitea" –bilakabide bat ez erabiltzea– ez da inoiz arduragabetasunaren seinale izaten: bilakabide fonologikoak areagotu edota ugaritu egin daitezke hizkera maila jaistearekin batera, ez gutxitu).

Ordezkatze hau bat dator orain arteko idazkera ohiturekin (*pentsatu, unibertsitate, Frantzia*, e.a.) eta, batez ere, euskararen morfema egitura baldintzekin edo arau paradigmatikoekin (ez dago euskal egituretan kontsonante ozen+zistukari bilkurarik).

Pentsatu beharko genuke teoriaren aldetik gertaera arras diferentea (eta diagnosi zailekoa) den *ez zen* [etsen] ere gomendioetan sartu behar den ala ez. Litekeena da hiztunak afrikatze biak (s > ts) lotzea eta erabilterraztasunaren aldetik komenigarri izatea bien ahoskera gomendatzea. Gainera, ezezkotasunaren oharmenerako ere oso mesedegarri gertatzen da: alegia, *ez zen* [etsen] nabarmenagoa da ([sen]-etik urrutiago gelditzen da) [es:en] edo are [esen] baino.

Gai honetan aurrez aurre dugu batere araurik ez ematearen tentaldia, hiztun batzuek ez baitute afrikatzen. Baina nola hobe den, erabiltzaileen praktikarako, lehentasunen bat markatzea, aukeren pisu fonologikoa izan dugu erabakitzeko irizpide bakar eta, afrikatzeak oharmena errazten duelako, proposatu dugu aukera izanez gero egitea. Gainera ez da ahoskeraren aldetik zailegi gertatzen ere, euskalki guztietako hiztunek erabiltzen duten hots moeta baita afrikatua.

II.4.2. Era berean, asimilazioa bada ere, ebakeraren indartzea dakar herskari ahoskabeak nabarmenago baitira oharmenaren aldetik eta, beraz, gomenda genezake hizkera zaindurako: *ez da* [esta], *ez gara* [eskara]. Hemen kontuan izatekoa da gainera, honelako gomendiorik egiten ez bada, ia ezinbesteko egingo dela gazteleraren erara asimilazio atzekariaz ahoskatzea bilkurok (<ez da> [ezda]) (6).

II.4.3. Kontsonante aurreko afrikatuen igurzkaritzeak ez dio hizketari kutsu arduragabea ematen, arretazko eta zainduarena baizik: beraz, *hotz* [ots] baina *hoztu* [ostu], dagoeneko ortografiak jaso bezala, eta *urrats bat* [ura spat] kanpo-sandhia arautuaz (beti ere ebakerak hitzok nahikoa ellkartzen dituenean, noski).

Ordezkatze honen sailkapena zaila da. Lehen begiratuan, eta baita bigarrenean ere, ahultze itxura osoa du: ebakeraren ahultzea da afrika-

(6) Ahoskabetzeak, gainera, *baita* eta *baikara* bezalako aukera ortografikoekiko koherentzia gordetzen du (azkenok ahoskabetzearen aldetik hizkera zaindurako egoki, baina kenketarenetik eta gardentasun morfotaktiko eta morfosemantikoarenetik desegoki badira ere; baina berandu gabiltza horretaz ezer esateko).

tuak bere hersketa galduaz igurzkaria bakarrik ahoskatu eta entzutea. Gardentasun morfotaktikoa ere gutxitzen du ([os] urrutiago baitago [ots] baino *hotz* hitzaren barne-irudikatzetik). Bestalde, egia da, halaber, afrikatu+herskari bilkurak hersketa-igurtzi-hersketa elementu silabagilerik gabeko kontsonante egitura zaila dakarrela: ebakeraren aldetik zaila eta oharmenarenetik ere ez oso argia. Igurzkaritzeak silaba egitura leunduaz ez al du katearen elemendu guztien oharmena ere hobeki ziurtatzen? Bestela esan, ez al da [ostu] [otstu] baino katea garbiagoa entzulearentzat ere?

Gainera, ordezkatze honen alde esan behar da II.4.1-ekoak bezalaxe salbuespenik gabeko arau paradigmatikoa dugula euskaraz (morfema egitura baldintzak erabat errespetatzen dituela, alegia). Ez betetzeaz ere, II.4.1-ekoaz esana esan daiteke.

II.4.4. Ezezko partikularen zistukariaren galtzea ozenen aurrean: *ez naiz* [enajs], alegia. Hau, ordezkatze fonologiko bezala ahultzea bada ere, garbi dago egungo euskaran erregela morfonologiko dugula, ingurune morfologiko horretan bakarrik gertatzen dena eta ez dena indar fonetikoen arabera esplikatzen (ezta ere, beraz, baldintzatzen: cf. *esne, hizlari* eta abarren zistukari-ozen bilkurak). Garai batean erritmoaren eta beste zenbait ezaugarri prosodikoen araberakoa bide zenak ez du egun aldakortasun fonikorik. Honelako erregelak, onartuz gero, hizkuntzaren gramatikaren beste zenbait konbentzio bezala ikasi behar izaten dituzte hiztunek. Oso erraz ikasten eta desikasten dira, bestalde, honelako ahoskera arauak.

II.5. **Bokal-kontsonante harremanak**

Bustidura hautatu dugu bokal-kontsonante harremanen atal korapilatu honetan abiatzeko beste zenbait ordezkatze baino zabalera, orokortasun duelakoan.

<**il**> [il] ala [iʎ], [(j)ʎ] ahoskatzea proposatu?

Gogoan izatekoa da [il] ahoskatzearena irakats eta eska daitekeen kontua izanik (cf. oso bestelakoa den [ʎ] vs [ʃ, j]), arriskutsua izan daitekeela hizkera-maila zainduetarako hau proposatzea lekarkeen eraginagatik. Alegia, hizkera arduragabeagoetan ere palatalizazio bilakabidea indargabetzea. Hau bilakabide guztietarako egia izanik, bortitzagoa litzateke palatalizazioaren kasuan ez bustitzeak (*saila* [sajla] esateak) duen nabar-

mentasunagatik. Hau landu beharrekoa da estandarraren eredu-indarraz aintzakotzat hartzekoez hasieran esanagatik (7).

Oro har, hedadura eta sistemaren erregulertasunera joaz, proposatzen dira:

a) ozenak (<n, l>), bokalaren aurrean behinik behin, busti; aldakortasun estilistikorik gabeko asimilazioa den neurrian,

b) trabariak (<t, d, (t)s, (t)z>) adierazgarrietan bakarrik; asimilaziozkoak *(dittut, ixan)* beste hizkera mailetarako gelditzen dira (8).

Bestela leudeke, noski, berez asimilaziorik ez duten hiztunak, alegia lehen aipatu *despalatalizatzaileak*, ezin baitzaio hizkera zainduaren izenean inori eskatu ahoskera errazten duen ordezkatze hau egin dezan. Uste dut komeni dela, dena den, gauzak honela aurkeztea eta ez esatea biak, palatalizazioa egitea edo ez egiteak, berdin balio dutela. Mutur biak aipatzeagatik, esan dezagun ez dela berdin [mina] eta [bila], *botella* [botejla] eta *baño* [bajnu] egin dituelako, esaten dituena eta, besterik gabe, gaztelerazkoa beste sistema fonologikorik ez duelako [il], [in] egiten duena. Alegia, ez da berdin, euskal sistemaren bizitza eta bizitasunaren babeserako despalatalizazioaren ondorioa dena eta, besterik gabe erdal fonologiaren filtrazio (9) dena (hemen, despalatalizaziorik gabeko palatalizaziorik eza agertzen duten euskalki eta azpieuskalki bakoitzean aztertu beharko genuke zer den zer). Hona hemen proposamena eskematikoki aurkeztua:

Oro har: HIZKERA ZAINDUAN mina [miɲa], *bila* [biʎa], *ditu* [ditu], *izan* [isan], e.a. HIZKERA ARDURAGABEAGOETAN: [miɲa], [biʎa], [dicu], [iʃan] (euskalkiaren arabera).

Despalatalizatzaileek: *mina* [mina], *bila* [bila].

Tartekoek: *mina* [mina], *bila* [bila], *zaila* [sa(j)ʎa], *gaina* [ga(j)ɲa].

Gauza bat, dena den eta bada-ezpada: guztiontzat [sajla], [bila] proposatzeak, berez aldagarritasun estilistikorik ez duen bilakabide batekin

(7) Dagoeneko zenbaitek dotoreagotzat jotzen du <il> [il] bustidurarik gabeko ebakera, hitz horiei euskal usaia hartzen baldin badiete. Bestalde, kupirarik gabe egiten dituzte <llanta [fanta], pantalla [pantaja], llavero [faβero]> modukoak, *yeismo* eta guzti: izan ere, palatalizazioa debekatzeak ez dakarrelako despalatalizazioa.

(8) Hau ez da guztiz "zuzen" bizkaieretako <is> bustikuntzarekin, baina gehienok sistema erregular bezala duguna bestea da (alegia muga jartzekotan garbien trabari eta ozenen artean ikusten dela, xehetasunak xehetasun). Gainera bestela egiteak baliabide adierazgarriak kentzen dizkio *gixona* esatean *gizona* -z aparteko zerbait esan nahi duenari.

(9) Mimetismo zuzena (agian irakurtzen duen jendearengan) edo gazteleraren indarraren zeharkako eragin ahultzailea, alegia menpeko hizkuntzari berezko ordezkatzeak galarazten dizkiona.

tranpa egiteaz gain (baina batzuetan linguistikak politikari amore eman behar izaten dio) ez du yeismoarena konpontzen: ezkutatu egiten du; ez du [j] hots desalbokaria gure sistematik kentzen. Hor dago aspalditik hots hori *mendiya* esaten dugunon hizketan; hasierako <j>-rentzat proposatzen den eta askok erabiltzen duten hotsa ere berori da *(jan, Jasone).* Besterik gabe, [sajla] eta [bila] esanda, [j] hotsari aukera teoriko gutxiago ematen zaizkio azaltzeko. Horretarako ordaintzen dugun prezioa, ordea, euskal fonologian oso bizia den erregela kolpean hiltzea da. Gogora, berriz, fonetika fonologia baino axalekoagoa dela gure hizkuntzaren egituraketan (ik. II.3. atalean <x> kontsonante aurrekoaz esana).

III. AZKENIK

Hau guztiaren malgutasuna eta erlatibotasuna azpimarkatzeko, beste ohar bat proposatuez eta izan dezaketen hedadurari buruz (hedadura estilistiko, soziologiko eta gainerakoen inguruan): hierarkiak daude. Lehenengo: "z" idatzia [s] ahoskatu beharra (ez gaztelerazko hortzartekoa bezala) edonork edozein leku eta egoeretan onartzekoa eta erraz betetzekoa dela. Bigarren: zistukarien ondoan b, d, g ahoskabe ([p, t, k]) egitearena ere ez da zailegi, batipat *ez* elementuaren ondoren eta forma laburretan salbuespenik gabea espero genezake. Hirugarren: agian galduxeago dago eta berariazko ahalegin handia eskatzen digu zenbaiti (beraz ahoskera zainduenetarako gordeko dugu) <n>, <l> eta <h> (askorentzat letra soil, ez ingurune fonetiko) aurrean ez [e] ahoskatzea. Laugarren: are zailago, "j" guztiak [j] ahoskatzea; horregatik, hizkera zainduenetarako gelditzen da eta hor ere ez edozeinentzat agian (profesionalentzat, batzuetan behintzat, bai). Gainera, behin baino gehiagotan hizpide izan ditugun hitz horietan ezinezkotzat jo behar da: esatari profesionalek ere batzuek (Hegoaldekoek, oro har) [x]-ra eta beste batzuek [ ]-ra (Iparraldekoek) joko dute, adibidez, *erlijio* hitzaren ahoskeran (alemaniera estandarretan <r> batzuentzat (Ipar.) [R] dardarkari ubularra eta beste batzuentzat (Heg.) [r] apikaria den bezala).

Hemendik aurrerakoari irmo baina zuhur ekin beharko zaio. Zintzilik geratzen dira, orain arteko zuloez gain, zenbait atal oso-osorik. Uste dugu lana zabal, luze eta sakon egin behar dela. Datu bilketa eta azterketa sistematikorako lan taldea ezinbestekoa izango da. Egungo aurrerapen teknikoek ematen diguten aukera paregabeari ere atera beharko genioke etekina fonetikoki gertatzen dena jaso eta aztertzeko orduan, behingoz zehatz —eta ez belarriz eta ustez bakarrik— jakin dezagun zer nola ahoskatzen den.

Ikerlari lan-taldeak sortu eta bermatu behar dira, ikerketa proiektuak burutu. Emaitzak, bestalde, behar bezala zabaltzeari ere garrantziz-

ko deritzogu: hizlari profesionalak trebatzeko eta irakaskuntzarako ikastaroak antolatu behar dira, disziplina-arteko mintegiak antolatu beharko ditugu. Lana puska baterakoa dugu eta elkarrengandik ikasteko, asko.

BIBLIOGRAFIA HAUTATUA

DONEGAN, Patricia. 1985: "How learnable is phonology". *Natural Phonology from Eisenstadt.* Wolfgang U. Dressler / Livia Tonelli, eds. Padova: CLESP, 19-31.

HALLIDAY, M. A. K. [1985] 1992: *Spoken and Written Language.* Oxford University Press.

HURCH, Bernhard; M. Lourdes OÑEDERRA. 1987: "Euskarazko fonologiaren zenbait bilakabidez". *Euskal Morfosintaxia eta Fonologia. Eztabaida Gaiak.* Pello Salaburu Etxeberria, arg. Bilbo: UPV/EHU.

HURCH, Bernhard. 1988: Variation in Basque. Ms.

HURCH, Bernhard. 1988: "Is Basque a syllable-timed language?" *A.S.J.U.* XXII-3, 813-825.

HYMES, Dell H. 1960: "Phonological aspects of style: some English sonnets". *Style in Language.* Thomas A. Sebeok, ed. M.I.T.

LUELSDORFF, Philip A., ed. 1987: *Orthography and Phonology.* Amsterdam/Philadelphia: Benjamins.

MALKIEL, Yakov. 1984: "A linguist's view of the standardization of a dialect". *The Emergence of National Languages.* Aldo Scaglione, ed. Ravenna: Longo, 51-73.

MITXELENA, Koldo. [1968] 1988: "Euskararen batasun bideak". *Sobre Historia de la Lengua Vasca* II, 972-982.

MITXELENA, Koldo. [1978] 1988: "Euskal hitzen itxura eta jatorri ezberdinez". *Sobre Historia de la Lengua Vasca* I, 341-348.

OÑEDERRA , M. Lourdes. 1986: "Hizkuntzen fonologia". *Euskera* XXXI (2), 327-332.

STAMPE, David. 1985: "On the two levels of phonological representation". *Natural Phonology from Eisenstadt.* Wolfgang U. Dressler / Livia Tonelli, eds. Padova: CLESP, 131-142.

STAMPE, David. 1987: "On phonological representations". *Phonologica 1984.* Wolfgang U. Dressler et al., eds. Cambridge University Press.

XIII. BILTZARRA:

ADIERAZPENA

EUSKALTZAINDIAREN LEIOAKO *ADIERAZPENA*

Euskaltzaindiak, Leioan bildurik, 1994ko urriaren 3tik 7ra egindako XIII. Biltzarraren ondoren,

— Eskerrak eman nahi dizkie Biltzar honetan parte hartu duten hizlari, txostengile eta biltzarkide guztiei, aitortuz eskerga izan dela batzordekideen lana, eta batez ere batzordeetako idazkariena.

— Esker bereziak eman nahi dizkio Euskal Herriko Unibertsitateari, Biltzarra behar bezala egiteko erraztasun guztiak eman dituelako. Baita komunikabideetako kazetariei ere, hauei esker baitira orain Euskaltzaindiaren ekintzak ezagunago.

Eta honako hau adierazten du:

1. Biltzar hau beste urrats handi bat izan da batasunaren bidean, aurkeztu diren lanen mailagatik eta biltzarkideen artean sorturiko eztabaidengatik. Agerian utzi du, halaber, Arantzazuko eta Bergarako biltzarretan eta ondorengo urteetan egin lana zein emankor, mamitsu eta garrantzitsua izan den. Pozgarria da, orobat, horrenbeste jende eta hain toki desberdinetakoak, bildu izana.

2. Euskaltzaindiak erabakiak hartuko ditu hurrengo hilabeteetan hemen eztabaidatu diren gaiei buruz, bereziki gramatikari eta exonomastikari dagozkienei buruz. Bestalde. ahaleginak egingo ditu hiztegi batuari eta ahoskerari dagozkienak ere, egin arau, ahalik eta lasterren argitaratzeko.

3. Euskaltzaindiak oso gogoan izango du, orain arte bezala, euskalkiek eskaintzen duten aberastasun oparoa, hiztegikoa eta esaeretakoa, batez ere. Euskal Herri osoari, eta ez zati bati bakarrik, dagokion hizkera batua bultzatu nahi du, iraganetik belaunez belaun datorren hizkuntza ondarea zainduz eta premia berrietara egokituz. Arreta berezia jarriko du Espainiaren eta Frantziaren arteko estatu mugak sortzen dituen hizkuntza bereizketak gainditzen.

4. Euskaltzaindiak argi utzi nahi du euskal gizarteak eskatzen dionari erantzungo diola, beti ere hartarako behar dituen baliabideak eskuratuko dituen neurrian.

Leioa, 1994.10.07

XIII.BILTZARRA EGUNEZ EGUN

Urriaren 3an, astelehena

Euskal Herriko Unibertsitatearen Leioako campusean, ikasgela nagusian, goizeko 10.30etan, Euskaltzaindiaren XIII. Biltzarraren irekiera ekitaldia izan da.

Atarian Akademiak sortu zenetik argitaraturiko liburu eta aldizkarien erakusketa zegoen. Bilbao Bizkaia Kutxaren laguntzaz egindako katalogoak argitalpen guztiak biltzen ditu, urtez urte. Beste aldean, Euskaltzaindiaren argitalpenen saltokia prestatu da eta aldamenean biltzarkideei txartelak eta karpetak emateko bulegoa.

Aretoan 250 bat lagun ziren: euskaltzainez gainera, eskola maila guztietako irakasleak, itzultzaileak, euskara zerbitzuetako langileak e.a.

Mahaian jarri dira: Jean Haritschelhar euskaltzainburua; Juan Jose Goiriena de Gandarias Unibertsitateko errektorea; Juan M. Lekuona euskaltzainburuordea; Endrike Knörr Euskaltzaindiaren idazkaria; Jose Antonio Arana Euskaltzaindiaren diruzaina; Pello Salaburu Unibertsitateko euskararako errektoreordea eta euskaltzaina; Luis Villasante euskaltzainburu ohia; Pello Salaburu Euskararako errektoreordea eta euskaltzaina, eta Alberto Lopez Basaguren Unibertsitateko idazkari nagusia.

Ongi etorriko hitzak egin dituzte errektoreak eta euskaltzainburuak.

Ondoren, Luis Villasantek "Euskara batuaren filosofiaz" izeneko bere hitzaldia irakurri du.

Atsedenaldian Euskal Herriko Unibertsitateak hamaiketakoa eskaini die etorritako guztiei.

Gero, Pello Salaburuk "Biltzarraren ibilbideaz eta helburuaz: euskara batuaren egungo premiak" deritzan hitzaldia aurkeztu du.

Arratsaldeko 3.30tan, J. Haritschelhar eta J.M. Lekuona moderatzaileak zirela, Ibon Sarasolak "Euskaltzaindiaren gomendio-erabakiak (I)" izeneko hitzaldia irakurri du, puntu hauek erabiliaz: "Agiria euskal hitzei buruz", "Letra larrien erabilera", "Deklinabidea: bat / batzuk; nor / nortzuk", "Zenbakiak eta ordinalak", "Zenbait aukeraren zergatia: arabera, iritzi, baitu, aurrealde, usain, -zio, arazi", eta "Hau guztia, nornahi".

Atsedenaldiaren ondoren, honako jaun hauek egin dituzte galdera eta oharrak Ibon Sarasolaren hitzaldiaz: A. Eguzkitza, P. Uribarren, J. Haritschelhar, X. Altzibar eta X. Kintanak.

Gero txosten hauek irakurri dira: "Ortografia gomendio batzuei buruzko gogoeta" (J. Butron); "Ortografiazko arazoak: esploradore ala exploradore?" (M. L. Oñederra); "Zergatik gorde x letra maileguzko hitzetan" (M. Ensunza, J. R. Etxebarria eta K. Altonaga); "Bat / batzuk eta nor / nortzuk Euskal Herriko Hizkuntz Atlaseko datuen arabera" (K. Segurola eta Izaskun Etxebeste); "Laburtzapenen deklinabidea" (I. Zabala); "Laburdura sistema berezi bat. Konposatu kimikoen formulazioa" (J. K. Odriozola), eta "Euskaltzaindiaren gomendio-arauen idazkeraz: letra larriei buruzkoaren kasuan" (A. Elosegi).

Txosten hauetaz I. Sarasola, X. Kintana, J. M. Txurruka, E. Gerrikagoitia eta X. Altzibar izan dira ohargileak.

Urriaren 4an, asteartea

Goizeko 9.30tan hasi da saioa. P. Altunak eta P. Salaburuk moderatzaile betekizuna izan dute egun. Mikel Zalbidek "Euskaltzaindiaren gomendio-erabakiak (II). Hitz elkartuak: irizpide nagusiak eta banan-banako arauak" izeneko hitzaldia irakurri du lehenik. Honako puntu hauk erabili ditu xeheki: hitz elkartuen erabilpen eremua; hitz junturako hots aldaketak: hots legeak; lehen osagaiaren amaiera -a denean: galdu ala ez; berrelkarketa; bereiz idazteko hitz elkartuak; marrarekin idazteko diren hitz elkartuak; loturik idazteko diren hitz elkartuak; marrarekin edo bereiz idatz daitezkeen hitz elkartuak; marrarekin edo loturik idatz daitezkeen hitz elkartuak.

Hitzaldi honi buruz galderak egin dituzte X. Kintana, A. King, A. Lobera, X. Altzibar, A. Irigoyen, J. M. Txurruka, Juan Garzia, P. Telleria eta M. Azkaratek.

Atsedenaldiaren ondoren bi txosten irakurri dira: "Aditzoina Ioannes Leizarragagan" (E. Zulaika) eta "Bizkaieraren aberastasunetarik zeintzuk diren batuan sartu beharrekoak" (J. L. Goikoetxea).

Bi lan hauetaz galdegile izan dira Juan Garzia, A. King, Tx. Peillen, K. Garai, L. Fernandez eta E. Gerrikagoitia.

11.30tan Patxi Goenagak "Gramatikari buruzko proposamenak (I). Batasunerako proposamenak" deritzan hitzaldia aurkeztu du. Hauek izan dira Gramatika batzordearen eskutik datozen proposamenak: diptongoz amaitzen diren izenen deklinabidea; hori eta, hori edo eta horrelakoen idazkeraz; orduak nola esan; ezkero / -ez gero; zenbait aditzen erregimena (gonbidatu, iguriki, itxaron, itxoin, deitu); baldintzaren ondorioetako egingo nuen bezalakoak; betiko eta betirako; ekartzea merezi du; partitiboa baiezko perpausetan; egiteko asmoz,

egin asmoz; zu (izan) ezik; juntagailuei buruzko gomendioak; data nola adierazi, eta hiru kilo(ta)ko.

Elkarrizketan hauek izan dira partehartzaileak: J. M. Satrustegi, X. Kintana, M. L. Oñederra, Juan Garzia, E. Knörr, L. Baraiazarra, E. Gerrikagoitia, J. R. Etxebarria, A. Irigoyen, K. Alkorta eta Tx. Peillen.

Arratsaldeko 3.30tan Patxi Altuna izan da hizlari, "Gramatikari buruzko proposamenak (II). Okerrak zuzenduz" tituluarekin, egun hedatzen ari diren badaezpadako zenbait esamoldez. Hitzaldian, besteak beste, honako puntu hauek erabili ditu Altuna jaunak: honezkero / dagoeneko; iraun, balio eta beste zenbait aditz; *bost durotan garestitu; *topikoa bihurtu; *hobe esan / hobeto (hobeki) esan, * elkar ondo moldatu, e.a.

Ondoren, jaun hauek parte hartu dute eztabaidan: A. King, A. Eguzkitza, Juan Garzia, J. L. Goikoetxea. K. Garai eta X. Altzibar.

5etan Beñat Oihartzabalek aurkeztu du bere hitzaldia, "Erregulartasuna, bai/ez; tradizioa / oraingo hedadura; -i bai ala ez (niagok / nagok); nagok / negok eta zagok / zegok; zabilak / zabilek; ditiat / dizkiat; niake / nikek".

Lau izan dira ondoko eztabaidan mintzatu direnak: A. King, A. Eguzkitza, Juan Garzia eta A. Irigoyen.

6.15tan lau txosten irakurri dira: "Hitanoa non eta nork erabiltzen duen" (X. Alberdi); "Neurtu aditzaren erregimenaz" (I. Azkune); "Neurtu aditzaren erregimenaz" (Julio Garcia, M. Ensunza, J. R. Etxebarria eta K. Altonaga), eta "Hitanoa ahozko hizkuntzan Euskal Herriko Hizkuntza Atlasaren Arabera" (G. Aurrekoetxea).

J. R. Etxebarria izan da geroko eztabaidan parte hartu duen bakarra.

7.30tan, Leioako Eskola Musikan, ekitaldi bat egin da, Udalak Euskaltzaindiaren omenez antolaturikoa. Lehendabizi, Miguel Angel Ariño alkatea mintzatu da, Euskaltzaindiaren lana goraipatzeko. Ondoren, Udal Euskaltegiko burua den Jon Markaidak ikastetxe honen berri laburra eman du. Gero, Jose Ignacio Sarria jaunak, Musika Eskolaren zuzendariak, gauza bera egin du bere ardurapeko ikastegiaz. Mintzaldi honen osagarri, Jose A. Arana Martijak iruzkin batzuk erantsi ditu, musikaren irakaspenaz bereziki, eta Sarria jaunarekin batera egindako lanaren gainean. Ondoren, Jean Haritschelhar euskaltzainburuak Akademiaren esker ona agertu dio Udalari harrera ekitaldi atsegin honengatik. Gero, Musika Eskolako sei ikaslek kontzertu bat eskaini dute. Azkenik, bildutakoak beheko solairura joan dira, ahamen bat jatera.

Urriaren 5ean, asteazkena

Goizeko 9.30tan hasi da orobat egungo lana. Moderatzaileak B. Oihartzabal eta M. Azkarate izan dira.

Lehen hitzaldia M. Azkaratek eman du, "Hiztegigintza (I). Eratorpenaz" tituluarekin. Zenbait atzizkiren tradiziozko erabilera eta azken urteotako desbiderazioak aztertu ditu, adibidez: -ari / -kari; -ar / -tar; -go(a); -garri; -kor, e.a.

Ondoren, biltzarkide hauek mintzatu dira: E. Knörr, P. Urkizu, X. Altzibar, E. Gerrikagoitia, L.M. Mujika, A.M. Aldekoa-Otalora, J. Ibarra eta P. Charritton.

Atsedenaldiaren ondoko saioan bi txosten irakurri dira: "Mitxelenaren zine kritiketako hitz elkartuak" (E. Perez Gaztelu) eta "Mitxelenaren zine kritiketako hitz eratorriak" (M.L. Telletxea eta E. Perez Gaztelu).

11.30tan I. Sarasolak hitz egin du. Haren hitzaldiak "Hiztegigintza (II). Aztergai sistematikoak eta irizpideak" zuen izena. Hiztegi Batuko batzordearen oraindainoko lana eta irizpideak izan dira Sarasola jaunaren aztergaiak.

Eztabaidan P. Urkizu, E. Gerrikagoitia, P. Uribarren, J.R. Etxebarria, A. Eguzkitza, P. Altuna. E. Perez Gaztelu, A. Irigoyen eta M. Azkaratek hitz egin dute.

Txostenen sailean hauek aurkeztu dira: "Hiztegi Batuaren datu-base lexikografikoa" (J.A. Aduriz eta Miriam Urkia) eta "Noiz g(e, i) eta noiz j(e, i) latinetiko mailegu berrietan" (J.A. Mujika).

Eztabaidan X. Kintana, P. Urkizu, K. Garai. E. Gerrikagoitia, G. Palazio eta A. Irigoyenek egin dituzte galdera-oharrak.

Arratsaldeko 3.30tan hiru hitzaldi irakurri dira: "Euskal estrofez" (Juan M. Lekuona), "Bertso lerroa" (P. Altuna) eta "Puntua bertsolaritzan" (Pello Esnal).

J.R. Etxebarria, L.M. Mujika eta Tx. Peillen izan dira geroko eztabaidan partzehartzaile.

Ondoren, bi hitzaldi aurkeztu dira: "Hiztegi teknikoak" (A. Sagarna) eta "Hiztegi juridikoa" (A. Urrutia).

E. Gerrikagoitia, J.L. Lizundia, A. Lobera. J. Erize, J. Zabaleta eta Tx. Peillen mintzatu dira eztabaidan.

Urriaren 6an, osteguna

J.A. Arana eta E. Knörr izan dira egun moderatzaileak. 9.30tan E. Knörrek egin du exonomastikaren gainean Onomastika batzordeak burutu duen lanaren aurkezpena. Xabier Mendigurenek eman du ondoren hitzaldia, "Exonomastika (I). Batzordearen proposamenak, historia eta irizpide nagusiak" deritzana.

Eztabaidan biltzarkide hauek hartu dute parte: G. Palazio, E. Gerrikagoitia, J. Ibarra, I. Sarasola eta P. Charrittonek.

Txosten hauek irakurri dira gero: "Kultura-hitzak euskaraz eta nomina exonomastica scribendi forma in lingua uasconum" (A. Irigoyen) eta "Transliterazio taulez" (I. Irazabalbeitia).

Oharrak eta galderak E. Gerrikagoitia, A. King eta K. Garaik egin dituzte.

Atsedenaldiaren ondoan Iñaki Irazabalbeitiak eman du "Exonomastika (II). Munduko estatu eta hiriburuen izenak eta munduko akzidente geografiko nagusiak" izeneko hitzaldia.

Hitzaldiaz jaun hauek egin dituzte galderak eta oharrak: I. Sarasola, L. Fernandez, A. King, P. Charritton, Tx. Peillen, A. Mujika, E. Gerrikagoitia eta X. Kintanak.

3.30tan hasi da arratsaldeko saioa. Lehendabizi, Xabier Kintanak aurkeztu du bere hitzaldia:"Exonomastika (III). Ponte izenak eta Espainia-Frantzietako eskualde-probintzien eta Europako toponimia historikoa".

Tx. Peillen, I. Sarasola, A. Irigoyen eta P. Altunak parte hartu dute eztabaidan.

G. Bilbaok irakurri du bere txostena, "Latin jatorriko izen bereziak euskal idazleetan". A. Irigoyenek egin ditu txosten honetaz ohar batzuk.

5etan mahai ingurua izan da, titulu honekin:"Euskara batua eta komunikabideak". J.M. Satrustegi izan da moderatzailea, eta M. Atxaga, A. Aranburu, P. Petrirena, I. Etxebarria eta J. Aranzabal mahaikideak.

Eztabaidan hauek izan dira ohargileak: J. Zabaleta, J.L. Lizundia, J.M. Txurruka,

Azkenik, zenbait txosten irakurri dira: "Hiribarrenen Eskaldunak poemako izen bereziak" (A. Boneta); "Nafarroako toponimia nagusia. Arazoak" (P. Salaberri); "Aditz modalen erabilpena dela eta" (A. King) eta "Izen arrunt bizigabeen toki-denborazko deklinabide kasuak Hegoaldeko parte batean" (M. Kaltzakorta; beronek Biltzarrera ezin etorririk, J.M. Elexpuruk irakurri du lana).

Eztabaidan E. Knörr, J. Erize, B. Oihartzabal, A. Irigoyen, Tx. Peillen eta A. Kingek hitz egin dute.

Atsedenaldiaren ondoren, Nestor Basterretxea eta Fernando Larruquert-en Ama Lur filma (1968) eskaini da. Aurkezpen hitz batzuk egin ditu lehenik Euskal Filmategiko burua den Martin Ibarbia jaunak.

Urriaren 7an, ostirala

J.M. Satrustegi eta X. Kintana moderatzaileak zirela, 9.30tan hasi da, aurreko egunetan bezala, lehen hitzaldia. Jose Ignacio Hualderen "Ahoskera (I). Azentua eta euskara batua" izenekoa zen, Iñaki Gamindek irakurria.

Eztabaidan Tx. Peillen, E. Gerrikagoitia, J.M. Etxebarria, J.L. Goikoetxea, K. Garai, K. Rotaetxe eta B. Oihartzabal mintzatu dira.

Hauek izan dira ondoren aurkezturiko txostenak: "Hitz pareak" (P. Altuna) eta "Euskararen normalizazioa eta linguistika konputazionala" (I. Aduriz, I. Aldezabal, J.M. Arriola, X. Artola eta M. Urkia).

Eztabaidan P. Charritton, A. Irigoyen eta B. Uraga mintzatu dira.

Atsedenaldiaren ondoan, M. Lourdes Oñederrak eman du hitzaldia:"Ahoskera (II). Ahoskera baturantz?".

Eztabaidan I. Sarasola, A. Eguzkitza, X. Altzibar, K. Rotaetxe, E. Gerrikagoitia, M. Gorrotxategi, B. Oihartzabal, Juan Garzia eta I. Etxebarriak parte hartu dute.

Bazkal ostean azken saioa izan da: "Euskara batua eta literatura kreazioa". Mahaikideak A. Lertxundi, A. Eguzkitza eta Joserra Garzia izan dira, eta I. Sarasola moderatzailea.

Galderak Tx. Peillenek eta X. Kintanak egin dituzte.

Gero, atsedenaldi baten ondoren, Biltzarraren amaiera ekitaldia egin da. Hasi baino lehen, ordea, Aurten Bai Fundazioak Euskaltzaindiari buruz prestatu duen videoa erakutsi da. Txalo jo du jendeak bukatzean.

Mahaian J. Haritschelhar euskaltzainburua; J.M. Lekuona euskaltzainburuordea; E. Knörr idazkaria; J.A. Arana diruzaina; P. Altuna Euskara batuko batzordeburua eta Pello Salaburu Euskara Batuko batzorde-idazkaria jarri dira.

Lehendabizi, XIII. Biltzar honen adierazpena, euskaltzainek egungo batzarrean aho batez onartua, irakurri du E. Knörrek. Gero J. Haritschelharrek Euskaltzaindiaren poza agertu du, Biltzarrak zituen xedeak osoki bete direlako. Akademiaren esker ona agertu du orobat euskaltzainburuak: Euskal Herriko Unibertsitateari lehenik, Euskaltzaindiaren langileei ondoren, komunikabideei hirugarrenik, eta, azkenik, Biltzarrean parte hartu duten hizlari eta entzule guztiei.

Eta arratseko zazpirak zirela bukatu da Euskaltzaindiaren XIII. Biltzarra.

Endrike Knörr,
Euskaltzaindiaren idazkaria